

WHEROKO

MEZA

KERE-
XETA.

NIHIL OBSTAT

Dr. A. Cruz de Omaetxebarria


Gensor Eccl,

IMPRIMATUR

f PAULUS, Epiacopus Flaviobrigensis
Bilbao, 17 Aprilis 1962

Depósito Legal: BI 1.546 - 1963

GRÁFICAS ELLACURIA - BILBAO



ITZAURRE-ANTZERA

Indar batek eraginda nato?kizu, irakurle, EGU-
NEROKO MEZA deritxon Ziburtu au gure antxiñako
euskeraz .atontzean: gure Eliza Ama deunaren as-
j^oak bete. Emen, bestela, XII'garren Pio Aita San-
tuak "Mediator Dei" izeneko Entziklikan diñoana:
«Txalogarri dira benetan, Eukaristi-Oparian bai egi-
tea kristau-erriari errazago ta onurakorrago izan da-
kion, erriaren eskuetan "Meza-liburu Erromatarra"
egokiro jarten alegiñak egiten dabezanak; orreia,
gliztar zintzoak, abadeagaz alkaturik, Elizaren itz
eta asmo berberakaz oíoi egin dagien».

Baiña gure erriak, Bizkaia'k, ez dau euki orain
arte Aita Santuak aitatzen dauan Meza-liburu ori; ía
utsune ori beteteko argifaraíu ía jarten dot zure es-
ku^etan EGUNEROKO MEZA liburu au, oraintsu egin
^dian aldakuntza barrien eratara atonduta.

Biej^az, mundu zabalean BIZKAIERAZ itz egiten
daben guztiai eskintzen dautset gure Eliza Amak ain
jjiiaite dauan idaati au, ía biotz-biotzez eskiñi be.

Euskerari buruz, barriz, ezin eder egin daikeoet
guztiai: batzuek euskera iandua dakie, beste baizuek
ez; urliak euskera garbia nai dau, berendiak orren-
beste be ez. Ta, zoriíxarrez, geienak ez dabe artu
íñoiz eskuan euskerazko gramatíkarik, efa, beraz, ez
dakie esaera bai zuzen ala oker dagoanik. Eskerrak,
orraiíño, gure erriak bere joskera jatorra galdu ez
^dualako!

Gaitz, benetan, guztien gogoa betetea! Alan be bide bakarra artu dot: bai mordoillokeritiik, bai garbikeritiik alde egiñik, erdiko bideetik joatea. Bes-tetara ekitea, barriz, gaur euskeraren kontra egitea dala usíte dot.

Beste onenbeste diñot itzai buruz be. Esate ba-terako: **aintza** itza irakurtean, batzuk "aitarenka" asiko yataz, **ospe** naiz **gora-pen** jarri ez dodalako. Erabili, irurok darabildaz; baiña aintza erderazko S'Ioria dana, urteak dirala dakigu, umetan Kristau -Ikasbidean ikasita: Aintza Aitari, ta Semeari...

Arnari, erderazko **fcuto** dala, ez dala... ez ausi astirik alperrik: Elorrio-inguruetan guztiak dakie ortuak dakarrena ortu-aria dala. (Beraz, soloan batzsn dana, **solo-ari** izan bear). Arrigarriak egingo litzakez urte batzuen barruan umeai eskoletan euskeraz irakatsi ezkeri! Laster garbituko litzakez eztabaida guz-tiok egiñaren arauz. Nok ez daki gaur **abestu** ía abesti, kantau ía kanta diranik?

Gaiñera —linguista guztiak diñoenez—, ez dira berbak izkuntzari bizitza emoten dautsenak, **joskera jatorra ía gramatika** baiño. Gramatika da edozein izkuntzaren arima. Ez, ostera, edozelan asmatutako gramatkarik, erriaren izkera jatorra oiñarriztat daukan gramatika baiño. Eta errian sendo sartuta dagozan itzak —len zuzen sortuak izan ezarren, naiz erderatik etorriaren—, edonoiz erabilteko eskubids oso+osoa dago, bai berbetan bai idaztez.

Itz ulergaitzak eta gutxi-erabiliak, barriz, azpian daroe biurpena.

Alan be, ba-leiteke guzti-guztiak ez ulertzea: gu-txiago oraindiño, bakoit&ak norb&re aldetik ikasteko alegiñik ez ardurarik jarri ezik, gure erriaren nortau-
berarizkoena euskeragan egonarren.

Eta besterik ez.

Zerurako bide izan dakizula, irakurle zintzo orri.

KEREXETA'TAR JAIME



OTOITZAK

GOIZEKO OTOITZAK

' Gurutze santuaren j- seiñaleagaitik gure j- a-
rioakandik zaindu gaizuz, f geure Jaun eta Jaungoi-
#oa. Amen.

Aitaren, eta Semearen j- eta Espiritu Santuaren
izenean. Olantxe.

Aita gurea, zerueta zagozana: santifikatu . bedi
zure izena; betorkigu zure erreñua; egin bedi zure
borondatea zeruan lez lurtean be. Emon egiguzu gaur
geure eguneroko ogia; parkatu egiguz gure zor.rak,
geuk gure zordunai parkatzen daufeguzanez; eta
ez gagizuz itzi tentaziñoan jausten, gaitzetik jagon
baiño. Amen.

Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zugaz; be-
deinkatua zara zu andra g-uztien artean; eta be-
deinkatua da zure sabeleko fruitua. Jesus.

San-ta Maria, Jaungoikoaren Ama: erregutu egi-
zu gu pekatarioren alde orain eta geure eriotzako or-
duan. Amen.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan.
Amen.

Sinisten dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru
I -lurren egillea. Sinisten dot Jesu-Kristo, bere Seme
bakar gure Jauna, Espiritu Santuaren egiñez sortu

ta Maria Birjiñagandik jaio zana; Pontzio Pilato'ren menpean nekaldua, gurutzean josia, illa ta obiratua izan zana; inpernuetara jatsi ta irugarren egunean illen artetik biztu zana; zeruetara igo ta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean jarrita dagoana; andik biziak eta illak epaitzera etorriko dana. Sinisten dot Espiritu Santua; Eliza Santu katolikua; Santuen alkartasuna; pekatuen parkamena; ildakoen biltzura, ta betiko bizitza. Amen.

Jesu-Kristo neure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egille ta Salbatzaillea, zarana zara ilako eta on utsa zaranez, gauza guztiak foaiño maitago zaitudalako, baita inpernuko oiñazez zigortu naikezulako be, damu dot, Jauna, damu dot Zu iraindua. Zure grazi zerutarrak lagundurik, asmo sendoa artzen dot ez geiago pekatu egiteko, autor-tu ta oben-nekea beteteko. Amen.

EGUNAREN ESKINTZA

OTOITZA.—Egun oni asiera emoteraiño ekarri gozuzan Jaungoiko Jaun alguztiduna: emon eiguzu indarra, gure itz, gogorakizun eta lan guztiak, ezetan okenbu bagarik, zure lege-bidean beti joan daitez. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesu-kristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.

JESUS'EN BIOTZARI

Neure Jesus maitea, Maria'ren Biotz garbiaren birtatez, gaurko eskari, neke ta egiteko guztiak eskintzen dautsudaz, egiten yatzuzan iraiñen ordezt, ta zure Biotz santu orren asmo guztietarako.

ANDRA MARIA'RI

Ene Ama maitea, oso-osorik eskintzen dautsut neure tourua: zeuretzat nire toegi, toelarri, miin eta biotz. Osoan zeurea nazan ezkerro, zeure gauza ta ondasun lez zaindu ta gorde nagizu, arren. (*Iru Agur Mari.*)

JOSE DOATSUARI

Esan eziñalako arduraz, Jose doatsua zure Ama gurtiz deunaren senartzat aukeratu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, arren, lurrean zaindari dogun ezkerro zeruan bitarteko izan daigula. Olantxe.

INGERU JAGOLEARI

Jaunaren aingeru ta nire zaintzaille on ori, zagoz nire alde; ez ni bakarrik itzi, galdu ez nadin; gau ta egun argitu, zaindu ta lagun zakidaz.

AGUR MARIAK (*Angelus*)

A.—Jaunaren aingeruak Maria'ri iragarri eutsan.

E.—Eta Espiritu Santuaren egiñez Ama egin zan.

Agur Maria...

A.—Ona emen Jaunaren miratoea.

E.—Egin bedi nigan zeuk diñozunez.—*Agur Ma-*

ria...

A.—Eta Jaungoikoaren ISemea gizon egin zan.

E.—Eta geure artean bizi izan zan.—*Agur Ma-*
ria...

A.—Otoitz egizu gure aide, Jaungoiko'aren Ama done orrek.

E.—Kristo'ren agintzariak jadetsi daikeguzan.

OTOITZ/A.—[^]Isuri egizu gure arim-etan, Jauna, zure grazia: Aingeruak iragarrita zure Seme Kristo gizon egin zala jakin genduan ezkerro, bere nekaldi ta eriotzagaitik, Ibiztuta |zeru ederrera eldu gaitzezan. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez. Olantxe.

JAUNARTZEA

Meza-emoilleagaz bat egiten dozenez Aita Jaun-goikoari altarako Oparia eskintzean, beragaz batera be Jauna artu egizu zure barruan.

Ogi ta ardaoaren itxurapean Jesu-Kristo berbera artu! Zer gauza aundiagorik eta ederragorik? Antxe aurkituko dozu pekatutik iges egiteko indarra lentaziño-aldietan bear dozun kemena.

Orretarako, ez dautsu neke aundirik eskatsen gure Eliza Ama deunak: arimaren aldetik, pekatu astun bagarik, asmo zuzenez eta gogo beroz urreratu bear dozu. Gorputzaren aldetik, barriz, auxe da Jaunartzeko bear dan baraua: iru ordu lenagotik ezer jan eta ardao-gauzarik edan bagarik egon, eta ordubeta lenagotik ezer edan bagarik; urak ez dau barauu austen.

Jaunartze-aurretik, ekarri gogora nor artzen dozun zeruko Ogi orretan, zu nor zaran, zegaitik datorren, eta zetara datorren. Jaunartzerako gertakera onena, MEZA-EMOILLEAGAZ ALKARTZEA DA, MEZA-OPARIARI JARRAITUEZ, Mezako otoitzen' bidez. Orretarakoxe dozu EGUNEROKO MEZA-LIBURU AU.

Jaunartze-ostean

Zagoz ixilik, zure Jauna zeure barruan dauka-zu-ta, Jesus, oso maite ta kutun, seunea dozu. uste osoz eskatu egiozu bear dozun guztia; ez dautsu ezer ukatuko. Eskatu zeuretzat, guraso, senide, adiskide-entzat,- eskatu pekatarien al&e, Aita Santuaren alde, baita zure arerioen alde be; il-agiñean dagozanak eta garbitokiko arimak be gogotan izan.

LOIOLA'TAR IÑAZIO DEUNAREN OTOITZA

Kristo'ren arima, santutu nagizu. .
 Kristo'ren Gorputza, salbau nagizu.
 Kristo'ren Odola, asetu nagizu.
 Kristo'ren saietseko ura, garbitu nagizu
 Kristo'ren Nekaldia, indartu nagizu.
 Ene Jesus ona, entzun nagizu.
 Zure zauri-barruan gorde nagizu.
 Zugandik alde egiten ez egidazu itzi.
 Arerio gaiztoagandik zaindu nagizu.
 Nire eriotzaldian dei egidazu.
 Eta Zeugana joateko agindu egidazu,
 Zure Santuakaz betikotasun osoan
 Zu goratu zagidazan. Olantxe,

OTOITZA.— Artu egizu, Jauna, nire eskubide osoa, baita nire gomutamen, adimen eta naimen guztia be. Daukadan eta dodan guztia Zeuk emon zeustan, eta zeuri biurtzen dautsut; zeurea dozu, ta naien dozenez erabilli egizu. Zeu maite izatea ta zeure grazia emon egidazu, ta naiko dot.

JESUS GURUTZEMOARI (bere irudi-aurrean).— Ona emen ni, Jesus on eta gozoa, zeure aurrean auzpe eta belauniko; gogorik bizi ta gartsuenaz eskatzen dautsut: nire ibioitz oni sini&men, itxaropen eta maitasunaren sua, nire pekaituen egiazko damua eta eurretan aurrerantzean ez jausteko erabagi sendoa ezarri dagiozula. Nik, bitartean, maitasun aundiz eta damu zintzoz, zure toost zauriak gogora ekarri ta ausnartzen dodaz; Dabid igarleak, ene Jesus ona!, Zutaz esan eban au neure gogoan dodala: «Nire esku ta oiñak zulatu, ta nire azur guztiak zenbatu egin dabez».

ANDRA MARIA'RI.— Biurtu nigana zure begiok, Maria Birjiña goragarri orrek!, orain zure begien atsegin-poza egiñik nago-ta. Eskatu nire alde zure Seme maite-maiteari, bere gorputz-odol osasungarria jan-edariz emon daust-eta. Eskiñi egiozuz zeure irabiaz nire utsegite ta berrizan aundien orde. Eskerrak emon egiozuz nire izenean, eta mesede bariak eskatu. Nire gorputz eta arima bere graziz eta mesedez bete bagarik ez daitela nire biotz-barrutik joan. Olantxe.

EGUN BITARTEKO OTOITZ BATZUR

Egoki ía oso onurakor izango litzakizu, Meza-aurrean naiz ostean, gutxienez ordu laurenen baten Gogo-otoitza edo meditaziñoa egitea. «Ordu laurenen bat egun oro gogo-otoitzari ekiozu, ta zerua zeurea dozu», diño Teresa deunak.

Baita ona be ona dozu egunaren barruan arimari dagokiozan gaiak irakurtea be. Orretarako, emen jarten dautsudaz liburu batzuk:

Bizkaieraz:

Argi Donea (**Batzola-Eguzkitza**).

Geroko bizitza (**Ibargutxi**).

Otoia (**Ibargutxi**).

Kristiñau-Ikasbide-Azalpena (**Ibargutxi**).

Gure Meza Deuna (Parsch-Zarate).

Gurutzaren oiñetan (**Nekalditarrena**).

Patima'ko Ama (**A. Goiria**).

Berrio-Otxoa (**A. Goiria**).

Santa Maria Goretti (**A. Sorarrain**).

Goi-zale (Kristo'ren Antz-bidea) (**A. Pi**).

On-bidea (**A. Onaindia** ta **A. Akesolo**).

Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (edo Ebanjelioak) (**Kerexeta**).

Apostoluen Egiñak (**Kerexeta**).

Gipuzkeraz:

Otoitz-bidea (**A. Mamtzizidor**).

Santu-bizitzak (**A. Mamtzizidor**).

Bizi (**Arami-Irigoien**).

Goi-argi (**A. Villasante Kortabitarte**).

Elurra ta sua (**A. Basilio**).

Andra Mari Euskalerrri'ko mendietan. (**A. Emiliano**).

Andra Mari gaztediaren eskuetan (**A. Emiliano**).

Aitorkizunak (**Orixo**).

Idazteuna (edo Biblia) (**A. Olabide**).

Lapurdieraz:

Gero (Axular).

MAIA BEDEINKATZEKO

Jan aurretik esateko.—Bedeinkatu gagizuz, Jauna; baita zure esku zabalari eskerrak, orain artu bear doguzan janari oneik be.—*Aita Gurea, Agur Maria, ta Aintza Aitari.*

Zeruko Errege aundiak ango maian batu gagizala.

Jan-ostean.—Eskerrak daimotsuguz zeuri, zeure mesede guztien alderako, amaibagako egunetan Errege bizi zaran Jaungoiko alguztidun orri. Olantxe.—*Aita Gurea...*

A.—Jaungoikoak bere bakea emon daiskula.

jj E.—Eta gero betiko bizitza.

LANA ASTEAN

Jauna, lan au zeuri eskintzen dautsut; bedeinkatu egizu, arren.

ILLUNTZEKO OTOITZAK

Ogera baiño len, ez aztu iñoz be, egun bitartean artutako mesede aundiafcaiiífic eskerrak emoteaz. Aztertu zeure barrua, ta ikusi zetan uts egin dozun; damutu biotzez, ta asmo sendoa artu aurrerantzean pekatulik ez egiteko.

Otoitza.—Eskerrak zeuri, Jesukristo neure Jaun orri, gaur egin daustazuzan mesede guztien alderako. Zeuri eskintzen daubsut lo au, baita gau-aldi osoa be; zaindu ta gorde nagizu pekatutik. Orretarako, seure saiets santu barrua sartu nai dot, eta Maria Birjiña neure Ama gozoaren xnalgalpean gorde. Begoz emen neugaz Aingeru santuak, ni bakean zaintzen; eta betor nigana zure onspena.

Jesu-<Kirsto neur'e Jauna, 10 orri.

Jesus, Maria, Jose: zeuentzat nire biotz eta arima.

Jesus, Maria, Jose: eriotzaldian lagun zakidaze.

Jesus, Maria, Jose: gau onetan gorde nagizue.

Aingeru jagoleari. — Jaunak sortzetik laguntzat emondako Aingeru santua: argitu, zaindu ita gorde Ciagizu.

Garbitokiko arimen alde, (*De profundis.*) Barrenbarrenetik egiten dautsut dei, Jauna: emtzun, Jauna nire deadarra.

Biurtu zure belarriok nire otoi-deira.

Gure gaiztakeriak gogoan artu ba'dagizuz, Jauna nor egongo da zutik zure aurrean, Jauna?

Baiña Zu, Jaun ori, bioitz-samur zara-ta, zeure legea dala bide, Zeugan dot nire itxaropena.

Egusentitik gaberarte, itxaron begi Israel'ek Jaunagan.

Jaungoikoa guztiz errukiorra da-ta; bere parka-mena, barriz, guztiz ugaria.

Eta Berak askatuko dau Israel gaiztakeri guztietatik.

Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena: ta betiko argiak argi egin begie.



MEZA DEUNA

MEZA, ZER DA f Eliza Ama Deunak auxe irakasten dausku: Jesukristo'k bere gorputz-odolez, ogi ta 'urdao irudipean, Aita Jaungoikoari eskintzen dautsan 'oparia dala.

Ba-ziran Lege Zarrean be opariak: abere, ogi, ardao, orio, ta abar, Jaungoikoari eskiñiak. Kristo'k, ostera, areik kendu ta beste barri bat jarri euskun, berberak Zeruko Aitari gurutzean eskiñitakoa.

Meza ta gurutzeko oparia, barriz, gauza bat baiño ez dira. Jesukristo'k gurutzean bere burua, gorputz eta odol, eskiñi eban; altaran be, bere gorputza ta odola eskintzen dau, meza-emoillearen bitartez. Bera da, bai an ta bai emen, eskintzaille ta opari.

Gurutzean opari odoltsua isan zan,- altaran ez: emen ez dau Jesukristo'k adolik isurten. Gurutzean BeraJc bakarrik eskiñi eban opari baliotsua gizonen onerako; altaran, meza-emoilleari emoten dautsaz bere indarra ta abotsa. Gurutzea gorritu eban Odol bikaña, altarako edontzi edo kalizan daukagu orain-, Jaungoikoaren Gorputza, gurutzean josi ta eskiña, ona-orain, oial zuri gaitzean. Opari goitar, egijik...

2). Pekatu-iraiñak ordaintaeko.—Gizona, vekatu giñiez, zordun egiten da Jaungoikoaren alderako. Eta, nok zor ori kitatuf Pekatu astun bataz Jaungoikoari egitiko iraiña ordaintzeko, Santu guztien egintza onafce e ez dira naiko. Jaungoikoak bakarrik ordaindu iaike, ta orixe egiten dau Jesukristo'k Meza santuan.

3) Eskerrak emoteko.—Jaungoikoari zor dautsagu yuztia: arima, gorvutz, bizi, osasun, eguneroko esker ita mesedeak. On guztiokaitik eskerrak emoteko, Meza santuko Oparia dogu era ta biderik egokiena ta zuzenena.

i) iftisede barriak eskatzeko. — Pekatuan jausi ba'zara ia fngiak gora jasobeko lotsaz ba'zagoz, Jesukristo Meza santiman Zeruko Aitari gure alde otoika daukazula gogoratu egizu. Ta olan, Beragan uste onez beterik, eskatu egiozu bear dozun guztia. Ta ez bildur izan, jadetsiko dozu-ta.



J A I A L D A K O R R A K



Urtea	Zazpiaste	Auts-egun	Pazio	Igokundie	Pentekoste	Sorputzi	P. oste-ko lg.	Abendu-ko 1 ^o igandea
1961	Urtarril. 29	Otsail.	Jorrail.	Orril. 11	Orril. 21	Bagil. 1	27	Gabonil. 3
1962	Otsail. 18	Epaül.	Jorrail.	Orril. 31	Bagil. 10	Bagil. 21	24	Gabonil. 2
1963	Otsail. 10	Otsail.	Jorrail.	Orril. 23	Bagil. 2	Bagil. 13	25	Gabonil. 1
1964	Urtarril. 26	Otsail.	Epaül.	Orril. 7	Orril. 17	Orril. 28	27	Azil. 29
1965	Otsail. 14	Epaül.	Jorrail.	Orril. 27	Bagil. 6	Bagil. 17	26	Azil. 28
1966	Otsail. 6	Otsail.	Jorrail.	Orril. 19	Orril. 29	Bagil. 9	25	Azil. 27
1967	Urtarril. 22	Otsail.	Epaül.	Orril. 4	Orril. 14	Orril. 25	28	Gabonil. 3
1968	Otsail. 11	Otsail.	Jorrail.	Orril. 23	Bagil. 25	Bagil. 13	25	Gabonil. 1
1969	Otsail. 2	Otsail.	Jorrail.	Orril. 15	Orril. 25	Bagil. 5	26	Azil. 30
1970	Urtarril. 25	Otsail.	Epaül.	Orril. 7	Orril. 17	Orril. 28	27	Azil. 29
1971	Otsail. 7	Otsail.	Jorrail.	Orril. 20	Orril. 30	Bagil. 10	25	Azil. 28
1972	Urtarril. 30	Otsail.	Jorrail.	Orril. 11	Orril. 21	Bagil. 1	27	Gabonil. 3
1973	Otsail. 18	Epaül.	Jorrail.	Orril. 31	Bagil. 10	Bagil. 21	24	Gabonil. 2
1974	Otsail. 10	Otsail.	Jorrail.	Orril. 23	Bagil. 2	Bagil. 13	25	Gabonil. 1
1975	Urtarril. 26	Otsail.	Epaül.	Orril. 8	Orril. 18	Orril. 29	27	Azil. 30
1976	Otsail. 15	Epaül.	Jorrail.	Orril. 27	Bagil. 6	Bagil. 17	24	Azil. 28
1977	Otsail. 22	Otsail.	Jorrail.	Orril. 19	Orril. 29	Bagil. 9	25	Azil. 27
1978	Urtarril. 6	Otsail.	Epaül.	Orril. 4	Orril. 14	Orril. 25	28	Gabonil. 3
1979	Otsail. 11	Otsail.	Jorrail.	Orril. 24	Bagil. 3	Bagil. 14	25	Gabonil. 2
1980	Otsail. 3	Otsail.	Jorrail.	Orril. 15	Orril. 25	Bagil. 5	26	Azil. 30

OTOITZEN AMAIKERA

Mezako Otoitzen geienetako amaikera, auxe da:

Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.

Beste amaikera bat izan claitenean, barriz, Otoi-
tzak berak ekarriko dau.



A B E N D U A

ABENDUKO LENENGO IGANDEA

l'go. mailla. — Ubelez (morauz)

Abendua, E'liz-urtearen asiera dogu; etor-aro, Kristo, Mesias sarritan agindua datorkigu-ta. Eñza Amak etorrera bi aitatzen daukuz gaur, Kristo'renak biak: oraingoa ta gerokoa. Gure SalbatzaiHea artzeko, gertatu egin bear gure biotzak, pekatua itxi ta arima garbiturik. Orain, erukitsu datorkigu J<auna; azken-egunean, barriz, zuzentasunez beterik.

Biblia.—Isaias: 2, 1-5; 5, 1-24; 6; 7, 3-17; 8, 23'tik 9, 6'ra, 10, 12 27; 11; 12; 14, 3-23.

Sarrera. — Zeugana jaso dot biotza, Jauna; zeugan itzaroten dot, ene Jaungoiko!, ez naz lotsatuko. Ez naitela arerioen lotsagan'i izan; Zugan uste ona dagienak, ez dira galduko-ta.—Ps. Adierazo egidazuz, Jauna, zure bideak; erakutsi niri zure zidorrak.—Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari. Len lez, orain, beti, ta amaibagako egunetan. Olantxe. — Zeugana jaso dot...

*Asiera, beti birritan esaten c'a. Ps.'eraño.
Abenduan ez da Gloria'rik, jaietan izan ezik.*

Otoitza. — Erakutsi egizu, Jauna, zure indarra ta zatoz: pekatu-arrisku guztietatik, Zeuk lagunduta alde egin, eta, zeure magalpean bizi izanik, zeru irabazi daigun. Amaibagako egunetan Aita jaungoiko-
iagaz eta Espiritu Santuagazi batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai: 13, 11-14), Anaiok: Jakin egizue lotatik iratzartzeko aldia eldu dana. Sinisbarri gintzazanean baiño urrago dogu gure Osasuna. Gaba ba-doa, ta eguna ba-dator. Iliunpeko egiketak itzi dagiguzan, bada, ta argi-iskilluak jantzi. Gabiltzan zintzo, egunez legez: ez gero jan -edanetan, ez lizunkeri'etan, ez nasaikeri'etan, ez asarre ta ikusi-eziñetan; jantzi zaitze, ostera, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Zugan uste ona dagienak, Jauna, ez dira galduko. Adierazo egidazuz, Jauna, zure bideak; erakutsi niri zure zidorrak.

Aleluia, aleluia. Erakubsi eiguzu, Jauna, zure errukia, ta emon eiguzu zugandiko Osasuna. Aleluia.

Abenduko astegunetan Igandeko Meza esan daitenean, Aleluia ta jarraipena ez dira esaten.

Barri Ona (Luk., 21, 25-33).—Aldi aretan, Jesus'ek bere iikasleai auxe esan eutsen: «Eguzki, illargi ta izarretan ezaugarriak agertuko dira, ta lurreen guztiak estu ta larri ibiliko dira itxasoko orro ta olatuakaitik. Eta lur osoari jazo bear yakozañai begira, gizakumeak bildurrez ta zalantzaz igartu-bearez geldituko dira: zeruko indarrak kili-koloká asiko dira-ta. Orduan, Gizasemea (Jesukristo) odeietan etorten ikusiko dabe, indartsu ta ospe aundiz. Guztiok jazoten asi daitezanean, barriz, jagi ta burua jaso egizue, zuen askatasuna urrean dago-ta». Ipuin au esan eutsen: «Ikasi egizue pikondo ta beste zugatzetatik (arboletaiti'k); ifrutuak emoten asten diranean, ba-dakizue uda urrean dagoana. Orrelaxe zuek be: jazopen oneik ikusi dagizueanean, jakin egizue Jaungoikoaren erreñua urrean dagoana. Benetan dirautsuet: ez da gizaldi au igaroko, guztiok bete arte. Zeru-lurrak igaro egingo dira; baiña nire itzak ez dira igaroko».—*Kredo*.

Aste-barruko Mezeian ez da Kredo'rik.

Eskintza.—Zeugana jaso dot biotza, Jauna: zeugan itxaroten dot, ene Jaungoiko orregan; ez naz lotsatuko. Ez naittíla azerioen lotsagarri izan; zugan uste cna izan dagienak, ez dira galduko-ta.


Opari-otoitza.—Opari santu onek, Jauna, Zeuk sortu zenduan ezkeru, gu bere indarrez garbituta, eroan gazizala garbiago Zeugana. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun egunekoa, 455*orri; asíe-ba. rruko Mezetan, geienetakoa, 430 orri.*

Jaunartzerakoa.—Jaunak bere ontasuna einongo dau, ta gure lurrak bere frutua.

Azken-otoitza.—Artu dagigun zure errukia, Jauna, zure eliza onen erdian: laster gure osasunerako datozan jaiegunetarako bear dan omenez aurretiaz gertatu gaitzean. Amaibagako.





ABENDUKO BIGARBEN IGANDEA

l'go. mailla. — Ubelez

Abenduko egunak Jesukristo'ren jaiotzarako gertatzeak dira. Ta nor riuqu Jesukristo? Gaurko Ebanjelioan lez, itaim au eginen eben israeldar askok gure Jaunaren egunetan. Erantzuna, Irakurgai edo Epistolan ikusiko dogu: Kristo, mundu guztiaren Salbatzailea dogu. Judarrentzat bakarrik ez, guztiontzat etorri zan Kristo, gizaki guztion loiak garbitzera, guztion itsutasuna argitzera, guztion geisoak eta gaitzak osatzera, guztiok Jaungoikoaren seme-ordeko egitera. Ona emen mundur, dakarren egikizuna: lenengo ta bein judarren alderako, arei aan agindu eutsen Jaungoikoak-eta; baiña gero, bere borondatez eta erruki utsez, beste guztion alderako be bai.

Biblia.—Isaias: 19, 16-25; 24; 25, 1-9; 26, 1-19; 29, 13 24; 30, 18-26; 33; 35; 38.

MEZA

Sarrera. — Sion-erri!, or dator Jauna, erri guztien Salbatzaile izateko: Jaunak adierazoko dau bere izkuntza (*berbeta*) ederra, zuen biotaen pozerako.—Ps. Entzun gagizuz, Israel'en artzain: Jose, antzainak ardia lez zaintz-en dozun orrek.—Aintza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Zure Seme bakarraren bideak antontzeko, berotu egizuz, Jauna, gure biotzak; Aren etorreraz, zure menpean biotz garbiz ibilteko gei izan gaitez. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai: 15, 4-13).— Anaio: Liburu Santuetan idatzita dagoan guztia, geure ikasbiderako dago esanda, bertako itzak emondako adoreaz eta pozaz itxaropena izan daigun. Adore ta poz au emoten dakian Jaungoikoak, emon dagitzuela zuei be alkarregaz Jesukristo'ren batasuna eukitea; Jesukristo gure Jaunaren Aita Jaungoikoa biotz batez eta ago batez goratu dagizuen. Beraz, alcarri abegi ona egiozue, Kristo'k zeui egin dautsuenaz, Jaungoikoaren goraldirako. Neuk dirautsuet: jesukristo Israeldarrai laguntzeko etorri zan; jaungoikoak, bere itzari (*berbeari*) eutsirik, guraso zarrari agindua beteten eutsela. Baiña atzerriak be Jaungoikoa goratzen dabe, errikiar izan yakelako, idatzita dagoanez: «Orrexegaitik goratuko zaitut, Jauna, atzerriarren (*erbestetarren*) artean, eta zeure izenaren omenez abestuko dot» Eta beste nunbaiten: «Poztu zaitze, atzerriarrok, Aren erriagazi batera.» Baita beste au be: «Goratu egizue Jauna, gizaki guztiok; ekiozue goraka, erri guztiok.» Isaias'ek be ba-diño: «Jese'ren zusterretik agertuko da erriak bere menpean artuko dauzana; Beragan izango dabe atzerriak itxaropena.» Gure itxaropena dan Jaungoikoak bete zagiezela zeuon sinistean poz eta bake osoaz: Espiritu Santuaren indarrez itxaropenean ugaritu zaitzen.

Koru-kanta. — Edertasuna dariola agertuko da Sion'dik Jaungoikoa. Batu egizuez inguruan Aren zintzoak, opariak eskiñiez Aregaz ailkartasuna egin ebenak.

Aleluia, aleluia. Nire poza, «Jaunaren etxera goaz» esan eustenean! Alemla.

Aste-barruko Mezetan, Aleluia ta jarraipena ez dira esaten.

Barru Ona (Mat., 11, 2-10).—Aldi aretan, Jon'ek, giltzapean egoala, Kristo'ren egintzak jakin ebazanean, bere ikasletariko bi bialdu eutsazan (Jesus'i), itaun au egitera: «Zeu zara Etortekoa, ala beste baten zain egin bear dogu?» Ta Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: «Zoaze, ta zeuok entzun eta ikusi dozuezanan barri emon egiozue Jon'i: ituak ikusi eginen dabe, errenak ba-dabiltz, legenardunak garbi gelditzen dira, gorrak ikusi egiten dabe, illak berbiztu

igiten dira, ta beartsuai Barri Ona iragarten yake. Ta zoriotsua Nigan galbiderik ez dagiana.» Areik ilde egin ebenean, Jesus gizataldeari Jon'i buruz ^erba egiten asi yakon: «Zer ikustera urten zaree basamortura? Aizeak darabilen kaiñaberen bat? Zer ikustera urten zaree, bada? Apain jantzitako gizonen bat? Baiña apain jaz-ten diranak, errege-etxeetan egon oi dira. Zer ikustera urten zaree, ba? Igarleren bat? Orixe bai, Neuk esanda; baita Igarle baino aundiagoa be. Onetzaz dago idatzita; «Neure aingeruá, bialtzen dautsut, zure aurrean bidea atondu dagitzun.»—*Kredo.*

Aste-barruko Mezetan es da Kredo'rik.

Eskintza. — Zuk, Jaungoiko orrek, gugana biur- turik, bizitza emongo dauskuzu, ta zure erria Zeugan poztuko da. Erakutsi eiguzu, Jauna, zure errukia, ta emon egiguzu Zugandiko osasuna.

Opari-otoitza. — Bigundu zaitetz, Jauna, apal- apalik egiten dautsuguzan eskari ta opariokaz; eta ezetariko irabazirik ez dogun ezkeru, lagun zakiguz zure graziaz. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri; *aste- barruko Mezetan*, *geienetakoa*, 430 orri.

Jaunartzerakoa.—Jagi zaitetz, Jerusalem, eta goiko tontorrean jarririk, ikusi egizu andik zeure Jaungoi- koagandik datorkizun ipozgarria.

Azken-otoitza.—Arimen janariaz susetu garan ezkeru, apal-aipalik „skatzen dautsugu, Jauna: Eukaristi onen bidez, lurreko gauzak aintzat ez antzen eta zerukoak maite izaten ikasi daiguá. Aimaibagako.



ABENDUKO IRUGARREN IGANDEA

l'go. mailla.—Ubelez

Gaurko domeka, pozezko eguna dogu. Jauna laster da- torrela-ta, pozez gainezka dago Eliza osoa. Orixe da bein Jon Bateatzaileak Jordan-inguruetan zabaldu eban barri pozgarria. J&ungoikoa urrean (ur) dogu. Gabon-gabean eto- rriko yaku, bai, grazl barriak eskintzera. Garbitu ta atondu daiguzan gure biotzak; abegirik onena egin daiogun.

Biblia—Isaias: 40; 41, 1-20; 42, 1-17; 43, 15'etik 44, 5'era; 45.

MEZA

Sarrera. — Poztu zaitetze beti Jaunagan; poztu zaitetze, dirautsuet barriro be. Zuen eratasuna ne- gurritz agertu bekie gizaseme guztial, Jauna ur dago-ta. Ez artegatu ezegaitik be; agertu Jaun-goikoari zuen bearrizan guztiak, zuen erregu ta eskariak Be- rari zuzenduaz eta eskerrak emonez. — *Pss* Bedein- katu dozu, Jauna, zure lurra; atara dozu Jakob arerioen menpetiik.—(Amtz.)

Ea da Gloria'rik.

Otoitza. — Entzun gure eskariak, Jauna; ta argitu egizuz gure arimetako illunpeak zure etorre- raren graziaz. Amaibagako egunetan Aita Jaungoi- koagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Filipino'koai: 4, 4-7). — Anaio: Foztu zaitetze beti Jaunagan; poztu zaitetze, dirautsuet barriro be. Zuen eratasuna negurritz ager-

tu bekie gizaseme guztiak: Jauna ur dago-ta, Ez arte gatu ezegaitik be; agertu Jaungoikoari zuen bearrizan guztiak, zuen erregu ta eskariak Berari zuzen duaz eta eskerrak emonez. Eta asma-ala baiño geiago dan Jaungoikoaren bakeak zaindu begiz zuei gogo-biotzak, gure Jaun Jesukristo'gan.

Koru-kanta. — Kerubiñak baiño gorago zagozan Jaun orrek, erakutsi zure indar ori, ta zatoz. Entzun gagizuz, Israel'en artzain: Jose, artzaiñak ardia I_{er} zaintzen dozun orrek.

Aleluia, aleluia. Erakutsi, Jauna, zure indar ori ta zatoz gu salbatzera, Aleluia,

Aste-barruko Mezetan, Alelui'- ta jarraipena ez cliru esaten.

Barri Ona (Jon, 1, 19-28). — Aldi aretan, judarrak Jon'i Jerusalem'dik abade ta lebitarrak bialdu eutsoezan^ «nor zara zu?» itaunka. Eta autortu eban bai, ta ukatu bagarik autortu eutsen: «Ez naz ní Kristo'a.» Ta barriro areik: «Nor zara, ba? Elias ete zara?» Ta arek: «Ez.» «Igarlea ete-zara?» Ta arek: «Ezta.» Areik esan eutsoen: «Beraz. nor zara. ba. bialdu gaituenai erantzun dagiegun? Zer diñozu zeutzaz?» Orduan, esan eutsen: «Basamortuan oiuka diarduan abotsa naz ni: Zuzendu egizue Jaunaren bidea, Isaias igarleak iñoanez.» Bialduak, barriz, pa'fiseotartekoak ziran; eta itandu eutsoen: «Zer dala-ta diarduzu, ba, bateatzen, ez Kristo, ez Elias, Igarle be ez izanik?» Jon'ek erantzun eutsen: «Nik urez bateatzen dot, baiña zeuen artean dago zuek ezagutzen ez dozuen norbait. Orixe da nire ondoren datorrena, ni baiño lenago sortua, ta aren oiñetakoen lokarria askatzeko be ni ez naz duin.» Jazopen oneik Betania'n, Jordan'ez aruzko bestskaidean jazo ziran, Jon'ek bateatzen ziarduala.—*Kredo.*

Aste-barruko Mezetan ez dago Kredo'rik.

Eskintza.—Bedeinkatu zenduan, Jauna, zure lurra; atara zenduan Jakob arerioen menpetik; parkatu dozu zure erriaren gaiztakeria.

Opari-otoitza, — Eskiñi dagitzugula beti gure biotzeko opari au, Jauna; ta beronek adierazoten dauana guri egin eta bere indar miragarritz zure osasuna emon daiskula. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa, 455 orri; aste-barruko Mezetan, geienetakoa, 430 orri.*

jaunartzerakoa,—Esan egieze bidurrez dagozanai:adore ona izan egizue, ta ez bildurtu; ba-dator gure jaungoikoa, eta Berak salbauko zaitue.

Azken-otoitza.—Erruki-eske gatorkizue, Jaun errukior orri! Jaungoikozko janari onek gure gaiztakerietatik aarbitu, ta laster datozan jaietarako gertatu gaizala. Ainaibagako.

ABENDUKO 3'GARREN IGANDETIK 4'GARRENERA

ABENDUKO LAU AROETAKO EGUAZTENA

2'gn. mailla. — *Ubelez*

Jauna bai ona gureztat! Izar, landara, abere edo ani-jfflita, gizon, dana bere esku adutsuak egin eta geureztat itzi dausk'uz; ta egin bakarrik ez, baita zairidu ta erabili be Berak darabiltz gauza guztiok, goian eta bean, geure onerako. Beraz, gure eskarrona agertu bear dauzagu.

Eta Elizak, Ama zohi-ezitsua da-ta, lau urte-aropak berariz onetsi gura dauz, Goiko Aitari eskarrona biotzez erakutsiaz. Urte-atdi bakoitzean aste bat osorik, —eguaztana, barikua ta zapatua batez bere— lurretik artutako arnari edo frutuakaitik J'aunari eskerrak emoten dauzaz.

Neguko Lau Aroetako egun oneik, Abenduko irugarren domekatik laugarrenera izaten dira; ta aste onetako eguazten, baniku ta l'arunbatak, bakoitzak bere Meza dakar. Barau ta otoitzaren bidez, gertau daiguzan gure arimak albai egokien Jesukristo gure Jaunaren Jaiotzarako.

MEZA

Sarrera.—Bialdu goitik iruntza, zeruok; isuri begie odeiak Zuzena: edegi bedi lurra, ta sortu beite Salbatzaillea. — *Ps.* Jaunaren aintza zabaltzen dabe zeruak, eta izartegiak Aren eskuen egintzak iragarten dauz.—*Aintza.*

Meza-emoilleak, Kyrie ostein, Epistola ondora biurtu ta mae diño:

Otoitz egin uajgun.—Makuutu daiguzan belauinak. (*Eman baluuniko a-purtxo baten.*) Zutundu zaitze.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: la-ster da-torkigun erospen-jaiak bizitza onetarako laguntza ja-detsi, ta betiko zorion-saiia emon daiskua, Amaiba-gako.

Irakurgaia (Isaias, 2, 2-5). — Egun areitan Isaias igarleak auxe esan eban: Azken-egunetan, Jaunaren etxearen mendia, mendi guztien eta mendi bizkar guztien gainetik jagiko da, ta araxe joko dabe erri guztiak. Eta askok eta askok, urreraturik, auxe esango dabe: Zatoze, ta igo gaitezan Jaunaren mendira, ta Jakob'en Jaungoikoaren etxera, ta bere bi-deak erakutsiko dauskuz, ta Aren zidorretatik ibiliko gara: legea Sion'dik eta Jaunaren itza Jerusalem'dik urtengo dira-ta. Berak epaituko dauz atzerriak, baita erri askori asarre egin be; >a oneik, golda-ortz bi-urtuko dabez ezpatak, aztamakillak (*lantzak*) barriz, igitai. Inok ez dau bata bestearen aurka ezpatarik jasoko, guda-gertakizunetarako be ez dautso inok ekingo. Zatoze, Jakob'en etxekook, ta ifoili gaitezan gure Jaungoiko Jaunaren argitan.

Koru-kanta. — Jaso, nagusiok, zuen aiteak; gora zuok be, betiko ateok, ta Errege ospatsua sartuko da. Nor igoko da Jaunaren mendira?, edo-ta nor egongo da Aren toki santuan? Esku-errubage ta biotz-garbi dana.

Orain, altara-erdira biurtu ta "Jauna zuekaz" diño.

Otoitza. — Zatoz bizkor, Jauna, ez luzatu, arren, geiago; emon egiguzu goi-indarraren laguntza: zure errukian ustea dogunok, zure otzorreraren pozaz indartuak izan gaitezan. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Oiantxe.

Irakurgaia: Jaunak Akazl, 584 orri.

Koru-kanta. — Dei dagion edonorentzat, Jauna urrean dago, benetan dei dagionarentzat. Nire agoak, Jaunaren goraipeak abestuko dauz; onetsi begie gizaki guztiak Aren izen santua.

Barri Ona: Jaungoikoak Gabirel, 585 orri.

Eskintza, — Adoretu zaitze, ta ez bflldurtu; begira: gure Jaungoikoak bakoitzari berea emongo dautso; Jaungoikoa Bera etorriko da, ta Berak salbauko gaitu.

Opari-otoitza. — Gure barauok atsegiñez ikusi egi-zuz, Jauna: barrua garbituaz, zure graziaren gei egin, eta zure betiko agintzarietara eroan gagiezan. Amaibagako.

Jauna,rtzerakoa. — Ara, neska-garbi (birjiña) batek semea *sortu* ta egingo dau; ta Aren izena Emanue] jzango da.

Azken-otoitza. — Eukarisiti osasungarriaz aseturik, jauna, apal-aipal eskatzen dautsugu: Bera arturik poztu garanok, bere indarrez be barriztu gaitezala. Amaibagako.

ABENDUKO LAU AROETAKO BARIKUA

2'gn. mailla. — Ubelez

Sarrera. — Urrean zaitut, Jauna, ta zure agindu guztiak egi dira; asieratik bete nebazan zure aginduak, Zu betikoa zara-ta. — Ps. Zoriontsuak benetan, jaunaren lege-ibidea-n garbi 'dabizanak!—Aintza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza. — Erakutsi egizu, Jauna, zure indar ori, ta zatoz: zure ontasunean ustea dabena, gaitz guztietatik albai ariñen urten daitazan. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Oiantxe.

Irakurgaia. (Isaias, 11, 1-5). — Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Jese'ren enborretik * adar bat sortuko da, ta aren zusterretik lorea. Jaunaren arnasa (Eapiritua) geldituko yako gainean: jakituri ta adimen-gogoa, burubide ta sendotasun-arnasa, jakintza ta erruki-espirtua; ta Jaunaren bildur-arnasak beteko dau. Ez dau begiz ebatziko, ezta belarriz entzunetik salatuko be: beartsuai zuzenbidea egingo dautse, ta lureko apalen alde zuzen jardungo dau. Bere agoko zigorrez joko dau lurra, ta bere ezpanetako putzaz ilgo dau gaiztoa. Zuzentasuna izango da Aren gerrikoa, ta zintzotasuna Aren gorputz-estuna.

Koru-kanta.—Erakutsi egiuzu, Jauna, zure ©rrukia, ta emon egiuzu zure SaHbatzaillea. Bedeinkatu zenduan, Jauna, zure lurra; atara zenduan Jakob arerioen menpetik.

Barri Ona: Maria jagi, 660 orri.

Eskintza.—Zuk, Jaungoiko orrek, gugana biurturik, bizi-ta emongo dauskuzu, ta zure erria Zeugan poztuko

* Enbor = tronco.

da: erakutsi egizu Jauna, zure errukia, ta emon egizu Zugandiko osa-suna.

Opari-otoitza.—Gure oparigai ta eskariak onartu dozuzan ezkeru, Jauna, garbitu gagizuz zeruko graziaz eta entzun gagizuz biotz onez. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Ara, ba-dator Jauna, ta Berap-az bere santu guztiak; eta egun aretan argi aundi batek dizzardiz egingo dau.

Azken-otoitza.—Indartu gaizala, Jauna, artu dogun Eukaristiak; eta gure lengo pekatuofik garbiturik, osasunezko ajlkartasunean alkar'u ga: ^ala Ueruan).¹ Amaibagako.

ABENDUKO LAU AROETAKO LAI' *StkTA*

2'gn. mailla. — *Ubelez*

MEZA LABTJRRRA

Sarrera.—Zatoz, ta erakutsi egizu zure arpcgia, Kerubiñen gaiñetik jarrita gagozala Jaun orrek, eta salbauko gara, — *Ps.* Entzun gagizuz. Israel'eri Artzain: Jose, artzaiñak ardia lez zaintzen dozun orrek.—Aintza.

Meza-emoilleak, Kyrie esan ondoren, Epistola onüora biurtu ta auxe diño:

Otoitz egin daigun,—Makurtu daiguzan belaunak, (*Belauniko atpurtxo oaten.*) Zutundu zaiteze.—Gure gaiztakeriakaitik nekatuta gagozala ikusten dozun Jaungoikoa: zatorkiguz errukitsu, zure ikustaldia poz-bide izan dakigun. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgai (Isaías, 19, 20-22). — Egun areitan. Jaunari deadar egingo dautsoe naigabetzailleen aurka, ta Arek estualditik atarako dauzan Salbatzaillea baiduko dautse. Ejipto'k be ezagutu egingo dau Jauna, ta Ejiptarrak be ezagutuko dabe egun aretan Jauna; baita opari ta eskintzak egin be: zin-itzak eskiñiko dautsoez Jaunari, ta bete be bai. Jaunak Ejipto izurritz zaurituko dau, ta osatu egingo dau.

jaunagana biurtuko dira, ta erruki izango yake, ta „re Jaun eta Jaungoikoak osatu egingo dauz.

Koru-kanta. — Zeru bazterretik urten, eta beste zeruibazterrerariño doa. Zeruak Jaungoikoaren aintza zabaltzen dabe, ta izartegiak Aren eskuak egindakoa iragarten dau.

Orain, altara-erdira biurtu ta Dominus vobiscum (Jaunci çuekaz) diño.

Otoitza. — Egizu, arren, Jaungoiko aluztfdun orrek: pekatuaren buztarpean aspaldian nekatuta gagozanok, askatuak izan gaitezala, zure Seme bakarraren jaiotza barrian itxaroten dogun ezkeru. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Ernege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgai (S. Paulo'k Tesalonika'koai 2'gna.: fe, 1-8). — Anaiok: Jesukristo gurs Jaunaren etorrelagaitik eta Aregaz ©gingo dogun alkartzeagaitik eskatzen dautsuegu: eritxitik ez aldatu bereala, ezta ikarratu be agerpenen bat edo gurea izan leiteken itz edo idazkiren bat gorabera, Jaunaren etorrera ur litzakelakoan. Ez zagiezala iñok ezelan be atzipetu*. Lenengo, sinismen-ukatzailleak sortuko dira, ta gizon pekatuduna agertuko da, gaizkille galgarria, Jaungoikotzat begiratzen edo gurtzen dan edozeren aurka jarriko ta goratuko da, Jaungoikoaren etxean Jaungoikotzat ezarterariño. Zuen artean nengoanean, auxe berau nirautsuela ez al do-ue gogoratzen? Jain be ba-dakizue orain zek daukan eragotzita, bere garaian agertu daiten. Orain be gaiztoak berean diardu; ezkutuan, orraitino, eragozpena kendu daiten arte. Orduantxe agertuko da zital a, ta Jesus Jaunak bere agotiko arnasaz ilgo dau ta bere etorraldi argitsuaz ezereztuko dau.

Koru-kanta. — Entzun gagizuz, Israel'en Artzain: Jose, artzaiñak ardia lez zuzentzen dozun orrek. Kerubiñen gaiñetik jarrita gagozan orrek, agertu zakioez Efraim, Benjamin eta Manase'ri. Erakutsi, Jauna, zure indar ori, ta zatoz gu salbatzera.

Barri Ona: Tiberio Kaiser'en, 136 *orri.*

Eskintza. — Poz aundiz poztu zaitez, Sion'go alaba; iragarri egizu, Jerusalem'go alaba orrek: ona



* Atzipetu = engañar.

Sea¹¹¹¹ datOrkizUn zure Errege, santu ta Salba-

Opari-otoitza.-Onartu egizuz biotz onez, Jauna J jreko oparigaiok: gure onerspenerako ta osasuñerl" ko izan daitezán. Amaibagako. ^«era-

Jaunartzerakoa.-Erraldoi* antzera, bere bidea eei teko. poztu egm zan: zeru-bazterretfk urten, eta bestp zeru-bazterrereraño doa. ^{estb}

Azken-otoitza.-Biotzez eskatzen dautsugu, g * J Jaun eta Jaungoiko orri: gu erosteko jarri zéncffl «nsterio santuok, oraingo ta geroko osasungarri izan dakiguza'la. Amaibagako. ⁿ



ABENDUKO LAUGARREN IGANDEA

l'go. maila. — Ubelez

Jesukristo gure Jaunaren jaiotzarako gure biotzak gertetako, Ama Birjiñaren irudi ta gomutapena dakarguz gaur gogora. Beroni zor dautsagu gure on guztia; beragandik jaiu yaku gure Salbatzailea. Kristauok ezin aztu egi au, ezin egon zeruko Amari eskerronez zorianak emon bagarik: «Bedeinkatua Zu andrá guztien artean; bedeinkatua zure sabei-eko Semea.» Aima maitagarri onek irakatsiko ala dauku bere Seme maitearl abegirik onena egiten I

Biblia.—Isaías, 49; 51, 1-15; 52, 1-12; 54; 55; 58, 1-12.

MEZA

Sarrera. — Bialdu goitiife iruntza, zeruok; isuri begie odeiak Zuzena: edegi bedi lurra, ta erne beite Saltoaltzailea. — Ps. Zeruak Jaungoikoaren aintza iragai*iteni dau, ta izartegiak Aren eskuen lanak.—Aintza.

Ez da Gloria'rfc.

Otoitza. — Erakubsi, Jauna, zure indarra, ta zataz; lagun zakiguz zure indar aundiz; eta gure pekatuak aitzeratzen daskuen zure graziaren bidez, zure erruki ona albait ariñen etorri dakigula. Amaibágako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaiá (S. Paulo'k Karinto'koai l'goa: i, 1-5).—Anaik: Kristo'ren morroi ita Jaungoikoaren ixii-ondasunen banatzaille gara, ta atakotzat izan gai-

zala edonok. Olako arduradun bati, auxe eskatzen *yako*: zintzo jokatu dagiala. Niri neuri, ardura gutxl zuek edo bestek nitzaz edozer uste izatea, neutzaz b* ezer ez dakit-eta. Ez nau neure barruak ezetan salatzzen; baiña ori ez da zintzotzat egoteko naiko, ⁿⁱire epailla Jauna da-ta. Ez emon, ba, epairik ordua 'baño len, Jauna etorri arte. Berak argituko dauz illunpe-tako ezkutuak, eta agertuko dauz biotzetako asmoak Oii:ua<nixe izang-o dau bakoitzak Jaungoikoagandik bere gorapena.

Koru-kanía. — Dei dagion edonorentzat, Jauna urrean dago, ben'stan deí egin dagionairentzat—Nire agoak, Jaunaren gorapenak abctuko dauz; onetsi begie gizaki guztiak Aren izen santua.

Aleluia, aleluia. ZÍUJOZ, Jauna, ez luzatu zure eforrera; parkatu zure erri Israel'en pekatuak. Aleluia.

Barri Ona (Lulr, 3, 1-6).—Tiberio Kaisar'en agrntzaldiko amabosgarren urtean, Judea'n Pontzio Pilatos erri-buru zala, Galilea'n buruzagi Eroses, onen anai Piliipo buruzagi Iturea'n eta Trakontida-aldean; Abilene'n Lisanas buruzagi zala, Anas eta Kaifas abade-nagusien agintaritza-aldian, Jaunak Zakarias'en s»rae Jon'i basoan itz egin eutsan. Eta orduan, Jon Jordan-inguruko erri guztietara etorri zan, pekatuen par-kamena jadesteko damu-bateoaren bearra iragarten, Isaias igar'earri liburuan idatzita dagoanez: «Basamortuan oiuka diarduanaren abotea; atondu egizue Jaunaren bidea; zuzendu Aren zidorrak. Sakon guz-tiak bete egingo dira, ta mendi ta mendi-bizkar guztiak zapalduak izango dira. Bide okerrak, zuzenduak, eta bide latzak bardinduak; eta gizaki guztiak Jaungoikoa-ren Osasuna (Salibatzailea) ikusiko dabe».—*Kredo*.

Aste-barruko Mesetan, ez da Kredo'rik esaten.

Ekintza. — Agur, Maria, graziaz beteja; Jauna da zugaz: bedeinkatua zara zu andra guztien artaan, eta bsdeinkatua da zure sabeleko Semea.

Opari-otoitza.—Begiratu errukitsu, Jauna, aurreko oparigaiok: gure oneraspenerako ta osasunerako izan dakiguzan. Amaibagako.

Kanon-aurrea: Irutasun-eguneko, 455 orri.; aste-barruko Me-gienetakoa: 430 orri.

Jaunartzerakoa.—Begira: neska (birjiña) batek sa-belean sortu ta umea egingo dau, ta Aren izena Emma-nuel izango da.

Azk.en-oiotza. — Janari au artu dogun ezkeru, eiguzu, Jauna: Eukaristia sarri arturik, geitu daiskula gerak arimako osasuna. Amaibagako.

Gabonillaren 24'garrena

JAUNAREN JAIOTZA-AUREGUNA: GABON-EGUNA

2'gn. maila. — Ubelez

Aurretiaz ospatzen dau gure Eliza Amak Jesukristo'ren jaiotza. Meza-emoilleak jantzi ubelak erabiliarren, poz santia adierazoten dauске gaurko Mezako atalak, biar gure Salbatzailea ikusiko dogu-ta. —Pozez beterik ospatu daigun Gabon-egun au, g'ure etxeokoen ondoan.

Biblia.—Isaias: 60'tik 62'ra; 65, 17-25; 66, 10-23,

M E Z A

Sarrera. — Gaur jakingo dozue Jauna geu salbatzera datorrena, ta biar ikusiko dozue Aren aintza. Ps. Jaunarena da mundua ta tertako guztia: lur osoa ta' bertan bizi diranjak.—Aintza,

Otoitza. — Gure eroskundearen itxaropenez urte oro postuten gaituzun Jaungoikoa: egizu, zure Seme Bakarra Sa'.batzailetzat pozez artzen dogunez, epaika-r/ lez etorri daitenean be, jesukristo zure Seme ta gure Jauna nasai ikusi daigula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Írakurgaiá (S. Paulo'k Erroma'koai, 1, 1-6).—Jesukristo'ren morroi, Paulo, Apostolu izenez Jaun-r.oikoaren Barri Ona iragarteko aukerata. Len Igarleen bidez Liburu Santuetan Jaungoikoak berak agindu eban Barrí On au, bere Semeari buruz: aragiz Dabid'en jatorritik sortu zan santutasun adorez, eta illen artetik berbiztean, Jaungoikoaren Semetzat autetsia* izan zan. Jesukristo gure Jaun orregandik artu dogu Apostolu-^grazia ta egikizuna, erbeste guztiak Aren izenean sinis-menera erakarteko: ta arein artekoak zaree zuek be, besukristo'k deituta.

Koru-kanta. — Gaur jakingo dozue Jauna geu sal batzera datorrena, ta biar ikusiko dozue Aren aintza,

* Autetsia = predestinado.

Entzun, Israel'en artzain; jose, ardia lez ziuzentzen dozun orrek. Kerubiñen gaiñetik jarrita zagozan ori, ager.tu zakiez Eprain, Benjamin eta Manase'ri.

Gaur igandea ba'da, urrengo au be esan:

Aleluia, aleluia. Biar ezereztuko da lurreko gaiztakeria, ta munduaren Salbatzaillea geure Errege izango da. Aleluia.

Barri Ona (Mat. 1, 18-21).—Jesus'en Ama Maria Jose'gaz ezkontuta egoala, alkarganatu baiño len, Espiritu Santuaren egiñez umedun aurkitu zan. Aren senar Jose'k, zuzena izanik, salatu nai ez-ta, isillean itzi nai izan eban. Baiña asmo onetan ziarduala, amesetan Jaunaren aingerua agertu yakon, esanez: (cjose. Dabid'en seme: ez bildurtu Maria emaztetzat artsen: beragan sortu dana, Espiritu Santuagandik dau-ta. Seme bat be izango dau, ta izena Jesus ezarriko dautzasu: bere erria pekatuetatik Berak atarako dau-ta.»

Kredo'rik ez da esaten, igandez izan ezik.

Eskintza.—Jaso, nagusiok, zuen atek; gora zuek be, betiko atek, eta Errege ospatsua sartuko da.

Opari-otoitza. — Eiguzu, arren, Jaungoiko al-guztidun orrek: zure Semearen jaiotza ospatzeko aurretiaz gertatzen garanok, Aren sari betikorrak be po-zez beterik artu daiguzala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Kanon-aurrea: Geienetakoa, 430 orri. Igandez, Irutasun egu-nekoa, 455 orri.

Jaunartzerakoa. — Jaunaren aintza agertuko da, ta gizon guztiak ikusiko dabe Jaungoikoagandiko osasuna.

Azken-otoitza. — Zure Seme bakarraren jaiotza aurretiaz iragarreak bizkortu gagizala, eskatzen dautsugu, Jauna: Aren misterio zerutarrak jan eta edan doguz'ta. Aimai'bagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.



GABON-AROA

Pozgarna benetan aIdi eder au! Gabonillaren 25g^o-u^o-n asten da, ta Erregen eta beste jai ospatsu askobSm. dauzaJa, Otsai'llaren 2garran amaitzen da GurtS rroger egun alai. Eurotan, Jesukristo gure ErosiearTM iv gogoratzen dogu, ta poz-atsegiñez go^ogoratu ta Jaungoikoaren maitasun errukiorra, ezek baiño eukok iragartan daukue-ta. «Jaungoikoak -diñoislf, deunak (3, 16)- gizadia oso maitedauala ta be e SeZ bakarra emon dautso, Onegan siniste, dagiañik e'idf, daiten, betiko bizitza izan dagian baiño.» Ona emen datorkigun lurrera Jesus Umetxo.

GaboniHaren 25garrena

JAUNAREN JAIOTZA

i<70 mailla. Zortziurren berarizkoaz. — Zuriz

Igarleak esandakoa ta mundu osoare.n itxaropen-naiak beteaz, emen datorkigu gure Salbatzaillea. Jaungoikoaren Semea dogu, Jaungoiko Aitak betidanik sortua; eta, era batera, An'dra Maria'ren Semea, Belen'go estalpean gizon egiñik gaur jaioa. Geure antzeko, geure anai, lagun eta Birreosle izateko dator. «Aintza goietan Jaunari, ta bakea lurrean», deadar egin daigun biotz-pozez, aingeruen kantuari erantzunez.

Gaur, abade bakoitzak iru Mez_a esan d-aizek.

LENENGO MEZA: GABERDIKOA

Sarrera. — Jaunak esan daust: Zu neure Semea zara, -Neuk egin zaitut gaur seme— Ps. Zetan diarduzue, erriok, asarre-on'uka ta ames alperretan?—Aintza.

Otoi'za. — Gau santu au egiazko ditziraz argitu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, argi au lur onetan ikusi dogunoi, beronek emon dauksula zeruan eskintzen daukun zoriona. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olan-txe.

irakurgajs (S. Paulo'k Tito'ri: 2, 11-15).—Guan maite ori: Gizon guztiontzat osasungarri agertu yaku Jaungoikoa, gure Salbatzaillearen grazia; Berak irakatsi dauksu, munduko gaiztakeri ta griña txarrak ukaturik, zentzunez, zuzen eta Jaungoikoz bizi izaten: geroko zorionaren poza ta Jesukristo Jaungoiko aundi ta gure

galbatzaillearen agertaldi ospetsua itxaroten dogula. rjerak emon eban gugaitik bere burua, gu dongakeri çuztitik atara ta garbiturik, gugaz bere gogoko erri hat, egintza onez beteriko erri bat egiteko. Ekin zuk egiok esaten eta irakasten, Kristo gure Jaunaren izen-ean.

Koru-kanía. — Zeu zara aurrena zure agintaritzat-aldian; zeruko ditziretan, goizeko izarrak argi egin haiño len, safoetean sortu zendudazan.—Ja'unak ni'e jaunari auxe esan eutsan: jesarri zaitetz neure esku-maldean, zure arerioak zure oinpean jarri dagidazan arte.

. Aleiua, aleluia. Jaunak esan daust: Zu neure gemea zara; Neuk egin zaitut gaur seme. Aleluia,

; Bárrij Ona (Luk., 2, 1-14). — Aldi aretan, Kaisar Augusto'k lurralde osoa izentatzeko agindu eban. Lenengo izen-batze au, Siria'ko agintari Kirino'k egin eban. Eta ba-joiazan guztiak, bakoitza bere errira, izena emotera. Jose be, Dabid'en ondorengo ta jatorriko zan-eta, Galiiea'ko Nazaret uritik Belen urira igo zan, izena emotera, bere emazte Maria umedun eba. Eta an egozala, umea egiteko egunak bete yakozan Maria'ri. Eta lenengo semea izan eban (1), eta oialez baturik, estalpe baten ezarri eban, ostatuan tokirik areintzat ez zan-eta. Alde aretan artzain batzuk egozan izarpean, aldizka iratzarrik, euren artaldea gabez zaintzen. Eta bat-batean Jaunaren aingerua agertu yaken, eta Jaungoikoaren argitasunak inguratu ebazan, bildur auniiz itzirik. Baiña aingeruak esan eutsen: «Ez larritu: erri osoaren pozgarri izango dan barri emotera natorkizue: Salbatzaillea, Kristo Jauna, gaur jaiio yatzue Dabid'en errian. Eta ona emen zuentzat ezaupidea: umea oialez batuta, estalpean ipiñita idorfoço (aurkituko) dozue.» Eta bereala, zerutar talde audia aingeruagaz alkartu zan, Jaungoikoa goresten, iñoela: «Aintza Jaungoikoari zeru goietan, eta bakea lurrean gogo oneko gizonai.» — *Kredo.*

Eskinfza.—Poztu bedi zerua ta alaitu lurra Jaunaren aurrean, ba-dator-eta.

'11 Lenengo semea, au da, «renen jaioa» esaten dan s&rnea.

42 JAUNAREN JAIOTZA.—BIGARREN MEZA

Opari-otoitza. — Izan bekizu atsegingarri, Jauna gaurko jaieguni onetan eskintzen dautsugun opari au:' zure Semea gure antzeko egin zanez, guk be, zure graziaren toidez, bere Jaungoiko-antza artu daigun. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Kanon-aurrea ta Cmmunicantes: *Gabonetakouk* 451 orri.

Jaunartzerakoa.—Zeruko diztoretan, goizeko izarrak argi egin baiño len, sabelean sortu zendudazan.

Azken-otoitza. — Eiguzu, arren, gure Jaun eta Jaungoiko orrek: Jesukristo gure Jaunaren Jaiotza pozik ospatzen dogun ezker, bizikera santu baten bidez, Aren ondora joatea jadetsi daigula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

BIGARREN MEZA: GOIZALDEKOA

Gaur Jaiotako Umetxoa errege baizen aundl t_a aginpidetsu da. Gizona danez, Dabid erregeren odoleko; Jaungoiko dan aldetik, Aitak gizonari ta beste gizaki guztiañ agintzeko eskubidea emon daufco. Baiña bere erreinua ez da beste edozein erreinu lakoa: egia ta biziaren erreinua, santutasun eta graziarena, zuzentasan, maitasan eta bake-erreinua da.

M E Z A

Sarrera. — Argiak argiituko gaitu gaur, Jauna jaiu yaku-ta; Beronen izena Arrigarri, Jaungoiko, Errege bakezale, geroko mendeen (gizaldien) Aita; Aren erreinua ez dau amairik izango.—Ps. Errege da Jauna, edertasunez jantzita; Jaunak indar-gerrikoa jantzi dau.—Aintza.

Otoitza. — Eiguzu, airren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure Seme gizon egiñaren argi barriak bete-betean argitzen gaituan ezker, gure gogoko sinismen-argi au geure egitadetan be agertu daitela. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2^{gn}. Otoitza, *Anastasia.aeunarena*. Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek: Anastasia zure martiri doatsua-aren eguna ospatzen dogun ezker, izan daigula bera gure bitarteko zure aurrean. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tito'ri: 3, 4-7). — Guztiz xnaite ori: Jaungoiko gure Salbatzaillaren errukia ta gizatasuna agertu da: ez zuzenbidean guk egindako ezezagatik, bere errukiz baiño, salbau gaitu, jaiotza barrirako bateoan Espiritu Santuz gu barrizturik. Jesukristo gure Salbatzaillaren bidez, Espiritu Santua eurrez isuri dauku, Aren graziaren osasunaz betiko biziaren jafoegei egm gaitazan, geuk uste dogunez: Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta. — Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena; Jaungoikoa da gure Jauna, ta Berak argitu gaitu. y. Jauna izan da au egin dauana; bai arrigarri gure begientzat!

Aleluia, aleluia. Errege da Jauna, edertasunez jantzita; Jaunak indar-gerrikoa jantzi dau. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 2, 15-20). — Aldi aretan, artzaiñak alkarri inotsen: «Goazan Belen'eraño, ta ikusi daigun Jaunak jakiñerazo daukun jazo miragarri au.» Lenbailen joan ziran, eta Maria ta Jose aurkitu ebezan, umetxoa askan etzunda eukela. Au ikusirik, umetxoaz esan yakena egia zala ezagutu eben: eta guztiak, artzaiñak zirautsena entzunik, arritu egiten ziran. Maria'k, barriz, gorderik eukazan itz guztiok, bere biotz-barrenean ausnartzen ebazala. Eta artzaiñak, iragarri izan yakenez, ikusi ta entzundakoaz Jaungoikoari aintzaka ta goraka biurtu ziran.—*Kredo*.

Eskintza, — Lur biribilla Jaungoikoak gogontu dau, ta ez dau kili-kolorik egingo. Arrezkero, zure iarlukua gerturik dago, Jaungoiko!: beti-betikoa zara Zu.

Opari-otoitza. — Egoki izan beitez, Jauna, gure oparigaiok gaurko Jaiotzako misterioentzat, eta bakea ekarri daiskueta; eta Ume jaiobarri onek gizon eta Jaungoiko lez argi egin eban ezker, lurreko opari onek Jaungoikozko izakera emon daiskula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2^{gn}. O?ari-o<toitza, *Anastasia deunarena*. • Artu egizuz, Jauna, egokiro eskiñi dautsugun oparigaiok; eta Anastasia zure martiri doatsua-aren bitartez, izan daitezala eurok gure osasunerako laguntza. Amaibagako.

Kanon-aurrea, ta Communjcantes: *Gabonetakouk* 451 orri.

Jaunarizerakoa. — Poztu zaitez. Sion'go alaba-
jo txaloak, Jerusalem'go alaba: zeure Errege d; una tá
munduaren Salbatzaillea datorkizu-ta.

Azken-otoitza. — Eukaristi onek beti bizitza ba-
rri bat emon daiskula, Jauna: Kristo, pekatuzko gi-
zaki zarra kentzeko jaió da-ta. Amaibagako... eta zure
Semearen berberaren bidez. Olanxte.

2'cn. Azken-otoiiza, *Anastasia deunarena*.- Zurg
etxeak Eukaristi santuaz asetu dozuzan Jauna; gaur
ospatzen dogunaren bitartez, gure indarrak beti go-
gortu dagizuzala eskatzen dautsugu. Amaibagako.

IRUGARREN MEZA: EGUN ARGIKOA

Sarrçra.—Ums bat jaió yaku, ta semg bat emoi
yaku; agintaritza dakar lepoan, eta Aren izena aolk
(edo kontseju) aundiko Aingeru,—Ps. Abestu egiozuz
Jaunari kantu barri bat, arrigarriak egin dauz-ta.
—Aintza.

Otoitza. — Eiguzu, arren, Jaungoiko algutzidun
orrek: zure Seme bakarraren aragizko Jaiotza barriak,
pekatuaren buztarpean gaukazan antxiñako morrovzai-
tik askatu gazizala. Amaibagako... eta zure Semearen
berberaren. bidez. Olanxte.

Irakurgai (S. Paulo'k Ebertarrai: 1, 1-12).—
Jaungoikoak antxiñako asabai (aurretikoai) ainbat al-
diz eta eraz Igarleen agoz itz eginda gero, azken-egu-
notan bere Semearen bidez itz egin dasku guri. Aitak
gauza guztien jabe izateko jarri dauan Seme au, mun-
dua be Aren bitartez egin dauan au, Aitak bere ain-
tzaren argi-izpi ta bere izatearen irudi dauan au, ía
gauza guztiak bere esan utsaren indarrez jasorik da-
roazan au, orain pekatuen garbikuntza egin ondoren,
zeru goietan Jaungoikoaren eskumaldean jesarrita da-
e, aingeruak baiño askozaz gora-go, oneik baiño izen
bikainagoaren jabe dan aiñan. Zein aingeruri
t:an dautso, ba, Aitak egundo: «Zu neure Seme
mea zara, Neuk egin zaitut gaur ~~se-me~~? Ta
barriro: «Aita izango nakio Ni, ta Bera Sem?
izango yat»? Ta b?sts bein, Seme au munduan sartu-
keran b-s, •ba-diño: «Jaungoikoaren aingeru guztiak auz-
paz jarri bekioz». Aingeruai buruz, barriz, auxe diño:

sAizeak bere aingeru, ta sugarrak bere morroi egiten
dauzana». Semeari buruz, ostera: «Zure jarlekua beti-
betikoa, Jaungoiko, ta zure errege-makilla, zuzen-ma-
lcilla. Zuzena dana maite izan dozu, ta gaizt-akeriari
i.orroto izan dautsazu; orregaitik, Jaungoikoak, zure
jaungoikoak, poz-orioz igurtzi zaitu, zure lagTinen gai-
ñetik goratuaz». Ta barriro: «Zuk, Jauna, lurra asi-
kerarik sendo jarri zenduan, eta zerua be zeure eskuak
egindakoa da. Areik ondatu egingo dira; Zuk, ostera,
beti iraugo dozu; guztiak soifekoa lez zaartuko dira;
soingaiñekoa lez aldatuko dozuz, ta alantxe aldatuko
dira. Zu, barriz, beti bat zara, ta zure urfeak ez dabe
amairik izango.

Koru-kanta. — Lurreko bazter guztiak ikusi dabe
Jaungoikoak bialduriko Salbatzaillea. Goratu egizue
Jauna, gizaki guztiok! Jaunak bere Osasuna erakutsi
dasku; erri guztiari agertu dautse bere zuzentasuna.
Aleluia, aleluia. Egun santu batek argi egin dauts-
ku; zatoze, lurreko erri guztiok, Jauna gurtzera: gaur
lurrera argi aundi bait jatsi yaku-ta. Aleluia.

Barri Ona (Jon., 1, 1-14). — Asieran Itza (1) ba-zan,
eta Itza Jaungoikoagan egoan, eta Itza jaungoikoa
tan. Dana Berak egiña da, ta egindakorik Bera ba-
garik ez da egin. Beragan egoan bizitza, ta biztza au
gizonen argia zan: eta argiak ilunetan argi egiten dau,
ta illunak ez eben artu. Jaungoikoak bialduriko gizon
bat agertu zan, Jon eritxona. Au sinispidetzat (testi-
gutzat) etorri zan, argi-autorle, onen bidez guztiak
sinistu egien. Bera ez zan argia, argiari sinispidea
einon bear eutsana baiño. Egiazko argia zan, lur one-
tara datorren edozein gizakume argitzen dauan argia.
Lurrean egoan, eta lurra Berak egiña da, ta lurak ez
eban Bera ezagutu. Bereakana etorri zan, eta bereak
ez eben artu. Baiña Bera artu eben guztiak, Bere izena
sinistu eben guzt-ai, Jaungoikcaren seme biurtzeko e«-
kubidea emon euzen; oneik ez dira odoletik jaió, ez
aragi senetik, ez gizonaren naitik, Jaungoikoagandik
baiño. (-Emen belaunik.) ETA ITZA GIZON EGIN
ZAN, (zutik) eta geure artean bizi izan zan. Eta geuk
ikusi dogu Aren aintza, Aitagandiko Sems bakarrari
dagokion aintza, graziz eta egiz beta.—K«-edo.

Eskintza. — Zeureak dira zeruak, zeurea lurrundunda ta bertako dana Zeuk jarri dozu bakoitza bere oinean; zuzentasuna ta egakitasuna dira zur* aginpidearen oiñarri.

Opari-otoitza. — Bedeinkatu egizuz, Jauna, zure Seme bakarraren Jaiotza barrian eskintzen dauzugu zan oparigaiok, eta garbitu gagizuz gure pekatuen orbanetatik. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea, ta Communioantes: *Gábonetakouk*, 451 orri.

Jaunartzerakoa. — Lur bazter guztiak ikusi dabe gure Jaungoikoagandiko Osasuna.

Azken-otoitza. — Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: gaur jaio yakun Salbatzailea goi-bizia emotera datorkigun ezkerre, iñoiz ilgo ez dan bizia be emon daiskula zuean. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Meza onen azkenean, ez da azken-Ebanjeliorik esaten.

Gabonillaren 26^agarrena

ESTEBAN DEUNA, Lenengo Martiria

2^ogn. maila. — Gorritz

Eliza, zabalduaz joian. Eta amabi Apostoiuak zazpi gizon aukeratu ebezan, eurai lagun e-giteko. Esteban zan bat, gizon zuzen eta Espiritu Santuz betea, alargunen eta maieri ardura izateko aukeratua.

Grazi ta indarrez beterik egoalako, ainbat mirari egin ebazan erriaren aurrean. Au ezin eben ikusi judarrak, eta amorru aundia eutsoen. Eta aren jakintza ta adoreari gogor ezin egin eutsen ezkerre, a galteza erabagi eben. Batzartokira (edo sinagogara) eroan eta guzurti batzuk, «iñoiz be aspertu bagarik legearen aurka itz egiten ebalaz» bota eutsoen arpegiara, eriotzara epaiturik. Erritik kanpora atara ta arrika il eben.

M E Z A

Sarrera. — Agintariak batzarrean jarririk, neura aurka itz egin eben; gaiztoak, ostera, aurrean narabille. Lagun zakidaz, ene Jaun etaa Jaungoikoa!, zure menpeko onek zure aginduetan zintzo diardu-ta.—Ps.

Zorionsuak benetan, Jaunaren lege-bidean garbi dabizanak!—Aintza,

Otoitza. — Eiguzu, Jauna, arerioak maiite izaten jkasi daigula, gaur ospatzen dogunaren antzera: Jesucristo zure Seme ta gure Jaunari bere jantzeren¹⁵ alde çskatu eutsanaren zerurako jaiotza ospatzen dogu-ta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2^ogn. Otoitza, *Jesukristo'ren Jaiotza^aeguneko*: Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure Seme bakarraren aragizko Jaiotza barriak, pekatuaren buzcuarpean gaukazan antxiñako morroitzatik askatu gagingala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 6, 8-10; 7, 54-60). Egun areitan, Esteban'ek, graziz eta indarrez beterik, errian mirari ta arritzeko asko egiten ebazan. Orduan, Libertino eritzen sinagogako batzuk Esteban'en aurka jagi ziran; baita Zirene, Alexandria, Zilizia ta Asia'ko sinagogetakoak be. Baiña aren (Esteban'en) izketako jakite ta adoreari ezin gogor egin eutsen. (7, 54-60). Eta Esteban'en itzok entzutean, arein biotzak amorruz eta agiñak karraska asi ziran Esteban'en aurka. Baiña arek, Espiritu Santuz beterik eta zerura begira, Jaungoikoaren aintza (zerua) ikusi eban, eta Gizasemea (Jesus) Jaungoikoaren eskumaldean zutik. Eta esari eban: «Ara!, zeruak zabalik dakuizdaz, eta Gizasemea Jaungoikoaren eskumaldean zutik.» Orduan areik, garrazika, euren belarriak estaldu egin ebezan, eta guztiak batera aurka etorri yakozan; eta uritik kanpora atara ta arrika egin eutsoen. Eta an batu ziranak, euren jantziak Saulo izeneko mutil baten oiñetan itzita, Esteban'i arrika egiten eutsoen; eta onek otoi au iñoan: «Jesus Jauna, artu egizu nire arnasa.» Ta belauniko-turik, deadarrez esan eban: «Jauna, ez egiezu pekatu au ezarri.» Ta ori esanda, bekean il zan.

Koru-kanta. — Agintariak, batzarrean jarririk, neure aurka itz egin eben; gaiztoak, barriz, aurrean narabille. Lagun zakidaz, ene Jaun eta Jaungoikoa; onik atara nagizu, errukior zara-ta.

* Jazarle = perseguidor.

Aleluya, aleluya.— Zeruia zabalik dakust, eta Jesus zutik Jaungoiko indartsuaren eskumaldean. Aleluya.

Barri Ona (Mat., 23, 34-39).—Aldi aretan, Jesus'ek idazlari ta pariseotarrai auxe esan eutsen: «Nik, *Jesus* be, igarle, ikastun eta jakitunak bialtzen dautsuedaz-zuek, barriz, areitariko batzuk il eta gurutzean josikó dozuez, ta beste batzuk zuen batzartokietan zigorkadaz astindu ta uririk uri aurrean erabiliko dozuez: lurra-
ren gainean isuritako odol zintzo guztia zeuen gainera jausi daiten, Abel zintzoaren odoletik asi ta elizatik alitarara artsan il zenduen Barakias'sn seme zan Zakarias'en odoleraíño. Benetan dirausuet: gauza guzti oneik gizaldi oni gainera etorriko yazok. Jerusalem Jerusalem!, igarleak il eta zugana bialdutakoai arrika egiten dautsezun ori! Amaika bidar batu nai nebazan zure umeak, cilloak bere txitak egapean batzen dauzanez, eta auk ez dozu nai izan! Orra, bada, etxea utsik geldituok yatzue. Ba-dirausuet: ez nozúe barriro ikusi-ko, «gora Jaunaren izenean datorrena» esan dagizuen arte».—*Kredo*.

Eskintza. — Aposólouak, sinistez eta Espiritu Santuz beteriko Esteban Lebitarra aukeratu eben. Judarrak, barriz, arrika il eben, arek otoitz au iñoala: «Jesus Jauna, artu egizu nire arnasa».

Opari-otoitea. — Artu egizuz, Jauna, zure Santuen gomutaz eskiñitako oparigaiok; areik oiñazeak izen aundiko egin ebazanez, gu damuaz garbitu gazi-zala. Amaibagako.

2^ogn. Opari-O'toiiza, *Jesukristo'ren Jaiotza-egunelcoa*: Bedeinkatu, Jau.na, zure Seme bakarraren jaiotza barri-
an eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta gu be, geure pekatuen orbanetaiik garbitu gagiuz. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kaiion-aurrea ta C-ommunicaatcs; *Gabonetakoak*, 451 orri.

Jaunartzerakoa. — Zeruak zabalik dakusdaz, eta ^{to}sus zutik Jaungoiko indartsuaren eskumaldean: "-una, artu egizu nire arnasa, ta ez egiezu pe-
aintzat artu.

;n-otoitza. — Lagun bekigu, Jauna, artu dok-
jaristi au; ta Esteban zure martiri doatsuaren

bitartez, betiko laguntzaz indartu gazi-zaia. Amaiba-
gako.

2^ogn. Azksn-otoitza, *Jesukristo'ren Jaiotza-egunelcoa*: Eigu-
zu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek; gaur jaiot-
zaiko munduaren Salbatzaileak jaungoikozko bizi-
za emon daskunez, betiko bizi-za be emon daskula.
Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz
ba'era Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olanixe.

Gabonillaren 27^ogarrena

JON DEUNA, Apostolu ta Ebanjelaria

2^ogn. maila. — Zuriz

Betsaitía'n jaiotza tíoqu Jesus'ek maite-maite etoan Apo-
stolu au. Zebedeo ta Salome bere gurasoak. Gaztetan arran-
zale izan zan bere aita ta San-tiago anai nagusi-agaz.
Gero, Kristo'ren jarraile zintzo beti; ta azken-aparitan
jaunaren bular-ondoan egon zana. Jesus'ek, gurutzean josita
egoala, bere Ama laztanaren ardura emon eutsan, eta Ama
samur ori bere etxean arturik, Jerusalem'en bizi izan zan
iuzaro. Geroago, Efeso'n, batez be Domiziliano'ren jazarral-
din, gornak ikusi ebazan: zigortu ondoren, orio irakiñetan
sartu ebén; alan be, oiñaze guztiotatik Jaunak osasunez
atarata, eun urteragiño e*du zan.

Kristo'ren Barri Ona, Agerkari deritxon idaztia ta iru
idazki ezagutzen doguz bereak. Zartxo zala, auxe zan bere
irakatsi etenbaga: «Ene semetxook, alkar maite egizue.»

M E Z A

Sarrera. — Batzar-erdian edegi eban aren agoa
Jaunak, eta jakintzaz eta zurtasunez bete eban: soi-
ñeko argitsua jantzi eutsan.—*Ps.* Ona da Jauna, au-
toritza. ta zure izena goratzea, Goiko Jauna.—Aintza.

Otoitza. — Argitu egizu sa/murkiro, Jauna, zure
Sliza; ta Jon zure Apostolu ta Ebanjelari doatsuaren
irakatsiz diztiraturik, betiko agintzariak jadetsi dagi-
zaia. Amaibagako.

2^ogn. O'lotza, *Jesukristo'ren Jaiotza-eyLiuekoa*: Eigu-
zu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure Seme ba-
karraren aragizko Jaiotza barriak, peka,tuaren buztar-
pean gaukazan antxiñako morroitatik askatu gazi-zala.
Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez.
Olantxe.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 15, 1-6). — Jaunaren bildur danak, egintza onak egingo dauz; eta zuzentatunari ekiten dautsanak, jakituria beraganduko dau ta au bidera urtengo yako, araa agurgarri lez. Adimeneko bizi-ogiaz indartuko dau, ta edarizat jakituri-ur osasungarria emongo dautso. Aregantxe egingo dau bizitokia, ta ez da aldatuko; berari oratuko dautso, ta ez da lotsatuko; lagunen artean goratu egingo dau ta batzar-erdian aren agoa edegiko dau. Jakituri ta adimen gogoz beteko dau, ta soñeko argitsua janiziko dautso. Atsegiñez eta pozez beteko dau, ta izen betikorren jabe egingo dau gure Jaun eta Jaungoikoak.

Koru-kanta.—Anaien artean, ikasle a ilgo ez zalakaren surru-murrua sortu zan. Baiña Jesus'ek ez eban «ez da ilgo» esan, «Ni etorri arte orj orrela egotea nai ba'dot, zuri zer?» baiño. Zuk jarraitu egidazu.

Ajeluia, aleluia. Auxe da esandakoak avortzen dauzan ikaslea; ta ba-dakigu beronen autorra egiazkoa dana. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 21, 19-24).—Aldi aretan, Jesus'ek Pedro'ri auxe esan eutsan: «Jarraitu egidazu.» Pedro'k, biurtuta, Jesus'ek maite eban ikasle a atzetik etorreia ikusi eban, aparitan Jesus'en bular-ondoan etzunda egoala «Jauna, nok salduko zaitu?» itandu eutsana. Pedro'k, bada, ori ikusirik, Jesus'i dirautso: «Jauna, ta ori zer?» Jesus'ek diñotso: «Ni etorri arte ori orrela egotea nai ba'dot, zuri zer?» Zuk jarraitu egidazu.» Arrezkero, anaien artean ikasle a ilgo ez zalakoaren surru-murrua sortu zan. Baiña Jesus'ek ez eban «ez da ilgo» esan, «Ni etorri arte orrela egotea nai ba'dot, zuri zer?» baiño. Ikasle au da esandakoak autortzen dauzana; ta ba-dakigu beronen autorra egiazkoa dana. *Kredo.*

Eskintz». — Zintzoa, palmondoaren antzera aziko da; Libano'ko zedrua legez aundi egingo da.

Opari-otoitza. — Artu egizuz, Jauna, gaurko Santuaren jai onetan eskintzen dautsuguzan oparigaiok: aren bitartez onik urtengo garala uste dogu-ta. Amaibagako.

2^gn. Opari-otoitza, *Jesukristo'ren J aiotza-egunekoa*. • Bedeinkatu, Jauna, zure Seme bakarraren jaiotza berran eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta gu be,

geure pekatuen orbanetatik garbitu gagizuz. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea ta communicantes: Gaboneiafcoafc, 451 orri.

Jaunartzerakoa. — Anaien artean, ikasle a ilgo ez zalakoaren surru-murrua sortu zan. Baiña Jesus'ek ez eban «ez da ilgo» esan, «Ni etorri arte ori orrela egotea nai ba'dot, zuri zer?» baiño.

Azkem-otoitza. — Zerukó janari ta edari onekaz indarturik, apal-apal eskatzen dautsugu, gure Jaungoiko orri: santuaren eguna ospatuaz artu doguzan ezker, berak iagun egin daiskula bere otoiitez. Amaibagako.

2^gn. Azken-otoitza, *Jesukristo'ren Jaiotza-egunekoa*: Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: gaur jaiotako munduaren Salbatzaileak jaungoikozko biritza emon daukunez, betiko biritza be emon daiskula. Amaibagako egunefcan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Gabonillaren 28^ggarrena

UME ERRUBAGEAK, martiriak

2^gn. maila. — Goriz

Egunokaz guztia zan txalo ta poza Belen-aldean. Alan be, beingoan, odoloz gorritu dira bertako arri ta ataurreak: itime odoloz, izan be. Zer jazo ete? Eroses gaiztoak, Kristo errege dala-ta, bildur-ikaraz dauko barrua, ta geiago ezinean, urte birik beerako umetxo guztiak itleko agindu dau. Or, bada, gaurko jai au. Ume jaiobarri areik, itez bagarrik, odola isurita autortu eben Jaunaganako maitasuna. Eurak doguz martirien lenengo lora gorriak.

M E Z A

Sarrera. — Umeen agotik eta bularrekoakandik atara dozu, Jaungoiko orrek, gorapen osoa, zure arearioak dotsaz izteko.—d^os, Gure Jaun eta Jaungoikoak: bai dala arrigarri zure izena lur zabal osoan! —Aintza.

Otoitza. — Egun onetan Umetxo martiri errubageak, agoz ez, eriotzaz baiño, autortu zenduezan Jaungoikoak: ezi egizuz¹ gudan griña txar guztiak, agoz ira-

garten dogun Zuganako sinismeua, gure bizikeraz eta ekanduz be autoirtu daigun.Amaibagako.

2'gn, Otoitza, *Jesukristo'ren JoAotza-egunekoa*: Eiguazu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure Seme bakarraren aragizko Jaiotza barriak, pekatuaren buztarpean gaukazan antxiñako morroitzatik askatu gagingala. Ainaibagako... eta zure Ssmearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Jon'en Agerkaritik, Apoc, 14, 1-5).—Egun areitan, auxe ikusi neban: Sion-mendi gainean Bildotsa zutik egoan, eta Aregaz batera eun eta berrogeita lau milla lagun, Aren izena ta Aren Aitarena bekokietan idatzita eukezala. Ta zeruko ots bat entzun neban, uriol-ots eta itrumoi-burrundara lakoxea; eta entzun neban otsa, zitara joten diarduen zitarazaleena lakoxea zan . Eta kantu barri bat abesten ziarduen aulki-aurrean eta íau abereen eta zaarren aurrean; eta kantu a iñok be ezin ikasi eban, lurretik erositako eun eta berrogeita lau milla areik izan ezik. Ernaku-meakaz loitu ez ziranak dira oneik, garbiak dira-ta. Oneik Bildotsari jarraitzen dautsoe edonora. Gizartean erosiak izan dira oneik, Jaungoikoarentzat eta Bildotsarentzai, asikiñak* lez. Eta arein agoan ez da guzurrik aurkitu, Jaungoikoaren aulki-aurrean orbanbage dira-ta.

Kor.u-ka.nta. — Gure arimeak, txc-riak legez, igeg egin dau eiztarien * saretik. Sarea ausi egin da, ta guk iges egin dogu. Zeru-lurra egin e'oazan Jaunaren izena dogu laguntza.

Aleluia, aleluia. Goratu, gazteok, Jauna; goratu Jaunaren izena. Aieluia.

Barri Oia (Mat., 2, 13-13). — Aldi aretan, Jaunaren aingerua Jcse'ri amesetan agertu yakon, esanez: Kjagi zaitetz, Ama-Semeak artu ta Ejipto'ra iges egizu, ta zagoz an neuk esan arte: Umea galtzearren, Erodes Aren billa i'oiiko da-ta.» Jose, beraz, jagirik, Umea ta onen Ama artu gafcez, cta Ejipto'ra baztertu zan. Eta antxe egen zan Erodes'en erfotzararte, Jaunak igarlearen agoz esandakoa bete zedin: «Nire Semeari Ejipto'tik dei egin dautsat.» Orduan Erodes'ek, aztiak atzipetu* egin ebela oarturik, asarre gorritan

jarri zan, eta Belen'en eta inguruetan zeitekezan urte bitik beerako ume guztiak ilteko agindu eban, aztiak esandako isasoia gogoan artuaz. Orduan bete zan Jeremias igarleak esan eban au: «Abotsa Errama'n entzun da, negar eta karrazi ugari; Errakel bere umeakaitik negarrez, eta ez dau pozbiderik nai, ez <jira bizi-ta.»—*Kredo.*

Esintza.—Gure arimeak, txoriak legez iges egin dau eiztarien* saretik; sarea ausi egin da, ta guk iges egin dogu.

Opari-otoitza. — Zure santuen oitaitz samurra egin dau dauskula, Jauna, uts egin: gure oparigaiok Zuri ondo arrezaraz, ta guri zure errukia beti jadetsi daiskun. Amaibagako.


2'gn. Opari-otoitza, *Jesukristo'ren Jaiotza-egunekoa*: Bedeinkatu, Jauna, zure Seme bakarraren jaiotza barriaren eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta gu be, geure pekatuen orbanetatik garbitu gaginguz. Amaibagako... eta zume Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea ta Communicantes: *Gabonetakoak*, 451 orri.

•• Jaunartzerakoa.—Abotsa Errama'n entzun da, negar eta karrazi ugari: Errakel bere umeakaitik negarrez, eta ez dau pozbiderik nai, ez dira bizi-ta.

Azken-otoitza, — Zuri eskiñitakoak barriro artu doguzan ezkerro, Jauna, eiguazu, arren: zure Santuen oitaitzen bitartez, oraingo ta geroko bizitzarako bear dogun laguntza jadetsi daiskuzula. Amaibagako,

2'gn. Azken-otoitza, *Jesukristo'ren Jaiotza-egunekoa*: Eiguazu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: gaur jaiotako munduaren Salbatzaileak jaungoikozko bizitza emon dauskunez, betiko bizitza be emon dauskula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.



JAUAREN JAIOTZATIK ZORTZIURREN-ARTEKO IGANDEA

2^{gn.} maila. — Zuriz

Jesus gure Jauna, gu bere anai ^{ta} Jaungoiko-seme ^{esi} teko geure gizatasunez jantzi zan. Bai, Jaungoikoaren ^{semp} -ordeko gara, ta bizitza onetandik izan be aundikitasun ^T Ncizbait Goiko Aitareen etxaguntza; au da, zerua geuretz ^{LM} eskutodedun gara, zerurako eskubide ori Jesus'ek ^{1^{gn} Dⁿ, i} dausku-ta. ^{uazi}

Geure egikeretan, —ixuraz eta gogoz—, erakutsi daihun alako Aitareh seme garala.

Biblia.—S. Paulo'k Erroma'koai : 1, 1-17; 2, 1-15; 3, 21-6; 7, 14'tik 8, 39'ra.

M E Z A

Sarrera. — Dana isil-isil egoala, ta gauak biderik erdia eginda eukala, zure Itz alguztiduna etorri yakun zerutik beera, bere errege-aulkia itzirik.—Ps. Erre'e da Jauna, edertasunez jantzita; Jaunak indar-gerrikoa jantzi dau.—Aintza.

Otoitza. — Jaungoiko alquatidun eta errukiorra! Gure egitadak zeure gogoz zuzendu egizuz: zure Seme bakar maitearen izenean, egintza onez bete gaitazan Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Sanituagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irailiurgaia (S. Paulo'k Galazia'koai: 4, 1-7).—Anaiok: Oiñordekoa ume dan artean, guztien jabe izanarren, morroia aiña da: aitak izentauriko epea (aldia) bete arte, guraso-ordekoen eta jagoleen menpeko egon bear dau-ta. Olantxe gu be, geure umetan, munduaren menpeko gintzazan. Baiña epea (aldia) osotu zansan, Jaungoikoak bere Semea bialdu euskun, emakumeagandik jαιο ta Legepean jarria Bera: legepean ziranak askatu egizan, guztiok semetasuna izan gengan. Eta seme zareen ezkeru, Jaungoikoak bere Semearen Gogoa bialdu dautsue biotzetara, Jaungoikoari «Abba, Aita!», deiez diñoana. Beraz, orain ez da morroi, seme baiño; ta seme izan ezkeru, oiñordeko be bai, Jaungoikoaren egiñez.

Koru-kanta. — Gizasemerik ederrena zara; atsegifia dariozu ezpanetatik. Nire biotzari abesti eder bat dario; Erregearentzat nire olerkiak. Idazle bizkorren eztena **Sez** dot miña.

Aleluia, aleluia. Jauna Errege da, edertasunez jantzita; Jaunak indar'gerrikoa jantzi dau. Aléluia.

Barri **Ona** (Luk., 2, 33-40).—Aldi aretan, Jose ta Jesus'en ama Maria arriturik egozan, Aretzaz (Jesus' etzaz) iñoena entzunda. Simeon'ek bedeinkatu egin ebazan, eta Umearen ama Maria'ri esan eutsan: «Entzun: askoren ondamendirako ta askoren osasunerako da Ume au jarria Israel'en, baita ukatuko dabenen ezaupiderako be. Zure biotza, barriz, ezpata batek zulatuko dau, askoren biotzak gordeten dabezan asmoak agertu daitezcan.» Emakume igarle bat be ba-zan, Ana, Panuel'en alaba, Aser'en jatorrikoa. Oso zaarra zan, ezkonduta zazpi urtez bere senarragaz bizi izan zan eta larogei ta lau urterarte alargun egoana: elizatik alde egiteke, barau ta otoitz, gau ta egun Jauna goratzen ziarduan. Eta ordu aretan etorririk, Jauna gorosten asi zan, eta Israel'en SalbateaUIe-zain egozan guztiai, Umearen barri emoten eutsen. Eta Jaunaren leagak agintzen eban guztia bete ondoren, Galilea'ra biurtu ziran, euren uri Nazaret'era. Eta Umea azi ta gogortzen joian, senez beterik, eta Jaungoikoaren grazia Aregan egoan.—*Kredo*.

Eskintza. — Lur biribilla Jaungoikoak gogortu dau, ta ez dau kili-kolorik egingo. Arrezkeru, zure jarlekua genturik dago, Jaungoiko!: beti'betikoa zara Zu.

Opari-otoiíza. — Eiguzu, Jaungoiko algutziaun zure aurrean ezklntzen dautsugun cpari onek, Zugana-'ko maitasuna lortu daiskula, ta gero betiko zoriona emon. Amaibagako.

Kanon-aurrea ta Gommunicantes: *Gabonetakoak* 451 *orri*.

Jaunarízerakoa.—Artu egizuz Ama-Semeak eta zoaz Israel-aldera: TJ-mea illerazo ebenak il dira-ta.

Azken-ofoítza, — Eukaristi onen indarrez, Jauna gure pekatuak garbiíu daitezala, ta guk opn doguna' bete claitela. Amaibagako.

GaboniIaren 29'garrena

JAUNAREN JAIOTZATÍK ZORTZrURKENEKO 5'GARREN EGUNA

2'gn. mailla. — Zuriz

?l:za: *Jesukristo'ren Jaiotza-eguneko .f'garrena*, 44 *orri*; Irakurgaia: Jaungoiko gure, 43 *orri*, ta Barri (Jna: Artzaiñak alkarri, 43 *orri*.

2's:ri. Otoitzak: *Tomas deunaren urrengokoak*:

2'gn. Otoitza.—Jaungoikoa! Zure Elizaren alde gaiztosn ezpatapean jausi zan Tomas gotzain ospatsua; egizu. aren laguntza eskatzen daben guztiak. euren eskaria lortu dagiela. Amaibagako.

f'g-n. Opari-otoitza.—Bedeinkatu egizuz, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta Tomas zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, samurkiro begiratú ga-gizuz. Amaibagako.

2'n. Azken-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, pekatu guztitik garbitu gaizala; ta Tomas zure martiri ta go-tzain doatsuaren bitartez, zerurako osasunbide izan dakigula. Amaibagako.

GaboniIaren 30'garrena

JAUNAREN JAIOTZATIK ZORTZIURRENEKO 6'GARREN EGUNA

2'gn. maiUa. — Zuriz

Meza: Jesakristo'ren *Jaiotza-egunekoa*, 44 *orri*.; Irakurgaia: Jaungoiko gure, 43 *orri*., ta Barri Oi«. Artzaiñak alkarri, 43 *orri*.

Gabonillaren 31'garrena

JAUNAREN JAIOTZATIK ZORTZIURRENEKO 7'GARREN EGUNA

2'gn. mailla. — Zuriz

Meza: *Jeaukristo'ren Jaiotza-egunekoa*, 44 *orri*.; Irakurgaia: Jaungoiko gure, 43 *orri*., ta Barri Ona: Artzaiñak alkarri, 43 *orri*.

2'gn. Otoitzak, Sifbestre *deunarenak*; Si diligis *Mezakoc.k*, 454 *orri*.





UrfarriHaren l'goa

JAUNAREN JAIOTZA-ZORTSI GARRENA •
URTE BARRI

l'go. inailla. Zuris

Urte bat geiago lepoan, Joan yakuna, barriz, ez yaku barriro biurtuko. Ser egin dogu bere barruan? Egintza onak, ala txarrak? Zururako uanik batu dogu gure garautegetan? Ala, loi ta f.ikin, pekatuz astunduta igaro ete-dogu atzo amaitu yakun urtezarra? Nok luzatuko dauku esku errubitsua? Njk gu garbitu? Nok irakatsiko dauku zerurako Didea? *Jesukristo*'k, gure Salbatzaille bera dogu-ta.

Biblis.—Erroma'koai: 9'tik U'ra; 12; 13; 15, 1-13.

M E Z A

Sarrera. — Ume bat jaio yaku, :ta Seme bat emon yaku; agintaritza dakar lepoan, eta Aren izena aolku (konizeju). aundiko Aingerua.—*Ps.* Abestu egiozue Jaunari kantu barri bat, arrigarriak egin dauz-ta. --Aintza.

Otoitza.—Maria Birjiña doatsua ama egiñik, gi zadiari betiko osasunaren saria emon dautsazun Jaungoikoa: eiguzu, ezagutu daigula aren bitartekotasuna, biziaren jabe dan zure Seme Jesukristo gure Jauna aren bidez ezagutu dogu-ta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgaia: Gizon guztiontzat, 40 orri.

Koru-kanta. — Lurreko bazter guztiak ikusi dabe Jaungoikoak bialduriko Saibatzailla. Goratu egizue

ja/una, gizaki guztiok! Jaunak bere Osasuna era-jutsi dauku; erri guztiai agertu dautse bere zuzen-tasuna.

Aleluia, aleluia. Jaungoikoak antxiñako gurasoai airotaat aidiz eta eraz Igarleen agoz berba eginda gero, azken-egunotan bere Semearen bidez egin dauku ber-Da. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 2, 21). — Aldi aretan, Umea er-daintzeko* zortzi egunak bete ziranean, izena JESUS ezarri eutsoen, amaren sabelean sortu baiño len ain-geruak emondakoa.—*Kredo.*

Esintza.—Zeureak dira zeruak, zeurea lurra; mun-dua ta bartako dana Zeuk jarri dozu bakoitza bere oiñean: zuzentasuna ta egokitasuna dira zure agin-pidearen oiñarriak.

Opari-otoitza. — Gure oparigai ta otoizak onar-turik, Jauna, Opari santu onen bidez garbitu gagizuz, eta biotz onez entzun. Amaibagako.

Kanon-aairrea, ta Oommunicantes: *Gabonetxkoak*, 451 orri.

Jaunartzerakoa. — Lur bazter guztiak ikusi dabe gure Jaungoikoagandiko Osasuna.

Azken-otoitza. — Eukamsti onek garbitu gaizala, Jauna, pekatu guztietatik; eta Jaungoikoaren Ama Maria Birjiña doatsuaren bitartez, zeru-sariaren lagun egin gagizala. Amaibagako... eta zure Semearen ber-beraren bidez. Olantxe.

Urtarrillaren 2'garrena

JESUS'EN IZEN GUZTIZ DEUNA (1)

2'gn. mailla. — Zuris

Umeai izena jartea a&padikoa dogu; esan-nairik asko dauz, baiña nor nor dan dirausku batez be.

Kristo'ri be, judarren artean oitura zanez, izena emon eutsoen, jaio ta zortzigarren egunera. Ain zuzen be, izena JESUS ezarri eutsoen, *Salbatzaille* adierazoten dauana: Bera da, izan be, guretzako bititza, osasuna ta itxaropena.

* Erdaindu = circuncidar.

C) Jai au, Urtarrillaren 2'tik 5'era jausten dan Igandez ospatzen da; bitarte orretan Iganderik ez ba'dator, Urtarrilla-ren 2'an beti.

Zeru-lui' eta inpernuia be'launiko jarri beitez, Izen gora,"a-
rri au entzutean!

Biblia.—Korinto'koai l'goa.: 1, 17'tik 4, 15'era; 6 9'tfs
7, 40'ra; 9, 13-27; 11, 17-34.

M E Z A

Sarrera. — Jesus izena entzutean, jarri badiz be-
laluiiko zeru-lur-inpernuak; eta miin guztiak autortu
bsgie Jauna dala Jesukristo, Aita Jaungoikoaren ain-
tzarako.—*Ps.* Jauna, gure Jauna!: bai arrigarria zure
izena mundu osoan!— Aintza.

Otoitza. — Zure Seme bakarra gizadiaren Salba-
tzaille egiñik, izena JESTJS emon zeutsan jaungoikoa.
egizu bio.z onez, izen santu au lurrean gurtzen dogu-
nok, zeruan be Bera ikusiaz zoriontsu izan gaitezala.
Amaibagako... eta zure Smearen berberaren bidez.
Olantxe.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak: 4, 8-12). — Egun
areitan, Pedro'k, Espiritu Santuz beterik, auxe
esan eutsen: Erriko nagusi ta Israel'go zaarrok, en-
tzun! Geiso baten osasuna dala-ta, zelan osatu zan
gaur itauntzen daukuzuen ezker, jakin egizue zuok
eta Israeldar guztiak be, zuek gurutzeratu ta Jaun-
goikoak illen artetik berbiztu dauan Jesu-Kristo Na-
zaretarren izenean dagoala gizon ori zuen aurrean
osaturik. Auxe (Jesukristo) da, bai, zuok, etxe-egilleok,
bazartutako arria, orain giltzarri egiña. Ta osabiderik
(salbaziñorik) ez dago beste iñogan, gizonai eguzki-
pean ez yake beste izenik emon-eta, Aregandik osa-
suna izan dagün.

Koru-kanta. — Zaindu gagizuz, Jaungoiko gure
Jauna, ta gorde gagizuz atzerrietatik, zure Izen san-
tua autortu dagigun, eta Zu goratuaz poztu gaitezan.
—Jauna, Zeu zara gure Aita ta gure Eroslea: orixe
da betidanik zure Izena.

Aleluia, aleluia. Jaunaren gonapenak esango dauz
nire agoak, eta gizaki guztiak goratu begie Aren izen
santua. Aleluia.

Bari Ona (Luk., 2, 21). — Aldi aretan, Umea er-
daintzeko * zortzi egunak bete ziranean^ izena JE^

* Erdaindu = circuncidar.

SUS ezarri eutsoen, amaren sabelean sortu baiño len
aingeruak emondakoa.—*K.redo*

Esaintsa. — Biotz-biotzez ospatuko zaitut, ene
Jaungoiko Jauna, ta zure Izena beti goratuko do't;
jaun ona ta biozpera zara-ta, erruki aundikoa dei
«giten dautsuen guztientzat. Aleluia.

Opari-otoitza. — Jaungoiko guztiz errukior! Gi-
zaki guztiak bedeinkatu dozuan eskuz bedeinkatu
egizu zure Seme Jesukristo gure Jaunaren izenaren
omenez eskintzen dautsugun opari au be; Zuri atse-
gin dakizula, Jaun aundi orri, ta guri zerurako on
egin daiskula. Amaigabako... eta zure Semearen ber-
beraren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea: *Gabonetakoak*, 451 orri.

Jaunartzerakoa. — Zuk egindako erri guztiak
etorriko yatzuz, Jauna, ta zure aurrsan makurturik,
zeure Izena goratuko datie: Zu aundi ta mirarigifle
zara-ta. Zeu zara bakar-bakarrik Jaungoiko. Aleluia.

Azkertotoitza. — Jaungoiko aluztidun eta beti-
korra! Zeuk egin eta erosi gaftuzun ezker, artu egi-
zuz biotz cnez gure eskariak; artu egizu arpegi samu-
rrez zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'ren izenaren
omenez eskintzen dautsugun opari osasungarri au;
zure grazia gugan isurita, Jesus, izen argitsu au, zeru-
lako betiko agiritzat izan dakigun, eta gure izenak
an idatzita aurkitu daitezcan. Amaibagako... eta zure
Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Ilrtarrillaren 2, 3 ta 4'gari'ena

i'gn. mailla. — Zuriz

M E Z A


1) *Urtebarri egunekoa*, 58 orri; ez da *Kredo'rik esa.*
ien; *Cabonetako Kanon-aurrea*, 451 orri.

2) *Larunbatez, barriz, Andra Maria'rena*, 461 orri.

Urtarrillaren 5'garrenean

4'gn. mailla. — Zuriz

Rieza: *Aurreko egunetan lez; 2'gn. Otoitzak, Te-*
1 *lesporo deunarenak: «Si diligis» Mezakook*, 464 orri.



Urtarrillaren 6'garrena

JAUNAREN AGERKUNDEA:
ERREGEN

l'go. mailla. — Zuriz

Epiphania itzak *agertzea* esan nai dau; eta egun onetan, Jesus'en iru agertze dakarguz gogora: 1) Estalpean iru aztiai (erregeai); 2) Jordan'go bateoan mirari aundiz; eta 3) Kana'ko ezteguetan ura ardao biurtuaz.

Gaurko agertu yaken bere erriko ez ziranai be, izar baten bidez (ikusit Barri Onaren zatian): Jesus guztiak zeruratzera etorren.

Gabiltzan gu be Kristo'ren izar ditziratsuaeren atzetik.

Biblia.—Korinto'koai l'goa.: 12; 13; 15, 1-28; Korinto'koai 2'gna.: 1, 1-11; 2, 14tik 3, 18'ra.

M E Z A

Sarrera. — Ba«iator Jaun nagusia; bere eskuan dakar erreñua, indarra ta agmtarritza.--Ps. Ene Jaungoikoa!, emon egiozu Erregeari zure auzia, ta Errege-*-semeari* zure zuzentasuna.—Aintea.

Otoitzta. — Izarren bidez, gaurko egunez atzerriai zure Seme bakarra agertu zeutsen Jaungoikoa: eiguzu sainurkiro, fedez ezagutu zaitugun ezker, joan gaitezala zerura zure arpegi ederra ikustera. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgai (Lsaias: 60, 1-6). — Jagi zaitez ta argitu, Jerusalem: zure argia ba-dator eta Jaunaren goraldia zeure gainean agiri da-ta. Lurra, izan be, illun-

pean dago ta erriak lainoan. Zugan, ostera, Jauna jai-o da ta Aren dirdira agertu. Erriak zeure argitan ibiliko dira, ta erregeak zeure egunsenti-argitasunean. jaso begiak baztarretara, ta ikusi: guztiok batu dira ta zeugana datoz; urrundik datorkizuz zure semeak, eta zure alabak besoetan dakarrez. Orduan, aberats ikusijo dozu zure burua; biotza arritu ta zabaldu egingo yatzu. Zeugana etorriko dira itxasoko ondasunak, baita errien aberastasunak be. Ganbelu-taldeak eurrez eukiko dozuz, toaita Madian'go ta Efa'ko dromedarioak be. Saba'tik parrastaka etorriko dira urre ta intzentzua ekarriez eta Jaunari goraka,

Koru-kanta. — Saba'tik parrastaka etornko dira urre ta intzentzua ekarriez eta Jaunari goraka. Jagi zaitez ta argitu, Jerusalem: Jaunaren goraldia zeure gainean agiri da-ta.

Aleluia, aleluia. Eguzki-sortzaldean Aren izarra ikusi dogu, ta opariakaz etorri gara Jauna gurtzera. AJelua.

j Barri Ona (Mat., 2, 1-12). — Eroses erregearen egunetan, Juda'ko Belen'en JESUS jai-o zanean, azti* batzuk eguzki-sortzaldetik Jerusalem'era etorri ziran, esanez: «Nun dago judarren errege jaiobarria? Eguzki •sortzaldean Aren izarra ikusi dogu-ta, gur egitera gatorkioz.» Au entzunik, Eroses erregea larritu egin zan, eta bardin Jerusalem guztia be. Ta abade-nagusi ta erriko idazlari guztiak batu-erazorik, Jesus non jaiobearra zan itandu eutsen. Eta areik esan eutsoen: «Juda'ko Belen'en; igarleak onela idatzita daukanez: "Eta zu, Belen, Juda'ko bazter ori, ez zara inola be Juda'ko nagusietan txikiena: nire erri Israel zuzenduko dauan buruzagia, zeugandik sortuko da-ta." Orduan Eroses'ek, aztiai isillean dei eginda, izarra noiz agertu izan yaken jakin eban arekandik. Eta Belen' era bialtzen ebazala, auxe esan eutsen: «Zoaze, ta jakin egizue umea nun dagoan; efca aurkitu dagizue-nean, iragarri egidazue, neu be ara joan eta gurtu dagidan.» Areik, bada, erregearen berbak entzunda, joan egin ziran. Eta sortzaldean ikusiriko izarra aurretik joakien, Umea egoan toki-gainean gelditu arte. Izarra ikustean, pozez bete ziran. Eta etxean sartuta,

* Azti = mago. * Zergak = tributos.

Umea aurkitu eben bere Ama Maria'gaz (*emen belauiniko*); eta llinean auzpazturik, gurtu egin coen; eta euren kutxak edegirik, opariak eskiñi eutsoezan; urvea intzentzua ta mirra. Eta lo egczala, Eroses'egana e? biurtzeko aolkua (kontzejua) artuta, beste bide bide gutetik barriro euren errialdera joan ziran.—*Kredo*.

Eskiritza,—Tarsis'ko ta ugarteetako erregeak opariak eskiñiko dautsoez; Arabia'ko ta Saba'ko erregeak zergak" ordainduko dautsoez. Munduko errege guztiak gurtu egingo dabe: atzerritar guztiak be morroi izango yakoz.

Opari-otoitza. — Ikusi egizuz samurkiro, Jauna zure Elizaren oparigaiok: urrea, intzentzua ta mirra bagarik, oneik adierazoten daben Jesukristo zure Seme ta gure Jauna dogu opari ta janari-ta. Amaibagako egunstan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

ÍE'non-aurrea ta Communicantes: *Erregenetakoak*, 451 orrl.

Jaunartzerakoa. — Eguzki-sartzaldean Aren izarra ikusi dogu, ±a Jauna gurtzera etorri gara opariakaz

Azken-otoitza. — Egizu, arren, Jaungoiko al-guztidun orrek, gure adimen argituak ulertu dagiala egun aundi onetan ospatzen doguna. Amaibagako.

Urtarrillaren 7'garren
egunetik 12'garrenera

4'gn. mailla. — Zuriz

M E Z A


1) *Erregen egunelcoa*, 62 orri.; *Kredo bagarik*; *Erregenetako Kanon-aurrea*, 451 orri.


2) *Erregen-osteko lenengo Igande ondoren, Igande onetako Meza*, 69 orri.; *Kredo bagarik*; *Erregenetako Kanon-aurrea*, 451 orri.

3) *Larunbatez, Andra Maria'rena*, 461 orri.

U.RTARRILLAREN 11 GARRENEAN

Meza: *Aurreko egunetan lez*; 2'gn. *Otoitzak*, *Ijinio deunarenak*: «Si diligis» *Mezakoak*, 464 orri.





ERREGEN-OSTEKO IGANDEA

JESUS, MARIA TA JOSE, SENDI (*AMILI)
DEUNAREN JAIA

2'gn. mailla. — Zuriz

Ona emen Nazaret'eko etxe zuria; bertan sendi edo famili santu bat: Jesus, Maria ta Jose. Guztion eredu dogu sendi au: etxeko buru, Jose doatsua; andrazkoentzat, Andra Maria, maitetsu ta zintzo; umetxoentzat, esaneko izaten ikasteko, Jesus, Jaungoiko ta Gizon.

Oitura on, aikiar-imaitsun eta artu-emonetan, etxekoen artean kristaukiro jokatzeko, begiratu daigun beti Nazaret'eko izp'llu garbia.

Biblia.—Korinto'koai 2'gna.: 4, l'etik 6, 10'era; 11; l'etik 12, 10'era. Galazia'koai: 1, 11'tik 2, 21'era; 4, l'etik 6, 18'ra.

M E Z A

Sarrera. — Poztu bedi Zintzoaren aita; alaitu.beitez zure aita-amak; poztu bedi Zu seme egin zenduzana.—P.s. Zure etxea bai maitagarri, Jaun indartsu! Antziz eta makal daukat biotza Jaunaren etxeaganako gogoz.—Aintza.

Otoitza. — Maria >ta Jose'ren menpean egonik, etxe-barruko bizikeia arrigarriri santutu zenduan Jesukristo Jauna: eiguazu, bion laguntzaz zure Sendi (Pamili) deunaren ikasbideai jarraiturik, zeruan Arein lagun izan gaitetzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Koloso'koai: 3, 12-17).—Anaiok: Jaungoikoarentzat aukeratu, santu ta maitagarri. zareen ezker, jantzi zaitzez errukiz, ontasunez,

j.paltasunez, eratasunez eta eroapenez. Alkar jasan (eroan) egizue, parkatuaz, alkarren arteko asarrerik ba'litz. Parkatu alkarri, Jaunak be parkatu dautsue-ta. Guztion gaiñetik, barriz, izan egizue maitasuna, zintzotasunaren lokarria .da'ta. Gaiñez egin begi zuen biotzetan Kristo'ren bakeak: orretarakoxe izan zintzaz deituak-eta, gorputz bat egiteko. Eskerroneko be izan zaitzez. Bizi bedi oparo zuekan Kristo'ren itza, senik aundienaz aikar argitu ta berotu dagizuen; eskertsu ta gogoz Jaungoikoa zeuen biotzetan goraturik, eresiz, ereserkiz eta kantuz. Edozetan jardun dagizue, itzez naiz egiñez, egizue guztia Jesukristo Jaunaren izenean, Beronen bidez Aita Jaungoikoari eskerrak emonez.

Koru-kanta. — Auxe bakarrik eskatzen dausat Jaunari, ta auxe nai dot: Jaunaren etxean bizi nardilla, neure biutzako egun guztietan.—Zure etxean bizi diranak, bai zoriontsu, Jauna! Gizaldiz gizaldi goratuko zaitue.

Aleluia, aleluia. Errege ez-ezaguna zara Zu benetan, Israel'en Jaungoiko Salbatzaillea. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 2, 42-52). — Jesus amabi urteko zala, areik (bere gurasoak) Jerusalem'era joan ziran, jaiiegun aitetako oitura zanez. Jaiieg-unok amaituta, etxerakoan, Jesus Umea Jerusalemen gelditu zan, gurasoak igarteke (igarri bagarik). Besite lagunen artean izango zalakoan, egun bateko bidea egin ondoren, Aren billa Jerusalem'era biurtu ziran. Iru egunen barruan, eliza-nagusian aurkitu eben irakasleen artean jesarrita: batean arei entzuten, bestean itaunka; entzule guztiak arrituta egozan Aren jakituri ta erantzunez. Alan ikusirik, Aren gura-soak be arritu egin ziran, eta Amak esan eutsan: «Seme!, zegaitik egin dauskuzu ori? Begira, zure aita ta ni estu ta larri ibili gara zure billa.» Eta erantzun eutsen: «Zetako ibill zaree nire billa? Ez zekien nire Aitaren lanetan jardun bear dodana?» Baiña areik ez eben ulertu esan eutsena. Eta alkarregaz Nazaret'era jatsirik, bere gurasonen menpean bizi zan. Aren Amak, barriz, itz guzti oneik biotz-barruan gorde ebazan. Eta Jesus geroago ita beteago agiri zan jakituriz, adimenez eta graziz Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.—Kredo.


Eskintza. — Gurasoak Jesus Jerusalem'era eroan eben, Jaunari eskintzeko.

Opari-otoitza.—Bake-opari au eskintzean, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna: Birjiña Jaungoikoaren Ama ta Jose doatsua bitarteko doguzala, gure sendiak (famiak) zeure bakez eta graziz indartu daguzuzala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olanitxe.

Kanon-aurrea: *Erregenetakoa*, 451 orri.

Jaunartzerakoa. — Jesus gurasoakaz Nazaret'era jatsi zan, eta arein menipeko bizi zan.

Azken-otoitza. — Sakramentu zerutar onezaz indartu gaituzunok, egizu, Jesus Jaun orrek, beti zure Sendi (Pamili) santuaren eratara bizi gaitezala; gure eriotz-orduan, zure Ama goragari ta Jose doatsua billa etorri dakiguzanean, zeure betiko etxean artu gagizuzan. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.



ERREGEN-OSTEKO LENENGO IGANDEA

Meza au ez da igandez ospatzen, asie-barruan baiño.

Sarrera. — Aulki gorenean gizon bat jesarrita ikus: neban: Aingeru-talde aundiak gurtzen eban, guztiak batera abesten ebela: Ona emen betiko agintarritza dauana.—*Ps.* Goratu Jaungoikoa, lurreko gizaki guztiok; otseindu egizue Jauna pozez beterik.—*Aintza.*

Otoitza. — Entzun biotz onez, Jauna, zure erri zintzoaren eskaria: egin bear dauana ezagutu, ta ezagutu dauana bete dagian. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai, 12, 1-5).—Anaiok: sJaungoikoaren errukiagaitik eskatzen dautsuet: zuen gorputzak opari bizi, santu ta atsegingarritzat eskiñi egiozuez Jaungoikoari: orixe dózue egiazko gurtzea-ta. Mundu onetako antzik ez artu; gogoa barriztuaz, aidatu bai, ostera: Jaungoikoaren gurari on, atsegingarri ta bikaiña zein dan ezagutu dagizuen. Emon yatan eskubidez, zuetariko bakoitzari auxe dirautsat: zure burua ez egizu zaran baiño geia-gotzat artu, neurribidez baiño, Jaungoikoak bakoitzari Gintsmena banatu dautsan negurriz. Gorputz baten ata'lak asko dira, baiña atal guztiak ez dabe egiteko bardiña. Orrela, bada, asko garanok, gorputz bat egiten dogu Kristo'gan: bata besteari buruz, barriz, atal-lak gara, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Onetsia (bedeir.katua) Israel'go Jaungoikoa; Beronek egiten dauz betidanik mirari arri-garriak. Mendiak artu begie zure erriarentzako bakea, ta mendinbizkarrak zuzentasuna.

Aleluia, a^leluia. Jo txaloak Jaungoikoari, lurreko gizaki guztiok; otseindu egizue Jauna pozez beterik. Aleluia.

Barri Ona: Jesus amabi urteko zaJla, 67 orri.

Eskintza.—Goratu Jaungoikoa, lurreko gizaki guztiok; otseindu egizue Jauna >pozez beterik.

Opari-otoitza.—Zuri eskdñitako opari onek, Jauna, beti bizkortu ta indartu gaizala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Erregenetakoa*^iBl orri.

Jaunartzerakoa.—Seme!, zegaitik egin daukuzu ori? Begira: zure aita ta ni estu ta larri ibili gara zure billa. Zegaitik ifoilli zaree nire billa? Ez zekien nire Aitaren arazoetan jardun bear dodala?

Azken-otoitza.—Apal-ap'al eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguzbidun orri: Eukaristiaz indartu gaituzunok, oiitura garfoiz eta egoki zure morroiketan jardun dai-gtfla. Amaibagako.

Urtarrillaren 13'garrena

JESUKRISTO GURE JAUNAREN
BATEOAREN GOMUTAPENA

2'gn. maila. — Zuriz

Gaur, Jesukristo gure Jaunaren Beteoa gogoratzen dogu. Barri Onaren zatia irakurtean, Jaungoikoagian iru notin ~~edo~~ persona dagozala ezagutzen dogu: Jon Bateatzai Ueari itz egiten dautsan Aita Betikoa; S«mea edo Jesukristo, ta Espiritu Santua uso-irudiz.

Meza: *Erregen-egunekoa*, 62 orri., *urango* Otoitzak eia Barri Ona *izan ezilc*:

Otoitza.—Gure aragi-jantzia artu eban Seme bakarraren Jaungoikoa: eiguzu, azalez geure antzeko dala ezagutu dogun Arek, barruz be bere antzera barriztu gagizala. Amaibagako egunetan Zugaz eta EL-piritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Barri Ona (Jon, 1, 29-34). — Al-di aretan, Jon'ek Jesus beragana etorten ikusi ta esan eban: «Orra, gizonen pekatuak kentzen dauzan Jaungoikoaren Bildotsa. Orixe da nik orretzaz esan neban au: Nire ondoren dator aurretik jarri yatan gizona, ni baiño lenago ba-zan-eta. Nik, foarriz, ez nebaji ezagutzen; baiña Israel'i agertu dakion, urez bateatzera etorri naz ni.» Ta Jon'ek autor au egin eutsen, esanez: «Uso-irudiz goiko Gogoa (Espiritu Santua) zerutik jatsiten eta Aren gaiñean ezarten ikusi dot. A (Jesus) nik ez neban' ezagutzen; baiña urez bateatzera bialdu nauanak Berak esan eustan: Norbaitegana Espiritua jatsiten eta aren gaiñean ezarten ikusiko dozu: Axe da Espiritu Santuz bateatzen dauana. Ta neuk ikusi

dot, eta autortu be bai Axe dala Jaungoikoaren Semea.»—*Kredo*.


Opari-otoitza. — Ona emen, Jauna, zure Seme jafoaren agerkundeia dala-ta, ekarten dauitsuguzan oparigaiok; eta apal-apalik eskatzen dautsugu: gure oparigai onein emoille jesukristo gure Jauna berbera dan ezkeru, artzaille errukitsu be izan dakiguua. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Azken-otoitza, — Noz-nai ta nun¹nai, Zeure goi-argitara erabili gagizuz, Jauna; ta Eukaristiaren erdikide* egin gaituzun ezkeru, begi garbiz ikusi ta gogo bikaiñez artu dagigula. Amaibagako.

Urtarrillaren U/garren egunetik aurrera, SANTUEN ATALEAN dago, 510 orri.



* Erdikide = partícipe.



ERREGEN-OSTEKO 2'GARREN IGANDEA

2^{gn.} mailla. — Orlegiz

Jauna agertu yakula, Jaungoikotasuna erakutsi dauskula: orixe esan nai dau *Epijania* izeneko jaiak. Gaurko domeka onetan, barriz, Jesus Jaungoiko orren beste argitasun bat azaltzen dauku J3arri On zatiak: Jesus'ek bere bizitzan egin eban lenengo miraria, Ama Birjiña bitarteko jarrita egin eb&na.

Gaur et_a beti goratu daigun gure Jauna bere mesede guztien alderako; ta gogoan artu daigun Andre Mariak eztegu areitan erakutsi eban maitasuna ta lagun-urkoaganako ardura aundia.

Biblia.—Efeso'koai: 1, 3-19; 2, 4'tik 4, 16'a; 5, 21'etik 6, 17'a; Felipe'koai: 1, 21'etik 2, 18'a; 3, 7'tik 4, 1'e'a. Koloso'koai: 1, 9'tik 2, 15'era; 3, 1'etik 4, 1'e'a.

M E Z A

Sarrera. — Lur osoak gurtu zagizala, Jauna, ta gorapenezko kantauk abestu dagituzuala; goratu begi zure izena, Goiko Jauna |—Ps. Abestu egiozu Jaungoikoari, lur osoa!, abestu eresiak Aren izenari; goratu Aren aintza.—Aintza.

Otoitza. — Zeru ta lurren ardura darabizun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: entzun biotz onez zure erriaren eskariak, eta emon egiguzu bakea gure egunotan. Amaibagako.

Irakurgaia <S. Paulo'k Erroma'koai: 12, 6-16). Anaiok: Guretariko bakoitzak, bere graziaren erara, bere doaiak dauz: igarleak, fede-arauz jarduteko; diakonuak, Elizaren laguntzarako; irakasleak, irakatsi

•bearra; sermolariak, bere itzen sua; emoilreak, esku-zabala; buru danak, bere egikizunetarako ardura; erruki-lanetan diaduanak, beartsuentzat begi argia. Maitasuna, zintzoa izan daitela, azalezko bagarik. Iguindu gaiztakeria, ta onzaleak izan zaitze; anai-arteke maitasunez alkar maite egizue, alkarri lenengo tokia emonez. Nagikeri bagarik, gogo beroz Jaunaren esanak egiten ekiozue, geroko itxaropenaren pozez. Atsekabea ondo eroan; ekin otoitzari; zintzoen bearrizanak arindu, ta areik txera (abegi) onez artu. Bedeinkatu egizuez aurrean zarabilezenak: bedeinkatu, bai, madarikatu bearrean. Pozten diranakaz poztu zaitze; negar dagienakaz negar egin; benetako alkartasunez bizi zaitze, aundikerizko asmorik бага, txakien danera egiñik.

Koru-kanta. — Jaunak bere Semea bialdu eban, eta osatu egin 'etoazan: eriotzatik atara ebazan. Goratu begie Jauna, gizonen alde egin dauzan erruki ta mirariakaitik.

Aleluia, aleluia. Goratu Jauna, Aingeru guztiok; gorabu egiaue, Aren gudarozfce guztiok. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 2, 1-11).—Aldi aretan, ezteguak ziran Galilea'ko Kana'n. Jesus'en Ama be antxe zan. Jesus eta bere ikasleak be ezteguetara deituak izan ziran. Eta ardaoa amaiturik, Amak Jesus'i dirautso: «Ardaorik ez dauke.» Jesus'ek dirautso: «Ernakume!, zuri ta niri zer? Ez da oraindiño nire garaia (aldia) eldu.» Orduan, Aren Amak morroiari dirautse: «Esan dagitzuena, egizue.» Judarrak garbiketarako oi dabenez, sei arrizko ontzi egozan bertan, bakoitzak bi edo iru neurri artzen ebazanak. Jesus'ek dirautse: «Ontziok urez bete egizuez.» Eta goragiño bete ebezan. Gero, toa^dirautse: «Orain atara ta imai-zaiñari eroan egiozue.» Ta eroan eutsoen. Mai-zaiñak ardao biurtu zan ura txasta,tu (artu) ebanean, nandik atara zan ez ekian-eta (bai orraitziño morroiak), senar-barriari dei egiñaz, dirautso: «Ardao ona, guztiak asierarako ataraten dabe; ta gero, mailagunak berotuta dagozanean, txarra. Zuk, barriz, g_rdao ona oraintxe arte ,gorde dozu.» Auxe izan zan Jesus'en lenengc- miraria 'Galilea'ko Kana'n, bere aintza erakutsiz; eta arrezkero Aren ikasleak sinistea Beragan jarri eben.— i *Kredo*.

Eskintza. — Abestu Jaunari, lur osoa!, ospatu Aren izena; etorri ta entzun zuok, Jaunaren bildur zareen guztiok: neuk esango dautsuet Jaunak riire arimari egin dautsan guztia. Aleluia.

Opari-otoitza.—Bedeinkatu, Jauna, çkarri dautsuguzan oparigaiok, ota ganbitu egizuz gure pekatuen loiak. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun egunekoa, 455 orri.*

Jailnartzerakoa.—Jaunak diño: Ontziok urez bete egizuez, eta eroan mai-zaiñari. Mai-zaiñak ardao biurtu zan ura txastatu (artu) ebanean, senarjbarriari ba-dirautso: Ardao ona orairntxe arte gorde dozu. Auxe izan zan Jesus'en lenengo miraria bere ikasleen aurrean.

Azken-otoitza. — Sartu bedi, Jauna, gero ta geiago gure arimetan zure graziaren indarra: Eukaristi zerutar onek damoskun janariaz, Beronek agintzen dauskun zeruko saria lortzeko gertau gaitezcan. Amaibagako.



ERREGEN OSTEKO 3'GARREN IGANDEA (1)

2^{gn}. mailla. — *Orlegiz*

Kristo'k eskintzen dauan salbaziñoa, guztientzat da. Argi ikusten dogu gaurko Barri Onaren zatian. Ona emen Kristo bere erriko geiso bat osalzen, eta atzerritar baten sinismena ontzat eta aintzat artzín.—Guk be guztientzat izan bear dogu onak, ez dautsuguz ukatu bear inori gure maitasun, arerioak be ez gure inafasuna eürak Jaungoikogara ekarteko bide izatean gazoletatzen ebanean, poztu egin zan; JudBiblia. 1. Inafasotika kida ilugogin 2, zelan 4. 11. 3. tik 5. ura da. Etsailonika 2. 2. gna. 1. 2. ura. 1. eürak 13. 2. Timoteo 1. ura. 1. 12-17. 3. 16. 4. 10. era. 6. 13-21.—Timoteo 2. gna.: 3, 10. 4. 8'ra.—Tito'ri; 2, 11. 3, 11'ra.

Otoitza.—Erruki zakiguz, Jaun alguztidun eta betikor ori, gure makaltasuna ikusita; eta gu zaintzeko, luzatu egizu zure esku altsu ori. Amaibagako.

(1) iErregen-osteko irugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren Domekak, aldakorrek izaten dira. Pazko-eguna laster datorrenean ezin-emond, geMitzen diran Mez'ak, Pentekoste-osfreko 23^{sa}. iren Domeka-ondoren esaten dira. Ikusi, 408 orri.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai: 12, 16-21).— Anaiok: Zeuon buruak ez jakintsu egin; kalte ordez kalterik, ez iñori biurtu; alegiñak egizuez ona dana egiteko, gizonen aurrean bakarrik ez, baita Jaungoikoaren aurrean be. Iñundik al ba'da, zuen aldetik beintzat, guztiakaz bakean bizi izan zaitez. Ez iñori ordaiñik zeuen eskuz arrerazo, ene maiteok: itzi ori Jaungoikoaren asarrearentzat; idatzita dago-ta: «Neuri dagokit zigortzea; Neuk emongo dausat bakoitzari berea», diño Jaunak. Zuk, barriz, zure arerioa gose ba'da, jaten emon egiozu; egarri ba'da, edaten emon egiozu. Orretara, ikatz gori pilloa botako dautsazu burutik beera. Ez zagizala gaiztakeriak azpiratu, beste-tara baiño: zeuk azpiratu gaiztakeria on egiñaz.

Koru-kanta. — Aitzefriak bildur izango dautsoe zure izenari, Jauna; eta lurreko errege guztiak zure aintzari. Jaunak Sion barriri egingo dau, ta an aundi-aundi agertuko da.

Aleluia, aleluia. Jauna da Errege; ipoztu bedi lurra, alaitu bediz ugarte guztiak. Ad'elua.

Barri Ona (Mat., 8, 1-13). — Aldi aretan, Jesus'i, menditik jatsi zanean, gizatalde aundiak jarraitu eutsan. Onetan, legenardun batek, etorririk, gurtu egin eban, esanez: «Jauna, nai ba'dozu, osatu naikezu.» Jesus'ek, eskua luzatuaz, ikutu bat eginda, ba-diñotso: «Nai dot; garbi izan zaitez.» Eta bat-batean legenarrez garbi gelditu zan. Eta Jesus'ek esan eutsan: «Begira gero!, ez iñori aitatu. Baiña zoaz abadeagana, ta Moises'ek aginduriko oparia eskiñi egizu, sinistu dagien.» Andik Kafarnaum'en sartu zanean, eunburu (1) bat urreratu yakon, erreguz eskatzen eutsala: «Jauna, nire morroia elbarrituta ogean datza etxean, oiñaze gorritan.» Jesus'ek esan eutsan: «Joango nakio ta osatuko dot» Eunburuak eranitzun eta esan eutsan: «Jauna, ez naz ni nor Zu nire etxera etorri zaitez; baiña esan egizu itz bakar bat, eta nine morroia osatuko da. Neuk be, iñoren menpeko izanarren, ba-daukadaz gulariak nire agindupean; eta bati «oa!» dirautsat, eta ba-doa; besteari «ator!», eta ba-dator; eta nire morroiari «au egik», eta egin egiten dau.» Au entzutean, Jesus arriitu egin zan, eta jarraitzen eutsoenakana biur-

turik, esan eutsen: «Benetan dirautsuet: ez dot onen-besteko sinismenik Israel'en aurkitu. Ba-dirautsuet, barriz: asko ta asko etorriko dira iparralde ta eguzki-sartzaldetik, eta Abraham, Isaak eta Jakob'egaz jarriko dira maian zeruko erreñuan; erriko semeak, ostera, kanpoko illunpetara jaurtiak izango dira. An Izango da negarra ta agin-karraskada!» Gero, Jesus'ek eunburuari esan eutsan: «Zoaz, ta jazo bekizu sinistu doenez.» Eta ordu aretantxe osatu zan morroia.— *Kredo.*

Eskintza.—Jaunaren eskuak arrigarriak egin dauz; Jaunaren eskuak gora jaso nau. Ez naz ilgo, bizi baiño, ta Jaunaren egiñak iragarriko dodaz.

Opari-otoitza.—Opari onek, Jauna, garbitu dagizala gure pekatuak eta zure menpekoon gorputzarimak santutu, opari au bear dan lez egin dagigun. Amai-bagako.


Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa, 455 orri.*

Jaunartzerakoa. — Guztiak arritzen ziran Jaungoikoaren agotik entzuten ebenaz.

Azken-otoitza. — Sakramentu aundi au artzeko mesedea egin dauskuzun Jauna: eiguzu, Eukaristi onen doaiak geuganatzeko benetan gei izan gaitezala. Amai-bagako.



(1) Eunburu: eun gudariren buru edo agintari zana.



ERREGEN OSTEKO 4'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orlegiz

Gizon eta gauza guztietaraino eltzen da Jaungoikoaren agintaritza. Gizonen Errege dogu Bera, bere graziaz eta maitasunaz; beste gauza guztien errege, eurotan erakusten dauan eskubide aundiagaitik.—Barrutik eta kanpotik, arierioz inguratuta gagoz; baiña geure onduan dogu Jauna, ta lo dirudianarren, Apostoluak lez, geuk be irartzartu daikegu, bere esku ta indarra geure alde jarri dagizan.

Biblia. ^Ebertarrai: 1, 3, 7'tik 5, 10'era; 7, 26'tik 8, 13'ra; 9, 11'tik 10, 25'era; 11, 32'tik 13, 21'era.

M E Z A

Sarrera. — Gurtu egizue Jauna, Aingeru guztiok: Sion'ek ori entzun ebanean, poztu egin zan; juda'ko alabak be alaitu egin ziran.—Ps. Jauna de Errege; poztu foedi lurra; alaitu bediz ugarte guztiak.—Aintza.

Otoitza. — Ba-dakizu, Jauna, inguruan doguzan arriskuakaitik, gizon makalok ezin dogula zutunik iraun; emoiguzu, ba, gorputz eta arimen osasuna: geure pekatuakaitik doguzan neke oneitan, Zure lagun-tzaz nagusi urten gaitезan. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai: 13, 8-10). Anaiok: Ez inogaz beste zorrik egin, alkarren maitasunarena baiño: lagun-urkoa maite dauanak, lege osoa bete dau-ta. Izan be, ezkontzarik ez loitzeko agindua, inor ez iltekoa, lapurretarik ez egitekoa, inorenik ez gura izatekoa, naiz beste edozein agindu, esakera one-tan dago: «Lagun-urkoa zeure burua lez maite egizu».

jfaitasunak ez dautso lagun-urkoari gaitzik egiten izen. Beraz, lege osoa maitasunean dago.

Koru-kanta. — Atzerriak bildur izango dautsoe zure izenari, Jauna; eta lurreko errege guztiak zure ftintzai'i.—Jaunak Sion toarririo egingo dau. ta &a aundi-aundi agertuko da.

Aleluia, aleluia. Jauna da Errege; poztu bedi lurra: alaitu bediz ugarte guztiak. Atoluia.

Barri Ona (Mat., 8, 23-27). — Aldi aretan, Jesus txalupa batera igo zan bere ikasleakaz. Onetan, bildurgarrizko aize-ekaitza sortu zan itxasoan, ufiñak (olatuak) ontzia estaltzeraiño. Jesus, barriz, lo. Eita ikas-Jeak Aregana urreraturik, irartzartu egin eben, esanez: «Jauna, gaizkatu (salbau) gagizuz, galduak gara-ta!» Jesus'ek dirautse: «Zeren bildur zaree, siniste otzeko gizonok?» Gero, jagirik, aize ta itxasoari agindu egin eutsen, eta barealdi ederra egin zan. Eta ikasleak, arrituta, inoen: «Nor ete-da au, aizeak eta itxasoa be menperatu egiten yakoz-ta?»—Kredo.

Eskintza. — Jaunaren eskuak arrigarriak egin dauz; Jaunaren eskuak gora jaso nau. Ez naz ilgo, bizi baiño, ta Jaunaren egiñak iragarriko dodaz.


Opari-otoitza.—Eiguz, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: eskiñi dautsugun opari onek garbitu ta indartu dagiala toeti gure makaltasuna. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa*, 455 orri.

Jaunartzerakoa. — Guztiak arritzen ziran Jaungoikoaren agotik entzuten ebenaz.

Azken-otoitza.—Zure doaiak, Jauna, lurreko atsegi-ñetatik aldendu gagiezala, ta indartu gagiezala beti zeruko janariz. Amaibagako.





ERREGEN OSTEKO 5'GARREN IGANDEA

2^{gn.} maila. — Orlegiz

Kristau-erria, domeka oro altara[^]urrean batzen dana batez be, sendi (famili) bat legez dogu. Eta zein da gu bat egiten gaituan lokarria? Maitasuna ta Mezako alkartasuna, emen Kristo[^]gaz eta batzuek besteakaz egiten dogun batasuna.—Baiña gure etxe onetan, gaurko Barri Onak dihoan soñoan lez, sartu daike arerioak bedar txarren baten azia, alkar artu-eziña.—Eskatu daiogun biotz[^]biotzez gure Jaunari] áldendu dagizala gure ^artetik olako bedar txarrak.

M E Z A

Sarrera. — Gurtu egizue Jaungoikoa, Aingeru guztiok; Sion[^]ek ori entzun ebanean, poztu egin zan; Juda[^]ko ..alabak be alaitu egin ziran.—*Ps.* Jauna da Errege; ppztu bedi lurra: alaitu bediz ugarte guztiak. —Aintza.

Otoitza.—Zaindu gagizuz, Jauna, zeure etxeko seme lez; eta gure itxaropen bakarra zeure grazia dogun ezkerro, gorde gagizuz beti zeure laguntzaz. Amaibagako.

Irakurgaia: Jaungoikoarentzat, 66 orri.

Koru-kanta. — Atzerriak bildur izango dautsoe zure izenari, Jauna; eta lurreko errege guztiak zure aintzari. — Jaunak Sion barriro egingo dau, ta an aundi-aundi agertuko da.

Alelulia, alelula. Jauna da Errege; poztu bedi lurra: alaitu bediz ugarte guztiak. Alelulia.

Barri Ona (Mat., 13, 24-30).—Aldi aretan, Jesus[^]ek gizataldeari ipuin au esan eutsan: Zeruko erreñua, bere soloan azi ona erein eban gizonaren antzeko da. Baiña morroiak lotan egozala, aren arerioa etorri ta gari-artean zoragaria (bedar txarra) erein, eta joan zan. Garia azi ta burutu zanean, zoragaria be agertu egin zan. Orduan, morroiak ugazabagana joan eta esan eutsoen: «Jauna, ez zenduan zure soloan azi ona erein? Nundik dau, ba, bedar txar ori?» Arek erantzun eutsen: «Nire areriores batek egin dau ori.» Morroiak dirautsoe: «Joan eta atara dagigun, nai dozu?» Ta ugazabak esan eutsen: «Ez!, bedar txarra batzean, garia be batera atara ez dagizuen. Itzi biak igitaldiraiño azten; eta orduan, igitariak* esango dautset: Batu egizue lenen zoragaria, ta lotu eskutetan erretajeo; garia, barriz, sabaian gorde».—*Kredo.*

Eskintza. — Jaunaren eskuak arrigarriak egin dauz; Jaunaren eskuak gora jaso nau. Ez naz ilgo, bizi baiño, ta Jaunaren egiñak iragarriko dodaz.

Opari-otoitza.—Bakezko opari au eskintzen dautsugu, Jauna: gure pekatuak errukitsu parkatu ta gure biotz aldakorrak zuzen[^]du dagizuzan. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—[^]Guztiak arritzen ziran Jaungoikoaren agotik entzuten ebenaz.

Azken-otoitza.—[^]Eiguzu, Jaungoiko algutzidun, Sakramentu onek saritzat agintzen daukun zerua lortu daiskula. Amaibagako.

Igitari = segador.



ERRI?GEN OSTEKO 6?GARREN IGANDEA

2?gn. mailla. — Orlegla

Sarri agertu dausku Jaunak bere almen eta indarra-ona emen gaur be, beste bein. Eiiza, Kristo'k sortua, asierari zugatz kaskar zanarren, laster egin zan tantai gerizatsu-bere iadar guriz munduko enri guztiak artu ebazan, alld gutxi barru. Elizaren zabaltze ta edesti (istori) dirditsu orreik dira, izan be, bere Sortzaillaren agiririk ederrenak. Ederto azaltzen dausku gaurko Barri Onak.

M E Z A

Sarrera. — Gurtu egizue Jaungoikoa, Aingeru guztiok; Sion'ek ori entzun ebanean, poztu egin zan; Juda'ko alabak be alaitu egin ziran.—*Ps.* Jauna da Errege; poztu bedi lurra: alaitu bediz ugarte guztiak.—*Aintza.*

Otoitza. — Eiguzu, arren, Jaungoiko allguztidun orrek: beti zentzunezko dana gogoan erabillirik, berbaz eta eginez, Zeuk nai dozuna egin daigula. Amabagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tesalonika'koai l'goa: 1, 2-10).—Anaiok: Jaungoikoari zuekaitik beti eskerrak emoten diardugu, gure eskariatian eten bage gogoan zaituegula. Gogoratzen doguz gure jaungoiko ta Aitaren aurrean, zuen sinismen-egintzak, zuen maitasun-lanak eta zuen itxaropenaren sendotasuna Jesukristo gure Jaunagan. Ba-dakigu, anaiok, Jaungoikoaren maitteok, zelan aukeratu zenduezan; Barri Ona berbaz ba-

karrik ez geutsuen, ez, iragarri, mirarien bidez, Espiritu Santuaren indarrez eta itz eragikorrez baiño. Ba-dakizue zelan ekin geutsan zeuen onerako zuen artean. Eta zuok, estualdi gorrian Espiritu Santuagandiko pozez nik esan'dakoa (Barri Ona) arturik, geure ta Jaunaren jarraitzalle egin zintzazen; Mazedonia'ko ta Akai'a'ko fededun guztien eredu izateraiño. Izan be, jfazedonia'n eta Akai'a'n, Jaungoikoaren itza zeuen bidez zabaldu zan, eta Jaungoikoaganako zuen sinistea bazter guztietara eldu da. Orretzaz ez dogu esate-lcorik. Zuen artean zelako abegi ona izan genduan, guztieri agotan dabil, eta sasi-jaungoikoetatik jaun egiazkoari jarraitzeko, ta Aren Seme Jesus (illen ar-tetik Berak berbiztua), zerutik noiz jatsiko dan zain egoteko: datorren asarretik aldendu genduzana da-ta.

Koru-kanta. — Atzerriak bildur izango dautsoe zure izenari, Jauna; ta lurreko errege guztiak zure aintzari. Jaumak Sion barriro egin dau, ta an aundi-aundi agertuko da.

Aleluia, aleluia. Jauna da Errege: poztu bedi lurra, ailaitu bediz ugarte guztiak. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 13, 31-35). — Aldi aretan, Jesus'ek gizataldeai ipuin au esan eutsen: «Zeruko erreiniua, gizon batek eskuan artu ta bere solloan erein eban zerba-aziaren antzeko da. Azirik zeiena da berau; bai-ña azi ta gero, beste ortu-ari guztiak baiño aundiago da, ta zugatz (arbola) egiten da, ta zeruko txoriak jatsi ta aren adarretan jarten dira.» Beste ipuin bat be ekarri eutsen, esazan: «Zeruko erreiniua, emakume I batek artu ta ora* guztia jagi arte, iru negurri-uru-netan sartu eban legamiñaren antzeko da.» Guztiok ipuiñen bidez azaltzen eutsazan erriari Jesus'ek; eta ipuiñetan izan ezik, ez eutsen berba egiten, Igarleak esandako au bete zedin: «Nire agoa ipuiñetan zabal-duko dot, eta lurra lur danetik ezkutuan dagozanak agertuko dodaz.»—*Kredo.*


Eskintza. — Jaun'aren eskuak arrigarriak egin dauz; Jaunaren eskuak gora jaso nau; il ez, bizi egin-go naz, eta Jaunaren egiñak iragarriko dodaz.

Opari-otoitza. — Opari onek garbitu, barritu, zuzendu ta gorde gaizala, eskatzen dautsugu, Jauna Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa, 455 orrl.*

Jaunartzerakoa. — Guztiak anritzen ziran Jaun-goikoaren agotik entzuten ebenaz.

Azken-otoitza. — Zerutiko atsegiñez janaritu gauran ezkeru, eiguzu, Jauna, egiazko bizitza emoten dauskuna artzeko gogoia izan daigula beti. Amaibagako



ZAZPI-ASTEKO IGANBEA (Septuagesima)

2^{gn.} maila. — Ubelez

Garizuma-aurrean gagoz, Jesukristo'ren eriotzarako gure biotzak gertetan asten garan egunetan. Gabon-osteko egun pozgarriak jaan dira; orain, geure pekatuak atsekafoez eta datauz gogoratzeko egunak datorkiguz. Kristo'k bere odclaz crosiak gaira, Berak bere Elizara ekarri ta emen bere mastegian lez jarriak. Ekin daiogun zintzo lanari gure arimen mastegian.

iBiblia.—Asiera, Gen.: 1, 1'etik, 2, 3'ra, 2, 7'tik 3, 24'ra; 4, 1-16.

M E Z A

Sarrera. — Eriotz-lokarriak eta iHbearrezko minuriolak inguratu nenduen; baiña nire atsekabeen Jaunari egin neutsan dei, ta entzun eban nire deadarra bere etxe santutik.—*Ps.* Maite izango zaitut, Jauna, neure indarra zara-ta; Jauna da nire sendotasun, igesleku ta askatzaille.—*Afntza.*

Ez da Gloria'rik.

Otoitza. — Entzun egizuz samurkiro, Jauna, zure erriaren eskariak; eta pekatu egiñaz bidez atsekabetuta gagozan ezkeru, zure izenaren gorapenerako, izan daigula zure errukia. Amaibagako.

Irákurguaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa: 9, 24-27; 10, 1-5).—Anaiok: Ez dakizue nor-ariñagoka diarduenak, guztiak arin egiñarren, batek bakarrik jasoten dauala saria? Saria irabazi al dagizuen, abidan joan

zaitze. Burrukari dana be, naikeri guztiai gosea emonik bizi da; ta ori, koroï ustelkorra irabaztearren; gu, barriz, ez-usteltzekoa irabaztera gabiltz. Neuk be neure arineketa daroat, eta ez noruntz ez dakidala; ukabilka nabil, ez gero aizeari ukabilka; neure gorputza astintzen eta menpera ekarten diardut: besteai irakatsi ondo^{ren}, neure burua galtzea jazo ez dakidan. Ez aitzu, arren, anaiok, gure gurasoai jazo yakenez: guztiak izan ziran oidepean, guztiak igaro ziran itxasoz beste aldera, guztiak izan eben Moises'egaz batera oideipeko ta itxasoko bateoa; guztiak gogo-janari berbera jan eben eta gogo-edari berbera edan eben: (edan, barriz, ondotik joiakien arritik edaten eben; Arria, barriz, Kristo zan). Baiña euretarioko geienak ez ziran Jaungoikoaren gogotara ibilli.

Koru-kanta, — Bearrizan eta estualdjetan Zeu zara gure laguntzaille; Zeugan dogu gure itxaropena; zure billa dabizanak, ez dozuz bertan-bera itzikiko, jau-na. Gaisoa ez ida beti aztuta geldituko; ez da betiko ondatuko beartsuen itxaropena. Jagi, Jauna; ez bedi nausitu gizona.

Luzagarria. — BarrenJbarrenetik egiten dautsut dei, Jauna: entzun, Jauna, nire deadarra. Biurtu zure belarriok nire otoi:deira. Gure gaiztakeriak gogoan artzen ba'dozuz, Jauna, nor egongo da zutik zure aurrean, Jauna? Baiña Zu, Jaun ori, biotz-samur zara-ta, zeure legea dala bide, Zeugan dot nire itxaropena.

Aste-barruko Mezatan, ez da esaten Luzagarri'rik.

Barri Ona (Mat., 20, 146). — Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Zeruko erreñua, goizean-goiz bere mastegirako langille-billa urten zan etxejauanaren antzeko da. Eta eguneko denario (amarreko) bana agindurik, bialdu ebazan ara. Irugarren orduan barriro urten zanean, enparantzan alperkerian beste batzuk aurkitu ebazan: eta esan eutsen: «Zoaze zuek be nire mastira ta bidezkoa dana emongo dautsuet.» Joan ziran, ba. Seigarren eta bederatzigarren orduan urtenda, beste arenbeste egin eban. Azkenez, amaikagarren orduan urten zan, eta banaka batzuk lan bagarik ikusirik, esan eutsen: «Zetan zagoze or egun osoan ezer egiteke?» Areik esan eutsoen: «Iñok ez gaitu aukeratu-ta...» Ugazabak esan eutsen: «Zoaze

zuek be nire mastegira.» Illunabarrean, ugazabak bere morroi-nagusiari esan eutsan: «Langilleai dei egin eta egun-saria emon egiezu, azkenengoetatik asi ta lenengoetaraino.» Eldu ziran, bada, amaikagarren orduan etorriak, eta denario bana artu eben. Lenengoak be eldu ziran, zerbait geiago artuko ebelakoan; baiña areik be denario bana baiño ez eben artu. Artuaz batera, ugazabaren aurka (kontra) mor-mor asi ziran, esanez: «Egun bateko nekea ta beroa jasan (eroan) dogu guk; eta ordubet baiño lan egin ez dabenoak bardir.^{zen} gozuz?» Baiña ugazabak, areitariko bati erantzunik, esan eutsan: «Adiskide, ez dautsut zuri okerrik egiten. Ez neutsun amarreko bat (denario bat) agindu? Artu egizu, ba, zeurea, ta zoaz; baiña azkenengo orri be, zeuri aiña emon nai dautsat; ala, nai dodana ezin egin ete-daiket? Ala, ni zuzena nazalako, zure begia okerra izango ete-da?» Eraberean, azkenengoak lenengo izango dira, ta lenengoak azken: deituak asko dira-ta, baiña aukeratuak gutxi.—*Kredo.*

Eskintza. — Egoki, da Jauna goratzea, ta Zure izenari, Jaungoiko, kantaka ekitea.


Opari-otoitza. — Gure oparigai ta eskariak artu dozuzan ezkerro, Jauna, garbitu gagizuz Opari onen bidez, eta entzun eiguzu biotz onez eskatzen dautsuguna. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa*, 455 orri.

Jaunartzerakoa. — Argi egiozu zure arpegiaz zure morroi oni, ta salbau nagizu; Jauna, ez naz lotsaz geldituko, Zeuri dei egingo dautsut-eta.

Azken-otoitza. — Indartu beitez zure zintzoak, Jauna, zure Eukaristiaz; berau artuaz, beronen billa ibilli daitzezala, ta billa ibilliaz, betiko artu dagiela. Amaibagako.





SEI-ASTEKO IGANDEA

(Sexagesima)

2^{gn}. mailla. — Ubelez

Gaurko Meza Erroma'n, Paulo deunarfn elizan esaten zan. Orrexegaitik dator Apostolu onen izena gaurko otoiitzean Bpistolari batez be. Berak irakatsi dauskula Jaunaren zeruko aziari geure biotzetan kar ona eskintzen: Jaunaren itza gogotan artu ta geure arinnan ereindako azi orri, frutu ugaria emonerazoten.

Biblia—Asiera, Gen.: 6,5^{etik} 8,12^{ra}; 9, 1-17; 11, 1-».

M E Z A

Sarrera.—Jagi, Jauna; zegaitik zagoz lo? Jagi zaitetz, eta ez gaizuz jaurti betiko. Zegaitik gorde zure arpegia, ta gure atsekabeaz aztu? Sabela lurrari josita daukagu. Jagi, Jauna, lagun zakiguz eta askatu gaginguz. — Jauna, geure belarriz entzun dogu: geure gurasoak iragarri daukuez zure arrigarriak.—Aintza.

Ez da Olori'a'rik.

Otoiitzea.—fkusten dozu, Jaungoikoa, gure alegin guztiak ez doguzala ezertzat; eiguzu biotz onez, Paulo atzemen apostoluarren laguntzak indartu gaizala zoritxar guztietan. Amaibagata.

Irakurgai. (Sj Paulo'k Korinto'koai 2^{gna}.: 11, 19-33; 12, 1-9).—Anaiok: Zuek zentzuneko zareela, tentelak gogoz jasaten dozuez. Norbaitek azpiratzen ba' zaitue, naiz iruntsiten, ostuten ba'dautsue, arrokeriz begiratzen ba'zaitue, naiz matraillakoak emoten ba' ilautsuez, ondo eroaten dozue. Lotsaz diñot, orretan

inalakak bai-gintzanan. Orraitiño, — zorakeriz dirautsuet gero—, iñok ezertzaz bere burua jaso ba'daike, neuk be ba-daiket. Eurak Ebertar dirala? Bai neu be. Eurak israeldar? Neu be bai. Abraham'en jatorriko dirala? Bai neu be. Kristo'ren alde diarduela? Zorakeritxo bat esateko, nik askozaz geiago: ni neke geiagotan izan naz, giltzapean geiagotan egon naz, zigorkada geiago artu dodaz, ilteko arriskua geiagotan ikusi dot. Judarrakandik bost aldiz berrogei zigorkada (ibat gutxiago) artu dodaz (1). Irutan zigortu nabe, bein arrika, egin eusten; itxas-ontzia iru bidar ondatu vat, itxas-erdian gabez eta egunez ito-zorian nintzala. joan-etorrii askoban aurkitu naz; ibaien arriskueta, apur-arrislçuan, erritarren aldetik arriskuan, atzeritarren aldetik arriskuan, urietan arriskuan, basoan arriskuan, jtxasoan arriskuan, guzurrezko senideen etxean arriskuan. Nik ikusi dodazan izerdi ta nekeak, nire IQ galduak, nire gose, egarri, sarri barau utsean, jatekorik ez' jaztekorik ez nebalai Onetzaz gainera, neure egunetoko lana, eliza guztien ardura izatea da. iNor geisotzeri 'da, ni be geisotzen ez nazala? Nor jausuten da, ni erieten ez nazala? Ezieban arrotzekotan, neurre makiattasijnarâ dagokionez arrotuko naz. Jesukristo geure Jamiar^n Jaungoiko ta Aitak, betiko bedeinkatua danak, ba-daki guzurrik ez diñodana. Damasko'n Areta erregiren predez erriburu zanak, ni lotu nairik, urian zântzailleak jarri ebazan; baiña otzara baten sartuta, leiotik uriko ormetabik beera eratsi nenduen, eta orreaxe egin neban iges arein eskuetatik. Egoki ez danaren, arrotzekotan, Jaunak emondako ikuskizun eta argil-diak' aitatuko neukez. Ezagutzen dot gizon bat Kris^o'gan¹, orain amalau urte zero goreneraiño jaso izai zana. (Ori gonputzez ala gorputz bagarik jazo eteyakon, Jaungoikoak daki, nik ez.) Ba-datik, gainera, alako gizona Paradisura eroan ebela (gonputzez ala gorputz бага Jaungoikoak daki, nik ez); eta an iñok ezin esanalako itz sakonak entzun ebazala. Alako gzonaz, bai, arrotuko naz, baiña neurerik ez dot eze arrotzekorik, neure makaltasuna izan ezik. Arrotu lai ba'nengi be, ez nintzake zoroa izango, egia esango aeuke-ta. Bego ori, osterata, norbaitek nigan

(1) :errogei zigorkada ziran geien emon zeitekezanak, eta geiao ez emoteko, 39^{garrean} gelditzen ziran.

ikusi edo nitzaz entzun daikena baiño aundjagotzat artu ez nagian. Eta orrenbesteko ikuskizunez* arrotu ez nadin, ezten bat daroat neure aragian josirik, Sathanas'en aingeru batek bialduta, beti matraillakoak emon daistazan. Orr.egaitik, iru bidar eskatu/neutsan Jaunari, alakoa nigandik kentzeko; baiña auxe erantzun eustan: «Naiko dozu neure grazia eukítea, nire indarra makalaldian agertzen da-ta.» Beraz, neure makaltasunaz poztuko naz, Kristo'ren indarra neugan izan dadin.

Koru-kanta.—Jakín begie guztiak, zure izena «Jaungoiko» dana: Zeu bakarrik Jaungoiko mundu osoan. Erabili egizuz, ene Jaungoiko, txlrrin'ga bat lez, eta aizeak orbela lez.

Luzagarria.—Lurrari eragiñik, Jauna, íkarai baten jarni zenduan. Osatu egizuz aren zauriak, kili-koloka dabil-eta. Geziatik* iges egin dagien, eti zure auke-
ratuak askatu daitezán.

Aste-barruko Mezatan, ez da Luzagarririk, esaten.

Barri Ona (Luk., 8, 4-15).—Aldi arefan, urietatik etorritako gízatalde aundiak Jesus'en onfioai batu ziran baten, Jesus'ek ipuin au esan eijtsen: «Gizon bat ereiten urten zan, eta ereitean, azi ba;zuk bide-ondora jausi ziran, eta zapaldu ta jegaztiak jan egin ebezan. Beste batzuk arri-arteán javsi ziran, eta erne ziraneko, igartu egin zirap, eiririk ez eben artzen-eta. Beste batzuk, aranzartían jausi ziran; eta arekaz azi ziran arantzak, ito egh ebezan. Besteak, barriz, lur onean jausi ziran; pta e:ne ondo-
ren, toateko eun emon eben.» Au esanda, -deadirka esan eutsen: «Entzuteko entzumenik dagianak, eitzun begi.» Ikasleak, barriz, ipuin onek zer adie'azo zeikean itandu eutsoen. Eta Jesus'ek esan eutsen: «Jaungoikoaren erriko ezkutuak ezagutzíko aukeratuak zaree; besteai, barriz, ipuiñean iraksten dautset: ikusirik, ikusi ez dagien, eta-entzunaren, entzun ez dagien. Emen, ba, ipuin one adierazoten dauana: Azia, Jaungoikoaren itza da.bide-ondoan jausitakoak, Jaungoikoaren itza entzin dabena dira; baiña txerrenak, etorríta, arein biotzean ereindakoa kendu egiten dautse, sinistu ezko, gaiz-

katu (salbau) ez daitezán. Arriarteán ereindakoa, itza entzun eta bereala pozik artzen dauan entzulea da; baiña zusterrik ez dauko-ta, apur baten sinistuarren, jirrikaldi (edo tentaziño) aldian atzeruntz egiten dabe. Arantza-arteán jausitako azia. Jaungoikoaren itza entzun dabena dira; baiña bizitza onetako ardura, aberastasun eta atsegiñak ito egiten dabe, ta bein be ez dabe ezer emoten. Lur onean jausiak, osterá, itza gogorik onenaz entzun eta gordeten dabena dira, ta oneik- ekiftez-ekiñez arnaria (frutua) dakarre.»—*Kreao.*


Eskintzá.—Indartu egizuz nire oiñak zure bideetan, alboraka ibilli ez daitezán; makurtu egizu zure entzumen ta entzun nii'e eskariak. Agertu egizu zure ontasuna, zeukan itxaroten dabena onik ataraten dozu-ta.

Opari-oto'^tza.—Eskiñi dautsugun opari onek, Jauna, bizkortu ta jndartu gaizala beti. Amaibagako. i Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Jaungoikoaren altarara igoko naz, fñjre gaztetasla alaitzen dauan Jaungoikoagana.

Azken-otoitza. ^Apal-alpalik eskatzen dautsugu Jaungoiko algjztidun orri! Eukarist-az janaritu gaituzunok, oitura orez ©ta egoki otseindu .^agiguzala. Amaibagako.





BOST-ASTEKO IGANDEA

(Quinquagésima)

2^{gn}. mailla. — Ubelez

Zelan erosi ta salbau gaitu Kristo'k? Bére oiñaze ta neke-miñez, bere eriotza ta berbizkunideaz; orixe da gaurko Mezak gure begien aurrean jarten dauana. Ara, an urriñean Pazk-eguna; arako bidea, Garizuma, aldazgora lez daukagu. «Ba-goaz Jerusalem'go bidean gora». Jerusalem'era joatea Israeldarrentzat igotea zan. Aruntz igoteko, gogo beroa sinismena, itxaropena ta, batez be, maitasuna 3ear.

Biblia— Asiera, Gen.: 11, 31^etik 19, 9^{ra}; 13, 1-18; 14 18^{tik} 15, 6^{ra}; 17, 1-21; 18, 1-15; 22-23; 21, 1-8; 24.

M E Z A

Sarrera.—Izan zakldaz beti, Jaungoiko, ztindari ta igesleku, salbau nagizun; nire indarra ta, lagintza Zeu zara-ta; zure izenagaitik nire zuzendari izargo zara, ta Zeuk eutsiko daustazu. — Zeugan jarri dot, Jauna, nire itxaropena, ta ez naz lotsatukoⁱ sailau ta askatu nagizu zure zuzentasunaz.—Aintza.

Otoíta.—Entzun egizuz biotz onez, Jauna gure eskariak; eta pekatuen lokarrietatik askaturik zoritxar guztitik gorde gagizuz, Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k KoTinto'koi 2^{gra}.: 13, 1-13). — Anaiok: Gizon-aingeruen izkuntza (berbeta) guztiak jakiñarren, maitasunik ez ba'neti, nfe berbak kanpai-diurunda edo arran-útsa lez izngo litzakez. Eta igarleen ikusmena euki, ta ezkutapen eti jakiteko guztiak jakin, eta mendiak leku batetik¹ besera aldazkeo besteko sinismena eukiarreri, maitasunik ez

ba'neu, ezetako be ez litzakit. Maitasuna barru-zabal Ha biotz-Jbera da. Maitasunak ez dau bekaiztik*, ez dau au'ndi-usterik, ez arrokeririk, ez asko-nairik; maitasun^{ria} ez da berekoi, ez da asarratzen; maitasunak ez dau susmo txarrik egiten, ez dau gaiztakerian gogorik artzen, egian dau Ibere atsegiña; guztia alde onera bota, guztia sinistu, guztia itxaron eta guztia jasaten (ondo ero'aten) dau. Maitasunaren aldia iñoiz be ez da igaroko. Ikarleten doia galdu egingo da, izkuntzak isildu egingo dira, jakintza be itzungi (amatau) egingo da. Gure jaklturia ta gure igarmena erdizkakoak izanik, osotasuna etorri daftenean, erdizkako zana utsera joan-IO da. Olantxe, neuk be, ume nintzala, ume-antzera berba egitfen neban, ume-amfzera uste izaten neban, ume-antzera asmatzen neban. Baiña gizon egin nintzanean, umekeriak alde batera itai nebazan. Orain izpilluz eta laiño artean lez ikusten dogu; baiña gero, arpegiz-arpegi. Orain Jauna erdizka ezagutzen dot; gero, barriz, neu ezagutzen nazanez ezagutuko dot. Orain, sfnismena, itxaropena ta maitasuna irauten dabe; ta eurotan nagusiena, maitasuna.

Koru-kanta.—Ze.u zara bakarrik mirarigille, Jaungoiko; atzerriai zeure indarra erakutsi zeutsen. Zeure besoaz askatu zenduan zure erria, Israel'en eta Jose'ren s<meak.

Luzajjarria.—Goratu egizue Jauna, erri guztiok; ja-ITÍ bedú poaik Aren menpeko. Sartu bediz poez beterik Arm aurrera; jakin egizue Jauna dana Jaungoiko. Berak egin gaitu, ta ez geuk; Aren erri gara ta artaldeki ardi.

Barri Ona (Luk., 18, 31-43).—Aldi aretan, Jesus'ek amabi Ajostoluak Beragaz arturdk, auxe esan eutsen: «Begira: Jerusalem'era igoten goaz, eta Gizasemeari buruz Igarieak idátzi daben guztia beteko da. Izan be, atzeritarren eskuetan itziko dabe, iraindu ta zigorkada[^] astinduko dabe ba txistua botako dautsoe; ta astiniu ondoren, il egingo dabe. Baiña irugarren egunean, biztu egingo da.» Areik, barriz, ez eben ezer be ulertu; izkera au areintzat estalduta egoan, eta Jesus'en eanai ez eutsen antzik emon. Onetan, Jeriko-ondora dtzean, itsu bat egoan bide-baztarrean, eskean.

Beliitz = envidia.

Eta andik igaroten zan gizataldea somau enanean, zer ete-zeitekean itandu eban. Eta Jesus Nazaretarra igaroten zala esan eutsoen. Orduan, deadarka esan eban: «Jesus, Dabid'en Seme ori, erruki zakidaz!» Aurretik joiazanak, jsilik egoteko zirautsoen. Baifia arek gero ta deadar aundiagoz iñoan: «j3abid'en Seme ori erruki zakidaz!» Jesus gelditu egin zan, eta itsua bere aurrera ekarteko agindu eban. Urrefatu Vakonean itandu eutsan: «Zer nai dozu egin dagitzudan?» Eta arek erantzun eutsan: «Jauna, ikusi dagidalá.» Ta Jesus'ek esan eutsan: «Ikusi egizu, ba; zeure sjmsmenak osatu zaitu.» Ta berealaxe ikusi eban eta Jesus' jarraitu eutsan, Jaungoikoa goratuez. Eta ejri guztiak be, au ikusirik, Jaungoikoa goratu eben.—Ifredo

Eskintza.—Bedeinkatua Zu, Jauna; irakatsi ieg;da-zuz zure aginduak; zure agoko lege guztiak neure ezpanakaz iragarren dodaz.

Oparí-otoitza.—Opari onek, Jauna, garbitu dagizala gure pekatuak eta santutu zure morroion gonputz-ari-mak, opari au bear dan lez egin daigun. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun-egunekoa, 455 orñ.* \

Jauixartzerakoa.—Jan eta asetu egin ziran, eta Jau-nak arein guraria bete egin eban; gura aiña i;an eben.

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun orrek!, zeruko janaria artu dogun ezkeru, ezbear guztietacako' indarra emon daiskula. Amaibagako.



GARIZUMA

AUTS-EGUAZTENA

l'go. maiUa. — Gorn's

Antxiña, garizuman oben-nekea (edo penitentzia) bete hear eben pakatari garbatuak, gaurko egunez artzen eben auts bedeinkatua. Orain ez dogu Eliza Ama ain zorrotza. Alan be, ekandu eder a gogoratzearren, autsa jarten dau eliztarren buru-gaiñean. —Sor.buru ta aakena dakarskuz gogora, auxe dirauskU'la: «Gomuta zaitez, gizon; autsa zara, ta auts biutuko zara». Bai; naiz-ita eder-galantak izan gure gorputzok, egunen baten auts biurtuko dira, ustel, atsitu, ar zikin, II egingo gara. Alan eta guzti be, eriotzaz ez da justia amaituko; gizona, gorputz eta arima da: ta au, iñimean, illeziña >da, betiko bizi izango da. Edo betiko zorione-tan, edo amaibagako oiñazetan. Gizonak zer nai, ta axe *einongo* yako: eriotza edo bititza aukeratzea bere eskuetan dago-ta.

AUTS-ONESPENA

Kanta-gaia.—Entzun gagizuz, Jauna, zure errukia samui'ra da-ta; begira guri, arren, oso biotz-bigun za-ra-ta.—*Ps.* Gorde nagizu, ene Jaungoikoa, atsekabe-urak arimaraño sartu yataz-ta.—Aintea Aitari... Entzun ga-gizuz...

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

Otoitza.—Jaungoiko alguzttidun eta betikorra! Par-katu pekatari damutuai, artu samurkiro deiez dago-kizuzanak; eta bialdu egizu zerutik Aingeru deuna, auts au bedeinkatu f ta santutu j dagian: zure izen santua apal-apalik deitzen daben guztientzat osasun-garrí izan daiten: baita euren burua, barruak diño-tsenez, pekataritzat artzen dabenentzat, eta zure jaungoikozko erruki-aurrean euren gaizakeriakaitik njgar egiten datoentzat, edo zure erruki samurra arduraz cskatzen dabenentzat, Egizu, arren, zure izen santua-ri dei egiten dautsen ezkeru, auts au buruan artzen daben guztiak iortu dagiela pekatuen parkamena, gor-putzeko osasuna ta arimako laguntza. Kristo gure Jau-riaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Eriotza bagarik, pekatarien garbaia (da, l maa) nai dozun Jaungoikoa: jkusi egizu biotz onez. gizonaren argaltasuna; eta aut-s au, apartasun-ezau-garriz eta parkamena lortzearren, buruan artu nai dogun ezkeru, ona zara-ta, bedeinkatu fegizu: auts garala ta geure gaiztakeriaren zigorrez auts biirtuko garala gogoraturik, zure errukiaren bidez pekatu guztien parkamena ta damu diranai agindutako sariak eskuratu daiguzan. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Apaltasunaz biguntzen eta damuaz batketzen zaran Jaungoikoa: entzun biotz onez gure eskariak; eta zure menp.ekoen buruak auts au artu dagienean, isuri egiezu samurkiro zure graziakko onepena, damu^gogoz bete ta zuzen eskatzen daaena emon dagiezun, eta emon dautsezuzan graziak beti sendo ta garbi izan dagiezan eurakan. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikorra! Autsez eta zurdatzez* damua agertu eben Ninibe'tarrai pekatuen perkamena emon zeutsen ezkeru, eiguzu biotz onez: arein antzera egiñik, jadetsi daigula guk be iparkamena. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

Oraán, abadeak intzetzua ipinten dau intzetzua-ontzian; eta autsa iru aldiz urez txipristindu ondoren, «Asperges me» esanez, beste irutan lurrintzen dau. Gero, abadeak bekokietan autsa ezarten dau, bakoitzari dirautsala:

GOMUTAU ZAITEZ, GIZON: AUTSA ZARA
TA AUTS BIURTUKO ZARA

Bitartean, korukoak Kanta-gai edo Antifona oneik abesten dabez:

1'go. Kanta-gaia.—Jantzia ail'datu daigun; autssz eta zurdatzez estaidu gaitezan; eta negar egin daigun Jaunaren aurrean, gure Jaungoikoa gure pekatuak parkatzeko guztiz errukiorra da-ta.

2'gn, Kanta-gaia.—Ateurre ta altara bitartean Jaunar.en otsein abadeak negar egingo dabe, es?.nez:

* Zurdatz = cilicio.

parkatu, Jauna, parkatu zure erriari; ta goratzen aaituenean agoak ez egizuz itxi^ jauna,

Ezjakinez pekatu egin dogunok., jo daigun obeamora; eriotz-egunak bat-batean artúrik, garbairako (damutzeko) astia nai izanaxren, aúrkitu eziñik gefiditu ez gaitezán.*Entzun gagizuz, Jauna, ta erruki zaliguz, Zeuri egin dautsugu pékatu-ta. Lagun zakigiz, jaungoiko gure osasun!, eta zure izen goragarriagaitik, gorde gagizuz.*Entzun gagizuz, Jauria... Aintza /itiri...*Entzun gagizuz, Jauna...

Eliztar guztiai autsa ipiñita gero, abadeak auxe diño:

- A.-Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

Otoitza.—Asi dagigula, Jauna, kristau-gudaritza barau santuen bidez: arerio gaiztoen aurka burrukan ekitean, garbitasunaren laguntzak zaindu gagizai.. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

M E Z A'

Sarrera.—Guztien erruki zara, Jauna, ta egindako ezer be ez dozu gorrotatzen; gizonen p'ekatuák ez-ikusi egiten dozuz, damu izan ezkeru beintzat, eta parkatu egiten dautsezuz, gure Jaun eta Jaungoikoa Zeu zara-ta. — Erruki zakidaz, ene Jaungoiko: nire arimak Zeugan itxaroten :dau-ta.—Aintza.

Otoitza.—Zure zintzoak, Jauna, baraualdi agurgarri au gogoz asi ta gartsu burutu.dagiela. Amaibagako.

Irakurgaia (Joel., 2, 12-19).—Auxe diño Jaunak: Biotz-biotzez biurtu zaiteze Nigana, barau, negar eta antsiz. Urratu egizuez zuen biotzak, eta ez zuen jantziak, eta biurtu zaiteze zeuen Jaungoiko Jaunagana: samur eta errukior, eroapen aundikoa ta biguna, ta zigortzen nekeza dozue-ta. Nok daki zuekana biurtuko dan eta parkatuko dauan, eta bere ondoren onepena itziko dauan, zeuen Jungoiko Jaunar} opariak eta garbiketak eskifn dagiozuezan? Jo adarra Sion'en; iragavi baraualdi deuna; deitu batzarrera, batu erria; bedeinkatu batzarra; ume ta ugatz-seiñak be alkarganatu; urten bedi senarra bere etzalekutik eta emaztea bere ezkon-oetik. Ateurre ta altara bitartean Jau-

naren otsein abadeak negar egingo dabe, esanez: Parkatu, Jauna, parkatu zure erriari; ez egizu lotsagarritan itzi zeure jarauntsi*, atzerritarren menpean jarririk. Zegatik diñoe errietan: Nun dabe euren Jaun goikoa? Baiña begi maitekorrez begiratu eban Jaunak bere lurra, ta erriari parkatu egin eutsan. Eta Jaunak auxe erantzun eutsan bere erriari: Neuk bialduko dautsuet garia, ardaoa ta orioa, ta asetuko zaree; ta ez zaituet geiago errien lotsagarri itziko. Auxe diño Jaun alguztidunak.

Koru-kanta.—Erruki zakidaz, ene Jaungoiko!, erruki zakidaz: nire arimak Zeugan itxaroten dau-ta. Zerutik bialdu eban laguntza, ta onik atara nenduan-lotsaz bete ebazan ni zapaltzen nenduenak.

Luzagarria.—Jauna, ez gaizuz erabili eg'indako pekatuen negurriz, ezta gure gaiztakeriak dagokien negurrira zigortu be. Jauna, ez egizuz gogora ekarri gure atxiñako pekatuak; betorkigu, barriz, lenbailen zurre errukia, oso beartsu egin gara-ta. (*Belauniko emen*). Lagun Zakiguz, Jaungoiko gure osasun!, eta zure izen goragarriagaitik, gorde gagdzuz, Jauna; parkatu egizuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Mat, 6, 16-21).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Barau egin dagizue-nean, ez jarri itun, azalutsak lez; gizonai barauzale agertzeko, arpegiak makaltzen dabez-ta. Benetan dirautsuet: artu eben euren saria. Zuk, barriz, barau egl'n dagizue-nean, usairadu egizu zure burua ta garbitu anpegia, gizonai barauzale ez agertzeko, isillean dan zure Aitari baiño; ta isillean ikusten dauan zure Aitak ordaiña emongo dautsu. Ez batu ogasunik lur onetan: ugarrak eta sitsak ondatu, ta lapurrak zulatu ta ostu egiten dabez-ta. Ogasunak, ostera, zeruan batu egizue-z zuentzat: ez dago an ugarrik ez sitsik ondatzeko, ezta zulatzeko ta ostuteko lapurrik be. Zuen ogasuna dagizuen tokian, biotza be antxe izango dozue-ta.

Eskintza.—Goratuko zaitut, Jauna, gora iaso nozu-ta; nire lepotik barre egiten arierioai ez dautsezu itzi-ta; Zeuri, Jauna, egin neutsun dei, ta Zuk osatu egin nenduzun.

* Jarauntsi = herencia.

Opari-otoitz-a.—Bear dan lez gertau gaitezala, Jauna, oparigai oneik eskintzeko; eurokaz emoten dautsagu asiera baraualidi santu oni-ta. Amaitoagako,

Kanon-aurrea: *Garigumakoa*, 452 orri., *Nekaldiko iganderarte*.

Jaunartzerakoa.—Jaunaren legea gau ta egun gogotan izan dagianak, bere frutua aldi egokian ekarriko dau.

Azken-otoitza.—Indartu gagiz, Jauna, artutako Eukaristiak: gure barauak zuri atsegin izan dakizuzan eta guri osangarrd izan dakiguzan. Amaibagako.

Garizuma-eguneko Mezetan, azkenengo Azken-otoitz ondoren, erriaren aldeko Otoitz bat esaten da, egun bakoitzari clagokiona.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun: Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Entzun errukior, Jauna, zure aurrean auzpez dagozanoi; ta jaungoikozko janariz bizkortu diranak, beti zeruko laguntzaz indartu daitezala. Aimaibagako.

AUTSTEGUN ONDOKO EGUENA

3'gn. mailla. — Ubelez

M E Z A

Sarrera.—Jaunari dei egin neutsanean, entzun egin eustan, eta ingurutzen nenduen arierioakandik assatu egin nenduan; eta gizaldiak baiño lenagotik dan eta betiko irauten dauanak, zapaltueta itzi ebazan. Itzi egizu Jaunaren eskuetan zure asmo-arazoa, ta Berak zainduko zaitu. — Entzun, Jauna, nire otoa, ta ez egizu alboratu nire eskaria: aditu ta entzun nagizu.—Aintza.

Otoitza.—Erruak iraindu ta garbaiak (flamuak) baketzen zaituan Jaungoikoa: begiratu belauñiko dagoan zure erriaren eskariak, eta urrfndu gagandik pekatuakaitik irabazi dogun zure asarrearen zigorra. Amaibagako.

Irakursaia (Isaias, 38, 1-6).—Egun areit.i.n, Ezekias il-zorian egoan, geisorik; eta Isaias igarleak, Amos'en semeak, a ikustera joanik, auxe esan eutsan: "Auxe diño, Jaunak: atondu egizu zure etxea, ii egin-

go zara ta ez zara bizi izango-ta.» Ezekias'ek, arpe»ⁱ_a ormaruntz biurturik, Jaunari otoi egin eutsan, esanez-«Gomutau zaitez, arren, Jauna, egizale ta biotz-zintzó izan nazala zure aurrean, eta zure begiai on yakena baiño ez dodala egin.» Eta zotin garratzak isuri ebazan Orduan, Jaumak Isaias'i auxe esan eutsan: «Zoaz, eta esan egiozu Ezekias'i: «Auxe diño Jaunak, zure Aita Dabid'en Jaungoikoak: entzun dot zure eskaria, ta ikusi dodaz zure malakoak. Entzun, ba: zure bizitza -egunak amabost urte luzatuko dodaz, eta zu ta uñj au Asiri'tarren erregeren eskuetatik a.tara egingo ca:tu-^et; Neuk zainduko dot uri au, diño Jaun alguzti-dunak.»

Koru-kanta.—Itzi egizu Jaunaren eskuetan zure asmo-arazoa, ta Berak zainduko zaitu. Jaunari dei egin neutsanean, entzun egin eustan, eta inguratzen nenduen arerioakandik askatu egin nenduan.

Barri Ona (Mat., 8, 5-13).—Aldi aretan, Jesus Kafarnaum'en sartu zanean, eunburu (1) bat urreratu yakon, erreguz eskatzen eutsala: "Jauna, nire morroia elbarrituta* ogean datza etxean, oiñaze gorritan." Jesus'ek esan eutsan: "Joango nakio ta osatuko dot." Eunburuak erantzun eta esan eutsan: "Jauna, ez naz ni nor Zu nire etxera etorri zaitezan; baiña esan egizu itz bakar bat, eta nire morroia osatuko da. Neuk be, iñoren menpeko izanarren, ba-daukadaz gudariki nire agindupean; eta bati «oa!» dirautsat, eta ba-doa; besteari "ator!", eta ba-dator; eta nire morroiarri "au egik", eta egin eg'iten dau." Au entzutean, Jesus arritu egin zan, eta jarraitzen etsoenakana bmturik, esan eutsan: "Benetan dirautsuet: ez dot onenbesteko sinismenik Israel'en aurkitu. Ba-dirautsuet, barrizi: asko ta asko etorriko dira iparralde ta eguzki-sartzaldetik, ia, Abraham, Jsaa eta Jakob'egaz jarriko dira maian zeruko erreinuan; erriko semeak, ostera, kanpoko illunpetara iaurtiak izango dira. An izango da negarra ta agin-karraskada!" Gero, Jesus'ek eunburuari esan eutsan: "Zoaz, ta jazo bekizu sinistu dozunez." Eta ordu aretantxe osatu zan morroia.

(1) Eunburu: eun gudariren buru edo nsgusi zan[^],

• Elbarri: paralítico.

Eskintza.—Zeugana jaso dot biotza, Jauna; zeun "itxaroten dot, ene Jaungoiko, ez naz lotsatjko. Ez naitela arerioen lotsagarri izan; zeugan uste ona i?an dagienak, ez dira galduko-ta.

Opari-otoitza.—Atsegiñez ikusi egizuz, Jauna, au[^]rreko oparigaoik: gure oneraapena sendotu te gure osasuna indartu dagien. Amaigabako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Ontzat artuko dozuz, Jauna al-tara-ganean ipiñi dautsuguzan zuzentasunezko oparia, cparigaiak eta erre-opariak.

Azken-otoitza.—Zeruko graziaren onspena artu dogun ezkeru, apal-apai eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguztidun orri: auxe berau sakramentuaren egika^ñ" danez, zerurako osasungarri be izan dakigula. Amaigabako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun,—Makurtu bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Parkatu, Jauna, parka-tu zure erriari: bear dauan lako zigorra arturik, zu-re errukian arnasa artu dagian. Amaigabako.

AUTS-EGTJN ONDOKO BARIKUA

3^{gn}. mailla. — *Ubelez*

Sarrera.—[^]Entzun nau Jaunak, eta errukitu da nit-zaz; Jauna In'eure laguntzaille egin da. — Goratu-ko zaitut, Jauna, gora jaso nozu-ta; nire leptik ba-re egiten arerioai ez dautsezu itzi-ta.—Aintza.

Otoitz-a.—[^]Asi doguzan baruok, Jauna, indar sa-murrez lagundu egizuz: gorputzez egiten dogun okela-izte au, biotz zintzoz be bete daigun. Amaigabako.

Irakursaia (Isaias, 58, 1-6).—Auxe diño Jaungciko Jaunak: Deadar egin eten бага; turuta antzera jaso zure abotsa; ta iragarri nire erriari bere gaiztak-jviak eta Jakob'en etxeari bere uts-egiñak. Egun oro dator-kidaz billa, ta neure bideak jakin nai dabez, zuzen jokatu ta euren Jaungoikoaren legea bertanbera itzi ez ba'lebe lez. Epai zUzenak eskatzen daustez, ta Jaungoikoagana urreratu nai dabe. Auxe diño: 'Ze-gaitik egin dogu barau, ta ez zara konturatu? Guk

* Egikai: causa.

geure buruak beeratu, ta Zuk ez ieramonik egin?". Barau egitsn dozuen egunean, zeuen arazoetan óiar-duzue, ta zuen zordun guztiak estutu egiten dozuez. Zuen barau'etan, auzi ta eatabaidetara zoaze, ta emiki baga ukabilkada ederra-k emoten dautsazuez edonori. Ez egin baraurik gaur arte lez, zuen deadarra an g'ian ertzun daiten íai ba'dozue. Egun baten gizonak fcere arima nekatzea ete-da Nik gura dodan baraua? Zuma antzera burua makurtzea? Zakuaz ta autsaz etzutea? Orri deritxazue barau, ta Jaunaren gogoiako eguna? Auxe da Nik nai dodan baraua, diño Jaunak: Bidebagezko kateak eten, estuntza zapalkorrek ausi, merapean dagozanak askatu, buztarri guztiak kendu. Gose danari zeure ogitik emon; beartsu ta aterpe bagakoak zeure etxean artu; billoisik dagoana jantzi; zeure anaiari abegi ona egin. Orrela, egunsentia legez argi egingo dozu, ta laster etorriko yatzu osasuna. Zeure aurrean joango da zuzentasuna, ta Jaunaren argitasunak inguratuko zaitu. Orduan, dei egingo dozu, ta Jaunak entzun egingo zaitu: zuk dei. egin, eta Jaunak auxe erantzungo dautsu: "Emen nago", zure Jaungoiko Jaun errukitsua naz-ta.

Koru-kanta.—Gauza bat eskatu dautsat Jaunari, ta auxe gura dot: Jaunaren etxean bizi nadilla. Jauraren atsegiña ikusteko, ta Aren etxe deunaren babespean bizi izateko.

Luzagarria: Jauna, ez gaizuz erabilli, 98 orri.

Barri Ona (Mat., 5, 43-48; 6, 1-4).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ika-sleai auxe esan eutsen: Entzun dozue esanda dagoala: «Geidea (lagun-urkoa) maite egizu, ta areríoari gorroto izan egiozu.» Nik, barriz, ba-di-rautsuet: zure arerioak maite egizuez; gorroto dau-tsuenai, on egizue, ta ezetsi ta iraintzen zaituen alde otoi egizue: Bere eguzkia on eta gaiztoen gaiñera atara, ta euria on eta gaiztoen gaiñera eratorten dauan Goiko Aitaren seme izan zaitezen. Baiña maite zaituenak bakarrik maite ba'dozuez, zein sari izango dozue? Zergariak* eurak be ez ete-dabe ori egiten? Eta anaiak bakarrik agur egiten ba'dautsazue, zer egiten dozue geiegi'korik? AtzeiTitarrak eurak be ez ete-dabe ori egiten? Beraz, oso-osoak izan zaiteze, zuzn

* Zergari: publicano.

Cfoiko Aita osoa danez. Ez eg'in, gero, egite onak gizonen aurrean, oneik ikusi zagiezan!; bestela, zuen Goiko Aitarenean ez dozue saririk izango. Beraz, limosna eg'in dagizunean, ez atara aurretik turuta-otsik, azalutsak sinagogetan (batzar-tokietan) eta kaletan oi dabenez, gizonak goratu dagiezan. Benetan <iirautsuet: artu eben euren ñaria. Zuk, barriz, limosna egin dagizunean, ez dagiala jakin zure ezkerrek, zure eskumak egin dagiana, zure limosna ixillean izan dadin; eta ixillean ikusten dauan zure Aitak ordaiña emongo dautsu.

Eskintza.—Biztu nagizu, Jauna, zure itzaren bidez, zure aginduak ezagutu dagidazan.

Oiiari-otoitza.—Garizumako barauen bidez esKintzen dautsugun opari onek, Jauna, gure arimak gogoko egin dagitzuzala ta gure barau-nekea obeto belete-lco indarra emon daiskula. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Otseindu egizue Jauna begirunez, ta ikaraz Beragan poztu zaiteze; artu egizue Aren legea, bide zuzenetik aldendu ez zaitezen.

Azken-otoitza.—Isuri egiguzu, Jauna, zure maitasun-gogoa; zerutiko ogi berberaz janaritu gozuzanok, zure errukiz alkartasunean bizi gaitezun. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—^Makurtu bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Gorde egizu, Jauna, zure erria, ta garbitu samurkiro bere pekatu guztietatik; gaiztakeriren batek azpiratzen ez ba'dau, zoritxarrak e? dautso kalterik egingo-ta. Amaibagako.

AUTS-EGUN ONDOKO LARUNBATA

3'gn. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Entzun nau Jaunak, ta errukitu da nitzaz; Jauna nire laguntzaille egin da.—Goratu-ko zaitut, Jauna, gora jaso noz-ta; nire lepotik are-ri;oi barre egiten ez dautsezu itzi-ta.—Aintza.

Otoitza.—Entzun egizuz, Jauna, gure eskariak; eta baraualdi au gure gorputz-arimen osasunerako iarria dan ezker, gogo onez ospatu dagigula. Amaibagako.

Irakurgaia (Isaias, 58, 7-11).—Auxe dino Jaunak-Estukuntza*, esku-zemak* eta irain-itzak zugandik •urrun jaurti ba'dagizuz; gose danari zure barrua zabaldu ta atsekabetuari biotza poztu ba'dagiozu, iliunpean argia sortuko yatzu, ta zure illunpea eguerdi biurtuko da. Jaunak betiko beakea emongo dautsu, tñi zure barrena argiz beteko da; zure azurrak indartu egingo dauz; eta barajtz (ortu) bustia lez izango zara, ta legortzen ez dan iturria lez. Eta antxiñako etxé-ondarrak barriro egingo dozuz, eta lengo aldietako oiñarriak jaso egingo dozuz; arresi-eregille ta bakezko bide-egille dei egingo dautsue. Zapatuan zure oiñik ez ba'dabil, eta nire egun santuan zeure gogorik ez ba'dozu, zapatua atsedéntzat eta Jaunaren aintzarako lai artzen ba'dozu, joan-etorriak, saldu-erosteak eta barriketak itzirik, orduantxe izango dozu atsegin osoa Jaunagan, eta lurralde guztien gaiñetik jasoko Zditut eta Jakob zure aitaren maian janarituko zaitut. Jaunaren agoak diño au.

Koru-kanta.—Gauza bat eskatu dautsat Jaunari, ta auxe gura dot: Jaunaren etxean bizi nadilla. Jaunaren atsegiña ikusteko, ta Aren etxe deunaren babespean bizi izateko.

Barri Ona (Mark., 6, 47-56).—Aldi aretan, berandu zala, ontzia itxaserdian zan, eta Jesus legorrean. barrik. Eta aizea aurretik etorkiela, ta Jesus'ek txalupakoak arraunka nekaturik ikustean, laugarren gau-aldian-edo, ur-gaiñean etorri yaken oiñez, eta atzean iztekoa egin eutsen. Areik, barriz, ur-ganean oiñez ibi-Uiz ikusi ebenean, mamua zala uste izan eben, eta deadarka asi ziran: guztiak ikusirik, bildurtu egin ziran-eta. Bereala Jesus'ek, itz egiñez, dirautse: "TJste on izan! Neu nozue; ez ikaratu." Ta ontzira igo zan, eta aizea gelditu egin zan. Orduan arrituago egin ziran, ogien miraria ez eben ulartu-ta: arein biotzak iteututa egozan. Legorrera igarota, Genesaret'era eldu ta antxe gelditu ziran. Ontzitik urtenda, angoak berealaxe ezugutu eben Jesus; eta lurralde guzti a igatoten ebela, inguruetakoko geisoak zerraldoietan nge-txoetan) ekarten eutsoezan Bera egoan tokira. Ta barsari, erritxo naiz uriren batera joianeko, geisoak ka-

* Estukuntza: opresión.

* Esku-zemak: gestos amenazadores.

pkarten eutsoezan, besterik ezean Aren soiñeko
3^e f f i « k ° \ r r e g u z ; eta, izan be, ikutzen eben guz-
" ^ ak, osatu egiten ziran.

Efkintza.—Bitzu nagizu, Jauna, zure itzaren bidez, zure'aginduak ezagutu dagidazan.


Onari-otoitza.—Artu egizu, Jauna, opari au, beron bidez baketu nai izan zenduan-eta; ta eiguzu, be-
" onen indarrez garbiturik, eskiñi dagitzugula gure ari-
Jnaren maitasun gozoa. Amaibako.


Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

jaunartzerakoa.—Otseindu egizue Jauna begirunez,
, ikaraz Beragan poztu zaitetze; artu egizue Aren le-
" ea, bide zuzenetik aldendu ez zaitezen.

Azken-otoitza.—Zeruko janariaz indartu garan ez-
kero egizu Jauna: bizitza onetan jateko ezkutua ya-
kun'au, betikorako laguntza izan dakigula. Amaiba-
gako.

Erriaren alde—Otoitz egin daigun.—Makurtu bu-
ruok Jaungoikoaren aurrean.—Indartu beitez zure zin-
tzoak, Jauna, zure Eukaristiaz; berau artuaz, beronen
billa 'ibilli daitezala, ta billa ibilliaz, betiko artu da-
giela. Amaibagako.





GARIZUMAKO LENENGO IGANDEA

l'go. mailla. — Ubelez,

Kristau guztiok zoli ta gogo béroz ekin bear dautsagu Pazkoatarako gertatzen. Orretarakoxe da Garizuma-aldi au: otoi ta penitentzi egiteko. Gaurko Barri Ona irakurri ondoren, ikusi daigun zelan jokutzen dogun tentaldietan; eta ikasi daigun Jaungoikoaren laguntasunaz arerioen ekitaldi guztiai gogor egiten, uste osoa Jaungoikoagan dogula.

Biblia.—Asiera, Gen.: 25, 30-34; 27; 28, 10-19; 29, 1-30; 32, 2'tik 33, 16'va; 35, 1-15; 37, 2-35.

M E Z A

Sarrera.—Dei egingo daust, eta Nik entzun egingo dautsat; onik atarako dot eta gora jasoko dot; bizitza iuzea emongo dautsat.—Goiko Jaunaren zainpean gorfle daiitena, zeruko Jaungoikoaren atsrpean b'zi izango da.—Aintza.

Otoitza.—Garizumako baraualdiaz zure Eliza urtero gai-bitzen dozun Jaungoikoa: egizu, barau oneikaz lortu nai doguna, egitada onez jaritsi daigula. Amai-bagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gna.: 6, 1-0.0).—Anaiok; Ez dagizuela, arren, Jaungoikoaren grazia alperrik artu. Berak esan dau-ta: «Aldi onez entzun neban zure deia, ta osasun-egunean lagun izan

nenduzun.» Oraintxe dozue sasoi ona, oraintxe osasun-eguna. Iñor ez daigun bide okerrera eroan, gure lan-bidea loitu éz daiten. Agertu gaitzean, ostera, Jaungoikoaren menpeko gauza guztiacn, iraupenik aundienaz atsekabe, ezbear, estualdi, zauri, giltzape, matxinada, neke, lo-galdu ta baraualdiak jasanez; garbita-aunez, jakitez, biotz zatoai eita samurrez, Espiritu Santuaz, benetako maitasunez, egiazko berbaz, jaungoicoaren indarrez, zuzentasunezko iskillu (edo armak) ezker-eskuman eratoilliaz, gorapenezi (ospez) naiz lotsatz, izeti on naiz txarraz; egia esanda, guzurtizat artzen gaituela; ezaunak izan eta alan be ez-ezauntzat; il bearrean, ta bizirik; zigorrak arturik, baiña il bagarik; atsekatoez gagozala, toaiña beti pozik; ustez beartsu, lagun asko aberastu doguzanarren; ustez ezer bagarik, baiña g&uza goiztien jabe izanik.

Koru-kanta.—Zaindu zagiezala bide guztietan, agindu dautse Jaungoikoak bere Aingeruai. Eskuetan eroango zaitue, oiña arriren baten mindu ez dakizun.

Luzagarria.—Goiko Jaunaren zainpean egon daite-na, zeruko Jaungoikoaren aterpean bizi izango da. Orrelakoak auxe esango dautso Jaunari: Zeu zara nire igesleku ta gordeleku, ustea idodan Jaungoikoa. Bai, Berak atarako nau eiztarien* lokarrietatik eta berba gogorretatik. Bere egoakaz estalduko zaitu, ta Bere egapea izango diozu atpen. Aren zintzotasunak mazarroaz* íez gordeko zaitu; gauari ez dautsazu bildurrik izango. Ezta egunez egaz doan geziari be, ez illunpeko izurriari* be, ezta egun argiz zauritzen dauan geisoaxi be. Zure altooan milla jausiko dira, ta zure eskumaldean amar milla; baiña zu ez zaitue Iktuko. Zairtdu zagiezala bide guztietan, agindu dautse Jaunak bere Aingeruai. Euren eskuetan eroango zaitue, oiña arriren baten mindu ez dakizun. Pizti ta suge-gaifean itoilliko zara, ta leoia ta iransugea zapaldu egingo dozuí. Onik atarako dot, neugana etorri da-ta; zaindu egingo dot, Neure izena ezagutu dau-ta. Dei egingo daust, eta Nik entzun egingo dautsat: beragaz egongo naz estualdian. Onik atarako dot eta gora jasoko dot; bizitza luzea emongo dautsat eta neure osasuna erakutsiko dautsat.

* Eiztari: cazador. * Mazmarro: escudo. * Izurri: peste.

Barri Ona (Mat., 4, 1-11).—Aldi aretan, Jesus Espiritu Sanfua besamortura eroan eban, deabruak zirikatu egian. Eta berrogei egunez eta berrogei gauz barau eginda, azkenez gose izan zan. Eta tentatzailea (deabrua) urreraturik, esan eutsan. «Jaungoikoaren Semea ba'zara, esan egizu arriok ogi biurtu daltezala.» «Idatzita yagok, —erantzun eutsan Jesus'ek—: gizona ez dok ogi utsez bizi, Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño.» Orduan, txerrenak Uri Santura (Jerusalen'era) eroanik, eliza-nagusiko gaillurrean jarri eban, eta esan eutsan: «Jaungoikoaren Seme ba'zara, amiltu aaitze goitik beera, idatzita dago-ta, Zamdu zagiezala agindu dautse bere Aingeruai; ta eskue-tan artuko zaitue, oiña arriren baten mindu ez -daki-zun.» «Baita idatzita be ba-yagok, esan eutsan Jesus'ek: Ez dok eure Jaungoiko Jauna zirikatuko.» Ba' rriro be txerrenak mendi-goi batera eroan eban, eta lurreko alderdi guztiak eta arein edertasuna erakutsi eutsazan, eta esan eutsan: «Guztiok emongo dautsuda, auzpez gurtu ba'nagizu.» Jesus'ek esan eutsan: «Ken akit ortik urrun, Satanas, idatzita yagok-eta: Eure Jaungoiko Jauna gurtuko dok, eta Axe baiño beste Jaunik ez dok izango.» Orduan, deabruak itzi egin eban orduko; eta Aingeruak urreraturik, morroi-ke-tan asi tyakoz&n.—*Kmedo.*

Eskintza.—Jaunak bere egoakaz estalduko zaitu ta Bere egapea izango dozu aterpe; Aren zintzotasunak maamorroaz* lez gordeko zaitu.

Opari-otoitza. — Garizuma-asikeran eskintzen dautsugu, Jauna, opari au; ta egizu, okela-izteaz batera atsegin txarrak be itzi daiguzala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jaunak bere egoakaz estalduko zaitu, ta Bere egapea izango dozu aterpe; Aren zintzotasunak mazmarroaz lez gordeko zaitu.

Azken-otoitza.—Indartu gaizala, Jauna, artu dcgun zure Eukaristiak; ta oitura txarren loiak garbiturik, bere lagunkide egin gaizala zeruan. Amaibagako.

* Mazmarro: escudo.

GABIZTJMAKO LENENGO ASTEKO ASTELENA

3'gn. maila. — Ubelez

Sarrera.—Morroien begiak euren ugazaben eskuetara lez. gure begiak Jaungoiko Jaunari begira dagoz, gutzaz errukitu daiten arte. Erruki zakiguz, Jauna, erruki zakiguz,—Zeugana jaso dodaz begiak, goietan bizi zaran Orregana.—Aintza.

Otoitza.—Biurtu zaitzez gugana, gure Jaungoiko Salbatzaile ori!; eta garizumako baraualdi onek on egin daiskun, argitu egizuz gure arimak zeruko ikaskizunez. Amaibagako.

Irakurgaia (Ezekias, 34, 11-16).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Neuk zaindu ta ikusiko dodaz nemv. ardiak. Artaldea sakabanatu dan egunean, artzainiak, bere ardiak zenbatzen dauzanez, alantxe egingo dot neuk be neure ardiakaz, eta odei ta laino-egunean galdu ziran leku guztietatik urrinduko dodaz. Eri'tetatik atara ta atzerrietatik baturik, euren lurraldera eroango dodaz; eta Israel'go mendietan larratuko dodaz, ibar eta lurreko larra guztietan. Larra jori-gizenetan janarituko dodaz, eta Israel'go mendi gaillurretan izango dabe larra ugari. Antxe egingo dabe janondoko atsedena bedar eze-guri artean, eta Israel'go mendietako bedartza gizenetan jango dabe. Neuk larracako dodaz neure ardiak, eta Neuk lo eragingo dautset, diño Jaungoiko Jaunak. Neuk billatuko dot ardi gal'ua, bidea galdu dauana artaldera ekarriko dot, zauritua lotu egingo dot, eta argala gizendu; Neuk zainduko dodaz gizen eta osasuntsuak, eta zuzentasunean larratuko dodaz, diño Jaun alguztidunak.

Koru-kanta.—Begiratu gagizuz, Jaungoiko, gure zaindari orrek, eta biurtu begiok zure morroiokana. Gudarien Jaungoiko Jauna!, entzun egizuz zure menpekoren eskariak.

Luzagarria.—Jauna, ez gagizuz erabili egindako pekatuen negurruz, ezta gure gaizakeriak dagokien negurrira zigortu be. Jauna, ez egizuz gogora ekarri o-ue antxiñako pekuatuak; betorkigu, barriz, lenbaiten zure errukia, oso beartsu egin gara-ta. (*Belaunifco emen*) Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osasun!,

eta zur, izen goragarriagaitik, gorde gagizuz, Jauna' parkatu eiguzuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Mat., 25, 31-46).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Gizasemea bere Aingeru guztien erdian argitsu etorri daitenean, bere aulki ospetsuan jesarriko da, ta erri guztiak Aren aurrean batuko dira, ta alkarregan-aik banandu egingo dauz, artzaiñak ardiak akerrakandik banantzen dauzanez. Eta ardiak bere eskumaldean, eta akerrak bere ezkernekaldian jarriko dauz. Orduan, Erregek bere eskumaldekoai auxe esango dautse: "Zatoze, nire Aitak onetsiok!; jabetu zaitze munduaren asferatik gertu daukazuen erreifuaz: gose izan nintzan, eta jaten emon zeusten-eta; egarri izan nintzan, eta edaten emon zeusten-eta; arrotz (erbesteko) nintzan, eta etxean artu nenduzuen; billoisik nengoan, eta jantzi egfn nenduzuen; geisorik, eta ikustera etorri zintzakidazen; giltzapean nengoan, eta Neugana etorri zintzazen." Orduan, zintzoak erantzungo dautsoe: "Jauna!, noiz ikusi zenduguzan gosez, ta jaten emon geutsun?; edo egarri, eta edaten emon geutsun? Noiz arrotz, ta etxean artu zenduguzan; edo billoizik, eta jantzi zenduguzan? Edo noiz geisorik naiz giltzapean Zu ikusja, etorri gintzazan Zugana?" Eta Erregeak, erantzunik, esango dautse: "Benetan dirautsuet: onetariko nire anai txikienari egin zeutsena, Neuri egin zeusten. Orduan, ezkerrekaldikoai be esango dautse: "Alde Nigandik, madarikatuok!, deabruarentzat eta aren aingeruentzat gerturik dagoan betiko sutara. Gose nintzan, eta ez zeusten jatekorik emon-eta; egarri nintzan, eta ez zeusten edategorik emon-eta; arrotz nintzan, eta ez nenduzuen etxean artu; billoizik nengoan, eta ez nenduzuen jantzi; geisorik eta giltzapean, eta ez zeusten ikustaidirik egin.» Orduan, areik be erantzungo dautsoe: «Jauna!, noiz ikusi zenduguzan gosez, egarri, arrotz, billoisik, geisorik edo giltzapean, eta ez gintzakizun lagun joan?» Eta Arek erantzungo dautse: "B«netan dirautsuet: onetariko txikitxo baiti egin ez zeutsena, Neuri be ez zeusten egin." Eta oneik betiko oinazetara joango dira; zintzoak, barriz, betiko bizitzara.

Esintza.—Begiak jaso ta zeure arrigarriak ikusiko dodaz, Jauna; irakatsi egidazuz zure aginduak; emon egidazu argitasuna zure aginduak ikasteko.

Opari-otoitza.—Bedieinkatu egizuz, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok, eta pekatuzko loi guztitik garbitu gagizuz. Arnaibagako.

Kanon-aurea: *Garizumakoa*, 452 orrl.

Jaunartzerakoa.—Benetan dirautsuet: onetariko nire anai txikien&ri egin zeutsena, Neuri egin geusten. Etorri zaitze, nire Aitak onetsiok! Artu egizue munduaren asieratik gertu daukazuen erreifuu.

Azken-otoitza.—Zure janari osasungarriaz aseturik, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna; jateko onek egin dauskun atsegiña, indar barri biurtu dakigula. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu burok Jaungoikoaren aurrean. — Askatu egizuz, Jauna, gure pekatuen lokarviak; eta eurakaitik dagokigun zigorra, biotz onez aldendu egfzu. Abaibagako.

GARIZUMAKO LENENGO ASTEKO ASTARTEA

3^{gn}. maila. — Ubelez

, Sarrera.—Zu, Jauna, gizaldiz-gizaldi geurg igesleku-izan zara; Zu betikoa zara. — Mendiak egir. baiño len eta zeru-lurrak agertu baiño len, Zu beti ta betik zara, Jaungoiko ori!—Aintza.

• Otoitza,—'Begiratu egizuz, Jauna, zure etxeokak; eta gure arimak barauaren bidez zigortzen diran ezker, edertu daitezala zure aurrean zeureganako gurariz. Amaibagako.

Irakurgai (Isaias, 56, 6-11).—^Egun areitan, Isaias igarleak auxe esari eban: Billatu egizue Jauna idoro daiteken artean; dei egiozue, urrean dagoan artean. Dongeak itzi bedi bere bidea, ta gaitzoak bere asmoak eta biurtu bedi Jaunagana, ta erruki izango yako, gure Jaungoikoa parkatzaille aundia da-ta. Nire asmoak eta zuenak ez dira bardiñak, diño Jaunak; ezta nire bideak eta zuenak be. LURretik zerua goi da^ goan baiño gorago dagoz nire bideak zuen bideetatik, eta nire asmoak zuen asmoetatik. Eta euria ta edurra

goitik jatsiarren, ara biurtzen ez diranez, azia ereiteko ta ogia jateko emonaz, lurra busti, indartu ta erneamzo egin baiño: alantxe nire agotik urtendako itza be, ez da utsik biurtuko Nigáná, nire guraria egin eta bere arazoa bete • arte; auxe diño Jaun aiguztidunak.

Koru-karata.—Igo, bedi nire otoiia zure aurr.era, Jauna, intzentzua lez. Nire esku-jasotea, arrats-oparia lez izan bekizu,

Barri Ona (Mat., 21, 10-17).—Aldi aretan, Jesús Jerusalem-en sartu zanéan, úri osoa dardaraka así zan, esanez: «Nor dá au?» Baiña gizataldeak iñoan: «Jesus Igarlea dá au, Galilea'ko Nazaretarra.» Ta Jesus Jaungoikoaren Etxean sartu zan, eta saltzen eta erosten ziarduen guztiak kanpora jaurti ebazan, eta -diru-aMatzaillen maiak eta uso-saltzaillen aulkiak itzuli egin, ebazan. Eta esan eutsen: «ídatzita dago: Nire etxea otoi-etxe. izango da. Baiña zuek lapur-zuto egin dozue.» Ta. itsuak eta errenak urreratu. yakozan Jaunaren etxean, eta osatuegin ebazan. Baiña abade-nagusi ta idazlariak Arek egindako mirariak ikusi ebazanean, eta elizan «gora Dabid'en Semea» umeak deardarka' ziarduela entzun ebenéan/ asarretu egin ziran, eta esan eutsoen: «Entzu, ten dozu orreik diñoena?» Ta Jesus'ek erantzun eutsen: «Bai, orixe! Ez al dozue egundo irakurri: «Umetxoen eta bularrekoen agotik atara dozu zure gorapena?»..Ta areik itzirik, uritibiBentania'ra urten eta, antxe gelditu zan.

Esqintza.—Zeugan dot itxaropená, Jaúna; esan^ néban: Zeu zara nire Jaungoik.óa; zeure. eskuetan, daukazuz nire egunak.

Oikari-ptoiitza.—Bigundu 'zaitez, Jauná, eskiñitakó oparigaiokaz, eta arrisku guztietatik zaindu gagizuz. Amaibagako,

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Deí egin neutsunean, entzun zeustan, jaungoikó zuzen orrek; atsekabeen, poztu egin nenduzan. Erruki zakidáz, Jauna, ta entzun nire otoiia.

Azkm-otoitza.—Eiguzú, Jaungoiko álguztidun orrek!, eskuratu daigula, arren, Eukaristi dnetan artu dogun ondoren osasungarria. Amaibagako.

Erriaren atde.—Otoitz egiri 'daigun.—Makuftú bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Igo bekizuz, Jauna, guré

esKarlak, eta aldendu egizuz zure Elizatik gaitz guztiak. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAU AROETAKO (ALDIETAKO) EGUAZTENA

2^{gn.} maila. — Ubelez

aarrera.—Gogoratu egizuz, Jauna, zure ontasun eta erruKiak, betikoak dira-ta; arerioak ez gagiezala iñoiz azpiratu; zaindu gagizuz, Israel'go Jaungolko orrek, gure estualdi guztietan. — Zeugana jaso aot nre Dtotza, Jauna; ene Jaungoiko, Zeugan dot itxaropena: tet naz fotsatuko.—Aintza.

1 AOadeak, Ky-rie esan ondoren, auxe axño.

Otoitz egin daigun.—Belaunikoitu gaitezan (*beiauniko apartxo baten*). Zutundu zaiteze.—Entzun biotz onez, Jauna, gure eskariak, eta zabaldu egizu zure eskuma indartsua gure ezbear guztietan. AmaibagaKo.

I'go. irakurgaia (Urteera, Ex., 24, 12-18).—Egun areitan, jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «ígo zaillez Meu nagoan mendira, ta zagoz an; arn-iosa batzuk emongo aautsuaz, idatzi aozazan lege ta aginduaKaz, Tsraei'go semeai eraKutsi dagiezuzan.» jagi ziran Moises eta onen laguntzauie Oosue; ta Jaungoikoaren mendira igoeran, Moises'ek zaarrai esan eutsen: «Itxaron emen gu barrio etorri arte. Aaron eta Ur dozuez zeuekaz.- eztabaidarik sortu ba'dadi, jo eurokana.» Eta Moises igo zanean, mendia odei batek estaldu eban. eta Jaunaren amtza (ospea) abertu zan Sinai-gaiñean, odeiak sei egunez estaltzen ebalá. Zapigarrenean, illuntasunaren erditik dei egin eutsan Jaungoikoak Moises'i. Jaunaren aintza sugarraren antzeko zan, mendi-tontorrean, Israel'go semeen aurrean. Éta Moises, laiñotzan sarturik, mendira igo zan; eta antxe egon zan berrogei egunez eta berrogei gaeuz.

Kóru-jkanta.—Biotz-larria geitu egin yat; atara nagizu, Jauna, estualdi onetatik. Ikusi nire naigabea ta nekea, ta parkatu egidazuz pekatu guztiak.

Orain. abadeak, altara-erdira joanda, Dóminus vobiscum diño.

Otoitza.—Beg'iratu biotz onez, Jauna, zure erriarén oneraspena; ta euren gor.putzak okela-iztez zigortzen

dabean ezker, egitada onen bidez euren arimak be indartu daitezala. Amaibagako.

2^{gn}. Irakurgiaia (Erregeen 3^{gna}.: 19, 3-8).—Egun areitan, Elias Juda'ko Bersabe'ra etorri zan, eta bere morroia an itzirik, egun bateko bideari ekín eutsan basamortu-zear. Baso-okaran baten azpira eldu zanean bertan jesarri ta eriotza opa izan eban, esanez.- «Nai-ko dot, Jauna; eroan egizu nire arima, nire gurasoak baiño ohea ez naz-eta.» Etzunfik, baso-okanaren gerizpean loak artu eban. Onetan, Jaunaren Aingeruak ikutirik, auxe esan eutsan: «Jagi zaitetz ta jan egizu.» Begira asi zan, eta bere buru-ondoan autspean erretako ogi bat eta ontzi bete ur ikusi ebazan. Jan eta edan eban, ba, ta barriro be loak artu eban. Etorri yakon bigarren aldiz Jaunaren aingerua, ta ikutirik, esan eutsan: «Jagi zaitetz, eta jan egizu, oraindiño bide iuzea gelditzen yatzu-ta.» Jagi zan, ba, jan eta edan eban; eta janari arek indartuta, berrogei egun eta berrogei gau ibili zan, Horeb Jaungoikoaren mendiraño eldu arte.

Luza/g-aria.—Atara nagizu, Jauna, estualdi onetatik; ikusi nire naigabea ta nekea, ta parkatu egidazuz pekatu guztiak. Zeugana jaso dot biotza, Jauna-Zeugan itxaroten dot, ene Jaungoiko, ez naz lotsatuko; ez naiteia arerioen lotsagarri izan. Zeugan uste ona izan dagienak, ez dira galduko-ta; lotsatu bediz, ostera, uskeri-zaleak.

Barri Ona (Mat., 12, 38-50).—Aldi aretan, idazlari ta pariseotar batzuek Jesus'i erantzun eta esan eutsoen. «Irakasle, Zuk egindako mirari bat ikusi nai geuke.» Jesus'ek erantzun eutsen: «Gizaldi gaitzo ta doillor onek mirari bat eskatzen dau; baiña ez yako ezaugarriarik emongo, Jonas igarlearena baiñe. Jonas arraiñaren sabelean iru egun eta iru gau egon zanez, Gizasemea (Jesuskristo) be iru egun eta iru gauetz lurraren biotzean egongo da. Nínibe'tarrak auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko dira, ta gaitzetsi (gaidu) eglugo dabe. Jonas'ek damu-deia iragarri sutsenean, datmutu egin ziran-eta; ona emen, barriz, Jonas baiño geiago dana. Egoialdeko erregeña auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko da, ta galdu egingo dau: Salomon'en jakituria entzutera lurreko azken -bazarretik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon

baiño geiago dana. Txerren zikiña gizonagantik urteten danean, toki legorreen zear ibilten da atsedean-billa, ta ez dau 'aurkitzen. Orduan, ba-diño: «Urten nintzan nire etxera biurtuko naz.» Eta ara elduta, utsik, garbi ta apaínduta aurkitzen dau. Orduan, ba-doa, ta j'este zaapi txerren bera badño gaiztoagoak beragaz artzen dauz, eta etxean sarturik, bertan gelditzen dira. Ta gizon aren azken-aldia, lenengoa baiño txarragoa da. Oríxe jazoko yako gizajldi gaizto oni be.» Oraindiño gizataldeari berba egiten ziarduala, Jesus'en Ama ta anaiak (lengusuak) etxe-aurrean gel-ditu ziran, Aregaz itz egiteko zain. Norbaitek dirautso: «cAra!, zure aina ta anaiak (lengusuak) or kanpoan Zeu ikusi naiez dozuz.» Baiña Jesus'ek, ori zirautsanari erantzunik, esan eutsan: «Nor dot nik Ama ta nortzuk dodaz se-ide?» Eta ondoan jesarrita egozan ikasleakana eskua zabaldurik, esan eban: «Ona emen nire ama ta senideak. Izan bere, zeruko nire Aitaren naia beteten dauana, orixe dot anai, arreba ta ama.»

Esqintea.—Gutziz maite dodazan zure legeak goratuko dodaz; nire eskuok zeure agindu maiteetara jasoko dodaz.

Opari-otoitza.—Oparigai bakegarriak eskintzen dautsuguz, Jauna: gure pekatuak samurkiro parkatu ta gure biotz alidakorrak Zeuk zuzendu dagizuzan. Amaibagako.

1 Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orrl.

Jaunartzerakaa.—Entzun egizu nire deia; entzun nire otoiaren deadarra, ene Errege ta Jaungoiko orrek!, Zeuri deika diardut-eta, Jauna.

Azken-otoitza.—Artu dogun zure Eukaristia!;, Jauna, garbitu dagizala gure pekatu ezkuak, eta are. rioen maltzurkerietatik zaindu gagizala. Amaibagako.

Erriaren *aitae*.—Otoitz egin daigun.—Makurtu burook Jaungoikoaren aurrean.—Argitu egizu, Jauna, gure adimena zure argiaren ditziratz: egin bear doguna ikusi al daigun, te zuzen dana bete daigun. Amaibagako.

GARIZUMAKO LENENGO ASTEKO EGUENA

3^{gn.} mailla. — Ubelez

Sarrera.—Aintza ta edertasuna Aren aurrean, sari-tutasuna ta aunditasuna Aren etxe santuan—Abestu egioze Jaunari kanta barri bat; abestu Jaunari lur guzti orrek.—Aintza.

Otolta.—Begiratu biotz onez, Jauna, zure erriaren oneraspena; ta euren gorputzak okela-iztez zigtortzen dabezan ezker, egitada onen bidez euren arimak bs indartu daitezala, Amaibagako.

Irakurgaia (Ezekias, 18, 1-9).—Egun areitan, Jaunak berba egin eta auxe esan eustan: Zer da!a-ta" biurtu dozue esakefa ipuin au Israel'go errian, esanez: "Gurasoak mats gordiña jan, eta semeak agin-min?" Neure bizitzarren, diño Jaungoiko Jaunak. ez da ipuin au aurrerantzean esakun izango Israel'en. Arima guztiak, neureak dira: aitarena lez semearena be, neurea dot. Eta pekatu egin dagian arima, axe ilgo da. Eta zuzen, legez eta bidez bizi daiten gizona, mendietan (1) jan ez dagiana, begiak Israel-etxeo sasi-jaungoikoetara jaso ez dagizana, lagun-urkoaren emazterik loitu ez dagiana, illeroko gaitzaz dagoan emakumeagana urreratu ez daitena, inor nai-gabetu ez dagiana: zordunari ordaiña bete ba'dagio, indarrez ezer ostuten ez ba'dau, ogia goss danari emoten ba'dautso, billoisik dagoana jazten ba'dau: iraba-Zí larregiz ezer aurreratzen ez ba'dau, ta aurreratu dau-na baiño geiago jasoten ez ba'dau, gaitzakeritik bere eskua kentzen ba'dau, ta gizonen artean auzi zuzena ebazten ba'dau: nire aginduetan biz: ba'da, ta nire legea zintzo ta egiz bete ba'dagi, auxe da zinlzo, ta bizi izango da: diño Jaun algutzidunak.

Korujkanta.—Zaindu nagizu, Jauna, betsein lez; gorde nagizu zure egoen garizpean. Agertu daitela nire eskubide zuzena zure aurrean, ta ikusi dagiela nire zintzotasuna zure begiak.

'Barri Ona (Mat., 15, 21-28).—Aldi aretan, Jesus andik urten eta Tiro ta Sidon aldeetara baztertu zan. Eta ara!, kanaandar emakume bat alde areitatik eto-

Lj yakon, eta auxe zirautsan deadarka: "Jauna, Da-bid'en Seme ori, erruki zakidaz!; nire alaba deabruak oiñazez darabil." Baiña Jesus'ek ez eutsan berbarik erantzun. Eta Aren ikasleak urreraturik, erreguz zi-
•autsoen: "Bialdu egizu emakuns ori, atzetik oiuka datorkigu-ta." Jesus'ek erantzun eban: "israel-etxeo s^rdi galdukana baiño ez nabe biatdu." Baiña emaluime^{ak}. Aregana urreraturik, gurtu egin eban, esanez: "Jauna, lagun zakidaz!" Jesus'ek erantzun eta dirautso: "Ez da on umeai ogia kendu ta txakurtxoai omotea." Emakumeak esan eutsan: "Bai, Jauna, bai; baiña txakurkumak be euren jabeen maitik jausitako apurrak iaten dabez." Orduan, Jesus'ek erantzun eta 'esan eutsan: «Emakume!, aundia da zure sinismena. Bete bekizu nai dozunez." Eta alabea orduantxe osatu yakon.

Eskeitza.—Jaunaren Aingerua Ari bildur dautsoeren inguruan geldituko da, ta zaindu egingo dauz; begiratu ta ikusi egizue Jauna dan ona!

Opari-otoitza.—Barau osasungarriak ospatzeko eginen diardugun opari onek, Jauna, errazago zeruratu gazgala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: Garizumafcoa, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—^Nik emongo dodan munduaren osasunerako ogia, neure aragia da.

Azken-otoitza.—Zure eskuzabalaren doaiez. Jauna, lagundu gagizuz bizitza onetan, eta betikorako barritzua. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu bu-rok Jaungoikoaren aurrean.—Arren, Jauna!, kristau-erriak ezagutu dagiala sinisten dauana, ta sarritan artzen dauan Eukaristia maitatu dagiala. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAU AROETAKO BARIKUA

2^{gn.} mailla. — Ubelez

Sarrera.—Atara nagizu, Jauna, nira estualditik; ikusi nire naigabea ta nekea, ta parkatu egidazuz pekatu guztiak.—Zeugana jaso dot biotza, Jauna; Zeugan dot itxaropena, ene Jaungoikoa; ez nadilla lotsaz gelditu—Aintza.

(1) Guzurrezko jaungoikoak gurtzen ziran tokiak.

Otoitza.—Erruki zakioz, Jauna, zure erriari; ta zif moroi izan daitela nai dozun ezkeru, indartu egi²u zure laguntza samurraz. Amaibagako.

Irakurgaia (Ezekias, 18, 20-28).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Pekatu egin dagian arima, ii egingo da; semeak ez dau aitaren gaitzakeria eroango, ezta aitak be semsarsna; zintzoaren zuzentasuna bere gain, eta dongearen gaitzakeria be bere gain. Dongea barriz, bere pekatu guztietaz d.aimu ba'da, ta nire agindu guztiak bste ba'dagiz, zuzen eta artez ba'dabi], bene-ibenetan bizi izango da, ta ez da ilgo: egindako' gaitzakeriak ez dodaz geiago gogotan izango; zuzen egin ebanagaitik bizi izango da. Gaitztoaren eriotz^ nai ete-dot, —diño Jaungoiko Jaunak—, eta ez bere bideetatik biurto ta bizi dadin? Baiña zuzena bere zuzentodetik okertu ba'dadi, ta dongeak egin oi dabezan gaitzakeri iguingarri guztiak egin ba'dagiz, bizi izango ete^da? Aurretiko egintza on guztien gogorapenik ez da izango; egindako makurkerian eta egindako pekatuan ilgo da. Jaunaren bidea ez da zuzena, diño-zue. Entzun ba, Israel'go etxe orrek: Nire bidea ez ete -da zuzena?, obeto esateko, ez al dira okerrak zeuenok? Zintzoa zuzentasunetik okertu daitenean eta gaitzakeria egiñik il daitenean, egin dauan gaitzakeriagaitik ilgo da. Dongea, barriz, egindako gaitzakeritik alde egiñik, zuzen dana zintzo egin dagianean, ber. berak indartuko dau bizitzaz bere arima. Gomutan jausi ta egindako gaitzakeri guztietatik urrindu daitenean, bene-benetan bizi izango da, ta ez da ilgo; Jaun alguztidunak diño.

Koru-ka.nta—Salbau egizu, ene Jaungoiko, zurs morroia, Zeugan itxaroten dau-ta. Entzun egizu, Jauna, nire otoa.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabilli, 109 orri.

Barri Ona (Jon., 5, 1-15).—Aldi aretan, Judarren jaiia zala-ta, Jesus Jerusalem'era igo zan. Ardiate-ondoan, eberkeraz Betesde deritxon urtegi bat dago, bost aterpeaz. Jaungoikoaren aingeruak, urtegiara noizean bein jatsirik, urari eragin egiten eutsan, eta eragindako uretan lenen sartzen zana, edozein gaitzea egoa. na be, osatu egiten zan. Areitariko gizon bat ar. eukan bere gaitzak ogeta amazortzi urte areitan. Jesus'ek, gizon a lurrean etzanik ikusirik eta aspaldirik egokera

aretan egoala jakinda, ba-dirautso: «Osatu nai dozu?» Geisoak erantzun eutsan: «Jauna, ura eragiten asten danean urtegiara eroan nagian gizonik ez dot; eta ni ara orduko, ni baiño len besteren bat jatsiten da.» Jesus'ek dirautso: «Jagi zaitez, artu zerraldoi (ogetxo) ori ta zabiltz.» Ta bat-batean osatu zan gizon a; ta zerraldoia arturik, ba-ebillen. Egun a zapatua zan; eta iudarrak osatuari zirautsoen: «Zapatua da; ez yatzu bidezko ogetxoa eroatea.» Arek erantzun eutsen: «Osatu, nauanak esan daust: artu zure zerraldoia ta zabiltz.» Eta itandu eutsoen: «Nor da "zure zerraldoia artu ta zabiltz" esan dautsun gizon ori?» Baiña osatuak ez ekian nor zeitekean; ango gizataldetik Jesus baztertu egin zan-eta. Geroago, Jesus'ek gizona eliza-nagusian aurkituta, esan eutsan: «Entzun: osatu zara; aurrerantzean ez pekatu egin, okerragoren bat etorri ez dakizun.» Joan zan, orduan, gizona, osatu ebana Jesus zala judarrai esatera.

Eskintza.—Jauna goratu, ene arima, ta ez aztu Aren mesede guztiakaz; eta arranoaren antzera gaztetuko zara.

Opard-iotoitza.—Artu, Jauna, eskiñi dautr^aguzan oparigaiok, eta santutu egizuz biotz onez. Amaitoagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Lotsaz eta bildurrez gelditu dira zure arierio guztiak; bat-batean atzeratuko dira lotsaz beterik.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen eragiñaren bidez, Jauna, gure griña txarrak osatu ta gure gurari zuzenak bete beitez. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin dagigun.—Makurtu burook Jaungoikoaren aurrean.—Entzun gagizuz, Jaungoiko errukitsu orrek!, eta erakutsi egiezu gure ari-mai zure graziaren argia. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAU AROETAKO LARUNBATA

2^{gn}. mailla. — *Ubelez*

MEZA LABURRA

Sarrera.—Eldu bedi nire otoitza zure aurrera: entzun, Jauna, nire eskaria.—Jaungoiko Jaun, nire osasuna!: gau ta egun diardut Zeuri deika.—Aintza,

Abadeak, Kyrie esan ondoren, auxe diño:

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitzean (*belav niko apurtxo baten*). Zutundu zaitze, —Begiratu, Jaii' na, samurkiro zure erria, ta urrindu egizu berag'andii zure asarrearen zigorra. Amaibagako.

Irakurgai (Itzaldiak, Deut., 26, 12-19).—Egun areitan, Moises'ek erriari auxe esan eutsan: Zeure arnari (frutu) guztien amarrena emon dagizunean, auxe esango dozu zure Jaungoiko Jaunaren aurrean: "Artu dot nire etxetik zuri eskiñitakoa, ta lebitarrai, arrotzai urnezurtzai ta alargunai emon dautset, Zeuk agindu' zeustanez. Zure agindurik ez dot ausi, ezta zure jēgerik aztu be. Neure Jaun eta Jaungoikoaren deiari ja ~ rraiturik, guztia Zeuk agindu zeustazunez egin dot Begiratu nagizu zure etxe santutik, zeruko zure bizil toki goitik, eta onetsi egizu Israel, zeure erria, te emon zeuskun lur au, esne ta eztia darion lur au, gure asabai (aurretikoai) zin egin zeustenez." Agindu ta lege onsik bete dagizuzala agintzen dautsu gaur zure Jaun eta Jaungoikoak; zure biotz eta gogo guztiz gorde ta bete dagizuzala. Gaur Jauna aukeratu dozu zeure Jaungoikotzat, eta zuk Aren bideetatik ibili. Aren esanak, agindu ta legeak gorde, ta bere gogoko dana egin bear dozu. Ta Jaunak zeu aukeratu zaitu gaur, esan eutsunez, bere erri berezia (apartekoa) izan zaitzen, bere agindu guztiak bete dagizuzan, eta bere gorapen, izen eta aintzarako sortu ebazan erri guztietatik gorrengoena izan zaitzean: zeure Jaun eta Jaungoikoaren evri santua izan zaitzean, agindu eutsunez.

Koru-kanta.—Parkatu, Jauna, gure pekatuak, atzeritarrak esan ez dagien: Nun dago, baiña, onein Jaungoioka? Lagun zakiguz, Jaungoiko gure salbatzaille ori; ta zure izen goragarriagaitik, zaindu gagizuz.

Orain, altara-erdira biurtu ta <Do-minus vobiscum (Jauna zuekaz) diño.

Otoitz.—Begiratu gagizuz, gure zaindari zaran Jaungoiko orrek; eta geure zoritxarren sortak makurtzen gaituan ezker, zure errukia izanik, zure morroitzan biotz nasaiz jardun daigula. Amaibagako.

Irakurgai (S. Paulo'k Tesalonika'koai I'goa.: 5, 14-23).—Anaiok: Biurriak zuzendu egizuez, arren; adoretu biotz-jausiak, jaso makalak, eta jasan egizuez guztiak. Besteri, arren, ez begio iñok txar ordez txarra

•daindu; bai, oster, alkarri ta guztiai on egizue be? pozik égon zaitze beti. Otoi egizue eten бага. Gau-guztietan eskarrona erakutsi egizue- auxe da zuen-^g JesUkristo'gan Jaungoikoaren naia. Ez itzungi (Tmatau) gogo. Igarleak esandakoa ez beztertu. Guz-^a aztertu, ta ona dana artu egizue. Tjrrindu zaitze dozetariko' gaitzetik. Bakearen Jaungoikoak Berak nneti zagiezala guztiz; eta zaren guztia, gogo, arima ta gorputz, orban (loi) bagarik agertu bedi Jesukristo gure Jaunaren etorreran.

tiuzagarria.—Goratu egizue Jauna, gizaki guztiok; o-oratu egizue, erri guztiok. Gubanako Aren errukia agertu da-ta; jaunaren egiak, baiTiz, betiko iraungo dau.

Barri Ona: Jesus'ek, Pedro, 173 orri.

Eskintza.—Ene Jaun eta Jaungoiko Salbatzaille! Gau ta egun diardut Zeuri deika; eldu bedi nire otoi zure aurrera, Jauna.


Onari-otoitea.—Onetsi egizuz gure barauak opari onen'bidē, Jauna: gure lege-betetze onek azalez adierazoten dauana, barruan be egin dagian. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orrl.

Ja.unartzerakoa.-Ene Jaun eta Jaungoiko!, Zeu-»an nago ustetsu; arerio guztiakandik zaindu ta askatu gagizuz.

Azken-otoitza.—Zure Eukaristi santuak, Jaungoiko algotidun, osatu dagizala gure griña okerrak, eta betiko osasuna emon daiskula. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Indartu egizuz zure zintzoak, Jaungoiko, opa daben onespenez; onen bi-artz, ez daitezala iñoz be Zeugandik aldendu, ta zure onegiñakaz poztu daitezala beti. Amaibagako.



GARIZUMAKO BIGARREN IGANDEA

l'go. mailla. — Ubelez

Jaunak agindu eutsen lurrera eltzeko, pozik bizi izan ziran Israeldarrak basamortuan. Bizitza onetako basamortu'ui be, Kristiau-erria, tentaziñoz eta arerioz inguratutik, antsir eta negarrez dabil; baiña, ainbat sutsuago otoiari ekifuV bere bidean a:irrerera doa, Jaunak mendian izan eban argitasunak poztata. Jaunaren argi ditziratsu orrek, zelanbait geroko bizitza. barri-zorrifrontsua azaltzen dausku.

Biblia.—Asiera, Gen.: 39'tik 41'era; 42, l'etik 43, 30'era' 45; 48, l'etik 50, 3. Urteera, Ex.: 2, 1-10; 3, 1-15; 7, 8'tik 11, 10'era.

M E Z A

Sarrera.—Gogoratu egizuz, Jauna, zure ontasun eta betiko erruki guztiak; ez gagiezala arerioak menpeau artu. Israel'en Jaungoiko!, atara gagizuz larrialdi guz. tietatik. — Zeugana jaso dot biotza, Jauna; ene Jaungoikoa, Zeugan dcit itxarapena, ta ez naz lotsatuki'.—Aintza.

Otoitza.—Ezetariko adorerik ez daukagula ikusten dozu, Jaungoikoa: zaindu gagizuz barru ta kanpo; gorputzeko zoritxar guztietan indartsu, ta arimako bururapen (pentzamentu) txarretan garbi iraun daigun. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tesalonika'koai l'goa.; 4, 1-7).—Anaiok: Geuk irakatsirik ba-dakizue Jaungoikoaren gogoko izateko bidea; bide orretatik ibilli zaitez; baiña, JeBukristo gure Jaunaren izenean, arren bai

...en oraindiño aurrerago jotera egizue^ Ba-dakizuez Iesus' Jaunaren izenean emon neutsuezan aginduak. Auxe da Jaungoikoak nai dauana: santu egin zaitezazu, nagikeriak itzi dagizuezala, ta bakoitzak bere gor- iitza zaintzen jakin dagiala, santutasunez eta lotsa 'mez: ez, ostera, naikeri loietan, Jaungoikoaren ezaukerarik ez daben atzerritarrak lez. Alkarren arteko artu-emonstan, ez dagiala iñok befeteri azpiKeririk raiz kalterik egin: guzti ori Jaungoikoak zigortu egiten dau-ta, leri esan eta autortu dautsuedanez. Izan be, gaitu Jaungoikoak loikerietarako deitu, santutasunerako baiño, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Nire biotzeko larrialdiak ugaritu egin dira- atara nagizu, Jauna, nire estualditik. Ikusi nire naigábea ta nekea, ta parkatu egidazuz pekatu guztiak.

Li!zaffarria.~Goratu egizue Jauna, ona da-ta; Jaun errukia betikoa da. Nok iragarriko dauz Jaunaren arr-i earriak? Nok azalduko dauz Aren gorapen guztiak? Xoriontsuak Legea beteten danenak, eta zuzen dana, beti egiten dabenak! Gomuta zaitez gutzaz, Jauna, zure erriari dautsazun maitasunagaitik; zatorkiguz laguntzera.

Barrí Ona (Mat, 17, 1-9).—Aldi aretan, Jesus'ek. pedro, Sanitiago ta onen anai Jon lagun artu, ta mendi goi batera eroan ebazan. Eta irudiz aldatu zan arein aurrean. Aren (Jesus'en) arpegia eguzkia bai- zen ditziratsu biurtu zan, eta Aren jantziak edurra bai- zen zuri, Onetan, Moises eta Elias agertu yakezuan, eta Jesus'egaz izketan (berbetan) ziarduen. Orduan Pedro'k, berba-lagun sarturik, Jesus'i auxe esan eutsan: "Jauna, emen ederto gengokez; Zeuk nai ba'dozu, egin dagiguzan emen iru txabola: bat Zeu- retzat, beste bat Moises'entz&t, eta Elias'entzat beste bat." Oraindiño arela berbetan ziarduala, odei argitsu bat etorri zan, eta estaldu egin ebazan. Baiña odeitik abots batek auxe esan eban: «Auxe da atsegin dodan nire Seme kutuna: Berak diñoana entzun egizue." Ta ikasleak, abots ori entzunda, auzpez jausi ziran, eta guztiz ikaratu ziran. Orduan, Jesus urreratu ya- ken, ikutu ebazan, eta esan eutsen: "Jagi, ta ez izan bildurrik." Areik, barriz, begiak jasorik, Jesus baiño ez eben ikusi, Gero, menditik jatsitean, Jesus'ek agin-

du au emon eutsen: "Ikusi dozuena, iñori bsr esan, Gizaseniea illen artetik biztu arte.»—*Kredo** *^o

Eskintza.—Gogoan ©rabilliko dodaz zure agindu Jauna, biotzez maite dodaz-ta; nire eskuak zeurs aⁱⁿ' du guztiz maitagarrietara jasoko dodaz.

Opari-otoitza.—Ikusi biotz onez, Jauna, aurrffe oparigaiok: gure barruak berotzeko ta gufe arimsri osasunerako izan daitezcan. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Entzun nire deia, entzun nirs karia, ene Errege ta Jaungoiko orrek!, Zeuri dei egitei ciatsut-eta, Jauna.

Azken-otoitza.—Apal-apalik eskatzen da u tsuçu Jaungoiko alguztidun orri: zure Eukaristiaz indaftu' gaituzun ezker, maite dozuzan oitura onez zure men. peko zintzo izan gaitezala. Amaibagako.

GARIZUMAKO BIGARREN ASTEKO ASTELENA

3gn. muilla. — Ubelez

Sarrera.—Zaindu nagizu, Jauna, ta erruki zak>claz bide zuzenean ibili naz-ta; batzarretan Jauna goratuko dot. — Egidazu auzia, Jauna, erru bags ib!-naz-ta; Jaunagan ustea jarririk, ez dot kilikolom egingo.—Aintza.

Otoitza.—Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek gorputzak zigorturik, jan-edariak izten doguzan ezke. ro, zuzenbideari jarraituaz, errutik tje aldendu gaitezala. Amaibagako.

Irakursaia (Daniel, 9, 15-19).— Egun areitan, Da. niel'ek Jaunari erregu au egin eutsan: Jaungoiko' gun Jauna, zure erria Ejipto-lurretik esku indartsuz atarata, gaur arte guztian izen aundiko egin zintzazana: pekatu egin dogu; zure legearen aurka ibili gara, Jauna. Bigxindu bedi, Jauna, zure asarre ta sumiña* Jerusalem zure erri ta zure mendi santuaren aurka, Gure pekatuakaitik eta gure aurretikoen gaiztakeriakaitik, 'Jerusalen eta >zure erria lotsagarri dira ingmu guztietan. Orain, ba, gure Jaungoikoa, entzun zure otseiñaren otoi ta eskariak; eta, zarana zaralako, begiratu samurkiro zeure etxe santu au, utsik dago-ta.

* Sumin = có'lera.

-ijakiartu, ^{e n e} Jaungoiko, zure entzumena, ta entzun; „eai begiok etá ikusi gure ondamendia, ta zure ize-⁶ „dauan uria. Ez dauzugu egiten eskari au geure "abazien indarrez, zeure erruki audian ustea jarrita bain^o. Entzun, Jauna; bigundu zaitez, Jauna; aditu f_a egizu; ene Jaungoiko, zarana zaralako, ez egizu luzatu: zure izena, uri onegaz eta erri onegaz esaten dabe-ta, gure Jaungoiko Jauna!

Koru-kanta.—Izan zakidaz laguntza ta salbatzai-IIP- Jauna, ez egizu luzatu. Naste utsean eta iotsaz Bel'ditu beitez nire biziaren aurka diarduen arerioak.

Luzagarria.—Jauna, ez gagizuz erabilli egindako uekatuen negurriz, ezta gure gaiztakeriai dagokien negurrira zigortu be. Jauna, ez egizuz gogora ekarri eure antxiñako pekatuak; betorkigu, barriz, lenbailen zure errukia, oso beartsu egin gara-ta, (*Belauniko emen.*) Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osanun!, eta zure izen goragarriagaitik, gorde gagizuz, Jauna; parkatu eiguzuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Jon. 8, 21-29).—^Aldi aretan, Jesus'ek judarrai auxe esan eutsen: «Ni ba-noa, ta neure billa ibilikio zaree, ta zeuen pekatuetan ilgo zaree. Ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitekeze." Judarrak iñoen: "Onek bere burua ilgo ete-dau, "ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitekeze diño-ta?". Jesus'ek esan eutsen: "Zuek, bekoak zaree; ni, goikoa naz; zuek, lur onetakoa zaree; Ni ez naz lur onetakoa. Zeuen pekatuetan iigo zareela esan dauzuet: nor nazan sinistu ez ba'dagizue, zeuen pekatuetan ilgo zaree." "Nor zara zu, ba?", zirautsoen. Jesus'ek erantzun eutsen: "Asieratlk zuei esaten diardudana. Zuei buruz, esatekorik eta erabagitekorik asko dot; baiña bialdu nauana (Aita), egizale da; ta Nik Ari entzun neutsana, axe irakasten dauzat gizadiari." Areik, barriz, ez eben ulertu Bere Aitari Jaungoikoa eritzala. Beraz, Jesus'ek esan eutsen: «Gizasemea gora jaso daizueanean (1), orduantxe ezagutuko dozue Ni nor nazan, eta nire buruz ez dodala ezer egiten; neure Aitak irakatsi eustana diñot, besterik ez. Eta bialdu nauana Neugaz dago; ta ez nau bakarrik itzi: Berak atsegin dauana egiten dot nik beti-ta.

(1) Gurutzean jaso.

Eskintza.—'Ulernena emon eustan Jauna goratuko dot; Jauna beti neure bsgien aurrean daukat, neure eskumaldean dago-ta, kilikolorik egin ez dagidan.

Opari-otoitza.—Opari samur eta goragarri onei; jauna, zeure laguntziaren gel 'egin gagizala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garisumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jauna, gure Jauna!: bai gora^a-ri zure izena lur osoan!

Azken-otoitza.—Jaunartze onek, Jauna, garbitu gai. zaia gaiztakeritik, eta zeruko lagunkide egin gagizala" Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Jaramon egiezu, Jaungoiko alguztidun orrek, gure eskariai; ta perkamena- ren itxaropena emoten dauskuzin ezkeru, emon egigu- zuz biotz onez zure «betiko errukiaren ondorena. Amaibagako.

GARIZUMAKO BIGARREN ASTEKO ASTARTM

3'gn. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Nire biotzak auxe esan eutsun: Zeure arpegia billatzen dot, Jauna; zeure arpegia billatzen diardut: ez gorde nigandik arpegi ori. — Jaurn da nire argi ta osasun; noren bildur izan naitekü? —Aintza.

Otoitza.—Jarraitu biotz onez, Jauna, barau sar-tu oneitarako Jaguntza emoten; ta gure eginbearrak Zeu-gandik jakin doguzan ezkeru, zeure graziaz bete da-giguzia. Amaibagako.

Irakurgaia (Erregeen 3'gna.: 17, 8-16).—Egun areitan, Jaunak Elias Tesbitarrari auxe esan eutsan. «Jagi ta zoaz Sidon'go Sarepta'ra, ta egon an: bertako emaku-me alargun bati agindu dautsat jatekoa emon dagitzu-la.» Jagi ta joan zan ba Sarepta'ra. Ta uriko ateatava eldu zanean, abar-batzen ziarduan alargun bat aur-kitu eban; eta ari dei eginik, esan eutsan: «Ekarri egidazu ontzi eten ur apur bat, edan dagidan.» Eta emakumea ura ekartera joan zanean, Elia'ek atzetil: dei egin eutsan: «Ekarri egidazu, mesedez, agokada bat ogi be eskuan.» Arek erantzun eutsan: «Zure Jaun-

no jauna bizi danez, ez daukat ogirik, ikubillean |^{fu} daiteken beste urun izan ezik topin baten, eta nrio apur^{bat} orio-ontzian; abar bi batzen diardut, neu- retzat eta neure semearentzat opilla egiteko, bera jan daigun eta gero iJ gaitezan.» Elias'ek esan eutsan: «Ez bildurtu; zoaa eta egizu esan dozunez. Alan be, neuri egidazu lenen urun apur orregaz ogitxo bat su-zupian ei-reta, eta ekarri egidazu; gero egingo dozu zuretzat eta^{zure} semearentzat. Israel'go Jaungoiko Jaunak^{auxe} diño-ta: «TopnHuruna ez da gutxituko, ezta orio-ontzia agortuko be, Jaunak lur gainera euria bial- rri dagian egunerarte.» Joan zan alarguna, ta egin eban Eias'ek esandakoa. Jan eban El'as'ek, baita ama-se- meak be. Eta arrezkeru ez zan gutxitu urunik topi- ñean, ezta oriorik agortu be orio-ontzian, Elias'en bi- dez Jaunak emondako itza izan zanez.

Koru-kanta.—Itzi egizu Jaunagan zure arazoa, ta Berak janarituko zaitu. Jaunari egin neutsan deadar; entzun eustan deia, ta estutzen nenduen arerioakan- dik onik atara nenduan.

Barri Ona (Mat., 23, 1-12).—Al'di aretan, Jesus'ek gizataldeari ta bere ikasleai auxe esan eutsen: Idaz- lari ta pariseotarrak Moises'en irakastokian jesarri dira. Esan dagitzuen gutzia egizue ta bete egizue, bada; baiña egiten dabenik ez egin: esan bai, ta egin ez, egi- ten dabe-ta. Sorta astun eta ezin-eroan alakoak lotu ta besteen bizkarrean jarten dabez-ta; eurak, barriz, atzamar bataz be ez dautsee zirkiñik eragin nai Egi- ten daben gutzia, gizonak ikusi dagiezan egiten dabe: bekokian narru-zerrenda* zabalak eta soñekoan men- del* aundiak daroez-ta. Aparietan eta sinagogetan le- nengo jarlekuak nai dabez; enparantzetan agurtu da- giezala, ta gizonak Irakasle-izena emon dagaia. Zuek, ostera, ez artu Irakasle-izenik, bat bakarra da zuen Irakas'ea-ta; zuek, barriz, anai zaree .guztiok. Eta ez dei egin lurrean iñori aita (1), bat bakarra da zuen Aita-ta: zerukoa. Irakasle izenik be ez artu, bat ba- karra da zuen Irakaslea-ta. Kristo. Zuetariko nagu- siena, menpeko izan bekizue: goratu daitena, beeratua izango da-ta, beeratu daitena, barriz, goratua.

* Na-rru-zerrendak = franjas de cuero.

* Mendel = flecos.

fil) «Aita» izena, irakasle entzutetsuai eritzen.

Eskintza.—Erruki zakidaz, Jauna, oso errukin zara-ta; garbitu, Jauna, nire gaitakeria.

Opari-otoitza.—Ezkutapen onein bidez baketurik Jauna, osotu egizu guban zure lan donetzai! Uea; bero' nek garbitu gägizala lurreko orbanetatik, eta zeruko' ziornera eroan gägizala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Zure arrigarri guztiak asalduko dodaz; Zeugan pozez beteko naz; zeure izena, abestuko dot, Goiko Jauna.

Azken-otoitza.—Egizu, Jauna, bete dagiguzala beti zure aginduak, Eukaristiaren doai santuak artzeko gai izan gaitzean. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean. — Entzun errukior, Jauna gure eskariak, eta osatu egizuz gure arimako gaitzak" parkamena lortuta, zeure onespenez beti poztu gaitfzan. Amaibagako.

GARIZUMAKO BIGARREN ASTEKO EGUAZTENA

3^{gn}. maila. — Ubelez

Sarrera.—Ez nagizu itxi, ene Jaun eta Jaungoikoat' ez zaitetz nigandik urrindu; etorri zakidaz laguntzera, Jauna, nire indar eta osasun! — jauna, ez e"!-dazu agiraka egin; ez nagizu asarre bizitan aztertu be.—Aintza.

Otoitza.—Beguiratu samurkiro, Jauna, zeure erri au; ta egizu, okela-janariak izteko agintzen dautsazun ezker, grifia kaltegarrietatik be aldendu daitela. Amalbagako.

Irakurgai (Ester, 13, 8-11, 15-17).—Egun areitan, Mardoqueo'k olantxe eg'in eutsan erregu Jaunari: Jauna, Errege Jaun alguztiduna; zeure eskuan dagoz gauza guztiak, eta ez da inor be zure naiari gogor egiri daikeonik, Israel askatzea erabagi ba'dozu. Zeuk egin dozuz zeru-lurrak, baita ortzi (zeru) barruko guztia, be. Danaren jabe zara, ta ez da inor bs zure aundiari sunari gogor egin daikeonik. Orain, ba, Jaun Errege, f'brahan'en Jaungoikoa, erruki zaitetz zeure erriaz. gu-

arerioak gu galdu ta zure ondorea"" ondatu nai 7 uksue-ta. Ez egizu ezetsi Ejipto'tik zeuretzat. aska-nduan zati au. Entzun nire eskaria ta erruki^{tu} kioz zure erriari; poz biurtu egizu gure negarra, *Tvá* garala zeure izena goratu dagigun, Jauna; ta ez o-izuz, g^{tu} Jaungoiko Jaun orrek, goratzen zaitueneh^{as} oak itxi.

Koru-kanta— Zaindu egizu, Jauna, zure erria, ta bedeinkatu zure soloa. Zeuri egiteñ dautsut dei, Jau- ez egidazu ez-entzun eg'in, ene Jaungoiko: illobira iatsiten diranen antzeko izan ez nadin.

Luzag;arria: Jauna, ez gägizuz erabilli, 125 orri.

Barri Ona (Mat., 20, 17-28).—Aldi aretan, Jesus jerusalen'era igotean, amabi ikasleak Beragana artu ebazan, eta esan eutsen; "Begira: Jerusalen'era g'az ta Gizasemea abade-nagusi ta lege-irakasleen eskuetan jarriko dabe; eriotzarako galduko dabe, ta atzeritarren eskuetan itziko dabe, iraindu, zigorkadaz asfjndu ta gurutzean il dag'ien; baiña irugarren egunean biztu egingo da." Aretan, Zebedeo'ren semeen ama bere semeakaz urreratu yakon, eta lurrean auzpezturik, zerbait eskatzekoa egin eutsan. Jesus'ek esan eutsan: «Zer nai dozu?» Arek erantzun eutsan: «Nire setne biok zure Erreiñuan, bata zure eskumaldean eta bestea zure ezkerrekaldean jesarri daitezala esan egizu." Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eban: "Ez dakizue zer eskatzen dozen. Nik edango dodan ontzikoa zuek edan daikezue?" Arek dirautsoe: "Bai, ba-daikegu!" Jesus'ek esan eutsen: "Nire ontzikoa, bai, edanjo dozue; baiña nire eskumakaldean naiz ezkerrekallean jarrerazoteko eskubiderik ez dot nik: nire Aitak atondu dauzanentzat izango dira toki areik." Beste amarrak, ori entzunik, anai bien aurka asarratu egin ziran. Baiña Jesus'ek Beragana deiturik, esan eutsen: "Ba-dakizue atzerriko buruzagiak erria euren menpean dabela, ta aundikiak errien nausikeria erabilten dabela. Ez bedi orrela izan zuen artean, bestetara baiño: zuen artean aundiena izan nai dagiana, zuenmenpeko izan beite; ta zuen artean buru izan nai dagiana, zuen menpeko izan beite. Gizasemea be, ez zan etorri oteindu dagien, morroi izatera ta bere bizia askoren ordain-saritzat emotera baiño.

Eskintza.—Zeugana jaso dot biotza, Jauna: zeuga itxaroten dot, ene Jaungoiko, ez naz Jotsatuko. Ez na^a "tela arerioen lotsagarri izan; zeugan uste ona i-^{IA}ñ dagienak, ez dira galduko-ta.

Opari-otoitza.—Begiratu errukior, Jauna, eskintaei dautsuguzan oparigaioak; eta aflu-emon gurgari oncin b^tartezt, ausi egizuz gure pekatuen lokarriak. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orrl.

Jaunartzerakoa.—Zuzena da Jauna, ta zintzotasuna maite dau; Aren arpegiak zuzentasuna maite dau

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi onek, Jauna betiko osasunerako irabazia geitu daiskula. Amaiba-gako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Errutoage dana barriztu ta maite dozun Jaungoikoa! Zuzendu zeuganuhtz zu^{re} menpekoen biotzak: zure Gogoaren garraz izioturik, sinismenean iraunkor eta egintzetan indartsu izan tñaitzezan. Amaibagako.

GAKIZUMAKO BIGARREN ASTEKO EGUENA

3^{gn}. mallla. — Ubelez

Sarrera.—Zatoz, Jaungoikoa, niri laguntzera; zator-kidaz bizkor, Jauna, laguntza emotera; larri ta lotsaz bete toediz ni I1 gura naberen arerioak. — Atzeratu bédiz lotsaz beterik ni galdu nai naberenak.—Aintza.

Otoitza.—Emon egizuz, Jauna, zure graziaren laguntza: barau ta otoiari bear dan lez ekiñik, arimako ta gorputzeko arerioakandik askatu gaitezcan. Amaibagako.

Iraknrgaia (Jeremias, 17, 5-10).—Auxe diño Jaunak: Madarikatua gizonagan ustea jarten dauana, ta bere indarra gorputzean jarten dauana, ta biotza Jaunagandik urrin daukana; basamortuan orrea* lez izango da-ta; ona dana etorri daitenean, ez dau ikusiko, basamortu legorrean, lur gazitan eta bizi-eziñean egongo da-ta. Zorionsu Jaunagan uste one daukana, ta beré itxaropena Jaunagan ezarri dauan gizona. Ur-ondoan

„j ta bere zusterre ur bizietera zabaltzen dauzan Ingatzaren antzeko izango da; ez dau beroaren bildu-wik izango. Bere orria beti orlegi (eze) izango da; le-eortean ardurarik ez, eta frutu-ekarteari ifioiz be ez dautso itxiko. Biotz biurri ta guzurrezkoa dauko gizonak. Nok ezagutu? Neu naz biotzak ikusi ta barrenak aztertzen dodazan Jauna; bakoitzari bere egiñen eta lñinen negurriz emoten dautsat. Jaun alguztidunak diño au.

Koru-kanta. ^Parkatu, Jauna, gure pekatuak, atzerritarrak esan ez dagien: Nun da, baiña, euren jaungoikoa? Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osasun orⁱ!; ta zure izen goragarriagaitik, Jauna, askatu ga-gizuz.

Barri Ona (Luk., 16, 19-31).—Aldi aretan, Jesus'ek pariseotarrak auxe esan eutsen: Gizon aberats bat zan, purpura ta liñu guriz jantzi ta egunero jan-edanaldi ederrak egiten ebazana. Eta Lazaro izeneko eskeko bat be ba-zan, aberats aren ate-aurrean zauriz beterik etzunda egoten zana. Aberatsaren mai-ganetik jaustsn ziran ogi-apurrez asetu (toete). nai eban, eta iñoek ez eutsazan emoten; baiña txakurrak etorkiozan eta zauriak miatzkatzen eutsozezan. Eskekoa il zan. eta aingeruák Abraham'en altzora eroan eben. Aberatsa be ii zan, eta su-lezerá .(intpernura) jaurti eben. Ana oiñazetan egoala, begiak jasota, urrunean Abraham ikusi eban, eta Lazaro aren altzoan. Eta deadarrez esan eutsan: "Aita Abraham!, erruki zakidaz, ta Lazaro bialdu egidazu, bere atzamar-ertza uretan bustia, nire miña oztu dagian, sugar oneitan kiskaltzen nago-ta." Baiña Abraham'ek erantzun eutsan: "Seme, gogoratu sgizu zure biziñtan ondasunak artu zenduzala; Lazaro'k, barriz, atsekatoeak. Orain, ostera, bera atsegiñetan dago, ta zu oiñazetan. Gaiñera, gure ta zuen bitartean, leze aundi bat dago, ta nai izan ezkeru be, iñor emendik zuekana ezin joan daiteke, ezta ortik ona igaro be.» Eta besteak esan eutsan: «Arren, aita!; Lazaro ori beinikHbein nire aítaren etxera bialdu egizu, bost anai dodaz-ta: emengo esan dagien, eurak be oiñaze-toki onetara etorri ez daitezcan." Abraham'ek erantzun eutsan: "Ba-datoez Moises eta Igarleak: entzun b'egiez." Arek esan eutsan: "Ez, aita Abraham!; iidakoren bat arekana joan ba'dadi, garbai (damu)

* Orre = tamarisco.

izango dira-ta." Abraham'ek erentzun eutsan: "Moises' ta Igarleai jaramonik egiten ez ba'dautse, norbait in eJ artetik biztu ba'ledi be, ez leukioe sinistuko."

Eskintza.—Moises'ek, bere Jaungoiko Jaunaren au rrean erregu egiñik, auxe esan eban: Zegaitik zara asarre, Jauna, zure erriaren aurka? Bigundu sumin ori; gogoratu egizuz Abraham, Isaak eta Jakob, esnea ta eztiá darion lurra emongo zeutsela zin egin zeutsen -eta. Ta Jauna bigundu egin zan, eta ez eutsan bere erriari esandako zigorrík bialdu.

Opari-otoitza.—Santutu gageiz, Jauna, aurreko, opariáz batera zure izenari eskintzen dautsuguzan barrauak: gure lege-betetze onek azalez adierazoten dauana, barruan be egin daiskun. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Nire aragia jan eta nire odola edaten dauana, Neugan dago ta ni aregan, diño Jaunak.

Azken-otoitza.—Ez gaizala itzi, Jauna, zure graziak' zure menpeko zintzo egin gageizala, ta zure lagunteá beti emon daiskula. Amaibagako.

Erriaren aide.—Otoitz egin daigun—Makurtu bu ruok Jaungoikoaren aurrean.—Ondo artu egizuz, Jauna, zure menpekoak, eta emon egiézu eskatzen d'aban betiko errukia: Zu egilletzat eta zuzendarizat zaituela pozten diran ezkeru, batua geitu ta geitua iraunderazo daguezun. Amaibagako.

GARIZUMAKO BIGARREN ASTEKO BARIKEA

3^{gn}. maila. — Ubelez

Sarrera—Ni, barriz, zintzo agertu naitela zure arpegia ikustera; ta zure aintza agertu daitenean, bete naitela Zeu ikusiz.—Entzun, Jauna, nire erregu zuzena; entzun nire eskaria.—Aintza.

Otoitza,—Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek!, barau santuaz garbiturik, datorkiguzan jaietarako arima garbiz eldu gaitzezala. Amaibagako.

Irakurgaia (Asiera, Gen., 37, 6-22).—Egun areitan, Jose'k bere anaiái auxe esan eutsen: «Entzun egizue ikusi dodan amesa. Soloan eskutak lotzen giarduaia,

fire eskuta gora jagi ta zutik egoan; zuenak, osterá, jnguruan, nireari agur egiten, lez egozan.» Anaiak erantzun eutsen: «Gure errege izango ete-zara? Ala, ^{zure} menpeko?» Ameseta eta izketa oneik, barriz, bekaitza Xikusi-eziña) ta asarre sortu ebezan. Beste ames bat be izan eban, eta anaiái azaldu eutsen, esanaz: «Eguzkia ta ilJargia ta amaika izar neure aurrean auzipezten lez ikusi dodaz amesetan.» Eta bere aitari ta anaiái adierazo eutsenean, aitak asarre egin eutsan, esanez: «Zer esan nai úau ikusi dozun ames orrek?» Oregaitik, anaiak ikusi-eziña eutsen; aitak, barriz, isillean ausnartzen eban jazoa. Bein, bere anaiak Siken'en aitaren artaldeak zaintzen ziarduela, Israel'ek esan eutsan: «Zure anaiak ardizaín dagoz Siken'en; zatoz, eurakana bialdu nai zaitut-eta.» Arek (Jose'k) erantzun eutsan: «Gertu naukazu.» Aitak dirautso: «Zoz, ba, ta ikusi egizu zure anaiak eta abereak (ganauak) ondo dagozan, eta iragarri egidazu jazo daitena.» Beraz, Ebron'go ibarretik urten eta Siken'era eldu zan; eta basoan ara-ona aurkitu eban gizon batek zeren billa zeitekean itandu eutsan. Eta arek (Jose'k) erantzun eutsan: «Neure anaien billa nabil; esan egidazu artaldeak nun larratzen dabezan.» Gizonak erantzun eutsan: «Urrindu ziran emendik, eta auxe entzun neutsen: Goazen Dotain'era.» Ibilli zan, ba, Jose bere anaien atzetik, eta Dotain'en urkitu eban. Arek, urriñera ikusi ebenean, urreratu yakene-koxe, il egin ebela asmau eban. Eta alkarri zirautesoen: «Orra, or dator ameslaria; zatoze, il eta jaurti daigun ur-leza zar orretara, ta auxe esango dogu: Pisti anker batek iruntsi dau; ta orduan ikusiko dogu bere amesak onik ekarri deutsoen.» Erruben'ek, au entzutean, arein eskuetatik askatzeko alegiñak egiñik, auxe iñoan: «Bizia ez egiozue kendu, ezta odolik isuri be: bota egizue bakartadean dagoan ur-leza onetara; gorde garbi eskuok.» Jose arein eskuetatik askatzearren eta aitari biurtzearren iñoan au.

Koru-kanta.—Larrialdian Jaunari egin neutsan dei, eta entzun eustan. Jauna, zaind'u nagizu ezpan guzuritik eta miin maltzurretik.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabilli, 125 orri.

- Barri Ona (Mat., 21, 33-46).—Aldi aretan, Jesus'ek ipuin au esan eutsen judar-taldeari ta abade nagusiái:

«Etxagun batek masti bat iandu eban, esparruz in» ratu, bertan dolare* bat egin eta torre bat jaso eba. Gero, nekazari batzui alogeran* itzi eutsen, eta ur? niera joan zan luzaroko. Matsaroa* eldu zanean, nek *Ļ* zariakana morroiak bialdu ebazan, matsaren ifaba *¹ jaso egien. Baiña nekazariak, morroiak oraturik, au zai * rito, ori il, eta besteari arrika egin eutsoen. Bafriro bp beste morroi batzuk bialdu eutsezan, lengoak hot*ⁱ geiago; barna guztiak bardm egm eutsen. Azkenez, b̄~ re seme kutuna bialdu eutsen, esanez: Nire semeari lotsa izango dautsoe. Baiña nekazariak, semea ikustean, alkarri esan eutsoen: «Auxe da oiñordekoa- z_a toze, il dagigun, eta orren ogasuna geureztat izáneo da.» Eta ari eskuak ezarririk, mastitik jaurti ta n egin eben. Beraz, masti-jabea etorri daitenean, W. egingo ete-dautse nekazari arei? Batzuek dirau'tsoe' «Gaiytoak gogor galduko dauz, eta bere mastiaren ir_al bazia sasoz ordaindu dagioen beste nekazari batzui alogeran emongo dautse.» Jesus'ek dirautse, «Ez ai dozue bein be idaztietan irakurri: «Etxegilleaic baztar. tutako arria bera egin da giltzarri? Jaunak egindakoa da ori, ta arrigarria da gure begietan.» Orregaitik, ba -dirautsuet: Jaungoikoaren Erreñua zuei kendu' ta bere arnaria (frutua) ekarri dagian erriari emongo yako. Ta arri onen gaiñera jausi daiten edonor, zatitu egingo da; ta arri au gaiñera jausi dak'ona, austuta geldituko da.» Abade-nagusiak eta parisotarrak aren ipuñiak entzun ebezanean, eurentzat esan ebazala igarri eben. Eta lotu egin nai eben, baiña erriaren bildur ziran, Igarletzat euken-eta.

Esquintza.—Jauna, zatorkidaz laguntzera; larri ta lotsaz bete bezid niri bazia kendu nai daustenak. Jauna, zatorkidaz laguntzera.

Opari-otoitza.—Opari au iraunkor izan dakigula, Jaungoikoa, ta indartu dadilla guban bere eragiña. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Zeuk gordeko ta zainduko gaituzu beti, Jauna, gizaldi onetatik.

* Dolare = lagar. * Alogeran = errentan. » Matsarora = mats-sasoia.

Azken-otoitza.—Betiko osasuneko ezaugarria artu >_nonn ezkeru, ara eltzeko grazia emon eiguzu, Jauna. uO&¹ Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Taungoikoaren aurrean.—Emon egiozu zure erriari, Jaungoikoa. gorpuz-arimako osasuna: egitada oriak egiñik, zue' iaguntzaren gei izan daiten beti. Amaibagako.

GAKIZUMAKO BIGARREN ASTEKO LARUNBATA

3^ogn. maila. — Ubelez

Sarrera.—Jaunaren lege jatorra, arimen atsegin da; jaunaren itza zintzoa da, te umetxoai irakasten dau'se. — Zeruak Jaungoikoaren aintza iragarten dabe, ta izartegiak Aren eskuen egintzak.—Aintza.

Otoitza.—Emon egiezu, Jauna, gure barauai eragin osasungarria: aragi-zigortze onek gure arimak indartu dagizan. Amaibagako.

Irakurgai (Asiera, Gen., 27, 6-40).—Egun areitan, Rebek'ak bere seme Jakob'i auxe esan eutsan: «Esau'k zure anaiagaz izketan ziarduala, auxe entzun dautsat zure aitari: Ekarrri egidazu zerbait zeure eizatik* eta atondu egidazu, jan dagidan eta onetsi zagidazan Jaunaren aurrean, il baiño len. Beraz, ene seme^e egizu r.ire esana: zoaz, eta ekarrri egidazuz artaldetik antxume bi oberenak, arekaz zure aitari atsegin yakon janaria egin dagiodan: zeuk eroanda gero jan dagianean, bedeinkatu zagizan ii baiño ien.» Semeak erantzun eutsan: «Ba-da'kizu nire anai Esau uleteu dana; ni, barriz, ulebagakoa. Nire aitak ikutu ba'nengi ta ezagutu, bildur naz ziria sartu nai izan dautsadala uste dagian; eta orduan, onspen orde, madarikatu egingo nenduke.» Amak dirautso: «Neure gaiñera betor, ene seme, madarikatze ori; entzun egidazu dirautsudana, ta zoaz esandakoa ekartera.» Joan zan, ba, ta ekarrri eban, eta amari emon eutsan. Atondu be bai onek jatekoa, aitari atsegin yakon eraz. Gero, etxean eukazan Jisau'ren soiñ'ekorik ederrenak jantzi eutsazan Jakob'i; eta sama-ingurua auntz-narruz estaldu eutsan, eta jateko gozo ta egositako ogiak emon eutsazan. Aitari eroanik, Jakob'ek esan eutsan: "Ene aita!" Isak'ek erantzun

* Eiza = caza.

ents'an: "Entzuten dot. Nor zaitut zu, ene seme?" x_a Jakob'ek esan eutsan: "Esau zure len-semea nozu ni-agindu zeustanez egin dot; jagi, jesarri ta jan $eg_{12}u$ nire eizetik, bedeinkatu nagizun." Barririo be Isaak'ek bere semeari: "Zelan aurkitu al izan dozu orren i_{as} ter, ene seme?" Arek erantzun eutsan: "Jaungoikoa, ren naia izan da gura nebana onen bizkor aurean jartea." Isaak'ek esan eutsan: "Urreratu zakidaz iku' tu zagidazan, ene seme, ta zu nire seme Esau zarau ala ez jakin dagidan." Urreratu zan Jakob aitagana ta Isaak'ek ikutu ebanean, esan eban: "Abotsa, bai Jakob'en abotsa da; baiña eskuak, Esau'ren eskuak dira." Eta ez eban ezagutu, esku uletsu areik anai nagusiaren antza eben-eta. Badeinkatzerakoan, oindino be itandu eutsan: «Zeu zara nire seme Esau?» «Bni neu naz" —erantzun eutsan—. Eta aitak dirautso: "Ekarri egidazu, ene seme, zure eiza-janaria, bedeinkatu zagidazan." Urreratu eutsan, ba, ta jan ebanean, ardaoa be eskiñi eutsan; eta edan ondoren, ba-dirautso: «Rdu ona, ene seme, ta mosu bat emon egidazu.» Urreraturik, laztan bat emon eutsan; ta bere soifnekoai zerien usain gozoa artzean, aitak onetsiaz esan eutsan: «Nire semearen usaiña, Jaunak bedeinkata eban lora-baratzaren antzekoa da. Emon dagizuzala. eurrez Jaungoikoak zeruko iruntza ta lurreko ekarriak, baita gari ta ardaoa ugari be. Morroi izan bekizuz erriak, eta auzpaztu beitez zure aurean; zeure anaien jaun izan zaitez, eta makurtu bekizuz zure amaren semeak 'oe. Inok madarikatu ba'zagiz, madarikatua izan bedi, ta onetsia bedeinkatu zagizana," Egin-eginean be, Isaak isildu ta Jakob andik urten zanean, Esau eldu zan; eta eiza-janariak egosirik, aitari eskiñi eutsazan, esanez: «Jagi zaitez, aita, ta jan egizu zure seméTen eizetik, onetsi nagizun.» Isaak'ek esan eutsar.: "Zu nor zaitut, ba?" Arek erantzun eutsan: «Esau naz ni, zure len-semea.» Guztiz arrituta gelditu zan Isaak, sinistu al daiteken baiño geiago., ta esan eban: "Nor izan da, ba, oraintxe eiza ekarri daustana? Zu etorri baiño len jan dot ia guztia. Onetsi dot, eta onetsia izango da." Esau'k aitaren berbok. entzun ebazanean, garrazika ta negarrez, esan eutsan: «Bedeinkatu nagizu ni be, aita.» Isaak'ek erantzun eutsan: "Maltzurkeriz etorri yat zure anaita, ta berak eroan dau zure onspena." Esau'k diñotso: "Egiz de-

...*oe* jakob, bigarrenez eskua artu daust-eta: len-se-
"ptzakoa* kendu eustan lentxoago, ta orain neure
me
espena ostu daust." Eta aitari barririo esai eutsan:
P? al dozu gorde nireztat onspenik?" Isaak'ek eran-
f'un eutsari: "Bera egin dot zure jaun, eta aren anai
fiziatik bere morroi; gari ta ardaoa be beretzat; eta
ir-au'k: «Opespen bat baiño ez ete-daukazu, ene aita?
nedeinkatu nagizu ni be, arren!" Eta negar-zotinka
kiola ikusirik, Isaak'ek, biotz-ikututa, esan eutsan:
"Ir ur guria" ta zeruko iruntza izango dira zure onspen-
pen."

Koru-kanta.—Ona da Jauna goratzea ta zure izena aatortzea, Goiko Jauna. Goizean zure errukia ta gabez zure egia iragarteko.

Barririo Ona (Luk., 15, 11-32).—Aldi aretan, Jesus'ek pariseotar eta idalzariari ipuin au esan eutsen: Gizon batek seme bi ebazan. Eta areitariko gazteanak bere aitari esan eutsan: «Aita, emon egidazu ondasunetatik niri dagokidan zatia.» Ta aitak banandu egin eutsazan ondasunak. Egun batzuen barruan, seme gazteena, guztia baturik, urriñeko lurraldeetara joan zan; eta an, nasaikerian bizi izanik, bere ondasun guztiak ondatu ebazan. Baiña guztia eralgi ebanean, gosete ikaragarria sortu zan bazterraldi areitan, eta bear gorritan aurkitu zan Joan zan, ba, ta alderdi aretako erriar baten morroi jarri zan: onek, bere larretara bialdu eban txarri-zain. Txarriak jaten ebezan lekaz sabelá bete nai eban, baiña inok be ez eutsazan emoten. Eta bere senera biurturik, esan eban: «Amaika morroi nire aitaren etxean ogia ba-dauke ukari!; ni, barriz, emen goseak ilten nago. Jagi ta nire aitagana joango naz, eta esango dausat: Aita, zeruaren eta zure aurka pekatu egin neban; ez naz arrezkero zure seme-izena eroateko duin; zure morroiatariko bat legezt artu nagizu, arren.» Beraz, jagi ta aitagana joan zan. Bera oraindiño urrun egoala, bere aitak ikusi eban, eta errukiz beterik, semeagana urten zan arin, eta besarkaturik, laztandu egin eban. Semeak esan eutsan: «Aita, zeruaren eta zure aurka pekatu egin neban; ez naz aurrerantzean zure seme-izena eroateko duin.» Baiña aitak bere morroiari isan eutsen: «Ekarri egizue bizkor soifnekorik onena,

ta jantzi egiozue; erestuna eskuan eta oiñetakoak ñetan ipiñi egiozue; zekor gizendua ekarrita, il egiau" jan eta jai aundi bat pozik egin daigun. nire seme nt' ilda egoan eta barriro biztu, galduta egoan eta aurki tua izan da-ta.» Eta jai-bazkaria asi zan. BitarteaiT seme nagusia soloan zan; eta etxerakoan etxe-ondorá urreratu zanean, soñu ta dantzak entzun ebazan- eta morroietariko bati dei egiñik, guzti a zer izan zeitekean itandu eutsan. Arek erantzun eutsan: «Zure anaia eto rri da, ta zure aitak zekor gizendua il dau, semea bn" rriro onik eta osasunez etxeratu yako-ta.» Orduan, asarreturik, ez eban sartu nai; bere aitak, barriz, urtenik" erreguka asi yakon. Baiña aitari erantzun eta esaii eutsan: «Ainbeste urtetan zure morroi naz; egunco zure agindurik ez dot ausi; alan be, arkume bat çz daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz janaldi bat egiteko. Ta emakiume galduakaz ogasunak eralgi dau-tsuzan seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizendua. il dozu.» Baiña aitak esan eutean: «Seme, zu beti neugaz zagoz, ta nire gauza guztiak zeureak dira. Ego-ki zan, orraitino, oraingo poza ta jaia ospatzea: zure anai au, ilda egonda, barriro bizi da-ta, eta galdua izanik, aurkitua izan da-ta.»

Eskintza.—Argitu egidazuz begiak, eriotz-loak artu ez nagian, eta nire arericak esan ez dagien: A baiño geiago izan naz!


Opari-otoitza. — Opari onezaz bigunduta, Jauna, egizu: geure pekatuen parkamena eskatzen dogun ez-keru, besteren errurik ez dakigula gaiñera etorri. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garisumakoa*, 452 orrl.

Jaunartzerakoa.—Egoki yatzu, seme, poztutea: zure anaia, ilda egonda, barriro bizi da-ta; galdua izanik, aurkitua izan da-ta.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi au, Jauna, sartu dadilla gure biotzen barreneraiño, ta bere indar-rraren lagunkide egin gagingala. Amaibagako.

Eriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean. — Zure betiko errukiz zaindu egizu, Jauna, zure sendi (famili) au, te bere itxarope-na zeruko grazian bakarrik dauan ezkeru, zeruko la-guntzaz indartu daitela. Amaibagako.



GARIZUMAKO IRUGARREN IGANDEA

l'go. mallta. — Ubelez

Arerio askoz inguraturik bizi gara mundu onetan. Augaitik, zur ibilli bear dogu, beti errñai ta otoi egiñez. Jaunari erregu egin ezkeru, emongo dausku bear dogun laguntasuna, arriskuak alboratzeko ta arerioak azjriratzeko. Deabrua arimen kontra, baiña Jesukristo aren buru-zapal-tzaille (irakurri Barri Onaren zatia). Jo daigun Jesukristo'gana geure larraldietan, ta ez dogu ezetariko bildurrik izango arerioen aurrean.

Biblia.—Urteera, Ex.: 12, 1-39; 13, 3-16; 14, 5'etik 15, 19'ra-16, 2'tik 17, 13'ra; 19; 20, 1-21; 24; 31, 18'tik 32, 35'eia; 33, 18'tik 34, 9'ra.

M E Z A

Sarrera.—Nire begiak beti Jaunagana: Berak atarako dauz nire oiñak saretik. Begiratu nagizu ta erruki zakidaz, bakarrik eta beartsu nago-ta. — Zeugana ja'no dot biotza, Jauna; ene Jaungoiko, zeugan itxaroten dot, ez naz lotsaduko.—Aintza.

Otoitza.—Onartu egizuz, Jaungoiko alguztidun orrek, apal-apal dagozanen gurariak; eta gu zaintzeko, Juzatu egizu zure eskuma indartsua. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Efeso'koai, 5, 1-10).—Anaiok: Jaungoikoaren, antzeko izan zaitezte, seme laztanai dagokienez; eta ibuli zaitezte maitasun-bidean, Kristo'k maite genduzanez, eta bere burua gugaitik usain gozoko oparizat Jaungoikoari eskiñi eutsanez. Beraz, santuai dagokienez, ez bedi zuen artean 'izunker.rik

aitatu be egin, ez loikeririk, ez diru-miñik; ez berba motzik, ez tentelkeririk, ez itz labanik, ez beste ga^{no}-rabagekeririk ez egizue esan; bai, oster, esker oneko itzak. Jakin egizue ondo, inungo lizunek, ez zantarrek, ez dirutzaleek, au da, sasi-jaungoikozaleek, ez dabela' artu-emonik izango Kristo'ren eta Jaungoikoaren errian. Ez zagiezala inok berba leunez atzipetu: onelakoaitik etorten da Jáungoikoaren asareea sinisgorren gaiñera. Ez zaitze egin arein lagunkide. Len illun zintzazen; orain, barriz, argi zaree Jaunagan. Ibiñi zaitze argi-semé lez: on eta zuzen eta egia dan gutzia, argiaren frutua da-ta.

Kom-kanta.—Jagi zaitetz, Jauna; ez daitela gizona gaiñera igo; zeure aurrean ebatziak izan bediz erriak. Nire arerioak atzeraka egin dabe; jausi ta galdu egin dira zure aurrean.

Luzagarria.—Zeruan zagozan Orregana jaso nebanzan begiak. Morroien begiak ugazaben eskuetara lea, eta mirabean begiak etxeko-andrearen eskuetara lez; orrelaxe dagoz gure begiak be Jaungoikoari begira. gutzaz errukitu daiten arte. Erruki zakiguz, Jauna, erruki zakiguz.

Barri Ona (Luk., 11, 14-28).—Aldi aretan, Jesus'ek txerren mutu bat jaurtiten ziarduan. Eta txerrena jaurti ebanean, mutuak berba egín eban; eta gizataldeak arritu egin ziran. Baiña areitariko batzuek auxe inoen: «Beelzebul txerren-buruaren indarrez jaurtiten dauz deabruak.» Jesus'ek, arein gogapenak igaririk, esan eutsen: «Bere aurka bananduta egon daiten erreñua, ondatu egingo da, ta etxea etxearen gaiñera jausiko da. Beraz, Satanasek bere burdaren aurka jardun ba'dagi, zelan iraungo dau zutik aren erreñuak?, Beelzebul'en indarrez jaurtiten dodazala deabruak diñozue-ta? Nik txerrenak Beelzebul'en indarrez jaurtiten ba'dodaz, barriz, zuen semeak noren indarrez jaurtiten dabez? Orregaitik, arexeik izango dira zuen epaille. Baiña txerrenak Jaungoikoaren atzamarrak jaurtiten ba'dodaz, benetan Jaungoikoaren erreñua eldu yatzue. Bere etxearen ateurrea gizon azkar eta iskilludun batek zaindu dagianean, daukazan guztiak ondo gordeta dagoz. Baiña gizon a baiño gogorragoren batek, etorrira, azpiratu ba'dagi, iskilluak (armak) kendu egingo dautsaz —iskilluetan

arek bere uste osoa—, ta aren ondasunak saka-^{et>a} atu egingo dauz. Nigaz ez dagoana, nire aurka ^{or}Ir,- ta Nigaz batzen ez dauanak, sakabanatzen diari Txerren zikiña gizonagandik urteten danean, toki i óorretan zear ibilten da atsedena-billa, ta ez dau aurHtzen; orduan, ba-diño: Urten nintzan nire etxera hiurtuko naz. Ta ara elduta, garbi ta a.painduta aurk'tzen dau. Orduan, ba-doa, ta beste zazpi deabru bera haiño gaiztoagoak beragaz artzen dauz, ta etxean sarmrik bertan gelditzen dira; ta gizon aren azken-aldia ipnengoa baiño txarragoa da.» Jesus'ek olan berba edten ziarduala, gizataldeko emakume batek deadarka esan eutsan: «Zoriontsua ekarri zenduzan sabela, ta ^{ar}tu zenduan bularra!» Baiña Jesus'ek erantzun eutsan: «Zoriontsuagoak benetan, Jaungoikoaren itza eñtzun eta beteten dabenak!»— *Kredo*.

Eskeitza.—Jaungoikoaren aginditek zuzenak dira, ta biotzaren pozgarri; Aren erabagiak ezti-orrazia baiño gozago; orregaitik zure morroi onek bete egiten dauz.

Opari-otoitza.—Meza onek, Jauna, garbitu dagizala gure pekatuak eta santutu zure menpekoon gorputz-arimak, opari au bear dan lez egin daigun. Amaiba-

Kanon-aurrea: *Garisumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa. — Txoriak aurkitu dau etxea, ta usapalak (durdurak) bere abia, umeak azteko: zeure altarak dira, Jaun indartsu, ene ererge ta Jaungoiko! Zoriontsuak sure etxean bizi diranak! Beti ta beti goratuko zaitue!

Azken-otoitza.—Eukaristi onen erdikide* egin gaituzunok, atara gagizuz, Jauna, pekatu ta arrisku guztietatik. Amaibagako.

GAKIZUMAKO IRUGARREN ASTEKO ASTELENA

3^{gn}. mailla. — *Ubelez*

Sarrera.—Jaungoikoaren itza goratuko d'ot; Jaungoikoaren agindua autortuko dot: Jaungoikoagan izangó dot itxarapena, ta ez riaz bildurtuko: zer egin daike gizonak? — Eurriko. zakidaz., ene Jaungoiko gizo-

* Erdikide = partícipe.

nak zapaldu egin nau-ta; egun guztian nire aurka bu rrukan. atsekabetu egin nau. — Aintza.

Otoitza.—Isuri egizu, Jauna, gure biotzetara zure grazia: okela-janariak izten doguzan lez, geure zentMif nak be kaltegarri yakuzan larkerietatik urrindu cla" guzan. Amaibagako.

Irakurgaia (Erregeen 4'gna.: 5, 1-15).—Egun arei tan, Naaman, Siria'ko erregearen gudari-burua, be'e ugazabaren aurrean aundi ta begiko zan; beronen bl-dez askatu eban Jaunak Siria-ta. Gizon au. indartsu ta aberatsa zan, baiña legenarduna. Onetan, Siria'tik iapur batzuk urten ziran, eta Israel-erriitik neska ga/. te bat eroan eben lotuta. Neskatiilla au, Naaman'en. emaztearen mirabe zan, eta bere etxekandrearri esan. euitsan: "Nire ugazaba Samaria'n dagoan igarleagana. joan ba'ledi, berak osatuko leusiko legen ori.» Ba-doa, ba, Naaman bere erregeagana, ta guztia iragarri eii-tsan, esanez: "Auxe ta auxe diño IsraeVgo neskatna batek." Eta Siria'ko erregeak erantzun eutsan: "Zoaz, ta neuk bialduko dautsat Israel'go erregeari idazfei bat.» Jarri zan, ba, bidean Naaman, zidarezko-amar talentu ta sei milla urrezko diru ta amar soi-ñeko aldatzeko beragaz eroiazala; idazki bat be eroan. eban Israel'go erregearentzat, eta auxe iñoan: "Idazki au eskuratu dagizunean, jakin egizu neure morroi Naaman bialtzen dautsudana, legena osatu dagiozun." Israel'go erregeak, idazkia irakurri ebanean, tere jantziak urratu ebazan, esanez: "Jaungoikoa a! naz ni. bizia kendu ta emon daikedan, onek gizon legena. dun bat bialdu daust osatu dagidan-eta? Begira ta ikusi ez ete-dabilen atxaki-billa nire aurka.» Jaun-goikoaren gizon Eliseo'k, Israel'go erregeak bere jan-tziak urratu ebazala jakiñik, gaztigu au (errekadu au) bialdu eutsan: "Zer dala-ita urratu dozuz zure jan-tziak? Betor neugana, ta jakin begi ba-dagoala igarle bat Israel'en." Eldu zan, ba, Naaman bere zaldi ta burdiakaz, eta Eliseo'ren etxeko ateaurrean geiditu zan. Eliseo'k geznari* bat blaldu eutsan, esanez: "Zo-az, ta garbftu zaitze zappi bidar Jordan'en, eta zure aragia osatu ta garbi geldituko da." Naaman, asarre baten biurtu zan, esanez: "Neugana urtengo zala iiste neban, eta zutik, bere Jaungoiko Jaunaren izenari dei

Geznari = mensajero.

entsala, ta bere eskuaz legen-tokia ikuturik, 'atu ergmo nenduala. Zer, ba? Damasko'ko ibaiak fbana ta Parpar, ez ete-dira Israel'go ur guztiak bai-o obeak, ni areitan sartzeko ta garbi gelditzeko?" Beraz an'dik biurtzean eta asarre bizitan alde egiteko goala. bere morroiak urreratu yakozan eta esan e-utsoen: «Ata, igarleak egiteko nekeza agindu ba'ieu-«n be' ez zenduan egin bear izango?; baiña zenbat *razago. "garbitu zaitze ta osatuko zara" esan dau-tsun ezker?» Jatsi zan, ba, Naaman, eta zazpi aldiz oarbitu zan Jordan'en, Jaungoikoaren gizonak esan GUTsanez; eta aren aragia umetxo baten antzeko b.ur-Ui zan, txukun4xukun osaturik, Orduan, Jaungoikoa-Soji gizonagana biurtu zan bere inguruko guztiakaz, eta aren aurrean zutik, esan eutsan: «Ondo dakit lur guztian ez dala Israel'go Jaungoikoa baiño.»

Koru-ka.mt-a.—Jaungoikoa!, neure bizia azaldu dau-tsut: aurrean dozuz nire negar-imalkook. Erruki zaki-iaz, Jauna, gizonak zapaldu egin nau-ta; egun guz-tian nire aurka burrukan, atsekabetuta nauko.

Lnzagarria—Jauna, ez gagizuz erabilH egindako pekatuen negurriz, ezta gure gaiztekeriak dagokien negurrira zigortu be. Jauna, ez egizuz gogora ekarri gure antxiñako pekatuak; betorkigu, barriz, lenbaiien aure errukia, oso beartsu egin gara-ta. (*Belauniko emen.*) Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osasun!, eta zure izen goragarriagaitik, gorde gagizuz, Jauna; par-katu eiguzuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Luk., 4, 23-30).—Aldi aretan, Jesus'ek pariseotarrai auxe esan eutsen: «Esakun zaar au esan-go daustazue, urrean: Osalari*, zeure gaitza osatu egizu; Kaparnaum'en egin ei'dozuzan guztiak, emen be, zeure erri onetan egizuz.» Eta zirautsen,- «Benetan dirautsuet: ez da igarlerik onartua izan bere errian. Benetan dirautsuet: emakume asko zlrán Israel'en Elias'en. egunetan, iru urte ta sei illebetez zerua itxi-rik egoala, gosete gorria lurralde osoan izan zanean; baiña Elias areitariko iñoana be ez zan bialdua izan, Sidon'go Sarepta urira baiño, alargun bategana. Baita E'iseo'ren egunetan be, ba-ziran iegenardunak Is-rael'en; baiña areitariko iñor ez zan garbitua izan, Naaman Siria'rra izan ezik.» Itzok entzunda, sinago-

* Osalari = médico. * Betsein = niña del ojo.

gan egozan guztiak asarrez bete ziran; eta jagirik, uri, tik kanpora jaurti ta uria dagoan mendi-tontorreragi. ño eroan eben, andik amildu naiez. Bera, barriz, *ñivein* artetik igarorik, joan joian.

EsUintza.—Entzun nire otoia, Jaungoikoa, ta ez egizu ezetsi nire eskaria; ezarri nigan zure begiak, eta osatu nagizu.

Opari-otoitza.—Eskintzen dautsugun gure menpeta. sunaren opari au, Zuk, Jauna, guretzat Sakramentu CEasungarri bñrutu egizu. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Nok emongo dautso Sion'dik israel'i osasuna? Jaunak bere erria arerioen menpetik atara dagianean, Jakob poztu egingo da, baita Ij. rael be.

Azñen-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun eta errukior orrek!: agozjan dogun Eukaristi au, biotz garbiz artu daigula. Amaibagako.

Erriaren alñe.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean,—Lagun egin daiskula, Jauna, zure errukiak: zure laguntzaz, gainean doguzan pekatu-arrikuetatik onik urten, eta Zeuk zaindurik, zerruratu gaitazan. Amaibagako.

GARIZUMAKO IRUGARREN ASTEKO ASTARTEA

3^{gn.} mailla. — Ubelez

Sarrera.—Dei egin dautsut, ene Jaungoiko, entzun egiten nozu-ta; makurtu zure belarriak nigana, ta entzun nire itzak; zaindu nagizu, Jauna, betsein* lez; gorde nagizu zure egoen gerizpean.—Entzun, Jauna, nire erregu zuzena; entzun nire eskaria.—Aintza.

Otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko alguztidun eta errukior orrek, eta emon egizuzta biotz onez baruo osasungarri oni dagokion grazia. Amaibagako.

Irakurgai (Erregeen 4^{gna.}: 4, 1-7).—Egun areitan, emakume batek Elias igarleari auxe zirautsan: «Senarra il yat, zure morroia, ta zuk ba-dakizu Jaunaren bildur izan zana. Orain, barriz, aren artzekoduna nire seme bien eske datorkit morroi eroateko.» Elias'ek esan eutsan: «Zer nai dozu egin dagitzudan? Esan

j'daáu: zer daukazu etxean?» Eta arek erantzun ⁶⁸tsan: «Nik, zure mirabe onek, ez daukat etxean ^eure gorputza igurtziteko - orio apur bat baño.» iTiias'ek esan eutsan: «Zoaz, eskatu zure auzoko guz-Hai Opetan* ontzi utsak ugari. Sartu zaitzez ta itxi dzu atea zure semeakaz barruan zagozala; isuri orio retatik ontzi guztietara, ta bein bete daitezanean, pords egizuz.» Joan zan, ba, emakumea, ta sartu zan otxean bere semeakaz: oneik ontziak ekarten eutsoezan, eta arek bete. Ontziak bete ziranean, bere seme bati' esan eutsan: «Ekarri geiago.» Ta arek erantzun eutsan: «Ez daukat geiago.» Orduan, gelditu egin zan orio-isuritea. Joan zan bereala Jaungoikoaren gizonagana, ta azaldu eutsan jazo zana. Ta onek (Elias'ek) esan eutsan. «Zoaz, saldu orioa ta ordaindu egiozu ?ure zordunari; zu ta zure semeak, barriz, bizi zaitzeze gainekoaz.»

Koru-kanta.—Garbitu nagizu, Jauna, aztu yatazan pekatuetatik, eta besterenik ez niri ezarri. Azpiratu ez ba'nagie, orduan garbi iraungo dot, eta edozein pekatu astunetik be garbi izango naz.

Barri Ona (Mat., 18, 15-22).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Zure anaiak irain. tzen ba'zaitu, zoaz aregana, ta biok aurrez-aurre zagozala, asarre egiozu. Entzun ba'zagiz, anaia irabazi egingo dozu; entzun ez ba'zagiz, barriz, beste lagun bat edo bigaz joan zakioz, "bi edo iru ikusleren autorraz auzi guztia indartu daiten". Areik be entzun ez ba'dagiz, Elizari esan egiozu; ta EliZa be eñtzun ez ba'dagi, orduan arrotz eta zergaritzat izan bekizu. Benetan dirautsuet: zuek lurrean lotu dagizuen guztia, zeruan be lotua izango d'a; ta zuek lurrean askatu dagizuen guztia, zeruan be askatua izango da. Esan be ba-dirautsuet: zuetariko bi edozer eskatzeko lurrean batu ba'daitez, zeruko nire Aitak emongo daute: bi edo iru lagun nire izenean batuta dagozan tokian, Neu be arein erdian nago-ta.» Orduan Pedro'k, Aregana urreraturik, esan eutsan: «Jauna, nire anaiak nire aurka pekatu egin ba'dagi, zenbatetan parkatuko dautsat? Zazpi aldir bai?» Jesus'ek dirautso: «Zazpi aldir bakarrik ez, baita zazpitan zazpi amar bidar be.» (1).

* Epetan = en préstamo.

(1) Edo bardin dana: beti.

* Betsein = niña del ojo.

Eskinitza.—Jaunaren eskumeak arrigarriak P»¹ dauz; Jaunaren eskumak jaso egin nau: ii ez bt • egingo naz, eta Jaunap^n egintzak iragarriko riod»¹

'Opari-otoitza.—Sakramentu onen bidez, jadetsi da' gula, Jauna, gure osasunaren ondorena: munduko la" kerietatik urrindu ta betiko osasunera eroan gagizan" Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Nor bizi izango da, Jauna, zurp bizitokian ? nor egongo da zure mendia santuan ? Qa»' bi ibilli daitena, ta zuzen bizi daitena.

Azken-otoitza.—Ezkutapen (misterio) santuon bidez garbituta, Jauna, emon eiguzu parkamena ta grazia Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Gorde gagizuz, Jauna, zure laguntzaz, ta gaitz guztitik zaindu gagizuz toeti. Amaibagako.

GARIZUMAKO IRUGARREN ASTEKO EGUAZTENA

3'gn. maila. — Ubelez

Sarrera.—Nik, Jaunagan izango dot itxaropenszeure errukian poztuko ta alaituko naz, neure txikitasuna ikusi dozu-ta.—Ps. Zeugan dot, Jauna, uste ona • ez naz ifioiz be loteatuko; askatu nagizu zure zuzentasunaz, eta onik atara nagizu.—Aintza.

Otoitza.—Arren, Jauna!: barau osasungarriz indarturik eta griña okerretatik alde egiñik, zure errukia errazago jadetsi daigula. Amaibagako.

Irakurgai (Ur.teera, Ex., 20, 12-24).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: «Aita ta amari lotsa gorde egiezu Jaun eta Jaungoikoak emongo dautsun lurrean luzaru bizi izan zaitez. Ez ifor il, ezkontza ez loitu, ez ostu, ez esan ez dan gauzarik zure lagun-urkoaren kontra, aren ogasunik be ez dozu nai izango, ezta aren emazte, ez morroi, ez mirabe, ez idi, ez asto, ta beste aren ezertxo be.» Erri guztiak ikusten ebazan trumoi, oiñazu, adar-ots eta mendia keetan; eta guztiak bildur-ikaraz dardaraka, urrin egozan, Moises'i zirautsoela: «Zeuk itz eiguzu, ta entzungo dogu; es beigu Jaunak itz egin, il ez gaitezan bear-bada.» «Ez bildurrik izan —esan eutsan Moises'ek erriari—: zuek aztertzer

torri da Jauna, Aren bildurpean bizi izanik, pekaturik ^e in ez dagizuen.» Alan be, uirun egoan erria, ta Moises jaungoikoa egoan laino illunera urreratu zan. Jaunak Moises'i auxe be esan eutsan: «Auxe esango dautsezu Israel'go semeai: Zerutik itz egin dautsuedala ikusi dozue. Ez egizue zidarrezko ez urrezko jaungoiko irudirik egin. Lurrezko altara bat egingo dautsue, ' frere ganean eskiñiko dautsazue erre-opari ta bakezkoak, zeuen ardi ta idiak, nire izena aitatu daiten leku guzietan.»

Koru-kanta.—Erruki zakidaz, Jauna, makalik nago _ra-osatu nagizu, Jauna^ Azur guztiak dardaraka daukadaz. eta nire arima be ikaraz dago.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabili, 143 orri.

Barri Ona (Mat., 15, 1-20).—Aldi aretan, Jerusalem'dik etorritako paxiseotar eta idazlari batzuk Jesus'egana etorri ziran, eta esan eutsen: «Zure ikasleak, zer dala-ta austen'dabez asaben ekanduak? Ogia jaterakoan, ez dabe eskurik garbitzen-eta?» Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: «Zuek, barriz, zegaitik austen dozue Jaungoikoaren agindua zeuen ekanduakaitik? Auxe esan eban Jaungoikoak: «Zure aita ta amari lotsa izan egiezu»; ta gañnera: "Bere aita naiz ama madarikatu dagiana, eriotzez il bedi." Zuek, barriz, diñozue: Edonok esan daikeo bere aitari naiz amari: "Nigandik izan bear zenuken laguntza^bide guztia, Jaungoikoari eskiñi dautsat", eta ez dau, beraz, bere aita naiz ama geiago goratu bearrik. Eta orrela, Jaungoikoaren agindua zeuen ekanduz austen dozue. Azaiutsokl, ederto iragarri eban zuetaz Isaias igarleak, esan ebanean: «Erri onek ezpaneaz goratzen nau, baiña bere biotza nigandik urrin dago; alperrik gurtzen nabe, gizonen agindu ta irakatsiak irakasten diardue-ta." Eta gizataldeari Beragana dei egiñik, esan eutsen: «Entzun guatiok eta ulertu: Agotik sartzen danak, ez dau inor zikintzen; agotik urtetan danak baiño; onek bai, zikintzen dau gizona.» Orduan, Aren ikasleak urreratu ta esan eutsen: «Zure itzok entzunda, parisetarak samfndu egin dirana ba-dakizu?» Baiña Jesus'ek erantzun eutsen: «Zeruko nire Aitak sartu ez dauan edozem landara, zusterretik atarako dabe. Itzi egizue: itsuak dira ta itsumutillak. Eta itsu batek beste itsu bat zuzentzen ba'dau, biak zulora jausi bear.»

Crcuan, Pedro'k esan eutsan: «Azaluu eiguzu ipuin ori.» Eta Jesus'ek erantzun eutsan: «Zuek be orain-clifio adimeu-bageak zaree? Ez dozeu ulertzen agotik sartzen dana, sabelera jatsi ta gero sastegira jaurtiten da'oa? Agotik urteten dana, biotzetik urteten da, ta onexek zikintzen dau gizona: gogapen (pentzanta) gaiztoak, gizon-ilteak, ezkontza-loitzeak, aragikeriak, lapurretak, guzurrezko autorrak (testigutzak) eta bi-raoak, biotzetik urteten dira-ta. Onexek zikintzen da-be gizona. Baiña eskuak garbitzeke (garbftu bagarik) jateak, ez dau gizona zikintzen.»

Eskintza.—Jauna, erruki zakidaz zure izeneg_aitik: zure errukia samurra da-ta.

Opari-otoitza. — Oparigaiokaz batera, artu egizuz, Jauna, zure erriaren eskariak be; ta zure ezkutapenak (misterioak) ospatzen doguzanak, gorde gagizuz arris-ku guztietatik. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 oni.

Jaunartzerakoa. — Bizi-bideak irakatsi zeustazan; zure arpegiak, Jauna, pozez beteko nau.

Azken-otoitza.—Mai santu onetako janari zerutarrak santutu gaizala, Jauna; ta utsegin guztietatik garbitur-rik, betiko agintzariak artzeko gei egin gagizala. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurutu bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Eiguzu, arren, Jaungoi-ko alguztidun orrek!: zure laguntzaren billa gabiltzan ezkeru, gaitz guztietatik urrin egonda, biotz nasaiez zure menpeko zintzo izan gaitzezala. Amaibagako.

GARIZUMAKO IRUGARREN ASTEKO EGUENA

3^{gn}. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Neu naz erriaren osasuna, diño Jaunak; edozein estualditan dei egiten ba'dauste, entzungo dau. tset, eta Jaungoiko izango nakie betiko.—Ps. Entzun, ene erri!, nire irakatsia; makurtu •entzumena nire agoko itzetara.—Aintza.

Otoitza.—Goratu zagiz, Jauna, Kosme ta Damian sahtuen jai agurgarriak: arei betiko zerua emon zeu- tsen-eta; guri, barriz, zeure laguntza emon zeuskun, esan-eziñezko arduraz. Amaibagako.

Irakurgaia (Jeremias, 7, 1-7).—Egun areitan, Jaunak herba egin eta esan eustan: Jaunaren etxeko atean an ^{za}g_ozala, iragarri egizu bertan itz au, esanez: Fntzun Jaunaren itza, Jauna gurtzera ate oneitatik sartzen zareen Juda'ko guztiok. Auxe diño gudarozteen jaunak, Israel'go Jaungoikoak: Zuzendu egizuez zuen bide ta egikerak, eta zeuekaz egongo naz leku onetan. Ez izan ustebiderik berba guzurtietan, esanez: Auxe da Jaunaren bizitokia, Jaunaren bizitokia, Jaunaren bizitokia. Zuen bizikera ta asmoak zuzendu ba'dagi-zuez, alkarren arten zuzen ebazten ba'dozue, arrotz, umezurtz eta alargunik guzurrez azpiratzen ez ba'do- zue, leku onetan odol errubageriki isuri ez ba'dagizue eia zeuen kalterako inoren sasi-jaungoikoen billa ez ba'zabize: zeuekaz egongo naz beti-beti toki onetan, zuen gurasoai emon neutsen lurrean; Jaun alguzti- dunak diño.

Koru-kanta.—Guztien begiak Zeugan itxaroten dabe, Jauna; ta Zuk, aldi egokian, jaten emoten dautsezu. Zuk eskua zabaldurik, edozein bizidun onespenez bete- ten dozu.

Barri **Ona** (Luk., 4, 38-44). — Aldi aretan, Jesus sinagogatik urtenda, Simon'en etxean sartu zan. Si- mon'en amagiñarriba sukarrez* ogean egoan, eta aren alde eskatu eutsen. Eta aregana urruririk, sukarrari agindu egin eutsan, eta sukarrak emakumea itzi egin eban; eta berealaxe jagita, mirabe-lanetan asi yaken. Eguzkia ostendu (sartu) zanean, edozetariko gaitzez geisoren bat euken guztiak, Jesus'i ekarten eutsoen. Eta Berak, bakoitzari eskuak ezarririk, osatu egiten ebazan. Txerrenak be askogandik urteten zi- ran, deadarka iñoela: «Jaungoikoaren Seme zara Zu!» Ta Barak agiraka isillerazoten ebazan, ba-ekien Kris- to'a zana-ta. Egunduaz gero, andik urten eta baso -ezkutura joan zan. Gizataldea Jesus'en billa ebillen, eta Aregana elduta, eurokaz gelditzeko eskatzen eut- soen. Baiña Arek esan eutsen: «Beste erriai be Jaun- goikoaren erreiña iragarri bear dautset, orretarako bialdua izan naz-ta.» Beraz, Galilea'ko sinagogetán ira- kasten ziarduan.

Eskintza.—Larrialdian egon naitenean, Zeuk zain- duko daustazu bizia, Jauna; nire arerioen asarrearen

* Sukar = fiebre.

aurka zeure eskua luzatuko dozu, ta zure eskump^{ak}, onik atarako nau.

Opari-otoitza.—Zure zintzoen eriotz-egun bik¹ onetan, Jauna, martiri guztien asiera izan zan *ona*^Λ-au eskintzen dautsugu. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Zure aginduak zintzo betetek agindu zenduan, eta nik zuzen bete dagidala 2^{ur!} legea.

Azken-otoitza.—Zure sakramentu au, Jauna, *i_{zari}*¹ bekigu zerurako bide ziurra: orixe eskatzen dautsuen cure martiri santu Kosme ta Damian'en irabazien. bi, tarte. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruoir Jaungoikoaren aurrean.—Zure erruki zerutarrak uejt-ritu begi, Jauna, zure menpean dozun erri au, ta zur-i aginduen esaneko egin dagiala be.ti. Amaibagako.

GARIZUMAKO IRUGARREN ASTEKO BARIKUA

3^{gn.} *mailla.* — *Ubelez*

Sarrera.—Egizu, Jauna, nire alde ezaugarri bat, ni begitan nabena ikusi ta lotsatu daitezcan: Zeuk, Jaim orrek, lagundu ta poztuten nozu-ta, — *Ps.* Makurtu, Jauna, zure entzumena, ta entzun nagizu: beartsu ta txiroa naz-ita.—Aintza.

Otoitza.—Ikusi egizuz begi onez, Jauna, gure barauok; eta gorputzez barau egiten dogunez, arimako grina txarrez be barau egin daigula. Amaibagako.

Irakurgaia (Zenkakiak, Num., 20, 1, 3 ta 6-13).—Egun areitan, Israel'go semeak Moises'en eta Aaron'en aurka jagi ziran, esaten eutsela: «Emon egiguzu ura, edan daigun.» Laguntalde itzirik, Moises eta Aaron alkartasuneko txabolan sartu ziran, eta auzpazturik, auxe esan eutsoen Jaunari: "Jaungoiko Jauna, entzun egizu erri onen deadarra, ta edegi egiezu zure aberastasuna, ur bizi-iturria: aseturik, mormor egitea itzi dagien.» Orduan, Jaunaren airitza agertu zan arein gainean. Eta Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «Artu egizu makilla, ta batu erria zuk eta Aaron zure anaiak, eta agindu egizue arri bizitari arein aurrean, eta emongo dau ura, Aitzari ura atara dagiozu-

barriz. gizatalde guztiak eta bere abereak ¹⁰^ta¹tik edan toegie.» Artu eban, ba, Moises'ek ¹unaren aurrean egoan makilla, agindu eutsanez; ^terria aitzaren aurrean baturik, esan eutsen: «En-⁶un egizue, biurri ta sinisgorrok: atara ete-daikegu ^f^L onetatik urik?» Orduan, Moises'ek eskua jasorik, ^aj-ijlaz aitz birritan jo eban, eta ura ugari urten [!]n eta guztiak, erriak eta abereak, edan ai izan aK^{en}. Jaunak, oster, Moises'i ta Aaron'i esan eutsen: [^]Sinistu ez daustazuen ezker, ezta nire santutasuna ^fffertu be Israel'go semeen aurrean, erri au ez dozue [!]artuko Nik emongo dautsuedan lurrean. Zalaparta-ura [!]di au. Israel'go semeak Jaunaren aurka jagi ziran ^tokia, Bere santutasuna agertu ondoren.»

Koru-kanta.—Jaunagan itxaron eban nire biotzak, ^eta jaguntza izan eban; nire aragia birloratu egin zan, ^eta biotz-biotzez emoten dautsudad eskerrak. Zeuri ^egin dautsut dei, Jauna; ez zaitetz isildu, ene Jaungoiko; ez nigandik alde egin.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabilli, 143 orri.

Barri Ona (Jon, 4, 5-12).—Aldi aretan, Jesus, Sihar deritxon Samaria'ko errira dator, Jakob'ek bere seme jose'ri emondako solo-ondora, Antxe egoan Jakob'en iturria. Jesus, bidean nekatuta, iturri-ondoan jesarri uan. Seirak-edo ziran. Samaria'ko emakume bat ur-eske dator, eta Jesus'ek dirautso: «Ura ekazu.» (Ikasleak errira jateko-billa joan ziran.) Samaritar emakumeak .dirautso: «Zelan zu, judarra izanik, niri, samaritar emakume oni, zelan zatorkidaz ur-eske?» (Judarrak samaritarraz artu-emonik ez dabe-ta.) Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: «Jaungoikoaren doaia (grazia) ezautu ba'zengi, ta "ura ekazu" esan dautsuna nor dan ba'zeki, zeuk eskatuko zeuskio ur bizia, ta Arek bai emon be!» Emakumeak dirautso: «Jauna, ezer be ez dozu ura atarateko, ta oxina barranean dago: nundik daukazu, ba, ur bizi ori? Jakob gure aita baiño aundiago ete-zaitugu? Oxin au arek emondakoa dogu, ta arek eta bere seme ta abereak oxin anetatik edan eben.» Jesus'ek, erantzunik, esan eutsan: «Ur au edan dagien guztiak, barriro be egawⁱ izango dira; baiña Nik emon dagiodan uretik edan dagiana, ez da iñoiz egarri izango; ta Nik emon dagiodan ura, betiko bizitaraino txirristaka darion ur-itu-

rri izango yako.» Emakumeak dirautso: «Jauna ek zu ur ori, egarri izan ez nadin, eta ur-eske ona 'etor • ez naiten.» Jesus'ek dirautso: «Zoaz, dei egiozu sem' rriari ta zatoz ona.» Emakumeak erantzuten dauto' «Ez dot senarrik.» Jesus'ek dirautso: «Ondo esan dom "ez dot senarrik", bost gizon izan dozuz-ta; orain ito zuna, barriz, ez dozu senar; orretan egia esan doziñi Emakumeak dirautso: «Jauna, ba-dakust igarie zará na. Gure gurasoak Jaungoikoa mendi onetan gurtu eben; zuek, barriz, Jerusalem'en gurtu bear dala <JL ñozue.» Jesus'ek diñotso: «Emakume, sinistu egidaziñ ez mendi onetan, ez Jerusalem'en Jaungoikoa gurtzekn sasoa ba-dator. Ez dakizuena gurtzen dozue zuek/ba-dakiguna gurtzen dogu guk: osasuna judarrakai-aiik da-ta. Baiña garaia ba-dator, eta auxe da, gurtzailie jatorrak Aita gogoz ta egiz gurtuko dabe-ta. JaunLrñj. koa gogo (espiritu) da; ta gogoz ta egiz gurtu bear dabe Aren gurtzailleak.» Emakumeak dirautso: «Ba-dakit Kristo'a deritxon Mesias etorteko dana. Etorri daitenean, Berak irakatsiko dasku dana.» Jesus'ek diñotso: «Neu naz, itz egiten dautsun au.» Ikasleak une aretan eldu ziran, eta emakumeagaz izketan zjar-dualako, arritu egin ziran. Alan be, ez eutsan inok esan: "Zer itanduten daiutsazu", edo "zertzaz itz eei-ten dozu orregaz?" Emakumea, edarra itzirik, errira joari zan, eta gizonai dirautse: «Zatoze!, ikusi egizue egin dodan guztia esan daustan gizon bat. Kristo'a ete-da?» Beraz, erritik urtenda, Aregana joan ziran. Bitartean, ikasleak zirautesoen: «Rabi (Irakasle), jan egizu.» Baiña Jesus'ek esan eutsen: «Ba-dot Nik jateko zuek ez dakizuen janari bat.» Ikasleak alkarri zirautesen: «Norbaitek janaria ekarri ete-dautso?» Jesus'ek dirautse: «Nire janaria auxe da: bialdu nauanaren naia egin eta Aren a-smoa betetea. Ez dozue esaten zuek: lau illebate barru, gari-ebagitea? Ona, barriz, Nik dirautsuedana: jaso begiok eta ikusi soloak onezkero igiterako (ebagiteko) orituak. Igitariak'- egun-saria artzen dau, ta betiko bizitzarako frutua batzen, erreillea ta igitaria batera poztu daitezan. Onetan be egia da esakera au: bat da erreillea ta beste bat igitaria. Landu ez dozuena batzera bialdu zaituet; beste-ak Ian egin, eta zuek arein arlo landuan sartu zaree.»

Igitari = igitaietz ebagiten dauana: segador.

•tean erri aretako. samaritar askok, emakumeari 1):tal dodan guztia esan daust" autor au entzunada, "A, s'en sinistra jo eben; eta Aregana urreraturik, eu- z gelditu zedilla zirautesoen: eta egun bian geldit- "A an Ari entzunaz, sinistra asko geiagok artu eben, 1): z emakumeari zirautesoen: «Oriezkero ez dogu zure asaitik sinisten, munduaren salbatzaillea Auxe IsSa feuk entzun eta ikusi dogu-ta.»

Fskintza.—Entzun egizu nire otoi-deia, ene Errege jaungoiko orrek!: Zeuri diardut erregutzen-eta.

Opari-otoitza.—Ikusi egizuz begi onez, Jauna, eskin- L en dautsuguzan oparigaiok: Zuri atseingarri izan clakiz "zani" eta S urri osasungarri. Amaibagako.

Kanon-aurrea: Garizumafcoa, 452 orri.

launartzerakoa.—Nik emon dagiodan uretik edan rtggianari, betiko bizitzaraino txirristaka darion ur-itu-ñi izango yako, diño Jaunak.

Azken-otoitza.—Artu dogun Sakramentu onek, Jañnc gaiztakeri guztitik garbitu gagizala, ta zeruko erreil-ula eroan gaizala. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jrungoikoaren aurrean—Egizuz, arren, Jaungoiko al-euztidun orrek: zure laguntasunean itxaroten dogun eskero, kaltegarri yakun guztia azpiratu daigula zure laguntzaz. Amaibagako.

GAKIZUMAKO IRUGARREN ASTEKO LARUNBATA

3'gn. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Entzun, Jauna, nire itzok; entzun nire deadarra; entzun nire otoi-deia, ene Errege ta Jaungoi-jo!_p_s. Zeuri egiten dautsut dei, Jauna; goizetik entzuten dozu nire otoi-a.—Aintza.

Otoitza__Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: !;orputzak zigoturik, jan-edariak izten doguzan ezke-ro, zuzenbideari jarraituaz, erritik be aldendu gaitela. Amaibagako.

Irakurgaia (Daniel, 13, 1-62).—Egun áreitan, Babilonia'h Joakin izeneko gizon bat bizi zan. Susana ize-neko emakumeagaz ezkondu zan, Elzias'en alaba, aso lirainia ta Jaungoikoaren bildur zana. Gurasoak

zintzoak ziran-eta, Moises'en legeari egokionez azi »I alabea. Joakin oso aberatsa zan, eta lorategi bat kan bere etxe-ondoan, eta judar asko beragana joan ziran, Joakin guztietatik aitatuena zalako. Urte aretsi^{d1} erriko zaar bi aukeratu ebezan epaikari; arei buruz Ja¹ nak auxe esan eban: «Epaille zarrakandik, agiriz erri¹⁵ zuzentzen ebanakandik sortu zan gaiztakeria Babi¹ nian'n.» Zaar areik sarri joaten ziran Joakin'en etxera¹ eta auziren bat euken guztiak, arekana joten ebu¹ Eguerdian, barriz, erritarrak alde egiten ebenean, gi¹ sana bere senarraren lorategian sartzen zan ibiitera¹ Zaarrak egun oro ikusten eben sartzen eta ibiltzen eta areganako zalekeri bizia sortu yaken; eta sena galdu rik, ez eben zerurik begiz ikusten, ezta epai zuzenik gogoratu be. Bein, ba, une egoki baten zain egozau sartu zan Susana, beste egunetan lez, bere mirabe bigaz, eta ur-bustialdi bat artu nai izan eban, eguraldi beroa zan-eta. An ez egoan inor be, gordeta begira egozan zaar bi areik izan ezik. Beraz, bere mirabe bitxi esan utesen: «Ekarri egidazuez orio ta usaingarriak eta lorategiko atek itxi egizuez, uretan busti naiten» Mirabeak urten ziranean, zaar biak jagi ta beragaim joan ziran ariñeketan. eta esan euteoen: «Begira, iova¹ tegiko atek itxita dagoz ta ez gaitu inok be ikusten eta gu zeuganako maite-miñetan gaukazuz; amor eigu¹ guz¹*, ba, ta makurtu zaitez gure gurarietara. Nai ea ba'dozu, barriz, zuzag mutil gazte bat egoala ta orre¹ xegaitik bialdu dozuzala mirabeak, esango dogu.» «Al ene! —esan eban Susana'k—: Estu naz alde guztietatik. Ori egiten ba'dot, eriotza dot gainean; egiten ea ba'dot, barriz, ezin iges egin zuen eskuetatik. Baiña obe yat erru bagarik zuen eskuetan jausi, Jaunaren aurrean pekatu egin baiño.» Eta Susana'k deadar aundi bat egin eban; zaar biak be bai aren aurka. eta bata¹ k, ariñeketan lorategiko atee¹ tara joanik, edegi egin eba¹ zan. Etxeko morroiak, barriz, lorategiko garraziak entzunik, osteko atera jo eben ariñeketan zer zan Ikus¹ tera. Ta zaarrak berba egin ebenean, morroiak oso lotsatuta gelditu ziran, ez zan egundo be Susana'ri buruz alako gauzarik entzun-eta. Biaramonean, erria Joa¹ kin senarraren etxera etofri zanean, an ziran zaai biak be, Susana'ri bizia kentzeko asmo zitalez beterik. Eta erriaren aurrean esan eben. «Joan eta ekarri egl-

Susana, Joakin'en emaztea, Elzias'en alaba.» Be¹ laxe Jo¹ an zi¹ tan; etfi¹ a¹ ere guraso, seme ta senide¹ tiak¹ etorri zan. Bere senide ta ezagun guztiak¹ aarez egozan. Zaar biak, erriaren erdian zutik, Su¹ na'ren buru-gaínean ipiñi ebezan euren eskuak. 5ñek¹ negarrez, zeruruntz jaso ebezan begiak, aren hlotzak itxaropena Jaunagan jarri eban-eta. Onetan, «arrak esan eben. «Lorategian bakarrrik genbiltzala, ir¹ a» Je toigaz sartu zan au be, ta neska biak bialdurik, Trategiko atek itxi ebezan; eta gero, gordeta egoan¹ fiize bat etorri yakon, eta aragiz a/lkajitu zirari. Guk, fariz, lorategiko ba,ztar baten gengozan-eta, gaiztake¹ fi ori' ikusirik, ariñeketan jo genduan eurakana, eta i/unkerian ziarduen. Gazteari ezin oraitu izan geutsan, EU baiño indartsuago zalako: ta atek edegirik, iges¹ firin euskun. Oni, ostera, bai, oratu geutsan, eta gazte¹ nor zan itandurik, ez euskun esan nai izan: geu¹ ba¹ ra onen autorle (testigu).» Zaarrak eta erriko epai¹ LJ.J ziraneez, erriak sinistu egin utesen; eta Susana erioz¹ tara galdu eben. Susana'k, barriz, deadárka esan eban; KEzkutuak ezagutu ta diranak diran baiño len dakizu¹ a¹ n Jaungoiko betikoa: Zuk ba-dakizu guzurrezko autortza (testigutza) egin dabela nire aurka, baita oneik maltzuirkeriz nire aurka asmau dabenetik ezer be egiteke (egin barik), eriotzara naroiela be ba¹ dakusu!» Ta Jaun¹ ak entzun egin eban aren otoa. Eriotzara eroiela, Jaunak Daniel eritxon mutil gazte baten gogo santua bizu eban. Onek deadarka inoan: «Garbi naz ni emakume onen odolez.» Eta erri guztiak, aregana birturik, esan utesan: «Zer da zuk doñozun ori?» Eta Daniel'ek, arein erdian zutik, auxe esan eban: «Orren zoroak zaree, Israel'go semeok, auzia egiteke ta egia ezagutzeke, alaja israeldar bat eriotzara bialtzeko ? Biurtu zaitez au¹ átegira, onen aurka guzurrezko autortza (testigutza) egin dabe-ta.» Biurtu zan, ba, erria zarrapastaka, ta Daniel'ek esan utesen. «Banandu egizuez urrin zaar biok, eta neuk aztertuko dodaz.» Alkarregandik banand¹ i ebezanean, bati dei egin eta esan eutsah. «Gaiztakerian zaartutako ori! Oraintxe jausi dira zure gaine¹ fa len egin zenduzan pekatuak, epaikuntza* bideba¹ geak egiñez, errubageak azpiratuez eta errudunak askatuaz, Jaunak diñoanaren aurka: "Errubage ta zin-

* Epaikuntzak = juicios

* Araor egin = condescender.

tzorik ez dozu ilgo". Ia, ba, esan egidazu: emakume au ikusi ba'zenduan, zein zugazpean ikusi zsnduzan alkar-izketan?» Zaarrak erantzun eban: «Legeltxor* baten azpian.» Daniel'ek esan eban: «Guzur ederra esan a, zu zeure buruaren aurka. Jaungoikoaren Aingeruak Aren eskutik erabagia arturik, erdi-erditik zaituko zaitu» Ta a andik bazterturik, besteari dei egin eta esan eutsan: «Kanaan'en eta ez Juda'ren jatorriko oril: edertasunak galdu zaitu ta zalekeriak naastu dautsu biotza: orixe egiten zeutsen Israsl'go alabai, ta areik, bildurrez, zeuekaz itz egiten eben; baiña Juda'ko a'aba onek ez eban jasan (eroan) zuen gaitzakeria. Ia, ba, esan egidazu: zein zugazpean artu zenduezfein alkar>izketan?» Arek erantzun eban: «Arte baten azpian.» Daniel'ek esan eutsan: «Zuk be guzur ederra esan dozu zeure buruaren aurka; or dago Jau. naren Aingerua, ezpata eskuan dauala, zur erditik ebagiteko ta biok ilteko.» Ord'uan, erri guztia deadarka asi zan, Jaungoikoa goratzen ebala: Beragan itxaroten dabena, onik ataraten dauz-ta. Guztiak zaar bien aurka jagi ziran, (Daniel'ek bere agoz sinisterazo eutsen guzurrezko ziñaltza (testigutza) egin ebela-ta); orrela, areik lagun-urkoari egin nai izan eutsen zigorra, eurai egin eutsen; eta bizia kendu eutseen; eta egun aretan odol errubagea onik urten zan.

Koru-kanta. — Eriotz-gerizpean ibilliarren, ez dot gaitz-bildurrik izango: Zu, Jauna, neugaz zagoz-ta. Zure zigorra ta zure makilla, biak niretzat pozkilie.

Barri Ona (Jon, 8, 1-11).—Aldi aretan, Jesus Oñamendi'ra joan eta biaramonean, goizean-goiz, Eliza nagusira biurtu zan. Erri guztia Aregana joian; eta Berak, jesarririk, irakatsi egiten eutsen. Ezkontza loitzen artutako emakume bat idazlari ta pariseotarrak Aregana ekarri ta erdian jarririk, Jesus'i dirautsoe: «Irakasle, emakume ezkondu au ezkontza loitzen aurkiut dabe oraintxe. Onelako emakumeak arrika ilteko agindu euskun legean Moises'ek. Zer diñozu Zuk?» Ori azpikeriz zirautsoen, salatu al izateko. Baiña Jesus, ma. kurtuta, atzamarraz lurrean idazten asi zan. Eta areik itaunka ekin eutsoen-eta, Jesus'ek, burua jasorik, esan eutsen: «Zuen artean pekatuak baga egon daitenak,

lenengo arria jaurti begio.» Ta barrero makurtuta, lu-,rean idazten ziarduan. Areik, ostera, ori entzunda, banaka-banaka alde egiñez joiazan, zaarrenetatik asita- eta bakarrrik gelditu zan Jesus, ta emakumea erdian zutik. Orduan Jesus'ek, burua jasorik, esan eutsan: «Emakume, non dira zure salatzaileak? Iñok be ez zaitu galdu?» Emakumeak esan eutsan: «Iñok be ez, Jauna.» Ta Jesus'ek esan eutsan: «Ezta Nik b2 ez zaitut galduko. Zoaz, ta ez egin pskatuak barrero.»

Eskintza.—Zuzendu, Jauna, nire oiñak zure bidean, bidebageak azpiratu ez nagian.

Opari-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: eskiñi dautsugun opari onek gure argaltasuna garbitu ta gaitz guztitik zaindu dagiala beti. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garigumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Emakume, iñok be ez zaitu galdu? Iñok be ez, Jauna. Neuk be ez zaitut galduko; ez egin pekatuak barrero.


Azken-otoitza.—Kristo'ren gorputz eta odola artu doguzan ezkerro, Bere gorputz-atal arteko izan gaitezalaz eskatzen dausugu, Jaungoiko alguztidun orri. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz bate-ra Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Erriaren alde—Otoitz egin daigun.—Makurtu bu-ruok Jaungoikoaren aurrean.—Emon egiezu, Jauna, zure zintzoai zeruko laguntza: biotz-biotzez zeure billa ibilli daitezcan, eta zuzen eskatzen dabena jadetsi daigien. Amaibagako.



* Legeltxor = lentisco (zugatza).

* Zugatz = árbol.



GARIZUMAKO LAUGARREN IGANDEA

l'go. mailla. — Ubelez

Poz-oiuka «Jaukagu gaur Eliza Ama, Antxiña, «Goazen Jerusalem'era» esaten eben Israeldarrak. Garizuma be, Pazko-egunetarako igote bat dala esan daikegu. Ta Pazko-jai ori laster ikusiko dogula-ta, pozezko deadarrez dago E'liza.

Zerua dogu egiazko uria; araxe goaz guztiok alkar arturik. Antxe dauko Jaunak guretzat gertu agortzen ez dan o'i gozoa (irakurri Barri Ona).

Biblia.—Zenbakiak, Num.: 9, 15-23; 13, 2; 13, 17'tic u 24'ra; 17, 16-26; 20, 2-13. Itzaldiak, Deut.: 6, 1-19; 7, 6-12' 11, 18-32.

M E Z A

Sarrera.—Poztu zaitetz, Jerusalem; jai egizue maite dozuen guztiok; poztu zaitetze atsekabetuta zengozenok be; bete zaitetze bular atsegifkz.—*Ps.* Pozetz bete nintzan «Jaunaren etxera goaz» esan eustenean—Aintza.

Otoitza,—Egizu, arren, Jaungoiko algutzidun orrek: gure egitada kaskarrakaitik atsekabetuta gagozan ez-kero, zure grazi atsegiñez arnasa artu daigula. Amai-bagako.

Irakurgaia ,(S. Paulo'k Galazia'koai: 4, 22-31).—Anaiok: Idatzita dagoanez, Abraham'ek seme bi izan ebazan: bata mirabeagandik, eta bestea andreagandik. Mirabeagandikoa, aragi-bidez jai-o-zan, andreagandikoa, agintzaren indarrez. Antz-iruditan esana da au. Emakume biok Itun (Alkartasun) bi dira. Bata Sinai mendikoa, morroi-seme biurtzen gaituana: Agar da au-

Siiiari, barriz, Arabia'ko mendi bat da; ta alakoa, orain-^{eo} jerusalen da, bere semeakaz morroi da-ta. Goiko jerusalen, ostera, bere esku (libre) da, ta auxe da gure gina. Idatzita dago-ta: "Poztu zaitetz, agor zaran ori; zantzo ta deadar egizu, sein-miñik ezagutu ez dozun orrek; senarduna baiño baztertuta umetsuago izan dai-teke-ta." Gu, barriz, anaiok, agintzaren seme gara, Isaak lez. Baiña orduan aragiz jai-oa zanak gogoz jai-oa alboratzen ebanez, orain be bardin jazoten da. Zer diño Liburu santuak? "Bota egizu mirabea bere se-meagaz; neskame-semea ez da andre^semeagaz oiñor-^eko izango-ta." Beraz ,anaiok, gu ez gara mirabe-seme, andra-seme baiño. Ta askatasun au Kristo'k jadetsi dauku.

Koru-kanta.—Pozetz bete nintzan, "Jaunaren etxera ooaz" esan eustenean. Izan bedi bakea zure etxean, eta ugaritasuna zure jauregietan.

Luzagarria.—Jaunagan itxaroten dabena, Sion-mendia lez dira; Jerusalem'en bizi danak, ez dau iñoiz be kilikolorik egingo. Jerusalem, mendiz inguratuta dago; ta Jauna bere erriaren inguruan gaur eta beti.

Barri Ona (Jon, 6, 1-15).—Aldi aretan, Jesus, Tiberiades edo Galilea-itxasoko beste aldera joan zan, eta gizatalde aundiak jarraitzen eutsan, geisoakan egi-ten ebazan mirariak ikusirik. Orduan, Jesus mendi ba-tera igo ta an bere ikasleakaz jesarri zan. Judarren pazko-jai-a laster zan. Jesus'ek, begiak jasorik, aren-besteko laguntaldea jarraitu eutsala ikusirik, Felipe'ri esan eutsan: «Nun erisiko doguz ogiak, oneik jan da-gien?» Ori, zirikatzeko zirautsan, egiteko zana Berak ba-ekian-eta. Felipe'k erantzun eutsan: «Berreun den-arioren ogiak be ez dira naiko, bakoitzak ogi apur bana artzeko.» Ikasletariko batek, Ander'ek, Sfmon Pedro'ren anaiak, ba-dirautso: «Bost tremes-ogi ta arrain bi daukazan mutil bat ba-dago emen; baiña oneik zer dira onenbestentzat?» Alan be, Jesus'ek esan eban: «Jesarri daitezala agindu egiezue.» Toki a be-dartsua zan. Jesarri ziran, ba, bost millaren bat gizon. Orduan, Jesus'ek ogiak artu, ta Aitari eskerrak emon ondoren, jesarritakoen artean banatu ebazan, eta beste arenbeste egin eban arraiñakaz be, bakoitzari nai aiña emenez. Eta bete ziranean, bere ikasleai esan eutsen: «Batu egizuez gelditu diran apurrak, ezer galdu ez da-

din.» Batu ebezan, ba, ta orrenbeste lagun asetu ondoren, bost tremes-ogi ta arrain biren ondakiñez, ^{araa-}bi otzara bete ebezan. Gizon areik, Jesus'ek egindako miraria ikusi ebanean, iñoen: «Auxe da, benetan, lu. rrera etorteko dan igarlea!» Baiña Jesus'ek, Errege egin nai ebela igarri ebanean, barriro mendira ig^{es} egin eban bakar bakarrik.—*Kredo*.

Eskintza.—Goratu egizue Jauna, ona da-ta; abestu egiozue Aren izenari, gozoa da-ta; zeru lurretan, nai izan eban guztia egin eban.

Opari-otoitza.—Artu egizu biotz onez, Jauna, opari au: gure oneraspenerako (deboziñorako) ta osasunerako izan dakigun. Amabagako.

Kanon-aurrca: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jerusalen, uri eder antzera jaso, edonundik ondo batua. Araxe doaz erriak, Jaunaren' jatorrikoak, Jaunaren izena autortzera.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko. 'errukior orrek!: sarri asetzen gaituan Eukaristi au, beti esker onez eta sinismen audiz artu dagigula. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTEKO ASTELENA 3'gn. maila. — *Ubelez*

Sarrera.—Salbau nagizu, Jaungoiko orrek, zeure izenagaitik, eta zaíndu nagizu zeure al-izatez. Entzun nire otoa, ene Jaungoiko: biurtu entzumena nire agogo itzetara. — *Ps*. Atzerritarrak aurka jagi yataz, ta gizon indartsuak bizia kendu nai dauste.—*Aintza*.

Otoitza.—Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: urteroko barau santu oneik gogoz ospaturik, gorputz eta arimaz atsegingarri izan gikuziaza. Amaibagako.

Irakurgai (Erregeon 3'gna.: 3, 16-28).—Egun areitan, emagaldu bi Salomon erregeagana joan ziran, eta bere aurrean, jarririk, batak auxe esan eutsan: «Entzun egidazu, mesedez, ene jaun orrek: ni ta emakume au etxe baten bizi gintzazan, eta bera egoan gelan ume bat egin neban. Nik umea eginda iru egunera, onek be umetxo bat egin eban. Alkarregaz gengozan, eta etxean ez zan iñor be gugaz, geu biok izan ezik. Baiña gabez, emakume onen semea il egin zan, lotan egoala ito egin eban-eta. Gaberdian, ixil-ixillik jagi-

jjíf, a-rtu eban nire semea zure mirabea lo egoan albotik eta bere bularrean jarri eban; bere seme illa, barriz, neure bulairrean ipiñi eban. Goizean, neure senieari bularra emoteko zutundu nintzanean, illik aur-lúti neban; baiña egunaren argitan abeto begiraturik, jñic egin neban umetxo ez zala ikusi neban.» Beste emakumeak erantzun eban: «Ez da orrela-, zure semea ildakoa da, ta bizi dana nirea.» Lenengoak, barriz, bestetara iñoan; «Guzurra diñozu: nire semea bizi dana da, ta zurea il dana.» Eta olantxe ziarduen eztabaidan erregearen aurrean. Orduan, erregeak auxe esan eban: «Neurea da bizi dan semea, diño onek, eta zeurea illa; beste onek, barriz, erantzunen dau: ez; zeurea dago illik, eta nirea bizirik. Ekarrl egidazue ezpata bat», esan eban erregeak. Erregeari ezpata ekarri eutsoenean, esan eban: «Egizue zati >i utne bizia, ta emon erdibana bakoitzari.» Erabagi onek, ostera, seme biziaren amarj. biotza ikutu eutsan, eta erregeari esan eutsan: «Arren, jauna!, emon egiozu berari urne bizia ta ez begie il.» Besteak, barriz, iñoan: «Ez niri ez zuri, erditoitu baiño.» Orduan, erregeak erantzun eta esan eban-. «Emon oni ume bizia, ta ez egizue il: bere ama auxe da-ta.» Israel guztian zabaldu zan erregeak emondako epaia, ta Jaunaren jakituriaz epaitzen ebala ikusirik, lotsa audia eutsoen.

Koru-kanta.—Jaungoiko zaindari ta igesleu izan zakiduz, salbau nagizun. Ene Jaungoiko!, Zeugan dot itxaropena; Jauna, ez naz iñoiz be lotsatuko.

Luzagarria.—Jauna, ez gagizuz erabilti egindako pekatuen neguriz, ezta gure gaizakeriai dagokien negurrira zigortu be, Jauna, ez egizuz gogora ekarri gure antxiñako pekatuak; betorgiku, barriz, lenbailen zure I errukia, oso beartsu egin gara-ta. (.*Belauniko emen.*) I Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osasun!, eta zure izen I goragarriagaitik, gorde gagizuz, Jauna; parkatu eigu-zuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Jon, 2, 13-25).—Aldi aretan, Judarren Pazko-jaiá laster zan, eta Jesus Jerusalem'era igo zan, I Eliza nagusian idi, ardi ta uso-saltzaille ta diru-aMatzailleak jesarriá ikusirik, lokarriáko zardai bat eginda, guztiak jaurti ebazan elizatik, ardi ta idiakaz batera, diru-aldatzailleen txanponak lurrean zear zabalduaz eta maiak itzuliz. Eta uso-saltzailleai esan eu-

isen: «Kendu emendik guzti au, ta ez biurtu nire Aí-
caren etxea salefosketa-eitze.» Aren ikasleak idatzit,
egoana gogoratu eben: "Zure etxeaganako garrak irun-
tsiten nau." Judarrak, erantzunik, esan eutsoen: «Orre-
la egiteko, ze ezaugarri erakusten daukuzu?» Jesus'ek
erantzun eta esan eutsen: «Eliza au ondatu egizue
ta fru egunean jasoko dot.» Judarrak erantzun eut-
tsoen: «Berrogei ta sei urtean egin izan da elza au
ta iru egunean zuk jaso?» Baiña Jesus'ek bere gor!
putz-ielizaz itz egiten eutsen. Aren ikas'leak, illen ar-
tetik biztu zanean gogoratu eben ori esan ebalá; ta
idatzirik egoana sinistu eben, baita Jesus'ek esanda-
koa be. Pazko-jaietan Jesus Jerusalem'en zan ar-
tean, Aren izena askok sinistu eben, egiten ebazan mi-
rariak ikusirik. Baiña Jesus bera ez yaken guztrj
zabaltzen, guztiak ondo ezagutzen ebazan-eta; gaiñera,
gizakiaz ez eban inoren autorrik bear, gizabarrua be
rez ezagutzen eban-eta.

Eskintza.—Goratu egizu Jaungoikoa, lur guztiak;
otseindu Jauna pozez beterik; joan Aren aufrera alai-
tsu, Jaun au Jaungoiko da-ta.

Opari-otoitza.—Jeskintzen dautsugun opari onek,
Jauna, bizkortu ta indarbu gagizala beti. Amaibagako!

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzer3koa.—Garbitu nagizu, Jauna, aztu yata-
zan pekabuetatik, eta foesterenik ez niri ezarri.

Azkert-otoitza.—**Artu** dogun Eukaristi onek, Jauna
betiko osasunerako irabazia geitu daiskula. Amaibal
gako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok
JaungoikoarenURREAN.—Entzun biotz onez gure eska-
na, Jauna; ta mesedeak eskatzeko gogoia isuriten daus-
kuzun ezkeru, emon egiguzu zure laguntasunaren in-
darra be. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTEKO ASTARTEA

3gn. maila. — Vbelez

Sarrera.—Entzun, Jaungoiko!, nire otoa, ta ez egizu
bazerutu nire eskaria; lagun zakidaz, ta entzun,—
Ps. Estualdian naigabetu egin nintzan; arerioaren
oiak eta pekatariaren jazarpenak larritu egin nabe,—
Aintza.

Otoítza.—Baraualdi santu onek, Jauna, geitu dai-
gula Zuganako oneraspena (deboziñoa), ta zure erru-
kiaren etenbagako laguntza emon daiskula. Amaiba-
oako .

Irakurgaia (Urteera, Ex., 32, 7-14).—Egun areitan,
jaunak Moises'i itz egin eta auxe esan eutsan: «Jatsi
zaitez menditik, Ejipto'tik atara zenduan erriak peka-
tu egin dau-ta. Laster aldendu dira erakutsi zeutsen
bidetik; urrezko zekor bat egin eta gurtu egin dabe, ta
ari opaTiak eskiñirik, auxe esan daibe: Auxe da, Israel,
Bjipto'tik atara zenduan zure jaungoikoa.» Eta geiago
esan eutsan Jaunak Moises'i: «Erri au burugorra da-
la ondo dakust; itzi egidazuustu dagidan nire asarrea
arein aurka ta birrindu dagidazan, ta erri aundi ba-
ten buruzagi egingo zaitut.» Baiña Moises'ek otoi egu-
iten eutsan bere Jaungoiko Jaunari, esanez: «Jauna,
fégaitik iziotzen da zure sumiña*, indar aundiz ta es-
ku sendoz Ejipto'ko lurretik atara zenduan erri onen
aurka? Ez hegie esan Ejlpto'tarrak: Azpikeriz atara
ebazan, mendietan li daitezán eta lurretik garbitu dai-
tezan. Bigundu bedi zure sumiña, ta parkatu zure
erriari bere gaiztakeria. Gogoratu egizu zure otsein
Abraham'i, Isaak'i ta Israel'i zin au egin zeutsela, Zeu
zaranez: "Zeruko izarrak lez ugarituko dot zuen azia,
ta aiatatu dautsuedan lur oso au zeuen ondorengoai
emongo dautset, eta zeuena izango da beti." Ta Jau-
na bigundu egin zan, eta ez eutsan bere erriari ezarri
esan eban zigorra.

Koru-kanta.—Jagi zaitez, Jauna; lagun zakiguz eta
zaindu gagizuz zeure izenagaitik. Geure belarriz entzun
gendum, Jaungoikol, ta geure gurasoak iragarri eua-
ieaz euren egunetan eta antxiñako aldietan egin
zenduzan arrigarriak.

Barri Ona (Jon, 7, 14-31).—Aldi aretan, jaiaren erdi
aldean, Jesus Eliza nagusira igo ta irakasten asi zan.
Eta judarrak, a-rrituta, inoen. «Zelan ete-dakiz onek
Liburu Santuak, fñun ikasi ez-ta?» Jesus'ek erantzun
eta esan eutsen: «Nire irakatsia ez da nirea, ni bialdu
nauanarena baiño. Jaungoikoaren gogoia inok egin nai
ba'dau, ezagutuko dau nire irakaspenna Jaungoikoagan-
dikoa ete'dan, ala nire buruz itz egiten dodan. Beré

* Sumin = cólera.

buruz itz egiten dauanak, norberaren aintza billatzen dau; bialdu dauanaren aintza billatzen dauana, barriz egizale da, ta aregan gaiztakeririk ez dago. Ez dautsue' Moises'ek Legea emon? Alan be, zuetariko batek be ez dau Legea beteten. Zegatik il nai nozue?» Gizataldealc erantzun eta esan eutsan: ««Txerrena (deabrua) dozu • nok il nai zaitu ?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Egintza' bat egin dot, eta, guztiok ikaratu egiten zaree. Alan be, erdaintzuntza* Moises'ek emon eutsuen (ez Moises'ek asmauta, barriz, gurasoakandik artuta baiño), ta zuek gizonaren erdaintzuntza zapatzuz egiten dozue. Moises'en legea ez austeko, gizonaren erdaintzuntza zapatzuz be egiten ba'dozue, larunbatez gizon osoa osatu dodaiako asarre zatorkidaze? Azaletik ez ebatzi, zuzenbidez baiño.» Eta Jerusalemarrak batzuek iñoen: «Ez al da au il nai dabena? Or dago, ba, agirian itz egiten, eta iñoek ez dautso ezer esaten. Ala, gure nagusiak ezagutu ete-dabe egiz, Mesias dala au? Baiña au nungoa dan ba-dakigu; Mesias etorri daitenean, barriz, iñoek ez dau jakinko nungoa dan.» Eta Jesus'ek, Eliza Nagusian irakasten ziarduala, deadarka iñoan: «Ni ezagutzen nozue, ta nungoa nazan be ba-dakizue. Baiña ni ez naz neure buruz etorri; beste batek bialduta etorri naz, ta Bera egizale da. Zuek ez dozue A (Jaungoiko Aita) ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dot, Beragandik nator eta Berak bialdu nau-ta.» Orduan, Jesus arripau ta lotzeka asmoa artu eben; baiña iñoek ez eutsan eskurik ezarri, Aren sasoi ez zan oraindiño eldu-ta. Baiña gizataldeko askok Beragan jarri eben sinista.

Eskintza.—Íbiotz-biotzez itxaron neban Jaunagan, eta entzun egin nenduan; entzun eban nire eskaria, ta abesti barri bat ipiñi eustan agoan, gure Jaungoikoa goratzeko ereserkia.

Opari-otoitza.—Opari onek, Jauna, garbitu begiz gure pekatuak; eta eskintza au ospatzeko, zure menpekoen gorputz-arimak santutu dagizala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Zeugandiko osasunak poztuko galtu, ta gure Jaungoiko Jaunaren izena ospatuko dogu.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi onek, Jauna, oarbitu gaizala pekatutik, eta zeruko erreñura eroan dagizala. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok jaungoikoaren aurrean.—Erruki zakioz, Jauna, zure erriari; eta etenbagako naigabeetan dabilien ezkerre, nasai arnasa artu dagiala egiozu biotz-onez. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTEKO EGUAZTENA

3^{gn.} maila. — Ubelez

Sarrera.—Zuei buruz nire santutasuna agertu dagidanean, lurralde guztietatik batuko zaituet, eta ur gariena isuriko dautsuet, eta loi guztietatik garbituko zaree; ta arnasa barria emongo dautsuet.—*Ps.* Aldi oro goratuko dot Jauna; beti izango dot agoan Aren gorapena.—Aintza.

Kyrie esan ondoren, abadeak, Epistola-albora joanda, auxe iño:

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitez. (*Belauniko apurtxo baten*). Zutundu zaitez.—Barauaren bidez, zintzoai euren irabazien saria ta pekatariari parkamena emoten dautsezun Jaungoikoa: erruki zakiguz, deiez gagokizuz-ta; geure erruak autorturik, parkamena jadetsi daigun. Amaibagako.

Irakurgaia (Urteera, Ex., 36, 23-28).—Auxe difio Jaungoiko Jaunak: Neuk jasoko dot nire izen aundia atzerrietan, zeuek loitu zendenen arein artean-eta: atzerrietarrak be, arein aurrean goratu nagizueanean, Neu nazala Jauna jakin dagien. Atzerrietarren artetik atarako zaituet, eta lur guztietatik baturik, zeuen lurrera eroango zaituet. Ur gardena isuriko dot zuen gaiñera, eta zuen loikeri guztietatik garbi geldituko zaree, ta zuen sasi-jaungoiko guztietatik urrindu egingo zaituet. Biotz barria emongo dautsuet, eta arnasa barria ipiñiko dot zuen barruan; zuen gorputzetik arrizko biotza kendu ta aragizko biotza ezarriko dautsuet. Neure arnasa jarriko dautsuet barruan, ta neure aginduak gorde ta neure legea zaindu ta bete-eragingo dautsuedaz. Zeuen gurasoi emon neutsen lurrean bizi izango zaree. Zeuek izango zaree neure erri, ta Neu izango no-
%Lé Jaungoiko, diño Jaun aiguztidunak.

* Erdaintzuntza = circuncisión.

Koru-kanta.—Etorri zaiteze, semeok, eta entzun: Jaunaren bildurra irakatsiko dautsuet. Urreratu zakioze, ta argituak izango zaree; ez dira lotsaz gorrituko zuen arpegiak.

Emen, abadeak Dominus vobisoum diño.

Otoitzta.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!: barau agurgarri oneik zigortzen gaituenok, Zu ganako oneraspen santu onek be poztu gagizala: lurrerako zalekeriak ezirik, zeruko ondasunak errazako jadetsi daiguzan. Amaibagako.

Irakurgaia (Isaías, 1, 16-19).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Busti ta garbitu zaiteze; alden du egizuez nire begi-aurretik zuen asmo gaitztoak; naiko da txarke-rik, on egiten ikasi; billatu zuzentasuna, emon eskua zapalduari, urnezurtza gorde, alarguna zaindu. Etorri zaiteze, ta alkar entzun dagigun, diño Jaunak: zuen pekatuak gorrimin* lez ba'dira be, edurra baizen zuri geldituko dira; ta origorria* lez ba'dira, ule zuria baizen garbi. Nai ba'dozue, ta entzun ba'nagizue, lurreko ondasunak jango dozue, diño Jaun alguztidunak.

Koru-kanta.—Zoriontsuak, Jauna euren Jaungoikotzat dabena: Jaunak bere ondorentzat* aukeratu eban erria. Jaunaren berbaz gogortu zan zerua, ta Aren gogoak emon dautso indar guztia.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabili, 161 orri.

Barri Ona (Jon, 9, 1-38).—Aldi aretan, Jesus*ek, bidez joiala, jaiotzez itsua zan gizon bat ikusi efoan. Eta ikasleak itandu ebsaen: «Irakasle, ori itsu jaioteko, nok egin dau pekatu: orrek, ala orren gurasoak?» Jesus*ek eraritzun eutsen: «Ez dau orrek pekatu-rik egin, ezta orren gurasoak be; Jaungoikoaren egintzak orregan agertu daitezan da ori. Eguna dadin artean, bialdu nauanaren lanak egin bear dodaz; ba-dator gaur, ta aretan iñok ezin lanik egin daike. Gizarte-an nagoan artean, gizargi naz.» Au esanda, txistu (txu) egin eban lurrera, ta txistuaz loa egiñik, loiaz itsuaren begiak igurtzi ebazan; eta esan eutsan: «Zoaz, ta Siloe*ko urtegian garbitu zaitez.» (Siloe itzak "bialdua" adierazoten dau). Joan zan, ba, itsua, garbitu ta ikus-

* Gorrimin = grana. * Origorri = bermellón. * Ondoren = herencia.

ten eba la biurtu zan. Orduan, auzokoak eta gizon a len eskean ibiltzen ikusi ebenak, iñoen: "Ez al da au jesarrita eskean ziarduana?" Batzuek iñoen: «Bai, auxe da». Beste batzuek, ostera. «Ez, aren antzeko bat baiño». Baiña.berak iñoen: «Bai, berbera naz.» Itandu eutsoen, bada: «Begiak zelan zatoaldu yatzuz?» Erantzun eutsen: «Jesus deritxon gizonak, loaia eginda, begiak igurtzi ta esan daust: Zoaz Siloe*ko urtegia, fta garbitu zaitez. Ta ara joan, eta garbituta, ba-dakust (ikusten dot).» Eta esan eutsoen: «Non dago bera?» Ta dirautse: «Ez dakit.» Itsu izandakoa pariseotarrakana daroe. Jesus*ek loaia eginda begiak zabaldu eutsazan eguna, larunbata (zapatua) zan. Barriro be, pariseotarrak itandu eutsoen, ba, zelan ikusi eban; eta arek esan eutsen: «Begi-gaiñean loaia ezarri eustan, garbitu nintzan, eta orain ba-dakust.» Pariseotar arteko batzuek iñoen: «Gizon au Jaungoikoagantik ez dator., larunbata ez dau jai egiten-eta.» Baiña beste batzuek iñoen: «Pekatarri batek onelako mirariak, zelan egin daikez?» Eta eztabaida sortu zan arein artean. Beraz, itsuari barriro dirautsoe: «Begiak zabaldu dautsuzan orretzaz, zer diñozu zuk?» Arek erantzun eutsen: «Igarl, dala.» Baiña judarrak ez eben sinistu gizon a ikustea jadetsi eban itsua zanik, ikustun barriaren gurasoai dei egin arte. Itandu eutsen, beraz: «Au al-da itsu jaijo zala diñozuen zuen semea? Orain zelan ikusten dau, ba?» Aren gurasoak erantzun eta esan eutsen: «Au geure semea dana ta itsu jaijo zana ba-dakigu. Baiña, orain zelan ikusten dauan, ez dakigu, ezta begiak nok zabaldu dautsazan be. Berari itandu egiozue; zéntzuna ba-dau; berak bere buruaz itz egin begi.» Judarren bildur ziralako, esan eben ori aren gurasoak; orduko, judarrak alkartuta egozan norbaitek Jesus Kristo*tzat artu ba'legi, sinagogatik jaurtia izan zedilla. Orrexegaitik esan eben itsuaren gurasoak: "Zentzuna ba-dau; berari itandu egiozue." Beraz, itsu izandakoari barriro dei egin, eta esan eutsoen: «Emon egiozu aintza Jaungoikoari. Guk badakigu gizon ori pekatari dana.» Arek erantzun eutsen: «Pekatarri dan, nik ez dakit; auxe bakarrik *úakit*: len itsu izanik, orain ifcusi egiten dodala.» Esan eutsoen: «Zer egin eutsun? Zelan garbitu eutsazan begiak?» Arek erantzun eutsen: «Een be esan neutsuen, eta entzun zenduen; zetarako entzun nai

dozue barriro? Zuek be Aren ikasle izan nai dozue, ala?» Orduan, a madarikafcu ta esan outsoen: «Izan zaitetz zeu Aren ikasle; gu Moises'en ikasle gara. Guk ba-dakigu Moises'i Jaungoikoak berba egin eutsana; au, barriz, ez dakigu nundik etorri dan.» Gizonak erantzun eta esan eutsen: «Auxe bai da'la arrigarria! Zuek ori nungoa dan ez dakizue, ta Berak zabaldu daustaz nire begiok. Ba^dakigu pekatariai ez dautsena Jaungoikoak entzuten; Ari bildur dautsoenai ta Aren naia egiten dabena, barriz, entzun egiten dauteela. Egundo e?; da entzun itsu jaiolari begiak iñok argitu dautsazarnk. Ori Jaungoikoagandik ez ba'litz, ezin ezer egin leikean.» Erantzun eta esan outsoen: «Pekatu utsetan jaiio zintzazan, eta irakasten be ba-zator-kiguz?» Eta kanpora jaurti eben. Gizona kanpora jaur. ti ebeña entzun eban Jesus'ek, eta aurkitu ebanean, esan eutsan: «Gizasemearen sinistea ba-dozu?» Arek erantzun eutsan: «Jauna, nor da Ori, Orregan sinistu dagidan?» Jesus'ek esan eutsan: «Ikusi be egin dozu zuk, eta zeugaz izketan diarduana bera da.» Ta arek esan eban: «Sinisten dot, Jauna.» (*Emen belauiniko*). Ta auzpezturik, gurtu egin eban.

Eskintza.—Bedeinkatu egizue, erriok, gure Jaungoiko Jauna, ta egin deadar Aren omenez. Berak emon dautso bizia nire arimari, ta ez dau itzi nire oiñak kiholorik egin dagien. Onetsia izan bedi Jauna, nire eskaria ez dau baztertu-ta, ezta bere errukia nigandik alboratu be.

Opari-otoitza.—Opari onek garbitu dagizala gure pekatuak, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguztidun orri; orrela, gorputz-arimako benetako osasuna emoten dauskuzu-ta. Amaibagako. "

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jaunak loaia eginda, begiak igurtzi eustazan; joan eta garbitu nintzan, eta ikusi egin neban, eta sinisten dot Jaungoikoa.

Azken-otoitza.—Artu dogun EukariBiti au, gure Jaun eta Jaungoiko!, arimarako janari izan dakigula, ta gorpuzterako laguntza. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoi egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Zabaldu, Jauna, errukizko belarriok otoi egiten diarduen eskarietara; eta opa da-

beni emon dagiezun, gogoko yatzuna eskatu dagitzuela egizu. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTEKO EGUENA

3^{gn}. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Poztu beitez Jaunaren billa dabizan biotzak; billatu Jauna ta Onen indarra; billatu beti Aren arpegia.—Ps. Autortu egizue Jauna ta dei egiozue Aren Izenari; iragarri Aren egintzak atzerritarren artsan.—Aintza.

Otoitza.—Egizue, arren, Jaungoiko alguztidun orrek! barau agurgarri oneik zigortzen gaituenok, Zugarako oneraspen santu onek be poztu gazigala; Lurrerako zalekeriak ezirik, zeruko ondasunak errazago jadetsi daiguzan. Amaibagako.

Irakurgaia (Erregeen 4^{gna}.: 4, 25-38).—Egun areitan, Sunan'go emakume bat Eliseo'gana etorri zan Karmel-mendira; ta Jaungoikoaren gizonak, bere billa etorrela ikustean, bere morroi Giesi'ri auxe esan eutsan: «Ara, axe da Sunamitarra; urten zakioz bidera, ta esan egiozu: Onik zagoze zu ta zure senarra ta zure semea?» Arek erantzun eban: «Ederto.» Alan be, Jaungoikoaren gizonagana mendira eldu zanean, oiñetara auzpétzu yakon. Giezi andik kentzera joan yakonean, Eliseo'k esan eutsan: «Itzi egizu, biotza nalgabez beterik dauko-ta; Jaunak isfldu egin daust eta ez daust agertu.» Emakumeak esan eutsan: «Semerik eskatu ete-neutsun, ene jauna? Ez ete-neutsun esan ez nengizula atzipetu*?» Eta Eliseo'k Giezi'ri esan eutan: «Jantzi gerrikoa, artu neure makilla eskuan eta isoaz. Bidean iñor aurkitzen ba'dozu, ez egizu agurtu; eta iñok agurtzen ba'zaitu, ez egiozu erantzun. Ezarri egizu nire makilla umearen arpegi-ganean.» Baiña umearen amak esan eban: «Jaunagaitik eta zure arimagaitik, ez zaitut itziko.» Jagi zan, ba, Eliseo, ta emakumearen atzetik joan zan. Giezi, ostera, areik baiño lenago joan zan, eta umearen arpegi-gaiñean ipiñi eban makilla; baiña ez eban ez otsik egin ez konortetik agertu; ta Eliseo'ren billa biurturik, esan eutsan: «Umea ez da biztu.» Sartu zan, ba, Eliseo etxera, ta

* Atzipetu = engaiñar.

umea ogean etzanda ta illik aurkitu eban. Gelan sarturik, barruan gelditu zan umeagaz soillik (bakarrik), eta otoitz egin eutsan Jaunari. Gero, ogera igo, ta umearen gainean etzun zan; eta bere agoa umearen gainean, eta begiak begien gainean, eta eskuak eskuen gainean ezarri ebazan; eta aren gainean markaturik, umearen aragia berotu egin zan. Eta jatsirik, ara ta ona ebillen etxean; eta barrero igorik, aren gainean etzun zan; eta umeak zazpi aldiz arrausi egin ondoren, begiak zabaldu ebazan. Orduan, Eliseo'k Giezi'ri dei egin eta esan eutsan: «Dei egiozu Sunamiitar orri.» Etorririk, sartu zan emakumea Eliseo egoan lekura eta onek dirautso: «Artu egizu zure semea.» Urreraturik, oiñetara auzpeztu yakon, eta gurtu egin eban; eta bere semea arturik, urten zan. Eliseo, barriz, Galgalara biurtu zan.

Koru-kanta.—Gogoratu, Jauna, zeure alkartasuna ta ez zaitez betiko aztu zure beartsuen biziak. Jagi, Jauna, ta garbitu zure auzia: izan egizu gogotan zure menpekoai egindako iraiña.

Barri Ona (Luk., 7, 11-16).—Aldi aretan, Jesus Naim izeneko urira joian, eta Aregaz bere ikasle ta laguntalde undia. Eta uriko atera urreraturaz batera, arna aiargunaren seme bakarra ekarren ilda, ari lurra emoteko; ta askoak joiazan alargunagaz. Jaunak alarguna ikusi ebanean, aretaz errukiturik, esan eutsan: «Ez negarrik egin.» Eta urreraturik, ilkutxa* ikutu eban, eta eroienak galditu egin ziran. Orduan, esan eban: «Mutil, zeuri dirautsut: jagi zaitez!» Eta ildakoa jagi ta itz egiten asi zan. Eta Jesus'ek amari emon eutsan. Guztiak ikaratuta, Jaungoikoa goratzen eben, esanez: «Igarle aundi bat agertu de gure artean, eta Jaungoikoa bere «rriagana 'etorri da!»

Eskintza.—Jauna, zatoz arin niri lagun egitera; Iotsatu beitez zure menpekoen ondamentia nai daben guztiak.

Opari-Ttoitza.—Garbitu gagizuz, Jaungoiko errukior orrek!; oparigai samtu oneik arima garbiz Zun eskintzean, orrenbeste gogoko yatzuzan zure Elizaren otoitzok gogokoago izan dakizuzan. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

* Ilkutxa = ataid.

Jaunartzerakoa.—Jauna, zeure zuzentasuna baiño ez dot aitaturko. Ene Jaungoiko!, Zeuk irakatsi zeus tar gaitetarik; ez nagizu, ba, zartzaroan be itzi.

Azken-otoitza.—Zure Eukaristia artu dogun ezkerro, jauna, ez dakigula kalterako izan, zeure zintzoen onerako egin zenduan-eta. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok jaungoikoaren aurrean.—Zure erriaren irakasle ta zueendari zaran Jaungoikoa!: alden du beragandik inguratzan daben pekatuak. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTEKO BARIKUA

3^{gn}. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Nire biotzeko gogaketak (pentzamentuak) beti zeure aurrean, Jauna, ene laguntzaile ta salbatzaile!—Ps. Zeruak Jaungoikoaren aintza iragarten dau, ta izartegiak Aren eskuen egintzak,—Aintza.

Otoitza.—Esan-ieziñezko era ezkutuz gizadia barritzen dozun Jaungoikoa: egizu, zure Eliza joan daitela aurrera betiko irakaspenez, eta oraingo leguntza bagarlk ez daitela gelditu. Amaibagako.

Irakurgaia (Erregeen 3^{gna}.: 17, 17-24).—Egun areitan, etxekoandra baten semea geisotu egin zan, eta arnasa bagarik gelditzeraino geisotu be. Beraz, Elias'i esan eutsan: «Zer egin dautsut nik zuri, Jaungoikoaren gizon orri? Nire pekatuak gogora ekartera ta semeari bizia kentzera etorri eta-zara nigana?» Elias'ek diñots: «Emon egidazu seme ori.» Artu eutsan altzotik, eroan eban gelara, ta oge-ganean ipiñirik, Jaunari deadar egin eutsan, esanez: «Ene Jaun eta Jaungoiko!: toere etxean artu nauan alargun au atsekabetu dozu, bere semeari bizia kendurik?» Eta etzunik, iru aldiz makurtu zan umearen gainean, eta Jaunari dei egin eutsan, esanez: «Ene Jaun eta Jaungoiko!: ume oni bizia biurtu egiozu gorputzera.» Eta Jaunak entzun egin eban Elias'en eskaria; ta umeari bizia etorri yakon barrero, ta biztu egin zan. Gero, artu eban Elias'ek umea, ta bere gelatik etxeko beko gelara jatsirik, amari emon eutsan, esanez: «Eman daukazu semea bizerik.» Eta emakumeak Elias'i dirautso: «Oraitxe eza-gutu dot Jaungoikoaren gizona zarana, ta benetan dagoana zure agoan Jaunaren itza."

Koru-kanta.—Obe da Jaunagan itxarotea, gizonagan baiño. Obe da ustea Jaunagan jartea, agintarietan baiño.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabilli, 161 orri.

Barri Ona (Jon, 11, 1-45).—Aldi aretan, Lazaro izeneko Betaniar bat, Mari ta Marta aizten auzokoa, geisorik egoan. Mari, barriz, Jauna usaingarriz igurtzi ta foere adatsaz* Aren oiñak ezefn'du (sikatu) eutsazana zan; onen neba Lazaro orain geisorik egoan. Eta aren arrebak Je'sus'i barri au bialdu eutsoen: «Jauna, zuk maite dozuna, geisorik dago.» Jesus'ek, au entzunda, esan euteen: «Ez ida eriotzarako geisoa, Jaungoikoa-ren aintzarako baiño, orrentoidez Jaungoikoaren Semea goratua izan dadin.» Jesus'ek Marta ta onen aizta Mari ta Lazaro maite ebazan. Eta au geisorik egoala entzun ebanarren, oraindiño toki aretan egun bian geditu zan. Gero, bere ikasleai esan eutsen: «Goazan barriro JUdea'ra.» Ikasleak dirautsoe: «Irakasle, judarrak oraintsu arrika egin nai eutsen, eta barriro be ara zoaz?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Egunaren orduak amabi ez dira? Egunez debillena, ez dabil itsumustuka, lur onetako argia ikusten dau-ta; gaeuz dabillena, barriz, itxumustuka dabil, argirik arentzat ez dago-ta.» Onela itz egin ondoren, esan eutsen: «Lazaro, gure adiskidea, loak artu dau; baiña lotatik iratzartzera noakio.» Ikasleak esan ieubsoen: «Jauna, lo ba'dago, osatuko da.» Jesus'ek aren eriotzaz iñoan; baiña areik loak-artzeaz iñoala ustie izan eben. Orduan, Jesus'ek argi ta garbi esan eutsen: «Lazaro il egin da; ta pozten naz zuekaitik, an ez nintzalako, sinistu dagizuen. Goazan, ba, aregana.» Didimo izenordeko Tomas'ek ikas-kideai esan eutsen: «Goazen geu be, Onegaz batera il gaifcezan.» Ara eXduta, Jesus'ek Lazaro lau egun ezkerro illobian egoala aurkitu eban. Betania Jerusalem'dik urrean egoan, amabosten bat estadiko bidean (1). Judar asko Marta ta Mari'gana etorri ziran, nebagaitiko samiañ arei arintzeko. Marta, Jesus etorrela entzunda bereala, bidera joan yakon; Mari, barriz, etxean gelditu zan. Eta Marta'k Jesus'i esan eutsan: «Jauna, emen izan ba'zintzaz, nire neba ez zan ilgo. Orain be

pa-dakit, orraitino, Jaungoikoari eskatu dagiozun guztia, Jaungoikoak emon egingo dautsuna.» Jesus'ek dirautso: «Zure neba biztuko da.» Marta'k dirautso: «Bat-dakit azken-egunean berbiatuko dana.» Jesus'ek dirautso: «Neu naz berbizkundera ta bizitza; Nigan sinistu dagiana, il ezkerro be, bizi izango da; ta Nigan sinistuaz bizi dadiña ez da egundo ilgo. Au sinisten dozu?» Bai, Jauna —erantzun eutsan—; sinieten dot Kristo, lur onetara etorritako Jaungoiko biziaren Semea, zeu zarana.» Au esanda, joan zan; eta bere aizta Mari'ri ixilpean dei egiñik, esan eutsan: «Irakaslea dago or, eta Beragana joateko.» Mari, au entzun ordukoxe, jagi ta arin joan yakon. Jesus ez zan oraindiño erritxora eldu, ta Marta'k aurkitu eban tokian egoan. Etxean Mari'ri samiañ arintzen ziarduen judarrak, Mari beingo baten urten zala ikusirik, jarraitu egin eutsdén, illobira negar egitera joialakoan. Mari, ba, Jesus egoan tokira eldu zanean, ikusi ebaneko, oiñetara auzpeztu yakon, esanez: «Jauna, emen izan ba'zintzaz, nire neba ez zan ilgo.» Mari negarrez, ta onegaz etorritako judarrak be negarrez ikustean, Jesusien barrua dardaraka asi zan; eta biotza erdibiturik itandu eutsen: "Nun jarri dozue?" Esan eutsoen: "Jauna, zatoz eta ikusi egizu." Jesus'ek negar egin eban. Eta judarrak ifioen: "Bene-tain maite eban gero!" Beste batzuek, barriz, iñoen: "ttsuaren begiak argitu ebazan Onek, orren iltea ez zeikean galerazo?" Beraz, Jesus, barriro bere barruan dardaraka jarririk, illobira urreratu zan. Illobi au artzulo bat zan, gainean arri bat ebal. Jesus'ek diño: "Kendu egizue arri ori." Ildakoaren arrea Marta'k dirautso: «Jauna, onezkerro aitsa dario, lau egun bada-ira il zala-ta.» Jesus'ek dirautso: «Ez dautsu esan ba, sinisten ba'dozu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dozula?" Beraz, kendu eben arria. Jesus'ek, begiak zeruruntz zuzendurik, esan eban: "Aita, eskerrak emoten dautsudaz entzun nozulako. Ba-nekian, bai, beti entzuten nozuna; baiña inguruan dagozanokaitik esan dot, Zeuk bialdu nozula sinistu dagien." Au esanda, deadar gogorre ez esan eban: "Lazaro, urten ortik!" Eta bereala ildakoa urten egin zan, oin-eskuak lotuta, ta bere arpegia izaraz estalduta. Jesus'ek esan eban: "A* katu egizue, ta doala." Arrezkerro, Mari'gana etorritako judar askok, Jesus'ek egin ebana ikusita, Aren sinistera jo eben.

* Adats = cabellera.

(1) Amabost estadi: iru kilometru inguru.

Eskintza.—Erri apala Zeuk askatu dozu, Jauna baita arruen begiak taeratu be; izan be, Zeu izan ezik' Jauna, nor Jaungoiko?

Opari-otoitza. — Eskiñi doguzan oparigaiok garbitu gageizala, Jauna, ta guzanako zure errukia emon daiskuela beti. Amaibagako.

JKanon-aurrea: *Garizumakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jaunak, Lazaro'ren arrebak illobi -cndoan negarrez ikusirik, Berak be negar egin eban judarren aurrean, eta deadarrez esan eban: Lazaro, ur ten ortik; eta urten egin zan, oin-eskuak lotuta, lau egun zirala ilda egoana.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi onek, Jauna, garbitu gaizala beti gure pekatuetatik, eta zaindu gaizala gaitz guztietatik. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!: geure argaltasuna ezaguturik, zeure indarrean itxaroten dogun ezker, zure errukiak poztu gaizala beti. Amaibagako.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTEKO LARUNBATA

3^{gn}. mailla. — *Ubelez*

Sarrera.—Etorri zaitze uretara, egarri zareenok, diño Jaunak; eta dirurik ez daukazuenok be, etorri ta edan egizue pozez beterik.—*Ps.* Aditu egizu nire legea, ene erri; makurtu zuen entzumena nire agoko itzetara.—*Aintza.*

Otoitza.—Oure oneraspenaren zaletasuna, onurakorra izan bekigu, Jauna, zure graziaren bidez: gure barauok zeure errukiari gogoko ba'yakoz bakarrik egingo dauksue on-eta. Amaibagako.

Irakurgaia (Isaias, 49, 8-15).—Auxe diño Jaunak: Aldi egokian entzun zendudazan, eta osasun-egunean Jagundu. Zaindu ta neure erriaren Ibitarteko egin zendudazan, lurra barriztu zengian eta solo galduen jatoe izan zeitezaz; azpfratui esan zegien: «Urten ortik»; eta illunpean bizi zeitezana: «Etorri argitara.» Bideetan jana izango dabe, ta ibar guztietan larra ugari. Ez dabe ez goserik ez egarririk izango; beroak eta'

eguzkiak be ez dautse kalterik egingo: arein erruki danak zainduko dauz, ur-iturrietan emongo dautse edaten-eta. Nire mendi guztietan be zidorrak zabalduko dodaz, ta nire zidorrak bide biurtuko dira, Batzuk urrindik etorriko dira, beste batzuk iparraldetik eta itxasaldetik; besteak, egoi-ak-3etik. Goratu, zeruok; poztu zaitze, lurra; abestu egizue, mendiok; Jaunak bere ; erria poztu egin dau ta bere txiroai errukia agertuko daufcse-ta. Orduan, Sion'ek auxe esan eban: «Jáunak bertan-bera itzi nau; Jauna .nitzaz azku egin daliiAma bat aztu ete-daiteke bere umetxoaz, eta ez ete-da errukit zero eban semeaz? Eta ta aztu ba'ledi be, Ni ez nintzake zutzaz aztuko, diño Jaun alguztidunak.

Koru-kania.—Zeuk dozu beartsuaren ardura, Jauna; [Zeu zara umezurtzaren laguntza. Zer dáia-ta urrin-du zara orrenbeste, Jauna? Zer dala-ta gorde zara nire larriaidian? Bitartean, deungea an-o dago, ta beartsua kiskaltzen.

Barri Ona (Jon, 8, 12-20).—Aídi aretan, Jesus'ek [judar-tajldeai auxe esan eutsen: «Neu naz munduaren argia; Jarraitzen daustana, ez dabil illunetan; bizi-ar- [gia beragaz izango dau, ostera.» Pariseotarrak esan eutsen.- «Zuk zeutzaz egiten dozu autor; zure autor | orrek ez ,dau indarrik.» Jesus'ek, erantzunik, esan eutsen: «Nik neutzaz autor legiñarren, jatorra da nire autorra: nundik etorri nazan eta nora noan ba-dakit-eta; t zuek, ostera, ez dakizue nundik natorren eta noranoan. I Zuek aragi¹bidez epaitzen dozue; Nik ez dot iñor epai-I tzen. Eta Nik epaituarren, epai au zuzena da; ez nago f Ni bakarrik-eta; bialdu nauan Aita Neugaz dago-ta. I Zuen legean idatzita dago, gizon biren autorra jatorra dala. Nik neutzaz autor egiten dot, eta Ni bialdu nauan Aitak be Neutzaz autor egiten dau.» Orduan zirautsoen: «Nun da zure Aita?» Jesus'ek erantzun L eutsen: «Ez Ni, ezta nire Aita toe ez gauzue ezagutzsn; ezagutu ba'nengizue, nire Aita be ezagutuko zeukee.» Itzok, diru-toki ondoan esan ebazan Jesus'ek, Eiiiza nagusian irakasten ziarduan artean; baiña ez eutsan iñok eskurik ezarri, Aren garaia (sasoia) oraindiño ez ' zan eldu-ta.

Eskintza.—Jauna nire indar, igesleku ta askatzaille I egin da; Beragan dot itxaropena.


Opari-otoitza.—Gure oparigaiok arturik, bigundu zaitez, Jauna; ta gure asmo biurriak eroan egizuz samurkiro zeugana. Ama&agako.

Kanon-aurrea: *Garizumákoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jauna dot artzain, eta ez dot ezeren utsik izango; toki bedartsuetan ipiñi nau; atsenden-iturrietara eroan nau.

Azken-otoitza.—Zune Eukaristiak garbitu gaizala, Jaungoikoaren aurrean.—Zugan itxaroten dabenai asazala. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Zugan itxaroten dabenai asarre egin baiño parkamena emon naiago dozun Jaungoikoa: egindako pekatuakaitik negar egin daigula eiguazu, zure pozaren grazia jadetsi daigun. Amaibagako.




KRISTO'REN NEKALDI-AROA

Neke aldia deritxagu gaur asten dogun aldi deun oni. Gugaitik eroan eban Jesus maitearen eriotz latza ekarten dauku gogora egun oneitan gure Eliza Amak, Neke, lor, illun, atsekabe, saldukeri, negar, izerdi ta odola edonun. Gizonak, izaki txatxar -ezerez onek, Jauna bere Egille ta Salbatzaillea gurutzean untzez josi: ona emen gizadiak egiñiko gaiztakeririk baltzena ta ikaragarriena.

Dongakeri au gogorazoteko, EHza Amak zapi ubelez (morauz) jazten dauz altarak: Santu guztiak alde batera itzi, ta Gurutzeko Jesukristo gure Eroslearen gomuta bakarrik ftean daigun.

Amabost egun oneitako Mezetan, ez da «Iudica me» esaten, ezta Sarreran eta eskuak garbitu ondoren Gloria patri'rik be.

Nekaldiko bigarren astea, Abar edo Erremu-igandez asten da, ta Aste Aundi edo Aste Guren be ba-dau izena.



NEKALDI EDO PASIÑOKO LENENGO IGANDEA

l'go. mailla. — Ubelez

Kristo'k odolez garbitu bear izan genduzan. Israeidarrak, Ejipto'tik urten baino len, bildots-odolez garbitu ebezan eureri afeak, eta alantxe alde egin eben Faraon'en buztarpetik. Egiazko Bildots dogun Kristo'k be, gu askatu ta deabruareri menpetik ataratearren, Gurutze-egurra gorritu' eban bere Odol santuz.

Biblia.—Jeremias.: 1, 4-19; 2, 12-25; 3, 12'tik 4, 4'ra-4, 19-31; 7, 1-II; 11, l'etik 12, 13'ra; 14, 17'tik 15, 21'era 17, 12-18.

M E Z A

Sarrera.—Ebatzi Zeuk, Jauna, nire auzia, ta egizu nire alde bada-ezpadakoen aurka; gizon gaizto ta gurztiakandik zaindu nagizu: nire Jaungoiko ta indar Zeu zara-ta.—*Ps.* Biatdu egidazuz zure argia ta egia: eurak zuzendu ta eroango nabe zure mendi santura ta bizitokira.—*^*Ebatzi Zeuk...

Otoitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun orrek! Begiratu semurkiro zure etxeokak: zure grazia gorputzean eta zure laguntza ariman izan dagien. Amaibagako.

Es da beste Otoitzik esaten.

Irakurgai (S. Paulo'k Ebertarrari, 9, 1145).—Anaiok:

Kristo, geroko ondasunen Nagusi orain agerturik, esola egin beza ta biki kata a eman zozat xotri kuziz da nnu ba-

iruan sartu zan: ez, orraitino, aker eta adari odolez, bere odolaz baino, gure betiko osasuna osoturik. Izan be, aker eta zezenen odolaz ta txalen auteaz gorrituta, crbanduak (loituak) aragitan garbi ta santu egiten ba'dira, askoz bidezago ez ete-dau garbituko zuen barrua Jesukristo'ren odolak egitada illetatik, Jaungoiko bizia goratzeko? Bere buru garbia betiko eskiñi eutsan jaungoioari, Espiritu Santuaren eragiezez. Orrexegaitik da Alkartasun Barriaren bitarteko: iengo Alkartasunpean egindako pekatuen ordaintzat il da-ta, deituak egintzaren neurriz betiko ondorea (erentzia) artu dagien, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Askatu nagizu, Jauna, arerioakandik; Zeure naia egiten irakatsi egidazu. Jauna, Zeuk askatzen nozu arerioen asarretik; Zeuk jasoko nozu nire arerioak baino gorago; Zeuk askatuko nozu gizon gaiztoagandik.

Luzagarria.—*^*Gaztetarik sarritan atsekabetu nenduen. Esan dagiala Israel'ek: gaztetarik sarritan naigabetu nenduen. Baiña ez ziran ni baiño geiago izan; pekatariak Jepoan jo nenduen. Dongakeriak egiten ziarduen luzaro; baiña Jaun zuzenak gaiztoen buruak ausi egin ebazan.

Barri Ona (Jon, 8, 46-59).—Aldi aretan, Jesus'ek judar-taldeai auxe zirautsen: ciZuetariko nok artuko nau pekararitzat? Egia ba'dirautsuet, zegaitik ez doziie Nigan sinisten? Jaungoikoagandik danak, Jaungoikoaren itza entzun egiten dau. Zuek, barriz, orrexegaitik ez dozue entzuten: Jaungoikoarenak ez zaree-ta.» Orduan, judarrak erantzun eta esan eutsoen: «Ez ete'dogu zuzen esaten, samaritarra zarala ta txerrenak artuta zagozala?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Txerrenik (deaburrik) ez dot nik; Nik neure Aita goratzen dot, eta zuek iraindu egiten nozue. Nik ez dot nire ospea (aintza) billatzen; ba-da beste bat ori billatuko ta nire alde jagiko dana. Bene-benetan dirautsuet: Nire itza gorde dagianak, ez dau eriotzarik iñoiz be ikusiko.» •Judairrak esan eutsoen: «Oraintxe bai, ezagutu dogu txerreña dozuna. Abraham il zan, baita igarleak bere; ta zuk diñozu: Nire itza gorde dagianak, ez dau eriotzarik ifioiz be ikusiko. Gure aita Abraham baino aundiago zara, ala? A il zan, baita igarleak be il ziran, Nor zaralakoan zagoz?» Jesus'ek erantzun eutsen:

«Nik neure burua goratzen ba'dot, nire gorapena ezer ez da; nire Aitak, zuen Jaungoikoa dala diñozuen orrek goratzen nau Ni. Zuek ez dozue Aita ezagutzen nik bai, ostera, ezagutzen dot. Eta ez dodala ezagutzeri esan ba'negi, zuek baizen guzurti izango nintzake; bai. ña bai, nik ezagutzen dot, eta beteten dodaz Aren itzak. Zuen aita Abraham, nire eguna ikusi naiez, pozez beterik jarri zan: ikusi eban eta guztiz poztu zan.» Judarrak esan eutsoen: «Berrogetamar urte ez dozuz, ta Abraham ikusi dozula?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Bene-benetan dirautsuet: Abraham sortu izan baiño len, ba-naz Ni.» Orduan, areik arriak artu eban Ari jaurtiteko; baiña Jesus ezkutau ta Eliza Nagusitik urten egin zan.—*Kredo*.

Eskintza.—Biotz-biotzez autortuko zaitut, Jauna Emon egidazu grazi au: zure legea gordeten bizi naddilla. Bizia emon egidazu, Jauna, agindu zeustanez.

Opari-otoitza.—Oparigai oneik, Jauna, ausi dagiezala gure gaiztakerien lokarriak, eta jadedsi daiskuezala zure errukiaren doaiak (graziak.) Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena, 452 orri*.

Jaunartzerakoa.—Au, zuen alde emongo dan Gorputza da; ontziko au, Alkartasun Barriko neure Odola da, diño Jaunak; au artu dagizuen bakoitzean, neure gomutaz egizue.

Azken-otoitza.—Zagoz gugaz, Jaungoiko gure Jauna, ta zure Euskaristiaz barriztu gaituzunok, betiko laguntzaz zaindu gaginguz. Amaibagako.

NEKALDI-ASTELENA

3^{gn}. maila. — Ubelez

Sarrera.—Erruki zakidaz, Jauna, gizonak zapaldu egin nau-ta; naigabetuta nauko egun guztian bunrukan.—*Ps*. Arerioak zapaldu egin nabe egun guztian, nire aurka jagi diranak asko dira-ta. — Erruki za[^] kidaz...

Otoitza.—Bedeinkatu egizuz, Jauna, gure barauak, eta emon eiguzu toiotz onez pekatu guztien parkamena! Amaibagako.

irakurgaia (Jon, 3, 1-10).—Egun areitan, Jaunak bigarrenez itz egin eutsan Jonas igarleari, esanez: «Ja-

oi ta zoaz Ninibe uri aundira, ta iragarri egizu an jjik esan dagitzudana.» Jonas jagi ta joan zan, ba, fjinibe'ra, Jaunak agindu eutsanez. Ninibe uri aundia zan, eta iru eguneko bidea eban barruan batetik bestera. Asi zan Jonas urian zear ibilten, eta egun bete ibilli zan, deadarka iñoala: «Berrogei egun barru, Ninibe ezereztu egingo dabe.» Eta Ninibe-itarrak ontzat artu eban Jaungoikoaren itza, ta baraua iragarri eban, eta guztiak, aundi ta txiki, guztiak zurdazez (sakuz) jantzi ziran. Ninibe'ko erregeari be eldu yakon barri au; ta bere aulkitik jagirik, errege-soiñe-Koak kendu ebazan, eta sakuz jantzirik, auts-gaiñean jarri zan. Berealaxe agertu zan Ninibe'n erregearen eta onen nagusien agindu au: «Ez begie ezer jan ez gizonak ez abereak (animaliak); zaldi, idi ta ardiak ez beitez urten ez larrara ez ura edatera. Gizonak eta abereak sakuz jantzi bediz; alegin guztiaz deadar egin begioe Jaunari; ta biurtu bedi bakoitza bere txarretik, bere eskuak Iotzen dauzan gaiztakeriaz damuturik. Nok daki, ba, Jaunak, bere erabagia aldaturik, parkatuko ete^daskun?; eta bere asarretan sumiña itzirik, ez gaitu galduko, bear-bada.» Eta Jaungoikoak arein garbaia (damua) ta bide txarretik onera aldatu ziralta ikusi eban, eta errukitu egin zan bere erriaz gure Jaungoiko Jauna.

Koru-kanta.—Entzun nire otoia, ene Jaungoiko; biurtu entzumena nire agoko itzetara. Saltoau nagizu, Jaungoiko orrek, zure izenagaitik, eta zaindu nagizu zure al-izatez.

Luzagarria.—Jauna, ez gagizuz erabili egindako pekatuen negurritz, ezta gure gaiztakeriai dagokien negurrira zigortu be. Jauna, ez egizuz gogora ekarri gure antxiñako pekatuak; betorkigu, barriz, lenbailen zure errukia, oso beartsu egin gara-ta. (*Belaunniko emen*). Lagun zakiguz Jaungoiko gure osasun!, eta zure izen goragarriagaitik, gorde gagizuz, Jauna; parkatu eiguzuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Jon, 7, 32-39).—Aldi aretan, abade-nagusi ta pariseotarrak, morroiak bialdu ebezan, Jesus lotu egien. Eta Jesus'ek esan eutsen: «Oraindiño apur baten zeuekaz nago, ta gero bialdu nauanaregana noa. Neure billa ibiHiko zaree, ta ez nozue idoroko,- eta ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitekeze.» Judarrak al-

karri zirautsoen: «Nora joango ete-da ba au, ez d₀gn < idoroko-ta? Atzerritarrakana joango ete-yaku, atzerritarrai irakastera? Zer da esan dauskun au: «Neur, billa ibilliko zaree, ta ez nozue aurkituko»; ta «Ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitেকে?» Jaietako azken-egunean, egunik aundienean, Jesus an egoan deadarka esaten: «Egari dana, betorkit eta edan begi. Nire sinistea dagianari, Liburu Santuak diñoanez, barrutik ur bizia ibaika jariongo yako.» Beragan sinisten ebanak artu bear eben Espiritu Santuagaitik esari eban ori.

Eskintza.—Biurtu zakidaz, Jauna, ta askatu nagizusalbau nagizu zure errukiz.

Opari-otoitza.—Egizu, gure Jaungoiko Jauna, opafH osasungarri onek garbitu dagizala gure gaizakeriak, eta jadetsi daiskula zure errukia. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Gudarozteen Jauna, axe da zeruko Errege.

Azken-otoitza.—Artu dogun zure Eukaristiak, Jauna, garbitu ta osatu begiz gure barruak. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean. — Emon egiozu, Jauna, zure erriari gorputz-arimako osasuna; egintza onak egiñik, zeure laguntza izan dagian beti. Amaibagako.

NEKALDI-ASTARTEA

3^{gn}. mailla. — *Ubeiez*

Sarrera.—Jaunagan itxaron egizu, gogor ekin; biotza adoretu egizu, ta itxaron jaunagan.—*Ps.* Jauna dot argi ta osasun; noren bildur jzan naiteke? — Jaunagan itxaron egizu...

Otoitza.—Gure barauak gogoko izan bekizuz, Jauna; ta gu garbituaz, zure graziaren duin egin eta betiko atsegiñetara eroan gageizala. Amaibagako,

Irakurgai (Daniel, 14, 27-42).—Egun areitan, Babiloniatarrak, erregeagana etorririk, auxe esan eutsoen: «Emon egizu Daniel, Bel austu ta irantsugea il egin dau-ta; bestela, il egingo zaitugu zure etxekoakaz batera.» Estu ikusi eban erregeak bere burua, ta beste-

jk eziñean, emon egin eutsen Daiiñel. Areik leoi-tokian sartu eben, eta an egon zan sef egunez. Zulo aretan zazpi leoi egozan, eta egun oro gorputz bi ta ardi bi emoten eutsezan; orduan, ostera, Daniel iruntsi egien, éz eutsen ezer be emon. Judea'n zan Abakuk igarlea, ta jatekoa egosi ta ontzi baten ogi batzuk birrindurik, solora joian igitariak* eroatera. Eta Jaunaren aingeruak Abakuk'i auxe esan eutsan: «Jateko ori eroan egizu Babilonia'ra, leoi-zuloan dagoan Daniel'i.» Abakuk'ek erantzun eutsan: «Jauna, ez dot inoiz be Babilonia ikusi ta ez dakit nun dagoan leoi-zuloa.» Jaunaren aingeruak adatsetik* oraturik, beingo baten Babilonia'n itzi eban leoi-zulo gainean. Eta Abakuk'ek deadar au egin eban: «Daniei, Jaungoikoaren otsein orrek, artu egizu Jaungoikoak bialtzen dautsun bazkaria.» Ta Daniel'ek esan eban: «Gogotan izan nozu, ene Jaungoiko!, ta maite zaituenak ez dozuz bertan-bera izten.» Eta Daniel'ek, jagirik, jan eban, Bitartean, aingeruak bereala bere lekura eroan eban Abakuk. Eldu zan, ba, erregea zazpigarren egunean Daniel'gaitik negar egitera; ta leoi-zulora urreraturik, barrura begiratu ta Daniel leoiaren erdian jarrita ikusi eban. Orduan, erregeak deádar aundiz esari eban: «Aundia zara, Daniel'en Jaungoiko ori!» Ta leoi-zulotik atarateko agindu eban. Aren eriotza-billa ebizanak, barriz, leoi-zulora sartu ebazan; eta une bereah iruntsi erregearen aurrean. Orduan, erregeak esan eban: «Lurralde guztikoak Daniel'en Jaungoikoaren bildur izan beitez: Bera da salbatzaille, lurtean mirari ta arrigarri-egille; Daniel leoi-zulotik atara dauana.»

Koru-kanta.—Egizu, Jauna, nire erriaren alde; ta guzurtiakandik zaindu nagizu. Bialdu egidazuz zure argia ta egia: eurak zuzendu ta eroango nabe zure inendi santura.

Barri Ona (Jon, 7, 1-13).—Aldi aretan, Jesus Galilea-zear ebillen, judarrak Jesus ilteko asmatan ziardelako, ez eban Judea'ra joan nai-ta. Tjrreraten joian judarren jai bat, Txabola-jai. Ta Aren seni-deak esan eutsoen: «Alde egizu emendik eta zoaz Judea'ra, Zuk egiten dozuzanak zeure ikasleak be ikusi dagiezan. Bere burua erakutsi nai dagianak, inok be ez dau ezer ezkutuan egiten-eta. Orrelakoak egiten

* Igitari = segador. * Adats = cabellera.

diarduzun ezkeru, guztien aurrean agertu zaitez.» Aren senideak be ez eben Aregan sinisten! Baiña Jesus'ek dirautse: «Ez da oraindiño nire sasoiu eldu; zuen aldia barriz, beti gertu dago. Munduak ezin gorrotorik izan daiketsue; niri, osteru, bai, gorroto dauste, aren egiñak txarrak dirala autortzen dot[^]eta. Zoaze zeuok jai orretara; ni ez noa jai orretara, nire garaia (sasoiu) oraindiño ez da bete-ta.» Au •esand.u, Bera Galilea'n gelditu zan. Baiña Aren senideak joan ziranean, Bera be jaitara igo zan, ez agirian, ezkutuan baiño. Judarrak, barriz, Jesus'en billa ebizan jaiegun aretan eta iñoen: «Nun dago ori?» Ta surru-murru aundia sortu zan Beratzaz errikoen artean. Eta batzuek iñoen: «Zintzoada.» Ta beste batzuek: «Ez, erria naasten diardu-ta.» Alan be, judarren bildurrez, iñok ez eban Aren alde agirian berba egiten.

Eskintza.—Zure izenu ezagutzen dabenuk, Jaunu, izan begie Zeugan uste ona: Zure billa dabizanu, ez dozuz bertan-bera izten-eta. Abestu egiozue Sion'en bi-zi dan Jaunari, beartsuen otoiak ez yakoz aztu-ta.

Opari-otoitza.—Zeuretzat izan bear dabenu oparigaiak ekarri doguz, Jaunu; bizitza onetako pozgarri izan dakiguzala, betiko agintzarien itxaropena izan daigun. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena, 452 orri.*

Jaunartzerokoa.—Atara nagizu, Israel'go Jaungoiko orrek, nire estualdi guztietatik.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!: jaungoikozko misterioak aldi oro ospaturik, zeruko sarietara urreratzeko gei izan gaitezala. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Emoiguzu, Jaunu, zeure najan irauteko fndarra; gure egunatan, zure menpean diarduan erri au, irabaziz eta izatez geitu daiten. Amaibagako.

NEKALDI-EGUAZTENA

3^{gn}. mailla. — Vbelez

Sarrera.—Zeuk askatzen nozu, Jaunu, arerioen asarretik; Zeuk jasoko nozu nire arerioak baiño gorago; Zeuk askatuko nozu gizon gaiztoagandik.—*Ps.* Maite zaitut, Jaunu, neure indar ori; Jaunu da nire laguntza, igesleku ta salbatzaille. — Zeuk askatzen nozu...

Otoitza.—[^]Barau santu onen bidez, argitu egizuz, Jaungoiko errukior orrek!, zure zintzoen biotzak; eta oneraspenu beroa emoten dautsezunai, emon egiezu biotz onez eskatzen dabenu. Amaibagako.

Irakurgaia (Lebitarreneti'k, Lev., 19, 1-2, 1149 ta 25).—Egun areitan, Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: Berba egiezu Israel'go seme guztiai, ta auxe esan egiezu: Neu naz zuen Jaungoiko Jaunu. Ez dózue ostuko. Ez dozue guzurrik esango, ezta iñok bere lagún-urkoari ziririk sartuko be. Ez dozu nire izenean guzurrezko ziñaltzarik (testigutzarik) egingo, ezta zure Jaungoikoaren izenik loituko be. Neu naz Jaunu! Lagun-urkoa ez dozu irainduko, ez dozu indarrez azpiratuko, langille-saria emotea ez dozu geroko itziko. Ez txarto esan gorrari buruz, ezta itsuaren aurrean oztoporik jarri be. Zeure Jaungoiko Jaunaren bildur izango zara, Jaunu Neu naz-eta. Ez dozu bidebag, ekerik egingo auzian, ez beartsuaren alde egiñaz ez aberatsaren alde makurtuaz; zuzen ebati egizu zure lagun-urkoa. Ez zaitez iraintzaille izan erritarren artean. Ezjardun lagunJurkoari bizitza kentzen. Neu naz Jaunu! Ez egiozu gorrotorik izan biotzean zure anaiari; esatekoa esan egiozu agirian, bera dala-ta pekatu egin ez dagi-zun. Ez zaitez ibilli asperkuntza-billa (bengantza-billa), ezta erritarren iraiña gogotan izan be. Zure adiskidea zeure burua lez maite izango dozu. Neu naz Jaunu! Gorde egieuz nire legeak; zuen Jaun eta Jaungoiko Reu naz-ta.

Koru-kanta.—Goratuko zaitut, Jaunu, gora jaso nozu-ta; nire lepotik barre egiten arerioai ez dautsezu itzi-ta. Zeuri, Jaunu, egin neutsun dei, ta Zuk osatu egin nenduzun; Jaunu, lurpetik bizirik atara nenduzun, illibira doazenen artetik.

Luzagarría: Jauna, ez gagizuz erabili, 181 orri.

Barri Ona (Jon, 10, 22-38).—Aldi aretan, Eskintza •jaiak egiten ziran aldia zan. Negua. Jesus Eliza Nagusian ibilli ebillen, Salomon-aterpean. Judarrak inguratu eben eta esan eutsoen: «Noiz arte izango gaituzu ezpaitan? Zu Mesias ba'zara, esan egiguzu argi ta garbi.» Jesus'ek erantzun eutsen: «Esan dautsuet, eta ez dozeu sinisten. Nire Aitaren izenez egiten dodazan egintzak egiten dabe autor Nitzaz. Zuek, barriz, ez dozeu sinisten, nire ardiatarikoak ez zaree-ta. Nire ardiak nire deia entzuten dabe, ta Nik ezagutzen dodaz, ta jarraitu egiten dauste. Betiko biziā ematen dautset; eta ez dira betiko galduko, ta iñok ez dauz nire "eskutik kenduko. Aitak emon eustana, danik audiena da, ta iñok ezin kendu daike ezer nire Aitaren eskutik. Aita ta Ni bat gara.» Orduan, judarrak arriak artu ebezan, Ari arrika egiteko. Jesus'ek esan eutsen: «Egintza on asko egin dodaz zuen arreean nire Aitaren indarrez; egintza onetariko zeingaitik egiten dautazue arrika?» Judarrak erantzun eutsen: «Ez dautsugu egintza onakaitik arrika egiten, biraoagaitik baifto: zu gizona izanik, zure burua Jaungoiko egiten dozu-ta.» Jesus'ek esan eutsen: «Ez ete<Jago zuen legean idatzita: Neuk esan dot: Jaungoiko zaree? Beraz, Jaungoikoareu itza adieraz yaken arei, Jaungoiko izena ezarri ba'eutsen —eta Liburu Santuak ezin utsik egin daike—, Jaungoikoak santutu ta gizartera bialdu dau-nari zuek «birao egiten dozu» dirautsazue «Jaungoikoaren Seme naz» esan daualako? Nire Aitaren egintzak egiten ez ba'dodaz, ez Nigan sinistu; baiña egiten ba'dodaz, ta Nigan sinistu nai ez dozuen ezkeru, egiñai sinistu egiezue: Aita Neugan dagoala ta Ni Aitagan nagoala ezagutu ta sinistu dagizuen.»

Eskintza.—Gorde nagizu, ene Jaungoiko orrek, nire arerioakandik; nire aurka jagi diranakandik be askatu nagizu, Jauna.

Opari-otoitza.—Bakezko ta gorapenezko oparigai oneik biotz zintoz eskifii dagitzuguzala egizu, Jaungoiko errukiorrek. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Eskuok pekatu guztitik garbituko dodaz, eta zeure altarara urreratuko naz, Jauna: zure

gorapenak kantuz esafceko, ta zure arrigarri guztiak zabaltzeko.

Azken-otoitza.—Apal-apal eskatzen dautsugu, Jfiungoiko alguztidun orri: zeruko graziaren onespena artu dogun ezkeru, opari au sakramentu ta osasun biurtu dakigula, Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Jaramon egiezu, Jaungoiko alguztidun orrek, gure eskariai; ta parkamenaren itxa. ropena emoten daskuzun ezkeru, emon egiguzu biotz onez zure betiko errukiaren ondorena. Amaibagako.

NEKALDI-EGUENA

3'gn. mailla. — *Ubelez*

Sarrera.—Egin daskuzun guztia, Jauna, bide onez egin daskuzu, pekatu egin eta zure aginduak ez doguz bete-ta; alan be, gora jaso egizu zure izena, ta egizu gugaz zure erruki aundiari dagokionez.—fs. Zoriontsuak Jaunaren lege[^]bidean garbi dabizanak! — Egin daskuzun...

Otoitza.—Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: larkeriak makaldu daskun giza-izakera, negurri osiungarriaren bidez osatu daitela. Amaibagako.

Irakurgaia (Oaniel, 3, 25, 34-45).—Egun areitan, Azarias'ek Jaunari otoitz au egn eutsan: Gure Jaungoiko Jauna! Zure izenagaitik, ez gagizuz betiko itzi, ez egizu zure alkartasuna ausi, ezta gugandik zure errukia kendu be, Abraham zure tnaiteagaitik eta Isaak zure otseñagaitik eta Israel zure santuagaitik: euren azia zeruko izarrak lez eta itxasertzeko ondarra lez ugarituko zenduala agindu zeutsen-eta. Beste edozein erri baiño txikiago egin gara, Jauna, ta géure pekatuakaitik lurra jota bizi gara gaur lurbira osoan. Eta ez daukagu orain ez nagusi, ez buruzagi, ez igarle, ez erre-opari, ez opari, ez eskintsari, ez zuri asikiñak eskitzeko lekuri, zure errukia jadetsi daigun. Alan be, biotz garbatu ta gogo apalez gatozan ezkeru, artu gagizuz, Jauna. Len adari ta zezenen oparia, ta beste milla ta milla bildots gizenena lez, gaurko gure eskintza au be ateegin bekizu: Zugan ustea dabenak, ez dira iñoiz be Iotsatuko-ta. Orain, biotz osoz gatorkizuz,

bildur zaitu.gu ta zeure arpegia billatzen dogu. Ez gagizuz baztertu, zeure samurtasun eta erruki aundiz artu baño. Zaindu gagizuz arrigarririo, Jauna, ta gora jaso egizu zure izena. Lotsatu bediz zure menpekoak naigabetzen diarduenak; zure almen azkenbageak larritu begiz, eta auren indarra be ezereztu beite. Jakin begie Zeu zarala Jaun eta Jaungoiko bakar eta ospetsu lurbira osoan, gure Jaun eta Jaungoiko ori!

Koru-kanta.—Artu opariak eta sartu zaitezte Aren ataurreetan; gurtu Jauna beronen etxe santuan. Basoak agirian jarri dauz Jaunak, eta Aren etxean gutziak goratuko dabe.

Barri Ona (Luk., 7, 36-50).—Aldi aretan, pariseotar batek beragaz bazkaldu egiala eskatu utsan Jesus'i; eta pariseotarraren etxean sarturik, maian jarri zan. Jesus pariseotarrarenean bazkaritan zala, uriko emakume batek jakin ebanean, usaingarritz beteriko artzuri-ontzi* bat ekarri eban; eta atzetik Aren (Jesus'en) oin-ondoan jarrita, oiñak bere negar-malkoz garbitu, bere adatsaz ezeindu (sikatu), oiñetan mun egin eta usaingarriaz igurtzen asi yakon. Jesus'i dei egin utsan pariseotarrak, au ikusita, berekautan iñoan: «Au igarle ba'lftz, jakingo leuke nor eta zelakoa dan ikutzen dauan (dautsan) emakume ori: emakume galdua da-ta.» Jesus'ek, erantzunik, esan utsan: «O Simon, zerbait ba-dot zuri esateko.» Eta Simon'ek esan utsan: «Esan, ba, Irakasle.» Jesus'ek dirautso: «Epekari* batek zordun bi ebazan. Batek bosteun denario zor utsazan; besteak berrogetamar. Zorra garbitzekorik ez eben-eta, toiai parkatu egin utsen. Bietarik nok maite izango dau geiago?» Simon'ek erantzun eta esan eban: "Nire ustez, geiago parkatu izan yakonak." Jesus'ek esan utsan: "Ondo ebatzi dozu." Eta emakumeagana biurturik, Simon'i esan utsan: "Ikusten dozu emakume au? Zure etxean sartu naz, ta ez daustazu oiñetara urik bota; onek, ostera, oiñak bere malkoz busti ta bere adatsaz ezeindu daustaz. Ez daustazu munik egin; au, ostera, sartu dan ezkerero, nire oiñai mun egiten ez da aspertu. Burua ez daustazu orioz igurtzi; onek, ostera, oiñak usaingarritz igurtzi daustaz. Beraz, ba-dirautsut: gartsu maite izan daualako,

* Artzuri-ontzi = frasco de alabastro. * Epekari = pres-tamista.

bere pekatu ugariak parkatu egiten yakoz; gutxi parkatzen yakonak, barriz, gutxi maite dau." Gero, emakumeari esan utsan: "Parkatzen yatzuz zure pekatuak." Orduan, mai-lagunak euren artean esaten asi ziran: «Nor da pekatuak be parkatzen dauzan au?» Jesus'ek toarriz, emakumeari esan utsan: «Zeure sinismenak salbau zaitu; zortz bekean.»

Eskintza.—[^]Babilonia'ko ibai-erantz jesarri gintzan negarez, Sion gogoratirik.

Opari-otoitza.—Geure argaltasuna indartzeko egin zenduzan ogi ta ardaoa, egin-eginean toe zeure izenari eskintzeko agindu zenduan gure Jaun eta Jaungoikoa: bizitza onetarako janari ta betikorako sakramentu izan dakiguzala egizu. Amaibagako,

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena*, 492 orri.

Jaunartzerakoa.—Gogoratu egizu, Jauna, zure menpeko oni emondako itza; berba aretan dot itxaropena, ta arexek poztu nau jausialdian.

Azken-otoitza.—Agoaz artu dogun au, gogo garbiz artu dagigula, Jauna; ta gaurko doai au, betiko osan biurtu dakigula. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruko Jaungoikoaaren aurrean.—Errukitu zaitez, Jauna, zure erriaz: gogoko ez yatzuna alde batera itzirik, zure legea betetzeak atsegin izan dagion. Amaibagako.

NEKALDI-BARIKUA

3^{gn}. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Erruki zakidaz, Jauna, naigabez beterik nago-ta; zaindu ta atara nagizu nire arerioen eskue-tatik eta aurrean narabilenakandik; ez nadilla iotsatu, Jauna, deika nagokizu-ta.—*Ps.* Zeugan dot itxaropena, Jauna, ez nadilla egundo lotsatu; askatu nagizu zure zuzentasunean.—Erruki zakidaz...

Otoitza.—Isuri egizu, Jauna, gure biotzetan zure grazia: gure pekatuak gogo onez zigorturik, bizitza onetako buru-ukatzea maiteago izan daigun, betiko oiñazetara joan ez gaitzean. Amaibagako.

2^{gn} Otoitza, *Andra Maria'ren Zazpi Naigabeeta-Tcoa*: Simeon igarleak esan ebanez, Jaungoiko!, zure

Nekaldian Ama Mari Birjiña goragarriaren arima guztiz gozoa, ezpata samiñak zulatu eban: eiguza samurkiro, Aren oiñazeak zintzo gogoratu doguzan ezkerore zure Nekaldi santuaren frutu onak jadetsi daiguzaia! Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espúritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta Olantxe.

Irakurgai (Jeremias, 17, 13-18).—Egun araitan, Jeremias'ek auxe esan eban: Jauna, Zu iztzen zaituen' guztiak, lotsaz geldituko dira; Zugandik urrindu daitezanak, lurreko autsean idatziak izango dira, ur bizi zien iturri dan Jauna itzi egin eben-eta. Osatu, nagizu, Jauna, ta osatua izango naz; askatu nagizu, ta askatua izango naz, nire aintza Zeu zara-ta. Nun dago Jau-naren itza?, dirauste. Betor. Ni, barriz, ez naz lotsatu Zuri, artzain orri, jarraituaz; eta txarrik be ez dautset cpa izan; ba-dakizu. Nire ezpanetatik urtendakoa, zuzena izan da zure aurrean. Ez zakidaz, ba, bildurgarri izan. Zeu zara larrialdian nire itxaropena. Lotsatu bitzez aurrean narabillanak, ni ez, ostera; begoz bildurerez, ni nasai. Bialdu egiezu atsekabe-eguna, eta zlgortu egizuz, gure Jaun eta Jaungoiko orrek, bein eta barrero.

Koru-kanta.—Nire arerioak bake-itzak esaten eustezan; baiña euren asarrean nire ondamendia opa izan eben. Ikusi zenduan, Jauna; ez zaitez isildu; ez alde egin nigandik.

Luzagarria: Jauna, ez gagizuz erabilli, 181 orri.

Barri Ona (Jon, 11, 47-54).—Aldi aretan, abadenagusi ta pariseotarrak batzarra egin eben Jesus'en aurka, ta iñoen: «Zetan diardugu?, gizon orrek mirari asko egiten dauz-ta? Onela izten ba'dogu, guztiak sinistuko dautsoe, ta erromatarrak etorri ta erria ondatu egingo dauskue.» Baiña areitariko batek, urte aretan abadenagusi zan Kaifas'ek, esan eutsen: «Zuek ezer ez dakizue; ta ez dozue gogoratzen gizon bat bakarrik erriagaitik il daiten obe dozuela erri osoa galtzea baiño.» Balña au ez eban arek berez esan: urte aretako abadenagusia zan-eta, erri osoaren alde Jesus il bearra zala, aurretiaz iragarri eban; eta erriaren alde bakarrik ez, baita Jaungoikoaren ume banandutakoak batu egizan be. Beraz, egun aretatik, A (Jesus) iltea erabagi eben. Orregaitik, arrezkero Jesus ez zan juda-

ren artean agirian ibiKen, eta andik basamortu ondoKo aldera, Efren izeneko urira alde egin eban, eta antxe egoan bere ikasleakaz.

Esqintza.—Onetsia Zu, Jauna; irakatsi egidazu zure legea; ez nagizu itzi zapaltzen naberen arrokoen eskue-tan, eta erantzungo dautset iraindu nagienai.

Opari-otoitza.—Eiguza, Jaungoiko errukior orrek: zure altaretan beti menpeko zintzo izan gaitzezala, ta bide orretatik zerua lortu daigula. Amaibagako.

2'gn Opari-otoitza, Andra Maria'ren Zazpi Naigabeetakoa: Erregu ta oparigoiak eskintzen dautsuguz, jesukristo Jauna; eta ezpataz urratutako zure Ama jfaria doatsuaren arima guztiz gozoa otoitzetan gogoratzen dogun ezkerore, Gurutze-ondoan egozan santuen bitartez eta zure eriotzarenaz, zoriontsuen saria jadetsi dagigu'la eskatzen 'dautsugu apall-apalik. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Kanon-aurrea: Gurutze Santuarena, 452 orri,

Jaunartzerakoa.^Ez nagizu itzi, Jauna, aurrean narabillenen eskuetan; autorle (testigu) guzurtiak jagi yataz-ta; baiña gaiztakeri ori euren aurka biurtu da.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristiak, Jauna, ez gagizala iñoiz be bere laguntzaz itzi, ta urrindu daglala gugandik ezbear guztiak. Amaibagako.

2'gn Azken-otoitza, Andra Maria'ren Zazpi Naigabeetakoa: Egizu, Jesukristo Jauna, Birjiña zure Amaren arima-urratzea ospaturik artu dogun Eukaristi onek, zure errukiaren bidez, edozetariko frutu onak jadetsi daiskuzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Gaur Andra Mari Naigabetua ospatzen dan elize-tan, Andra Maria'ren Zazpi Naigabeetako Meza bi esan daitekez.

Meza: (jantzi zuriz, ikusi. 735 orri.; 2'gn. Otoitza: Nekaldi-barikukoa; Koru-kanta ondoren, Luzagarria au esaten da:

Luzagarria.—^Maria deuna, zeruko Erregiña ta munduko Andrea, Jesukristo'ren Gurutze-ondoan atsekabez

beterik egoan. Zuok, bidez zoazen guztiok: begi^{raju} ta ikusi egizue nirearen antzeko oiñazerik ete-dan.

*nStabat Mater» azkenean, ez da «AZelua'rifc»^{esa}—ten. Ez da «Kredorik». Kanon-aurrea, Andra Maria'rena\$56 orri.: Eta *** Biotz-urratze egunean.*

NEKALDI-LARUNBATA

3^{gn.} mailla. — Vbelez

Sarrera.—Erruki zakidaz, Jauna, naigabez beterik aago-ta; zaindu ta atara nagizu nire arerioen eskue-tati-< eta aurrean narabillenakandik; ez nadilla iotsatu, Jauna, deika nagokizu-ta. — Ps. Zeugan dot itxaroi.ena, Jauna, ez nadilla egundo lotsatu; askatu nagizu zure zulentasunean,—Erruki zakidaz...

Otoitza.—Zuri eskiñi izan yatzun erri au, Jauna, aurieratu bedi Zuganako zaletasun samurrean: egite onen irakaspena arturik, grazi bikaiñagoak artu dazigan zure gagokoago izanaz. Amaibagako.

Irakurgaia (Jeremias, 18, 18-23).—Egun areitan, judar gaiztoak auxe esan eutsoen alkarri: Etorri zaitzeze, te asmau daigun zerbait zintzoaren aurka: abadeak ez dau legerik galduko-ta, jakitunak be ez irakatsia, ezta Igarleak be itza. Etorri zaitzeze, ta zauritu daigun miiñaz, berak dirauskunari jaramonik egiteke (egin bagarik). Lagun zakidaz, Jauna, ta entzun nire arerioen deadarra. Ala, ona txarrez ordaintzen ete-da, ni lurperatzeko zuloa edegi dausten ezker? Gogoratu egizu, Jauna, zeure aurrean aurkeztu nintzala, euren alde itz egiteko ta zure asarrea eura-kandik aidentzeko. Beraz, emon egiezu gosetea euren semeai, ta ezpataz zigortu egizuz; euren emazteak alargun eta seme bagarik gelditu beitez; euren senarrak il bediz; euren gazteak, barriz, burrukal-dian ezpataz galduak izan beitez. Euren etxeetan zotin-garrazia entzun bedi: bat-batean lapurrak bialduko dautsezuz-eta; zuloa egin eben ni arrapetako, ta nire oinpean lokarriak jarri ebezan-eta. Baiña Zuk, Jauna, ba-dakizu ni ilteko asmoetan diaduen. Ez egiezu parkafu gaiztakeri au, ta ez aldendu zure aurretik euren pekatua. Lurra joterañño eratsiak izan beitez zure aurrean; zure asarrealdian ezereztu egi-PUZ, gure Jaun eta Jaungoiko orrek!

Koru-kanta,—Nire arerioak bake-itzak esaten eustean, baiña euren asarrean nire ondamendia opa izateⁿn eben. Ikusi zenduan, Jauna; ez zaitetz isildu, ez alde egin nigandik.

Barri Ona (Jon, 12, 10-36).—Aldi aretan, abade-<nagusiak Lazaro be iltea erabagi eben, au zala-ta judar asliok arekandik alde egin eta Jesus'egan sinisten eben-ieta. Biaraimonean, jaitara etorri ziran gizatalde aundiak, Jesus Jerusa'len'era etorrela jakin ébenean, ereiñotz-abarrak artu ta bidera urten yakoazan deadarka: «Hosanna! Gora Jaunaren izenean daitorkigun Israe'l'go Erregea!» Jesus, barriz, astotxo bat arturik, aren gainean jesarri zan, idatzita dagoanez: "Ez bildurtu, Sion'go alaba; or daitorkizu zure Errege, astakume-gainean jarrita." Aren ikasleak ez eben lenengo au ulertu; baiña gero Jesus goratua izan zanean, Aretzaz idatzita egoala ta eurak bete ebela gogoratu eben. Lazaro illobitik deitu ta illen artetik biztu ebanean Jesus'egaz egoan gizataldeak, orrelaxe goratzen eben orain Jesus; eta aregaitik, mirari a egin ebala entzun ebela, gizataldea bidera urten yakon. Pariseotarrak, barriz, alkarri esan eutsoen: «EZ dozue ikusten? Ez dogu ezer lortzen. Or, bestela!, guztiak atzetik -doakioz.» Jai areban Jaungoikoa gurtzera igo ziranen artean, atzerriat batzuk ziran. Oneik, ba, Galilea'ko Betsaida errikoa zan Felipe'gana urreraturik, erreguz zirautsoen: «Jauna, Jesus ikusi nai dogu.» Pelipe'k Ander'egana jc ta oni esan eutsan; eta Ander'ek eta Felipe'k Jesus'i esan eutsoen. Jesus'ek erantzun eutsen: «Gizasemea goratua izateko garaia (sasoi) .eldu da. Bene-ibenetan dirautsuet: galgaraua lurrera jausi ta ilten ez ba'da, bakarrik gelditzen da; ilten baMa, barriz, garaun ugari dakar. Bere bizia maite dagianak, galdu egingo dau; ta bere bizia lur onetan iguindu daigianak, betiko bizitzarako gordeko dau. Iñok nire morroi izan nai ba'dau, jarraitu belst; eta ni egon naiten tokian egongo da nire morroia be. Nire morroia izan daitena, nire Aitak goratu egingo 'dau. Orain nire arima larri dot, eta zer esango dot? Aita, atara nagizu» une onetatik. Baiña ez; onexegaitik etorri naz une onetara. Aita, goratu egizu zure izena!» Orduan, zerutik abots au jatsi zan: «Goratu dot, eta barriro be goratuko dot.» An egoan gizataldeak abots

au entzunik, trumoia zala iñoan. Beste batzuek iñoen* «Aingeru batek berba egin dautso.» Jesus'ek erantzuri eta esan eban: «Abots ori ez da nigaitik etorri, zeuek kaitik baiño. Oraintxe da munduaren epaiketa; munciu onen nagusia (1) orain kanpora jaurtiko dabeta ni lurretik gora jasoan izan naitenean, guztiak Neugana ekarriko dodaz.» Zélako eriotzaz ilgo zan adierazoteko iñoan au. Gizatal'deak erantzun eutsan: «Mgias betiko bizi izango dala ikasi dogu guk Legeanzelan diñozu, ba, Zuk: "Lurretik gora jasoan izan beaf da Gizasemea?" Nor da Gizaseme ori?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Oraindiño apur baten argia zeuekaz dozue. Ibilli zaiteze, argia izan dagizuen artean, uinaldiak artu ez zagiezan; illunetan dabillenak, ez daki nora doan. Argia izan dagizuen artean, argiari sinistu egiozue, argiaren seme izan zaitezen.» Au esanda, Jesus, andik alde egiñik, arekandik gorde egin zan.

Askintza.—Onetsia Zu, Jauna; irakatsi egidazu zure legea; ez nagizu itzi zapaltzen naben arrokoen eskuetan, eta erantzungo dautset iraintzen nagienal,

Opari-otoitza.—Opari aundi onen lagunkide egiten gaituzun ezkerro, Jauna, pekatu ta arriska guztietatik atara gagizuz biotz onez. Amaibagako.

Kanon-anrrea: *Gurutze Santuarena*, 452 orrl.

Jaunartzerakoa.—Ez nagizu itzi, Jauna, aurrean narabillenen eskuetan, autorle (testigu) guzurtiak jagi yataz-ta; baiña gaiztakeri ori euren aurka biortu da.

Azken-otoitza.—Egizu, arren, gure Jaungoiko Jaun orrek!: zure Eukaristiaz asetu garan ezkerro, Berau artuaz bizi gaitezala beti. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Zaindu egizu zure eskuaz, Jauna, erreguz dagokizun erria, ta garbiturik, egokiro irakatsi egiozu: oraingo poz onen bidez, betiko ondasetarako gertau daiten. Amaibagako.

(1) «Nagusia», emen deabrua da.

gfe?

ASTE GURENfi

NEKALDI EDO PASIÑOKO BIGARREN IGANDEA.
ABAR EDO ERRAMU-IGANDEA

l'go. mailla

Iru zeretnoni aundi daukaguz gaur: Erramu-onespena, elizbira edo prozeziñoa elizpetik zear, eta Meza deuna Jesus'en Nekaldia gogora ekarriaz. Poza ta ituna, nastean, agiri dira: poza, Jerúsalen'go erriak Jesus aundikiro artzen dauala ikusirik; ituna, jazoera oneik Kristo'ren eriotza iragarten daukuelako.

¹ Sartu gaitezan guztiok Eliza Amaren biotzean barru¹barru, ta lagun egin daigun Jesus'i bere Erospeneko misterio aundietan.

Biblia.—Jeremias: 20, 7-18; 23, 1-8; 31, 15-40; 33, 14-22—Alakak, Lam.—Isaias: 50, 4-11; 52, 13'tik 53, 12'ra.—Baruk: W 9'tik 4'ra; 4, 36'tik 5, 9'ra.

1.—ABARREN BEDEINKATZEA

(Jantzi gorriak)

Altara-aurreko lekurik egokienean maitxo bat, zapl zuriz estalduta; onen gaiñean erramuak ipinten dira, erriak ikusteko eraz.

Meza-emoillea, laguntzailleakaz, jantzi gorriak jantzirlik, maitxo orren atzean jarten da, erriart begira.

• *Korukoak, bitartean, auxe abesten dabe:*

Kanta-gaia.—Gora Dabid'en Semea! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Israel'go Errege: gora Zu goietan!

Abadeak.—Jauna zuekaz.

Erriak.—Baita zugaz be.

Urrengo Otoitz onetan, erramuak zelakoak diran esan bear da: a) palmondo adar oneik; b) oliondo adar oncik-d) zugatz-adar oneik; e) palmondo ta oliondo adar oneik-g) palmondo, oliondo edo beste zugatz-adar oneik.

Otoitza.—Bedeinkatu f egizuz, Jauna, palmondo (oliondo edo bestetarikoz zugatz) adar oneik; eta egizu zure erriak zure omenez gaur agirian egiten dauari au, biotz barruz be deboziño aundiz osotu dagiala arerioa azpiratuñik eta erruki-egintzak biziro maite' izanik. Kristo gure Jaunaren bidsz.

Erriak.—Olantxe.

Abadeak, mai-gaiñeko erramuak iru bidar ur bedeinkatuaz txipristinduten dauz, eta ondoren, altara-oiñetik, eliztarrek eskuetan daukezamak. Cero, intzentzuaz be beste ainbeste egiten dau.

2—ERRAMU-BANAKETA

Bedeinkatzea amaitutakoan, oitura dan lez, adarrak banatzen dira. Orretarako, abadeak, altara-aurrean erriari begira zutik, lenengo eliz-gizonai, gero laguntzen dausoenai ta azkenez, altara oiñetik, eliztar guztiai.

Banaketa-bitartean, korukoak auxe abesten dabe:

l'go. Kanta-gaia.--Ebreotarren umeak, olio-adarrak eskuetan eroiezala, bidera urten yakozen Jaunari, deadarka iñoela: «Aintza Zuri goietan!»

23'gn. Eresia.—Jaunarena da lurra ta bertako guztia, lurbira osoa ta bertan bizi diranak. Berak ezarri eban itxasoen gaiñean, eta ibaien gaiñean sendotu.

Barriro Ebreotarren umeak...

Jaso, ateoq, zuen buruak, baita jagi zuok be, atadi zaarrok, zeruko Erregea sartu dadin. Nor dogu zeruko Errege au? Jaun altsu ta mdartsua; tourrukaldian kementsu dana.

Barriro Ebreotarren umeak...

Jaso, ateoq, zuen buruak, baita jaso zuok be, atadi zaarrok, zeruko Erregea sartu dadin. Nor dogu zeruko Errege au? Gudari-taldean Jauna: zeruko Errege berbera.

Barriro Ebreotarren umeak...

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari. Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. O-lantxe.

Barriro Ebreotarren umeak...

2'gn. Kanta-gaia.—Ebreotarren umeak, euren soifiekook bidean zabaldurik, deadarka esaten eben: "Gora Dabid'en Semea! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.

46'gn. Eresia.—Ekin txaloka, errialde guztiok; goratu Jaungoikoa abesti alaiz. Goiko Jauna arrigarria da-ta; lur guztiko Errege nagusi.

Barriro Ebreotarren umeak...

Erriak geure menpean jarri dauz, eta laterriak geure oinpean. Geure lekua aukeratu dausku, maite dauan Jakob'en aintza,

Barriro Ebreotarren umeak...

Poz-kanta artean igoez doa Jaungoikoa, adar-soiñu artean Jauna. Abestu Jaungoikoari, abestu; abestu gure Erregeari, abestu.

Lur guztiko Errege Jaungoikoa da-ta, jo eresi Berari. Jaungoikoa errien Errege da; Jaungoikoa bere Errege-aulki santu gaiñean jarten da.

Barriro Ebreotarren umeak...

Errien agintariak Abraham'en Jaungoikoaren erriagaz batu dira. Lurreko aundikiak Jaungoikoarenak dira-ta: oso goian dago Bera.

Barriro Ebreotarren umeak...

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari. Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. Olantxe.

Barriro Ebreotarren umeak...

Naiko ez ba-dira, barriro be esan daitezkez. Baiña erramu •banaketa lenago amaitzen ba'da, "Aintza Aitari" esaten da. ta "Kanta-gaia".

3.—BARRI ONA (Ebanjelioa) LRAKURRI

Erramu-banatzeta amaitu ondoren, abadeak eskuak garbitzen dauz; gero, altara-ardian, intzentzua ipinten dau, bestetan lez. Gero, diakonuak Barri Ona kantatzen dau, meza-nagusietan lez.

Barri Ona (Mat, 21, 1-9).—Aldi aretan, Jesus Jeru. salen'era urreratzean, eta Oliamendi-aldeko Betfage'ra eldu zanean, bere ikasletariko bi bialdu ebazan, esanez: «Zoaze aurreko erritxo orretara; an sartuaz batera, aBitoama bat aurkituko doze lotuta, ta aregaz astakume toat: askatu ta ekarri egidazuez. Eta norbaitek zerbait esan ba'dagituz, Jaunak bear dauzala, baiña berealaxe ekarriko dauzala erantzungo dautsazue.» Guzti au, Igarleak esandako au foete zedin jazo zan: "Esan egiozue Sion'go alabari: Or datorkizu zure Errege, apal-apalik eta astoama-gaiñean, buztarpeko aberearen astakume-gaiñean jesarrita." Joan ziran, ba, ikasleak, eta Jesus'ek esan eutsenez egin eben. Eta astoama ta astakumea ekarri ebezan; eta soiñekoak gaiñean ezarririk, Jesus gaiñean jesarri eben. Gizatalde aundiak euren soin-gaiñekoak bidean zabaldu ebezan; beste batzuek, zugatzetatik (arboietatik) adarrak ebagirik, bidean jarten ebezan. Eta aurretik eta atzetik joiazanak, deadarka iñoen: «Gora Dabíd'en Semea! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!»

4.—ERRAMTJAKAZ ELIZ-BIRA

Ebanjelioa abestutakoan, meza-emoilleak intzentzia jarten dau lurrun-ontzian, oi danez. Gero, diakonuak, errira biurturik, auxe diño:

Goazen ba.kean.

E.—Kristo'ren izenean. Olantxe.

Eliz-bira asieran, ondorengo Kanta-gaiak abesten dira.

1'go. Kanta-gaia.—Erria lora ta palma-abarrez bidera datorkio Salbatzailleari, ta garaille bikaiñart aagokiozan opariak eskintzen dautsaz; erriak Javm-goikoaren Semea autortzen dabe, ta Kristo'ren alde deadarrak odeietaraiño doaz: "Hosanna (gora) goi-goietan!".

2'gn. Kanta-gaia.—Aingeru ta umeakaz guk be abestu daiogun zintzo, eriotzaren garailleari: "Hosanna goi-goietan!"

3'gn. Kants-gaia.—Jaietara etorritako gizataide aundiak, goraka ziarduan Jaunari: "Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Hosanna goi-goietan!"

4'gn. Kanta-gaia.—Goitik bera etozan guztiak, pozaren pozez, Jaungoikoa goratzen asi ziran, ikusi ebezan mirari guztiakaitik, esanez: "Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren Erregea; bakea lurrean ta alntza goietan!"

Eliz-bira aurrera doala, urrengo au abesten da:

KRISTO ERREGERI ERESERKIA

1.—Aintza, gorapen eta ospea Zuri, Kristo Errege, gure Erosle, ume-taldeak Hosanna beroa abestu eutsuen orri.

E.—Aintza, gorapen...

2.—Israel'gc Errege zara Zu, Dabid'en Seme bikaiña, Junaren izenean zatozan Errege onetsia.

E.—Aintza, gorapen...

3.—Zeruko talde osoak goratzen zaitu goietan, baita gizon ilkorrak eta gizaki guztiak batera be.

E.—Aintza, gorapen...

4.—Ebreotar erria bidera urten yatzun palma-adarrakaz; emen gaukazuz gu be otoitz, eskintza ta kantuz.

E.—Aintza, gorapen...

5.—Areik, Zu oiñazetara ziñoiazala, goratu egiten zenduezan; guk, orain, Errege zarala, soiñu abesten dautsuguz.

E.—^Aintza, gorapen...

6.—Areik atsegin izan yatzuzan; atsegin daklzula gure jaiera be: Errege on, Errege biotzbera, on guztien zale!

E.—Aintza, gorapen...

5'gn. Kanta-gaia.—Guztiak goratzen dabe zure izena, esanez: "Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena; Hosanna goi-goietan!"

147'gn. Eresia.—Jerusalen, goratu egizu Jauna; goratu, Sion, zure Jaungoikoa. Zure ateetako morroilloak Berak sendotu dauz, baita zugan zure semeak onetsi be.

Zure lurmugak baketan jarri dauz, gari-loraz ase-tu zaitu.

Lurrari agintzen dautso bere itzez, eta au bai iz bizkorra!

Artulea lakoxe edurra emoten dautso, autsa lez iruntza zabaltzen.

Ogi-zati antzera bere izotza bialtzen dautso; aren otz aurrean, urak letu egiten dira.

Bere itza btaltzen dau, ta areik urtu egiten dira; bere aizea putz-erazo ta urak isuri.

Jakob'i bere legea iragarri eutsan, erabagi ta aginduak Israel'i.

Ez dau olakorik beste errietan egin: ez dautso ifiori bere agindurik agertu.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. Olan-
txe.

Barriro: Guztiak goratzen dabe...

6^{gn}. Kanta-g-aia.—Balma-adarrak dizditsu doguzala auzpazten gara datorren Jaunaren aurrean: urten gakiozan guztiok bidera eresi ta abestiz, goraka ta oiuka: «Bedeinkatua Jauna!»

7^{gn}. Kanta-gaia.—Agur, gure Errege, Dabid'en Seme, munduaren Erosle, Igarleak aurretiaz Israel'go etxeari etorriko yakola esan eben Salbatzaillea. Aitak foialdu zenduzan rnundura, santu guztoiak imunduareri asieratik opari osasungarri lez itxaroten ebena, ta orain: "Hosanna Dabid'en Semeari. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna goi-goietan!"

Eliz-bira luze-samarra izan ezkeru, «Chrlstus vincit» edo beste kantaren bat Kristo Erregearen omenez abestu daike erriak.

Abadea elizara biurtzerakoan, Kantagai au asten da:

8^{gn}. Kanta-gaia.—Jauna erri santuan sartzean, ebreatar umeak Biziaeren berbiztea iragarten ebena; palma-adarrak eskuetan ebezala, "Hosanna goi-goietan!" inioen, — Jesus Jerusalem'era etorrela erriak entzuz ebanean, bidera urten yakozan palma-adarrak, eta "Hosanna goi-gpietan!" inioen.

Meza-emoi'lleak, -altara-aurrean zutik, errira begira auxe diño:

A.—Jauna zuekaz.

E.~Baita juzagz be.

Otoitzta.—Jesukristo Jauna, gure Errege ta Erosle: abar oneik eroanik, zure omenez gorapen ospetsuak

abestu doguzan ezkeru, egizu biotz onez: aar oneik eroan dagiezan leku guztietara, zeure onespenaren grazia be jatsi daitela; eta, deabruaren ekiñaldi naiz lilluraKeri guztiak astindurik, odolez erosi zenduzanak zeure eskuak igorde dagazala. Amaibagako egunetan Errege bizi zara-ta.

E.—Olantxe.

M E Z A

(Jantzi ubelak)

Sarrera.—Jauna, ez egidazu berandutu zure lagun-tza; Zu, nire jagole, lagun zakidaz: atara nagizu leoia. ren agotik; eta gaixo au baso-idien adarretatik.—*ps.* Jaungoiko, ene Jaungoiko, ibegira ni: zegaitik itzi nozu? Nire pekatuen deadarrak osasunetik urrindu egi-
{en nabe.—Jauna, ez egidazu...

Otoitzta.—Gizadiari apaltasun-bidea erakusteko, gure Salbatzillea gizon egin eta gurutzean il zedilla nai izan zenduan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: egizu biotz onez, Aren Nekaldia gogoan artu daigula ta Aren berbizkudean lagunkide izan gakiozala. Amaibaga-to... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Pilipo'koai: 2, 5-11).—Anaiok: jesukristo'k izan ebazan asmoak izan egizuez zuek be: Jaungoiko-izatea izanik, ez eutsan eritzi lapurreta zanik Jaungoikoaz bardintzea: bere burua beeratu egin eban, ostera, morroi-itxura arturik, eta gizonen antze-ko egiñik. Eta gizon-eraz zala, bere burua txiki egin eban, eriotzaragiño esaneko egiñaz, gurutzean ilteragifio egin be. Aregaitik, Jaungoikoak be goratu egin eban, eta izen guztien gaineko dan izena emon eutsan; (*emen balauniko*) Jesus'en izenari zerukoen, lurrekoen eta lurpekoen belaunak makurtu dakiozan, eta miinguztiak Jaungoiko 'Aitarean aintzarako Jesukristo Jautzat autortu dagien.

Koru-kanta.—Eskutik eldu daustazu, ta zeure gurara zuzendu nozu, ta ospez atara.—Bai ona Israel'en Jaungoikoa biotz zintzoentzat! Jausi-agiñean aurkitu naz, bai, oiñak txirñits egiten asita: pekatarien bizitza opagarri yatan-eta, arein bakea ikusiñk,

Luzagarria.—Jaungoiko, ene Jaungoiko, begira ni: zegaitik itzi nozu?—Nire pekatuen deadarrak osasu-

netik urrindu egiten nabe.—Ene Jaungoiko, egunez dei egiten dautsut, et Zuk entzun ez; gabez be bai, ta Zu isilik.—Zu, alan be, toki santuan .bizi zara, Xs-rael'go edertasun ori!—Zeugan izan eben ustea gu_{re} gurasoak; bai, itxaron eben, eta onik atara zenduzan.—Zeuri dei egiñik, onik urten ziran: Zeugan izan eben itxaropena, ta ez ziran lotsatuta gelditu — Ni, barriz, ar txiki bat naz, ta ez gizon: gizonen lotsakluzun eta erriko barregarri,

Ikusten nenduen guztiak barre-irri egiten eusten; buru-eraginka, auxe iñoen: «Jaunagan jarri eban ustea: Berak askatu begi; salbau begi, maite dau-ta.—Areik, otera, ikusi ta neuri begira; nire jantziak banatu egin ebezan euren artean, eta nire soñekoak zotz egin eben.—Atara nagizu leoi-ago zulotik, eta baso-idien adarretatik.—Jaunaren bildur zarenok, autortu egizue Bera: Jakob'en ondorengo guztiok, goratu egizue Jauna.—Geroko gizaldia Jaunarena izango da, ta zeruak Aren zuzentasuna adierazoko dautso Jaunak eginda jaioko dan erriari.

Jesukristo trure Jaunaren Nekaldi edo Pasiñoa, Mateo deunak dakarrenez (26, 3b-75; 27, 1-60).

Getsemani baratzeko otoitza.—Aldi aretan, Jesus bere ikasleakaz Getsemani izeneko baratzera eldu zan, eta bere ikasleai auxe esan eutsen: «Jesarri emen, Ni aruntzago otoi egitera noan bitartean.» Eta Pedro ta Zebedeo'ren seme biak beragaz arturik. naigabetzen eta larritzen asi zan. Orduan, ba-dirautse: «Ilteko zorian larri dot biotza; itxaron emen eta zain egon nigaz.» Eta zerbait aurreraturik, lurtean auzpeztuta otoi egiten ziarduan, esanez, «Ene Aita!, al ba'da, kendu egizu ontzi au (oiñaze au) nigandik; alan be, ez bedi nire naia egin, Zeurea baiño.»

Gero, ikasleakana biurturik, lotan aurkitu ebazan, eta Pedro'ri dirautso: «Ordu bete be ezin egon izan zaree nigaz iratzarririk? Zagoze ernai ta egizue otoi, zirikal dian (tentaziñoan) sartu ez zaitez. Gogoa ""•tu dago, baiña aragia makal.» Eta barriro alde egi-otoitz au egin eban: «Ene, Aita!, ontziko au nik *e (edan bagarik) ezin igaro ba'da, egin bedi zua.» Ta biurturik, barriro toe lotan aurkitu ebazan, foegiak astunduta egozan-eta. Areik itzirik, barri-joan eta otoiitz egin eban, itz beberak esar.ez.

Orduan, ikasleakana etorri zan, eta esan eutsen: «Onezkero lo egizue ta atsedan artu... Ordua eldu da. ta Gizasemea pekatarien eskuetan jarria izango da, jagi zaiteze, goazan; begira, urrean dago nire saltzaillea.»

Jesus lotuta daroe.—Jesus'ek oraindiño izketan ziarduala, Judas, amaibietariko bat, eldu zan, eta onegaz batera gizatalde aundia, ezpata ta makillaz, abade-buru ta erriko zaarrak blalduta. Saltzailleak, barriz, ezaupide au emon eutsen, esanez: «(Nik laztandu dagidana, axe da: lotu egizue.» Ta bereala, Jesus'egana urreraturik, esan eutean: «Agur, Rabi (Irakasle)!» Ta mosu emon eutsan. Jesus'ek esan eutsan: «-Adiskide zetara etorri zara?» Orduan, besteak urreraturik, Jr sus'i eskuak ezarri ta lotu egin eben. Eta Jesus'eg^A egoan batek, esku luzaturik, ezpata atara eban, «^{o3} abade-nagusia ren morroi bat zauriturik, belarri^{j a *} ebagi eutsan. Baiña Jesus'ek esan eutsan: «Sart^{1 ez}-pata ori zorroan; ezpata erabili dagien guztiak, ezpatz ilgo dira-ta. Uste aJ dozu, bada, nire Aitar eskatu ezkerro, ez leuskedazala beingo baten amari aingeru-talde baiño geiago bialduko? Ta onela ^zo bear dala idatzita dagxian au,zelan beteko litzakf, bestela?»

Orduan, Jesus'ek gizataldeai esan eu^{en}: «Lapur-billa lez urten zaree ezpatz ta makilliz Ni lotzera. Egun oro zeuen aurrean niarduan eliza» irakasten, eta ez zeusten oratu. Baiña guzti au, Jáarleak idatzitakoa bete zedin jazo da.» Orduan, yere ikasle guztiak Jesus itzita, iges egin eben.

Jesus *abade-nagusia ren aurretfi.*—Eta Jesus loturik, abadenagusi Kaifas'enera eroa» eben, idazlari ta zaarrak antxe baturik egozala. Pedro'k urrunetik jarraitzen eutsan abadenagusia ren atarteraiño. Ta barrura sarturik, morroiakaz jesarri zan, ázkena ikusi naiez. Abade-^buruak eta baitzarre osoak Jesus'en aurka guzur-billa ziarduen, eriotzara eroateko asmoz; baiña guzurrezko autorle (testigu) asko etorriaren, ez eben ezer aurkitu. Azkenez guzurrezko testigu bi etorri ziran, eta esan eben: «Onek auxe esan eban: Jaugoikoaren etxea lurrera eratsi daiket, eta iru egun barru barriro jaso.» Ta abadenagusiak, jagirik, esan eutsan: «Ez dautsazu ezer erantzuten oneik zure aurka díñoenari?»

Baiña Jesus isilik egoan. Orduan, abadenagusiak auxe esan eutsan: «Jaungoiko biziaren izenean agintzen dautsut: Esan egiguzu Kristo Jaungoikoaren Semea zaran.» Jesus'ek dirautso: «Zeuk esan dozu; ta auxe be ba-dirautsuet: laster ikusiko dozue Gizase-mea Jaungoiko indartsuaren eskumaldean jesarrita ta odef-gaiñean etorten.» Orduan, abadenagusiak bere soñnekoak urratu ta esan eban: «Bira egin dau! Zetarako testigurik onezkeru? Oraintxe entzun dozue biraoa: zer deritzazue?» Ta areik erantzun eban: «Ilteko errudun da.» Orduan, arpegira txistua botaten, ikubilka ta matraillakoak emoten asi yakozan, esanez: «Igarri egiguzu, Kristo, nok jo zaitu?»

Pedro'ren ukatzeak. — Bftartean, Pedro kanpoan goan, bebarruan, jesarrita; eta neska bat urreratu >,kon esanez: «Zu be, Jesus; Galilearragaz zengozan.» B>iña arek guztien aurrean ukatu egin eban, esanez: «Ei. dakit zer diñozun.» Eta ate-aurrera joiala, beste neskjme batek ikusi eban, eta an egozanai esan eutseri: «Au be Jesus Nazaretarragaz ebillen.» Barrire be Pet_{r0}'k zin eginda, ukatu egin eban, esanez: «Ezagutu be ez dot egiten gizon ori.» Gerotxoago, an egozkanak u-reraturik, Pedro'ri esan eutsen: «Zu be, urrean, ai^itarikoa zara, zeure izkerak be salatu egiten zaitu-tk.» Orduan, biraoka ta zin egiten asi zan, ez ebala gizo^ a ezagutzen esanez. Eta berealaxe, oillarrak kukurruk^ egin eban. Eta Pedro'k, Jaunak esan eutsazan berbok gogoratu ebazan: «Oillarrak kukurruku egin toaño let, iru bidar ukatuko nozu.» Eta andik urtenda, negar egivi eban atsekabez.

Kaifas'egandik Piatos'egana.—Goizean, abade-buru guztiak eta erriko zaarrak, batzarra egiñik, Jesus eriotzara eroateko erabagia. artu eban, eta loturik, Pontzio Pilatos lendakariagana eroan eta ari emon eutsen.

Judas'en ama.ia.—Orduan Judas'ek, saldu ebanak, Jesus'i eriotzarako epaia emon eutsola ikustean, damututa, ogetemar zidarrezko dlruak abade-nagusi ta zaarra biurtu eutsazan, esanez: «Pekatu egin dot, zuzen baten odola salduaz.» Baiña areik esan eutsen: «Eta guri zer? Zeuk ikusiko dozú.» Eta zidarrezko diruak elizan jaurtirik, andik alde egin eta joan zan, eta lofcarriaz bere burua urkatu eban.

Abade-nagusiak, diruak arturik, esan eban: «Ez da bidezko diruok elizako atabakan sartzea, odol-sari di-a-ta.» Eta alkar-arturik, diru arekaz ontzigin (buztin-lari) baten zelaia erostea erabagi eban, arrotzen illobitz'at. Orregaitik, gaur arte landa ari Hakeldama edo odol-zelai deritxoe. Orduantxe toete zan Jeremias igar-leak esandako au: «Ogetamar zidarrezko diru artu dabez, salduaren salneurria, Israel'go semeak ontzat emondako negurria Ta ontzigin baten zelai-saritzaf emon dabez, Jaungoikoak agindu daustanez.»

Jesus, Pilatos'en aurrean.—Eta Jesus lendakariaren aurrera eroan eban, ta onek itandu eutsan, esanez: «Judarren errege zara zu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Zeuk diñozu.» Ta abade-nagusi ta zaarrak salatzen ebanarren, Jesus'ek ez eutsen itzik be erantzun. Orduan, Pilatos'ek dirautso: «Ez dozu entzuten zenbate-tan salatzen zaituen?» Baifia Jesus'ek ez eutsan geiago ezer bere erantzun, Pilatos guztiz arrituta gelditzera-geño. Pazko-jaitan erriburuak giltzapeko bat askatu oi eban, erriak nai egiana. Aldi aretan ba-eukan espetxean Barrabas eritzan entzute aundiko bat; eta an batu ziranai Pilatos'ek esan eutsen: «Ncr nai dozue askatu dagitzuedan? Barrabas, ala Jesus, Kristo deritzana?» Bekaizkeriz* saldu ebela ba-ekian-eta.

Eta Pilatos epai-tokian jesarrita egoala, bere emazteak barri au bialdu eutsan, esanez: «Ez naastu zintzo orren arazoetan: gaur amesetan, ori dala-ta, atsekabe aundiak izan dodaz-ta." Bitartean, abade-buru ta zaarrak erria axatu egin eban, Barrabas askatu ta Jesus galdu egien. Eta lendakariak, erantzunik, esan eutsen: «Biotatik nor nai dozue askatu dagitzuedan?» Areik esan eban: «Barrabas!» Pilatos'ek erantzun eutsen: «Zer «gingo dausat, ba, Jesus'i, Kristo deritxon Jesus'i?» Eta guztiak diño: «Gurtzera orii» Pilatos'ek dirautse: «Ze gaiztakeri egin dau, ba?» Baiña areik, deadar aundiagdz, iñoen: «Gurtzera eroan egizu!» Pilatos'ek, bada, ezer jaristen ez ebala, ta gero ta naaste aundiagoa sortzen zala ikusirik, ura erakerrita, erriaren aurrean eskuak garbitu ebazan, esanez: «Nik ez dot ikustekorik zintzo onen odolaz; zeuk ikusi.» Ta erri guztiak erantzunik, esan eban: «Betor orren odola geure gaiñera ta geure semeen gaiñera!» Or-

* Bekaizkeri = envidia.

duan, Barrabas askatu ggin eutsen; eta Jesus zigor, kadaz astindu ondoren, arein gskuetan itzi eban, gu. rutzeratu egien.

Irañak eta arantzazko koroia.—Orduan, lendakariaren gudariak, JJesus artUrik eta jauregi-bar'rura eroanik, gudari-talde osoa batu eben Aren inguruan, eta Jesus'i jantziak erantzirik, soiñeko gorri bat iantzi eutsoen; eta arantzazko koroï bat eginda, buruan ezarri eutsoen, eta kaiñabera bat eskumako eskuan, Eta Aren aurrean belaunikoturik, iraindu egiten eben, esanez: «Agur, judarren errege orri!» Eta Ari txistua jaurtirik, kaiñabera artu ta buruan joten eben. Eta irri ta barre egin ondoren, soñgaiñeko gorria erantzi ta barriro bere jantziak jantzi eutsoezan, eta guru, tzean josteko atara eben.

Golgota-bidean.—Uritik urteeran, Simon eritxon Zirene'ko gizon bat aurkitu eben, eta Jesus'en gurutzea eroan egiala agindu eutsen. Eta Golgota edo Bu. ruazurtegi deritxon tokira eldu ziran; eta beartzunez* nastautako ardaoa emon eutsen gdateko: baiña Jesus'ek, txastatu ondoren, ez eban edan nai izan.

Jesus gurutzean.—Jesus gurutzean josi ondoren, Aren jantziak zotz egiñik, alkarren artean banandu ebezan, Igarleak esandako au bete zedin; «Nire soiñekoak euren artean banandu dabez, ta nire soingai. ñekoa zotzetara egin dabe.» Eta Aren ondoan jesarririk, zaindu egiten eben. Eta Aren burua baiño gorago epai-agiria ezarri eutsoen: «Jesus Nazaretarra, judarren Errege.» Aregaz batera lapur bi josi ebezan gurutzean, bata eskumakaldean eta bestea ezkerrekaldean. Eta aurretik igaroten ziranak buru-eraginka ta biraoka zirauteoen. «Jaungoikoaren etxea lurrera eratsi ta iru egunean barriro jasoten dozun orrek, zeure burua askatu egizu; Jaungoikoaren Semea ba'zara. jatsi gurutzetik!» Bardin iñoen abade-nagusi, agintari ta erriko zarrak be, irräka alkarri zirautsoela: «Beste batzuk askatu dauz, ta bere burua ezin askatu!; Li rael'go Errege ba'da, jatsi bedi orain gurutzetik eta sinistuko dogu; Jaungoikoagan eban ustea: lagun dagiola orain Jaungoikoak, maite baldau, "Jaungoikoaren Seme naz" iñoan-eta.» Aregaz batera gurutzean eskegita egozan lapurrak be, iraindu egiten eben.

* Beartzun = hiel.

Jesus'en erioiza.^Seiretatik bederatzia arte (1) lur osoa illunetan gelditu zan. Eja bederatzia aldean. Jesus'ek, deadar aundiz, esan eban: «Eli, Eli, lamma sabachthani?»: au da, «Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itzi nozu?» Itzok entzunda, an egozan batzuek iñoen: «Elias'i deika diardu.» Ta, bereala areitariko batek, belaki* bat artu, ozpiñetan* busti, kaiñabera-erpifiean ezarri, ta edaten emon eutsan, Besteak iñoen: «Itzi, ikusi daigun askatzera Elias ete-datorcion.» Baiña Jesus'ek, barriro deadar aundi bat egiñik, azken-arnasa emon eban.

(Guztiak belauniko emen.)

Jesus'en eriotza-ondoren.—Orduan, eliza nagusiko oiala zati bitan urratu zan goitik beera; ta lurra ikaraz asi zan, arriak zatitu, illobiak zabaldu, ta ildako zintzoen gorpu asko, lurperatuta egozanak, berbiztu egin ziran; eta Jesus berbiztu zanean, illobietatik urtenda, uri santura etorri ta askori agertu yakezan. Bitartean, eunburua* ta onegaz Jesus zaintzen ziardue-nak, lur-ikarak eta jazotakook ikusirik, guztiz ikaratu ta egozan, eta iñoen: «Egiz, gizon au Jaungoikoaren Seme zan!» An egozan, urrindik begira, emakume asko, Jesus'en atzetik neskame-lanetan lagun egiñez etorri ziranak: arein artean, Mari Madalen, eta Mari, Santiago'ren eta Jose'ren ama, ta Zebedeo'ren semeen ama.

Jesus'en illobiratzea. — Illunabarrean, Jose izeneko gizon aberats bat etorri zan, Arimatea'ko semea, ta Jesus'en ikasle be ba-zan. Onek, ba, Pilatos'egana joanda, Jesus'en Gorpua eskatu eutsan; eta Pilatos'ek emoteko agindu. Jose'k, ba, Gorpua arturik, izara garbi bat az batu eban, eta Jose'k berak arri bizian egindako bere illobi barri baten ipiñi eban. Eta illobi-sarreran arritraz bat jarririk, joan egin zan.—*Kredo.*

Eskintza.—Irañez eta atsekabez beteta euki neban biotza: nitzaz nor erruki zain nengon, baiña ez zan iñor agiri; poz-ekarle bat nai, eta iñor ez; beartzuna emon dauste janari, ta egarri-aldian ozpiña* edaritzat.

(1) Eguerdiko irurak arte.

* Eunburu = eun gudariaren buru edo nagusi zana = centurión. « Belaki = esponja. * Ozpin = vinagre.

Opari-otoitza.—Elguzu, arren, Jauna, zure aurrean eskiñi dogun opari onek, Zeuganako gogoa emon daigula, ta betiko zoriona Jadetsi. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena, 452 orrt.*

Jaunartzerakoa—Aita, ontziko au Nik edateke (edan bagarik) ezin igaro ba'da, egin bedi zure naia.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen indarrez, Jauna, garbitu daitezala gure grña txarrak, eta gure gurari znzenak bete. Amaibagako.

Erramu-bedeinkatzea egin ba'da, ez da azken-Ebanjeliorik esaten. Beste Mezetan, barriz, 198 orrialdeko Barri Ona irakurten da.

ASTELEN GUREN

l'go. maiUa. — Zuriz

Sarrera.—Egin gogor, Jauna, nire arerioai; ondatu ni galdu nai nabena; artu ezpata ta mazmarro* ta Jagi, Jauna, niri laguntzera.—*P's.* Atara ezpata, jo ta garbitu ni aurrean narabilenak; esan nire arimari: "Neu naz zure osasun".—Egin gogor, Jauna...

Otoitza.—Ei g u z u, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!, onenbeste larriaiditan gure argalkeziz lurra josten dogun ezfero, zure Senzen bakarraren bitartez, b'z-kortu gaitetzala. Amaibagako egunetean Zugaz eta Espiritu Sanituagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurragia (Isaias, 50, 5-10).—4Egun areitan, Isaias'ek auxe esan eban: Jaungoiko Jaunak belarriak edegi eustazan, eta nik ez neutsah ezezkorik esan; nik ez neban atzera egin. Joten nenduenai lepoa emon neutsen, eta matraillak bizarra leuntzen eustenai: iseka ta txistuka ziarduenai ez neutsen arpegirik atzeratu. Jaungoiko Jauna dot laguntzaille, ta ez naz lotsatu: orregaitik, arpegi au arri gogorra lez agertu dot, eta badakit ez nazana lotsaz geldituko. Ondoan daukat zuritzen nauana; nor jagiko da nire aurka? Gagozan biok batera; nor nire arerio? Betorkit aurrera. Jaungoiko Jauna da nire laguntzaille; nok ondatuko nau? Guztiak ezereztuak izango dira, soñekoa lez urratuko dira, siteak jango dauz. Nor da zuen artean Jaungoi-

* Mazmarro = escudo.

lcoaren bildur izan daitena? Aren morroiaren itza entzun dagiana? Illunetan ibilli daitenak eta argirik izan ez dagianak, itxaron begi Jaunaren izenean, eta eldu begio bere Jaungoikoari.

Koru-kanta.—Jagi, Jauna, ta zatoz nire auziaren alde; garbitu egizu nire auzia, ene Jaungoiko ta Jaun! —Atara ezpata, jo ta garbitu ni aurrean narabilenak,

Luzagarria.—Jauna, ez gagizuz erabili egindako pekatuen negurritz, ezta gure gaiztakeriai degokien negurrira zigortu be.—Jauna, ez egizuz gogora ekarri gure antxiñako pekatuak; betorkigu, barriz, lenbailen zure errukia, oso foearitsu egin gara-ta. (*Bektunlko ermen.*) —Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osasun!, eta fure izen goragarriagaitik, gorde gagizuz, Jauna; parkatu eiguzuz gure pekatuak zure izenagaitik.

Barri Ona (Jon, 12, 1-9).—Pazko-jaiia baiño sei egun lenago, Jesus Betania'ra etorri zan, Jesus'ek biztutako Lazaro bizi zan tokira. Ta an apari bat gertatu eutsoen. Marta maian mirabetzan ziarduan, eta •Jesus'egaz maikidetariko bat Lazaro zan. Mari'k, ba, ^fibra bat akara* usaingarri jator eta onenatarikoa artuta, Jesus'i oiñak igurtzi ta bere adatsaz* legortu (sikatu) eutsazan; eta etxea usaingarriz bete zan. Beraz, ;ikasletariko batek, salduko eban Judas Iskariote'k, esan eban: «Usaingarri au, zegaitik ez da irureun denariotan saldu, saria beartsuai emoteko?» Baiña ori ez eban beartsuen arduraz esan, lapurra zalako baiño: .diru-zorroa berak eukiten eban-eta, ara sartzen zana beretzat artzen eban. Baiña Jesus'ek esan eutsen: «Itzi egizue, nire illobiratze-egunerako atondurik eukan-eta. Txiroak (beartsuak) beti izango dozuez zeuekaz; ni, barriz, ez.» Onetan, judar askok, Jesus an «goala jakiñik, ara jo eben: Jesus'egaitik bakarrrik ,ez, illen artetik biztu eban Lazaro ikustearren be bai.

Esqintza.—Atara nagizu, Jauna, arerioen artetik; •Zeugana nator; erakutsi egidazu zeure naia egiten, nire Jaungoiko zara-ta.

Opari-otoitza,—Egizu, Jaungoiko alguztidun!, opari onen indar aundiz gu garbiturik, beronen iturburu danegana garbiago eldu gaitetzala. Amaibagako

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena, 452 orrl.*

* Akara = nardo. * Adats = cabellera.

Jaunartzerakoa.—Lotsaz ondaturik gelditu beite» niri kalte egiten diarduenak: lotsaz gorritu beitez ni, gaitik txarto esaten diarduenak.

Azken-otoitza.—Eukaristi santu onek, Jauna, Zugarako garrez berotu gaizala: berau artuez eta beronen ondorenez (frutuz) poztu gaitazan.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoaren aurrean.—Lagun zakiguz, Jaungoiko gure osasun!, eta eiguzu, gu osatu gaituzuneko ondo-eguñak gogoratzera pozik etorri gaitzezala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Epiritu Santuagaz batera jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

ASTARTE GUREN

l'go. maila. — Ubeles

Sarrera.—On yaku Jesukristo gure Jaunaren GURUTZEAN poztutea: osasuna, bizitza ta biztutea Beragan dogu-ta; Bere bidez askatu ta zerurako irabaziak izan gara — ps. Erruki bekigu Jaungoikoa ta bedeinkatu gaizala, argitu gaizala bere arpegiaz eta errukitu daitela gutzaz.—On yaku...

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikorra!, eigu-zu, Jaunai'en Nekaldiko misterio oneik ospatzean, parkamena artzea be jadesi daigula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Jeremias, 11, 18-20).—Egun areitan, Jeremias'ek auxe esan eban: Jauna, Zeuk erakutsi zeustan eta nik ezagutu; arerioen asmoak erakutsi zeustan orduan. Ni, barriz, iltera daroen bildots otzanan antzera; eta ez nekian nitzaz alako asmoak artu ebezanik. Eta auxe ifioen: ogi ordeez zotza emon daigun, eta bizidunen artetik garbitu dagigun, eta ez bedi geiago orren izenik aitatu. Zuk, alan be, gudarozteen Jaun orrek, eritxi zuzena dozu ta biotz-asmoak aztertzen dozuz: emon arei ordain egokia, ene Jaun eta Jaungoikoa, nire auzia zeure eskuetan itxi neban -eta.

Koru-kanta.—Nekatzen nenduenean, zurdatzaz* jazten nintzan; nire arima barauaz zigortzen neban, eta

* Zurdatz = cilicio.

otoitzak neukazan beti. kolkoan—Egin gogor, Jauna, nire arerioai; ondatu ni galdu nai nabenak; artu ez-pata ta mazmarroa, ta jagi niri laguntzera.

Jesukristo gure Jaurfaren Nekaldia, Markos deunak dakarrez (14, 32-72; 15, 1-46).

Getsemani baratzeko otoitza.—Aldi aretan, Jesus eta bere ikasleak Getsemani izeneko baratze etorri ziran. Eta bere ikasleai dirautse: «Jesari emen, otoitz egin dagidan artean.» Eta Pedro, Santiago ta Jon beragaz arturik, ikarutzen eta larrfizen asi zan. Orduan, auxe dirautse: «Ilteko zorian larri dot biotza; itxaron emen eta egon iratzarrik.» Eta zerbait aurreratu ta lurrean auzpeztu zan; al ba'zan, ordu a alde ekila eskatzen eban. Eta esan eban: «Abba, Aita!, Zuk dana daikezu, kendu egizu nigandik ontzi au; alan be, ez bedi nire naia egin, Zeurea baiño.» Eta irurakana etorririk, lotan aurkitu ebazan. Orduan, Pedro'ri ditautso: «Sdmon, K> zagoz? Ordu bete be ezin iratzarrik egon izan zara? Zagoze ernai ta egizue otoitz, zirikal-dian (tentaziñoan) sartu ez zaitezen. Gogoia gertu dago, baiña aragia makal.» Eta barriro alde egiñik, otoitz egin eban, berba bardiñak esanez. Eta biurturik, barriro be lotan aurkitu ebazan, arein begiak astunduta egozan-eta; ez ekien, barriz, erantzuten. Eta irugarrenez etorri zan, eta esan eutsen: «Onekero lo egizue ta atsedan artu... Baiña naiko da: ordua eldu da, ta Gizasemea pekatarien eskuetan jarria, izango da. Jagi zaitetze, ta goazan, nire saltzaillea urrean dago-ta.»

Jesus lotuta daroe.—Itzok esaten ebazala, judas Iskariote, amabietariko bat, eltiu zan, eta aregaz batera lagun-tale ajmdia ezpaitaz eta maikillaz, abade-buru, idazlari ta erriko zaarrak bialduta. Saltzailleak ezau-pide au emon eutsen, esanez: "Nik fartzandu dagidana, axe da; lotu ta arduraz eroan egizue.» Ta el-du zanean, bereala Jesus'egana urreraturik, esan eutsan: «Agur, Irjakasle!» Ta laztan bat emon eutsan. Orduan areik, Jesus'i eskuak ezarrik, lotu egin eben. An egoan batek, ezpata atarata, abade-nagusiaren morroi bat zau-ritu eban eta belarri bat ebagi eutsan. Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eutsen: <cLapumbilla lez urten za-
<æ ezpataz eta maikillaz ni lotzera? Egun oro nen-goan zuen aurrean, eta elizan irakasten neban, eta ez

zeuaten oratu. Baiña bearrekoa da au Idatzitakoa bete dadin.» Orduan bere ikasleak, Jesus iteita, iges egin eben. Orraitiño, mutil batek jarraitzen eutsan, gorputza izaraz bakarrik estaldurik, eta oratu egin eutsoen; arek, barriz, izarara arantzirik, billosik iges egin eutsen.

Jesus aoadenagusiaren aurrean.—Eta Jesus abade-nagusi Kaifas'en etxera eroan eben, abade guztiak, idazlari ta zaarrak antxe batuta egozala. Pedro'k Jesus'i urrunetik jarraitzen eutsan abade-nagusiaren etxeko atarte-barruraitiño, ta morroiakaz sutondoan jarri zan berotu naiez. Bitartean, abade-buruak eta batzarre osoak Jesus'en aurka testiguntza-billa ziarduen, eriotzara eroateko asmoz, baiña ez eben idoroten (aurkítzen): izan be, guzurrezko testigu asko etorriarren, arein esanak ez etozan batera, Azkenez, batzuek, jagita, autor au egin eben: «Geuk entzun dautsagu esaten: «Eskuz egindako eliza au, neuk lurrera eratsiko dot, eta iru egunen toarruan eskuz egindako ez dan beste bat eregiko dot.» Baiña alan be, arein esanak ez etozan batera.

Orduan, abade-nagusiak, erdian zutik, Jesus'i ifeaur au egin eutsan: «Ez dautsazu ezer erantzuten oneik zure aurka diñoenari?» Baiña Jesus isilik egoan, eta ez eban ezer erantzuten. Barriri be, abade-nagusiak itandu ta esan eutsan: «Kristo, Jaungoiko bedeinkatuaren Semea zara zu?» Jesus'ek esan eutsan: «Neu naz, eta Gizaseme au ikusiko dozue Jaungoiko indartsuaren eskumaldean jesarrita ta odel-gaiñean etorten.» Orduan, abade-nagusiak, bere soñekoak urratuak, esan eban: «Zetarako testigurik onezkerok? Zeuok entzun dozue biraoka: zer deritzazue?» Eta guztiak ilteko errudun zala ebatzi eben. Eta batzuek arpegira txistua botatan asi yakozan; eta Ari arpegia estaldurik, ikubila zirautesan: «Igarri egiozu.» Ta morroiak be matraillakoak emoten eutsazan.

Pedro'ren ukatzeak.—Pedro, beko bebarruan egoala, abade-nagusiaren neskametariko bat etorri zan; eta Pedro sutondoan berotzen ikusirik, ari begira-begira jarri ta esan eutsan: «Zu be Jesus Nazaretarragaz zen. gozan.» Baiña arek ukatu egin eban, esanez: «Ez dot ezagutzen, ezta zer diñozun be ez dakit.» Eta ataurre-ra urten zan, eta oillarrak kukurruku egin eban. Mira-

beak, a barríro ikustean, an egozanai esaten asi yaken: «Au be orreitarikoa da.» Baiña Pedro'k bigarrenez be ukatu. Ta gerotxoago, an egozanak Pedro'ri zirautsoen: «Egiz, zu be areitarikoa zara, Galilearra zara-ta.» Orduan, Pedro biraoka ta zin egiten asi zan: «Ez dot ezagutzen zuek diñozen gizon ori!» Ta berealaxe, oillarrak bigarrenez kukurruku egin eban. Eta Pedro'k, Jaunak esan eutsan itzok gogora ekarri ebazan: «Oillarrak birritan kukurruku egin baifio len, iru bldar ukatuko nozu.» Ta negarrez asi zan.

Jesus Pylatos'en aurrean.—Egungentian abade-nagusiak, zaarrakaz, idazlariakaz eta batzarre osoagaz baturik, Jesus lotu ta Pilatos'ei emon eutsen. Pilatos'ek itaun au egin eutsan: «Judarren Errege zara zu?» Jesus'ek, erantzunik, esan eutean: «Zeuk diñozu.» Abade-nagusiak askotaz salatzen eben-eta, Pilatos'ek barriri be itandu eutsan: «Ez dozu ezer erantzuten? Ikusi zenbatetan salatzen zaituen.» Baiña Jesus'ek ez eban geiago ezer be erantzun, Pilatos guztiz arrituta gelditzeragiño. Pazko-jaitan erriburuak giltzapeko bat askatu oi eban, erriak nai egiana. Ta arein artean Barratias izeneko bat zan: uriko matxiñada baten norbait 11 ebalata, beste matxiñarrakaz espetxean egoan. Beraz, errikoak jagi ta beti egiten eutsena eskatzen asi yakozan. Pilatos'ek erantzun eutsan: «Nai dozue judarren Erregea askatu dagituzuden?» Abade-nagusiak tiekaizkeriz* saldu ebela ba-ekian-eta.

Baiña abade-buruak erria axatu egin eben Barrabas askatu egian. Pilatos'ek barriri erantzun eta esan eutsen: «Zer egingo dausat, ba, judarren Errege dala diñozen ori?» Barriri be areik deadarka esan eban: «Gurutzera ori!» Baiña Pilatos'ek airautsen-. «Ze gaiztakeri egin dau, ba?» Areik, barriz, deadar aundiaoz barriri be iñoen: «Gurutzera eroan egizu!» Azkenez, Pilatos'ek, erria atsegindu nairik, Barrabas askatu eutsen, eta Jesus zigorkadaz astindu ondoren, arein esketan itzi eban, gurutzeratu egien.

Irañak eta arantzazko koroia.—Gudariak, Jesus Jauregi-barrura eroanik, gudari-talde osoa batu eben, soñeko gorri bat jantzi eutsen, eta arantzazko koroia bat ezarri eutsen buruan. Eta agurka asi yakozan: «Agur, Judarren erregel» Ta kaiñabera bataz buruan

* Bekaizkeri = envidia.

joten eben, txistua jaurtiten eutsoen, eta belaunikoturik, makurtu egiten yakozan. Eta iraiñez bete ebenean soñeko gorria erantzi ta bere soñekoak jantzi eutsioezan.

Golgota-bidean.—Eta gurutzean josteko atara eben. Eta solotik etorren gizon bat gelditu eben, une aretan bertatik joiala: Simon Zirenetarra, Alexander'en eta Errupo'ren aita, ta Jesus'en gurutzea eroateko beartu eben. Eta Jesus, Golgota, áu da, Buruazurtegi deritxon tokira eroan eben, Eta mirraz nastautako ardaoa emoten eutsoen, baiña ez eban artu.

Jesus Gurutzean.—Eta gurutzean josi ebenean. Aren jantziak banandu egin ebezan, zotz-eginiñ, nok zer eroango. Irugarren ordua zan gurutzean josi ebenean, Eta epai-agiri au egoan idatzita: "Judarren Errege." Aregaz batera lapur bi gurutzeratu ebezan; bata Aren eskumakaldean, eta bestea Aren ezkerrekaldean. Orrela bete zan idatzita egoan au: "Eta gaizkiñakaz bardindu eben." Eta aurretik igaroten ziranak, buruari eragin eta birao egiten eutsoen, eta zirautsoen: «Or!, Jaungoikoaren etxea lurrera eratsi ta iru egunean barrio zutuntzen dozun orrek, askatu egizu zeure burua gurutzetik jatsiaz.» Bardin iñoen abade-nagusi ta idaz. laria be, barrezka alkarri zirautsela: «Beste batzuk askatu dauz, eta bere burua ezin askatu! Kristo, israel'go Errege, Jatsi bedi orain gurutzetik, ikusi ta sinistu dagigun.» Aregaz batera gurutzean eskegita egozanak be, iraindu egiten eben.

Jesus'en erlotza.—Seiretatik bederatzia arte (1) lur osoa illunetan gelditu zan. Eta bederatzietan, Jesus'ek, deadar aundiz, esan eban: «Eloi, Eloi, lamma sabachthani!», edo bardin dana: «Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itzi nozu?» Itzok entzunda, an egozan batzuek iñoen: «Entzun, Elias'i deika diardu.» Bta areitariko batek, arin joanda, belaki* bat artu eban, eta ozpiñetan* busti, kaiña'oe.ra baten erpiñean ezarri, ta edaten emoten eutsan, esanez: «Itxaron, ikusi daigun jafcsitera Elias ete-datorkion.» Baifia Jesus'ek, deadar aundi bat eginda, azken-arnasa emon eban.

(*Guztiak belauniko emen.*)

(1) **Eguerdlko Irurak** arte.

• Belaki = esponja. • Ozpin = vinagre.

Jesus'en eriotza-ondoren.—Orduan, eliza nagusiko oiala zati toitan urratu zan goitik beera. Eta eunburuak, Jesus alako deadarra eginda il zala ikusirik, esan eban: «Egiz, gizon au Jaungoikoaren Seme zan!» Ema. kume toatzuk be ba-ziran an, urrundik begira; arein artean, Mari Madalen eta Mari, Santiago gaztearen eta Jose'ren ama, ta Salome egozan: Jesus Galilea'n egoala, mirabe-lanetan lagun egiñez Jarraitzen eutsoenak; baita beste emakume asko be aurkitzen ziran an, Jesus'egaz Jerusalem'era igo ziranak.

Jesus'en illobiratzea. — Ilunabarrean, (Paraskebe edo larunbat-aurreko eguna zala-ta), Arimatea'ko Joss, batzarre nagusikoa, Jaungoikoaren erreñutiren ?ain egoana, etorri zan; eta Pilatos'egana etorririk, Jesus'en gorpua eskatu eutsan. Pilatos'ek, Jesus ain laster il zala-ta, arrituta, eunburuari dei egiñik, il ete-zan itandu eutsan. Eta eunburuak baiezkoa emon eutsanean, Jesus'en gorpua Jose'ri emon eutsan, Jose'k izara bat erosi eban eta gorpua gurutzetik eratsirik, izaraz batu eban, eta arri bizian egindako illobi baten ipiñi eban, eta illobi-sarreran arritzar bat jarri eban.

Esintza.—Gorde nagizu, Jauna, gaiztoaren eskutik; atara nagizu gizon biurrien artetik.

Opari-otoitza.—Barau osasungarriakaz batera eskintzen dautsuguzan opariok, Jauna, bizi barria emon daiskueta. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Gurutze santuarena*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Atean jarrita egozanak neure aurka ziardeen; ardaoa edaten ebenak be, neu nenduen kanta-gai. Nik, oster, Jauna, Zeuri egiten dautsuet erregu, Ene Jaungoiko!, entzun nagizu aldi egokian, zeure erruki aundiz.

Azken-otoitza.—Zure Sakramentu santuak, Jaungoiko alguztidun, gure zalekeriak osatu dagizala ta betiko osasuna ekarri daiskula. Amaibagako.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok Jaungoikoareu aurrean.—Zure errukiak, Jaungoiko!, ustelkeri zaar guztitik garbitu gaizala, ta santutasun barrirako gei egin. Amaibagako.

EGUAZTEN GUREN

l'go. mailla. — Ubelez

Sarrera.—Jesus izena entzutean, jarri bediz belau-niko zeru-lur-inpernuak; Jauna eriotzaraiño esaneko egin da-ta, gurutzean ilteragiño egin be; orregaitik, Je. sukristo Jauna Aita Jaungoikoaren zeruon dago.-J Ps. Jauna, entzun nire otoi-tza, eldu bedi Zeuganamo nire deadarra.—Jesus izena...

Kyrie *esan ondoren, abadeak, Epistola-aldean, auxe diño* • Otoi-tz egin daigun.—Belaunikotu gaitez. (*Belau-niko apur baten*).—Zutundu zaitze.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!: gure larkeriak aldi oró naigabetzen gaituen ezker, zure Seme bakarraren Nekaldiak arindu gazigala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Erre-ge bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgaia (Isaias, 62, 11; 63, 1-7).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Esan egiozu Sion'go alabari: Orra nun datorkizun Salbatzailea, saria be beragaz dakarela. Nor da Edon'dik datorren au? Bosra'tik jantzi odolduaz? Soifikoz eder da, ibilkeraz aundi ta indartsu. Neu naz zuzentasuna iragarten dodana, ta gizona zeruratzeko burrukan diardudana. Zelan dozu, ba, jantzia gorri, ta soiñekoa dolaran* matsa zapaltzen dabenak lez? Neuk bakarrik zapaldu dot dolara, gizonetariko lagunik baga; nire sumiñez* arerioak zapaldu egin dodaz, baita lertu be nire amorru biaz; eta euren odol-txipristiañak busti egñ nabe, ta jantzi guztiak zikindu egin dodaz. Neure asperkunde-eguna* daukat biotzean, eta erospen-urtea* eldu yat. Ingurura begiratu, ta laguntzaillerik ez; billa ibilli naz, eta ez dot lagunik aurkitu. Neure besoko indarrak askatu nau, neure su-kemenak eutsi daust. Erriak be asarre bizitan ostikopean erabili dodaz; sumiñaren sumiñez ezereztu egin dodaz, euren indarra lurreragiño eratsirik. Gogora ekarri dodaz, bai, Jaunaren errukiak; Jaungoiko gure Jauna goratuko dot, egin dauskuzan mesede guztiakaitik.

* tDolara = laçar. * Su:min = furor. • Asperkunde eguna = el día de la venganza. * Erospen-urtea = el año de redención.

Koru-kanta.—Ez egidazu gorde zure arpegla, larri nago-ta; entzun arin nire eskaria.—Salbau nagizu jaungoiko, uriolak arimaraño sartu yataz-eta; basatza-artean ondarreraño murgildu naz, eta ez dot oiña nun jarri.

Emen abadeak Dominus vobiscum diño. Gero,

Otoi-tza,—Aerio gaiztoaren gubanako indarra kentzearen, zure Semea Gurutzeko oiñazetara eroan nai izan zenduan Jaungoiko: eiguzu zure morroi, jadetsi tñagaila biztuerako grazda. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe,

Irakurgaia (Isaias, 53, 1-12).—Egun areitan, Isaias'ek auxe esan eban, Jauna, nok sinistu dau guk esandakoa? Jaungoikoaren indarra nori agertu yako? Zugatz-muskillilla lez aziko da Aren aurrean, edo-ta lur elkorreko zusterre lez. Ez dauko itxurarik, ez edertasunik; ikusi dogu, ta ez dau antzik, eta ari irrika gelditu gara. Baztertua ta gizonetan azkena, oiñaze-uts, ez genduan ezertzat artu. Izan be, Berak artu dauz gure nekeak, eta eroan gure aitsekabeak; baiña guk legendun lez artu dogu, Jaungoikoak joa ta azpiratua. Ori, 'barriz, geure gaiztakeriakaitik zauritu datoe, geure 'pekatuakaitik zaititu. Bere gaiñera jausi zan ba-kea ekarri bear euskun zigorra, ta Bere zauriak osatu gaitue.

Gu guztiok ardi antzera sakabanatu gintzazan, bakotxa bere bidetik ibilliaz; eta Jaunak Aren gaiñean jarri dau gure gaiztakeri guztia. Berak naita eskiñi eban bere burua, ta ez dau agorik edegi. Ardia lez eroango dabe iltera, ta bildotsa moztaillearen aurrean letxe mututuko da, ta ez dau agorik zabalduko. Auzi-arrian 'erajbilli ondoren, galdu egingo dabe. Nok adierazo Aren jatorria? Garbitu egin eben bizidunen lurretik. Neure erriaren gaiztakeriagaitik astindu dot. Gaiztoen artean lur emongo dautsoe, ta gaizkiñen artean il da, Ez eban, alan be, txarrik egdn, ezta epanetan guzurrik erabili be. Eta Jaunak ler egin arte zeatu nai izan dau; baiña pekatuakaitik bizia emon ba' dagi, ondoren luzea ikusiko dau, ta Jaunaren naia bere bitartez beteko da: aren arima asetu egingo da, egin dauan lana ikusirik.

Nire morroi zintzo onek, ainbat lagun zintzotdko dauz bere jakiturdaz, arein pekatuak bere gaiñean jaso-

rik. Orregaitik, erri asko emongo dautsadaz beretzat, eta indartsuen ondakiñak banatuko dauz; bere buruá eriotzara eskiñi ta gaiztotzat artu eben-eta; tere gaiñera jaso ebazan askoren pekatuak, eta legea austen eben alde otoiitz egin eban.

Luzagarria.—Jauna, entzun nire otoiitza, ta eldu bekiizu nire deadarra.—Ez gorde niri zure arpegia: larri egon naiten egunean, biurtu nigana zure belarria,—Zugana jo dagidan egunean, entzun egidazu bizkor.—Egunak kea lez ezerezten yataz-eta; azurrak, banriz, sutan lez kiskaltzen yataz.—Bedarra lez ebagi nabe, ta biotza igartu egin yat; neure ogia jatea be aztu egin yat.—Jagi zaitez, Jauna, ta errukj zakioz Sion'i, aretzaz errukitzeko aldia eldu da-ta.

Jesukristo gure Jaunaren Nekaldia, Lukas deunak dakarrenez (22, 39-71; 23, 1-53).

Getsemani baratzeke otoiitza. — Aldi aretan, Jesus, oi efoanez, Oliamendi'ra joian. Bere ikasleak be jarraitu egin eutsoen. Eta toki aretara eldu ziranean, Jesus'ek esan eutsen: «Otoiitz egizue, zirikaldian (tenta-ziñoan) jausi ez zaitezen.» Eta arrikada baten-edo barruan areikandik aldenturik eta belaunikoturik, otoi egiten ziarduan, esanez: «Aita!, Zeuk nai ba'dozu, kendu egidazu ontzi au; alan be, ez bedi nire naia egin, Zeurea baiño.» Onetan, zerutik aingeru bat agertu yakon, Bera adoretuz. Eta larri gorritan jarrita, otoi egiten gogorrango ziarduan, izerdia lurreragiño odol-tantaka eriola. Eta otoiitzetik jagita bere ikasleakana etorririk, naigabez lotan aurkitu ebazan. Eta dirautse: «Lo zagoze? Jagi zaitez, ta egizue otoi, tentaziñoan lausi ez zaitezen.»

Jesus lotuta daroe. — Jesus'ek oraindiño berbetan zãarduala, lagun-Italde bat etorri zan, eta guziien aurrean Judas izeneko amabietariko bat urreratu zan, Jesus'i laztan bat emotera. Baiña Jesus'ek esan eutsan: «Judas!, laztanaz saltzen dozu Gizasemea?» Jesus'egaz egozanak, jazo zeitekeana ikustean, esan eutsoen: «Jauna, ezpataz Joko doguz?» Eta areitariko batek, abade-nagusiaren morroi bat zauriturik, eskumako belarria ebagi eutsan. Baiña Jesus'ek, itz egiñez, esan eban: «Geldi orain.» Eta morroiaren belarria iku. turik, osatu egin eban. Gero, Jesus'ek, billa etorri yakozan abade-buru, elizako gudari-buru ta zarrai esan

eutsen: «Lapur-billa legez urten zaree ezpataz eta makillaz? Egun oro niarduan zuen artean elizan iracasten, eta ez zeusten eskurik ezarri; baiña auxe da zuen aldia, ta illunaldiaren indarra.»

Pedro'ren ukatzeak. — Eta Jesus'i oraturik abade-nagusiaren etxera eroan eben. Pedro'k, barriz, urrindik jarraitzen eutson. Bebarru-erdian sua iziotuta, eta areik inguruan jarririk, Pedro tie arekaz egoan. Orduan, neskame batek, Pedro sutondoan jesan'ita ikusirik, begira-begira jarri yakon eta esan eban: «Au be gizon orregaz ebillen.» Baiña Pedro'k ukatu egin eban, esanez: «Emakume, ez dot gizon ori ezagutzen.» Eta gerotxoago, beste batek a ikusirik, esan eban: «Zu be euretarikoa zara.» Baiña Pedro'k erantzun eban: «Ez, gizon, ez!» Eta ordubetera-edo, beste batek be auxe iñoan: «Bai.ba!, au be Beragaz egoan, berau be Galilearra da-ta.» Orduan, Pedro'k esan eban: «Gizon, ez dakit zer diñozun.» Eta berealaxe, Pedro oraindiño berbetan ziarduala, oillarrak kukurruku egin eban. Eta jaunak, Pedro'gana biuriturik, begirakune bat egin eutsan. Eta Pedro'k Jaunak esan eutsazan itzok ekarri ebazan gogora: "Oillarrak kukurruku egin baifio len, iru bidar ukatuko nozu." Ta andik urtenda, negar egin eban naigabe aundiz. Jesus lotuta euken gizonak, joka iraindu egiten eben; eta Ari zapiaz begiak estaldurik, arpegian matraillakoak emoten eutsoezan, esanez: «Igarri egiozu, nok jo zaitu?» Eta beste gaiztake-ri ta birao asko iñoen Aren aurka.

Jesus batzarre nagusiaren aurrean. — Eguna argitu zanean, erriko zaarrak, abade-buruak eta idazlariak batu egin ziran; eta euren batzarrera eroanik, esan eutsoen: «Zu Kristo'a ba'zara, esan egiguzu.» Ta erantzun eutsen: «Esaten ba'dautsuet, ez nozue sinistuKo; ta itaunen bat egiten to'dautsuet be, ez daustazue erantzungo, askatu be ez nozue askatuko. Baiña aurrerantzean, Gizasemea jesarrita egongo da Jaungoiko Altsuaren eskumaldean.» Orduan, guztiak esan efcen: «Beraz, Zu Jaungoikoaren Semea zara?» Arek esan eban: «Zeuk difiozue: Neu naz.» Areik esan eben: «Zetarako beste autorrik omezkerro? Geuk entzun; lautsagu beronen agotik.» Eta batzanreko guztiak ja-girik, Pilatos'egana eroan eben.

Pilatos'en aurrean.—Eta salatzen asi yakozen, esanez: «Erria naasten artu dogu au, Kaisar'entzako zergak (tributuak) emotea galerazoten eta bera Krlsto Errege dala esaten.» Orduan, Pilatos'ek itandu ta esan eutsan: «Judarren Errege zara zu?» Jesus'ek erantzun eutsan. «Zeuk diñozu.» Eta Pilatos'ek abade-buru ta erriari dirautse: «Ez dot nik gizon onegan auzi-gairijj aurkitzen.» Areik, ostera, gogorrago ziarduen esazan: «Erria naasten diardu, Galilea'tik asi ta onaiño, ja' dea'n zear irakasten.» Pilatos'k, Judea izena entzun ebanean, gizon a Galilearra zan itandu eban, Eta Eroses'en menpekoa zala jakinda, Eroses'egana bialdu eban, au be egin areitan Jerusalem'en zan-eta.

Eroses'en aurrean. • — Jesus ikusirik, Eroses pozez beterik jarri zan; aspaldian a (Jesus) ikusi naiez egoan-eta; gainera, Aretzaz gauza auradi-ak entzun ebazan ezkeru, mirariren bat egiten ikusiko ebala uste eban. Eta ainbat itaun egin eutsazan. Baiña Jesus'ek ez eutsan ezer erantzun. An ziarduen abade-buru ta idaztariak Aren aurka salakuntzak egiten. Eta Eroses'ek bere gudariakaz ezetsi ta irri egiñik, soingaiñeko zuri bat Ari jantzierazo ta barriro Pilatos'i bialdu eutsan. Egun aretan, Eroses eta Pilatos adiskidetu egin ziran, len alkarren arerio ziran-eta.

Barriro oe Pilatos'egana daroe. — Pilatos'ek abade-buru, agintari ta erria baturik, esan eutsen. «Gizon au, erri-nastaille dala-ta ekarri deustazue. Baiña zeuon aurrean itandurik, gizon onen aurka diñozuezan salakuntza guztietan, ez dot auzi-gairik idoroten Xaurkitzen). Ezta Eroses'ek be: aregana bialdu zaituet, eta ez yako eriotzarakorik ezer aurkitu-ita. Beraz, astinduta gero, askatu egingo dot.» Pazko-jaiegunean Pilatos'ek giltzapeko bat askatu bear, eban. Eta guztiak batera, deadarka, esan eben: (cKendu ori, ta Barrabas askatu eiguzu!» Barrabas au, uriko matxinada bat zala-ta, norbait il ebala-ta, giltzapean egoan. Pilatos'ek, Jesus askatu nairik, barriro be berba egin eutsen. Baiña areik barriro be deadarka iñoen: «Gurutzeru ori, gurutzeru!» Arek irugarrenez esan eutsen: «Ze gaiztakeri egin dau, ba, onek? Nik ez dausat ilteko errurik aurkitzen; beraz, zigortu ondoren, askatu egingo dot.» Baiña areik, deadar aundiagoz, gurutzeratua izan zedilla eskatzen eben. Eta arein deadarrak gero ta :ndar

aundiagoa artu eben. Orduan, Pilatos'ek arein eskaria egitea erabagl eban. Eta nastaUle ta gizon-iltzailletzat espetxean itxitako a, askatu egin eban, areik eskaturik. Jesus, barriz, arein naitara itzi eban.

Golgota-bidean. — Bidean eroiela, salotik etorren Simon eritxon Zirene'ko gizon bat artu eben, eta gurutzea Jesus'en atzetik eroateko beartu eben. Erriko lagun-talde aundiak jarraitzen eutsan, baita emakumeak be negarrez eta alakaz (zizpuruz). Eta Jesus'ek, arekana bihurturik, esan euteen: «Jerusalem'go alabok: ez negarrik egin nigaitik: zeuokaitik eta zeuon semeakaitik baiño. Begira: etorriko dira egunak, eta orduan esango dabe: Zoriontsuafc agorrek eta umerik sortu ez daben sabelak, eta esnerik emon ez daben bularrak! Orduan, mendiai esaten asiko dira: «Zatorkiguzs gainera!», ta mendi-bizkarraf: «Estaldu gagizuez!» Egur ezean* au egiten ba'dabe, igarrean zer izango ete-da?» Ba-eroiezan beste bi be Aregaz batera, gaizkilleak areik, eriotzara.

Jesus Gurutzean. — Eta Kalbario izeneko tokira eldu ziranean, gurutzean josi eben, eta Aregaz batera lapur biak, bata eskumakaldean, eta bestea ezkerrekaldean. Orduan, Jesus'ek auxe iñoan: «Aita, parkatu egiezu, zetan diarduen be ez dakie-ta!» Eta Aren jantziak banandurik, zotz-egin eben. Erri guztia begira ziarduan, eta aregaz agintariak be irri egiten euteoen, eta iñoen: «Besteak askatu dauz; bere burua askatu dagiala, Kristoa, Jaungoikoaren aukeratua ba'da.» Gu dariak be irri egiten utoesen; urreratu ta ozpiña* eskintzen utoesen, esanez: «Judarren Errege ba'zara. zeure burua askatu egizu.» Jesus'en burua baiño goratxoago, barriz, idazkun au egoan, gerkeraz, latinez eta eberkeraz: «Au Judarren Errege da.»

Aregaz batera gurutzean eskegita egozan lapurretariko batek be, irri egiten eutsan, esanez: «Kristo ba'zara, zeure burua ta geureak be askatu egizuz.» Baiña beste lapurrak erantzun ta asarre egin eutsan, esanez: «Zu be, orren oiñazetan egonik, ez zara Jaungoikoaren bildur? Guri, egiz, oiñazeok artez dagogiguz, gure egiñien bidezko ordaiña artzen dogiu-ta; onek, barriz, ez dau ezer oker egin.» Eta Jesus'i zirautsan: «Jauna, go.

* Eze = verde. * Ozpin = vinagre.

muta zaitez nitzaz, zure Erreiñura eldu zaitezanean.»
Eta Jesus'ek esan eutsan: «Benetan dirautsut: Gaur nigaz zeruan izango zara.»

Jesus'en eriotza. — Seigarren ordu aldean (1) i^{ur} osoa illunetan gelditu zan bederatzia arte. Eguzkia illundu egin zan; eta eliza nagusiko oiala bitan urratu zan. Eta Jesus'ek, deadar aundi bat egiñik, esan eban: «Aita!, zeure eskuetan izten dot nire gogoa (arima).» Au esanda, azken-arnasa emon eban,

(*Emen guztiak belauñiko avur baten.*)

Jesus'en eriotza-ondoren. — Eunburuak, jazioa ikusirik, Jaungoikoa goratu eban, esanez: «Egiz, gizon au zintzoa zan!» Eta ikuspen onetara batu ziran guztiak, jazioa ikusita, bular-joka biurtzen ziran. Eta Jesus'en ezagun guztiak eta Galilea'tik jarraitu izan eutsoen emakumeak be, an egozan urrindik begira.

Jesus'en illobiratzea. — Batzarre Nagusiko gizon zintzo ta on bat ba-zan, Jose izenekoa; onek, arein (beste judarren) erabagi ta egiñak ez ebazan ontzat artu. Judea'ko Arimatea uriko semea zan, eta Jaungoikoaren Erreifiuaren zain be ba-egoan. Onek, (ba, Piiatos'egana etorririk, Jesus'en gorpua eskatu eutsan; eta Jesus gurutzetik eratsirik, izara bataz batu, ta len iñor ipiñia ez zan aitz bizian egindako illobi baten ipiñi eban.

Eskintza.—Jauna, entzun nire otoitza, ta eldu bekizu nire deadarra; ez egidazu gorde zure arpegia.

Opari-otoitza.—Artu, Jauna, eskifii dautsugun opari au; eta egizu, zure Seme ta gure Jaunaren Nekaldiko misterioan ospatzen doguna, biotz beroz jadetsi daigula. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea: *Gurutze santuarena*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Edaria malkoz naasten neban, lenengo gora jasorik, auts eginda itzi nenduzun-eta l bedarra lez igartu naz ni; Zuk, ostera, Jauna, beti irauten dozu. Jagi zaitez, ta erruki zakioz Sion'i, aretaz erukitzeko aldia eldu da-ta.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrekl, misterio agurgarriok zure Semearen aidiko eriotza

(1) Eguerditik irurak arte.

azaltzen deuskuen ezkerok, Zuk betiko bizitza emon <iauskuzula be uste osoz sinistu daigula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. oiantxe.

Erriaren alde.—Otoitz egin daigun.—Makurtu buruok jaungoikoaren aurrean.—Biurtu begiok, Jauna, zure etxekookana; onekaitik Jesukristo gure Jauna ez zan zalantzan gelditu bere burua gaizkilleen eskuetan Jar-teko, eta gurutzeko oiñazea eroateko-ta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaun-toiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.





EGUEN GUREN

l'go. mailla. — Zuriz

Iru-urren santuan sartu gara. Kristo gure Eroslearen misterio aundia Je dakarguz gogora iru egun oneitan.

Eguren santuz, Eukaristiaren sortzea ospatzen dogu; ezkutapen aundia benetan. Meza santuko oparia arratsaldean egiten da, edo illunabarrean: ain zuzen be, Jesus'ek bere Azken-aparia egin eban ordua gogoratzeko.

Eta Meza onek zati bi dauz: bata alai, ituna bestea. Orregaitik, «Oloria» abesten dan artean, kanpaiak jotzen dira; baiña abesti eder ori amaitutakoan, kanpai orreik isildu egiten dira, ta Zapatu santuko gaberdiko mezararte ez da barriri entzungo arein dururadu alai.

• • M E Z A

Sarrera.—On yaku Jesukristo gure Jaunaren Gurutzean poztutea: osasuna, bizitza ta biztutea Beragan dogu-ta; Bere-bidez askatu ta zerurako irabaziak josten gara-ta.—*Ps.* Erruki foekigu Jaungoikoa ta bedeinkatu gagizala: argitu gaizala bere arpegiaz eta errukitu daitela gutzaz.—On yaku...

«Cfripria» esateam, soiñua, ,txiliñak eta kanpaiak jotzen dira.

Otoitza.—Judas'i bere gaiztakeriaren zigorra, ta lapurrari bere autortzaren saria emon zeutsen Jaungoikoa: emon eiguzu guri be zure errukiaren grazia; eta Jesukristo gure Jaunak bere Nekaldian arei bako txak irafaozi efoen saria emon eutsen lez, guri be, lengo oker-egiñak parkaturik, bere biztueraren grazia emon daigula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu San. tuagaz baitera Jaungoiko ta Errege tzi da4a. Olantxe,

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 11, 20-32). Anaiok: Alkarregana batzen zarenean, ez dozue Jaunaren aparia egiten; bako txak bere aparia dakar jateko-ta. Olan, batzuk goserik gelditu, ta beste batzuk mozkortu egiten dira. Ez ete dozuez zeuen etxeak ian -edanak egiteko? Edo-ta, Jaungoikoaren eliza loitzen dozue, ta orrela lotsarazo ezer ez daukenak? Zer esango dautsuet? Goratu egingo zaituet? Orretan ez, beintzat. Izan be, Jaunagandik ikasi netoan zuei irakatsá neutsuen au: Jesus Jaunak, saltzen eban gau artetan, ogia artu ta eskerrak emonda, zatitu ta auxe esan



eutsen: «Artu ta jan egizue.- au neure gorputza da zeuen alde emongo dana; egizue au neure gomutaz» Era berean apalondoan be, edontzia artu ta esan eban-«Ontzi au Alkartasun (Testamentu) Barria da neuré odolaz: edan dagizuen bakotxean, neure gomutaz egizue.» Eta ogi onetatik jan eta ontzi onetatik edan da ogizuen bakotxean, Jaunaren eriotza iragarriko dozue Bera etorri arte.

Beraz, inok ogi au jan, naiz Jaunaren edontziko au bear ez danez edan ba'dagi, Jaunaren gorputz-odolaz errudun izango da. Aztertu begi, bada, bakotxak bere barrera, ta orduan ogi onetatik jan begi ta edari onetatik edan: Jaunaren gorputza aintzat artu bagarik, bear ez danez jan-edatan dauanak, bere ondamendia jan-edatan dau-ta. Orrexegaitik dagoz zuen artean orrenbeste geiso ta argal eta lo dagozanak be' ez gutxi. Geure buruak aztertuko ba'genduz, barriz, ez gendukez inok txarto ebatziko. Baiña zigortuak gareanean, Jaunak zuzentzen gaitu, gaiztoakaz batera galdue ez gaitezana.

Koru-kanta.—Kristo gugaitik esaneko egin zan erioztaraino, gurU'tzean ilteraino egin be.—Aregaitik, Jaungoikoak toe goratu egin eban, eta izen guztien gaineko dan izena emon eutsan.

Barri Ona (Jon, 13, 1-15).—Pazko-jai aurrean, Jesus'ek gizarte onetatik Aitagana biurtzeko aldia etorkiola jakiniik, eta lurrean egogan bereak rnaite izanik, azken-azkeneragiño maite izan ebazan. Eta apaltzen asi ziran. Orduko, txerrenak Simon Iskariotes'en seme Judas'en biotzean Jesus saltzeko asma sartuta eukan. Jesus'ek ba-ekian Aitak gauza guztiak eskuetan ipiñil utsazana, ta barriro Jaungoikoagana joiana; eta apari-maitik jagi, bere soifnekoa erantzi, ta esku-zapi bat arturik, gerrian lotu eban. Gero ontzi batera ura botata, ikasleen oiñak garbitzen asi zan, eta gerrian eukan zapiaz legortzen (sikatzen). Simon Pedro'gana eldu zanean, onek dirautso: «Jauna, Zuk niri oiñak garbitu?» Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: «Nik egiten diardudana, orain zuk ez dakizu; gero jakingo dozu.» Pedro'k diraufso: «Ez daustazuz egundo oiñak garbituko.» Jesus'ek erantzun eutsan: «Garbitzen ez ba'zaitut, ez dozu Nigaz artu-emonik izango.» Simon Pedro'k dirautso: «Jauna!, oiñak bakarrik ez, baita

eskuak eta burua be!» Jesus'ek dirautso: «Garbituta dagoanak, oiñak garbitzea baiño ez dau bear, beste guatia garbi dago-ta. Zuek, barriz, garbi zagoze, baiña ez guztiok.» Nok salduko eban ba-ekian-eta, aregaitik esan eban "ez zagoze guztiok garbi".

Oiñak garbitu eutsezanean, barriro bere soifnekoak jantzi ebazan, eta maian barriro jesarrik, esan eutsen: «Ba-dakizue zer egin dautsuedan? "irakasle" ta "Jauna" deitzen nozue, ta zuzen deitu bere, izan be ba-naz-ta. Baiña Nik, zuen Irakasle ta Jaun nazan onek, oiñak garbitu ba'dautsuedaz, zeuek be alkarri garbitu bear dautsazuez. Ikasbidea emon dautsuet ba, Nik zuoi egin dautsueidanez, zeuek be egin dagizuen.»

Onen ondoren, egoki baiño egokiago dator itzaldit bat, egun aundi onetan ospatzen doguna gogoraizeko; au da: 1) Kristo'ren Górrputz-Odola, Eukaristia, gure jan-edarl izateko; 2) Abadegintza, Eukaristia egin ostean, Kristo'k auxe diño: nEgin beste onenbeste zuek be, neure izeneant. Ona emen Abadea, Kristo'ren ordezkari, ogi-ardaoa Kristo'ren Gorputz-Odol biurtu daikena. Eta 3) alkar-maitasuna. «Agindu barri bat iamotsuetit —clitlo Kristo'k—: Nlk zuek lez, zuek t>e alkar maite egizue». Eta Kristo'k, bere maitasu'na erakustearren, oiñak garbitu eutsezana Beragaz aparitan egogan ikasleat.

Uzaldia amaitu ondoren, OIÑAK GARBITZEA egin dai-teke, 229 orri., datorrenez. Bestela, barriz.

Eskintza.—Jaunaren besoa indartsu agertu da, Jaunaren besoak gora jaso nau; il ez, bizi egingo naz. eta Jaunaren arrigarriak iragarriko dodaz.

Opari-otoitza.—Arren, Jaun santu, Aita alguztidun, betiko Jaungoiko!, zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'k Berberak egin daizula begiko gure opari au: gaurko egunez bere ikasleai Berareh gomutaz egiteko agindu eutsen-eta. Amaibagoko egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege blzi da-ta. Olantxe.

Kanon-aurrea: *Gurutze santuarena,*

Communicantes.—Guztiok alkarturik ospatzen dogu Jesukristo gure Jauna gugaitik saldu ebeneko egun oso santu au; ta gogora dakargu, lenengo ta bein, Jaungoikoaren berberaren eta gure Jaun Jesukristo'ren Ama dan Maria beti Birjiña doatsua; baita Birjiña beraren senaf Jose doatsua be, ta zure* 434 orri.

Hanc igitur,—Jesukristo gure Jaunak ikasleai bere Gorputz-Odolaren niisterioa o&patzeko agindu eutseneko eguna dan ezkerro, guk zure menpekook eta zure etxeke guztiok eskintzen dautsugun opari au, abegi onez artu egizu, Jauna; emon eg'iguzu toakea gure egu. notan; betiko sutatik aldendu gagizuz, eta zure aukeratuaren artean artu gagizuz. Kristo gure Jaunaren bizdez. Olantxe.

Quam otylatio-ne™. — Opari au, Jaungoiko orrek fbedeinkatu, f zeureztat artu, f ontzat emon, bidezko ta zeure gogoko egizu: zure Seme guztiz maite dan Jesukristo guie Jaunafen Gorputz f eta Odolf biurtdakigun.

Qui pridie.—Berak, gure ta guztien osasunagaitik nekeak artu ebazan aurreko egunean, au da, gaur, bere esku santu agurgarrietan ogia artu eban; eta, begiak zerurantz jasorik, Zeugana, bere Aita altsu orregana, Zuri eskerrak emonez, t bedeinkatu, zatitu, ta bere ikasleai emon eutsen, zirautsela: Artu ta Jan egizue guztiok onetatik, AU NEURE GORPUTZA DA-TA.

Abadeak gaur ostia bi konsagratzen dauz: bata gaurko, ta. bestea biarko.

Kanon'aren jarraipena, beti lez, 436 orri.

Agnus Dei esatean, irurretan *miserere nobis—erruki zakiguz* erantzuten da.

Ez da esaten Agnus Dei-osteko lenengo otoitza.

Abadeak berak Jaum, artu ondoren, Jauna emoten dau: lenengo, mezako elizlaguntzaileai, ta gero, euren txandan, beste eliz-gizonai ta e-iiztarrai. Bitartean, koruan zerbaite abesten da.

Jaunartzerakoa.—Jesus Jaunak, bere ikasleakaz apaldu ondoren, arein oiñak garbitu ta auxe esan eutsen: Ba-dakizue Nik, zuen Jaun eta Irakasle onek, zer egin dautsuedan? Ikastiidea emon dautsuet, zuok be olantxe egin dagizuen.

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko gure Jauna!, Ogi bizigarriaz janariturik, ilkor garean bizitza onetan artu doguna, betiko bizitzarako sari izan dakigula. Aiaibagako.

Gaur ez da azken-Ebanjeliorik esaten.

EUKARISTIAGAZ ELIZ-BIRA

Meza amaitzean, eliz-bira egiten da. Abadeak, kapa nagusia jantzi ta intzentzua jartzen dau lurruri-ontzian; gero, altara nagusi aurrean bdauniko, Sakramentu guztiz santuari jru bidar intzentzua emoten dautso. Bereala, lepoko zapi zuria artu, altarara igo ta zutik diakonuak eskintzen dautsan kopioa artu ta zapi-ertzakaz estaltzen dau. Ondoren, altarcak jatsi ta palio^upean doa, Eukaristia gordeteko gertau dan lekuraño,

ALTARAK ERANTZI

Eliz-bira amaitu ondoren, abadeak altarak erazten dauz, 31^{gn}. Eresia esanez.

AGINDU BARRIA EDO OIÑAK GARBITZEA

Mezatak itzaldia amaitutakoan, naiz beste aldi egokiren baten, «Oiñak garbitzea» egiben da. Mezatatik kanpora egin ezkerro, barriz, lenengo Mezako Barri Ona esaten da. Orretaraio, altara nagusi aurrean, naiz eliz-erdian, amabi mutiko edo gizonentzat, alde bitan jarlekuak atondu bear dira.

Abadeak, kalla kalla kendu ta zapi bat gerrian baturik, Jaguntzaileak alboan dauzala, amabiai oiñak garbitzen dautsez; beiaunikotu ta bakotxaren oiñak garbitu ta ezinetu (sikatu) ondoren, mun egiten dautse.

Bitartean, urrengo Kantagaiok abesten dira:

1^{go}. Kantagaia.—Agindu barri bat damotsuet: alkar maite dagizuela, Nik zuek maite izan zaituedanez.—*Ps.* Bai zorionsu gar.bi bizi diranak, Jaunaren legean dabizanak!

Eta barriro Agindu barri bat...

2^{gn}. **Kantagaia.**—Jauna, aparitik jagi ondoren, ontzi batera ura botata, ikasleen oiñak garbitzen asi zan: ikasbide au itzi eutsen.—*Ps.* Aundi da Jauna ta oso goragarri; gure Jaungoikoaren urian, bere mendi santuan.—Jauna, aparitik...

3^{gn}. **Kantagaia.**—Jesus Jaunak, ikasleakaz apaldu ondoren, oiñak garbitu eutsezan, eta auxe esan eutsen; «Ba-dakizue Nik, zuon Jaun eta Irakasle onek, zer egin dautsuedan? Ikasbidea emon dautsuet, zuek be olantxe egin dagizuen».—*Ps.* Bedeinkatu dozu, Jauna, zure lurra; atara dozu Jakob besteen mienpetik.—Jesus Jaunak...

4'gn. Kantagaia.—«Jauna, Zuk niri oiñak garbitu?» Jesus'ek erantzun eta esan eutsan. «Oiñak garbitzen ez ba'dautsudaz, ez dozu nigaz artu-emonik izango.»—Simon Pedro'gana etorri zanean, Pedro'k esan eu. tsan: «Jauna, Zuk niri oiñak garbitu?» Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: «Oiñak garbitzen ez ba'dautsudaz, ez dozu nigaz artu-emonik izango.»— «Nik zetan diardudan zuk ez dakizu orain; geroago jakingo dozu.» Jauna, Zuk...

5'gn. Kantagaia.—Nik, zuen Jaun eta Irakasle izanik, oiñak garbitu toa'dautsuedaz, zuok askoz geiago gartoitu toear dautsazuez alkarri.—Ps. Entzun. egizue au, erri guztiok; artu gogoz, lur zabalean bizi zareen guztiok!—Nik, zuen...

6'gn. Kantagaia.—Onetan ezagutuko dabe guztiak nire iskasle zareena, zuek alkar maite izatean.—je. sus'ek auxe esan eutsen ikasleai:—Onetan ezagutuko...

7'gn. Kantagaia.—^Begoz iru oneik zuekan: sinigl mena, itxaropena ta maitasuna: oneitan, barriz, maitasuna nagusi—Orain irurok dagoz zutik: sinismena, itxaropena ta maitasuna; oneitatik, barriz, maitasuna nagusi.—Begoz...

Urrengo Kantagai au, bere bertso ta guzti, ez da lñoiz lzten; eta oiñak garbitzea amaituaz doianean asten da:

8'gn. Kantagaia.—Maitasuna dan lekuan, Jaun. goikoa an.—Kristo'ren maitasunak batu gaitu emen.—Poztu ta alaitu gaitezcan Beragan.—Bildur eta maite izan dagigun Jaungoiko bizia.—Eta biotz beroz alkar maite izan daigun.

2.—Maitasuna dan lekuan, Jaungoikoa an.—Beraz, batera batzen garanean.—Iges egin daigun gogo bateko ez izatetik.—Ez toedi izan gure artean asarrik ez burrukarik.—Kristo Jaungoikoa izan bedi gure erdian.

3.—Maitasuna dan lekuan, Jaungoikoa an.—San-tuakaz batera ikusi dagigula.—Zure arpegia pozez berterik, Kristo Jaungoiko!—Ori bai aimabagako ta benetako poza!—lñoiz amaitzen ez diran gizalldietan. Olantxe.

Oiñak garbitu ondoren, abadeak eskuak garbitzen eta sikatzen dauz. Gero, altara-erdia joanik, auxe esaten dau:

Aita gurea... (*isillean*).

A.—Ez eiguzu itzi tentaziñoan jausten.

E.—Gatxetik jagon toaño.

A.—Zeuk agindu zenduan, Jauna, zure aginduak

E.—Zeatz gorde zeitezafila.

A.—Zeuk garbitu zenduzan ikasleen oiñak.

E.—Zure esku-lanak ez egizuz ezetsi.

A.—Entzun, Jauna, nire eskaria.

E.—Eldu bedi Zugana nire deadarra.

A.—Jauna zuekaz.

E.—Baita zugaz be


Otoitza,—Artu egizu gogo onez, Jauna, gure morroi-lana; eta Zuk ikasleai oiñak garbitu zeutsezcan ezkerro, ez egizuz ezetsi barrero egiteko agindu zeuskuzan zure esku-lanak; alkarri kanpoko zikiñak garbitzen dautsaguzan lez, olantxe Zeuk be garbitu eiguzuz gure barreneko pekatu guztiak. Arren, eiguzu au, amaiba-Ako egunetan Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta.

E.—Olantxe.



BARIKU GUREN

1'go. mailla. — Baltzez



Ona egun aundia, Kristo gugaitik il zaneko eguna. Eliza Amak negar egiten dau Kristo'ren eriotza au dala-ta. Eriotza bai; baiña efiotza eroskiña, au da, Kristo'ren zauri edegietatik isuritako Odol santuak garbituko dauz gure gaiztakeriak. Gaur erruki ta imaitasun-eguna dogu, A.itagana biurtu nai dabon guztientzat. Lapur damutuak lez, guztiok daukaguz zabal-zabalik Aren zauri jáungoikozkoak. Jauna beso-zabal dago ta oiñak josirik, gizonarentzat osabide.

Gaur ez da Mezako oparirik egiten; elizkizun onetan, jantzi baltzak erabilten dira, Kristo'ren eriotz-ezaugarri.

Elizkizunak lau zati dauz: 1) Irakurgaiak; 2) agiriko otoitzak; 3) Gurutze santuaren gurtzea; ta 4) gure Jauna artzea.

1.—IRAKURGAIK

Gauza guztiak gertau ondoren, abadea bere laguntzai-Ueakaz altarara doa, ta bertan auzpezturik, apur baten otoitzean diardu; gero jaigi ta altara-aurrean zutik, beste guztiak betlauniko dagozan artean, auxe diño:

Otoitza.—iPekatu zarragandik sortu ta arrezkero gizadi osora zabalduriko jatorrizko eriotza, zure Kristo ta gure Jaunaren • Nekaldiaz osatu dozun Jaungoikoa: eiguzu, Aren antzeko; egiñik, lur-izatearen-lorrazta nai ta nai ez daroagun lez, zeru-graziaren irudia be eroan dagigula, santu izanik. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Gero bakotxa bere jaTlekuan jarten da. Eta irakurleak, altara-erdian zutik, urrango Irakurgai au asten dau:

1'go. Irakurgai (Oseas, 6, 1-6).—Jaunak auxe diño: Euren larrialdietan, bizkor biurtuko dira Nigana. Zatoze, —esango dabe—, biurtu gaitezcan Jaunagana: urratu ta osatu, zauritu ta osátu, Berak egingo gaitú4a. Egun bi barrU emongo dúsku Bizia; irugarren egunean gora jasoko gaitu, ta bere aurrean bizi izango gara. Jauna ezagutuko dogu ta bere atzetik ibilliko gara, obeto ezagutzearren. Aren etorrera, egunsentia lez dago gertauta, eta euria lez etorriko da gugana, udazkenez eta udabarriz lurrera jausi oi dan euria lez. Zer egingo dautsut, Efraim? Zer egingo dautsut,

Juda? Zuen errukia goiz-laiño antzekoa, ta goizaldeko iruntzaren antzera igaro oi dana. Orregaitik, astindu bat emon dautset neure igarleen bidez; ilda itxi dodaz nire agotiko toerbaz; eta zure epaia, argia íez agertuko da: Nik errukia nai.dot-eta, ez oparia. Jaungoikoaren jakintza naiago dot edozein erre-opari baiño.

Koru-kanta.—Jauna, zure deia entzunik, bildurrak artu nau: zure esku-lanak gogoan arturik, ikaraz geiditu naz.—Abere biren artean agertuko zara; urteak bete daitezanean ezagutuko zaitue; aldi ori etorri dai. tenean azalduko zara.—Orduan, ni estu ta larri egongo naz; eta zure asarrean, errukior zarala gogoratuko dozu.—Libano'tik etorriko da Jaungoikoa, ta mendi illun eta itzaletik Santua.—Aren auditasunak zerua estaldu dau, ta Aren goragarriz beterik agiri da lurra.

Koru-kanta amaitutakoan, guztiak jagi ta abadeak auxe diño:

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitezana (*belaurako apur baten*).—Zutundu zaitze.—Jadus'i bere gaiztakeriaren zigorra, ta lapurrari bere autortzaren saria emon zeutsen Jaungoikoa: emon eiguzu guri be zure errukiaren grazia; eta Jesukristo gure Jaunak bere Nekaldian arei baktotxak irabazi eben saria emon euteen lez, guri be, lengo oker-egiñak parkaturik, bere biztueraren grazia emon daigula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olanxte.

Otoitza amaitu ondoren, bigarren Irakurgaia irakurten da, lenengoa lez.

2^{gn}. **Irakurgaia** (Urteera, Ex., 12, 1-11).—Egun areitan, Jaunak Moises'i ta Aaron'i auxe esan eutsen, Ejipto errian: IHebete au, zuen ille guztien asiera da-ta, urtearen lenengo illea izango da. Dei egiezue Israel'go seme guztiak ta esan egiezue: II onen amargarenean, baktotxak artu begi bildots bat sendika (familika) ta etxeka. Baiña, bildots osoa jateko beste lagun bertan ez ba'zaree, auzo-lagunak artu, bildots guztia Jateko aiña. Bildotsak, barriz, orbanik bagakoa izan bear dau, arra ta urtekoa. Eraberean artxumea be. Gorde egizue ille onen amaiaurarte, ta Israel'go semeen sail guztiak arrateaidean ilgo dau. Eta aren odola arturik, jan daben etxe baktotzeko ate-buru ta abe bitan ipiñiko dabe. Aragia, erreta jango dabe gau aretan,

eta ogi jagi-bagakoa basoko urazakin. Gordiñik ez ego-sirik ez dozue ezer jango, guztia sutan erreta baiño: buru ta anka, tripaki ta guzti. Ez itzi ezer biaramone-rako. Ondakiñik gelditu ba'dadi, sutan erreko dozue. jan be, olanxte jango dozue: gerriak lotu, oiñeta-koak jantzi ta makillak eskuan, eta arin-aringa: Jaunaren Pazko edo igarotea da'ta.

Luzagarria.—Gorde nagizu, Jauna, gizon gaiztoagandik; lagun dongeagandik zaindu ni.—Asmo txarrak darabillez biotzean, egun guztian burruka-billa diardue.—Sugeen antzera zorrozten dabez euren miñak; ezpaneau suge-gorri edena* daroe.—Zaindu nagizu, jauna, pekatarien eskutik, gizon gaiztoakandik gorde ni.—Oneik ni lurrera jaurti nai nabe; arropuzok isarea jarri dauste ezkutuan.—[^]Lokarrizko sarea zabaldu dauste oiñetan, eta oztopoak jarri daustez bidean. Jaunari auxe esan neutsan: Zeu zara nire Jaungoikoa: entzun, Jauna, nire eskari-deia!—Jauna, Jauna, ene osasun eta indar!: gorde nire tourua burruka-eg.unean.—Ez nagizu itzi pekatariaren eskuetan, neure kalte diardue-ta; ez ni eskutik itxi, areik arrotu ez daitezana.—Ni inguratzen natoenak, ez dagiela bururik jaso nire aurka; estal'du begiz euren ezpan-zitalkeriak.—Zintzo diranak, barriz, zeure izena goratuko dateo; ta zeure ondoan bizi izango dira.

Jesukristo gure Jaunaren Nekaldia, Jon deunak dakarrenez (Jon, 18, 1-40; 19, 1-42).

Jesus lotuta daroe.—Aldi aretan, Jesus bere ikasleakaz Zedron erreKaren beste aldera joan zan, eta bertako «Sparru baibera sartu zan. Judas baUtzaileak bere ba-ekian toki are toarri, Jesus bere ikasleaka[^] an sarritan toatzen zan-eta. Judas, ba, atoade-nagusi ta pariseotarrak emondako gudarozte-sail bat eta morroi batzuk toeragaz arturik, ara joan zan, kruselu, argizuzi ta iskilluak eroanez. Jesus'ek, ba, gaiñera etorkion guztia jakiñik, aurreratuta esan eutsen: «Noren billa zatoize?» Erantzun eutsen: «Jesus Nazaretarraren billa.» Jesus'ek dirautse: «Neu naz.» Judas, saldu ebana be, arekaz zan. "Neu naz" Jesus'ek esan eutsenean, guztiak atzeraka lurra jo eben. Barriro be itandu eutsen: «Noren billa zabize?» Ta areik erantzun eutso-

* Eden = veneno.

en: «Jesus Nazaretarraren billa.» Jesus'ek erantzun eutsen: «Esan dautsuet Neu nazana. Nire billa ba'zatoze, itzi onei alde egiten.» Len esan ebana bete zedin: "Zuk' niri emondako bat bere ez dot galdu."

Bitartean, Simon Pedro'k, ekarren ezpata atara ta abade-nagusiaren morroi bat jo ta eskumako belarria ebagi eutsan. Morroiaren izena. Malko zan. Baiña Jesus'ek Pedro'ri esan eutsa: «Sartu ezpata ori zorroan. Aitak emon daustan ontziko (1) ez dot edango, ala?» Orduan, gudasaillekoak, sañburuak eta judarren morroiak, Jesus'i oratu ta lotu egin eben. Anas, urte aretako abade-nagusi Kaifas'en aitagiñarretoa zan-eta, Je. EUS aregana eroan eben lenengo. Kaifas, barriz, judarrai burubide (kontseju) au emon eutsena zan: «Ern osoaren orde z gizon bat bakarrik il dadin obe da.»

Pedro'ren ukatzeak.—Simon Pedro Jesus'en atzetik Joian, baita Abade-nagusiaren ezagun zan beste ikasle bat be. Ikasle au Jesus'egaz batera Abade-nagusiaren bebarruan sartu zan. Pedro, barriz, ataurrean egoan. Baiña Abade-nagusiaren ezagun zan ikasleak, urtenda, neskame atezaiñari itz egin eutsan, eta Pedro sartu egiri eban. Orduan, neskaime atezaiñak Fedro'ri dirautso: «Ez zara zu be gizon orren ikasletariko?» Arek dirautso: «Ez naz.» Jesus lotzera joan ziran otsein eta morroiak sutondoan berotzen ziarduen, otz eg'oan-eta; baita Pedro be arekaz, berotu naiez.

Bitartean, Abade-nagusiak Jesus'i Bere ikasle ta ira. kaspinari buruz itandu eutsan. Jesus'ek nrantzun eutsan: «Nik guztiak agirian itz egin dauset; judar guztiak batzen diran sinagogan eta elizan irakatsi dot nik beti, ta isillean ez dot ezer esan. Zetarako niriitandu? Itandu egiezu entzun nauenai zer esan neutsen, nik esan dodana orreik ba-dakie-ta.» Ori esan ondoren, ango morroi batek matraillako bat emon eutsan Jesus'i esanez: «AbadL-nagusiari orrela erantzuten dautsazu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Oker berba egin da'dot, okerra azaldu egizu; zuzen berba egin ba'dot, barriz, zegaitik joten nozu?» Eta Anas'ek, Jesus Kail'as abade-nagusiagana biaidu eban, lotuta. Bitartean Pedro'ri, berotzen zutik egoala, esan eutsen: «Zu be ez zara

³⁸ (1) «Ontziko»: Israel'en itz onek «naigabe aundia» adierazoten dau.

orren ikasletariko?» Berak ukatu ta esan eban: «Ez naz.» Abade-nagusiaren morroiatariko batek, Pedro'k b&larrria moztu e'utsanaren senide zanak dirautso: «Ez iaitut, ba, ortuan aregaz ikusi?» Pedro'k, barriro be [•]katu; ta berealaxe oillarrak kukurruku egin eban.

Jesus Pilatos'en aurean.—Jesus Kaifas'enetik auiitegiar daroe. Egunsentia zan. Areik ez ziran au-zitegiar sartu loitu ez zeitezan, gero Pazkoakoa jateko. Orregaitik Pilatos'ek, arekana kanpora urtenik, esan eutsen: «Zer dakazue gizon onen aurka?» Erantzun eta esan eutsoen. «Gaitztoa ez ba'litz, ez geuskizu ekarriko.» Pilatos'ek esan eutsen. «Zeuk artu, ta zeuen legearen arauz epaitu egizue.» Judarrak erantzun eutsoen: «Guk ez dogu inor ilteko eskubiderik.» Olantxe bete bear zan Jesus'ek esan ebana, zein eriotzaz ilgo [^]an adierazorik.

Ori entzunda, Pilatos barriro auzitegiar sartu zan; eta Jesus'i dei egiñik, itandu eutsan: «Judarren Errege zara zu?» Jesns'ek erantzun eban: «Ori zeure buruz diñozu, ala, nitzaz beste batzuek esan dautsuelako?» Pilatos'ek eranlzun eutsan: «Judarra naz ni, ala?. Zeu. re erritarrak eta abade-buruak jarri zaitue nire eskue-tan. Zer egin dozu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Nire Erreiñua ez da lur onetakoa. Nire Erreiñua lur onetakoa ba'litz, nire menpekoak burrukan egin izango leu-keen, juciarren eskuetan jausi ez nendin; baiña nire Erreiñua ez da emengoa.» Orduan, Pilatos'ek esan eutsan: «Beraz, Errege zaitugu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Zeuk diñozu: Errege naz. Onetarakoxe jaijo, ta onetarakoxe etorri naz gizartera: egieren alde autor egiteko. Egizale dan edonok, entzun egitendau nire deia.» Pilatos'ek dirautso: «Zer da egia?» Eta au esanda, barriro judarralkana urten zan eta esan eutsen: «Ez dot nik gizon onekan auzi-gairik aurkitzen, Oitura dozue, oster, Pazkoz nik giltzapeko bat askatu dagizuedan. Nai dozue judarren Erregea askatu dagizuedan?» Eta guztiak batera deadarka esan eben. «Kendu ori, ta Barrabas askatu eiguzu!» (Barrabas au lapurra zan.)

Irañafc eía *arantzazko koroia.*—Orduan, Pilatos'ek Jesus artu ta zigorkadaz a[^]tindu eban. Eta gudariak, arantzazko kortji bat eginda, buruan ezarri eutsoen; soi-ñeko gorri bat be jantzi eutsoen. Gero Aregana urreraturik, esaten eban: «Agur, judarren errege!» Eta matraillakoak emoten eutsoezan.

Barriro be Pilatos'en aurean.—Pilatos'ek, barrirt, kanpora urtenda, dirautse: «Emen dakartsuet kanpo, ra, errurik aurkitzen ez dau sadala jakin dagizuen.» Jesus, ba, arantzazko koroia ta soñeko gorria gainean eroanez urten zan. Eta Pilatos'ek dirautse: «Ona emen Gizona!» Ikusi ebenean, abade-nagusiak eta morroiak oiuka iñoen: «Gurutzeru ori, gurutzean josl egizu!» Pilatos'ek dirautse: «Zeuok artu ta gurutzeratu egizue, nik ez dau sat errurik aurkitzen-eta.» j ^ . darrak erantzun eutsoen: «Guk ba-dogu legea, ta gure legez, eriotza bear dau, bere burua Jaungoikoaren seme egin dau-ta.»

Ilzok entzunik, Pilatos geiago biidurtu zan. Eta barriro auzitegian sarturik, Jesus'i esan eutsan: «Non-go zara?» Jesus'ek ez eutsan erantzunik biurtu. Beraz, Pilatos'ek dirautso: «Niretzat berbarik ez? Ez dakizu zu gurutzerako naiz askatzeko eskubidea dodana?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Ez zeuke eskubiderik nire aurka, goitik ernonda ez ba'zendu. Orregaitik, zure eskuetan jarri nauanak, pekatu aundiagoa dau.»

Arrezkero, Pilatos'ek Jesus askatu nalez ziarduan. Baiña judarraK deadarrez zirautsoen: «Ori askatzen ba'doza, ez zara Kaisar'en adiskide: bere burua errege egiten dauan edonok, Kaisar'en aurka diardu-ta.» Itzok entzunik, Pilatos'ek Jesus kanpora atara eban, eta epai-jarlekuan jesarri zan, Litostroto edo eberkeraz Gabbata deritxon tokian.

Pazko-aurreguna zan; eta seirak aldean, judarrai dirautse: «Ona emen zuen Erregel» Areik, barriz, deardarka iñoen: «Kendu ortik | Alde ortik | Josi egizu gurutzean!» Pilatos'ek dirautse: «Zeuen Erregea nik gurutzeratu?» Abade-buruak erantzun eutsoen: «Kaisar baiño beste Erregerik ez dogu.» Orduan, arein eskuetan itzi eban, gurutzeratu egian.

Jesus Gurutzean—Beraz, Jesus artu ta kanpora atara eban. Eta gurutzea lepoan eroiala, Buruazurtegi edo eberkeraz Golgota deritxon tokiruntz urte zan. Eta bertan josi eban gurutzean, eta Beragaz batera beste bi be, aldamenetan; erdian, barriz, Jesus. Pilatos'ek idatzitako agiri bat be Gurutze-gaiñean ipiñi eban, Eta auxe iñoan idazkunak: «Jesus Nazaretarra, Judarren Errege.» Agiri au judar askok irakurri eban, Jesus gurutzeratu eban tokia uri-ondoan egoan-eta

Agiria, barriz, eberkeraz, gerkeraz eta latinez idatzita egoan. Orduan, judarren abade-buruak Piatos'i zirautsoen: «Ez idatzi "Judarren Errege", arek "Judarren Errege naz" esan ebalu baiño.» Pilatos'ek erantzun eutsoen: «Idatzitakoa, Idatzita.»

Soiñekoak zotzetara. — Bitartean gudariak, Jesus gurutzean Josi ebenean, Aren ziriak artu ta lau saL Hetan banandu ebezan, bakotxarentzako bana. Soingaiñekoa be artu eban; soingaiñeko au, barriz, josturabagea zan, goitik beeraiño dana eunduta. Alkarri esan eutsoen, ba: «Ez dagigun zatitu, zotz egin baiño, no-rentzat izango dan jakiteko.» Igarleak esandako au bete zedin: "Nire soiñekoak euren artean banandu dabez, eta nire soingaiñekoa zotzetara egin dabe." Eta gudariak orixe egin eban.

Jesus'en ,erio.tzw.—Jesus'en Gurutze-ondoan. Aren Ama Maria, ta onen aizta Maria Kleofa'rena, ta Mari Madalen egozan. Jesus'ek, bere Ama ta ikasle maitea an ikusirik, bere Amari dirauteo: «Andra, oría or zure semea.» Gero ikasleari dirautso: «Orra or zure ama.» Ta arrezkero, ikasleak bere etxean artu eban. Gero Jesus'ek guztia bete zala jakiñik, Idatzitakoa bete zedin, esan eban: «Egari naz!» Ba-zan an ontzi bat ozpiñez* beterik; eta belaki* bat ozpiñetan bustirik, kaiñabera baten erpiñean ezarri ta agora luzatu eutsoen. Jesus'ek, ozpiña artu ebenean, esan eban: «Guztia bete da!» Eta burua makurturik, azken-afflaza reinon eban.

- (*Emen guztiak belauñiko apur baten.*)

Jesus'en eriotza-ondoren.—Paraskebe (edo atontze-eguna) zan; eta gorpuak larunbatez gurutzean gelditu ez zeitezana, —zapatu a egun aundi zan-eta—, arein belauñak ausi ta gbrpuak kendu egizala eskatu eutsoen Pilatos'i judarrak. Etorri ziran, ba, gudariak; eta Jenengoari belauñ-azurrak ausi eutsoezan, baiña aregaz gurutzeratua izan zan besteari be. Jesus'egana eldu ziranean, barriz, il zala ikusirik, ez eutsoezan belauñak ausi; baiña gudari batek aztamakillaz (lantzaz) saietsa zulatu eutsan, eta bereala odola ta ura urten ziran. Eta ikusi ebanak autortu dau, ta aren autorra (sinispidea) egiazkoa da: ta arek ba-daki egia

- Ozpin = vinagre. * Baiaki = esponja.

diñoana, zuek be sinistu dagizuen. Guzti oneik, Ida. tziakoa bete zedin egin ziran: "Azurrik ez dauzazue ausiko." Eta beste idatz-lerro batek diño: «Zuiatu ebe. na ikusiko dabe."

Jesus'en illobiratzea.—*Anezker*, Arimatea'ko j. o. se'k, Jesus'en ikasle zanak, (naiz-ta judarren bildurrez ikasle isilleko izan), Jesus'en Gorpua jasoteko, Pilatos'i baimera eskatu eutsan; eta Pilatos'ek toaiezkoa emon eutsan. Nikodemo be etorri zan, bein Jesus'egana gabez joan zana, eunen bat libra nrrira zumintza (aloe) naste bat ekarririk. Eta Jesus'en Gorpua artu ta zapiz eta usaingarriz batu ebeh, judarrak illobiratzetan egin oi dafoenez, Gurutzatu ebn tokian, ortu 'hat zan, eta ortuan illobi barri bat: illobi aretan ez eberí oraindiño inor illobiratu. Beraz, judarren Paraskebe (edo gertatze-eguna). zalanta, antxe ipiñi etoen Jesus, illobia urrean egoan-eta.

II.—OTOITZAK

Jaunaren Nekaidia abestutakoan, abadeak jantzi baltza artu ta urrengo otoitzak esaten dauz:

1.—Eliza Deunaren alde.—Otoitz egin daigun, anai maiteok, Jaungoikoaren Bliza santuaren alde: Jaungoiko gure Jaunak lurbira osoan bakea, batasuna ta laguntza emon dagiozan: buruzagi ta agintari guztiak bere menpean egon daitezaz; eta guri bizi baketsua emonez, Aita Jaungoiko alguztiduna goratu dagigun.

Otoitz egin daigun.~*Belaunikotu gaitazan (belauniko apur baten).*~*Zutundu zaitze.*—Kristo'ren. bidez. erri guztiak zeure aintza. agertu daitsezun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: iraun begie zure erruki-lanak: lurbira osoan zabalduak zure Elizak, sinismen sendoz, zeure izena autortzen iraun dagian. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. E.—Amen.

2.—Aita Santnaren alde.—Otoitz egin daigun gure Aita Santu doatsu N.'ren alde be; Jaungoiko gure Jaunak, a gotzain-maillan aukeratu ebanak, onik zaindu dagiala, bere Eliza santua zaintzeko ta bere erri santua zuzentzeko.

Otoitz egin daigun.—*Belaunikotu gaitazan (belauniko apur baten).*—*Zutundu zaitze.*—*Diran guztiak*

zeure erabagiz sortu dozuzan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: onartu egizuz gure otoitzok, eta aukeratu zeuskun Aita Santua zaindu egizu zure errukiz: Zuk zuzentzen dozun kristau erri au, Agintari aundi onen menpean, bere sinismenaren irabazietan aundiagotu daiten. Amaibagako... E. Amen.

3.—Kristau Ordena ta mailla guztien alde.—Otoitz egin daigun baita Gotzain, Abade, Diakonu, Diakonoorde, Laguntzaille, Aráolari, Irakurle, Atezain, Aurtorle, Birjiña, Alargun, eta Jaungoikoaren erri santu guztiaren alde be.

Otoitz egin daigun.—*Belaunikotu gaitazan (belauniko apur baten).*—*Zutundu zaitze.*—*Elizaren Gorputz osoa zeure arnasaz santu egiten eta zuzentzen dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: entzun egizuz gi. za-mailla guzti orrean alde egiten dautsuguzan otoitzak: zure graziaren laguntzaz, baktzak bere maillan zintzoro oteñdu zagizan. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko... E. Olantxe.*

4.—Erri-agintarien alde.—Otoitz egin daigun baita erri guztietako agintarien alde ta euren egikizun eta aginbideen alde be: Jaungoiko gure Jaunak arein buru-biotzak Berak dauan bidetik zuzendu dagizan, gure betiko bakerako.

Otoitz egin daigun.—*Belaunikotu gaitazan (belauniko apur baten).*—*Zutundu zaitze.*—*Erri guztien agintarritza ta eskubideak eskuan -daukazuzan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: begiratu samurkiro gure agintariak; lurbira osoan, Zeuk zainduta, erlejiñoaren osotasuna ta aberriaren zoriona etenbage gogortu daitazan. Amaibagako... E. Amen.*

5.—Kristau-geien alde.—Otoitz egin daigun kristau-geien-alde be, Jaungoiko gure Jaunak edegi dagizan arein biotz-belarriak eta bere erruki-atea; ta arein pekatu guztiak Bateo garbigarriaren bidez parkatu ondoren, eurak be Jesukristo gure Jaunaren seme biur-tu daitezaz.

Otoitz egin daigun.—*Belaunikotu gaitazan (belauniko apur baten).*—*Zutundu zaitze.*—*Zure Eliza beti ume barriz ugaritzen dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: geitu egizu gure kristau-gei onein fedí ta adi-*

mena: bateoko iturrian barriro jaiota, zure seme-zakoen artean sartu daitezcan. Amaibagako... E. Amen.

6.—Kristau guztien bearrizaren alde.—Otoitz egin daigun, anai maiteok, Aita Jaungoiko alguztidunari, oker guztitik mundua atafa dagiala: gatzak uxatu' gosea kendu, espetzeak (kartzelak) edegi, kateak ausi, bidekoak etxerazo, geisoak osatu ta itxasokoak lego! rrrera onik ekarri dagizala.

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitezcan (*belauniko aipur baten*).—Zutundu zaitezce.—Atsekabetuen poza ta makalen indarra zearcan Jaungoiko alguztidun eta errukiorra: eldu bekizuz edozein larrialditan aurkitzen diranen eskariak; guztiak bear-orduan zeure errukia izanik, biotzez póztu daitezcan. Amaibagako... E. Amen.

7.—Eliz-batasunaren alde.—Otoitz egin daigun baita fede-ausle ta alderdituen alde be; gure Jauna eta Jaungoikoak atara dagizala guzurbide guztietatik, eta Eliza Ama santu, katoliku ta Apostoluen altzora eroan dagizala.

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitezcan (*belauniko aipur baten*).—Zutundu zaitezce.—Guztiok onik ataratea ta inor be ez galtzea nai dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: begira deabru maltzurfak illuratu dabezcanarima orreik: ereji gaizto guztiak alde batera itxirik, oker dabiltsan biotzak osatu ta zure egiairen batasunera biurtu daitezcan. Amaibagako... E. Amen.

8.—Judarren alde.—Otoitz egin daigun judarren alde be, gure Jaungoiko Jaunak biotzetako itsumena kendu dagitsen. areik be Jesukristo gure Jauna ezagutu dagien.

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitezcan (*belauniko aipur ibaten*).—Zutundu zaitezce.—Judarrai be zure errukia ukatzen ez dautsezcan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: entzun erri aren itsumena kentzeko egiten dautsuguzan eskariak; zure egiairen argi dan Jesukristo ezaguturik, euren illunpefatik urten daitezcan. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. E. Amen.

9.—Sinisbageen alde.—Otoitz egin daigun fede bagakoen alde be; guztia al dauan Jaungoikoak kendu begie biotzetako gaiztakeria; ta euren sasi-jaungoikoak

alde batera itxirik, egiazko Jaungoiko biziagana ta onen Seme bakar Jesukristo gure Jaungoiko Jaunaga-
na biurtu daitezcan.

Otoitz egin daigun.—Belaunikotu gaitezcan (*belauniko aipur baten*).—Zutundu zaitezce.—Gaiztoen eriotza bagarik, Zeugana biurtzea beti nai dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: entzun biotz onez gure ototiza, ta sasi-jaungoikoan menpetik atara egizuz, ta ekarri zure Eliza santura, zure izena ezagutu ta goratu dagien. Amaibagako...

III.—GURUTZEA GURTZEA

Otoitzak amaitzean, abadeak, kapa nagusia kendu ta Epistola-aldera joanik, antxe, erriari begira, Gurutze-burua agertzen dau; gero, bakarrik, «Ecce lignum Crucis» asten dau; ondoren, meza-abadea izan ezik, guztiak belauniko dagozala, koruak erantzuten dautso: «Venite, adoremus».

A.—Ecce lignum Crucis, in quo salus mundi pependit: Ona emen Gurutze-egurra, emendixek egon zan dingilizka munduko osasuna.

E.—Venite, adoremus: Zatoze, gurtu dagigun.

Eta iru bidar orrelaxe eginik, eta Gurutzea agirian jarri ondoren, abadeak akolitu biri emoten dautse Gurutzea; cneik, altara erdiko mailla-gaiñean zutik, erriari begira, alde bietatik eusten dautsoe. Beste bi, kandela biztuakaz dagoz belauniko, Gurutzeari begira.

Eta eliztar guztiak Gurutzea gurtzen dabe: lenen, abadeak, bere oiñefakoak erantzi ta iru aldirz beiauniko eginik, imun egiten dautso. Gero beste abadeak, meza-mutniak eta (abar dāoz biñaka; azkenez, erria.

Bitartean, «Min-abesti» oneik kantatzen dira:

1-2. Ene erri!, zer egin dautsut Nik? Zetan atseka-
betu zaitut? Esan egidazu.

Ejipto-erritik atara zendudazalako, Gurutzea ja-
i rri dautsazu zeure Salbatzailleari?

- | | |
|---|---|
| 1. Jaungoiko Santu. | 1. Agios o Theós. |
| 2. <i>Jaungoiko Santu.</i> | 2. <i>Sanctus Deus.</i> |
| 1. Jaungoiko indartsu. | 1. Agios ischyros. |
| 2. <i>Jaungoiko indartsu.</i> | 2. <i>Sanctus fortis.</i> |
| 1. Jaungoiko illezkorra,
erruki zakiguz. | 1. Agios athánatos,
eléison imas. |
| 2. Jaungoiko iñefzcorro,
erruki zakiguz. | 2. <i>Sanctus immortalis,
miserere nobis.</i> |

Berrogei urtez basamortuan-zear erabili zendu-dazalako, ta manaz asetu, ta lur oso samurrean sartu, zure Salbatzaileari Gurutzea atondu dautsazu?

Jaungoiko Santu *barriro*.

Zer egin bear neutsun besterik, eta ez neutsun egin? Neuk jarri zendudazan, masti bikaiñaren antzera; ta zu samiñegia egin zaiataz: egarri nintzala, ozplña emon daustazu edaritzat, eta lantzaz edegi dautsazu saietsa zeure Salbatzaileari.

Jaungoiko Santu *barriro*.

1.—Nik zeugaitik zigortu neban Ejipto erria bere lenseme guztiakaz; eta zuk Ni, zigortu omdoren, saldu egin nozu.

2.—Ene erri!, zer egin dautsut Nik? Zetan atseka-betu zaitut? Esan egidazu.

1.—Neuk atara zendudazan Ejipto'tik, Paraon Itxas-Gorrian ondaturik; eta zuk Ni abade-buruen eskuetara emon nozu.

2.—Ene erri!...

1.—Neuk edegi neutsun itxasoa zure aurrean; eta zuk nire saietsa aztamakillaz (lantzaz) edegi dozu.

2.—Ene erri!...

1.—Neu joan nintzakizun aurretik odei-adarrean; eta zuk Pilatos'en auzi-tokira eroan nozu.

2.—Ene erri!...

1.—Neuk asetu zendudazan manaz basamortuan; zuk, ostera, matraillakoz eta zigorkadaz jo nozu.

2.—Ene erri!...

1.—Neuk emon neutsun edaten arkaitz-ur osasungarria; zuk, ostera, beaztuna* ta ozpiña* emon daustazuz edaritzat.

2.—Ene erri!...

1.—Neuk jo nebazan Kannandar erregeak zugaitik; eta zuk Ni kaiñaberaz jo nozu buruan.

2.—Ene erri!...

1.—Neuk emon neutsun errege-makilla; zuk, barriz, arantzazko koroia ezarri daustazu buruan.

2.—Ene erri!...

*" Beaztun = hiel. Ozipin

1.—Neuk jaso zendudazan gora indar aundiz zuk, (jarritz, Gurutze urkabean eskegi nozu.

2.—Ene erri!...

Kanta-gaia.—Zeure Gurutzea gurtzen dogu, Jauna, ta zeure Biztuera santua goratu ta ospatzen dogu: egur onen bidez etorri zan poza mundu osora-ta. _->_. Erruki bekigu Jaungoikoa, ta bedeinkatu gagizala; bere arpegiz argi egin daiskula, ta erruki bekigu.

Zeure Gurutzea *barriro*.

CRUX FIDELIS

Gurutze jator, zeu ederrena zugatzetan: basoak ez dau emon zuk lako orririk, ez lorarik, ez fruturik. —Egur gozo, untze gozoakaz josita, pisu gozoa daukazu!

ERESERKIA

1.—Abestu begi miiñak burruka goragarriaren garaipena*, ta Gurutzeko irabaziz autortu begi garaipen aundiena: munduaren Erosleak irabazi eban, bere burua eriotzarako eskiñiez.

2.—Gurutze jator...

1.—Egilleak, len-gurasoaren uts-egiñaz errukiturik, —sagar galgarria jateak eriotza ekarri eutsan-eta—, Berak aukeratu eban orduan beste zugatz bat lenengoaren kalteak osatzeko.

2.—Gurutze jator...

1.—Era au eskatzen eban gure osasunaren egintzat: deabruaren maltzurkeria beste batek ondatu bear; eta arerioak zauritu eban Iekua, osatu egin bear.

2.—Gurutze jator...

1.—Eta sasoi santua eldu zanean, Aitaren altzotik urten zan munduaren Egillea, Birjiña baten sabeleaa aragiz jantzita.

; 2.—Gurutze jator...

1.—Negar egiten dau umeak, aska estuan etzunda; Ama Birjifiak batzen dautso gorputza zapietan, eta

* Garaipen = triunfo, victoria.

Jaungoikoaren esku-oiñak gerriko estu bataz y^tzen dauz.

2.—Gurutze jator...

1.—Ogei ta amar urte egitean, bere bizitza-aldia be, teta, Salbatzaillea bere gogoz oiñazetara eskintzen da 13, Gurutzean jaso eben Bildotsa, ordain-opari.

2.—Gurutze jator...

1.—Gorputza makalduez, beaztuna edaten dau' arantzak, untzeak eta lantzak gorputza zulatu egiri dautsoe, ura ta odola jarioz; ur, lur, zeru ta mundu ibai orretan garbitu dauz.

2.—Gurutze jator...

1.—Biurtu adarrok, zugatz aundi, estutu soin zabal ori, ta bigundu egizu izadiak emon eutsun gogortasuna; eta Errege nagusiaren gorputz-atalai egur samur bat eskiñi egiezu.

2.—Gurutze jator...

1.—Zeu bakarrik izan zara mundu-oparia jasoteko fain, eta nrundu galduari kaia (portua) ontziz gertatzeko beste, Bildotsaren gorputzeko Odol santua isuriz.

2.—Gurutze jator...

Amaiera au ez da iñoz itxiko:

1.—Betiko aintza Irutasun Deunari: bardin Aitarl ta Semeari, baita Espiritu Santuari be; Bat eta Iruren izena goratu begi izadi osoak. Amen.

2.—Gurutze jator...

IV.—JAUNARTZEA

Gurutze gurtzea arnaitzean, eta au altara nagusira eroantla abadeak eta laguntzailleak jantzi ubelak (mōrauak) artzen tiatiez. Gero, diakonuak, korporalak zabaltzen dauz altara-gaiñean, bestetan lez; eta ondoren, abadea ta diakonu-ordea, eliz-gizonak eta erria euren lekuetan dagozala, diakonual akouituaq lagunduta, Sakramentua gordet, dagoan altarara doa; eta kopia artu, ta l&poko zapi zuriaren ertzakaz estal&durik, altara nagusira daroa. Bitartean, koruak auxe abesten dau:

1.—Gurtzen zaitugu, Kristo, ta bedeinkatzen zaituq gu, zure Gurutzeaz mundua erosi dozu-ta.

2.—Zugatz bategaitik morroi egin gintzazan, eta Kristo'ren Gurutzeak askatu egin gaitu; zugatz aretako

frutuak ondatu egin genduzan; Jaungoikoaren Sem&eak, barriz, erosi.

3_Munduaren Salbatzaille, salbau gagizuz: zeure Gurutze ta Odolez erosi gaituzun ori, lagun zakiguz, arren, gure Jaungoiko!

Eukaristia altara nagusira eroanda, abadeak eta diakonu ordek, belauñ biakaz Sakramentua gurtu ta jagirik, abadeak, guztiak'entzuteko eraz, auxe diño:

Otoitz egin daigun.—Agingta osasungarriz eta jaun&eozko irakatsiaz adoretuta, esaten ausartzen gara: Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikatu bedi zure izena; betorkigu zure erreñua; gin bedi zure borondatea zeruan lez lurreean be. Emon eiguzu gaur geure eguneroko ogia; iparkatu eiguzuz gure zorrak, geuk geure zordunai parkatzen dautseguzanez; eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten, gatxetik jagon baiño. Olantxe.

Gero, abadeak, eskuak zabal, auxe diño:

Zaindu gagizuz, Jauna, lengo, oraingo ta geroko e&aitz guztietatik; eta Jaungoikoaren Ama doatsu ta goragarri Maris beti Birjiña, zure Apostolu zoriontsu pedro ta Paulo ta Ander, eta Santu guztien bitartez, emon egiguzu, errukiz, bakea gure egunotan; zure errukia lagun dogula, pekatutik beti alde egin daigun eta naaste guztietatik gorderik egon gaitazan. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen berberaren bidez.

Erriak: Amen.

Eta altara-aurrean makur, urrengo otoitz au esaten dau isillean:

Jesukristo Jauna: ni gei (duin) izan ezarren, artu nai dodan zure Gorputza, ez bekit izan nire epaibide ta ondamendirako: zure errukiz, nire gorputz eta ari&mea zaintzeko ta nire osasungarri izateko baiño. Amai. bagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Kantxe.

*Gero, kopia edegi ta eskuman Osti santua arturik, auxe diño:

Jauna, ni ez naz duin Zu nire etxean sartu zaitzan; baiña esan egizu berba bat bakarrik, eta nire arimea osatu egingo da.

Abadeak Gorputz santua artzen dau, urrengo berba oneik ixilllean esanda:

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz onek gorde begi nire arimea betiko bizitarako. Olantxe.

Orain, Gure Jauna banatzen dau: lenengo, laguntzailleak gero eliz-gizonai ta akolituai, ta azkenez erriari.

Jaunartzea amaitutakoan, abadeak, kopola sagrarioan gorderik, urrengo iru otoitzok esaten dauz, eskerrak emotelco:

Otoitz egin daigun.—Bedeinkatu egizu eurrez Jauna, zure Semearen Nekaldia ta eriotza biotz beroz gogoratu dauzan erri au; betorkio parkamen osoa, baita poz beteá be; ta fede santuan bizturik, betiko zerua jadetsi dagiala. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitz egin daigun.—Zure Kristo'ren nekaldi ta eriótzaz osatu gaituzun Jaungoiko algutzidun eta errukiorra: gorde gugan zure erruki-lana; Eukaristi au artu dogunok, beti Zeu maite izaten bizi gaitezán. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitz egin daigun.—Gogoratu egizuz, Jauna, zure errukiak, éta zure menpeko gareanok etenbagako laguntzaz santutu gagizuz; Kristo zure Semeak, bere odolaz, Pazko-misterio au geure alde sortu eban-eta. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez.

E.—Olantxe.



LARUNBAT GUREN

l'go. mailla. — Ubelez

PAZKO-GAUA

SU BARRIA BEDEINKATU

Ordu egokian, au da, Pazko-aurreguneko Meza gaberdirantz asteko eraz, altarak zapiz jazten dira, baiña kandelak atzamauta egon bear daibe Meza asi arte.

Bitartean, elizako ateaurrean suarririk sua atara ta bertatik ikatzak iziotzen dira. Atiadea jantzi ubelez (morauz) apatoduta, laguntzailleak gurutzea, ur bedeinkatua ta intzertzua be«rtan dauzalla, eliz-ate aurrean, edo eliz-sarreran, «do bestela eliz-barruan, —erriak ondoen ikusi dagien lekuan—, su barria bedeinkatzen dau, esanez:

•• A.—Jauna zuekaz.

•' E.—Baita zugaz be.

: **Otoitza.**—Giltzarri dan zure Semearen bitartez, sinistredun zintzoai zeure argi-ditzira erakutsi dautsezun Jaungoikoa: becteinikatu f egizu arritik gure onerako atara dan su barri au; eta egizuz, Pazko-jai oneitan zerura-guraz gure arimak suturik, betiko argiaren jaietara biotz garbiz eldu gaitezala. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez. Olantxe.

iGeró, sua iru bidar ur bedeinkatuz txipristinduten dau. Eta akolitu batek, ikatz bedeinkatuetatik arturik, lurruntzian jarten dauz; abadeak, barriz, lurruntzian intzertzua ipinten dau, beti lez, ta iru. aldiz intzertzua emoten fautso suari.

PAZKO-ZUZIAREN ONESPENA

iSu barria bedeinkatu on'doren, akolitu batek, Pazko-zuzia ekarten dau erdira albaðearen aurrera; eta onek, burdin-ziri bataz, gurutz-irudia egiten dau zuzi gaiñean, intzertzu garaunak jañteko egindako zuloetan. Gero, letra «Alfa» zuiatzen dau aren buruan ta «Omega» beean, eta gurutz-beso artean, lau zenbaki. doian urtea adierazoten dabezanak.

$$\begin{array}{r}
 3 \\
 \alpha \\
 1 \\
 \hline
 51 \mid 96 \\
 2 \quad 76 \mid 48 \\
 \hline
 \Omega \\
 4
 \end{array}$$

1. Christus heri et hodie. 1. Kristo atzo ta gaur.
(Gurutzearen goitik beerako zuioa egiten dau).
2. Principium et finis. 2. Asiera ta Amaia.
(Ezkerretik eskumarakoa egiten dau).
3. Alpha. 3. Alpha.
(Gurutz-buruan letra A zulatzen dau).
4. Et Omega, 4. Ta Omega.
(Gurutz-azpian letra Omega zulatzen dau).
5. Ipsius sunt tempora. 5. Bereak dira aldiak,
(Doian urteko den-zenbakia jarte-n dau gurutzeko goiko ezker aldean).
6. Et saecula. 6. baita gizaldiak be.
(Urteko bigarren zenbakia gurutz-goi eskuman).
7. Ipsi gloria et imperium. 7. Berari aintza ta agin-
taritza.
(Urteko irugarren zenbakia gurutz^beeko ezker aldean).
8. Per universa aeternita- 8. Betirauneko aldi guz-
tis saecula. Amen. tietan. Olantxe.
(Urteko laugarren zenbakia gurutz-beeko eskuman).

Gurutzearen eta beste enparauen zulatzea amaitutakoan, diakonuak abadeari intzentzu-garaunak eskintzen dautsaz, eta bedeinkatu bagarik ba'dagoz, iru bidar onetsi ta intzentzua botaten dautse, ezer esateke. Gero, bost garaunak zuloetan sartzen dautz, bitartean auxe esanez:

1. Per sua sancta vŭlnera 1. Bere zauri santu
2. gloriosa, 2. goragarriakaitik,
3. custódial 3. gorde
4. et consérvet nos 4. ta zaindu gagizala
5. Christus Dóminus. 5. Kristo Jaunak.
Amen. Olantxe.
- Gero, diakonuak su barritan bizutako kandela txiki bat eskintzen dautso abadeari, ta orraz zuzia iziotzen dau, esanez:
- Lumen Christi glorióse Kristo argi dizditsu biztu
resurgéntis díssipet té- zanak, kendu begiz biotz
nebras cordis et mentis. -buruetako illunpeak.
- Gero, abadeak zuzi biztua bedeinkatzen dau, auxe esanez: I
- A.—Jauna zuekaz.
- E.—Baita zugaz be.

Otoitza.—Beter, arren, Jaungoiko alguztidun, zuzi biztu onen gaiñera zure onespén f ugaría; eta barri-taille ezkutua zorean ezker, ontzat artu egizu gau

onetako argi au; orain egiten dautsugun opari au zu-
re argi-ditzira arrigarraz argitu bakarrik ez, baita no-
rabaitera misterio santu onetatik eroan ba'dagi be,
deabruaren maltzurkeri gaiztoa uxaturik, zure indar
aundia beragaz izan daitela. Kristo gure Jaunaren
bidez. Olantx^A

Bitartean, elizako argi guztiak atzamatzen dira,

ZUZMBILDEUNA

Orduan, abadeak intzentzua ipinten dau lurrun-ontzian; ondoren, diakonuak, jantzi morauak itzi ta zuriak jantzirik, pazko-zuzi biztua artzen dau, ta ibildeuna asten da: lurrun-ontziduna doa lenengo, gero diakonu-or-dekoa gurutzaz, diakonua zuzi biztuaz, onen ondoren abadea; atzetik, elizgizonak dagokien txandan, eta erria.

Diakonuak, elizan sartutakoan, zuzia jaso ta zutik, auxe abesten dau:

- Lumen Chrtsti. Kristo'ren Argi.
Eta beste guztiak, zuzi bedeinkatu alderantz belauniko-
tuta, auxe erantzuten dabe:

Deo gratias. Eskerrak Jaungoikoari.

Eta abadeak zuzi bedeinkatutik bere kandela biztuten dau.
Eliz-erdiraño joanda, era berean diakonuak goragotik
abesten dau:

Lumen Christi. Kristo'ren Argi.

Eta guztiak, len tez belaunikoturik, erantzuten dautsoe:

Deo gratias. Eskerrak Jaungoikoari.

Eta zuzi onetsitik eliz-gizonen kandelak iziotzen dira.

Eta irugarren aldiz altarara aurreratuaz, oraindiño go-
ragotik abesten dau:

Lumen Christi. Kristo'ren Argi.

Eta guztiak, irugarrenez, len lez belaunikoturik, eran-
tzuten dautsoe:

Deo gratias, Eskerrak Jaungoikoari.

I Eta zuzi onetsitik erriaren kandelak eta elizako argiak
iziotzen dira,

Abadea bere Iekura doa, Epistola-aildera; diakonu-ordea,
gurutzaz, Ebanjelic^aldean dago zutik; elizgizonak euren
jarlekuetan jarten dira,

Diakonuak koru-erdian (aitara nagusi aurrean) izten dau
pazko-zuzia, jarlekutxo baten gainean; eta liburua arturik,
bedeinkaziñoa eskatzen dautso meza-emoilleari, esanez:

Jube, domne, benedícere. Bedeinkatu nagizu, jauna

Eta meza-emoilleak:

Jauna izan bedi zure biotz-ezpanetan, bere p^a^k
-deia ondo ta egoki iragarri dagizun. Aitaren, eta Se^o
mearen, f eta Espiritu Santuaren izenean. Olántxe

Gero, diakonua zapi zuriz estaldutako atrillera doa
bertan liburua jarririk, intzentzua emoten dautso-
Pazko-zuziari inguru eginik, oni be intzentzua emoten 'dauH'

Orduan, guztiak zutik, Ebanjeliokoan lez, diakonuT^r
Paeko-deia abesten dau, bere aurtean ipazko-zuzia dauM^a,
eskumatarata altarea ta e3iz-erdia ezkerretara.

PAZKO-DEIA

Poztu bedi onezkero zeruko Aingeru-taldea; poztu
bediz jaungoikozko ezkutu guztiak; eta Errege aundi
onen garaipena dala-ta, turuta-soiñu osasungarria en-
tzu bedi. Poziu bedi lurra be, onenbesteko argi-dizti-
raz, ta betiko Errege onen argitasunak jantzita, lurbi-
ra guztiko lengo illuna uxatu begi. Poztu bedi Eliza
Ama be, argi ederrezko izpiz apaindua, ta erriaren
kantaz eliza au dardar jarri bedi. Zuek, beraz, argi
onen diztira ederra ikusten dozuen anai maiteok, neu-
gaz batera Jaungoiko alguztidunaren errukia eskatu
egizue: Nik irabazi bagarik eliz-gizonetarako aukeratu
nauanak, argitu nagilla, Zuzi onen gorapena abestu
dagidan. Jesuknsto bere Seme ta gure Jaunagaitik,
amaibagako egunetan Aregaz eta Espiritu Santuagaz
batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta.
E.—Amen. Olantxe.

A.—Dóminus vobíscum.

Jauna zuekaz.

E.—Et cum spírítu tuo.

Baita zugaz be.

A.—Súrsum corda.

Gora biotzak!

E.~Hatoémus ad Dómi-
num.

Jaunagan daukaguz.

A.—Gratias agámus Dómi
no Deo nostro.

Eskerrak emon daioguzan
Jaungoiko gure Jau-
nari.

E.—Dígnum et iústum
est.

Egoki ta bidezko da.

Ondo egoki ta bidezko da, izan be, Jaungoiko ikus
-ezina, Aita alguztiduna, ta Aren Seme bakar Jesu-
kristo gure Jauna, biotz eta gogo osoz guk goratze-
betiko Aitari gugaitik Adan'en zorra ordaindu

„tsan-eta; baita pekatu zarraren agiria Bere Odolez gar-
bitu be. OnexMk dira benetan Pazko-jaiak, egiazko Bil-
dotsa il ebeneko jaiak, zintzoen etxe-ateak Aren odolez
igurtziten diran jaiak. Gau au dogu. gure gurasoak,
Israel'go semeak, Ejipto'tik atarata, Itxas-Gorri zear
oñez eroan ebazaneke gau a. Auxe dogu, pekatuen
illunpeak odei gorriz garbitu ebazan gaua.

Gau au da, KristO sinistén daben mundu guztiko
kristauak, lurreko gaitz eta pekatu-illunpetik askatu-
rik, grazira ta zuzentasunera biurtzen dauzana. Gau
au dogu, eriotz-kateak ausi ta lurpetik Kristo garaille
igo zaneke gaua. Gu jaió izatea alperrikoa zan, izan
be, erosi izan ez ba'genduz. Arrigarri bai guganako zure
errukia! Au bai maitasun neurribagea!, morroia ere-
teko, Semea emon dozu-ta. Bearrekoa zan, bai,
Adan'en pekatua, Kristo'k bere eriotzaz kendua! Zo-
rioneko erru, olako Salbatzalllea eukitea irabazi dau-
na! Auxe bai gau doatsu, Kristo lurpetik biztu zaneke
aldi ta ordua onexek bakarrik jakin ebazan-eta!

Gau onetzaz dago idatzita: Gaua, eguna lez argitu-
ko da; atsegin emoten daustan gau argia. Gau santu
onek, beraz, gaitzakeria uxatu, errua garbitu, jausita-
koai errubagetasuna biurtu, atsekabetuak poztu, go-
rrotoak iges-erazo, alkartasuna sortu ta agintaritzak
menperatu egiten dauz.

Gau santu onen izenean, bada, Aita Deun orrek,
artu egizu ontzat intzentzu onen arratseko oparia;
erleen argizariz egindako zuzi au, Eliza santuak bere
menpekoen bidez eskintzen dautsu jai aundi onetan.
Zuzi onen edertasunak ezagutzen doguz onezker,
Jaungoikoaren aintzarako su dizditsua iziotuko dau-ta.

Eta onek, zatika erdibitua izanarren, argia emotean
ez dau argi galtzerik beragan: erle-amak landutako
argizariak iraunerazoten dautso zuzi eder oni-ta.

Auxe bai, egiz, gau zorientzua, Ejipto'tarrak narru
-ustu ta Ebreotarrak aberastu ebazana! Gau onek, lur
eta zeru, gizon eta Jaungoiko, bat egiten dauz.

Arren, bada, Jauna, zure izenaren omenez bedeín-
katu dogun zuzi onek, iraun dagiala iñoiz be atzamau
bagarik, gau onetako illuna ondartzeko; eta Zuretzat
atsegiñezko usain izanik, goiko izarren argiakaz naas-
tu dadilla. Izioturik aurkitu begi artizarrak, illunik ez

dauan artizar arek: lurpetik jagirik gizadiari argi egin eutsan arek.

Beraz, auxe eskatzen dautsugu, Jauna: Zure menpeko gareanok, abade-talde guztia, ta erri gartsua, Pazko-jai oneitan eten bage zuzendu, zaindu ta gorde' gaizuzala, Aita Santu N., ta gure Gotzain N.'gaz batera, bake osoa emonik. Begiratu egizuz agintzen daukuen gizonak be, ta zure biotz-bera ta erruki ezin-esan alakoaz, zuzendu egizuz arein bururakizun eta lanak be .baketsu ta zuzen: lurreko lanbide neketsuen ostein zure erri guztiagaz batera zeruratu daitezaz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen berberaren bidez.

E.—Olantxe.

BIGARREN ZATIA

IRAKURGAIK

Pazko-deiaren ondoren, dfakonuak, jantzi zuriak itzirik, ubelak (morauak) artzen dauz, eta abadeagana doa.

Gero, (olrakurgaiaka asten dlra. Irakurleak irakurten dauz koru-erdian, zuzi onetsiaren aurrean. Meza-emoillea ta laguntzaill-eak, eliz-gizonak eta erriak jesarrita entzuten dabez.

1^{go}. Irakurgaia (Urteera, Gen., 1, 31; 2, 1-2)—Asieran Jaungoikoak zeru-lurrak egin ebazan. Lurra, barriz, gauza naastu utsa zan, eta illunak estaltzen eban leza gaina, ta Jaungoikoaren arnasa ur-gaiñean-ebillen. Eta Jaungoikoak esan eban: «Egin bedi argia.» Eta argia egin zan. Eta Jaungoikoak, argia ikusirik, ontzat emon eban, eta argia illunetik aldendu egin eban. Argia Egun deitu eban, eta illuna Gau. Eta illundu, ta gero argitu egin zan: or lenengo eguna. Jaungoikoak esan eban barriro: «Bego izartegi bat uren erdian, urak uretatik banandu daitezaz.» Eta Jaungoikoak ortzia (edo izartegia) egin eban; eta orrela, izartegitik gora egozan urak, alde babera banatu ebazan, eta beetik egozanak bestera. Eta alantxe egin zan. Eta Jaungoikoak izartegiari (edo ortziari) izena Zeru ezarri eutsan. Eta argia illundu, ta gero argitu egin zan: or bigarren eguna. Jaungoikoak esan eban barriro be: «Batu bediz leku batera zeru-azpitik diran urak, eta agertu bedi legorra.» Ta alantxe jazo zan. Eta legorra

Tjur deitu eban, ur pilloa Itxaso. Ona zala ikusi eban jaungoikoak.

Gero auxe esan eban Jaungoikoak: «Sortu begi lurrrak bedar ezea, azi ta guzti; erne beitez lurrean arnaridun (frutudun) zugatzak be, euretariako ale, garaun, azi ^{ta} guzti.» Ta alantxe jazo zan. Lurrak bedar ezea einon eban; mota bakotxeko bedarra bere aziaz, frutu-zugatzak, bakotxa bere aziaz. Eta Jaungoikoak ondo zala ikusi eban. Eta argia illundu, ta gero argitu egin zan: or irugarren eguna. Orduan, Jaungoikoak auxe esan eban: «Zeru-sabaian argi-emoilleak izan bediz eguna gauetik banatzeko, ta ezaupiderako, ta aroak, urteak eta egunak negurtzeko; zeru-sabaian ditziraturik, lurrari argi egin dagioen.» Eta alantxe egin zan. Argi aundi bi egin ebazan Jaungoikoak: aundiena egu. nez, ta txikiena ta izarrak, gabez argi egiteko. Zeru-goian ipiñi ebazan Jaungoikoak, luTrari argi egiñik, eguna ta gaua negurtu ta argi-illunpeen erdi-muga izan zeitezaz. Eta Jaungoikoak ondo zala ikusi eban. Eta argia illundu, ta gero argitu egin zan: or laugar-jten eguna.

• Jaungoikoak, urrengo, auxe esan eban: «Uretan sortu beitez pizti arnasadun biziak, eta egazti egakariak be bai lur gainean zerupe zabalean.» Eta Jaungoikoak arrain aundiak sortu-azo ebazan, baita urak sortutako bizidun ingirilari guztiak be, ta bardin guztietariko egaztiak be: guztiak euren sailletan eta euren motako egin ebazan. Eta Jaungoikoak ondo zala ikusi eban. Eta bedekaturik, esan eutsen: «Azi ta ugaritu zaitetze, ta bete itxasoko urak; ugaritu beitez lur gaineko egaztiak.» Eta illundu, ta gero argitu egin zan: or bosgarren eguna.

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban, icLurrak erne begiz pizti bizidunak, bakotxak bere motako, guztietariko abere, narrazti ta lur-piztiak, bakotxa bere motako.» Ta alantxe jazo zan. Jaungoikoak egin ebazan lur-piztiak bakotxa bere motako, abere ta narrazti bakotxa bere mota-saillean. Eta ona zala ikusirik, auxe esan eban: «Egin dagigun gizona geure antz eta irudiko, itxasoko arrainai, zeruko egaztiak, abereai, lur osoari, ta lurrean narras dabiltzanai buru izan dakien.» Eta Jaungoikoa gizona bere antzeko egin eban, Jaungoikoaren antzera egin eban; arra ta emea egin eba-

zan. Eta bedekaturik, esan eutsen. «Azi ta ugaritu zaiteze; bete egizue lurra ta menperatu; itxasoko arraiñak, zeruko egaztiak eta lur gaiñean dabizan bu zidun guztiak be, artu zeuen menpean.»

Eta auxe esan eban Jaungoikoak: «Begira, lurreko azi-bedar guztiak, eta euren motako azia dakarren zugatz guztiak, zeuentzat emoten dauzuedaz, janaritzat izan dagizuezan: eta lurreko abere guztiak, eguratseko egaztiak, ta lurrean narras dabizan bizidun guztiak, bedar orretatik jana izan dagien emongo dautset.» Eta alantxe jazo zan. Ikusi eban Jaungoikoak berak egindako guztia, ta oso eder zan guztia. Eta argia illundu, ta gero argitu egin zan: or seigarren eguna.

Orrela, zeru-lurrak, eta euren edergarri guztiak osotuta gelditu ziran. Zazpigarren egunean Jaungoikoak bere lana amaitu eban; eta zazpigarren egunean, bere egitekoa amaitu eban ezker, atsedean artu eban.

Otoiz egin daigun. — Belaunikotu gaitzean *fb.* *launiko apur baten*).—Zutundu zaiteze.—Gizona arrigarriri egin eta arrigarriri erosi zenduan Jaungoikoak: eiguzu, pekatuaren leunkiari zentzunez beti kontra eginik, betiko atseñetara eltzea irabazi daigula. Amaibagako egunetan...

2^{gn}. Irakurgaia (Urteera, Ex., 14, 24-31 eta 15, 1).—Egun areitan, goizaldean Jaunak, su-laiñozko tantaitik Ejiptotarren sailletara begiratu. ta ondatuta itzi ebazan. burdi-kunpillak alkarren artean naastu ta lezara jaurtiak izan ziran. Orduan, Ejiptotarrak auxe esan eban: «Iges egin daigun Israel'gandik, Jaungoiko arein alde ta geure kontra diardu burrukan-eta.» Orduan, Jaunak Mioses'i auxe esan eutsan: «Luzatu egizu eskua itxas-gaiñera, urak Ejiptotarren burdi-zaldunen gaiñera jausi daitezcan.»

Luzatu eban Moises'ek eskua itxas-gaiñera, ta egunsenti aretan lengora etorri zan itxasoa; ta Ejiptotarrak iges joiazala, urak biurtu egin ziran, eta Jaunak olatu-artean amildu ebazan. Urak biurtu ziranean, atzetik itxasora sartu ziran Faraon'en burdi, zaldi ta gudagizon guztiak estaldu egin ebezan; ez zan bat be bizirik urten. Israel'go semeak, oster, oin-legor igaro ziran itxaso-zear, ura ezker-eskuma ormatzat eukela. Egun aretan, Jaunak Ejiptotarren eskutik atara eban Israel; eta israeldarrak Jaunaren eskuz ildako ejipto-

tarrak ikusi ebezan itxas-ertzean. Au ikusirik, erri osoa Jaunaganako bildurrez bete zan, eta Jaunagan eta Aren morroi Moises'egan jarri eban sintstea. Orduan, Moises eta Israel'go semeak, Jaunari abesti au lcantau eutsoen:

Abestia.—Abestu daiogun Jaunari, aundi ta eder agertu da-ta; zaldi ta zaldun, itxasoan amildu dauz. Ni, barriz, zaindu ta lagundurik, onik atara nau — Auxe da nire Jaungoiko, ta nik gurtu egingo dot; auxe da nire gurasoen Jaungoiko, ta nik goratu egingo dot. —Gudarozteak ondatzen dauzan Jauna; Jauna dau Izen.

Otoitz egin daigun. — Belaunikotu gaitzean (*belau-niko apur baten*).—Zutundu zaiteze.—Zure aspaldiko mirariak gure egunotan be agertzen daukuzuzan Jaungoikoak; len erri toati, Ejiptotarren menpetik ataraz, zure esku indartsuaz arrigarriak egin zeutsazan lez, orain be erri guztiak bateo-uraz egiten dautsezuz; egizu, erri guztiak Abraham'en seme izatera ta israeldar nausitahunera biurtu daitezcala. Amaibagako egunetan...

3^{gn}. Irakurgaia (Isaias, 4, 2-6).—Egun aretan, Jaunaren azia aundi ta eder egingo da, ta lurreko frutua goratua izango da, ta Israel'en bizirik gelditu ziranean poza izango da. Sion'en eta Israel'en gelditu diran guztiak, au da, Jerusalem'en bizi izateko gelditu diran guztiak, santu izena artuko dabe. Jaurtak Sion'go alaben loiak eta Jerusalem'go odol-orbanak (loiak) kendu dagizanean jazoko da au. epai-indarrez eta kemen-adorez garbituko dauz-ta. Eta Sion'go mendi gain zabalean, baifa Jaungoiko-izena aitautua izan daiten edozein lekutan be, odei bat jarriko dau Jaunak egunez, eta kea darion sugar dizditsua gabez; eta odei orrek Jaunaren aunditasuna zainduko dau. Ta txabola ori eguneko berotik gordeteko geriza izango da, ta aize aundi ta eurietan aterpe izateko.

Abestia.—Maasti bat lortu eban nire maiteak, muna oso mardulean.—Ormaz eta zuloz inguratu eban: eta Sorek'eko mats-adarrez jarririk, bere erdian torre bat Jaso eban,—Baita bertan mats-dolara bat jarri be; gudarozteen Jaunaren maastia, barriz, Israel'go etxea dozu.

Otoitz egin daigun. — Belaunikotu gaitez (belau-iko apur baten).—Zutundu zaitzeze.—Zure Elizaren seme guztien artean, zure agintarien edozein lekutan a-zi onaren ereille ta landara garbien zaintzaille za-reala, zeure igarle santuen agoz agertu daukuzun Jaungoikoa: egiezu zure masti ta ontu-ari izena deroen erriai, arantzta ta sasiak atara ta erauzirik, frutu on ugari ekarri dagiezala. Amaibagako egunetan...

4^{gn}. **Irakurgaia** (Itzaldiak, Deut., 31, 22-30).—Egun areitan, Moises'ek abesti bat idatzi eban, eta Israel'go semeai irakatsi eutsen. Jaunak, barriz, Nun'en seme Josue'ri agindu ta esan eutsan: «Indartu ta adoretu zaitze, Israel'dar erria nik agindutako lurraildean zeuk sartuko dozu-ta; Neu izango naz zugaz.» Moises'ek lege onetako itzak idaztea amaitu ebanean, Jaunaren Alkartasun-kutxa eroien Lebitarrak agindu au emon eutsen: «Artu liburu au ta ipipi egizue zuen Jaungoiko Jaunaren Alkartasun-kutxaren alboan; an zure kontra, Israel!, autor egin dagian: zu biurri-uts eta lepo-gogor zareana ba-dakit-eta. Ni bizi nazala ta zuek alkar-izketan diardudala be, beti ibilli zaree Jaunaren aurka; zenbat geiago ni ildakoan? Batu beitez emen zuen etxeetako zaarrenak eta lege-irakasleak, eta entzungo dabe nik esango dautsedana, ta zeru-lur-irák ekarriko dodaz euren kontra.

Ondotxo dakit, nire eriotz-ondoren, gaizto-bideetan ibilli ta nire bideetatik okertu egingo zareena. Azken-aldi areitan, Jaunaren aurrean pekatu egin eta zuen esku-lanakaz Jauna aspertu dagizuenean, ondamendi aundia etorriko yatzue gaiñera.» Moises'ek, beraz, Israeldar guztiak entziitan eutsola, bertso-sail onetako itz guztiak abestu ebazan azkeneraño:

Abestia.—Entzun, zeru, ta berba egingo dot; entzun begiz lurak be nire agoko berbak.—Itxaron bedi nire itza euria lez; eta iruntza lez jatsi bedi nik dñodana.—Lanbroa bedar gaiñean lez, ta edurra albitz* gaiñean lez; Jaunaren izenari dei egingo dautsat-eta.—Goratu egizue gute Jaungoikoaren aunditasuna! Osoak dira Jaungoikoaren egiñak, eta zuzenak Aren erabagi guztiak.—Jaungoikoa, zintzoa da, gaiztakeri-izpirik bagea: osoa ta santua da Jauna.

- Albitz = heno.

Otoitz egin daigun. — Belaunikotu gadezan (belau-iko apur baten).—Zutundu zaitzeze.—Apalak gora jaso ta zintzoak indartzen dozuan Jaungoikoa: Moises zure otseñaren bidez, bertso zerutar orreik kante-ian erriari irakatsirik, arei lege-ikasbide ona ta guri be zuzenbide egokia emon zeuskuzuna: agertu zure al-izate-ia zintzotu zenduzan erri guztien aurrean, eta emon egiezu poza bíldurra arinduaz; zure erriak pekatu guztiak, kendurik, onekaitik irabazi genduan zigorra osasun-bake biurtu daiten. Amaibagako egunetan...

KIRIELEISON'EN LENENGO ZATIA

«Irakurgaiak» amaitutakoan, abeslari bik, koru-erdian belau-iko, Santuen Arrentzak (Letaiñiak) aibesten dabez (birritan bardin esan bagarik), *Propitius* esro rarte; enparauak be belau-iko erantzuten dabe.

jauna, erruki zakiguz.

Kristo, erruki zakiguz.

Jauna, erruki zakiguz.

Kristo, entzun gagizuz.

Kristo, arren, entzun gagizuz.

Zeruko Aita Jaungoikoa, erruki zakiguz.

Mumduaren Erosle, Seme Jaungoikoa, erruki...

Espiritu Santu, Jaungoikoa, erruki...

Irutasun Santu, Jaungoiko bakarra, erruki...

Maria deuna, otoitz gure alde.

Jaungoikoaren Ama deuna, otoi gure alde.

• Birjiñen Birjiña deuna, otoi...

[Mikel deuna, otoi...

Gabirel deuna, otoi...

Errapael deuna, otoi...

Aingeru ta Goiaingeru deun guztiok, otoi...

[Zoriontsu guztien talde deun guztiok, otoi...

Ijon Bateatzaille d«una, otoi...

Jose deuna, otoi...

I Len-Guraso ta Igarle deun guztiok, otoi...

Pedro deuna, otoi...

Ipaulo deuna, otoi...

rAnder deuna, otoi...

Jon deuna, otoi...

Apostoiu ta Ebanjelari déun guztiok, otoi...

Jaunaren Ikasle deun guztiok, otoi...

Esteban deuna, otoi...
 Lorentzo deuna, otoi...
 Bizente deuna, otoi...
 Martiri deun guztiok, otoi...
 Silbester deuna, otoi...
 Gergorio deuna, otoi...
 Agustin deuna, otoi...
 Aita Santu ta Autorle deun guztiok, otoi...
 Irakasle deun guztiok, otoi...
 Antonio deuna, otoi...
 Benito deuna, otoi...
 Domingo deuna, otoi...
 Prantzisko deuna, otoi...
 Abade ta Lebitar deun guztiok, otoi...
 Lekaide ta Bakarti deun guztiok, otoi...
 Mari Madalen deuna, otoi...
 Ines deuna, otoi...
 Zezili deuna, otoi...
 Agata deuna, otoi...
 Anastasi deuna, otoi...
 Birjiña ta Alargun deun guztiok, otoi...
 Jaungoikoaren gizon eta emakume Deun guztiok, otoi.

BATEO-URAREN ONESPENA

Santuen Arrentzak abesten diran bitartean, koru-erdian zuzi bedeinkatuaren aurrean, eta erriak ikusteko eraz, bateo-ura bedeinkatzeko ontzia ta orretarrako bear diran baste gauza guztiak gertatzen dira.

Bateo-ura bedeinkatzean, abadeak, erriari begira zutik, bere aurrean euki bear dau bedeinkatzeko bateo-uraren ontzia; eskulmatara, Pazko-zuzi onetsia; ezkerretara, diakonu-ordea, edo eliz-gizon bat, gurutzeaz zutik.

Abadeak, eskuak baturik, eguneroko doiñuan auxe diñon

A.—Dóminus vobiscum. A.—Jauna zuekaz.

E.—Et cum spíritu tuo. E.—Baita zegaz be.

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikorra! Zagaz eonen zure erruki aundiaren sakramentu-gai onei indarra emoteko; eta bateo-arriaren bidez jaioko yatzuzan erriak barrizteko, bialdu egizu zure Arnas semeordeko-egillea; geure egikizun apalez egin dagiguna, zure graziaren indarrez osotu dadin. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bidez eskatzen dautsugu: Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta.

Orain abotsa jaso ta Kanon-aurrekoan (Prefazio'an lez) inrraitzen dau:

A.—Per ómnia saécula A.—Gizaldien gizaldietan.
 ' saeculórum.

E.—Amen. E.—Olantxe.

A.—Dóminus vobiscum. A.—Jauna zuekaz.

E.—Et cum spíritu tuo. E.—Baita zegaz be.

A.—Sursum corda. A.—Gora biotzak!

E.—Habémus -ad Dóminum. E.—Jaunagan daukaguz.

• A.—Grátias agámus Dómino Deo nostro. A.—Eskerrak emon daio-guzan Jaungoiko gure Jaunari.

E.—Dígnum et iústum est. E.—Egoki ta bidezko da.

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, guk Zuri edonun eta beti eskerrak emotea, Jaun orri, Atta santu, Jaungoiko alguztidun eta betiko orri: indar ezkutz zure sakramentuari arrigarrino eragiten dautsezuta; eta mirari ain aundiak banatzeko gai ez ba'gara be, Zuk, ostera, ez dozuz aztuten zure graziaren doaiak, eta gure eskariak be atseginéz entzuten dozuz. Jaungoikoa!, munduaren asieran, zure arnasa uretan ebillen, arrezkero urak sanbu-eragiteko indarra artu egian. Jaungoikoa!, mundu gaiztoaren okerrak uraz garbiturik, uriol audiaren berberaren isurteaz adierazo zenduan bir-jaiotzaren irudia, griña txar guztien amai ta onbide guztien asiera, ur bera izan zedin.

Begiratu, Jauna, zure Eliza, eta bir-jaiotza oneik ugaritu egiozuz, zure grazia gainezka ta eurrez isuriaz, zure uria poz-alaitzen dozun orrek; lurbira osoan Zeuk zabaltzen dozuz bateo-iturriak gizakumeak barrizteko: zure jauntasunaren aginduz zure Seme bakarraren grazia artu dagien Espiritu Santuagandik.

Emen abadeak, eskua zabaldu, ta ura ebagiten dau gurutz-irudiz.

Gizona barrizteko atondua dan ur au, Arnasa berak indartu begi bere jaungoikotasunaren eragite ezkutuaz: jaungoikozko iturri onen sabel guztiz garbitik, goi-indarrez erneko diran kristau bizi-barrituak, zerurako gai jaiotz daitezaz. Eta gizezko naiz emakume, zaar naiz gazte, guztiak, grazi-amaren ume barri izan daitezazala. Doazala, ba, emendik, Jauna, Zeuk agin-

duta, deabru zikin guztiak; k-endu emendik inpernuko arerioen maltzurkeria. Alegin gaiztoak ez begie emen lekurik izan; ez daitela gaiztorik ibilli egaz inguruan kalte egiteko asmoz, ezta ezkutuan gordeta be; ez begi (deabruak) ustel-lanik egin iturri onetan.

Ura eskuaz ikutzen dau.

Izaki santu ta garbi au, bego nasai arerioaren ekinaldí guztitik, eta gaiztakeri guztitik kutsurik (loirik) bage. Iturri bizi izan bedi, ur barritzaille, olatu garbi, zale; bateo-arri santu onetara bizi-barritzera etorri bear daben guztiak, Espiritu Santuaren bidez, garbitasun osoaren zuritasuna jadetsi dagien.

Ur-gaiñean iru gurutze egiten dauz, esanez:

Onexagaitik bedieinkatzen zaitut, ur!, Jaungoiko f bizi, Jaungoiko f egiazko, Jaungoiko f santuaren izenean; asieran bere berbaz legorretik alde batera jarri zenduzan Jaungoikoaren izenean; Aren Arnasa zeure gaiñean ebillen-eta.

Eskuaz ura ebagiten dau, ta munduaren lau aldeetara isuri.

Arexek atara zenduzan atsegin-foartzeko iturritik, eta lau ibaietan lurbira osoa bustitoko agindu eutsun. Basoan gazi zintzazala, Arek urgeza biurtu zenduzan, eta erri egarriarentzat arkaitzetik atara. Baita Jesukristo Aren Seme bakar eta gure Jaunaren izenean be bedeinkatzen zaitut: bere indarrez, Galilea'ko Kana errian arrigarririo ardao biurtu zenduan-eta; gurutzean, barriz, Aren salets zulatutik odolaz batera urten zmtzazan; eta Bere ikasleai, fededunak zeugan bateatzeko agindu eutsen, auxe esanez: «Zoaze, irakatsi erri guztiai, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bateatuaz.»

Emen abotsa aldaturik, irakurten lez jarraitzen dautso:

Zatoz biotz onez, Jaungoiko alguztidun ori, zure aginduok beteten doguzanokana, ta emon eiguzu zue Gogoaren arnasa.

Ur gaiñean arnas egiñez, iru gurutze egiten dauz.

Ur trarbi au zeure agoz bedeinkatu egizu: gorputza garbitzeko berezko indarra dauanez, arimea garbitzeko be indarra izan dagian.

Zuzia uretan sartzen dau pixkat; gero, «Kanon-aurrea» lez abesten dau:

Betor aska guzti onetara Espiritu Santuaren indarra.

Ondoren, zuzia uretatik atara ta barriro beerago sartzen dau, abots zolitzoagoaz «Descendat» esanik. Zuzia barriro uretatik atara ta irugarrenez ondarreraifño sartzen dau, oindifño abots zoliagoz «Descendat» esanik. Gero, iru bidar urari arnas emonaz (goitik J)«era ta bere ezkerretik eskumatara), olantxe jarraitzen dau:

Eta ur guzti oni bizi-barrizteko indarra emon begio.

Azkenez, zuzia uretatik atara ta auxe difño:

Garbitu beitez emen pekatuen loi guztiak: Zuk zeure antzera egin eta bere edertasunera jaso z. enduan gizona, garbitu daitela bere loikeri zaar guztitik; eta teizi-barrizteko sakramentu au artu dagian edozein gizasemek. egiazko umetasun garbia jadetsi dagiala.

Urrengo au, irakurri egiten dau:

Jesukristo gure Jaun, zure Seme, biziak eta illak, I eta gizarte osoa suaz epaitzera etorriko danaren bidez I eskatzen dautsugu. Olantxe.

Gero, eliz-gizon naiz laguntzaille batek, ontzi baten ur onetatik artzen dau, bateo-aginduak barriztu ondoren erriaren gaiñera isurteko, ta etxeetara eroateko.

Au egindakoan, abadeak kristau-gaien orioa uretara isurten dau, gurutz-eraz abots garbiz esanez:

Orio osasungarri onek santutu ta barriztu begi íturri au, betiko bizitzarako bertotik jaijo daitezantzat. I Oiantxe.

Era berean gantzuki edo Krisma isurten dau, auxe esanez:

Jesukristo gure Jaunaren eta Espiritu Santu poz I -emoillearen gantzuki-isurte au, Irutasun Deunaren I izenean egin bedi. Olantxe.

Gero, ontzitxo bietatik orioa ta krisma batera botaten dauz uretara, iru bidar gurutz-eraz esanez:

Konsagratzeko Krisma, igurtziteko orioa, ta bateo I -ura baitera naastu bediz, f Aitaren, eta f Semearen, etaf Espiritu Santuaren izenean. Olantxe.

Abadeak orioa ta ura ondo naasten dauz.

Onetsi ondoren, bateo-ura pontara (bateo-tokira) eroaten da. Bitartean, auxe abesten da:

Abestia.—Basauntzak iturri-urak opa dauzan lez, alantxe opa zaitu nire arimeak be, Jaungoiko ori!—

Nire arimea Jaungolko biziaren egarri da; noiz elduko ta agertuko ete-tfiaz Jaungoikoaren aurrean?—Mal-koak ziran gau ta egun nire ogi, «nun dozu zure Jaungoikoa?» egun oro esaten eustenean.

Ur bedeinkatua bateo-tokira isuri ondoren, abadeak auxe diño:

A.—Jauna zuekaz.

E.—Baita zeugaz be.

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikorra!, ikusi egizu biotz onez, basauntza iturrira lez, zure ur onetara bizi-billa datorkizun erriaren zaletasuna; eta egi-zu errukior, kristau oneik, olako sinismen-egarriz dagozan ezkeru, bateo-sakramentuaren bitartez, gorputz eta arima santutu daitezala, Kristo gure Jaunaren bidez. Olantxe.

Eta pontarriari intzentzia emoten yako.

BATEOKO ESKINTZAK BARRIZTEA

Bateo-uraren onespina amaitu ta pontarrira eroan ondoren, edo, onen onespenez egiten ez dan lekuan, Kirielle-son'en lenengo zatia amaitutakoan, Bateoko aginduak barrizten dira.

Onetarako, abadeak, jantzi ubelak (morauak) itzita, estola ta kapa zuriak artzen dauz; gero, intzentzia jarri ta zuziari intzentzia emon ondoren, bere ondoan zutik, edo iraskastegitik (pulpitotik) erriari begira, auxe diño:

Anai-arreba maite-«naiteok: Eliza Ama deuna, gau guztiz santu onetan, Jesukristo gure Jaunaren eriotza ta lurperatzea gogoratuaz, maitasun aundiz zain dago; ta Aren biztuera goragarria ospatuez, pozez gainezka aurkitzen da.

Bairla, Apostoluak irakasten daukunez, gu be bateoaren bidez, pekatuarentzat il eta Kristo'gaz batera lurperatuak izan garean ezkeru, Kristo illen artetik biztu zan legez, geuk be alantxe bizikera barri bat artu bear dogu. gure bizikera zaarra Kristo'gaz gurutzetua izan dana jakiñik, pekatu-azpian barriro bein be bizi ez gaitzean. Gogoratu daigun, beraz, pekatu-rako ilda gagozala; ta Jesukristo gure Jaunagaz bat egiñik, Jaungoikoarentzat bizi gareala.

Orregaitik, anai-arreba maite-«iaiteok, Garizuma-ko jardunak amaituta, bateo santuan egindako eskintzak barriztu daiguzan; beste aldi baten euren bitar-

tez, Satanas, onen egite ta Jaungoikoaren arerio dan mundua alde batera itzea, ta Eliza Ama Santu Katolikuagan Jaungoikoaren menpeko zintzo izatea agm-du genduan-eta. Beraz:

Abadeak: Satanas ukatzen dozue?

Erriak: Ukatzen dogu,

Abadeafc: Eta bere egite guztiak?

Erriak: Ukatzen doguz.

Abadeak: Eta bere aundikeri guztiak?

Erriak: Ukatzen doguz.

Abadeafc: Sinisten dozue Jaungoiko Aita alguzti-duna, zeru-lurren Egillea?

Erriak: Sinisten dogu.

Abadeafc: Sinisten dozue Aren Seme bakar, Jesu-kristo gure Jauna, jaio ta nekaldua?

Erriak: Sinisten dogu.

Abadeafc: Sinisten dozue Espiritu Santua, Eliza sar-tu Katolikua, Santuen aikartasuna, pakatuen parka-mena, aragiaren biztuera, ta betiko bizitza?

Erriak: Sinisten dogu.

Abadeak: Orain, ba, Jesukristo gure Jaunak otoitz egiten irakatsi euskun eraz, guztiok batera, Jaungoi koari erregutu daigun:

Erriak: Aita gurea, zuruetan zagozana, santifikau bedi zure izena; betorkigu zure erreñua; egn bedi «ure borondatea zeruan lez lurrean be.

Emon eiguzu gaur geure eguneroko ogia; parkatu eiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parkatzen dautseguzanez; eta ez eiguzu itzi tentaziñoan jausten, baiña gatxetik jagon gaizuz. Olantxe.

Abadeak: Eta uraren eta Espiritu Santuaren bidez barriro gortu genduzan eta pekatuen parkamena emon euskim Jaungoiko alguztidun, Jesukristo gure Jaunaren Aitak, bere graziaz zaindu gaizala betiko bizitzarako, Jesukristo gure Jaunagan berberagan.

Erriak: Olantxe.

Eta bateo-ura bedeinkatzerakoan atara zan ur bedel-nkatuaz, erria txipristindu egiten da; edo, bateo-ur bedeinkatzerik egiten ez dan lekuetan, betiko *UT* onetsiaz.

KIRIELEISON'EN BIGARREN ZATIA

Bateo-eskintzak barriztu ostean, abeslari bik Kirieleison'en bigarren zatia asten dabe. Propithis esto'tik azkene raifio, beste enparau guztiak belauniko erantzunik.

Abadea ta laguritzailleak, barriz, sakristiara joanik, meza nagusia emôteko bear diran jantzi zuriak jartzen dabez. Bitarten, Pazko-zuzia bere lekuan jarten da, Ebanjelio'-aidean; eta altarea meza nagusirako argiz eta lorez apa⁴n-tzen da.

Izan zaitetz gure aldeko, parkatu eiguzu, Jauna.

Izan zailez gure aldeko, entzun gagizuz, Jauna. .

Gaitz guztitik, gorde gagizuz, Jauna.

Pekatu guztitik, gorde...

Betiko eriotzatik, gorde...

Zure Gizakunde santuagaitik, gorde...

Zure etorreragaitik, gorde...

Zure Jaiotzagaitik, gorde...

Zure Bateo ta barau santuagaitik, gorde...

Zure gurutze ta nekaldiagaitik, gorde...

Zure eriotza ta lurperatzeagaitik, gorde...

Zure Biztuera santuagaitik, gorde...

Zure zerura Igokunde arrigarriagaitik, gorde...

Espiritu Santu Poz-emoillearen etorreragaitik, gorde...

Epai-egunean, gorde...

Gu pekalariok, arren, entzun gagizuz.

Parkatu eiguzula, arren, entzun gagizuz.

Zure Eliza deuna zuzen eroan eta gorde dagizuela, arren, entzun...

Aita Santu ta Eliz-gizon guztiak Jaungoikoaren bide onean gorde daizuzala, arren, entzun...

Eliza santuaren areriok beeratu daizuzala, arren entzun...

Kristau-erriko errege ta agintariai bakea ta egiazko alkartasuna e-mon dagiezula, arren, entzun...

Geu be, zure menpe santuko morroi zintzo egin eta gorde gaizuzala, arren, entzun...

Gure ongille guztiari betiko zoriona emon dagiezula, arren, entzun...

Lurreko irutuak emon eta onik gorde dagizuzala, arren, entzun...

Zintzo ildako guztiari betiko atsedena emon dagiezula, arren, entzun...

Gure eskariak entzun dagizuzala, arren, entzun...J

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko-Bildots orrek, parkatu eiguzu, Jauna.

Jiunduaren pekakuak kentzen dozuzan Jaungoiko-Bildots orrek, entzun gagizuz, Jauna.

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko-Bildots ori, erruki zakiguz.

Kristo, entzun gagizuz.

Kristo, arren, entzun gagizuz.

PAZKO-OPARIA

PAZKO-GABEKO MEZA

Letaiñak amaitzean, abeslariak «Kyrie, eleison» asten dabe ospe aundiz, beste mezetan lez. Bitartean, abadea, lagun-zailleakaz, jantzi zuriz, altarar^a, aurrerantzen da, eta bear dan agurra eginik, «ludica me» eresia ta auitortza itzi, altarara igo, erdian mun egin, eta beti lez intzentzua emoten dautso altareari.

Korukoak «Kyrie, eleison» amaitutakoan, abadeak «Gloria in excelsis Deo» asten dau; ta kanpaiak, txiliñak eta organua jotzen dira, ta irudiai estalkiak kentzen yakez. «Gloria» amaitu ondoren, abadeak beti lez:

•; A.—Jauna zuekaz.

E.—Baita zeugaz be.

Ótoitza.—Jaunaren Biztuera ederraz gau santu au argitzen dozun Jaungoikoa: zure etxeko seme-alaba barria,¹ emon dautsezun semekuntza gorde eragiezu; gorputz-arimaz barriturik, zure menpean zintzo jokatu dagien. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Koloso'kai, 3, 1-4).—Anaiok: Kristo'gaz biztu ba'zaree, goiko gauzen billa ibilli zaitetze, Kristo Jaungoikoaren éskuman jesarrita goian dagoan ezkerre: goiko gauzak ausnartu egizuez, ez lurrekoak. Onezkerre ilda zagoze-ta; zuen bizia, barriz, Jaungoikoagan Kristo'gaz daukazue gordeta-ta. Zuen bizia dan Kristo agertu daitenean, zuek be Aregaz aintzaz beterik agertuko zaree.

«Epistola» amaitutakoan, abadeak iru bidar, gero ta gorago, *Alleluia* abesten dau, korukoakaz aldizka. Gero koruak:

Goratu egizue Jauna, ona da⁴a; Aren errukia be-t'fika da-ta.

Luzagarria.—Goratu egizue Jauna, gizaki guztiok; txaloak jo egiozue, erri guztiok.—Gure artean ernj. kia baiño ez dau erakutsi: Jaunaren zintzotasunak beti irauten dau.

Barri Ona (Mat., 28, 1-7).—Larunbata igaro zanean, eta astearen lenengo eguna urratzean (1), Mari Madalen eta beste Maria illobira ikustera joan ziran. Onetan, lur-ikara aundia egin zan: Jaunaren aingerua zerutik jatsirik eta illobira urreraturik, arria itzuli eban, eta aren gainean jesarri zan. Aren arpegiak tximista zirudian, eta aren soñekoa edurra baizen zuria zan. Eta aren bildurrez, illobi-jagoleak ikaratuta ta ilda legez gelditu ziran, Eta aingeruak, berba eginez, emakumeai esan eutsen: «Ez ikaratu: bada-ki Jesus gurutzetuaren billa zatozena; ez dago emen: biztu egin da, esan ebanez. Etorri ta ikusi Jauna ipiñi eben tokia. Zoaze, ba, arin, eta esan egizue ikasleai biztu egin dala, ta Galilea'ra aurretik doakizuela; antxe ikusiko doze. Or, ba, nik aurretiaz esanda.»

Kr&do'rik ez da esaten, ezta Eskintza'rik be.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, zure erriaren eskariak oparigaiokaz batera; eta Pazko-jai oneitan ikasi doguna, zure laguntzaz, betiko osasunerako izan dakigula. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Pazkoetakoa: Gau zoragarri onetan, 452 orri. "Communicantes" eta "Hanc igitur" be, Pazko-astekoak, 453 orri.

Ēz da esaten «Agnus Dei», ezta bake-mosurik emon be.

Eukaristia artu, Jauna emon eta atzamarrak garbitu ondoren, Berbizkunde-domekako «Laudes» esaten dira koruan: Kantagaia.—Aleluia, aleluia, aleluia.

150'gn. **Eresia.**—Goratu egizue Jauna bere etxe santuan, goratu bere izartegi aundian.

Goratu Jauna bere lan bikainaitik; goratu bere jauntasun nagusiagaitik.

Goratu Jauna adar-otsez; goratu salteri ta zitaraz.

Goratu tuntunez eta dantzaz, goratu txilin txirtalariz; arnasadun guztiak goratu begie Jauna.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. Olantxe.

(1) Astearen lenengo eguna: igandea edo domekea.

Kantagaia.—Aleluia, aleluia, aleluia.

Eta abadeak bertatik Benedicfus'erako kantagaiaren asiera abesten dau.

Kantagaia.—Eta oso goiz,

Abeslariak jarraitzen dautsoe:

Zapatu ondoko lenengo egunean, eguzkia urten zaneke, illobira joan ziran, aleluia.

Zakarias'en abestia (Luk., 1, 62-79).—Bedeinkatua izan bedi, Israel'en Jaungoiko Jauna, bere erria ikusi ta erosi egin dau-ta.

Bere morroi Dabid'en etxean osasun-indarra sortu dauku.

Orixo agindu eban aspaldietarik, bere Igarle santuen bidez.

Onik atara gaitu gure arerioen eskuetatik, eta gorroto daukuen guztietatik.

Erraikia agertu dautse gure gurasoai, ta gogoan izan dau bere alkartasun santua.

Beteko eskula gure aita Abraham'i aginduriko zin-itza.

Gure arerioen eskuetatik atarata, bildur bagarik otseindu daigun:

Aren aurrean gure bizi guztian santu ta zuzen ibilliez.

Eta Zu, U'metxo, Goikoaren Igarle ideituko zaitue, Jaunaren aurrean ibilliko zara-ta, Ari bideak gertatzen.

Aren erriari osasun-jakintza irakasten, euren pekatuen parkamenaren bidez.

Jaungoikoaren errukiari esker, goitik etorriko yaku-ta, artizarra lez,

Illunpean eta eriotz-gerizpean dagozanai argi egitera, gure oiñak bake-bidean jartera.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. Olantxe.

Kantagaia.—^Eta oso goiz, zapatu ondoko lenengo egunean, eguzkia urten zaneke, illobira joan ziran. aleluia.

Abadeak, beti lez, auxe diño:

A.—Jauna zue'kaz.

E.—Baita zeugaz be.

Azken-otoitza.—Isuri eiguzu, Jauna, zure maitasun-arnas ori; Pazko-sakramentuz asetu gaituzunok, aikartasun gozoan bat izan gaitzezan. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olarutxe.

A— Jauna zuekaz.


E.—Baita zeugaz be.


Eta diakonuak, erriari begira:

A.—Joan zaiteze, Meza amaitu da-ta, aleluia, aleluia.

E.—Eskerrak Jaungoikoari .aleluia, aleluia.

Eta «Placeat tibi, Sanota Trinitas» esartda, abadeak beti lez *Onespena* emoten dau; eta azken-Ebanjelioa itzirik, guztiak sakristiara biurtzen dira.





PAZKO-IGANDEA

JAUNAREN BERBIZKUNDEA

l'go. mailla. Zortziurren berarizkoaz. — Zuriz

Jaunaren egun aundia, urteko jadirik aundiarena gaurkoal Domeka onek emoten dauku. Eliz-urte guztirako giltza: beratu noiz dan jakinik, ba-dakigu beste domeka ta jadirik nausienak noiz diran.

Kristo biztu da! Egi pozgarri au da gure sinismenaren eta itxaropenaren oinarri; gaurko egunez azpiratu ebazan Kristo'k eriotza ta pekatua, ta gu Bere irabazien lagunkide izateko bidean ipini genduzan.—Bere antzera biztutekoak gara gu be; baiña lenengo emen bizi barri batera biztutekotan, pekatuarentzat II, eta bizikera santu ta garbi bat eroatekotan.

Biblia.—S. Pedro'ren l'goa: l'etik 3'ra.

M E Z A

Sarrera.—Biztu naz, eta oraindiño Zeugaz nago.. aleluia; zure eskua gainean ezarri daustazu, aleluia; arrigarri da zure jakituria, aleluia, aleluia.—Ps. Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu; Zeuk dakizu noiz ilgo ta biztuko nazan.—Aintza.

Otoitza.—Gaurko egunez zure Seme bakarrarena bidez eriotza azpiraturik, betiko bizitarako atea edegi daukuzuzan Jaungoikoa: lagundu eiguze zure graziaz guban biztuten dozuzan gurari onak azkenerainoM eroaten. Amaibagako... eta zure Sernearen barberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 5, 7-8).—Anaiok: Jaurti egizue legamin* zaarra, ogi-il zareen lez, ora* barri izan zaitezen: Kristo gure Pazko-Bildotsa il da-ta. Egin daigun, ba, jai: ez, ostera, legamin zaarraz, ezta gaiztakerizko ta dongakerizko legami-flaz be, biontz garbi ta zintozko baiño.

Koru-kanta.—Auxe da Jaunak egin dauan eguna; poztu ta alaitu gaitezan.—Goratu egizue Jauna, ona Qa-ta; Aren errukia betikoa da-4a.

Aleluia, aleluia.—Kristo gure Pazko-Bildotsa il da. **Jarraikia** (Wipo t 1050).

- 1.—Goratu begie kristauak Pazko-Bildotsa.
- 2.—Bildotsak, ardiak erosi dauz; Kristo erubageak, bere Aitaren adiskide egin dauz pekatariak.
- 3.—Eriotzak eta bizitzak alkar-burruka gogorra egin dabe; bizitzaren Jauna errege da ilda gero.
- 4.—Esan eiguze, Mari, zer ikusi dozu bidean?
- 5.—Kristo biziaren illobia ta Berbiztuaren aintza ikusi dodaz.
- 6.—Aingemak ikusi dodaz autorle; baita il-zapia ta jantziak be.
- 7.—Biztu da Kristo, ene itxaropena! Galilea'ra aurrea artuko dautsue.
- 8.—Ba-dakigu Kristo illen artetik biztu egin dana benetan. Zu, Errege garaille!, erruki zakiguz. Olan-txe. Aleluia.

Barri Ona (Marc, 16, 1-7).—Aldi aretan, Maai Madalen'ek eta Santiago'ren Mari'k eta Salome'k usain-garriak erosi ebezan Jesus igurtziteko. Ta zapatu biaramonean, goizean goiz, illobira doaz, eguzkia urtenda. Ta alkarri zirautsoen: «Nok kenduko dauku arria illobi-agotik?» Eta ara begiraturik, arria illobitik kenduta egoala ikusi -eben. (Axria oso aundia zan, izan be.) Emakumeak, illobi-barrura sarturik, gazte bat ikusi eben eskumaldean jesarrita, soifeko zuriz jantzita, eta ikaratu egin ziran. Orduan, gazteak dirautse: «Ez bildurtu; gurutzean il eben Jesus Nazaretarraren billa zatoze; biztu egin da; ez dago emen;

* Legamin = fenmento, levadura. * Ora, ore = masa (de pan...)

orra or ipiñi eben tokia. Ta orain, joan zaitze, ta esan egieze ikasleai ta Pedro'ri, Gaiilea'ra aurretik doa-kizuela; antxe ikusiko doze, Berak esan eutsueñez.» —*Kredo*.

Eskintza.—Lurra ikaraz jarri ta isildu egin zan Jaungoikoa auzitara jagi zanean. Aleluia.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, zure zintzoen eskariak oparigaiokaz batera; eta Pazko-jai oneitan rkasi doguna, zure laguntzaz, betiko osasunerako izan dakigula. Amaibagako.

Kanon-aurrea, *Pazkoetakoa*: Egun zoragarri onetan 452orri. "*Communicantes*" eta "*Hans igitur*" be tan, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Kristo gure Pazko-Bildotsa il da aleluia; beraz, egin daigun jai biotz garbi ta zintzoz, aleluia, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Isuri egizu, Jauna, zure maitasun -arnas ori; Pazko-sakramentuz asetu gaitzuzunok, alkartasun gozoan bat izan gaitez. Amaibagako egu-netan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.

PAZKO-ASTALENA

l'go. mailla. — Zuris

Sarrera.—Esne ta eztiā fiarion lurrean sartu zitue Jaunak, aleluia; Jaunaren legea beti zeuen agoan egon dadin, aleluia, aleluia.—*Ps.* Goratu egizue Jauna, ta dei egioze Aren izenari; iragarri egizuez erri guztietan Aren lanak.—*Aintza*.

Otoitza.—Pazko-jai aundi onetan munduari osabidea emon zeutsan Jaungoikoa: emon egiozu zure erriari zerutiko laguntza, askatasun osoa irabazi ta betiko bizitza jadetsi dagian. Amaibagako.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 10, 3743).—Egun areitan, Pedro'k, erriaren aurrean zutik, auxe esan eban: Anaiok: Ba-dakizue zer jazo zan, Galilea'n lenen eta Judea osoan gero, Jon'ek iragarritako bateo ondoren: Jesus Nazaretarra, Espiritu Santuz eta indarrez Jaungoikoak igurtzi ebalā, on egiñez eta txe-

rrenak menperatutako guztiak osatuz ígaro zala, jaungoikoa Aregaz egoan-eta. Arek judarren lurreen eta Jerusalem'en egindako guztien lekuko (testigu) gara gu.

Areik, barriz, egur batetik eskegirik, bizia kendu eutsoen. Baiña irugarren egunean Jaungoikoak biz-tu egín etoan, eta agertu zedin nai izan eban; baiña ez erri osoari agertzeok, geuri baiño, Jaungoikoak lendik aukeratutako autorleoi, ta A illen artetik biztuta gero, Aregaz jan-edan <egin dogunoi. A (Jesukristo) illen eta bizien epaille Jaungoikoak jarria dala erriai iragarteko ta autortzeko agindu euskun. Aren sinies-tedun guztiak, pekatuen parkamena Aren izenean ar-tzen dabe, igarle guztien autorrez.

Koru-kanta.—Auxe da Jaunak egindako eguna; poztu ta alaiitu gaitez. —Esan begi orain Israel'ek ona dala; Aren errukia betikoa dala.

Aleluia, aleluia.—Jaunaren Aingerua jatsi zan ze-ruk; eta illobira urreraturik, arria itzuli eban, eta aren gaiñean jesarri zan.

. Jarraikia: Qoratu begie, 273 orri.

Barri Ona (Luk., 14, 14-35).—Aldi aretan, egun aretan bertan, Jesus'en ikasle bi, Jerusalem'dik irurogei estadiko (1) bidean dagoan Emaus izeneko erri-txora joiazan. Jazo ziranai buruz itz egiten ziarduen alkarregaz. Eta jazoriko guztiak azaltzen ziarduen ar-tean, Jesus Bera, toeste antz-iru'diz, IUrteratu ta arekaz joian bidelagun. Baiña arein begiak illunduta egozan, eta ez eben ezagutu.

Eta esan eutsen: «Zer da bidean darabizuen izketa oi'? Zer dala-ta zagoze itun?» Kleofas eritxon batek erantzun eutsan: «Zeu bakarrik zaitugu Jerusalem'en arrotz, egunotan jazo diranak ez jakiteko?» Jesus'ek esan utsen: «Zertzuok?» Areik eutsen: «Jesus Nazaretar orrena: Igarle zan, Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egiñez eta itez gizon altsua; baiña gure abade-buruak eta nagusiak, Arentzaz eriotz-epáfa ortu, ta gurutzean josi eben. Guk, osterā, Israel aáxa-tuko ebana Bera zala uste genduan; baiña gaur da irugarren eguna guztiok jazo dirana. Egia esan, gure arteko emakume batzuek arrituta itzi gaitue, Aingeru

(1) Irurogei estadi = 11 kílometru.

batzuk agertuta, A bizi dála esan eutseeia esanez. Ta guretariko batzuek, illobira joanda, guztia emakumealfiñoenez aurkitu dabe; bafña Bera ez dabe aurkitu.»

Orduan, Jesus'ek esan eutsen: «Zuek bai gero buru-motzak, eta igarleen berbak sinisteko biotz-motelak! Kristo'k ez ete ebazan orreik jasan bear, ta gero bere atsedenean sartu?» Ta Moises'egandik asita, igarlerik-igarle Liburu Santuetan Aretzaz idatziriko guztia azaldu eutsen.

Eta joiazan erritxora eldu ziranean, aurrera joiala-koa egin eban. Baiña areik erregu aundiz esan eutsen: «Gelditu zaitzez gugaz, berandu da-ta, eguna ba-doa-ta.» Eta arekaz sartu zan. Gero arekaz batera aparitan ziarduala, ogia artu eban, bedeinkatu, zatitu, ta banandu egin eutsen. Orduantxe zabailldu ziran arein begiak, eta A nor zan ezagutu eban, Baiña Jesus ezkutau egm yaken aurretik. Eta alkarri zirautsoen: «Ez genduzan guk biotzak sutan, Idazti Deunak azalduaz bidean berba egiten euskula?»

Ta bereala maiti'k jagita, Jerusalem'era biurtu zirajiti An aurkitu ebezan amaika apostoluak euren lagunakaz batuta, ta iñoela: «Jauna biztu egin da benetan, eta Simon'i agertu yako.» Areik be, bidean jazo yakena azaldu eutseen, eta ogia zatitzean ezautu ebela,—*Kredo*.

Esqintza.—Jaunaren Aingerua jatsi zan zerutik, eta emakumeai auxe esan eutsen: Zuek billatzen dozue-na. biztu egin da, Berak esan ebanez, aleluia.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, zure erriaren eskariak opafigaiokaz batera; eta Pazko-jai oneitan ikasi doguna, zure laguntzaz, betiko osasunerako izan dakigula. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Communicantes eta Hanc igitur: Pazkoetakoak, 452 orri,

Jaunartzerakoa.—'Biztu da Jauna, ta Pedro'ri agertu yako, aleluia.

Azken-otoitza.—Isuri egizu, Jauna, zure maitasun-arnas ori; Pazko-sakramentuz asetu gaituzunok, alkartasun gozoan bat izan gaitez. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.

PAZKO-ASTARTEA

l'go. maila. — Zuriz

Sarrera.—Jakituri-ura emongo dautse edateko, aleluia; arekan izango da beti ta ez dau aide egingo, aleluia; eta betiko goratuko dauz, aleluia, aleluia.—*Ps.* Goratu egizue Jauna, ta dei egiozue Aren izenari; iragarri egizuez erri guztietan Aren lanak.—*Aintza*.

Otoitza.—Zure Eliza ume barriz beti ugaritzen diarduzun Jaungoikoa: emon egiezu zure menpekoai, sinistez artu eban bateo-grazia, euren bizikieran be iraun-azo dagiela. Amaibagako.

I Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 13, 16 ta 26-33).—Egun areitan, Paulo'k, zutundurik, isildu zeitezen eskuaz kiñu egiñik, esan eutsen: Anaio, Abraham'en belauneko semeok, eta Jaungoikoaren bildur zareenok! Zeuoi bialdu izan yatze osabide onetako itza. Jerusalem urikoak eta arein nagusiak, bai, Jaun au ezagutzeke gaiztetsirik (galdurik), zapatu oro irakurten diran igarleen esanak bete ebezan: eta eriotz-gairik ezertxo be aurkitu ez-ta, Ari bizia kendu egiola eskatu eutsen Pilatos'i. Ta Aretzaz idatzitako guztiak bete ziranean, egurretik eratsi ta illobiratu egin eban.

Baiña Jaungoikoak illen artetik biztu egin eban irugarren egunean: Galilea'tik Jerusalem'era Aregaz igo ziranak, berbiztuta egun askotan ikusi eban. Onexei dira autorle oraindiño erriaren aurrean. Guk, bartz, gure gurasoai egindako agintza iragarten dautsuegu: agintza au Jaungoikoak arein semeai bete dautse, Jesukristo gure Jauna bizturik.

Koru-kanta.—Auxe da Jaunak egindako eguna; poztu ta alaitu gaitez. —Esan begie orain Jaunak erositako areik, arerioaren eskuetatik askatutako areik, eta andik-emendik batutakoak.

Aleluia, aleluia, —• Biztu da illobitik Jauna; gugaitik egurrean eskegi ebena.

Jarraikia: Goratu begie, 273 orri.

Barri Ona (Luk. 24, 36-47).—Aidi aretan, Jesus bere ikasleen erdian agertu zan, eta esan eutsen: «Bakea zuoi; Neu naz, ez bildurtu.» Larri ita ikaratuta, mamuren bat ikusten ebela uste eban. Eta esan eutsen:

«Zegaitik zagoze larri, ta zer dala-ta sortzen yatzuez biotzetan orrelako asmakeriok? Begira nire esku-oi. ñak; Neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue; mamuak ez dauko aragirik ez azurrik, Niri ikusten daustazueza-nez.» Ta au esanda, eskuak eta oiñak erakutsi eutsezan. Baiña pozaren pozez ikaratuta, (areik oraindiflo ez eben sinisten-eta), esan eutsen: «Ba-dozue emen jatekorik?» Areik arrain-erre apur bat eta ezti-orrazi* bat eskiñi eutsoen.

Berak arein aurrean jan ondoren, ondarrak batu ta banandu egin eutsezan. Et esan eutsen: «Auxe da esan neutsuena, zuekaz nengoala esaten neutsuenean: Moises'en legean, Igarleen liburuetan eta Eresietan (Salmoetan) Nitzaz idatzitako guztiak bete bearrak zirala.» Orduan, adimena argitu egin eutsen, Liburu Santuak ulertu egiezan, eta esan eutsen: «Olantxe dago idatzita, ta olantxe Kristo, nekeak jasan ondoren, irugarren egunean illen artetik biztu bearra zan; baita nire ize-nean erri guztiari damua ta pekatuen parkamena be olantxe iragarri bear yake.»—*Kredo*.

Eskintza.—Trumoa jo dau Jaunak zerutik, eta goiko Jaunak bere abotsa entzun-erazo dau; eta iturburuak agertu dira, aleluia,

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, zure erriareri eskariak oparigaiokaz batera; Zuganako eginbear on onein bidez, zeruko atsedenera aldatu gaitезan. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Communican'tes \eta Hanc igitur, Pas-koetakoak, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Kristo'gaz biztu ba'zaree, goiko ondasunen billa ibilli zaiteze, Kristo Jaungoikoaren eskumaldean jesarrita goian dago-ta, aleluia; goiko ondasunak ausnartu egizuez, aleluia.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko algutzidun orrekl, artu dogun Pazko-sakramentu onek gure arimetan beti iraun dagiala. Amaibagako.

• Ezti-orrazi = panal de miel.

PAZKO-EGUAZTENA

l'go. mailla. — Zuris

Sarrera.—Zatoze, nire Aitareen bedeinkatuok, artu egizue erreñua, aleluia; munduaren asieratik zeun-tzat atondutako erreñua, aleluia, aleluia, aleluia.—*p.* Abestu Jaunari abesti barri bat; abestu begio lurralde osoak.—Aintza.

Otoitza.—Jaunaren biztuera urte oro aundikiro ospatuaz poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu biotz onein, orain egiten doguzan jai onein bitartez, betiko jaietara eltzea jadetsi daigula. Amaibagako... eta zure Semearen benberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Apostoluen E^añak, 3, 12-15, ta 17-19).—Egun areitan, Pedro'k, itza arturik, auxe esan eban: Israeldar eta Jaunaren bildur zareen guztiok, entzun. Abruhan, Isaak eta Jakob'en Jungoikoak, gure aurretikoen Jaungoikoak, Bere Seme Jesus goratu egin dau, zuek arerioen eskuetan jarri ta Pilatos'en aurrean ukatu zenduena, arek askatu nai ebanean. Zuek, barriz Deun eta Zintzoa ukatu egin zenduen, gizon iltzaillea emon ekizuela eskatu zenduen; biziaren iturburu, barriz, il egin zendun.

Baiña Jaungoikoak illen artetik biztu egin dau. ta orretzaz geu gara autorle (testigu). Ba-dakit, orraitño, anaiok, zuek eta zuen agintariak ori jakiteke egin zenduena. Jaungoikoa, barriz, bere Kristo'ak jasan bear ebalagarleen agoz esandakoa, orrelaxe bete dau. Beraz, damu izan eta onbidera etorri zaiteze, pekatuak kendu dakizuezan.

KoruJtanta.—Auxe da Jaunak egindako eguna; poztu ta alaitu gaitезan. — Jaunaren eskumeak indartsu egin nau, Jaunaren eskumak gora jaso nau.

Aleluia, aleluia.—Jauna biztu egin da benetan, eta Pedro'ii agertu yako.

Jarraikia: Goratu begie, 273 orri.

Barri Ona (Jon, 21, 1-14).—Aldi aretan, arrezkero, Jesus barriro ikasleai Tiberiades itxasbazterrean agertu yaken; eta olantxe izan zan: Simon Pedro ta Didimo eritxon Tomas eta Natanael, Galilea'ko Kanatarra, ta Zebedeo'ren semeak eta Aren ikasletariko beste bi alkarregaz egozala, Pedro'k dirautse: «Arraiñak arteze-

ra noa.» «Geu be zeugaz goaz,» dirautsoe. Urten zi, ran, ba, ta ontzira igota, gau aretan ez eben ezertxo be atara. Goiza eldu zanean, Jesus ur-ertzean aurkeztu yaken; baiña ikasleak ez eben igarri Jesus zanik. Eta Jesus'ek esan eutsen.- «Mutillak!, ba-doze jatekorik?» Erantzun eutsen: «Ezer bere ez.» Arek dirautse: «Bota sarea eskumakaldera, ta artuko dozue. Bota eben, ba, ta ezin atara eben, arelako arrainke. taz. Orduan, Jesus'ek maite eban ikasle arek, Pedro'ri esan eufean: «Jauna da.»

Simon Pedro'k, Jauna zala aditu etaneko, soingañe-koa jantzi etoan (erdi-billoizik egoan-eta), ta itxasora zapart egin eban. Beste ikasleak ontzian etorri ziran, sarea tatarraz ekarrela. legorretik berreunen bat ukondo baiño urrunago ez egozan-eta. Legorrera jatsi zirancan, txingar batzuen gainean arrain bat ikusi eben, eta ogia. Jesus'ek dirautse: «Ekarri ona arrain artu-barriok.» Simon Pedro ontzira igo zan, eta sarea legorreraino ekarri etoan, eun eta berrogei ta amairu arrain aundiz bete. Eta ainbeste izanarren, ez zan sarea urratu. Jesus'ek dirautse: «Zatoze, jan egizue.» Eta ikasleetariko bat toere ez zan ausartu Ari «nor zara Zu?» itanduten, Jauna zana ba-ekien-eta.

Orduan Jesus'ek, urreraturik, ogia artu ta emon egin eutsen, baita arraiña be. Ille artetik biztu ondoren, auxe izan zan Jesus'ek ikasleai egindako irugarren agerpena.—*Kredo.*

Eskintza.—Jaunak zeruko ateak zabaldu ebazan, eta mana bialdu eutsen euritán, jan egien: zeruko ogia emon eutsen; gizonak Aingeruen ogia jan etaen, aleluia.

Opari-otoitza.—Pazko-pozetan eskintzen dautsuguz, Jauna, oparigaiok; onekaz zure Eliza arrigarriri Janarritzen, eta indartzen da-ta. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Communicantes eta Hanc tgitur: Pazkoetakoa, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Men artetik biztu zan Kristo, ☩ da barríro filgo, aleluia; aurrerantzean eriotzak ez dau Aregan eskubiderik izango, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Artu dogun Sakramentu gurgarril onek, Jauna, lengo pekatuen loi guztitik garbiturik, gizon barri biurtu gagizala. Amaibagako egunetan Aita

Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

PAZKO-EGTJENA

l'go. mailla. — Zuriz

Sarrera.—Zure eskuma bizkorra, Jauna, guztiak batera goratu eben, aleluia; jakituriak, ago mutua edegi ta umeen imiñak itz'«torri aundiko egin ebazan, aleluia.—*Ps.* Abestu Jaunari kanta barri bat, arrigarriak egin dauz-ta.—*Aintza.*

Otoitza.—Zui-e izena autortzeko, erri bananduak bat-egin dozuzan Jaungoikoa: egizu, bateo-uretan jaitz barría artu dabenak, gogoz sinismen bat eta egitekoetan ardura bat izan dagiela. Amaibagako.

Irakurgai (Apostoluen Egiñak, 8, 26-40).—Egun areitan, Jaunaren Aingeruak Pelipe'ri auxe esan eutsan: «Jagi ta zoaz egoalderuntz, Jerusalem'dik Gaza'ra jatsiten dan baso'bidera.» Eta jagirik, joan zan. | Eta Etiopia'ko Kandaze erregiñaren inguruko aundiki ta aren ondasun guztien arduradun zan etiopiar gizon iren (1) bat aurkitu eban, Jaungoikoa gurtzera Jerusalem'era etorria, eta atzera etxera joian bere burdian I Jesarrita, Isaias igarlearen idaztia irakurten. Eta Espiritu Santuak Pelipe'ri auxe esan eutsan; «Urreratu aaitz bizkor burdi orretara.»

Pelipe'k, burdira arin joanik, Isaias igarlearena irakurten ziarduala entzun eutsan; eta esan eutsan: «Irakurten diarduzun ori, ulertzen dozula uste dozu, gero?» Arek erantzun eutsan: «Zelan ulertu daiket, ba, iñok azaldu ez ba'dagist?» Eta Pelipe'ri, igo ta beragaz jesarri zedilla eskatu eutsan. Irakurten ziarduan liburu-atata, auxe zan: "Ardia legez, eriotzera eroan eben; eta moztaillearen aurrean bildots isillak legez, ez eban agorik zabaldu. Aren auzia lotsagarriro erabagi dabe. Nok azalduko dau Aren gizaldia, Aren bizia lurretik kendua izango da-ta?" Orduan irenak, Pelipe'ri berba egiñez, esan eutsan: «Igarleak ori nortzaz diño, arren? Bere buruaz, ala beste nortaitetzaz?» Eta Pelipe'k, bere

(1) *Iren*, itzez-itz, erderazko *eunuco* da; baiña eimen aundiki lez artu bear da, antza.

agoa zabaldurik eta idaz-txatal onetatik asirik, Jesus'en barri jakiñerazo eutsan.

Eta bidez aurrera joiazala, ura egoan toki batera eldu ziran; eta irenak diño: «Emen ura; zek galera-zoten dau ni bateatzea?» Eta Pelipe'k erantzun eutsan: «Biotz-biotzez sinisten ba'dozu, ezek be ez.» Arek erantzunik, esan eutsan: «Jesukristo Jaungoikoareri Semea dala, sinisten dot.» Eta tourdia gelditzeko agindu eban. Eta biak, Pelipe ta irena, uretara jatsi ziran eta Felipe'k foateoa emon eutsan. Baiña uretatik urterí ziranean, Felipe Jaunaren Gogoak (Espirituak) eroan eban, eta arrezkero irenak ez eban ikusi; ta bidean alai joan. Felipe, barriz, Azoto'n aurkitu zan, et andik Zesarea'ra joan zan, Jesukristo'ren Barri Ona uri guztietan iragarten ebalá.

Koru-kanta.—Auxe da Jaunak egindako eguna; poztu ta alaitu gáitezán.—Etxegilleak baztertu eben arria, giltzarri biurtu da; Jaunak egin dau au, ta arri-garri da gure begien aurrean.

Aleluia, aleluia.—Bizitu da Kristo, guztien Egilea, ta gizadiáz errukitu egin da.

Jarraikia: Goratu begie, 273 orri.

Barri Ona (Jon, 20, 11-18).—Aldi aretan. Mari illobi-ondoan egoan negarrez, kanpo-aldetik. Eta negarrez ziarduala, makurtu ta illobRiarrura begiratu eban; eta Jesus'en Gorpua obiratua izan zan tokian, Aingeru bi soiñeko zuriz jantzita ikusi ebazan. Arek dirautsoe: «Emakume, zegaitik diarduzu negarrez?» Arek erantzuten dautse: «Nire Jauna eroan egin dabe, ta ez dakit non ipiñi daben.» Au esanez batera, atzeruntz begiraturik, Jesus zutik ikusi ebaxi: baiña ez ekian Jesus zanik.

Jesus'ek dirautso: «Emakume, zegaitik diarduzu negarrez? Noren billa zabiltz?» Mari'k, ortu-zaiña zalakotan, dirautso: «Jauna, zuk eroan ba'dozu, esan egidazu nun ipiñi dozun; eta neuk eroango dot.» Jesus'ek diñotso: «Mari!» Onek, biurtuta, dirautso: «Rabboni!» (edo bardin dana, Irakasle). Jesus'ek dirautso: «Ez nagizu ikutu, Aitagana ez naz oraindiño igo-ta. Baiña zoaz nire anaiakana, ta esan egiezu: Nire Aitagana noa ta zuen Aitagana, nire Jaungoikoagana ta zuen Jaungoikoagana.» Mari Madalen barri onekaz ikaslea-

kana joan zan, eta esan eutsen: «Jauna ikusi dot, eta auxe esan daust.»—*Kredo.*

Eskintza.—Zuen jai-egun aundian, —'diño Jaunak—, esne ta ezta darion lurraldean sarrezazoko zaituet, aleluia.

Opari-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jauna, zure erriaren oparigaiok: zure izena autortuaz ta bateoan bizi barria arturik, betiko zerua jadetsi dagien. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Comrnunicantes eta Hanc igitur: Pazkoetakoa, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Jaungoikoak irabazitako erri orrek, iragarri egluz Aren indarrak, aleluia: illunpetik argi zoragarritara Berak atara zaitue-ta, aleluia.

Azken-otoitza.—Entzun, Jauna, gure eskariak; gure erospeneke artu-emon santu oneik, bizitza onetarako laguntza emon daiskuen, eta gero betiko poza lortu daiskuen. Amaibagako.

PAZKO-BARIKUA

l'go. mailla. — Zuriz

Sarrera.—Itxaropenez beterik atara ebazan Jaungoikoak, aleluia; eta arein arerioak, itxasoak iruntsi ebazan, aleluia, aleluia, aleluia.—*Ps.* Entzun egizu, ene erri, nire legea; biurtu belama nfre agoko itzetara.—*Aintza.*

Otoitza. — Pazko-isakramentuaren bidez, gizonakaz bake-alkartasuna indartu dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: egizu, sinismenaz autortzen doguna, geure egitekoetan be agertu daitela. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Pedro'ren l'goa.: 3, 18-22).—Guztiz maiteok: Kristo bein il zan gure pekatuakaitik, zintzoa pekatarjokaitik, gu Jaungoikoañ eskintzeko. Ori, aragi-aldetik, eriotza zan; Aren gogoak, barriz, bizkor zirauan. Eta alan, espetxean egozan arimakana (1) Barri Ona iragartera jatsi zan, lengo aldietan sinisgor ziranakana, Noe'ren egunetan Jaungoikoaren ontasuna damurako zain egon yakenean, kutxa gertatzen zan bitartean: orduan, lagun gutxi, zortzi bakarrik

salbau ziran uriolatik. Orain be, kutxa aren eredu dan bateoak gaizkatzen (salbatzen) zaitue, ez aragi-orbanak garbituaz, Aitaren eskumaldean dagoan Jesukristo gure Junaren biztuteaz zuen biotzak Jaungoikoa-gana bihurturik baiño.

Koru-kanta.—Auxe da Jaunak egindako eguna¹ poztu ta alaitu gaitezana.—Bedeinkatua Jaunaren ize¹nean datorrena; Jauna Jaungoikoa da, ta Berak argitu gaitu.

Aleluia, aleluia. — Esan egiezue erriai, Jauna Gurutzean dala Errege.

Jarraikía: Goratu begie, 273 orri.

Barri Ona (Mat., 28, 16-20).—Aldi aretan, a>maika ikasleak Galilea'ra joan ziran, Jesus'ek adierazo izan eutsen mendira. Ta ikusi ebenean, gur egin eutsoen, (batzuk, lenengotan, ezpaitan (zalantzan) jarri ziranarren). Orduan Jesus'ek, arekana urreraturik, berba egin eutsen, esanez: oAgintaritza oso-osoan emon yat niri zeru-lurretan; zoaze, ba, ta erri guztiai irakatsi egiezue, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bateatuaz; eta agindu dautsuedan guztiai beteten irakatsiz. Ta begira: Neu egongo naz zuekaz egun oro gizaldi guztiak amaitu arte.»—*Kredo*.

Eskintza.—Gomutagarri izango yatzue egun au, aleluia; ta gizaldiz-gizaldi jai au aundikiro egingo dautsazue Jaunari; betiko egun jatorra izango da, aleluiai aleluia, aleluia.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz biotz onez, Jauna, aparigaiok, bizibarrutuen pekatu-ordain eta zeru-laguntza arriñago artzeko eskintzen dautsuguz-ta. Amai* bagako.

Kanon-aurrea, Communicantes eta Hanc igitur: Pazkoetakoak, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Agintaritza oso-osoan emon yat niri zeru-lurretan, aleluia; zoaze, ta irakatsi egiezue erri guztiai, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bateatuez, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Begiratu, Jauna, zure erria; ta betiko sakramentuen bidez barritu dozun ezker, garbitu egizu bizitza onetako erruetatik be. Amaibagako.

ZAPATXJ ZURI

l'go. mailla. — Zuriz

Sarrera.—Pozez atara dau Jaunak bere erria, aleluia; ta bere aukeratuak alaitasunez, aleluia, aleluia.—*Ps.* Goratu egizue Jauna, ta dei egiozue Aren izenari; iragarri egizuez erri guztietan Aren lanak.—*Aintza*.

Otoitza.—Egizu, arren, Jaungoiko algutzidun orrekl: Pazko-jai oneik biotz beroz ospatu doguzanok, euron bitartez betiko atsegiñetara eldu gaitezala. Amaibagako.

, Irakurgaia (S. Pedro'ren l'goa.: 2, 1-10).—Gutziz maiteok: Gaiztakeri ta iruzur* guztiak eta edozein ustelkeri ta bekaitz*, eta oker-esan guztiak jaurtirik, ume jaiobarriak lez, gogo-esne utsa billatu egizue, aren bidez osasunerako azi zaitezen: miazkatu ezker, Jauna ona dala ba-dakizue-ta. Urreratu zakioze, arri toizia Bera da-ta: gizonak ezetsia, bai, baiña Jaungoikoak aukeratu ta ederretsia. Zeuok, be, arri bizi lez, Aren gainean pillatu zaitze, gogozko etxe ta abadegintza santu izateko, ta Jesukristo'ren ederragaitik Jaungoikoak onartu daikezan gogozko opariak eskintzeko. Idaztiak orrexegaitik diño: "Orra giltzarri aukeratu ta bikaina, Nik Sion'en jarria: aregan sinistea aagianik, ez da lotsatuko."

Beraz, zuentzat, sinistu dozuenontzat, goragarri da; sinisbageentzat, ostera, etxegilleak alboratu eoen arria bera, giltzarri jarri da, oztopo-arn ta laban-arri. Areik orretan laprast egin bear dabe, itza (1) ez sinisturik, (itz ori artzeko deituak izan ziraaiarren (2). Zuek, ostera, jatorri aukeratu zaree, errege aiñeko abadegintza, laguntalde deuna, erri irabazia, illunetik argi zoragarritara dei egin dautsuenaren aunditasunak iragarri dagizuezan. Len Aren erri ez zintzazanok, orain Jaungoikoaren erri zaree; len errukirik lortu ez zenuenok, orain errukia jadetsi doze.

* Iruzur = engaño. * Bekaitz = envidia.

(1) Itz au, Jesukristo'ren Barri Ona da.

(2) Judarren eskubideak kristauen eskuetara aldatu ziran, areik Barri Ona ez eben onartu-ta.

Aleluia, aleluia.—Auxe da Jaunak egindako eguna' poztu ta alaitu gaitazan. Aleluia.—Goratu egizue Jau' na, gazteok; goratu Jaunaren izena.

Jarraikia: Goratu begie, 273 orri.

Barri Ona (Jon, 20, 1-9.—Aldi aretan, astearen lenengo egunean, goizean-goiz, argitu baiño len, Mari Madalen illobira joan zan, eta arria illobitik kendu ta egoala ikusi eban. Eta Simon Pedro'gana ta Jesus'ek maite eban beste ikasleagana ariñeketan joanda, toa-dirautse: «Jauna illabitik kendu egin dabe, ta ez dakigu nun ipiñi daben.» Urten ziran, ba, Pedro ta beste ikaslea, ta illobira zuzendu ziran. Biak batera ariñeketan joiazan, baiña beste ikaslea, Pedro baiño ariñago ibillirik, lenago eldu zan illotoira. Ta barrura makurtuaz, zapiak lurrean ikusi ebazan, baita Jesus'en buru-gaiñean egondako il-zapia be, au ez egoan beste zapiakaz batera, alde baten tolostuta baiño. Orduan, lenen eldu zan ikasle a be, illobian sartu zan: eta ikusi, ta sinistu egiri eban: Jesus "illen artetik biztu bearra zala" diñoan Idatzitakoa oraindiño ez eben ulertu-ta.—*Kredo*.


Eskintza.—Bedeinkatu Jaunaren izenean datorre. na; Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu. Jauna Jaungoikoa da, ta Berak egin dausku argi, aleluia, aleluia.

Opari-otoitza.—Egizu, Jauna, Pazko-jai onein bitartez beti zeure gogoko izan gaitetzala: gure erospenaren etenbagako gertaera onek betiko poza emon daiskun. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Communicantes eta Hanc igitur: Pazkoetakoa, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Kristo'gan bateatuak zagozen guztiok, Kristo artu dozue jantzizat, aleluia.

Azken-otoitza.—Gure erospenaren janariaz indartu garean ezker, Jauna, betiko osasunaren laguntza onek gogortu dagiala beti egiazko sinismena. Amaibagako.



PAZKO-OSTEKO LENENGO IGANDEA

IGANDE ZURI

l'go. maila. — Zuriz

Pazko-gabean bateoa artzen eben kristau barriak egun onetararte zuriz jantzi ta jarraitz«n ebalako, deritxo domeka oni «Igande zuriz».

Aspaldi danik kristau gareanok, egun onetan geure sinismena indartu daigun, sinismen ori gero geure egitekoetan erakusteko ta agertzeko. Alan egiñik, Pazko-eguneko pozak beti iraungo dau gure biotzetan.

Biblia.—Pedro'ren l'goa: 4, l'etik 5, ll'ra. Pedro'ren 2'gna.

M E Z A

Sarrera.—Ume jaiobarrien antzera, aleluia, gogozantzat esne garbi billa ibilli zaitetze, aleluia, aleluia.—*Ps.* Poztu zaitetze gure indarra dan Jaungoikoa goratuz; atoestu egiozue Jakoto'en Jaungoikoari.—Aintza,

Otoitza.—Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!, Pazko-jaiak ospatu doguzan ezker, irauñ dagiala zure graziaz gure bizikeran eta egitekoetan. Amaibagako.

Irakurgaia (Jon'en l'goa.: 5, 4-10).—Gutziz maiteak: Jaungoikoagandik jaiotzen dan edozek, mundua azpiratu egiten dau; ta auxe da mundua zapaltzen dauan garaipena: geure sinismena. Nor da mundua menpean dauana, Jesus Jaungoikoaren Seme dala sinisten dauana baiño? Jesukristo da urez eta odolez etorri zana; odolez bakarrik ez, urez eta odolez baiño.

Eta Espiritu Santua da, egia Kristo dala autor-
tzen dauana. Iru dira zeruan autortzen dabenak-eta
Aita, Itza (Semea) ta Espiritu Santua; ta irurok bat
dira.' Eta iru dira lurrean autortzen dabenak: gogoa
(espiritua), ura ta odola; ta irurok bat dira. Gizonen
esana egizat artzen ba'dogu, Jaungoikoaren autorra
sinisgarriago da. Eta sinisgarriena dogun Jaungoikoak
Berak autortu dau Kristo bere Semetzat. Jaungoikoar-
ren Semea sinisten dauanak beragaz dau Jaungoikoar-
ren autorra.

Aleluia, aleluia.—Nire berbizkunde-egunean, —di-
ño Jaunak—, aurrea artuko dautsuet Galilea'ra, ale-
luia.—Zortzigarren egunean, ateaq itxita egozala, Je-
sus bere ikasleen erdian jarri zan, eta esan eutsen:
"Bakea zuoi!", aleluia.

Barri Ona (Jon, 20, 19-31).Aldi aretan, egun aretan
bertan, astearen lenengo egunaren illuntzian, ikasleak
alkarregaz egozala, ta judarren bildurrez ateaq itxita
eukezala, Jesus etorri ta arein erdian agertu zan, esa-
nez: «Bakea zuoi!» Au esanda, eskuak eta saietsa era-
kutsi eutsezan. Ikasleak, Jauna ikustean, poztu egin-
ziran. Barriro foe esan eutsen: «Bakea zuoi! Aitak
bialdu nenduan ez foialtzen zaituet Neuk be.» Ta au
esanfla, arnasa ©mon çuteen, esanez: «Artu ©gizue
Espiritu Santua; zuek pekatuak parkatu dagiezue-
zanai, parkatuak izango yakez; eta zuek lotu dagiezue-
zanai, lotuta geldituko yakez.»

Baiña Tomas, amabietariko bat, Didimo eritxona,
ez egoan arekaz Jesus etorri zanean. Eta beste ikas-
leak esan eutsoen :«jauna ikusi dogu.» Baiña arek
erantzun eutsen: «Untze-ezaugarriak Aren eskuetan
ikusi ez ba'dagidaz, eta nire atzamarra untze-zuloetan
sartu ez ba'dagit eta nire eskua Aren saietsean, ez dot
sirústuko.»

Zortzi egunera, ikasleak barriro barruan egozan,
eta To-mas be bai eurakaz .batera. Ta ateaq itxila ego-
zala, Jesús etorri zan, eta erdian jarri yaken, esanez:
KBakea zuoi.» Gero, Tomas'i dirautso: «Sartu emen
zure atzamarra, ta ikuei nire eskuak, ekazu zure
eskua, ta sartu nire saietsean; eta ez zaitez sinis-
gogor izan, sinistedun baiño.» Tomas'ek erantzun eu-
tsan: «Ene Jaun eta jaungoikoa!» Jesus'ek esan eu-

tsan: «Iku«i nozulako sinistu dozu, Tomas! Zorion.
tsuak, ikusi bagarik sinistu dabenak!»

Liburu onetan idatzi ez diran beste mirari asko be
egin ebazan Jesus'ek bere Apostoluen aurrean. Azal-
dutako aneik, barriz, Kristo Jaungoikoaren Seme dala
sinistu dagizuen idatzi dira; ta sinistuez, Aren izenean
Mzitza izan dagizuen.—*Kredu.*

Esqintza.—Jaunaren Aingeru. bat jatsi zan zerutik,
eta emakumeai auxe esan eutsen: Zuek billatzen do-
zuena, biztu egin da, Berak esan ebanez, aleluia.


Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, pozez beterik
dagoan zure Elizaren oparigaiok; eta ainbesteko poza
emon dautsazun ezkerro, betiko pozaren frutua emon
egiozu. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Pazkoetakoa*, 452 orri.

Jaunartsserakoa.—Sartu emen esku ori ta ikusi un-
tze-zulook, aleluia; ta ez zaitez sinisgogor izan, siniste-
dun baiño, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko gure Jauna!, gure
bizia indartzeko emon dauskuzun j'anari jaungoikozko
au, osasungarri izan dakigula oraingo ta betiko. Amai-
bagako.





PAZKO-OSTEKO 2'GARREN IGANDEA

2'gn. maila. — Zuric'

Kristo Bildots eta Artzain dogu: Pazko-bildots, gugaitik bere bizia emon ebana; eta beti gure Artzain, ardi galdu gintzazanean geure billa ibilli zana, eta bein bere artaldëra ezkerre, gure arimen onerako nekerik aundienak artzen dauzana. Bere deiari erantzutea, bere artaldetik alde egin bagarik irautea: orra gure zoriona. Bereak izango al gara beti!

BiMia.—Jon'en l'goa: 1, l'etik 3, 10'era.

M E Z A

Sarrera.—Lurra Jaunaren errukiz beteta dago, aleluia; zerua Jaunaren itzak egin dau, aleluia, aleluia. —Ps. Poztu zaiteze Jaunagan, zintzook; biotz zuzenai dagokie Jauna goratzea.—Aintza.

Otoitza.—Zure Semea beeratuaz, mundu jausi au go-ra jaso dozun Jaungoikoa! Emon egiezu zure zintzoai betiko poza: betiko eriotz-arriskutik atara zenzuzanak, betiko zoriona izan dagien. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (S. Pedro'ren l'goa.: 2, 21-25).—Guztiz maiteok: Kristo'k geugaitik eroan ebazan nekeak, Aren lorratzai jarraitzeko eredu zeuei itzirik. Ez eban pekaturik egin, eta Aren agoan ez zan guzurrik aurkitu. Iraintzen ebenai ez eutsen iraiñaz erantzuten; joten ebanean, zemaika* asi bagarik, ebazle zuzen-

naren eskuetan izten eban bere auzia. Gure pefatuak gurutzera bere gorputzean eroan ebazan, pekatuarentzat il eta zintzotasunarentzat bizi gaitzean. Arexen zauriak osatu zaitue. Len, ardi galduak lez zebizen; baiña orain zuen arimen artzain eta zaintzailleagana biurtu zaree.

Aleluia, aleluia.—Ikasleak Jesus Jauna ogia zatitzean ezagutu eben, aleluia.—Neu naz Artzain ona; ezagutzen dodaz nire ardiak, eta eurak ba bai Ni, aleluia.

Barri Ona (Jon, 10, 11-16).—Aldi aretan, Jesus!<; pariseotarrari auxe esan eutsen: Artzain ona Neu naz. Artzain onak bere bizia bere ardiñ alde emoten dau. Morroiak, barriz, ardiñ jabea ez danak, artzain-morroiak, otsoa datorrela ikusitakoan, ardiak itzita iges egiten dau; ta otsoak artaldea arropatu ta banandu eg'iten dau. Artzain-morroiak, morroia dalako ta ardiñ ardurarik ez daualako egiten dau iges. Artzain ona Neu naz, ta ezagutzen dodaz neureak, eta neureak be ezagutzen nabe Ni: Aitak Ni ezagutzen nauanez, eta Nik Aita ezagutzen dodanez: ta nire bizia ardiñ alde emoten dot. Artalde onetakoak ez diran beste ardi oatzuk be ba-dodaz; oneik toe ekarri egin -bear dodaz, eta entzungo dabe nire deia, ta artalde bat eta artzain bakarra izango da.—Kredo.

Esquinta.—Jaungoiko, ene Jaungoiko!, egunsentia ezkerre Zeure billa nabil; eskuak jasoten dodaz zeure izenari dei egieñez, aleluia.


Opari-otoitza.—Opari santu onek, onesipen osangarria emon daiskula beti, Jauna: ezkutuan egiten dauana. zeure eragitez osotu dagian. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Pazkoetakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Artzain ona Nsu naz: ezagutzen dodaz nire ardiak, eta neureak be ezagutzen nabe ni, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko algutzidun orrek!, bizia emoten dauan zure grazia artu dogun ezkerre, beronen pozetan bizi gaitetzala beti. Amaibagako.

* Zemaia = amenaza.



PAZKO-OSTEKO 3'GARREN IGANDEA

2'gn. maila. — ZUTIZ

Kristo'ren biztuera goragarria, oso pozgarria da kristautontzat. Eta domeka bakoitxeko meza oparia, poz ori barriztetan datorkigu. Baiña ez dau poz orrek munduko poz eta atsegiñakaz ikustekorik: barru-barrukoa da, geure barru zintzotik, geure bizikera zuzen-garbitik etorri bear dauana; eta, batez be, geu be Kristo'gaz bptera biztu gareala jakitetik eta gero betiko biztuko garealako uste sendotik datorren poza.

Biblia.—Jon'en l'goa.: 3, 11-tik 5, 21'era. Jon'en 2'gna Jon'en 3'gna.: 1, 1-8.

M E Z A

Sarrera.—Pozez beterik abestu begio Jaunari lur osoak, aleluia; abestu eresiak Aren izenari, aleluia; goratu *Aren* izena, aleluia, aleluia, aleluia.—*Ps.* Esan Jaungoikoari: itzelak dira zure lanak, Jauna! Zure indarra ikusirik, zure arerioak eurak be goratu egingo zaitue.—*Aintza.*

Otoitza.—Oker doazanai bide zuzsnera biurtzeko, zure egiaren argia emoten dautsezun Jaungoikoa; egizu, Kristau-izena artu dabon guztiak, izen oni ez dagokionetik urrir.du daitezala ta oni dagokionari jarraitu dagioela. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Pedro'ren l'goa.: 2, 11-19).—Guztiz maiteok: Arrotz eta bidelari zareenez, arimarentzat kaltegarri diran aragi-grifñetatik alde egin dagizuela eskatzen dautsuet. Zintzo bizi zaitze atzerritarren ar-

tean: dongatzat zaituenak, zuen egincza onak ikusirik, Jaungoikoa goratu dagien ikustalldi-egunean. Beraz, jaungoikoaren maitasunagaitik, makurtu zakioze edozein gizakiri: naiz erregeri, agintari nagusia da-ca, naiz beste agintariai, gaiztoak zigortzeko ta zintzoak goratzeko Berak jarri dauz-ta. Auxe da Jaungoikoaren naia: zuek zuzen egiñez, buruariñen jakiñeza isillera-fotea.

Zuen buruaren jabe agertu zaitze; jabetasun au, barriz, ez dadilla gaiztakeria estaltzeko izan, Jaungoikoaren menpeko izateko baiño. Guztiari lotsa izan egieze; maite egizuez anaiak, Jaungoikoaren bildur izan; errege'ari lotsa agertu. Morroi zareenok, nagusien esaneko izan zaitze lotsa aundiz, onak eta negurizko diranen esaneko bakarrik ez, baita okerrak diranen esaneko be: auxe yakko gogoko Jaungoikoari, Jesukristo gure Jaunagan.

Aleluia, aleluia.—Jaunak bere erriari osasuna bialdu dautso, aleluia.—[^]Egoki zan Kristo il eta illen artetik biztu zeitela, ta alan, bere zorionean sartu zeitela, aleluia.

Barri Ona (Jon, 16, 16-22).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan euitsen: «Laster ez nozue ikusiko, ta barriro laster ikusiko nozue, Aitagana noa-ta.» Aren ikasleitariko batzuek alkarri zirautsoen: «Zer esan nai ete-dausku berba orrei'kaz «laster ez nozu ikusiko, ta barriro laster ikusiko nozue, Aitagana noa-ta?» Areik iñoen, ba: «Zer ete da «laster» ori? Ez dakigu zer diralio.»

Jesus'ek, zerbait itandu nai eutsuela igamrik, esan euitsen: «Laster ez nozue ikusiko, ta barriro laster ikusiko nozue esan dautsuedalako, alkarri itaunka diarduzue. Bene¹benetan dirautsuet: negarrez eta zizpuruz ibilliko zaree, ta lurkoiak poztu egingo dira; zuek atsekabetu egingo zaree, baiña zuen atsekabea poz biurtuko da. Emakurnea, umetxo egiteko dagoanean, larri egoten da, aldia eldu yakota; baiña umetxo egin ondoren, ez dau larritasun a gogora ekarten, seiña (utnea) bizitzara jaio dalaKO pozez dago-ta. Zuek be, orain ituli zagoze; baiña barriro ikusiko zaituet, eta biotza poztu egingo yatzue, ta zuen poz ori ez dautsue iñoek be kenduko.»—*Kredo.*


Eskintza.—Goratu egizu Jauna, ene biotz; nire bizi guztian goratuko dot Jauna; bizi naiten artean, eresiak abestuko dautsadaz nire Jaungoikoari, aleluia.

Opari-otoitza.—Oipari onen bidez, lurreko gauzetara. ko zalekeriak otziturik, zerukoak maitatzen ikasteko grazia emon eiguzu, Jauna. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Pazkoetakoa*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Laster ez nozue ikusiko, aleluia; ta barriTC laster ikusiko nozue, Aitagana noa-ta, afelua, aleluia.

Azken-otoitza.—Artu dogun Sakramentua, Jauna, gure arimen janari ta indar izan dakigula, ta gorpuzterako be laguntasuna emon daigula. Amaibagako,



PAZKO-OSTEKO 4'GARREN IGANDEA

2gn. mailla. — Zuriz

Kristo'ren biztuera munduaren onerako izan da; gizonarentzat *eti* erri guztientzafc dira Kristo'ren ondasunak. Guztiak izan' dabe Kiizan sartzeko, kristau izateko deia. Espiritu Santuak argi irakatsi eutsen egia apostolui Pentekoste-eguneai, arekana jatsi zanean.

Guk, kris;auok, erantzun daiogun Jaunak egin dauskun dei eta fnesede oni, dagokigun bizikera on, zintzo ta garbia eroanik.

Biblia.—Santiago: 1, 1'etik 3, 12'ra.

M E Z A

I Sarrera.—Abestu egiozue Jaunari kantu barri bat, aleluia; Jauiak arrigarriak egin dauz-ta, aleluia; erri guztien aurean erakutsi dau bere zuzentasuna, aleluia, aleluia, aleluia.—*Ps.* Bere eskuak askatu dau, ta bere beso saituak.—*Aintza.*

Otoitza.—Zintzoen arimak gogo bateko egiten dozu. **I** zan Jaungoxoa: egizu, zure erriak maite dagiela Zuk agindutakoa ta zure agintzariak (eskintzak) gura izan dagiezala: nunduko zalekerien artean, gure biotza egiazko atsenñak aurkitzen diran tokian geldi egon daiten. Amabagako.

Irakurgai (Santiago, 1, 17-21).—Gutziz maiteok: Sari eder eti ondasun bikain guztiak, goitik datorriguz, aldatzeik eta biurtzerik ez dauan argien Aitagandik jatsia. Berak nai izanda, egiaren berbaz sortu gaitu, engndakoetan ienenak izan gakiozan. Ondo

dakizue au, ene anai maite-maiteok. Eta izan bedi bakotxa entzuteko zur, berba egiteko eratsu, ta asárre. rako geldia: gizonen asarrea Jaungoikoaren zuzenta. sunaz bat ez dator-eta. Beraz, loikeri ta larkeri guz. tiak alde batera jaurtirik, artu egizue apa,l-apalik ba. rruan ereinda dozuen jaungoikozko itza: berba orrek salbauko dauz zuen arimak.

Aleluia, aleluia.—Jaunaren eskuak arrigarriak egin dauz; Jaunaren eskuak gora jaso nau, aleluia.—Uien artetik biztutako Kristo, ez da barrero ilgo; eriotzalq ez dau menpean artuko, aleluia.

Barri Ona (Jon, 16, 5-14).—Aldi aretan, Jçsus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ba-noa bialdui nenduanagana, ta iñok ez daustazue "nora zoaz" itantzen. Bai. ña itzok esan dautsuedazalako, biotza naigabez bete yatzue. Baiña egia dirautsuet: ondo datorkizue ni joatea: ni joan ez ba'nendi, ez litzakizue Pozkillea (Espiritu Santua) etorriko-ta; joan ba'nadi, barriz, Neuk bialduko dautsuet. Eta etorri daitenean, jBerak sala. tuko dau munduan pekatua, zuzentasuna ta auzia. Pekatua, sinistu ez nabelako; zuzentasuna, Aitagana noan ezkerero, aurrerantzean ikusiko ez| nozuelako; auzia, mundu onetako nagusia onezkero 'epaituta da goalako.

Beste gauza asko be ba-dodaz zuei esateko; baiña orain ezin ulertu daikezue. Baiña Egi-arnasa (Espiritu Santua) etorri daitenean, Beral irakatsiko dautsuez egi guztiak. Ez dau, baiña, bere buruz berba egingo: entzun dagian guztia esango dautsue, ta etorkizun guztia iragarriko dautsue, ostei^a. Arék goratu egingo nau, Neuretik artuta adierazoko dautsue-ta,—*Kredo*.

Eskintza.—Abestu begio Jaunari lur oioak, abestu eresiak Aren izenari. Etorri, ta entzun, jiunaren bildur zareen guztiok, Jaunak egin daustszan arrigarriak, aleluia.


Opari-otoitaa.—Oipari santu au artuez, zure Jaungoikotasunaren lagunkide egin gaituzun Jaungoikoa: egizu, zure egia ezagutu dogun ezkerero, Jitura onak egiñez jadetsi daigula (egi ori). Amaibaga:o.

Kanon-aurrea: *Pazkoetakoa*, 452 orri.

I jaunartzerakoa.—Espiritu Poz-emoillea etorri daitenean, Berak salatuko dau munduan pekatua, zuzentasuna ta auzia, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Lagun zakiguz, guíe Jaungoiko Jauna!, sinismen zintzoz artu dogun Eukaristi onek pekatuetatik garbitu ta arrisku guztietatik onik atara gagan. Amaibagako.





PAZKO-OSTEKO 5'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Zuris

Laster jatsiko dan Espiritu Santuarentzat ibiotzak gertetan asi yaku Kristo: «Aitagana noa Ni», dirautse ikasleai; ta, gaiñera, egoki yaku au. Kristo'k ezjgaitu lurtar nai, zerurako baiño; goiko ondasunak artzekoj nai ta nai ez, giza-biotza goi-zaletu egin bear. Aitaganflik bialduko dauskun Espiritu Santua, barriz, gogo uts do.m, arnas bero. Gertau daiguzan gure biotzak, Arnas bero,ori bear denez artu daigun, eta bere doai ederrez apajndu ta bere su bizitan klskaldu dagizan.

Biblia. — Santiago: 3, 13'tik 5. 20'ra.—Judís: 17-25.

M E Z A

Sarrera.—Poz-deadarka barri emon egime; entzun daitela edonun barri au, aleluia; iragaii **lurraren** bazterreraíño:« Jaunak bere erria onik **lurra** dau», aleluia, aleluia.—Ps. Pozez beterik abestu tegio Jaunari lur osoak; abestu eresiak Aren izenari; loratu Aren lzena.—Aintza.

Otoitz.a.—On guztia darizun Jaungoikoa Zeuk argituaz, zuzen dana buruan erabilli ta, Zeuk lagunduaz, zuzen dan ori egin daigula eskajitzen dausugu apal-apalik. Amaibagako.

Irakurgaia (Santiago, 1, 22-27). — Guztiz maiteok: Jaungoikoaren itza entzun bakarrik ez, taita egiñez bete be egizue, zeoui iruzur* egiteke (egiji bagarik).

Iruzur = engafio.

jaungoikoaren itza entzun ondoren bete. egiten ez dauanari, izpilluan arpegia begiraten dauanari lez iazoten yako: begira dago, ba-doa, ta alde egin ordujo, ez da gogoratu be egiten zelakoa zan. Baiña askatasun-lege bikaiñari begiratu ta aretan iraun dagiana, entzule alperra izan bagarik, egiñez bete dasiana, orixe izango da zoriontsu.

Bere miña ezi bagarik zintzoa dala uste dauanak, iruzur egiten dautso bere biotzari, ta orrelakoaren zintzotasuna alperreko da. Aita Jaungoikoaren aurrean pntzotasun jator eta garbía, auxe da: umezurtz eta, aiairgunai euron atsekabeetan laguntza eroan, eta gizarte onetan loitu bagarik bizi izatea.

Aléluia, aleluia.—Kristo biztu egin da, ta bere odolaz erosi gaituanoi agertu yaku, aleluia.—Aitagan-dik urten eta gizartera etorri nintzan; barriro mundua itzi, ta Aitagana noa, aleluia.

Barri Ona (Jon, 16, 23-30).—AMi aretan, Jesus'ek here ikasleai auxe esan eutsen: «Bene-benetan dirautsuet: Aitari nire izenean zerbaít eskatu ba'dagiozue, emon egingo dautsue. Orain arte ez dozue ezer eskatu nire izenean: eskatu egizue, ta artuko dozue, zuen poza bete-betea izan daiten. Gauza oneik ipuiñetan esan dautsuedaz. Aldia ba-dátor, ta aurrerantzean ez dautsuet ipuiñen bidez berba egingo; argi ta garbi emongo dautsuet Aitaren barri.

Egun airetan neure izenean ,eskatuko dozue: ta ez dautsuet esaten Nik Aitari zuen alde erregutuko dautsadanik, Aita berak maite zaitue-ta, zuek Ni maite izan nozuelako ta Jaungoikoagandik etorri nazala sinistu dozuelako. Aitagandik urten eta gizartera etorri naz; barriro .mundua itzi, ta Aitagana noa.» Ikasleak dirautsoe: «Orain argi egiten dozu berba, ta ez diñozu ipuiñik be. Orain ba-dakigu dana dakizuna, ta ez do zula iñoren itaun-bearrik, Orrexegaitik smisten dogu Jaungoikoagandik urten zarealla.».—Kredo.

Eskintza.—Goratu egizue, erriok, gure Jaungoiko Jauna; entzun daitetzala deadarrak Bera goratzen. Berak zuzendu nau bizi-bidetik, eta ez dautse nire oiñai laban egiten itzi; bedeinkatua Jaungoikoa, nire eskaria ez dau baztertu-ta, ezta bere errukia nigandik urrindu be, aleluia.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, zure zintzoen eskariak oparigaiokaz batera: gure gogozko elizkizun onein bidez, zeru ederrera joan gaitez. Amaibagako

Kanon-aurrea: *Pazkoetako*, 452 orri.

Jaunartzerakoa,—Abestu egiozue Jaunari, aleluia- abestu Jaunari ta goratu Aren izena; iragarri eguri oro Aregandiko osasuna, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Mai santu onetako indarraz asetu gareanoi, eiguzu, Jauna, zuzen dana gura izan daigula, ta gura doguna artu daigula. Amaibagako.

JAUNA ZERURA IGOKUNDE-AURREKO ASTELEN, ASTARTE TA EGUAZTENA

LETAIÑI TXIKIAK

Letaiñiak *zer diran, ikusi*, 595 orrialdean.

Jauna zerura Igokunde-aurreko iru egunetan, Letaiñiak egiten dira, euria naiz eguraldi ona eskatzeko, naiz edozein mesede Jaungoikoagandik jaristeko.

Ibildeun edo prozeziño-aurrean, guztiak zutik dagozala auxe abesten da:

Kanta-gaia.—Jagi zaitetz, Jauna, ta lagun zakiguz; onik atara gagizuz zure izenagaitik.—*Ps.* Geure belarritz entzun doguz Zuk, Jaungoiko orrek, egindako. mesedeak: geure gurasoak iragarri euskuezan. — Aintza Aitari... —Jagi zaitetz...

Gero, belauniko jarririk, Kirieleisonak asten dabez, eta eliztarrak erantzun. «Sancta Maria» esatean, zutundurik, Prozeziñoa asten da. Au amaitutakoan, barriz, emen jarten dan Lefaiñi-meza esaten da (2'gn. maillakoa, ta jantzi ubel edo morauz).

Oarra.—Lefaiñi-Meza ez ba'da, illeko egunari dagon Meza eaaten da; 2'gn. Otoitzak, Letaiñi-Mezakoak.

Eguaztenean, barriz, Jaunaren zerura Igokunde-aurreguneke Meza.

LETAIÑI-MEZA

Sarrera.—Jaungoikoak bere etxe santutik entzun eDan nire deadarra, atólui; ta nik bere aurrean „o-indako eskaria belarrietara sartu yakon, aleluia, alej^oj[^]—*Ps.* Maite zaitut, Jauna, ene indar ori!: Jauna da nire aitz gogor, nire igesleku ta nire salbatzaille. —Aintza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Eiguzu, Jaungodko alguztidun orrek: gure estualdian zure errukian uste ona dogun ezkerro, gaitz guztietan zure laguntasunaren indarra izan daigula gtigan. Amaibagako.

2'gn. Otoitza: *eguneko Santuarena.*

Irakurgaia (Santiago: 1, 16-20). — Guztiz maiteok: Autortu egiozuez alkarri zuen pekatuak, eta otoitz egizue alkarren alde, zeruratu zaibez: zintzoaren otoitz eten bageak indar aundia dau-ta. Elias, gu lako gizon argala zan; alan be, lur ganera euririk ez zedilla jatsi eskatu eban gogo sutsuz, eta iru urte ta sei illebetez ez zan euririk jatsi. Barriro otoi egiñik, ortziak (zeruak) euria emon eta lurra frutua ekarri eban. Ene anaiok: zuen artean norbait egitik alde egiten baldau, ta baste norbaitek bide onera biurtzen ba'dau, jakin begi pekataria bide okerretik zuzenera ekarri dagianak, bere arima (1) zeruratu egingo daua-ta ta pekatu-moltzo aundia estalduko daua (2).

Aleluia, aleluia.—Parkatu, Jauna, gure pekatuak; ez begie atzerritarrak esan: Nun dabe euren Jaungoikoa? Aleluia.—Zure errukiak poz eta atsegiñez beteko nau, nire ezereza ikusi dozu-ta; nire bearrizantetan onik atara nozu. Aleluia.

Pazko-aldia izan ezik, «Aleluia» ordez, beste au esaten da:

Koru-kanta,—Zeuk askatu gaituzu, Jauna, gure ari-riokandik; Zeuk itzi dozuz lotsaz beterik gorroto dauskuenak.—Jaungoikoa goratuko dogu egun osoan, eta zeure izena autortuko dogu beti.

(1) Pekataria salbau dauan zintzoaren arima.

(2) Bere pekatuen parkamena jadetsi. daua.

Aleluia, aleluia.—Parkatu, Jauna, gure pekatuak; ez begie atzerritarrak esan: Nun dabe euren Jaungoikoa? Aleluia.

Zazpiastetik Pazko'ra, aurreko Aleluia itzi ta urrengo «Luzagarria» esaten da:

Luzagarria.—Nire bearrianetan onik atara nagizu, Jauna; ikusi nire ezereza ta lana, ta parkatu nire pekatu guztiak.—Zeugana jaso dot biotza, Jauna; zeugan itxaroten dot, ene Jaungoiko!, ez naz lotsatuko, E7 naitela arerioen lotsagarri izan.—Zeugan uste ona izan dagienak, ez dira galduko4a; lotsatu beitez utsalzeria egiten daben guztiak. .

Barri Ona (Luk, 11, 5-13).—AQdi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Zuetariko batek adiskide bat dau, ta aregana doa, ta ba-dirautso: «adiskide, emon egidazak ordezko iru ogi: nire adiskide bat, bidez doala, etxera etorri yatak-eta, ari eskintzekoTÍk ez yaukat.» Baiña besteak fearrukaddetik erantziuten dautso: «Ez akit gogaikarri izan; atea itxita dak, eta nire semeak be, ni lez, ogean yagozak: ezin jagi naitefek iri ogiak emoteko.» Baiña arek atea josten ekin ba'dagio, ba-dirautsuet: adiskidetzat eskatutakoa emoteko jagi ez ba'dadi foe, nekegarri ez dakion beintzat, jagi egingo da, ta bear dagizan ogi guztiak emongo dautsaz.

Nik bere, ba-dirautsuet: Eskatu egizue, ta emongo yatzue; zabilzte foilla, ta idoroko (aurkituko) dozue; atea jo egizue, ta edegiko dautsue: eskatzen dauanak, artu egiten dau-ía; bfla dabilienak, aurkitu egiten dau, ta ate-jotzailleari edegi egingo yako-ta. Zuetariko batek bere aitari ogia eskatu ba'dagio, onek arri bat eniongo ete-dautso? Edosta arraiña eskatu ba'dagio, arraiñaren ordez suge bat emongo ete-dautso? Edo arrautza bat eskatu ba'dagio, arrubi* bat emongo ete-dautso? Beraz, zuek, gaiztoak izanarren, zuen umeai bezuza (erregalu) onak emon ba'dagiez;uz, areago zeruko zuen Aitak Gogo ona emongo dautse eskatu dagienai.

Eskintza.—Nire agoak eten бага goratuko dau Jau-na, ta lagun askoren artean autortuko dot; bear-

- Arrubi = escorpión.

tsuaren eskumaldean jarri da, nire arlma arerloankan dik zaindu dagian. Aleluia.

Opari-otoitza.—Oparigai oneik, Jauna, gure pskatuen kataiak ausi dagiezala, ta zure errukia jadetsi 'dagiguela. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: *eguneko Santuarena.*

Kanon-aurrea: *Pazkoetakoa, 452 orri.*

jaunartzerakoa.—Eskatu egizue, ta emongo yatzue; billatu egizue, ta idoroko (aurkituko) dozue; atea jo, ta edegiko dautsue: eskatu dagianak, artu egiten dau; •jilla dabilienak, idoro egiten dau, ta ate-jotzailleari edeg'i egingo yako-ta, Aleluia.

Azken-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jauna, pure eskariak: gure estualdian zure doaiak arturik, poz onen bidez zure maitasunean gero ta geiago azi gaitazan. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: *eguneko Santuarena.*

JAUNAREN ZERURA IGOKUNDE-AURREGUNA

2'gn. *malla.* — Zuri2

Meza: *Pazko-osteko 5'garren Igandekoa, 298 orr'.*; *Irakurgaia ta Barri ona izan ezik.*



Irakurgaia (S. Paulo'k Efeso'koai: 4, 7-13)—Ana.ok: Guretariko bakoitzari grazi bana emon yaku, Kristo'k erabagitako negurriz. Esanda dago-ta: "Goietara igo zanean, menpetuak Beragaz eroan ebazan, eta gizonai graziak (doaiak) banatu eutsezan". Baiña zelan igo, lenengo lurralde bekoetara jatsi zalako baiño ? (1) jatsi zana Bera igo da zeru guztien gaiñera, guztia beteteko. Ta Berberak jarri dauz, batzuk apostolu, beste batzuk igarle, batzuk Barri Onaren zabaltzaille, beste batzuk zaintzaille ta irakasle, zintzoen obekuntza-Ianean, Kristo'ren gorputza atontzeko: sinistez eta Jaun. goiko Semearen ezagueraz guztiok bat eginda, gizon eldu ta Kristo'ren adin* beteko biurtu gaitazan arte.

(1) Edo bardin dana: Baiña zegaitik esaten da igo egin zala, lenengo ona beera, lur gaiñera, jatsi zalako baiño?

* Adin = edad.

Barri Ona (Jon, 17, Hl).—>AMI aretan, Jesus'ek, begiak zeruruntz jasorik, auxe esan eban: «Aita, ordua eldu da: goretsi egizu Semea, Semeak goratu zagingan; eta gizaki guztien gaineko jaubetza emon zeutsan ezker. Aren ardurapean jarri dozuzan guztiai /Semeak) betiko bizitza «mon dagitsen, Eta betiko bizitza auxe da: egiazko Jaungoiko bakarra zaran ori ta Zuk bialdu dozun Jesukristo ezagutzea. Goratu zaitut Nik lurrean; emon zeustan egitekoa, bete dot. Orain, bada, Aita, goratu nagizu Zugan, lurra asi baiño len Zugan neban aintzaz. Erakutsi dautset zure izena gizartetik emon daustazuzan gizonai; Zeureak ziran eta Neuretzat emon daustazuz; eta zure itza ontzat artu -datoe.

iEmon daustazun guztia Zeugandik datorrela, ezagutu dabe orain: Zeuk emondako itzak emon dau-fcsedaz-ta, eta onartu dabez, ta Zeugandik sortu nazala benetan ezagutu dabe, ta Zeuk bialdu nozula sinistu. Arein alde otoi egiten dot. Lurkoien alde ez dot otoi egiten, esmon daustazuzan alde 'baino, Zeureak dira-ta. Nire guztiak, Zeureak dira, ta Zureak, neureak; eta areikan goratu izan naz. Onezkero ez nago gizartean; oneik, barriz, gizartean dagoz, ta Ni Zeugana noa.»



JESUKRISTO GURE JAUNAREN ZERURA IGOKUNDEA

l'go. Mailla. — Zuriz

Kristo, illen artetik biztuta, berrogei egunez ikasie ta adiskideai agertu ondoren, zerura doa aintzaz beterik, eta antxe daukagu agintaritza-aulkian, Altaren eskumaldean jauiuta.

Gaur kentzen da altara-omdoan egoten dan Pazko-argizua, geugaz dagoan Kristo adierazoten dauana. Ez gaitu, alan be, soil-soflrik (bakarrik) itziko. Zeruan bitarteko dogu, ta gu guztiok be bertarako nai gaitu, deika daukagu. Beioaz goruntz, zerurantz, gure begiak, baiña gure egintza onak batez be.

Bitflia.—Apost. Egiñak: 1; 9, 1-31; 10, l'etik 11, 26'ra; 12, l'etik 13, 3'ra; 13, 13-52; 14, 8'tik 15, 29'ra; 16, 11-40; 17 16'tik 18, 23'ra.

Sarrera.—Galilear gizonok!, zetan diarduzue zerura begira?, aletuia; zerura igoten ikusi dozuenez etorriko da, aleflua, aleluia, aleluia.—Ps. Ekiozue txaloka, erri guztiok; poz-deadarrez abestu egiozue Jaungoikoari.—Alntza.

Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko algutz'dun orrek!, gaur zure Seme bakarra ta gure Salbatzaillea zerura igo zala sinisten dogun ezker, geu be gogoz an zeruan bizi gaitezala. Amaiibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia, (Apostoluen Egiñak, 1, 1-11).—Len be, ene Teofilo, Jesus'ek asieratik egin eta irakatsi ebanaz berba egin dot, Berak aukeratutako Apostoluai Espiritu Santuaren bidez aginduak emonda, zeruan artu

eben egunerarte. Bere nekaldi-ostean be, bere burua bizirik argibide askoz erakutsi eutsen, berrogei egu. nez arei agertuaz, ta Jaungoikoaren Erriaz arekaz jardunez. Eta azkenez, arekaz baturik egoala, Jerusalem'dik ez urteteko agindu eutsen. Aitaren agintzaren zain egoteko baiño: «Agintza au (1), —esan eutsen—, neure agotik entzun dozue. Izan be, Jon'ek uraz bateatu eban; zuek, barriz, egun asko baiño len, Espiritu Santuz bateatuak izango zaree».

Orduan, batuta egozanak itaun au egin eutsoen. «Jauna, aldi onetan barriztuko ete dozu Isra'el'go erreiña?» Eta Jesus'ek esain eutsen: «Ez dagokizue Aitak bere agimpidean ipiñi dauzan sasoia ta unea igartea, Baiña datorkizuen Espiritu Santuaren indarra artuko dozue, ta Jerusalem'en eta Samaria'n eta lurarren bazterreragiño *be*, autorle (testigu) ízango zakidaze.»

Au esanda, arein begietan gorantz igoten asi zan, eta odei toatek begietatik kendu eutsen. Eta Bera zeruruntz joian artean, areik toegira-begira egozala, ara!, gizon foi (2) soiñeko zuriz jantzita aurkeztu yakeezan; eta esan eutseen: «Galilear gizonok!, zetan diarduzue zerura begira? Zuekandik aldendurik zerura igo dan Jesus ori, zerura joaten ikusi dozuenez etorriko da.»

Alelni.i, aleluia.—Jaungoikoa poz'eadar artean igo zan, eta Jauna turuta Sofñuz, a'leluia.—Jauna Sinai'n dago, toki santuan; gora igorik, buztarpekoak Beragaz eroan etoazan, aleluia.

Barri Ona (Mark., 16, 14-20).—Aldi aretan, amaika ikasleak maian egozala, Jesus agertu yaken; eta arein siniste otza ta biotz-gogorkeriagaitik, asarre egin euten, Bera biztuta ikusi ebeneai sinistu ez eutsee-lako. Eta auxe esan eutsen: «Zoaze lur-bira osoan zear, eta gizaki guztiai Barri Ona u'garri egiezue. Sinisturik bateatu daitena, zeruratu egingo da; baiña sinistu ez dagiana, galdu egingo da. Sinistu dagienai, barriz, mirari oneik jarraituko dautsee: Nire izenean txerrenak (deaforuak) jaurtiko dabez, izkuntza barriak erabilli, sugeak eskuan artzeko lain izan; eta ilgarriren bat edan ba'dagie be, ez dautse kalterik egingo; geisoai eskuak ezarriko d'utseez, eta osatu egingo dira.»

(1) Agintza au: Espiritu Santua artuko ebela

(2) Aingeru bí gizon-jantziz,

r Eta Jesus Jauna, arei arela foertaa egin ondor;n, zerura igo zan, eta Jaungoifcoaren eskumaldean jesarrita dago. Areik, barriz, joanda, alde guztietan Barri Ona uabaltzen eben, Jauna laguntzaille ebela, ta arein berbak mirariz indartzen ebazala.—*Kredo*.

Eskintza.—Jaungoikoa poz-deadar artean igo zan, eta Jauna turuta-soiñuz, aleluia.


Opari-otoitza.—Artu egizuz. Jauna, zure Semearen zerura Igokunde goragarriagaitik eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta eiguzu biotz onez, oraingo arris-jruetatik atarata, betiko bizitzara eldu gaitezala. Ainabagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olan-txe.

Kanon-aurrea ta Communicantes, Igokunde-egunekoak, 1183 orri.

jaunartzerakoa.—Abestu eresiak Juanari, zeru goietara, Sortzaldera doanari, aleluia.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun eta errukior orrek!, begiz ikusi dogun opari one'an artutako Eukaristiak, begiz ikusi ezin daiteken eragma egin dagdala gudan. Amaibagako.





IGOKUNDE-OSTEKO IGANDEA

2^{gn.} mailla. — Zuriz

Domeka onetan iru gauza dakarkiguz gogora gure Eliza Ama deunák: Zerura igo zan Jauna, Espiritu Santuaren etorrera, ta goitiko Pozkille ori geure arimétan artzeko gertatu bearra.—Gaurko mezatan, eskari guztiak asmo bat darabille: Espiritu Santuaren etorrerarako, Pentekoste egunerako gertau. — Aita betikorrek egin genduzan, Kristo'k erosi; santutu, barriz, Espiritu Santuak, Aita ta Semeagandiko maitasunak egiten gaitu. Gertatu daiguzan, bagure biotzak Espiritu Deun ori artzeko.

Biblia. — Apost. Egiñak: 18, 24'tik 19, 12'ra; 20, 7-38, 21, 27'tik 23, 35; 24, 10-27; 25, 6'tik 26-32; 27, 9'tik 28; 10, 28' 16-31.

M E Z A

Sarrera.—Entzun, Jauna, nire eskaria, Zeuri deiez nago-ta, aleluia. Auxe esan eutsun nire biotzak: Zeure arpegi-billa ifoilli naz, zeure arpegi-billa ibilliko naz; ez gorde niri zure aurpegia, aleluia, aleluia.—Ps. Jauna dot argi ta osasun; noren bildur izan naiteke?—Aintza.

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikorra! Gure naia Zeurearen menpean egon daitela beti, ta biotz zintzoz zure menpeko izan gaitetzala. Amaibagako.

Irakurgai (S. Pedro'ren l'goa.: 4,7-11).—Gutziz maiteok; Egon zur, eta otoitzean ernai. Baiña, batez be, maite egizue aifar beti, maitasunak pekatu asko estaltzen dauz-ta. Alkarri dei egiozue etxera, mormor

irjn bagarik. Bakotxak artu dauan grazia erabilli begi besteen onerako, Jaungoikoaren graziaren eragilleari jagokionez, askotariko grazia da-ta. Norbaitek berba eciten ba'dau, Jaungoikoaren agoari dago'kionez egin (jegi; egikizunen baten ba'diardu, Jaungoikoak emondako' indarrez egin begi, edozetan Jaungoikoa goratua izan daiten, Jesukristo gure Jaunaren bidez.

Aleluia, ale'lulia.—Jauna erri guztien Errege da; jaungoikoa bere jarleku santuan dago jesarrita, aleluia.—Ez zaituet umezurtz itziko; ba-noa ta ba-nator-lizue, ta biotza pozez beteko yatzue. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 15, 26-27; 16, 1-4).—Aldi aretan, Jesiisek bere ikasleai auxe esan eutsen. Aitagandik bialduko dautsuedan Pozkillea, Aitagandik dan Egi-arnasa etorri daitenean, Berak egingo dau nitzaz autor; baita zeuok be autortuko dozue, asieratik neugaz zabize-ta. Gauza oneik, gaizpiderik artu ez dagizuen esan dautsuedaz. Sinagogetatik jaurti egingo zaitue; ta aU dia be ba-dator, il zaiezan edonok, orretan Jaungoikoa gurtzen diarduala uste izango dauana. Ta ori, ez nire Aita ez ni ezagutzen ez gabezalako egingo dabe. Baiña gauza oneik, aldia. etorri dakienean, Neuk iragarri neutsuezala gogoratu dagizuen dirautsuedaz,—Kredo.

Esquentza.—Jaungoikoa poz-deadar artean igo zan, eta Jauna turuta-soiñuz, aleluia.

Opari-otoitza.—Opari orbanbage onek garbitu gazi-zaia, Jauna, ta emon dagitsela gure arimai zeruko graziaren indarra. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Igokunde-egunekoa*, 453 orri.

Jaunartzerakoa.—Aita, onekaz nintzan artean, Neuk zaintzen nebazan Zuk emon zeustazanok, aleluia; orain, barriz, Zeugana noa; ez dautsut gizartetik atarateko eskatzen, gatxetik zaindu dagizuzala baiño, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Zure sari santuz bete gar(e)an ezkerro, Jauna, egizu, beti Zeuri eskerrak emoten iraun dailgula. Amaibagako.

PENTEKOSTE-ATJRRREGTJNA

l'go. mailla. — Gorriz

Sarrera.—Zuek donetsi ba'nagizue, lur guztietatik batuko zaituet; eta ur gardena isuriko dautsuet, eta zuen loi guztietatik garfoituta geldituko zaree; ta biotz barri bat emongo dautsuet, aleluia, aleluia.—*Ps. AñU* oro goratuko dot Jauna; nire agoan beti Aren gorapena.—Aintza.

Otoitza.—Zure argiitasunaren diztiraz argitu gagiuzala eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguztidun orri-eta Espiritu Santuak bere argi diztiratsuz indartu da[^] gizala zure grazáaz bizi barria artu dafoenen biotzak, Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 19, 1-8).—Egun arei tan, Apoilo Korinto'n egoala, Paulo, goi-aldeko bazter-rrak aztertu ondoren, Efeso'ra ekui zan; eta ikasle batzuk an aurkiturik, esan eutsen: «Sinisena artu zenduenean, Espjrdtu Santua artu zenduen?» Eta areik erantzun eutsen: «Espiritu Santua danik be ez dogu entzun.» Eta Paulo'ik esan eutsen: «Zein bateo artu dozue, ba?» Ta areik erantzun eutsen: «Jon'en bateoa.» Orduan, Pedro'k esan eutsen: «Jon'ek damu-bateoaz bateatu etaan, etorteko zan Jesus'egan sinistu egiaa erriari esanaz.»

Au entzunda, Jesus Jaunaren izenean bateoa artu eben. Eta Paulo'k eskuak gainean ezarten euteezala, Espiritu Santua arein gainera jatsi zan eta izkera arrotzez berba egiten eta iragarten asi ziran. Amabiren bat gizonetzko ziran guztiz. Gero Paulo'k, sinagogan sarturik, bildur бага toerba egiten eban iru illebetez, Jaungoikoaren erreñuari buruz eztabaidan eta arei argia emóiten.

Aleluia, aleluia.—Goratu egizue Jauna, ona da-ta; Aren errukia betiko da-ta.

Luzagarria.—[^]Goratu egizue Jauna, gizaki guztiok; jo egiozue txaloak, erri guztiok!—Gure artean errukia baiño ez dau erakutsi, ta Jaunaren zintzotasunak beti irauten dau.

Barri Ona (Jon, 14, 15-21).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Maite ba'nozue, bete egizue zue nire aginduak. Eta Neuk eskatuko dautsat Aita-ri ta beste Pozkille bat bialduko dautsue beti zeuekaz egon daiten: Egi-Amasa da, lurkoioak artu ez daikeena, ez dabe ikusten ez ezagutzen-eta. Baiña zuek, bai, ezagutuko dozue, zeuenean eta zeuekan egongo da-ta. Ez zaituet umezurtz itziko; etorriko nakizue. Laster e^{na} u munduak ikusiko; zuek, barriz, ikusiko nozue, Ni jji^{zi} naz-ta; zuek be bizi iango zaree. Egun aretan ezagutuko dozue Ni Aitagan nagoala, ta zuek Nigan eta Ni zuekan. Nire aginduak artu ta gordeten dauzana, arekek maite nau; maite nauana, barriz, neure Aitak be maite izango dau; ta Neuk be maite izango dot, eta agertu egingo nakio.

Eskintza.—Bialdu egizu zeure Arnasa, ta bizi barria artuko dabe, ta lur-azala barriztu egingo dozu. Aintza jaunari betiko, aleluia.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, eskiñi. dautsuguzan oparigaiok, eta garbitu egizuz gure biotzak Espiritu Santuaren argiaz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

Kanon-aurrea, Communicantes eta Hanc igitur, Pentekoste-egunekoak, 454 orri.

Jaunartzerakoa.—Jaietako azken-egunean Jesus'ek auxe iñoan: «Nire sinistea dagianaren barrutik, urbizia ibaika jariongo yako». Bera sinisten ebenak artu bear eben Espiritu Santuagaitik esan eban ori. Aleluia, aieluia.

Azken-otoitza.—Espiritu Santuaren isurpenak*, Jauna, garbitu dagizala gure biotzok, eta bere barruko iruntzaz indartu dagizala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

* Isurpen = infusión.



PENTEKOSTE-EGUNA

l'go. mallla. Zortziurren berarizkoaz. — Gorriz

Kristo'k bete dau bere agindua, Espiritu Santua guri bialduaz.—Apostoluak jantokian otoitzean ziarduen, Andra Mari^a lagun ebela. Onetan, trumoi antzeko burrundarea zabaldu zan etxe guztian: Apostoluak Espiritu Santuz bete ziran. Gauza bi dakaz, batez be, goitar Arnas orrek; argia ta indarra. Argia ta indarra arimentzat; argia ta indarra gaurko egunez jaio zan Elizarentzat.

Eskatu daiogun Espiritu Santuari Elizak eta gure arimak bear dabezan argi ta indarrak.

Biblia—Apost. Egifiak: 2'tik 5'era; S, 1-15; 7,54'tik 8 40'ra.

M E Z A

Sarrera.—Jaunaren Arnasak (Espirituak) lurbira osoa bete eban, aleluia; ta dana artzen dauan ezker, esaten dan guztia daki, aleluia, aleluia, aleluia.—*Ps.* Jagi bedi Jaungoikoa, ta banandu beitez Aren arerioak; iges egin begie gorroto daiteoenak.—Aintza.

Otoitzá.—Gaurko egunez zintzoen biotzak Espiritu J Santuaz argitu zenduzan Jaungoikoa; eiguzu, Espiritu berorren bidez, zuzenbidea maite izan daigula, ta Berorren atsegiñez beti poztu gitezala. Aimaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz baterá Jaungoiko...

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 2, 1-11).—Pentekoste[^]egunean guztiak alkarregaz bat eginda egozan. Eta bat-batean. aize zakarrena lako burrundarea sortu zan

zerutik, eta areik egozan etxe osoa bete eban. Eta su antzeko miñak ikusi ebezan, eta bakoitzaren gaiñean banandu ta ezarri ziran. Eta guztiak Espiritu Santuz bete ziran, eta beste izkeraz berba egiten asi ziran, Es-oritu Santuak itz-er&giten eutsenez.

Ba-ziran orduan Jerusalem'go judarrakaz. eguzkipeko bazter guztietatik eldutako gizon jaungoikozale asko. Burrundara ori sortu zanean, gizataidea etxe batu zan, eta bakoitza norberaren izkeraz egiten entzunik, arrituta egozan. Eta guztiak íkaratuta egozan, eta arrituta ñoen: «Ez al difa. galilearrak 'berba egiten daben guztiok? Zelan entzuteh -doguz, ba, geure jatorkizko izkuntza berezian (berarizkoan)? Partiarrek, jfediarrak, 'Mameltarrak, eta Mesopotamia'n, Judean, Kapadozia'n, Ponto'n, Asia'n, Prijia'n, 'Pan.filia'n, Ejipto'n eta Zirene-aldeko Libia'n bizi diran guztiak, Erroinatar arrotzak, judar eta judartzaletuak, Kretarrak eta Arabiarrak, Jaungoikoa goratzen geure izkuntzetan diarduela entzun doguz.»

Aleluia, alieluia.—Bialdu egizu zeure Gogoa ta bizi barria artuko dabe; ta lur-azala barriztu ;egingo dau. Aleluia. (*Emen belauniko.*)—Zatoz, Esplrltu Santu ori; bete egizuz zure zintzoen biotzak, eta iziotu egie-fu zure maitasun-sua.

Jarraikia (Esteban Langton, j 1228).—1. Zatoz, Espiritu Santu, ta bialldu egizu zerutik zure argi-izpia.

2. Zatoz, gaisoen aita; zatoz, idoai-emoille, biotzen argi.

3. Poz-emoille bikaiña, etxelagun atsegin, bizkortzaille gozo.

4. Lanetan atsedean, nekean bake, malkoetan pozgarri.

5. Bete egizu, argi guztiz doatsu orrek!, zure zintzoen biotz barren-barrena.

6. Zure laguntza bagarik ez dau gizonak ezer, ez dau ezer on danik.

7. Garbitu egizuz zikin dagoana, busti legor dagoana, osatu zauri guztiak.

8. Bigundu egizu gogor dagoana, berotu otx dagoana, zuzendu oker dagoana.

9. Emon egieuz zугan ustea daben zintzoai aura zazpi doai sanftuak.

10. Emon egiezu onoimen-saria, emon azken-osasu. na, emon betiko zoriona. Olantxe. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 14, 23-31).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan euteen: Norbaitek maite toa'nau neure esana beteko dau, ta nire Aitak maite. izangó dau; ta etorriko gakioz, eta aregan egotez *egongo* gara. Maite ez nauanak, barriz, ez dauz nire berbak gorde-ten. Entzun daustazuezan berbok, ez dira nireak, bíldu nauan Aitarenak baiño. Itzok, zeuekaz nagoala esan dautsuedaz. Baiña náre izenean Aitak bialduko dauan Espiritu Santu Poz-emoilleak irakatsiko dautsue guztia, ta Nik zuei esandako guztia gogorazoko dautsue, Bakea izten daufcsuet, neure bakea damotsuet (emoten dautsuet), ez munduarena. Ez bekizue larritu biotza, ezta kíkildu be.

Esaten entzun nenduzuen: "Ba-noa, ta ba-natorki-J zue". Maite ba'nenduzue, poztuko zintzakeze ziur ni Aitagana joatez: Aita ni baiño aundiago da-ta. *Mai* orain, jazo aurretílt esan dautsuet, jazo daitenean sinistu dagizuen. Onezkero ez dautsuet askorik esango, mundu onetako nagusia ba-dator-eta; baiña Nigan ikustekorik ez dau. Orfaiñiño, Aita maite dodala ta Aitak agindu eustanez egiten dodala jakin bear dau munduak.—*Kredo*.

Eskintza.—Indartu egizu, Jaungoiko, Jerusalem'en dagoan zure etxe santutik egin dauskuzuna; erregeak euren opariak eskiñiko dautsuez, aleluia.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, eskiñi dau-teuguzan oparigafoak, eta garbitu egizuz gure biotzak Espiritu Santuaren arglaz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

Kanon-aurrea, 454 *Communicantes* eta Hanc igitur, Pentekoste-egunekoak, *orri*.

Jaunartzerakoa.—Bat-batean, aize zakarrena lako burrundarea etorri zan zerutik, jesarrita egozan etxera, aleluia; eta guztiak Espiritu Santuz bete ziran, eta Jaungoikoak egindako arrigarriak esaten asi ziran, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Espiritu Santuanen Ísurp-enak, Jau[^] na, garbitu dagizala gure biotzok, eta bere barruko

jruntzaz indartu dagizala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

PENTEKOSTE-ASTELENA

lgo. mailla. — Gorriz

Sarrera.—Gari-mamiñez janaritu ebazan, aleluia; ta etxeko eztíz asetu, aleluia, aleluia.— *Ps.* Gora.tu egizue gure zaintzaille dan Jaungoiko; abestu egiozue Jakob'en Jaungoikoari.—Aintza.

Otoitza.—Zure Apostoluai Espiritu Santua *emon* zeutsen Jaungoikoa: egizu, lortu dagiala zure erriak eskatzen dauana; eta sinismena emon zeutsenai, emon egiezu bakea be. Aniaibagako :egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 10, 34, 42-48).—Egun areitan, Pedro'k bere agoa zabaldu ta esan eban: «Anaiok, A (Jesuskristo) illen eta bizien epaille Jaungoikoak .jarria dala erriai iragarteko ta autortzeko agin'du dauku Jaunak. Aren sinistedun guztiak, pekaten parkamena Aren izenean artzen dabe, igarle guztien autorrez.»

Eta Pedro'k itzok esaten ziarduala, entzule guztien gaiñera Espiritu Santua jatsi zan. Atzerritarren gaiñera be Espiritu Santuaren grazia isuriten ikustean, Pedro'gaz etorri ziran erdaindutako (1) guztiak arritu-ta egozan: areik be arrotzen izkuntzetan berba egiten eta Jaungoikoa goratzen entzuten ebezan-eta. Orduan, Pedro'k auxe esan eban: «Oneik be, geuk legez Espiritu Santua ar.tu daben ezkeru, nok gairerazo daikeoe bateorako ura?» Ta Jesuskristo'ren izenean arei bateoa emon egieela agindu eban.

Aleluia, aleluia.—Apostoluak izkera askotan goratzen eban Jaungoikoa. Aleluia. (*Emen belauniko*).—Zatoz, Espiritu Santu ori; bete egizuz zure zintzoen biotzak eta iziotu egiezu zure maitasun-sua.

Jarraikía: Zatoz, Espiritu Santu, 313 *orri*.

Barri Ona (Jon, 3, 1621).—Aldi aretan, Jesus'ek Nikidemo'ri auxe esan eutsan: Jaungoikoak gizadia, bere

(1) Erdaindutakoak: Jesuskristo'ren sinismena artu eben iudarrak dira emen.

Seme bakarra emoteraino maite izan dau; Aren sinis-
tea dagian inortxo be galdu ez daiten, betiko bizi-
za izan dagian baiño. Jaungoikoak bere Semea lurrera e-
z dau furtarrak epaitzeko bialdu: Aren bitartez gizadia
salbau daiten baiño. Aregan sinisten dauana, ez da
galtzen; sinisten ez dauana, barriz, galdua da, Jaun-
goikoaren Seme bakarraren izenagan sinisterik ez dau
izan-eta. Auzigaia, auxe da- lurrera argia etorri dala,
ta gizakiak Argia baiño illuna maiteago izan dabela'
arein egintzak okerrak ziran-eta. Gaiztakeria egiteri
daben guztiak, argiari gorroto dautsoe-ta; ez datoz,
barriz, argitara, arein egiñak gaiztetsiak izan ez daite-
zan. Egiaren bidetik dabilena, barriz, argitara dator,
aren egiñak agertu daitezana, Jaungoikoagan egiñak
dira-ta.—*Kredo*.

Eskintza.—Trumoa jo dau Jaunak zerutik, eta Goi-
ko Jaunak bere abotsa entzun-erazo dau; eta iturbu-
ruak agertu dira, aleluia.

Opari-otoitza.—Bedeinkatu egizuz biotz onez, Jauna
oparigaiok; eta gogozko opari-eskiñi au ontzat artu-
ta, -egin gagizuz geu be zure betiko opari. Amai'bagako.

Kanon-aurrea, Communicantes eta Hanc igitur, Pente-
kostegunekoak, 454 orri.

Jaunartzerakoa.—Espiritu Santuak irakatsiko dau-
tsue, afleluia, Nik esandako guztia, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Egon zaitez, Jauna, zeure erriagaz,
eta zerutiko ezkutapenez Omisterioz) asetu dozuzana,
gorde egizuz arerioen asarretik. Amaibagako.

PENTEKOSTE-ASTARTEA

l'go. mallla. — Gorritz

Sarrera.—Artu egizu^ zeruko poza, aleluia, Jaun-
goikoari eskerrak emonez, aleluia: zeruko erreñura
Berak dei egin dautsue-ta, aleluia, aleluia, aleluia.—
Ps. Entzun, ene erri!, nire legea; biurtu belarriak nire
agoko itzetara.—*Aintza*.

Otoitza.—Bego gugan, Jauna, Espiritu Santuaren
indarra: gure biotzak leunkiro garbitu dagizan eta ez-
bear guztiatik gorde gagizan. Amaibagako egunetan Zu-
gaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 8, 14-17).—Egun
areitan, Jerusalem'en egozan Apostoluak, Jaungoikoa-
ren itza Samaria'k artu ebala entzun ebenean, Pedro
ta Jon bia'ldu eutseezan. Eta oneik ara eldu ziranean,
arein (Samariarren) alde otoi egin eben, Espiritu San-
tua artu egien, oraindiño areitariko inogana be ez zan
etorri-ta: Jesus Jaunaren izenean bateoa baiño ez eben
artu. Orduan, eskuak gainean ezarri eutseezan, eta
gspiritu Santua artu eben.

Aleluia, aleluia.—Espiritu Santuak irakatsiko dau-
tsue Nik esandako guztia. Aleluia. (*Emen belauñiko*.)
^Zatoz, Espiritu Santu ori; bete egizuz zure zintzoen
biotzak, eta iziotu egiezu zure maitasun-sua.

Jarraikia: Zatoz, Espiritu Santu, 313 orri.

Barri Ona (Jon, 10, 1-10).—Aldi aretan, Jesus'ek pa-
riseotarrak auxe esan eutsen: «Bene-benetan dirau-
tsuet: arditegira atetik sartu bearrean beste nunbai-
tetik saitzan dana lapurra ta arrapatzailea da. Atetik
sartzen dana, barriz, artzaiaña da. Oni atezaiñak atea
edegi egiten dautso, ta aren deia ardiak ezagutzen dabe,
ta berak bakoxtaren izenez bere ardiak deitu ta ata-
raten dauz. Eta bere ardi guztiak ataraten dauzanean,
arein aurrean joaten da, ta ardiak jarraitu egiten dau-
tsoe, aren abotsa ezagutzen dabe-ta. Arrotzari, barriz,
ez dautsoe jarraitzen: iges egiten dautsoe, arrotzen
deia ez dabe ezagutzen-eta.»

Jesus'ek ipuin ori esan eutsen; baiña areik ez eben
ulertu esan nai -eutsena. Beraz, barrero Jesus'ek auxe
esan eutsen. «Bene-benetan dirautsuet: Neu naz ar-
dien atea. Nire aurretik etorri diran guztiak, lapurrak
eta arrapatzaileak dira, ta ardiak ez eutsen aditu.
Neu naz atea. Nigandik sartu daitena, salbau egingo
da; ta sartu-urtenak egingo dauz, ta larrak aukeran
aurkituko dauz. Lapurra ez da etorten, ostu, il eta
ondatzeko baiño; Ni, barriz, ardiak bizia izan dagien
eta ugari izan dagien etorri naz.»—*Kredo*.

Eskintza.—Jaunak zeruko atea edegi ebazan, eta
mana isuri eutsen jateko. Zeruko ogia emon eutsen;
gizonak Aingeru-ogia jan eban, aleluia.

Opari-otoitza.—Eskiñi dautsugun opari onek garbi-
tu gagizala, Jauna, ta berau artzeko gai egin gagizala.
Amaibagako.

Kanon-aurrea. Communicantes eta Hanc igitur, Pentekoste-egunekoak, 454 orri.

Jaunartzerakoa.—Aitagandik dan Espirituak, aile. luia, Berak goratuko nau, aleluia, aMuia.

Azken-otoitza.—Zerutiko sakramentu onein bitartez jauna, Espiritu Santuak garbitu dagizala gure arimak' pekatu guztien parkatzai Uea Bera da-ta. ATnaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz befagaz batera Jaungoiko...

FENTEKOSTE'KO LAU AROETAKO EGUAZTENA

l'go. mailla. — Gorritz

Sarrera.—Zure erriagaz urtetea, ari bide egiñez ta aregaz bizi izanez, lurrak dardar egin eban eta zerua Urtu egin zan, aleluia, aleluia — *Ps.* Jagi bedi Jaungoikoa, ta banandu bediz Aren aerioak; iges egin begie Aren arpegitik Ari gorroto dautsoenak.—Aintza.

Kyrie ostean, Epistola-ondora bihurturik, abadeak auxe diño:

Otoitza.—Argitu begi, Jauna, gure barrera Zugañdik datorren Espiritu Pozkilleak, eta zure Semeak agindu euskunez, egi guztia irakatsi daiskula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 2, 14-21).—Egun areitan, Pedro'k, amaika apostoluakaz zutundurik, auxe esan eutsen deadarka: Judar gizonok eta Jerusalem'en bizi zaren guztiok! Auxe jakin egizue ta entzun egizue nire berbak. Oneik ez dagoz mozkortuta, zuek usfue dozuenez, eguneko irugarren ordua da-ta (1). Baiña onetan, Joel Igarleak iragarritako au jazoten da: Azken-egunetan —diño Jaungoikoak— gizaki guztiai neure Arnasa (Espiritua) isuriko dautset, eta zuen seme-alabak igarri egingo dabe; zuen mutillak ikuskizunak, eta zuen agurak amesak izango dabez. Egun areitan, nire morroi ta mirabeai neure Arnasa isuriko dautset, eta igarri egingo dabe. Goian, zeruan, mirariak eta beean, lurrean, arrigarriak egingo dodaz: odo- I

(1) Goizeko bederlatziak. Judarrak goizean ez eben edaten.

ia, sua ta ke-moltzoak. Eguzkia illundu egingo da, ta jll'argia odoldu, Jaunaren egun aundi ta ospetsua etorri baiño len. Eta Jaunaren izena autortu dagiana, onik urtengo da.

Aleluia.—Jaunaren itzak egin dau zerua, ta Aren Gogoak izartegia.

Emen «Gloria in excelsis» esaten da; gero, «Dominus vobiscum».

Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun eta errukior orrek!, Espiritu Santua gugana jatsirik, egin gaizala bere eliza, gudan aintzatsu bizi izajiez. Amaijagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 5, 12-16).—Egun areitan, Apostoluen eskuz errian mirari ta arrigarri asko egiten ziran. Fededunak Salomon-aterpean batzen ziran, guztiak gogo batez. Bestetarikoetatik iñok be ez eban adorerik arekana batzeko; baiña erriak goratu egiten ebazan. Eta Jaungoikoagana sinistedun barriak gero ta geiago etozan gizon eta emakume. Geisoak be, Kaleetara atarata, zerraldoi (ogetxo) ta ogeetan iplniten ebazan: Pedro etorri zeitenean, onen gerizak gutxienez areitakoren bat ikutu ta osatu egian. Baita albo-urietatik be lagunak eurrez etozan Jerusalem'era, geiso ta txerrendunak ekarriez; ta areik be guztiak osatu egiten ziran.

Aicluia, aleluia. (*Belauniko emenj*— Zatoz, Espiritu Santu ori; bete egizuz zure zintzoen biotzak, eta iziotu egiezu zure maitasun-sua.

Jarráikia: Zatoz, Espiritu Santu, 313 orri.

Barri Ona (Jon, 6, 44-52).—Aldi aretan, Jesus'ek jurtalaldeai auxe esan eutsen: Ezin etorri daiteke iñor Nigana, bialdu nauan Aitak ekarri ez ba'dagi; ta alakoa Neuk biztuko dot azken-egunean. Igarleetan idatzita dago: "Jaungoikoaren ikasle izango dira guztiak." Aitari entzunda, Aren irakaspenak onartzen dauzana, Neugana dator. Aita ez dau iñok ikusi, ez: Jaungoikoagandil: sortuak baiño: Onexek ikusi dau Aita. Benen-benetan dirautsuet: Neugan sinisten dauanak, betiko bizitza dau. Bizitza-os'ia Neu naz. Zuen grasoak basamortuan mana janda be, il egin ziran: auxe da zerutik jatsitako ogi bizia: ogi onetatik jan daglanak,

betiko bjzi izango da; eta munduaren bizirako emongo dodan ogia, Neure aragia da.—*Kredo*.

Esaintza.—Gogoz aginstartuko dodaz zure aginduak, benetan maite dodaz-ta; nire eskuok be zeure aginduak beteteko jasoko dodaz, aleluia.

Opari-otoitza.—Artu egizu, Jauna, opari au; ta misterio onein bidez ospa/tzen doguna, geure egiñetan be agertu daigula. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Cc-mrhunicantes eta Hanc igitur, Pentekoste-egunekoak, n4 orri.

Jaunartzerakoa.—Bakea izten dautsuet, aleluia; neure bakea damotsuet, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—'Sakramentu santu au artu dogun ezker, Jauna, egizu biotz onez: orain bizitza onetan ospatzen dogun au, gero • betiko pozetan ospatzea ja-detsi daigula. Amaibagako.

PENTEKOSTE-EGUENA

l'go. maila. — Gorriz

Meza: *Pentekoste-egunekoak*, 312 orri., *Irakurgaia ta Barri Ona izan ezik*.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 8, 5-8).—Egun areitan, Felipe'k, Samaria'ko errira jatsirik, angoai Kristo iragarri eutsen. Eta guztiak gogo batez entzuten eben i Felipe'k zirautsena, egiten ebazan mirariak ikusirik. Eta txerrendun askogandik txerren zikiñak deadarrez urten, eta elbarri ta erren aso osatzen ziran. Orre-gaitik, uri aretan poz aundia zan.

Barri Ona (Luk., 9, 1-6).—Aldi aretan, Jesus'ek bere amabi ikasleai dei egiñik, txerren guztiak az-piratzeko indarra emon eutsen, baita geisoak osatzekoa be. Eta Jaungoikoaren erreñua iragartera ta ge'isoak osatzera bialdu ebazan. Eta auxe esan eutsen: «Ez egizue biderako ezer artu, ez makillarik, ez zorrorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta bakotxarentzako jantzi bi be. Eta sartu zaitezen etxean, egon antxe, ta ez urten andik. Eta norbaitek artu ez ba'zagiez, uri aretatik urtetean, zuen oiñetako autsa be astindu egizue, arein kontrako ager-j bidetzat.» Eta areik, urtenda, emz-erri ebizan, edonun Barri Ona zabaltzen eta geisoak osatzen.—*Kredo*. |

PENTEKOSTE'KO LAU AROETAKO BARIKUA

l'go. maila. — Gorriz

Sarrera.—^Bete dakidala agoa zeure gorapenez, aleluia, abestu dagidan, aleluia; Zuri kantatzean, ezpannak poztu egingo yataz, aleluia, aleluia.—*Ps*. Zeugan dot ustea, Jauna: ez nadilla lotsatu betiko; zaindu ta orde nagizu, zuzena zara-ta.—*Aintza*.

Otoitza.—Egizu, Jaungoiko errukior orrek!, zure Eli-za, Espiritu Santuaren bidez batuta dagoan ezker, iñungo arerio-ekiñaldik ez dagiala bildurtu. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz baiera Jaungoiko...

Irakurgaia (Joel, 2, 23-24 ta 26-27).—Auxe diño Jaunak: Poztu ta alaitu zaitze, Sion'darrok, zuen Jaungoiko Jaunagan: irakasle zuzena emon dautsue, ta len lez, goizeko ta beranduko euria jatsi-erazoko dauteue-ta. Zuen larraiñak* gariz beteko dira, ta dolarak* ardao eta orioz gaiñez egingo dabe. Asetu arte jango dozue, ta zeuen Jaungoiko Jaunaren izena goratuko dozue, arrigarriak egingo dauz-ta. Nire erria ez da iñoiz be lotsatuko. Ni Israel'en erdian nagoala ezagutuko dozue, ta Neu nazala zeuen Jaungoiko Jauna, 4a besterik ez dala. Nire erria ez da bein be lotsatuko. Jaun alguztidunak diño au.

, Aleluia, a'leluia.—^Bai on eta gozo yakula, Jauna, zure Arnasa! Aleluia. (*Eraen belauniko.J—Zatoz*, Espiritu Santu ori; bete egizuz zure zintzoen biotz, eta iziotu egiezu zure maitasun-sua.

Jarraikia: *Zatoz*, Espiritu Santu, 313 orri.

Barri Ona (Luk., 5, 17-26).—Aldi aretan, Jesus'ek, jesarrita, irakasten Ziarduan. Ba-ziran an jesarrita pariseotar eta lege-gizonak be, Galilea'ko, Judea'ko ta Jerusalem'go errixoetatik etorritakoak. Eta Jaunak geisoak osatzeko indarra agertzen eban. Onetan, gizon batzuek elbarri* bat ekarri eutsoen, zerraldoian (ogetxoan) ekarrela; ta barrura sartu ta Jesus'en aurrean ipiñi nai efoen. Baiña gizataldea zala-ta sarbiderik ezin ikusirik, sabai-gaiñera igo ta tellartetik ogetxoan jatsi

• Larrain = era. * Dolar = lagar.

* Elbarri = paralítico.

eben erdira, Jesus'en aurrera. Jesus'ek, gizon arein sinismena ikusirik, elbarriari esan eutsan: «Gizon. peka. tuak parkatzen dautsudaz.»

Ord-uan, idazilari ta pariseotarrak eurokautan asmatzen asi ziran, esanez: «Nor da biraoa diñoan au? Pekatuak nok parkatu daikez, Jaungoikoak bakarrik baiño?» Baiña Jesus'ek, arein asmakeriak ezaguturik esan eutsen: «Zer darabizue zuen biotzetan? Zer dá errazago, "pekatuak parkatzen dautsudaz" elbarriari esatea?, ala "jagi, ta zoaz" esatea? Beraz, pekatuak parkatzeko eskubidea Gizasemeak ba-dauala jakin dagizuen, —elbarriari dirautso—: Zeuri dirautsut: jagi zaitetz, artu ogetxoa ta zoaz etxera.» Eta bertantxe gizona, arein aurrean jagirik, zetzan ogetxoa artu ta bere etxera joan zan, Jaungoikoa goratuez. Guztiak arrituta gelditu ziran, eta Jaungoikoa goratzen eben. Eta biJdurrez beterik iñoen: «Ikaragamak ikusi doguz gaur!».—*Kredo.*

Esintza.—Goratu egizu Jauna, ene biotz; nire bizi gutzian goratuko dot Jauna; bizi naiten artean, eresiak abestuko dautsadaz nire Jaungoikoari, aleluia. *i*

Opari-otoitza.—Zure aurrean daukaguzan oparigai oneik, Jauna, kiscaldu begiz zure Seme Jesukristo'ren ikasleen biotzak erre ebazan E&piritu Santuaren suak. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoikoa ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea, Com-municantes eta Hanc igitur, Pentekoste-egunekoak, 454 orri.

Jaunartzerakoa.—Ez zaituet umezurtz itziko; barriro etorriko nakizue, aleluia, ta biotza poztu egingo yatzue, aleluia.

Azken-otoitza.—Zure ezkutapen (misterio) santuen doaiak artu doguzan ezker, Jauna, zure gomutaz egiteko agindu zeuskun opari au, geure argultasunaren bizkorgarri izan dadilla eskatzen dautsugu apal-apalik. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

PENTEKOSTE'KO LAU AROETAKO LARUNBATA

l'go, mailla. — Gorrlz

Meza laburra

Sarrera.—Espiritu Santuak emon dauskun Jaungoikoaganako maitasuna, aleluia, geure biotzetan isurita (jago, aleluia, aleluia.—*Ps.* Goratu egizu Jauna, ene biotz; eta nire barren osoak Aren izen santua goratu dagiala.—[^]Aintza.

Kyrie ondoren, abadeak, Epistola-albora joanda, auxe diño:

Otoitza.—Isuri egizu biotz onez, Jauna, gure arimetan Espiritu Santua; Bere jakintzaz egin genduzan eta bere arduraz zuzentzen gaitu-ta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera jaungoiko...

Irakurgaia (Joel, 2, 28-32).—Auxe diño Jaungoiko jaunak: Neure Arnasa isuriko dot gizaki guztiakana, ta zuen seme-alabak igarri egingo dabe; zuen agurak amesetak izango dabez, eta zuen gazteak ikuskizunak ikusiko dabez. Baita nire morroi ta mirabeakana be neure Arnasa isuriko dot. Zeru-lurretan miragarriak egingo dodaz; odola, sua ta ke-moltzoak. Eguzkia illun biurtuko da, ta illargia odol, Jaunaren egun aundi-ikaragarria etorri baiño len. Eta Jaunaren izenari dei egin dagiona, onik urtengo da.

Aleluia.—Bizia, gogoak Oespirituak) emoten dau; aragia, barriz, ez da ezetarako.

Orain "Gloria in excelsis", eta "Dóminus vobíscum". Gero,

Otoitza.—Arren, Jauna!, Jesukristo gure Jaunak lurrrera ekarrirako suaz sutu gazizala Espiritu Santuak, lun-ak sua artu egian ain gogo biziz nai izan eban-eta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ita. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai, 5, 1-5).—Anaiok; Binismenez zintzotuta, Jaungoikoaren bakea dogu Jesukristo gure Jaunaren bidez. Beragaitik, grazi onetara sartzeko atea be zabaldu egin yaku, ta Jaungoiko semeen aintzaren ustez poztuta gabiltz. Eta au baka-

rrik ez, naigabeetan be pozik gagoz: naigabeak eroapena, eroapenak kemena¹, ta kemenak uste ona dakarrela jakiñik. Eta itxaropen onek ez dau iruzurrik* egi ten: Espiritu Santuak emon daukun Jaungoikoagana nako maitasuna gure biotzetan isurita dago-ta.

Aleluia, aleluia (*Emen belainiko*).—Zatoz, Espiritu Santu ori; bete egizuz zure zintzoen biotzak. eta iziotu egiezu zure maitasun-sua.

Jarraikia: Zatoz, Espiritu Santu, 313 *orri*. *Azkeanean Aleluia bagarik*.

Barri Ona: Jesus, Sinagogatik urtenda, 149 *orri*. —*Kredo*.

Eskintza.—Ene Jaun, Jaungoiko ta Osasun!, gau ta egun deika nagokizu; eldu bedi zure aurrera nire otoi-tza. Aleluia.


Opari-otoitza.[^]Gure barauak gogoko izan dakizuzan, eiguzu, arren, Jauna: Opari onen bidez, biotz garbia eskifii dagitzugula. Amaibagako.

Kanon-aurrea, Comrnunicantes eta Hanc igitur, Pentekoste-egunekoak, 454 *orri*.

Jaunartzerakoa.—Aizeak edonun egiten dau putz, eta aren otsa entzun egiten dozu, bai, aleluia, aleluia; baiña ez dakizu nondik nora doan, aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Berotu daiguela biotza, Jauna, zuré; ezkutapen (misterio) santuok, eta eurok artuaz eta euron frutuz poztu gaitezala. Amaibagako.

Meza-ostean amaïzen da Pazko-aldia.



PENTEKOSTE-OSTEKO LENENGO IGANDEA

IRUTASUN DEUNAREN EGUNA

l'go. mailla. — Zuriz

Gure sinismenaren egi guztien oiñarri dogu gaur gure Eliza Amak ospatzen dauan Irutasun guztiz deunaren misterio aundi au. Jaungoiko bakarra baiño ez da; alan be, Jaungoikoa izatez bat izanik, nortasunez iru notin edo persona dira: Aita, Semea, ta Espiritu Santua Jaungoiko bakarrean. Au zelan izan daiteke? Misterio aundia dogu ta guk ezin as-mau, emen durrean beintzat. Izen onetan artzen doguz Sakramentuak, "Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santua-ren izenean". Gure otoiitz ta, eskaririk geienak be orrela amaïzen dira.—Erabilli daigun beti begirune aundiz izen flin ezkututsua.

BiKiia.—Mat.: 3, 13-17.-Luk.: 1, 35.-Jon: 13'tik 17'ra.-Korinto'koai l'goa.: 12, Wl.-Korinto'koai 2'gna.: 13, 13.-Efeio'koai: 4, 4-6; 5, 18-20.-Pedro'ren l'goa.: I, 1-2

M E Z A

Sarrera.—Bedeinkatua izan bedi Irutasun deuna ta ezin-banandua; goratu daigun, gutzaz errukior agertu da-ta.—*Ps*. Jauna, gure Jauna!, zure izena bai arrigarrir lur osoan!.—Aintza.

Otoiitza.—Zure menpekoai, egiatzko fedez betiko Irutasunaren argitasuna ezagutzea ta Bakar orren indar aundia gurtzea emon dautsezun Jaungoiko ailguztidun eta betikorra!: egizu, fede bizi onen bidez, ezbear guztitik gorde gaitezala beti. Amaibagako.

• Kemen = prueba, tesón. * Iruzur = engaño.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai, 11, 33-36).—Sakonak benetan, Jaungoikoaren aberastasunak, jakituria ta jakintza! Bai aztergatxak Aren erabagiak eta barrendu-eziñak Aren bideak! Nok ezagutu dauz Jaunaren asmoak? Nor izan da Aren onulari*? Nok emon dautso lendik, ari ordaiña eskatzeko? Dana Beragandik da, Beragaitik eta Beragan. Berari edertasuna gi. zaldien gizaldiz. Olantxe.

Koru-kanta.—Bedeinkatua zu, Jauna, leza-bazterrak ikusten dozuzan ori, ta Kerubiñak baiño gorago jesarri-ta zagozan ori.—Bedeinkatua zu, Jauna, zeruko ortzian; goragarria zara beti-betiko.

Aleluia, aleluia—Bedeinkatua zara Zu, Jauna, gure gurasoen Jaungoikoa; ta goragarri zara beti-betiko. Aleluia.

Barri Ona OMat, 28, 18-20).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Agintaritza oso-osoa emon yat Niri zeru-lurretan. Zoaze, ba, mundu osoan zear. Erri guztiai irakatsi egiezue, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bateatuez, eta agintzen dautsuedan guztia beteten irakatsiz. Ta begira; Neu egongo naz zuekaz egun oro gizaldi guztiak amaitu arte.»—*Kredo*.

Eskintza.—Bedeinkatua izan bedi Aita Jaungoikoa, baita bere Seme bakarra be, baita Espiritu Santua be; gutzaz errukior agertu da-ta.


Opari-otoitza.—Zure izen santuari dei egiñaz, bey deinkatu egizu, gure Jaungoiko Jaun orrek, eskintzen dautsugun opari au, ta beronen bidez geu be betiko doai izan gaitetzala zuretzat. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Bedeinkatu daigun zeruko Jaungoikoa, ta bizidun guztien aurrean autortu dagigun, gutzaz errukior agertu da-ta.

Azken-otoitza.—Sakramentu au artzeak, gure Jaungoiko Jauna!, on egin daiskula gorputz-arimen osasunerako. Amaibagako.

* Onulari consejero.



PENTEKOSTE-OSTEKO LENENGO IGANDEA

Oarra.—Domeka au Irutasun deunaren egunean izaten dan ezkeru, domeka oni dagokion Meza aste barruan esaten da, Santuen Mezarik ez ba'da.

M E Z A

Sarrera.—Jauna, zeure errukian izan dot itxaropena; nire biotz zeure osasunagan poztu da; Jauna goratuko dot, oridasunez bete nau-ta.—*Ps*. Noz arte egongo zara, Jauna, beti nitzaz azturik? Noiz arte estalduko dozu nigandik zure arpegia?—*Aintza*.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Zugan itxaroten dabenen indarra zarean Jaungoikoa!, eratzun biotz onez gure eskariak; eta gizona Zeu bagarik zutik ezin egon daiteken ezkeru, emon eiguzu zure graziaren laguntza: zure aginduak gorderik, biotzez eta egiñez atsegin izan gakizuzan. Amaibagako.

Irakurgaia (Jon'en l'goa.: 4, 8-21).—Gutziz maiteok: Jaungoikoa maitasuna da. Onetan agiri da Jaungoikoak dauskun maitasuna: Jaungoikoak bere Seme bakarra lurrera bialtzean, Onen bitartez bizi gaitzean. Ori da, ori, maitasuna. Izan be, Jaungoikoa guk maite ez genduala, Berak maite izan genduzan lenen, eta bere Semea bialdu euskun gure pekatuak ordaindu egtzan.

Guatiz analteok: Jaungoikoak orrela maite izan gaituan ezkeru, guk be alkar maite izan bear dogu. Jaungoikoa ez dau inok bein be ikusi; alan be, alkar' maite ba'dogu, Jaungoikoa geugan dago, ta bere maitasuna eldu-eldua da gugan. Eta onetantxe ezagutzen dogu Beragan gagozala, ta Bera gugan- bere Arnasa (Espiritu) emon dauku-ta. Guk, barriz, ikusita gero, Altak Semea munduaren Salbatzailletzat bialdu daua^ la autortzen dogu. Norbaitek Jesus Jaungoikoaren Semea dala autortzen ba'dau, Jaungoikoa beragan dago, ta bera Jaungoikoagan. Eta guk ezagutu ta sinistu dogu Jaungoikoak daskun maitasuna. Jaungoikoa maitasuna da; ta maitasunean dagoana, Jaungoikoagan dago, ta Jaungoikoa aregan.

Maitasuna gugan osoa ba'da, epai-egunean nasai egongo gara, lur onetan Bera dan lez gara-ta. Maitasunaz 'ez dago bildurrik; bestetara baino: maitasun osoak, bildurra jaurti egiten dau, bildurak zigorra dakar-eta. Bildur danak, barriz, ez dau maitasun osoa lortu. Beraz, maite izan daigun Jaungoikoa, lenengo Berak maite izan gaitu-ta. "Maite dot Jaungoikoa" norbaitek toa'diño, ta bere anaiari gorroto ba'dautso, guzurti da: ikusten dauan anaia maite ez ba'dau, zelan maite izan daike ikusten ez dauan Jaungoikoa? Agindu au dogu Jaungoikoagandik: Jaungoikoa maite dauanak, bere anaia be maite izan dagiaia.

Koru-kanta.—Auxe esan neban: Jauna, erruki zakidaz; osatu nagizu, zure aurka pekatu egin dot-eta.—Zoriontsu da, beartsu ta txiroaren ardura dauana; egun ilarrian Jaunak onik atarako dau.

Aleluia, alleluia. — Biurtu beiarria nire itzetara, Jauna; entzun nire deadarra. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 6, 36A2).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Errukior izan zaitze, zuen Aita errukior danez. Inor ez epaitu, ta ez zaitue epaituko; ez inor gaitzetsi, ta ez zaitue gaitzetsiko. Parkatu egizue, ta parkatuko dautsue. Emon egizue, ta emongo yatzue: negurri on, sakatua, betea ta gainezka emongo yatzue altzora: negurru dagizuen negurriaz beraz negurtuko zaitue-ta.»

rpuin antzeko au be esan eutsen: «Itsuak itsuari bidea erakutsi ete-daikeo? Ez ete^dira biak zulora jausiko? Ikaslea ez da irakaslea baino geiago; baiña ikas-

le osoa izango da, bere irakaslea lakoxea ba'dadi Zure anaiaren begian samarra ikusten dozun orrek zer daila-ta ez dozu ikusten zeure begian daukazun abea? Edo-ta, zegaitik dirautsazu zure anaiari «itzi' begiko samarra kenduko dautsut», eta zeure begian abea ez dozu'ikusten? Azaluts ori!, atara egizu lenengo abea zeure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu garbi zure anaiaren begitik samarra kentzeko.»

Ez da Kredo'rile.

Eskintza.—Entzun nire otoi-deia, ene Errege ta jaungoiko orrek!, deika nagokizu-ta.


Opari-otoitza.—Artu biotz onez, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok, eta betikp laguntza izan dakiguceala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Geinetakoa*, 430 orri.

Jaunartzerakoa.—Zure arrigarri guztiak azalduko dodaz; Zeugan poztu ta alaituko naz; Goi-goietakoaren izenari abestuko dautsat.

Azken-otoitza.—Onen sari bikaiñez bete gaituzun ezkeru, Jauna, osasunerako izan dakiguzala ta Zuegoratzen ez gaitezala jñoiuz be a^pertu. Amaibagako





IRUTASUN GUZTIZ DEUNETIK

URRENGO EGUENA:

GORPUZTI EGUNA

l'go. mailla. Zuriz

«Neu egongo naz zuekaz beti, gizaldi guztiak araitu arte.» Geugana dator Jesukristo bere izate guztiaz, bere jaungoikotasun eta gizontasunaz, bere bizitza ta eriotzako iraba. Zi guztiakaz, eta geugaz dago beti altarako Sakramentu guztiz santuan.

Ontasun au ta mesede aundi au gogoratzeko da gaurko jai pozgarria. Ementxe dogu Jesukristo bere ondasun guztiakaz gure arimen janari, ogi ta ardaoaren irudipean. Ementxe gelditu yaku gure arimen bizigarri.

Jaunak egin eta asmauak dira janari guztiak; baiña emen emoten dauskun, baiño janari arrigarriagorik eta jaungoikozkorik, iñon be ez da: Jaungoikoaren berderaren gorputza ta odola, geure janari ta edari, geure opari egiñik, gu jaungoikotuteko, gu jaungoikoaren Seme egiñik, zerurako gei egiteko. Au 'miraria, au bai ontasuna!

Biblia.—Abestirik Ederrena, Cant.: l'etlk 4^{ra}.

M E Z A

Sarrera.—Gari guriz janaritu ebazan, aleluia, ta átxeko eztiz asetu, aleluia, aleluia.—Ps. Goratu egizue <gure zaintzaille dan Jaungoikoa; abestu egiozue Jakob'en Jaungoikoari.—Aintza.

Otoitza.—Sakramentu arrigarri onetan zure nekal-diaren gogorapena itzi dauskuzun Jaungoikoa: eiguazu, zure Gorputz eta Odolaren misterio santuak ospatzen

doguzan ezkerro, zure erospenaren* irabaziak somau dalguzala gugan beti. Amaibagako egunetan Alta Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 11, 23-29).—Anaiok: Jaunagandik ikasi neban zuei irakatsi neutsuen au: Jesus Jaunak, saltzen eben gau aretan, ogia artu ta eskerrak emonda, zatitu ta auxe esan eutsen: «Artu ta jan egizue: au neure gorputza da, zeuen alde emongo dana; egizue au neure gomutaz.» Kra berean apalondoan be, edontzia artu ta esan eban: «Ontzi au Alkartasun Barria da neure odolaz: edan dagizuen baktxean, neure gomutaz egizue.» Eta ogi onetatik jan eta ontzi onetatik edan dagizuen baktxean, Jaunaren eriotza iragarriko dozue, Bera etorri arte.

Beraz iñok bear ez ttanez agi au jan naiz Jaunaren edontziko au edan ba'dagi, Jaunaren gonputz-odolaz errudun izango da. Aztetu begi, bada, baktxak bere barrena, ta orduan ogi onetatik jan begi ta edari onetatik edan: Jaunaren Gorputza aintzatu artu bagarik, bear ez danez jan-edaten dauanak, bere ondamentia jan-edaten dau-ta.

Koru-kanta.—^Guztien begiak Zeuri begira dagoz, jauna; ta Zuk, aldi egokian emoten dautsezu Jana.—Zeure esikua zabalduz, toizidun guztiak onez beteten aozuz.

Aleluia, aleluia. — Nire aragia egiz da janari, ta nire odola benetan edari; nire aragia jan eta nire odola edaten dauana, Neugan dago, ta Ni aregan.

Jarraikia (Akino'tar Tomas deunarena f 1274):

1. Goratu egizu, Sion, zure Salbatzaillea; goratu ereskeriz eta abestiz zure zuzendari ta artzaiña.
2. Zabaldu Aren aintza al dagizunez, gorapen guztien gaiñetik dago-ta; nok A bear dan lez goratu?
3. Gaur ospatzen dogun gai berezia, bizia emoten dauan ogi bizia da.
4. Azken-aparitan amabi apostolui emon eutsen ogia bera.
5. Izan dadilla, ba, betea, zolia, alai ta garbia gure arimearen gorapena:

* Erospen = redención.

6. Janaldi eder au lenegoz egin zan egun aundia ospatzen dogu-ta.
7. Errege barriaren mai onetan, lege barriko Pazko barriak Pazko zaarrari azkena emoten dau.
8. Barriaren aurrean, zaarrak iges egiten dau, baita illunak argiaren aurrean be, ta argiak gaua uxatu. egiten dau.
9. Kristo'k azken-aparitan egin ebana, bere gomutaz egiteko agindu eban.
10. Aren irakatsiakaz argituta, ogia ta ardaoa kon-sagratzen doguz, osasun-opari izateko.
11. Kristauak sinistu egin bear dabe au: ogia aragi biurtzen dala, ta ardaoa odol.
12. Ez ulertzen ez ikusten ez dozuna, izadi-legearen gai. ñetik, sinismen biziak indartzen dau.
13. Zerbitzuen itxurapean, —antza dabe bakarrik, ez dira gauzak—, ondasun aberatsenak gorde-ten dira.
14. Aragia janari da, ta Odola edari; alan be, Kristo osorik dago bietan.
15. Artzen dauanak, ez dau ebagiten, ez zatitzen, ez banatzen: oso-oSbrik artzen dau.
16. Batek artu naiz millek artu, millek aiña batek artzen dau, artuarren ez da amaitzen-eta.
17. Onak eta gaiztoak artzen dabe, baiña ez daroe zori bardina; areintzat bizitza, oneintzat erio-tza da.
18. Gaiztoak il, onak bizi: begira janari berberak egiten dauzan ondoren ezbardiñak!
19. Sakramentua zatitu daitenean, zalantza bagarik gogoratu egizu Jesukristo osoan aiña zatian dagoala.
20. Itxura dana zatituarren, benetan dana ez da zatitzen; Kristo'ren izatea ta gorputza ez dira txi-kitzen.
21. Ona emen Aingeruen janaria, gure bidelagun egi-ña; semeen egiazko ogia, ez daiegun txaku-rrai jaurti.
22. Antz-irudietan iragarri yakun: Isaak opariz eskintzean, Pazko-biidotsa iltean, mana gurasoai emotean.
23. Artzain on, egiazko ogi, Jesus!, erruki zakiguz. Zaindu ta gorde gagizuz; ikusi daiguzala ondasu-nak bizi diranen lurtean (zeruan).

24. Dana dakizun eta al dozun Orrek, emen bizl garan artean zaintzen gozuzan Orrek, egin ga-gizuz an (zeruan) zure maikide, ta Santuen oiñor-dekide ta lagun. Olantxe. Aleluia.

Barri Ona <Jon, 6, 56-59).—Aldi aretan, Jesus'ek ju-dartaldeai auxe esan outsen: Nire aragia benetan ja-naria da, ta nire odola benetan edaria. Nire aragia jaten dauana, ta nire odola edan, Neugan dago, ta Ni aregan. Ni bialdu nenduan Aita bizi danez, eta Ni Ai-tagaitik bizi nazenez, Ni jan nagiana be, Neugandik bizi izango da. Auxe da zerutik jatsi dan ogia. Zuen gurasoak (aurretikoak) basamortuan mana janarren, jI egin ziran: ogi au jan dagiana, barriz, betiko bizi izango da.—*Kredo*.

. Eskintza.—Jaunaren abadeak lurruna (intzentzua) ta ogia eskintzen dautsoe Jaungoikoari; beraz, santu izan bear dabe Jaungoikoarentzat, eta ez loitu Aren ize n a .


Opari-otoitza.—Emon egiozu biotz onez, Jauna, zu-re Elizari alkartasuna ta bakea: emen eskintzen dogu-zan oparigaiok, ezkutupean doai orreik adierazoten dabez-ta. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Geienetakoa*, 430 orri.

Jaunartzerakoa.—Ogi onetatik jan eta ontzi oneta-tik edan dagizuen baktxean, Jaunaren eriotza ira-garriko dozue, Bera etorri arte. Beraz, bear ez danez, ogi au jan naiz Jaunaren edontziko au edan dagiana, Jaunaren gorputz-odolaz errudun izango da. Aleluia.

Azken-otoitza.—Arren, Jauna!, bete gagizuz oso osoan zure Jaungoikotasunaren betiko zorlonaz: zure Gorputz eta Odol eder orreik orain arteak, zorion ori adierazoten dabe-ta. Amaibagako egjunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaun-goiko 'ta Errege bizi z;ara-ta. OJantxe.

Oarra.~Datozen zazpi egunetan, ibildeun edo prozeziñoa egiten dan tokietan, «Eukaristi deunaren» Meza bi esan daitekez, 2^{gn}. maillako Oneraspen-Meza eraz. Gorputzi egu-neko Meza esaten da; Gloria'z, baiña ez Jarraiki'rik, ezta Kredo'rik be.



PENTEKOSTE-OSTEKO 2'GARREN IGANDEA

2'gn. maila. — Orlegiz

Gaurko Meza au, Jaunari zuzenduriko kantu eder bat dala esan daikegu, gure eskarrona agertuez.

Jaungoikoaren ondoren, geure lagun-urkoa maite izan bear, lagun-urkoaganako maitasuna Arenaren ezaugarri da-ta. Benetan artezak eta zorrotzak Jon deunak gaurko Epistolari dakazan itzak: «Ene semetxook: ez daigun maite izan berbaz eta miñez, egiñez eta benetan baiño». Zuzen eta egoki dator au, gizaTte-mailla geienetan azal&keria nagusi danaldi oneitan.

•Eta zer esango ete-dogu beste berfoa oneik irakurtean? «Guk be anaien ailde (lagun-urkoen alde) bizia emon bear dogu». Zoro baten itzak? Ez, Espiritu Santuarenak baiño, Jon ApostoJuaren bidez; eta geuretzat izan be, kristauntzat bete-betean. Eta, argi ikusten denez, geu gabiz okerreko bidetik. Irakurri, irakurri astiro gaurko EpistoJa ezin ohea.

Biblia.—Erregeen l'goa.: 1, l'etik 2, 11'ra; 3; 4, 10-18; 6, 1-16; 7, 2-12; 8'tik 10'era; 12; 15, 1-30.

M E Z A

Sarrera.—Jauna neure zaindari egin da, ta leku zabal batera atara nau; maite naualako salbau nenduan.—Ps. Maite zaitut, Jauna, ene indar! Jauna da nire laguntza, igesleku ta askatzaille.—Aintza.

Otoitza.—Zure izenaganako bildurra ta maitasuna izan daigula beti, Jauna: zeure maitasunean indartzen dozuzanak ez dozuz egundo be bertan-bera izten-eta. Amaibagako.

Irakurgaia (Jon deunaren l'goa.: 3, 13-18).—Gutziz maiteok: Ez zaitze larritu munduak gorroto ba'dautsue. Anaiak maite ba'doguz, ba-dakigu eriotzatik bira aldatuak izan garana. Maite ez dauana, eriotzean datza (dago). Bere anaia begitan dauana, giza-iltzaille da; ta ba-dakizue giza-iltzailleak ez dauana beragan betiko bizitzarik. Jaungoikoaren maitasuna zer dan ba-dakigu, Berak bizia geure alde emon eban-eta. Guk be anaien alde bizia emon bear dogu. Mundu-ondasunak daukazanak, barriz, bere anaia bearrizanetan ikusi ba'dagi (ikusten ba'dau) ta biotza itxi ba'dagio (isten ba-dautso), zelan iraungo dau olakoagan Jaungoikoaren maitasunak? Ene semetxook: ez daigun maite izan berbaz eta miñez, egiñez eta benetan baiño.

• Koru-kanta.—Larrialdian Jaunari egin neutsan deí, ta entzun nenduan,—Jauna, gorde nagizu ezpan guzurtitik eta miin maltzurretiic.

Aleluia, aileluia.—Ene Jaun eta Jaungoikoa!, zeugan dot itxaropena; onik atara nagizu aurrean narabilen guziakandik, eta salbau nagizu. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 14, 16-24).—Aldi aretan, Jesus'ek pariseotarrari ipuin au esan eufcsen: Gizon batek apari eder bat gertatu eban, eta bertara lagun askoi dei egin eutsen. Apalorduan, deitua bere morroia bialdu eutsen etorri zeitezala esatera, aparia gertu egoala-ta. Baiña guztiak aiko-maikoean asi ziran. Lenengoak esan eutsan: «Solo bat erosi dot, eta ikustera joan bear dot; ontzat artu egizu, ba, nire atxeiki au.» Beste batek esan eutsan: «Bost idi-buztarri erosi dodaz, eta areik azeria noa; ontzat artu egidazu, ba, nire I atxeiki au.» Ta beste batek esan eutsan: «Ezkondut egin naz, eta ezin joan naiteke.»

Morroia etxera biurtu zan, eta ugazabari dana azaldu eutsan. Orduan etxeko ugazabak, asarretuta, moI iroiari esan eutsan: «Zoaz arin uriko enparantza ta ka. leetara, ta beartsu, esku-igardun, itsu ta errenak sarrerazo egizuz ona.» Eta morroiak esan eutsan: «Jauna, bete dot zure agindua, eta oraindiño tokia dago.» <Zoaz bide ta esietara, —erantzun eutsan ugazabak—, I eta gogorrean izanda be, sarrerazo egizuz, etxea bete I dakidan. Ba-dirautsuet: deitutako gizon areitariko batek be, ez dau nire aparia txastatuko (miazkatuko).» Kredo.


Eskintza,—Biurtu zaitetz, Jauna, nigana, ta onife atara nagizu; salbau nagizu, errukior zara-ta.

Opari-otoitza.—Garbitu gaizala, Jauna, zure izena. ri eskiñi bearreko opari onek; eta egunetik egunera zeruko bizitza jadetsi-azo daiskula. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa,—Ondasunak emon daustazan Jaunari abestuko dautsat, eta Jaun goienaren izena goratuko dot.

Azken-otoitza.—Doai santu oneik artu doguzan ezkeru, egizu, Jauna: Sakramentu au sarri artzeak geitu daiskula arimaren osasuna. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 2'GARREN IGANDEKO
URBENGO BARIKUA:

JESUS'EN BIOTZ DEUNAREN ÉGUNA

l'go. malla. — Zuriz

Jesukristo gure Jaunaren omenezko jai onek, Aren aragizko biotza gogoratzen dau, barruko maitasunaren azalki zun eta ezaugarri danez. Beraz, Kristo'ren Maitasunaren Jfia da.

Alan be, gaur ospatzen dogunez, ez da antxiñakoa. Kristo bera agertu yakon, 1675'garrenean, Alakoke'tar Margarita Maria ideunari, «gizonak ainbeste maite izaxi dauzan» bere Biotzaren omenez jai bat ospatzeko eskatuaz. Elizak, oneraspen au ontzat artu ta Gompuzti-zortzi biararnoneko barikuan ospatzeko adierazo eban.

Biblia.—Abestirik Ederrena, Cant.: 5'etik 8'ra.

MEZA

Sarrera.—Aren biotzeko asmoak gizaldiz-gizaldi: areih arimak eriotzatik zaintzeko ta gosetean janaritzeko. —*Ps.* Poztu zaitetz Jaunagan, zintzook: zuzenai da-gokie Jauna goratzea.—*Aintza.*

• **Otoitza.**—Gure pekatuak zauritu eben zure Semearen Biotzean, zeure maitasunaren ondasun ezin-agor. tuak errukiz emon dauskuzuzan Jaungoikoa,- eiguзу, gure oneraspen Odeboziño) beroa Berari eskiñirik, zor dautsagun ordaiña be emon daiog'ula. Amaibagako egunetan... eta 'zure Semearen berberaren foidez. Olantxe.



Irakurgaia- (S. Paulo'k Efeso'koai, 3, 8-12, 14-19).—Anaiok: Niri, santuetarik kaskarren oni, grazi au emon izan yat: Kristo'ren aberastasun ulergaitza atzerriai iragartea, ta olako asmoaren mamiña zein dan argitan jartea. Gauza guztien Egille dan Jaungoikoagan betidanik gordeta egoan ezkeru, zeruko nagusi ta altiuo guztiai Elizaren bidez orain agiri dakien Jaungoikoaren jakituri guztitarikoa. Orrela, betidanik izan dauan asmoa, Jesukristo gure Jaunagan bete dau. Beraz, Jaun onegaitik eta Onen sinistez, Jaungoikoagana zabal-zabal eta bildur bagarik sartu gaitezke.

Onexagaitik jarten naz belauniko Jesukristo gure Jaunaren Aitaren aurrean, zeru ta lurrean guraso guztiak izena Arexegandik dabe-ta. Berak, bere zeruko aberastasunai dagokienez, emon dagizuela, bere Espirituaz, Kristau zintzo izateko barru-barruko inder.a. Kristo zuen biotzetan bizi izan dadin; eta maitasunean zusterrek eginda, gogor egon zaitezten: orrela, santu guztiakaz, asmo au dan zabala, luzea, garai ta sakona ulertu daikezuen; eta Jaungoikoaren bizitza bete-bete bizi izanik, jakintza guztia garaitzen dauan Kristo'ren maitasuna ezagutu daikezuen.

Koru-kanta.—Gozoa ta zuzena da Jauna; orregaitik, bidean baztertuai leeea emongo dautse.—Zintzoak zuzenbidetik eroango dauz, ta otzanai bere bi-dea irakatsiko daut-se.

Aleluia, aleluia.—Nire buztarria zuen gaiñean artu ta ikasi egizue Neugandik, gozo ta biotz-apal nazan ezkeru; ta zuen arimentzako bakea aurkituko dozue Aleluia.

Deboziñozko mezetan, Zazpiaste-ondoren, *Aleluia* ordez, urrengo Luzagarri au esan: .

Luzagarria.—Errukior eta biotz-bera da Jauna, zabadata errukiz aberatsa.—Ez da betiko asarratzen, ezta beti zemaika* jardun be.—Ez garabiltz geure pekatuen neurrian, eta ez gaitu zigortzen gure gaitzakerien arauz bere.

Pazkoaldian, Koru-kanta ta Luzagarria ordez, beste au:

Aleluia, aleluia.—Nire buztarfria zuen gaiñean artu ta ikasi egizue Neugandik, gozo ta biotz-apal nazan

* Zemai = amenza.

ezkeru; ta zuen arimentzako bakea aurkibuko dozue. Aleluia.—Zatoze Neugana, nekatu ta atsekabeturik *TA*-gozen guztiok, eta Neuk bizkortuko zaituet.

Barri Ona (Jon, 19, 31-37).—Aldi aretan, Atontze .eguna zan; eta gorpuak larunbatez gurutzean gelditu ez ztitezcan —zapatu a egun aundia zan-eta—, arein belauak ausi ta gorpuak kendu egizala eskatu eutsuen pilatos'i judarrak. Etorri ziran, bada, gudariak; eta le. nengoari toelaun-azurrak ausi egin eutsuezan, baita aregaz gurutzeratua izan zan besteari be. Jesus'egana eldu ziranean, barriz, il zala ikusirik, ez eutsuezan beiaunak ausi; baiña gudari batek aztatnakillaz (lantzaz) saietsa zulatu eutsan, eta bereala odola ta ura urten ziran. Eta ikusi ebanak autortu dau, ta aren autorra U-^uspidea) egiazkoa da: ta arek toa-daki egia diñoana, zuek bere sinistu dagizuen. Guztiok, idatzitakoa jbeta zedin egin ziran: "Azurrik ez dauzsazue ausiko". Ta beste Idatz-lerro batek auxe diño: "Zulatu ebena ikusiko dabe".—*Kredo*.

Eskintza.—Iraña ta naigabea dagokioz nire Biotzari; Nitzaz nor erruki zeitekean zain nengoan, ta iñor ez; nok Ni poztu nendukeain, eta ez neban aurkitu.

Pazkoaldiko deboziñozko Mezetan:.

Eskintza.—Pekatu-ordez ez dozu eskatu erre-oparirik. Orduan, nik auxe esan neban: Ona emen. Idazburuan idatzita dago nitzaz, egin dagidala zeuk nai dozuna. Bai, ene Jaungoiko!: orrelaxe nai izan dot, eta zure legea neure biotz-barrean dago idatzita. Aleluia.

Opari-otoitza.—Begiratu, Jauna, zure, Seme maitearen Biotz-maita^un ezin-esanezkoail; atsegin bekizu eskintzen dauzugun opari au, ta gure pekatuak garbitu dagizala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.


Kanon-aurrea: *Jesus'en Biotzarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Gudari batek aztamakillaz (lantzaz) saietsa zulatu eutsan, eta bereala odola ta ura urten ziran.

Pazkoaldiko deboziñozko Mezetan, beste au:

Jaunartzerakoa.—Egarri dana, betorkit, eta edan begi. Aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Zure Eukaristi onek, Jesus Jauna isuri begi gugan zerutiko sugarra: zure Biotzaren g^a zotasuna miaskaturik, lurreko dana ezetsi ta zeruko dana maitatzen ikasi daigun. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe



PENTEKOSTE-OSTEKO 3'GARREN IGANDEA

2'gn. mallla. — Orlegiz

Pekartari artean agertzen yaku gaur Jesukristo, areik bide onera ekarri nairik. Ipuin baten bidez, pekartaria etxera biurtzean, zeruan aingeruak egiten dabean jaiia adierazoten dauku. Berak daroa bere lepo-gaiñean basoan galdu dan ardia.—Lagun egin daiogun geuk be Kristo'ri arimak zerura vproaten.

Bibíia.—Erregeen l'goa: 16, 1-23; 17, 1-52; 18, 1-16; 19, 1-17; 20, l'tik 21, 10'era; 24; 26, 1-12; 31.

MEZA

Sarrera.—Begiratu nagizu, Jauna, ta erruki zakidaz, bakar eta toartsu nego-ta. Begiratu nire ezereza ta lana, ta parkatu nire pekatu guztiak, ene Jaungoiko orrek!—*Ps.* Zeugana jasoten dot biotza, Jauna; Zeugan dot ustea, ez naz lotsatuko.—Aintza.

Otoitza.—Zeugan itxaroten dabenen Jaungoikoa!, Zeu bagarik ezek ez dau indarrrik, ezer ez da santu; geitu egizu gugan zure errukia; Zeu artzain eta zuzendari zaitugula, emengo ondasunen gaiñetik igaro gaitzezan, •fctekoak ez galtzeko eraz. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Pedro'ren l'goa.: 5, 6-11).—Gutziz raaitoek: Apalak izan zaiteze Jaungoikoaren esku indartsupean, aldi egokian jaso zagiezan. Itzi berari zuen ardura guztiak, zuen arazoa Berak dau-ta. Zur eta zain egon zaiteze: deatoua, zuen arerioa, leoia orroka lez inguruan dabilkizue-ta, norbait iruntsi billa. Go-

gor egiozue sinistez, lurrean dozeuzan anai guztiak neke bardiñetan dagozala jakiñik. Eta neke apur bat jasan dagizuenean, Jesukristo'ren bidez bere betiko ze. rura dei egin dautsuen Jaungoiko grazi guztien emoi" lleak Berak osotu, indartu ta gogortuko zaitue. Bera! ri ospe ta agintaritzza gizaldien gizaldietan. Olantxe"

Koru-kanta.—Itzi Jaunaren eskuetan zure arazoak eta Berak indartuko zaitu.—Arerioak neugana urrel ratzean, Jaunari egin neutsan dei, ta Arek entzun egin eustan.

Aleluia, afleluia. — Jaungoikoa, epaille zuzen, bizkor eta errukiorra da. Egun oro asarratzen ete-yaku? Aleluia.

Barri Ona (Luk., 15, 1-10).—Aldi aretan, zerga-ba-[<]tzaille* ta pekatariak Jesus'egana urreratu ziran, Arek iñoana entzutera. Pariseotar eta idazlariak, barriz, mormoxetan asi ziran, esanez: «Orrek, pekatariak onartu egiten dauz, eta jan be egiten dau arekaz.» Orduan, Jesus'ek ipuin au esan eutsen. «Zuetariko batek eun ardi izan, eta bat galdu ezkeru, iarogeta emeretziaik basoan itzita, ez da galdu dauanaren billa joaten, aurkitu arte? Eta aurkitutakoan, bere lepoanpozik artzen dau; ta etxera elduta, adiskide ta auzokoak batzen dauz, esanez: «Poztu zaitze nigaz, galdu yatan ardia aurkitu dot-eta». Ba-dirautsuet: orrelaxe zeruan be, poz aundiagoa izango da riamutu ta ontzen dan pekatari bategaitik, damu bearrik ez daben larogetfifi emeretzi zintzoakaitik baiño.

Edo-ta, zein emakumek, amar drakma (1) izan eta bat galtzen toa'dau, ez dau kruselua iziotzen eta etxea garbitzen eta arduraz drakma aren billa ibiltzen, aurkitu arte? Ta aurkitutakoan, adiskide ta auzokoak batzen dauz, eta dirautse: «Poztu zaitze nigaz batera, galdu neban drakma aurkitu dot-eta.» Ba-dirautsuet: orrelaxe poz aundia izango da Jaungoikoaren Aingeruen artean garbai (damu) dan pekatari bategaitik.»—*Kredo*.

Eskintza.—Zeugan dago, Jauna, zure izena ezagutzen dabenen itxarapena; billa dabilkizuzanak ez dozuz bertan-bera izten. Abestu egiozue Sion'en bizi danari, beartsuen otoiutzaz ez da aztu-ta.

* Zerga-batzaille = puMicano.

(1) Drakma: urrezko peseta bat besteko dírua.


Opari-otoitza.—Begiratu egizu, Jauna, otoi egiten diarduan zure Elizaren oparigaiok; eta zure zintzoai betiko osasunerako ta santutasunerako izan dakiezala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

jaunartzerakoa.—^Ba-dirautsuet: poz aundia izaten da Jaungoikoaren Aingeruen artean garbai (damu) dan pekatari bategaitik.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi onek bizkortu aagizala, Jauna; eta erru guztiak garbiturik, betiko errukiaren gei egin gazizala. Amaibagako.





PENTEKOSTE-OSTEKO 4'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orleglz

Guk geurez ezin dogu ezer; Jaunak lagunduta, bai. Beraz, Jaunagan jarri bear dogu uste osoa: gure bizitza, osasuna ta gordelekua Bera da-ta. Gure neke-lanak be, Berat bakarrik biurtzen dauz irabazkor.—Arrantzale taldeak, gau osoan arraiñetan ekinñarren, ez dau ezer artu. Baiña Kristo'ren laguntzaz, sareak arrain ugariz beteten dabez. Egin daiguz'n egiteko guztiak Aren izen eta agindupean, eta zeru ederrez sarituko gaitu.

Biblia.—Erregeen 2'igna: 1, 1-12; 1, 17'tik 2, 4'ra; 5, 1-9; 8, 1-15; 7.

M E Z A

Sarrera.—Jauna dot argi ta osasun; noren bildur izan naiteke? Jauna da nire bizitzaren laguntza; nok niri dardar eragin? Ni naigabetzen naben arerioak euirak izan dira makaldu ta jausi diranak.—Ps. Gudarozteak aurka etorri ba'dakidaz be, nire biotzak ez dau bildurrik izango.—Aintza.

Otoitza.—Eiguzu, arren, Jauna: mundu onetako gorra-berak, Zeuk zuzenduta, bakean joan daitezala, ta zure Eliza ipoztu dadilla zure menpean. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai: 8, 18-23).! —Anaiok; Oraingo nekeak ezer ez dira, nire uestez, gero gugan agertuko dan edertasunaren aldean. Jaungoikoaren semeak noz agertuko ete-diran zain dago mundu osoa. Mundua, izan be, uskeripean azpiratuta dago, ez bere gurariz, azpiratu dauanaren egiñez bai-

-o. bera be (mundua be), jistelkeriaganako menpetik skaturik, Jaungoiko-semeen esku'bide ederrera etorriko Halakotan. Bitartean, gizaki guztiak negarrez eta erdi miñez dagozala ba-dakigu-ta. Gizakiak bakarrik ez áero geu be bai, intziriz gagoz, Espiritu Samtuaren asi-kiñaic daukaguzanak, Jaungoikoaren semetzakoa ta gorputzaren eskubidea itxaronez, Jesukristo gure Jaunagan.

¹ Koru-kanta.—Parkatu, Jauna, gure pekatuak; ez hegie atzerritarak esan: Nun dabe euren Jaungoikoa? —Lagun zakiguz, gure osasun zarean Jaungoikoa!, ta zure izen ederragaitik, onik atara gagizuz.

Aleluia, aleluia.—Aulkian jesarrita zuzen eabzten dozun Jaungoikoa: izan zakiez gordeleku beartsuai larrialdian. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 5, 1-11).—Aldi aretan, Jesus Jene-sare'teko zingira* ondoan egoala, gizataldea urreratu yakon, Jaungoikoaren itza entzutera. Eta ur-ertzean txalupa bi ikusi ebazan; arrantzaleak, areitatik urten-dá, sare-garbiketan ziarduen. Bata Simon'ena zan; eta bertara igorik, legorretik apur bat alde egiala eskatu eutsan. Eta jesarririk, txalupatik erriari irakasten asi zan. Itzaldia amaitu ebanean, Simon'i esan eutsan: «Itxaso zabalera jo, ta arrain-sareak bota egizuez.» Simon'ek erantzun eutsan: «Irakasle, gau osoan ekin dauzsagu, ta ez dogu ezer atara; alan be, Zeuk diño-zun ezkerre, sarea botako dot.» Au eginda, sarea urra-tzeraiñoako arrain pillo aundia batu eben.

Beraz, beste txalupako lagunai kiñuka lagun egite-ra etorteko eskatu eutseen. Etorri ziran, ba, eta txalupa biak ondatzeko zorian bete ebezan. Au ikusirik, Simon P«dro Jesus'en oiñetan auzpeztu zan, esanez: «Alde egizu, Jauna, nigandik, gizon pekataria naz-ta.» Arelako arrainketaz, bera ta iagun guztiak arrituta egozan-eta; bardin Santiago ta Jon, Zebedeo'ren seme ta Simon'en lagunak bere. Orduan, Jesus'ek Simon'i auxe esan eutsan: «Ez ikaratu; aurrerantzean, gizon -arrantzale izango zara.» Ta areik, txalupak legorrera Ifterata, dana itzi, ta jarraitu egin eutsoen.—Kredo.

* Zingira: lago.

Eskíntza.—Argítu egízuz nire begiak, erfótzan betiko lo egin ez dagidan; **ez** dagiala nire arerioak esan: Azpiratu dot!

Opari-otoitza.—Baketu zaitetz, Jauna, gure opari-gaiok artzean, eta gure naimen biurri au be Zeugana eroan egizu. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deumarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Jauna da nire indar, igesleku ta salbatzaille; neure Jaungoikoa da nire laguntza."

Azken-otoitza.—Artu dogun Sakramentu onek garbitu gaizala, Jauna, fca zaindu gagizala bere indarrez. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 5'GARREN IGANDEA

2'gn. maila. — Orlegiz.

Lur au, zoritxarrez, ezin-ikusi ta grña txarrez beterik daukagu; erri artean, banatuta; etxeetan, gorrotoz. Gaurke mezako irakatsia ederto datorkigu; maifasuna. Kristau gar(e)anez, alkar maite izan bear dogu, bakean bizi izan eta zerua irabazteko. Orretarako, ez yako iñori kalterik egin bear, ez miñez, ez egiñez. (Bai, ostera, parkatu, arerioai eura¹ bere.

Biblia.—Erregeen 2'gna.: II, 14'tik 12, 25'era; 15; 16, 5-14; 17, 1'etik 19, 6'ra; 23, 1-7; 24, 10-25.

M E Z A

Sarrera.—Entzun, Jauna, nire eskariak, deika nagokizu-ta; Zeu zara niire laguntzaille; ez nagizu bakkarik itzi, ezta baztertu be, osasun zaitudan Jaungoiko orrek!—*Ps.* Jauna dot argi ta osasun; noren bildur izan naiteke?—Aintza,

Otoitza.—^Maite zaituenai agiri ez diran ondasmiaik gertu dautsezuzan Jaungoikoa: jsuri egizu gure biotzetan zure maitasun-garra; danean eta guztien gaiñetik Zeu maite izanik, gurari guztiak baiño gorago dagozan zure agintzariak jadetsi daiguzan. Amaibagako.

tarakoxe zaree deituak-eta, onespeneren jabegei izan zaitezten. Bizia maite dauanak, eta egun onak ikusi nai dauzanak, zaindu begi miña gatxetik, eta ez begi erabilli ezpanetan guzurrik. Aldendu bedi gatxetik, ona egin; billatu begi bakea ta ari jarraitu begio: Jaunaren begiak zintzoen gainean dagoz-ta; Beré belarriak, barriz, bizkor, aren eskariak entzuteko. Baiña Jaunaren 'bekozkoa gaiztoen aurka dago. On danaren ardura ba'dozue, nok egingo dautsue kalte? Zoriontsu zuok, zuzentasunagaitik zerbait jasan* ba'dagizue! Ez egizue zuen arerioen bildurrik izan, ezta bakerik galdu be, Santu izan zaiteze, ostera, Kristo Jauna zeuen biotzetan eukirik.

Koru-kanta.—Begiratu, Jaungoiko gure zaintzaille!, zure menpekook.—Indarren Jaungoiko Jauna!, entzun zure menpekoen eskariak.

Aleluia, aleluia.—Jauna, zure indarraz erregea poztu egingo da, ta zure laguntzak pozez beterik jarriko dau. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 5, 20-24).—Aldd aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan utesen: Zuen zuzentasuna idazlari ta pariseotarrena baiño ugariagoa ez ba'da, ez zaree zeruko erreñuan sartuko. Entzun dozue antxiñakoai esandako au: "Ez iñor il, iltzaillea auzitegian errudun da-ta." Nik, barriz, geiagi dirautsuet: bere aniaz a^arretu daitena, auzitegian errudun izango da; eta bere anaiari *kirten* esan dagiona, batzarrean errudun izango da; ta *zoro* esan dagiona, inpernuko sugarri izango da. Beraz, zure oparia altarara eroatean, eta an zure anaiak zure aurka zerbait ba-dauala gogoratzen ba'dozu, oparia altara-ondoan itzirik, zoaz lenengo zeure aniaz adiskidetzera, ta orduan, etorri-rik, eskiñiko dozu zure oparia.—*Kredo*.

Eskintza.—Bedeinkatuko dot irakatsi ona emoiñ dausitan Jauna; Jaungoikoa beti begi-aurrean daroat; eskumaldean daukat, kili-kolorik egin ez dagidan.

Opari-otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna, gure eskariak, eta artu samurkiro zure morroi ta mirabeen oparigaioek: bakotxak zeure izenaren omenez eskiñi dauana, guztiai osasungarri izan dakien. Amaibagako.

* Jasan = suñrir.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa.—^Auxe bakarrik eskatu dautsat Jauna^{na}vi, ta auxe gura dot barru-barrutik: nire bizitzako egun guztietan Jaunaren etxean bizi nadilla,

Azken-otoitza.—Zeruko doaz bete gaituzunok, Jauna^{na}, pekatu ezkutuetatik garbitu gagizuz, eta arerioen maltzurkerietatik zaindu. Amaibagako.





PENTEKOSTE-OSTEKO 6*GARREN IGANDEA

2^{gn}. mallla. — Orlegiz

II eta bizi: orra kristau bizitzako gora-bera guztia; illu, netik argitara etorri, eriotzatik bizitzara, pekatutik grazi *Jaizira, Jaungoiko-bizitzara igaro. Bizi au bateoak ipini eban lenengoz gure arimetan. Bizi onetan irauteko, eten bagako alegiñak egin bear; barruan doguzan ona ta txarra bata besteagaz burrukan dabiz beti, ta goiko indarra bear, txarrari geiago egin al izateko. Eukaristian daukagu indar ori; Berak indartuko gaitu, makalduta bide-erdian gelditu ez gaitazan.

Biblia.—Erregeen 3^{gna}.: 1, 5 40; 3; 5, 9-20; 10, 1-13 U, 1-13.

M E Z A

Sarrera.—Jauna da bere erriaren indar eta gordeleku. Salbau egizu, Jauna, zure erria; bedeinkatu ta zuzendu egizu beti.—Ps. Zeuri egingo dautsut dei, Jauna; ez zakidaz isilik egon, ene Jaungoiko!, erantzunik emon bagarik, illobira jausten diranakaz bardindu ez naiten.—Aintza.

Otoitza.—Gauza on guztien iturburu zarezan Jaungoiko indartsua: sartu egizu gure biotzetan zure izenaganako maitasuna, ta geitu guban zeureak izateko gogo; on dana geitu dagiguzun, eta Zeuk indartu ta zaindurik, irauñ dagian. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai, 6, 3-11).—Anaiok: Jesukristo'ren izenean bateatuak izan gareanok, Aren eriotzarako bateatuak izan gara. Izan be, bateoaz Kris-

r

to'gaz lurperatuak izan gara, Kristo illen artetik Aitar-en aintzarako biztu zanez, geu be bizikera barriz ibilli gaitazan. Aren eriotzaren antzera Beragaz mentu* Eginda ba'gagoz, Aren berbikundeaz be bardin jazoko yaku-ta.

Ondo dakigu, gure gizaki zaarra Aregaz batera gurutzean josia izan dala, guban pekatuaren gorputza austuta gero, pekatuaren menpeko bein be izan ez gaitazan. II dana, pekatutik urtenda dago-ta. Gu Kristo'gaz il ba'gara, barriz, Beragaz bizi izango gareala sinisten dogu: Kristo, illen artetik biztu ondoren, ilten ez 'dala ba-dakigu-ta: aurrerantzean eriotzak ez dau Aregan eskubiderik izango. II *zan dana, barriz, pekatua austeko il zanez, bein betiko il zan; baiña bizi dana, Jaungoikoarentzat bizi da. Bardin zuek be, gogoratu egizue bafeoaz pekatuarentzat ilda zagozela, ta Jaungoikoarentzat bizi zareela, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Biurtu zaitez apur bat geugana, Jauna, ta entzun egizuz zure menpokoan eskariak,—Zeu izan zara, Jauna, gure gordeleku gizaldiz gizaldí.

Aleluia, ale'luia.—Zeugan itxaroten dot, Jauna; ez nadilla iñoiz be lotsatu; askatu nagizu zeure zuzentasanagaitik, eta salbau nagizu; entzun nire eskaria, zatoz arin ni salbatzera. Aleluia.

B?,rri Ona (Mark., 8, 1-9).—Aldi aretan, Jesus'egaz gizatalde aundia egoala, ta jatekorik ez, bere ikasleai dei egin eta auxe esan eutsen. «Gizatalde oni erruki nako, iru egunotan Neugaz dabiltz eta jatekorik ez dabe-ta. Euren etxeetara baraurik bialdu ba'dagidaz, barriz, ondezik jarriko dira bidean, orreitariko batzuk urrindik etorri dira-ta.» Ikasleak erantzun eutsen: «Nundik atarako dogu basamortu onetan, gizatalde aundi au asetzeko beste ogi?» Jesus'ek itandu eutsen: «Zenbat ogi daukazuez?» Areik erantzun eutsen: «Zazpi.»

Eta gizataldeari lurgaiñean jesarteko agindu eutsan. Gero, zazpi ogiak arturik, eskerrak emonda ta zatituta, bere ikasleai emon eutsezan, oneik an ziran gutziai banatu egiezan; eta ikasleak banatu egin eutsezan. Arraintxo batzuk be ba-ebezan, eta areik be

Mentu = injerto.

bedeinkatuta, guztiai banantzeko agindu eutsen. Guzti-guztiak bete ziran; eta gelditu ziran ondakiñez zazpi otzara bete jaso ebezan. Jan ebenak, barriz, lau millaren bat ziran. Orduan, bialdu egin ebazan.—Kredo.



Eskintza.—Índartu egizuz nire oiñak zure bideetan, alboraka ibilli ez daitezán; makurtu egizu nigana zure belarria ta entzun nire eskariak. Agertu egizu zure ontasuna, Zeugan itxaroten dabenak onik ataraten dozuz-ta.

Opari-otoitza.—Entzun egizuz samurkiro, Jauna, gure eskariak, eta onartu egizuz biotz onez zure erriaren aparigaiok; eta gure gurari ta otoitzak alperreko izan ez daitezán, eiguzu, sinismenez eskatzen doguna, egitan lortu daigula. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa.—Aren altara-aurrean pozezko opariak eskiñiko dodaz; eresiz abestuko dautsat Jaunari.

Azken-otoitza.—Zure doaz beteta gagozan ezker, Jauna, euron indarrez garbitu gaitezala, ta euron launtzak gogortu gagingala. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 7^GARREN IGANDEA

2^gn. maila. — Orlegiz

Kristauak, Jaungoikoaren menrpean bizi izan bear dau: auxe <ia gaurko Mezeak gure biziaren legetzat gogotara daskargigun egia. Jaungoikoaren menpean bizi: berbaz eta itxuraz bakarrik ez, baita egiz eta benetan be. Jaungoikoarenak gareala geure egitadakaz erakutsi; gorputz eta arima Jaunarenak izan. Orretara jo bear dabe gure alegiñak, gure neke ta otoiak.

BiMia.—Erregeen 3^igna.: 11, 26^tik 13, 6^ra; 16, 29^tik 19, 21^ra; 21, 1-24; 22, 7-38.^Erregeen 4^gna. 2, 1-14.

M E Z A

Sarrera.—Jo egizuez txaloak, erri guztiok; goratu Jauna kantu alai.—*Ps.* Jauna aundíetan aundiena Bera da-ta; Bera da lur guztiko errege aundia.—^Aintza.

Otoitza.—Zure asmoetan utsik egiten ez dozun Jaungoikoa, urrindu gugandik kaltegarri yakun guztia. ta emon eiguzu gure onerako dan guztia. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo^k Erroma^koai: 6, 19-23). Anaiok. Aragiz argalak zareen ezker, giza bidez airautsuet: zuen gorputza len loikerirako ta gaiztake-riak egiteko erabilli zenduen lez, orain zintzo izateko zuzentasunaren menpera ekarri dagízuela. Pekatuaren azipian bizi zintzazenean, zintzo izateko eskubidea zenduen (zeuken). Baiña ortik, zer atara zenduen onik ? Orain lotsatu egiten zaree. Gaiztakeri orreiri osteko, barriz, eriotza zenduen. Orain, pekatuaren menpetik urtenda, Jaungoikoaren morroi eginda zagozen

ezkero, santutasuna dozue frututzat, eta betiko bizi-tza elburutzat. Pekatuaren saria, eriotza da-ta; Jaungoikoaren doaia, barriz, betiko bizi-tza, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Etorri zakidaze, semeok, eta entzun: Jaunaren bildurra irakatsiko dautsuet.—TJrreratu zakioze, ta argitu egingo zaitue, ta zuen arpegiak ez dira lotsatuko.

Aleluia, aleluia.—Jo egizuez txaloak, erri guztiok; goratu Jauna kantu alaiz. Aleluia.

Barrí Ona (Mat., 7, 15-21).—Aldi aretan Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Arduraz bizi, barrutik otso-lapurrak izanik, ardi-narruz datorkizuezan igarale guzurrezkoai buruz. Euren egiñetatik ezagutuko dozuez. Elorritik matsa, edo sasitik pikoak batzen eta -d'fra? Alantxe, ba: zugatz onak arnari (frutu) ona emoten dau; zugatz txarrak, frutu txar. Zugatz onak frutu txarrak ezin emon daike; ezta frutu onik be zugatz txarrak. Prutu onik ez dakarren zugatza, ebagt ta sutara jaurtiko dabe. Beraz, arelakoak euren fruetetatik (egitadetatik) ezagutuko dozuez. Ez da nire erreñuan sartuko, niri «Jauna, Jauna» diraustan edo-i nor; zeruan dagoan nire Aitaren naia bete dagiana baiño: orixe sartuko da zeruko erreñuan.—*Kredo.*

Esrintza,—Beñolako adari, zekor eta millaka bildots gizenen erre-opariak baizen atsegingarri izan bekizu, Jauna, gaurko gure opari au: Zeugan itxaroten dauanik ez da lotsatzen-eta.

Opari-otoitza.—Jaungoikoa! Onartu egizu zure menpeko zintzook eskintzen dautsugun apari au, ta bedelnkatu egizu Abel'en oparia lez; eta bakotxak zure izen audiaren omenez ©skiñi dauana, guztien osasunerako izan dadilla. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena,* 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Makurtu nigana zure belarria; zataz arin ni salbatzera.

Azken-otoitza.—Zuk emon daukuzun eragin osangarriak, Jauna, gaiztakeritik atara ta bide zuzenetik aurrera egiteko eroan gagingala. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 8'GARREN IGANDEA

Z'gn. mailla. — Orlegiz

Lengo domekako arloari ekiñez, gaur be Jaungoikoaren menpean bizi ta ibilli bear dogun era irakasten yaku. Menpetasun au, bateatu gintzazan ezkero zor dautsagu Jaunarl. Zelako tnenpetasuna, baiña? Bildurrezkoa bagarik, semeai dagokien maitasunezkoa; geure egiñetan aragiaren naikeriari bagarik, sinismenaren argiari erantzuten dautsagula. Batetik. gure naimen edo borondateari bultza egin bear dautsagu, Jaunaren esanera ibilli gaitazan; eta, bestetik, jakitun egon bear dogu Jaungoikoagandik bakarrrik datorkigula orretarako lagtmtasuna.

Biblia.—[^]Erregeen 4'gna.: 4, l'etik 5, 19Ta; 6; 7; 9; 11; 13, 14-21; 18, l'etik 20, 11'ra; 25. 1-21.

M E Z A

Sarrera.—Zeure elizaren aurrean, Jaungoiko, izan dogu aure errukia: zure izena, Jaungoiko!, aundia da-ta; zure aintza 'be lurraren ertzeragiño zabaltzen da; zuzentasunez gafiñezka dago zure eskuma.—*Ps.* Jauna aundia da ta guztiz goragarria: gure Jaungoikoaren urian, bere mendi santuan.—*Aintza.*

Otoitza.—Emon egizu, arren, Jauna, beti zuzen dana gogoan erabilli ta egiteko ardura bizia; eta Zeu bagarik ezin bizi garean ezkero, Zeuk nai dozun bizikera eroan dagigula. Amaibagako.

Irakurgai (S. Paulo'k Erroma'koai: 8, 12-17).—Anaiok: ez dautsagu aragiari ezer zor, aragiaren erartara bizi izateko. Aragiaren erartara bizi ba'zaree, il

egingo zaree; gogoaren indarrez aragiaren zalekeriak zapaltzen ba'dozuez, barriz, bizi izango zaree. Jaungoikoaren Arnasak (Espiritu Santuak) darabizanak, Jaungoikoaren Seme dira. Zuek artu dozuen biotza BZ da morroi-biotza, len lez bildurrez ibiltekoa; se-raetzako biotza artu dozue, ta onen indarrez Jaungoikoari «Abba, Aita!» dei égiten dautsagu. Espiritu Santuak berak dirautso gure biotzari seme gareala; seme ba'gara, barriz, oiñordeko be ba-gara; Jaungoikoaren oiñordeko gara, izan be, ta Krito'ren oiñorde-lagan.

Koru-kanta.—Izan zakidaz beti, Jaungoiko!, zaindari ta gordeleku, salbau nagizun. Zeugan jarri dot itxaropena, ene Jaungoiko; Jauna, ez nadilla betiko lotsatu.

Aleluia, aleluia. — Jauna aundia da ta guzitiz go-ragarria gure Jaungoikoaren urian, bere mendi santuan. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 16, 1-9).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Gizon aberats batek etxezain bat eban; eta ogasunak ondatu eutsazala-ta, ugazabari salatu egin eutsoen. Eta beragana deiturik, esan eutsan: «Zer da zutzaz dirausten ori? Garbitu egidazuz etxezaintza artu-emonak, onezkero nire etxezain ezin izan zaitezke-ta.»

Orduan, etxezaiñak berekautan esan eban: «Zer egingo dot, nire ugazabak etxezaintza kentzen dautan ezker? Atxurran? Ezin daiket. Eskean ibilli? Lotsatu egiten naz. Ba-dakit zer egin, etxezaintza kendu daistenean, beste batzuek euren etxeetan artu nagien.» Beraz, banan-banan bere ugazabaren zordunai dei egiñik, lenengoari esan eutsan: «Zenbat zor dautsazu nire ugazabari?» Arek erantzun eutsan: «Eun upa orio.» <(1). Ta etxezaiñak esan eutsan: «Artu zure ordain-agiria, jesarri arin eta idatzi: berrogei ta amar.» Gero, beste bati itandu eutsan: «Eta zuk zenbat zor 'dozu?» Arek erantzun eutsan «Eun anega gari» (2). Ta etxezaiñak esan eutsan: «Artu zure zor-agiria, ta idatzi: larogei.»

(1) Lau mill_a litro orio.

(2) Berrogei imilla killo gari.

Eta ugazabak etxezain maltzur a goratu egin eban, **zur** jokatu ebalako; gizaldi onetako semeak, euren al-jar artu-emonetan, argiaren seméak baiño zurragoak dira-ta. Ba-dirautsuet: ondasun txarren bidez adiski-deak geitu egizuez, il zaitezenean, betiko aterpean artu zagiezan.—*Kredo*.

Eskintza.—Erri apala gora jaso ta arroen begiak beera erasten dozuz, Jauna. Izan be, Zeu izan ezik, jauna, nor Jaungoiko ?


Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, Zeuk esku zabalez emondarikoetatjk eskintzen dautsuguzan opari-gaiok: zure graziaren indarrez, bizitza onetan santu-pj ta betiko pozlekura eroan gagiezan, Amaibagako.

• Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

• **Jaunartzerakoa**.—[^]Zeuk jan eta ikusi egizue gure jaunaren gozotasuna; zoriontsua Aregan sinisten dauana!

Azken-otoitza.—Zeruko Sakramentu au, gorputz-arímen osagarri izan dakigula, Jauna, eta ospatu dogunaren indar osangarria somau daigula gugan. Amaibagako.





PENTEKOSTEOSTEKO 9'GARREN IGANDEA

2^{gn.} mailla. — Orlegiz

Kristau guztiok gara Eliza Ama deunaren seme, Jeru sallen barri onetako erritar; eta egunero datorkigu geure ar-tera gure Jauna, bere graziaz. Baiña Jaunaren etorrera onek geure erantzuna eskatzen dau. Ez-entzun egiten ba'dautsagu Jaunari, oker aundi ta zigor gogorrek etorriko ez ete-yakuzan bildur izateko gara; zintzo erantzuten ba'dautsagu, os-tera, bakea ta poza izango dogu geure barruan, eta ondo-ondoan sornauko dogu Jaunaren Jaguntasuna.

Biblia.—Edestiak, Cron. 1: 16; 22, 6-16; 29, 20-30; Cron. 2-5'etik 7'ra; 15, 1-19; 20, 1-30; 33, 1-17; 34; 35, 20 25.—Rut: 1 1-18; 2, 1-17.

M E Z A

Sarrera.—Jaungoikoa dot laguntzaille, alboan dot Jauna neuri eusten; Berak ausiko dauz nire arerioen asmo gaiztoak; ondatu egizuz zure zulentasunez, ene Jaungoiko ta zaindari orrek!—Ps. Salbau nagizu, Jaungoiko orrek!, zeure izenagaitik, eta zaindu nagizu zeu-re al-izatez.—Aintza.

Otoitza.—Zabaldu beitez zure ermkiaren belarriak. Jauna, dei egiten dautsuenen eskariak entzuteko; eta eskatzen dabena lortu dagien, zeure gogoko dana escatu dagiela. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 10, 6-13).— Anaiok: Ez egizue izan naikeri zantarrrik, gure antxiñakoak lez. Ez egizue artu guzurrezko jaungoikorik, areitariko batzuek lez, idatzita dagoanez: "Jan-

edanerako etzun, eta olgetarako jagi ziran". Ez daigun aragikeririk be egin, areitariko batzuek egin eben lez: euretariko iru nilla il ziran orrexegaitik gau baten. Ez daigun zirikatu Jauna; areitariko batzuek ori egin ebelako, sugeak aginka eginda il ziran. Ez egiozue mormoxetan ekin, euretariko batzuk, aingeru ezpatadunak jota il ziranak lez. Oker guztiok ikasbidetzat jazo yakeezan arei, eta azken aldiotan bizi gareanon zentzagarri* izateko dagoz idatzita.

Beraz, zutunik dagoana, bego zur, jausi ez dadin. Ez dozue izan gizonen indarrez gorako tentaziñorik; zintzoa dozue Jaungoikoa, ta ez dautsue itziko zuen indarrez gaiñeko tentaziñorik; tentaziñoaz batera, barriz, zutik egoteko indarra be emongo dautsue.

Koru-kanta.—Jauna, gure Jauna!, bai arñgarria zure izena lur osoan! Zeruak baiño gorago dago zure aunditasuna.

Aleluia, aleluía.—Onik atara nagizu, ene Jaungoiko orrek!, nire arerioakandik; aurrean narabillena-kandik gorde nagizu. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 19, 41-47).—Aldi aretan, Jesus Jerusalem'era urreratzean, uria ikusirik, negarrez esaten asi zan: «Zuk be ezagutu ba'zengi, zure egun onetan beintzat, bakerako zaroazana! Orain, barriz, zure begientzat estalduta dago. Zure arerioak esiz* inguratu, barruan artu ta alde guztietatik estutuko zaituen egunak etorriko yatzuz-ta. Zu ta zugan diran zure semeak, lurreragiño beeratuko zaitue, ta arririk arri-gaiñean ez dabe itziko, zure ikustaldi-eguna ez dozu ezagutu-ta.» Gero, eliza nagusian sarturik, an saldu-erosian ziarduenak kanpora bialtzen asi zan, esanez: «Idatzita dago: Nire etxea otoi-etxe da; baiña zuek lapur-zulo egin dozue!» Eta egun oro elizan irakasten ziarduan.—Kredo.

Eskintza.—Jaungoikoaren aginduak zuzenak dira, ta biotzaren pozgarr;i Aren erabagiak ezti-orrizia* baiño gozoago; orregaitik, zure menipeko onek bete egin dauz.

Opari-otoitza.—Egizu, Jauna, misterio oneik bear dan lez sarri ospatu daiguzala: opari au egiten dan

* Zentzagarri = escarniento.


* Esi = trinchera, cerca. * Ezti-orrizi = panal de miel

bakotxean, geure erospena barrizten da-ta. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.— Nire aragia jan eta nire odola edaten dauana, Neugan dago, ta Ni aregan, dtño jaunak.

Azken-otoitza.—Zure Sakramentua artzeak, Jauna, garbitu dagizala gure pekatuak, eta alkarreganako batasuna pmon daiskula. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 10'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orlegiz

Elizan batzen garean guztietan, Eliza osoaren alkarta suna ikusten dogu: guztiok egiten dogu bat emen; guztiok bateo berberak, sinismen berberak eta maitasun berberak al kartzen gaitu. Baiña Espiritu Santuak eraginda, bakotxak bere egikizunak daukaz gure ertean: abadea guztion buru ta beste guztiok bere lagun, beragaz batera opari berbera, otoi ta gorapen berberak Jaungoikoari eskintzen. Ez da emen bakotxaren izen utsezko eskintzarik, eta bai guztion izeneko, Kristo'ren izeneko opari ta otoiitak.

Biblia.—Esdras: 1, 1-1-1; 9, 1'etik 10, 14'ra.—Neemias: 1, 1'etik 2, 10'era; 5, 1-13; 8; 9.

M'E Z A

Sarrera.—Jaunari dei egin neutsanean, entzun egin eustazan nire eskariak; nire aurka datozenakandik onik atara nau; betikoa danak azpian jarri dauz. Itzi egiozu Jaunari zure arazoa, ta Bsrak indartuko zaitu. —Ps. Entzun, Jaungoiko!, nire otoia, ta ez egizu baztertu nire eskaria; lagun zakidaz, eta entzun.—'Aintza,

JOitza.—Zure esku algutiduna, parkatzen eta erruki izaten batez be agertzen dozun Jaungoikoa: isuri eiguzu eurrez zure grazia; zure agintzarien atzetik arin ibillirik, zeruko ondasunen jabe egin gazizuzan. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 1'goa.: 12, 2-11).—Anaiok: Fedebageak zintzazela, ba-dakizue guzurrezko jaungoiko mutuen irudietara berez eroanda

lez joaten zintzazela. Orregaitik, ba, jakitun jarten zaituet orain: Jaungoikoak eraginda diarduanik irioit be ez dautso Jesus'i biraorik egiten, eta iñok be ez daike Jesus Jauntzat autortu, Espiritu Santuak eragin ezik. Graziak, barriz, askotarikoak dira; baiña Espiritu Santua, bat bera; askotariko egikizunak doguz; baiña Jauna, bat; askotariko eginbideak doguz; baiña Jaungoiko berbera da guztietan dana egiten dauana. Eta baktoxari Espiritu Santuak irakasten dautsana guztien onerako da.

Espiritu orrek, batari jakituri-itza emoten dautso besteari, Espiritu berberak, irakasteko berba jakintsua; orkoari, Espiritu berberak, sinismena; angoari Espiritu berberaz geisoak osatzeko grazia; urrungoari mirarlak egiteko indarra; oni, igartekoa; ari, edozein barru-jokera bereiztekoa; urliari, izkera arrotzez bera egitekoa; berendiari, edozein esakera ulertzeko grazia. Egiteko guztiok, barriz, Espiritu berberak egiten dauz, baktoxari Berak gura dauan lez emonik.

Koru-kanta.—Gorde nagizu, Jauna, betseña* íez; artu nagizu zeure egapean. Zeure agoak garbitu begi nire auzia, ta ikusi dagiela zure begiak nire zuzentasuna.

Aleluia, alefluia. — Zeuri dagokizu, Jauna, Sion'en ereserkia: Zeuri eskiñiko yatzu Jerusalem'en oparia. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 18, 9-14).—Aldi aretan, euren buurak zintzotzat eta besteak gaiztotzat ebezan batzui, Jesus'ek ipuin au esan eutsen: Jaunaren etxera otoi egibera, gizon bi igo ziran; bata pariseotarra. ta bestea zergabatzaillea. Pariseotarrak, zutik, berekaitan iñoan: «Ene Jaungoikoa!, eskerrak emoten dautsudaz beste gizonak lakoia edo orrelako zergari ori lez, lapur, oker eta ezkontzanastaille* ez nazalako. Aste oro birritan egiten dot barau, eia nire ondasun guztien amarrenak emoten dodaz.»

Zergariak, barriz, an urrunean egoala, begiak zerruruntz jasoteko be ez ebaxi arpegirik; eta bular-joka Iñoan: «Ene Jaungoikoa!, erruki zakidaz, pekatari naz-ta.» Ba-dirautsuet: au bere etxera zintzotuta biur-

tu zan; ez, ostera, 'bestea. Goratu daitena, beeratua yango da-ta; beeratu daitena, barriz, goratua.—Kredo.


Eskintza.—Zeugana jaso dot biotza, Jauna: zeugan itxaroten dot, ene Jaungoiko!, ez naz íotsatuko. Ez naitela arerioen loteagarri izan; zeugan uste ona izan dagianak, ez dira galduko-ta.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, zuri eskiñitako opariok; zeure izenaren gorapenerako ta geure onerario eskintzeko emon zeuskuzan-eta. Amafbagako.


Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Zuzentasun-eskintzak, oparigaiak eta erre-opariak ontzat artuko dozuz, Jauna, zeure altaran.

Azken-otoitza.—Arren, gure Jaun eta Jaungoiko orrek!, zure jaungoikozko sakramentuaz beti indartzen gozuzanok, ez gagizuz zure laguntza bagarik itzi. Amabagako.



* Betseln = niña del ojo. * Ezkontzanastaille = adúltero.



PENTEKOSTE-OSTEKO II'GARREN IGANDEA 1

2^{gn}. mailla. — Orlegiz

Jesus'ek bere lege santua irakatsi dausku: guk, a meata eta zeatz beterik, bere odol gurenak emondakoa jadetsi daigun. Paulo deunak auxe berau dirausku bere irakurgaian, baita Eliza Amak be, Kristo'ren jarraitzaile guztiok Oneri legepean ikusi nairik.

Baiña askok, zoritxarrez, ez dabe olakotzat artu nai; Aren deiari entzungor egiten dautsoe, lotsa dira-ta, edo grifia-sare artean bizi. Gor orreik bai dabela, Jaungoikoak be-larriak edegi ta gogo-miña askatu bearra! Toki santuan guztiok gogo batek alkartuta bizi gaitezan.

Oiblia.—Esakunak, Prov.: 1, 1-7; 1, 20'tik 3, 26'ra; 4; 8; 9; 15; 16; 23, 19-35; 24, 23-34; 26, 13-26; 31.—Gogoetak, Ecle.: 1, 1-11; 12.

M E Z A

Sarrera.—Jaungoikoa bere toki santuan dago; beartsuai etxea emoten dautse, ta bere erriari kementa ta indarra.—Ps. Jagi 'bedi Jaungoikoa ta ondatu begiz bere arerioak; iges egin begie Aren aurretik.—Aintza.

Otoitza.—Zure ontasan amaibageaz gure irabazi* ta eskariak eurrez beteten dozuan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: isuri eizuzu zure errukia, gure barruak bildur dautsana parkatu dagizun eta gure otoitzak eskatzen dautsuna baiño geiago emon daiguzun. Amaibagako.

* Irabaziak = merecimientos.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 15, 1-10).—Anaiok: Nik iragarrita artu dozuen Barri Ona (Ebanjelioa) azalduko dautsuet; eta nik irakatsitakoai eusten ba'dautsazue, gogor iraungo dozue bertan; eta bide orretatik ibillirik, osasunera etorriko zaree; bestela, alperrik sinistu dozue-ta. Lenengo, neuk ikasi nebana irakatsi dautsuet: Kristo geure pekatuakaitik il zala, idatzita dagoanez; lurperatu, ta irugarren egunean biztu egin zala, au be idatzita dagoanez. Eta Pedro'k ikusi dauala biztuta; gero amaikak, eta onein ondoren, bosteun anak baiño geiagok batera; areitariko geienak bizi dira oraindiño; batzuk, barriz, il.

Santiago'ri be agertu yakon, eta gero Apostolu guztiai be 'bai; azkenez, barriz, neuri agertu yatan, illor* lako oni. Apostoluetarik txikiena neu naz-ta; eta Apostolu izenez agertzeko be ez naz nor, Jaunigoikoaren Elizea au'Tean erabilli dot-eta. Alan be, nazan au, Jaungoikoaren graziaz naz; eta Aren grazia ez da nigan alperrik izan.

Koru-kanta.—Nire biotzak Jaungoikoagan jarri dau itxaropena, ta izan dot laguntza; nire biotza birloratu egin da, ta biotz-biotzez autortuko dot Jauna. Zeun egin dautsuet dei, Jauna; ez zakidaz isilik egon, ez zakidaz urrindu.

Alelnia, aleluia.—^Goratu egizue gure laguntza dan Jaungoikoa, goratu egizue Jakob'en Jaungoikoa; eresi gozo bat abestu egizue, zitaraz lagunduta. Aleluia,

Barri Ona (Mark., 7, 31³⁷).—Aldi aretan, Jesus'ek, Tiro'ko bazterraldetik urtenda, Sidon-zear Galilea'ko itxasoruntz jo eban, Dekapolis-mugetatik. Eta gizon gor eta mutu bat ekarri eutsoen, aren gaiñean eskuak ezarteko Jesus'i eskatzen eutsoela. Onek, gizona artu ta gizataldeagandik alde-egiñik, mutuaeren belarrietan atzamarrak sartu ta miñean txistu (txu) egin eutsan: gero zeruruntz begiraturik eta antzi (zizpuru) eginda, dirautso: «Epheta», au da, «zatoaldu zaitez». Eta beingoan aren belarriak zabaldu ta miin-lokarria askaturik, garbi benba egiten asi zan. Eta iñori ezer ez esateko agindu eutsen; baiña Jesus'ek gogorrigo agindu, ta besteak barria geiago zabaltzen eben. Arrituta egozan,

* Illor = adoptivo.

eta iñoen: «Guztia pndo egin dau; gorrai entzutea ta mutuai berba egitea empn dautse.»—*Kredo*.


Eskintza.—Geratukp zaitut, Jauna, gora jasp ncn zu-ta; nire lepptik barre egiten areripai ez dautsezu itzi-ta; Zeuri, Jauna, egin neutsun dei, ta Zuk osatu egin nenduzun.

Opari-otoitza.—Ikusi egizu samurkirp, Jauna, gurfl menpetasuna; eta eskintzen dautsuguna, ppari atse-gingarri izan dakizula ta gure argaltasunaren bizkor-garri izan dadilla. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasan deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Eskiñi Jaunari daukazun guztia ta frutuen asikiñiak; eta zure sabaia garauz gpraiño betekp da, ta zure ardao^dolarak* gaiñez egingo dafoe.

Azken-otoitza.—Zure Sakramentu au artuez, Jauná, somau dagigula gprputz-arimetan Eukaristiaren lagun-tza; bietan esasuna izanik, zerukp osabide-betetasu-nez peztu gaitazan. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 12'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orlegiz

Kristo'gandik ikasita dauko Eliza Anna deunak lagun-urkoaganako erruki-egintzetan jarduteko oitura. Bera dogu jaungoikozko Samaritar biotz-biguna, gure biotzaren zauri guztiak maitasun orioz ta erruki-ardaoz osatzen dauzana. Orrexegaitik jarri dogu gure uste osoa Jaungoikoagan, Beragandik edozer jadetsiko dogula-ta. Izan be, Lege zaarrea Jauna;k bere erria ainbeste maite izan ebanarren, orain askoz geiago maite gaitu, Kristo geugaitik il zan ezkeru.

Jaunak aldi oro luzatzen dauku bere eskua: bizi-bide zear gabiltzan bitartean izan geikezan arriskueta, onik urten eta betiko ai-^{se}I^{ne}ra eldu gaitazan.

Biblia.—Jakintza, Sap.: I, 1'etik 3, 12'ra; 4, 7'tik 6, 11'ra; 6, 22'tik 9, 18'ra.

M E Z A

Sarrera.—ZatPZ, Jaungpikp!, niri laguntzera; zatorkidaz toizkpr, Jauna, laguntza emotera; larri ta lotsaz bete bediz ni il gura naberen arerioak.—*Ps*. Atzeratu bediz lotsaz beterik ni galdu nai nabena.—*Aintza*.

Otoitza.—Zure menpekoak zure morroi zintzo ta jator izatea, zeure indarrez egiten dozun Jaungoiko algutzidun eta errukiorra: eiguzu, arren, zure agintzariak eragozpen bagarik jadetsi daiguzala. Amaibagako.

Irakurgaia <S. Paulo'k Korinto'koai 1'goa.: 3, 4-9).—Anaiok: Auxe da. Kristo'ri esker, Jaungoikoagan dogun uste ona; geurez zerbait asmetako be gauza ga-realakoa ez gero, Jaungoikoagandik datorkigulako bai-

• Dolara = lagar.

ño. Berak egin gaitu egoki Alkartasun barria iragarteko; ez letraz, gogoz baiño: idazkiñak (letreak) il egiten dau-ta; barruko gogoak, barriz, biztu. Beraz, arrietan idatzitako erio-morroitz (edo Legea), Moises'en arpegian ain eder agertu ba'zan, (laster atzamauko zan argitasunagaitik), aren arpegia israeldarrak ezin begiratzeraño, gure morroitzari ez ete-dario edertasun aundiagorik? Eriotzarako morroitz ospetsu ba'zan, geiägo nunbait zintzotasunerakoa.

Koru-kanta.—Aldi oro goratuko dot Jauna; beti agotan erabiliko dot Aren gorapena.—Jaunagan poz-arrotuko naz; entzun begie gaisoak, eta poztu beitez.

Aleluia, atelula. — Jaungoiko Jaun, ene osasun!, gau ta egun deadarka nago zure aurrean. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 10, 23-37).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Zoriontsuak, zuek ikusten dozuena dakusen begiak! Ba-dirautsuet: Igarle ta errege askok ikusi nai izan eben zuek ikusten dozuena, ta ez eben ikusi; baita entzun be zuek entzuten dozuena, ta ez eben entzun.»

Onetan, legegizon bat jagi zan, ©ta azpikeriz esan eutsan: «Irakasle, zer egin bear dot betiko bizitza irabazteko?» Jesus'ek esan eutsan: «Zer dago Legean idatzita? Zelan irakurten dozu?» Legegizonak, erantzunik, esan eutsan: «Zure Jaungoiko Jauna biotz -biotzez, gogo-gogoz, alegin guztiaz eta adimen osoz maite egizu ta zure lagun-urkora zeure burua lez.» Jesus'ek esan eutean: «Ederto erantzun dozu; ori egizu, ta bizi izango zara.»

Orduan arek, burua zuritu naiez, Jesus'i esan eutsan: «Ta, nor da nire lagun-urkoa?» Eta Jesus'ek erantzun eta esan eutsan: «Gizon bat, Jerusalem'dik Jeriko'ra joiala, Iapurren eskuetan jausi zan; eta airek, a erantzi ta zauriz bete ondoren, erdi illik itzirik, joan egin ziran. Bide aretatik abade bat igarotea jazo zan; eta gizona ikusiarren, aurrera jo eban. Bertatik joian Lebitar bat be, urreratzean zauritua ikusiarren, aurrera igaro zan.

Samaritar bat, osterä, andik igarotean, urreratu egin yakon, eta ikusi ebaneko, erruki izan zan. Eta aregana elduta, zauriak lotu eutsazan, orioz eta ardaoz igurtzirik; eta beraren asto-gaiñean jarririk, ostatura eroan eta bere ardurapean artu eban. Eta bia-

ra, monean, denario bi atarata, ostalariari emon eutsazan, esanez. «Zaindu egizu gizon au, ta diru geiägo bear izatekotan, onuzkoan ordainduko dautsut.» Jurotariko nor uste dozu Iapurren eskuetan jausitakoaren lagun-urko zala?» Arek erantzun eutsan: «Areztaz ernrkitu zana.» Eta Jesus'ek esan eutsan: «Zoaz, bai ta zuk be orrelaxe egizu.»—Kredo.

Eskintza.—Moises'ek, bere Jaungoiko Jaunaren aurrean errege egiñik, auxe esan eban: Zegaitik zara asarere, Jauna, zeure erriaren aurka? Baretu sumin ori; aogoratu egizuz Abraham, Isaak eta Jakob, esnea ta ezitia darion lurra emongo zeutsela zin egin zeutsen-eta. Ta Jauna bigundu egin zan, eta ez eutsan bere erriari esandako zigorrik toialdu.


Opari-otoitza.—Ikusi egizuz samurkiro, Jauna, zure altara santura ekarri doguzan oparigaiok: guri parkamena Iorturik, zure izenari gorapena emon dagioen. Amaibagako.

I' **Kanon-aurrea:** *Irutasun deunarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa.—Zuk egindakoaz, Jauna, lurra ase-tu egingo da: lurrak ekarten dauan ogia, gizonaren biotza poztan dauan ardaoa, arpegiak argitzen dauan orioa ta gizonaren biotza indartzen dauan ogia, Zeuk eragiten dautsazuz lurrari.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi onek, Jauna, bizi barria emon daiskula, baita parkamena ta indarra bere. Amaibagako.





PENTEKOSTE-OSTEKO 13.^o GARREN IGANDEA

2.^o gn. mailla. — Orlegiz

Elizak sarri dakarkiguz gogotara Jaungoikoak bare erriari egiradako agintzari ta eskintzak. Onek, jakiña, Beraganako gure uste osoa biztu bear dau: Jaungoikoa, egiten dauzan eskintzetan eta egundo be gu atzipetu bagarik, guztiz zintzo agertu da-ta. Orregaitik, gau ta egun, dei eglñ bear dautsagu, emon eban itza bete dagiala eskaturik.

Geiso ikaragarria da legena; Jesus'ek, barriz, amar le. genardun areik osatu egin ebazan. Geu be bardin osatuko gaitu pekatuaren geisotik; baiña ez gaitzezan izan, amar le. genardunen antzera, esker-gaiztoko.

Biblia.—Jakintza, Sap.: 10, l'etik 12, 2'ra; 12, 12'tik 27'ra; 16, 15'tik 17, 6'ra; 17, 20'tik 18, 19'ra; 19.—Ikastuna, Ecclō.: 1, l'etik 4, 10'ra; 5; 6; 7, 27-36.

M E Z A

Sarrera.—Gogoratu eglzu, Jauna, zure alkartasuna. ta ez zaitetz betiko aztu zure beartsuen biaz. Jagi, Jauna. ba garbitu zure auzia; ez aztu Zugana datozen deadarrak.—Ps. Zegaitik itzi gaituzu, Jaungoiko!, bertan bera betiko? Zegaitik zagoz asarre, zaintzen dozuzen ardien aurka?—Aintza.

Otoitza.—Geitu egizu gugan, Jaungoiko alguztidun eta betiko orrek!, sinismena, itxaropena ta maitasu-ina; eta eskintzen daukuzuzan ondasunak jaristekojei izan gaitzezan, agintzen daukuzuna maite izanl daigula eiguzu. Amaibagako.

Irakurgaia (San Paulo'k Galazia'koai, 3, 16-22)J
—Anaiok: Agintzariak Abraham'i ta aren jatorrikoarij

eskiñi yakezan. Ez diño «aren jatorrikoai», asko adierazoteko eraz, bakarrari baiño, «zure jatorrikoari», Kristo'ri. Auxe diñot: Jaungoikoak egindako alkartasuna, laureun eta ogeitamar urtez gero sortutako legeak ez dau austen, agintzariak ustel itzirik. Ondorengo, izan be, legez ba'da, ez da agintzariz; Abraham'i, ostera, ondoren (edo erentzi) au agintzaz emon eutsan jaungoikoak. Beraz, legea zetako? Gaiztoakaitik ezarria izan da, agintzari-jatorrikoa etorri arte, ta bitarteko baten eskuz Aingeruak ekarria. Bakarrak ez dau, barriz, bitartekorik, eta Jaungoikoa bakarra da. Beraz, legea ta Jaungoikoaren agintzariak alkarren aurka? Ez olakorik! Legeak bizia emon al ba'leu, zintzotasuna legeak beragaz ekarriko leukean. Baiña Idaztiak guztia pekatupean itzi eban, agintzaria sinistendunakan Jesukristo'ren sinismenez bete zedin.

Koru-kanta.—Gogoratu, Jauna, zure alkartasuna, ta ez zaitetz betiko aztu zure beartsuen biaz.—Jagi, Jauna, ta garbitu zure auzia: izan egizu gogotan zure menpekoai egindako iraiña.

Aleluia, alléluia.—Zeu izan zara, Jauna, gure gordeleku gizaldiz gizaldi. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 17, 11-19). — Aldi aretan, Jesus Jerusalem'era joateko, Samaria ta Galilea zear joian. Eta erritxo baten sartzean, amar gizon legenardun urten yakozan bidera; eta urrun geldituta, deadarka asl yakozan, esanez: «Jesus, Irakasle, erruki zaki-guz!» Ikusi ebazanean, esan eutsen: «Zoaze, ta abadeakana aurkeztu zaitetze.» Ta ara!, bidean joiazala, garbi gelditu ziran.

Areitriko toatek, osatu egin zala ikusi ebanean, a,tzeruntz egin eban, Jaungoikoa oiuka goratzen. Eta Jesus'en ofñetara auzpezturik, eskerrak emon eutsazan. Gizon a, Samaritarra zan. Orduan, Jesus'ek berba egin eta esan eban: «Ez ail dira amar, garbitu diranak? Nun dira, ba, beste bederatziaik? Arrotz au baiño ez da izan Jaungoikoa goratzeko etorri danik?» Eta esan eutsan: «Jagi zaitetz eta zoaz-, zeure sinismenak -osatu zaitu.»—Kredo.


Eskintza.—Zeugan jarri dot, Jauna, itxaropena; ta auxe esan neban: Zeu zaitut Jaungoiko; nire egunak zeure eskuetan dagoz.

Opari-otoitza.—Begiratu egizu biotz onez, Jauna, zij, re erria, ta onartu egizuz bere oparigaiok; onein bidez Zu bigunduta, <parkamena ta eskatzen dautsugu, na jadetsi daiskuzuzan, Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa.—Zeruko ogia emon dauskuzu, Jauna, atsegin guztia ta gozogarri guztia beragaz dauana.

Azken-otoitza.—Artu dogun Sakramentu zerutar au, Jauna, betiko zerura-bidean aurrera joateko laguntza izan dakigula. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 14'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orlegiz

Bitarikoak dira gure egintzak; onak eta txarrak, jaungoizkoak eta mundu-zalekeriz beteak, aragiarenak eta gogoarenak. Alan be, gaurko Barri Onak argi dirausku: ugazaba biren morroi ezin izan zaitezke. Munduak, barriz, bere alegiñean, alkartu ezinak diran gauzak, oiturak, eritziak, batean korapillotu nairik diardu jo ta ke.

Deabruaren eta Jaungoikoaren morroi batera izatea, eziña yaku; edo bata, edo bestea. Jaungoikoak beretzat nai gaitu oso osorik. Kristo'k beteko dau agindu euskuna; Aren berban sendo, ibllli gaitzezan beti bide zuzenez, ta ez dogu Jotsakizunik izango.

Biblia.—Ikastuna, EcClo.: 10, 7-23; 11, 10-20; 13, 23'tik 14, 19'ra; 15, 11-20; 16, 15'etik 18, 13'ra; 21, 1-10; 22, 25'etik 23, 15'era; 24, 1-21; 25, 1-U; 26, 13-18; 27, 30'etik 28, 12.

M E Z A

Sarrera.—Jaso egizuz begiak, Jaungoiko gur, zainzaille!, ta 'begiratu zure Kristo'ren arpegia; zure etxean egun bat obe da besteetan milla baiño.—*Ps.* Bai maitagarri zure bizitokia, indarren Jaungoiko! Antziz eta makal daukat biotza Jaunaren etxeaganako gogoz.—Aintza.

Otoitza.—Zaindu egizu betiko arduraz, Jauna, zure Eliza; eta gizona Zeu bagarik zutik ezin egon daiteken ezker, zure laguntzak zaindu dagiala beti kalte danetik eta zuzendu dagiala osasungarri yakonera. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Galazia'koai: 5, 16-24)]
 Anaiok: Ibilli zaitzeze gogoaren (espirituaren) arauz, eta ez dozuez beteko aragi-gurariak. Aragia gogoareri aurka diardu-ta; gogoaren gurariak, barriz, aragiaren kontra: alkarren buruzjburu dagoz, eta, orregaitik, ez dozue nai dozuenik egiten. Gogoaren eragiñez ba'zabize, osteru, ez zagoze Legepean. Aragiaren egitadak agirian dagoz. Emen: aragikeri, lizunkeri, nasaikeri, zikinkeri, sasi^jaungoikokeri, sorginkeri, asarre, eztabaida, bekaitz*, gorroto, zaratots, alderdikeri, ezin-ikusi, onoskortoeri, sabelkeri, ta olakoak.

Len letxe dirautsuet orain be: orrela bizi diranak, ez datoze Jaungoikoaren erreñurik jadetsiko. Gogoaren frutuak, barriz, onexek dira: maitasuna, poza, ba-kea, eroapena, biotz-zabala, otzantasuna, sinismena, eratasuna, neurribidea, ta garbitasuna. Orrein aurka legerik ez dago. Kristo'renak diranak, aragia bere griña ta gurari txarrez, gurutzean josten dabe.

Koru-kanta—Obe da Jaunagan itxarotea, gizonagan baño.—O.be da ústea Jaunagan jartea, agintarrietan baño.

Aleluia, aleluia.—Etorri zaitzeze pozez baterik Jaunagana; aibestu daiogun gure osaeun dan Jaungoikoari. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 6, 24-33). Aldi aretan, Jesus'ek bere 'kasleai auxe esan eutsen: Ugazaba biren morroi, ezin ñor izan daiteke. Edo batari gorroto izango dautso, ta bestea maite izango dau-ta; edo batari eutsi, ta besteari jaramonik ez dautso egingo. Beraz, ba-dirautsuet: ez arduraz ibilli zer jango dozuen bizi izateko, ezta gorputza zeaz jantziko ete^dozuen be. Ez da bizitza janaria baño geiago, ala? Ta gorputza jantzia baño? Orra, goiko egaztiak: ez dabe ereiten, ez batzen, ez garautegietan sartzen; eta zuen Goiko Aitak azi egiten dauz. Ez ete-zaree zuek areik baño askozaz geiago? Nor da zuen artean bere asmo guztiaz ukondo bete azi daitekenik?

Eta jantziaz, zegaitik zabize arduratsu? Orra, zelaietako lirioak: begira zelan aundi egiten diran. Ez dabe lanik egiten, ez goruetan. Alan bere, ba-dirautsuet: Salomon bera, bere ospe aundienetan be, ez

zan orreitariko bat lez jantzi. Beraz, gaur zelaian bizi ta biar laibara jaurtiten dan bedarra Jaungoikoak orrela jazten ba'dau, zenbat arduratsuago jantziko zaitue zuok, siniste otzeko gizonok? Beraz, ez ardurarik izan "zer 'jan, zer edan, zer jantzi daikegu" esanez. Guzti orrein billa sinistebag-eak ibiltzen dira-ta. Zuen Aitak, barriz, ba-daki guzti orrein bearrean zagozena. Beraz, billatu egizue lenengo Jaungoikoaren erreñua ta Aren zuzentasuna, ta beste guzti orreik geigarriz emongo yatzuez.—*Kredo*.


Eskintza.—Jaunaren aingerua, Aren bildur diranen inguruan egongo da, ta onik atarako dauz; zeuk jan eta ikusi egizue Jaunaren gozotasuna.

Opari-otoitza.—Egizu, arren, Jauna: opari osasungarri onek gure pekatuak garbitu dagizala ta erakarri daiskula zure indarraren laguntza. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deumarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—^Billatu egizue lenengo Jaungoikoaren erreñua, ta beste guztia geigarriz emongo yatzue.

Azken-otoitza.—Zure Sakramentu onek, gure Jaungoiko!, garbitu ta indartu gagizala beti, ta osasun-tokira eroan gagizala. Amaibagako.



* Bekaitz = envidia.



PENTEKOSTE-OSTEKO 15'GARREN IGANDEA

2^{gn}. mailla. — Orlegiz

•Domeka, Jaunagana etorteko da; elizara ba'gatoz, Meztan Jaunagaz batera egoteko da. Eta Jaunagaz egotetik, zer atarateko? Geure arimea indartzeko, lagun-urkoaganako maitasunerako biotza zabalago egiteko.

Gaurko Ebanjelio-atalak, Jesus'en biotz-ontasuna erakusten dauku: ama alargun baten semea daroe ilda, ari lurrera emotera; baiña Jesus'ek, aretzaz errukituta, biztu egiten dau. Geuk be lagun egin daigun lagun-urkoari bere naigabe ta larrialdietan.

Biblia.—Ika-Stuna, Ecclo.: 30, l'etik 31, 11'ra; 34, 13'tik 35, 20; 36, 1-19; 39, l'etik 40, 27'ra; 42, 15-25; 44, l'etik 45, 17'ra; 46, 13'tik 47, 22; 48, l'etik 49, 3'ra; 50, 1, 24; 51.

M E Z A

Sarrera.-jBiurtu nigana belarri ori, Jauna, ta entzun; onik atara egizu Zeugan itxaroten dauan menpeko au; erruki zakidaz, Jauna, egun osoan Zeuri deika nago-ta.—Ps. Poztu egizu zure menpeko onen barrera, Jauna, Zeugana jaso dot biotza-ta.—Aintza.

Otoiiza.—Garbitu ta indartu egizu, Jauna, zure Eliza zeure erruki etenbageaz; eta Zeu bagarik ezin blzi izan daiteken ezkeru, zuzendu egizu beti zeure gaziaz. Amaibagako.

Irakurgai i(S. Paulo'k Galazia'koai: 5, 25-26; 6, 1-10.—Anaiok: Gure bizia gogo-bizia ba'da, gogo-bidetik ibilli gaitazan. Ez ibilli arropuzkerietan, nor aundiagoka, alkar ezin-ikusika. Anaiok: norbait pekatu-

ren baten jausten ba'da, zuok, gogo-bidetik zabizenok, alakoa samurkii'o zuzendu egizue, ta bakotxak bere buruaz kontu izan, tentaldi bardiña etorri daitekio-ta. Eroan egizuez alkarren nekeak, eta olantxe betekio dozue Kristo'ren legea. Norbait zerbait dalakotan ba'dago, ta ezer izan ez, bere touruari saxtzen dautso ziria. Ikusi begi bakotxak nundik eta zelan daibillen, eta olan bere barruak esango dautso zelakoa dan, inorenetik ataraten ekin bagarik, toakotxak bere sorta eroango dau-ta.

Jaungoikoaren itza (1) ikasten diarduenak, irakascen dautsainari ondasun guztietatik emon b&gio. Ez zaiteze atzfpetu*: Jaungoikoari ez dautso inok barrerik egiten. Gizonak, ereiten dauana batzen dau. Aragiaren azia efein dagianak, aragiaren ustelkeria batuko dau; gogozko azia erein dagianak, barriz, gogoak emonda betiko bizia batuko dau. Ez gaitazan on egitez aspertu; orretan aspertu ibagarik ekiten ba'dautsagu, aldi egokian saria artuko dogu-ta. Beraz, astia dogun artean, guztiai on egin daiegun, batez be fedez anai doguzanai.

KorU-kanta.—Ona da Jauna goratzea ta zure izena autortzea, Goiko Jauna! Goizean zure errukia ta gabean zure egia iragarteko.

Aleluia, aleluia.—Jaungoikoa Jaun aundia da, ta lurbira osoan Errege aundi. Aleluia.

Barri Ona OLuk., 7, 11-16).—Aldi aretan, Jesus Naim izeneko urira joian, eta Aregaz bere ikasle ta lagun-talde aundia. Eta uriko atera urreratuaz batera, ama alargunaren seme bakarra ekarren ilda, ta askoak joiazan alargunagaz. Jaunak alarguna ikusi ebanean, aretzaz errukiturik, esan eutsan: «Ez negarrrik egin.» Eta urreraturik, ilkutxa* ikutu eban, eta eroienak gelditu egin ziran. Orduan, esan eban: «Mutil, zeuri dirautsut: jaigi zaitez!» Eta ildakoa jagi ta toerba egiten asi zan. Eta Jesus'ek amari emon eutsan. Guztiak, ikaratuta, Jaungoikoa goratzen eben, esanez: «Igarle aundi bat agertu da gure artean, eta Jaungoikoa bere erriagana etorri da!»—Kredo.

(1) Barri Ona (Ebanjelioa).

* Atzipetu = enganarse.

* Ilkutxa = ataud.



Eskintza.—Biotz-biotzez itxaron neban Jaunagan, eta entzun egin nenduan; entzun eban nire eskaria, ta abesti barri bat ipiñi eustan agoan, gure Jaungoikoa goratzeko ereserkia.

Opari-otoitza.—Zure Sakramentuak, Jauna, zaindu ta gorde gagiezala beti deabruaren ekiñaldietatik, Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa.—Nik emongo dodan ogia, munduaren bizirako neure aragia da.

Azken-otoitza.—Zeruko janari onen eragiña guré arima ta gorputzeraiño sartu dadilla, Jauna; gugan agindu dagienak zentzunak izan bagarik, Sakramentu onen indarrak izan daitezcan. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 16'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orls'giz

Domeketan ez dago lanik egiterik; Jaunaren egunean guztiok gara aundiki, guztiok aberaís; Jaungoikoak bere aberastasunen jabe egin gaitu, bere seme egin -gaituanean. Egi orrek poztuta gatoz elizara; emen ez dago goragoko mailla-korik, ez beragokorik; guztiok gara bardiñak, jaungoikozko maitasun batek bat egiñik. Ederra, benetan, kristau zin-tzoen arteko maitasunezko batasuna!

Biblia.—Job: 1, l'etik 4, U'ra; 7, 9,1-20; 10; 13, 20'tik 14, J2; 16, 18'k 17, 16'ra; 19, 7-27; 21, 7-26.

M E Z A

Sarrera.—Erruki zakidaz, Jauna, egun osoan Zeuri deika nago-ta; Zu, Jauna, dei egiten dautsuen guz-tientzat biotz-bigun eta gozoa zara-ta.—*Ps.* Biurtu Jauna, belarri ori nire eskarietara ta entzun nagizu, gaiso ta beartsua naz-ta.—*Aintza.*

Otoitza.—Zure grazia gugan aurretiaz izanik, berak lagun egin daiskula beti, Jauna; eta grazi orrek ardu-rafcsu ta iraunkor egin gaizala lan onak egiteko. Amaibagako.

Irakurgaia (S. PauJo'k Efeso'koai: 3, 13-21).—Anaiok; Zuekaitik izan dodazan nekeak dirala-ta, ez zaitezela kikildu eskatzen dautsuet, onexeik dira zuen goral-di-ta. Onexegaitik jarten naz belauñiko Jesukristo gure Jaunaren Aitaren aurrean, zeru ta lurrean guraso guz-tiak izena Arexegandik dabe-ta. Berak, bere aberasta-

sun goragarriarri dagokionez, emon dagizuela, bere Espirituaz, kristau zintzo izateko barru-barruko indarra, Kristo zuen biotzetan sinimenez bizi daiten, eta maitasunean zusterrek eginda, gogor egon zaitezten: orrela, santu guztiakaz, asmo au dan zabala, luzea, garaia ta sakona ulertu daikezuen; eta Jaungoikoaren bizftza bete-betea bizi izanik, jakintza guztia garaitzen dauan Kristo'ren maitasuna ezagutu daikezuen. Guk eskatu naiz asmau daikegun baiño askoz be neurri obeaz gugan egiteko indarra dauan Jaungoiko orrek, artu dagiala Elizaren aintza (goraldia) Jesukristo'ren bitartez, igizaldiz gizaidi. Oiantxe.

Koru-kanta.—Atzerriak bildur izango dautsce zure izenari, Jauna, ta lurreko errege guztiak zure aintzari.—Jaunak Sion barriri egingo dau, ta an aundi-aundi agertuko da.

Aleluia, aleluia.—Abestu egiozue Jaunari abesti barri bat, Jaunak arrigarriak egin dauz-ta. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 14, 1-11).—Aldi aretan, Jesus pariseotar nagusi bātenera zapatuz sartu zala, A zaintzen ziarduen. Onetan, gizon ur-geiso bat urreratu yakon. Jesus'ek, ba, lege-irakasle ta pariseotarrakana biurturik, esan eutsen: «Zapatuz iñor osatzea legezko da, ala ez?» Baiña areik, isilik. Jesus'ek. barriz, geiso ari eskutik oraturik, osatu ta bialdu egin eban. Eta arekana biurturik, esan eutsen: «Zuetariko bati astoa edo idia zulora jausi ba'dakio, ez dau berealaxe atarako andik, larunbata izanarren be?» Ta areik ezin etsoen onetzaz ezer be erantzun.

Mai-lagunak lenengo jarlekuen billa ebizela ikusirik, ipuin au ekarri eutsen: «Ezteguetarako deia artu dagizunean, ez zaitetz lenengo tokian jarri. bear bada zu baiño nagusiagoren bat deitua izatea jazo daiteke-ta; orduan bioi dei egin dautsuen etorri ta esan daiketzu: «Itzi egizu orrentzat toki au.» Eta orduan, lotsaz beterik azken-tokia artu toear izango zeuke. Deia artu dagizunean, barriz, zoaz eta azken-tokian jesarri zaitetz, deitzaillea etorri daitenean esan dagitzun: icAdiskide, igo zaitetz gorago.» Orduan, mailagunen aurrean ospe aundia izango dozu. Goratu daitena, beeratua, ta beeratu daitena, goratua izango da-ta.»—*Kredo.*

Eskintza—^Etori zakidaz, Jauna, lagun egitera; ta aurre bizia galtzeko asmotan diarduenak, lotsaz beterik gelditu beitez; etorri zakidaz, Jauna, iagun egitera.


Opari-otoitza.—Opari onen indarrez, garbitu gaizuz, tauna; eta gutzaz errukiturik, Meza onetako ondasunen artzaille egin gaizuz. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irtutasun deunarena*, 455 orri.

jaunartzerakoa.—Jauna, zeure zuzentasuna baiño ez dot aitatuko. Ene Jaungoiko!, Zeuk irakatsi zeus-(an gaztetarik; ez nagizu, ba, zartzaroan be itzi.

Azken-otoitza.—Zeruko Sakramentu onen bitartez, jauna, garbitu ta barriztu egizuz biotz onez gure ari-niak; eta olan, gure gorputzetan be oraingo ta geroko laguntasuna jadetsi daigun. Amaibagako.





PENTEKOSTE-OSTEKO 17^oGARREN IGANDEA

2^ogn. mallla. — Orlegiz

Mezatan batuta gagozanean, guztiz bat eginda egon bear dogu. Batasuna barrutik, biotzetan maitasuna nausi dala; eta^a batasuna kanpotik, guztiok Meza-emoilleagaz bat egiñik^k, kantu ta otoitz bardiñakaz, egikera ta egokera bardiñetan! Olakoxe batzarretan agiri da gure aunditasuna, Jaungoiko! Jaun bakartzat daukan erriaren aunditasuna; eta^a ortik, ola-ko orduetan egiten dogun otoitzaren indarra.

Ementxe ikusten da guztiok bata besteari lotuta gaukazan alkartasuna. Alkartasun au, orraitño, ez dadilla eliza barrukoa bakarrik izan: elizatik at (kanpora) bere agertu daiteTa, benetako kristautasuna alkarreganako batasunean eta maitasunean dago-ta.

JSiblia.—Job: 28, 1^oetik 30, 23^ora; 31, 1-37; 33, 12-22; 34, 10-32; 36, 5-15; 36, 22^otik 40, 5^ora; 42.

M E Z A

Sarrera.—Zuzena zara, Jauna, ta artezak dira zurs epaiak; zure menpekoari errukior agertu zakioz. —Ps. Zorionsuak garbi bizi diranak, Jaunaren bide-tik dabizanak!—Aintza.

Otoítza.—Zure erriak deabruaren ekiñaldi guztietatik alde egin dagiala, Jauna, ta biotz garbiz Zeuri, Jaungoiko bakar orri, jarraitu dagitzula. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo^k Efeso^kkoai: 4, 1-6).—Anaiok: Jaunagaitik katepean lotuta nagoan au erreguka nagokizue: ibilli zaitze egin dautsuen deiari dagokio-nez, oso apal, otzan eta eroapen aundikoak izanik. Alkarren uts-egiañak maitasunez eroan egiezuz; gogoen

gIkartasunari bake-lokarriaz eusteko arduraz ibilli zaitze beti. Gorputz bat eta gogo bat izan bear dozue, jtxaropen bardin bat izateko deituak izan zareenok. Jauna, bat bakarra da, bat sinismena, bat bateoa. Bat da guztion Jaungoiko ta Aita, guztion gaiñean, azpian eta artean nagusi dana. Bedeinkatua izan bedi Bera aldi guztietan. Olantxe.

Koru-kanta.—Zorionsuak, Jauna euren Jaungoiko-tzat dabenak: Jaunak bere oiñordeko aukeratu dailan erria!—Jaunaren berbaz gogortu zan zerua, ta Aren goko arnasak emon dautso indar guztia.

Aleluia, aleluia.—Entzun, Jauna, nire eskaria, ta el-du bedi Zeuganañño nire deadarra. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 22, 34-46).—Aldi aretan, pariseotarrak Jesusⁱ urreratu yakozan, eta areitariko lege-irakasle batek azpikeriz itandu eutsan: «Irakasle, zein da Legean agindurik nagusia?» Jesus^{ek} erantzun eutsan: «Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz eta adimen osoz maite izan egizu. Auxe da agindurik nagusia ta lenegoa. Bigarrena, barriz, onen antzeko da: zure lagun-urkoa zeure burua lez maite izango dozu. Agindu bi oneitan batzen da Lege osoa, baita Igarleak be.»

Panseotarrak batu ziranean, Jesus^{ek} itaun au egin eutsen: «Kristo nor dala deritzazue? Noren semea ete-da?» «Dabid^{en} semea», dirautsoe. Jesus^{ek} dirautse: «Dabid^{ek}, zeruko argiz, zelan diñotso ba Jauna, esanez: "Jaunak nire Jaunari esan eutsan: jesarri zaitetz nire eskumaldean, zure arerioak oinperatu dalgitzudazan arte"? Beraz, Dabid^{ek} Jauna ba^{derit}zto, zelan izan daiteke Dabid^{en} seme?» Berbarik ez eutsan iñok erantzun; eta arrezkero, iñok ez eban Ari itaun bariⁱrik egiteko arpegirik.—Kredo.

Eskintza—Daniel onek nire Jaungoikoari eskari au egin eutsan: Entzun, Jauna, zure menpeko bnen erre-guak; argitu daitela zure arpegia zure etxe santuan; eta entzun egizu biotz onez, Jaungoiko!, zure izena daron erri au.

Opari-otoitza.—Apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: emen egiten dogun opari onek, lengo ta geroko pekatuetatik garbitu gagizala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Egin eta bete egiozue zuen eskiri. tzak zuen Jaungoiko Jaunari; Aren inguruan zagozen guztiok, ekarri opariak Jaun aundiari: aundikiak bi. zia kendu ta lurreko erregeai dardar eragiten dautse-ta.

Azken-otoitza.—Zure Sakramentu oneik, Jaungoiko algutzidun!, gure zalekeriak osatu ta betiko osasunbidean jarri gagezala. Aimaifoagako.

IRAILLEKO LAU AROETAKO EGUAZTENA I

2'gn. mailla. — Ubelez

Urteko Lau Aroai buruzko azalpena, ikusi...'gn. orriaildean!

Sarrera. ^Goratu egizue gure laguntzaille dan Jaungoiko; jo txaloak Jakob'en Jaungoikoari; abestu soiñu gozoak zitaraz; jo adarra ilbarrian, ori Jakob'en Jaungoikoak israeldarrai emon eutsen agindu bat da-ta.—Ps. Jose'ri, Ejipto'tik urteeran, agindu ori emon eutsan; ezagutzen ez eban izkeraz entzun eban.—Aintza.

Kyrie ostein, Epistola-ondora joanda, auxe diño:

Otoitz egin daigun.—Bslaunikotu gaitez (*belau* U fco *apurtxo baten*).—Zutundu zaiteze.—Eutsi, arren. Jauna, gure argaltasunari zeure errukiaren laguntzaz: berez makal dana, zeure ontasunez indartu dadin. Amaibagako.

Irakurgaia (Anios, 9, 13-15).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Ba'dator aldia, ta goldelariak* igitai-lana ikusiko dau urretik, eta mats-lertzailleak* gari-ereitea. Mendiak atsegiña isuriko dabe, ta muna guztiak landu egingo dabez. Eta Israel nire erria erbestetik atara egingo dot; bertan bera itzitako uriak eragi (jaso) egingo dabez an bizi izateko; ta maastiak jarriko dabez, eta bertako ardaoa edango dabe; baratzak (ortuak) egin eta bertako ortu-aria jango dabe. Euren lurrera aldatuko dodaz, eta emon néutsen lurretik ez dodaz inoiz be jaurtiko: zure Jaungoiko Jaunak diño.

* GoLdelari- arador. * Mats-uertzaille = mats-garauak zapaltzen dauzana, ardaoa egiteko.

Koru-kanta.—Nor gure Jaungoikoa lakorik? Goietan lizi da, ta gauza apalak, zeru naiz lur, ikusi egiten dauz. Beartsua lurretik gora jasoten dau, ta txiropa snstegitik goratu.

Ernen «Doininus vobiscum» diño,

Otoitza.—Egiozu, Jauna, eskariz daukazun zure erriari, gorputzeko janariz barau egiten dauan ezkeru, arimako griña txarrez be barau egin dagiala, Amaibagako.

rak'.irgaia (Esclras'en 2'gna. (Nebemias): 8, 1-10). Egun areitan, erri osoa gizon bakar bat lez batu zan uretako ate-aurrean dagoan zeiaian, ta Esdras idazlariari, Jaungoikoak Israel'i agindutako Moises'en lege-liburua ekarrerazo outsoen. Ekarri eutsen, beraz, Esdras abadeak legea, zazpigarren illaren lenengoan, gizon eta emakume taldeari ta buruz artzeko gei ziran jurtzai. Ta garbi irakurri eutsen uretako ate-aurreko zelaian, gozetik eguerdira, gizon. emakume ta jakintsuai; ta erri osoa adi-adi egoan Lege-liburukoa entzuteko. Esdras idazlaria, berak egindako zurezko oltza baten gainean jarri zan, berba egiteko. Erri guztiaren begietan iiburua edegi eban (erria baiño gorago agiri zan-eta); edegitean, erri osoa zutuncki egm zan.

Drduan, Esdras'ek Jaungoiko Jaun aundia bedeinkatu efan; eta erriak, eskuak jasorik, «olantxe, olantxe» erantzun eban. Gero, makurtu egin ziran, eta Jaungoikoa auzpez gurtu eban. Lebitarrak erria isilik euken, legea entzun zedin, eta erria zutik egoan, bakotxa bere tokian. Jaungoikoaren legeko liburuan garbi irakurri eber ulertzeko eraz, eta irakurtean, buruz artu eban.

Nehemias'ek, eta Esdras abade ta idazlariak, eta Lebitarrak, erri guztiari adierazoez, auxe esan eutsen: «Goiko gure Jaunaren egun eantua da gaurkoa; ez itun jarri, ez negar egin.» Gero, Nehemias'ek esan eutsen: «Jan okela gizenak, edan ardao gozoa, ta emon euren zatia gertau ez dabena be: Jaunaren egun santua da-ta. Ez atsekabetu, Jaunaren poza da gure indarra-ta.»

~ Koru-kanta—Zoriontsuak, Jauna euren Jaungoikoztat dabena: Jaunak bere oiñordeko aukeratu dauan

erria. Jaunaren berbaz gogortu zan zerua, tan Aren agoko arnasak emon dautso indar guztia.

Barri Ona (Mark., 9, 16-28).—Aldi aretan, gizataldeko batek Jesus'ei auxe esan eutsan: «IrakaSle, neure semea ekarri dautsut; txerren mutuak artuta dauko; ta artzen dauan bakotxean, lurrera jaurtiten dau, ta agotik bitsa dariola ta agin-karraska ta legortuta izten dau jaurti dagoela eskatu dautset zure ikasleai, ta eziri izan dabe.» Jesus'ek erantzun eutsan: «Au gizaldi sinisgogorra! Noiz arte egon bear ete-dot zuen artean? Noiz arte jasan bear ete-zaituet? Ekarri egidazue ona.» Eta ekarri eutsoen. Eta Jesus ikusi ebaneko, mutilla, txerrenak astinduta, lurrean biurtzen asi zan, bitsa eriola. «Noiz ezkerro jazoten yako ori?», itandu eutsan Jesus'ek aren aitari. «Umetarik —erantzun eutsan—j Sarritan sutara ta uretara be jaurti dau, il zedin. Baiña Zuk zerbait al ba'daikezu, gutzaz erukkiturik, lagun zakiguz.»

Jesus'ek esan eutsan: «Al ba'dozu... Sinisten daual nari, guztia bele daitekio.» Bereala, mutillaren aitak deadarka zirautsan: «Sinisten dot, Jauna; lagun zakioz nire siniste otzari!» Orduan Jesus'ek, gero-ta gizatalde aundiagoa etorkiola ikusirik, txerren zikiñari agiraka agindu eutsan, esanez: «Txerren gor eta mutu ori!, Neuk agintzen dauat: urten adi orregandik, eta barriro ez akio bein be sartu.»

Orduan, karrazika ta mutilla astin-astin egiñik, urten egin zan aregandik; mutilla ilda lez gelditu zan, askok «ilda dago» esateraño. Baiña Jesus'ek eskutik oratu ta jaso egin eban; eta mutilla zutitu egin zan. Gero Jesus etxean sartu zanean, bere ikasleak ixillean itandu eutsoen: «Guk zegaitik ezin jaurti izan dogu txerren ori?» Ta erantzun eutsei: «Orrelako deabruak ez dira jaurtiten, otoi ta barauaren bidez izan ezik.»

Eskintza.—Gogoan erabilliko dodaz zure aginduai osu maite dodaz-ta; eskuak be agindu orreik beteteko jasoko dodaz.

Opari-otoitza.—Eskintza onek, Jauna, garbitu dagizala gure pekatuak; eta opari au ondo egiteko, zure menpekoen gorputz-arimak zintzotu dagizala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: Geienefacoa, 431 *orri*,

Jaunartzerakoa.—Jan egizuez okela gizenak, edan trdao gozoa, ta emon euren zatia gertau ez dabenai: ^aunaren egun santua da-ta; ez atsekabetu, Jaunaren jViza da gure indarra-ta.

Azken-otoitza.—Zeruko sari oneik artu doguzan ez-kfro. Jauna, apal-apalik eskatzen dautsugu: zure irienpeko izanik, zintzo egiten dogun au, bear dan zaliesunez artu dagigula. Amaibagako.

I IRAILLEKO LAU AROETAKO BARIKUA

\ 2gn. maila. — Ubelez

' ifarrera.—Poztu bedi Jaunaren billa dabillen biotza; bizkprtu zaiteze Jaunaren billa, ta indartu Aregan; billátu egizue beti Aren arpegia.—Ps. Goratu egizue Jauí\ ta ospatu Aren izena; iragarri erbesteetan be Berak egindakoak.—Aintza.

Otoitza.—Egizu, Jaugoiko alguztidun orrek: urteroko barau santua biotz beroz gogoratzen dogunok, gorputz-arimaz be atsegin izan dagitzugula. Amaibagako.

Irilciirgaia (Oseas, 14, 2-10).—Auxe diño Jaungoiko Jaunsk: Biurtu zaitez, Israel, zeure Jaungoiko Jaunagana,jgaiztakeritan jausi zara-ta. Berba egiozu Aregana biurturik, eta esan: Kendu egizu gaiztoa, artu egizu oiia, ta eskiñiko dautsugu gure agoko gorapena. Asiria'k ez gaitu salbauko, zaldi gaiñera ez gara igoko, ez dogu geiago esango «geure esku lanak dira gure jaungoikoak»; Zu, Jauna, eskuetan daukazun ume-zurtzj onetzaz erukkitu egingo zara-ta. Neuk osatuko dautsedaz zauriak, biotzez maite izango dodaz, nire asarrea urrindu egin yake-ta.

Iruntza lez izango naz. Israel, lilia lez erneko **cta**, ta iertxuna" lez sendotuko dira aren zusterrak. Adarrak balduko dauz, ta oi'iondoa baizen eder ta Libano baizen usaintsu izango da. Barriro aren gerizpean jarriko dira; garia jango dabe, ta matsa lez asiko dira; Libano'ko ardaokak beste entzute izango dabe. Efrain, zer dautsue zuri jaungoiko guzurrezkoak? Samurkiro entzungo zaitut, eta zipres eze* añtzera azie-rakozk zaitut; Neugandik emoten dozuz frutuak. Zein

Lertxun = álamo. * Eze = verde, f'esco.

jakintsuk ulertu dau au? Zein burutsuk ikasi? Jauna ren bideak zuzenak dira-ta; zintzoak ibilliko dira ar. dik; gaiztoak, barriz, antxe dabe ondamendia.

Koru-kanta.—Biurtu zaitez apur bat geugana, Jafna, ta entzun egizuz zure menpekoen eskariak. Zai izan zara, Jauna, gure gordeleku gizaldiz-gizaldi.

Barri Ona: Pariseotar batek, 188 orri.

Eskintza.—Goratu Jauna, ene biotz; eta ez aztu anbeste mesede; ta gaztetu egingo zara, arranoa lez.

Opari-otoitza—Ontzat artu egizuz, Jauna, eskintien dautsuguzan barauok; gure pekatuak parkatuez, <gin> gagezala zure graziazen gei, ta betiko agintzarielara eroan gagezala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Geienetako*, 431 orri.

Jaunartzerakoa.—Ez nagiola lotsatu ta baztertu, Jauna, zeure aginduak bete dodaz-ta; zeure aginhuak betetea da nire atsegiña. I

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun! Artu doguzan mesedeakaitik Zuri eskerrak emonaz, nlesed aundiagoen jabe egin gaitetzala. Amaibagako.

IRAILLEKO LAU AROETAKO LARUNRAIA

2^{gn}. mailla. — Ubelez

MEZA LABURRA

Sarrera.—Etorri zaitez, gurtu daigun Jaungbikoa, jarrri gaitazan belauniko Jaunaren aurrean; egin daigun negar gu egin gaituanaren aurrean: Jaun eta Jaungoiko Bera dogu-ta.—*Ps.* Etorri zaitez, ta poztu Jaunagan; jo txaloak gure osasun dan Jaungoikoari.—Aintza.

Kyrie ondoren, Epistoia-alboan auxe difio:

Otoitz egin daigun. — Belaunikotu gaitazan. (*Belau-niko apurtxo oaten*). Zutundu zaitez.—Barauaven bidez gorputz-arimak osatzen dozuan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: barauzaleen otoitzaz bigundurik, oraingo ta geroko laguntza emon daiguzula eskatzen dautsugu apal-apalik, Jaun aundi orri. Amaibagako. I

Irakurgaia (Lebitarren liburutik: 23, 26-32).—Egun ffeitan, Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: Zazpigarren illebete onen amargarrena, damu-eguna izan beji, oso ospetsua ta santua. Damutu zaitez gogoz, ta eskini Jaunari erre-oparia. Egun onetan ez egin moiroi-lanik, erruki-eguna da-ta, zuen Jaungoiko Jauna erruki izan dakizuen. Egun aretan damutu ez dakiona, fildu egingo da bere erritik, eta lanik bat be egin dagiana, ezereztu egingo dot bere erritik.

Beraz, ez egin ianik egun orretan; betiko alkartautia izango uozue gizaldiz-gizaldi etxe guztietan. Zapatua, atsedenerako izango dozue, ta illaren bederatzigarrenean damu izan zaitez; arratsaldetik arratsaldera ospatuko dozue zapatua. Jaun alguztidunak diño.

Koru-kanta.—Parkatu, Jauna, gure pekatuak; ez begie esan erbestekoak: Nun dabe euren Jaungoikoa? Lagin zakiguz, Jaungoiko gure Osasun; ta zure izen cderragaitik, Jauna, onik atara gagizuz.

Orain, altara-erdira biurtu ta «Dominus vobisuun» diño.

Oioitza. — Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun oi'iek: barau egiñik, zure graziaz bete gaitetzala, ta areiio guztiak barño indartsuago egin gaitezaia. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Ebertarrai: 9, 2-12).—Anaiok: Lenengo, txabola bat egin zan, eta Santua eritxon aldean, argi-mutilla, maia ta opari-ogiak egozan. Bigarren estalki-ostean, Santu-Santua deritxona; alde aretan, urrezko lurrun-ontzia, ta alde guztietatik urrez es Uldurik, Alkartasun-kutxa; kutxa-barruan, barriz, urrezko kutxa txiki bat manaz, Aaron'en makilla, barririo loratu zana, ta Lege-olak; eta kutxa-gaiñean, kerubin ederrak opari-maiari geriza egiñez. Ez dagokit orain orreitariko bakotxaz berba egitea.

Oneik olan atondurik, lenengo txabolan abadeak sartzen ziran beti, opariak egiteko; bigarreanean, barriz, abadeburua bakarrik urtean bein, eta ezelan be b odolik бага, ordain ori bere pekatuakaitik eta erriarenakaitik eskintzeko. Au azalduta, Espiritu Santuak auxe adierazoten dau: Santua deritxon tokirako bidea, ez dagoala oraindiño zabaldua, lenengo txabola zutik egon daiten artean. Antz-irudi ori, oraingo aldia-

ri dagoklo; eskmtzen ziran gauzak eta opariak ez ziran onak gurtzaillea barrutik zindotzeko; jan-edari ta garbiketak ez ziran aragizko aginduen arau baiño, aldi barri onetaraño.

Kristo, barnz, geroko ondasunen Nagusi orain ager turik, eskuz egiña ez dan eta emengo itxurarik e[^] dauan txabola obe ta bikaiñoagoan zear, toki guzfc Santu barruan sartu zan: ez, orraitino, aker ela adari odolez, bere odolaz baiño, gure betiko osasuia osoturik.

JLuzagarria.--Goratu egizu, Jauna, gizaki guzticik; jo ogiozue txaloak, erri guztiok. Oure artean errucia baiño ez dau erakutsi, ta Jaunaren zintzotasunak be ti irauten dau.

IJarri Ona (Luk., 13, 6-17).—Aldi aretan, Jesiis'ek gizataldeai ipuin au esan eutsen: «Batek bere n/aa, s-tian pikondo bat sartuta eukan; eta aren f rutujbilla etorrita, ez eban bat be aurkitu. Orduan, mastizaiñari esan eutsan: «Iru urteotan pikondo onetara f rutu,-billa etorri naz, ta ez dot bat bere aurkitu. Ebagi egizu, ba. Lurrean alperrik zetako egon?» Baiña mastizfuiak erantzun eutsan: «Jauna, itzi egizu aurten bq; ta, bitartean, inguru atxurta ta satsa jarriko dañitsat: orrela, beaibada frutua ekarriko dau; bestela, barriz, geroago ebagiko dozu.»

Zapatua za'a, Jesus arein sinagoga baten irakasten ziarduan. Eta amazortzi urte areitan txerrenan geisorik eukan emakume bat zan an; makur-makur cginada egoan, eta ezin eban iñola be bururik jaso. Jesus'ek, geisoa ikusirik, dei egin eta esan eutsan: «Emakume, zure gaitz orretatik onik zagoz.» Eta aren gainean eskuak ezarririk, emakumea bat-batean zuzen jarrri zan, eta Jaungoikoa goratzen asi zan. Jesus'ek za patuz Cisatu ebaia-ta, sinagoga-buruak, a.sarrez beterik gizataldeari auxe zirautsan: «Ba-dira sei egun lan egiteko; egun orreitan etorri, ba, osatu zaitezen, eta ez zapatuz.»

Orduan, Jesua'ek erant'zun eutsan: «Azalutsok!, ez dau zuetariko edonok bere idia naiz astoa zapatuz askatik askatzen eta edatera eroaten? Eta Satanas'ek amazortzi urteotan lotuta eukan A'bra'han'en alaba oni, ezin daitekiola zapatuz lokarri ori askatu?» Au esaten

ebala, Jesus'en arerio guztiak lotsaz egozan; erri guztia, barriz, Arek egiten ebazan mirari goragarriakaitik pozez beterik egoan.

Eskintza.—Nire osasun zarean Jaungoiko Jauna!: gau ta egun deika nagokizu; eldu bedi zure aurrera nire otoi'tza,


Opari-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek! Zure begietan eskiñi dogun opari onek, lortu daigula zuganako zaletasun beroa, ta gero betiko zoria. Amaibagako.

Kaunon-aurrea: *Geienetakoa*, 431 orri.

Jaunartzerakoa.—Zazpigarren illean jaiak egizue txaboletan, Israeldarrai Ejipto-erritik atara nebazanean egiñerazo neutsenez, zuen Jaungoiko Jaun onek.

Azken-otoitza.—Zure Eukaristiak, Jauna, egin daigiala gugan, beragan adierazoten dauana: orain itxurapean artzen doguna, gero agirian artu daigun. Amaibagako.





PENTEKOSTE-OSTEKO 18'GARREN IGANDEA

2'gn. mailla. — Orleglz

Atzoko eguna, abade barriak egiteko eguna zari munUu guztian. Eta mesede aundi ori egin dauskun ezker, gaur eskerrak emoten dautsaguz Jaunari.

Abadeak, Jaungoikoaren berba ta irakatsiak azaltzen eta emoten dauskuez; Jaungoikoak emondako aginpidea dauke gure artean. Kristo'k berak izentau ebazan gure otoi-batzarretako buru ta gure arimen zaintzaille ta zuzentzaille izateko. Erregutu daiogun Jaungoikoari euren egikizuna zinteo ta arduratsu bcUf dagien.

Biblia.—Tobias: 1, l'etik 3, 6'ra; -1, l'etik 5, 22'ra; 6, U'tik V. 20'ra; 8, 4-10; 11, 1-17; 12, l'etik 13, 23'ra.

M E Z A

Sarrera.—Emon egiezu bakea, Jauna, Zeugan itxaroten dabennai, zure igarleak egizale irauin clagien. Entzun zure menpekoaren eskariak eta zure erri Israel' enak.—Ps. Pozez beterik jarri naz, «Jaunaren etxera goaz» esan d&ustenean.—Aintza.

Otoitza.—Zure errukiaren laguntzaz zuzeu du eg'izua, Jauna, gure biotzak: Zeugaz izan ezik, zure gogoko ezin izan gaitেকেz-ta. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 1, 4-8).—Anaiok: Beti diardut zuen alde Jaungoikoari eskerrak emoten, Jesukristo'gan eraon yatzuen grazia dala-ta. Izan be, Aren bidez guztiz aberatsak zaree, ikasi ta jakin bear diran gai guztietan: Kristo'ren itza zuekan gogor sendotuta dago-ta. Ez da grazirik zeuek ez do-zuenik, Jesukristo gure Jaunaren *azkenengo* agertaldia itxaroten dozen ezker. Berak indartuko zaitue azke-

neraiño, Jesukristo gure Jaunaren etorrera-eguneau pekatu bagarik agertu zaitez.

Koru-kanta. — Pozez bete naz, «Jaunareu etxera uoaz» esan daustenean. Izan bedi bakea zure etxean, eta ugaritasuna zure jauregietan.

Aleluia.—Atzerriak bildur izango dautsoe zure izenari, Jauna, ta lurreko errege guztiak zure aintisaii. Aleluia.

Barri **Ona** (Mat., 9, 1-8).—Aldi aretan, Jesus, txalupan sarturik, itxasoa igarota bere errira etorri zan. Onetan, elbarri* bat ekarri eutsoen ogean etzunda. Jesus'ek, gizon arein sinismena ikusirik, elbarriari esan eutsan: «Izan egizu uste ona^ seme orrek; pekatuak pai'katzen yatzuz.» Orduan, idazlarietarikoz batzuek eurekautan ifioen: «Gizon onek birao egin dau.» Baña Jesus'ek, arein asmakeriak ezaguturik, auxe esan eutsen,- «Zer dala-ta darabizuez asmakeriok zuen biotzetan? Zer da enrazago, "pekatuak parkatzen dautsudz" esatea, ala "jagi ta zoaz" esatea? Beraz, Gizasameak lurrean pekatuak parkatsseko eskubidea ba-dauaia jakin dagizuen, «Jagi, —esan cutsan elbarriari—, ogetxo artu ta zoaz etxera». Ta gizona jagi ta bere etxera joan zan. Gizatalde areik, au ikusirik, bildurtu egin ziran, eta arenbesteko eskubidea gizonai enion eutsen Jaungoikoa goratu eben.—*Kredo*.

Eskintza.—Moises'ek Jaunari altara bat egin eutsan, eta altara-gaiñean erre-opanak eskifii ta oparigaiak erre ebazan; arratsaldeko oparia be egin eutsan Jaungoiko Jaunari Israeldarren aurrean, Jaunak usain gozoko oparizat artu egian.

Opari-otoitza.—Opari onen bidez, zeruko ondasunak emoten dauskuzuan Jaungoikoa: eiguzu, -zure egia ezagutzen dogun ezker, egi orri oitura onez jarraitu daiogula. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Artu oparigaiak eta sartu zaitez Jaunaren bizitokira; gurtu egizue Jauna beronen etxe santuan.

Azken-otoitza.—Janari santuaz indartuta, eskerrak emoten dautsuguz, Jauna; eta eiguzu -zure errukiz, aurrerantzean be Eukaristi au artzeko gei izan gaitetzala. Amaibagako.

* Elbarri = paralitico.



I'ENTEKOSTE-OSTEKO I!)GAKKEN IGANDBA

2^{yn}. mailla. — Orlegiz

Zeru-erria, nagusi batek ospatutako eztegu-eguna lez dfl gu. Eztegu orrek, Kristo ta Elizaren arteko batasuna adierazoten dau. Guztioak artu dogu zerurako deia; baiña au edo ori atxaki dala-ta, askok nai ez dei ori entzun. Siniste baga-koak, sinismen-ausleak, zalapartarlak, eurak naita, Elizatik baztertuta dagoz; alan be, Berak dauko bakar-bakarrik be-liko osasunbidea.

Baita Eukaristia be adierazoten dau eztegu orrek; baiña ba-dira kristau ardurabage ta txepelak, pekātu astunez loituta, eztegu-jantzi bagarik, Mai santura eltzen diranak. Goazen gu beti zintzo ta gai'bi, gaizto ta oker dana bazte-rean itzirik.

Bibia.—Judit: 2, 1-11; 4, Ttik 9'ra; 13, 1-2G; 15, 1'ctid 16, 21'ra.

M E Z A

Sarrera—Neu naz erriaren osasuna, diño JaunakH edozein estualditan dei egiten ba'dauste, entzun egingo dautset, eta Jaungoiko izango nakie betiko.—Ps. Entzun, ene erri, nire irakatsia; makurtu belarria nire agoko itzetara.—Aintza.

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta errukior! Urririj du egizuz gugandik ezbear guztiak; gorputz eta arimaz geure esku izanik, azkatasun osoz zeure menpeko izart gaitazan. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Efeso'koai: 4, 23-38)-J Anaiok: Zeuen pentzakera barriztu egizue, ta gizaki

barriaz jantzi zaitzeze (1), Jaungoikoaren eredu zintzo ta benetan santu egiña da-ta. Beraz, guzurre alde batera itzirik, bakotxak bere lagun-urkoari egiz berba egin begio, alkarren atalkide gara-ta. Asarratuarren, ez pe-katurik egin: eguzkia ez bedi ostendu (ezkutau) zuen asarrea il baiño len. Ez emon lekurik deabruari. Len cstü ebanak, ez begi aurrerantzean ostu; esku-lan ego-kiren bat egin begi, ostera, bearraldian dagoanari nun-dik emon izan dagion.

Koru-kanta.—Nire otoitza, intzentzua zure aurrera lez eldu dakizula, Jauna. Nire esku-jasotea, arratsal-deko oparia lez izan daiteia.

Aleluia, aleluia. Goratu egizue Jauna ta ospatu Aien izena; iragarri erbesteetan be Arek egindakoak. Aleluia.

Karri Ona (Mat., 22, 1-14).—Aldi aretan, Jesus'ek, ipuiñen bidez, auxe zirautsen abadeburu ta parisfiota-rrai: Zeruko erreinua, bere semearen ezteguak egin ebazan erregearen antzeko da. Arek bere morroiak bial-du ebazan, eztegu-lagunai dei egitera; baiña oneik ez eben etorri nai izan. Barriro beste morroi batzuk bialdu e'ban, esanez: «Eztegu-lagunai esan egiezue: Bazkaria gertu dago, idi ta abere (animali) gizenduak ilda daukadaz, ta guztia gertu dago; etorri zaitzeze eztegue-tara.»

Baiña areik jaramonik bere ez; eta bata bere solo-ra, bestea sal-erosketara joan ziran. Besteak, barriz, aren (erregearen) morroiak lotu, iraiñez bete, ta il egin ebezan. Au jakitean, erregea asarretu egin zan; eta bere gudaroztea bialdurik, odolzale areik ondatu egin ebazan, eta arein erria erre egin eban. Orduan, bere morroiak auxe esan eutsen: «Ezteguak gertu da-goz, baiña deituak ez ziran gei. Zoaze, ba, bide-guru-tze-tara, ta aurkitu dagizuezan guztiai dei egiezue.» Mo-rroiak, bideetara urtenda, aurkitu ebezan guztiak, au eta gaizto, batu ebezan; eta eztegu-maia mai-lagunez bete zan.

Maikideak »kustera erregea sarturik, eztegu-jantzi-rik ez .ekarren gizon bat ikusi eban; eta esan eutsan: iiAdiskide, eztegu-jantzi bagarik, zelan sartu zara emen?» Arek, barriz, barbarik be ez. Orduan, erregeak

(1) Gizona, bateoaz eta Espiritu Santuaz barritzen da,

bere laguntzailleai auxe esan eutsen: «Esku-oiñak loturik, jaurti egizue kanpoko illunpera; an izango da negarra ta agin-kirrizkada!» Deituak asko, baiña aukeraturik gutxi áira-ta.—*Kredo*.

Eskintza.—[^]Larrialdian egon naitenean, Zeuk zainduko daustazu bizia, Jauna; zeure eskua luzatuko dozu nire arerioen asarrearen aurka, ta zure eskumak onik atarako nau.

Onari-otoitza.—Zure aurrean eskintzen doguzan i>parigai oneik, Jaun altsu, osasungarri izan dakiguzala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutuun deumarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa.—Zure aginduak zintzo beteteko agiulu zenduan, eta nik zuzen bete dagidala zure legea.

Azken-otoitza.—Eukairisti osasungarri oneik, Jauna, garbitu dagizala gure gaiztakeriak, eta zeure aginduak lotuta euki gazizala. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 20'GARREN IGANDEA

2'gn. maila. — Orlegiz

Mirari aundirik asko egin ebazan Kristo'k bere bizitzan; baiña eunburuaren semea osatuaz egindakoa be, ez zan txiki-ena izan. Osatze aren bidez, bera ta bere etxeko guztiak Kristo'ren sinismena artu eben.

Eliza katolikuak be, mirariak dauz oiñarri: .mirariz asia, mirariz geitua ta mirariz irauñ-azoa. Kristau onak ez dau besterik bear Kristo'k esandakoa ta Elizeak irakatsia sinisteko, ta ona izateko zelan Jokatu bear dauan jakiteko. Paulo deunak argi ta garbi bere idazkian: «Zentzundun izan zuiteze Jaunaren naia ezagutzeko». Ibilli gaitezcan, ba, beti Aren

M E Z A

naiari jarraiturik, bere agindu ta lege zerutarrak al bait zeatz eta ondoen beterik.

Biblia,—Ester: 1, 1-12; 2, 1'etik 13'ra; 4, 1'etik 8, 8'ra; Hj, R'tik 14, 19'ra.

, Sarrera.—Egin dauskuzun guztia, Jauna, bide onez egin dauskuzu, pekatu egin eta zure aginduak ez doguz bete-ta; alan be, gora jaso egizu zure izena, ta egizu gutzaz zure erruki aundiari dagokionez.—*Ps.* Zoriontsuak Jaunaren lege-bidean garbi dabizanak!—*Aintza*.

Otoitza.—Emon egiezu biotz onez zure zintzoai, Jauna, parkamena ta ibakea, euren erru guztietatik garbi-Liita, uste osoz otseindu zagiezan. Amaibagako.

Irakurgai (S. Paulo'k Efeso'koai: 5, 15-21).—Anaiok: Arduraz ibilteko alegiñak egizuez, ez gero burubage iez, zur baiño. Astia ondo bete egizue, egun txar-rrak doguz-ta. Beraz, ez zaitez zentzunbageak izan zentzundun ba.ño, Jaungoikoaren naia ezagutzeko. Ez mozkortu ardaoaz, loikeria beragaz dau-ta; bete zaite-

ze, bai, Espiritu Santuz. Esan egizuez alkarregaz ere-
siak (salmuak), ereserkiak eta jaungoikozko abestiak.
Abestu ta goratu Jauna zuen biotzetan. Beti ta guztia-
gaitik eskerrak emon egiozuez Jaungoikoari, Jesukris-
to gure Jaunaren izenean. Bizi zaitze alkarren men-
pean, Jesukristo'ri dagokion begiruneagaitik.

Koru-kanta.—Guztien begiak zeuri begira dagoz,
Jauna; ta Zuk aldi egokian emoten dautsezu jana.
Zeure eskua zabaiduez, bizidun guztiak onez beteten
dozuz.

Aleluia, aleluia.—Gertu daukat biotza, Jauna, biotzjj
gertu; soñuak eta ere siak abestuko dautsudaz. nire
edertasun zarean orri. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 4, 46-53).—Aldi aretan, errege-etxe-
ko 'batek semea geisorik eukan Kafarnaum'en. Jesus
Judea'tik Galilea'ra etorrela entzun ebanean, Arega-
na joan zan, eta semea osatzera jatsi zedilla eskatu eus-
tsan, il-zorian egoala-ta. Baiña Jesus'ek esan eutsan:
«Zuek mirari ta arrigarriak ikusi ezik, ez dozue sinis-
ten.» Errege-etxeakoak dirautso: «Jauna, jatsi zaitze,
nire semea il baiño len.» Jesus'ek dirautso: «Zoz, se-
mea bizi dozu.»

Jesus'ek esandakoa sinisturik, ba-joian gure gizjJ
na. Eta bidean joiala, morroiak aregana etorri ta ba-
rri au dakarkio'e: «Zure semea bizi da.» Ze ordutan biz.
kortu zan itandu eutsen; eta eramtzun eutsoen: «Atzo-
zazpiretan alde egin eutsan sukarrak*.» Olantxe igar-
ri eutsan 'tak, ordu aretan bertan Jesus'ek esan eus-
tsala " semea bizi dozu". Orduan, bera ta bere etxeko
guztiak fededun egin ziran.—*Kredo*.

Esquintza.—Babilonia'ko ibai-ertzean jesarri gintza-
zan negarrez, Sion gogoraturik.


Opari-otoitza.—Sakramentu oneik, Jauna, emoB
daiskuela zerurako osabidea, ta gure biotzeko griña
Ixarretatik garbitu gagezala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena, 455 orri*.

Juanartzerakoa.—Gogoratu egizu, Jauna, zure men-
peko oni emondako itza; berba aretan dot itxaropena,
ta arexek poztu nau jausiaidian.

Azkeii-otoitza.—Zure sarien jabe egin gaitzezan,
Jauna, beti zeure aginduen esaneko izan gaitzezala egi-
zu. Amaibagako.

* Sukar = fiebre.



PKNTEKOSTE-OSTEKO 21'GARREN IGANDEA

2'gn. maila. — Orlegiz

Jaunaren aurrean ez dago iñortxo be zordun ez danik,
guztiok egin dogu pekatu-ta. J-auna, ostera, on eta eriuikior,
gertu dago beti gure zor uia Dekatuak parkatzeko; baiña
orretarako, auxe eskaten dausku: geuk be parkatu daiogula
kalte naiz irain egin dauskunari; auxe ikasi ta bete daigula,
bestiek ez.

Gaurko Barri Ona irakurriaz, berez atara daikegu esan
dogun au; Jaunak parkatzea nai ba'dogu, geuk be zordunai
parkatu egin bear. Ba-daitেকে au noizbaiten guri aldatz-gora
cgitea, geure barruko griña txarren kontra'jokatu bear izatea;
baiña Jaungoikoz jantzi ezkeru, au da, bere grazi zerutarraz,
jji-gara edozein arerio azpiratzeko beste.

BiMia.—Ezekiel: 1, l'etik 3, 9'ra; 8, l'etik 11. 25'ra;
18 ; 20.

M E Z A

Sarrera.—Zeure naipean dago dana, Jauna, ta ez
da ari gogor egin daikeonik, gauza guztiak Zeuk egin
dozuz-ita: ortzi (zeru), lur eta zeruak artzen daben
dana: Zeu zara gauza guztien Jauna.—*Ps*. Zoriontsuak
Jaunaren lege^bidean garbi dabizanak!—Aintza.

Otoitza.—Zaindu egizuz, Jauna, zure etxekoak eten-
bagako errukiaz; zeure laguntzaz, ezbear guztietatik
onik urten daitezala, eta on eginez, zeure izenari eski-
ñita bizi daitezala. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Efeso'koai: G, 10-17).—
Anaiok: Indartu zaitzeze Jaunagan, bere indarraren

adorez. Jantzi egizuez jaungoikoaren Iskilluak (ar. mak), deabruaren maltzurkeriai gogor egiteko. Gure burruka ez da aragi ta odolaren aurka, beste al eta indar guztien aurka baiño, illunpe onetako nagusien aurka, au da, zerupear tñabian espiritu gaiztoen aurka. Beraz, Jaungoikoaren iskilhjak jantzi egizuez, egui txarrari gogor egin daikeozuen, eta guztia osotu ondo. ren, sendo iraun daikezuen.

Beraz, gogor egon zaitez, egia gerrikotzat eta **zu** zentasuna bularrekotzat arturik, bakezko Barri Ona zabaltzeko oiñefakoz jantzirik. Batez be, artu egizue sinismena laguntzat, Gaiztoaren (1) gezi* iziotu guztiak itzungi (ab.amau) al dagizuezan. Artu egizue osasunezko buru-oskola*, baita Espirituaren ezpata ne, au Jaungoikoaren itza da-ta.

Koru-kanta.—Zeu izan zara, Jauna, gure gordeleku gizaldiz-gizaldi. Mendiak ziran baiño len, Iurra biribildu baiño len, betidanik eta betiko, Jaungoiko zara Zu.

Aleluia, aleluia. Israel Ejipto'tik urtetean, Jakob'eni etxea atzerritik urten zan. Aleluia.

Barri **Ona** (Mat., 18, 23-35).—Aldi aretan, Jesus'elfi bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Zeruko erreñua, bere morroiakaz artu-emonak garbitu nai izan ebazan erregea dirudi. Kontu-garbitzen así zanean, amar milla talentu zor eutsazan morroi bat ekarri eutsoen (2). Ordañtekorik ez eukala-ta, ugazabak morroia ta onen emaztea ta seme-alabak eta eukan guztia saltzeko ta berari emoteko agindu eban. Baiña morroi arek, auzpezturik, erreguz zirautsan: «Nitzaz eroapena artu egizu, ta dana ordainduko dautsut.» Ugazabak, morroi aretzaz errukituta, askatu egin eban eta zorra be parkatu egin eutsan.

Baiña morroi a urten ordukoxe, eun denario (3) zor eutsazan morroikide bat aurkitu eban, eta itobearrez ari eldurik, zirautsan: «Zor daustana ordaindu egistak.» Morroikideak, auzpezturik, erreguz zirautsan: «Nitzaz eroapena artu egik, eta dana ordainduko dauat.» Baiña besteak ez eban nai izan; eta joanda,

(1) Gaiztoa: Satanas.

(2) Amar milla talentu: C0 millo peseta urrezko.

(3) 100 denario: 100 peseta urrezko inguru.

* Gezi = dartlo. * Buru-oskola = casco.

giltzapean sartu eban, zorra ordaindu arte. Jazoten za. na ikusirik, aren morroikideak, atsekabez beterik, ugazabagana joan eta dana azaldu eutsoen. Orduan, aren ugazabak deilu ta dirautso: «Morroi gaizto ori, zor guztia parkatu fuan eskatu eustalako; ez ete euan, ba, ik be eure lagunaz errukitu bear, ni euaz erruki izan nintzoanez?»

Eta aren ugazabak, asarretuta, morroia zigortzailleen eskuetan ilzi eban. zor osoa ordaindu arte. Beste ainbeste egingo dautsue zeruko nire Aitak be, alkarri biotz-biotzez parkatu ez ba'dagiozue.—*Kredo*.


Eskintza.—Hus errian, Job izeneko gizon bat zan, zintzo, zuzen eta Jaungoikoaren bildur zana. Deabruak, gizon au zirikatzeke eskubidea eskatu eutsan Jaungoikoari. Emon eutsan Jaunak eskubidea aren ondasunetan eta gorputzean. Ondasun guztiak ondatu eutsazan, seme-alaba ta guzti, ta gorputza zauri a.stunetz bete eutsan.

Opari-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jauna, oparigaiok: onein bidez, bigundu egiten zara-ta; guri, barriz, osasuna emoten dauskuzu, zure erruki aundiz, Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena, 455 orri.*

Jaunartzerakoa. — Zeugandiko osasunak eta berbak nauke sendo, Jauna,- noz garbituko daustazu arerioen aurka darabildan auzia? Gaiztoak aurrean narabille; lagun zakidaz, ene Jaun eta Jaungoiko!

Azken-otoitza.—Betiko bizitza dauan janaria artu dogun ezker, Jauna, agoz artu dogunn, arima gaibiz gorde daigula egizu. Amaibagako.



PENTEKOSTE-OSTEKO 22'GARREN IGANDEA

2^{gn.} maila. Orlegiz

Ilunak ezin ikusi argirik, ezta txarrak onik be. Kristo, ontasuna bera, betl ikusten dogu arerio-arte: gaur guzur-sareetan arrapau nai, biar azpikeriren bat jausgarritzat blitean ipiñiko dautsoe... Baiña sare ta arerio artetik onik urten da beti.

Gaur, Barri Onak dirauskunez, estutasun aundian jarten ciabe, rnaitzurkeriz zirauteola: «Kaisar'l zerg'a emotea bidezko da, ala ez?» Naiz baietz naiz ezetz erantzun, arrisku aundian sartzen zan. Baiña Kristo'k, arein barren gaiztoa ikusirik, erantzuten daut.se: «Emon Kaisar'i Kaisar'ena, ta Jaungoikoari Jaungoikoarena.» Beraz, erri-agintaritzak eta Elizaren agintaritzak, baktotak bere eskubideak dauzala adierazoten dau Jesus'ek.

Biblia.—Ezekiel: 33, 1-20; 34; 36, 13'tik 37, 8'ra; 40, 1-6; 43, 1-12; 47, 1-12 ta 35.

M E Z A

Sarrera.—Gaitzakeriak gogoan artzen ba'dozuz, Jauna, nor egon daiteke zutik? Baiña zuri, Israel'en jaungoiko orri, errukia dagokizu.—Ps. Barren-baTrenetik eglh dautsut dei, Jauna; entzun, Jauna, nire deada-rra.—Aintza.

Otoitza.—Gure igesleku ta indarra zarean Jaungoikoa! Errukiaren iturri zarean ezkerre. entzun biotz onez zure Elizaren eskariak; eta egizu, sinismenez eskatzen doguna, benetan jadetsi daigula. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Filipino'koai: 1, 6-11).—Anaiok: Ba-dot uste ona Jesus Jaunagan, zuekan egin-

oide on au asi dauanak, osotu be egingo dauala, Jesukristo'ren egunerarte (1). Bidezko da nik zuen guztio-kan uste on ori izatea, biotzea-n zaukedaz-ta. Nire poz-lagun izan zaree guztiok, bai giitzapean, bai Barri Ona iragar-tean eta sendotzean. Ondo daki Jaungoikoak ^enbat maite zaituedan, Jesukristo'ren maitasunaz beraz. Eta auxe eskatzen dot erreguka, gero ta geiago zuen maitasuna argiz eta jakitez ugaritu daiteia, obee-na aukeratu dagizuen, Kristo'ren egunean zintzo ta pe. katu bagarik agertu zaitez, Kristo'gandiko zintzo-fruituz beterik, Jaungoikoaren aintzarako ta goraldirako.

Koru-kanta.—Bai on eta eder dala, anaiak alkartu-ilk bizi izatea! Ori, Aaron'i burutik bizarrera erion usaingarri jatorra letxe da.

Aleluia, aieluia.—Jaungoikoaren bildur diranak, itxaron begie Aregan: gerizpe ta lagun yake-ta. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 22, 15-21).—Aldi aretan, pariseotarrak joan eta alkartu egin ziran, Jesus berbetan arrapatzeko. Onetarako, areik euren ikasle toatzuk baldiu eutsoezan, Erodestiarrakaz batera, auxe esanez: «Irakasle, ba-dakigu egizale zareana ta Jaungoikoaren bidea egiz irakasten dozuna, ta inoren ardurarik ez dozuna, ez dozu nor nor dan begiratzen-eta. Esan egiguzu, ba: zer deritxazu? Kaisar'i zerga* emotea bidezko da, ala ez?»

Baiña Jesus'ek, arein gaitzakeria ezaguturik, esan eutsen: «Zer dala-ta zirikatzen nozue, azalutsok? Erakutsi egidazue zerga-txanpon bat.» Eta areik denario bat eskiñi eutsoen. Eta Jesus'ek esan eutsen: «Norenak dira irudi au ta irakurgai au?» «Kaisar'etak.»—dirautsoe. Orduan, Jesus'ek erantzun eutsen: «Beraz, emon egiozue Kaisar'i Kaisar'ena, ta Jaungoikoari Jaungoikoarena.—Kredo.

Eskintza.—Gomutau zaitez nitzaz, aundiki guztiak baiño aundiago zaren Jaun ori; emon egidazu berbeta egokia agorako, erriburuari bere aurrean atsegin clagiodan.

Opari-otoitza.—Egizu, Jaungoiko errukior orrek!, opari osangarri onek urrindu gagizala beti gure


(1) Jesukristo'i'en etorrera goragania glzaldien azkanean.
* Zerga = tributo,

erruetatik, eta ezbear guztitik zaindu gagizaia. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa. — Entzun nozulako egin dautsut ciei, Jauna; biurtu belarri ori nire berbetara.

Azken-otoitza.—Eukaristi santuaren sariak artu doguzan ezker, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zeure gomutaz agindu zeuskunak, indartu dagiala gure argaltasuna. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.



PENTEKOSTE-OSTEKO 2.GARUEN IGANDEA

2^{gn.} malla. — Orleyiz

EiMTZUN: *Penlelcoste-ostean 23 domeka baliño ez ba'dagoz, domeka onetako Meza ez da esaten, 24^{garren} domekakoa baiño.*

Kristo bai on eta samur! Eiiotza ta zoritxarra sartu uira etxe baten, sarri jazoten danez. Ango negar eta atseka-be-miña, neskato bat, amabi urteko alabatxo bat il yakela-ta! Kristo'ren biotza, barriz, errukiak darabil; Aren mirari ta arrigarrien otsa edonora eldu da. Kristo'gana doaz, ba, etxe aretakoak be. Eta aita minduaren eskaria entzunik, bei'tara doa Ki'isto, ta neskatoari dirautso: «Ume, jagi!». Eta neskatoa, biztuta, jagi egin zan. Kristo'ren berba alisuak bizia emoten dautso gorpu egoanari.

Gure arimetan be erabilli dagiala Kristo'k bere indar ori, grazi-bizitzaz adoretu ta bizi izan gaitezcan.

Biblia.—Daniel: 2, 26-45; 3, 1-90; 5, 6,11-24; 7, 1 ta il-14; 9.

M E Z A

Sarrera.—Bakezko gogorakizunak dodaz Nik — diño Jaunak—, ez atsekabezkoak. Dei egingo daustazue, ta Nik entzun egingo dautsuet; eta zuen erbestepekoak alde guztietatik errakarriko dodaz.—*Ps.* Bedeinkatu dozu, Jauna, zure lurra; Jakob atzerritik atara egin dozu.—*Aintza.*

Otoitza.—Parkatu egizuz, Jauna, zure erriaren gaiztakeriak: gure argaltasunak eragin dauskuzan peka-cuen lokarritik, zure errukiz askatu gaitezcan. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Eilipo'koai: 3, 17-21; 4, 1-3)—Analog: Izan zaitezte neure antzeko, ta begiratu nik emondako ereduz dabizana. Asko dira or, —ta arei buruz sarritan esan dautsuedana orain be negarrez dirautsuet—, Kristo'ren gurutzearen aurka dabizanak; criotza dabe azken-muga; Jaungoikotzat, sabela: euren lotsa, arrobide; lurrekoa, atsegingarri. Gure bizitokia, foarriz, zeruan dago, ta andik gu salbatzera etorriko dan Jesukristo gure Jaunaren zain gagoz. Dana bere menpean ezita daukán eskubidez, gure gorputz doillar au aldatu ta bere gorputz argitsuaren antzeko bihurtuko dau.

Beraz, ene anai maite ta kutunok, neure pozibide ta koroí zareenok, iraun egizue orrela Jaunagan, guztiz laztanok. Ebodi ta Sintike (1), dagozala, arren, gogo batez Jaunagan, Zuk be, nire lagun zintzo orrek, lagun egiezu, mesedez, emakume orrei: Klemente'gaz eta beste nire lankideakaz batera Barri Onaren alde neure ondoan ekin eutsen-eta. Guzti orrein izenak bizien liburuan ezarrita dagoz.

Koru-kanta.—Zeuk askatu gaituzu, Jauna, gure are-rioakandik; Zeuk itzi dozuz lotsaz beterik gorroto dauskuenak. Jaungoikoa goratuko dogu egun osoan, eta zeure izena autortuko dogu beti.

Aleluia, aileluia.—Barren-barrenetik egin dautsut dei, Jauna; entzun, Jauna, nire eskaria. Aleluia.

Barri Ona (Mat, 9, 18-26).—Aldi aretan, Jesus'ek gizaldeari berba egiten ziarduala, aundiki bat urreratu yakon, eta gurturik, esan eutsan: «Jauna, orain-txe il yat alabea; baiña zatoz, ezarri egiozu eskua, ta biztuko da.» Eta Jesus'ek, jagirik, bere iksleakaz jarraitu eutsan.

Bitartean, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume batek, Jesus'egana atzetik urreraturik, soñeko-ertza ikutu eutsan: «soñekoa bakarrik ikutzen ba'dautsat, osatuko naz», berekautan esaten eban-eta. Jesus'ek, atzera bihurturik, eta emakumea ikusirik, esan eutsan: (dzan egizu uste on, alaba; zeure sinismenak osatu zaitu.» Eta orduantxe osatu zan emakumea.

(1) Filipos'ko kristau andrazlco bi; ez eben alkar ondo eroaten, antza.

Aundikiaren etxera eldu zanean, Jesus'ek, txis-tulariak eta an batu ziranen zarata-otsa ikusirik, esan eutsen: «Alde egizue: neskato au ez dago ilda, lo baiño.» Eta irri-barre egiten eutsoen. Gizataldeari alde eraginda, Jesus sartu egin zan, eta neskatoari eskutik eldu eutsan, eta au jagi egin zan, Eta bazterralde guzti aretan zabaldu zan jazo onen barria.—*Kredo*.

Eskintza.—^Barren-barrenetik egin daufcsut dei, Jau na; entzun, Jauna, nire otoitza.

Opari-otoitza.—Zure menpean gero ta geiago egon nairik, gorapenezko opari au eskintzen dautsugu: guk irabazi bagarik emon dauskuzuna, zeure errukiz osotu dagizun gudan. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deumarena*, 455 orri.

J'aunartzerakoa.—Benetan dirautsuet: otoitzean osatu dagizuen edozer, artuko dozuela sinistu egizue, ta jadetsiko dozue.

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko algutzidun!, zeru ko Sakramentu onetatik artu dogunok, ez gaitzala gizonen ariskueta lotuta gelditu. Amaibagako.

O A R R A

Pentekoste-osteko domekak, 23'tik 28'rarte izan dai-tekez, Pazko-eguna zelan datorren. 24 domeka baiño yeiago ba'dira, 23'garrenaren urrengo, Erregen-ostean esan bagarik gelditu ziran Mezak artzen dira, onetara:

Pentekoste-osteko domekak 25 ba'dira, Erregen-osteko 6'gna. artzen da 24'garrenerako.

26 ba'dira, Erregen-osteko 5'gna. ta, 6'gna.

27 ba'dira, » i> i'gna., 5'gna. ta 6'gna.

28 ba'dira, » » 3'gna., i'gna., 5'gna. ta 6'gna.

24'garren igandeko Meza, barriz, Pentekoste-osteko azkenengo domekan irakurten da beti, 410 orri.

EKKEGENOSTEKO 3'GAKKEN IGANHEA

(Peniekoslco-osteko domketaruko aldatua)
2'yn. mailla. — Orlcyiz

Asierako azalpen laburra, ikusi 175 orri.

Biblia.—Oseas, 5, 15'etik 6, B'ra; 11; 14, 2-9. —Joel: 2; 3.—Amos: 9, 8-15,—Abdias: 1, 15-17,—Jonias: 1'etik 3'ra.

MEZA

Sarrera, Koru-kanta, Eskintza ta Jaunartzerahoa:
Pentekoste-osleko 23'yarren doviekan lez, 405 orri.

Otoitzak, Irakurgaia ta Karri Ona: *Erregen-osteko 3'yarren domekan lez, 75 O?TÍ.*

EKREGEN-OSTEKO 4'GARREN IGANDEA

(Pentekoste-osteko domeketaruko aldatua)
2'yn. mallltt. — Orlcyiz

Asieiaiko azalpen laburru, ikuai 78 orri.

Biblia.—Mikeas: 4, 1-8; 5, 1-7; 6, 1-8; 7, 7-»).—Nahum: 1, 1-7.—Abal'luk: 3.--Sofonias: 1, 14-18; 3, D-20.—Ajeo: 2, 1-9.—Zakaria-s: 6, 9'tik 8, 23'ra; 9, D-17; 11, 4-17; 13, 7-9.—Malakias: 1, 1-11; 3, 14 ta 13-24.

MEZA

Sarrera, Koru-kanta, Eskintza ta Jaunartzp.rakoa;
Pentekoste-osteko 23'garren domekan lez, 405 orri.

Otoitzak, Irakurgaia ta Barri Ona: *Erreyen-osleko 4'garren domekan lez, 78 orri.*

EKREGEN-OSTEKO 5'GAKKEN IGANJDÉA

(Pentekoste-osleko domekelarulco uldutu)

2'yn. muilla. — Orlcgiz

Asierako azalpen laburra, ikusi 80 orri.

Biblia.—Makabeu'en 2'gna.: 1, 43'tik 2, 28'ra; 2, 42'tik ij

MEZA

Sarrera, Koru-kanta, Eskintza la Jaunartzerakoa:
Pentekoste-osleko 23'yarren domekan lez, 405 orri.

Otoitzak, Irakunraia ta Barri Ona: *Erregen-osteko 5'garren domekan lez, 80 OÍTÍ.*

EKKEGEN-OSTEKO u'GAKKEN IGANDEA

(Pentekoste-ostelco domeketaruko aldatua)
2'yn. inaitla. — Ortcyiz

Asierako azalpen iaburra, ikusi 82 orri.


Biblia.—Makabeu'en 2'gna.: 1, 18-32; 3, 4-40; 5, 11'tik 7-42'ra; 0, 1-18; 9, 28'tik 10, 8'ra; 12, 32'tik 13, 11'ra; 15, 7-29. 16'ra; 15, 7-29.

MEZA

Sarrera, Koru-kanta, Eskintza ta Jauiartzerakoa:
Pentekoste-osieko 23'garren domekan lez, 405 orri.

Otoitzak, Irakurgaia ta Barri Ona; *Erreyen-osteko ti'yarren domekaz lez, 82 orri.*





PEMTEKOSTE-OSTEKO 24'GARREN IGANDEA

(Azkenenyo lyandea)

2^{yn}. maila. — Orlegiz

Donicka oneaz amaitzen da Eliz-urtea. Eta beronen inguruan, asmo berarizko bat darabil gure Eliza Amak, gure arimen barruraino sartu nairik. Zer ete? Gauza guztien amaia, munduaren azkena. Elizea, izan be, azken aintzatsu «rretara doa uste osoz; eta gu be orrexek indartu bear gal-tu, lurrekoa dana itzirik eta zerukoetara begiak jasorik, egitada onez apaindu ta bete gaitazan. Aldia laburra da-ta, ibilli gaitazan zintzo zerurako bidetik, eriotz-orduan poztu gaitazan.

Biblia.—Jon'en Agerkari'tik, Apoc: 4; 5; 7; 11, l'il'tuk 12, 18; 14, 1-13; 17tik 19'ra; 20, 11'tik 22, 5'era; 22, 10-21.

M E Z A

Sarrera.—Bakezko gogorakizunak dodaz Nik, —diñS Jaunak—, ez atsekabezkoak. Dei egingo daustazue, ta Nik entzun egingo dautsuet eta zuen erbestepekoak alde guztietatik erakarriko dodaz.—Ps. Bedeinkatu dozu, Jauna, zure lurra; Jakob atzemtik atara egin dozu.—Aintza.

Otoitza.—Bizkortu egizuz, Jauna, zure zintzoen biotzak: jaungoikozko egintzen frutua arduratsua go biltaturik, zure errukitifik on aundiagoak atara dagiezan. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Koloso'koai: 1, 9-14).—1 Analok: Jaungoikoari zeuen alde otoitz egiten eta es-

katzen diardugu eten бага, Jaungoikoaren naira oso-
osorik ezagutuaz, goi-jakitez eta senaz bete-betearen argitu zagiezan: Jaungoikoari zor yakon bizikera eroan dagizuen, eta danetan atsegin izan dagiozuen. Edozetariko egite onak egizuez; aurreratatu Jaungoikoaren ezagueran: bere al izate ospatsuak guztiz indarturik, eroapena ta kemena agertuko dozue pozez beterik. Es-Icnerak emon egiozuez Aita Jaungoikoari, argnerre-
inuen Santuen oiñorde-lagun izateko gei egin gaitua-
(ako; ta illunaren menpetik atarata, bere Seme maitearen erreñura aldatu gaitualako. Seme onen Odolaren bidez dogu erospena. (salbaziñoa), baita pekatuen parkamena be,

Korn-kanta.— Zeuk askatzen gaituzu, Jauna, gure urreioakandik; Zeluk itzi dozuz lotsaz beterik gorroto daukuenak. Jaungoikoa goratuko dogu egun osoan, eta zeure izena autortuko dogu befi.

Alcluia, a'leluia.--Barren¹barrenetik egin dautsut dei, Jauna; entzun, Jauna, nire eskaria. Aleluia.

Barri Ona (Mat, 24, 15-35).—Aldi -aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Danie! igarleak aita-turiko ondamendi izugarria toki santuan ikusi dagizueanean, (irakurleak ulertu begi), orduan Judea'n egon daitezanak, iges egin begie mendietara; ta sabafan egon daitena, ez bedi jatsi etxera barrutik zer-bait artzera; ta soloan egon daitena, ez bedi biurcu soiñeko-billa. Zoritxarra, egun aireitan seiña (umea) egiteko ta seiña azten egon daitezantzat!

Otoi egizue zuen igesa neguz edo zapatuz Jazo ez daiten. Izan be, iarrialdi aundia izango da: a lakorik, Jaungoikoak mundua egin ebanetik gaur arte, ez da izan-eta, ezta izango be, Eta egun areik Jaunak laburtu ez ba'legiz, ez litzakean iñor bizirik geidituko; baiña Berak aukeratu ebazanakaitik, laburtu egingo dira egun areik. Nor.baitek orduan «Kristo ortxe naiz ementxe dago» esaten ba'dautsue, ez sinistu. Guzurrezko Kristoak eta sasi-igarleak jagi, ta al ba'itiz, aukeratuak eittrak be okertzerañoko ezaugarri ta mirariak egingo dabe-ta. Gogoan izan, ba.

Beraz, "begira, basamortuan dago" esaten ba'dautsue, ez urten; "ara, etxe barruan", ez sinistu. Tximistea eguzki - sortzaldetik u r t e n d a sartzal-

deraiño agiri danez, Gizasemearen etorrera be alan-txe izango da-ta. Gorpua egon daiten tokian, antxe batuko dira arranoak be. Egun areitako larrialdia igaro daitenean, barriz, eguzkia illundu egingo da, illargiak ez dau argirik emongo, ta izarrak ortzitik (zerutik) jausi egingo dira. Eta orduan, Gizasemearen ezau-garria zeruan agertuko da, ta lureko erri guzbiak bular-joka asiko dira; ta Gizasemea odeietan etorten ikusiko dabe, indartsu ta ospe aundiz. Eta bere Aingeruak turuta-otsez bialduko dauz, eta oneik Aren auke-ratuak lau aldeetatik batuko dabez, zeru-mugatik mugaraiño.

Ikasi egizue ipuin bat pikondotik. Pikoiiidoarl adarrak ziidu (samurtu) ta orriak urten dakiozanean, ba-dakizue uda urrean dagoana. Zuek be orrelaxe: guzti oneik ikusi dagizuezanean, jakin egizue Giza-semea ateaurrean urrean dagoana. Benetan dirausuet: ez da gizaldi au igaroko, guzti oneik bete arte. Zeru-lurrak igaro egingo dira; baiña nire berbak ez dira ígaroko.—*Kredo*.


Eskintza. — Barren-barrenetik egin dauteut dei, Jauna; entzun, Jauna, nire otoitza.


Opari-otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna, gure eska-riak; eta zure erriaren oparigai ta otoitzak ontzat ar-turik, guztíon biotzak Zeugana biurtu egizuz. Amai-bagako.

Kanon-aurrea: *Irutasun deunarena*, 455 orri.

Jaunartzerakoa.—Benetan dirausuet: otoitzean es-katu dagizuen edozer, artu egingo dozuela sinistu egi-zue, ta jadetsiko dozue.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: Sakramentu au artu dogun ezkeru, gugan gri-ña txarrik dagoan guztia zeure grazi osasungarriak osatu dagiala. Amaibagako.





M E Z A D E U N A

ASPERGES

Igandero, Meza Nagusi aurrean, abadeak batearen santutasuna gogoratzen dautse bere eliztarrai ur bedeinkatuaren bidez, eta kantu au abesten da:

Isopuz bustiko nozu, Jauna, ta garbi geldituko naz; garbitu egingo nozu, ta edurra baiño zuriago geldituko naz.—*Ps.* Erruki zakidaz, Jaungoiko, zure erruki aundiagaitik.—Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari. Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan.—Olantxe.—Isopuz...

PAZKOALDIAN


Elizako eskumaldetik ura urtetzen ikusi neban, aleluia; ta ur onek ikutu dauzan guztiak, salbau egín dira, ta diño: aleluia, aleluia.—*Ps.* Autortu egizue Jauna, ona da-ta: Aren errukia betikoa da-ta.—Aintza Aitari...—Elizako...

Gero, auxe diño abadeak:

A.—Erakutsi eiguzu, Jauna, zure errukia. (P. A. Aleluia).
E.—Ta emon egiguzu Zugandiko osasuna. (A. P. Alckiiia).
A.—Jauna, entzun nire eskaria.
E.—Nire otoí-deia eldu bedi Zugana.
A.—Jauna zuekan.
E.—Baita zure ariman be.

Otoilza.—Entzun gagizuz, Jaun santu, Aita alguztidun, Jaungoiko betikor orrek!; eta bialdu eiguzu zerutik zure Aingeru santua: eliza onetan gagozan guztiok gorde, berotu, zaindu, ikusi ta jagon gazizan. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.



ASPERGES

Asperges me. 'Ddmine, hyssópo, et mundábor: lavábis me, et super nivem dealbábor.—*Ps.* Misérére mei, Deus, secundum magnam misericórdiam tuam,—Glória Patri.—Aspérges...

PAZKOALDIAN

Vidi aquam* egrediéntem de templo a látere dextro, allelúia; et omnes ad quos pervénit aqua ista salvi facti sunt et dicent: allelúia, allelúia.—*Ps.* Confitémini Dómino, quóniam bonus: quóniam in saéculum misericórdia eius.—Glória,—Vidi aquam...

A.—Osténde nobis, Dómine, misericórdiam tuam (T. P. Allehíia).

E.—Et salutáre tuum da nobis. (T. P. Allelúia).

A.—Dómine, exáudi orationem meam.

E.—Et clamor meus ad te véniat.

A.—Dóminus vobiscum.

E.—Et cum spírítu tuo.

Orémus. — Exáudi nos, Dómine sancte, Pater omnípotens, aetérne Deus: et míttre dignéris sanctum Angelum tuum de caelis, qui custódiat, fóveat, prdtegat, vísitet, at^{ue}, deféndat omnes hñbitátes ín hoc habitáculo. Per Christum Dñi Innum nostrum. Amen.

MEZAREN BETTKO ZATIA

Abadea, altara-urrean zutik. ELIZTARRAK, BELAUNIKO

Abaeafc.—Aitaren, f eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Olantxe.

Jaungoikoaren altarara igoko naz.

Eliziarraf.—Nire gaztetaeuna poztuten dauan Jaungoikoagana.

A.—Ebatzi Zeuk, Jauna, nire auzia, ta egizu nire alde bada-ezpadakoen aurka; gizon gaizto ta guzur-tiakandik zaindu nagizu.

E.—Zeu zara nire Jaungoiko ta nire indar; zegaitik urrindu nozu Zugandik?, eta zegaitik nabil itun, arerioak naigabetzen nauala?

A.—Bialdu egidazuz zure argi ta egia: eurak zuzendu ta eroango nabe zure mendi santura ta zure bizitokira

E.—Eta Jaungoikoaren altarara igoko naz: nire gaztetasuna poztuten dauan Jaungoikoagana.

A.—Soinu-oteez goratuko zaitut, Jaungoiko, ene Jaungoiko! Zer dala-ta zagoz itun, ene arima? Zegaitik larritzen zara nire barruan?

E.—Itxaron egizu Jaungoikoagan: oraindiño Bernu geiago goratu bear dot, nire arpegiko poz-argia ta nire Jaungoikoa, Bera data.

A.—Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

E.—Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetRn. Olantxe.

A.—Jaungoikoaren altarara igoko naz.

E.—Nire gaztetasuna poztuten dauan Jaungoikoagana.

A.—Gure iiflarra | Jaungoikoaren izenean dago.

E.—Arexek e gin dauz zem-lurrak.

ORDO MISSAF:

In nómine Patris, ✠ et Filii et Spíritus Sancti, Amen.

A.—Introíbo ad altáre Dei.

E.—Ad Deum qui laetificat iuventútem meam.

A.—Iúdica me, Deue, et discérne causam meam de gente non sancta: ab fiómine iníquo, et dolóso éru me.

E.—Quia tu es, Deus, fortitúdo mea: / quare me repulísti, / et quare tristis incédo, dum afflígit me inimícus?

A.—Emítte lucem tuam et veritátem tuam: ipsa me deduxérunt, et adduxérunt in montem sanctum tuum, et in tabernácula tua.

E.—Et introíbo ad altáre Dei: / ad Deum qui laetífíat iuventútem meam.

A.—Confitébor tibi in cíthara, Deus, Deus meus: quare tristis es, ánima mea, et quare contúrbas me?

E.—Spera in Deo, / quóniam adhuc confitébor illí: / salutáre vuitus mei, / et Deus meus,

A.—Glória Patri, et Pílio et Spíritui Sancto.

E.—Sicut erat in princípío, et nunc, et semper: / et in saecula saeculórum. Amen.

A.—Introíbo ad altáre Dei,

E.—Ad Deum qui laetificat iuvenbútem meam.

A.—Adiutórium nostrum f in nómine Dómini.

, E.—Qui fecit caelum et terram.

AUTORTZA

Abadeak, makurturik, "Conjiteor" esaten dau:

A.—Nik, pekatari onek,...

Eliztarrek.—Jaungoiko ainguzitiduina erruki bedi zutzaz, eta zure pekatuak parkaturik, betiko bizitzara eroan zagizala,

A.—Olantxe.

E.—Autortzen dautset: Jaungoiko aluztidunari, Maria beti Birjiña doatsuari, Mikel Goiaingeru doatsuari, Jon Bateatzaille doatsuari. Pedro ta Paulo Apostolu santuai, Santu guztiai, ta zuri, abade jaun orri, pekatu lar egin dodala gogapenez (edo pentzamentuz), berbaz eta egiñez, neure erruz, neure erruz, neure erru aunciiz. Onexegaitik eskatzen dautset Maria beti Birjiña doatsuari, Mikel Goiaingeru doatsuari, Jon Bateatzaille doatsuari, Pedro ta Paulo Apostolu santuai, Santu guztiai, ta zuri, abade jaun orri, otoi egin dagiozuela nire alde Jesukristo gure Jaunari.

Abadeak errukia eskatzen dau erriarentzat;

A.—Jaungoiko aluztiduna erruki bedi zuetaz, eta zuen pekatuak parkaturik, betiko bizitzara eroan zagiezala.

E.—Olantxe.

A.—Gure pekatu guztiak parkatu, garbitu ta ezeztu dagizala Jaungoiko aluztidun eta errukiorrak.

E.—Olantxe.

A.—Zuk, Jaungoiko orrek, gugana biurturik, bizlta emongo dauskuzu.

E.—Eta zure erria Zeugan poztuko da.

A.—Érakutsi eiguzu, Jauna, zure errukia.

E.—Eta emon eigizu Zugandiko osasuna.

A.—Jauna, entzun nire eskaria.

E.—Eta nire otoitz-deia eldu bedi Zugana.

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

Abadea, altarara igoten da.—EUZTARRAK, ZUTIK

Kendu, arren, Jauna, gugandik gaitzakeri guztiak, altara santu onetara biotz garbiz igo gaitez. Kris-toto gure Jaunaren bidez. Olantxe.

AUTORTZA

A.—Confíteor Deo omnipoténti, etc.

E.—Misereátur tui omnípotens Deus, / et, dimíssis peccátis tuis, / perdúcat te ad vitam aetérnam.

A.—Amen.

E.— Confíteor Deo omnipoténti, / beátae Maríae seper Vírgini, / beáto Michaéli Archángelo, / beáto joánni Baptístae, / sanctis apóstolis Petro et Paulo, / ómnibus sanctis, et tibi, pater, quia peccávi nimis cogitátione, verbo et ópere: / mea culpa, mea cuipa, mea máxima culpa, / Ideo précor beátam Mariam semper Vírginem, / beátum Miohaélem Archángelum, / beátum Joánnem Baptístam, / s a n c t o s Apostolos Petrum et Paulum, / omnes Sanctos, et te, patfir, / oráre pro me ad Dóminum Deum nostrum.

' —A.—Misereátur vestri omnípotens Deus, et, dimíssis peccátis vestris, perdúcat vos ad vitam aetérnam.

E.—Amen.

I A.—Indulgéntiam, / absolutiónem, et remissionem peccatórum nostrórum tríbuat nobis omnípotens et miséricors Dóminus.

[E.—Amen.

[A.—Deus, tu convérsus vívificábis nos.

E.—Et plebs tua laetábitur in te.

I A.—Osténde nobís, Dómine, misericórdiam tuam,

E.—Et salutáre tuum da nobis.

A.—Dómine, exáudit oratiónem meam.

E.—Et clamor meus ad te véniat,

A.—Dóminus vobiscum.

E.—Et cum spírítu tuo.

A.—Aufer a nobis, quaesumus, Dómine, iniquitates nostras: ut ad Sancta sanctorum puris mereámur méntibus introirc. Per Christum Dótninus nostrum. Amen.

/lífara-nrrifco *Santuen gorpuzkiñai (erlekiai) mun cgiñez:*

Arren, Jauna, emen dagozan gorpuzkin onein ize-neko santuen eta beste santu guztien irabaziak bitarteko dirala, parkatu egizuz nire pekatu guztiak. Olantxe.

Orain, abudea eskumaldera doa, ta "Gurutze santua" egiñik, Mezaren Sarre_a irakurten dau:

SARRERA ..—————-

—
i

EGUNEAN EGUNEKOA

Orámus te, Dómine, por mérita Sanctórum tuórum, cjuorum relíquiae hic sunt, et ónnium Sanctórum, ut indulgére dignéris ómnia peccáta mea. Amen.

INTKOITUS

EGUNEAN EGUNEKOA

MEZAREN LENENGO ZATIA: OPARI-ALRREKOA

Abadeak, altara-erdira biurtuta, auxe diño:

KYRIE

A.—Jauna, erruki zakiguz.

E.—Jauna, erruki zakiguz.

A.—Jauna, erruki zakiguz.

E.—Kristo, erruki zakiguz.

A.—Kristo, erruki zakiguz.

E.—Kristo, erruki zakiguz.

A.—Jauna, erruki zakiguz.

E.—Jauna, erruki zakiguz.

A.—Jauna, erruki zakiguz.

GLORIA

Abesii- au pozezko egunetan esaten da (igande, Gabon, Pazkoaldi, Santuen egunetcm eta abar)

Gora Jaungoikoa zeru goietan.

Eta bakea lurrean gogo oneko gizonai.

AITARI

Autortzen zaitugu. Bedeinkatzen zaitugu. Gurtzen zaitugu. Goratzen zaitugu. Zure aintza aundi ori dalata, eskerrak emoten dautsuguz. Jaungoiko Jaun, zeruko Errege, Aita Jaungoiko alguztidun.

KYRIE

A.—Kyrie eléison.

E.—Kyrie, eléison.

A.—Kyrie eléison.

E.—Christe, eléison.

A.—Christe, eléison.

E.—Christe, eléison.

A.—Kyrie eléison.

E.—Kyrie, eléison.

A.—Kyrie eléison.

GLORIA

Glória in excélsis Deo, / et in terra pax homíibus / bonae voluntátis. / Laudámus te, / benedicimus te, / adorámus te, / giorificámus te, / grátias ágimus tibi / propter magnam glóriam tuam: / Dómine Deus, / Rex caeléstis, / Deus Pater omnípotens. /

SEMEARI

Jaun Seme bakar, Jesukristo. Jaungoiko Jaun, Jaun-Joiko-Bildots, Aitaren Semea. Munduaren pekatuak kentzen dozuzan ori, erruki zakiguz. Munduaren pekatuak kentzen dozuzan orrek, onartu egizuz gure eskariak. Aitaren eskumaldean jesavrita zagozan ori, erruki zakiguz. Zeu bakarrik zara Santu-ta, Zeu bakarrik Jaun, Zeu bakarrik Gorenengo, Jesu-Kristo.

ESPIRITU SANTUARI

Espiritu Santuagaz f Jaungoiko Aitaren zorioneai. J Olanxe.

Abadeak, altarari mun egin eia erriaganuniz begira:

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

OTOITZA_____

EGUNEAN ECUNEKOA

Eliztarrak, ZUTIK; baiña Illen, Abenduko ta Garizumako. Mezetan, BELAUNIKO.

Azkenean, auxe erantzuten da:

E.—Olanxe.

IKAKUKGAIA_____

EGUNEAN EGUNEKOA i

I_____

Eliztarrak, JESARRI

Azkenean,

E.—Eskerrak Jaungoikoari.

KOKU-KANTA ta ALELUIA, cdo LUZAGARRIA_____

EGUNEAN EGUNEKOA i

Abadea, altara-erdira doa.—Eliztarrak, ZUTIK

Garbitu egizuz. Jaungoiko alguztidun orrek, nire biotz eta ezpanak, Isaias igarlearenak txingar goriz

Dómine Pili unigénite, / Jesu Christe; / Dómine Deus, / Agnus Dei, / Pilius Patris: /

Qui tollis peccáta mundi, / miserére nobis; / qui tollis peccáta mundi, / súscipe deprecationem nostram; / qui sedes ad dexteram Patris, / miserére nobis. / Quóniam tu solus Sanctus, / tu solus Dóminus, / tu solus Altíssimus: Iesu Christe.

Cum Sancto Spiritu: -f / in glória Dei Patris. / Araen,

A.—Dóminus vobíscum.

E.—Et cum spíritu tuo.

OREMUS

EGUNEAN EGUNEKOA

A.—Per ómnia saécula saeculórum.

E.—Ainen.

LECTIO

EGUNEAN EGUNEKOA

Azkenean,

—E.—Deo grátías.

GRADUALE ta ALELUIA, edo TKACTUS.

EGUNEAN EGUNEKOA

Munda cor meum, ac lábia mea, omnípotens Deus, qui lábia Isaíae prophétae cálculo mundásti igníto: ita

garbitu zenduzanez: arexen antzean garbitu nagizu zeure erruki atsegiñez, zure Barri Ona santua bear danez iragairri dagidan. Kristo gure Jaunaren bidez. Olantxe.

Onetsi nagizu, Jauna. Jauna izan bedi nire biotz -e&panetan, Aren Barri Ona egoki ta zuzen iragarri dagidan. Olantxe.

Abadeak, ezkerrekaldera joanilc:

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

A.—Barri Onaren zaiti au N.'enetik,

E.—Aintza zuri, Jauna.

BARRI ONA._____i

EUUNEAN EGUNiKOIA I

Amaitutakoan, auxe erantzuten da:

E.—Gora zu, Kristo.

Ta abadeak liburuari mun eginxk:

Barri On au irakurriaz, parkatu bediz gure peka-
tuak.

Ibadeak, altara-erdira joanik, Meza batzuetan Kredoa esaten duU.—ELIZTARRAK, ZUTIK

KREDO

AITA

Sinisten dot Jaungoiko bakarra, Aita alguztiduna, zeru-lurren egillea, agiri diran eta agiri ez diran guztiena.

HEMEA

Baita Jesukrislo Jaun Jaungoikoaren Seme bakarra be, gizaldi guztien aurretik Aitagandik sortua. Jaungoikoagandiko Jaungoikoa, argitiko argia, egiazko Jaungoikoagandik egiazko Jaungoikoa. Sortua, ez egiña, Aitareen izakidea; gauza guztiak egin dauzana. Gu gizonokaitik eta gure osasunerako zeruetatik Jatsia. (*Belamiiko*). ETA ESPIRITU SANTUAREN EGINEZ, MARIA BRJINAGANDIK ARAGIA ARTU EBAN, ETA GIZON EGIN ZAN. (*Zutik*). Gure alde guru-

nie tua grata miseratióne dignáre mundáre, ut sanctu-in Evangélium tuum digne váleam nuntiáre. Per Christum Dóminum nostrum. Amen.

Jube, Dómine, benedícere. Dóminus- sit in corde meo, et in lábiis meis: ut digne ©t competénter annúntiem Evangélium suum, Amén.

A.—Dóminus vobíscum.

E.—Et cum spírítu tuo.

A.—Sequéntia sancti t Evangélii secúndum...

E.—Glória tibi, Dómine.

EVANGELIUM

I

EGUNEAN EGUNEKOA

Barri Ona amaitutakoan,

E,—Glória tibi, Dómine.

A.—Per evangélica dicta deleántur nostra delicta

Egun batzuetan,

CREDO

Credo in unum Deum. / Patrem omnipoténtem, / factórem caeli et terrae, / visibílium ómnium, et invisibílium.

Et in unum Dóminum Iesum Christum, / Fílium Dei unigénitum. / Et ex Patre natum / ante ómnia saécula. / Deum de Deo, / iumen de lúmine, / Deum verum de Deo vero. / Génitum, non factum, / consubstantiálem Patri: / per quem ómnia facta sunt. / Qui propter nos hómines / et propter nostram salútem / descéndit de caelis. / (*Belauniko*.)

ET INCARNATUS EST DE SPIRITU SANCTO / EX MARIA VIRGINE: / ET HOMO PACTUS EST. /

tzean josi be egin ebena: Pontzio Pilatos'en menpean oiñazetua ta obiratua. Bta Liburu Santuak esan ebenez, irugarren egunean biztu egin zan. Eta zerura igo zan, eta an Aitaren eskumaldean jarrita dago. Eta barriro, aintzaz beterik, biziak eta illak epaitzera etorriko da: ta Aren erreñuak ez dau amairik izango.

ESPIRITU SANTUA

Baita Espiritu Santua be sinisten dot, Jaun eta bizitza-emoillea; Aita ta Semeagandik datorrena; Aita ta Semeagaz batera guntzen eta goratzen doguna: Igarleen agoz berba egin ebana.

ELIZA

Sinisten dot Eliza bakarra, santu, katoliku ta apostoluakandikoa. Pekatuak parkatzeko bateo bakarra autortzen dot. Eta itxaroten dot illen biztuera, ta geroko f bizitza. Oiantxe.

MEZAREN BIGARREN ZATIA: OPARIA

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

ESKINTZA

EGUNEAN EGUNEKOA

ELIZTARRAK, JESARRI

Orain, ogia ta ardaoa, Mezako oparigaiak eskintzen dauz abadeak. Ogia eskintzean:

Artu egizu, Aita deun, Jaungoiko alguztidun betiko orrek, opari orbanbage au; nik, zure menpeko gei ez iazan onek, Zuri, ene Jaungoiko bizi ta egiazko orri, eskintzen dautsut, neure pekatu, irain eta utsegin azkenbageen orde; baita emen dagozan eta gaiñerako kristau zintzo, bizi ta il guztien alde be: niri lez orrei be betiko bizitzarako osasungarri izan dakigun. Olantxe.

Ardaoari ur-tantak naastean:

Gizona era miragarriz egin eta mirari aundiagoz barriztu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, ardao ta ur

Crucifixus étiam pro nobis: / sub Póntio PUa-
to / passus, et sepúltus est. / Et resurréxit tértia
die, / secúndum Scriptúras. / Et ascéndit in cae-
lúm: / sedet aa déxteram Patris, / Effíterum ventú-
rus est cum glória / iudicáre vivos et mórtuos: / cuius
regni non erit finis. /

, Et in Spíritum Sanctum, / Dónamum, et vivificán-
cem: / qui ex Patre, Pilióque procédit. / Qui cum Pa-
tre et Pílio simul adorátur, / et conglorificátur. /
Qui locútus est per Prophétas. /

i Et unam, sanctam, cathólicam, / et apostólicam
EccléSIam. / Confíteor unum baptísma / in remisió-
nem peccatórium. / Et exspécto resurrecciónem mor-
tuórum. / Et vitam f ventúri saeculi. / Amen.

A.—Dóminus vobíscum.

E.—Et cum spírítu tuo.

OFEERTORIUM

EGUNEAN BGUNEKOA

Súscipe, eante Paiter, omnipotens a/etérne Deus,
hanc immaculátam hóstiam, quam ego indígnus fá-
mulus tuus offero tibi Deo meo, vivo et vero, pro in-
numerábilibus peccátis et offensió nibus, et negligétiis
meis, et pro ómnibus circumstántibus sed et pro ómni-
bus fidélibus christiánis vivis atque defúntis: ut mihi
et illis proficiat ad salútem in vitam aetérnam. Amen.

Deus, qui humánae substántiae dignitátem mira-
bíliter condidísti, et mirabílius reformásti: da nobis

onefn ezkutapenaren bidez, Jesukristo zure Seme ta gure Jaunak gure gizatasuna artu ebanez, Aren Jaungoikotasunaren zorionkide izan gaitezala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Ardaoa eskintzean: J

Zeuri eskintzen dautsugu, Jauna, edontzi osasungarri au, zure errukia eskatuez; eta egizu, gure ta mundu guztiaren onerako Jaungoiko aundiaren aurrera usain gozoz igo dadilla. Olantxe.

Gero, makurturik, auxe esaten dau:

Artu gagizuz, Jauna, biotz-apal eta damaturik gatzozanok; eta gaur zure aurrean eskintzen dautsugun opari au, atsegingarri izan dakizula, Jaungoiko Jaun orri.

Espiritu Santuari otoi egiten daulso, oparigaiak bedeinkaluez:

Zaloz, Jaungoiko betikor, alguztidun eta donetzaille ori; ta bedeinkatu t egizu zure izen santuari aton-j du dautsagun opari au.

Atzamarrak garbilzeko, altara-erlzera doa:

Eskuok pekatu guztitik garbituko cloclaz, ela zure i altarara urreracuko naz, Jauna:

Zure gorapenak kantuz esateko, ta zure arrigarri guztiak zabaltzeko.

Zeure etxearen edertasuna maite izan dot, Jauna: baita zure bizileku argitsua be.

Ez galdu, arren, Jaungoiko orrek, gaiztoakaz bate-ra nire arima: ezta nire bizi au be gizon odoizaleakaz. I

Oneik eskuetan gaiztakeria dabe, ta euren eskunia lapurretaz beterik dauke.

Ni, barriz, garbi ibiliko naz; zaindu nagizu ta erruki zakidaz.

Nire oiñak bide zuzenean iraun dabe; batzarretan goratu egingo zaitut, Jauna.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. Olantxe.

(Ildakoen Mezan ez da esaten "Aintzu Ailari")



per hujus aquae et vini mystérium, ejus divinitátis esse consórtes, qui humanitátis nostrae fieri dignátus est párticeps, Iesus Christus, Pílius tuus, Dóminus noster: Qui tecum vivit et regnat in unitáte Spíritus Sancti, Deus, per ómnia saecula saeculórum. Amen.

Offérimus tibi, Dómine, cálicem salutáris, tuam c'.eprecántes cleméntiam: ut in conspéctu divinae maiestátis tuae pro nostra et totíus mundi salúte, cum odóre suavitátis ascéndat. Amen.

In spíritu humilitátis et in ánimo contríto suscipiámur a te, Dómine: et sic fiat sacrificium nostrum in conspéctu tuo hódie, ut pláceat tibi, Dómine Deus.

Veni, sanctificátor, omnípotens, aetérne Deus: et t bédic hoc sacrificium tuo sancto nómini prae-paiátum.

Lavábo inter innocétes manus meas: et circúm-dabo aitáre 'tuum, Dómine.

Ut áudiam vocem laudis, et enárrem univérsa mirabilia tua.

Dómine, diléxi decórem domus tuae, et Iocum habitatiónis glóriae tuae.

Ne perdas cum ímpiis, Deus, ánimam meam, et arra viris sánguinum vitam meam:

In quorum mánibus iniquitátes sunt: dextera eórum repléta est munéribus.

Égo autem in innocéntia mea ingræssus sum: rédiline me, et miserére mei.

Pes meus stétit in dirécto: ín ecclésiis benedicam te, Dómine.

Glória Patri...

Altara-erdira biurtzen rtre, ía zerba.il makurtuta;

Artu egizu opari au, Irutasun deun orrek: Jesu-kristo gure Jaunaren nekaldi, biztuera ta zerura igokundearen gomutaz eskintzen dautsugu, baita María beti Birjiña zorionsuaren, Jon Bateatzaille doatsua-
ren, Pedro ta Paulo apostolu santuen eta beste santu guztten izen onerako be; arei govagarri, ta guri osangarri izan dakigula: eta lurrean goratzen doguza-
nok, zeruan bitarteko izan dagiguzaia. Kvisto guve Jaunaren berberaren bidez. Olantxe.

Orate, frates.

Abadeak, erriruntz biurtuez, otoilz egiUko eskatzen tlatfísé guztiai:

A.-Otoitz egízüe, anaiok, nire ta zuen oparí au Jaungoiko alguztidunari gogoko izan dakion.

E.—Artu begi Jaunak zure eskuetako opari au, bere izenaren gorapen eta aintzarako, ta gure ta bere Eljza Ama deun osoaren onerako.

A.—Olantxe.

OPARI-OTOITZA _____

[EGUNEAN EGUNEKOA

PREFAZIO erto KANON-AURREA

jaiegun batzuek euren dauíce (ikusí 451 orrij. Emen, astegunetan sarrien esaten dana jarten dogu

ELIZTARRAK, ZUTIK.

A.-Gizaldi guztien gizaldietan

E.-Olantxe.

A.-Jauna zuekan.

E.-Baita zure ariman be,

A.-Gora biotzak!

E.-Jaunagan daukaguz.

A.-Esken-ak emon daioguzan gure Jaungoiko Jau-
nari

E.—Egoki ta bidezko da

Súscipe, sancta Trinitas, hanc oblatiónem, quam tibi offérimus ob memóriam passiónis, resurrectionis, et ascensiónis lesu Ohristi Dómini nostri, et in honórem beátae Maríae semper Virginis, et beáti Joánnis Baptistae, et sanctorum Apostolorum Petri et Pauli, et istorum, et ómnium Sanctorum: ut illis proficiat ad honorem, nobis autem ad salútem: et illi pro nobis intercédere dignéntur in caelis, quorum memóriam ágimus :n terris. Per eúdem Ohristum Dóminum nostrum. Amen.

Oráte, fratres: ut meum ac vestrum sacrificium ac.eptábile fiat apud Deum Patrem omnipoténtem.

E.—Suscípiat Dóminus sacrificium de mánibus tuis, / ad iaudem et glóriam nóminis sui, / ad utilitátem quoque nostram, totiúsque Ecclésiæ suae sanctae.

SECRETA _____

I EGUNEAN EGUNEKOA

PKAEFAITO

A.—Per ómnia saécula saeculorum.

E.—Amen.

A.—Dóminus vobíscum.

E— Et cum spíritu tuo.

<A.—Sursum corda.

Jfc.—Habémus ad Dóminum.

A.—Grátias agámus Dómino Deo nostro.

E.—Dígnum et iustum est.

al

MEZAREN BETIKO ZATIA

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta o.sasungarri. 'oetlj ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri, eskerrak emotea. Kristo gure Jaunaren bidez.

-Beronegaitik, Jaun aundi ori, goratzen zaitue Aingeruak, aurtzen Agintariak, ikaratzen dira Aldunak. Zeru ta zeruko Indarrak, Serapin doatsuakaz batera, pozez beterik ospatzen zaitue. Gure gorapenak be arenakaz batera onartn egizuz, apal-apalik autortzen zaitugu-ta, esanez:

SANCTUS

Santua, santua, santua da zeruko indarren Jaungoiko Jauna. Zeru lurra zure aintzaz beterik dagoz. Aintza Zuri goietan!

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Aintza Zuri goietan)

KANON-ZATIA

ELIZTARRAK, BELAVNIKO

Mezako unerik ederrenetan gagoz. Meza-emoilleak, leneng Eliza osoaren alde otoitz egin, zeruko santuak ta batez }S Andra Maria'ri laguntza eskatu, Goiko Aitari be opari au ontzat artu dagiala erregututa gero, Kristo'k azken-aparitan lez, ogia ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz eta Odol biurtzen dauz.

Eliza osoaren alde:

Zeuri, Aita errukior orri, gure Jaun eta zure Semc Jesukristo bitarteko dogula.^auzipaz eskatzen dautsugu. emoi f oneik, eskintsari f oneik, opari -\ santu ta garbi oneik ontzat artu ta bedeinkatu dagizuzala.

Lenengo ta bein, zure Eliza santu katolikuaren alde eskintzen dautsuguz, Eliza au lur zabai osoan baketu, zaindu, batu ta zuzendu dagizun: baita zure otsein Aita Santu N., gure gotzain N., fededun zintzo ta apostoluen sinismen katolikuan bizi diran guztien alde be.

Orain, Meza eskiñi dauanaren alde:

Gogoratu egizuz, Jauna. zure morroi ta mirabe N., ita N.

Vere dignum et iustum est, aequum et salutare, jios tibi semper et u'bique grátias ágere: Dómine, f,ancte Pater, omnipotens aetérne Deus: per Christum nóminum nostrum. Per quem maiestátem tuam lauciant Angeli, adórant Dominatiónes, tremunt Potes-tates. Caelí, caelorumque Virtútes, ac beáta Séraphim, sócia exsultatióne concélebrant. Cum quibus et nostras voces. ut admítiti júbeas, deprecámur, súplici confessiÓne dicétes:

SANCTUS

Sanctus, Sanctus, Sanctus Dórhinus Deus Sábaoth, Pleni sunt caeli et terra glória tua. Hosánna in excélsis. Benedictus f qui venit in nómine Dómini. Hosanna in excélsis.

KANON MISSAE

Te ígitur, clem'entíssime Pater, iper Iesum Christum, Pflium tuum, Dóminum nostrum, súplices rogánius, ac pétimus, uti accépta hábeas et benedícas, haec |- dona, haec -\ múnera, haec f sancta sacrificia illibáta.

In primis, quae tibi offérimus pro Ecclésia tua sancta cathólica: quam pacificáre, custodire, adunáre et régere dignéris toto orbe terrárum: una cum fá-mulo tuo Papa nasitro N., et Antfistite nostro N., et ómnibus orthodoxis, atque cathólicae et apostólicae fidei cultóribus.

Meménto, Dómine, famulórum famularúmque tuárum N. et N.

14 bis

Senide, adiskide ia ongilleen alde:

Baita emen dagozan guztiak be, siniste onekoak eta zintzoak dirana ba-dakizu-ta. Euron alde eskintzen dautsugu, edo-ta eurok be eskintzen dautsue, opari goragarri au; euren alde ta euren artekoen alde, euren arimak zeruratzeko, betiko osasuna ta zoriona jadesteko ustez. Zeuri egiten dautsuez euren otoitzak, betiko Jaungoiko bizi ta egiazko orri.

Zerukoen taguntza-eske (1); -^

Guztiok alkaturik, gogora dakargu, lenengo ta bein, Jaungoikoaren ta gure Jaun Jesukristo'ren Ama dan Maria beti Birjiña goragarria;* baita Birjiña beraren senar Jose doatsua be, ta zure Apostolu, Felipe, Bartolome, Mateo, Simon eta Tadeo, Lino, Kleto, Klemente, Sisto, Kornelio, Zipriano, Lorentzo, Krisogono, Jon eta Paulo, Kosme ta Damian, eta zure Santu guztiak be; euron irabazi ta otoitzen bitartez, edonun eta beti zure laguntasunaren indarrak zaindu ta gorde gagizala eskatzen dautsugu. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez. Olantxe.

Oparien gaiñean eskuak ezartzez (2):

Gu zure menpeko ta zure etxe guztion opari au abegi onez artu egizu, Jauna; emon egiguzu bakea gure egunotan; betiko sutatik alendu gagizuz, eta zure aukeratuen artean artu gagizuz. Kristo gure Jaunaren bidez. Olantxe.

Oparigaiak bedeinkatzen áuz barriro;

Opari au, Jaungoiko orrek, f bedeinkatu, f zeureztait artu, f ontzat emon, bidezko ta zeure gogoko egizu: zure Seme guztiz maite dan Jesukristo gure Jaunaren Gorputz f eta Odol f biurtu dakigun.

Azken-aparitan lez, ogi ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz eta Odol biurtzen dauz:

Berak, il-aurreko egunean, bere esku santu agurgarrietan ogia artu eban: eta, begiak zerurantz jasorik,

- (1) *Otoitz onen asiera izarreraiño*, jai batzuek eurena dabe, 451 orri.*
- (2) *Otoitz qu, beste bat da Pazko ta Pentekoste-asteetan-453 orri.*

et ómnium circumstántium, quorum tibi fides cónnita est, et nota devótio, pro quíbus tibi offerimus: vel qui tibi offerunt hoc sacrificium laudis, pro se, suisque ómnibus: pro redemptione animárum suárum, pro spe salutis et incolumitátis suae: tibique reddunt vota sua aetérno Deo, vivo et vero.

Communicántes et memóriam venerántes, in primis gloriósae semper Vírginis Maríae, Genitrícis Dei et Dómini nostri Iesu Christi: sed et * beati Ioseph eiusdem Virginitis sponsi, et beatórum Apóstolorum ac Mártýrum tuórum, Petri et Pauli, Andréae, Iacóbi, Ioánnis, Thomae, Iacóbi, Philippi, Bartholomaei, Matthaei, Simónis et Thadaei, Lini, Oleti, Cleméntis, Xysti, Cornélii, Cypriáni, Lauréntii, Ohrysógoni, Ioánnis et Pauli, Coismae et Damiáni, et ómnium Sanctórum tuórum; quorum méritis preci'búsque concédas, ut in omnibus protectiónis tuae muniámur auxilio. Per eúndem Ohristum Dóminum nostrum. Amen.

Hanc igitur oblatiónem servitútis nostrae, sed et cunctae familiae tuae, quaesumus, Dómine, ut placátus accíp]as: i diésque nostros in tua pace dispónas, atque ab aetérna damnatióne nos éripi, et in electórum tuórum iúbeas grege numerári. Por Christum Dóminum nostrum. Amen.

Quam oblatiónem tu, Deus, in ómnibus, quaesumus, f benedictam, f adscríptam, f ratam, rationáblem, acceptabílemque fácere dignéris: ut nobis f Corpus, et f Sanguis fiat dilectíssimi Pílii tui Dómini nostri Iesu Christi.

Qui pridie quam paterétur, accepit panem in sanctas ac venerábiles manus suas, et elevatis óculis in

Zeugana, bere Aita altsu orregana, Zuri eskerrak emonez, f bedeinkatu, zatitu, ta bere ikasleai emon eutsen, zirautsela: Artu ta jan egizue guztiok onetatik, AU NEURE GORPUTZA DA-TA.

Era berean, apalondoan, edontzi (kaliza) bikain au be bere esku santu ta agurgarrietan arturik, Zuri barriro eskerrak emonez, bedeinkatu f egin eban, eta be. re ikasleai emon eutsen, zirautsela: Artu ta edan egizue guztiok onetatik, AU NEURE ODOL-ONTZIA DA-TA.. ALKARTASUN BARRIKO TA BETIKOA: SINISMEN - EZKUTAPENA: ZUEN ETA ASKOREN PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.

Oneik egin dagizuezan bakoitzean, neure gomutaz egizuez.

Opari santuak Aita Jaungoikoari eskiñiez:

Orregaitik, Jauna, guk zure menpekook eta zure erri osoak, zure Seme Jesukristo gure Jaunaren Nekaldi deuna, lurpetiko biztuera ta zerura igokunde argitsua gogora dakarguzala, Zeuri eskintzen dautsugu, Jaungoiko aundi ta goragarri orri, Zeuk emondako doai ta emoletatik, opari f garbi au, opari f santu au, opari f orbanbage au, betiko bizitza emoten dauan Ogi f santu au, ta betiko osasunerako f Edontzi au.

Opari oneik abegi on eta errukiorrez onartu egizuz, arren, zure morroi zintzo Abei'en oparigaiak, gure Patriarka Abraham'en oparia, ta zure abade nagusi Meikisidek'ek eskiñi eutsun opari santua, eskintza orbanbagea, ontzat artu zenduzanez.

Oso makurturik:

Zeuri, Jaungoiko algutidun orri, eskatzen dautsugu auzpaz, zure aingeru santuak bere eskuz opari oneik zure goiko altara bikaiñera, Jaungoiko aundi orren aurrera, eroan dagizala: altara onetan zure Semearen Gorputz f eta Odol f guztiz santuak artzen doguzanak, zeruko onespén eta grazi guztiakaz bete gaitézan. Kristo gure Jaunaren berberaren bfdez. Olantxe.

oaelum ad te Deum Patrem suum Omnipotentem, tibi grátias agens, f benedixit, fregit, deditque discipulis suis dicens: Accipite, et manducate ex hoe omnes.
HOC EST ENIM CORPUS MEUM.

Símili modo póstquam cenatum est, accípienis et hunc praeclarum cálicem in sanctas ac venerábiles inanus suas: item tibi grátias agens, f benedixit, deditque discipulis suis, dicens: accípite, et bibite ex eo omnes.

HIC EST ENIM CALIX SANGUINIS MEI, -NOVI ET AETERNI TESTAMENTI: MYSTERIUM PIDEI: QUI PRO VOBIS ET PRO MULTIS EFFUNDETUR IN REMISSIONEM PECCATORUM.

Haec quotiescumque fecéritis, in mei memóriam facietis.

Unde et mémoires, Dómine, nos servi tui, sed et plebs tua sancta, eíusdem Christi Fílii tui Dómini nostri, tam beátae Passiósni, nec non et ab ínferis Resurrectiósni, sed et in caelos gloriósae Ascensiósni: offerimus praeclárae maiestáti tuae, de tuis donis ac datis, hóstiam f puram, hóstiam j sanctam, hóstiam t immaculátam, Panem f sanctum vitae aetérnae, et Cálicem f salútis perpétuae.

Supra quae propítio ac seréno vultu respícere dignéris: et accépta habére, sicuti accépta habére dignátus es múnera púeri tui iusti Abel, et sacrificium Patriárchae nostri Abrahae: et quod tibi óbtulit summus sacérdos tuus Melchisedech, sanctum sacrificium, immaculátam hóstiam.

Súpplícés te rogámus, omnipotens Deus: iube haec perférri per manus sancti Angeli tui in sublímé altáre tuum, in conspéctu divinae maiestátis tuae: ut quot ex hac altáris participatióne sacrosánctum Fílii tuí f Corpus, et f Sánguinem sumpsérimus, omni benedictiósne caeléstí et grátia repleámur. Per eúndem Christum Dóminum nostrum. Amen.

ildakoen alde otoitza:

Gogoratu egizuz, Jauna, sinismen-ezaugarriaz au rretik joan yakuzan eta orain bakezko lotan dagozan zure morroi -ta mirabe *N.* ta *N.*

Euroi, ta Kristo'gan il diran guztiai atsegiñezko, argizko ta bakezko tokia emon egiezu, arren, Jauna. Kristo gure Jaunaren berberaren izenean. Olantxe.

Baita guri, (*bularra joez*) zure erruki ugarian ustea dogun zure menpeko pekatarioi be, emon egizuzu, arren, tokiren bat eta lagunartea zure Apostolu Martiri santuakaz: Jon, Esteban, Matias, Bernabe, Iñazio, Alesander, Martzelino, Pedro, Pelizitas, Perpetua, Agata, Luzia, Ines, Zezilia, Anastasia, ta beste Santu guztiakaz. Artu gagizuz, bai, arein lagunartean, ez gure irabaziakaitik, zure erruki samurragaitik baiño. Kristo gure Jaunaren bidez.

Beronen bitartez, Jauna, egiten dozu beti on guztia; baita f santutu, f indartu, f bedeinkatu, ta guri emon be.

Bere, f bidez, f Beragaz, ta f Beragan Zuri, Jaungoiko alguztidun f orri, gorapen eta aintza guztia dagokizu, f Espiritu Santuagaz batean. Gizaidien gizaldietan.

E.—Olantxe.

AITA GIIREA

ELIZTARRAK, ZUTIK

Jesukristo'k bere agoz irakatsitako oloitz ederra diño orain:

Otoitz egin daigun: Agintza osasangarriz eta jaungoizko irakatsiaz adoretuta, esaten ausnartzen gara:

Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikatu bedi zure izena; betorkigu zure erreiñua; egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be.

Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia; parkatu eigu-zuz gure zorrak, geuk gure zordunai parkatzen dauseguzanez; eta ez eiguзу itzi tentaziñoan jausten.

E.—Gatxetik jagon baiño.

A.—Olamtxe.

Meménto étiam, Dómine, famuiórum famularúm-que tuárum *N.* et *N.*, qui nos praeceesérunt cum signo fidei, et dórmunt in somno pacis.

Ipsis, Dómine, et ómnibus in Christo quiescéntibus, locum refrigerii, lucis et pacis, ut indúlgeas, deprecámur. Per eúndem Christum Dóminum nostrum. Amen.

Nobis quoque peccatóribus fámulis tuis, de multítudine míseratiónum tuárum sperántibus, partem áliquam et societátem donáre dignéris, cum tuis sanctis Apóstolis et Martyribus: cum Joánne, Stéphano, Matthía, Bárnaba, Ignátio, Alexandro, Marcellino, Petro, pelicitáte, Perpétua, Agatha, Lúcia, Agnéte, Caecilia, Anastásia, et ómnibus Sanctis tuis: íntra quorum nos consórtium, non aestimátor mériti, sed véniae, quaesumus, largítor admitte. Per Christum Dóminum nostrum.

Per quem haec ómnia, Dómine, semper bona creas, f sanotificas, f vivificai; f benedícis et praestas nobis.

Per f ipsum, et cum f ipso, et in f ipso, est tibi Deo Patri f Omnipotenti, in unitate Spiritus f Sancti, omnis honor et gloria.

Per ómnia saécula saeculórum,

E.—Amen.

PATER NOSTER

Oremus;

Praecéptis salutáribus móniti, et divina institutió-ne formáti, audémus dicere;

Pater noster, qui es in caelis; Sanctificétur nomen tuum: Advéniat regnum tuum: Piat volúntas tua, sicut in caeio et in terra. Panem nostrum quotidiánum da nobis hódie: Et dimítte nobis débíta nostra, sicut et nos dimíttimus debitoribus nostris. Et ne nos indúras in tentatióne.

E.—Sed libera nos a malo.

A.—Amen.

Zaindu gagizuz, Jauna, lengo, oraingo ta geroko I gaitz guztietatik; eta Jaungoikoaren Ama Maria beti I Birjiña doatsu ta goragarria, zure Apostolu zoriontsu I Pedro ta Paulo ta Ander, eta Santu guztiak bitarteko doguzala, emon eiguзу biotz onez f bakea gure egunotan: zure errukia lagun dogula, pekatutik beti elde egin daigun eta naaste guztietatik gorderik egon gaitazan. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santu I tuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan gure Jaun eta zure Seme Jesukristo'ren berberaren bidez.

E.—Olantxe.

Abadeak Osti santua iru zaii egiten dau, esanez:

A.—Jaunaren f bakea bego f beti f zuekaz.

E.—Baita zure ariman be.

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odolaren naaste ta konsagratze au izan bekigu, artzen doguzanoí, betiko bizitzarako. Olantxe.

Abacleaíc tru acliiz bularra joez;

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko -Bildots ori: erruki zakiguz.

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko -Bildots ori: erruki zakiguz.

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko -Bildots orrek: emon eziguzu bakea.

illen Mezan «emon egiezu bakea» birritan; eta írugarreanean, liemon egiezu betiko bakeaít. ELIZTARIAK, BELAUNIKO.

JAUNA ARTU AURREKO OTOITZAK.

£ure Apostoluai "neure bakea izten dautsuet, neu re bakea damotsuet" esan zeutsen Jesukristo Jauna: ez egizuz nire pekatuak begiratu, zure Elizaren sinismena baiño; Eliza au, zure gogoá danez, baketu ta bat egizu. Amaibagako egunetan Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Jesukristo Jauna, Jaungoiko biziaren Semea, Aitarren gogoz eta Espiritu Santua lagun, zure eriotzaz gizardiari bizitza emon zeutsana: zure Gorputz eta Odol santuen bitartez, atara nagizu nire pekatu ta gaitz guztietatik; eta zure agínduai beti dautsedala, ez naddilla Zugandik iñoiz be aldendu. Amaibagako egune-

Líbera nos, quaesumus, Dómine, ab ómnibus malis praetéritis, praeséntibus et ífutúris: et intercendénte beáta et gloriósa semper Vírgine Dei Genitríce María, cum beátis Apóstolis tuis Petro et Paulo, atque Andréa, et ómnibus Sanctis, da propítius pacem in diébus nostris: ut ope misericórdiae tuae adiúti, et a peccáto simus semper liberi, et ab omni perturbatióne secúri. Per eúmdem Dóminum nostrum Iesum Christum Filium tuum. Qui tecum vivit et regnat in unitáte Spíritus Sancti, Deus. Per ómnia saecula saeculórum.

E.~—Amen,

A.—Pax f Dómini sit y semper f vobíscum.

E.—Et cum spíritu tuo.

Haec commixtio et consecrátio Córporis et Sánguini Dómini nostri Iesu Christi, fiat accipiétibus nobis in vitam aeternam. Amen.

Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: miserére nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: miserére nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: dona nobis pacem.

Dómine Iesu Christe, qui dixísti .Apóstolis tuis: Pacem relínquo vobis, pacem meam do vobis; ne respicias peccáta mea, sed frídem Ecclésiáe tuae: eámque secúndum voluntátem tuam pacificáre et coadunáre dignéris: Qui vivis et regnas, Deus, per ómnia saecula saeculórum. Amen.

Dómine Iesu Christe, Fili Dei vivi, qui ex voiluntáte Patris, cooperánte Spíritu Sancto, per mortem tuam mundum vivificásti: líbera me per hoc sacrosánctum Corpus et Sánguinem tuum ab ómnibus iniquitatibus meis, et univérsis malis: et fac me tuis semper inhaerére mandátis, et a te numquam separári permíttas: Qui cum eódem Deo Patre et Spíritu

tan Aita Jaungoikoagaz beragaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizt zara-ta. Olantxe.

Jesukristo Jauna: ni gei (duin) izan ezarren, artu nai dodan zure Gorputza, ez bekit izan nire epaibide ta ondamendirako: zure errukiz, nire gorputz eta arima zaintzeko ta nire osasungarri izateko baiño. Amai-bagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara^ta. Olantxe.

ABADEAREN JAUNARTZEA

Artu dagidan zeruko ogia, ta dei egin dagiodan I Jaunaren izenari.

Bularra joez, iru aldiz esaten dau:

Jauna, ni ez naz duin Zu nire etxean sartu zaitetan; baiña esan egizu berba bat bakarrik, eta nire arima osatu egingo da.

Gorputz santua jaterakoan:

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz onek gorde begi nire arima betiko bizitzarako. Olantxe.

Osti apurrafic batuez:

Zer emongo dautsat Jaunari egin daustazan on guztien orde? Edontzi osasungarri au artuko dot, eta Jaunaren izenari dei egingo dautsat.

Jauna goratuaz, Berari dei egingo dautsat, eta are-riokandik onik atarako nau.

Odol santua ariuez:

Jesukristo gure Jaunaren Odol onek gorde begi nire arima betiko bizitzarako. Olantxe.

ERRIAREN JAUNARTZEA

Abadeak, Osti deuna erriari erak-utsiez, auxe diño:

Ona emen munduaren pekatuak kentzen dauzan Jauñgoiko-Bildotsa.

lru bidar:

Jauna, ni ez naz duin Zu nire etxean sartu zaitetan; baiña esan egizu berba bat bakarrik, eta nire arima osatu egingo da.

Sancto vivis et regnas, Deus, in saecula saeculorum. Amen.

Percéptio Córporis tui, Dómine Jesu Christe, quod ego indignus súmer praesúmo, non mihi proveniat in iudicium et condemnatióem: sed pro tua pietáte prosit mihi ad tutaméntum mentis et córporis, et ad medélam percipiéndam: Qui vivis et regnas cum Deo patre in unitáte Spíritus Sancti, Deus, per ómnia saecula saeculorum. Amen.

Panem caeléstem accípiam, et nomen Dómini invocábo.

Dómine, non sum dignus ut intres sub tectum meum: sed tantum dic verho, et sanábitur ánima mea.

Corpus Dómini nostri Iesu Ohristi custódiat ánimam meam in vitam aetérnam. Araen.

Quid retríbuiam Dómino pro ómnibus quae retríbuit mihi? Cálicem salutáris accípiam, et nomen Dómini invocábo. Laudans invocábo Dóminum, et ab inimícis meis salvus ero.

Sanguis Dómini nostri Iesu Christí custódiat ánimam meam in vitam aetérnam. Amen.

ERRIAKEN JAUNARTZEA

Ecce Agnus Dei, ecce qui tollit peccáta mundi.

Dómine, ron sum dignus ut intres sub tectum meum: sed tantum dic verbo, et sanábitur ánima mea.

Jauna bakoilzari emonez:

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz onek gorde begi zure arima betiko bizitzarako. Olantxe.

EDONTZI TA ESKU-GARISITZEA

ELIZTARRAK, JESARRI

Ardao pizkat edontzian artuez:

Agoz artu dogun au, gogo garbiz artu dagigula, Jauna; eta gaurko doai au, betiko osasun biurtu dakigula.

Ardaoa ta ura edontzian naaslucz:

Jan dodan zure Gorputza, Jauna, ta edan dodan zure Odola, ezarri daitezala nire biotzean; eta Sakramentu garbi ta santu onek indartu nauan ezker, ez bedi nigan gaiztakeñ-orbanik gelditu. Amaibagako egunetan Brrege bizi zara-ta. Olantxe.

AZKEN-OTOITZAK

.1AUNARTZERAKOA. _

EGUNEAN EGUNEKOA

Len, eliztarren Jaunartze-bitartean esaten zan

BLIZTARRAK, ZUTIK; baiña

Illen, Abenduko ta Garizumako Mezetan, BELAUNIKO

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

AZKEN-OTOITZA _

EGUNEAN EGUNEKOA

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

A.—Zoaze, Meza amaitu da. (P. A. Aleluia, aleluia)rl

E.—Jaungoikoari eskerrak. (P. A. Aleluia, aleluia)!

Corpus Dómini nostri Iesu Christi custódiat ánimam tuam in vitam aetérnam. Amen,

EDONTZI TA ESKU-GARBITZEA

Quod ore sumpsimus, Dómine, pura mente capláraus: et de múnere temporáli fiat nobis remédium sempitérnum.

Corpus tuum, Dómine, quod sumpsi, et Sanguis quem potávi, adhaereat viscéribus méis: et praesta, ut in me non remáneat scélerum mácula, quem pura et sancta refecerunt sacraménta: Qui vivis et regnas In saécula saeculórum. Amen.

AZKEN-OTOITZAK

COMMUNIO

EGUNEAN EGUNEKOA

A.—Dóminus vobíscum.

E.—Et cum spíritu tuo.

POSTCOMMUNIO

EGUNEAN EGUNEKOA

A.—Dóminus vobiscum.

E.—Et cum spíritu tuo.

A.—Ite, Missa est.

E.—Deo grátias.

Il·len Mezatan

A.—Atsedean begie bakean.

E.—Olantxe.

*ELIZTARRAK, BELAVNIKO**Abadeak, gorpuzta makurturik, auxe diño:*

Gogoko izan bekizu, Iratasun santu orrí, zure menpeko onen oparia; ta ontzat artu egizu nik, kaskar onek, Jaungoiko aundi orren aurean egin dodan opari au; ta zure errukiz, niri ta euren alde eskiñi dodan guztiai, osasungarri izan beklgu. Kristo gure Jaunaren bidez. Olantxe.

Abad·tak erría bedein/coisen dau, esanez:

A.—Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko alguztidunak, Aitak eta Semeak -\ eta Espiritu Santuak.

E.—Olantxe.

*(Il·len Mezatan ez da emoten betteittfcaziño ori).**ELIZTARRAK, ZUTIK**AZKEN-BARRI ONA*

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

A.—Barri On f Santuaren asiera, Jon'ek dakarrenez.

E.—Aintza Zuri, Jauna.

Asieran Itza (1) ba-zan, eta Itza Jaungoikoagan egoan, eta Itza Jaungoikoa zan.

Dana Berak egiña da, ta egfndakoñk Bera bagarilf ez da egin. Beragan egoan bizitza, eta bizitza au gizo-l nen argia zan; eta argiak illunetan argi egiten dau, tai illunak ez eben onartu.

Jaungoikoak bialduviko gizon bat agertu zan, Jonj eritxona. Au sinispidetzat (testigutzat) etorri zan, argi-autoiie, onen bidez guztiak sinistu egien. Bera ez zan argia, argiari sinispidea emon bear eutsana baiño.

Egiatzko argia zan, lur onetara datorren edozein g j zakume argitzen dauan argia. Lurrean egoan, eta lu-j rra Berak egiña da, ta lurrak ez eban Bera ezagutu.

(1) Itza: Jaungoikoaren Semea, Jesu-Kristo,

A.—Requiescant in pace.

OE—Amen.

Pláceat tibi, sancta Trínitas, obséquium servitútis meae: et praesta; ut sacrificium, quod óculis tuae Maiestátis mdígnus óbtuli, tibi sit acceptábile, mihí- que et ómnibus, pro quibus illud óbtuli, sit, te miseránte, propiíiábile. Per Christum Dóminum nostrum Amen.

Benedícat vos omnípotens Deus, Pater, et Fílius, j et Spíritus Sanctus.

E.—Amen.

AZKEN-BARRI ONA

A.—Dóminus vobíscum.

E.—Et cum spíritu tuo.

A.—Infítium sancti f Evangélii secúndum Ioánnem.

E.—Glória tibi, Dómine.

In prin'cipio erat Verbum, et Verbum erat apud Deum, et Deus erat Verbum. Hoc erat in principio apud Deum. Omnia per ipsum facta sunt: et sine ipso factum est nihil, quod factum est: in ipso vita erat ,et vita erat lux hóminum: et lux in ténebríe lucet, et ténebrae jam non comprehendérunt,

Fuit homo missus a Deo, cui nomen erat Joánnes. Hic venit in testimónium, ut testimónium perhibér&t de lúmine, ut omnes créderent per illum. Non erat ille nx, sed ut testimónium perhibéret de lúmine.

Erat lux vera, quae illúminat omnem hóminem veniéntem in hunc mundum. In mundo erat, et mundus per ipsum factus est, et mundus eum non cognóvit

Bereakana etorri zan, eta bereak ez eben artu. Baiña Bera artu eben guztiai, Bere izena sinistu eben guztiai, jaungoikoaren seme biurtzeko eskubidea emon euteen; oneik ez dira odoletik jaio, ez aragi-senetik, ez gizonaren naftik, Jaungoikoagandik baiño. (*Emen belauniko.*) ETA ITZA GIZON EGIN ZAN, (*zutik*) eta geure artean bizi izan zan. Eta geuk ikusi dogu Aren aintza, Aitagandiko Seme bakarrari dagokion aintza, ?raziz eta egiz betea.

E.—Jaungoikoari eskerrak.



rIn própria venit, et sui eum non recepérunt. Quotquot autem recepérunt eum, dedit eis potestátem filios Dei fieri, his, qui credunt in nómine eius: qui **non** ex sanguínibus, neque ex voluntáte carnis, neque ex voluntáte viri, sed ex **Deo** nati sunt. (**Belauniko.**) **ET VEBBUM CARO FACTUM EST (zutik), et habitávit** ín nobis: et vídimus glóriam eius, glóriam quasi Un-génití a Patre plenum grátiae et veritátis.

E.—Deo grátias.



MEZA-OSTEKO OTOITZAK (1)

ELIZTARRAK, BELAUNIKO

A.—Agur, Maria, graziaz betea; Jauna de zugaz; bedeinkatua zara zu andra guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua, Jesus.

E.—Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, erregutu egizu gu pektarion alde, orain eta gure eriotzako orduan. Atenen,

flru bidar Agur Maria.)

Agur Erregiña, Ama errukiorra, geure bizitza, gozotasun eta itxaropena, agur. Zuri deiez gagoz Eba'ren ume erbestetuok; antziz eta negarrez gatorkizuz negar-erri onetan. Ea, bada, geure bitarteko Andrea, zurel begi errukitsu orreik gugana biurtu egizuz; eta erbeste onen ondoren, erakuskuzu Jesus, zeure sabeleko seme onetsi ori. O biotz-bigun! O errukior! O Maiia Birjiña gozoa!

A.—Gure alde otoi egizu Jaungoikoaren Ama donel orrek.

E.—Jesukristo'ren agintzariak j a d e t s i daikeguzan (2).

Otoitza.—Gure igasleku ta indarra zarean Jaungoikoa: deiez dagokizun erri au, errukiz begiratu egizu; ta Jaungoikoaren Arna Maria beti Birjifia orbanbage ta goragarria, Jose bere Senar zorionsua, Pedro ta Pauio Apostolu doatsuak, eta Santu guztiak bitarteko doguzala, pektarieren damurako ta Eliza Arna deunaren askatasun eta gorapenerako egiten dautsuguzan eskariok, errukiz eta biotz onez entzun egizuz. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez.

E.—Olantxe.

A.—Mikel Goiaingeru deun orrek, burrukaldian zaindu gagizuz; eta deabruaren gaiztakeri ta maltzurkerien aurka, lagun zakiguz. Jaungoikoak menpetu dagiala, auzpez eskatzen dogun; eta zuk, zeruko gudarien buru zarean orrek, arimak galdu nairik lurrean zear dabi-

1) *Golzain jaunak beste era bat agindu eban Bizkai'ko Elizbarrutirako; ikusi 817 orri.*

(2) *Brantzun au "Kristau-Ikasbideak" dakarrelako eta oso zabaldua dagoalako jarri dot. Baiña berez, itzez itz, beste onetara da: "Kristo'ren agintzarlak jaristeko gei egin gaitezan."*

zan Satanaz eta bere lagun gaiztoak, goiko indarrez betiko inpernura jaurti egizuz.

E.—Olantxe.

A.—Jesus'en Biotz guztiz deun ori.

E.—Erruki zakiguz.

(Iru bidar.)

ALDI BATZUETAN ESATEN DIBAN PREPAZIO
EDO KANON-AURREAK

GARONETAKOA

I'Gabonillaren 25'etik Vrtarrillaren 5'erarte.

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen -eta osasungarri, beti ta alde guztietan 'guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea:

Jesukristo 'gizon egiñanen ezkutapenaren bidez, gure ariima barrua Zure argi barriak argitu dau-ta: Jaungoikoa agiriz ezaguturik, agiri ez dana gartsu maite dagigun.

Orregaitik, Aingeru ta Goiaingeruakaz, Aulki, Nagusi, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia abesten dogu, eten bage esanez: Santua, 432 orri.

Gabonetako «Communicantes»

Guztiok alkaturik ospatzen dogu, Maria Birjiña doatsuak, neska garbi geldituz, munduari Salbatzaile emon eutsaioeiko egun guztiz santu au *fgaberdifco Mezan*, gau), ta gogora 'dakargu, lenengo ta bein, Jaungoikoaren beraren eta gure Jaun Jesukristo'ren Ama dan Maria beti Birjiña goragarria;* baita Birjiña, 434 orri.

ERREGENETAKOA

(Urtarrillaren 6'tik 13'garrenera esaten da).

Egoki ta bi'dezko da, bai, zuzen eta usasungarri, beci ta alde guzkietan 'guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea:

I Zure Seme bakarra gure egiakzo aragiz jantzita agerturik, bere argi illezkorrez argitu genduzan-eta.

Orregaitik, Aingeru ta Goiaingeruakaz, Aulki, Na.J gusi, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure ainizaren ereserkia abesten dogu, eten бага esanez: Santua, 432 orri.

Erregen eguneko «Oommurúcantés».

Guztiok alkarturik oapatzen dogu egun guztiz santu au, zeruan betikor dan Zure Seme bakarra, gure egiazko aragiz jantzita gaur agertu zan agirian-eta; ta gogora dakargu, lenengo ta bein, Jaungoikoaren beraren eta gure Jaun Jesukristo'ren Ama dan Maria beti Birjiña goragarria; *baita Birjiña, 434 orri.

GARIZUMAKOA

(Auts-egunetik Nekaldi-iganderarte).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea:

Gorputzeko barauaren bidez gure griñak ezi, adimena jaso, ta onoiemena ta saria emoten daukuzuz-ta, Kristo gure Jaunaren bidez.

* Beronegaitik, 432 orri.

GURUTZE SANTUARENA

(Nekaldi-igandetik Eguen Gurenerarte).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea:

Gizadiaren osasuna Gurutzeko egurrean ezarri zeneduan, eriotza sortu zan tokian bizitza be sortu zedin: eta zugatzean garaille urten zan eriotza, egurrean azpiratua izan zedin, Kristo gure Jaunaren bidez.

* Beronegaitik, 432 orri.

PAZKOETAKOA

(Zapatu Santutik Igokunderarte).

Egoki ta bidezko da, ibai, zuzen eta osasungarri, Zu, Jauna, edonoiz eta batez be aldi onetan (egun onetan) guk gartsuago goratzea, gure Pazkoa dan jesukristo

gaurko egunez eskiñi zan-eta. Auxe da munduaren pekatuak kendu ebazan benetako Bildotsa. Gure eriotza bere eriotzaz ondatu, ta berbiztuaz, bñzia barriztu ebana.

Orregaitik, Aingeru ta Goiaingeruakaz, Auki, Nagu-j, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia abesten dogu, eten бага esanez: Santua, 432 orri.

Fazkoetako «Communicantes»

(Pazko-aste barruan).

Guztiok alkarturik ospatzen dogu gure Jaun Jesukristo'ren gorputzaren Berbizkunde-egun guztiz santu au; ta gogora dakargu, lenengo ta bein, Jaungoiko berberaren eta gure Jaun Jesukristo'ren Ama dan Maria beti Birjiña goragarria; *baita Birjiña, 434 orri.

Pazkoetako «Hanc igitur»

(Pazko-aste barruan).

Gu zure menpeko ta zure etxeko guztien opari au, urez eta Espiritu Santuz barriro sortu dozuzan onekaitik be eskintzen dautsugu; ta pekatu guztien parakamena onei emonda, opari au abegi onez artu egizu, jauna; emon egiguzu bakea gure egunotan; betiko sutatik aldentiu gagizuz, eta zure aukeratuen artean artu gagizuz. Kristo gure Jaunaren bidez. Olantxe.

IGOKUNDE'KOA

(Igokunde-egunetik Pentekoste-aurregunerarte).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta aide guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea, Kristo gure Jaunaren bidez.

Barbizbu ondoren, bere ikasle guztiai agirian agertu yaken, eta areik ikusten ebela igo zan zerura, gu Bere Jaungoikotasunaren lagunkide egin gengizan.

Orregaitik Aingeru ta Goiaingeruakaz, Aulki, Nagusi ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia abesten dogu, eten бага esanez: Santua, 432 orri.

Igokunde'ko «Communicantes»

I' Igokunde-egunean).

Guzttok alkarturik ospatzen dagu Zure Seme bakar dan gure Jauna, gure gizakunde makala Beretzat artuaz, Zure zeruko eEkumaldean ijarrri zenduaneke egun guztiz santu au; ta gogora dakargu, lenengo ta bein, Jaungoikoaren beraren eta gure Jaun Jesukrtsto' ren Ama dan Mari-a beti Birjiña goragarria;* baita, Birjiña, 434 orri.

FENTEKOSTE'KOA

(Pentekoste-aurregunetik urrengo larunbaterarte).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, baita ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea, Kristo gure Jaunaren bidez.

Zeruen gaineraño igoaz, eta Zure eskumaidean jarriaz, agindutako Espiritu Santua (gaurko egunez) isuri eutsen semeordekoai. Orregaitik, gaur mundu osoa pozez beterik alaitzen da. Baita zeruko Indarrak eta Aingeru Altsuak be Zeure aintzaren ereserkia abesten dafoe, eten toaga eisanetz: Santua, 432 orri.

Pentekoste'ko «Communicantes»

(Pentekoste-aurregunetik urrengo larunbaterarte.)

Guztiok alkarturik ospatzen dogu Pentekoste (Espiritu Santuaren etorkunde) egun guztiz santua; egun onetan agertu yaken Espiritu Santua apostolui suzko •miin askoren jrudiz; ta gogora dakargu, lenengo ta bein, Jaungoikoaren beraren eta gure Jaun Jesukristo'ren Ama dan Maria beti Birjiña goragarria; •baita Biriña, 434 orri.

Pentekoste'ko «Hanc igitur»

(Pentekoste-aurregunetik urrengo larunbaterarte.)

Gu zure menpeko ta zure etxeko guztion opari au, urez eta Espiritu Santuz barriro sortu dozuzan one, kaitik be eskintzen dautsugu; ta pekatu guztien parkamena onei emonda, opari au abegi onez artu egizu,

jauna; emon egiguzu bakea gure egunotan; betiko sutatik aldendu gagizuz, eta zure aukeratuen artean artu gagizuz. Kristo gure Jaunaren toidez. Olantxe

IRUTASUN GtrZTIZ DEUNAKENA

(Ilrteko domeka geienetan esaten da, besterik aítatu ezxk).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea.

Zura Seme bakarragaz eta Espiritu Santuagaz, Jaungoiko bakar zara, Jaun bakar; ez nortasun bakarra dozuiako, Irutan izate bat dozulako baiño. Zeuk esanda Zure aintzari buruz sinisten doguna, alderik eta berezirik бага sinisten dogu Semeari ta Espiritu Santuari buruz toe. Onela, e'giatzko Jaungoiko betikorra zarala autortzean, nor-izanean nortasuna, izatean bakarra, aundi izatean bardiña zaraia autoritzen dogu.

' Auxe goratzen dabe Aingeru ta Goiaingeruak, Kerubin eta Serapiñak, eta eten бага diardue abesten egun oro, ago batez esanez: Santua, 434 orri.

JESUS'EN BIOTZAR/ENA

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea. Zure Seme bakarra, Gurutzean dingilizka egoala, gudariaren aztamakillak <lantzak> zulatzea nai izan zenduan, Zure aberastasun-kutxa santu dan Biotz ori zabalduaz, gugan errukia ta graziak eurrez isuri egizan. Eta guganako maitasunez foeti sutan egoan ezker, arima zintzoentzat atsedentoki, ta damutuen; tzat osasun-etxe izan zedin.

Orregaitik, Aingeru ta Goiaingeruakaz, Aulki, Nagusi, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia abesten dogu, eten бага esanez: Santua 432 orri.

KRISTO ERREGERENA

(Urrilleko azken-igandean)

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko -alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea.

Zure Seme bakar Jesukristo gure Jauna, betiko Abade, guztien Errege, pozezko orioz igurtzi dozu. Bere burua Gurutze-altaran opari garbi ta bakesua eskiñiaz, gizadia zerurako bidean jarri. Jau. Eta gizaki guztiak bere menpeko egin ondoren, Erreiñu osoa ta betikoa Zeure eskuetan itzi dau. Erreiñu au, egi, bizi, santutasun, grazi, zintzotasun, maitasun, eta bake-«rreiñu da.

Orregaitik, Aingeru 'ta Goiaingeruakaz batera, Aulki, Nagusi, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia abesten dogu, eten бага esanez: Santua, 432 orri.

ANDRA MARIA'RENA

(Andra Maria'ren jaiegunetan eta berarl dagokiozan Mezetan).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betiko orri eskerrak emotea.

Eta Maria beti Birjiña doatsuaren *** egunean Zeu goratzea, onestea, ta au'tortzea. Zure Seme bakarra Arexek sortu eban Espiritu Santuaren egiñez, eta neskatasun (birjintasun) ederra gorderik, betiko argia isuri euskun mundu onetara.

* Beronegaitik, 432 orri.

JOSE DEUNARENA

(Epaillaren 19'gn. eta Orrillaren l'goan).

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri eskerrak emotea; eta Zu, Jose doatsuaren jai onetan bear danez goratzea, bedeinkatzea ta autortzea. Auxe izan zan

jaungoikoaren Ama Birjiñari emon zeutsan gizon zintzoa, ta Zure etxekoen morroi zintzo ta zurra: zure geme bakar, Espiritu Santuaren egiñez sortua, Jesukristo gure Jauna, aitordekotzat zaindu egian.

* Beronegaitik, 432 orri.

APOSTOLUENA

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, Zuri, Jaun orri, auzpaz otoi egitea, Zure artaldea bertan bera ez dagizula itzi, betiko Artzain orrek: zure Apostoluen bitartez, zure laguntza etenbageaz zaindu dagizula baiño: ta Zeuk jarri dozuzan artzaiñak eurak zuzendu dagiela.

Orregaitik, Aingeru ta Goiaingeruakaz, Aulki, Nagusi, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia aibesten dogu, eten бага esanez: Santua, 432 orri.

ILDAKOENA

Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta alde guztietan guk Zuri, Jaun orri, Aita Santu, Jaungoiko alguztidun eta betikor orri esken-ak eniotea, Kristo gure Jaunaren bidez.

Biztuera zorionsuaren itxaropenak Aregan dizdiz egin dausku. Eriotza jakiñak naigabetu egiten gaitu; baiña geroko betiko bizitzak pozez argitzen gaitu. One-la, zintzoai, Jauna, bizia ez yake kentzen, aldatu baiño; ta lurreko erbeste-etxe au jausi daitenean, zeruan betikoa jaristen da.

Orregaitik, Aingeru ta Goiaingeruakaz, Aulki, Nagusi, ta zeruko gudari-talde guztiakaz, Zure aintzaren ereserkia abesten dogu, eten бага esanez: Santua, 432 orri.



Koru-kanta.—Doatsu ta agurgarri zara, Maria Birjiña: iñogaz loitzeke <loitu toagarik>, Salbatzaillerean Ama egin zara-ta. Birjiña, Jaungoikoaren Ama, lurralde osoak ezin artu daikena, zeure saibelean gorde zan, gizon egiñik.

Aleluia, aleluia. Semea egin ondoren, neska (birjiña) ikutubagea gelditu zintzazan: Jaungoikoaren Ama, zakiguz bitarteko. Aleluia.

Abenduan, beste Aleluia au:

Aleluia, aleluia. Agur, Maria, graziaz, toatea: Jauna da zugaz: bedeinkatua zu emakumeen artean. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkoetara, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Poztu zaitetz, Maria Birjiña, zeuk bakarrik ondatu dozuz siñausle (ereje) guztiak-eta. Gabirel Goiaingeruaren itza sinistu dozu. Jaungoiko gizona sortu dozu: ta semea egin ondoren, neska (birjiña) ikutubagea gelditu zintzazan. Jaungoikoaren Ama, zakiguz bitarteko.

Pazkoaldian, Koru-kanta ta Luzagarriaren ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Jese'ren makilla loratu egin da; Birjiñak, Jaungoiko-gizona sortu dau: Jaungoikoak bakea biurtu dausku, goiko ta beko Beragan alkatuaz. Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zugaz: bedeinkatua zu emakumeetan, Aleluia.

Barri Ona (Luk., 11, 27-28).—Aldi aretan, Jesus'ek gizataldeari berba egiten eutsala, gizataldeko emakurte batek deadarka esan eutsan: «Zorionsua ekarril zenduzan sabela, ta artu zenduan bularra!» Baiña Jesus'ek erantzun eban: «Zorionsuagoak nonbait, Jaungoikoaren itza entzuten eta beteten dabena!»—*Kredo.*

Eskintza.—Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zugaz: bedeinkatua zara zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko Semea. (P. A. Aleluia.)

Opari-otoitza.—Zure errukiz, Jauna, ta Maria beti Birjiña doatsuaren bitartez, opari au on izan bekigu oraingo ta betiko bakerako ta zorionerako. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 *orn.* Eta*** jaigunean.

Jaunartzerakoa.—Zorionsua benetan, betiko Aitaten Semea ekarri eban sabela! (P. A. Aleluia),

SANTUEN ATALA

ANDRA MARIA'RI TA SANTUAI DAGOKIEN | ERA BATEKO MEZAK

Santu askok berekiko Mezarrik ez dabe; edo, eukta be, osorik ez beintzat.—Orretakoetan, emen jarten diran Mezetatik bat artzen da, santu bakoitzari dagokiona.

ANDRA MAREVBEN JAIETARAKO "SALVE, SANCTA PARENS" MEZA

Sarrera.—Agur, Ama deuna!, zuk Semea egin dozu gizaidien gizaldietan zeru-lurren Errege dana. (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Nire biotzari abesti eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—*Airtza.*

Otoitza.—Emon eiguzu beti zure menpekooi, Jaungoiko Jaun orrek, gorputz eta arimako osasuna; eta Maria beti Birjiña eder eta doatsuaren bitartez, oraingo illunalditik urten gaitezala, ta betiko poza lonu daigula. Amaibagako.

Irakurgai (Ikastuna, Eccli: 24, 14-16).—Asieran, gizaldiak baiño len sortu nau, ta egundo ez naz amaituko, >ta bizileku santuan dot eginbidea, Beraren aurrean. Eta onela, Sion'go bizi-lagun egin naz, uri santuan jarri dot nire atsedena, ta Jerusalem da nire aginpide-jarlekua. Erri eder toaten egin dodaz zusterak, nire Jaungoikoaren zatian, Aren soloan; eta mrej bizilekua zintzoen batzartokian jarri dot.

Azken-otoitza.—Janari osasungarri au artu dogun ezkeru, egizu, Jauna, Maria beti Birjiña doatsuaren laguntzak edonun gorde gagizala: opari au bere ize-nean eskiñi dautsugu-ta, Jaungoiko aundi OITÍ. Amaibagako.

ANDRA MARIA'REN LARUNBATETAKO MEZAK

á'gn. maillako egunetan esaten dira

I.—ABENDUAN

"RORATE" MEZA

Sarrera.—Bialdu goitik iruntza, zeruok; isuri begie odeiak Zuzena: edegi bedi lurra, ta erne beite Salbafczaillea.—*Ps.* Bedeinkatu dozu, Jauna, zure lurra: atara dozu Jakob atzerritik.—*Aintza.*

Ez da Gloria'rik, zapatuetan izan ezik.

Otoitza.—Aingeruak iragarri ebanaz, Maria Birjiña doatsuaren sabelean zure Itzak (Jesukristo'k) aragia artzea nai izan zenduan jaungoikoa: eiguza belaniko eskatzen dautsugunoi, benetan Jaungoiko-Ama dana sinisten dogun ezkeru, Aren bitartekotasuna zure aurrean lagun izan dakigula. Amaibagako... eta zure Semearen toerberaren foidez. Olantxe.

2'gn. Otoitza: *Abendu-domekakoa.*

Irakurgaia: Jaungoikoak Akaz'i, 584 orri.

Koru-kanta.—Jaso, nagusiok, zuen atea; gora zuek be, betiko ateko, eta Errege ospetsua sartuko da. Nor igoko da Jaunaren mendira?, edo nor egon daiteke Aren toki santuan? Esku-errubage ta biotz-garbia dana.

Aleluia, aleluia. Agur, Maria, graziaz betea; Jauna da zugaz; onetsia zu emakumeen artean. Aleluia.

Barri Ona: Jaungoikoak Gabirel Aingerua, 585 orri.

Eskintza.—iAgur, Maria, graziaz betea; Jauna da zu-j gaz; onetsia zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko Semea,

Opari-otoitza.—Sendotu egizu, Jauna, gure arime-tan egiazko sinismena; Birjiñak sortu ebana egiazko, Jaungoiko ta gizon autortuaz, Aren berbizkunde osasungarriaren indarrez, betiko zorionera eldu gaitazan.

Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantse.

2'gn. Opari-otoitza: *Abendu-domekakoa.*

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** egun agurgarrian.

Jaunartzerakoa.—Begira: neska garbi (birjiña) baktek sabelean sortu ta umea egingo dau, ta Aren izena Emanuel izango da.

Azken-otoitza.—Isuri egizu, Jauna, gure arimetan zure grazia; Aingeruak iragarriok, zure Seme Kristo gizon egin zala jaktn genduan ezkeru, bere nekaldi ta eriotzagaitik biztuta zeru ederrera eldu gaitazan. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitza: *Abendu-domekakoa.*

II. URTEBARRI-BIARAMONETIK
GARBIKUNDE EGUNERA

"VULTUM TUUM" MEZA

Sarrera.—Erriko aundiki guztiak zeure ederra nai Izango dabe. Erregearen aurrera ekarriko dabe, ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik.—*Ps.* Nire biotzari eriesi eder bat dario: Erregearentzat nire abestia.—*Aintza.*

Otoitza.—Maria Birjiña doatsua ama egiñik, g:zadiari betiko osasanaren saria emon dautsazun Jaungoikoa: ezagutu daigula aren bitartekotasuna, biziaren Jabea dan zure Seme Jesukristo gure JaUna aren bidez ezagutu dogu-ta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta.Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tito'ri: 3, 4-7).—Gutziz mai. te ori: Jaungoiko gure SaHbatzaillarean errukia ta gizatasauna agertu da; jaiotza barrirako bateoan Espiritu Sani.uz gu barrizturik, bere errukiz salbau gaitu, ez zuzenbidear; guk egindako ezergaitik. Jesukristo gure Salbatzaillarean bidez, Espiritu Santua eurrez isuri dauku, Aren graziaren osasunaz betiko biziaren jabe-gei egin gaitazan, geuk uste dogunez.

Koru^kanta.—Gizakumeen artean zeu zara ederren; zure ezpanai atsegifia darie. Nire biotzari itzaldi edér

bat dario: Erregearentzat nire abestia; nire niiiña, idazle azkarraren eztena da.

Aleluia, aleluia. Semea egin ondoren, Neska ikutu-bagea gelditu zintzazan; Jaungoikoaren Ama, otoi egizu gure alde. Aleluia.

Barri Ona i(Luk., 2, 15-20).—Aldi aretan, artzaiñak alkarrir zirautsoen: «Goazen Beten'eraíño, ta ikusi daigun Jaunak jakiñerazo dauskun jazo miragarri au.» Lenbailen joan ziran, eta Maria ta Jose aurkitu ebezan, umetxoa askan etzunda eukela. Au ikusirik, umetxoaz esan yakena egia zala ezagutu eben: eta guztiak, artzaiñak zirautsena entzunik, arritu egiten ziran. Maria'k, barriz, gorderik eukazan itz guztiok, bere biotz barrenean ausnartzen ebazala. Eta artzaiñak, iragarri izan yakenez, entzun eta ikusitakoaz Jaungoikoari aintzaka ta goraka biurtu ziran.

Esintza.—Zorionsu zara zu, Maria Birjiña deuna, ta ainbat gorapen zor yatzuzana: zuzentasunezko eguzkia dan Kristo gure Jauna, zeugandik jaioda-ta.

Opari-otoitza.—Zure errukiz, Jauna, ta Maria beti Birjiña doatsuaren bitartez. opari au on izan bekigu: bizitza onetan eta betikoan zoriona ta bakea jadetsi dagiguzan. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** 'rgun agurgarrian.

Jaunartzerakoa.—Zorionsua benetan, betiko Aita-ren, Semea ekarri eban sabela!

Azken-otoitza.—Janari onek, Jauna, garbitu gaizala pekatu guztitik; eta Jaungoikoaren Ama Maria beti Birjiña doatsuaren bitartez, zeru-sariaren dain egin gagizala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidē. Olantxe.

III GARBIKUNDE EGUNETIK GARIZUMARA

"Salve, Sancta Parens" Meza, 458 orri., urrengo au izan ezikñi

Koru-kanta.—^Doatsu ta agurgarri zara, Maria Birjiña ori: fñogaz loitu bagarik, Salbatzaillearen Ama egin zara-ta. Birjiña, Jaungoikoaren Ama, lurralde osoak ezin artu daikena, 2teure sabelean gorde zan, gizon egiñik.

Aleluia, aleluia. Jese'ren makilla loratu egin da; Birjiñak, Jaungoiko gizona sortu dau: Jaungoikoak bakea biurtu -dausku, goiko ta beko Beragan alkartuaz. Aleluia.

Esintza.—Zorionsu zara zu, Maria Birjiña deun ori, ta ainbat gorapen zor yatzuzana: zuzentasunezko eguzkia dan Kristo gure Jauna, zeugandik jaioda-ta.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** egun agurgarrian.

IV. PAZKO-ALDIAN

"Salve, Sancta Parens" Meza, 458 orri., urrengo au izan ezik:

Barri Ona (Jon. 19, 25-27).—Aldi aretan, Jesus'en gurutze-ondoan, Aren Ama Maria, >a onen aizta Maria Kleofa'rena, ta Mari Madalen egozan. Jesus'ek, bere Ama ta ikasle maitea an ikusirik, bere Amari dirautso: «Andra, orra or zure semea.» Gero ikasleari dirautso: «Orra or zure ama.» Ta arrezkero, ikasleak bere etxean artu eban.

Esintza.—Zononsua zu, Maria Birjiña ori, guztien Egillea ekarri dauskuzu-ta; zeu egin zenduzana sortu zenduan, eta beti neska (birjiña) gelditu zintzazan. Aleluia.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** egun agurgarrian.

V. PENTEKOSTE'TIK ABENDURA

"Salve Sancta Parens" Meza, 458 orri.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta *** egun agur.garrian.

AITA SANTU BATEN NAIZ ASKOREN MEZA

Apostoluen ondoren, Kristo'ren ordeko ta Elizaren burti ta Artzain diran Aita Santuak dtoguz agurgarrien. Onexeik, argi ta bizi zirala, gizonkiro ta santuki zaindu eben Eliza osoa, oitura bikain eta odol-irabaziz aberasturik.

Berarizko Mezarik ez dauken Aita Santuen jaietan, on-dorengoa artzen da.

"SI DILIGIS" MEZA

Sarrera.—Maite ba'nozu, Simon Pedro, zaindu egizu nire bildotsak. (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Goratuko zaitut, Jauna, gora jaso nozu-ta; nire Jepotik barre egiten arerioai ez dautsezu itzi-ta.—Aintza.

Otoitza.—Begiratu egizu samurkiro zure artaldea, betiko Artzain orrek!; eta Eliza osoaren Artzain egirt zenduan zure (martiri ta) Aita Santu N. doatsuaren bitartez, zaindu egizu (Eliza) zure laguntza etenba-, geaz. Amaibagako.

Beste Aita Santuren baten gogorapenik egin bear ba'daĒ Otoitz au esan:

Zure Eliza Apostoluen arkaitz-gaiñean jarririk, inpernuaren indarretik atara dozun Jaungoikoa: eiguzu, zure (martiri ta) Aita Santu N. doatsuaren bitartez, zure egian irauin dagiala, ta bear dauan adoreaz indartu daitela. Amaibagako.

Irakurjtaia (S. Pedro'ren l'goa.: 5, 1-4).—Guztia maiteok: Zuetariko zaarrentzat ona emen nik, zaar eta Kristo'ren nekeen autorle ta agertuko dan ospearen lagunkide nazan onek, zer dirautsuedan: zainpean daukazuen Jaungoiko-artaldea larratu egizue; gogo txarrez ez, Jaungoikoaren gogoa danez arduratuaz baiño; ezta sari zikiñari begira be, utsean baiño; menpekoak jaibe-miñez erabili baigarik, artaldearen eredu izanaz baiño. Eta artzaiñen Nagusia agertu daitenean, zimeldu ezin daiteken koroj argitsua artuko doze. Eta neke apur bat jasan dagizuenean, Jesukristo'ren bidez bere betiko zerura dei egin dautsuen Jaungoiko grazi guztien emoilleak Berak osotu, indartu ta gogortuko zaitue. Berari ospe ta agintaritzza gizald'ien gizaldietan. Alan izan bedi.

Koru-kanta.—Ospatu begie erri-batzarretan, eta goratu begie zaarren batzartokietan. Autortu begie Jau-

na beronen errukiagaitik; baita giza ssmeen alde egin dauzan mirariakaitik be.

Aleluia, aleluia.—Pedro zara zu, ta aitz orren gaiñean jasoko dot nire Eliza. Aleluia.

Zazpiastetk Paskora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Batzar nagusian iragarri dot zure zuzentasuna, ezpanak itxi bagarik, Jauna: zuk ba-dakizu. Zure zuzentasuna ez dot barrenean ezkutatu; zure egia ta osasuna iragarri dodaz. Ez dodaz isildu zure errukia ta egia batzar nagusian.

Pazkoaldian, Koru-kanta ta Luzagarria itzi, ta auxe bakarrik esan:

Aleluia, aleluia. Pedro zara zu, ta aitz orren gaiñean jasoko dot nire Eliza. Aleluia. Nagusi egingo dozuz lur osoan: gogoratuko dabe, Jauna, zure izena. Aleluia.

Barri Ona (Mat. 16, 13-19).—Aldi aretan, Jesus Filipo'ko Zesarea-aldeko baztarretaruntz joan zan; eta bere ikasleai itandu eutsen: «Gizasemea nor dala diño e gizonak?» Areik erantzun eutsoen: «Batzuek, Jon Bateazaillea; beste batzuek, Elias; beste batzuek, Jeremia edo igarleren bat.» Jesus'ek esan eutsen: «Zuek, barriz, nor nazala diñozue?» Orduan, Simon Pedro'k erantzun eta esan eutsan: «Zu Kristo zara, Jaungoiko biziaren Semea.» Ta Jesus'ek erantzun eutsan: «Zoriontsu zara, Simon, Jonas'en seme ori: ez dautsu Jti aragiak agertu-ita, zeruko nire Aitak baiño. <Nik, barriz, baJdirautsut: Kepa —aitza— zara zu, ta aitz orren gaiñean jasoko dot nire Eliza; ta inpernuko atek ez dira aren aurka garaille izango. Zeru-erreñuko giltzak zeuri emongo dautsudaz; eta zuk lurrean lotu dagizuna, zeruan be lotua izango da; ta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruan be askatua izango da.»—

Eskintza.—^Nire itzak zeure agoan ipiñi dodaz: errien eta erreñuen nagusi jarri zaitut; zeuk atara ta ondatu, egin eta landatu dagizun. (P. A. Aleluia.)

Opa-ri-otoitza.—Gure oparigai onein bidez, Jauna, argi egiozu zure Elizari: zure artaldea bere bidean aurrrera joan dadin, eta zure eragiñez, Artzaiñak begiko jzan dakizuzan. Amaibagako.

Besle Aila Santuren baten gogorapenik egin bear ba'da, Opari-oiotz au esan:

Artu egizuz biotz onez, Jauna, pozik eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta N. doatsuaren bitartez, zure Elizak bere sinismena osorik euki dagiala, ta egun baketsuz beti poztu daitela. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluena, 457 orri.*

Jaunartzerali.oa.—Pedro zara zu, ta aitz orren gainean jasoko dot nire Eliza. (P. A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—Zuzendu egizu samurkiro, Jauna, zure Eliza, janari santuz indartu da-ta; eta zure esku indartsuaz eroanik, askatasun geiago izan eta sinismen osoan iraun dagiala. Amaibagako.

Beste Aita Santuren baten gogorapenik egin bear ba'da, Azken-otoitz au esan:

Ugaritu egizu zure Elizan, Jauna, emon dautsazun J Espiritua, grazi-iturburu: ta zu<2 (martiri ta) Aita] Santu N. doatsuaren bitartez, ardiak Artzainari esana egin dagioela, ta Artzainaren' arduratasuna beti izan dagiela. Amaibagako.

MARTIRI SANTUEN MEZAK

Apostolu ta Aita Santuen ondoren, Eliz-maillan goren-go dagozanak, sinismenari eustearen oñola emon eben Martiriak doguz. Oneitaiñ batzuk Gotzain dira, beste batzuetz; naiz areintzat naiz oneintzat, Meza ez-bardiñak doguz.

MARTIRI TA GOTZAIN BATEN I'GO. MEZA "STATUIT"

Sarrera.—jaunak aregaz bake-alkartasuna egin, eta bere erriaren buru jarri eban, Abade-nagusitza betiko izan egian.—Ps. Jauna, gogoratu egizu Dabid, eta onen apaltasun aundia.—Aintza.

Otoitza.—Begiratu egizu, Jaungoiko alguztieciun orrek, gure argaltasuna; ta gure pekatuen sorta asunak nekatzen gaituan ezkerro, N. zure martiri ta gotzain doateuaren bitartekotasunak laguntza emon daiskula. Amaibagako.

Irakurgaia (Santiago, 1, 12-18).—Guztiz maiteok: Zorionsua, tentaziño-aldia ondo eroan dagiana; orre-tan zintzo agertu daitenak, Jaungoikoak bere maiteai

eskiñi dautsen bizitza-koroia juritxiko dau-ta. Ez begi tentaziño-aldian iñok esan; Jaungoikoak zirikatatu nau. jaungoikoak gaiztakerirako iñori ezin bultzarik egin daikoo, ta Arek ez dau iñor be zirikatzen. Norberaren griña (edo zalekeri) okerrak dira zirikatzen, narrazten eta zorutzen dabenak. Griña txarrak, barriz, asmo gaiztoak sortzen dauzanean, pekatua eragiten dau, ta pe-tatuak, egin ezkerro, «riotza dakar.

Ez itsutu, ba, ene anai maiteok. Sari eder eta ondasun bikain guztiak, goitik datorkiguz, aldatzerik eta biurtzerik ez dauan Argien Aitagandik jatsita. Berak nai izanda, egiaren itzez sortu gaitu, sortutakoetan jenena'k izan gakiozan.

Koru-kanta.—[^]Aurkitu dot nire morroi Dabid, eta orio santuz iguntzi dot: neure eskua izango dau laigun, eta neure besoak indartuko dau. Ez dau arerioak azpiratuko; gaizto-semeak be ez dautso kalterik egingo.

Aleluia, aleluia. Abade zara zu betiko, Melkisedek'en jaillean. Aleluia.

Zaplastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Biotzeko guraria bete dautsazu: ta aren ago-eskaria ez dozu ukatu. Onespen (bedeinkazirio) gozoz aurrea artu dautsazu. Pitxi ederrezko koroia jarri dautsazu buruan.

Barri Ona (Luk 14, 26-33).—Ialdi aretan, Jesus'ek gizataldeari auxe esan eutsan: Nigana norbait etorri ba'da-di, ta bere aita, ama, emazte, seme-alabak, eta anai-arretoak, baita bere burua be, iguintzen ez to-a'dauz, ezin izan daiteke nire ikasle. Ta gurutzea lepoan artuta, nire ondoren etorri ez daitena, ezin izan daiteke nire ikasle. Zuetariko batek torre bat egin nai izan ezkerro, ez al-dau aurretiaz eralgi bear dauana astiro ataraten, bere lana amaitzeko naiko daukan ala ez? Oñarriak ezarrjta gero, ezin amaitu ba'dagi, ikusle guztiak irrika esaten asi ez daitezkan: «gizon au etxea egiten asi zan, baiña ezin amaitu izan dau.»

Edo-ta errege batek beste errege baten aurka guda egin nai izan ezkerro, ez alrdau. aurretiaz astiro asmatzen, amar milla gizonegaz gogor egin ete-leuis'kion ogei milla gizonegaz gainera 'datorkionari? Bestela, a

oraindik urrun dagoala, geznariak* bialdu ta bakea eskatzen dautso. Orrela, ba: zuetariko jñor ezin izau daiteke nire ikasle, dauzan guatiak ukatu ez ba'dagiz,

Eskintza.—Neure egia ta errukia izango dira aregazjl ta nire izenean, aundia izango da aren indarra.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, biotz onez, N, zu. re martiri ta gotzain doatsuaren irabazien bidez eskintzen dautsuguzan oparigaiok: eta betiko atsedenera eroateko izan dakiguzala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Bein egin neban zin nire izen santuz. aren jatorriak betl iraungo dau, eta aren aginpi-de-tokia, eguzkia legez izango da nire aurrean; illarj gi bete legez iraungo dau beti, autorle (testigu) zintzoa zeruan.

Azken-otoitza.—Janari santuaz aseturik, arren, guj re Jaun eta Jaungoiko!, N. zure martiri ta gotzain' doatsuaren jaia ospatu dogun ezker, aren bitarteko-tasunaren eragitea somau daigula gudan. Amaibagako.

MARTIRI TA GOTZAIN BATEN 2'GARREN MEZA

"SACERDOTES JJEI"

Sarrera.—Jaungoikoaren abadeok, goratu egizue Jauna; santu ta biotz-apal zareenok be, goratu egizue Jaungoikoa.—Ps. Jaunaren egintza guztiok, goratu egizue Jauna; goretzi ta audietsi egizue gizaldien gizaldietan.—Aintza.

Otoitza.—Zure martiri ta gotzain N. doatsuaren urteko jaiaz poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu biotz onez, aren zerura sartzea ospatzen dogun ezker, aren laguntzaz be poztu gaitezala. Amaibagako.

Irakursaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gna.: 1, 3-7).—Anaiok: Onetsia (bedeinkatua) Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita, Aita guztiz errukitsu ta Jaungoiko guztiz poz-emoillea, gure atsekabe-aldi guz-tietan pozten gaituana: geuk be, neke-aldian diranaK, Jaungoikoak alaitzen gaituan pozez poztu dagiguzan. Kristo'gaitik nekeak eurrez doguzanez, poza be Kris-to'gandik eurrez dogu-ta. Atsekabetuak ba'gara, zuen onerako ta osasunerako da; pozik. ba"gagoz, zuen poze-

* Geznariak = mensajeros.

rako; guk jasaten* doguzan neke berberak, eroapenez isat'en lagun egiten dautsue-ta, pozerako. orreia, zu buruz dogun uste ona, indartu egiten da: gure neke .lagun izanik, poz-lagun be izango zareena ba-dakigu-ta, jesukristo gure Jaunagán.

Koru-kanta.—Ospe ta argi-koroiz jantzi dauUazu burua. Ta zure eskuak egindakoen nagusi jarri dozu, jauna.

Aleluia, aleluia. Auxe da Jaunak koroiz jantzi eban .ibadea. Aleluia.

Zazviastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zorionsu, Jaunaren bildur dan gizona; Aren aginduak biziro maite dauzana. Aren ondo-rengoak, gogorak izango dira lurrean; zintzoen azia onetsia izango da. Aintza ta afoerastan aundiak }zango dira aren etxean; eta aren zuzetasunak beti-betiko iraungo dau.

Barri Ona (Mat, 16, 24-27).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Nire ondotik inok etorri nai toa'dau, bere burua ukatu ta bere gurutzea zuei begi, ta jarraitu beist. Bere bizitza gorde nai dagianak, galdu egingo dau; baiña Nigaitik bere bizitza galdu dagianak, aurkitu egingo dau. Zetarako litzakio, ba, gizonari lur osoa irabaztea, bere bizitza galdu ba'legi? Edo-ta, zer emon daike gizonak bere biziaren ordaiñez? Izan be, Gizasemea bere Aitaren aintzaz bere ainge-ruakaz etorriko da; ta orduan, bakoitzari bere egiñen araz ordainduko dautso.

Eskintza.—Aurkitu dot nire morroi Dabid; neure orio santuz igurtzi dot: neure eskuia izango dau lagun, eta neure besoak indartuko dau.

Opari-otoitza.—Bedeinkatu egizuz, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta N. zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, samurkiro begiratu gagizuz. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Jauna, aren buruan pitxi edsrrez-fo koroia ipiñi dozu.

* Jasan = sufrir,

Azken-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, pekatu guz. titik garbitu gaizala; ta N. zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, zerurako osasuribide izan dakigula. Amaibagako.

GOTZAIN EZ DAN MARTIRI BATEN I'GO. MEZA

"IN VIRTUTE"

Sarrera.—Jauna, zeure indarrez poztuten da zintzoa, ta zure laguntzak biziro alaitzen dau: biotzez gura ebana emon dautsazu.—*Ps.* Onespen (bedeinkaziño) samurrez aurrea artu dautsazu: aren buruan pitxi ederrezko korola ipiñi dozu.—Aintza.

Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko algutzidun orrek!, zure martiri N. doatsuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkerro, aren bitartez zure maitasunean indartu gaitezala Amaibagako.

Irakurgaia (Jakintza, 10, 10-14).—Jaunak zintzoa bide zuzenetik eroan eban, eta zeruko erreinua erakutsi euitsan, eta santuen jakintza emon. Aren lanak ontzat artu ebazan, eta oparo saritu eban. Gaiztoen maltzurkerietatik gorde egin eban, eta aberastasunak emon utsazan. Arerioakandik zaindu egin eban eta azpikerizaleakandik babestu, ta burruka aundian garaille egin eban, gauzarik indartsuena jakintza dala ezagutu egian. Onek (jakintzak) ez eban bertan bera itzi zintzo saldua; onik atara eban gaiztoen eskuetatik; espexera (giltzaper) jatsi zan, eta ez eban kataietan lotuta itzi. Erreinuako zigorra ta indarra emon utsazan, azpiratu nai ebenen aurka. A loitu nai ebenen guzurra agertu eban, eta toetiko aintza (gorapena) emon utsan Jaungoiko gure Jaunak.

Koru-kanta.—Zorionsu, Jaunaren bildur dan gizona; Aren aginduak biziro maite dauzana. Aren jatorria lurrean indartsua izango da; zintzoen azia onesia izango da.

Aleluia, aleluia. Aren buruan pitxi ederrezko kofroia ipiñi dozu, Jauna. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzayarri au:

Luzagarria.—Biotzeko guraria bete dautsazu: ta aren ago-eskaria ez dozu ukatu. Onespen gozoz aurrea artu dautsazu. Aren buruan pitxi ederrezko kororia ipiñi dozu.

Barri Ona (Mat. 10, 34-42).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ez uste izan, lurreia bakea ekarten etorri nazanik: bakea ez, ezpata baiño. Semea aitagandik, eta alaba amagandik, eta errena 8, maginarrebagandik banatzera etorri naz-ta. Eta gizonaren arerioak, bere etxeakoak. Aita naiz ama, ni baiño maiteago dauana, ez da Niretzako lain. Semea naiz alaba, Ni baiño maiteago dauana, ez da Niretzako lain. Eta bere gurutzea artu fca jarraitzen ez daustana, ez da Niretzako lain. Bere burua idoro (aurkitu) dagianak, galdu egingo dau; ta bere burua Nigaitik galdu dagianak, idoro egingo dau.

Zuek artzen zaituenak, Neu artzen nau; ta Ni artzen nauanak, bialdu nauana artzen dau. Igarlea igarletzat artu dagianak, igarle-saria artuko dau; ta Eintzoa zintzotzat artu dagianak, zintzo-saria artuko dau. Ta pitxar toete ur otz txikitxo oneitariko bati, Ikasle antzean smon dagionak, benetan dirautsuet: ez dau bere saria. galduko.

Eskintza.—Koroi eder eta argitsua jantzi dautsazu buruan; eta zure eskuak egindakoen nagusi jarri dozu, Jauna.

Opari-otoitza.—Gure opariagaiak eta otoitzak onarturi-k, Jauna, igarbitu gagizuz zeruko misterio onein bidez, eta entzun gagizuz biotz onez. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Nire ondotik iñok etorri nai ba'dau, bere burua ukatu ta bere gurutzea artu begi, ta jarraitu beist.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko gure Jaun orrek!, orain zure Santuen gomutaz alaitzen garanez, poztu gaitezala betiko gerokoan be, arein arpegia ikuciaz. Amaibagako.

GOTZAIN EZ DAN MARTIRI BATEN
2'GARREN MEZA
"LAETAiBITUR"

Sarrera.—Zintzoa Jaunagan poztuko da, baita Aregan itxaron be; biotz-zintzo guztiak poztu egingo dira.—Ps. Entzun, Jaungoiko, nire otoitza, nik dei egitean; arerio-toildurretik atara nire arima.—Aintza.

Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!, N. zure martiri doatsuaren bitartez, gorputzean gaitz guztietatik zaindu gaitzala, ta arimako bururapen gaiztoetatik garbitu. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Timoteo'ri 2'gna.: 2, 8-10; 3, 10-12).—Guztiz maite ori, Gogoratu egizu, Dabid'en jatorriko Jesukristo, illen artetik biztu zala, iragarten dodanez. Barri On onegaitik neketan bizi naz, gaizto lez, katai-artean egoteragiño. Jaungoikoaren itza, oster, ez dago lotuta. Ori dala-ta, guztia jasaten dot aukeratutakoen alde, oneik be Jesukristo'gandik dator-kigun osasuna jaritsi dagien, betiko argitan. Ba-dakizii, barriz, zeuk ikusita, zeintzuk diran nire ikasbidea, bizikera, asmoak, sinistea, biotz zabala, maitasuna ta eroapena; baita Antiokia'n, Ikonia'n eta Listra'n jasan nebazan jazarpen eta nekeak be. Nik eroan taear izan dodazan jazarpenak! Eta guztietatik onik atara nau Jaunak. Izan ibe, Jesukristo'gaz zintzo bizi nai dagien guztiak, jazaratuak izango dira.

Koru-kanta.—Zintzoa, jausiarren be, ez da minduko: Jaunaren eskuak eusten dautso-ta. Egun osoan eraoten eta errukitzen diardu: ta aren ondorengoak one-tsiak izango dira.

Aleluia, aleluia, Jarraitu daistana, ez da illunetan ibiliko; bizi-argia beragaz izango dau, oster. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zoriontsu benetan, Jaunaren biidur dan gizona: Aren aginduak biziro maite dauzana. Aren Jatorria lurrean indartsua izango da: zintzoen azia, onetsia izango da. Aintza ta aberastasuna aren etxean; aren zuzentasunak beti-betiko iraungo dau.

Barri Ona- (Mat. 10, 26-32).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ezer be ez dago gordeta agiri izango ez danik; ezta ezkuturik be, jakingo ez danik. Illunetan dirautsuedana, argitan esan agizue; eta agotik belarrira entzuten dozuena, etxegaiñetik deadarrez esan egizue. Gorputza ilten dabela, arima ezin il daikenen bildur ez izan; arima ta gorputza su^hbarrendira jaurti daikezanaren bildurrago izan zaitzeze. Txori parez ez ete-da lauko baten saltzen? Eta orraitño, areitariko bart bere ez da lurerra jausiko zuen Aitak nai izan ezik. Eta zuei buruz, zuen buruko ule guztiak be kontautu dagoz. Beraz, ez bildur izan: zuek txori pilloa baino obe zaree. Gizonen aurrean autortu nagiana, Neuk be autortu egingo dot zeruko nire Aitaren aurrean.

Eskintza.—Jauna, aren buruan pitxi ederrezko korioa ipiñi dozu: bizia eskatu eutsun, eta emon egin teutsan. Aleluia.

Op-ari-otoitza.—Gogoko izan dakizula, Jauna, zure aurrean gure otaitza; eta gaur ospatzen dogun santuaren eskarien bitartez, osasungarri izan dakigula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—[^]Norbaitek nire morroi izan nai ba'dau, jarraitu beist; eta Ni egon naiten tokian egongo da nire morroia be.

Azken-otoitza.—Eukaristi santuaz mdartu garan ez. kero, gure Jaun eta Jaungoikoa!, N. zure martiri doatsuaren bitartez, ospatzen dogun opari onen indarra lgaTi daigula gudan. Amaibagako.

MARTIRI ASKOREN I'GO. MEZA

"INTRET"

Sarrera.—[^]Eldu bedi zure aurrera, Jauna, arerioen menpean dagozanen negar-deia; gure arerioai biurtu egiezu zazpi alako arein altzora: zigortu egizuz isuri daben Bantuen odolagaitik. — Ps. Atzeritarrak zeure Dndasunetan sartu dira, Jauna; zure etxe santua loitu egin dabe; Jerusalem, ortu-zaiñaren txabola legez itzi datoe.—Aintza.

Otoitza.—Zure martiri ta gotzain doatsu N. ta. N.'ren egunak zaindu gagitza, Jauna; ta arein otoitz

agurgarria zure aurrean baliotsu izan dakigula. Ama-bagako.

Irakurgaia (Jakintza, 3, 1-8).—Zintzoen arimak Jaungoikoaren eskuan dagoz, ta ez dauz ikutuko eriotz oiñazeak. Burutoageen begietan illak zirudien, eta arein azkenari zoritxar eritzen, eta gure artetik joateari, on. damena; areik, barriz, baketan dagoz. Gizonen aurrean oiñazeak eroanik be, arein itxaropena eriotz eziña da. Neke ariñen ondoren, sari aundia artuko dabe. Jaungoikoak aztertu dauz, eta Beretzat on aurkitu.

Urrea su-katilluan legez aztertu dauz, eta erre-oparizat artu dauz, eta nozbait izango dabe euren saria. Zintzoak argi egingo dalbe sarialdian, eta kaiñabera artean txingarra legez zaibalduko dira. Erriak epaituko dabez, eta arein nagusi izango dira, ta Jaungoikoa izango dabe Errege betpbetiko.

'Koru-kanta.—Goragarri agiri da Jaungoikoa bere santuetan; aundi ta arrigarri ikusgarriak egiñik. Goratua da, Jauna, zure eskurnaren indarra; zure esku-m(e)ak, arerioak birrindu egin dauz.

Aleluia, aleluia. Santuen gorpuak Jaunaren atse de-nean dagoz; arein izenak, barriz, gízaldiz gizaldi jaungo dau.

Zazpiastetik Pazkora, Alelula orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Negarrez ereiten dabenak, pozez batuko dabe. Negar egiten eben azia zabaltzean. Etorri daitezanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriez.

Barri Ona (Luk. 21, 9-19).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasle^{ñi} auxe esan eutsen: Guda ta matxiñada I-otsak entzun dagizuezanen, ez ikaratu. Guzti orreikl jazo berrak dira; baiña ez da oraintiño azken-eguna. Ta zirautsen: Erri bat bestearen aurka, ta erreiñu batl bestearen aurka jagiko da. Lur-ikara aundiak, izu-l rriak* eta goseteak nunai izango dira, ta gudaketa I bildurgarriak eta ezaupide aundiak ortzian (zeruan). Baiña gauza guztiok jazo baiño len, lotu ta aurrean j

Izurriak = epidemias.

erabiliko zaitue, sinagogetan eta giltzapean sartu, ta errege ta agintarien aurrera eroango zaeze nire Izenagaitik. Guztiok, barriz, arein aurrean autor egin dagizuen jazoko yatzuez.

Alan be, ez larritu aurretiaz gogoratzen zer erantzun bear izango dozuen: zuen arerio guztiak ezin gogor egin eta erantzun dagizuen itza ta sena emongo dautsuedaz Nik orduan-eta. Guraso ta anai, senide ta adiskideak izango dozuez salatzaile, ta zuetariko batzuk il egingo dabez; ta nire Izenagaitik guztien gorrotogari izango zaree. Orraitiño, zuen buruko ule bat be ez da galduko. Zuen arimak eroapenez salbauko dozuez.

Eskintza.-TArrigarri da Jaungoikoa ber, santuetan: Israel'en Jaungoikoak Berak emongo dautsaz adorea ta indarra bere erriari: bedeinkatua izan daitela Jaungoikoa. Aleluia.

Opari-otoitza.—Entzun, Jauna, zure Santuen gomutaz egiten dautsuguzan otoitzak; eta gure zuzentasu-nean itxaropenik ez dogun ezker, atsegin izan dozuzanen irabaziak lagun dakiguela. Amaibagako.

Jaunartzer.akoia.—Gizonen aurrean oiñazeak jasana. rren, Jaungoikoak aztertu dauz; urrea su-katilluan Jegez ikusi idauz, eta erre-oparizat artu.

Azken-otoitza.—Opari osangarriaz aseturik, eigu-zu, Jauna, gaur ospatzen doguzan Santuen otoitzak lagundu gagiezala. Amaibagako.

MARTIRI ASKOREN 2'GARREN MEZA

"SAPIENTIAM"

Sarrera.—Erriak, santuen jakituria ospatzen dabe, ta batzarrak arein aintza iragarten dau; arein izenak gizaldiz gizaldi iraungo dau— *Ps.* Poztu zaiteze Jaunagan, zintzook: biotzez. zintzoi dagokie Jauna goratzea.—^ñAintza.

Otoitza.—N. ta N. zure martiri santuen zerura jaiotza ospatzen izten daukuzun Jaungoikoa: gu be arein lagun izan gaitezala betiko atsedenean. Amaibagako.

Gotzaiñak ba'dira, beste Otoitz au esan:

Otoitz.—N. ta N. zure martiri ta gotzain doatsuen egunak zaindu gagizala, Jauna; ta arein otoitz agurgarria zure aurrean baliotsu izan dakigula. Amaibagako.

Irakurgaia. (Jakintza, 5, 16-20).—Zintzoak beti bizi dira, ta arein saria Jaungoikoagan dago, ta guztiz Alteuak zaintzen dauz. Orregaitik, zeruko erreñu ederra ta koroï bikaiña artuko dabez Jaunaren eskutik. Bere eskumaz gordeko dauz, eta bere beso santuaz zainduko dauz. Indartzat bere arduratasuna artuko dau, ta gizaki guztiai iskilluak (armak) emongo dautsez euren areriok zigortzeko. Zuzentasuna jantziko dau soñean, eta epai zorrotza burugaiñeko. Santutasun aspiratu-eziña artuko dau mazmarrotzat (esku-dutzat).

Koru-kanta.—Gure arimak, txoriak legez egin dau iges eiztarien* saretik. Sarea ausi egin da, ta guk iges egin dogu. Zeru-lurrak egin ebazan Jaunaren izena dogu laguntza.

Aleluia, aleluia. Poztu ta alaitu bediz zintzoak Jaungoikoaren aurrean; eta alaitu beitez pozez beterik. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Negarrez ereiten dabena, pozez batu-ko dabe. Negar egiten ebena azia zabaltzean. Etorri daitezanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriez.

Barri Ona (Luk. 6, 17-23).—Aldi aretan, Jesus mell-ditik jatsirik, zelai baten gelditu zan. Antxe egozan ikasle asko ta gizatalde aundia, Judea osotik, Jerusalem'dik, eta Tiro ta Sidon itxasaldeetatik etorri ziranak, Jesus'en itza entzun eta euren gaitzetatik osatzeraz etorri ziranak. Txerren zikiñak txarto erabilten ebezanak be, osatu egiten ziran; eta gizatalde guztia A (Jesus) ikutu nairik ebillen, edonor osatzeko indarra erion-eta. Orduan, ikasleakana begiak jasorik,

* Eiztari = cazador.

auxe esan eban: «Zorionekoak beartsuok, Jaungoikoaren erreñua zeuena dozue-ta. Zorioneko orain gose zareenok, asetuak izanko zaree-ta. Zorioneko orain negarrez zagozenok, barre egingo dozue-ta. Zorionekoak zuok, Gizasemeagaitik (Jesukristo'gaitik) begitan artu, eurekandik urrindu ta iraindu zagiezenean, eta zuen izena gaiztotzat artu dagienean! Poztu ta alaitu zaitzeze alako egunean: zuen saria zeruan oso aundia izango da-ta.»

Eskintza.—Pozez beterik dagoz santuak zeruan; alaitu egingo dira euren atsedenean; Jaungoikoaren gorapenak beti euren agoetan erabiliko dabez. Aleluia.

Opari-otoitza.—^Gure gogoko oparigai oneik eskintzen dautsuguz, Jauna; zure zintzoen izenean atsegin-ñez artu dagizuzala, ta zure erukiz, osasungarri izan dakiguzala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zuoi, barriz, nire adiskideoi, auxe dirautsuet: Ez izan bildurrik aurrean erabilii zagiezanai.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jauna!, N. ta N. zure martiri santuen bitartez, agoaz ikutu doguna, gogo garbiz artu dagigula. Amaibagako.

MARTIRI ASKOREN 3'GARREN MEZA

"SALUS AUTEM"

Sarrera.—Zintzoen osa^una Jaunagandik dator; Bera dabe laguntzaille atsekabe-aldian.—Ps. Gaiztoak gora-bera ez asarretu; ez izan gaiztoakanako ikusi-eziniñik.—Aintza.

Otoitza.—N. ta N. zure martiri santuen urteroko jai-egunean poztuten gaituzun Jaungoikoa: egiguzu biótz onez, arein irabaziak alaitzen gaituenez, arein ibillera onak bere berotu gagezala. Amaibagako.

Gotzaiñak ba'dira, beste Otoitz au esan:

Otoitza.^N. ta N. zure martiri ta gotzain doatisuen egunak zaindu gagizala, Jauna; ta arein otoitz agurgarria zure aurrean baliotsu izan dakigula. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Ebertarrai, 10, 32-38).—Anaiok: Gogoratu egizuez antxiñako egun areik, ar-

gitarra eldu-barri zintzazela (1), neke askoren burruka gogorra jasan zenduen: alde batetik, guztien aurrean lotsagarri ta gogaikarri; bestetik, orrela neketan egozanean lagun egiñik. Giltzapean egozanean nekeak eroan zenduezan, eta zuei ondasunak kentzea pozik jasan zenduen, ondasun obea ta iraunkorragoa zeukela jakiñik. Ez gatdu uste on ori, sari ederra dauko beragaz-ta. Iraupena, bearreko yatzue, Jaungoikoaren naia bete ta Aren agintza jaritsi dagizuen. Apur bat oraindik, apur bat; etorriko da Etortekkoa: ez dau luzatuko. Bitartean, nire zintzoa sinismenez bizi izango da.

Koru^kanta.—Dei egin eben zintzoak, eta Jaunak entzun egin ebazan: naigabe guztietatik atara ebazan. Jauna biotz-atsekabetuen ondoan dago, ta gogo apalak Arexek arinduko dauz.

Aleluia, aleluia. Martiriñen talde argitsuak, Zeu goratzen zaitu, Jauna. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Negarrez ereiten dabena, pozez batu-ko dabe. Negar egiten eben azia zabaltzean. Etorri daitezanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriez.

Barri Ona (Luk. 12, 1-8).—Aldi aretan, Jesus'ek ikasleai auxe esan eutsen: Zain egon pariseotarren legamiñaz, azaluskeria da-ta. Ez dagp estaldutako ezer be, agertuko ez danik; ezta ixilpean be, jakingo ez danik. Illunetan esan dozuena, argitan esango da; eta belarri-ara gelan esandakoa, etxe-gaiñetik deadarka esango da. Zuei, barriz, nire adiskideoi, auxe dirautsuet: gorputza il baiño besterik ezin egin daikkeen gizonen bildur ez izan. Noren bildur izan bear dozuen, ostera, irakatsiko dautsuet: gorputza il ondoren, su-lezera (infernura) jaurti daikenaren bildur izan zaiteze. Bai, ba-dirautsuet: orren bildur izan zaiteze.

Ez ete-dira bost txoritxo xemaiko bitan saltzen? Alan be, areitariko bat az be ez dago Jaungoikoa aztuta. Zuen buruko ule guztiak tte kontauta dagoz. Ez bil-

(1) Bateoa artuta.

durrik izan, ba: txoritxo askok baiño geiago balio dozeuek. Baita esan be bandirautsuet: gizonen aurrean autortu nagiana, Jaungoikoaren aingeruen aurrean Oizasemeak be autortu egingo dau.

Eskintza.—Zintzoen arimak Jaungoikoaren eskuan dagoz, eta ez dauz ikutuko eriotz-ofñazeak. Burubageen begietan illak zirudien; areik, barriz, baketan dagoz. Aleluia.

Opari-otoitza.—Bigundu zaitez, Jauna, oparigai onein bidez; eta N. ta N. zure martiri santuen bitartez, gaitz guztietatik zaindu gaginguz. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Illunetan dirautsuedana, argitan esan egizue, diño Jaunak; eta agotik belarri-arentzen dozuena, etxe-gaiñetik deadarka esan egizue.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, garbitu gagingala pekatuetatik; eta N. ta N. zure martiri santuen bitartez, zeru-saria artzea jadetsi daiskula. Amaibagako.

MARTIRI BATEN MIEZA

Pazkoaldian

"PROTEXISTI ME"

Sarrera. — Atara nozu, Jaungoiko orrek, gaitztoen maltzurkerietatik, aleluia; gaitzakeria egiten dabenen korapillotik, aleluia, aleluia.—Ps. Entzun, ene Jaungoiko, nire otoitza, zeuri deiez nago-ta; gorde egizu nire firma arerio-bildurretik.—Alntza.

Martiri ta Gotzain batentzat:

1^ogo. Otoitza.—Begiratu gure argaltasuna, Jaungoiko algutzidun orrek; eta gure pekatuen sorta astunak lurrera makurtzen gaituan ezker, zure martiri ta goizain N. doatsuaren laguntzak arindu gagingaia. Amaibagako.

2^ogn. Otoitza.—Zure martiri ta gotzain N. doatsuaren urteko Jaia dala-ta, alaitzen gaituzun Jaungoikoa: egizu biotz onez, aren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezker, bere laguntzak be poztu gagingala. Amaibagako.

Gotzain ez dan Martiriarentzat:

Igo. Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure martiri N. doatsuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkerero, aren bitartez zure maitasunean indartu gaitetzala. Amaibagako.

2^{gn.} Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure martiri N. doatsuaren bitartez, gorputzeko ezbear guztietatik gorde gaitetzala, ta arimako pentsamentu gaiztoetatik garbitu. Amaibagako.

Irakurgai (Jakirrtza, 5, 1-5).—Zintzoak adore aundiz zutituko dira larritu ebezanen aurka, ta neke-saria kendu eutsenen kontra. Larritasuna ta itzel ikaragarria sartuko yake gaiztoai zintzoak ikustean, eta arritu egingo dira, ez-usteko osasuna zintzoak ain laster jaritsi dabelako. Damuz eta gogo-intzirika esango dabe. "Onexeik dira aldi baten barre ta irain egiten geutesnak. Gfeu bai gu zoroak! Onein bizitza zorakeria zala uste genduan, eta onein eriotza lotsagarri utsa. Orra or nun dagozan orain Jaungoikoaren seme artean, eta santuen zorionean!"

Aleluia, aleluia. Zeruak, zure lan arrigarria ospatzen dau, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia. Aren buruan pitxi ederrezko koroia ipiñi dozu, Jauna. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 15, 1-7).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ni egiazko matsondoa naz, ta nire Aita mastizaiña. Nigan matsik ekarri ez dagian aiena, ebagi egingo dau; matsa ekarri dagiana, barriz, iñausi, mats ugariago ekarri dagian. Onezkeroko, zuek garbi zaree, esan dautsuedan itzaz. Zagoze beti Nigan, eta Ni zuekan. Matsondoa egon ezik, aienak berez fruturik ezin ekarri daikenez, ezta zuek be Nigan irau ezik. Ni, matsondoa naz; zuek, aienak. Nigan irauten dauanak eta Nik aregan, frutu ugari dakar: Ni baga, ezertxo be ezin egin daikezue-ta. Nigan egon ez daitena, aiena legez, kanpora jaurtiko dabe, igartu egingo da, ta batu ta sutara botako dabe ta erre egingo da. Nigan egon ba'zadize (egoten iba'zaree) ta Nirel berbak zuekan, nai dagizuena eiskatu egizue, ta emon egingo yatzue.

Eskeintza.—Zeruak, zure lan arrigarria ospatzen dabe, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia, aleluia.

Martiri ta Gotzain batentzat:

1^{go.} Opari-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jauna, zure martiri ta gotzain N. doatsuari eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta betiko zoriona jaristeko izan dakiguzala. Amaibagako.

2^{garrena.}—Onetsi, Jauna, çskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta zure martiri ta gotzain N. doatsuaren bitartez, begiratu gagizuz samurkiri. Amaibagako.

Gotzain ez dan Martiriarentzat:

1^{go.} Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, gure oparigai ta otoitzak onarturik, zeruko misterio onein bldez, garbitu ta entzun gagizuzala biotz onez. Amaibagako.

2^{garrena.}—Onartu egizu, Jauna, zure aurrean gure opari au; ta eskintzen dautsugun Santuaren ototzez, osangarri izan datoigula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zintzoak Jaunagan jarriko dauz bere poza ta ustea: biotz-zintzo guztiak poztuko dira. Aleluia, aleluia.

Martiri ta Gotzain oatentzat:

1^{go.} Azken-otoitza.—Janari santuz indartu garan ezkeroko, eiguzu, gure Jaun eta Jaungoiko orrek!: zure martiri ta gotzain N. doatsuaren bitartez, opari onen frutua igarri daigula gudan, arein jaia ospatzen dogu-ta. Amaibagako,

2^{garrena.}—Eukaristi onek, Jauna, pekatu guztietatik garbitu gaizala, ta N. zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, zeru-saria artzea jadetsi daiskula. Amaibagako.

Gotzain ez dan Martiriarentzat:

1^{go.} Azken-otoitza.—[^]Eiguzu, arren, Jaungoiko gure Jaun orrek: orain zure Santuen gomutaz alaitzen gavanaz, poztu gaitetzala betialdian be, arein arpegia ikusiaz. Amaibagako.

2^{garrena.}—Janari santuz mdartu garan ezkeroko, eiguzu, gur_e Jaun eta Jaungoiko orrek!: N. zure martiri doatsuaren laguntza somau daigula gudan, aren [fefa ospatzen dogu-ta. Amaitoagako.

MARTIRI ASKOREN MEZA

Pazkoaldian

"SANCTI TUI"

Sarrera.—Onetsi zagiezala, Jauna, zure santuak; zure edertasuna iragarri begie, aleluia, aleluia.—*Ps.* Goratuko zaitut, ene Jaungoiko Errege; gizaldiz gizaldi goratuko dot zure izena.—Aintza.

Martiri ta Gotzain askorentzat:

Otoitza. ^N. ta N. zure martiri ta gotzain doatsuen jai-egunak zaindu gagizala, Jauna; ta izan dagigula zure aurrean arein otoitz santuen laguntza. Amaibagako.

Gotzain ez diran Martirientzat:

l'go. Otoitza.—Zure martiri doateu N. ta N.'ren zerurako jaiotza ospatzeko grazia emoten dauskuzun Jaungoikoa: eiguzu, gu be arein lagun izan gaitezala toetikozorionean. Amaibagako.

2'garrena.—Zure martiri N. ta N. santuen jai-egunean poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu biotz samur, arein irabaziak alaitzen gaituenez, arein irakatsi onak tae sutu zagiezala. Amaibagako.

Irakurgai (S. Pedro'ren l'goa; 1, 3-7).—Onetsia Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita, bere erruki auzid, Jesukristo'ren illen artetik berbizteaz, itxaro-pen-bizitzarako Berak sortu gaitu barrixo-ta, zuentzat zeruan ustelik, orbanik eta zinielik taaga aukeratuta dagoan ondasunerako. Zeuentzat, bai, sinismenaren bidez, azken-aldietan agertuko dan osasuna jaris-beko, Jaungoikoaren indarrak zaindurik izan zaitez. Orduan, poztu egingo zaree, naiz-ta orain, apur baten beintzat, itentaziño-aldi taatzuk jasan bear. Olantxe garbituko da zuen sinismena, ta au, sutan garbitutako urre galkorra* baiño askoz bikaiñago agertuko da Jesukristo gure Jaunaren agertaldian, zuen aintza, ospe ta goragarrirako.

Aleluia, aleluia. Zure santuak, Jauna, lilia lez lora. tuko dira, ta balsamo usaiña lez izango dira zure au-

- Galkor = pencedero.

rrean. Aleluia. Ederra da Jaungoikoaren aurrean bere santuen eriotza. Aleluia.

Rarri Ona (Jon, 15, 5-11).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen. Ni, matsondoa naz; zuek, aienak. Nigan iraun dagianak eta Nik aregan, írutu ugari dakar: Ni бага, ezertxo be ezin egin dai-Kezue-ta. Nigan egon ez daitena, aiena legez, kanpora jaurtiko dabe, igartu egingo da, ta batu ta sutara botako dabe ta erre egingo da. Nigan egon ba'zadize, ta Nire itzak zuekan, nai dagizuena eskatu egizue, ta emon egingo yatzue.

Zuek frutu ugari ekarri ezkeru, ta nire ikasle izan, nire Aita goratua da. Aitak maite izan nauanez maite izan zaituet Nik be. Nire aginduak gorde baldagizue, neure maitakuntzan iraungo. dozue. Nik be nire Aitaren aginduak bete ta Aren maitakuntzan irauten dodanez. Guzti au, nire poza zuekan izan dadin esan dautsuet, eta zuen poza bete-betea izán dadin.

Eskeintza.—Poztu zaiteze, zintzook, ta alaitu zaiteze Jaunagan; poztu zaiteze goraka, biotz-zuzeneko guztiok. Aleluia.

Martiri ta Gotzain askorentzat:

Opari-otoitza.—Entzun, Jauna, zure Samtuen jai-egunean egiten dautsuguzan eskariak; eta gure zintzotasunagan itxaropenik ez dogun ezkeru, atsegin izan zenduzanen irabaziak lagundu gagiezala. Amaibagako.

Gotzain ez diran Martirientzat:

l'go. Opari-otoitza.—Gogo onez eskintzen dautsuguz, Jauna, oparigaiok; begiko izan dakizuzala zure zintzozen izenean, eta guri osasun-iturri izan dakiguzala zure errukiz. Amaibagako.

2'gna.—^Baketu zaitez, Jauna, eskintzen dautsuguzan opariokaz; eta zure martiri N. ta N. santuen bitartez, arrisku guztietatik gorde gagizuz. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—CPoztu zaiteze Jaunagan, zintzook, f'leluia; Jauna goratzea, zuzenai dagokie. Aleluia.

Martiri ta Gotzain askorentzat:

Azken-otoitza. — Eukaristi osasungarriaz aseturik, eiguzu, Jauna, gaur ospatzen "doguzan Santuen otoitzak lagundu gagiezala. Amaibagako.

Gotzain ez áiran Martirientzat:

I'go. Azken-otoitza.—Eiguzu, Jauna, N. ta N. zure martiri santuen bitartez, agoaz ikutu doguna, gogo gar. biz artu dagigula. Amaibagako.

2'gna.—Eukaristi onek, Jauna, ganbitu gagizala pekatu guztietatik; eta zure martiri N. ta N. doatsuen bitartea, egin gagizala zeru-sariaren erdikide. Amai-bagako.

AUTORLE TA GOTZAIN BATEN I'GO. MEZA

"STATUIT"

Sarrera.—Jaunak aregaz bake-alkarta-suna egin, eta bere erriaren buru jarri eban, abade-nagusitza betiko izan egian. (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Jauna, gogoratu egizu Dabíd, eta onen apaltasun aundia.—*Aintza.*

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek, zuj re autorle ta gotzain N. doatsuaren jaiegun santuak, zukanako oneraspen (deboziño) eta osasuna geitu dagizala gudan. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 44, 16-27; 45, 3-20).—Emen abade aundia, bere egunetan Jaungoikoari atsegín izan eutsana; zintzo aurkitu zan, eta asarre-orduan bakezale agertu zan. Ez zan aren antzekorik agertu] Jaungoikoaren legea beteten. Orregaitik, Jaungoikoak zin egin eutsan, aundi egingo ebala bere erriaren aurrean. Erri gutzientzat onespina emon eutsan, eta bere alkartasuna eendotu dau aregaz. Jaunak bere onспенak isuri dautsaz, bere errukiaz zaindu dau, ta Jaunaren aurrean 'grazia aurkltu dau. Erregeen begietan aun'di egin eban; eta koroí argitsua emon eutsan. Betiko alkartasuna egin eban aregaz, abade-nagusitza, emon eutsan, eta ospez bete eban. Abade-lanetan ekiteko, Jaunaren gorespenu abesteko ta usain gozozko lurruna eskiñi .egian aukeratu eban.

Koru-kanta.—Ona emen abade aundia, bere egunetan Jaungoikoarl atsegín izan eutsana. Ez zan aren! antzekorik agertu Jaungoikoaren legéa beteten.

Aleluia, aleluia. Bein betiko abade zara zu, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Koru-kanta ta Aleluia orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zoriontsu, Jaunaren bildur dan gizona; Aren aglnduak biziro maite dauzana. Aren jatorkia gogorra izango da lurrean; zintzoen a'Ja onetsia izango da. Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti-betiko irauñgo dau.

Pazko-aldian, Koru-kanla ta Aleluia orde, beste au:

Aleluia, aleluia. Bein betiko abade zara zu, Melkise'dek'en Bailllean. Aleluia. Auxe da Jaungoikoak kofia ezarri eutsan abadea. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 25, 14-23).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Gizon batek, urriñera joaterakoan, bere morroiari dei egiñik, bere onda-Eunak itzi eutsezan. Bati bost talentu (1) emon eutsazan; beste bati, bi; beste bati, bat bakarrik, bakoitzari bere 'trebetasunari egokionez, ta joan zan bereala. Bost talentu artu ebazanak, irabazitan jarririk, beste bost irabazi ebazan. Talentu bi artu ebazanak be, beste bi irabazi ebazan. Talentu bat artu ebanak, barriz, joanda, nagusiaren dirua atxurraz Jurpean gorde eban.

Andik luzarora, morroi arein nagusia etorri ta kontuak garbitzen asi yaken. Eta bost talentu artu ebazanak, aregana urreraturik, beste bost talentu ekarri eutsazan, esanaz: «Jauna, bost talentu itzi zeustazan: ona emen neuk irabazitako beste bost.» Jaunak esan eutsan: «Aupa!, morroi on eta zintzo: gutxian zintzo izan zaikidazan ezker, askoren gain jarriko zaitut: sartu zaitetz zure jaunaren pozetan.» Eta talentu bi artu ebazanak be, urreratuta eean eutsan: «Jauna, talentu bi itzi zeustazan: ona neuk irabazitako beste bi.» Nagusiak esan eutsan: «Aupa, morroi on eta zintzo!: gutxian zintzo izan zakidazan ezker, askoren gain jarriko zaitut: sartu zaitetz zure jaunaren pozetan.»

Eskeintza.—Dabid nire morroia aurkitu dot, eta orio santuz igurtzi dot; neure eskua izango dau lagun, eta neure besoak indartuko dau. (P. A. Aleluia).

(1) Talentu: sei milla peseta urrezko dirua.

Opari-otoitza.—Poztu gagiezala toki guztietan, Jaufna, zure santuak; eta arein irabaziak ospatzean, euren bitartekotasuna be izan dagigula. Amaitoagako.

Jaunartzerakoa.—Etxezain zintzo ta zurra, Jaunak bere morroien buru jarri eban, etxeokai aldi egokian jatekoa banatzeko. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek: artu dogun EukaristiagaMk eskerrak emoniez, zure autorle ta gotzain N doatsua bitarteko dala, gero-ta grazi ugariagoak artu daiguzala. Amaibagako.

AUTORLE GOTZAIN BATEN 2'GARREN MEZA

"SACEBDOTES TUI"

Sarrera.—Zure abadeak, Jauna, jantzi beitez zuzentasunez, eta poztu bediz zure santuak; zure morroi Dabid'eganako maftasunagaitfk, ez egizu zure igurtzitakoagandifc alde egin (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Gogoratu egizu Dabid, eta onen apaltasun aundia. —*Aintza.*

Otoitza.—Entzun, Jauna, zure autorle ta gotzain N. doatsuaren jaiegunean egiten dautsuguzan eskarriak; eta zure otsein jator izan zanaren irabaziakaitik, parkatu eiguzuz gure pekatu guziak. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Ebertarrai: 7, 23-27). -3 Anaiok: Asko dira aba)de egindakoak, eriotzak irautea galerazoarren. Jesus'ek, ostera, beti dirauan ezker, betiko abadegintza dauko. Orregaitik, Jaungoikoagana joaten diranai, beti be zerua emon daikeoe, beti bizi da-ta gure alde egiteko. Egoki yakun, egiz, orrelako abadeburua: santua, errubagea, garbia, pekatari artek ataratakoa ta zeruak baiño gorago jaso; bere pekatuakaitik lenen eta erriarenakaitik gero, opariak egunean-egunean eskifñi bearrik ez dauana: ori bein bakarrik egin dau, b«re burua eskiñiaz, Jesukrsto gure Jaunak.

Koru-kanta.—Aren abadeak santutasunez jantziko dodaz, eta axen santuak poztu egingo dira. Dabid'en indarra antxe geituko dot, eta nire igurtzitakoari argiontzia atonduko dautsat.

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutuko: betiko abade zara zu, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Zazpisteiik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

ÍLuzagarria.—Zoriontsu, Jaunaren bildur dan gizona; Aren aginduak biziro maite dauzana. Aren jatorria gogorra izango da lurrean; zintzoen azia onetsia izango da. Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti-betiko irauongo dau.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutuko: betiko abade zara zu, Melkisedek'en saillean. Aleluia. Maite izan eban Jaunak eta ospez apaindu eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan. Aleluia.

Barri Ona (Mat. 24, 42-47).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ernai egon zaiteze, ez dakizue Jauna zein ordutan etorriko yatzuen-eta. Auxe bai jakin bear dozuela: etxeko jaunak lapurra zein ordutan etorriko litzakean ba'leki, ernai (iratzarrik) egongo litzake, ta ez leuke bere etxea zulatzen itziko. Zuek be gertu egon, ba, Gizasemea (Jesukristo) uste ez dagizuen sasoiari etorriko yatzue-ta. Nor ete-da morroi zintzo ta zurra, bere nagusiak etxeko morroi guztien touru jarritakoa, aldi egokian arei jatekoa emon dagitsen? Morroi zoriontsua, ugazabak, etortean, orrela jarduten aurkitu dagiana ! Benetan dirautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau.

Eskintza.—Nire egia ta «rrukia zintzoagaz- dira, ta nire izenean sendotu egingo da aren indarra. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Zure autorle ta gotzain N. doatsuaren urte-egunak, zure begiko egin gagizala, Jauna; ta oparigai eztigarri onein bidez, zeruan ederrago agertu dadilla, ta guri zure graziaren doaiak jaritsi daiskuza-la. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Morroi zoriontsua, ugazabak, etortean, ernai (iratzarrik) aurkitu dagiana; benetan di-

rautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—[^]Arima zintzoen sari-emoille zaran Jaungoikoa: egizu, eguna ospatzen dogun zure autorle ta gotzain N. doatsuaren bitartez, lortu dagigula zure parkamena. Amaibagako.

ELIZ-IRAKASLEEN MEZA

"IN MEDIO"

Sarrera.—B.atzar-erdian edegi eban aren agoa Jaunak, eta jakintzaz eta zurtasunez bete eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan. (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Ona da Jauna autortzea, ta zure izena goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Zure erriari betiko osasunerako N. doatsua laguntzaille emon zeutsan jaungoikoa: eiguzu, arren, munduan bizitarako irakasle izan genduana, zeruan bitarteko izan dakigula. Arnaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Timoteo'ri 2'gna.: 4, 1-8).—GuztLz tnaifce ori: Jaungoikoaren aurrean, eta bizi-illak ebazteko, Errege agertu bear dauan Jesukristo'ren izenean agintzen dautsut: iragarri egizu itza (Barri Ona); ekin altfi onez eta txarrez; egin asarre, egin erregu, zuzendu, eroapen audienaz beti irakasten, Gizakiak irakaspen onik jasan ez dagien sasoiatorriko da, ta belarrien asegintzat, norberaren gurarien aukerako maisuak aukerataruko dabez, eta entzumena egitik aldendurik, ipuiñetara biurtuko dira.

Zu, ostera, zaigoz ernai gauza guztietan; jo lanera gogor, zatoaldu Barri Ona, toete zure egitekoa, negurritz bizi. Ni, onezkero, il-zorian nago, ta nireak laster egingo dau. Burruka ona egin dot, lasterketa burutu 'dot, toete dot sinismena. Onerezkero, zulentasunaren koroia idagokit, eta auzi-jaun zuzenak emongo daust egun aretan; ez niri bakarrik, baita Aren agertaldia bpa dabena be.

Koru-kanta.—Zintzoaren agoak jakituria iisuriko dau, ta aren rniñiak berba zuzenak esango dauz. Bere Jaungoikoaren iegea dauko biotzean, eta aren oiñak ez dabe kili-kolorik egingo.

Aleluia, aleluia. Maite izan eban Jaunak, eta aintzaz apaindu eban: soiñleko argitsua jantzi eutsan. Aleluia.

Zazpiastetik Paskora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zorionsua benetan Jaunaren bildur dangizona: Aren aginduak biziros maite 'dauzana. Aren ondorengoak indartsuak izango dira lurrean; zintzoen jatorria onetsia izango da. Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean, eta aren zulentasunak beti-betiko iraungo dau.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Maite izan eban Jaunak, eta aintzaz apaindu eban: soiñleko argitsua jantzi eutsan. Aleluia. Zintzoa, lilia lez erneko da, ta beti loratan egongo da Jaunaren aurrean. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 5, 1349).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Lurrarentzat gatza zaree zuek. Eta gatza gazatu ba'dadi, zerez gazitu? Eze-tarako be ez da, kanpora jaurtiteko ta gizonen ankaperrako izateko baiño. Gizonen argi zaree zuek. Mendi-tontorrean dagoan uria, ezin gorde daiteke. Argi-zUzi iziotua be, ez dabe lakaripean ipinten, argimutil-gaifian baiño, etxeko guztia argi egin 'dagien. Bego orrela ditziz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zuen Goiko Aita goretsi dagien.

Ez uste izan Legea edo Igarleak baztartzera etorri nazarik; baztartzera ez, batetera baiño. Bene-ibenetan dirautsuet: zeru-lurrak dirauen artean, ez "i" bat, ez izipitxo bat be ez da legetik galduko, guztia beté arte. Beraz, agindurik txikiena baztartu ta baztartzen irakatsi dagiaxia, kaskarrean izango da zeruko erreñuan; bete ta irakatsi dagiana, ostera, zeru-erreñuan aundi izango da.

Eskintza.—Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da, ta Libano'ko zedi-ua Jez aun'di egingo da. OP. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Zure gotzain (edo autorle) ta ira[^]kasle N. santuaren otoitz onak ez daiskula, Jauna, uts

egin; gure oparigaiok zuri ondo arrerazo, ta guri zure errukia beti jadetsi daiskun. Amaibagako..

Jaunartzerakoa. — Etxezam zintzo ta zurra egn dau Jaunak morroiburu; etxeokai aldi egokian jatekoa ibanatu dagitsen. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Opari au osangarri izan dakigun, egizu, Jauna, N. zure gotzain (edo autorle) doatsua ta irakasle bikaiña bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

GOTZAIN EZ DAN AUTORLE BATEN I'GO. MEZA

"OS IUSTI"

Sarrera.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko dau, ba aren imiñak itz zuzenak esango dauz: 'bere Jaungoikorearen legea dauko biotzean. (P. A. Atelua, aleluia).—*Ps.* Gaiztoak gora-bera ez asarretu; ez izan gaiztoakanako ikusi-eziñik.—Aintza.

Otoitza.—Zure autorle N. doatsuaren urte-egunean poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguza, santuaren zerirurako jaiotza ospatzen dogun ezker, aren. erakutsi onai jarraitu dagiegula. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli. 31, 8-11).—Gizon errubagea bai zoriontsu!, urre billa ibilli ez, eta diruan eta ondasunetan ustetik jarri ez dauana. Nor da au? Goratu dagigun, bere bizitzan arrigarriak egin dauz-ta. Urreaz aztertu dabe, ta garbi geiditu da; betiko argitasuna izango dau. Legea ausi al izan eikean, eta ez e'ban ausi; gaiztakeria egin al izan eikean, eita ez eban egin. Ori dala-ta, bere ondasunak sendo dagoz jaunagan, eta bere esku zabala santuen batzar guztiak ospatuko dau.

Koru-kanta.—Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Jaunaren etxean. Goizean zure errukia ta gabeen zure egia iragarteko.

Aleluia, aleluia. Zoriontsu, tentaldia ondo eroan dagian gizona; aretan aztertu dagienean, bizitza-koroia jadetsiko dau-ta. Aleluia.

Zazpiastetik Pozkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zoriontsua benetan, Jaunaren bildur dan gizona: aren aginduak biziro maite dauzana. Aren ondorengoak, indartsuak izango dira lurrean; zintzoen jatorria onetsia izango da[^] Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti betiko iraungo dau.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Zoriontsu, tentaldia ondo eroan dagian gizona; aretan aztertu dagienean, bizitza-koroia jadetsiko dau-ta. Aleluia. Maite izan dau Jaunak, eta aintzaz apaindu dau: soñeño argitsua jantzi eutsan. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 12, 35-40).—'Añdi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Begoz zuen gerriak loturik eta kruseluak zuen eskuetan izioturik; eta zuek, euren nagusia ezteguetatik noiz biurtuko dan zairi gizonak dagozanez; etorri ta atea joala, berari edegituko. Zoriontsuak benetan, ugazabak, etortean, zain aurkitu dagizan morroi areik! Egiz dirautsuet: gerria loturik, imaian jarri-erazoko dauz eta banan-ibanen jaben emongo dautse. Ta ibigarren gau-aldian, naiz irugarrenean etorri ba'dadi, ta arela aurkitu ba'dagiz, zoriontsuak morroi areik! Eta auxe jakin egizue: lapurra zein ordutan etorkion etxeo jaunak ba'leki, zain egongo litzake, ta ez leuke bere etxea zulatzen itziko. Zuek be, zagoze gertu; gutxien uste dagizuean etorriko da Gizasemea-ta.

Eskintza.-^NÍTe egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da aren indarra. (P. A. Aleluia.

Opari-otoitza.—Zeure Santuen gomutaz, Jauna, eskintzen dautsuguz gorapenezko oparigaiok; eta euron bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onik urtenko garala uste dogu. Amaibagako.

Jaunartzerakoa. — Zoriontsu benetan, ugazabak, etortean, zain aurkitu dagian morroia! Egiz dirautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau. (P. A. Aleluia.).

Azken-otoitza.—Zeruko janari ta edari onekaz indarturik, egizu, gure Jaungoiko orrek: santuaren eguna ospatuaz artu doguzan ezkeru, berak lagun egin daiskula bere otoitzakaz. Amaibagako.

GOTZAIN EZ DAN AUTORLE BATEN

2'GARREN MEZA

"IUSTUS"

Sarrera.—Zintzoa, palmondoaren antzera aziko da; Libano'ko zedrua legez aundi egingo da Jaunaren etxean jarrita, gure Jaungoikoaren etxeko bebarruan. (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Ona da Jauna aurtutzea, ta zure izena goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Entzun, Jauna, zure autorle N. doatsua-
ren egunean egiten dautsuguzan eskariak; eta gure zintzotasunean itxaropenik ez dogun ezkeru, atsegin yatzuzanaren irabaziak lagun egin daiguela. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korintokoai l'goa.: 4, 9-14).—Anaiok: Ikusgarri gakiez munduari, aingeruai ta giziai. Gu zoro gara Kristo'gaitik, zuek zur Kristo'gaitik; gu makal, zuek indartsu; zuek aundiki, gu ezezez. Orain arte gose, egarri ta beartsu ibilli gara, ma-traillakoak artuaz, bizi-tokirik ez dogula. Geure eskuz lan egiñik nekatu gara. Guri birao egin, eta guk ondo esan; guri gaitz-eskinka, ta guk irauñ; guri irain egin, eta guk otoitz. Mundu onetako sats eta simaur egiñik gaurkie orain arte. Ez dot au zuek lotsatzeko idazten, Jesukristo gure Jaunaren seme kutun zaituedanok bizkortzeko baiño.

Koru-kanta.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko dau, ta aren miiñak berba zuzenak esango dauz. Bere Jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren oiñak ez dabe kilikolorik egingo.

Aleluia, aleluia. Bai zoriontsu Jaunaren bildur dan gizona!, Aren aginduak biziro maite dauzana. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zoriontsu benetan, Jaunaren bildur dan gizona: Aren aginduak biziro maite dauzana. Aren ondorengoak indartsuak izango dira lurrean; zintzoen jatorria onetsia izango da. Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti-betiko irauñgo dau.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Zoriontsu benetan, Jaunaren bildur dan gizona: Aren aginduak biziro maite dauzana. Aleluia. Zintzoa, lilia legez aundi egingo da, ta Jaunaren aurrean beti betiko loratan egongo da. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 12, 12-34).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ez bildur izan, ene artaildetxo, Aitak erreñua aitsegiñez emongo dautsue-ta. Zuen ogasunak saldu ta egizue limosna: egizuez zerurako zaartzen ez diran zorroak eta galtzen ez diran ondasunak: an (zeruan) ez da lapurrik, ezta ondatzeko sitsik be. Zuen ogasuna dagizuen tokian, biotza be antxe izango dozue-ta.

Eskintza.—Zeure indarrez poztuko da zintzoa, Jauna, ta zure laguntasunak biziro alaituko dau: emon dautsazu gogoz opa ebana. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: gure opari apal au eder izan dakizula zure santuen izenean, eta gu gorputz eta arima garbitu gagingala. Amaibagako.

J'aunartzerakoa. — Bene¹benetan dirautsuet: Guztia itxi ta niri jarraitzen etorri zarenok, bateko eun artuko dozue, ta gero betiko bizitza. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun!, zeruko janaria artu dogun ezkeru, zure autorle N. doatsua-
ren bitartez, indartu gagingala ezbear guztirako. Amaibagako.

ABATA SANTUEN MEZA

"OS IUSTI"

Sarrera.—Zintzoen agoak jakituria isuriko dau, ta aren miiñak berba zuzena-k esango dauz: Jaungoikoaren legea dauko biotzez. (P. A. Aleluia. aleluia).—*Ps.* Gaiztoak gora-bera ez asarretu; ez izan gaiztoakanako ikusi-eziñik.—*Aintza.*

Otoitza.—N. abata doatsua izan b-ekigu, Jauna, Zugaz bitarteko; gure irabaziz ezin doguna, aren laguntzaz jadetsi daigun. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli. 45, 1-6).—Jaungoikoak eta gizonak maite izan eben, eta aren izena bedein-katua da. Zeruko Santuen antzeko egin eban; arerioai bil'dur aundia sarrerazo eutsen; eta pitziak itzez bigundu ebazan. Erregeen aurrean argitsu egin eban; bere errian agintaritzza emon eutsan, eta bere aintza erakutsi. Sinistez eta apaltasunez santu egin eban, eta gizon guztien artetik aukeratu. Jaungoikoaren abotsa entzun eban, eta odeian sartu eban. Eta aurrez-aurre, aginduak eta bizitzarako lege jakintsua emon eutsazán.

Koru-kanta,—Jauna, onespen bigunez aurrea artu dautsazu; buruan pitxi ederrezko koroia jarri dautsazu. Bizia eskatu dautsu, ta Zuk egun luzeak emon dautsazuz, aldien azkeneragifio.

Aleluia, aleluia. Zintzoa, palmodoaren antzera hj-ratuko da, ta Libano'ko zedrua lez aundi egingo da. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Meluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria,-^Zoriontsu benetan, Jaunaren bilduf'dan gizona: Aren aginduak biziro maite dauzana. Aren ondorengoak indartsuak izango dira lurean; zintzoen jatorria onetsia izango da. Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti-betiko iraungo dau.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Zintzoa, palmondoaren antzera 101 ratuko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da.

Aleluia. Zintzoa, lilia lez erneko da, ta Jaunaren aurrean loratan egongo da beti. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 19, 27-29.^Aldi aretan, Pedro'k Jesus'i auxe esan eutsan: «Ona emen gu,daukaguzanak itzita, Zeuri jarraitu dautsugu. Zer izango dogu, ba, ordaintzat?» Eta Jesus'ek erantzun eutsen: «Benetan dirautsuet: Niri jarraitzen etorri zareenok, berbitaldian, Gizasemea (Jesuskristo) bere aintzazko aukian jesarri daitenean, zuek be amabi aukitan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko. Ta etxea, naiz anai-arreba, naiz guraso, naiz emazte, naiz seme-alabak, naiz soloak, nire izenagaitik itzi dagizanak, bateko eun artuko dau, ta betiko bizitza gaiñera.

Eskintza.—Biotzeko guraria bete dautsazu, Jauna: ta aren agoko eskaria ez dozu bertan bera itzi; pitxi ederrezko koroia ezarri dautsazu buruan. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Altara-gaiñean doguzan oparigaiok, Jauna, N. abata santuak gure osasunerako biurtu dagizala, arren. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Etxezam zintzo ta zurra, Jaunak morroiburu egin dau, etxekoai aldi egokian ogia banatu dagitsen. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Sakramentu au artu dogun ezkerok, Jauna, N. abata doatsuak artu gaizala bere babespean; bere antzera zuzen jokaturik, aren bitartekotasun-laguntza be izan daigun. Amaibagako.

BIRJIÑA TA MARTIRI BATEN I'GO MEZA

"LOQUEBAR"

Sarrera.—Erregeen aurrean iragarri neban zure legea, ta ez nintzan lotsatu; biotzez maite dodazan zure aginduak gogoan ausnartu nebazan. (P. A. Alelula, aleluia).—*Ps.* Zoriontsuk benetan, Jaunaren lege-bidean garbi dabizanak!--*Aintza.*

Otoitza.—^Ainbeste zure arrigarrien artean, neska makal bati sinismenagaitik odola isuriteko indarra emon dautsazun Jaungoikoa: eiguzu biotz onez, N. zure birjiña ta martiri doatsuaren zeruan sartzea go-

goratzen dogun ezkeru, aren erakutsien bidez, eldu gaitzala Zugana. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli. 51, 1-8, 12).—Autortzen zaitut, Jaun Errege, ta goratzen dot nire Osasun zaitudan Jaungoiko ori. Autortzen 'dot zure izsna, neure lagun'tzaille ta zaintzaille izan zara-ta. Nire gorputza gaitzetik atara dozu; miin gaitztoen lokarritik, ezpan guzurtitik; salatzaillen aurrean, neure alde jarri zar ra. Zure erruki ugariz, ni jateko orroka ziarduenetatik atara nozu, nire biziā nai eben eskuetatik, eta inguruko ezbear guztitik, eta inguratu nenduen garretatik. Suaren erdian ez naz erre; lurraren sabel sakonetik, miin zikiñetik, guzur-ziñetik, errege gaiztoagandik, eta miin bidegaetik. Nire barrenak Jauna goratuko dau, i2 nadin arte. Zugan sendo dagozanak arriskutik atara egingo dozuz, baita atzerriarren eskuetatik be, Jaungoiko gure Jaun orrek!

Koru-kanta.—Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu. Ortexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz.

Aleluia, aleluia. Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zatoz, Kristo'ren emazte ori; artu egizu Jaunak betiko atondu dautsun koroia, Aren maitasunagaitik odola isuri dozu-ta. Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu: orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz, zure lagunen artetik. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izatera.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez toeterik. Aleluia. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izatera. Aleluia.

Bari Ona Mat., 25, 1-13).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Zeruko erreñua, euren kruseluak artuta senar-emaztegiakana bidera

urfcen ziran amar nesken antzeko izango da. Areitari-ko bosfc burubageak ziran, eta beste bostak zurrak. Bost zoroak, euren kruseluak artuta, ez eben oriorik eurakaz artu; zurrak, osterā, orioa be artu egin eben euren ontzietan. Onetan, senargeiak etórtea luzatu egiten ebalā-ta, guztiak lo-zorian eta lo-zorroan gelditu ziran.

fBaiña gaberdian deadar bat entzun zan: «Orra, senargeia ba-dator: urten zakioze bidera.» Nelska guztiak, orduan, jagita, kruseluak atondu ebezan. Eta zoroak zurrai ^san eutsen: «Ernon eiguzue zuen oriotik, gure kruseluak itzungitzen (atzametan) doaz-ta.» Zurrak erantzun eutseen: «Onenean guretaz eta zuentzaz ez da naiko izango-ta, obe dozue saltzailleagana joan eta erosi dagiozuen.» Baiña areik erosten joiazala, senargeia etorri zan, eta gertu egozanak aregaz ezteguetara sartu ziran, eta atea itxita geltitu zan.

Geroago beste neskak toe etorri ziran, esanaz: «Jauna, Jauna, edegi eiguzu!» Baiña arek erantzun eutsen: «Benetan dirautsuet: ez zaituet ezagutzen.» Gertu egon, ba, eguna ta aldia ez-ezagunak dira-ta.

Eskintza.—Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik; Errege Jaunaren jauregira joango dira. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, N. zure birjiña ta martiri doatsuaren jaiegunean dakartsuguzan oparigaiok; aren bitartez, gaitz guztitik onez urten-go garala uste dogu-ta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—^Lotsatu Beitez arroak, nire aurka gaiztakeria egin dabe-ta. Nik, barriz, zeure lege ta aginduak beteten jardungo dot, lotsatu ez naiten. (P. A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—Emon daiskula laguntza, Jauna, artu dogun Eukaristi onek; eta zure birjiña ta martiri N. doatsuaren bitartez, betiko zorionera eroan gagi-zala. Amai'bagako.

BIRJIÑA TA MARTIRI BATEN 2'GARREN MEZA

"ME EXSPECTAVERUNT"

Sarrera.—Zain neukazan pekatariak, noiz ni galduko; baiña nik zeure legea artu dot gogoan, Jauna. Gauzarik onenetan be, azkena dakust: zure aginduak, barriz, ez dau azkenik. (P. A. Aleluia, aleluia). —*ps.* Zoriontsuz benetan, Jaunaren lege-bidean garbi dabizanak!—Aintza.

Otoitza.—Arren, Jauna, N. birjiña 'ta martiri doatsuak parkamena jaritsi daiskula; arek garbitasunez eta ontasunez beti atsegin egin izan eutsun-eta. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Ecoli., 51, 13-17).[^]Ene Jaungoiko Jauna, Zeuk jaso dozu nire bizitokia lurlean, eta eriotz-zorian dei egin dautsut. Otoitz egin dautsat Jaunari, nire Jaunaren Aitari, ez nagiala atsekabe-aldian bakarrik itzi, ta arroak nagusi diran artean. Eten бага goratuko dot zure izena, ta eskarronez autortuko dot, otoitza entzun daustalako; ondamentitik eta aldi txarretik onez atara naualako. Ori dala-ta, autortu ta goratu egingo zaitut, Jaungoiko gure Jaun ori!

Koru-kanta.—Jaungoikoak bere arpegiz lagun egin-go dautso: Jaungoikoa aren erdian dago: ez dau kilikolorik egingo. Jaungoikoaren uria, ibai aundi batek poztuten dau: Goiko Gorengoak bere bizitokia donetu egin dau.

Aleluia, aleluia. Auxe da neska jakintsua, ta zurren artekoa. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zatoz, Kristo'ren emaztegei ori; artu egizu Jaunak betiko atondu dautsun koroia: bere maitasunagaitik odola isuri dozu-ta. Zuzena dana maitte izan dozu, ta okerra iguindu: orrexegaitik igurtsi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz, lagunen artetik. Zoaz aurrera 'apain, eder 'eta zoriontsu, Erregiña izatera.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Auxe da neska jakintsua, ta zurren artekoa. Eder eta argitsuua benetan garbien gizaldia! Aleluia.

Barri Ona (Mat., 13, 44-52).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Zeruko erreñua, landan ezkutatutako ondasuna lakoxea da. Gizon batek aurkitu ita gorde egin eban; eta pozez beterik ba-doa, daukan guztia saltzen dau, ta landa a erosten dau. Eta berebat, zeruko erreñua, bitxi on billa dabillen merkatariaren antzeko da. Bitxi eder bat aurkituta, joan zan, eta eukan guztia saldurik, bitxia erosi eban.

Baita barriro toe, zeruko erreñua, itxasora botata, edozetariko arraiñak batzen dauzan sare aundia lakoxea da. Beterik dagoanean, atara egiten dabe, ta lur-ertzean jesarririk, onak otzararako aukeratzen daibez, eta txarrak kanpora jaurti. Orreñaxe jazoko da gizaldiären a'zkenean toe: Aingeruak urtenda, gaiztoak zintzoen artetik banandu, ta su-labara jaurtiko dabez. Ango negarra ta agin-karraskada! «Guzti au ulertu dozue?» «B-ai, Jauna» —dirautsoe. «Beraz —dirautse—, Zeruko erreñuari buruz jakintsu dan idazlaria, bere ogasunetatik gauza zaarrak eta barriak ataraten dauzan etxeko jaunaren antzeko da.»

Eskintza.—Atsegiña dariozu ezpanetatik; ori dala-ta, betiko ta gizaldiz-gizaldi onetsi zaitu Jaungoikoak. (P. A. Aleluia.)

Opari-otoitza.—IArtu egizuz samurkiro, Jauna, zure birjiña ta martiri N. doatsuaren bidez eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta izan dakiguzala beti gure onerako. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zurtasuna ta zuzentasuna gorde dodaz beti, Jauna; ez nagizu itzi arroen eskuetan: zure agindu-bideetan ibilli naz beti; bide gaizto guztiai gorroto izan dautset. (P. A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—Jaungoikozko janariaz asetu garan ezkerro, eiguzu, Jaungoiko Jaun orrek! N. zure birjiña ta martiri doatsuaren bitartez, beti janari onen iridarrez bizi gaitetzala. Amaibagako.

MARTIRI EZ DAN BIRJIÑA BATEN I'GO. MEZA
"DILEXISTI"

Sarrera.—Zuzena dana maite izan dozu, ta gaizta-keriari gorroto izan dautsazu: orregaitik, Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz igurtzi zaitu, zure lagunen gaiñetik goratuan. (P. A. Aleluia.—*Ps.* Nire biotzari kantu eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko gure Salbatzaitle orrek; eta N. zure birjiña doatsuaren jaieguna poztuten gaituan ezker, jaritsi daiskula zuga nako bere maitasun sutsua be. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gana.: 10, 17-18; 11, 1-2).—Anaiok: Norbait arrotzekotan, Jaunagan arrotu bedi. Ez da ontzat artzekoa, bere buruaren ardura-eske diarduana-ta, Jaungoikoak goratzen dauana baiño. Zoroaldi bat ez al daustazue itziko? Bai, arren, itzi egidazue. Jaungoikoaren arduraz nago zuen arduratsu. Izan be, Kristo'ri, senargei bakarra-ri, eskiñita zaukedaz, neska garbi legez.

Koru-kanta.—Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izatera. Egiaren, apaltasunaren eta zuzentasunaren alde, arrigarri izan bedi zure eskuma.

Aleluia, aleluia. Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Ea, alaba, ikusi ta entzun: Errege zeure edertasunaz zaletu da. Erriko aberatteenak be, zeure ederra nai izango dabe: Errege-alabak ibilliko dira zure inguruan. Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu lagunak, Zeugana pozez beterik. Txaloka ta pozez joango dira Erregearen jauregira.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeu-

gana pozez beterik. Aleluia. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izatera. Aleluia.

Barri Ona: Zeruko erreñua, 499 orri.

Eskintza.—Errege-alabak izango dira zure inguruan; Erregiña zure eskuman 'gongo da urrezko jantziz, oso apain. (P. A. Aleluia.)

Opari-otoitza.—Atsegin izan bekizu, Jauna, erri zintzoak zure santuen izenean egiten dautsun opari au; estualdian, arein irabaziai esker, izan dauala laguntza autortzen dau-ta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Bost neska zurrek, kruseluakaz orioa be artu egin eben euren ontzietan; gatoerdian deadar bat entzun zan: Orra, ba-dator senargeia; urten zakioze bidera Kristo Jaunari. (P. A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—^Zure etxekoak Eukaristi santuaz asetu dozuzan Jauna! Gaur ospatzen dogunaren birtartz, gogortu dagizuzala beti gure indarrak, eskatzen dautsugu. Amaibagako.

MARTIRI EZ DAN BIRJIÑA BATEN
2'GARREN MEZA
"VULTUM TUUM"

Sarrera.—Erriko aundiki guztiak zeure ederra nai izángo dabe; Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik. (P. A. Aleluia, aleluia).— *Ps.* Nire biotzari eresi eder bat dario: Erregearentzat nire abestia.—Aintza.

Otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko gure Salbatzaitle orrek!; eta N. birjiña. doatsuaren jaieguna poztuten gaituan ezker, jadetsi daiskula Zuganako maitasun suteua be. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai I'goa.: 7, 25-34).—Anaiok: Ezkongieentzat ez dot Jaunaren agindurik. Alan be, Jaungoikoren errukiz jaritsi dodan zintzotasunak eragiñik, ona emen nire eritzia: ezkonduen ardura dala-ta, on yatzue alan egotea, edozein gizoni on yakonez. Emazteari lotuta al zagoz? Askaitzerik ez

billatu. Emazte bagarik al zagoz? Emazterik ez billatu. Alan be, ezkontzeak ez dau pekatu; «zta neskeak be, ezkondu ba'dadi. Olakoak, ostera, aragi-nerketan aurkituko dira; ta ez neuke ori zue"ntzat nai. Ona emen dirautsuedana, anaiok; laburra da epea. Beraz, emaztedunak, emazterik ez ba'lebe lez ibilli bediz; negar dagienak, negar bagarik lez; pozik dagozanak, poz bagarik lez; erostunak (erosten dabena), ezer ez ba'lebe lez; ta lurrekoetan diarduenak, ez bai-liardue lez: mundu onen irudia igeskor da-ta.

Nik, barriz, zuek ardua bagarik egotea gura neuke. Ezkondubagea, Jaunari dagokionaz arduratsu dabil, Jaunari zelan atsegin; ezkondua, ostera, lurrekoaz, emazteari zelan atsegin: bitara dago. Senarrik bagako emakume naiz neska, Jaungoikoari dagokionaz dabil arduratsu, gorputz ieta arimaz santu izateko, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Erregea zeure ederraz zaletu da: Bera da zure Jaun eta Jaungoikoa-ta. Ea, alaba, ikusi ta entzun, ernai 'belarria.

Aleluia, aleluia. Auxe da neskatilla jakintsua, ta zurren artekoa. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Erregea zeure ederraz zaletu da. Erriko aberatsenak zeure ederra nai izango daibe; Errege-alabak ibilliko dira zure inguruan. Erregearten aurre-ra ekarriko datie; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez 'beterik. Txaloka ta pozez joango dira Errege Jaunaren jauregira.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au:]

Aleluia, aleluia. Auxe da neskatilla jakintsua, ta zurren artekoa. Aleluia. Eder eta sjrgitsua toenetan biotz-garbién erda (jatorria)! Aleluia.

Barri Ona: Zeruko erreñua, 499 orri.

Eskintza.—Erregearen >aurre& ekarriko dabe; tH aren ondoren, nelskaltaldea, ezteguJlagunak, Zeugana pozez beterik; txaloka ta pozez joango dira Errege Jaunaren jauregira. (P. A. Aleluia.)

Opari-otoitza.—Atsegin izan bekizu, Jauna, errí zintzoak zure santuen izenean egiten dautsun opari au; estual'dian, arein irabaziai esker, izan dauala laguntza autortzen dau-ta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa,—Zeruko erreñua, bitxi on billa dabilen merkatariaren antzeko da: bitxi eder bat iden rota(aurkituta), eukan guztia saldurik, bitxia erosi eban. (P. A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—Zure etxeokak Eukaristi santuaz asetu dozuzan Jauna! Gaur ospatzen dogunaren bitartez, gogortu dagizuzala beti gure indarrak, eskatzen dautsugu. Amaibagako.

BIRJIÑA EZ DAN MARTIRIEN MEZA

"ME EXSPECTAVERUNT"

Sarrera.—Zain neukazan pekatariak, noiz ni galduko; baiña nik zeure legea artu dot gogoan, Jauna; gauzarik onenetan be azkena dakust: zure aginduak, barriz, ez dau azkenik. (P. A. Aleluia, aleluia.)—*Ps.* Zoriontsuak benetan, Jaunaren lege-bidean garbi dabilanak!—Aintza.

Otoitza.—Ainbeste zure arrigarrien artean, neska makal bati sinismenagaitik odola isuriteko indarra emon dautsazun Jaungoikoa: eiguzu biotz onez, N. zure martiri doatsuaren zeruan sartzea gogoratzen dogun ezker, aren erakutsien bidez, eldu gaitezala Zugana. Amaibagako.

Andra Martiri deum askorentzat:

Otoitza.—Eiguzu, arren, gure Jaungoiko Jaun orrek!, zure martiri N. ta N. deunen garaipena etenbagako biotz beroz ospatu daigula; bear danez ezin ba'dogu be, gure jaiera apalaren neurrian beintzat goratu daiguzala. Amaibagako.

Irakurgaia: Autortzen zaitut, 496 orri.

Koru-kanta.—Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu. Orixe dala-ca igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz.

Aleluia, aleluia. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregeña izatera. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zatoz, Kriisto'ren emazte ori; artu egiti zu Jaunak betidanik atondu dautsun koroia: odola Aren anaitasunagaitik emon dozu-ta. Zuzena dana maitze izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu; orixe dala-ta igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz, lagunen artetik. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izaitera.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia orde, beste au:

Aleluia, aleluia. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izaitera. Aleluia. Egiaren, errukiaren eta zuzentasunaren alde, zure eskuma arrigarriri erabiliko dozu. Aleluia.

Barri Ona: Zeruko erreñua, 499 orri.

Esquintza.—Atsegiña dariozu ezpanetatik; ori d>J la-ta, betiko ta gizaldiz gizaldi onetsi zaitu Jaungoikoak. (P. A. Aleluia.)

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna. N. zure martiril doatsuaren jaiegunean eskintzen dautsuguzan oparigaiok: aren bitartez, gaitz guztitik onik urtengo gerala uste dogu4a. Amaibagako.

Andra Martiri deun askorentzat:

Opari-otoitza.—Begiratu, Jauna, N. ta N. zure martiri deunen jaiegunean altara onetara dakartsuguzan oparigaiok; olakoen bidez arei zerua emon dautsezunetz, guri be parkamena emon daiskuzun. Amaibagako.

Jaunartzerakoa,—Aunidikiak alperrik erabili nenduen urnean; nire biotzak zure itzai bildur geiagodautse: zure jardunak poztu egingo nau, guda-ondoko arrapakiañak legez. (P. A. Aleluia.)

Azkeri-otoitza.—Artu doguzan misterio oneik lagunegin daiskueta, Jauna; eita N. zure martiri doatsuaren bitartez, zeure betiko laguntza emon daiskueta. Amaibagako.

Andra Martiri deun askorentzat:

Azken-otoitza.—[^]Egizuz, Jauna, N. ta N. zure martiri deunen bitartez, agoz ikutu doguna, biotz garbitu artu daigula. Amaibagako.

EZ BIRJIÑA EZ MARTIRI DAN EMAKUMEAREN MEZA

"COGNOVI"

Sarrera.—[^]BaJdakit, Jauna, zuzen dirana zure erabagiak, eta bidez atsekabetu nozuna: Zuganako bildurak zulatu hegi nire aragia, zure epaia bildurgarriyat-eta. (P. A. Aleluia, aleluia.) — *Ps.* Zoriontsuak benetan Jaunaren lege^bidean 'garbi dabizanak!—Aintza.

Otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko gure Salbatzaille orrek!; eta N. doatsuaren egunak pozten gaituan ezkeru, jaritisi daiskula Zuganako maitasun sutisua be. Amaibagako.

Irakurgaia (Esakunak, Prov., 31, 10-31).—[^]Emakume bizkorra nok aurkitu? Urringo mundu-baztarreko pitxi ederrak baiño baliotsuago da. Senarraren biotzak uste osoa dau aregan, ta ez dau guda-ondakin bearrik. Txarra bagarik, ona emongo dautso bere bizitzako egun guztietan. Ulea ta liñoa billatu dauz, eta bere eskuakaz artez lan egiten dau. Urrindik janaria dakarren merkatariaren itxasontzia dirudi. Oraindik gau dala jagiten da, ta morroia jatekoa emoten dautse, ta neskameai arazoa. Solo batzuk begiz jo ta erosi dauz: esku-lanez irabazitakoaz, mastibat jarri dau.

Indarrez jantzi da, ta besoa bizkortu dau. Azertu dau toerie lana, ta ona deritxo: gabez ez dau argia itzungiko (atzamauko). Lan gogorrari be ekin dautso, ta atzamarretan ardatza artu dau. Ez daukanari eskua tuzatu, ta beartsuañi eskubarrua zabaldu dautso. Etxean ez dau otzaren naiz edurraren bildurrik, etxeko guztiak jantzi bikoz jantzita dagoz-ta. Bereztako oge-estalkiak berak egiten dauz, eta liñoz eta purpuraz jazten da. Aren senarra uriko ateetan goratzen dabe, erri-gurasoakaz jesarten danean. Miesa bat egin eta saldu dau, ta merkatariari gerrikoa emoten dautso. Aren jantzia, indarra ta edertasuna dira, ta tribarre egiten dautso etorkizunari.

Zur edegiten dau agoa, ta itz onak dauz miñean. Etxeko arazoak arduraz daroaz, ta ogia ez dau alpe-

rrik jaten. Semeak jagi ta zoriontsu dala autortzen dabe; senarrak be goreski egiten dau, esanaz: Emakume askok ondasunak batu dabez; baiña guztiak baiña geiago zuk. Liraintasuna, lilluragarri da, ta edertasuna alperrekoa. Jaunaren bildur dan emakumea, axe izango da goraitua. Emon egiozue bere esku-laneko iratoazia, ta arek egindako lanak goratu begie uriko ateetan.

Koru-kanta.—Atsegiña dariozu ezpanetatik; orixe dala-ta onetsi zaitu Jaungoikoak betiko. Egiaren, errukiaren eta zuzentasunaren ahle, zure eskuma arrigarriro erabilliko dozu.

Aleluia, aleluia. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Err-egiña izatera. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zatoz, Kristo'ren emazte ori; artu egizu jaunak betiko atondu dautsun koroia, Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu: orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-ori-oz, lagunen artetik. Zoaz aurrera apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izatera.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Alelma ordez, beste au: ^x

Aleluia, aleluia. Zoaz aurrera 'apain, eder eta zoriontsu, Erregiña izatera. Aleluia. Egiaren, errukiaren eta zuzentasunaren alde, zure eskuma arrigarriro erabilliko dozu. Aleluia.

Barii Ona: Zeruko erreñua, 499 orri.

Esquintza.—Atsegiña dariozu iezpanetatik; ori dala-ta, Jaungoikoak betiko ta gizaldiz-gizaldi bedeinkatu zaitu. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, erri zintzoak zure Santuen izenean egiten dautsun opari au: estualdian, arein irabaziai elsker, izan dauala laguntza autortzen dau-ta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu; orregaitik, Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz igurtzi zaitu zure lagunen artetik. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Zure etxeokak Eukaristi santuaf asetu dozuan Jauna! Gaur ospatzen dogunaren bitartez, beti indartu gaguzala eskatzen dautsugu. Amaibagako.

ELIZEN ESKINTZETARAKO MEZA

Etza barri bat amaitzen danean, gaillur-jai egin oi da; Eliza bat amaitzean be, bardin. Jerusalem'go Jaunaren Etxean zortzi eguneko Gaillur-jai ospatu eben; bafta arrezterero judarrak urtero barritu toë.

Gure elizak, Jaungoikoa gurtzeko diran ezker, berez doguz leku onetsiak, otoiizerako ta Jainko-egikizunetarako aukeratuak. Beñola, Jesus Zakeo'ren etxean sartu zan, eta Aregaz batera zerutar osasuna. A baiño askoz geiago ez al dira gure elizak, Jesus zerutik egun oro jatsi ta bertan Ogi ta Ardao-irudipean dagoan ezker? Kristau maite: ainstestelo tokiari, dagokion lotsa agertu egiozu beti.

"TEBRJ:BILTS" MEZA

Sarrera.—Toki au bildurgarri da: Jaungoikoaren etxea ta zeruko aitea da: Jaungoikoaren jauregia dei egingo dautsoe. (P. A. Aleluia, aleluia). —Ps. Maitagarria benetan zure bizitokia, Indarren Jauna! Biotza, aulduta, il-zorian daukat Jaunaren bebarruan.—Aintza.

Otoitza.—Barriro be gu oisasuren misterio deunak ospatzera etorri gaitazan, eliza santu onen eskeinte-eguna unte oro gogora ekarten dautskuzun Jaungoikoa: entzun zure erriaren eskariak; eta zure íaguntza-eske eliza onetan sartzen dan edonor, pozfca dadilla eskatutakoa emon dautsazulako. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Joan'en Agerkaritik, Apoc. 21, 2-5).—Egun areitan, Uri deuna, Jerusalem barria, ikusi dot Jaungoikoagandik jatsiten, ezkonbarri apaindua senarrarentzat lez. Eta auikitik* abots aundi au lentzun neban: «Ona emen Jaungoikoaren bizitokia gizarteant, eta bizilagun izango yake. Aren erri izango dira, ta Jaungoikoa Bera egongo da arekaz, arein Jaungoikotzat. Begi-malko guztiak ezeinduko (sikatuko) dautsez, eta ez da aurrerantzean eriotzarik izango, ez negarrik, ez garrazirik, ez miñik: lengoak igaro dira-ta.» Eta aulkian jesarrita egoanak auxe esan eban: «Nik guztia barritzen dot.»

Koru-kanta.—Toki au Jaungoikoak egindakoa da; ezkutapen arrigarria, orban bagea. Aingeru-taMea aurrean daukazun Jaungoikoa!, entzun zure otseñen eskariak.

Aulki = trono.

Aleluia, aleluia. Zeure eliza santuan gurtuko zaitut, eta zeure izena goratuko dot. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagirria.—Jaunagan ustea dabenak, Sion mendia lez dira; Jerusalem'en Bizi daitenak, ez dau egundo kilikolorik egingo. Mendiak dagoz Jerusalem-inguruan, eta Jauna bere erríaren inguruan, orain eta beti.

Pazko-aldian, Koru-kanta ta Aleluia ordez, beste au: J

Aleluia, aleluia. Zeure eliza santuan gurtuko zaitut, eta zeure izena goratuko dot. Aleluia. Jaungoikoa-ren etxeak aitz gogorra dauko oiñarrizat. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 19, 140).—Audi aretan, Jeteus, Je J riko'n sartu ondoren, uria zear joian. Onetan, Zakeo eritxon gizon bat zan, zergariburu* ta aberatsa; ta Jesus nor zeitekean ikusi nai eban. Baiña ezin eban gizataldeagaitlk, gorputzez txikia zan-eta. Beraz, ariñe-ketan aurrea arturik, astigar batera igo zan Jesus ikusteko, andik igaro bear eban-eta. Jesus'ek, toki aretara eldu zanean, begiak jaso eta ikusi egin efan, eta esan eutsan: «Zakeo, jatsi arin, gaur zeure etxean' gelditu bear dot-eta.» Beingo baten jatsi zan, bada, ta pozik artu e'ban etxean.

Au ikusirik, guztiak mor-morka ziarduen, gizon pe^ katari baten etxean gelditu zala-ta. Baiña Zakeo'kr Jaunaren aurrean zutik ijarririk, e&an eutsan: «Jauna, nik nire ondasunen erdia beartsuai emoten dauset; eta norbaiti zerbait bidebagez kendu ba'dautsat, laii aldiz beste arenbáste biurtzen dausat.» Eta Jesus'ek esan eutsan: «Gaur etorri da etxe onetara osasuna, au be Abraham'en semea da-ta. Gtzasemea (Jesuskristo), galdua billatzera ta osatzera etorri da-ta.»

Jai au l'go. naiz 2'gn. maillakoa ba'da, Kredoa esaten da.

Eskintza.—Jaungoiko Jauna!, biotz zintzoz eskiñi dautsut daukadan guztia, ta batu dan erria poz aundiz ikusi dot. Israel'en Jaungoikoa!, emon eiguzu beti gurari au. Aleluia.

* Zergariburu = zergak edo tributua batzen ebezanen nagusia.


Opari-otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna, gure eskariak; (1) (urte-jai onetan eliza onen barruan gagozanok, gorputz eta arimak oso-osoan eskiñiaz atsegin dagitzugun) eta oparigai oneik eskiñirik, zure laguntzaz betiko saria lortu daigula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Nire etxea otoitz-etxe izango da, diño Jaunak; emen, eskatzen dauanak, artu egiten' dau; billa dabillenak, aurkitu egiten dau; ita atea jo dagianari, edegi egingo yako. (P. A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—Arri bizi ta aukeratuz zure aunditasunari betiko bizitokia egiten dautsuzun Jaungoikoa: lagun egiozu belauniko daukazun erriaji; ta eliza onetan nasai dagoanez, bere barruan be gero-ta nasaiago aurkitu daitela. Amaibagako.



(1) Eliza bera eskiñi ez dadin tokian, mako-barruan da-goana ez esan.



SANTUEN ATALA

AZILLAREN 29'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoltzak: Saturnino deunaren urengokoak:

2'gn. Otoitza.—Zure martiri Saturnino doatsuaren zerurako jaiotzaz poztuten. gaituzun Jaungoikoa; eigu-zu, bere irabaziakaz be lagun izan dakigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Bedeinkatu egizuz, Jauna, gure oparigaiok; eta eurokaitik, Saturnino zure martiri doatsuaren bitartez, samurkiro begiratu gagizuz. Amaibagako.

2'gn. Jariartzerakoa.—Artu dogun Eukaristi sakramentu onek sanbutu gagizala, Jauna; ta zure santuen bitartez, Zuretzat atsegingarri egin gagizala. Amaibagako.

AZILLAREN 30'GARRENA

ANDER DEUNA, Apostolua

2'gn. malla. — Gorriz

Kristo'ren lenengo ikasletariko onek, Palestina, Ezitla, Epir eta Trazia aldean zabaldu eban Barri Ona; azkenez, matazari antzeko igurutze baten josita il zan, Akaia'ko Patras'en. Ortik "San Andres'en gurutzea" deritzona. Konstantinopla'ra eroan eban bere gorpua, ta geroago, Italia'ko Amalfi'ko katedralera.

Sarrera.—Nire eritiz, oso goratuak dira zure adis-jsideak, ene Jaungoiko!; arein indarra oso gogortu da.—*ps.* Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu ioiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Apal-apalik eskatzen dautsugu, Errege jaun orri: An'der »postolu doatsua zure Eliaaren irakle ta nagusi izan zanez, geuretzat bere zure aurrean beti bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

Abenduan, 2'gn. Otoitza: l'go. Igandekoa, 21 orri.

Irakurgaia: Zintzo izateko, 514 orri.

Koru-kanta.—[^]Lur osoaren nagusi egin dauz: zeure izena goratuko dabe, Jauna. Gurasoen ordez semeak jaioko yatzuz; ori dala-ta, erriak autortu egingo zaitue.

Aleluia, aleluia. Jaunak Ander maite izan eban, usain gozo legez. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 4, 18-22).— Aldi aretan, Jesus'ek, Galilea'ko itxasondoan ebillela, anai bi ikusi ebazan, pedro eritzan Simon eta onen anai Ander, sarea itxasora botaten, arrantzale ziran-eta. «Jarraitu egidazue, —esan eutsen—, eta Nik gizon-arrantzale egingo zaituet.» Eta bertantxe areik, sareak itzirik, jarraitu egin euasoen. Andik urrera, beste anai bi ikusi ebazan, Zebedeo'ren Jakob (Santiago) ta onen anai Jon, aitagaz txalupan euren sareak atontzen: onei be dei egin eutsen. Eta oneik be, bertantxe sareak eta aita itzita, jarraitu egin eutsen.—*Kredo.*

Eskintza.—Nire eritiz, OBO goratuak 'dira zure adiskideak, Jaungoikoa; arein indarra oso gogortu da.

Opari-otoitza.—Gure opari au, Jauna, Ander zure apostolu doatsuaren otoiitzen bitartez, atsegingarri biurtu dakizula: aren izenean aintzaz ospatzen doguna, bere irabazien bidez gogoko izan dakizun. Amaibagako.

Abenduan, 2'gn. Opari-otoitza: l'go. Igandekoa, 23 orri.

Kanon-aurrea: *Apostoluena, 457 orri.*

Jaunartzerakoa.—Jarraitu egidazue: gizon-arrantzale egingo zaituet; eta bertantxe areik, sareak itzirik, jarraitu eutsen.

. Azken-otoitza. — Ander doatsuaren egunean pozik artu dogu, Jauna, Eukaristi santu au, ta santuai zerua

irabazteko izan yakenez, gure parkamenerako be izan dadilla. Amaibagako.

Abenduan, 2'gn, Azken-otoitza: l'go. Igandekoa, 23 orri.

GABONILLEKO SANTUAK

GABONILLAREN 2'GARRENA

BIBIANA DEUNA, birjiña ta martiria

3'gn. mailla. — Gorriz

Plabiano ta Daprosa'ren alaba, Erroma'koa. Bere gu-rasoak lez, Julian siniste-ukatzaillearen agindupean ainbat jasanik, Kristo'ren alde «mon eban odola. Etxekoak erakutsitako sinistetik aldendu zedin, andra galdu baten eskuetan jaTri eben; baiña aren iruzur eta burubtde gaizto guztiak gora-bera, Bibiana garbiak zintzo iraun eban bere sinismenean. Au ikusirik, oso sumindu zan epaikaria, ta zutarri bati lotuta, zigorkadaz astindu eben, il arte.

Meza: Me exspectaverunt, 498 orri, *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Zure mirabe Bibiana'gan birjintasanaren lorea martirien aibarraz alkartu zenduan Jaungoiko, on guztien emoillea; bera bitarteko dala, batu Zuga'n gure gogoak maitasunez; arriskutik aldendurik, befiko saria lortu dagigun. Amaibagako.

Abenduan, 2'gn. Otoitzak: l'go. Igandekoak, 21 orri.



GABONILLAREN 3'GARRENA

XABIER'KO PRANTZISKO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Yatsu eta Azpilikueta'tar Prantzisko, Xabier'ko gazte-luan jaio zan, 1506'garren urtean. Duque de Alba'ren guda-riak Naparroa indarrez azpiratu ebenetik urte batzuetara, Paris'ko Ikastetxe Nagusira joan zan ikaskizunak egitera (1525). Antxe ezagutu eban beste euskaldun bat, Loiola'tar Iñaki, ta onek sorturiko Laguradi barrian sartu zan.

India ta Japon zear, sutan biotza, sinisgabean artean Kristo'ren azia areiten egiñalak egin ebazan. Arek illunpetik argitara ekarritako aundi ta txiki, nagusi ta erritar, nok esan zenbat diran? Nok zenbatu aren mirariak? Txina'runtz joiala, Sanzion ugarteian il zan, euskerazko otoitzak ezpanetan ebazala, berrogei urteko. Aita Santu Pio X'garrenak Sinismen-Zabalkundearen Zaindari egin eban; berau dogu, gafiñera, Jesus Umearen Teresa'gaz batera, Mixiño ta Mixiolari guz-tien Zaindari be.

M E Z A

Sarrera.—Erregeen aurrean zeure legeak iragarri nebazan, bildur bagarik; baita biziro maite dodazan zure aginduak gogoan erabili be.—*Ps.* Goratu egizue, Jauna, gizaki guztiok; goratu egizue, erri guztiok: gu-ganako Aren errukia, etenbagea da-ta; Jaunaren zint-zotasunak, barriz, beti iraungo dau.—*Aintza.*

Otoitza.—Prantzisko doatsuaren irakatsiz et mira-riz Indiarrak zeure Elizara ekarri zenduzan Jaungoi-koa; eiguзу, aren irabazi aundiak gogoratzen dogu-

zan ezkeru, ontasunez be aren antzeko izan gaitezala. Amaibagako.

2'gn. *Otoitza: Abenduko l'go. domekakoa, 21 orri.*

Irakurgaia (S. Paulo'k Erroma'koai: 10, 10-18).—Anaiok: Zintzo izateko, biotzez sinistu bear da, ta osasunerako agoz autortu. Liburu Santuak diño: «Aregan sinistu dagiana, ez da lotsatuko». Ez dago judarra ta gerkarra bananterik: Berbera da guztien Jauna, dei egin dagientzat aberatsa: Jaunaren izenari dei egin dagion edonor, zeruratu egingo da-ta. Baiña, zelan egingo dautso dei, Aren sinisterik izan ezik? Zelan sinistu, barriz, Aretzaz ezer entzun bagarik? Zelan entzun, deitu bagarik? Eta zelan egin dei inok, aretara-ko bialdua izan ezik? Idatzita dago: «Benetan eder, bake ona iragarten dabenen oiñak!»

Guiztiak ez dira, ostera, Barri Onaren esaneko. Isaias'ek auxe diño: «Jauna, gure deia nok sinistu dau?» Beraz, entzunetik sinistea; entzun, barriz, Kristo'ren itza. Baiña ba-diñot: Ez dalbe entzun, ala? Bai, orixe! Arein deia lurralde guzti'etara el'du da; ta arein berbak munduaren bazterreragiño.

Koru-kanta.—Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Jaunaren etxean. Goizean zure errukia iragarteko, ta gabeen zure zintzotasuna.

Aleluia, aleluia. Zirikaldia (tentaziñoa) ondo daroan gizona, orixe 'bai zorientsu!: aretan zintzo agertu daitena, bizitza-koroia artuko dau-ta. Aleluia.

Barri Ona (Mark., 16, 15-18).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Zoaze mundu osoan zear, eta gizaki guztiai Barri Ona iragarri egiezue. Sinisturik bateatu daitena, zeruratu egingo da; baiña sinistu nai ez dagiana, galdu egingo da. Sinistu dagienai, barriz, mirari oneik jarraituko dautsee: Nire izenean txerrenak jaurtiko dabez, izkuntza barriak erabiliko, sugeak eskuan artzeko lain izango dira; ta ilgarriren bat edan ba'dagie be, ez dautse kalterik egingo; geisoai eskuak ezarriko dautseez, ta osatuak izango dira.

Eskintza.—Nire zintzotasuna ta errukia beragaz, eta neure izenean goratuko da aren indarra.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztMun: zure Santuak goratzeko a.pal-apal eskintzen dautsugun opari au, begiko izan dakizula; ta gu gorputz eta arima gai'bitu gagizala. Amaibagako.

2'gn. *Opari-otoitza: Abenduko l'go. Iganekoa, 21 orri.*

Jaunartzerakoa. — Zorionsua benetan, ugazabak, etortean, zain aurkitu tiagian morroia! Egiz dirautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau.

Azken-otoitza.°Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek: zeruko janaria artu dogun ezkeru, zure autorle Prantzisko doatsuaren bitartez, ezbear guztietan indartu gagizala. Amaibagako.

2'gn. *Azken-otoitza: Abenduko l'go. Iganekoa, 21 orri.*

GABONILLAREN 4'GARRENA

PEDRO KRISOLOGO DEtINA,

gotzain autorle ta irakasle

3'gn. *mailla. — Zuriz*

Krisologo'ik "urrezko itz" esan nai dau; ta itzaidietan batez be etorri aundikoa zalako emon eutsoen izen ori. Alta Santu Sixto Ill'garrenak Ravena'ko Gotzain egin eban, bertako artzain-jardunean zintzo ta zur ekinik. Eun eta irurogei itzalidi itzi euskuzan idatzita, jakituri ederrez beteak; ori dala-ta, Elizak bere Irakasle nagusien artean ezarri eban. Imola deritxon errian ii zan, 450 garrenean.

M E Z A

Sarrera.—Batar-erdian edegi eban aren agoa Jaunak, eta jakintzaz eta zurtasunez bete eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan.—Ps. Ona da Jauna autortzea, ta zure izena, Goiko Jaun orren izena goratzea.—Aintza.

Otoitza.—Zure Eliza zuzendu ta argitzeko Pedro Krisologo doatsua, irakasle argia, zerutik aukeratu zenduan Jaungoikoa; egizu, lur onetan irakasle izan genduana, zeruan bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

2'gn. *Otoitza: Abenduko lenengo iganekoa, 21 orri.*

3'gn. *Otoitza: Barbara deunarena:* Ainbesfe zure arrigarrien artean, neska makal bati sinismenagaitik odoila isuriteko indarra emon dautsazun Jaungoikoa: ei-

guzu biotz onez, Barbara zure birjiña ta martiri aoteuaren zeruan sartzea gogoratzen dogun ezker, aren erakuteien bidez, eldu gaitetzala Zugana. Amaibagaka.

Irakurgaia: Jaungoikoaren aurrean, 488 orri,

Koru-kanta.—Ona emen abade aundia, bere egunetan Jaungoikoari atsegin izan dautsana. Ez yako bar-diñik agertu Jaungoikoaren legea beteten.

Aleluia, aleluia. Abade zara zu betiko, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Barri Ona: Lurrarentzat gatza, 489 orri.

Eskintza.—Zintzoa, palmadoaren antzera loratuko da, ta Libano'ko zedrua lez aundi egingo da.

Opari-otoitza.—Zure gotzain eta irakasle Pedr Krisologo santuaren otoitza onak ez daigula, Jauna, uts egin; gure oparigaiok Zuri ondo arrerazo, ta guri zure erukia beti jadetsi daiskun. Amaibagaka.

2'gna.: *Abenduko lenengo igandekoa, 23 orri.*

3'gna. *Barbara Deunarena:* Artu egizuz, Jauna, Barbara zure birjiña ta martiri doatsuaren jaiegunean dakartsuguzan oparigaiok, aren bitartez, gaitz guztitik onez urtengo gar'aala uste dogu-ta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Jauna, bost talentu emon zeustazan: ona emen irabazitako beste bost. Au-pa, morroi on eta zintzo!, gutxian zintzo izan zintzazan ezker, askoren nagusi egingo zaitut: sartu zaitez zure Jaunaren pozetan.

Azken-otoitza.—Meza au osasungarri izan dakigun, egizu, Jauna, Pedro Krisologo zure gotzain doatsua ta irakasle bikaiña bitarteko izan dakigula. Amaibagako.j

2'gna.: *Abenduko lenengo igandekoa, 23 orri.*

3'gna. *Barbara Deunarena:* Emon daiskula laguál tza, Jauna, artu dogun Eukaristi onek; eta zure birjiña ta martiri Banbara doatsuaren bitartez, betiko zorionera eroan gaitzala. Amaibagako.

GABONILLAREN 5'GARRENA

MEZA: *Abenduko Lenengo Igandekoa; 2'gn. Otoitza, Sabas deunarenak: Os iusti Mezakok, 44 orri.*

GABONILLAREN 6'GARRENA

NIKOLAS JDEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Asia Txikia'n, Lizia'ko Patras'en jaió zan. Gazterik ikasi eban eskuzabal izaten. ISzkontzeko bear eben diruz ornidu ebanen ixillean garbitasuna gaitzeko arriskuz egozan iru aizta neskatil. Mirariak egiteko grazia ezarri eutsan Jaunak, sutatik jagoteko batez be. Nizea'ko Bazar nagusian, berak gaitzetsi (kondenau) ebanen Arrio'en irakaspén guzurrezkoak. 324'garren urteruntz, Mira'n il zanarren, bere gorpuzkiak Bari'n (Italia) dagoz. Santuen artean, onexek ditu munduan bere izenekö Parroki'rik geienak, Miirtin deunagaz batera.

M E Z A

Sarrera.—Jaunak aregaz bake-alkartasuna egin eban, eta bere erriaren buru jarri eban, Abade-naguitza betiko izan egian.—Ps. Jauna, gogoratu egizu Dabíd, eta onen apaltasun aundia.—Aintza.

Otoitza.—Nikolas gotzain doatsua ainbeste mirariz edertu zenduan Jaungoikoa: eiguzu guri be, aren irabazi ta otoitzen bidez, betiko sutatik aldendu gaitzala. Amaibagako.

; Z'gn. *Otoitza: Abendu-igandekoa.*

Irakurgaia (S. Paulo'k Ebertarrai: 13, 7-17,—IAnaiok: Jaungoikoaren itza azaldu eutsuen aurretikoak gogoratu egizue; lana zelan burutu eben azkeneraino ikusirik, arein sinismena artu egizue eredutzat. Jesukristo atzo ta gaur, eta Berbera betiko. Ez ibilli irakaspén aldakor eta arrotzen bílla. Onena, biotza graziaz sendotzea da, ez janariz, bide onetatik ibilli zirarai ez eutsen onik egin-eta. Altara bat daukagu, ta toki aretako morroiak ez dabe andik jateko eskubiderik. Pekatuagaitik eskiniitako abereen (animalien) odola abade-buruak Toki Santura 'daroa; arein okela, barriz, uritik kanpora erreten da. Orrela Jesus'ek be, be-

re odolez erria santutzeko, uri-atetik kanpora jasan eban (1).

Urten gaitzean gu be etxetik kanpora Beragana, here iraiña geure gaiñean dogula. Ez dogu, ez, emen betiko uririk; geroakoaren billa gabiltz, ostera. Beraz, bere bitartez eskiñi daiogun beti Jaungoikoari gorapenezko oparia, au da, Aren izena autortzen dabenen ezpanen frutua (2). Albarri on egitea ta lagun etortea be, ez aztu; jaungoikoaren ederra, olako oparrien bidez irabazten da-ta. Zuen buru diranai, esaneko ta menpeko agertu zakieze: zuen arimakaitik eiantzun bear daben ezkeru, zain bizi dira-ta.

Koru-kanta.—Aurkitu dot nire morroi Dabid; neure orio santuz igurtzi dot; neure eskua izango dau lagun, ta neure besoak indartuko dau. Ez dau azpiratuko are-riok; gaizto-semeak bere ez dautso kalterik egingo.

Aleluia, aleluia. Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Aleluia.

Barri Ona: Gizon batek, 485 orri.

Eskiñitza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opa-ri-o-toitza.—Bedeinkatu egizuz, Jaungoiko Jaunj orrek, zure gotzain Nikolas santuaren egunean eskin-tzen dautsuguzan oparigaiok; onein bidez, gure bizi-tza, naiz atsegin naiz zoritxar, zuzen ibilli daiten. Amaibagako.

2^{gn.} *Opari-otoitza: Abendu-igandekoa.*

Jaunartzerakoa.—Bein egin neban zin nire izen santuz: aren jator-riak beti iraungo dau; ta aren aginpi-de-tokia, eguzkia legetxe izango da nire aurrean; illar, gi beteak legetxe iraungo dau beti, autorle (testigu) zintzo zeruan.

Azken-otoitza.—Nikolas zufe gotzain santuaren egunean artu dogun Eukaristi onek, Jauna, beti zeure babespean gordé gagizala. Amaibagako.

2^{gn.} *Azken-otoitza: Abendu-igandekoa.*

(1) Jerusalem'dik kanpora, Golgota-mendian,

(2) Au da: berbak (semitarren esakera da).

GABONILLAREN 7GARRENA

ANBROSIO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3^{gn.} mailla. — Zuriz

Treberin' n jaiu zan IV^{garren} gizaldian. Liguri ta Milan'go Jaurleri zala, Jaunak aian naita, arrigarriru gotzain izatera deitua izan zan. Teodosio nagusiarri burua makur-azo eutsan eta damu-bidera ekarri eban; Agustin deuna be, be-ralc egin eban Kristau bateo-ur santuz. iluze ta sakon idatzi eballako, irroma'ko Elizan lau "Irakasle Aundi" deritxoentari-ko bat da. 397^{garren} urtean il zan.

MEZA

Sarrera.—Batzar-erddan e4egi eban aren agoa Jaunak, eta Jakintzaz eta zertasunez bete eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan.—Ps. Ona da Jauna autortzea, ta zure izena goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Zure emari, betiko osasunerako, Anbrosio doatsua laguntzaille emon zetsan Jaungoikoa, eigu-zu, arren, munduan bizitarako irakasle izan gendua-na, izam dakigula bitarteko zeruan. Amaibagako,

2^{gn.} *Otoitza: Abendu-igandekoa.*

Irakurgaia: Jaungoikoaren autrean, 488 orri.

Koru-karuta.—Ona ©men abade aundia, bere egune-tan Jaungoikoari atsegin izan eutsana. Ez zan aren antzekorik agertu Jaungoikoaren legea beteten.

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutuko: betiko abade zara zu, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Barri Ona: Lurrarentzat gatza, 489 orri.

Esquintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; eta nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opari-otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikor! Anbrosio zure autorle ta gotzain doatsuaren bitartez, juri eskiñitako oparigaiok betiko osasuna jadetsi dais-iuela. Amaibagako.

2^{gn.} *Opari-otoitza: Abendu-igandekoa.*

Jauna-rtzei-akaa,—Bein egin neban zin nii'e izen san-tuz, aren jatorriak betj iraungo dau; eta aren aginpi-

de-tokia, eguzkia legetxe izango da nire aurrean; illargi beteak legetxe iraungo dau beti, autorie (testigu) zintzo zeruan.

Azken-otoitza.—Gure osasunsrako dan janari au artzean, eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek!, Ambrosio zure autoñle ta gotzain doatsuaren otoitza edonun. lagun dakigula: bera agurtzearren, opari au eskiniñi dautsugu-ta, Jaun aundi orri. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitza: Abenáu-igandekoa.



GABONILLAREN 8GARRENA

ANDRA MARIA'REN SORTZE GARBIA

1^{go}. mailla. — Zuriz naiz urdiñez

Adan gure lenengo aitak, Jaunak emoniko agindua ausirik, pekatu egin eban ezker, aren ondorengo guztiok be, sortze-unean bertan, jatorrizko deritxon pekatuz Joitzen gara, ta era orretan gatoz mundura.

Kristo Jaungoiko-Gizonak jarri eban gizadi jausia lenngo mailan: Jaungoiko danez, Aita betikoaren sakei garbian dau sorleku; Gizon danez, Ama garbi baten sabelean sortu zan; Ama au Andra Maria da, jatorrizko pekatu bagarik sortua. Aita betikoak ez eban nai izan bere Semearen Ama iñoiz be pekatupean ikusterik. Orretarako, sortzetik garbia egiñaz, guztion loi-bidetik urrindu eban.

1854^{garren} Gabonillaren 8^{garrenean}, Aita Santu Pio IX^{garren}ak sinis-bearreko egizat auxe autortu eban: Ama Birjiña. Ana deunaren sabelean erne zan unetik bertatik, graziak aurretik artu ebalako, pekatuzko orban bagarik sortu zala, eta jatorrizko pekatuik be ez ebal izan; au da, oso garbi ta eder izan zaila sortzetik. Ona emen gaur ospatzen dogun ja-ia.

M E Z A

Sarrera.—Poz aundiz poztuko naz Jaunagan, eta nire barrenak poz[^]dardar egingo dau Jaungoikoagan; osasun-jantziz jantzi nau, ta zintzo-jantziz inguratu nau-ta, ezkongei bat bitxiz legez.—Ps. Goratuko zaitut, Jauna, zaindu egin nozu-ta; ez dozu itzi arerioak nire lepotik poztu daitezana.—Aintza.

Otoitza.—Birjiña orban bagarik sortuaren bidez, zure Semeari bititoki egokia gertau zeutsan Jaungoikoa:



zure Seme beraren eriotza aurretiaz begiraturik, uts guztitik aldendu zenduanez, gu be, aren bitartez garbiturik, Zeugana eldu' gaitzala eiguzu. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. *Otoitza: Abendu-igandekoa.*

Irakuirgaia (Esakunak, Prov., 8, 22-35).—Jaunak Beera izan nenduan, bere buru-bideen asieran, oraindik ezer egin baiño len. Betidanik naz Aren asmoetan, \|\n rra agertu izan zan baiño askoz be lenago. Lezarik ez zan oraindiño. ta ni sortua nintzan: iturriak ez ziran lertu, menditzarrak ez eben oiñarririk-. muiñoak baiño len jaio nintzan; ez lurrik, ez ibairik, ez lur-orporik ez zan egin oraindiño. Zeruak eratzean, antxe nengoan: lezak arau jakiñez eta ago-ezpane zinguratzean: lurgaiñean eguratsa mamintzean eta iturriak neurritz ezartean: itxasoa mugatzen ebanean: euren mugak 1%) egiezala igaro urai agintzen eutsenean: lurrari oiñarria emotean.

Beragaz nenbillen guztia atontzen, egunero atsegrn artuaz, une oro aregaz jolas egiten, mundu zabalean jolasez; eta nire atsegin beteak, gizasemeakaz egotea. Entzun, ba, orain, semeok: Zorionsu nire bideetan dabiltzanak! Entzun nire irakaspena: zur izan zaiteze, ta ez emon esker txarrik. Zorionsu, bai, entzuten nauan gizona, goizero nire ataurrean dagoana, atea noiz edegi dagiodan zain. Ni idoro (aurkitu) nagianak, bizitza idoroko dau, ta Jaunagandiko osasuna.

Koru-kanta.—Maria Birjiña, lurreko andra guztien artean zeu bedeinkatu zaitu Jaun eta Jaungoiko Altsuak. Zeu zara Jerusalem'go aintza, zeu Israel'go poza, zeu gure erriaren edertasuna.

Aleluia, aleluia. Oso eder zara, Maria: ez da zugan jatorrizko orbanik. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 1, 26-28.—Aldi aretan, Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret deritxon Galilea'ko urira bialdu eban, neska bategana. Neskattilla au, Jose 'zelenko Dabid'en jatorriko gizonetzko baten emaztegeia ian, eta neskatillaren izena, Maria. Eta onegana sarturik, aingeruak esan eutsan: «Agux, graziaz bete ori; Jauna da zugaz: bedeinkatua zu emakumeen artean.» —*Kredo.*

Eskintza.-^Aguir, Maria, gřaziaz betna; Jauna da zugaz: bedeinkatua zu emakumeen artean. Aleluia.

Opairi-otoitza.—Artu egizu, Jauna, Birjiña Maria doatsuaren Sortze Garbi egun onetan eskintzen dautsugun opari osasungarri au; zure graziaz aurrea arturik, uts guztitik garbi dala autortzen dogun ezkeru, gu be, aren bitartez, erru guztietatik garbitu gaitzala. Amaibagako.

2'gn. *Opari-otoitza: Abendu-igandekoa.*

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** Sortze Garbi egunean.

J.aunartzerakoa.—Arrigarriak esan dabez zutzaz, Maria; altsu dan Jaunak, aundiak egin dauz zugan.

Azken-otoitza.—Maria doatsua sortzetik erru бага gorde zenduan gure Jaun eta Jaungoikoa: artu dogun 6akramentu onek, jatorrizko erruaren zauriak osatu dagizala gugari. Amaibagako.

deunarenak: Si diligis *Mezakoak*, 464 orri.

GABONILLAREN 10'GARRENA

MEZA: *Aurreko Igandekoa:* 2'gn. *Otoitzak*, *Melkiades deunarenak:* «Si diligis» *Mezakoak*, 464 orri.

GABONILLAREN 11'GARRENA

I DAMASO DEUNA, Aita santu ta autorle

3'gn. *mailla.* — *Zuriz*

Jatorriz Tarragona'koa. IV'garren gizaldian, amazpiz urtez izan zan Elizaren buru. Siñausleak (erejeak) gogor zigortu ebazan, Konstantinopl'a'n Arriatarren aurka egin zan Il'garren BlijzBatzarrean batez be. LLburu Santuak latinez jarteko agindu eutsan Jeronimo deunari. Martirien gertaerak bertso ederretan egin ebazan; eta eliza bikain bi Errotna'n jaso. 80 urteko, 384'garrenean il zan.

MEZA: Si diligis, 464 orri.

2'gn. *Otoitzak:* *Abendu-igandekoa.*

GABONILLAREN 13'GARRENA

LTJTZIA DEUNA, birjiña ta martiri

3'gn. mailla. — Gorriz

Siziliatarra dogu jaiotzez neska zintzo au. Legez etorkiozan ondasunak beartsuai banaturik, Kristo'ri emon eutsan gutzia. Paskasio 'gaiztoak, Kristau zala jakiniik, toki loi batera eroan nai izan eban indarrez, guztien aurrean garbltasuna galdu egian. Baiña Jaunaren indarrez, egoan lekutik ezin izan eutsoen zirkiñik eragin. Sua inguruan izotu, ta arek be kalterik ez. Azkenez, ezpataz moztu eutsoen burua. 303'garrenean zan.

M E Z A

Sarrera,—Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu: orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz, zure lagunen artetik.—Ps. Nire biotzari eresi eder bat dario: Erregearemtzat nire atoestia.—Aintza.

Otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko gure osasun orrek; eta Lutzia zure birjiña ta martiri doatsuarenj egunak poztuben gaituan ezker, zuzanako gar beroa biztuten irakatsi daiskula. Amaitoagako.

2'gn. Otoitza: Abendu-igandekoa.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gna.: 10, 17-18; 11, 1-2).—Anaiok: Norbait arrotzekotan, Jaunagan arrotu bedi. Ez da ontzat artzekoa, bere touaruaren ardua-eske diarduana-ta, Jaungoikoak goratzen dauana baiño. Zoroaldl bat ez al daustazue itziko? Bai, arren, itzi egidazue. Jaungoikoaren arduraz nago zuen arduratsu. Izan be, Kristo'ri, senargei bakarrari, eskiñita zaukedaz, neska garbi legez.

Koru-kanta.—Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu. Orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz, zure lagunen artetik.

Aleluia, aleluia. Atsegiña dariozu ezpanetatik; ori dala-ta, heti betiko onetsi zaitu Jaungoikoak. Aleluia.

Barri Ona: Zeruko erreñua, 496 orri.

Eskeintza,—Erregearen aurrera ekarriko dabe; aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik; Errege Jaunaren jauregira joango dira. i

Opari-otoitza.—Atsegin bekizu, Jauna, erri zintzoak zure santuen izenean egiben dautsun opari au; estualdian, arein irabaziai lesker, izan dauala laguntza aurtortzen dau-ta. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Abendu-igandekoa.

Jaunartzer.akoia.—Aundikiak alperrik eratoilli nenduen aurrean; nire biotzak zure itzai toildur geiago dautse: zure jardunak poztu egingo nau, guda-ondoko arrapakiñak lez.

Azken otoitza,—Zure etxeokak Eukaristi santuaz asetu dozuzan Jauna: gaurko jaieguna ospatzen dogunaren bitartez, indartu gagizuz beti zure maitasunean. Amaibagako.

2'gtl. Azken-otoitza: Abendu-igandekoa.

GABONILLAREN 16'GARRENA

EUSEBIO DEUNA, gotzain eta martiri

3'gn. mailla. — Gorriz

Zerdeña'n jaió zan, IV'garren giza'dian. Italla'ko Verceli'n bizi izan zan luzaro, bertako Eliz artzain. Arrio ta onen lagun siñausleak zirala-ta, gorriak ikusi ebazan, egun askoz erbeste-ogia muskinduz. Augaitik, neke-min oneftarr odeflik emon ezta be, Jesukristo Jaungoiko zala adierazotearren aibeste oiñaze eroan ebalako, Eliza Amak martirt lez ospatzen dau. 371'garrerian il zan, Verceli'n bertan.

MEZA: Sacerdoies Dei, 468 orri.

2'gn. Otoitza: Abendu-igandekoa.

GABONILLAREN 2V'GARRENA

TOMAS DEUNA, apostolua

2'gn. mailla. — Gorriz

Setati (burugogor) zan berez gaurko Santua. Kristo il artetik biztu zanean, sinistu nai ez, atzamarra Aren salestean eta untze-zuloetan sartu ezik beintzat. Orduan, bs'. Sñistu ta esan: «Ene Jaun eta Jaungoiko».

Atzamar au, ostera, munduko argi dogu. Gregorlo deunak dirauskunez, Apostolu muker onen sinistu-nai-ezak, enparauen fede bliziak baiño on geiago ekarri euskun: 'guro sinismen otzaren zauriak osatu. Ona emen Jesukristo aragizko ez zala asmau ebenentzat be argibide ederra.

Persia ta India aldean Barri Onaren azia erein ondoren, martiri il zan.

M E Z A

Sarrera.—Nire eritziz, oso goratuak dira zure adiskideak, ene Jaungoiko!; arein indarra oso gogortu da.—Ps. Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza. — Eiguzu, Jauna, zure Apostolu Tomas doatsuaren j&ia pozez beiterik oispatu daigula; berak zaindu gaizala beti, ta aren sinis'menari jarraitu daiogula bear ,dan onerajspenez. Amaibagako.

2'gna.: *Abendu-igandekoa.* (Lau Aroetako eguazten, bari-ku edo larunbata ba'da, onetariko egunari dagokiozan. Otoitzak, 29 orri.)

Irakurgaia >08. Faulo'k Ífeso'koai: 2, 19^22).—Anaiok: Onezkero ez zaree arrotz eta etorbarri, santuen erriलगun eta Jaungoikoaren etxeko baiño; Apostoluen eta Igarleen oiñarri gaiñean eregiak*, Jesukristo goiko giltz-aTri dalla. Onexegan doa jasoaz orma guztia, Jaunaren etxe santu izateko. Zuek be, Espiritu Santuaren egiñez, zeuen barrenean diarduzue eregiten, Jaungoikoaren bizileku izateko.

Koru-kanta.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adiskideak, ene Jaungoiko!; arein indarra oso aundi egin da. Zenbatu nai ba'dddaz, itxasoko area baiño ugariago dira.

Aleluia, aleluia. Pozbu zaitzeze, zintzook, Jaunagan; goratzea zintzoai dagokie. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 20, 24-29).—Aldi aretan, Tomas, Didimo eritxona, amabietariko bat, ez egoan arekaz Jesus etorri zanean. Beste ikasleak esan eutsoen: «Jauna ikusi dogu.» Baiña arek erantzun eutsen; «Untze-ezaugarriak Aren eskuetan ikusi ez ba'dagidaz, ta nire atzamarra untze-zuloetan sartu ez ba'dagit. ez dot sinistuko.» Andik zortzi egunera, ikasleak bari-riro barruan egozan, eta Tomas be bai eurakaz batera. Ta atek itxita egozala, Jesus etorri zan eta etfdian jarri yaken, esanaz: «Bakea zuoi.»

iCfero, Tomas'i dirauitso: «Sartu emen atzamar ori, ta ikusi nire eiskuak; ekazu zure eskua, ta sartu nire saietsean; eta ez zaitzez sinisgogor izan, sinistedun bai-

Eregi = edificar.

fiio.» Tomas'ek erantzun eutsan: «Ene Jaun eta Jaungoiko!» Jesus'ek esan eutsan: «Ikusi nozulako, Tomas, siniistu dozu. Zoriontsuak ikusifceke sinisten dabenak !"—Kredo.

Eskintza.—Mundu osoan zabaldu zan arein abotsa; ta arein berbak lurraren azkeneraiño.

Opari-otoitza.—Menpeko lez zor dautsuguna biurtzen dautsugu, Jauna; ta Tomas Apostolu doatsuaren eskarien bitartez, zure doaiak gugan gorde dagizuzala eskatzen dautsugu gorespes-opari au eskintzean, aren sinismen autortzea ospatzen dogun ezkeror. Amaibagako.

2'gna.: *Abendu-igandekoa, edo Lau Aroetakoa.*

Kanon-aurrea: *Apostoluen, 457 orri.*

Jaunartzerakoa.—Sartu egizu esku ori, ta ikusi untze-zulook; eta ez zaitzez sinisgogor izan, sinistedun baiño.

Azken-otoitza.—Lagun zakiguz, Jaungoiko errukitsu ori; ta Tomas Apostolu doatsuaren bitartez, gorde egizuz gugan zure doaiak. Amaibagako.

2'gna.: *Abendu-igandekoa, edo Lau Aroetakoa.*

QARRA.— *Gabonillaren 24' tik XJrtarrilla/ren H'arteko Mezak, Gabon-aldian aurkitzen dira: 37 orri.*

URTARRILLEKO SANTUAK

UKTARRILLAREN 14'GARRENA

ILARIO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Poitiers'ko Gotzain 352'garren urtean. Jaunak adlmen zorrotzez aberastu eban eliz-gizon argi au. Irutasun Deunataz amabi liburu itzi euskuzan. Arriotarren aurka gain-gal-fieko agertu zan beti; Kristo'ren jaungoikotasuna ukatzen eben siñausle Cereje) oneik, eta Ilario aundiak itzez eta egl-fiez gizonkiro jokatu eban egiaren alde. 368'giarrenean 11 zan, eta Aita Santu Pio IX'-garrenak Elizako Irakasle eza-gutu eban.

Meza: In medio, 488 orri.

2'garren Otoitza, *Felix deunarena*: Eíguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek, zure Santuen egiñak bizkera obero eragin daiguela: arein eguna ospaturik, arein antzera jokatu dagigun. Amaifogako.

2'garren Opari-otoitza: Artu egizuz biotz onez, Jauna, Felix zure martiri doatsuaren irabazien bidez eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta betiko atsedeneza eroaftko izan dakiguzala. Amaibagako.

2'garren Azken-otoitza: Opari osasangarriz aseturik, Jauna, Felix zure martiri doatsuaren eguna ospatzen dogun ezker, aren otoitzak lagun dakiguzalal eskatzen dautsugu. Amaibagako.

UKTARRJLLAREN 15'GARRENA

PAULO DEUNA,

lenengo bakarzalea, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Santu bakarzale onen bizitza, Jeronimo deunak idatzi eskun. Amabost urteko umezurtz, legez etorkiozan ondasunak beartsuai banandurik, basamortu ikaragarri batera baztertu zan; eta antxe bizi izan zan eun eta amairu urtez, gizartetik urrin. Pa mondo lerdin batek emon oi eutsazan bearezko janari tu jantzia; jateko, bela batek eroaten eutsan egun oro ogi erdi. 341 garrenean U zan; eta aren illobia leoi bik zulatu eben, azferka.

M E Z A

Safirera.—Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da; Libano'ko zedrua legez aundi egingo da Jaunaren etxean jarrita, gure Jaungoikoaren etxeko ataurrean.—*P.s.* Ona da Jauna autortzea, ta zure izena goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Paulo zure autorle doatsuaren urte-egunean poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu, santuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezker, aren erakutsi onai jarraitu dagiegula. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Mauro deunarena*: Mauro abata doatsua bekigu, Jauna, zugaz bitarteko; gure irabaziz ezin doguna, aren laguntzaz jadetsi daigun. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Filipos'koai: 3, 7-12) — Anaiok: Irabaziitza nr-ikanari, Kristo'ren ondoan, kaltegarri deritza. Egii., guztia daukat kaltetzait, Jesukristo gure Jaunaren ezaguera garaitsuaren ondoan. Guztia ukatu dot Beragaitik, eta simaurtatz daukat Kristo irabazteko, ta Aregan aurkitzeko; ez neugandik edlo legetik datorren zintzokuntzaz, Kristo sinistuz, siniste onen bitartez, Jaungoikoagandik datorkigun zintzokuntzaz baiño. Orrela, A ta Aren berbizkundearen indarra ezagutuaz, nekelagun nakiola, illen arte tik beibiztera etorri naiteke. Ez naz oraindiño nire elburua eldu, edo-ta guztiz bikain izatera; baiña egiten dodaz alegiñak orretarako, neugandu ete-daikedan, Jesikristo'k ni beragandu nauanez.

Koru-kan-ta.—Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da, ta Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Jaunaren etxean. Goizean zure errukia iragarteko, ta ga bez zure egia.

Aleluia, aleluia. Zintzoa, lilia lez erneko da, ta Jaunaren aurrean loratan egongo da beti. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 11, 25-30).—Aldi aretan, Jesus'ek, erantzunik, esan eban: Goratzen zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza oneik jakintsuai ta zurrai estaldu, ta umetxoai irakatsi dautsezuzalako. Bai, Aita, orrelaxe izan dozu atsegin-eta. Nire Aitak dana itzi dau nire eskuetan; eta Semea nor dan iñok ez daki, Aitak baiño; ezta Aita nor dan be, Semeak eta Semeak ezaguera nai egionak izan ezik. Zatoze Nigana, nekatu ta atsekabeturik zagozen guztiok, eta Neuk bizkortuko zaituet. Nire buztarria zuen gaiñean artu ta ikasi egizue Neugandik, gozo ta biotz-apala nazan ezker; ta zuen arimentzat bakea aurkituko dozue: nire buztarria, biguna, ta nire sorta ariña da-ta.

Eskintza.—Zeure indarrez poztuko da zintzoa, Jauna, ta zure laguntasunak biziro alaituko dau: emon dautsazu gogoz opa ebana.

Opari-otoitza.—Zaire Santuen gomutapenean, Jauna, gorapenezko oparigaiok eskintzen dautsuguz; eta euron bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onez urtengo garala uste dogu. Amaibagako.

2'gn, Opari-otoitza, *Mauro deunarena*: AMara-gaiñean doguzan oparigaiok, Jauna, Mauro abata san-

tuak gure osasunerako biurtu dagizala, arren. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zintzoak Jaunagan jarriko dauz bere poza ta ustea: biotz-zintzo guztiak poztuko dira.

Azken-otoitza.—Zeruko ogi ta ardao onekaz indar turik, egizu, gure Jaungoiko orrek: santuaren eguna ospatuaz artu doguzan ezker, berak lagun egin daiis-kula frere otoitzakaz. Amaibagako.

Z'gn. Azken-otoitza, *Mauro deunarena*: Sakramentu au artu dogun ezker, Jauna, Mauro abata doatsuak artu gaizala bere babespean: bere antzera zuzen jokaturik, aren bitartekotasun-laguntza be izan daigun. Amaibagako.

URTARRILLAREN 16GARRENA

MARTZELO DEUNA,

Aita Santu ta martiri

3'gn. mailla. — Gorñz

Latza benetan Kristauen zoria, Elizaren lenengo aldie-tan. Martzelo Aita Santua Buruzagi zanean be, gogor erabi-1U ebezan bazterretan, batez be Erroma'n Diokleziano'ren erasoak zirala-ta. Ara ta ona igeska ebillela, Lutzina alargu-nak berean artu eban, eta Aita Santuak gaur Markel deun-aren izenez ezagutzen dogun eliza biurtu. Biotz oneko za-nez, Elizatik kanpora bizi ziran askori atek egegi eutse-zan, damuz etozanean beintzat. Lor, neke ta atsekabez be-terik, 309^ogarrean il zan.

Meza: Si diligis, 464 orri., *Otoitz au izan ezik*:

Otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna, zure en'iarren otoitzak: Martzelo zure martiri ta Aita Santu doatsua-ren odol-nekea pozik gogoratzen dogun ezker, aren irabaziak lagun egin daiekuen. Amaibagako.

URTARRILLAREN 17GARRENA

ANTON DEUNA, abata

3'gn. mailla. — Gorriz

Ejipto'n jaioa. Jaungoikoaren deiari erantzunik, 18 ur-tiko, bakartade ixill-can ostentlu zan, luzaro bakar-bizitza eginik. Txerrena agertu ol yakon sari, -antz loietan: orixe-gaitik erakusten dauksue irudiz, txarritxo bat alboan daua-la. Jaunak, alan be, indar-babeskoiz jantzi eban; eta, orre-la, deabru ta mamu guztiak anka-joka jaurtiten ebazan. Ona berez zabaltzen dala-ta, Anton deunaren santutasun-argia be, igarri bagarik azaldu zan or-emen, arima on zale a^okoz inguraturik, 356^ogarrean il zan, 105 urteko. Euskal-erria'k oneraspen aundia dautso.

Meza: Os iusti, 494 orri., *Barri On au izan ezik*:

Barri Ona: Begoz zuen gerriak loturik, 494 orri.

URTARRILLAREN 18GARRENA

Aurreko Igandeko Meza.

2Tgn. Otoitza, *Priska deunarena*: Eiguzu, arren, Jaungoiko algutzidun orrek: Priska zure birjiña ta martiri 'doatsuaren zerurako jaiotza-eguna ospatzean, aren urte-jaian poztu, ta, sinismen indartsuan, aren antzeko izan gaitzala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Jauna, zure Santuen urte-eguna gogoraturik, eskintzen dautsugun opari onek, gure pekätuen kateak eten dagizala, ta zure errukiaren grazia lortu daigula. Amaibagako.

3'gn. Azken-otoitza: Eukaristi santuaz asetu garanoi, Jauna, urte-eguma ospaltzen dogunaren otoitzak ttagun egin daiskula. Amaibagako.

URTARRILLAREN 19GARRENA

Aurreko Igandeko Meza.

2'gn. **Otoitza**, *Mario, Marta, Audifax eta Abakum deunena*: Entzun, Jauna, zure Santuen bitartez erri onek egiten dautsun otoitza: emoiguzu bakea bLzialdi onetan, eta besterako laguntza. Amaibagako.

• 3'gn. Otoitza, *Kanuto deunarena*: Zure Elizari izen ona emoteko, Kanuto errege doatsua oiñaze-aldi ta

mirariz edertu dozun Jaungoiko: egizu, Jaunaren antzera oiñazeak jasan ebazan ezkeru, aren lorratzai jarraiturik, betiko zorionera eldu gaitezala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Otantxe.

2'gn. Opari-otoitza: Begiratu, Jauna, zure fededunen eskari ta oparigaiok: zure Santuen egunean zuri begiko izan dakizuzan, eta guri zure errukia jaritsi dagiskuen. Amaibagako.

3'gn. Opari-otoitza: Atsegin bekizu, Jauna, gure biotzen sugarra; ta gaurko eguneko santuaren otoi- tzez, osasungarri izan dakigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Zure santuen bitartez bigundurik, Jauna, «gizu: orain emon dogun opari onek, beñiko osasuna jadetsi daiskula. Amaibagako.

3'gn. Azken-otoitza: Eukaristi santuaz indartu garan ezkeru, gure Jaun eta Jaungoiko!, Kanuto zure martiri doatsuaren bitartez, ospatzen dogun opari onen indarra igarri daigula gudan. Amaibagako.

URTARRILLAREN 20'GARRENA

FABIAN, Aita Santu,
ta SEBASTIAN, martiri deunak

3'gn. mailla. — *Gorrie*

Santu bi oneik alkarregaz dabiltz beti, naiz Mezatan naiz Erruki-dei edo Letaiñetan. Fabian, Aita Santu trebea bitvnetan; Martirien Egiñak bere aginduz idatzi ziran. Dezio agintari zala, 250'garrenean, eriotza ja.san eban.

Sebastian, gudari adoretua; 38 urte geroago, Kristo aurtortzearean, bere odola emon eban. Diokleziano agintariaren menpeko zala, kristau giltzapetuak indartzen ebazan, eriotzarako epaituak batez be. Geziz (dardo)z alderik alde zulatuta il zan. Orrelaxe ikusten dogu irudietan.

M E Z A

Sarrera.—Eldu bedi zure aurrera, Jauna, menpean dagozanen megar-deia; gure arenoai teiurtu egiezu zazpi alako arein altzora: zigortu egizuz isuri daben saiituen odolagaitik.—*Ps.* Atzerritarrak zeure ondasunetan sartu dira, Jauna; zure etxe santua loitu egin

dabe; Jerusalem, ortu-zaiñaren txabola legez itzi dabe. --Aintza.

Otoitza.^Begiratu gure argaltasuna, Jaungoiko al-guztidun orrek; eta gure pekatuen sorta astunak lur- rera makurtzen gaituan ezkeru, zure martiri Fabian eta Sebastian doatsuen iagunteak jaso gagizala. Ama- ibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Etaartarrai: 11, 33-39.— Anaio: Santuak. sinismenaz, erriak azpiratu ebezan, zuzenbidea egin, agintzariak jadetsi, ieoien agoak itxi, suaren indarra atzamau, ezpataren agoari iges egin, geisoetatik osaitu, gudan adoretu, ta arerio-taldeak sakatoanatu egin ebezan. Emazteak, euren illak, biztuta artu ebezan. Batzuk oiñazetara jarri ebezan, eta areik ez eutsoen biziari jaramoniK egin. biztuera oeba lortzeko; beste batzuk irain, zigorsada, kate ta espetxea izan ebezan. Bajdira arrika, oiñazdz, zerraz eta ezpat- taz illak be: ardi ta auntzen narruz jantzirik, beartsu, larri ta latz bizi izanak: baso, mendi, leza-zulo ta aitzarte-zear ibilli dñanak, mundua ez zan areintzat on-eta. Guzti on'ek, foarritz, sinismenaren autorrez artez- tuak izanik, Jesukristo gure Jaunagan zintzo aurkitu dira.

Koru-kanta.—Goragarri agiri da Jaungoikoa bere santuetan; aundi ta arrigarri, ikusgarriak egiñik. Gor- ratua da, Jauna, zure eskumaren indarra.; zure esku- m&k, arerioak birrindu egin dauz.

Aleluia, aleluia. Onetsi zagiezala, Jauna, zure san- tuak; iragarri dagiela zure erriaren edertasuna. Aleluia.

Zazpiastetik Pazkora, Aleluia ordez, Luzagarri au:

LuzagaTria.—Negarrez ereiten dabenak, pozez batu- ko dabe. Negar egiten eben azia zabaltzean. Etorri dai- tezeanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriez.

Barri Ona: Jesue mendifrik jatsirik, 476 orri.

Eskintza.—Pozez bete zaitetze, zintzook, alaitu zai- teze Jaunagan: arrotu zaitetze, biotz-zuzen guztiok.

Opari-otoiiza.—*Antu* egizuz biotz onez, Jauna, zure martiri doatsu Pabian eta Seibastian'en izenean eski- ñi dautsuguzan oparigaiok; eta beñiko laguntza jaris- teko izan dakiguzala. Amaibagako.

XaunartzeTakoa.—Geiso-taldea, ta deabru zikiñak txarto erabiliak, Aregana etozan: Aregandik indarra sortu ta guztiak osatzen ebazan-eta.

Azke.n-otoitza.—Eukaristi santuaz aseturik, eiguez, Jaungoiko gure Jaun orrek!: Palbian eta Sebastian zure martiri doatsuen bitartez, ospatu dogun opariaren ondorenak (frutuak) izan dagiguzala. Amaibagako.

URTARRILLAREN 21^oGARRENA

INES DEUNA, birjiña ta martiri

3^ogn. mailla. — Gorriz

«Kristo imaita nik; eta A maite izanik, garbi diraut; A ikuturik, aratz naz; a arturik, neska-garbi naz». Amairu urte ebaz&ta, auxe iñoan Ines neskatoak. Kristo maite eban biziro, ta Aren maitasunarren, beste maitatzaille guztiak z>oz itzi ebazan. Kristo'rena zan gorputz eta arima. Beti garbi bizi izateko be, ziñezko lokarriz lotu eban porputza; a^{AM}i be, irai-ta-ez ezkondu nai izan eben. Ines, oster, berean tinko. Augaitik, eriotzara epaitu eben. Borreruak, sastada emotruduan, ez djaki zer egin; toaiña neskatak dirautso: «Jo bildur bagarik: emaztegeiak irain egiten dautso senargeiari luzarazo ezker». 301^ogarrenean zan au.

M E Z A

Sarrera.—Zain neukazan pekatariak, noiz ni galduko; baiña nik zeure legea artu dot gogoan, Jauna. Gauzarik onenetan be azkena dakust: zure aginduak, barriz. ez dau azkenik.—Ps. Zorionsuak benetan, Jaunaren lege^obidean garbi dabiltzanak!—Aintza.

Otoitza.—Indartsuak lotsaz izteko, munduan argalak aukeratu oi dozuzan Jaungoiko algutzidun eta betikorra, eiguez, Ines birjiña ta (martiri doatsuaren eguna ospatzen 'dogun ezker, izan dagigula zure ondoan bitarteko. Amaibagako.

Irakurgaia: Autortzen zaitut, 496 orrl.

KoruJanta.—Iatsegiña dariozu ezpanetatik; orixe dala-ta onetsi zaitu Jaungoikoak betiko. Egiaren, errukiaren eta zuzentasunaren alde, zure eskuma arrigarrero erabiliko dozu.

Aleluia, aleluia. Bost neska zurrek, kruseluak artuta, orioa be artu egin eben euren ontzietan; eta gafordian

deitdxr baf entzun zan: Orra, senargeia ba-dator: urten zakioze bidera Kristo Jaunari. Aleluia.

Zaplastetik Pazkora, Aleluia orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zafcoz, Kristo'ren emazte ori; artu egi-2U Jaunak betiko atondu dautsun koroia, Aren maitasunez odola isuri dozu-ta. Zuzena dana maite izan dozu, ta gaiztakeriari gorroto izan tiauxazu: orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz, zure lagunen artetik. Zoaz aurrera apain, eder eta zorionsu, Erregiña izatera.

Barri Ona: Zeruko erreñua, 496 orri.

Eskintza.—Erregearen aurrera ekarriko dabe; aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik; errege Jaunaren jauregira joango dira.

Opari-otoitza.—'Artu eiguez biotz onez, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigarok; eta Ines ziire birjiña ta martiri doatsuaren bitartez, eten eiguez gure pekatuen lokarriak. Amaibagako.

J.aunartzerakoa.—Bost neska zurrek, krusluakaz orioa be artu egin eben euren ontzietan; gaberdian deadar bat entzun zan: Orra, ba-dator senargeia; urten zakioze bidera Kristo Jaunari.

Azken-otoitza.—Zeruko ogi ta ardao onekaz indarturik. egizu, gure Jaungoiko orrek!, neska deunaren eguna ospatuaz artu doguzan ezker, berak lagun egin daiskula bere otoitzakaz. Amaibagako.

URTARRILLAREN 22^oGARRENA

BIZENTE TA ANASTASIO DEUNAK,
martiriak

3^ogn. mailla. — Gorriz

Bizente doatsua, Huesca'n jaino zan, eta gero Balero gozain donearen laguntzaille edo diakono izan zan, Zaragoza'n. Daziano errege-ordekoaren agindiiz, lotu ta Valenzia'ra eroan ebezan biak. Emen, -batez be 'Bizente gazteari, gorriak ikusi eragin entsoezan; ze-ze astindu, za'lditoan oiñazefu, matxardan erre, kako-ziriz puskatu, ta abar. Ezin, orrela be, euren asmo gaiztora erakarri; ta neke-bidea aldatuaz, oge gurian ezarri eben. Baiña an etzunaz batera, aren arimeak, zorionsu izateko, zerura egaz. 304^ogarrenean zan au.

Anastasio deuna, Persia'ko bakarti karmeldarra zan. Bes-1« 70 bakarti lagun ebazala, Kristo'gaitik emon eban odola, 628^ogarrenean.

Meza: Intret, 473 orri., *Otoitz onekaz:*

Otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitzak; eta gure gaiztakeriagaitik errudun ezagutzen garan ezkeru, Bizente ta Anastasio doatsuen bitartez, errutik atara gaginguz. Amalbagako.

Opari-otoitza.—Gogo ortez eskintzen dautsuguz, Jau. na, oparigaiok; toegiko izan dakizuzala zure zintzoen izanean, eta guri osasun-iturri izan dakiguzala. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun!, zeruko janari au artu dogun ezkeru, Bizente ta Anastasio zure martiri doatsuen bitartez, ezbear guztirako indartu gaitzezala. Amaibagako.

URTARRILLAREN 23^oGARRENA

ERRAIMUNDO PEÑAFORT DEUNA,
autorle

3^ogn. mailla. — Gorriz

Katalunyarra jaiotzez. Oraindiño gazte zala, Domingo deunaren Lagundiko jantzia artu eban, geroago Lagundi are. tako buru izateragifto eldurik. Gizon argi, autorie ikasi ta Eliz-legeetan guztiz aitua. Mesedetako Andra Maria'ren Oidena berak sortua dala esan daiegegu. Bein, Mediterraneo itxas-gaiñean bere soin-gaiñekoa zabaldurik, sei ordutan egin e'i'eban MaiUorca'tik Barcelona'arakoa. Mezako len-otoitzak orl flakarkigu gogora. 1275^ogarrean il zan, '99 urte ebazaia.

Meza: Os iusti, 490 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Erraimundo doatsua damutuen sakramenturako laguntzaille argitsu aukeratu, ta Hxas-olatu gaiñean arrigarriri erabilli zenduan Jaungoikoa: eigu-zu, bera bitarteko dogula, damuzko egiñak egin daiguzala, ta betiko osasuneko kaira eldu gaitzezala. Amaibagako.

2^ogarren Otoitzak: *Emerentziana daunarenak*, «Me exspectaverunt» *Mezakoak*, 498 orri.

URTARRILLAREN

24^oGARRENA

TIMOTEO DEUNA, gotzain eta martiri

3^ogn. mailla. — Gorriz

Aita sinisbagea, ama judatar; alan be, gazte au laster jaungoikozaletu zan. Paulo deunaren lagun «ta adiskide zintzo, joan-etorri askotan lagun izan eban, eta atzerrietan Barri Ona zabaltzen ez zan nagi ibilli. Paulo deunak, Gotzain ordeko itzi eban Efeso'n; eta an egoala, Jatbide ori bear zanez egiten irakasteko, idazki bi bialdu eutsazan, EHZ-artzaiñen egitekoak adierazoaz. Timoteo'k zintzo iokatu eban bere arloan, azkenez Kristo'ren alde bizia emonik.

Meza: Statuit, 466 orri., *Irakargai au izan ezik:*

Irakurgaia (6. Paulo'k Timoteo'ri l'goa.: 6, 11-16).—Gutziz rnaite ori: Zuzen, Jaungoikozale, sinistun, txeratsu. jasankor, samur izan zaitze. Egin burruka on sinismen zintzoaren alde; orretarako deitua izan zaran ezkeru, eldu betiko bizitzari, au askoren aurrean ederto autortu dozu-ta. Guztia biztuten dauan Jaungoikoaren aurrean agintzen dautsub, eta Pontzio Pilatos'en menpean autor eban egin eban Jesukristo'ren aurrean: bete egizu agindua akatsik eta esakizunik baga, Jesukristo gure Jauna etorri arte. Agirian etorriko da aldi egokian, Buruzagi zoriotsu bakarra, erregeen Errege ta jaunen Jauna; il ezin daiteken bakarra, ta urreratu ezin daiteken argian bizi dana. A ikusi dauanik edo ikusi daikenik, gizonetan ez dago. Berari aintza ta agintaritzta beti. Alan izan bedi.

URTARRILLAREN 25^oGARRENA

PAULO DEUNA KRISTO'GANA BIURTZEA

3^ogn. mailla. — Zuriz

Tarso'ko Paulo, Saulo be ba-eritxona, berez judarra ta sinistez pariseotarren artekoa, lenen Kristau izenaren are-rio gogor agertu zan. Gaurko irakurgai edo Epistolari irakurten dogunez, 'Jerusalem'dik Damasko'ra asmo txarrez beterik joiala, Kristo'k bere grazi indartsuz ikutu ta bere Apostalu argitsu biurtu eban arrigarriri. Arrezkeru, Paulo'ren biotza, Kristo'ren biotza zan. Atzerrietan Kristo'ren sinismena ereiten ez zan nagi ez zabar ibili. Amalau eskutitz eder idatzi ebazan, irakaspen sakon-bikainez orniduak.

M E Z A

Sarrera.—Ba-<dakít nire ustea nogan jarri dodan, eta ziur nago Epaille zuzena, agertuko dan egunerarte nire saria gordeteko, altsua dala.—Ps. Jauna, zeuk aztertu nozu ta ezagutu: zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—ttvln'du osoa Paulo Apostolu doatsuaren iratsiz argitu dozun Jaungoikoa: gaur aren biurtzea ospatzen dogun ezkerro, eiguzu, aren lorratzai jarraiturik, eldu gaitezai Zugana.

2^{gn}. Otoitza, *Pedro deunarena*: Pedro zure Apostolu doatsuari zeru-erreifiuko giltzak emonaz, itxi-edegi egiteko eskubide osoa emon zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, aren toitartez eta laguntzaz, gure pekatuen lokarriak askatu daiguzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (Apostoluen Egiñak, 9, 1-11).—Egun arelitan, Saulo, Jaunaren ikasleen aurka oraindiño zema* eta eriotza eriola, abade-buruagan'a joan zan, eta Damasko'ko sinagogentzat agiriak (idazkiak) eskatu eutsazan: lege onetarikorik aurkitu ba'legiz/guztiak, gizon eta emakume, loburik Jerusalem'era ekarri egizan. Beraz, bidez joiala, Damasko-ondora eldu -zan; eta bat foatean goiko dizitira argitsuz inguratuta aurkitu zan. Eta lur-iota, aots bat entzun zan, berari esaten: «Saulo, Saulo!, zegaitik jazarten* nozu?» Ta erantzun eutsan: «Nor zaitut, ba, Jauna?» Ta Jaunak esan eutsan: «Zuk jazarten nozun Jesus naz ni: gogor yatzu askilluari ostikoka ekitea.» Arek (Saulo'k), dardaraka ta ikaratuta, esan eutsan: «Jauna^ zer nai dozu egin dagidan?» Eta Jaunak esan eutsan: «Jagi ta sartu zaitez urian; antxe esango dautsue egin bear dozuna.» Aren bidelagunak arrituta egozan, aibotsa entzun bai, baiña iñor ikusten ez ebela. Orduan, jagi zan Saulo lurretik; baiñabegiak zabalduarren, iñor ez eban ikusten. Beraz, eskutik elduta, Damasko'ra eroan eban. Eta iru egunez ikusten ez ebala egon zan; eta ez eban jan,

ez edan. Ananias izeneko ikasle bat zan Damasko'n; eta oni Jaunak irudipenez esan eutsan: «Ananias!» Onak erantzun eutsan: «Emen naukazu, Jauna.» Eta Jaunak ari: «Jagi ta zoaz Zuzena deritzan kalera, ta Saulo Tarsotarra Juda'renean billatu eigizu:» otoitz egiten diardu; eta Ananias izeneko gizon bat irudipenez ikusi dau beragana sartzen eta eskuak berari ezarten, ikuste artu dagian.» Baiña Ananias'ek erantzun eutsan: «Jauna!, askori entzunda nago, gizon orrek Jerusalem'en zure zintzoai egin dautsezan kalteak. eta emen bertan zure izenpean dagozan guztiak bildurréz lotzeko eskubidea artu dau abade-nagusiakandik.» Jaunak, barriz, esan eutsan: «Zoaz; atzerriai, erregeai, ta Israel'go semeai nire izena iragarri dagitsen langille aukeratua dot ori-ta. Neuk erakuitsiko dautsada z nire izenagaitik jasan bear dauzan nekeak.»

Joan zan, ba, Ananias, ta etxe aretan sartu zan: eta eskuak aren gainean ezarriak, esan eutsan: «Saulo, nire anai! Onuzko bidean agertu yatzun Jesus Jaunak bialduta natorkizu, ikustea artu dagiñun, eta Espiritu Santuz bete zaitez.» Eta bat-batean, begjetatlk ezkata* lako batzuk jausi yakozan, eta barriro ikustea artu eban; eta jagirik, bateatu egin zan. Eta jan ebanean. indartu egin zan. Eta egun batzuetan Damasko'ko ikasleakaz egon zan.

Eta bereala sinagogetan Jesus Jaungoikoaren Seme zala iragarten asi zan. Eta entzule iguztiak, arrituta, iñoen: «Ez da, ba, au, izen orren alderdikoak Jerusalem'en jazarten ziarduana, ta emengoak be atxilloturik abade nagusiakana eroateko etorri zana?» Saulo'k, barriz, Damasko'ko judarrak geroago-ta sendoago ta gogorrago lotsatzen ebazan, «Au (Jesus), Krieto da» adierazorik.

Koru-kanta.—Pedro Apositolu egin dauanak Berak egin nau ni atzeritarren apostolu: ta ezagutu dabe Jaungoikoak niri emon daustan grazia. Eskar ori ez da nigan alperrekoa izan, eta Aren grazia beti dago nigan.

Aleluia, aleluia. San Paulo aundia, langille aukerata; benetan da goragarri, amabigarren aulkia bidez dagokio-ta. Aleluia.

* Zeroak = amenazas.

* Jazarri, jazartú = perseguir.

* Ezkata = esoama.

Zazpiaste ondoren, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzag-arria.—Zu, langille aukeratua zara, Paulo Apostolu santu ori: benetan zara goragari. Egi-zabaltzaille, benetako sinismeneán atzeritarren irakasle. Zeure bidez ezagutu eben erri guztiak Jaungoikoaren grazia. Lagun zakiguz, aukeratu zenduzan Jaungoikoaren aurrean.

Barri Ona: Ona emen gu, 495 orri.

Esrintza.—Nire ustez, zure adiskideak oso gora jaso dozuz, Jaungoikoa: aren indarra oso gogortu da.

Opari-otoitza.—Paulo zure Apostoluaren otoioren bidez, Jauna, onetsi (tedeinkatu) egizuz zure erriaren oparigaiok; Zuk egin zenduan Oparia gogoko yatzun ezker, gogokoago izan dakizun.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Pedro deunarena*: Pedro Apostolu doatsuaren otoiak eroan dagizala zure aurrera, Jauna, Elizaren eskari ta opariok; eta aren omenez ospatzen dogun Opari onek. pekatuen parkamena jadetsi daiskula. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluena*, 457 orri.

Jaunartzerakoa.—Benetan diratsuet: dozuezanak itzi ta jarraritu daustazuonok, bateko eun artuko dozue, ta betiko 'bizitza izango dozue.

Azken-otoitza.—Osasunezko Eukaristiaz santutu garan ezker, eiguzu, Jauna, bitarteko emon dauskuzunaren otoiak ez daiskula uts egin.

2^{gn}. Azken-otoitza, *Pedro deunarena*: Eskiñitako opari onek poztu gaizala, Jauna; ta zure Apostolu Pedro'gan arrigarri autortzen zaitugunez, aren bitartez zure parkamena be eurrez Jadetsi daigula. Amaibagako.

URTARRILLAREN 26GARRENA

POLIKARPO DEUNA, gotzain eta marliri

3^{gn}. mailla. — *Corriz*

Lenen Jon Apostoluaren ikasle, ta gero, onek eginda, Esmirna'ko Gotzain, 70 urtez. Ereji ta Kristau-izenaren arrioen aurka, gizonkiro jokatu eban. Beñola, erriko nagusiak Kristo ukatzera beartu nai; baiña Polikarpo'k erantzun eutsan: ttLarogeta a.masei urte daroadaz Aren morroi, ta on baino ez daust egin. Zelan ukatu daiket orain nire Erregea, ainbat arriskutik onez atara ta esan ezin beste mesede egin daustazana?» Sutara emon eben 156^{garren} urtean.

Meza: Sacerdotes Dei, 468 orri., *urrengokoak izan ezik:*

Irakurgai (Jon deunaren l'goa: 3, 10-16).—Gutziz maiteok: Zuzen ez dabillena, ez da Jaungoikoagandik sortu; ezta bere anaia maite ez dauana be. Auxe da asieratik entzun dozen irakatsia: Alkar maite egizue. Ez izan Kain'en antzeko: onek, gaiztoaren ume zan ezker, anaia il egin eban-eta. Zegaitik il eban, barriz? Bere egiñak oker eta anaiarenak zuzen ziralako. Ez axritu, anaio, munduak gorroto ba'dautsue. Ba-dakigu gure anaia maite doguzalako, eriotzatik bázira aldatuak izan garana. Maite ez dauana, eriotzan dago. Anaiari gorroto dautsana, giziltzaille* da; ta ba-dakizue giziltzailleak ez daukana beragan betiko bizitarik. Jaungoikoaren maitasuna zer dan ezagutu dogu., bere bizia gure alde Arexek (Kristo'k) emon eban-eta. Guk be, gure bizitza anaian aide emon bear dogu.

Barri Ona: Ezer be ez dago gordeta, 473 orri.

Azken-otoitza.—Eukaristi santuaz indartu garan ezker, gure Jaun eta Jaungoikoa, Polikarpo zure martiri doatsuaren bitartez, ospatzen dogun opari onen indarra igarri daigula gudan. Amaibagako.

URTARRILLAREN 27GARRENA

JON KRISOSTOMO DEUNA,
gotzain, autorle ta irakasle

3^{gn}. mailla. — *Zuriz*

Eliz-izlarien artean trebe ta jator zalako, antza, beie aldikoak «Urre-ago» eritxoan. Antioxia'n luzaro ta Konstantinopoli'ko Gotzain nagusi zala, gutziz sakon, biozti ta etorri aundiz itz egin eban. Liburu Santuak azaltzen be, ez eban bardiñik izan. Erriak aitakotzat eukan; alan be, errege-jauregikoak ez eben ain begi onez ikusten: ango nasakeri ta ekandu txarrak, aspertzeke, min zoliz uxatzen ebazan. Eta azkenez, Eudoxia erregiñak erbestera jaurti eban; eta antxe, Armenia'n bizi izan zan luzaro. Ezbear eta nekez jositá, 407^{garrenean} il zan.

Meza: In medio, 488 orri., *auxe izan ezik:*

Otoiitza.—Zeruko graziak zabaldu begi; Jauna, zure Eliza: au argitzeko, Jon Krisostomo zure autorle ta

* Giziltzaille = homicida.

gotzain doatsua, aín zintzo ta jakintsu egin zenduan ezkeru. Amaibagako.

Koru-kanta.—Ona emen abade aundia, bere egunetan Jaungoikoari atsegin izan eutsana. Ez zan aren antzekorik agertu Jaungoikoaren legea beteten.

Aleluia, aleluia. Zoriontsu, tentaldia ondo eroan da. gian gizona; aretan aztertu dagienean, bitzta-koroia jiadetsiko dau-ta. Aleluia.

Zazpiaste ondoren, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zoriontsua benetan, Jaunaren biidur dan gizona: Aren aginduak bíziro maite dauzana. Aren ondorengoak indartsuak izango dira lurrean; zintzoen jatorria onetsia izango da. Aintza ta aberastasun aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti-betiko iraungo dau.

VRTARRILLAREN 28' GARRENA

PEDRO NOLASKO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Karkasona álboan jaiioarren, España'ra etorri zan gazte-rik. Peñafort'eko Erraimundo ilagun e^(ba) ta Aragón'go errege Jairñe'k orretarako indar emonik, Mesedetako den-txon Andra Maria'ren Lagundi_a sortu eban Barzelona'n. La-gundi on'en elburu: sinisbageen menpean loturik egozan si-nistedunac askatu. Orretan berak, eta bai semeak be, su-tsu ta gogoz jardun eben. 1256'gar.renean ii zan.

Meza: Iustus, 492 orri., *beste oneik izan ezik:*

Otoítza.—Zure maitasunaren er-edu bat guri emoteko, Elizan iLagundi barria sorturik, Pedro santuari kristauak arerioen menpetik ataraten zerutik irakatsi zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez, pekatueH menpetik urtenik, zeruko errian betiko askatasuna ja-ritsi daigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoa-gaz eta Esniritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Erre-ge bizi zara-ta. Olantxe.

2'gn. Otoítza, Ines deunarena: Ines birjiña ta mar-tiri doatsuaren urte-egunean pozten gaituzun Jaungoi-koa: eiguzu, gure otoítzaz a ospatzen dogunez, aren bide zintzotik be joan gaitetzala. Amaibagako.

URTAKRILLAREN 29'GARRENA

ron bidez, oraingo t a S •^{dautsu} §^{uz}; eta eu-
urtengo garaia *ifre* %TM &TM £ « *TM * «TM»

bagako. P .^{gaiñezl} «^{lipim} gagízan. Amai-

zJZm^utZdvTl ^{eta} ^T edaríz asetu [^]
saníuaren eguna osnatue, £ 5' / ^{U^{re}} ^{Jaun} Soiko orri

oJfín £ ^ ^ l £ j ? t £ *TM TM : ^^{eroko} ^{Jai}
Jauna, bitzta onetako ta besterial V^{^o'} ^{eig} ¹¹² ^{ai}
Jcigula. Amaibagakó. °^{esterako} osabide izan da-

URTARRILLAREN 29'GARRENA

PRANTZISKO SALES DEUNA,

gotzain, autorle ta irakas'le

3'gn. mailla. — Zuriz

Berez izakera biziko zanarren, jardunaren jardunez oso otzan eta bigun egin zan. Saboia'n jaiioa, 1567'garren ur-^I tean. Ikaskefcak Peris'en asi ondoren, Bolonia'ko ikastetxe Nagusi ospe aundikoan amaitu ebazan. Abade eginda gero, 72000 Kalvintotar biurtu eiebazan katoiiku sinismenera. Ge-I roago, Ginebra'ko Gotzain zala, lekaime (monja) salestar edo emazteen Lagundia sortu ta eratu eban, lege-araudi l tiete-erraza emonik. Asko idatzi eban, sakon eta gozo; bere irakaspenak, gaur be, arima askoren goi-Janari dira. Urtez sstun eta Jaungoiko-maitasunez ormidua, Lyon'en ii zan, 1622'garren urtean.

Meza: In medio, 488 orri., *Otoítz au izan ezik:*

Otoítza.—*Prantzisko* zure autorle ta gotzain doateua arimen osasunerako, guztía guztientzat egitea nai izan zenduan Jaungoikoa: eiguzu errikiar, guk be, zure maitasun samurrez beterik, aren irakatsiz argiturik eta aren irabaziakaz lagundurik, betiko zoriona ja-ritxi daigula. Amaibagako.

URTARRILLAREN 30'GARRENA

MARTINA DEUNA, birjiña ta martiri

3'gn. mailla. — Gorriz

Neskato zala il yakozan gurasoak. Onerako makur eta beartsuentzat eskuzab-al, gurasoak itzitako ogasun guztiak arein artean ibanatu ebazan. Bein guzurrezko jaungoikoen aurrean burua makurto ez ebalako, Erroma'n bertan, neke ta oiñazez josi ordoren, sama moztu eutsen. 228'garen urtean zan. Geroago, Vltl'garren gizaldian, Eliza bat jaso eben antxe bertan, Santa onen izenean.

Meza: Loquebar, 495 orri.

URTARRILLAREN 31'GARRENA : I

JON BOSKO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Gaur-gaurko apostolu au, batez be gaztedi lagilleen aita I tfoqu, atta zintzo, bizi fca JaungoikozaJea gero; arrisku ta I oztupoak erraz azpiratzen ekiana. Turin ondoko Kastelnovo deritxon errian jaio zan. Aren gurasoak, naiz-ta baserritar izan, &ziera egoki, emoten arduratsu saiatu ziran. Abade egin ondoren, gogoz ekin eutsan urietako gazte lan bagakoai ogibideren bat eta zerurako toidea erakusten. Lagundi bi sortu ebazan, Aita Salesitarrena ta Andra Mari Laguntzailearen alabena. Zugatz biok gaur oso adartsu egiñik dakusguz. I 1888'garen urtean il zan. Aita Santu Pio XI'garrenak egin eban Santu, 1934'garenean.

M E Z A

Sarrera.—Oso jakintsu ta zur egin eban Jaungoikoak, eta ftxas-ertzeko ondarra baizen zabala emon eutsan biotza.—Ps. Cforatu Jauna, umeok; goratu Jauraxen izena.—Aintza.

Otoitea.—Jon zure autorle santua, gazteen aita ta maisu eratu zenduan Jaungoikoa, ta aren bidez eta Maria Birjiña'ren laguntzaz, zure Elizan Lagundi bariak sorrerazo zenduzana: eiguzu, arren, maitasun bero aretan gu be izioturik, arimak zeruratuz, zure menpeke izan gaitezala beti. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Pi'lipo'koai, 4, 4-9).—Anaiok: Poztu zaitzeze beti Jaunagan; poztu zaitzeze, dirautsuet barrero be. Zuen eratasuna negurriz agertu bekie gizaseme guztiai: Jauna ur dago-ta. Ez artegatu ezegafik be; agertu Jaungoikoari zuen bear-izan guztiak,

zuen erregu ta eskariak Berari zuzenduz eta eskerrak emenez. Eta asmau-ala baiño geiago dan Jaungoikoa-ren bakeak zaindu begiz zuen gogo-biotzak, gure Jaun Jesukristo'gan. Osterantzekoan, anaiok, egi, jator, zuzen, garbi, maitagarri, entzun ederreko, ontasunezko edo goragam litzaken edozetara izan bedi zuen jokera. Nigandik ikasi ta artu dozuena, nigandik entzun eta nigan ikusi dozen guztia, orixe egizue. Ta bakezko Jaungoikoa zeuekaz egongo da.

Koru-kanta.—Itxaron Jaunagan; on egin, lurrean bizi, ta aberats izango zara. Atsegin zaitzez Jaunagan, eta beteko dautsuz biotzeko eskariak; jarri Jaunagan zure etorkizuna, ta itxaron Beragan, eta Berak ekingo dautso.

Aleluia, aleluia. Txiro ta beartsuak goratuko dabe zure izena. Aleluia.

Zazpiaste odoren, Aleluia orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zeu zaitut igesleku, Jauna: arerioen aurrean, gaztelu. Zeure txabolan bizi izango naz beti: zeure egapean gordeko naz beti. Zeuk, Jaungoiko orrek, entzun dozu nire otoitza-ta: zeure izenaren bMdur diranai emon dautsezuz ogasunak.

Barri Ona (Mat., 18, 1-5).—Aldi aretan, Jesus'i bere ikasleak urreratu yakozan, esanez: «Nor deritxazu zeruko erreñuan aundiena?» Ta Jesus'ek, umetxo bati dei egiñik, guztien erdian ipiñi eban, eta esan eutsen: "Beneitan dirautsuet: ume iakoak biurtu ta e'gin ez ba'zaitzeze, ez zaree zeruko erreñuan sartuko. Beraz, umetxo au baizen txiki biurtu daitena, orixe da zeru erreñuan aundien. Eta onelako umetxoren bat nire lzenean artu dagianak, Neu artzen nau.»

Eskintaa.—Zatoze, semeok, eta entzun: Jaunaren bildurra irakatsiko dautsuet.

Opari-otoitza.—Artu egizu, Jauna, osasunezko opari garbi au; ta Zu danetan eta danaren gaiñetik maite izanik, zure gorapenak iragarten bizi izatea eiguzu. Amaibagako.

Jaunartzer.akoia.—Ustearen kontra uste izan eban, crri askoren aita izango zala, esan yakonez:

Azken-otoitza.—Zure Gorputz eta Odolaz assturik, faina, eiguzu: Jon autorle santua bitarteko dogula, luri beti eskerrak emoten jardun daigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

OTSAILLEKO SANTUAK

OTSAILLAREN I'GOA

IÑAZIO DEENA, **gotzain eta** martiri

3'gn, mailla. — Goniz

Apostoluen aldian, aren jarraitzaile bizkor eta Kristo'reri miaitzaite gartsu agertu zan beti. Antioxia'ko Aulkian Pedro doatsuaren bigarren ondorengo adikor, arduraz bete eban bere artzain-betebearrak. Traiano'ren agintaritzan, Erro. ma'ra eroan eben katez loturik, bertako antzokia odolez gorritzeko. Bidean ekarrela, idazki sutsuak egin eutsezan be->e ediztarrai. «Betoz —inotsen— su, gurutze, pizti ta oiñaze; orrela Kristo nire maitezat batuiik, atsegifietan nagoke. Jaunaren gari naz; piztien agin eta ortzak eioko al nabe, ogi gozo ta garbi izan naiten». 110'garren urte aldera, leoién agin artean martiri koroi z jantzirik, zeruratu zan.

M E Z A

Sarrera.—Alde nigandik, ostera, ezetan arrotzea, Jesukristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik; aren egiñez, izaki guztiak niretzat eta ni areintzat guru-tzetuta gagoz-ta — Ps. Jauna, goratu egizu Dabid, eta aren apaltasun aundia.—Aintza.

Otoitza.—Begiratu egizu, Jaungoiko alguztidun orrek, gure algartasuna; ta gure pekatuen sorta astunak nekatzen gaituan ezkerro, Iñazio zure martiri ta go-tzain doatsuaren bitartekotasunak laguntza emon daiskula. Amaibagako.

Irakurgai (S. Paulo'k Erroma'koai, 8, 35-39).—Anaiok: Nok gu aldendu Kristo'ren maitasunetik? Naigabeak?, larriak?, goseak?, billoizik egoteak?, arriskuak?, jazarpenak*?, ezpatak? Idatzita dago-ta: «Zu-gaitik il-zorian gagoz egun osoan; arategirako* ardi lez gaukiez.» Alan be, guztiotan geuk irabazi, maita izan gaituan Aregaitik. Beraz, ziur nago ez eriotza, ez bizitza, ez Aingeru, ez nagusi, ez oraingo ez geroko ezer, ez indar, ez gorengo ez berengo, ez beste izakiren bat, ez dirala gai Jesukristo gure Jaunagan dagoan Jaungoiko-maitasunetik guri alde eragiteko.

. Jozarpen = persecución. • Arategi = matad.ro.

Koru-kartta.—Ona emen abade aundia, bere egune-tan Jaungoikoari atsegin izan eutsana. Ez zan aren antzekorik agertu Jaungoikoaren legea beteten.

Aleluia, aleluia. Kristo'gaz gurutzean nago josirik; bizi naz; ni ez baiña, Kristo bizi da nigan. Aleluia.

Zazpate ondoren, Aleluia or&ez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Biotzeko guraria bete dautsazu: ta aren ago-eskaria ez dozu ukatu. Onespen (bedeinkaziño) gozoz aurrea artu dautsazu. Pitxi ederrezko ko-roia jarri dautsazu buruan.

Barri Ona (Jon 12, 24-26).—Áldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Bene-benetan dirautsuet: galgaraua lurrera jausi ta ilten ez ba'da, bakarrik gelditzen da; ilten ba'da, barriz, garaun ugari dakar. Bere bizia maite dagianak, galdu egingo dau; ta bere bizia lur onetan iguindu dagianak, betiko bizitarako gordeko dau. Norbaitek nire morroi izan nai ba'dagi, jarraitu beist; eta ni egon naiten tokian egongo da nire morroia be. Nire morroia izan daitena, nire Aitak goratu egingo dau.


Eskintza.—Koroi eder eta argitsua jantzi dautsazu; ta zure eskuak egindakoen nagusi jarri dozu, Jauna.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, biotz onez, Jauna, Iñazio zure martiri ta gotzain doatsuaren ira^bazien bidez eskintzen dautsuguzan oparigaiok: eta betiko atsedenera eroateko izan dakiguzala, Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Kristo'ren gari naz: piztien agi-fiak eiko nabe, ogi gartoi biurtu naiten.

Azkeu-otoitza.—Janari santuaz aseturik, arren, gure Jaun eta Jaungoiko!, Iñazio zure martiri ta gotzain doatsuaren jaia ospatu dogun ezkerro, aren bitarteko-tasunaren eragitea igarri daigula gudan. Amaibagako.





OTSAILLAREN 2'GARRENA

ANDRA MARIA'REN GARBIKUNDE EDO ELIZAN
SARTZEA

2'gn. mailla. — •Zurtz

Andra Maria'ren jaietan zaarrena dogu au. Moises'en legeak agintzen ebanez, semea izaten eban amak, berre-gei egunetan loi egonik, elizara joan bear eban, legeko oparia eskintzera. Andra Maria ez zan, egia esateko, lege orretan fartzen; aian be, guri ikasbidie ona emotearren, Jes/s jao ta berrogel egunera, Jerusalem'go elizara joan zan.

Gaurko egunez egin oi doguzan e'lizkizunak, Maria ta Jose'k egindako joan-etorria dakarkigue gogora. Eliz-biran eroaten diran argizari edo kandelak, Jesus munduaren argi dala adierazoten dauskue. Gure artean be da-dogu oitura edei au; ez dadilla galdu, arren.

ARGIZARI BEDEINKATZEA

Meza-emoilleak, samako ta kapa zuriz, eskumaldean daukazan argizariak bedeinkatzen dauz, urrengo Otoitzok esanaz:

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

Otoitza.—Jaun santu, Aita alguztidun, Jaungoiki J b.stikor, diranak ezer-ezetik egin, eta erleen ian au zure aginduz argizari biurrerazo dozuna; ta egun onetan Simeon zintzoari ain biziro opa ebana emon zeutsana; zure izen guztiz santuagaitik belauniko eskatzen dautsugu, Maria beti Birjina bitarteko dala, be-

1 J-onen jaieguna ospatzen dogun ezkerro, ta 'santu guztien otoitzakaitik, onetsi f ta santutu f dagizuzala argizari oneik, itxasoz naiz legorrez, gure gorputz-ari_inen osasunerako izan dakiguzan. Entzun egizu erri onen deia be, argizari oneik eskuan aintzaz artzen dauz-ta, zure goraipeak iragarritz; entzun, bai, zure santutik eta Jaungoiko aundi orren aulkitik. Eta erruki zakiez Zuri deika dagozanai, zeure Semearen odol bikaiñez irabazi dozuz-ta. Amaibagako egunetan Zugaz Errege bizi da-ta.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Egun onetan zure Seme bakarra, Simeon santuak eskuetan artu egian, zure eliza santuan agertzea nai izan zenduan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: erruki eske gaukazuz apal-apalik, guk zure menpekook, zure izena goratzeko, bizturik eroan nai doguzan argizariok bedeinkatu f ta santutu f daizuzan. Gure Jaun eta Jaungoiko zaran orri eskintzen dautsuguz eurok, zure maitasun beroaz biotza suturik, guk be zure zorion-etxean agertzea jaritsi dagigun. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Jesukristo gure Jauna, gizartera datorren edozein gizon argitzen dozun argi egiazkoa; isuri egizu zure onespena f argizari oneitara, ta santu f biurtu egizuz zure graziaaren izpiz; ta egizuz, arren, ikusten doguzan argi onein ditzirak gabeko illunpeak uxatzen dabezanez, gure biotzak be argi ikus-eziñez, au da, Espiritu Santuaren argi-ditziraz beterik, gaitz guztien itsukeritik gorde daitezala; ta gure arimako begia garbiturik, ezagutu daigula gogoko yatzuna, ta guri on yakuna. Orrela, mundu onetako illunaldi kaltegarrien ondoren, eldu gaitezala itzungiko (atzamauko) ez dan atgira. Egizu Zeuk, munduaren Sal'batzaiile orrek, Iratasun osoan Jaungoiko zarala Errege bizi zara-ta.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Jaungoiko alguztidun eta betikorra, zure aurrean beti argia eukiteko, Moises zure otseñaren bi-tiez oriorik garbiena atontzeko agindu zenduna: isuri egizu biotz onez argizari oneitara zure onspenaren f grazia; kanpotik argi egiñik, barrenean be, Zeu lagun

izanik, Espiritu Santuaren argitasunak argttu gagizan. Krisito gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

Otoitza.—Egun onetan gure aragiz gure artean ager,, turik. gurasoak elizara ekarri zenduzan Jesukristo gu. re Jauna, ta Simeon agura agurgarriak, Espiritu Santuaren didizta argituta, ezagutu, jaso ta bedeinkatu zen. duzana: egizu, arren, guk be, Espiritu Santu beraren graziaz argitu ta irakatsiak arturik, Zu egiz ezagutu ta toenetan maitatu dagiguzala. Amaiba'gako egunetan Errege bizi zara-ta.

E.—Olantxe.

KANDELA-BANATZEA

Abadeak oraln ur bedeinkatuaz tmstiten daua argteariafc, «Asperges me» *esanaz, eta gero intzentzuaz lurrundu iru bidar, Argizariak banatzean, mun egin lenen argizariari, ta gero abattearen eskuari. Bitartean, urrengo kantuak abesten Cira:*

Kanta-gaia.—Atzerriak argitzeko argi-zuzi; ta zure' erri Israel'en aintzarako,

Abestia.—Orain, Jauna, bakean izten dozu zure morroi au, itz emon zeutsanez.

(Atzerriak ar.gitzeko... esaten da *barriro*, bertsu bo_ *Koitzaren ostein*.)

Zugandiko osasuna nire begiak ikusi dabe-ta. Atzerriak...

Erri guztien aurrean agertu dozuna.—Atzerriak...

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari. —Atzerriak...

Len lez, orain, beti ta amaibagako egunetan. Olan txe.—Atzerriak...

Kandela-banatzea amaitu daitenean, abaáeak atixe diño:

Otoi egin daigun.—Belaunikotu gaitez (1). Entzun, jauna, zure erria; ta egizu, urtero gogoz agirian egiten dauana, zure graziaren argia lagun, barruz egitea be lortu dagiala. Krisito gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

(1) zazpiaste-aurrean eta domeKaz, uiói ^

ELIZ-BIRA

Abadeak, edo diakonuak, erriruntz biurtuta, auxe diño:

A.—Goazen bakean.

E.—Kristo'ren izenean. Olantxe.

Orain, ette-bira aste» da, bafcoisafc bere argla eskuan dauala. Bitartean, ondorengo Antijonak abesten dira:

1. Ant. Apaindu egizu, Sion, zure eztegu-ogea, ta artu egizu Kristo Erregea: besarkatu egizu Maria, ze-úko atea: beronek dakar zeruko Erregea, argi barria: an doa Birjiña, Semea besoan, artizarra baiño len sor. tua. Simeon'ek, barriz, bere besoetan Seme ori arturik, biziaren eta eriotzaren Jauna dala adierazoten dautse erriai, baita munduaren Salbatzaillea dala.be.

2. Ant.—Erantzuna Espiritu Santu-gandik arbu eban Simeon'ek, ez zala ilgo Jaunaren Kristoa ikusi baiño len: ta Tjmea elizan sartzean, besoetan artu eban, eta Jaungoikoa onetsirik, auxe esan eban: «Orain, Jauna, bakean izten dozu zure morroia.» Gurasoak Umeagaz sartzean, legeari egokiona Aregaz egiteko, arek besoe- tan artu eban.

Elizara biurtzean, auxe esaiem rta:

Oparitzat usapal biko bat, edo usokume bi eskiñi eutsioezan Jaunari: * Jaunaren legean idatzita dagoa- niez.—Moises'en legez, Maria'ren garbikuntza^egunak bete ziranean, Jesus Jerusalem'era eroan eben, Jauna- gana aurkezteko. * Jaunaren legean idatzita dagoanez. —Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari. * Jaun- naren legean idatzita dagoanez.—Len tez, orain, beti ta- amaibagako egunetan. Olantxe. * Jaunaren legean ida- tzita dagoanez.

M E Z A

Sarrera.—Zeure elizaren aurrean, Jaungoiko, izan dogu zure erukia: zure izena, Jaungoiko aundia da-ta; zure gorapena be lurraren ertzeragiño zabaltzen da; zuzentasunez gainezka dago zure eskuma.—Ps. Aundi da Jauna, ta guztiz goragarri: gure Jaungoikoaren urian, bere mendi santuan.—Aintza.

Otoitza.—Jaungoiko alguztkhm eta betikor, auzp^ eskatzen dautsugu, Jaun aundi orri: zure Seme bakarra gaur, guk dogun aragiz jantzita elizan agertu zanez, gu be barru garbiaz agertu gaitetzala Zugaria. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Malakias, 3, 1-4).—Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Or bialtzen dot nire Aingerua, nire aurreanbidera atondu dagian. Eta bereala etorriko da Bere elizara, zuek billatzen dozuen Nagusia, ta zuek nai dozuen alkartasuneko Aingerua. Begira, ba-dator, diño gudarozteen Jaunak. Eta nok asmau A etorriko dan eguna? Ta nor zutik egon Aren argitasuna ikusteko? Burdiña urtzen dauan sua lez da, ta bolazaiñen* bedarra lez. Zidarra urtu ta garbitzeko jarriko da, ta Le bi'ren semeak garbituko dauz, eta zidarra ta ur iraziko dauz: eta Jaunari zuzen-opariak eskintzen dungo dabe. Ta atsegin izango dau Jaunak Juda'reri eta Jerusalem'en oparia, antxiñako aidietan lez, aspal-diko urteetan lez: diño Jaun alguztidunak.

Koru-kanta.—Zeure elizaren erdian, Jauna, izan do gu zure errukia; zure izena, Jauna, aundia da-ta; zure gorapena be lurraren ertzeragiño zabaltzen da. Entzun genduana, axe ikusi be egin dogu gure Jaunaren urian, bere mendi santuan.

Aleluia, aleluia. Agureak Umea eroian: umeak, osera, zaarrari bidea era.kusten eutsan. Aleluia.

Zazpiaste ondoren, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Orain, Jauna, bakean izten dozu zurs morroi au, itz emon zeutsanez. Zugandiko osasuna nirt begiak ikusi dabe-ta. Erri guztien aurrean agertu dozu. na. Atzerriak argitzeko argi-zuzi, ta zure erri Israel'en aintzarako.

Ebanjelio-bitartean, eta Prefazio'tik Jaunalzerarte, argiai: izoiñuta eskuan eufci.

Barri Ona (Luk., 2, 22-32).—Aldi aretan, Moises'en legez Maria'ren g'arbikuntza-egunak bete ziranean, Jesus Jerusalem'era eroan eben, Jaunagana aurkezteko, Jaunaren legean idatzita dagoanez: «Amabarriaren g'zakutmea, Jaunarentzat aukeratua izango da», ta oparitzat usapal biko bat, edo usakume bi eskintzeko, Jau naren legeak diñoanez.

Balazain = batanero.

Simeon izeneko gizon 'bat zan Jerusalem'en, gizor zintzo ta Jaungoikozalea, Israel'en pozkillearen zain: eta aregan Espiritu Santua egoan. Eta ez zala ilgo jaunaren Kristoa ikusi baiño len, Espiritu Santuak adierazo eufcsan. Eta elizara etorri zan Gogoak (Espiritu Santuak) eraginda. Jesus'i buruz agindu -arauak betetera, Aren gurasoak eiizan sartzean, Simeon'ek bere besoetan Umea arturik, Jaungoikoa onetsi eban, esanez: «Orain, Jauna, zure otsein au bakean izten dozu, itz emon zeutsanez; Zugandiko Osa-Šuna. nire begiak ikusi dabe-ta, erri guztiaren aurrean agertu dozuna. Atzerriak argitzeko argizuzi ta zure erri jsrael'en aintzarako».—*Kredo.*

Eskintza.—Ahsegiña dariozu ezpanetatik: ori dala-ta, Betiko ta gizaldiz-gizal'di onetsi zaitu Jaungoikoak.

Opari-otoitza.—Entzun, Jauna, gure eskariak; eta iure begi eder aurrean eskintzen doguzan opariok on .flakizuzan, lagun zakiguz zure errukiz. Amaibagako.

Kanon-a.urrea: *Gabonetakoa*, 451 orri,

Jaunartzerakoa.—Erantzuna Espiritu Santuagandik artu eban Simeon'ek, ez zala ilgo Jaunaren Kristoa ifeusi baiño len.

Azken-otoitza.—Gure Jaun eta Jaungoikoa: gu zeruratzeke emon dauskuzun Eukaristi santu au, Maria beti Birjifia doatsuaren bitartez, orain eta gerorako jsabide izan dakigula, eskatzen dautsugu. Amalbagako.

OTSAILLAREN 3'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza.

18²^{an}. Otoitzak, Blas Ueunarenak: "Sacerdotes Dei" Mezakoak,



OTSAILLAREN 4'GARRENA

ANDER KORSINO DEUNA,

gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zúriz

Perez Korsinotarren odoleko, Florentzia'n jaio zan, 1301'gn. urtean. Amak ames au izan eban: otso bat egin ebalu ume iruditut yakon, baiña gero karmeldarren eliza bátera sartzean, bildots biurtu. Ta alantxe jazo be: gaztetan bizikera galgarria eroanarren, emeretzi urteko, karmeldar egin eta santutasu. nik erpiñenera eldu zan. Geroago Fiesol'ko Gotzain egin eben, eta 24 urtean gizonkiro zaindu eban elizbarruti au. 1373'garrenean il zan. Bere gorpua, oso-osorik, Florentzia'ko karmeldarren elizan dago, gaur be.

Meza: Statuit, 484 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Zure Elizan oitura onerako ereduak beti barritzen diarduzun Jaungoikoa: egizu, zure erria Ander autorle ita gotzain doatsuaren lpratzetatik joan daitela, bere saria artzea lortu dagian. Amaibagako.

OTSAILLAREN 5'GARRENA

AGATE DEUNA, birjiña ta martiri

3'gn. mailla. — Gorriz

Sizi'lia izan zan neska onen aberria; bere gurasoak, oso argi ta aberats. Baiña aberastasunik gorengoan, Kristo'rena izatea, izan be; ta gaztetxo zala, Kristo artu eban Senar bakiartzat. Soin lirain eta pertxenta zalako, areganako maite-miñez laster mindu zan Kintziano agintariaren biotza, Agate'k, alan be, ezezkoa emon. Eta nagusi loiak, isekarik jasan eziniik, oiñaze izug'ariz zigorterao eban neskatilla gaztea: bularrak ebagi, arri koskor eta ikatz iziotu gainean fatarrax erabili, ta abar. Katania'ko espetxean il zan, 25'garrenean. Bularretako min, su ta ekaitzen aurkako Zaindari da.

Oso ezagun da euslaldunon artean, etxez-etxe joanaz Santa onen om'nea abesten dan kantu au: *Goratu daigun Agate deuna...*

M E Z A

Sarrera.—Poztu guitezen guztiok Jaunagan, Agate birjiña ta martiri doatsuaren jaieguna ospatzean; beronen oiñazealdiaz aingeruak poztu egiten dira ta

Jaungoikoaren Semea goratzen dabe.—Ps. Nire biotzari eresi eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Ainbeste zure arrigarrien artean, neska makal bati sinismenagaitik odola isuriteko indarra emon dautsazun jaungoikoa, eguzu biotz onez, Agate zure birjiña ta martiri doatsuaren zeruian sartzea gogoratzen dogun ezkeru, aren erakutsien bidez, eldu gaitzela Zugana. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 1, 26-31). Anaiok, Ikusi egizue deituak nortzuk izan zareen, Zuen artean aragiz jakitun gutxi dagoz, altsu guíxi, aundiki gutxi; bestetara bai: gizarteko arloteak aukeratu dauz Jaungoikoak, jakitunak lotsarazoteko; ta gizarteko makalak aukeratu dauz Jaungoikoak, indartsuak lotsaz izteko; ta gizarteko zabor, ondar, ezer ez diranak aukeratu dauz Jaungoikoak, zerbait diranak ondatzeko. Ez dadilla, ba, inor arrotu Aren aurrean. Zuek be Beragandik dozue izatea Jesukristo'gan: gure jakintza, zintzokuntza, santutasuna ta zeruratzea Jesukristo izan dadin, Jaungoikoak nai izan dau-ta, idatzita dagoanez; «Arrotu daitena, Jaunagan arrotu bedi».

Koru kanta.—Jaungoikoak bere aiTjegiz lagun egingo dautso: Jaungoikoa aren erdian dago: ez dau kilikolorik egingo. Jaungoikoaren uria, ibai aundi bategen alaitzen dau: Goiko Gorengoak bere bizitokia donetu egin dau.

Aleluia, aleluia. Zeure legea iragarri neban erregeen aurrean, eta ez nintzan lotsatu. Aleluia.

Zazpiaste ondoren, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Negarrez ereiten dabenak, pozez batuko dabe. Negar egiten eben azia zabaltzean. Etorri daitezanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriaz.

Barri Ona (Mat. 19, 3-12.)—Aldi aretan, pariseta-rrak Jesus'egana urreratu ziran, azpikeriz zirautsoela: «Zillegi* al yako senarra,ri, emaztea edozegaitik iztea?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Ez al dozue irakurri Egilleak, asieran •arra ta emea egin ebazala ?, ta esan

Zillegi izan ser lícito.

ebala: "Orregaitik, gizonak aita ta ama itzi egingo dauz, ta bere emazteagaz batuko da, ta biak aragiz bat izango diia"? Beraz, arrezkero ez dira bi, aragi bat baiño. Orregaitik, Jaungoikoak askatutakoa, ez begi gizonak banandu.» Areik dirautsoe: «Zegaitik agindu euskun, ba, Moises'ek, izte-agiria emon eta bialtzeko?» Jesus'ek dirautse: «Zuen biotz gogorragaitik emon eutsuen Moises'ek zuen emaztea izteko baimen ori; asieratik, ostera, ez zan orrela. Ba-dirautsuet: Loikeriagaitik izan ezik, norbaitek bere emaztea itzi ta beste bat artzen ba'dau, ezkontza loitzen aau; ta basteak itzitakoaz eskontzen ba'da be, eskontza loitzen dau.» Ikasleak esan eutsoen: «Senar-emazteen auzia orrela izatekotan, ezkontzak irabazirik ez dakar.» Eta Jesus'ek dirautse: «Ez dabe guztiak itz au ulertzen, onetarako ulermena emon yakenak bakarrik baiño. Ba-dira, ba, irenak* amaren sabeletik orrela jaiok; oaita gizonak orrelakotuak be; baita zeru jerreiñuagaitik euren buruaz orrela egiñak be. Ulertu al dagianak, ulerbu dagiala.

Eskintza.—Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta'í aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak Zeugana.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, Agate birjiña ta martiri doatsuaren egunean dakartsuguzan oparigaiok; aren bitartez, gaitz gutitik onez urtengo gara uste dogu-ta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa. — Zauri gutzitik osatu nauana, ta bular eba>gia barriro bularrera ekarri daustana, Arixi egiten dautsat dei, Jaungoiko bizi!

Azken-otoitza.—Lagun egin daiskula, Jauna, artu dogun Eukairisti onek; eta Agate zure birjiña ta martiri doatsuaren bitartez, betiko indartu gaizala. Amai-bagako.

* Irenak = eunucos.

TITO DEUNA, gotzain eta autorle

3^{gn}. mailla. — Zurh

Paulo deunaren ikasle, egiteko arduratsu guztietan lagun izan eban. Apostoluak arakotuta, Kreta ugarteko Gotzain zala, zintzo jokatu eban Kristo'ren aide. Ez zan ango arazoa guztiz erraza, errietan abadeak gertatu ta sinismen otzekoen bizikera negurriz ipiñi frear zan-eta. Alan eta guzti be, bultzakada ederra artu eban sinismen-arloak. Aldi aretan egin eutsan Paulo deunak idazki sotilla, onu ta irakaspén bikaiñez. Zartxo il zan, 105^garren urteruntz.

Meza: Statuit, 484 orri, beste oneik izan ezik:

Otoitza.—Tito zure autorle ta gotzain doatsua ontasunez bete zenduan Jaungoikoa: eiguзу, aren irabazi ta bitartez, mundu onetan zuzen eta zintzo bízi izanik, zeruko errira eWu gaitezala. Amaibagako.

2^{gn}. **Otoizak:** *Dorotea deunarenak*, 498 orri.

Barri Ona: Jaunak beste irurogei ta amabi ikasle, 596 orri.

ERROMUALDO DEUNA, abata

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Ravena'n (Italia) jaiok zan. Ogei urteko zala, gizarteko atsegiñak itzi albora ta Kasino mendiko bakar-zaleen arteko egiñak, otoitz-bizitza latza asi eban. Baiña laster, ango laztasun eta gorpufcz-nekeak gutxitza' etsirik, bizikera gogorrako baten billa, Kamalduna eritxon bakartadean lagun-efxea jaso eban. Gaur be arein jarraitzaileak izen ori darpe. 1027^garrenean il zan, 120 urte ebazala.

Meza: Os iusti, 494 orri.

OTSAILLAREN 8'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'garren Oioitzak: gaurko Santuarenak.*
- 2) *Garizuma izan ezik,*

MATA'KO JON DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Probenza'n iaioa; gaztetxo zaia be ez-eukiakaz errukior agertu zan beti. Paris'en abade egin zan, eta lenengo mezatan ikuspen eldlerrez sendotu eban Jaunak: Irutasuneko Lagundia sortuko eban, eta onen elburu bakarra, sinisbageen menpean aurkitzen ziran kristauak egokera latzagarri aretatik atara, Arazo bikain onetan, Valois'ko Felix deuna izan eban lagun. Prantzia ta España'ko errege-nagusiak emondako diruz, maometarren 'menpetik lainbat kristau atara ebazan. Lanbide orretan gogotsu ziarduala, Erroma'n il zan, 1213'garrenean.

Meza: Os iusti, 490 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitz.—Kristau atxillotuak Maihometarren mempetik atarateko, Jon deunaren bidez Irutasuneko Orde-na sortu zenduan Jaungoikoa: eiguazu, aren irabazien bitartez, gonputz-arimen menpetik askatu gaitetzala. Amaibagako.

OTSAILLAREN 9'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: gaurko Santuarenak; 3'gn. Otoitzak: Apolonia deunarenak.*
- 2) *Garizuma izan ezik;*

ALEXANDRIA'KO ZIRILO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mallla. — Zuriz

Sortzaledeko izlari trebe, Kristo gizon eglñaren Javm-golkotasuna ta Andra M'aria'ren 'amafasunaren alde, inok ez bestean egin eban. Nestorio siñausleak notin edo persona bi ezagutzen ebazan Kristo'gan: Maria'ren Semearena ta? Jaungoiko^Semearena ez ziran bat, bi baiño. Ortik berei. etorren: Maria ez dogu Jaungoikaaren Ama, Kristo gizon-fluarena baiño. Kristau-simiskarak, ostera, Kristo'k izafe bi Izanarren, persona bat dauala, ta Jaungoikozkoa berauj Irakasten dauku.

Ztrilo deuna, Inozentzio I Aita fiantuaren Ordeko, Nestorio'ren asmo ta irakaspen gaitzoak ezetsi ta txartzat emon ziran Efeso'ko Batzar Nagusian buru izan zan. 444'garrenean il zan.

Meza: In medio, 488 orri., *ondorengo Otoitzak izan ezik:*

Otoitz.—Zure autorle ta gotzaln Zirilo doatsua, IVtaria Birjiña guztiz deuna Jaungoikoaren Ama zala bizkor atierazoteko aukeratu zenduan Jaungoikoa: eiguazu, bere bitartez, benetako Jaungoikoaren Ama sinisten dogunok, Ama onen laguntzaz zeruratu gaitetzala. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Otoitzak, Apofonia deunorena: Beste zure arrigarrien artean, neska makal bati sinismenagaitik odoluz isuriteko indarra emon dautsazun Jaungoikoa: eiguazu biotz onez, Apolonia zure birjiña ta martiri doatsuaren zeruan sartzea gogoratzen dogun ezker, aren erakutsien bidez, eldu gaitetzala Zugana. Amaibagako.

Opari-otoltza.—Gure aparigaiok samurkiro begi/atu egizuz, Jaungoiko alguztidun orrek; eta eiguazu, Zirilo doatsua bitarteko dogula, Jesukristo zure Seme bakar eta gure Jauna, zeruan Zu lez betiko dana, gure biotzetan bear dan legez artu daigula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2'gn. Opari-otoitzak, *Apolonia deunarena*: Artu egi-zuz, Jauna, Apolonia zure birjiña ta martiriaren jai-egunean dakartsuguzan oparigaiok; aren bitartez, gaitz guztitik onez urtengo garala uste dogu-ta. Amaibagako.

Azken-otoitzak.—Zeruko janari onefcaz indarturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Zirilo gotzain doatsuaren ikasbide ta irabaziz, zure Seme bakararen Ama guztiz deunaren menpeko zintzo izan gaitetzala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitzak, *Apolonia deunarena*: Emon daiskula laguntza, Jauna, artu dogun Eukaristi onek; eta zure birjiña ta martiri Apolonia doatsuaren bitartez, betiko zorionera eroan gaitetzala. Amaibagako.

OTSAILLAREN 10'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Eskolastika deunarenak.*
- 2) *Garizuma izan ezik,*

ESKOLASTIKA DEUNA, birjiña

3'gn. mailla. — Zuriz

Eskolastika deuna, Benito doatsuaren arrea, Italia'ko Nursia deritxon errian jaio zan, 480'garren urtean. Jaunaren dei biguna entzun eta ari jarraituz, neskato zala, bakartadeko bizitza isil-jaungoikozkoa besarkatu eban; eta geroago, gaur be tantai orritsu agertzen yakun lekaiame edo monja Lagundia sortu. Neba-arrea biak maite eben alkar, eta urte oro batu oi ziran Jaungoikotzaz itz egiteko. Bein, Benito'k ez eban luzatu nai geiegi berbaldia, araua ez austeko; baiña, onetan, ekaitz gogorra jagi zan, eta gau osoa izketan igaro bear izan eben. Amdik iru egunera, neba gaberdiko otoitzak esaten egoala, arrea maitearen gogoa Carima), uso zurí antzera, zerura igoten ikusi eban.

Meza: Dilexisti, 500 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Errubagako bidea guri erakustearren, Eskolastika zure birjiña doatsuaren arima, uso antzuan zerura igon-erazo zenduan Jaungoikoa; eiguzu, aren irabazi ta eskarien bidez, gu be errubage bizi gaitetzala, betiko zorionera eldu gaitezan. Amaibagako.

OTSAILLAREN 11'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Andra Maria'renak.*
- 2) *Garizuma izan ezik,*

ANDRA MARI SORTZEZ GARBIAREN AGERPENA

3'gn. mailla. — Zuriz

Andra Mari, sortzez garbi dala Elizak ezagutu ta erabagi ebanetik lau urtera, Lourdes'en, 1858'garren urtean, Zuburu'tar Bernardatxo eritxon euskotar neskatilla artzain bati, Andra Maria bera agertu yakon 18 aldiz, Massabielle'ko artzuloan. Eta epaillaren 25'garrenean, «Ni Sortzez Garbia naz» esan eutsan.

Arrezkero, asko be asko dira toki zoragarri aretan, Andra Maria'ren bitartez, gorputz-arimako osasuna lortzen dabenak.

M E Z A

Sarxera.—Uri deuna, Jerusalem barria, Jaungoioagandik jatsiten ikusi neban, ezkonbarri liraiña senarrarentzat lez apainduta.—*Ps.* Nire biotzari eresi eder bat dario; Erregearentzait nire olerkiak.—*Taintza.*

Otoitza.—Birjiñaren Sortze Garbiz zure Semeari bizitoki egokia gertau zeutsan Jaungoikoa: Birjiña orren Agertzea ospaturik, gorputz-arimen osasuna jaritsi daigula eskatzen dautsugu apal-apalik. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Oiantxe.

Irakurgaia (Jon'en Agerpenetik, Apoc: 11, 19; 12, 1-10).—Zeruan Jaungoikoaren etxea zabaldu zan, eta bere etxean alkartasun-kutxa agertu zan, tximista, abarrots, lur-ikara ta arriabar aundiak sortzen zirala. Orduan, arritzeko ikuskizun bat agerbu zan zeruan; Emakume bat eguzkiz jantzita, oinpean illargia ta buruan amabi izarreko koroia ebazala. Eta deadar aundi bat entzun neban zerutik, iñoala: «Emen dogu onezkeroko Jaungoikoagandiko osasuna, ta indarra ta erreiña, ta bere Kristo'ren almena.»

KMU-kanta.—*Gure lurrean lorak agertu dira; iñausteko ordua eldu da; usapala entzun da gure lurretan. Jagi zaitze, ene adiskide, ene eder, ta zatoz: ene usoa artzuloetakoa, orma-arrakaletakoa.

Aleluia, aleluia. Erafikutsi egidazu ai-pegí ori. berba egidazu belarñra: zure abotsa gozoa da-ta, zure arpegi, eder. Aleluia.

Zaz-piaste ostcan, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luzagarria.—Zu Jerusalem'go aintza zara, zu Israel'go poza, zu gure erriaren edertasuna. Oso ederra zara, Maria; ta sortzezko orbanik ez dozu. Zoriontsu zara, Maria Birjiña deuna, ta gorapen gutzia merezi dozuna; Zeuk zapaldu dozu oin garbiz sugearen burua.

Barri Ona (Luk., 1, 26-31).—Aldi aretan, Jaungoioak Gabirel aingerua Nazaret deritxon Galilea'ko urira bialdu eban, neska bategana. Neskatilla au, Jose izeneko Dabid'en jatorriko gizon baten emaztegeia zan, eta Neskatillaren izena, Maria. Eta onegana sarturik, aingeruak esan eutsan: «Agur, graziaz bete ori;

Jauna da zugaz: onetsia zu emakumeetan.» Itzok entzutean, Maria ikaratu egin zan, ta agur au zier izan zeitekean erabillen buruan. Eta aingeruak dirautso: «Ez bildur izan, Maria, Jaungoikoaren gogoko zara-ta; begira, sabelean semea sortu ta egingo dozu, ta ize-na Jesus ezarriko dauteazu.»

Eskeintza.—Agur, graziaz be:tea: Jauna da zugaz: onetsia zu emakumeen artean.

Opari-otoitza.—Ama Birjiña eder-garbiaren irabazien bidez eskintzen dautsugun opari goragarri au, Jauna, usain oneko izan bekizu, ta guri emon daigula opa dogun gorputz-arimetako osasuna. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena, 456 orri. Eta**** Sortze Garbi egunean.

Jaunartzerakoa.—Lurrari ikustaldia egin dautsazu ta berbiztu egin dozu; ondasunez bete dozu.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz asetu gozuzanok, Jauna, zure Ama errubagearen eskuak jaso gagizala; bere laguntasunaz betiko errira eldu gaitazan. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

OTSAILLAREN 12'GARRENA

1) *Garizuma, Garizuma-eguneko Meza: 2'gn. Otoitzak: Oaurko 7 Santuenak.*

2) *Garizuma izan ezik,*

SERBITA'EN ORDENA SORTU EBEN

7 AUTORLE DEUNAK

3'gn. mailla. — Zuriz

Florentzia'ko zazpi gizon aundiki, merkatari ziran. Euren ogasunak beartsuen artean banandu ta gizarteari agur egiñik. Ama Birjiñaren Serbitzari Ordena a-smau eben, 1233'garren urtean. Jesus'en neke-oiñazeak eta Andra Maria'ren samintasunak gogoraturik, bizikera latza egin oi eben. Erriak «Maria'ren Otseiñak» eritxen. Adar eder-zabalak bota ebazan Ordena onek, Prantzia'n, Italia'n eba Polonia'n batez be.

M E Z A

Sarrer.a.—Zintzoak zure izen santua abestu dabe, Jauna, baita batera zure esku bizkorra goratu be: jakintsuak, ago mutua edegi ta umetxoen miñiak berbadun egin dauz-ta.—*Ps. Jauna, gure Jauna!*, arrigarj da benetan zure izena lur osoan.—*Aintza.*

Otoitza.—Jesukristo Jauna! Zure Ama guztiz deunaren nekeak gogoratzeke, zazpi Aita doatsuen bidez, zure Eliza Otsein-sendi barriz ugaritu zenduana: eizugu biotz onez, gu be, lurrean arein negar-lagun izanik, zeruan arein zorion-lagun izan gaitzezala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgai (Ikastuna, Eccli.: 44, 1-15).—Goratu dagiguzan euren gizaldian ospatsu izan ziran gizonak, eta gurasoak. Asieratik miragarri aundi egin ebazan Jaunak. Euren errien nagusi, indarrez aundi ta zur. tasunez jantziak; Igarle izanik, Igarle izena erakutsi eben. Euren aldiko artez zuzendu ebezan, azpikoai burubide (kontseju) on-onak emonaz. Euren artez ereserkiak asmau ebezan, ta Idatzietako abestiak eratu. Onoimenez gizon aberats, eder-zale ta euren etxeetan bake-zale. Guzti oneik, entzute ona lortu eben euren errien belaualdietan, ta goratuak izan ziran euren egunetan. Areitatik jaiok be, izen ederra Itzi eben ondoren, arein goragarritzat.

Baita ba-dira gomutarik itzi ez ebenak be: ondatu egin ziran izan ez bai4itzaz; jaiok ez bai'litzaz (lez) jaiok ziran, eurak eta euren semeak be. Gureak, ostera, gizon errukitsuak izan ziran, eta euren erruki-egintzak ez dira aztuko. Euren azlan irauengo dabe ondasunak: santuerria dira arein illobak, eta Jaungoikoaren legeri zimtzo eutsiko -dautsoe. Arein semeak, areik dirala-ta, betiko irauengo dabe: arein jatorria ta goraldia ez dira iñoiz aztuko. Arein gorpuak baketan illobiratu ebezan, eta gizaldiz-gizaldi bizi da arein izena. Goratu begie erriak arein jakintza, ta zintzoen batzarrak iragarri begdz arein gorapenak.

Koru-kanta.—Nire aukeratuak ez dira alperrik nekutuko, galtzerako umerik be ez dabe sortuko: eurak eta euren illobak Jaunak onetsitako azikoak dira-ta.

Arein gorpuak baketan illobiratu ebezan, eta gizaldiz-gizaldi bizi da arein izena.

Aleluia, aleluia. Goratu begie erriak arein jakintza, ta zintzoen batzarrak iragarri begiz arein gorapenak. Aleluia.

Zazpiaste ostean, Aleluia orde, Luzagarri au:

Luzagarria.—Negarrez ereiten dabenak, pozez batu. ko dabe. Negar egiten eben azia zabaltzean. Etorri daitezanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriez.

Barri Ona: Ona emen gu, 495 orri.

Eskmtza.—Neure mendi santura eroango dodaz, eta neure otoitz-etxean poztuko; altara-gaiñean jarriko daustezan erre-opari ta opariak atsegin izango dodaz.

Opari-otoitza.—Artu, Jauna, eskintzen dautsuguzan oparigaiok: eta eiguzu, zure Santuen bitartez, gogo onez zure menpeko izan, eta zure Semearen Ama Birjiña naigabetuaren maitasunean sutu gaitzela., Amai. bagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Neuk aukeratu zaituet gizartetik, Joan eta arnaria (frutua) ekarri dagizuen, eta zuen arnaria iraunkor izan daiten.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz aseturik, arren eskatzen dautsugu, Jauna: gaur ospatzen doguzan Santuak eredutzat arturik, Gurutze-oñean Jesus'en Ama Maria'gaz zintzo iraun, eta aren erospenaren frufcua jadetsi daigula. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

OTSAILLAREN

14'GARRENA

1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Balentin deunarenak.*

2) *Garizuma izan ezik: aurreko Igandeko Meza; ta,*

2'gn. Otoitza, *Balentin deunarena:* Egizu, Jaungoiko algutzidun, Balentin zure martiri doatsuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezker, gaiñean doguzan gaiz guztietatik bere bitartez jagon gaitzela. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Balentin deunarena:* Artu, arren. Jaun orrek, eskintzen dautsuguzan pparigaiok;

eta Balentin zure martiri doatsuaren irabazien bitartez, zerua jadesteko izan dakiguzia. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Balentin deunarena:* Eukaristi santu au izan dakigula, Jauna, gorputz-arimak indartzeko; ta zure martiri Balentin doatsuaren bitartez, ospatzen dogun opari onen frutua igarri daigula gudan. Amaibagako.

OTSAILLAREN

15'GARRENA

1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Faustino ta Jobita deunarenak.*

2) *Garizuma izan ezik, aurreko Igandeko Meza;*

2'gn. Otoitza, *Paustino ta Jobita deunena:* Zure martiri santu Paustino ta Jobita'ren urteroko jai-egunean pozten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu biotz onez, arein irabaziak alaitzen gaituenez, arein ibillera onak berotu gagezia. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Fiaustino ta Jobita deunena:* Entzun, Jauna, zure santuen gomutaz egiten dautsuguzan otoitzak; eta gure zuzentasunean itzaropenik ez dogun ezker, atsegin izan dozuzanen irabaziak lagun egin daiskuela. Amaitoagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Fiaustino ta Jobita deunena:* Opari osasungarriaz aseturik, Jauna, gaur ospatzen doguzan Santuen otoitzak lagun egin daiskuela. Amai-bagako.

OTSAILLAREN

16'GARRENA

1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. otoitzak: Simeon deunarenak.*

2) *Garizuma izan ezik, aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak: Simeon deunarenak, 466 orri.*

OTSAILLAREN 22'GARRENA

PEDRO APOSTOLU DEUNAREN IRAKASTEGIA

2'gn. mallla. — Zuriz

Kristo da Elizaren Buru; fededun guztion bazkun dir-daitu au, Berak sortu eban-eta. Kristo, aian be, eriotz-ostean, zerura igo zan, Ebazan eskubideetatik asko, orraitino, bere ordezko gizon bati itzi eutsazan: Pedro deunari. Auxe dogu, beraz, Kristo'k orretarakoxe ezarrita, Elizaren Buru ta Nagusi; itz batez esateko: Kristo'ren ordezkari. Orrexegaitik diñoe Eliz-gurasoak. «*Pedro nun?, Eliza be an; Eliza nun?, Kristo be anii.*

Agintaritze au Erroma'ko Elizarena da. Lenengo, Jerusalem'en eukan Irakastegia, Antiokia'ra aldatu eban S. Pedro'k; eba geroago, Jaungoikoak alan naita, Erroma'n jarri eban betiko. Ondorengo Aita Santu guztiak, aren antzera, Eliza katoliku bakarraren Buruzagi dira. Beraz, Jesukristo'ren ordezko. Ta Kristo uts'ezina denez, Erroma'ko Aita Santua be, sinismen eta oitura gaitan, Eliza osoari irakasten dautsanean, uts-ezina dogu, ta berari sinistera beartuak gagoz. Bera da guretzat betiko zorionerako bide argitsua.

M E Z A

Sarrer.a.—Jaunak aregaz bake-alkartasuna egin, eta bere erriaren buru jarri eban, abade-nagusitza betiko izan egian.—*Ps.* Jauna, gogoratu egizu Dabid, eta onen aipailtasun aumdia.—Aintza.

Otoitza.—Pedro zure Apostolu doatsuari zeru-erreiñuko giltzak emonik, itxi-edegi egiteko eskubide aundia emon zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez eta laguntzaz, gure pekaturen lokarriak askatu daiguzala.

Paulo Apostolu doaitsuaren agoz atzerritar askori irakatsi zeutsen Jaungoikoa: aren gogorapena egiten dogun ezker, zure aurrean aren bitartekotasuna toe igarri daigula gudan. Amaibagako.

Garizuman, 2'gn. Otoitza: Garizuma-egunekoa.

Irakurgaia (.S. Pedro'ren l'goa: 1, 1-7). Pedro'k, J' sukristo'ren Apostolu onek, zuoi: atzerriko Ponto'n, Galazia'n, Kapadozia'n, Asia'n eta Bitinia'n zear banaturik, Jaungoiko Aitarene betiko jakitez, Espiritu Deunaren santutasunaz Jesukristo'ren sinisr.e'-iwg ta Onen Odolaz bustiteko deituak zarenoi, ...: r, &

bake ugari. Onetsia izan bedi Jesukristo'ren Jaungoiko ta Aita, bere erruki aundiz, Jesukristo il-artetik biztuaz, itxaropen bizira barriro sortu gaitu-ta, utelik, orbanik eta zimelik бага zuentzat zeruan aukerata dagoan jarauntsira*. Zeuentzat, bai; azken-aldietan agertzeko dan osasuna, sinismenaren bidez jaristeko, Jaungoikoaren indarrak zaindurik egon zaitezten. Uste onetan poztu zaitezte, oraindiño neke batzuetan apur bateko atsekabez egon bear ba'dozue be. Oneixetan aztertuko da zuen sinismena, ta sutan garbitutako urre galkorra baino askoz bikainago agertuko da Jesukristo'ren agertaldian, zuen gorapen, aintza ta goragarritzat.

Koru-kanta.—Ospatu begie erri-batzarretan, eta goratu zarren jarlekuan. Autortu begie Jaunaren errukia, baita giza-semeen alde egin dauzan arrigarriak oe.

Luzagarria.—[^]Pedro (aitz) zara zu, ta aitz orren gainean jasoko dot nire Eliza. Ta inpernuko atek ez dira aren aurka garaille* izango; ta zeru-erreiñuko giltzak zeuri emongo dautsudaz. Zuk lurrean lotu dagizuna, zeruan be lotua izango da. Ta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruan be askatua izango da,

Barri Ona (Mat., 16, 13-19).—Al' di aretan, Jesus Pilipo'ko Zesarea-aldeko baztarretaruntz joan zan; eta bere ikasleak itandu eutsen: «Gizasemea (1) nor da la diñoe gizonak?» Areik erantzun eutsen: «Bat-zuek, Jon Bateatzaillea; beste batzuek, Elias; beste batzuek, Jeremias edo igarleren bat.» Jesus'ek esan eutsen: «Zuek, barriz, nor nazala diñozue?» Orduan, Simon Pedro'k erantzun eta esan eutsan: «Zu Kristo zara, Jaungoiko biziaren Semea.» Ta Jesus'ek erantzun eutsan: «Zoriontsu zara, Simon, Jonas'en seme ori: ez dautsu ori aragiak agertu-ta, zeruko nire Aitak baino. Nik, barriz, ba-dirautsut. Kepa —aitza— zara zu, ta aitz orren gafnean jasoko dot nire Eliza; ta inpernuko atek ez dira aren aurka garaille izango. Zeru-erreiñuko giltzak zeuri emongo dautsudaz; eta zuk lurrean lotu dagizuna, zeruan be lotua izango da; ta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruan be askatua izango da.»—*Kredo.*

* Jarauntsi = herencia. * Garaille = vencedor, triunfador.

(1) Gizasemea = Kristo.

Eskeintza.—Pedro (aitz) zara zu, ta aitz orren gainean jasoko dot nire Eliza; ta inpernuko ateak ez dira aren aurka garaille izango; ta zeuri emongo dautsudaz zeru-erreinuko giltzak.

Opari-otoitza.—Pedro Apostolu doatsuaren dotoitzaleroan dagizala zure aurrera, Jauna, Elizaren eskari ta oparigaiok; eta aren omenez ospatzen dogun Opari onek, pekatuen parkamena jaritsi daiskula.

Paulo zure Apostoluaren otoitzen bidez, Jauna, onetsi (bedeinkatu) egizuz zure erriaren oparigaiok; Zuk egin zenduan Oparia gogoko yatzun ezker, gogokoago izan dakizun. Amaibagako.

Garizuman, 2'gn. Opari-otoitza: Garizuma-eguneko.

Kanon-aurrea: *Apostoluen, 457 orri.*

Jaunartzexakoa.—Pedro (aitz) zara zu, ta aitz orren gainean jasoko dot nire Eliza.

Azken-otoitza.—Eskeinutako opari onek poztu gaizala, Jauna; ta zure Apostu Pedro'gan arrigarri autortzen zaitugun ezker, aren bitartez zure perkamena be oparo jadetsei daigula.

Osasunezko Eukaristiaz santutu garan ezker, eigu-zu, Jauna, búarteko emon dauskuzunaren otoitzak ez dai.skula uts egin. Amaibagako.

Garizuman, 2'gn. Azken-otoitza: Garizuma-eguneko.

OTSAILLAREN 23'GARRENA

V Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzato; Pedro Damian deunarenak.

2J Garizuma izan ezik,

PEDRO DAMIAN DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Rabena'n jaio zan, guraiso beartsuakandik. Jaunaren deiari jarraituaz, kamaldular egin zan gatzetarik. Geroago, Ostia'ko Gotzain izentatu eben. Aita Santuak leku a'kotara bialdu eban bere orde; simonkeri ta eliz-gizonen nasaikeria gogor zigortu ebazan, baita Eliza Ama deunaren askatasunaren alde kementsu jokatu be. Bizikera urri ta latza egiii ondoren, 1072'garren urtean il zan.

Meza: *In medio, 488 orri., Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—^Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek, Pedro zure autorle ta gotzain doatsuaren irakatsi ta ikasbi-deetatik joan gaitetzala: mundu onetako gauzak bertan-bera itzirik, betiko zoriona jadetsei dagigun. Amaibagako.

OTSAILLAREN 24'GARRENA

(seibiko urtean, 25'garrena)

MATIAS DEUNA, Apostolua

2'gn. mailla. — Gorriz

Judas, Kristo saldu ebanaren orde, Matias laukeratu eben, aren lanbide ta egitekoa artzeko. Lenengo, Judea'n izan eban bere lan-arloa; gero, Etiopia barreraino eldu ta an be sutsu iragarri eban Kristo'gandik artutako Barri Ona. Neron'en agintaritzapean, martiri-koroia artu eban.

M E Z A

Saxrera.—Nire eritiz, oso goratuak dira zure adis-kideak, Jaungoikoa; arein indarra oso gogortu da. — *Ps.* Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Matias doatsua zure Apostoluen arteko egin zenduan Jaungoikoa; eiguzu, bera bitarteko dogula, guganako zure biotz-sarnurtasuna igarri daigula gug&n. Amaibagako.

Garizuman, 2'gn. Otoitza: Garizuma-eguneko.

Irakurgai (Apostoluen Egiñak, 1, 15, 26). — Egun areitan, eun ta ogeiren bat lagun batuta egozala, Pedro'k, laguneren erdian zutundurik, esan eban: «Anaiok! Judas'i buruz, Jesus atxillotu ebenen zuzendari izan zanaz, Dabid'en agoz Espiritu Santuak Idaztian esandakoa bete bearra zan. Guretarikoa ta gure lankide izanarren, landa bat sari gaiztoz erosi eban, eta bere burua urkatuak, erditik lertu zan, eta bere errain guztiak lurrean zear zabaldu ziran. Eta Jerusalem'en ori guztiak jakin eben; eta orregaitik landa a arein izkeraz Hakeldama, Odol-landa deritxo. Ereslen Liburuan idatzita dago-ta: "Utsik bego arein bizitokia, ta

iñor be ez bedi aretan bizi; ta aren egitekoa beste batez artu begi."

Beraz, egoki da Jesus Jauna gure artean bi-zi zala beti geugaz ibilli ziran areitariko norbait aukeratzea; Jon'en bateotik asita Jesus gure artetik artua izan zan egunerarte, geugaz egonikoa: Aren bizeraren autorle gugaz batera izan dadin.» Eta bi aukeratu ebezan: Barsabas, Zuzena eritzan Jose, ta Matias. Eta otoitz egiñik, auxe esan eben: «Guztien biotzak ezagutzen dozuzan Jaun orrek, erakutsi egiguzu biotat'ik nor aukeratu dozun, Apostoluen egikizun eta lanbide au bere gain artzeko; Judas'ek lanbide au galdu eban ezker, dagokion tokira joan zedin.» Eta zotz eginda, zotza Matias'i egoki izan yakon, eta amaika Apostoluakaz alkartu zan.

Koru-kanta.—Oso goratuak dira zure adiskideak, Jaungoikoa; arein indarra oso gogortu da.—Areik zenbatu nai ba'dodaz, itxas-ondarra baiño ugariago dira.

Luzagarria.—Biotzako guraria bete dautsazu, ta aren ago-eskaria ez dozu ukatu.—Onespen (bedeinkaziño) gozoz aurrea artu dautsazu.—Pitxi ederrezko koroia jarri datsazu buruan.

Barri Ona: Jesus'ek, itza artuaz, 526 orri.—*Krsdo.*

Eskeintza.—L/ur osoan nagusi egingo dozuz: zeure izena gogoratuko dabe, Jauna, gizaldiz-gizaldi.

Opari-otoitza.—Konsagratzeko zure izenari eskintzen dautsuguzan oparigai, Jauna, Matias zure Apostolu santuaren otoitzak lagun bekie, ta guri zure parkamena ta laguntza jaritsi daiskula. Amaibagako.

Garizuman, 2'gn. Opari-otoitza: Garizuma-egunekoa.

Kanon-aurrea: *Apostoluena, 457 orri.*

Jaunartzerakoa,—Niri' jarraitu daustazuonok, aulkietan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!, artu dogun Eukaristiaren bidez eta Matias zure Apostolu doatsuaren bitartez, parkamena ta bakea jadesi dagigula. Amaibagako.

Jarizuman, 2'gn. Azken-otoitza: Garizuma-eguneltoa.

OTSAILLAREN 27GARRENA
(seibiko urtean, 28'garrena)

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Gabirel deunarenak.*
- 2) *Garizuma izan ezlk:*

AMA NAIGABETUAREN GABIREL DEUNA,

autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Asis'en jaio zan, 1838'garren urtean. Amazazpi urteko zala, gizartelco uskeri ta atsegiñak alde batera itzirik, Nekallditarren (Pasionisten) Lagundian sartu zan. Jaio ta ogei ta lau urtera il zan; gaur, alan be, santu-koroia buruan daukala, altaretan d'akusgu. Au bai ibili zala bizkor satuta-suneko bide zear!

M E Z A

Sarrera.—Jaungoikoaren begiak atsegiñez ezan-i ziran aregan; eta bere apaltasunetik gora jaso eban; au ikusiaz, ainbat arritu ziran, eta Jaungoikoa goratu eben.—*Ps.* Ona da benetan Jaungoikoa Israel'entzat, biotz zuzena dabententzat!—Aintza.

Otoitza—^Gabirel doatsuari zure Ama oso samurra-
ren nekeak gogoratzen irakatsi, ta Bera bitarteko, santutasunean eta mirarrietan gora jaso zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren laguntza ta ikasbideen bitartez, zure Amaren negarrakaz bat egiñik, beronen amatasun-magalpean zeruratu geitezala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikogaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

IraJurguaia (Jon'en l'goa.: 2, 14-17).—Guztiz maitteok: Zuoi, gazteoi, idazten dautsuet, azkarrak zarse-lako, ta Jaungoikoaren itza zuekan dagoalako, ta gaiztoa azpiratu dozuelako. Ez egizue lurra maite, ezta lurrekorik be. Norbaitek lurra maite ba'dau, ez dago aregan Aitaren maitasunik: lurrean dan guztia, aragi-griña, ikusmiña ta bizitzako arrokeria da: au ez da Aitagandik sortzen, lurkeritik baiño. Lurra igaro egiten da, baita bertako zalekeria be. Jaungoikoaren naia egiten dauanak, barriz, beti-betiko dirau (irauten dau),

Koru-kante,—Jauna, zure bildur diranentzat daukan gozotasuna, bai dala aundi ta samurra!—Zeugana joten dabena erakusten daultsezu, gizaeimeen aurrean.

Luzagarria.—Zoriontsu, laguntza Zeugandik artzen dauan gizona!, negarrezko toki onetatik zure betikora igoteko asmoz dabillena!—Nire Jaungoikoaren etxean txiki izan naiago dot, pekatarien txaboletan bizi izan baiño.—Errubage dabiltzanai, ez dautse ezer onik ukatuko. Gudarozteen Jauna: zoriontsu ustea Zeugan dauan gizona!

Barri Ona (Mat. 10, 13-21).—Aldi aretan, umetxo batzuk ekarri eutsuezan Jesus'i, ikutu egizan. Ikasleak, barriz, ekarten eutsuezanai asarre egiten eutsen. Jesus'ek, ori ikusirik, asarretuta esan eutsen: «Itzi umetxoai Nigana etorten, eta ez egiezue galerazo: Jaungoikoaren erreinua orrelakoena da-ta. Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren erreinua umetxoen antzera artu ez dagiana, ez da bertan sartuko.» Ta arek laztandurik, eta eskuak arein gainean ezarririk, bedekatu egiten ebazan.

Eta bidera urten zanean, norbaitek, ariñeketan beragana jo ta aurrean belaunikoturik, auxe itandu eutsan: «Irakasle on!, zer egin bear dot betiko bizitza irabazteko?». Jesus'ek esan eutsan: «Zegatik dirautsazu ona? Ona danik ez dago, Jaungoikoa baiño. Aginduak ba-dakizuz: ez dozu ezkontza loituko, ez dozu inor ilgo, ez dozu ostuko, guzurrezko autorrik ez dozu egingo, bidebagekerik ez dozu egingo, zure aitari ta amari lotsa izan egiezu.» Arek, erantzunik, esan eutsan: «Irakasle, guztiok txikitarik bete dodaz.» Orduan, Jesus'ek, ari begira-begira jarririk, maitekiro esan eutsan: «Orraitiño, bat ez dozu oraindñño: zoaz, dozun guztia saldu, ta beartsuai emon egiezu, ta zerruan ogasuna izango dozu; gero ona etorri, ta jarraitu egidazu.»

Opari-otoitza,—Gabirel deunaren gomutaz opari osaberen seme: Zeuk ausi zeustazan nire lokarriak; eskarron-oparia eskiñiko dautsut.

Opari-otoitza.—Gabirel deunaren gomutaz opari osasungarri au Zuri eskintzean, Jauna, zure eriotz-oparia bear danez gogoratu daigula eiguzu; ta Birjiña atseka-

betuaren irabazien bidez, opari berberaren frutua bizi-ziro lortu daigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Jaunartzerakoa,—Ona emen Ni aturrean, ate-joka; nire deia entzunda, norbaitek atea edegi ba'dagist, aren etxera sartuko naz, beragaz apalduko dot, eta arek Nigaz.

Azken-otoitza,—Artutako Eukaristiagaitik, Gabirel deunaren jaijan damotsuguzan .eskarrak, Jauna, artu egizuz biotz onez, Maria beti Birjiña goragarriaren eskuz: onexegandik artu zenduan osasunezko mai santu onetan jan dogun aragi samurra-ta, Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.



EPAILLEKO SANTUAK

EPAILLAREN 4GARRENA

- 1) *Garizuman, Gartzuma eguneko Ueza; 2'gn. Otoitzak: Kasimiro deunarenak; 3'gn. Otoitzak: Luzio deunarenak.*
- 2) *Garizuma izan ezik:*

KASIMIRO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Polonia'ko erregearen bigarren semea; gorputzez eder, baiña arimaz ederrago; biotz-biotzez maite eban Andra Maria; sinismen sendo, goi-maitasun bizi ta bizitza latzekoa. Geisotu egin zan, eta geisotik urtefeko, ezkontzara beartu nai izan eban; baiña berak il naiago izan eban, garbitasuna galdu baiño. 1484'garrenean il zan, ogei tá bost urte ebazala.

Meza: *Os iusti, 490 orri., urrango Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Errege-etxeko aitsegín eta gizarteko arris-kuen artean, Kasimiro deuna sendotasun indarrez adoretu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez, zure fededunak lurreko gauzak alde batera itzi ta beti zerukoetara jo dagiela. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Luzio deunarena*: Begiratu egizu samurkiro zure artalde, betiko Artzain orrek!; eta Eliza osoaren Artzain egin zenduan Luzio doatsuaren bitartez, zaíndu egizu Eliza zure laguntza etenbageaz. Amaib'agako.

Opari-otoitza.—Zure Santuen gomutapenean, Jauna, gorapenezko oparigaiok eskintzen dautsuguz; eta euron bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onez urtengo garala uste dbgu. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Luzio deunarena*: Gure oparigai I onein bidez, Jauna, argi egiozu zure Elizari: zure artaldea bere bidean aurrera joan dadin, eta zure eragiñez, Artzaiñak begiko izan dakizuzan. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Zeruko janari tá edan onekaz indarturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, gure Jaungoiko orri: santuaren eguna ospatuaz artu doguzan ezkerro, berak lagundu gagizala bere otoitzakaz. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Luzio deunarena*: Zuzendu egizu samurkiro, Jauna, zure EILza, janari santuz indartu

da-ta; eta zure esku indartsuaz eroanik, askatasun geiago izan, eta sinismen osoan iraun dagiala. Amaibagako.

EPAILLAREN 6GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Perpetua ta Felizitas deunenak.*
- 2) *Garizuma izan ezik:*

PERPETUA TA FELIZITAS DEUNAK, martiriak

3'gn. mailla. — Gorriz

Perpetua, ogei ta bi urteko andra .gaztea zan, umetxo jaiobarrí bategaz. Bere'aitak, iimtxo onen bitartez-, sinismenetik aldendu nai izan feban, baiña alperrik.

Felizitas, mirabea, umedun aurkitzen zan; legeak, barriz, olako emakumeak eriotzara epaitute, debekatu egiten eDan. Ori zala-ta, negar baten egoan, martiri-gei ez zalakotan; baiña antzoki edo teatro-egunak baiño iru lenago, neskatotxo eder bat egin eban: andra kristau batek alabatzat artu eban bera. Abere joías-lekura eldu ziranean, Perpetua ta Felizitas alkar Jaztandurik, ezpatari eskiñi eutsuezan euren samak. Kartago'n zan au, 203'garren urtean.

Meza: *Me expectaverunt, 503 orri, urrango Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Éiguzu, arren, gure Jaun eta Jaungoiko orrek!, Perpetua ta Felizitas zure martiri santuen garaipena biotz gartsuz agurtu daigula: ta bear danez ospatu ezin doguzan ezkerro, geure oparigai apalak beintzat eskiñi daieguzala. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Begiratu, Jauna, Perpetua ta Felizitas zure martiri santuen jaigunean altara onetara dakartsuguzan oparigaiok; olakoen bidez arei zerua emon dautsezunez, guri be parkamena emon daiskuzan. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Eukaristi santuaren janariz eta pomez bete garan ezkerro, eiguzu, Jauna: Perpetua ta Felizitas zure martiri deunen bitartez, orain ospatzen doguzan ezkutapenen (misterioen) frutu isilla lortu daigula. Amaibagako.

EPAILLAREN 7GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak; Akino'tar Tomas deunarenak.*
 2) *Garizuma izan ezik,*

AKINO'TAR TOMAS DEUNA,

autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Akino'ko kondearen eta Napoles'ko Teodora'ren semea-oraindiño bost urteko zala, Kasino-Mendi'ko beneditarrela ardurapean jarri eben bere gurasoak. Baiña a'di aretako guda gogorrak zirala-ta, mendi done au itzi egin bear izan eban. Alan eta guzti be, gurasoak nai ez ebenarren, Domingo deunaren Ordenan sartu zan: lasterrera, Ordena eder aretako argi-zuzirik bikaiñena biurtu zan. Lyon'go Batzar Nagusira joia-i, Fossa Nuova'n il zan, 1274^ogarrenean. «Irakaste Aingeru» izena damotse. Oso ezagunak eta erabilliak dira egun ebazan lilosoti ^{ta} teoloji-lanak, «Summa Theologica» de-ritxon lan luze ta sakona batez be. Il eta iru urtera jarri eben Santuen lerroan, eta XU'garren Leon Aita Santuak Ikastetxe Katoliku guztien Zaindari izentatu eban.

Meza: In medio, 488 orri., *beste oneik izan ezik; A*

Otoitza,—Zure Eliza, Tomas autorle doatsuaren jakitez argitu ta lan santuakaz ugaritzen dozun Jaungoikoa: eiguzu, alrren, irakatsi euskuna ule-rtu daigula, ta egin ebanari jarraitu daigola. Amaibagako.

Irakurgaia (Jakintza, 7, 7-14).—Adimena opa izan neban, eta emon yatan; jakituriari dei egin neutsan, eta etorñ yatan. Eta erreñu ta errege-jarlekuak baiño geiago nai izan neban: eta ogasun guztiak ezerezat nebazan aren aldean. Arri bikaiñez be ez neban bardindu; urre guztia, aren aldean, ondar mirriña da-ta; zidarra, barriz, aren aurrean lupetza lez nardatua izango da. Osasuna ta edertasuna baiño geiago maite izan neban, eta bera artu neban argitzat, bere ditzira itzungi (amatau) eziña da-ta.

Aregaz toatera on guztiak etorri yatazan, eta aren bidez, zenbatu «ziñala aberastasun. Gauza guztiok poza ekarri dauste, jakituri au dodalako; baffia ez nekian nik on guztion ama zanik. Iruzur* bagarik ikasi netoana, bekaitzik* бага banatzen dot. eta aren

* Iruzur = dolo, engaño. * Bekaitz = envidia, pesar.

ondasunak ez dodaz estaltzen: gizonentzat ondasun azkenbagea da-ta; bera darabilenak, Jaungoikoaren maitasuna eurakanatzen dabe, jakituria irakatsi dabelako, Aren (Jaungoikoaren) gogoko izanik.

EPAILLAREN 8GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'gn. Otoitzak: *Jaungoikoaren Jon deunaren urrengokoak:*

2'gn. Otoitza.—Zure maitasunez iziotuta egoan Jon doatsua, gar artean erre bagarik iraunerazo ta aren bidez zure Elizan Anaide barri bat sortu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren irabazien bitartez, gure ari-mako gaitz guztiak zure maitasunaren suaz osatu daitezala, ta betiko osasuna jadetsi daigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Zure santuen gomutaz, Jauna, eskintzen dautsuguz gorapenezko oparigaiok; eta euren bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onik urtengo gareala uste dogu. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Zeruko janari ta edari onekaz indarturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, gure Jaungoiko orri: gaurko santuaren eguna ospatuaz artu doguzan ezkeru, berak lagundu gagizala bere otoitzakaz. Amaibagako.

EPAILLAREN 9GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'garren Oloitzak: *Erromatar Prantziska deunaren urrengokoak:*

2'gn. Otoitza.—Prantziska zure 'mirabe doatsuari, beste grazi askoren artean, bere Aingeruagaz barruko artu-emonetan jarduteko eskarra emon zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, guk be, aren bitartez indarturik, Aingeruen lagun zeruan izatea jaritsi dagigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, eirri zmitoak zure santuen izenean egiten dautsun opari au; eustaldian, areñ irabaziai esker, izan dauala laguntza autortzen dau-ta. Amaitoagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Zure etxeokak Eukarísti santuaz asetu dozuzan Jauna! Gaurko jaieguna ospatzen dogunaren bitartez, indartu gagizuz beti zure maitasunean. Amaibagako.

EPAILLAREN 10'GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'garren Otoitzak: *Berrogei Santu Martirien urrengokoak:*

2'gn. Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: Martiri ospatsu oneik Zu gartsu autortzen íkusten doguzanok, zure aurrean zintzo gure alde egiten somau dagiguzala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Begiratu, Jauna, zure fededunen eskari ta oparigaioek: zure Santuen egunean gogoko izan dakizuzan, eta guri laguntza errukiorra emon daiskuen. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Zure Santuen bitartez bigunduta, Jauna, eiguzu, arren: orain ospatzen dogun opari onek, betiko zerua jaritsi daiskula. Amaibagako.

EPAI-LLAREN 12'GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'garren Otoitzak: *Gregorio deunaren virrengokoak:*

2'gn. Otoitza.—Gregorio zure otseñiaren arimari batiko zorion-saria emon dautsazun Jaungoikoa: eiguzu errukior, gure pekatuen sortak (pisuak) estutzen gaituan ezkeru, Zuganako aren otoitzak arindu gagiezala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Eiguzu, arten, Jauna, Gregorio dóatsuaren bitartez, on egin daiskula opari onek: be-
rau eskiñiaz, gizarteko erru guztien parkamena emon zenduan-eta. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Gregorio zure Aita Santu doef: tsua bere irabaziz beste zure Santuakaz bardindu zenduan Jaungoikoa: eiguzu errukior, aren gomuta-jaia ospatzen dogun ezkeru, aren bizitzako lorratzai jarraitu dagiegula. Amaibagako.

EPA/LLAREN 17'GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'garren Otoitzak: *Patrizio deunaren urrengokoak:*

2'gn. Otoitza.—Zure aintza sinisbageai iragarteko, Patrizio zure autorle ta gotzain doatsua bialdu zenician Jaungoikoa: aren irabaziz <eta bitartez, egíteko agintzen dauskuzuna, zure errukiaren bidez, bete ai daigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Poztu gagiezala toki guztietan, Jauna, zure santuak; eta arein irabaziak ospatzean, euren bitartekotasuna be izan dagigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek: artu dogun Eukaristiagaitik eskerrak emonez, zure autorle ta gotzain Patrizio doatsua bitarteko dala, gero-ta grazi ugariagoak artu daiguza'la. Amaibagako.

EPAILLAREN 18'GARRENA


Garizuma-eguneko Meza.

2'garren Otoitzak: *Jerusalen'go Zirilo deunaren urrengokoak:*

2'gn. Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: Zirilo gotzain doatsuaren bitartez, Zu, egiazko Jaungoiko bakar ori, ta bialdu zenduan Jesukristo ezagutu daiguzala: *Onen* deia entzuten daben ardien artean betiko egotea jedetsi dagigun. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza.—Begiratu, Jauna, eskintzen dautsugun opari garbi au: ta eiguzu, Zirilo zure gotzain eta autorle doabsuaren irabazien bidez, biotz garbiz artu daigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Artu dogun zure Gorputz eta Odolaren Sakramentu onek, Jesukristo Jauna, Zirilo gotzain doatsuaren eskarien bitartez, gure arima ta biotzak santutu begiz: Jaungoikoarsn izateagaz alkar-
tzea jedetsi dagigun. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.



EPAILLAREN 19'GARRENA

JOSE DEUNA,

Andra Maria'ren Senarra ta EHza osoaren Zaindaria

l'go. mallla. — Zurtz (1)

Kristo, Jaungoikoaren Semea, ama ta birjiña zana gandik jaioteko zan; misterio au, alan be, iuzaro egon zan ezkontza -gerizpe>an gordeta. Jose deunari emon eutsan Jaunak bere Amaren ardura; baita senar-eskubide guztiak be, jagole antzera Maria'ren garbitasuna zaindu egian.

Galiñera, Jaungoikoak, Kristo'ganako aitatatzako betebear eta eskubide-ak be, berari ezarri eutsazan. Beraz, Jaungoikoaren ondasunik ederrenak, Jesus eta Maria, bere ardura ta z'ainpean eukazan.

Izan dadilla Bera gure zaintzaille bizitzaldian eta erioztzako orduan!

M E Z A

Sarrera.—Zintzoa, palmondoaren antzera loratuko da; Libano'ko zexirua legez aundi egingo da Jaunaren etxean jarma, gure Jaungoikoaren etxeko ataurrean. (P. A. Aleluia, aleluia).—*Ps.* Ona da Jauna autortzea, ta zuire izena goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Zure Ama guztiz deunaren Senarraren irt-baziak iagun dakiguzala, Jauna: guk ezin lortu doguna, aren bitartez jadetsi daikegun. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

nera) aldatzen da.

2'gn. Otoitza: *Garizuma-egunekoa.*

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli. 45, 1-6).—Jaungoikoak eta" gizonak maite izan eben eta aren izena badeinkatua da. Zeruko Santuen antzeko egin eban; arerioai bildur aundia sarrerazo eutsen; eta piztiak berbaz bigundu ebazan. Erregeen aurrean argitsu egin eban; bere errian agintaritza emon eutsan, eta bere aintza erakutsi. Sinistez eta apaltasunez santu egin eban, eta gizon guztien artetik aukeratu. Jaungoikoaren deia entzun eban, eta odeian sartu eban. Eta aurrez-aurre aginduak eta bizitarako lege jakintsua emon eutsazan.

Koru-kanta.—Jauna, onespen bigunez aurrea artu dautsazu; buruan pitxi ederrezko koroia jarri dautsazu. —Bizia eskatu dautsu, ta Zuk egun luzeak emon dautsazuz, aldien azkeneraño.

Luzagarria. — Zoriontsua benetan, Jaunaren bildur dan gizoña: Aren aginduak biziro maite dauzana. —Aren ondorengoak indartsuak izango dira lurr.ean; zintzoen jatorria onetsia izango da.—Aintza ta aberastuan aundiak izango dira aren etxean; eta aren zuzentasunak beti-betiko iraungo dau.

PKKO-alcñan, *Koru-kanta ta Luzagarria ordez, beste au:*

Aleluia, aleluia. Maite izan eban Jaunak eta apaindu; soiñeko argitsua jantzi eutsan.—Zintzoa, lilia lez erneko da, ta beti loratan egongo da Jaunaren aurrean. Aleluia.

Barri Ona (Mat. 1, 18-21).—Jesus'en Ama Maria Jose'gaz ezkontuta egoala, alkarganatu baiño len, Espiritu Santuaren egifiz umedun aurkitu zan. Aren senar Jose'k, zuzena izanik, salatu nai ez-ta, isilleán itzi nai izan eban. Baiña asmo onetan ziarduala, amesetan Jaunaren aingerua agertu yakon.—esanez: «Jose, Dabid'en seme: ez bildurtu Maria emaztetzat artzen: beragan sortu dana, Espiritu Santuagandik dau-ta. Seme bat be izango dau, ta izena Jesus ezarriko dautsazu: bere erria pekatuetatik Arexek atarako dau-ta.» ~-Kredo.

Eskintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da aren izena. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Gure otsein-zorra Zuri ordaindurik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Zure Seme dan Jesukristo gure Jaunaren Amaren senar doatsu Jo-

se'ren irabazien bitartez, iraun-erazo dagizuzala gugan zure doaiak, opari au Aren jai agurgarrian eskintzen dautsugun ezkeru. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2^{gn}. **Opari-otoitza:** *Garizuma-egunekoa.*

Kanon-aurrea: *Jose deunarena, 456 orri.*

Jauartzerakoa.—Jose, Dabid'en seme, ez bildurto Maria zure emaztetzat artzen: beragan sortu dana, Espiritu Santuagandik dau-ta. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Lagun zakiguz, arren, Jaungoiko errukior ori; ta Jose zure autorle doatsua bitarteko dogula, zaindu gugan biotz onez zure' dóaiak. gako.

2^{gn}. **Azken-otoitza:** *Garizuma-egunekoa.*

EPAILLAREN 21GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2^{garre}?i **Otoitzak:** *Benito deunarenak, 494 orri.*

EPAILLAREN 24GARRENA


Garizuma-eguneko Meza.

2^{gn}. **Otoitzak:** *Gabirel Goiaingeruaren urrengokoak:*

2^{gn}. Otoitza.—Beste aingeruen artean, zure Giza-gunde-ekzutapena iragarteko, Gabirel Goiaingerua aukeratu zenduan Jaungoikoa: eiguzu biotz onez, lurrean aren jaiia ospatzen dogun ezkeru, zeruan aren zaindaritza izan dagigula. Amaib'agako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko izan dagigula. Amaibagako... Olantxe.

2^{gn}. Opari-otoitza,—Gogoko izan dakizuzala, Jauna, gure morroi-opari au ta Gabirel Goiaingeru doatsuaren ctoitza; ta lurrean agurtzen dogun ezkeru, zeruan zaindari izan dagigula. Amaibagako...

2^{gn}. Azken-otoitza.—Zure Gorputz eta Odolaren Sa- I
kramentua artu dogun ezkeru, erruki zaran gure Jaun I
eta Jaungoiko orri eskatzen dautsugu: Gabirel'ek ira- I
garrita, zure Gizakundea ezagutu dogunez, berberak I
lagunduta, Gizakunde orren ondasunak be jadetsi dai- I
guzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta I
Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi I
zara-ta. Olantxe.



ANDRA MARIA'RI GIZAKUNDEA IRAGARTEA

l'go. mallla. — Zuriz (1)

Gaurko jaia, munduan izan dan jasokunik aundiena dakarkigu gogora: Jaunaren gizakundea emakume baten erraiñetan. Gaurko egunez, izan be, egin zan gizon Jaungoikoaren Semea, Andra Maria'ren sabel garbian. Apaltasun itzela, benetan. Jauna morroi egin, Egillea izaki, Jaungoikoa gizon; or dakusgu, bai, Kristo geure antz eta izatez jantzirik. Auzpez gurtu daigun Irutasun guztiz deuneko bigarren Notin edo persona aragitan; baita goratu be Neska apal-garbi onen santutasuna: Jaungoikoak bere Amatzat aukeratu dau-ta.

M E Z A

Sarrera.—Erriko aundiki guztiak zeure ederra naj izango dabe; Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik. (P. A. Aleluia, Aleluia).—*Ps.* Nire bioj tzari erasi eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak. —Aintza.

Otoitza.—Aingeruak aurretiaz iragarrita, Marid Birjiña doatsuaren erraiñetan zure Itzak (Jesukristo'k) aragia artzea nai izan zenduan Jaungoikoa: eiguzu, gure eskariak entzunik, egiz Jaungoikoaren Ama dala sinisten dogunok, zure aurrean aren bitartekotasunaren laguntza izan dagigula. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen toerberaren bidez. Olantxe.

2'gn. **Otoitza.** *Garizuma-egunekoa.*

Irakurgaia (Isaias, 7, 10-15).—Egun areitan, Jaunak Akaz'i itz egin eutsan, esanaz: «Eskatu egiozu zure Jaungoiko Jaunari ezaugarri bat zeuretzat, naiz leza -barrenetik, naiz goi-goitik.» Eta Akaz'ek erantzun eutsan: «Ez dot eskatuko, ezta Jauna zirikatuko be.» Orduan, Isaias'ek esan eban: «Entzun, ba, Dabid'en etxe orrek: Gutxi al yatzue gizonai gogaikarri izatea, neure Jaungoikoari be gogaikarri zakioze-ta? Beraz, Jaunak berak emongo dautsue ezaugarria. Begira: Neska (birjiña) batek sabelean semea sortu ta egingo dau, ta aren izena Emmanuel izango da. Guriña ta ezta jan-

(1) Iragarkunde egun au Aste Santuz naiz Pazko-astez jausi ezkeró, Pazko-zortzi osteko astelenera aldatzen da.

go dauz, txarra alde batera izten eta ona aukerutzen ikasi dagian arte.»

Koru-kanta.—Atsegiña dariozu ezpanetatik; orixe daia-ta onetsi zaitu Jaungoikoak betiko. Egiaren, errukiaren eta zuzentasunaren alde, zure eskuma arrigarriri erabiliko dozu.

Luzagarria.—Ea, alaba, ikusi ta entzun: Erregea zeure edertasunaz zaletu da. Erriko aberatsenak be, zeure ederra nai izango dabe; Errege-alabak ibiliko dira zure inguruan. Erregearen aurrera ekarriko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, zeugana pozez beterik. Txaloka ta pozez joango dira Erregearen jauregira.

Pazkoaldian, Koru-kanta ta Luzagarria ordez, beste au:

Aleluia, aleluia. Agur, Maria, graziaz bete: Jauna da zugaz: bedeinkatua zu emakumeen artean. Aleluia, Jese'ren makilla ioratu egin da; Birjiñak, Jaungoiko-gizona sortu dau: Jaungoikoak bakea biurtu dausku, goiko ta beko Beragan alkatuaz. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 1, 26-38).—Aldi aretan, Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret deritzan Galilea'ko errira bialdu eban, neska bategana. Neskatil au, Jose izeneko Dabiti'en jatorriko gizonetzko baten emaztegeia zan, eta neskatillaren izena, Maria. Eta onegana sarturik, aingeruak esan eutsan: «Agur!, graziaz bete ori; Jauna da zugaz: onetsia zu ©makumeetan». Itzok entzunda, Maria larritu egin zan, eta arelako agurra zer izan zeitekean erabilen buruan. Baiña aingeruak esan eutsan: «Ez bildurtu, Mari, Jaungoikoaren gogoko zara-ta; begira: sabelean semea sortu ta egingo dozu, ta izena Jesus ezarriko dautsazu. Aundia izango da Bera, ta Altsuaren Seme dei egingo dautsoe, ta Jaungoiko Jaunak Aita Dabid'en jarlekua emongo dautso. Jakob'en etxeko buruzagi izango da betiko; ta Aren aginpideak ez dau amairik izango.»

Orduan, Mana'k aingeruari esan eutsan: «Ori zelan izan daif-eke, gizonetzorik ez dot ezagutzen-eta?» Eta aingeruak, erantzunik, eisan eutsan: «Espirifcu Santua etorriko tia zug&na, ta Altsuaren indarrak bere gerizpean artuko zaitu. Eta beraz, zugiandik jaioko dana, Jaungoikoaren Seme deituko dabe. Orra, bestela, zure senide Elisabet be: zartzaroan seme bat sortu dau, ta

agorra zana, ume egiteko seigarren illebetera eldu da: Jaungoikoarentzat eziñik ez dago-ta.» Orduan, Maria'k eșan eban: «Ona emen Jaunaren mirabea; egin bedi nigan zeuk diñozunez.»—*Kredo*,

Eskeintza.—Agur, Maria, graziaz bete; Jauna da zugaz; onetsia zu emakumeen artean, eta onetsia zure sabelak sortua. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Indartu egizu, Jauna, gure arimetan egiazko sinismena: Birjiña Amak sortu ebana egiazko Jaungoiko ta gizon zala autorturik, Aren biztueraren indar osasungarriaz, betiko zorionera eltzea lortu dagigun. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza: *Garizuma-egunekoa*.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** Ama iragarte-egunean.

Jaunartzerakoa.—Begira: Neska batek sabelean semea sortu ta argitara ekarriko dau; ta Aren izena Enmanus! izango da. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Isuri egizu, Jauna, gure ańmetan zure grazia: Aingeruak iragarrita, zure Seme Kristo gizon egin zala jakin genduan ezker, Bere nekaldi ta eriotzagaiitik, zeru eojerrera aldu gaitez. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitza: *Garizuma-egunekoa*.

EPAILLABEN 27'GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'gn. *Otoitzak: Damasko'tar Jon deunaren urrengokoak:*

2'gn. *Otoitza.* — Santuen irudien alde egiteko, Jon doatsua zeiuo jakintzaz ta arimako adorez bete zenduan Jaungoiko alguztidun eta betikorra: aren bitartez eta ikasbidez, irudiak ospatzen doguzanen onbideak aintzat artu daiguzala ta euren zaindaritza irabazi daigula. Amaibagako.

2'gn. *Opari-otoitza.*—^Eskintzen dautsuguzan opari-gaiok gogoko izan dakizuzan, Jauna, betorkigu lagun Jon doatsuaren bitartekotasun ona, báita Santuena

be: aren alegiñari eskerrak, elizetan agirian dirala ospatzen doguz-ta. Amaibagako.

2'gn. *Azken-otoitza.*—IArtutako doai santuak, Jauna, zeruko iskillu (arma) lez zaindu gagiezala; ta Jon doatsuaren zaindaritzak inguratu gagizala beste Santuenakaz batera, arein irudiak Elizan ospatu egin bear zirala lortu eban ezker. Amaibagako.

EPAILLAREN 28'GARRENA


Garizuma-eguneko Meza.

2'gn. *Otoitzak: Kapistrano'ko Jon deunare-n urrengokoak:*

2'gn. *Otoitza.*—Jon doatsuaren bitairfez, eta Jesus izarren guztiz santuaren indarrez, zure fededunak gurutzearen arerioen aurka garaille atara zenduzan Jaungoikoa: eiguzu, arimako arerioen zirikaldiak aren laguntzaz azpiraturik, zure eskutik zintzoen korioa artzeko duin izan gaitez. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. *Opari-otoitza.*—Begiratu baketsu, Jauna, egi-ben dautsugun opari au; ta Jon zure autorle doatsuaren bitartez, naiko izan daigula arerioen zirikaldiak austeko ta zure laguntasunaren magalpean egoteko. Amaibagako.

2'gn. *Azken-otoitza.*—Zeruko janariz aseturik eta gozko edariz pozturik, erreguz eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguztidun orri: Jon zure autorle doatsuaren bitartez, arerio gaiztoagandik gorde gagizuzala, ta zure Eliza betiko bakez zaindu dagizula. Amaibagako.



JORRAILLEKO SANTUAK

JORRAILLAREN 2'GARRENA

Garizuma-eguneko Meza.

2'gn. Otoitzak: *Paula'ko prantzisko deunaren urrengokoak*

S'gn. Otoitza.—Aipalen jasotzaille izanik, zure Santuen aintzaz Prantzisko autorle doatsua gora jaso zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren irabaziz eta bitartez. apal diranai agindu dautsezuzan sariak, geuk be esku-ratu daiguzala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Zure altara-ganean ezarten doguzan erri zintzoaren oparigaiok, Jauna, Prantzisko doatsuaren irabaziz, zuri gogoko izan dakizuzala, eta guri, zure errukia lagun, osasungarri izan dakiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Zeruko Eukaristia artuta, Jauna, eiguzu, Prantzisko zure autorle doatsuaren bitartez, bízitza onetarako ta gerokorako Iaguntza lortu daiskula. Amaibagako.

JORRAILLAREN 4'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Isidoro deunarenak.*
- 2) *Pazkoaldian,*

ISIDORO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — *Zur'xz*

Leandro ta Fuljentzio santuen anaia. Gaztetxo zala, bakartaflean gorde eban bere burua; ita luzaro bizi izanik, ezkutu isiltsu orretan, goi-jakitez oso aberats egin zan. Bere idatziak goi-argiz joritsuak doguz; batez be, Erdi-Aroko Elizako zuzi bikain lez agertzen yaku. 633'garren urtean Toledo'n ospatu zan IV'garren Eliz-Batzarreko buru, bera izan zan. f 636.

Meza: In medio, 488 orri.

JORRAILLAREN 5'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Bizente Ferrer deunarenak.*
- 2) *Pazkoaldian,*

BIZENTE FERRER DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — *Zuriz*

Valencia'n jaio zan; gaztetxo zala, Domingo deunaren arteko egin zan. Gizon sutsua egiz eta benetan; izlari garratz eta egokia. España osoa bakarrik ez, baita Prantzia, Italia, Ingiaterra ta beste errialde askotan be iragarri eban Kristo'ren Barri Ona. Edonun egin ebazan mirari gelgarriak, batez be inoana goi-argiz indartu nai ebanean; augaitik, erri osoak atzetik joiakiozan. f 1419.

Meza: Os iusti, 490 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Bizente zure autorle doatsuaren irabazi ta itzez, zure Eliza argitu nai izan zenduan Jaungoikoa: eiguzu zure menpekooi, aren ikasbideak artu daiguzala, ta aren bitartez, gaitz guztietatik gorde gaitzezala. Amaibagako.

JORRAILLAREN 11'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: I'go. Leon deunarenak.*
- 2) *Pazkoaldian,*

I'GO. LEON DEUNA,

Aita Santu, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — *Zuriz*

Erromarra, geienen ustez. Gizon jaungoikozale oni benetan inotsen bere aldikoak AUNCI, baita ondorengoak be. Biotz-zokoa Jaungoiko-maitasunez gainezka eukalako, lortu eban geenez «aundi» izen ori. Atila bera, ipar-basatien buru zana be, Aita Santu onen aurrean dardareak artu ta Italia ta ango bazterrak itzirik, alde egin bear izan eban. Erejien maillu astun, Eliza-Buru zanaren eskubideak sendo zaindu ta gogortu ebazan. Jainko-jakitez sakon, izlari bulartsu ta jori, bere bizitza santuz eta aginte gozoz, Eliza jasoten arduratsu alegindu zan. f 460.

Meza: Si diligis, 464 orri.

JORRAILLAREN 13'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak. Ermenejildo deunarenak.*
- 2) *Pazkoaldian,*

ERMENEJILDO DEUNA, errege ta martiri

3'gn. mallla. — Gorriz

Leobjildo bisigotar erregearen semea; Sevilla'ko Gogozain zan Leandro deunak biurtu eban Elizarako. Bere aitak, orraitifio, ez eban au begi onez ikusi. Ta bein, arriotar gotzain batek eskuetatik gure Jauna artzera beartu nai izan eban; baiña alperrik. H naiago izan eban, orrelakorik egin baiño. 587'garen urtean, borruak sama moztu eutsan. Bere odola ez zan alperrik isuri: urte bi geroago, aren anai Errekaredo ta bisigotar, guztiak Kristo'ren egiazko sinismena artu eban.

Meza: Protexisti, 479 orri., *urrengo Otoitzak eta Barri Ona izan ezik:*

Otoitza.—Ermenejildo zure martiri doatsuari lurreko erreikua zerukoagaitik albora izten irakatsi zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, guk be, aren antzera, ezerez dana itzi, ta betikoa billatu daigula. Amaibagako.

Barri Ona: Nigana norbait, 467 orri.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiak eta otoitzak onarturik, Jauna, garbitu gagizuz misterio onein bldez, eta entzun gagizuz biottz onez. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko gure Jaun orrek!: orain zure Santuen gomutaz alaitzen garanez, poztu gaitezala betiko gerokoan be, arein arpegia ikusiez. Amaibagako.

JORRAILLAREN U'GARRENA

- 1) *Garizuman, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoitzak: Justino deunarenak.*
- 2) *Pazkoaldian,*

JUSTINO DEUNA, martiria

3'gn. mailla. — Gorriz

H'gn. gizaldian kristau-erlejiñuaren alde kémentsu jokatu eban. Or-emen egiazko jakintza biltz. Inzaro jardunarren, jakintza ori ez eban aurkitu Idazti Deunetan baiño. Liburu eder-mamintsuak idatzi euskuzan sin-ismenaren alde; azkenez, 170'garen urtean, odol-eriotza emon eutsoen.

M E Z A

Sarrera.—Ainbat ipuin esan eustezen gaiztoak, baiña ez zure lege antzekoak; nik, ostera, zeure erabagiak iragarri nebazan erregeen aurrean *be*, ta. ez nintzan iotsatu. (P. A. Aleluia, alelufa).—*Ps.* Zonontsuak benetan, Jaunaren lege-bidean garbi dabizanak!—Aintza.

Otoitza.—Gurutzearen zorakeriz Justino martiri doatsuari Jesukristo'ren jakintza arrigarriro irakatsi zeutsan Jaungoikoa; eiguzu, aren bitartez, oker-usteen guzurra astindurik, sinismen sendoa jaritsi daigula. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Otoitza, *Tiburtzio, Baleriano ta Maximo santuena:* Eiguzu, Jaungoiko algutzidun orrek: Tibuntzio, Baleriano ta Maximo zure martiri santuen jaia ospatzen dogun ezkerre, arein onbideai be jarraitu dagiegula. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.:• 1, 18-25, 30).—^Anaiok: Gurutze itza, galtzen diranentzat tentelkeria da; guretzat, barriz, salbatzen garanontzat, Jaungoikoaren indarra da. Idatzita dago-ta: Jakin' tsuen jakintza ondatu egin dot, eta zurren zurtasuna uts biurtu dot. Nun dago jakintsua? Nun ikastuna? Nun gizarteko burutsua? Jaungoikoak ez ete-dau gizarteko jakintza zorotzat agertu?

Izan be, mundua Jaungoikoaren jakintzatik Jaungoikoa ezagutzera jakinbidez ez zan eldu; sinisteduna Barri Onaren iragarte zoroaz salbatzea nai izan dau Jaungoikoak. Judarrak, mirari-billa dabiz; gerkarrak, jakite-eske; guk, ostera, Kristo gurutzetua azaltzen dogu, judarrentzat oztobide, ta gerkarrentzat tentelkeri; deituentzat, ostera, naiz judar naiz gerkar izan, Jaungoikoaren indar eta jakintza dan Kristo. Jaungoikoaren zorakeri dirudiena, giza-jakintza baiño bikaiñago da-ta: Jaungoikoaren makaltasuna dirudiena, barriz, giza-indarra baiño azkarrago. Zuek Beragandik dozue izatea Kristo Jesus'egan; gure jakintza, zulentasun, santutasun eta salbabidea Berau izatea, Jaungoikoak nai izan dau-ta.

Aleluia, aleluia. Gizarteko jakintza zorakeri da Jaungoikoaren aurrean; idatzita dago-ta: Jaunak eza-

gutzen dauz zurren asmoak, ta ba-daki uts dirana. Aleluia: Nik, barriz, guztia kaltegarritzat daukalt Jesukristo nire Jaunaren ezaguera goragarriaren ondoan. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 12, 2-8).—Aidi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ez dago estaldutako ezer be, agertuko ez 'danik; ezta isilpean be, jakingo ez danik. Illuñetan esan dozuena, argitan esango da; eta belarrira gelan esandakoa, etxe-gaiñetik deadarka esango da. Zuoi, barriz, nire adiskideoi, auxe dirautsuet: gorputza il baiño besterik ezin egin daikeen gizonen Hdur ez izan. Noren bildur izan bear dozuen, ostera, erakutsiko dautsuet: gorputza il ondoren, su-lezera (inpemura) jaurti daikeenaren bildur izan zaitetze. Bai, ba-dirautsuet: orren bildur izan zaitetze. Ez ete-dira bost txoritxo xemaiko bitan saltzen? Alan br areitariko batatz be ez dago Jaungoikoa aztuta. Zuen buruko ule guatiak be zenbatuta (kontauta) dagoz. Ez bildurrik izan, ba: txoritxo askok baiño geiago balio dozue zuek. Baita esan be ba-dirautsuet: gizonen aurrean autortu nagiana, Jaungoikoaren aingeruen aurrean Gizasemeak (Jesukristo'k) be autortu egingo dau.

Eskeintza.—Ezer ez neban zuen artean jakin nai, Kristo izan ezik, eta Au, gurutzetua. Aleluia.

Opari-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jaungoiko Jaun orrek, gure oparigaiok: ezkutapen (misterio) arrigarrioren alde gaiztoen ifaiñen aurka, Justino martiri santuak gizonkiro ekin eutsan-eta. Amaibagako.

2^ogn. Opari-otoitza, *Tiburtzio, Baleriano ta Maximo deunena*: Zure martiri santuen zarurako jaiotza gogoratuaz eskintzen dautsugun Opari onek, Jauna, gure pekatuen kataiak ausi, ta zure errukiaren doaiak lortu daiskuzala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: Pazkoeiakoa, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Zuzentasunaren koroia daukat gordeta niretzat; eta egun aretan, epaille zuzena dan Jaunak emongo daust. Aleluia.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz indarturik, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna: Justino zure martiri doatsuaren irakatsien bitartez, artutako graziakaitik beti esker-ordainka irauan daigula. Amaibagako.

2^ogn. Azken-otoitza, *Tiburtzio, Baleriano ta Maximo deunena*: Eukaristi santuaz aseturik, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna: opari au eskintzean zor yatzun menpetasuna agertzen dautsugunez, zure grazia geroago ta geiago somau dagigula gudan. Amaibagako.

JORRAILLAREN 1^oGARRENA

Aurreko, Joan & Ego Meza: 2^ogarren Otoitzak: Anizeto deujarenak, Si diiigis, 464 orri.

JORRAILLAREN 21^oGARRENA

ANSELMO DEUNA, gotzain, autorle ta irakasle

3^ogn. mailla. — Zurlz

Sendi (famHi) kristau ta odol argikotik, Italia'ko Aosta eiritxoan jaiotako zan. Ogei ta bat urteko zalla, beneditarren ijantzia artu eban. Geroago, Kantorbery'ko Goigotzain, Elizabethen ogasunak lapurtu nai ebezan errege biren aurka, nor aan eta zer balio eban argiro erakutsirik, edozein ez lako gizon trebe ta zintzo agertu zan. Teoloji-gaietan oso jaiitua, Jaungoiko-galetaz luze ta sakon idatzi euskun; eta bere idatziak gaur be, adimena argitu bakarrik ez, baita biotza galdatu be egiten dabe, f 1109.

Meza: In medio, 488 orri.

JORRAILLAEN 22^oGARRENA

SOTERO TA KAIO DEUNAK,

Aita Santu ta martiriak

3^ogn. mailla. — Gorritz

Sotero, Anizeto'ren oruioarengo Aita (Santu; erejien aurka kementsu agertu zan beti, ta azkenez, 171^ogarrenean, martiriaren koroia lortu eban.

Eun urte geroago bizi izan zan Kaio, Diokleziano erregearen jatorrikoa; amabi urtean zaindu eban Eliza, edozein bat ekaitzen erdian; eta neke-oinazetan il ezarren, lor eta atsekaberik naiko jasan eban. f 296.

Meza: Si diiigis, 464 orri.

JORRAILLAREN 23^aGARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2^ogn. Otoitzak: Gorka (Jorje) deunaren urrengokoak:

2^ogn. **Otoitza**.—Gorka zure martiri doatsuaren iirabazi ta bitartez pozten gaituzun Jaungoikoa: eiguзу biotz samur, aren bitartez laguntasuna eskatzen dau-tsugunok, zure graziaren doaiatz lortu dagigula. Amaibagako.

2^ogn. **Opari-otoitza**.—Onetsi, Jauna, eskiñi dauteuguzun oparigaiok; eta euron bidez eta Gorka zure martiri doatsuaren bitartez, garbitu gagizuz gure pekatuen loikerietatik. Amaibagako.

2^ogn. **Azken-otoitza**.—Apal-apal eskatzen dau-sugu Jaungoiko alguztidun orri: Eukaristiaz janaritzen gaituzun ezkeru, Gorka zure martiri doatsuaren bitartez, oitura santuz zure menpeko zintzo izan gaitezala. Amaibagako.

JORRAILLAREN 24^aGARRENA

SIGMARINGA^{ko} FIDEL DEUNA, martiri

3^ogn. mailla. — Gorriz

Alemaniarra jatorriz, eta legegizon gero. Prantziskotarren Lagundiko egiñik, siñausleai zerurako bidea irakasten eten baga jokatu eban; augaitik, bein, arazo txalogarri onetart ziarduala, gudari protestante batzuk tiroka ta sastaka il eben. 1622^ogn. urtean zan au. Sinismen-Zabalkundeko len -martiri dogu berau.

Meza: Protexisti, 479 orri., *Otoitz au izan ezik*

Otoitza.—Fidel doatsua, sinismena zabaldu egian, serafiñen gogo biziz sutu ta martiri-adar eta mirari goragarriz edertu zenduan Jaungoikoa: aren irabazi ta bitartez, sinismen eta goi-maitasunean zure graziatz indartu gagizuz, zure morroitzan eriotzaragiño zintzo irauteko gei egin gaitezun. Amaibagako.

JORRAILLAREN 25^aGARRENA

MARKOS DEUNA, Ebanjelaria

3^ogn. mailla. — Gorriz

Fedro deunaren lagun Kristo'reri irakatsia iragarten, Jesukristo'ren Barri On^a (Bbanjeaioa) idatzi eban, Erroma'ko Kristauai zuzendutakoa; Ejipto'ko Alejandria'n zabaldu eban batez be. Geroago, uri aretako Gotzain izan zan. Venezia'n datza bere gorpua. Irudietan, leoi-arpegia ondoan dauala ikusten da.

Gaur, ARRENTZA (Letaiñi) NAGÚSIAK egiteko eguna be ba-da. Letaiñi ta errogatiba, itz bi diranarren, esanai bardina dabe. Oitura zaarra da H'izan letaiñiak kantatzea, batez be Santuen bitartez Jaunagantik zerbait jadetsi nai dogunean. Jorraillaren ogei ta bostean egin oi dana, Markos deunaren jaia ospatzen asi baiño askoz lenagotikoa dogu. Itxuraz, Erroma'n izan eban asikera, sinisbageak egin oi eben jai bat kentzearren. Geroago, gaiñera datorkiguzan gaitzetatik, batez be gure azi, solo ta landetara datorkiguzanetatik, zaindu gaizala Jaungoikoari eskatzeko erabilten doguz erregu eta eskari oneik. «Nagusiak» derltxegu, Jaunaren zerura igokunde aurreko iru egunetan ospatzen diran Txikiakaz ez nastearren.

M E Z A

1) *Ibildeun-ostean, Letaiñi-Meza esaten da, 301 orri; 2^ogn. Otoitzak: Markos deunarenak.*

2) *Ibildeunik egin ezik, Markos deunaren urrengoko Meza:*

Sarrera.—Atara nozu, Jaungoiko orrek, gaitztoen maltzurkerietatik, aleluia; gaiztakeria egiten dabenen korapillotik, aleluia, aleluia.—Ps. Entzun, ene Jaungoiko, nire otoitza, Zeuri deiez nago-ta; gorde egizu nire arima arerioJbildurretik.—Aintza.

Otoitza.—Markos zure Ebanjelairi doatsua, Barri Ona zabaltzeko graziz jantzi zenduan Jaungoikoa: eiguзу, aren irakaspentak on egin dauskula beti, ta aren otoitzak zaindu gagizala. Amaibagako.

2^ogn. **Otoitza**, *Letaiñetakoa*: Eiguзу, Jaungoiko alguztidun orrek: gure estualdian zure erukian uste ona dogun ezkeru, gaitz guztietan zure laguntasunaren indarra izan daigula gugan. Amaibagako.

Irakurgaia (Ezekiel, 1, 10-14).—Lau aberen arpegi -antza auxe da: Gizon-arpegia ta leoi-arpegia eben es-

kumako laurak; zezen-arpegia lauen ezkerretakoak; arrano-arpegia lauen gainekoak. Arpegi ta egoak, gainean zabaldurik eukezan: bakoltzetik bi alkar batzen ziran, eta beste biak euren gorputzak estalzen ebezan. Eta bakoitza aurrera begira ebillen: aizearen indarrak bultz egiten eutsen lekurantz joazan, eta ba-joiatzala, ez ziran atzeruntz biurtzen. Eta abere onein erdian su-txingar gorien antzeko ikuspena agiri zan, zuzi iziotuen antzekoa. Auxe zan abereen erdian, aruntz-onuntz ebillen ikuspena; su dizditsua, ta sutatik urtendako oiñeztuak. Eta abereak joan-etorrika ebizan, oiñeztu diztiratsuen antzera.

Aleluia, aleluia. Zeruak, zure lan arrigarria ospatzen dau, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia. Buruan pitxi ederrezko koroia ipifu dautsazu, Jauna. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 10, 1-9).—Aldi aretan, Jaunak beste irurogei ta amabi ikasle aukeratu ta biñaka bere aurretik bialdu ebazan, Berak joan bear eban uri ta alde guztietara. Eta auxe zirautsen: «Uzta (solo-aria) ugaritsua da; langilleak, barriz, gutxi. Uztaren jabeari erregu egiozue, ba, langilleak bere solora bialdu dagizan. Zoaze: bildotsak otso-artera legez bialtzen zaïtuet. Ez egizue zorrerik, ez zakaturik, ez oiñetakorik eroan; eta bidean iñori agurrik ez egin. Sartu zaitezen etxean, barriz, lenengo esan: «Bakea etxe onentzat»; eta an bake-semerik ba'dadi, zuen bakea aren gainera jatsiko da; bestela, zeuekana biurtuko da. Etxe aretan bertan egon zaiteze, emon dagitzuena jaten eta edaten: langiileari bere saria zor yako-ta. Ez aldatu etxe batetik bestera. Ta sartu zaitezen edozein uritan ondo artu ba'zagieze, aurkeztu dagitzuena jan egizue, ta ango geisoko osatu egizue, ta esan egiezue: Jaungoikoaren erreïña urrean dozue.»—*Kredo*.

Es'kaintza.—Zeruak, zure lan arrigarria oapatzen dabe, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia, aleluia.

Opari-otoitza.—Markos zure Ebanjelari doatsuaren jaian oparigaiok guk Zuri eskintzean, Jauna, egizu, santu au Barri Ona zabaltzeak argitsu egin ebanez, gu be, aren bitartez, itzez eta egiñez zure gogoko izan gaitetzala. Amaibagako.

2^ogn. Opari-otoitza, *Letaiñetakoa*: Oparigai oneik, Jauna, gure pekatuen kataiak ausi dagiezala, ta zure errukia jadetsi dagiguela. Amaibagako. .

Kanon-aurrea: Apostoluena, ...orri.

Jaunartzerakoa.—Zintzoak Jaunagan jarriko dauz bere poza ta ustea: biotz-zintzo guztiak poztuko dira. Aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Zure Eukaristiak laguntza etenbagea emon daiskula, Jauna; ta Markos zure Ebanjelari doatsuaren eskarien bidez, gaitz guztietatik zaindu gagingizala. Amaibagako.

2^ogn. Azken-otoitza, *Letaiñetakoa*: Abegi onez artu egizuz, Jauna, gure eskariak: gure estualdian zura doaiak arturik, poz onen bidez zure maitasunean giero ta geiago azi gaitzean. Amaibagako.

JORRAILLAREN 26^aGARRENA

KLETO TA MARTZELINO DETJNAK,

Aita Santu ta martiriak

3^ogn. mailla. — *Gorriz*

Kleto deuna, San Pedro'ren bigarren ondorengoa; 76^ogn. urtetik 91^oeraïño Eliz-ontziaren zuzentzaille izan zan; Domiziano agitariaren menpean, barriz, Kristo'ren simismenari eustearren, eriotza jasan eban. Bere izena Kanon'eko lenengo zerrendan agertzen da.

Martzelino deunak, 296^ogarren urtetik 204^ogarrenera zaindu eban Bliza; Diokleziano gaitzoaren aginduz egindako jazarpen ikaragarrian, burua moztu eutsoen.

Meza: Si diligis, 464 orri.

JORRAILLAREN 27^aGARRENA

KANISIO'TAR PEDRO DETJNA,

autorle ta irakasle

3^ogn. mailla. — *Zuriz*

Holanda'n jaio zan 1521^ogn. urtean; egin-eginean be, Luteru Elizatik alboratu ta Loiola'tar Eneko Jaunaganatu ziran urtean. Biotza sutan, protestantien aurka gogor ekin eutsan egiazko sinismena batez be Alemani-aldean zabaltzen. Eginez, jakitez eta deuntasunez aundi dogu. Bere idatzietatik zabailduena ta entzuterik geien dauana, «Kristau-Ikasbidea») da. 1597^ogn. urtean il zan.

Meza: In medio, 488 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Ka/toliku-sinismenaren alde jokatzeko, Pedro zure autorle doatsua onoinen eta jakitez indartu zenduan Jaungoikoa: eiguzu biótz onez, aren jarraibie ta ikasbideen bitantez, oker dabiltzanak bide onera biurtu daitezala, ta zintzoak egia autortzen iraun da-giela. Amaibagako.

JORRAILLAREN 28'GARRENA

GURUTZKEO PAULO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Umetarik agertu zan Kristo'ren gurutzeaganako zaletsu. j Urteak joan, urteak etorri, Nekalditarren (Pasionisten) La-gundia sortu eban; batez be, arimen alde lan egin eta Kristo'ren neke ta eriotzako ezkutu edo misterioak euron biotz-bareneraño eroateko, -\ 1775.

M E Z A

Sarrera.—Kristo'gaz gurutzen josita nago: bizi naz, ni ez baiña, Kristo nigan baiño: maite nenduan eta bere burua neugaitik emon ebanaren sinistez bizi naz. Aleluia, aleluia.—Ps. Zorionsua beartsu ta txiroaren ardura dauana: Jaunak zainduko dau egun larrian. —Aintza.

Otoitza.—Gurutzearen ezkutapena iragarteko, Paulo sarituari goi-maitasun berezia emon, eta aren bitartez, sendi (famili) barri bat Elizan loratzea nai izan zen-duan Jesukristo Jauna: eiguzu, bera bitarteko dogula, lurrean zure Nekaldia beti gogoraturik, aren saria ze-ruetan jadetsi daigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoi-ko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 1, 17-25).—Anaiok: Ez nenduan Kristo'k bateatzera bial-du, Barri Ona zabaltzera baiño; ta ez itz jakitunez ge-ro, Kristo'ren gurutzea alperreko egin ez daiten baiño. Gurutze itza, galtzen diranentzat tentelkeria da; gu-retzat, barriz, salbatzen garanontzat, Jaungoikoaren indarra da. Idatzita dago-ta: Jakintsuen jakintza on-datu egin dot, eta zurren zurtasuna uts biurtu dot. Nun

dago jakintsua? Nun ikastuna? Nun gizarteko buru-tsua? Jaungoikoak ez ete-dau gizarteko jakintza zoro-tzat agertu? Izan be, mundua Jaungoikoaren jakintza-tik Jaungoikoa ezagutzera jakinbidez ez zan eldu; si-nistedun Barri Onaren iragarte zoroaz salbatzea nai izan dau Jaungoikoak.

Judarrak, mirari-billa dabiltz; gerkarrak, jakite-es-ke; guk, ostera, Kristo gurutzetua azaltzen dogu, ju-darrentzat oztobobide, ta gerkarrentzat tentelkeri; deituentzat, ostera, naiz judar naiz gerkar izan, Jaun-goikoaren indar eta jakintza dan Kristo. Jaungoikoa-ren zorakeri dirudiena, giza-jakintza baiño bikaiñoago da-ta; Jaungoikoaren makaltasuna dirudiena, barriz, giza-indarra baiño azkarrago.

Aleluia, aleluia. Guztiokaitik il zan Kristo; arrez-kerro, toizi diranak ez daitezcan eurentzat bizi, eurakaitik il eta berbitsu zanarentzat baiño. Aleluia. Seme ba'ga-ra, baita oiñoordeko be; Jaungoikoaren oiñoordeko, izan be, ta Kristo'ren oiñoorde-lagun; Aregaz nekeak jasan ba'dagiguz, barriz, Aregaz batera goratuak izateko. Aleluia.

Bari Ona: Jaunak beste irurogei ta amaibi, 596 orri.

Eskeintza.—Maitasunean bizi zaiteze, Kristo'k gu maite izan genduzanez, eta gugaitik usain gozozko eski-ñi ta oparizat Jaungoikoari bere burua emon eutsan antzera. Aleluia.

Opari-otoitza.—Zeruko Eukaristi onek, Jauna, emon daigula zure Nekaldi ta Eriotzaganako sugarra: Paulo deunak Ori eskintzean, bere porputza oparigai bizi, santu ta atsegingarri Zuri erakutsi eutsunean izan eban antzera. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Kristo'ren neke^lagun izanaz poztu zaiteze; Aren goraldia agertu daitenean be, pozez bete-rik egon zaitezen. Aleluia.

Azken-otoitza.—Artu dogu, Jauna, zure maitasur neurri bagea gomutarazoten dauksun zeruko Eukar^A tia: eiguzu, arren, Paulo deunaren irabaziz eta f^{en} antzera, atara daigula zure iturrietatik betiko y f^{en} raino jagiten dan ura, ta zure Nekaldi guzfe^{San r,ua,} gure biotzetan josita dakargula, geure bizitzar^{da eKa n-}

duetan be agertu daitela. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

JORRAILLAREN 29'GARRENA

BERONA'KO PEDRO DEUNA, martiria

3'gn. mailla. — Gorriz

Gurasoak manikeotarteko ebazan. Maisu on baten irakatsien bidez, Domingotarren Ordena barrian sartu zan, eta egiazko sinismenera ainbat ekarri ebazan. Azterkari zala, Komo'tik Milan'erako bidean, sifausleak (erejeak) arrapatu ta bizia kendu eutsoen. Azken-arnasa emon orduko, bere oc'olaz Kredo itza idatzi eban lurrean. f 1252.

Meza: Protexisti, 479 orri., *beste oneik izan ezik:*

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek, Pedro zure martiri doatsuaren sinismenari gartsu jarraitu daigula: fedea zabaltzearren, martirien ereiñotza lortzea jaritsi eban-eta. Amaibagako.

Irakurgaia: Gogoratu egizu, 472 orri.

Opari-otoitza.—Entzun samurkiro, Jauna, Pedro zure martiri doatsuaren bitartez eskintzen dausuguzan eskariok; eta gorde egizuz zure babespean fedea zabaltzen diarduenak. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristiak, Jauna, gorde dagizala zure fededunak; eta Pedro zure martiri doatsuaren bitartez, arerioen ekiñaldi guztietatik zaindu gagizala. Amaibagako.

JORRAILLAREN 30'GARRENA

SIENA'KO KATALIN DEUNA, birjiña

3'gn. mailla. — Zuriz

Zazpi urteko zala, bere gorputz-arimako garbitasuna Taungoikoari eskiñi eutsan. Berē amak ezkondu'ta ikusi nai j:an; alabea, ostera, ez joian bide orretatik. Augaitik, neke p'rrik asko jasan bear. Jaunagaz lotuago egiteko asmoz, roacer ^{urteko} zala, dominiken irugarrendar egin zan. Ge-
?,-kale, ze'i ta espetxe zear ibilli zan, erri-naaste ta ziran Ai^{tan} fausitakoai lagun egiten. Abiñon'era aldatu bultzakad Santuai be, ostera be Erroma'ra biurtu zeitezan,
^a ^derrak emon eutsezan, bai aolkuz (kontzejuz)

bai itz gogoz. Goitar jakintzaz ornidua, ta etorri zolika edozein gaietan. Ogei ta amairu urte ebazala il zan, 1380gn. urtean.


Meza: Dilexisti, 500 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek, Kata-Jin zure birjiña doatsuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkeru, aren urteroko jaian poztu ta damoskuzan eredu-onbidez aurreratu gaitzezala. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Katalin doatsuaren egunean eskeintzen dausuguzan otoitzak eta osasunezko opari au, Jauna, igo bekizuz usain gozo garbia dariola. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Asetu gaituan zeruko janari onek, Jauna, emon daiskula betiko bizitza: Katalin birjiña doatsuari lurreko bizitza be Onexek emon eutsan-eta. Amaibagako.





ORRILLEKO SANTUAK

ORRILLAREN IGOA

JOSE DEUNA,

IangiIlea, Andra Maria'ren senarra

l'gn. mailla. — Zurxz

Lengo aldi baten legez, Eliza Aimak berenak ez zirar> jaiegun batzuk kristau-jai biurtu ebazanez, gaurko egunari be orixe egin dautso: lanaren eguna kristau-jai egin, Josa deunaren ardurapean jarririk. Langilleen eredu jatorra San Jose, Jesukristo bere semeordekoari lan egiten irakatsi eutsan gizon aukeratua! Berak zaindu gazizala gure arazo ta lan guztietan, eta biztu dagizaia langille ta ugazaben artean Kristo'ren zuzentasuna ta maitasuna.

M E Z A

Sarrera.—Jakintzak zintzoai lan-saria enion eutsen, eta mirariz beteriko bi'detik eroan ebazan; egunez geriza ta gabez izar-argi izan yaken. (P. A. Aleluia, aleluia).—Etxea Jaungoikoak egin ez ba'dagi, alperrik egingo dabe lan a egiten dabenak.—Aintza.

Otoitza.—Gizonai lanaren legea ezarri zeutsen Jaung<iko izaki guztien egillea! Eiguzu, arren, Jose deunaren ereduz eta bitartez, agintzen dauskuzuzan egitekoak <mdo bete dagiguzala, ta zure agintzariak jedetsi dagigu^ja. Amaibagako.

Irakurtaia, (s. paulo'k Koloso'koai, 3, 14-24).—Anaiok: Mutasuna izan egizue, zintzotasunaren loka-

rria da-ta. Goi-goi bego zuen biotzetan Kristo'ren ba-kea, gorputz bait egiñaz, orretarako deituak izan za-ree-ta. Izan zainteze eskarroneko. Ta egin naiz esan dagizuen guztia, J'esukristo Jaunaren izenean egizue, Bere bidez Jaungoiko Aitari eskerrak emonik. Egin dagizuena, biotzez egizue, Jaunari atsegingam zakiozela, ta ez gizonai. Ba-dakizue Jaunaren eskutik sarritzat ondorea (zerua) artuko dozuena. Izan zaitzeze, ba, Kristo Jauoiaren menp'eko.

Aleluia, aleluia. Edozein naigabetan dei egm dagitenean, entzungo dodaz, eta zaindari izango nakie beti. Aleluia. Egizu, Jose, bizitza errubagea eroan dagigula, ta zure magalpean egon gaitetzala beti. Aleluia,

(Barri Ona <Mat., 13, 54-58>.^Aldi aretan, Jesus'ek, bere errira etorririk, sinagogetan irakasten eutsen, eta arriiuta, alkarri zirautsoen: «Nundik datorkioz orri orrslako jakintza ta mirariak? Ez ete-da au arotzaren semea? Onen ama, Maria ez ete-da?, ta bere anaiak (1) ez ete-dira Santiago ta Jose, Simon eta Judas? Onen arrefca guztiak, be, ez ete-dira emen gugaz? Nundik datorkio, ba, guzti ori?» Ta gizon gaiztotzat artzen eben. Jesus'ek esan eutsen: «Ez da igarlerik onartua izan bere errian eta bere etxean.» Eta ez eban an mirari afkorik egin.—Kredo.

Eskeintza.—Izan datela gure gaiñean gnre Jaungoiko Jaunaren ontasuna; indartu egizuz gure eskuetako egiKzunak; bai, indartu egizu gure eskuetako lana. Aieluia.

Opari-atoitza.—Egizu, Jauna, eskintzen dautsuguzan oparigafook gure eskuak egindakoak diran ezker, Jose cieunaren bitartez, batasunerako ta bakerako izan dagiguzala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Jose deunarena*, 456 orri.

Jaunartzerakoa.—Nundik datorkioz orri orrelako jakintza ta mirariak? Ez ete-dá au arotzaren semea? Onen ama, Maria ez ete-da? Aleluia.

Azken-otoitza.—Artu dogun'Eukaristi onek, Jauna, Jose doatsuaren bidez, santutu dagizala gure lanak eta indartu daiskula saria. Amaibagako.

(1) Anaiak eta arrebak: emen lengusu-lengusiñak ulertu bear da.

ORRILLAREN 2'GARRENA

ATANASIO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. malta. — Zur'iz

Alejandría'n bere jaioterriko Gotzain, arríotarren aurka inok baiño sutuago jokatu eban, Aldi aretan errega, kaisar, sasi-batzar, arriotar eta gizarte osoa be, Kxisto ta bere otsein zintzo Atanasio'ren aurka jagi zirala esan zeikean; baiña aren gogo bizi ta adoretuari eskerrak, guztiak azpiratu ebazan. Gizon egikor eta kementsua, orain idatzi ta itzaldi sutuz entzuleak iziotu, gero makalái eutsi ta zalantzan egozanai indar barria emonik, guztien aita ta maisu. 7 373.

M E Z A

Sarrera.—Batzar-erdian edegi eban agoa, ta Jaunak jakintzaz eta zurtasunez bete eban: soñeko argitsua jantzi eutsan. Aleluia, aleluia.—Ona da Jauna autortzea, ta zure izsna goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Entzun, Jauna, zure autorle ta gotzain fiianasio doatsuaren jaiegunean egiten dautsugui[^], eskariak; eta zure otsein jator izan zanaren irabaziakaitik, parkatu eiguzuz gure pekatu guztiak. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gna.: 4, 5-14).—Anaiok: Ez diardugu geure buruak iragarten, Jesukristo gure Jauna baiño: Jesus'egaitik, geu be zuen moiroi azaltzen: «Ilunetatik argia egin bedi» esan eban Jaungoikoa Bera diztiratu da gure biotzetan, Jesukristo'ren arpegitik darion Jaungoiko-aintzaren ezaguera argitzeko. Ondasun au, barriz, lurrezko ontzietan doroagu, onenbesteko indarra Jaungoikoari e&otzi dakion, ez guri. Atsekabe askotan gabiltz, baiña ez itota; larri, bai, baiña ez ustea galdurik; jazar-tuta, baiña ez eskutik itzita; beeratuta, 'baiña ez galdurik. Jesus'en eriotza gorputzean doroagu beti, Jesus'en bizitza be geure gorputzean agertu dadin. Bizi goranok, Jesus'egaitik beti il-zorian gagoz-ta, Jesus'en bizitsi gure aragi ilkorrean agertu dadin. Beraz, guran eriotzak diardu, ta zuekan bizitzak. Alan be, sinismen-gogo bardiña dogu, idatzita dagoanez: «Sinistu neban, eta orrexegaitik egin neban itz». Eta guk

be, sinijste-gogo auxe daukagulako egiten dogu itz. Ba-dakigu Jesukristo biztu dauanak, gu be Jesus'egaz biztu ta zuekaz jarriko gaituana-ta.

Aleluia, aleluia. Abade zara zu betiko, Melkisedek'en sailean. Aleluia. Zorionsu, tentaldia ondo eroan dagian gizona: aretan aztertu dagienean, bizitza-koroia jadetsiko dau-ta. Aleluia.

Iiarri Ona (Mat., 10, 23-28).[^]Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Uri baten aurean erabilli zagiezenean, beste batera iges egizue; benetan dirautsuet: ez dozeu Israel'go uri guztiak biurtzen amaituko, Gizasemea (Jesukristo) etorri baiño len. Ez da ikaslea bere irakaslea baiño geiago; ezta morroia be bere ugazaba baiño geiago; ikasleak naiko dau bere irakaslea lakoa izatea, ta morroiak bere ugazaba "a-kca. Etxeko jaunari Beelzebul (txerren) gaitzizena ezarn ba'dautsoe, zenbat areago Áren etxeokoai? Ez izan, ba, arein bildur: ezer be ez dago gordeta, agiri izango ez danik-eta; ezta ezkuturik be, jakingo ez danik. Ilunetan dirautsuedana, argitan esan egizue; ta agotik belarrira entzuten dozuena, etxegaiñetik deadarrez esan egizue. Gorputza ilten dabela, gogoa (arima) ezin il daikenen bildur ez izan; arima ta gorputza su-barrrendira (inpernura) jaurti daikezanaren bildurrago izan zaitezte.

Eskeintea.—Dabid nire morroia aurkitu dot, eta oro santuz igurtzi dot; neure eskua izango dau lagun, eta neure besoak indartuko dau. Aleluia.

Opari-otoitza.—Zure autorle ta gotzain Atanasio doatsuaren urte-egunak, zure begiko egin gagizala, Jauna; ta oparigai eztigarri onein bidez. zeruan ederrago agertu dadilla, ta guri zure graziaren doaiak jarrisi daiskuzala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Ulunetan dirauteuedana, argitan esan egizue, diño Jaunak; eta agotik belarrira entzuten dozuena. etxe-gaiñetik deadarrez esan egizue. Aleluia.

Azken-otoitza.—Arima zintzoen sari-emoille zaran Jaungoikoa: egizu, eguna ospatzen dogun zure autorle ta gotzain Atanasio doatsuaren bitartez, lortu dagigula zure parkamena. Amaibagako.

Aurreko Igandeko Meza; 2^ogn. Otoitzak, Alexander, Ebeiu tzio, Teodulo ta Jubenal deunen urrengokoak:

2^ogn. Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek: Alexander, Ebentzio, Teodulo ta Jubenal zure santuen zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkeru, euron bitartez, onik urten gaitetzala gainera datorkiguzan gaitz guztietatik. Amaibagako.

2^ogn. Opari-otoitza.—Jatsi daitela zure onespen ugaria, Jauna, oparigaion gainera: samurkiro santutu ta poztu gagizala zure santuen egunean. Amaibagako. i

2^ogn. Azken-otoitza.—Janari santuaz indartu garan ezkeru, eiguzu, gure Jaun eta Jaungoiko orrek: Alexander, Ebentzio, Teodulo ta Jubenal zure santuen bitartez, opari onen fruitua somau daigula gugan, areiní jaia ospatzen dogu-ta. Amaibagako.

MONIKA DEUNA, alarguna

3^ogn. mailla. — Zuriz

Emakume ospatsu onen otoiak bai goi-endarra! Oker-bitetik ebizan bi, zuzenera ekarri ebazan: lenen, bere senarra, ta gero bere seme Agustin. Ostia'n il zan, 387^{gn}. urtean. Eroapen aundiz eta negar-malkoz garaitza biok lortu ebazalako, kristau-arnen zaindari da.

Meza: Cognovi, 505 orri., beste oneife *izan ezik:* „

Otoitza.—Atselkabetuén pozkille ta Zugan uste ona dafoensn osasuna zaran Jaungoikoa! Monika doatsua-ren ne-gar sarnurrak bere seme Agustin'en onbideratzean errukitsu artu zenduzana: eiguzu. bialK bitarteko doguzala, geure pekatuakaitik negar egin eta zure graziaren parkamena jadetsi daigula. Amaibagas>.

Ira-kurguaia (S. Paulo'k Timoteo'ri l'goa.: 5, 3-10).—Guztiz rnaite ori: Andra alargunentzat, benetako alargunentzat, begirunea eukizu. Ta alakoren batek semerik naiz illobarik ba'dauko, ikasi begi lenengo bere etxea zaintzen, .ta gurasoai,eskarrona ordaintzen: Jaungoikoari ori atsegin yako-ita. Benetako alargunak, oste-ra, bakarrik geldituak, Jaungoikoagan dau bere uste ona, ta gau ta egun erregu ta otoiketean diardu. Atse-

giñetanbizi dana, barriz, bizi izanarren be, ilda dago. Ta auxe egiteko esan egiozu, iñok agirakarik egin ez dagon. Beretarren eta batez be etxekoen arduvarik ez dauanak, barriz, sinismena ukatu dau, ta sinisbagea baiño gaiztoago da. Alarguna, gutxienez irurogei urte-jcoa aukeratu bear da, senar bakarraren emazte izarra; egintza onez ezaguna; semeak azten, arrotzai osatna eskintzen, santuen oiñak garbitzen, atsekabftuailagun egiten, eta guztitariko onoiemenak ib'rtuteak) egiten arduratsu izana.

Barri Ona: Jesus iNaim deritxon urira joian, 371 orri.

V^aGARREN PIO DEUNA, Aita Santu ta autorle

3^ogn. mailla. — Zuriz

Lonbardarra jaiotzez; amalau urteko zala, dominikuen Ordenan sartu zan. Aita Santu zala, Alemania ta Prantzia'ko protestantien aurka gogor jagi ta bideak ebagi eutsezan; baita Inglaterra'ko Elisabete Elizatik jaurti be. España ta Venezia'ko indarrakaz alkar arturik, arabitarren arrokeria Lepanto'n ezereztu eban. Trento'ko Batzar Nagusia,k erabagitako legeak Eliza osora zabaldu ebazan; baita Meza-liburua ta Liturji erromarra erabarritu be. f 1572.

Meza: Si diligis, 464 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Zure Elizaren arerioak azpiratzeko ta Eliz-gurkera* lengo erara biurtzeko, Pio doatsua Aita Santu aukeratu zenduan Jaungoikoa; aren laguntzak zaindu gaizala ta zure menpean irauñ daigula eiguzu: are-rio guztien ekiñaldiak azpiraturik, betiko bakeaz poztu gaitzean. Ainaibagako.

ESTANISLAO DEUNA, gotzain eta martiri

3^ogn. mailla. — Gorritz

Polakarra; Krakobia'ko Gotzain zala, Bolesla erregeari, nasai baizen loi bizi zalako, gogor egin eutsan agiraka. Erregea, barriz, osoan sumindu zan; eta, gure Santua meza emoten eguala, toere eskuz bizia kendu eutsan, 1079^{gn}. urteko Orrillaren 8'an. Erregeak, azkenez, damutu ta penitentzi aundia egin eban.

" Bliz-gurkera = culto divino.

Meza: Protexisti, 479 orri., *Otoitz oneik izan ezik.*
 O. toitza.—Jaungoikoa! Zure izenagaitik Estanislao getzain argitsua gaiztoak ezpatz 11 eben ezkeru, eiguzu, aren laguntza eskatzen daben guztiak, euren eskari osasungarria jarltsi dagiela. Aimaibagako

Opari-otoitza.—Onetsi, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta zure martiri ta gotzain Estanislao doatsuaren bitartez, begiratu gagizuz samurkiro. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, pekatu guztietatik garbitu gaizala, ta Estanislao zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, zeru-saria artzea jadetsi daiskula. Amaibagako.

ORRILLAREN 9'GARRENA

NAZIANZO'TAR GREGORIO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Goi-inez «Teologo» deritxona; Basilio aundlaren adiskide miña; erti-gaietan oso ikasia urten zan Atenas'ko ikaste. txeta/n; eta gero, oraindiño gazte zala, bakartetxe batera baztertu zan. Teodosio aundiaren aginte-aldian, Konstantinopla'ko Gotzain izentatu eben; baiña ille gutxi barru bere gotzaintza itzi ta azken-uTeak, naiko atsekabetuta, bere aberrian igaro ebazan. Basilio ta Jon Krisostomo deunafaz, gerkar BMzako Irakasieen irukoitza egiten dau.

Meza: *In medio*, 488 orri., *urrengo* Irakurgaia iza ezik:

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 39, 6-14).—Zintzoa, goizean goiz jagirik, Jaungoikoari otoitzean biotz osoz asiko yako. Otoitzerako pgoa edegi. ta bere pekatuen parkamena eskatuko dau. Jaun aundiak nai ba'dau, adimen-graziz beteko dau; euria baizen ugari bialduko dautso itz zurra. Otoitzean Jauna autortuko dau, ta Onek burubide ta eginbidea emongo dautsaz, baita Jaungoikoar.en gauza eskutueta argitazuna be. Orrela, ikasi dauana, agirian zabalduko dau, ta bere Jaunaren alkartasuneko legeaz goratuko da. Aren izena askok goratuko dabe, ta iñoz be ez da itzungiko (amatauko). Aren gomutapena ez da galduko, ta aren izena gizatdiz-gizaldi bizi izango da.

Aren jakitura erriak ospatuko dabe, ta aren gorapena Bätzarrak iragarriko dau.

ORRILLAREN 10'GARRENA

ANTONINO DEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

XV'garren gizaldiko itxaso artegatsu ta loian bizi izanaren, goi-goi egiten dau ditzir.a dominiku jaungoikozale onen santutasunak. Plorenzia'ko Goigotzain izan zan. Eta oso zur eta barru-gaietan jakituna zalako, «Aolkulari» (edo kontseju-emoille) izenaz ezagutzen eben. f 1459.

Meza: Statuit, 484 orri., *Otoitz oneik izan ezik:*

Otoitza.—Lagun bekigue, Jauna, Antonino zure autorle ta gotzaiñaren irabaziak: aregan egin zenduanagaitik arrigarri zarala autortzen zaitugunez, gutzaz errukior izan zintzazalakobe poztu gaitez. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Gordiano ta Epimako deunena*: Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: Gordiano ta Epimako zure martiri doatsuen jaia ospatzen dogun ezkeru, eurak zure aurrean daben bitartekotasunez lagun dakiguzala. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Poztu gaguezala toki guztietan, Jauna, zure santuak; eta arein irabaziak ospatzean, euren bitartekotasuna be izan dagigula. Amaibagako.

3'gn. Opari-otoitza, *Gordiano ta Epimako deunena*: Artu biotz onez, Jauna, Gordiano ta Epimako zure martiri doatsuen irabazien bidez eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta betiko bizitza lortzeko lagun egin daiguela. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek: artu dogun Eukaristiagaitik eskerrak emonez, zure autorle ta gotzain Antonino doatsua bitarteko dala, gero-ta grazi ugariagoak artu daiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Gordiano ta Epimako deunena*: Arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zeruko janaria artu dogunok, Gordiano ta Epimako zure martiri santuen bitartez, gaitz guztien aurka egiteko lagun-tza izan dagigula. Amaibagako.

ORRÍLLAREN U'GARRENA

FELIFE TA SANTIAGO DETJNAK, apostoluak

2'gn. mailla. — Gorritz

Pedro ta Ander deunak lez, Pelipe donea be Betsaida'koa zan jaiotzez. Eszitarren artean Kristo'ren Barri Ona zabaidu ondoren, 80'gn. urtean gutxi gora bera, Ierapolis deritxon erritxoan gurutzeratu eben.

'Santiago Txikia, ostera, Kristo'ren lengusu zan. Jerusalem'go lenengo Gotzain, bere izena daroan idazki bat ezagutzen dogu. Arerioak elizako gaillur batetik beera bota eben, ta gero maillu bategaz burua birrindu.

M E Z A

Sarrera.—Zeuri, Jaun, orri, egin dautsue dei naigabe-aldian; eta Zuk, zeru goi orretatik, entzun egin dozuz. Aleluia, aielma.—Poztu, zintzook, Jaunagan: biotz-zuzenai dagokie Bera goratzea.—Aintza.

Otoitza.—Felipe ta Santiago zure Apostotuen urteroko jaiain poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguza, arein irabaziz alaitzen garan ezkeru, arein ikasbideak artu daiguzala. Amaibagako.

Irakurgaia (Jakintza, 5, 1-5).—Zintzoak adore aundiz zutituko dira larritu ebezanen aurka, ta neke-saria kendu eutsenen kontra. Larritasuna ta itzel ikaragarria sartuko yake gaiztoai zintzoak ikustean, eta arritu egingo dira, ez-usteko osasuna zintzoak ain laster jaritsi dabelako. Damuz eta gogo-intzirika esango dabe: «Onexei dira aldi baten barre ta irain egiten geutsenak. Geu bai gu zoroak! Onein bizitza zorakeria zala uste genduan, eta onein eriotza lotsagarri utsa. Orra or nun dagozan orain Jaungoikoaren seme artean, eta santuen zorionean!»

Aleluia, aleluia. Zeruak zure lan ai'rigarria ospatze'i dau, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia. Onen luzaro zuekaz egon, eta ez nozue ezagutzen? Pelipe, Ni ikusten nauanak, nire Aita be ikusten dau. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 14, 1-13).—Aldi aretan, Jeius'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ez bekizue biotza larritu; Jaungoikoagan sinisten dozue? Neugan be sinistu egizue. Nire Aitaren Etxean egotoki asko dira:

ezezkoan, esango neuskezuen; zuentzako tokia gerfartzera noa. Joan ba'nadi ta tokia atontzen ba'dautsuet, barrio etorri ta Neugaz artuko zaituet, Ni egon nai! ten tokian zuek be egon zaitezen. Ni nora noan, barriz, ba-dakizue, ta arako bidea be ba-idakizue.»

Tomas'ek dirautso: «Jauna, nora zoazan ez dakigu, ta bidea zelan jakin deikegu?» Jesus'ek dirautso: «Neu naz bidea, ta egia, ta bizitza. Aitagana inor ezin etorri daiteke, nire bitartez baino. Ni ezagutu ba'nenduzue, nire Aita be ezagutuko zeunke; ta aurrerantzean ezagutuko dozue; ta ikusi be egin dozue.» Felipe'k dirautso: «Jauna, erakutsi eiguza Aita, ta naiko dogu.» Jesus'ek diñotso: «Onen luzaro zuekaz egon, eta ez nozue ezagutu? Felipe, Ni ikusten nauanak Aita be ikusten dau. Zelan diñozu «erakutsi eiguza Aita»? Ez dozue sinisten Ni Aitagan eta Aita Nengan dagoanfk? Dirautsuedana ez dauitsuet Nik neurez esaten: Nigan dagoan Aitak Berak egin dauz nire lanak. Ez dozue sinisten Ni Aitagan eta Aita Nigan dagoanik? Os-terantzean, barriz, egiñai sinistu. Bene'benetan dirautsuet: Ni sinisten nagianak, Nik egindakoak eta aundiagoak be egingo dauz, Ni Aitagana noa-ta. Nire izenean Aitari eskatu dagiozuen edozer, orixe emongo dautsuet.»—*Kredo*.

Eskeintza.—Zeruak zure lán amgarria ospatzen dau, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia, aleluia.

Opari-otoitza.—Artu biotz onez, Jauna, FeUpe ta Santiago zure Apostoluen jaiain ekarri dautsuguzan oparigaiok, eta aldundu gugandik merezi doguzan gaitz guztiak. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluen, 457 orri*.

Jaunartzerakoa.—Onen luzaro zuekaz egon, ta ez nozue ezagutu? Felipe, Ni ikusten nauanak, nire Aita be ikusten dau, aleluia. Ez dozu sinisten Ni Aitagan eta Aita Nigan dagoanik? Aleluia, aleluia.

Azken-otoitza.—Osasunezko Eukaristiaz aseturis, ospatzen doguzan santuen otoitzak lagun izan dakiguzala, arren, Jauna. Amaibagako.

ORRILLAREN 12'GARRENA

NEREO, AKILES, DOMITILA, (birjiña),
ta PANKRAZIO DEUNAK, martiriak

3'gn. mailla. — Gorriz

Nereo ta Akiles otsein bi ziran, Flabia Domitila andra p.undikiaren otseiñak; San Pedro apostofluak bateatu ebazan biak. Geroago, arein irakatsien bidez, Flabia Domitila'k be Kristo'ri eskiñi eutsan bere garbitasuna. Errege-etxean bertan zan au. Gauza arrigarria benetan, urte luzez kristauen jazarfle ziram-eta. Irurak martiri il ziran, azkenez.

IH'garren gizaldian, Pankrazio deunak be, orainaiño amalau urteko zala, Kristo'ren. alde isuri eban bere zanetako odola.

M E Z A

Sarrera.—Jaunaren begiak bildur dautsoenen gainean dagoz, baita Aren errukian ustea dabenen gainean be, aileluia; arein arimak eriotzatik atarateko: I gure laguntzaille ta zaindari Bera da-ta. Aleluia, alelui. —Poztu zaiteze, zintzook, Jaunagan: biotz zuzenai dagokie Bera goratzea.—Aintza.

Otoitzia.—Egizu, Jauna! Nereo, Akiles, DofmVla ta Pankrazio zure martirien jai onek beti indartu gagi. zala, baita gu zure taegiko egin be. Amaibagako.

Irakurgaia: Zintzoak adore audiz, 610 orri.

Aleluia, aleluia. Auxe da benetako anaitasuna, munduaren gaiztakeriak menperatzen dauzana; Kristo'ri jarraiturik, zeruko erreñua irabazi eban. Aleluia. Zeru goratzen zaitu, Jauna, martiri-talde argitsuak. Aleluia.

Barri Ona: Errege-etxeko baitek, 398 orri.

Eskeintza.—Zeruak, zure lan arrigarria osipatzen dabete, Jauna, ta zure egia santuen batzarrak. Aleluia, aleluia.

Opari-otoUza.—Nereo, Akiles, Domitila ta Pankrazio zure martiri santuen fede-autortzea, gogoko izan bekizu, Jauna; gure oparigaiok indartu dagizala zure aurrean, eta zure errukia ja'detsi daiskula beti. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Poztu zaiteze Jaunagan, zintzook, aléluia; Jauna goratzea, zuzenai dagokie. Aleluia.

Azken-otoitza.—Egizu, Jauna: Nereo, Akilles Donnitila ta Pankrazio zure martiri doatsuen ototzen bidez, artu dogun Sakramentu santu onek on egin daigula, Zure parkamen osoagoa jaritsi daigun. Amaibagako.

ORRILLAREN 13'GARRENA

ERROBERTO BELARMINO DEUNA,

goizain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Amazazpi urte ebazala, Jesus'en Lagundian sartu zan, Aliz-ikaiketak oso argi ta jakintsu egifiik. Luze idatzi eban; btre idatzietatik os-patsuena, *Eztabaidak* edo *Controversiae* deritxon liburua dogu, protestantien asmo ta uste okerrak ederto astindu ta ezere'atu dabezana. VIII'garren Klemente ALta Santuak, kardenai egin eban. Bere bizitza garbi ta elizkoia inok baino ob.-to alkartu eban, Jaunak emoniko ta berak bere ekiñez lortutako jakituriaz. Gonzaga'tar Luis deunaren autorle ta arima-zuzentzaille izan zan. Erroma'n il zan 1621'gn. urtean. pio XI'garrenak santu egin eban 1930'garrenean, eta 1931'gn. urtean Eliz-irakasle.

M E Z A

Sarrera.—Batzar-erdian edegi eban aren agoa Jaunak, eta Jakintzaz eta zurtasunez bete eban: soineko argitsua jantzi eutsan. Aleluia, aleluia.—Ona da Jauna autortzea, ta zure izena goratzea, Goiko Jauna. —Aintza.

Otoitza.—Siñausleen (erejeen) maltzurkeriak zapaltzeko ba Aita Santuaren eskubideak zaintzeko, Erroberto zure gotzain eta irakasle doatsua jakituri ta sendotasun arrigarri edertu zenduan Jaungoikoa; egizu, aren irabazi ta taitartez, egiaganako maitasuna geitu dakigula, ta oker dabilzanen biotzak zure Elizaren batasunera biurtu daitezala. Amaibagako.

Irakurgaia: Adimena opa izan neban, 576 orri.

Aleluia, aleluia. Jakintsu diranak, zeru-diztira legetxe egingo dabe argi, aleluia. Askori onbidea irakatsi dagienak, izar antzeko izango dira beti. Aleluia,

Barri Oria: Lurrarentzat gatza, 489 orri.

Eskintza.—Eder yat niri Jaungoikoagaz batzea; nfre itxaropena Jaungoiko Jaunagan jartea: Sion'go aia-baren atetan Zure lan guztiak iragarri dagidazan. Aleluia.

Opari^otoitza.—Usain gozozko opar'gaiak eskintzen dautsuguz, Jauna; ta egizu, Erroberto doatsuaren irakatsi ta eredu, zure aginduen bideetan biotz-zabal joan gaitetzala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Munduko argi zaree zuek: bego orrela ditziz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zuen Goiko Alta goratu dagian. Aleluia.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaris+/.ak, Jaungoiko gure Jauna, indartu dagiala gugan Erroberto doatsuak zure Elizaren alde beti izioturik eukan maitasun sutua. Amaibagako.

ORRILLAREN 14'GARRENA

*Aurreko Iganeko Meza; 2'gn. Otoitzak: Bonifazio det^
naren urrengokoak.*

2'gn. Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun arek: Bonifazio zure martiri doatsuaren jai ospatzen dogunok, berak Zure aurrean daukan bitartekotasuna izan daigula guk laguntza. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna!, gure opartgai ta otoitzak onaturik, zeruko misterio onein bidez, garb'tu ta entzun gaguzuala biotz onez. Amaibagako.

2gn, Azken-otoitza.—Janari santuaz indartu garan ezker, eiguzu, gure Jaun eta Jaungoiko orrek! Bonifazio zure martiri doatsuaren laguntza somau daigula gugan, aren jai ospatzen dogu-ta. Amaibagako.

ORILLAREN

15'GARRENA

SALLE'TAR JON BAUTISTA DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Reims'ko kanonigu ta Kristau-Eskoieta Anaien iraslea, Irakasle-alkartasun au oso zabaldua dago munduan zear; eta beartsu ta txiroai Kristo'ren legea irakastea da bere elburu bakarra. 1719'gn. urtean il zan. Pio XII'garrenak gaztediaren irakasle guztien Zaindari egin eban.

Meza: Os iusti, 490 orri., *len-otoitza ia Barri Ona izan ezik:*

Otoitza.—Beartsuai kristautasunean irakaisiak emoteko ta gaztedia egi'bidean sendotzeko, Jon Bautista autorle doatsua sorrerazo ta beronen bitartez Elizan Anaidi barri bat sortu zenduan Jaungoikoa: eiguzu biotz bigun. aren bitartez eta irakatsiz, arimak zeruratzeko zure izenaren alde garrez gu suturik, zerruan aren koroiaz alkartzea jaritsi dagigula. Amaibagako.

Barri Ona (Mat., 18, 1-5).—Aldi aretan, Jesus'i bere ikasleak urreratu yakozan, esanez: «Nor deritxazu zeruko erreifiuan aundiena?» Ta Jesus'ek, umetxo bati dei egiñik, guztien erdian ipiñi eban, eta esan eutsen: «Benetan dirautsuet, ume lakoak biurtu ta egin ez ba'zaitze, ez zaree zeruko erreifiuan sartuko. Beraz, umetxo au baizen txiki biurtu daitena, orixe da zeru erreifiuan aundien. Eta onelako umetxoren bat nire izenean artu dagianak, Neu artzen nau.»

ORRILLAREN 16'GARRENA

UBALDO DEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. maita. — Zuriz

San Agustin'en Ordenako kanonigu lenen, eta Gubbio'ko gotzain gero. Deabruaren ekiñaldi gogorretan berari deitzea egoki ta indartsu da. 1168'gn. urteari il zan, eta aren gorpua usteltzeke dago gure egunetan.

Meza: Satuit, 484 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Emoiguzu, Jauna, zure laguntza; ta Ubaldo zure autorle ta gotzain duatsuaren bidez, deabruaren maltzurkeri guztien aurka zure eskuma errukio-rra luzatu egizu gure gaiñera. A-maibagako.

ORRILLAREN 17GARRENA

PASKUAL BAILON DEUNA, autorle

3^{gn.} mailla. — Zuriz

Torre Herlmosa deritxon Zaragoza'ko erritxokoa jaiotzez; gaztetan artzain, eta gero, ogei urte ebazala, Aita Prantzisko deunaren Ordenan sartu zan. Bizitza guztian beste e'donor baiño Kristo altarakoaren zaila ta maitatsuago agertu izan zan. Ilda gero, bere gorpua elizaren erdian egoala, illen nteza abesten ziarduela, birritan edegi ebazan bere begiak, Osti ta Katiza jasotean gure Jauna gurtzeko. Eukaristi-Aikartasun eta Batzarren zaindari egin eban Aita Santu Leon XIII'garrenak.

Meza: Os iusti, 490 jrri., *urrengo Otoitz au izatfá ezik:*

Otoitza.—Paskual zure autorles doatsua zure GorpufH eta Odolaren ezkutapen '(misterio) santuaganako maitasun arrigarriz e.dertu zenduan Jaungoikoa: eiguзу biotz onez, arek jaungoikozko janari onegaz lortu ebazan arimako ondasunak, geuk be jadetsi daiguzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espi. ritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

ORRILLAREN 18GARRENA

BENANTZIO DEUNA, martiri

3^{gn.} mailla. — Gorriz

Amiabost urteko zala, askotariko neke-miñak jasan ebazan slnismenagaitik; Jaunak, alan be, mirari gelgarriz, guztietatik garaille atara eban; eta au ikusiaz, sinisbageatetik askotxo Jaunagana biurtu ziran. 250^{gn.} urtean il zan.

Meza: Protexisti, 479 orri., *urrengo Otoitzak izaii ezik:*

Otoitza.—Egun au Benantzio zure martiri doatsuaren garaipenaz donetsi (santutu) zenduan Jaungoikoa: entzun zure erriaren eskariak, eta egizu, santuaren irabaziak ospaturik, sinismenean aren antzera gogor jokatuta daigula. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Benantzio doatsuaren irabazien bldez, opari au begiko izan bekizu, Jaungoiko aguztidun orri: aren laguntza dogula, zeruan bere lagun izan gaitazan. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Betiko bizitzarako Eukaristia arturik, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna; Benantzio zure martiri doatsuaren otoitzen bidez, parkamena ta grazia jadetsi daiskuzala, Amaibagako.

ORRILLAREN 19GARRENA

PEDRO ZELESTINO DEUNA, Aita Santu ta autorle

3^{gn.} mailla. — Zuriz

Gaztetan eremuan bizi izan zan; geroago, jan'aitzaille asko ebazala ikusirik, «Praille Zelestindarrak» izeneko Aikartasuna sortu eban. Irurogei ta amabi urteko zala, Aita Santu aukeratu eban; baiña agintzeko gauza ez zala konturaturik, eta Erroma'ko gora-berak eta naste-borraste go-gaikarrietan bakerik aurkitzen ez ebala-ta, ille gutxiaren barruan barriro bere bakartade gozora biurtu zan. f 1296.

Meza: Si diligis, ...orri., *urrengo Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Pedro Zelestino doatsua Aita Santu izatera jaso, ta gero, apaltasunagaitik aide batera izten irakatsi zeutsan Jaungoikoa: eiguзу biotz onez, aren antzera, munduko edozer ezetsi ta apalai eskiñitako; sarietara zoriontsu eltzea jairi'tsi daigula. Ainaibagako,

2^{gn.} Otoitzak, *Prudentziana deunarenak:* Dilexisti *Mezakook,* 500 orri.

ORILLAREN 20GARRENA

SENA'KO BERNARDINO DEUNA, autorle

3^{gn.} mailla. — Zuriz

Umetarik ez eban santu izatea baiño beste asmo ta egitekorik izan; bere itz, egintza ta er_a guztietan garbi agertzen zalako, aren jolas-lagun gaztetxoak be begirune aundia eutsoen. Prantziškotarrën Ofdenan sartu ta ekarri anndfko izlaria izan zan, Jesus'en Izenaganako oneraspena .kabaltzen batez be. f 1444.

Meza: Os iusti, 490 orri., *len-otoitza ta Barri Ona izan ezik:*

Otoitza.—Bernardino zure autorle doatsuari zure izenaganalio maitasun beroa emon zeufsan Jesus Jauna: aren ira/bazi ta bitartez, isuri gugan samurkiro zure maitasunagako gogoia. Amaigabako egunetan Aita

Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Barri Ona (Mat. 19, 27-29).—Aldi aretan, Pedro'k Jesus'i auxe esan eutsan: «Ona emen gu, daukaguzanak itzita, Zeuri jarraitu dautsugu. Zer izango dogu, ba, ordaintzat?» Eta Jesus'ek erantzun eutsen, «Benetan dirausuet: Niri jarraitzen etorri zareenok, berbitaldian, Gizasemea (Jesuskristo) bere aulki argitsuan jesarri daibenean, zuek be amabi aulkitan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko. Ta etxea, naiz anai-arreba, naiz guraso, naiz emazte, naiz senie-alabak, naiz soloak, nire izenagaitik itzi dagizanak, bateko eun artuko dau, ta betiko bizitza gainera.»

ORRILLAREN 25'GARRENA

VH'GARREN GREGORIO DEUNA,

Aita Santu ta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Izen aundiko Aita Santu izan zan, Elizaren eskubideen alde jokatzan batez be; onek, jakiña, nalgabe ta buru-auste aundiak ekarri eutsazan, errege-eskubideak Jaungoikoaren gainetik jarten ebezanak aurka jagi yakozan-eta. Su ta gar ekin eutsan bere agintaritza luzean, eliz-gizonen artean bizitza santuaren axia ereiten, batez be loikeria ta simonkeria eurokandik baztertuaz. f 1085.

Meza: Si diligis, 464 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Zeugan itxaroten dabenen indarra zaran Jaungoikoa; Gregorio zure autorle ta Aita Santu doatisua, Elizaren askatasuna zaindu egian, sendotasun-adorez indartu zenduana: eiguzu, aren ikasbide ta toftartez, gaitz guztietan sendoro urten gaitezala, Amaibagako...

2'gn. Otoitza, *Urbano deunarena*: Begiratu egizu samurkiro zure artaldea, betiko Artzain orrek! Eta Eliza osoaren Artzain egin zenduan zure martiri ta Aita Santu Urbano doatsuaren bitartez, zaindu egizu (Eliza) zure laguntza etenbageaz. Amaibagako.

Opari-otoitza.—• Gure oparigaion bidez, Jauna, argi egiozu zure Elizari, zure artaldea bere bidean au-

rrera joan dadin, eta zure eragiñez, Artzaiñak begiko izan dakizuzan. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Urbano deunarena*: Artu egizuz biotz onez, Jauna, pozik eskintzen dautsuguzan oparigaioak: eta Urbano doatsuaren bitartez, zure Elizak bere sinismena osorik euki dagiala, ta egun baketsuz beti poztu daitela. Amaibagako.

Azken-otoitza.—[^]Zuzendu egizu samurkiro, Jauna, zure Eliza, janari santuz indartu da-ta; eta zui'e esku indartsuaz eroanik, askatasun geiago izan, eta sinis-men osoan irauin dagiaia. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Urbano deunarena*: Ugaritu egizu zure Elizan, Jauna, emon dautsazun Espiritua, grazi-iturburua; ta zure martiri ita Aita Santu Urbano 'doatsuaren bitartez, ardiak Artzaiñari esana egin dagioHa, ta Artzaiñaren arduratasuna beti izan dagiela. Amaibagako.

ORRILLAREN 26'GARRENA

NERI'TAR FELIPE DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

«Otoitzeko» (edo Oratori) deritxon Lagundia sortu eban. Jaungaganako sutan bizi izan zan bere bizitza guztian; baita jaungoikozko su onetan bere seme ta atsedeen-billa beragana joten ebenen biotzetan barrendu ta iziotzen saiatu be. Gogo-Eirazoetan oso jakiña; santu bidetik arimak zuzentzen ezin obea. ♣ 1595.

M E Z A

Sarrera.—Jaungoikoaren maitasuna gure biotzetan isurita dago, gugan bizi dan Espiritu Santnaren bidfiz. (P. A. Aleluia, aleluia).—Onetsi, Jauna, nire arima: ta nire barren osoak be Aren izen santua goratu begi.—Aintza.

Otoitza.—Felipe autorle doatsua zure santuen goi-tokiraiño jaso zenduan Jaungoikoa: eiguzu biotz samur, aren jaian poztuten garanok, ontisunean aren 'antzeko egin gaitezala. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Eleuterio deunarena*: Begifratu egizu samurkiro zure artaldea, betiko Artzain orrek! Eta Eli-

za osoaren Artzain egin zenduan zure martiri ta Aita Santu Eleuterio doatsuaren bitartez, zaindu egizu (Eliza) zure laguntza etenbageaz. Amaibogako.

Irakurgaia: Adimena opa izan neban, 576 orri.

Aleluia, aleluia. Goi-goitik nife azurretara sua bialdu, ta irakatsi egin eustan, Iziotu egin yatan biotza nire barrenean: eta otoitz egiten niarduala, su ori geiago biztu zan. Aleluia.

Pazkoaldia izan ezik, aurreko Aleluia ordez, auxe esaten du:

Koru-kanta.—Zatoze, ene semeok, eta entzun: Janari bildur izaten irakatsiko dautsuet. Urroratu zakioze, ta argitu egingo zaitue, ta zuen arpegiak ez dira lotsatuko.

Aleluia, aleluia. Goi-goitik nire azurretara sua bialdu, ta irakatsi egin eustan. Aleluia.

Barri Ona: Begoz zuen gerriak, 491 orri.

Eskintza.—Zure aginduen bidetik bizkor ibili nintzan, biotza nasaitu zeustanean. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Artu egizuz samurkiro, Jauna, opari-gaiok: eta eiguzu, Espiritu Santuaren garrak sutu gatzala, Pelipe doatsuaren biotza arrigarriri kiskaldu ©"benez. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko...

2^{gn}. Otoitza, *Eleuterio deunarena*: Gure opari-gaion bidez, Jauna, argi egiozu zure Elizari: zure artaldea bere bidean aurrera joan dadin, eta zure «ragiñez, Artzaiñak toegiko izan dakizuzan. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—>Nire biotza ta aragia pozez bete ziran, Jaungoiko biiziaganako gogoz. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Zeruko janariaz aseturik, Jauna, \$;guzu, Peliipe zure autorle doatsuaren irabazi ta biftartez, egiazko bizia dauan Ogi onen gose izan gaitezala beti. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitza, *Eleuterio deunarena*: Ugaritu egizu zure Elizan, Jauna, emon dautsazun Espiritua, grazi-iturburua; ta zure martfiri ta Aita Santu Eleuterio doatsuaren bitartez, ardiak Artzaiñari esana egin dagioela, ta Artzaiñaren arduratasuna beti izan dagiela. Amaibagafco.

DEUN BEDA AGURGARRIA, autorle ta irakasle

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Jaiotzez inglesa, ta praille beneditarra. Barri Onaren azalpen bikain-bikaina egin euskun, Elizako guraso santuen irakatsi ta esakunai jarraiturik. Augaitik, il baiño len be, bere liburuak oso irakurriak ziran elizetan, eta «Agurgarri» izenez ezagutzen eben. Ain zuzen be, ber, dogu Ingalterra'ko zuzi argi, VIII^{gn} garren gizaldi luzean. f 735.

Meza: In medio, 488 orri., *urrengo Otoitzak isan ezik'*

Otoitza.—^Beda zure autorle ta irakasle doatsuaren irakatsiz, zure Eliza argitzen dozun Jaungoikoa: eiguzu. zure menpekooi, aren jakituriak argitn gagizala, ta aren iratoaziak lagun egin daiguela. Amaibagako.

2^{gn}. Otoitzak, *l'go Jon deunarenak*: Si diligis Mezaokak, 464 orri.

KANTORBERI'KO AGUSTIN DEUNA,

gotzain eta autorle

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Ingiaterra'ko apostolu dogu. 597^{gn}. urtean, deun Gregorio Aita Santu Aundiak bialdu eban ara, beste 40 praille beneditarrakaz batera. Euron jardun eta Jaungoikoaganako maitasun biziari eskerrak, -ango lurralderik geienak, arein errege Etelberto ta guzti, Krisfo'ren sinismenora ekarri eban. Kantorbery, aldi aretan erreñuaren uriburu zan, eta Agustin deunak antxe jarri eban Ingalterra'ko Gotzain-aurki nagusia. f 604.

Sarrera.—^^Zure abadeak, Jauna, jantzi beitez zuntasumez, eta poztu bediz zure santuak; zure morroi Dabid'eganako maitasunagaitik, ez egizu zure igurtzi-takoagandik alde egin. (P. A. Aleluia, aleluia).—Gogoratu egizu Dabid, eta onen apaltasun aundia.—Aintza.

Otoitza.—Agustin zure autorle ta gotzain doatsuaren irakatsiz eta miraríz, Ingalterra'ko erria egiazko

sinismenean argitu zenduan Jaungoikoa: egizu, aren bitartez, oker dabizanean biotzak zure egiaron batasunera biurtu daitezala, ta gu zure gogo-arauz bat izan gaitetzala. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tesalonika'koai 1'goa.: 2, 2-9).—Anaiok: Gure itxaropena Jaungoikoagan jarri-rik, Barri Ona zuei ardura aundiz zabaldu geutsuen. Ez zan, ostera, gure izketan asmo okerrik ez zitalik n-tastu, ezta maitzutrkeirik be. Barri Ona gure ardurapean jarteko, Jaungoikoak ontzat artuta gengozala, orreia berba egin genduan; ez gizarteko ederra irabazúearren, biotza arakutzen dauskun Jaungoikoarena ba'ño. Egia esan, ez dogu iñoiz be koipekeriz itz egin, ondo dakizue. nez; ezta diru-naiez be: Jaungoikoak ondo daki. Gizonen osperik be ez dogu zuekandik ez beste iñogandik billatu. Kristo'k bialduak garala4a, zuen lepotik bizi al izanarren, umetxo lez agertu gintzazan zuen artean, bere umeak a-zten dauzan iñudea lez. Orrela, zuek oso maitaturite, Jaungoikoaren Barri Ona bakarrik ez, baita geure bizia be zuei emon nai geutsuem: gureztat orren maitagarri egin zintzazen! Gogoratu egizuez, osterantzean, anaiok, gure lan eta nekeak: zuetariko iñortxorentzat astun izan ez .gendizan, gau ta egun lan egiñez Jaungoikoaren Barri Ona zabaldu genduan zuen artean.

Alelula, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako domutuko: betiko aibade zara zu, Melkisedek'en saillean. Aleluia. Maite izan eban Jaunak eta ospez apaindu eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan. Aleluia.

Pazkoaldia tean ezik, aurreko Aleluia ordez, auxe esaten da:

Koru-kanta.—Aren abadeak santutasunez jantziko dodaz, eta aren eantuak poztu egingo drra. Dabid'ien indarra, antxe geituko dot, eta nire igurtzitakoar: argiontzia atonduko dausat.

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutuko: betiko abade zara zu, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Barri Ona: Jaunak beste irurogei ta amabi, 596 orri.

Eskeintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira, ta nire izenean sendotu egingo da aren indarra. (P. A. A'e luia).

Opari-otoitza.—Agustin gotzain eta autorle doatsuaren jaian, opari au eskintzen dautsugu, Jauna, apal-apalik eskatuez: galdutako ardiak zure artaldera biur-turik, janari osasungarri onezaz asetuta daitezala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zorionsua benetan, ugazabak, eoirtean, iratzarrik aurkitu dagian morroia; benetan cifiratsuet: bere ondasun guztien buru jarríko dau. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza. — Eukaristi osasungarriaz aseturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Agustin doatsuaren otoiitzen bitartez, zure izenari Opari santua iurreko bazter guztietan eskiñi dakiola beti. Amaibagako.

ORILLAREN 29GARRENA

PAZZIS'TAR MARI MADALEN DEUNA,

birjiña

3'gn. mailla. — Zuriz


Guraso aundiki arteko alaba, Oraindik amar urteko neskatilla zala, bizitza osoan bere buruaren garbitasuna zain-tzeko zin egiñik, karmeldar lekaimen (monjen) jantzia artu eban. Egin ebazan neke latz eta 'penitentzi aundiak, ezin esan alakoak dira. Biotza guztiz jaungoikozaletuta, sarritan Dtoitz bitartean dei au egiten ei'eban: «Jasan, Jauna, ta ez il». Azkenez, berrogei ta bi urtez, Kristo bere senar maitatugana egin eban egaz, 1607garrenean. Aren gorpua ustel-tzeke dirau gaurko egunerarte.

Meza: Dilexisti, 500 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Garbitasuna maite dozun Jaungoikoa, ta Mari Madalen birjiña doatsua Zuganako maitasunean izíotuta, zeruko graziz ederttu zenduana: eiguzu, aren jaia ospatzen dogun ez'kero, garbi ta goi-maitetsu izan gaitetzala aren antzera. Amaibagako.

ORRILLAREN 30GARRENA

Aurreko Igandeko Meza: 2'gn. Otoitzak: Felix deunarenak "Si diligis" Mezakoak, 464 orri.



ORRILLAREN 31'GARRENA

ANDRA MARI ERREGIÑA

2^{gn}. mailla. — Zuriz

Kristau-erriak beti onartu izan dau Andra Mari zeru-lurren Erregiñatzat: Jesukristo'ren Ama dalako bakarrik ez, baita zeruko grazia guztien bitarteko dalako be. Eliztarren aSmo zintzo orri erantzunik, Aita Santu Pio XII'garrenak Andra Mari Erregiñaren jai au sortu eban, 1954^{gn}. urtean. Izan daitela, ba, beti Bera gure biotzen benetako Erregiña.

M E Z A

Sarrera.—Opoztu gaitezan guztiok Jaunagan, Marla Birjiña ta Erregiña doatsuaren jai au ospatzean; beronen ja'egun onetan Aingeruak poztu egiten dira, ta Jaungoikoaren Semea goratzen dabe. (P. A. Aleluia. aleluia).—JNire biotzari itzaldi eder bat dario: Erregiñari dirautsada nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Eiguzu, Jauna: gure Erregiña Maria Birjiña, doatsuaren jai au ospatzen dogun ezker, bere bi-tartez bafcea jaritsi dagigula bizitza onetan, eta zerua-geroakan. A<maibagako.

2^{gn}. Otoitza, Petronila deunarena: Entzun gagizuz, Jaungoiko gure Saltoatzaille orrek! Eta Petronila birjiña doatsuaren egunak poztuten gaituan ezker, jadetsi daiskula Zuganako bere maitasun sutsua be. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli. 24, 5-13).—Ni, Jaungoikoaren agotik urten naz, eta edozein gizaki baiño lenaigo sortu nintzan. Nik zer.uetan jarri dot nire bizitokia, ta nire aginpide-jarlekua odei-gaiñean. Lur osoaren erri ta gizaki guztien agintaritza daukat, eta aundiak eta txikiak nire indarraren bidez nir. oiñen azpian izan dodaz. Entzun nagiana, ez da lotsatuko, ta nire aJde jardun dagienak, ez dabe pe'katurik egingo. Ni argitara eroan nagianak, betiko bizitza jadetsiko dau.

Aleluia, aleluia. Zoxiontsu zara, Maria Birjiña, Jaunaren Gurutze-oradoan zutik egon zintzazan-eta. Aieluia. Orain Aregaz (Jesukristo'gaz). Erregiña zara oetiko. Aleluia.

Pazkoaldia izan ezik, aurreko Aleluia ordez, auxe esaten da:

Koru-kanta.—Bere soñekoan eta iztarrean auxe dauko idatzita: Erregeen Errege ta jaunen Jauna. Erregiña Aren eskumaJdean dago, Ofir'ko urrez apainduta. Aleluia.

Aleluia, aleluia. Agur, erruki-Erregiña: arerioagandik zaindu gagizuz, eta eriotzako orduan artu gagizuz Aleluia.

'Barri Ona (Luk., 1, 26-33).—Aldi aretan, Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret deritxon Gaiñiea'ko eri'ira biaMu eban, neska bategana. Neskatiilla au, Jose izeneko Dabid'en jatorriko gizeozko baten emaztegeia zan, eta neskatiillaren izena, Maria. Eta onegana sarturik, aingeruak esan eutsan: «Agur, graziaz bete cri! Jauna da zugaz; onétsia zu emakumeetan.» Itzok entzunda, Maria larritu egin zan, eta arelako agurra zer izan zeitekean erabilien buruan. Baiña aingeruak esan eutsan: «Ez biidurtu, Mari, Jaungoikoaren gogoko zara-ta; begira: sabelean semea sortu ta egingo dozu, ta izena Jesus ezarriko dautsazu. Aundia izango da Bera. ta Altsuaren seme dei egingo dautsoe ta Jaungoiko Jaunak Aita Dabid'en jarlekua omongo dautso. Jakob' en etkeko buruzagi izango da betiko, ta Aren aginpi-deak ez dau aimairik izango.»—*Kredo.*

Eskeintza.—Errege-jatorriko Maria'k, aintzaz argi egiten dau: bere otoitzak lagun egin daistii'la eskatzen dcgu apal-alik. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, Eliza alaitsuaren oparigaiok; eta Maria Birjiña ta Eirregiña doatsuaren irabaziak lagun doguzala, gure ojasuuiireen laguntzarako izan daitezala. Amaibagoko.

2'gn. Opari-otoitza, Petronila deunarena: Atsegin bekizu, Jauna, erri zintzoak zure santuen izenean egiten dautsun opari au: estualdian, rein irabaziai esker izan dauala laguntza autortzen dau-ta. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** jaiegunean.

Jaunartzerakoa.—Munduko Erregiña guztiz egoki zaran Maria beti Birjiña: gizaki guztien Salbatzaille Kristo Jauna munduari emon zeutsan orrek, jadetsi eiguzu bakea ta osasuna (salbaziñoa). (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Gure Erregiña dan Maria deunaren jaiegunean ospatu doguzan ezkutapen (misterio) onek, bere izenean pozik amaitu doguzan ezker ta bere bitartez, osasungarri izam dagiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, Petronila deunarena: Zure etxe-koak Eukaristi santuaz asetu dozuzan Jauna! Gaurko eguna ospatzen dogunaren bitartez, gure indarrak beti gogortu dagizuzala eskatzen dautsugu. Amaibagako.



BAGILLEKO SANTUAK

BAGILLAREN I'GOA

MERIZI'TAR ANJELA DEUNA, birjiña

3'gn. mailla. — Zuriz

Italia'ko Desenzaino'n jaio zan. "Benetako ama Kristo zaleak gutxi be gutxi zirala" ikusirik, neska garbien Lagundia sortu eban, *Ursula* deunaren izenez, neska gazteak kristau-irakatsietan azteko. f 1540.

Meza: Dilexisti, 500 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Anjela doatsuaren bidez, Elizan Neska garbien Lagundi bat sortu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez, Aingeru antzera bizi gaitetzala; lureko gauza guztiak ukaturik, taetiko zerua jadetsi dagigin. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Anjela doatsua goratuaz eskintzen daucsugun opari onek, Jauna, pekatuen parkamena ta zure graziaren doaiak jaritsi daiguzala. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz aseturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Anjela doatsuaren ototzez eta irakasbidez, pekatu guztitik garbitu gaitetzala, ta gorputz eta arimaz atsegin izan gakizuzala. Amaibagako.

BAGILLAREN 2'GARRENA

Aurreko Igandelco Meza; 2'gn. Otoitzak, Martzelino, Pedro ta Erasmo dcunen urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Martzelino, Pedro ta Erasmo marti-n doatsuen egunean urte oro poztuten gaituzun Jaungoikoa: egizu, aroin irabaziakaz alaitzen garanez, aren ikasbideakaz be berotu gaitetzala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Zure mairtiri santuen eguna goratzean eskintzen dautsugun opari onek, Jauna, gure pekatuen kataiak ausi dagizalla, ta zure errukiaren graziak iortu daiskuzala. Tmaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Zeruko janariaz aseturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Zuri zor dautsuguna emonaz, opari onek gure osasunerako grazia jadetsi dagjskula. Amaibagako.

PRANTZISKO CARACCILO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Aundi-seme zan, *Minores* izeneko Abade-Lagundía sortu eban. 1608'garrean il zan, 40 urte ebazala.

M E Z A

Sarrera.—Biotza argizaria legez urtu yat nire barranean: zure etxeaganako garrak irunsi nau-ta (P. A. Aleluia, aleluia).—'Bai dala ona Israel'en Jaungoikoa biotzez zuzen diranentzat!—Aintza.

Otoitza.—Prantzisko doañtsua, Lagundi barri baten Aita, otoitzerako ta damu-nekerako adorez jantzi zenduan Jaungoikoa: eiguzu zure menpekooi, aren antzera beti otoitzean eta gorputza eziten jardunez, zeru eder-rra jaristeko gai izan gaitezala. Amaibagako.

Irakurgaia (Jakintza, 4, 7-14).—Zintzoa, gaztetan il ba'dadi be, atsedena aurkituko dau. Zartzaroa agurgarri egiten daunana ez da bizitza luzea, ezta urte pilloa be; gizonaren zentzun ona ule zuriak dira, ta bizikera errufoagea zarrairen adiña*. Atsegin izan yakolako maitte izan eban Jaungoikoak; eta pekatari-artean bizi dan ezkeru, Beragana aldatzen dau zerura. Gaiztakeriak adimena okertu ta irudipenak biotza illundu ez dagion, eroaten dau Jaungoikoak Beragana. Arinkerien lilluramenak zintzoa itsutu ta zalekerien* zorbioak biotz zintzoa usteldu egiten dau-ta. Laster ilda be, bide luzea bete dau; aren arima Jaungoikoari atse-gm yakon-eta. Orrexegaitik eroan dau laster, inguruko gaitzakeri-antetik ataraz.

Aleluia, aleluia. Bai zoriontsu Zuk aukeratu ta jaso dozuna: zure aterpeetan bizi izango da. Aleluia. Bear-teuai eurrez banatu ta emoten dautse: aren esku zabalak betiko iraungo dau. Aleluia.

Pazkoaldia izan ezik, aurreko Aleluia ordez, auxe esan

Koru-kanta.—Basauntza urairen gogoz bizi danez, nre arima be Zeure gogoz dago, ene Jaungoikoa! Nire arima Jaungoiko biziaren egarri da.

* Adin = edad. * Zalekeri - concupiscencia.

Aleluia, aleluia. Aragiak eta biotzak uts egin dauste: Jaungoikoa dot igesleku ta ogasun* beti-betiko. Aleluia.

Barri Ona: Begoz zuen gerriak loturik, 491 orri.

Eskeintza.—Zintzoa, palmondoa legez goratuko da: Libano'ko zedrua lez aundi egingo da. (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Jesus guztiz biotz-foigun! Eiguzu, Prantzisko'ren irabazi aundiak gogoraturik eta a lez maitasun-sutan biztuta, mai santu onen inguruan jar-teko gei izan gaitezala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Eispiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Jauna!, bai gozotasun aundia bil-úr dautsuentzat gordeta daukazuna! (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—Prantzisko doatsuaren jai onetan eskiñi dautsugun Opari santu onen gogorapen bizia ta ondorena gure barranean beti izan dagiguzala, eskatzen dautsugu, Jauna. Amaibagako.

BAGILLAREN

5'GARRENA

BONIFAZIO DEUNA, gotzain eta martiri

3'gn. mailla. — Gorriz

VIII'garren gizaldian Inlaterra'n jaihoa. Beneditar egin zan. Alemania'n zabaldu eban Barri Ona, ta Frison'darrak edol-eriotza emon eutsoen, 755'gn. urtean.

M E Z A

Sarrer.a.—Jerusalen'en dodaz ñire atsegiñak, eta nire errian poza; ez da izango an geiago negarrik ez oiurik. Nire aukeratuak ez dira alperrik nekatuko, ta laster ilteko semerik be ez dabe izango: areik eta arein illobak, Jaunaren jatorri onetsia dira-ta. (P. A. A'ieluia, aieluia).—Geuire belarriz entzun dogu, Jaungoikoa, ta geure gurasoak azaldu dauskue arein egun-etan egin zenduan lana.—^Aintza.

Otoitza.—Bonifazio zure martiri ta gotzain daoteua. ren arduraz, ainbeste erriri Zu ezagutzerá dei egin

* Ogasun = herencia, hacienda.

dautsezun Jaungoikoak, eiguza biotz onez, aren eguna ospatzen ciogun ezkerre, aren bitartekotasuna be izan dagigula. Amaibagako.

Irafcurraia: Gorafcu dagiguzan, 563 orri.

Alaluia, alemia. Poztu zaiteze Jerusalem'egaz, ta alai. tu, Jauna maite dozuen guztiok. Aleluia. Ori ikusita, biotza poztu egingo yatzue: ta Jaunaren eskua bere menpekoen alde agertuko da. Aleluia.

Pazkoaldia izan ezik, aurreko Aleluia ordez, auxe esan:

Koru-kanta.-n Poztu zaiteze Kristo'ren oiñaze-lagun izanaz; Aren goraldia agertu daitenean, pozez bete-rik alaitu zaitez. Zorionekoak zuek, Kristo'ren ize. nagaitik iraindu zagiezanean: Jaungoikoaren eta Aren Espirituaren edertasuna, aintza ta indarra zeuekan izango dira-ta.

Aleluia, aleluia. Ibai bat legez, aregan bakea isuriko dot, eta errien aberastasuna uriola lez. Aleluia,

Eskeintza.—Adimena emon eustan Jauna bedeinkatuko dot: Jaungoikoa beti begi-aurrean daukat; eskuman daukat kili-kolo egin ez dagidan. (P. A. Aleluia).

Barri Ona: Jesus, gizataidea ikusirik, 780 orri.

Opari-otoitza.—Onespen ('bedeinkaziño) ugaria jatsi dadilla, Jauna, oparigaion gaiñera: eroan gagizala santutasunera, ta Bonifazio zure martiri ta gotzain santuaren jai-egunaz, pozez bete gagizala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Garaillea* nire jarlekuan Neugaz jesarriko dot; Neu be garaille jzanik, neure Aitagaz Aren aulkian jesarrita nagoanez. (P. A. Aleluia).

Azken-otoitza.—^Eukaristiaren graziaz santutu garan ezkerre, Jauna, Bonifazio zure martiri ta gotzain deunaren otoitz ona bagarik ez gaitezala geiditu, eskatzen dautsugu: bitarteko emon dauskuzu-ta. Amaibagako.

Garaille = vencedor, triunfador.

BAGILLAREN 6'GARRENA

NORBERTO DEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. mailla — Zuriz

Alemandar eta aundikia. «Premonstratense» izeneko Anaidia sortu eban, eta Magdeburgo'ko Goigotzain egin eben. f U34.

Meza: Statuit, 484 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Norberto autorle ta gotzain doatsua, Zure itzaren zabaltzaille aundi egin eta aren bidez Elizan Anaidi barri bat sortu zenduan Jaungoikoa: aren irabazkaitik eta Zure legutzaz, itzez eta egiñez irakatsi eban, guk be bete al dagigula eskatzen dautsugu. Amaibagako.

BAGILLAREN 9'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Primo ta Feliziano deunen urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Primo ta Peliziano zure martiri santuen jaiak beti ospatu daigula eskatzen dautsugu, Jauna; arein otoitzen bidez, Zure graziaren laguntasuna itan dagigun. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Zure martiri santuen eriotz-odola ospatzeko konsagratu bear dan opari onek, Jauna, bigundu zagizala; ta gure pekatuak garbiturik, zure menpekoen gurariak gogoko egin dagituzala eskatzen dautsugu. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Jaungoiko algutzidun! Primo ta Peliziano zure martiri santuen jai-eguna zeru-ekzutape-nez ospatu dogun ezkerre, zure laguntasunaren graziaz lortu daiskula eskatzen dautsugu. Amaibagako.

BAGILLAREN 10'GARRENA

MARGARITA DEUNA, erregiña ta alarguna

3'gn. mailla — Zuriz

Benetan apala, eroapen aundikoa ta beartsuen laguntzaillea Eskoziako Erregiña au! Ogei ta amar urte Erregiña izanik, 1093'gn. urtean il zan.

Meza: Cognovi, 505 *orri.*, *Otoitz au izan ezik:*
Otoitza.—Margarita Erregiña doatsua, beartsuakana-ko errukiz miragarri egin zenduan Jaungoikoa: egizu, aren bitartez eta ikasbideaz, gure biotzetan goi-maita-suna biztu dadilla geroago ta geiago. Atnaibagako.

BAGILLAREN U'GARRENA

BERNABE DEUNA, Apostolua

3^{gn.} mailla. — Gorriz

Gizon zintzoa ta Espiritu Santuz betea. Bere solo ta ondasun guztiak saldu, ta ordainia Apostoluen eskuetan itzi eban. Paulo deunagaz tiatera zatvaMu eban Barri Ona Txipre'n, eta bertako judarrak arrika il eben. Itun Barriko *Apostoluen Egiñak* dakar zerbait berari buruz.

M E Z A

Sarrera.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adis-
kideak, Jaungoikoa: arein indarra oso gogortu da.—
Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu
noiz jesarten eta noiz jagiten nâzan.—Aintza.

Otoitza.—(Bernabe zure Apostolu doatsuaren iraba-
ziz eta bitartez poztuten gaituzun Jaungoikoa: egizu
biotz onez, aren bitartez eskatzen doguzan ondasunak,
Zeuri esker jadetsi daiguzala. Amaibagako.

Irakurgaia (Apost. Egiñak, 11, 21-26; 13, 1-3).—Egun
areitan, Antiokia'n lagun asko sinistedun egin eta
Jaunagana biuritu ziran. Eta barri oneik Jerusalem'go
Elizaren belarrietara eldu ziran: eta Bernabe bialdu
eben Antiokia'ra. Ara eldu ta Jaungoikoaren grazia
ikusi ebanean, pozez bete zan, eta guztiak berotzen
ebazan biotz osoz Jaunagan irauteko: gizon ona, ta
Espiritu Santuz eta sinismenez betea zan-eta. Onela,
Jaunari askoak geftu yakozen.

An<iik Bernabe Tarso'ra joan zan, Saulo'ren billa;
ta idoro (aurkitu) ebanean, Antiokia'ra eroan eban. Eta
urtebete egon ziran bertako Elizan, lagun askori ira-
'kasten. Eta ikasieak Antiokia'n artu e'ben lenengoz
Kristau izena. Ba-ziran igarie ta irakasle batzuk An-
tiokia'ko Elizan: Bernabe, Simon Baltza, Luzio Zirle-
ne'tarra, Manahen Eroses erkiburuagaz azitakoa, ta

Saulo. Eta Jauna gurtzen eta toarau egiten ziarduela,
Espiritu Santuak esan eutsen: «Banandu egidazuez
Saulo ta Bernatîe, aukeratu dodazan egikizunetrakoe».
Ord'uan, barau ta otoitz egiñik, éta eskuak arein gai-
ñean ezarririk, bialdu egin ebezan.

Koru-kanta.—Arein barbaroa lur osoan zabaldu zan:
eta arein itzak lur-ertzetaraiño. Zeruak Jaungoikoa-
ren aintza zabaltzen dau, ta ortziak Aren esku-lanak
iragarten dauz.

Aleluia, aSéluia. Neuk aukeratu zaifcuet mundutik,
joan éta arnaria (frutua) ekarri dagizuen, eta zuen
frutua iraukor izan dadin. Aleluia.

Barri Ona (Mat. 10, 16-22).—Aldi aretan, Jesus'ek
bere ikasleai auxe esan eutsen: Begira, ardiak otso
-artera lez bialtzen zaituet: sugeak baizen zur izan
zaitze, beraz, ta usoak baizen tolesgabe. Gizonai bu-
ruz, barriz, zagoze zur: toatzarretan salatu ta euren si-
nagogetan zigorkadaz astinduko zaitue-ta; eta na-
gusi ta erregeakana eroanak izango zaree, arei ta
atzerritarrai nitzaz autortzeko. Salatu zagiezenean,
barriz, ez asi asmatzen zelan eta zer esango dozuen:
orduantxe emongo yatzue esatekoa-ta: itz dagiana,
ez zaree izango zuek-eta, Aitaren Gogoa (Espiritua)
baiño, zuekan itz dagiana. Anaiak anai eriotzarako
salatuko dau, ta aitak semea; ta semeak gurasoen
aurka jagiko dira, ta il bere egingo dabez. Eta nire
Izenagaitik guztiak gorroto izango dautsue: baiña
azkeneragiño irauin dagiana, orixe gaizkatuko (sal-
bauko) da.—*Kredo.*

Eskeintza.—Lur osoan nagusi egingo dozuz: zeure
izena gogoratuko dabe, Jauna, gizaldiz-gizaldi,

Opari-otoitza.—[^]Bedeinkatu egizuz, Jauna, gure opa-
rigaiok; euroi esker, eta Bernabe zure Apostolu doa-
tsua bitarteko dala, gure pekatuen orbanetatik (loietat-
k) garbitu gagizuz. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluena*, 457 *orri.*

Jaunartzerakoa.—Niri jarraitzen etorri zareenok,
amabi jarlekutan jesarriko zaree, Israel'go amabi ja-
torriak epaitzeko.

Azken-otoitza.—SBernabe zure Apostolu doatsua bi-
arteko dogula, Eukaristiaz asetu gaituzunok, oitura

onez egoki otseindu zagiguzala, eskatzen dautsugu apal-apalik, Jauna. Amaibagako.

BAGILLAREN 12'GARRENA

SAHAGUN'GO JON DEUNA, autorle

3'gn. mailla — Zuriz

Leon'go Sahagun'en jaio zan, Bere ondasun guztiak beartsuai emon ondoren, Agustin deunaren Lagundian sartu zan. 1470'gn. urtean il zan, «Zeure eskuetan izten dot, Jauna, nire arima» esanez.

Meza: Os iusti, 490 orri., urrengo Otoitzak izan ezik:

Otoitza.—Bakearen egille ta goi-maitasunaren maitzaillle zaran Jaungoikoa, eta Jon zure autorle doa¹ tsua bakeak egiteko grazi miragarriz jantzi zenduana: egiguzu, aren irabaziz eta bitartez, zure maitasunean gogorturik, ez gaitezala inungo zirikaliditik Zeu¹ gandik aldendu. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Basilides, Zirinó, Nabor eta Nazario cleunena:* Egizu, Jauna!, Basilides, Zirino, Nabor eta Názario zure martiri santuen egunak argitu dagizala gure arimak; eta Zuk arei betiko aintza emon zeutsena, gure oneraspenaren frutuz ugaritu dadilla. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Zure santuen gomutaz, Jauna, & kintzen dautsuguz gorapenezko oparigaiok; eta euron bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onez urtengo garala uste dogu. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Basilides, Zirino, Nabor eta Nazario deunena:* Basilides, Zirino, Nabor eta Nazario zure martiri santuen odola goratzeko, opariak ospez eskeintzen dautsuguz, Jauna: odol a isurita jaritsi eben areik ain gorapen aundia-ta. Amaibagako.

Azken-ótoitza.—Z'eruko janari ta edari onekaz indarturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, gure Jaungoiko orri: santuaren eguna ospatuaz artu doguzan ezker, berak lagun egin daiskula bere otoitzakaz. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Basilides, Zirino, Nabor eta Nazario deunena:* Basilides, Zirino, Nabor eta Nazario zure martiri santuen iaieguna ospatuez, arein

bitartekotasuna beti izan daigula eskatzen datsugu, Jauna. Amaibagako.

BAGILLAREN 13'GARRENA

PADUA'KO ANTONIO DEUNA,

autorle ta irakasle

3'gn. mailla — Zuriz

Lisboa'n jaio zan. Prantzisko deunaren Anaidiko zal-a, itxasoz Aprika'runtz joan zan Barri Ona zabaltzera; baiña ekaitz gogor batek itxasontzia Sizilia ugartera eroan eban. Bononia'n Liburu Santuak irakatsi ebazan, eta Italia'ko Padua'n il zan, 1231'gn. urtean, 35 urte ebazala. XII'garren pio Ait, Santuak Eliz-irakasle egin eban. Euskai'ciunak oneraspen aundia dautsoe.

Meza: In medio, 488 orri., *Otoitz oneik izan ezik:*

Otoitza.—Poztu bedi zure Eliza, Jauna, Antonio zure autorle ta irakasle doatsuaren urte-egunean: zeruko laguntzaz beti indartu daitela, ta betiko atseginañ jadetsi dagizala. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Opari au izan dadilla, Jauna, esker-iturri zure erriarentzat: onexegaitik egin zintzazan opari bizi Aitarentzat-eta. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz berberagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Azken-otoitza.—Zeruko janari oneikaz aseturik, Jauna, Antonio zure autorle ta irakasle doatsuaren irabaziz eta bitartez, Opari salbatzaillaren ondorenak izan dagiguzala. Amaibagako.

BAGILLAREN U'GARRENA

BASILIO DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla — Zuriz

Kapadozia'ko Zesarea'n jaio zan, eta bertako Gotzain. Arrio-aldekoen aurka gogor egin eban, «Semea Aitaren 'zakide» dala irakatsiz. Elizako irakasie aundienetarikoa da. T 379.

M E Z A

Sarrera.—Batzar-erdian edegi eban agoa, ta Jaunak jakintzaz eta zurtasunez bete eban; soiñeko argitsua jantzi eutsan.—Ona da Jauna autortzea, ta zure izena goratzea, Golko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Entzun eiguzuz, Jauna, zure autorle *teí* gotzain Basilio doatsuaren egunean egiten dautsuguzan otoitzak; eta zure morroi zintzo izan zan ezker, aren irabazien bitartez, parkatu egiguzuz gure pekatuak. Amaibagako.

Irakurgaia: Jaungoikoaren aurrean, 488 *orri*.

Koru-kanta.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko dau, ta aren miiñak berba zuzenak esango dauz. Bere Jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren oiñak ez dabe kilikolorik egingo.

Aleluia, aleluia. Dabid nire morroia aurkitu dot, eta nire orio santuz igurtzi dot. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 14, 26-33).—Aldi aretan, Jesus'ek gizataldeari auxe esan eutsan: Nigana norbait etorri ba'dadi, ta bere aita, ama, emazte, seme-alabak, eta anai-arrebak, baita bere burua be, iguindu ez ba'dagiz, ezin izan daiteke nire ikasle. Ta gurutzea lepoan artuta, nire ondoren etorri ez daitena, ezin izan daiteke nire ikasle. Zuetariko batek torre bat egin nai izan ezker, ez al-dau aurretiaz eralgi bear dauana astiro ataraten, bere lana amaitzeko naiko daukan ala ez? Oiñarriak ezarrita gero, ezin amaitu ba'dagi, ikusle guztiak asi ez daitazan isekaz esaten: «gizon au etxea egiten asi zan, baiña ezin amaitu izan dau.» Edo errege batek beste errege baten aurka guda egin nai izan ezker, ez al-dau aurretiaz astiro asmatzen, amar milla gizonegaz gogor egin ete-leuskion ogei milla gizonegaz gaiñera datorkionari? Bestela, a oraindiño urrun dagoala, geznariak* bialdu ta bakea eskatzen dautso. Orrela, ba: zuetariko iñor ezin izan Saiteke nire ikasle, dauzan guztiak ukatu ez ba'dagiz, Gatza ona da; baiña gatza gazatu ba'dadi, zerez gazituko da? Ez lurrerako, ezta sastegirako be ez da

* Geznari = mensajero.

gai; ta kanpora jaurtiten dabe. Entzuteko entzumenik dagianak, entzun begi.

Eskintza.—Nife egia ta errukia izango dira aregaz: ta nire izenean, aundia izango da aren indarra.

Opari-otoitza.—Zure autorle ta gotzain Basilio santuaren urte-egunak zure gogoko egin gagizala, Jauna; opari bigun oni esker, zeruan ederrago agertu dadilla, ta guri grazia jaritsi daiskula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Etxezain zintzo ta zurra Jaunak bere morroien buru jarri eban, etxeokoi aldi egokian jatekoa banatzeko.

Azken-otoitza.—Arima zintzoen sari-emoille zaran Jaungoikoa: eiguzu, zure autorle ta gotzain Basilio doatsuaren eguna ospatzen dogun ezker, aren otoi-tzez parkamena jadetsi daigula. Amaibagako.

BAGILLAREN 15GARRENA

Aurreko Iganáeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Bito, Modesto ta Krezentzia deunen urregokoak:

2'gn. Otoitza: Egizu, Jauna, Bito, Modesto ta Krezentzia zure martiri santuen bitartez, zure Eliza aundi-nalez ez dadilla azi, apaltasunean baiño, auxe dozu atsegin-eta; gaiztakeri dana ezetsirik, askatasunez ta maitasunez onoinena (ona dana) egin dagiala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Santuen alde eskiñitako opariok Jaungoiko-indarraren aintza autortzen dabenez, guri be salbaziñoaren saria emon dagiskuela. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Zeruko onespenez indartuta, Bito, Modesto ta Krezentzia zure martiri santuen bitartez, osagai* dan Eukaristi onek gure gorputz-arimai on egin dagiela eskatzen dautsugu, Jauna. Amai-bagako.

* Osaeai = medicina.

BAGILLAREN ÍTGARRENA

GREGORIO BARBADIKO DEUNA,

gotzain eta autorle

3^{gn}. mailla — Zuriz

Bergarno ta Padua'ko gotzain eta kardenal, Venezia'n jaio zan, 1625^{gn}. urtean. Fisikan, zenbaketan eta izkuntzetan gizon argia, beartsuentzat esku-zalbala ta ardura aundikoa erriari jakintza emoteko. Padua'ko abade-ikastetxe ospetsuaren egile izan zan. 1697^{gn}. urtean il zan, eta 1960^{garrean} santuen lerroan ezarri eban XXIII^{garren} Jon Aita Santuak,

Meza: Statuit, 484 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Zure autorle ta gotzain Gregorio doatsua arimak zaintzeko arduraz eta beartsuakanako erukiz argitu nai izan zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren irabaziak ospatzen doguzanez, aren goimaitasun-irakatsiak be bete dagiguzala. Amaibagako.

BAGILLAREN 18^{GARRENA}

EFREN DEUNA, autorle ta irakasle

3^{gn}. mailla — Zuriz

Mesopotamia'ko Nizibia'n jaio zan. Bateoa artu ebanean, bere aitak etxetik kanpora bialdu eban. Apaltasunari utsan maitasunagaitik, ez eban abade izan nai, diakonu baiño. Kristo'ren irakatsiak zabaiduz gaiñera, olerkari ta ereslari bere izan zan. 375^{gn}. urtean il zan, eta XV^{garren} Benito Aita Santuak Elizako Irakasle egin eban.

Meza: In medio, 488 orri., *urrogen Otoitzak izan ezik:*

Otoitza. Efren zure autorle ta irakasle -doatsuaren jakintza miragarriz ta bizkera santuz Eliza argitu zenduan Jaungoikoa: bera bitarteko dala, zeure laguntzaz guzuraren eta gaiztekeriaren aurka beti gorde dagizula eskatzen dautsugu. Amaibagako.

2^{gn}. Otoitza, *Markos eta Martzelino deunena:* Egizu, Jaungoiko guztiz altsua, Markos eta Martzelino zure martiri santuen eguna ospatzen dogun ezker, arein bitartez gaitz guztietatik onik urten gaitzala. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Zure autorle ta irakasle Efren santuaren otoitz onak ez daigula, Jauna, uts egin; gure

oparigaiok Zuri ondo arrerazo, ta guri zure errukia beti jadetsi daiskun. Amaibagako.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Markos eta Martzelino deunena:* Bedeinkatu, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta Markos eta Martzelino zure martiri santuen bitartez, begiratu gagizuz samurkiro. Amaibagako.

Azken-otoitza,—Meza au osasungarri izan dakigun, egizu, Jauna, Efren zure autorle doatsua ta irakasle bikaiña bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitza, *Markos eta Martzelino deunena:* Osasunezko Eukaristiaz santututa, Markos eta Martzelino zure martiri santuen bitartez, mesedez ori artutako pozak bizikera barrira eroan gagizala. Amaibagako.

BAGILLAREN 19^{GARRENA}

FALKONIERI'TAR JULIANA DEUNA,

birjiña

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Florenzia'n jaio zan. «Mantelleta» izeneko Irugarren Lagundia sortu eban. f 1341.

Meza: Dilexisti, 500 orri., *urrogen Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Juliana zure neska doatsua il-zorian egoala, zuré Semearen Gorputz ederraz miragarriri indartu zenduan Jaungoikoa: egizu, aren irabazien bitartez, gu be azken-burruka aretan era berean bizkortu ta indarturik, zeruko errira eroanak izan gaitzala. Amaibagako ...eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2^{gn}. Otoitzak, *Jeroasio ta Protasio deunena:* Salus autem *Mezakoak,* 477 orri.

BAGILLAREN 20^{GARRENA}

Aurreko Igandeko Meza; 2^{gn}. Otoitzak, Silberio deunarenak: Si diligis *Mezakoak,* 464 orri.

GONZAGA'TAR LUIS DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Lur onetan bizi izanarren, aingeru Iako zeru-bizitza egin eban gazte garbi onek. Bederatzi urte ebazala, Andra Maria'ri eskini eutsan bere buruaren garbitasuna; amasei urtez, Jesus'en Lagundian sartu zan, eta 23 urte ebazala il zan, 1591'gn. urtean. Mutil gazteen Zaindari da.

M E Z A

Sarrera.^Aingeruak baiño apur bat txikiago egin dozu: aintzaz eta ospez beteriko koroia jarri dautsazu.—Goratu egizue Jauna, Aren aingeru guztiok: goretsi egizue Aren gudarozte guztiok,—Aintza.

Ofoitza.—Zeru^doaiak banatzen dozuzan Jaungoikoa: Luis aingeru gazteagan bizitza garbia ta damuzkoa miragarriro alkartu dozuzan ezkerre, egizu, aren irabaziz eita otoitzez, errubagetasunean ez ba'da be, damuan aren antzeko izan gaitetzala. Amaibagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 31, 8-11).—Gizon errubagea bai zoriontsu!, urre billa ibili ez, eta dirUan eta ondasunetan usterik jarri ez dauana. Nor da au? Goratu dagigun, bere bizitzan arrigarriak egin dauz-ta. Urreaz aztertu dabe, ta garbi gelditu da; betiko argitasuna izango dau. Legea ausi eikean, eta ez eban ausi; txarra egin eikean, eta ez eban egin. Ori dala-ta, foere ondasunak sendo dagoz Jaunagan, eta bere esku zafola santuen batzar guztiak ospatuko dau.

Koru-kanta.—Jauna, Zeu zara nltre ustea gazteta? rik: Zeugandik artu dot indarra sabeletik: amarea sabeletik Zeu zaitut zaindari. Errubagez jaso nozu, ta Zeure aurrean gogortu nozu betiko.

Aleluia, aleluia. Bai zoriontsu Zuk eukeratu ta jaso dozuna! Zure aterpeetan bizi izango da. Aleluia. .']

Barri Ona (Mat 22, 29-40).—Aldi aretan, Jesus'ek sadukeotarrak auxe esan eutsen: «Oker zabize, Liburu Santuak eta Jaungoikoaren indarra ez dozuez eza-gutzen-eta; befbiztutakoan, iñok ez dau emazterik ez senarrik artuko: Jaungoikoaren aingeru legez izango dira zeruan-eta. Ulen biztuera, barriz, ez dozue ira-

kurri Jaungoikoak esan eutsuena: "Atora/ham'en Jaungoikoa, Isaak'en Jaungoikoa ta Jakob'en Jaungoikoa naz Ni"? Ez da illen Jaungoikoa, biziena baiño.» Au entzunik, gizataldea Aren irakaspenaz arrituta egoan. Orduan pariseotarrak, sadukeotarrak isillerazo ebazala jakiñik, batzarra izan eban. Eta arein arteko lege-irakasle batek Jesus'i azpikeriz itandu eutsan: «Irakasle, zein da Legean agindurik naguisi'ena?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz eta adimen osoz maite izango dozu. Auxe da agindurik nagusiena ta lenengoa. Bigarrena, 'barriz, onen antzekoa da: Zure lagun-urkoa zeure burua legez maite izango dozu. Agindu bi oneitan batzen da Lege guztia, baita Igarleak be» (1).

Eskintza.^Nor igoko da Jaunaren mendira?, nor egongo da Aren toki santuan? Ésku-garbi ta biotz-garbia.

Opari-otoitza.—Egizu, Jauna, mai santuan eztegu-jantziz jesarri gaitetzala, Luis doatsua jantzi zan antzera: a be gertaera onaz eta negar-malko oso baliosuz ederturik joan oi zan-eta. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zeruko ogia emon eutsen: Aingeruen ogia jan eban gizonak.

Azken-otoitza.—Aingeruen ogiaz asetu garan ezkerre, egizu, Jauna, Aingeruen oituraz bizi gaitetzala; ta gaurko eguna ospatzen dogun santuaren antzera, beti eskerrak emoten iraun dagigula. Amaibagako.

BAGILLAREN 22'GARRENA

NOLA'KO PAULINO DEUNA,

gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Erromarren serne, Bordel'en (Burdeos) jaijo zan. Nola'ko konsul egin eban; bertantxe artu eban Bateoa. Bere ondasun guztiak beartsuai emon ondoren, abade egin zan, eta gero Nola'ko gotzain. f 431.

(1) Igarleak, edo bardin dana: Igarleak idatzi eban guztia.
21.—

M E Z A

Sarrera.—Zure abadeak, Jauna, jantzi beitez zuzen-tasunez, eta poztu bediz zure santuak; zure morroi Dabid'eganako maitasunagaitik, ez egizu zure igur-tzitakoagandik alde egin.—Gogoratu egizu Dabid, eta onen apaltasun aundia.—Aintza.

Otoitza.—Lur onetan guztia Zeugaitik itzi dabena, gerokoan eun alako ta betiko bizitza agindu dautse-zun Jauna: egizu biotz onez, Paulino gotzain santua-ren bideari jarraituez, lurreko gauzak ukatu ta ze-rukoak maite daiguzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaun-goiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gna.: 8, 9-15).—Anaiok: Ba-dakizue Jesukristo gure Jaunaren esku -zabaltasuna: aberats izanik, zuentzat txiro (beartsu) egin zan, bere txirotasunez zuek aberats izan zaite-zen, Burubide (kontzeju) au emoten dautsuet, egoki yatzue-ta: arazo au egiten asi bakarrik ez, baita era-bagiteko igaztik jarri zintzazan ezkerre: beraz, orain egiñez bete egizue asmo on ori, dozuenetik emoteko, Gogoia gertu ba'dago, ez yako iñori gogoia negurtzen berak ez dauanaren arauz, dauanaren arauz baiño. Besteak bigun bizi, ta zuek latz, ori ez: guztiak bardin baiño. Zuen geiegiak arein urritasuna bete begi orain, arein geiegiak be zuen ez-eukitea bete dagian. Onela guztiak bardin, idatzita dagoanez: «Asko batu eba-nak, ez eban geiago; ta gutxi batu ebanak, ez eban gutxiago euki.»

Koru-kanta.—Ona emen abade aundia, bere egune-tan Jaungoikoari atsegin izan eutsana. Ez zan aren antzekorik agertu Jaungoikoaren fegea beteten.

Aleluia, aleluia. Abade zara zu betiko, Melkise-dek'en saillean. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 12, 32-34).—Aldi aretan Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ez bildur izan, ene ar-taldetxo, Aitak erreñua atsegiñez emongo dautsue-ta. Zuen ogasunak saldu ta egizue limosna: egizuez zerurako zaartzen ez diran zorroak eta galtzen ez di-ran ondasunak: an (zeruan) ez da lapurrik, ezta on-

datzeko sitsik bere. Zuen ogasuna dagizuen tokian, biotza be antxe izango dozue-ta.

Eskeintza.—Dabid nire morroia aurkitu dot, eta orio santuz igurtzi dot; neure eskua izango dau lagun, eta neure besoak indartuko dau.

ppari-otoitza.—Paulino gotzain santua eredu dogu-la, maitasun bikaiñaren opariaz batera, altarako opa-ria be eskiñi dagizugula, Jauna; ta goimaitasun-egin-tzai ekiñik, betiko errukia irabazi daigula. Amal-bagako.

Jaunartzerakoa.—Etkezain zintzo ta zurra, Jaunak bere morroien buru jarri eban, etxeokai aldi ego-kian jatekoa banatzeko.

Azken-otoitza.—jEukaristi santu onetatik geuk be atara dagigula, Jauna, Paulino zure gotzain santuak iturri berberatik atara ebazan oneraspena Odeboziñoa) ta apaltasuna; ta aren bitartez otoitz egiten dautsuen, guztiak, isuri egiezu eurrez zure grazi aberatsa. Amai-bagako.

BAGILLAREN 23'GARRENA

JON BATEATZAILLE DÉUNAREN
AURREGUNA

2'gn. mailla. — Ubelez

M E Z A

Sarrera.—Ez bildurdu, Zakarias, zure otoaia entzuna izan da-ta; zure emazte Elisabet'ek ume bat egingo dautsu, ta izena Jon ezarriko dautsazu; ta Jaunaren aurrean aundia izango da; ta bere amaren sabelean bertan Espiritu Santuz beteko da; ta aren jaiotzaz asko poztuko dira.—Jauna, Zeure indarrak alai-tuko dau Erregea, ta Zugandiko laguntzaz pozez be-teko da.—Aintza.
; Ez da Gloria'rik.

• Otoitza.—Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek!, zure etxeokak osasun-bidetik joan daitezala; ta Jon Aurre-ari doatsuaren irakaspenari jarraituez, nasai joan gai-

tezala arek iragarri euskun zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'gana. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgaia (Jeremias, 1, 4-10).—Egun areitan, Jauk nak berba egin eta auxe esan eustan: «Sabelean zu egin baiño len ezagutu zaitut; eta andik urten baiño len, santutu ta erriantzat Igarle aukeratu zaitut.» Eta nik esan neban: «A, a, a, Jaungoiko Jauna, ez dakit itz egiten, ume naz-ta.» Eta Jaunak esan eustan: «Ez esan ume naz. Nik bialdu zaidazan toki guztietara joango zara, ta Nik agindu dagitzudan edozer egingo dozu. Ez izan bildurrik arein aurrean: zeugaz naukazu zaintzaille-ta —diño Jaunak.» Orduan Jaunak, bere eskua luzaturik, nire agoa ikutu, ta esan eustan: «Nire itzak zeure agoan jarten dodaz: gaurtik enda (arraza) ta erriak zeure gain izten dodaz, zuk erauzi ta ondatu, banandu ta sakabanatu, iragi ta landatu (jarrri) dagizuzan.» Auxe diño Jaun gutziz altsuak.

Koru-kanta.—Jaungoikoak bialduriko gizon bat izan zan, Jon eritxona. Au sinispidetzat (testigutzat) etorri zan, argi-autorle, Jaunari erri bikaiña atontzera.

Barri Ona (Luk., 1, 5-17).—Judea'ko Erodes erregeren egunetan, Abia'ren jatorriko abade bat zan, Zakarias izenekoa; ta onen emaztea, Aaron'en alabatarikoa zan, Elisabet izenez. Biok Jaungoikoaren aurrean zintzoak ziran, eta Jaunaren agindu ta zuzenbide guztietan artez ebiltzan. Eta umerik ez eben, Elisabet agorra zan-eta; biak, barriz, urtez aurreratuak. Bere sailleko txanda zala-ta, Zakarias'ek Jaunaren aurrean abade-egikizunetan ziarduan baten, abadeen artean oi zanez, zotz egin eben, eta lurriña (intzentzua) eskeintzeko Jaunaren Etxean sartu zan; eta erriko talde guztiak otoizketan ziarduan kanpoko aldean.

Eta Jaunaren aingerua agertu yakon intzentzualtarako eskumaldean zutik. Eta a iicusiz, Zakarias larritu egin zan, eta bildurrak artu eban. Baiña aingeruak esan eustan: «Zakarias, ez bildurtu, zure otaitza entzuna izan da-ta; zure emazte Elisabet'ek uime bat egingo dautsu, ta izena Jon ezarriko dautsazu. Atsegiñez eta pozez izango zara, ta aren jaiotzaz asko alaituko dira, Jaunaren aurrean aundia izango da-ta;


ardaorik, ez sagardaorik ez dau edano-n- f ^
ren sabelean bertan Esnirih, «! ! g ' ta^{bere} amaⁿ
rael'go seme asko e'iren J a l I iⁿ z beteko da, Isⁿ
tuko dauz. Elias'en adore, Z s o^o? o J aⁿ u n a S a n a b i u r^o
joango da; gurasoen[^] ak s l A T ^ l n ! t t ^ T ^
zmtzoen ^{senera} ekartera, J T M ^ ^ e m ^ ^
atontzera». " em bikain bat

Amaibagako. ^g P<*atuetik garbitu gazizuz.

dozu, Jauna. ^{argitasun eta} edertasun aundiz jantzi

e^XZtirel^eltTT / ^ i TM 0t0it2
sukristo gure Jauna Ta zure Semea ira^o ^TM ^
na, bigundu dagiala sure A M J f ~Z l r a s a m eⁿ skuⁿ
Zugaz eta Espf^{ru} Zntulel ^TM a i b a S a k o^o egunetan
Errege bizi da ta Olantxe ^g ^ J a u n S o^o* ta





BAGILLAREN 24'GARRENA ..

JON BATEATZAILLE DEUNAREN JAIOTZA

l'gn. mailla. — Zuriz

A-maren sabelean santutu zan, eta Jesukristo Mesias'en Aurrelari j'arri eban Jaungoikoak. Auxe esan eban Jesukristo'k Jon'i buruz: «Emakumegandik jaiotakoan artean, ez da Jon baiño igarlie aundiagorik sortu». Erodes erregeak espetxean saSia ebagi eutsan, Jesukristo'k bere Barri Ona iragarten ziarduan aldian.

M E Z A

Sarrera.—Nire amaren sabelean nengoala egin eustan dei Jaunak nire izenez; nire agoa ezpata zorrotz baten antzekoa egin dau; Bere eskuaz gorde nau, ta gezi* aukeratua lakoxea egin nau.—Ona da Jauna aurtortzea, ta zure Izena goratzea, Jaun Altsu!—Aintza.

Otoitza.—Jon doatsuaren jaiotzaz egun au entzutsu egin dozun Jaungoikoa: emon egiezu zure erriai barruko poza; ta zintzo guztien arimak osasun-bidean zuzendu egizue. Amaibagako.

Irakurgai (Isaias, 49, 1-3; 5, 6-7).—Entzun egizue. ugarteok, eta aditu, urrengo erriok: Jaunak sabeletik dei egin daust; amaren sabelean nengoala gogoratu dau nire izena. Nire agoa ezpata baten antzekoa egin dau: bere eskumaren gerizan gorde nau, ta gezi aukeratua lakoxea egin nau, ta gezi-zorroan gorde nau. Ta

* Gezi = dardo.

esan eustan: «Nire morroi zara, Israel; zeuk goratuko nozu.» Ta orain auxe diñost sabeletik morroi aukeratu nauan Jaunak: «Errien argi egin zaitut, lurraren azkeneragiño nire osasuna eroan dagizun. Zu ikustean, erregeak jagi ta nagusiak gurtu egingo dabe zu aukeratu zaituan Israel'go Jaun Santua.»—*Kredo.*

Koru-kanta.—Sabelean zu egin baiño len ezautu zaitut: eta andik urten baiño len santutu zaitut. Jaunak, bere eskua luzaturik, nire agoa ikutu, ta esan eustan:

Aleluia, aleluia. Zuri, Ume, Altsuaren Igarle dei egingo dautsue: Jaunaren aurretik joango zara-ta, Ari bidea gertatzen. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 1, 57-68).—Umea egiteko aldia eldu yakonean, Elisabet'ek seme bat egin eban. Eta Jaungoikoak ain erruki aundiak egin eutsazala jakinda, bere auzoko ta senideak zorion-agurrak emoten eutsoezan. Zortzigarren egunean umea erdaintzera* eroan eban, eta aittaren izena, Zakarias, ezarri nai eutsoen. Baiña amak esan eutsen: «Ez orixe!, Jon izango dau izena.» Eta erantzun eutsoen: «Baifia zure senitartean ez dago izen ori dauanik-eta!»

Orduan, aitari kiñuka itandu eutsoen, umeari dei egitea zelan nai eban. Onek, barriz, idaztola* eskaturik, auxe idatzi eban: «Jon da orren izena.» Ta guztiak arritu egin ziran. Eta ba/t-batean ago ta miiña askatu egin yakozan, eta Jauna goratzen asi zan. Orduan, auzoko guztiak bildurrak artu ebazan, eta Judea'ko mendi-alde guztietan zabaldu ziran barri oniek, eta entzuten ebezan guztiak biotz-'barrenean ausnartzen ebezan, aikarri esanaz: «Nor ete^dogu ume au?» Jaunaren eskua aren alde egoan-eta. Zakarias, aren aita, Espiritu Santuz bete zan, eta olantxe iragarri eban: «Onetsia Jauna, Israel'en Jaungoikoa, Bere erria agurtu ta birrerosi daualako.»—*Kredo.*

Eskcintza.—Zintzoa, palmondoa legez goratuko da: Libano'ko zedrua lez aundi egingo da.

Opari-otoitza.—Zure altarak oparigaiez beteten doguz, Jauna, Jon'en jaioteguna bear dan eraz ospaturik: munduaren Salbatzaillea ba-etorrela berak iraga-

* Ei-dairidiu = cirouncidar. * Idazteok oltxo, orain papeletan egiten danez.

rh euskun-eta, baita zure Seme Jesukristo gure Jauna erakutsi be. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Zuri, Ume, Altsuaren Igarle deli egingo dautsue: Jaunaren aurretik joango zara-ta, Ari bidea gertatzen.

Azken-otoitza.—Poztu bedi Eliza, Jauna, Jon Ba-teatzaille doatsuaren jaiotzan: beronen bidez, berari (Elizari) bizitza barria emon eutsan Jesukristo gure Jaun eta zure Semea ezagutu eban-eta. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

BAGILLAREN 25'GARRENA

GILLERMO DEUNA, abata

3'gn. matlla. — *Zuriz*

Italta'ko Vercelli'n jaió zan. Ondasun guztiak alde batera itzirik, bakartegi batera baztertu zan, eta ainbat mirari egin ebazan bizi izan z'm artean bere. f 1142

Meza: Os iusti, 494 orri., *Otoitz au izan esilc:*

Otoitza.—Osasun-toidean gure makaltasuna arintze-ko, Santuak eredutzat eta zaindaritzat emon dauskuzuzan Jaungoikoa: eiguзу, Gillermo abat doatsuaren irabaziak ospaturik, aren bitartekotasuna izan daigula ta aren lorratzai jarraitu dagiegula. Amaitoagako.

BAGILLAREN 26'GARRENA

JON ETA PAULO DEUNAK, martiriak

3'gn. mailla. — *Gorritz*

Anai biok Erromarrak ziran, Juliano tede-ukatzaille&k bere etxeokaz bizi izateko dei egin eutsen; baiña areik naigo ebela Jesukristo'ren morroi izan Juliano'renak baino -ta, onek odol-eriotza emon eutsen, arai sama ebagirik. f 362

M E Z A

Sarrera.—Zintzoen larrialdia asko dira; baiña Jaunak guztietatik atara dauz: Jaunak arein azur guztiak zaintzen dauz: bat bakarrik be ez yake ausiko.

^Aldi oro onetsiko dot Jauna: aren goraldia beti agotan izango dot.^Aintza.

Otoitza.—Arren, Jaungoiko guztiz altsua!, Jon eta paulo doatsuakandik datorren poz bikotxa artu daigula jai onetan: sinismen berak eta eriotz berberak egiaz-jo anai egin ebazan-ieta. Amaitoagako.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 44, 10-15).—Gizon errukitsuak dira oneik, eta onein erruki-egiñak ez dira aztuko. Olakoen semeakan iraungo dabe ondasunak. Arein illobak azi jatorra ta itzean zintzo izango dira. Arein semeak betiko iraungo dabe: arein ondorengoak eta entzute pnak ez dira inoiz galduko. Arein gorpuak bazez ilobiratuta dagoz, eta arein izena gizaldiz-gizaldi bizi. izango da. Erriak zabaldu dagiela arein jakintza, ta zintzoen batzarrak iragarri dagiala arein gorapena.

Koru-kanta.—(Bai dala on eta atsegin anaiak alkarregaz bizi izatea! Aaron'i burutik bizarrera erion miritza* lez.

Aleluia, aleluia.—Auxe da egiazko anaitasuna: onek azpiratu dau munduaren gaitakeria; Kristo'ri jarraituez joan da, zeruan erreñua artzera. Aleluia.

Barri Ona: Zain egon, 478 orri.

Eskeintza.—Zure izena maite daben guztiak, Zeugan poztko dira, Jauna: Zuk zintzoa onetsi egiten dozu-ta; Jauna, zeure eskarrez inguratu gaituzu, mazmarroaz* legez.

Opari-otoitza.—Jon eta Paulo zure martiri santuen irabazien bidez eskini dautsuguzan oparigaiok, artu egizuz, Jauna, biotz samurrez; eta beti gure laguntza izan daitezala egizu. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Gizon'en aurrean oiñazeak jasanarren, Jaungoikoak aztertu ebazan, urrea su-katilluan lez ikusi, ta erre-oparitzat onartu ebazan.

Azkeri-otoitza.—Jon eta Paulo zure martiri santuen eguna ospatzean, zeruko janari au artu dogun ezkeru, Jauna, egizu: orain egiten diarduguna, betiko poz-itu-ri biurtu dakigula. Amaibagako.

* Miritza = unguento.

* Mazmarro = escudo.

BAGILLAREN 28'GARRENA

PEDRO TA PAULO APOSTOLU DEUNEN
AURREGUNA

2'gn. mailla. — Vbelez

Sarrera.—Jaunak Pedro'fi auxe esan eutsan: «Gazte zintzazanean, zeuk lotzen zenduan zure gerria, ta nai zenduan tokira joaten zintzazan; baiña zaartu zaitzazanean, zure eskuak zabaldu, egingo dozuz, ta beste norbaitek lotuko d'ausu gerria, ta nai ez dagizun tokira eroango zaitu. Jaungoikoa zelako eriotzaz goratuko eban adierazoteko esan eutsan ori.—Zeruak Jaun'goikoaren aintza iragarten dabe, ta izartegiak Areru esku-ianak.—Ainitza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek!, Apostoluen sinismen-oiñarrian gogor jarri gaituzunok, ez gazizala andik inok atara. Amaibagako.

Ifakurgaia (Apostoluen Egiñak; 3, 1-10).—Egun arei, tan, Pedro ta Jon alkarregaz elizara joiazan, bederatzietako otoitz-ordutan. Eta amaren sabeletik erren* zan gizon bat eroin lepoan, eta egun oro Ederra eritzan elizako ate-ondoan izten eban, elizan sartzen ziranai limosna eskatu egien. Pedro ta Jon elizan sartzen ikusi ebazanean, arek limosnatxo bat eskatu eutsen. Orduan, Pedro'k Jon'egaz aregan begiak jarri-rik, esan eutsan: «Begira guri.» Eta a begira-begira jarri yaken, arekandik zerbait eskuratuko ebalakoan. Eta Pedro'k esan eutsan: «Urrerik ez zidarrik ez daukat; baiña daukadana damotsut: Jesukristo Nazarettarraren izenean, jagi ta zabiltz.»

Ta eskumako eskutik eldurik, zutitu egin eban. Eta bertantxe oiñazpiak eta orpoak sendotu egin yakozan. Eta jauzi (salto) egiñik, zutundu egin zan, eta ba-ebillen, eta arekaz sartu zan elizan, ibiltzen eta saltoka ta Jaungoikoa goratzen. Erri guztiak ikusi eban ibiitfen eta Jaungoikoari goraka: eta guztiak ezagutu eban axe zala elizako Ate-Eder ondoan jesarrita egoten zan

eskekoa, ta jazo izan yakonaz arritu ta bildurtuta gelditu ziran.

Koru-kanta.—Lur osoan zabaldu zan arein abotsa, ta arein itza lurraren azkeneraiño. Zeruak Jaungoikoaren aintza iragarten dabe, ta izartegiak Aren esku-lanak.

Barri Ona (Jon, 21, 15-19).—Aldi aretan, Jesus'ek Simon Pedro'ri auxe esan eutsan: «Simon, Jon'en seme: oneik baiño geiago maite nozu?» «Bai, Jauna —dirautso—: Zuk ba-dakizu maite zaitudana.» Jesus'ek diñotso: «Zaindu egizuz nire bildotsak.» Bigarrenez dirautso: «Simon, Jon'en seme: maite nozu?» Pedro'k diñotso: «Bai, Jauna: Zuk ba-dakizu maite zaitudana.» Jesus'ek dirautso: «Zaindu nire ardiak.» Irugarrenez diñotso: «Simon, Jon'en seme: maite nozu?» "Maite nozu" iru aidiz Jesus'ek esan eutsan-eta, Pedro itun jarri zan, eta esan eutean: «Jauna Zuk' dana dakizu; Zuk ondo dakizu. maite zaitudana'.» Jesus'ek dirautso: «Zaindu nire ardiak. Bene-benetan •dirautsut: gazte zintzazanean, zeuk lotzen zenduan zure gerria, ta nai zenduan tokira joaten zintzazan. Baiña zaartutakoan, zure eskuak zabaldu egingo dozuz, ta beste norbaitek lotuko d'ausu gerria, ta nai ez dagizun tokira eroango zaitu.» Jaungoikoa zetariko eriotzaz goratuko eban adierazoteko esan eutsan ori.


Eskeintza.—^Nire ustez, oso gora jaso dozuz zure adiskideak, Jauna: arein indarra guztiz gogortu da.

Opari-otoitza.^Bedeinka)tu egizuz, Jauna, Apostoluen bitartez, zure erriaren oparigaiok; eta gure pekaten orbanetatik garbitu gazizuz. Arñaibagako.

Jaunartzerakoa—Simon, Jon'en seme: oneik baiño geiago maite nozu? Jauna, Zuk dana dakizu; Zuk ondo dakizu maite zaitudana.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz asetu gaituzunok, Jauna, Apostoluen bitartez ezbear guztitik atara gazizuz. Amaibagako.

* Erren = cojo.

BAGILLAREN 29^aGARRENA

PEDRO TA PAULO APOSTOLU DEUNAK

l'go. mailla. — Gorritz

Elizaren Santu aundienetariakoena gaur ospatzen dogun jaia. Pedro, Jesukristo'k berak EHzañen buru auiceratua: buruz beera josi ehen gurutzean. Paulo, atzerritarren Apostolua; oni, sama ebagi eutsoen.

Sarrera.—Oraintxe dakust egiz Jaunak bere Aingerua biaidu daustana, ta Erodes'en eskutik eta judar-erri osoaren begitik atara nauana.—Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Egun au Pedro ta Paulo zure Apostoluen odol-eriotzaz santutu dozun Jaungoikoa: egizu, zure Elizak jarraitu dagila sinimenari asiera emon eutsoneen aginduai. Amaibagako.

Irakurguia (Apostoluen Egiñak, 12, 1-11).—Egun areitan, Erodes erregea eliztar batzuk jazarten* asi zan. Eta Jon'en anai Santiago ezpataz il eban. Eta judarrai ori atsegingarri yakela ikusirik, Pedro'ri be oratu egin eutsan. Opi'l-egunak* ziran. Eta atxilloturik, giitzapean sartu eban, launa gudariko lau talderen Eainpean, Pazko-ostean erriaren aurrera atarateko asmoz. Bedro giiltzapean egoan bitartean, Elizak otoi egiten eutsan Jaungoikoari aren alde eten бага. Ero-

* Jazarri, jazartu = perseguir. * Opi'l-egunak = días de los ácidos.

des'ek a (Pedro) erriari agirian atarateko zan aurreko gabean bertan, Pedro lo egoan gudari biren erdian, katai biaz lotuta; jagoleak, barriz, ate-aurrean *egozan*, espetxea zaintzen.

Aretan, Jaunaren Aingerua <agertu zan, gela a argituaz; eta Pedro saietsean jo ta iratzartu egin eban, esanaz: «Jagi airin.» Eta Pedro'ri eskuetatik kataiak jausi egin yakozan. Eta Aingeruak esan eutsan: «Lotu gerrikoa ta jantzi oiñetakoak.» Eta alantxe egin eban. Aingeruak esan eutsan: «Estaldu zaitex soifnekoaz, ta jarraitu níri.» Eta urtenik, jarraitu egiten eutsan. Ez ekian, ostera, aingeruak egiten ebana egia zanik, eta irudip«na ikusten ebala uste eban. Lenengo gudari-sailla ta bigarrena igarorik, urira daroan burdiñazko atera eldu ziran, eta atea berez edegi yaken. Andik urtenda, kale bat igaro eban, eta Aingeruak bat-batean alde egin eutsan. Orduan Pedro'k, bere senera bihurturik, esan eban: «Oraintxe dakust egiz, Jaunak bere Aingerua bialdu daustana, Erodes'en eskutik eta judar erri psoaren begitik atara nauana.»

Koru-kanta.—[^]Lur osoan nagusi egingo dozuz; zure izena gogoan izango dabe, Jauna, gizaldiz-gizaldi. Gurasoen orde, semeak jaioko yatzuz; orregaitik, erriak autortu egingo zaitue.

Aleluia, aleluia. Pedro (aitza) zara zu, ta aitz orren gafiñean jasoko dot nire Elíza. Aleluia.

Barrí Ona (Mat. 16, 13-19).—Aldi aretan, Jesus Pilipo'ko Zesarea-aldeko baztarretaruntz joan zan; eta bere ikasleai itandu eutsen: «Gizasemea (1) nor dala diño e gizonak?» Areik erantzun eutsoen: «Batzuek, Jon Bateatzaillea; beste batzuek, Elias; beste batzuek, Jeremias edo igarleren bat.» Jesus'ek esan eutsen: «Zuek, barriz, nor nazala diño zue?» Orduan, Simon Pedro'k erantzun eta esan eutsan: «Zu Kristo zara, Jaungoiko biziaren Semea.» Ta Jesus'ek erantzun eutsan: «Zoriontsu zara, Simon, Jonas'en Seme ori: ez dautsu ori aragiak agertu-ta, zeruko nire Aitak baiño. Nik, barriz, ba[^]dirautsut: Kepa —aitza— zara zu, ta aitz orren gafiñean jasoko dot nire Eliza; ta inpernu-ko atea ez díra aren aurka garaille izango. Zeru-erreñuko giltzak zeuri emongo dautsudaz; eta zuk

lurrean lotu dagizuna, zeruan be lotua izango da; ta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruan be askatua izango da.»—*Kredo*.

Eskeintza.—Lur osoan nagusi egingo dozuz; gizaldiz-gizaldi gogoratuko dabe, Jauna, zure izena.

Opari-otoitza.—Zure izenean konsagratzeko ekarri doguzan oparlgaioi, Jauna, lagun bekioe Apostoluen otoitza; ta'orien bidez, parkatu ta zaindu gagizuz. Amaibagako. '.

Kanon-aurrea: *Apostoluen*, 457 orri.

Jaunartzerakoa.—iPedro (aitza) zara zu, ta aitz orren gainean jasoko dot nire Eliza.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz asetu gaituzunok, Jauna, Apostoluen bitartez, ezbear guztitik onik atara gagizuz. Amaibagako,

BAGILLAREN 30GARRENA

PAULO APOSTOLU DÉUNAREN GOMUTAPENA

3^{gn}. mailla. — Gorriz

Paulo, atzerritarren Apostolua, ta Elizako Irakasle ospetsua. Jesukristo'ren Barri Ona zabaltzen arrisku aundietan ibilli zan itxasoz eta legorrez. Azkenez, sama ebagi eutsoen.

M E Z A

Sarrera.—Ba-dakit, Jauna, nori sinistu dautsadan, eta ziur nago epaille zuzen a altsua dana, nire gordetikizuna egun aretaraiño zaintzeko—Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Paulo Apostolu doatsuaren berbaz atzerritarren erri-tal'deak argitu dozuzan Jaungoikoa: aren eguna ospatzen dogun ezkerok, aren bitartekotasuna bere izan dagigula.

Zure Apostolu Pedro doatsuari, zeru-erreñuko giltzak emonik, askatzeko ta lotzeko eskubidea emon dautsazun Jaungoikoa: egizu, aren laguntzaren bitartez, gure pekatuen korapilloetat askatu gaitzasla. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz ©ta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgai <S. Paulo'k Galazia'koai, 1, 11-20).—Anaiak: Jakin egizue, iragarten dautsuedan Barri Ona gizonakandik ez 'dana; ez dot gizonegandik artu ez ikusi, Jesukristo'gandik ikasi baiño. Entzun dozue noizbait judarren asmoetan niarduala, Jaungoikoaren Eliza ezetsi ta jazarten: nire sasoiko erritar askori judarren asmotan aurrean artzen, eta nire gurasoen ekanduak ardurarik aundienez zaintzen. Baiña nire amaren sabeletik banandu ta deitu nauanak, Bere errukiz alan naita, Semea agertu yatan, Aren Barri Ona atzerrietan zabaldu negian.

Une aretatik, aragiri ez odoleri jaramonik egiteke, ta ni baiño len Apostoluak ziranen billa Jesuralen'era jo bagarik, Arabia'ra joan nintzan, eta andik barriro Damasko'ra biurtu. Gero, ifu urte ondoren, Pedro ikus. tearren, Jerusalem'era igo ta amabost egun aregaz egon nintzan. Apostoluetariko besterik ez dot ikusi, Santiago, Jaunaren *lengusu* anaia izan ezik. Au idaztean, barriz, Jaungoikoaren aurrean jarrita, guzurrik ez diñot.

Koru-kanta.—Pedro Apostolu egin dauanak Berak egin nau ni be atzerritarrentzako apostolu. Jaungoikoaren grazia ez da nigan alperrik: aren grazia beti neugaz dago, ostera.

Aleluia, aleluia. Paulo Apostolu deuna, egi-zabaltzaille, atzerritarren irakasle, zakiguz bitarteko. Aleluia.

Barri Ona (11, 16-22).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Ardiak otso artera lez bialtzen zaituet: sugeak baizen zur izan zaitzeze, ba, eta usoak baizen tolesbage. Gizonai buruz, barriz, zagoze ernai: batzarretan salatu ta euren sinagogetan zigorkadaz astinduko zaitue-ta; eta nagusi ta erregeakana eroanak izango zaree, arei ta atzerritarrai nitzaz autor egiteko. Salatu zagiezenean, barriz, ez asi asmatzen zelan eta zer esango dozun: orduantxe emongo yatzue esatekoa-ta. itz dagiana, ez zaree izango zuek-eta, Aitaren Espiritua baiño, zuekan itz dagiana. Anaiak anaia eriotzarako salatuko dau, ta aittak semea; ta semeak gurasoen aurka jagiko dira, ta il be egongo dabez. Eta nire Izenagaitik guztiak gorroto izango dautsue: baiña azkeneragiño irauan dagiana, orixe salbauko da.

Eskeintzá,—Nire ustez, oso gora jaso dozuz zure adiskideak, Jauna; arein indarra guztiz gogortu da,

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, zure erriaren oparigaiok, Paulo zure Apostoluaren otoitzakaz: zure egiñez begiko yatzun oparia, eskatzen dautsun bitartez gogokoago izan dakizun.


Elizak ekarten dautsuzan eskari ta oparigaiok, Pedro Apostolu doatsuaren otoitzak lagun egin dagitseta zure aurrean, Jauna: aren omenez ospatzen doguna, pekatuen parkamenerako on izan dakigun. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluena, 457 orri.*

Jaunartzerakoa.—Benetan diraustuet: guztia itzita, niri jarraitu daustazuenok, bateko eun artuko dozue, ta betiko bizitza jaritsiko dozue.

Azken-otoitza.—Eukaristi au artuta, Jauna, Pedro zure Apostoluaren bitartez, aren omenez ospatu doguna, zure parkamena jaristeko izan dakigula.

Eskiñi dautsugun oparia, poz-iturri izan dakigula, Jauna; ta Pedro zure Apostoluagan miragarri ikusten za'itugun ezkerok, aren bitartez zure parkamen zabalaz jadesi dagigula. Amaibagako.



GARILLEKO SANTUAK

GARILLAREN I'GOA

JESUKRISTO GURE JAUNAREN ODOL GUZTIZ EDERRAREN EGUNA

l'go. maila. — Gorriz

«Zek balio dau geiago?», diñosku Agustin deunak. Jaungoiko altsuaren Odola da gure eroskundearen ordaiña.

M E Z A

Sarrera.—Zure odolaz erosi gaituzu, Jauna, jatorri, izkera, ta erri guztitik: eta gure Jaungoikoarentzat Erreiñu egin gaituzu.—Jaungoikoaren errukiak beti abestuko dodaz: gizaldiz-gizaldi, nire agoz, Zeure egia iragarriko ddt.—Aintza.

Otoitza.—Jauhgoi'ko alguztidUn et'a betikorra, zue Seme toakarra munduaren SaLbatzaille egin dozuna, ta Arei' odolaz zure zuzentasuna biguntzea nai izan dozuna: egizu, gúrtu dagigula ospe aundiz gure osasunaren saria; ta onen indarrez, oraingo gaitzetatik onik urten gaitzela, ta betiko zoria izan daigula zeruan. Amaibagako... eta zure Sernearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia: Kristo, geroko ondasunen, 178 *orri.*

Koru-kanta.—Auxe de urez eta odolez etorri dana, Jesukristo: ur utsez bakarrik ez, urez eta odolez baiño. Iru dira zeruan autor egiten dabenak: Aita. Itza (edo Semea) ta Epiritu Santua; ta irurak bat dira. Eta iru dira lurtean autor egiten dabenak: arnasa, ura, ta odola; ta irurak bat dira.

Aleluia, aleluia. Gizonen aultorra onartzen ba'dogu, Jaungoikoaren autorra ohea da. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 19, 30-35).—Aldi aretan, Jesus'ek ozpiña* artu ebanean, esan eban: «Guztia bete da!» Ta burua makurturik, azken-arnasa. emon eban. Baiña atontze-eguna zanez, eta gonpuak larunbatez gurtzean gelditu ez eitezan —zapatu a egun aundia

* Ozpin = vinagre.

zan-eta—, arein belauak ausi ta gorpuak kendu egi. zala eskátu eutsoen Pilatos'i judarrak. Etorri ziran, bada, gudariak; eta lenengoari belau-azurrak ausi egin eutsoezan, baita aregaz gurutzeratua izan zan besteari be. Jesus'egana eldu ziranean, barriz, il zala ikusirik, ez eutsoezan belauak ausi; baiña gudari batek aztamakillaz (lantzsz) saietsa zulatu eutsan, eta be-reala odola ta ura urten ziran. Eta ikusi ebanak autortzen dau, ta aren autorra (sinispidea) egiazkoa da.—*Kredo*.

Eskeintza.—Bedeinkatu dogun kaliza, ez ete-da Kristo'ren odola artzeko? Ta zatitzen dogun ogia, ez ete-da Kristo'ren gorputza artzeko?

Opari-otoitza.—Jaungoikozko misterio onein bidez, Alkartasun Barrian bitarteko dan Jesus'egana urreratu gaitezala eskatzen dautsugu, Jauna; ta barriztu dagigula zure altaran, Jaun indartsu!, Abel'en odol isurp-ena baiño obeto itz egiten dauana. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesuki'isto gure Jaun eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea: *Gurutze Santuarena*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.—Bein eskiñi da Kriato, askoren pekatuak kentzeko: bigarrenez pekatu bagarik agertuko da, Aregan uste ona dabenen osasunerako.

Azken-otoitza.—Mai santuan artu gaituzun ezker, Salbatzaillearen iturrietatik ura pozik edan dogu, Jauna; Aren Odola betiko bizitzaragiño doan iturri izan dakigula eskatzen dautsugu. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe. .

GARILLAREN 2'GARRENA

ANDRA MARIA'K ELISABETT EGIN EUTSAN IKUSTALDIA

Z'gn. mailla. — zuriz

Barri Onaren zatian irakurten da Andra Maria'k bere leng'usina Elisa'bet'i egin eutsan ikustaldia.

M E Z A

Sarrera.—Agur, Ama deuna, Zuk semea egin dozu, betidanik zeru-lurren Errege dana.—Nire biotzari eseri eder bat dario; Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Iisuri egiezu, Jauna, zure zintzoai, zeruko graziazen doaia: Birjiña doatsuaren seme-egitea osanaren asiera yakenez, Elisabet'i Ikustaldia egin eutsaneko jai au, bake-iturri ugariagoa izan dakiela. Amaibagako.

2'gn. **Otoitza**, *Prozesoa ta Martiniano deunena*: Prozesoa ta Martiniano zure martiri santuen autor (testigutza) ospetsuaz zure ardurapean gordeten gaituzun Jaungoikoa: areik eredutzat arturik, onbidean aurrea egin dagigula, ta areik bitarteko izanik, poztu gaitzala. Amaibagako...

Irakurgai (Abestiak, Cant., 2, 8-14).—Ara nun darten mendietan jauzika (saltoka), mendi-bizka.rrentan ikotika*. Nire maiteak auntza dirudi, oreinkumea*. Or dago gure orma-ostean, leiotik begira, leio-saretik begira. Nire maitea itz egiten asi yait: Jagi laster, adiskide, ene adiskide, nire ederra, ta zatoz! Negua igaro da, aterri da, joan da euria. Agertu dira lorak gure lurraldean; iñauskaldia eldu da; usapala entzun dogu landetan; pikondoak emon dauz goiz-arnariak (frutuak); mastiari Joratzean usaizia dario. Jagi, adiskide, nire eder, ta zatoz: arkaitz-zuloko ta ormazuloetako uso orrek, erakutsi egizu arpegi ori; itz egidazu belarrira: zure abotsa biguna da-ta, eta zure arpegia ederra.

Koru-kanta.—Zoriontsu ta agurgarri zara, Maria Birjiña: jñogaz loitzeke, Salbatzaillearen Ama egin

zara. Birjiña, Jaungoikoaren Ama, lurralde osoak ezin artu daikena, zeure sabelean gorde zan, gizon egiñik.

Aleluia, aleluia. Zorionsu Zu, Maria Birjiña deun ori, ta gorespen guztia zor yatzuna: zuzentasunezko eguzki dan Kristo gure Jauna, zeugandik .iaio da-ta, Aleluia.

Barri Ona (Luk., 1, 39-47).—Aldi aretan, Maria jagi ta mendiruntz arin joan zan, Juda'ko erri batera; ta Zakarias'enean sartuaz, Elisabet agurtu eban. Eta ara!, Maria'ren agurra Elisabet'ek entzunaz batera, sabelean umea poz-saltoka así yakon, eta Elisabet Es'piritu Santuz bete zan, eta deadarka esan eban: «Onetsia zu emakumeen artean, eta onetsia zure sabeleko Umea bere. Nor naz ni, baifta, nire Jaungoikoaren Ama etorri dakidan? Begira, bada: zure agur-otsa nire belarrietara elduez batera, umetxoa nire sabelean poz-saltoka asi yat. Eta zorionsua zu, Jaunaren addez zu. ri esanak beteko dirala sinistu dozun ori!» Eta Maria'k esan eban: «Biotzez goratzen dot Jauna, ta gogoia pozez dagokit Jaungoikoa osagarri yatalako.»—*Kredo*.

Eskeintza.—Zorionsua zu, Maria Birjiña, guztien Egillean saibelean ekarri dozu-ta: zeu egin zuzendana egin dozu seme, ta betiko neska (birjiña) gelditu zara.

Opari-otoitza.—Zure Seme bakarraren Gizatasuna Iagun dakigula, Jauna: Birjiñag'aridik sorturik, aren neskatasuna gutxitu bagarik, santutu egin eban-eta; aren Ikustaldi jai onetan, gure arimak pekatuetatik garbitu dagizala, ta gure oparia gogoko biurtu dagitzula Jesukristo gure Jaunak. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza, *Prozesoa ta Martiniano deunena*: Artu, Jauna. eskintzen dautsuguzan eskari ta oparigaiok; eta gogokoago izan dakizuzan, zure santuen otoiatak lagun egin dagiguela egizu. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta"* ikustaldian.

Jaunartzerakoa.—Zoorionsua benetan Maria Birjiñarenabela!, betiko Aitaren Semea ekarri eban-eta.

Azken-otoitza.—Urte-jai oneitan gogoz artu dogun Eukaristiak, emon daigula, Jauna, bizitza onetarako ta besterako bear dogun laguntza. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Prozesoa ta Martiniano deunena*: Zure Gorputz santu ta Odol ederraz aseturik, gure Jaungoiko Jauna!, oneraspen (deboziño) aundiz egin dogun opari au, betiko osasunerako izan dakigula. Amaibagako egunetan... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

GARILLAREN 3'GARRENA

IRENEO DEUNA, gotzain cta martiri

3'gn. mailla. — *Gorritz*

Bigarren mendean bizi izan zan, Palikarpo deunaren ikasle, Lyon'go gotzain egin eban. Erejeen aurka ta Elizaren alde argi ta gartsu idatzi eban, «Teolojiaren aita» izena emoteraino.

M E Z A

Sarrera.—Aren agoan egi-legea egoan; eta aren ezpanetan ifioiz ez zan gaiztakeririk aurkitu: baketsu ta zintzo ibili zan Nigaz, eta gaiztakeritik asko atara dauz.—Entzun nire legea, ene erri; itzuli belarriak nire agoko itzietara.—Aintza.

Otoitza.—Ireneo zure martiri ta gotzain doatsuari, egiazko irakaspenaren bidez erejeen aurka egiteko ta Kliza baketzeko grazia emon zeutsan Jaungoikoa: zure erriak izan dagiala iraupena bere sinismena gorde ten, eta emon egiozu bakea oraingo egunotan. Amaibagako.

Iragurgaiia (S. Paulo'k Timoteo'ri 2'gna.: 3, 14-17; 4, 1-5).—Gutziz maite ori: Zagoz gogor ikasi ta sinistu dozun guztian, irakatsi dautsuna gogoan arturik. Umetarik ezagutu dozuzan Liburu Santuak onak dira, Jesukristo sinisturik, osasun-bidean argi egin dagitauen. Jaungoikoak argitutako Idatzi Deunak, egoki dira irakasteko ta egira ekarteko, zuzentzeko ta zuzentasunerara artezteko: Jaungoikoaren gizona bikain izan dadin, edozein eginbear onerako gai egiñik. Jaungoikoaren aurrean eta biziak eta illak epaitzeko Errege agertu bear dauan Jesukristo'ren aurrean agintzen dautsut: iragarri egizu, ekin sasoi onez eta txarrez; egin asarre, erregutu, zuzendu, eroapenik aundienaz irakasten. Irakaspen onik jasango ez daben aldia elduko da noizbait; norberaren burukeriai dagokien ira-

kasleak bilatuko dabez belarrien atsegingarri; ta entzumena egitik aldendurik, ipuiñetara biurtuko dabe. Zu, barriz, zagoz zur, ekin lanari beti, zabaldu Barri Ona, bete zure eginbidea.

Koru-kanta.—Nire anai ta lagun-urkoakaitik, ba! ke-itzak esaten neutsuzan. Zagoz erru bage, ta izan zaitetz zuzena: bake-gizonak etorkizuna dau-ta.

Aleluia, aleluia. Zagoz sarritan zaarren batzarretan, eta arein esakun zurrak, biotza beite dagizueta, Jaungoikoari buruz itz egin dagien guztia entzun daitezun. Aleluia.

Barri Ona (Mat. 10, 28-33).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Goputza ilten dabela, arima ezin il daikenen bildur ez izan; aritna ta gorpuzta su-barrindira (inpernura) jaurti daikezanaren bildurrago izan zaitetze. Txori parez ez ete-da lauko baten saltzen? Eta orraitino, areitariko bat be ez da iurrera jausiko zuen Aitak nai izan ezik. Eta zuei buruz, zuen buruko ule guztiak be zenbatuta (kontatuta) dagoz. Beraz, ez bildur izan: zuek txori pilloa baiño obezaree. Gizonen aurrean autortu nagiana, Neuk be autortu egingo dot zeruko nire Aitaren aurrean. Gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, Neuk be ukatu egingo dot zeruko nire Aitaren aurrean.

Eskeintza.—Egunsentiko argia lakoxea da guztiai argi egiten dautsuden irakaspena, ta oso urriñera zabalduko dot.

Opari-otoitza.—Zugan sinisten daben erriak ikaritzen izten ez dozuzan Jaungoikoa: artu egizuz eskinzen dautsuguzan erregu ta oparigaiok; zure errukiz artu dogun bakeak, kristau-erria. arerikandik gorde dagian. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Begira: niretzat bakarrik ez, baita egi-billa diarduen guztientzat be lan egin dot.

Azken-otoitza.—Bakea maite dozun eta emoten dauiskuzun Jaungoikoa! Zu ezagutzea, bizi izatea, *a Zu otseintzea, errege izatea da-ta: arerioen zirikaldietatik urrindu gagizuz; eta zure ardurapean gagozanok, Ireneo zure martiri ta gotzaiñaren bitartez, inñungo arerioen iskilluren (armaren) bildurrik ez daigula izan. Amaibagako.

GARILLAREN 4GARRENA
(Bizkaia'n)

BERRIO-OTXOA'TAR BALENDIN DOATSUA,
gotzain eta martiri

Jkusi 804 orri.

GARILLAREN 5GARRENA

ANTONIO MARIA ZAKAHIAS DEUNA, autorle
3'gn. mailla. • ~ Zuriz

Cremona'n jaio zan. Oşalari ^gin ondoren, gorpntz-arl-rako osasuna emoten alegintzen zan, *Barnabita* deritxon Lagundia sortu eban. 36 urte ebaztata il zan, 1539gn. urtean.

M E Z A

Sarrera.—Nire itza ta iragartea ez dira giza-jakintzaren itzaldiak lakoak, Jaungoikoaren arnasa ta indarra baiño.—Zintzoen lagunarte ta batzarretan bintz-Jbiotzez goratuko zaitut, Jauna.—^Aintza.

Otoitza.—Egizu, gure Jaun eta Jaungoikoa!, Jesu-kristo'ren jakintza aMsua ikasi dagigula, Paulo Apostoluaren antzera: Antonio Mari doatsuak be, irakapen ori ikasita gero, zure Elizan abade ta neska-gar-bien lagundiak geitu ebazan-eta. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

- **Irakurgaia** (S. Paulo'k Timoteo'ri l'goa.: 4, 8-16).—Gutziz maite ori: Jaungoikoaganako maitasuna guztitarako da on: oraingo ta geroko bizitzarako agintzak daukaz-ta. Benetakoko agintza da au, ta guztiz ondo artzekoa. Onetantxe diardugu lan eta neketan, gure siniste ona gizaki guztien eta batez be fededunen Salbatzaille dan Jaungoiko biziagan ezarri dogu-ta. Auxe agindu ta irakatsi bear dozu. Inok ez zagizala gutxietsi zure gaztetasuna dala-ta; izan zaitetz zintzoen eredu lzketan, jardunean, maitasunean, sinistean, garbitasunean. Ni etorri naiten artean, ekin egiozu irakurten, burubide (kontzeju) emoten, irakasten. Ez ondatu zucan dagoan grazia, batzarreko abadeen esku-ezartez

emon yatzun grazia. Gogoan ausnartu egizu au, onetan ekin, zure aurrerapena guztiak ikusi dagien. Begiratu zeuri ta irakasten dozunari: orretan ekin. Au egiñez, zeu bakarrik ez, baita zeure entzueleak be zeruratu egingo dozuz.

Koru-kanta.—Jaungoikoak foa-daki zelan maite zaituedan Jesukristo'ren erraiñetan. Eta auxe da nire eskaria: zuen maitakuntza gero ta geiago izan dadilla jakitez eta senez, onena aukeratu dagizuen; orrela, garbi ta orbanik bage Kristo'ren egunerarte iraun dagizuen.

Aleluia, aleluia. Jesukristo'gandik datorren zuzentasunez beterik, Jaungoikoaren afntza ta goraldirako. Aleluia.

Barri Ona (Mark., 10, 15-21).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutseh: «Jaungoikoaren erreiñua umetxo baten antzera artu ez dagiana, ez da bertan sartuko». Ta umeak laztandurik eta eskuak arein gainean ezarririk, bedeinkatu egiten ebazan. Eta bidera urten zanean, norbait ariñeketan urreratu yakon, eta Aren aurrean belaunikoturik, itaun au egin eutsan: «Irakasle on!, zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Zegaitik diraus-tazu ona? Ona, bat bakarra da, Jaungoikoa. Aginduak ba-dakizuz: ezkontza ez dozu loituko, iñor ez dozu ilgo, ez dozu ostuko, guzurrezko autorrik (testigutzarik) ez dozu egingo, bidebagekerik ez dozu egingo, zure aitari ta amari lotsa izan «giezu».

Arek erantzun euitsan: «Irakasie, guztiok gaztetarik bete dodaz. Orduan, Jesus'ek, ari begira-begira jarri-rik, maiteki esan eutsan: «Bat ez dozu, orraitñino, oram arte: zoaz, dozum guztia saldu ta beartsuai emon egiezu, ta zeruan ondasuna eukiko dozu; gero ona etorri, ta jarraitu egidazu».

Eskintza.—Aingeruen aurrean eresiak abestuko dautsudzaz: zeure etxe santuan gurtuko zaitut, eta zeure izena gurtuko dot.

Opari-otoitza.—Ekarri dagigula, Jauna, mai onetara gorputz-arimetako garbitasuna: onezaz ederto apainduta, opari au Antonio Mari doatsuak eskintzen eban antzera. Amaibagako.

Jaunartzerakoa—Nire antzeko izan zaitezte, anaiok, eta begiratu egiezue nire eredura dabizana.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz asetu garan ezkerok, Jeeukristo Jauna, Antonio Mari doatsuak suturik eukan maitasun-garrak berotu gagizala: onen bidez, Elizaren arerioen aurka garaille urten zan-eta. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

GARILLAREN 7GARRENA

ZIRILO TA METODIO DEUNAK,

gotzaiñiak eta autorleak

3^{gn.} mailla. — Zurlz

Tesalonika'n jaio ziran IX^{garren} gizaldian; geroago, Bsiabu-ernra joan ziran Barri Ona iragartera. Orretarako^o barriz, erri arein izkuntza ondo ikasi ondoren, izkuntza are^a tara biurtu eben Kristau-liturjia, Elizkizunak be era berean egiñik. Zirilo, Erroma'n il zan, 869^{gn.} urtean, eta Metodio Morabia'n, 885^{garrenean}.

M E Z A

Sarrera.—Zure abadeak, Jauna, jantzi beitez zuzentasunez, eta poztu bediz zure santuak; zure morroi Dabid'eganako maitasunagaitik, ez egizu zure igurtzitakoagandik alde egin.—Gagoratu egizu Dabid, ©ta onen apaltasun aun-dia.—Aintza.

Otoitza.—Zure autorle ta gotzain doatsu Zirilo ta Metodio'ren bidez, Eslabu'tarrai zure izena irakatsi zeutsen Jaungoiko gutziz altsu ta betikorra: egizu, arein egunak poztuten gaituan ezkerok, arein lagun izan gaitzezala. Amaibagako.

Irakurgaia: Asko dira, 486 orñ.

Koru-kanta.^Aren abadeak santutasunez jantziko dodaz, eta aren santuak poztu egingo dira. Dabid'en indarra antxe dot, eta nire igurtzitakoari argiontzia atonduko dautsat.

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutuko: abade zara zu betiko, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Barri Ona: Jaunak beste irurogei ta amabi ikasle, 596 orri.

Eskintza.—Miragarri da Jaungoikoa bere **santual** kan; Israel'en Jaungoikoak Berak emongo dautso indarra ta al-izatea bere erriari. Onetsia Jaungoikoa.

Opari-otoitza.—Gure eskariak eta zintzoen opangaiak onartu egizuz, Jauna: zure santuen jaiegun onetan begiko izan dakizuzan, eta zure errukiaren laguntza jaritsi daiskuen. Amaibagako.

Jaunarizerakoa.—Illunetan dirautsuedana, argitan esan egizue —diño Jaunak—; eta agotik belarrira entzuten dozuena, etxegaiñetik deadarrez esan egizue,

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko algutzidun!, z&'-ruko grazi oneik emon daskuzuzan ezker, Zirilo ta Metodio zure santuak bitarteko dirala, lur onetako gutzia alde batera itzi daigula jaritsi eiguza. Amaibagako.

GARILLAREN 8GARRENA

ISABEL DEUNA, erregiña ta alarguna

3'gn. mailla. — Zuriz

Portugal'go Erregiña izan zan. Alargundu zanean, Prantzisko deunaren irugarren Anaidiko jantzia artu eban, ondasun gutziak beartsuai banaturik. 1336'gn. urtean il zan, eta bere gorpuaq usteltzeke dirau.

Meza: Cognovi, 505 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Isabel erregiña doatsua, beste mesedean artean, gudak eta asarreak baretzeko graziz jantzi zenduan Jaungoiko guttiz errukiorra: bera bitarteko dogula, bizitza onetan bakea izan daigula, ta betiko poza jadetsi daigula eskatzen dautsugu. Amaibagako.

GARILLAREN 10GARRENA

ZAZPI ANAI DEUNAK, martiriak,
eta FURINA TA SEKUNDA DEUNAK,
birjiñak eta martiriak

3'gn. mailla. — Gorritz

Zazpi anai martiri oneik, amaren erreguz isuri eben odola, guzurrezko jaungoikoak gurtu baiño len. Rufina ta Sekundari, barriz, Jaungoikoari egindako euren buru-eskintza ez austearren, sama ebagi eutseen.

M E Z A

Sarrera.—Goratu egizue Jauna, gazteok: goratu Jaunaren izena; legorra zan etxekandrea, ama biuritzen da, semeen pozetan.—Onetsia izan bedi Jaunaren izena orain eta beti. Aintza.

Otoitza.—Arren, Jaungoiko gutziz altsua: martiri ospetsu oneik sinismena bizkor autortzen ikusi doguz-ta, Zure aurrean bitarteko errukitsu izan dagiguzala. Amaibagako.

Irakurgaia: Emakume bizkorra, 505 orri.

• **Koru-kanta.**—Gure arimak, eiztarien saretik txoriak legez, iges egin dau. Sarea eten egin da, ta gu onik urten gara; Jaungoikoaren izena dogu laguntza, zeru-lurra Arexek egin dauz-ta.

Aleluia, aleluia. Auxe da benetako ainaitasuna, munduko pekatuak azpiratu dauzana: Kristo'ri jarraitu dautso, zeru ederra jaritsirik. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 12, 46-50).—Aldi aretan, Jesus'ek oraindiño gizataldeari itz egiten ziarduala, Aren Ama ta senideak kanpokaldean egozan, Ari berba egin nairik. Norbaitek esan eutsan: «Begira, zure Ama ta senideak or kanpoan dozuz, eta Zeu ikusi nai zaitue.» Baiña Berak ori zirautsanari esan eutsan: «Nor dot Nik Ama ta nortzuk dodaz senide?» Ta bere ikasleakana eskua zabaldurik, esan eban: «Ona emen nire ama ta nire senideak. Izan be, zeruko nire Aitaren naia bete dagiana, axe da nire anai, nire arreba, ta ñire ama.n

Eskeintza.—Gure arimak, eiztarien saretik txoriak iegez, iges egin dau. Sarea eten egin da, ta gu onik urten gara.

Opari-otoitza.—Begiratu egizuz biotz bigunez, Jauna, leskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta zure santuen bitartez, Zuganako oneraspena ta osasuna geitu daiskue(za)la. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zeruka nire Aítaren naia bete] dagiana, axe da nire anai, nire arreba, ta nire ama.

Azken-otoitza. — Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek!, zure santuen bitartez, Eukaristiaren grazia artu dogunok, Aren osasun-frutua be artu dagigula, Amaibagako.

GARILLAREN 11'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoltzak, Pio deunarenak: Si diligis, 464 orri.

GARILLAREN 12'GARRENA

JON GUALBERTO DEUNA, abata

3'gn. mailla. — Zuriz

Florentzia'n jaio zan, 990'gn. urte-inguruan. Bariku santu egunez, bere gudariakaz joiala, anai bakarrari bizitza kendu eutsan arerioa aurkitu eban ka'le itxi baten, arerioa bakarrik jeta is'killurik bago egoafla. Ezpataz sauritzeko asi zanean, bestea oiñetara auzpeztu yakon, Gurutzeko Jesukristo'gaitik parka-eske. Bai parkatu be; gero, barriz, Bakartetxe haf jaso eban, Valle-Umbrosa'ko Lagundia izena emonaz. f. 1073.

Meza: Os iusti, 494 orri., *urrengo Barri Ona ta 2'gn. Otoiteak izan ezik:*

2'gn. Otoitza, Nabor eta Felix deunena: Egizu, Jauna, Naibor eta Felix zure martiri santuen egunak beti ospatzen doguzanez, arein otoitzak be beti lagun egin daiskuela. Amaibagako.

Barri Ona (Mat., 5, 43-48).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Entzun dozue esanda dagoala: «Zure lagun-urkoa maite egizu, ta arerioari gorroto izan egiozu.» Nik, banriz, auxe dirautsuet: Zuen arerioak maite egizuez; gorroto dautsuenai, on egie-zue, ta ezetsi ta iraintzen zaituen alde otoi egizue:

Eere eguzkia on eta gaiztoen gaiñera atara, ta euria on eta gaiztoen gaiñera eratorren dauan zeruko zuen Aitaren seme izan zaitez. Baiña maite zaituenak maite ba'dagizuez, zein sari izango dozue? Zergariak* eurak be ez ete-dabe ori egiten? Eta anaiai bakarrik agur egiten ba'dautsazue, geiegikorik zer egiten dozue? Atzerritarrak eurak bere ez ete-dabe ori egiten? Beraz, oso-osoak izan zaíteze, zeruko zuen Aita osoa danez.

2'gn. Opari-otoitza, Nabor eia Felix deunena: Zure erriaren oparigaiok, Jauna, Nabor eta Felix zure martiri santuen bitartez begiko izan bekizuz; eta arein garaipen-egunean eskiñiak diran ezkerro, Zuretzako duin izan daitezala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, Nabor eta Felix deunena: Zure santuen urtebetetze onetan, Eukaristiaz asetu garan ezkerro, Jauna, zure graziak orain emoten dauskuzari ondasunakaitik, betiko poza lortu daigula. Amaibagako.

GARILLAREN 14'GARRENA

BONABENTURA DEUNA,

gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Toskana'n jaio zan, 1221'gn. urtean. Prantziskotarren Ordenan sartu zan, eta gero gotzain eta kardenal egin eben. Lyon'en il zan 1274'an. Eliz-Batzar Nagusia egiten zan aldian, eta 1482'an santu egin eben. «Irakasle Serap'ña» deritxoe.

M E Z A

Sarrera.—Batar-erdian edegi eban agoa, ta Jaunak jakintzaz eta zurtasunez bete eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan.—Ona tia Jauna autartzea, ta zure izena goratzea, Goiko Jauna!—Aintza.

Otoitza.—Zure erriari betiko osasunerako Bonabentura doatsua emon zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, munduan bizitzarako irakasle izan genduana, izan dakigula zeruan be. Amaibagako.

Irakurgaia: Jaungoikoaren aurrean, 488 *orri*

Koru-kanta.—Zintzoaren agoak jakituria isurikin dau, ta aren miñak berba zuzenak esango dauz. Bere Jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren oi. ñak ez dabe kili-kolorik egingo.

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaungoikoak eta ez yako damutuko: abade zara zu betiko, Melkisedek'en saillean. Aleluia.

Barri Ona: Lurrarentzat gatza, 489 *orrl.*

Eskeintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira' eta nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opari-otoitza.—Bonabentura zure autorle ta go. tzain santuaren urte-jaiak gure alde jarri zagizala Jauna: opari bakegarri onen bidez, arek zeruan saria, ta guk emen zure graziaren doaia izan dagigun Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Etxezain zintzo ta zurra egin dau Jaunak morroiburu; etxekoai aldi egokian jatekoa banatu dagi(ts)en.

Azken-otoitza.—Egizu, zintzoen sari-emoille zaran Jaungoiko orrek!, Bonabentura zure autorle ta go. tzain doatsuaren urte-jai au ospatzen dogun ezkeru aren otoitzez zure parkamena lortu daigula. Amaiba-gako.

GARILLAREN 15'GARRENA

ENRIKE DEUNA, agintari ta autorle

3^{gn.} mailla. — Zuriz

Enrike II'garrena, *jaungoikozale* eritzana, Alsmânia'ko errege ta Erromarren Agintari izan zan. Alegin biziak egin ebazan erlejiñoa sabaltzen, eliza zaarak atontzen eta barriak jasoten, eta bakartetxeak egiten. f 1024.

Meza: Os iusti, 490 *orri.*, *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Enrike zure autorle doatsua lurereko Agin-terriaren gaiñetik zeruko erreñura gaurko egunez aldatu zenduan Jaungoikoa: zure grazi ugariz munduko zorabideak azpiratu ebazanez, gu be, aren antzera, emengo gurikeriak ukatuaz, Zugana garbi joan gaitzala. Amaibagako.

GARILLAREN 16'GARRENA

Aurreko I'gandeko Meza; 2^{gn.} Otoitzak, Karmel-mendiko Andra Maria'ren urrengo Mezakoak.

Qaur, Karmen-mendiko Andra Maria'ren urrengo Meza, be esan daiteke, t'garren maillako baiño beste jairik ez la'dator.

KARMEL-MENDIKO ANDRA MARIA'REN MEZA

Sarrera.—Poztu gaitez an guztiok Jaunagan, Maria Birjiña doatsuaren jai ospatzean; beronen egun eder onetan, Aingeruak poztu egiten dira, ta Jaungoikoar-n Semea goratzen dabe.—Nire biotzari abesti eder bat dario; Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Zure Ama Maria beti Birjiña guztiz doatsuaren izen goragarriaz Karmeldarren Lagundia edertu zenduan Jaungoikoa: egizu biotz onez, gaur Aren Gogorapena aundikiro ospatzen dogun ezkeru, Aren laguntzaz indartuta, betiko atsegiñetara eldu gaitzala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia: Maastiaren antzera, 702 *orri.*

Koru-kanta.—Doatsu ta agurgarri zara, Maria Birjiña: iñogaz loitu bagarik., Salbatzaillaren Ama egin zara-ta. Birjiña, Jaungoikoaren Ama, lurralde osoak ezin artu daikena, zeure sabelean gorde zan, gizon egiñik.

Aleluia, aleluia. Galdu genduan bizia Zeuk barriztu zeuskun, Jaungoikoaren Ama orrek!; zerutik Semea ^rturik, Salbatzailla sortu zenduan, eta munduari emon zeutsan. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 11, 27-28).—Aldi aretan, Jesus'ek gizataldeari berba egiten eutsala, gizataldeko emakume batek deadarka esan eutsan: «Zorionsua ekarri zenduzan sabela, ta artu zenduan bularra!» Baiña Jesus'ek erantzun eban: «Zorionsuagoak nonbait, Jaungoikoaren itza entzuten eta beteten dabenak!». Eskintza.—Gomuta zaitez gatzaz, Birjiña Jaungoikoaren Ama, Jaunaren aurrean egon zaitezanean;

erregutu egiozu gure alde, Bere asarrea gugandik al-
dendu dagian.

Opari-otoitza.—Bedeinkatu egizuz, Jauna, eskiñi
dautsuguzan oparigaiok; eta egizu, Jaungoikoaren
Ama Maria doatsuaren bitartekotasun guztiz osasun-
garriaren bidez, osasunerako izan dakiguzala. Amai-
bagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olan-
txe.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta***
gogorapen-egunean.

Jaunartzerakoa.—Munduaren Erregiña guztiz egoki I
zaran Maria beti Birjiña: gizaki guztien Salbatzaille
Kristo Jauna munduari emon zeutsan orrek, Jadetsi
eiguzu bakea ta osasuna.

Azken-otoitza.—Zure Arna goragarri ta beti Birjiña
Maria'ren bitartekotasun santuak lagun daigula;
eta onenbeste mesedez bete gaituan ezkerro, arris-
ku gutzitiak gordeta, bere errukiz, gogo bateko egin
gagizala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz
eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege
bizi zara-ta. Olantxe.

GARILLAREN 17GARRENA

Aurreko Iganáeko Meza: 2^{gn}. Otoitzak, Alejo deunarenak:
Os iusti Mezakoak, 490 orri.

GARILLAREN 18GARRENA

LELIS'TAR KAMILO DEUNA, autorle

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Naipoles'en jalo zan, 1550^{gn}. urtean. Geisoak zaintzeko
Abade-Lagundi bat sortu eban. f. 1614. Geiso, geiso^oetxeen
eta geisoak zaintzen dabezan praillen Zaindari da.

M E Z A

Sarrera.—Bere adiskideakaitik bere bizia emoten
dauanak baiño maitasun aundiagorik inok ez dau.—
Zarionsua beartsuen eta txirown ardura dauana!
egun baltzetik Jaunak onik atarako dau.—Aintza. '

Otoitza.—Kamilo santua il-zorian dagozen arimen
laguntzarako, maitasun-grazi ederrez apaindu zen-
duan Jaungoikoa: aren irabazien bitartez, emon egi-
zu Zeu maitatzeko gogo: mundu au iztean, arerioa
azpiraturik, zeruko koroia lortu dagigun. Amaibagako.

**2^{gn} Otoitza, Sinjorosa ta bere sazipi ume martiri
cleumena:** Sinforosa ta seme martiri santuen zerurako
jaiotza ospatzen izten dauskuzun Jaungoikoa: gu be
arein lagun izan gaitezala betiko atsedenean. Amai-
bagako.

Irakurgaia: Ez zaitze arritu, 335 orri.

Koru-kanta.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko
dau, ta aren mifiak berba zuzenak esango dauz. Be-
re Jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren Oi-
ñak ez dabe kili-kolorik egingo.

Aleluia, alel'Uia.—Bai zorionsu Jaunaren bildur dan
gizona!, Aren aginduak biziro maite dauzana. Aleluia,

Barri Ona (Jon., 15, 12-16).—Aldi aretan, Jesus'ek
bere ikasleai auxe esan eutsen: Nire agindua auxe da:
A'ikar maite egizue, Nik maite izan zaituedanez. Bere
aidiskideakaitik toere bizia emoten dauanak baiño maitasun
aundiagorik inok ez dau. Zuek nire adiskide
izango zaree, nire aginduak gorde ba'dagizue. Aurre-
rantzi'ua, ez dautsuet morroi izenez dei egingo, ugaza-
Bak egiten dauana morroiak ez daki-ta. Baiña zuei
adiskide esan dautsuet, nire Aitari entzun neutsan
guztia jakiñerazo dautsuet-eta. Ez nozue zuek auke-
ratu, Neuk zuek baiño: joan eta frutua ekarri dagi-
zuen, eta zuen frutua iraunkor izan dadin aukeratu
zaituet; eta nire izenean Aitarí eskatu dagiozuen
eodozer, emon egingo dautsue.

Esintza.—Zintzoa, zeure indarrez poztuko da, Jauna,
ta zure laguntzak biziro alaituko dau: Zeuk emon
dautsazu biotzean gura ebana.

Opari-otoitza.—Aita Jaungoiko alguztidun! Jesu-
kristo gure Jaunaren maitasun neurribagearen egin-
tza, Opari garbi oneaz barritzen dogu-ta, Kamilo doa-
tsuaren bitartez, gorputz-arimako gaitz guztien osa-
bide izan begigu, ta pozgarri ta laguntza eriotzan.
Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez.
Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza, *Martiri deumena*: Gure gogozko I
oparigaiok eskintzen dautisuguz, Jauna; zure zintzoen
izenean atsegiñez artu dagizuzala, ta zure errukiz,
osasungarri izan dakiguzala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Geisorik nintzan, eta ikustera
etorri zintzakidazen. Bene-benet^{Sn} dirautsuet: nire
anai oneitariko txikienari egin zeutsena, neuri egin
zeusten.

Azken-otoitza.—Kamilo zure autarle santuaren jaia
ospatzean, biotz-beroz artu dogun zeruko janari onek, I
Jauna, eriotzako orduan Elizakoak eta pekatu guz-
tien parkamena jadetsi daiskuzala, ta zure altzo J
errukitsuan itzi gagizala. Amaibagako egunetan Aita
Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaun-
goiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitza, *Martiri deumena*: Eiguza, Jau-
na, Sinforosa ta bere seme martiri santuen bitartez,
agoaz ikutu doguna, gogo garbiz artu dagigula. Ama-
ibagako.

GARILLAREN 19'GARRENA

BIZENTE PAUL DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Dax'en (Prantzla'n) jaio zan XVII'gn. gizardian. Abade
egin et, bereala, turkoen eskuetan jatorri zan eta Aprika'ra
eroan eban. Barriro bere errialdera etorrita, Misiñoak emoten
ekin eutsan, basarritarrai batez be, ta *Lasarista* izeneko
Lagundia sortu eban. Beartsuen eta geisoen laguntzarako,
barriz, Goimaitasuneko Alaben Lagundia sortu eban, Luisa
Marillac'egaz batera. Paris'en il zan, 1660'gn. urtean. Aita
Santu Leon XHI'garrenak erruki-egintza guztien Zaindari
egin eban.

Meza: Iustus, 492 orri., *besie oneik izan ezik*:

Otoitza.—OBeartsuai Barri Ona zafaultzeko ta aba-
deen argibiderako, Bizente doatsua Apostoluen graziz
apaindu zenduan Jaungoikoa: egizu, aren irabaziak
ospatzen doguzan ezker, onbide-eredutzat artu dagi-
gula. Amaibagako.

Barri Ona: Jaunak toeste irurogei ta amabi, 596 orri.

GARILLAREN 20'GARRENA

JERONIMO EMILIANO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Venezip'n jaio zan. Lagundi bat sortu eban, umezuriz
-etxe ta ikastetxeetan gazteai azbide ona emoteko. Bear-
tsuentzat be etxeak eginik, ainbat limosn^a egin ebazan.
Izurrite (peste)-aldian I' zan, 1537'ganean, izurritz ildakoen
gorpuak illobiratzen ziarduala geisotu ondoren. Pio XI'ga-
rrenak umezuritzen Zaindari egin eban.

M E Z A

Sarrera.—Gibela lurrera isuri yat, nire erriko ala-
baren naigabez, umeak eta sein bularrekoak uriko
enparantzeltan goseaz ilten zirala ikusirik.—Goratu egi-
zue Jauna, gazteok; goratu Jaunaren izena.—Aintza.

Otoitza.—Jaungoiko Aita errukitsu ori: umezurten
laguntzaille ta aita egin zenduan Jeronimo doatsua»
ren irabazi ta otoitzakaitik, izenez eta izanez Jaun-
goikoaren seme garan ezker, semetzakoen aita-ardura
gorderazo egiguzu. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Margarita deunarena*: Egizu, Jauna,
Margarita birjiña ta martiri doatsuk parkamena ja-
ritsi daiskula; arek garbitasunez eta ontasunez beti
atsegin egin izan eutsun-eta. Amaibagako.

Irakurgaia (Isaias, 58, 7-11).—Auxe diño Jaunak:
Gose danari emon egiozu zeure ogitik; beartsuak eta
aterpe bagakoak eroan egizuz zeure etxera; billosik
egeron daitena jantzi egizu, ta zeure anaiari abegi ona
•egiozu. Orrela, egunsentia legez argi egingo dozu, ta
laster etorriko yatzu osasuna. Zeure aurrean joango
da zuzentasuna, ta Jaunaren argitasunak inguratuko
zaitu. Orduan, dei egingo dozu, ta Jaunak entzun
egingo zaitu: zuk dei egin, eta Jaunak erantzun egin-
'go dautsu: Emen nago. Kataia, esku-zemak*, eta
irain-itzak zugandik urrun jaurti ba-dagizuz; gose
danari zure barrua zabaldu ta atsekabetuari biotza
poztu ba'dagiozu, illunpetan argia sortuko yatzu, ta
zure illunpea eguerdi biurtuko da. Jaunak betiko ba-
kea emongo dautsu, ta zure barrena argiz beteko da;

* E'ku-zemak = gestos amenazadores.

zure azurrak gogortu egingo dauz; eta baratze (ortu) bustia lez izango zara, ta legortzen ez dan iturria lez.

Koru-kanta.—Zabaldu egizuz zure errekak, eta egin iturriak enparantzetan. Ernoten naiz ardaña aurretzen dauan gizona, zorioneko da; bere arazoak zuzentasunez atonduko dauz, eta iñoiz be ez dau kili-kolorik egingo.

Aleluia, aleluia. Beartsuai eurrez banatu eutsen: Aren zuzentasunak beti dirau. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 19, 13-21).—Aldi aretan, Jesus'i umetxo batzuk ekarri eutsoezan, arein gafiñean eskuak ezarri ta otoi egin egian. Ikasleak, barriz, asarre egiten eutseen. Baiña Jesus'ek esan eutsen: «Itzi utnetxoak, eta ez egiezue galarazo Nigana etorten: Jaungoikoa-aren erreñua onrelakoena da-ta.» Eta eskuak arein gafiñean ezarririk, alde egin eban. Onetan, norbait urreratu yakon, eta esan eutsan: «Irakasle on!, zer onik egingo dot betiko bizitza jaristeko?» Jesus'ek esan eutsan: «Zegaitik itantzen daustazu Niri ona zer dan? Ona, bat bakarra da, Jaungoikoa. Baiña betiko bizitzan sartu nai ba'dozu, aginduak bete egizuz.» Arek dirautso: «Zeintzuk?» Jesus'ek dirautso: «Iñor ez dozu ilgo, ezkontza ez dozu loituko, ez dozu ostUko, guzurrezko autorrik ez dozu egingo, zure aitari ta amari lotsa izan egiezu, ta zure lagun-urkoa zure burua legez maite izan egizu.» Gazteak dirautso: «Guztiok bete dodaz gaztetarik; zer egin bear dot besterik?» Jesus'ek esan eutsan: «Gutziz ona izan na ba'dozu, zoaz, dozun guztia saldu ta beartsuai emon egiezu, ta zeruan ondasuna izango dozu; gero ona etorri, ta jarraitu egidazu.»

Eskintza.—Zuk negarrez otoi egitean, illak obiratzean, jana agotik itzean, illak etxean gorde ta gabez arei iur emoten zeutsenean, nik zure otoia Jaunari eskeinten neutsan.

Opari-otoitza.—Jeronimo doatsuagan gizaki zaarra galdu ta barria sortu dozun Jaungoiko guztiz onbera: egizu, aren irabaziakaitik, Opari bakegari au Zuri usain gozoz eskiñi daitzugula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Margarita deumarena*: Arti; egizuz samurkiro, Jauna, zure birjiña ta martiri Margarita doatsuaren bidez, eskiñi dautsuguzan opari-

gaiok; eta izan dakiguzala beti gure onerako. Amai-bagako.

Jaunartzerakoa.—Zintzoitasun garbia ta jatorra auxe da Jaungoikoa-aren begietan: umezurtz eta alargunai atsekabe-aldian laguntzea, ta lur onetako orbanik бага norbera bizi izatea.

Azken-otoitza.—Aingeruen janariz aseturik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: urte *oro* Jeronimo doatsuaren gomutapena ospatzen dogun ezkerro, aren antzera bizi izanik, zure erreñuan sari ederra jadetsi dagigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Margarita deumarena*: Jaungoikozko janariaz asetu garan ezkerro, egizu, Jaungoiko Jauna: zure birjiña ta martiri Margarita doatsuaren bitartez, beti janari onen indarrez bizi gaitzala. Amaibagako.

GARILLAREN 21'GARRENA

BRINDIS'KO LORENTZO DEUNA,

autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Italia'lío Brindis urian jaio zan 1559'gn. urtean, eta bu ruiñurdunen jantzia artu eban. Idazti Santu ta Teoloji-irakasle jakintsua, liburu ederrak egin ebazan, protestanteen irakatsien aurka batez bere. Lisboa'n i2 zan, 1619'garrenean. Jon XXIII'gnak. Elizako Irakasleen ferroan ezarri dau.

Meza: In medio, 488 orri., *urrengo Otoitsak isan ezik*:

Otoitza.—Zeruko toide neketsuetarako ta arimien osasunerako, zure autorle ta irakasle Lorentzo santuari jakituri ta sendotasun-gogoa emon zeutsan Jaungoikoa: egizu, aren gogoaz beraz egin bear doguna ezagutu dagigula, ta ezagutu ondoren, aren bitartez bete dagigula. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Praxedes deumarena*: Ainbeste zure arrigarrien urtean, neska makal bati sinismenagaitik odola isuriteko indarra emon dautsazun Jaungoiko: egizu biotz onez, Praxedes zure birjiña ta martin doatsuaren zeruan sartzea gogoratzen dogun ezkerro, aren erakutsien bidez, eldu gaitzala Zugana. Amai-bagako.

Opari-otoitza.—Zure autorle 'ta irakasle Lorentzo santuaren oitoz onak ez daigula, Jauna, uts egin; gu. re oparigaiok Zuri ondo arrezazo, ta guri zure erru, kia beti jadetsi daiskun. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Praxedes deunarena*: Artu egizuz, Jauna, Praxedes zure birjiña ta martiriaren egu. nean dakartsuguzan oparigaiok; aren bitartez, gaitz guztitik onik urtengo garala uste dogu-ta. Amaibagako,

Azken-otoitza.—Meza "u osasungarri izan dakigun, egizu, Jauna, Lorentzo zure autorle doatsua ta irakasle bikaiña bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Praxedes deunarena*: . Emon daiskula laguniza, Jauna, artu dogun Eukaristi onek; eta zure birjiña ta martiri Praxedes doatsuaren bitartez, betiko zorionera eroan gagingala. Amaibagako. JI

GARILLAREN 22'GARRENA

MARI MADALEN DEUNA, damutua

3'gn. mailla. — Zuriz

Madalen, Marta, ta Lazaro, neba-arrebak ziran. Madaien, uriko emakume pekatari bat zan; baiña biziro maite izan eban ezker. Jesus'ek pekatu guztiak parkatu eutsazan, eta berari agertu yakon lenengoz berbiztu ondoren, Barri Onak diñoskunez.

M E Z A

Sarrera.—Zain neukazan pekatariak, noiz ni galduko; baiña nik zeure legea artu dot gogoan, Jauna, Gauzarik onenetan be, azkena dakust: zure aginduak, barriz, ez dau azkenik.—Zoriontsuak benetan, Jau-naren lege-t>idean garbi dabizanak!—.Aintza.

Otoitza.—Mari Madalen doatsuaren oitotzak lagun egin dagiguela, Jauna: aren negarriaren esker, aren neba Lazaro illobitik bizirik atara zenduan-eta. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe. j

Irakurgaia (Abestiak, Cant., 3, 2-5; 8, 6-7).—Jagi, ta uri-zear ibihko naz kaleetan eta enparantzetan maite dodanaren billa. Aren billa ibili naz, baiña ez dot idoro (aurkitu). Uri-zaiñak aurkitu nabe. Ikusi aJ dʌ

zue maite dodana? Andik apur bat aruntzago aurkitu dot nire bai'renak maite dauana: eldu dausat eta ez (jot itziko, nire amaren etxean, aren gelan sartu arje. Arren, Jerusalem'go alabok, basoko auntz eta basantzakaitik, ez iratzartu maitea, >z ezer egin ari, berak nai dag:an arte. Gomutagarritzat jarri nagizu zure biotzean eta zure besoan: maitasuna, eriotza bai-zen bizkorra da-ta; aren beroa, sheol (lurpea) baizen gogorra; aren geziak*, su ta gar. Uriolak ezin itzungi (amatau) izan dabe maitasuna, ta ibaiak ez dabe estalduko. Maitasunaren orde z gizonak bere etxeko ondasun guztiak emon ba'legiz be, utsaren urrengo joko leukez.

Koru-kanta,—Zuzena dana maite izan dozu, ta oker danari gorroto izan dausazu. Orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz.

Aleluia, aleluia. Atsegiña dariozu ezpanetatik; orrexegaitik onetsi zaitu Jaungoikoak beti-betiko. Aleluia.

• Barri Ona: Pariseotar batek, 188 orri.

Eskintza.—^Errege-alabak izango dira zure inguruan; Erregiña zure eskuman egongo da urrezko jantziz, oso apain.

Opari-otoitza.—Gogoko izan bekizuz, Jauna, oparigaiok, Mari Madalen doatsuaren irabaziakaitik: zure Seme bakarrak aren opari ta eskiñiak biotz onez artu ebazan-eta. A'maibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ita Errege bizi da-ta. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Zuzen eta zintzo izan naz, Jauna; arrokoak ez nagiela estutu; zure agindu guztiak bete nebazan, eta cdozein okerbideri gorroto dausat.

Azken-otoitza.—Osasunbide bakar dan zure Gorputz eta Odol baliotsuak artu doguzan ezker, Jauna, Mari Madalen deunari esker, gaitz guztietatik aldendu gailzala. Amaibaeako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

dardo.

APOLINAR DEUNA, gotzain eta martiri

3'gn. mailla. — Gorrlz

Antiokia'tik Erroma'ra etorri zan San Pedro Apostoluag, Onek Ravena'ra bialldu eban, gotzain egin ondoren. Guzür -jaungoikoen abadeak salatuta, odol-eriotza emon eutsen

M E Z A

Sarrera.—Jaungoikoaren abadeok, goratu egizn Jauna; santu ta biotz-apal zareenok, goratu egizue Jaungoikoa.—Jauriarén egintza guztiok, goratu egizue Jauna: gor.éfsi ta aundietsi egizue gizaldien gizaldietan.—Aintza.

Otoitza.—Zintzoen sari-emoille zaran Jaungoikoa, ta egun au Apolinar abade santuaren odol-eriotzaz argitsu egin dozima: aren jai agurgarria ospatzen d>gun ezkerro, zure menpekook aren otoitzez parkamena lortu dagigula. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, Liborio deunarena: Eiguzu, Jaungoi. ko algutzidun orrek, zure autorle ta gotzain Liborio úoatsuaeren egun santuak, Zuganako oneraspen (debcziño) ta osasuna geitu dagigala gudan. Amaibagako,

Irakurgaia (S. Pedro'ren l'goa.: 5, 1-11).—Guztiz maiteok: Zuetariko zaarrentzat emen nik, zaar eta Kristo'ren nekeen autorle ta agertuko dan ospaeren erdikide nazan onek eskatzen dautsuedana: zuen z&inpean dagoan Jaungoikoaren artaldea larratu (zaindu) egizue, Jaungoikoaren gogoaren eraz, gogorrez ez, atsegiñez baiño; sari itxusiari begira ez, utsean baiño; ezta menpeken jauntxo lez, artaldearen eredu izanez baiño. Eta Artzain Nagusia agertu daitenaan, zimeldu ezin daiteken koroi diztiratsua jadetsiko dozue. Zuok, barriz, gatzok, zaarren menpean egon zaitez; ta guztiok alkarrenganako apaltasunez jantzi zaitez, Jaungoikoak arroiak gogor egin eta apalai grazia emoten dautse-ta. Beraz, apalak izan zaitez, Jaungoikoaren esku altsupean, aldi egokian goratu zagiezan, Zuen ardura guztia Berari itzi egiozue, zuen ardura Berak dau-ta.

jSteurridun izan zaitezte ta zur egon, txerrena, zuen arerioa, leoia orroka legez, inguruan dabil-eta, nor jruntisiko zain. Gogor egiozue sinismenez, lurrean ooisuezan anai guztiak neke bardiñetan dagozala jajiñik. Jesukristo'ren bidez Bere argitasunera dei egin dautsuen Jaungoikoak, guztien Eimoilleak, apurtxo bat jasan ba'dagizue, osotu, sendotu ta gogortuko zaiteue. Berari aintza ta agintaritza gizaldaz-gizaldi. Alan izan dadilla.

Koru-kanta.—Aurkitu dot nire morroi Dabid, eta orio santuz igurlzi dot: neure eskua izango dau lagun, eta nare besoak indartuko dau. Ez dau arerioak azpiratuko; gaizto-semeak be ez dautso kalterik egingo.

Aleluia, aleluia. Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutoko: abade zara zu be'tiko, Melkisedek'en saí-jean. Aleluia.

Barri **Ona** (Luk., 22, 24-30).—Aldi aretan, ikasleen artean eztabaida sortu zan, euren artean aundiena nor ete-zeitekean. Baiña Jesus'ek esan eutsen: «Errien erregeak jabe agertzen yakez, ta arein gain aginpidea dabenai, Ongille izena emoten yake. Baiña zuen artean ez bedi orrela izan, bestetara baiño: zuetariko aundiena, txikiena legez egin bedi, ta nagusia morroi legez. Nor da, bada, aundiena? aparitan dagoana, ala mai-morroia? ?z ete-da maian jarrita dagoana? Alan bere, Ni zuen artean morroi legez nago; ta zuek nire naigabe-aldietan Neugaz egon zaree; ta Nik erreñua gertatu dautsuet, Niri Aitak atondu eustanez, nire erreñuan nire maian jan eta edan dagizuen, eta Israel'go amabi jatorriak epaitzeko auzi-aulkietan jersari zaitezten.i)

Eskeintza.—^Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opari-otoitza. — Begiratu biotz onez, Jauna, opari-gaiok; Apolinar zure abade ta martiri doatsuaren egunean dakartsuguz, gure pekatuen ordezkintzeko. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, Liborio deunarena: Poztu ga giezala toki guztietan, Jauna, zure santuak; eta arein irabaziak ospatzean, euren bitartekotasuna be izan dagigula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Jauna, bost talentu itzi zeustazan: ona emen neuk irabazitako taeste bost. Aupa morroi on eta zintzo! Guxtian zintzo izan zakidaza! iako, askoren gain jarriko zaitut: sartu zaitetz zure Jau. naren pozetan.

Azken-otoitza.—Egizu, Jauna: Eukaristi au artu <jo. gun ezker, izan dagigula beti Apolinar doatsuaren la, guntza; olako laguntzak emoten dautsezuzenak, betl begirakune samurrez artzen dozuz-ta. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, Liborio deunarena: Eigu^{zu} Jaungoiko alguztidun orrek: artu dogun Eukaristia. gaitik eskerrak emonez, zure autorle ta gotzain Liborio doatsua bitarteko dala, gero-ta grazi ugariagoak artu daiguzala. Amaibagako.

GARILLAREN 24'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Kristina deii. narenak: Me expectaverunt Mezakoak, 498 orri.

GARILLAREN 25'GARRENA

JOKOBO (SANTIAGO) DEUNA, Apostolua

2'gn. mailla. — Gorriz

Zebedeo'ren seme zan, Jon Apostolua legez, Galilea'ko Betsaida'n jaioa. Izenordez *Aundia* deritxo. Jesukristo zerura igo ondoren, Barri Ona Judea'n eta Samaria'n zabalcu eban. Erodes Agripa'k, judarrai eder egin nairik, sama ebagi eutsán.

M E Z A

Sarrera.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adiskideak, Jaungoikoa: arein indarra oso gogortu da.—Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Santutu ta zaindu egizu, Jauna, zure crria: Santiago Apostoluaren laguntzaz indarturik, bizikera onaz zuri ategin emon dagitzun eta gogo nasaiz otseindu zagizan. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, Kristobal deunarena: Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek: Kristobal zure martiri doa-

tíuaren eguna ospatzen dogun ezker, Zure izena maitatzean indartu gaitezala. Amaibagako.

Irakurgaia (S.Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 4, 9-15.)
 ^-Anafok: Jaungoikoak, gu, Apostoluok, gizonetarik azkenengo artzen gaituala uste dot, eriotzara galduak legez: munduari, aingeruai ta gizonai ikusgarri gakiez-ta. Gu, Kristo'gaitik zoro; zuek, Kristo'gan zur; gu niakal, zuek azkar; zuek aundiki, gu kaskar. Oirain arte gose, egarri, narru-gorritan ibili gara, matrailla-kcák artuaz, batetik bestera iges. Geure eskuz lan eginda nekatu gara. Guri birao egin, eta guk onetsi; -gu jazartu (aurirean eraibili), ta guk jasan; guri irain <g;n, eta guk otoitz. Mundu onetako ^ats eta simaur egifiak gara iguztientzat orain arte. Ez dot au zuek lotsarazoteko idazten, Jesukristo gure Jaunaren seme kutun zaituedanok bizkortzeko baiño. Izan be, Kristo'gan amar milia umezain ba'daukazuez be, aitarik >B dozue askorik, ostera; Barri Onaren bidez, Jesukristo'gan neuk sortu zaituet-eta.

Koru-kanta.—Lur osoan nagusi egingo dozuz; zeure izena gogoratuko dabe, Jauna, gizaldiz-gizaldi. Zure semeak, zure gurasoen orde z jaioko yatzuz: erriak autortu egingo zaitue.

/ **Aleluia**, aleluia. Neuk aukeratu zaituet mundutik, joan eta frutua ekarri dagizuen, eta zuen frutua iraukor izan daiten. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 20, 20-23).—Aldi aretan, Jesus'i Zebedeo'ren semeen ama urreratu yakon, bere seme Jakob (Santiago) ta Jon'egaz; eta Ari gur egiñik, zerdait eskatzekoa egin eutsan. Jesus'ek esan eutsan: <Zer nai dozu?> Arek esan eutsan: <Nire seme biok zure Erreiñuan bata zure eskumaldean eta bestea zure ezkerrekaldean jasarri daitezala esan egizu.> Baiña Jesus'ek erantzun eta esan eban: <Ez dakizue zer esikatzen dozuen. Nik edango dodan ontzikoa zuek edan daikezue?> Areik dirautsoe: <(Bai, -ba-daikegu.> Jesus'ek erantzun eutsen: <Nire ontzikoa, bai, edango jflozue; baiña nire eskumaldean naiz ezkerrekaldean jarrerazoteko eskubiderik ez dot Nik: nire Aitak aton-ju dauzanentzat izango dira toki areik.>—*Kredo*.

Eskeintza.—Lur osoan zabaidu zan arein deia, ta lurbiraren azken-mugaraiño arein berbak.

Opari-otoitza.—Zure erriaren oparigafok gogoko egi_n begituz, Jauna, Santiago Apostolu doatsuaren odol-eriotzak; eta gure irabaziak indarrak ez dabe-ta, aren oititzaz baliotsu izan daitezala. Amaifoagako.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Kristóbal deunarena*: Gure opa rigaiaik eta oititzak onarturik, Jauna, garbitu gagizu; zeruko misterio onein bidez, eta entzun gagizuz biotz onez. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluen*, 457 orri.

Jaunartzerakoa.—Niri jarraitzen etorri zareenolc amaibi aukitan jesarriko zaree, Isr.ael'go amabi jatorriak epaitzeko.

Azken-otoitza. ^Santiago Apostolu doatsuaren bitartez dagun egiguzu, Jauna: aren jaiia egiteagaitik artu dogu pozik Eukaristi au-ta. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitza, *Kristobal deunarena*: Eiguzu, Jaungoiko gure Jauna: orain zure santuen gomutaz alaitzen garanez, poztu gaitzala betiko gerokoan be, arein arpegia ikusiaz. Amaibagako.

GARILLABEN 26GARRENA

ANA DEUNA, ANDRA MARI BIRJIÑAREN AMA

2^{gn}. maila. — Zuriz

Ama Birjifiaren Ama ta, beraz, Jesus'en amama. Ana izenak *grazia* adierazoten dau, ta aren sabelean sortu zan graziaz betea dana.

M E Z A

Sarrera.—Poztu gaitzezan guztiok Jaunagan, Ama doatsuaren jaiia ospatzean; egun aundi onetan, Aingeruak poztu egiten dira, ta Jaungoikoaren Semea goratzen dabe.—Nire biotzari eresi eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—^Aintza.

Oititza.—Zure Seme bakarraren Amaren ama iza-teko, Ana doatsua graziz jantzi zen'duan Jaungoikoa: egizu, aren jai aundia ospatzen dogun ezkeru, zure aurrean bitarteko izan dakigula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia: Emakume bizkorra, 505 orri.

Koru-kanta,—Zuzena dana -maite izan dozu, ta gaiz-kateriari gorroto izan dautsazu. Orrexegaitik igurtzi zaitu Jaungoikoak, zure Jaungoikoak, poz-orioz.

Aleluia, aleluia. Atsegiña dariozu ezp'anetatik; ori dala-tá, beti-betiko onetsi zaitu Jaungoikoak. Aleluia.

Barri Ona: Zeruko erreñua, 499 orri.

Eskintza.—Errege-alabak izango dira zure inguruan; Erregiña zure eskuman egongo da urrezko jantziz, oso apain.

Opari-otoitza.—^Begiratu biotz onez, Jauna, opari-gaiok; eta Ana doatsua, zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'ren Amaren ama bitarteko dogula, gorputz arimen osasunerako izan dakiguzala. Amaibagakp... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Jaunartzerakoa.^Atsegiña dariozu ezpanetatik; ori dala-ta, betiko ta gizaldiz-gizaldi onetsi zaitu Jaungoikoak.

Azken-otoitza.—Zeruko janariak indarturik, egizu, Jaungoiko gure Jauna: Ana doatsua, zure Semearen Amaren ama bitarteko dala, betiko osasuna jadetsi dagigula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

GARILLAREN 27GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2^{gn}. Olotzak, Pantaleon deunarenak: Laetabitur Mezakook, 472 orri.

GARILLAREN 28GARRENA

NAZARIO TA ZELSO DEUNAK, martiriak,
I BITOR DEUNA, Aita Santu ta martiria,
I INOZENTZIO DEUNA, Ait_a Santu ta autorlea.

3^{gn}. maila. — Gorrlz

Nazario ta Zelso lenengo gizaldiko martiriak dira; euren gorpuak, Milan'en dagoz. Bitor deun_a Aprika'ko semea zan, etp. Aita Santu 189^{gn}tik. 199^{ra}. Inozentzio Deuna, Aita Santu 401-417, San Agustín eta San Jeronimo'ren aldikoa.

Meza: Intret, 473 orri., *urango* Oititzak eia Ira-Skurgaia isan *ezik*:

Otoitza.—Nazario, Zelso, Bitor eta Inozentzio zure santuen fede-autortzeak, gurea indartu dagiala, Jaur.a: ta gure makaltasunak bear dauan laguntza gogoz lortu dagiala. Amaibagako.

Irakurgaia (Jakintza, 10, 17-20).—Zintzoai Jaungolkoak eureri lan-saria *emon* eutsen, eta bide miragarritz eroan efoazan. Egunez gerizpean gordetik, eta gabez izarren bidez argi egiñik. Itxaso-Gorria'z zear eroan ebazan urik aundienetik. Arein arerioak, foarriz, inuigil. ciu egin ebazan, eta lur barrenetik atara. Orregafrik, zintzoak, gaiztoen ondasunak jasorik, zure Izen santua, Jauna, oapatu eben; baita zure esku nagusia goratu be guztiak batera, gure Jaun eta Jaungoikoal

Opari-otoitza.—Egizu, Jaungoiko alguztidun!, Nazario, Zelsto, Bitor eta Inozentzio zure santuen bitartez ekarri dautsuguzan oparigaiok, eurok eskiñiaz bigundu zaitezala, ta Zuk onartuaz, guk bizitza izan dagigula. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Nazario, Zelso, Bitor eta Inozentzio zure santuen bitartez bigundurik, Jauna, orain egiten dogun oparia betiko osasun izan dagigula. Amaibagako.

GARILLAREN 29'GARRENA

MARTA DEUNA, birjiña

3'gn. mailla. — Zuriz

Marta, Lazaro, ta Mari, neba-arrebak ziran. Lazaro, Jesus'ek berbiztu ebana da. Marta, etxea atontzen ardura aundikoa, Barri Onak difioskunez. Sarritan joaten zan Jesus onein etxera,

Meza: Dilexisti, 500 orri., *urrango Barri Ona izan ezik; 2'gn. Otoitzak, Felix II, Sinplizio, Faustino ta Beatris deunen urrengokoak:*

2'gn. Otoitza. Egizu, Jauna: kristau-erria Pelix, Sinplizio, Faustino ta Beatriz zure martirien eg'un aundi onetan poztuten danez, gero betiko poza be artu dagiala, orain ospatzen dauan eguna zeruan lorturik. Amaibagako.

Barri Ona (Luk, 10, 38-42).—Aldi aretan, Jesus erri-txo baten sartu zan, eta Marta izeneko emakume batek bere etxean artu eban. Onek, Mari eritxon aizta

bat eban; eta au, Jaunaren oiñetan jesarrita, Aren (Jesus'en) berbak entzuten ziarduan; Marta, barriz, air-dura aundiz etxeko arazo guztietan. Eta Jesus'egana etorririk, auxe esan eutsan: «Jauna, nire aitzak arazo guztietan bakarrik itzi nau, ta zuri ardurarik ez? Esan egiozu, ba, lagun egin dagidala.» Ta Jaunak, erantzunik, esan eutsan: «Marta, Marta: arduraz ta larri diarduzu gauza askotan; baiña bat bakarrik da bearrezkoa. Arlarik onena Mari'k aukeratu dau, ta ez yako kenduko.»

2'gn. Opari-otoitza, *Martiri deunena*: Egizu, Jaungoiko alguztidun!, Pelix, Sinplizio, Paustino ta Beatriz zure martiri santuen gomutapenean ekarri doguzan oparigaiok, parkamena ta osasuna emon daiskuela. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Martiri deunena*: Egizu, Jaungoiko alguztidun!, Pelix, Sinplizio, Paustino ta Beatriz zure martiri santuen eguneko Opari onek, Zugandik parkamena jadetsi daiskula. Amaibagako.


GARILLAREN 30'GARRENA

Aurreko Iganeko Meza; 2'gn. Oloilzalt, Abdon eta Senen santuen urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Atodon eta Senen zure santuai zerura joateko grazi ugaria emon dautsezun Jaungoikoa: cmon egiezu zure menpekoai pekatuen parkamena; santu orrein irabazien bitartez, ezbear guztietatik onik urten daitezan. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Zure martiri santuen eguna ospatzean eskintzen dautsugun opari onek, Jauna, gure gaiztakerien lokarria eten dagiala, ta zure errukiaren graziak erakarri daiskuzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Eukaristi onen indarrez, Jauna, gure griña okerrak osatu daitezala; ta Abdon eta Senen zure martiri santuak bitarteko dirala, gure gurari onak lortu daiguzala. Amaibagako.



GARILLAREN 31'GARRENA

LOIOLA'TAR IÑAZIO DEUNA, autorle

(*Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko Zaindari Nagusia*)

3'gn. maila. (1'go. maila. Blz.—Gipj — Zvi.ru

1491'garren urtean jaio zan Loiola'n, Gipuzkoa'n. Guauri-bizitza alde batera itzita, Jaungoikoagana biurtu zanean, lenengo Arantzazu'ra joan zan, Andr  Maria'ren oiñetan bere burua eskintzera. Gero, Montserrat'era, ta andik Manresa'ko artzulora, lengo bizikeraz damutzer, ta Jesukristo'ren morroi zintzo biurtzera. Lagundi bat sortu eban, Jesus'en Lagundia, orduko erejeen aurka ta Elizaren alde ekiteko. Arimen onerako, Gogo-jardun edo Ejertzioak idatzi ebazan, mundu guztian oso ezagunak gaur. Beronek ekarri eban Xabier'tar Prantzisko bide obero, Paris'en ikasten ziarduala. Iñaki'ren goiburua, auxe zan: «Jaungoikoaren aintzarik aundienaroko». Aita Santu Pio XI'garrenak, gogo-jardunak egiten dabezanen Zaindari egin eban.

M E Z A

Sarrera.—Jesus izena entzutean, jarri bediz belauniko zeru4ur-inpernuak; eta miin guztiak autortu begie Jauna dala Jesukristo, Aita Jaungoikoaren aintzarako. —²Zure izena maite daben guztiak, Zeugan poztu daitezala: zintzoa Zeuk onetsiko dozu-ta.—[^]Aintza.

Otoitza.—Zure izenaren aintzarik aundiena zabaltzeko, Iñazio doaitsuaren laguntza barriaz, lunreko Eliza indartu dozun Jaungoikoa: bera lagun dogula, ta bere antzera, lurrean burruka egiñik, beragaz zeruan koroia artu daigula. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Timoteo'ri 2'gna.: 2, 8-10; 3_ 10-12).—Gutziz maite ori: Gogoratu egizu, Dabid'en jatorriko Jesukristo, illen artetik biztu zala, iragarren dodanez. Barri On onegaitik neketan bizi naz, gaizto lez, katai-artean egoteragiño. Jaungoikoaren itza, oster, ez dago lotuta. Ori dala-ta, guztia jasaten* dot aukeratutakoan alde, oneik be Jesukristo'gandik datorkigun osasuna jaritsi dagien, betiko argitan. Ba-dakizu, barriz, zeuk ikusita, zeintzuk diran nire ikasbidea, bizikera, asmoak, sinistea, biotz zabala, maitasuna ta eroapena; baita Antiokia'n, Ikonía'n eta Listra'n jasan nebazan jazarpent* eta nekeak be. Nik eroan bear izan dodazan jazarpentak! Eta guztietatik onik atara nau Jaunak. Izan be, Jesukristo'gaz zintzo bizi izan nai dagien guztiak, jazartuak (aurrean erabiliak) izango dira.

Koru-kanta.—Zintzoa, palmondo legez aziko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Jaunaren etxean. Goizean zure errukia iragarten dau, ta arratsaldean zure egia.

Aleluia, aleluia. Zoriontsu, tentaldia ondo eroan dagian gizona; aretan aztertu dagienean, bizitza-koroia jaritsiko dau-ta. Aleluia.

I Barri Ona (Luk., 10, 1-9).—Aldi aretan, Jaunak beste irurogei ta amabi ikasle aukeratu ta biñaka bere aurretik bialdu ebazan, Berak joan bear eban uri ta alde guztietara. Eta auxe zirautsen: «Uzta (solo-aria) ugaritsua da; langi'lleak, barriz, gutxi. Solo-ariaren jabsari erregu egiozue, ba, langi'lleak bere solora bialdu dagizan. Zoaze: bildotsak otso-aritera legez bialtzen zaituet. Ez egizue zorrorik, ez zakutorik, ez oiñetarik eroan; eta bidean iñori agurrik ez egin. Sartu zaitzen etxean, barriz, lenengo esan: «Bakea etxe onentzat»; eta an bake-semerik ba'dadi, zuen bakea aren gaiñera jatsiko da; bestela, zeukana biurtuko da. Etxe aretan bertan egon zaitze, emon dagitzuena jaten eta eciaten: langi'lleari bere saria zor yako-ta. Ez aldatu etxe batetik bestera. Ta sartu zaitzen edozein uritan ondo artu ba'zagieze, aurkeztu dagitzuena jan egizue,

* Jasan = padecer, soportar.

* Jazarpent = persecución.

ta ango geisoak osatu egizue, eta esan egiezue: Jaungoikoaren erreinua urrean dozue».—*Kredo*.

Eskeintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opari-otoitza.—Gure oparigai onei lagur. egixi begie, Jauna, Iñazio deunaren otoitzak; eta santutasun guztia-ren iturri dan Opari onek, benetan santu egin gagizala gu bere. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Lurrera sua emotera etorri naz; eta zer nai dot geiago, erre dadin baiño?

Azken-otoitza.—Iñaki deunaren egunean eskerrak emonez eskiñi dautsugun Opari santu onek, Jauna, aren bitartez, Jaungoiko aundi ori goratzera beti eroan gagizala. Amaibagako.



DAGONILLEKO SANTUAK

DAGONILLAREN I'GOA

Aurreko Iganeko Meza; 2'gn. Oloitzak, Makabeo martiri santuen urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Anai martiri santu onein koroiak alaitu gagizala, Jauna: gure sinismena indartu dadi-lla, ta arein otoitzak pozez bete gagiezala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Zur« martiri santuen izenean, Opari au oneraspen (deboziño) aundiz egin dagigula, Jauna: laguntza ta poz aundiagoa lortzeko. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Bgizu, Jaungoiko algutzidun!, Eukaristia artuez gogoratzen doguzan santu arem •sinismena, gero-ta biziago gorde dagigula. Amaibagako.

DAGONILLAREN 2'GARRENA

LIGORIO'TAR ALFONSO MARI DEUNA, gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Redentorista izeneko Lagundia sortu eban, erriz-erri Mi-ñioak emoteko. Liburu ederrak idatzi ebazan, Moral-gaietan batez bere. 1787'garrenean il zan, 91 urte ebazala.

M E Z A

Sarrera.—Jaunaren Arnasa (Espiritua) nire gai-ñean; Berak onetsi ta bialdu nau beartsuai Barri Ona ekart-era, biotz-naigabetuak osatzera.—*Ps*. Entzun egizu nire legea, ene erri; makurtu zure belarria nire agoko iitzetara.—*Aintza*.

Otoitza.—Arimak zerutzeko sugarrez beterik egoan Alfonso Mari zure autorle ta gotzain doatsuaren bi-ctez, Elizan Lagundi barri bat sortu dozun Jaungoi-koa: egizu, aren irakaspenez argiturik, eta eredu-iz indarturik, Zugana onik eidu gaitezala. Amaibagako.

2'gn.Oto.itza, Esteban deunarena: Begiratu egizu sa-murkiro zure artatdea, betiko Artzain orrek!; eta Eli-

za osoaren Artzain egin zenduan zure martiri ta <Uta Santu Esteban doatsuaren bitartez, zaindu egizu EHzare zure laguntza etembageaz. Amaibagako

Irakurgaia (S. Paulo'k Timoteo' 2' gna.: 2, 1-7).—Gutziz maite ori: Jesukristo'ren graziaz adoretu zaitzez; eta lekuko (testigu) askoren aurrean entzun zeustana, azaldu egiezu gizon zintzoai ta besteri irakasteko gei izan daitezkezanai. Ekin lanari, Jesukristo'ren gudari ónari dagokionez. Jaungoikoaren gudari dana, ez da naasten bizitzako arazoetan, aukeratu dauanaren ederra izan dagian. Burrukalariari be ez dautsoe koroia emafen, bear dan arauz jokatu ez ba'dau. Nekazariak lan egin bear dau arnaria (frutua) artu baiño len. Ulertu egizu esan nai dodana, Jaungoikoak argitasun osoa emongo dautsu-ta.

Koru-kanta.—Aspaldiko zure erabagiak gogotan dodaz, Jauna, ta bakean igelditzen naz; samin biziak airtzen nau zure legea izten dabenakaitik.—[^]Zure zuzentasuna ez dot nire biotzean gordeta euki: zure egia ta osasuna zabaldu egin dodaz.

Aleluia, aleluia. Jaungoikoak bialdu eban erria garbaira .(damura) biurtu zedin; eta gaiztakeri itsusiak kendu egin ebazan; Jaunagana zuzendu eban biotza, ^ota gaiz-toen egunetan Jaungoikozaletasuna sendotu eban. Al'eluaia.

Barri Ona: Jaunak beste irurogei ta amabi, 689 orri.

Eskeintza.—Goratu egizu Jauna, dozunetik emonaz, eta frutu guztien asikiñak emon egiozuz. Dagokion onik ez iñori ukatu, ©gitea zeure aukeran egon ba'dadi, toeintzat.

Opari-otoitza.—Zeruko Opari onen suak, Jesukristo Jauna, gure biotzak sutu dagizala usain gozoa emonaz: Alfonso Mari doatsuari, Meza emotean, bere buruaren opari-e'Skintza Zeuk jadetsi zeutsajweta. Amaibagako -egvjnetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza, *Esteban deunarena*: Gure oparigai onein bidez, Jauna, argi egiozu zure Elizari: zure artaldea bere bidean aurrera joan dadin, eta zure

eragiñez, Artzaiñak be>giko izan dakizuzan. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Abade aundi onek, Jaunaren etxeari eutsi dautso; bere egunetan Jaunaren etxea sendotu dau, sugar argitsu ta txingarretan erreten dan intzentzu-aren antzera.

Azken-otoitza.—Alfonso Mari zure autorle ta gotzain doatsua grazi-banatzaille ta fede-zabaltzaille zintzo egin dozun Jaungoiko: aren ira'baziai ta otoitzai esker, grazi oneik sarritan artu daiguzala, ta arturik, eten бага Zeu goratu zagiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Esteban deunarena*: Zuzendu egizu samurkiro, Jauna, zure Eliza, janari santuz indartu ida-ta; eta zure esku indartsuaz eroanik, askatasun geiago izan, eta sinismen osoan iraun dagiala. Amaibagako.

DAGONILLAREN 4'GARRENA

DOMINGO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — *Zuns*

Errioja'n jaióa. Prantzia'n Albige'tarren guzurak ausceko jagi zan, egia nunai zabaldurik; eta orretarako, Anai fede-zabaltzailleen Lagundia sortu eban, 1215'gn. urte-inguruan. Bolonia'n il zan, 1221'garrenean; eta iru urte geroago, bere adiskide Aita Santu Gregorio IX'garrenak santu egin eban.

M E Z A

Sarrera.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko dau, ta aren miiñak berba zuzenak esango dauz; bere Jaungoikoaren iegea dauko biotzean.—*Ps.* Gaiztoak gora-bera ez asarretu; ez izan gaiztoakanako ikusi-eziñik.—[^]Aintza.

Otoitza.—Domingo zure autorle doatsuaren irabaziz eta irakatsiz, zure Elizari argi egin dautsazun Jaungoiko: aren bitartez, lurrean bear dauanik ez dakiola falta, ta zerurakoetan joan daitela beti aurrera. Amaibagako-.

Irakurgaia: Jaungoikoaren aurrean, 488 orri.

Koru-kanta.—Zintzoa, palmondoaren antzera aziko da; Libano'ko zendrua lez aundi egingo da Jaunaren

etxean—Goizean zure errukia, ta gabeaen zure egia iragarteko.

Aleluia, aleluia.—Zintzoa, lilia lez aundi egingo da, ta Jaunaren aurrean beti¹betiko loratan egongo da. Aleluia.

Barri Ona: Begoz zuen gerriak, 491 *orri*.

Eskintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da arem indarra.

Opari-otoitza.—Bedeinkatu egizuz, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta Domingo zure autorle doatsuaren ortortzai esker, اساسungarri biurfcu dakiguzala. Arnaibagako.

Jaunartzerakoa.—Etxezain zintzo ta zurra, Jaunak bere morroien touru jarrí eban, etxekoai aldi egokian jatekoa banatzeko.

Azken-otoitza.—Egizu, Jaungoiko aiguztidun, gure pekaitu[^]ortaz atsekabez gagozan ezker, Domingo zure autorle doatsuaren laguntzak arindu gagizala. Amaibagako.

DAGONILLAREN 5'GARRENA

ANDRA MARI EDURTZETAKO ELIZAREN
ESKEINTZA

3'gn. mailla. — Zuriz

Eliza au, Aita Santu Liborio'k egin eban Errama'n, Eskilino izeneko menditxo gaiñean, IV'garren gizaidian. Eun urte geroago, Aita Santu Sixto III'garrenak beste eliza barrí balc egin eban, Santa Maria Aundia izenez. Andra Maria'ri jaso izan yakon elizarik aundiena auxe da, ta Basilika izena dau.

Meza: Salve, sancta Parens, 458 ori'i.

DAGONILLAREN 6'GARRENA

JESUKRISTO GURE JAUNAREN IRUDIALDATZEA

2'gn. mailla. — Zuriz

Eguzkialdeko Elizetan aspaldian ospatu oi zan jai au. Isla'm'darrak kristau-erriaz jabetu nai ebela, Belgrado-inguruan goldierazo ebezan. Eta garaipen ori ospatzeko, Aitf Santu Kalixto III'garrenak jal au Eliza osoan ospatu zeitela agintu eban.

M E Z A

Sarrera.—Zure tximistak lurra argitu eben: lurrak, ikara ta dar-ciar egin eban — *Ps.* Zure aterpeak bai maitagarri, gudarozteen Jauna! Nire barruak biotz-biotz zure nai dauz Jaunaren atenpeak.—Aintza.

Otoitza.—Pedeko ezkutapenak zure Seme bakarra-
ren Irudialdatze-egunean Gurasoen autorrez indartu dozuzan Jaungoikoa, ta odei-argitik etorren abotsaz zure umeen semekuntza jatorra adierazo dauskuzuna: arren, zeruko Erregearen oiñordekide egin gagizuz, eta zeruaren argitasun beraren lagunkide. Amaibagako... eta zure Semearon berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Otoitza, *Sixto, Felizisimo ta Agapito santue-
na: Sixto, Pelizisimo ta A-gapito* zure martiri santuen zerurako iaotza ospatzen izten dauskuzun Jaungoikoa: gi. be arein lagun izan gaitezala betiko atsede-
nean. Amaibagako.

Irakurgaia: (S. Pedro'ren 2'gna.: 1, 16-19).—Guztii maiteok: Jesukristo gure Jaunaren indarra ta etorrers* ez dautsuegu ipuin ederretatik ezaguerazo, geuk ikusi dogun aunditasunetik baiñio. «Auxe da atsegin dodan Seme kutuna, entzun Orri», odei argitsutik Aita Jaungoikoak ospe ta aintza ori emoten, geuk entzun dogu zeruko abotsez, mendi santuan Aregaz gengozala. Egi au geiago gogortzeko, ordaukagu Igarleen itza; ta zuei be on yatzue itz orri begira egotea, illunpean biztutako argizuziari legez, eguna argitu ta zuen biotzetan artizarra agertu daiten arte.

Koru-kanta.—Gizasemerik ederrena zara; atsegiña darizu ezpanetatik.—Nire biotzari eresi eder bat dario; Erregearentzat nire olerkiak.

Aleluia, aleluia. Betiko argiaren diztira da, orban bagako izpíllua, ta Aren ontasanaren irudia. Aleluia, Barri Ona: Jesus'ek, Pedro, Santiago ta Jon, 173 *orti*.

Eskeintza.—Aintza ta ondasunak izango dira Aren etxean; Aren auzentasunak beti dirau.

Opari-otoitza.—Bedeinkat-cu egizuz, Jauna, zure Seme bakarraren Trudialdatze egun argitsuan eskiñi

dautsuguzan oparigaiok; eta gune pekatuen orbanak argi ditziratsu orreaz garbitu egizuz. Amaibagako... eta zure Semearen ibertoeraren bidez. Olantxe.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Sixto, Felizisimo ta Agapito deunena*: Oure gogoko oparigai oneik eskintzen dautsuguz, Jauna; zure zintzoen izenean atsegiñez artu dagizuzala, ta zure errukiz, osangarri izan dakiguzala. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Ikusi dozuena, iñori bere ez esan, Gizasemea (Jesukristo) illen artetik biztu daiten arte.

Azken-otaitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguatidun, ospe aundiz gogoratu idogun zure Semearen Irudialdatzearen jazo miragarria, biotz garbiz ulertu daigula. Amai. bagako... eta zure Semearen berberaren toidez. Olantxe,

2^{gn}. Azken-otoitza, *Sixto, Felizisimo ta Agapita santuena*: Eiguzu, Jauna!, Sixto. Felizisimo ta Agapito zure imartiri santuen toitartez, agoaz ikutu doguna, gogo garbiz artu dagiguia. Amalbagako.

DAGONILLAREN 7GARRENA

KAIETANO DEUNA, autorle

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Jaio ta bereala bere amak Andra Maria'ri eskiñi eutsan. Patavia'h eglñ ebazan ikaskizunak, abade egiñik. Egintza guztietan Jaunagan jaften eban bere ueste osoa. Abade-lagun'di barri bat sortu eban, eta Napoles'en il zan, 1547garrenean.

Meza: Os iusti, 490 orri., une?igo Otoitzafc *eta Barri Ona izan ezik*:

Otoiitza.—Kaietano zure autoifle doatsuari Aposto-luen antzera toizi izaten irakatsi zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, aren toitartez eta ereduz. izan daigula beti Zuan ueste ona, ta zeruko gauzak baiño ez dagiguzala opa. Amaibagako.

2^{gn}. Otoiitza, *Donato deunarena*: Zure abadeen argitasun zaran Jaungoikoa: Donato zure martiri ta gotzain santuaren jai onetan, aren laguntza izan dagigula egizu. Amaitoagako.

Opari-otoitza.—Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: gure opari aipal au, zure santuen izenean begiko izan dakizuia, ta gu gorputz-ariman garbitu gagizala. Amaibagako.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Donato deunarena*: Eiguzu, Jau-na, zure martiri ta gotzain Donato santuaren bitartez —opari au aren izenean eskintzen dogun ezker—, Zeuganako oneraspen (deboziño) ona ugaritu dakigula. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Egizu, Jaungoiko ailguztidun orrek: zeruko janari au artu dogun ezker, Kaietano zure autorle doatsuaren bitartez, arerio guztien aurka indartu gaitetzala. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitza, *Donato deunarena*: Jaungoiko alguztidun eta errukior ori! Zure sakramentuen artzaille ta emoilte egiten gaituzun ezker, Donato zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, eta aren antzera, sinismenean eta zure otseintzan beti aurrera joan gaitetzala. Amaibagako.

DAGONILLAREN 8GARRENA

VIANNEY'TAR JON IMARI DEUNA, autorie

3^{gn}. mailla. — Zuriz

Dardilly'n jaio zan, Lyon-ondoan, 1786^{gn}. urtean. 1815garrenean Grenoble'n abade egiñik, Ars izeneko errixtora bialdu eben, eta antxe egon zan ia berrogei ta bi urtez. Ainbat mirari egin ebazan bizi zala, ta millaka joaten yakozan euren pekatuen parkamena eskatzera. 1858^{gn}. urtean il zan. Pio XI'garrenak santu egin eban 1929'an, eta txauburuen Oparrokuen) z^aaindari izentatu eban.

Meza: Os iusti, 490 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik*:

Otoiitza.—Jon Mari santua arimazale sutsu ta otoi-tzean eta damu-nekean miragarri egin zenduan Jaungoiko alguztidun eta errukiorra: egizu, bera bitarteko ta eredu dogula, anaiak Kristo'rentzat irabazi ta arekatz betikr zerua jadetsi daigula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2^{gn}. Otoiitza, *Ziriako, Largo ta Esmaragdo deunena*: Ziriako, Largo ta Esmaragdo zure martiri santuen urte-egu:iean poztuten gaituzun Jaungoikoa: egizu samurkiro, arein zerurako jaiotza ospatzen dogun ezker, oiñazetarako iraupena be izan dagigula. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Zure santuen gomutaz, Jauna, ez-kintzen dautsuguz gorapenezko oparigaiok; eta euron

bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onik urtengo j garala uste dogu. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, Ziriaco, *Largo ta Esmaragdo deumena*: Gogoko izan dakizula, Jauna, zure aurrean gure otoitza; ta gaur ospatzen doguzan santuen eskari-rien fcitartez, osasungarri izan dakigula. Amaibagako.

Azken-otoitza,—Zeruko janari ta edari onekaz indarturik, egizu gure Jaungoiko!, santuaren eguna ospatuez artu doguzan ezkeru, berak lagun egin daiskula bere otoitzakaz. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Ziriako, Largo ia Esmaragdo deumena*: Janari sanJtuaz indartu garan ezkeru, gure Jaun 'eta Jaungoiko!, Ziriako, Largo ta Esmaragdo zure martiri sanituen bitartez, ospatzen dogun opari onen indarra sornau daigula gudan. Amaibagako.

DAGONILLAREN 9'GARRENA

LORENTZO MARTIRI DEJNAREN AURREGUNA

3'gn. mailla. — *Ubelez*

M E Z A

Sarrera,—Beartsuai eurrez banatu ta emon euitssn: Aren esku-zabaltasunak beti dirau; Aren indarra aintzaz jagiko da.—*Ps.* Zorionsu Jaunaren bildur dan gizona!, Aren aginduak biziro maite dauzana.—Aintza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Beguiratu 'egizuz, Jauna, gure otoitzak; eta Lorentzo zure martiri doatsuaren bitartez, aren aurreguna cspatzen dogun ezkeru, beti zure erruki samurra lortu tgiguzu, Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Erroman deunarena*: Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: zure martiri doatsuaren bitartez, gorputzeko ezbear guztietatik gorde gaitzezala, ta arimako pentzamentu gaiztoetatik garbitu. Amaibagako.

Irakurgaia: Autortzen zaitut, 496 orri.

Kormkanta.—Beartsuai eurrez taanatu ta ernon eutsen-. aren zuzentasunak beti 'dirau.—Aren ondoren-

goak lurrean altsuak izango dira, ta zintzoen jatorria onetsia izango da.

Barri Oha: Nire ondotik, 469 orri.

Eskeintza.—Garbia da nire otoitza; ta orregaitik, entzun daitela zeruan nire deia, eskatzen dot: antxe dago nire auzi-jauna, nine barri dakiana; igo bedi Jaunagana nire eBkaria.

Opari-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta Lorentzo zure martiri doatsua bitarteko dala, gure pekatuen lokarriak eten egizuz Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Erroman deunarena*: Egizu, Jauna, gure oparigai ta otoitzak onarturik, zeruko misterio onein bidez, garbiitu ta entzun gagizuzala biotz onez. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Nire ondotik iñok etorri nai ba'dau, bere burua ukatu ta bere gurutzea artu begi, ta jarraitu beist.

Azken-otoitza.—Arren, Jaungoiko gure Jauna!, Lorentzo zure martiri doatsuaren egunak orain alattzen gaituanez, zeruan be betiko poztu gaitzezala. bera gure lagun idogula. Amaibagako.

2'gn. (Azk'em-otoitza, *iErroman deunarena*. Egizu, Jaungoiko alguztidun: zeruko janaria artu dogun ezkeru, Erroman zure martiri doatsuaren toitartez, arerioaren indar guztien aurka egiteko indartu gazizala. Amaitogako.

DAGONILLAREN 10'GARRENA

LORENTZO DEUNA, martiri

2'gn. matlla. — *Gorritz*

258'gn. urtean emon eban bere odola Baleriano Erroma'ko Nagusiaren aldian. Burdifiazko oge baten etzun-erazo eben eta azpitik su geldia emon eutsuen, oinazetan luzarago egon zedin. Oskan jaio zan, orduko Euskalerrria'n.

M E Z A

Sarrera.—Osipe ta aintza Aren aurrean; indarra ta edertasuna Aren etxean.—*Ps.* Abestu egiozue Jaunari kantu <barri toat; abestu Jaunari lur osoak.—Aintza.

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidunl, itzungi (amatau) dagigula griña okerren sua, Lorentzo doatsuari be, oinazealdiko sutatik garaille urteteko, indarrak ernon eeutsazan-eta. Amaibagako.

Irakurgaiia (S. Paulo'k Korinto'koai 2'gna.: 9, 6-19).—Anaiok: gutxi erain ezkerro, artu <be gutxi; azi ugari, ta antu be ugari. Bakoitzak bere biotzean erabagi dauana emon toegi; <ez, ostera, goibel, edo bearturik: <Jaungoikoak enioille alaiia unaita dau-ta. Altsua ida, barriz, Jaungoikoa edozetariko graziak zuekan fugaritzeko; zeuentzat guztitarik beti naikoa eukirik, edozein egite onerako geigarri izan dagizuen, idatzita dagoaraz: "Beartsuai eurrez banatu ta emon eutsen: Aren eskuzabaltasunak beti dirau.» Ereilleari azia ta jateko ogia ©moten dautsanak, zuoi be azia eurrez emongo dautsue, ta zuen zuzentasunaren arnariak (frutuak) geitu egingo dauz.

Koru-fcanta.—Aztertu daustazu toiotza, Jauna, ta gabez ikusi nozu.—Su-katilman iurtu nozu, ta ez daustazu zikiñik idoro (aurkitu).

Aleluia, al&hiia.—Lorenteo Letoiftarrai egintza onak egin dauz; «Gurutze Santua» eginda, itsuak argitu dauz. Aleluia.

Barri Ona: Galgaraua lurrera, 547 orri.

Eskeintza,—Ospe ta ainitza Aren aurrean: indarra ta edertasuna Aren etxean.

Opa-ri-otoitza.—Artu egiaz gogo onez, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta Lorentzo doatsuaren irabazá ta otoitzen bitartez, blurbu daitezala gure betiko osasunerako. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Iñok nire morroi izan nai ba'dau, jarraitu beist: eta ni egon naiten tokian egongo da nire rnorroia be.

Azken-otoitza.—Janari santuaz aseturik, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna: gufe morroi-zorra ordainduaz, eta Lorentzo martiri doatsuaren bitartez, geitu daitela gudan zure grazia. Amaibagako,

DAGONILLAREN 11'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Tiburtzio ta Susana deunen urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Tiburtzio ta Susana zure martiri santuen iaguntza ,beti gugaz izan tiagigula, jauna: orreJako iaguntzak emoten dautsezuzanai, ez dautsezu zure ibeigrakune samurra ukatzen-eta. Amaibagako.

2'gn. Oparj-otoitza: Omar.tu egiauz, Jauna, zure erriaren otoitz eta eskariok; -eta Opari santurako diran oparigaiok, zure santuen bitartez foegiko izan dakizuzaJa. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Artu dogu, Jauna, betiko zeru -saria; ta zure martiri santuen bitartez, oraingo ta beste bizitarako iaguntza izan dakigula eskatzen dautsugu. Amaibagako.

DAGONILLAREN 12'GARRENA

KLARA DEJNA, birjiña

3'gn. maila. — Zurlz

Italia'ko *Asis'en* jaio zan. Amasei urtez, bere ondasun guztiak beartsuai *emón* ondoren, txirotasun utsean bizi Izaten asi zan, Prantzisko deunaren irakatsiai jarraiturik. Klarisa izeneko Lagundia sortu eban, eta orduan andrazkoen artean ezagutzen zan bizitarik latzena egiten eban. 1253'gn. urtean il zan, eta urte bira Elizak santuen lerroan ezarri eban. ^{Ondo}ezagunak dira Euskalerrria'n Santa oni buruzko neurritzok:

Erderaz zara Klara,
Euskeraz argia;
Zu zara zeruetan
Izar bat argia.
Zu ikusita ba-doz
Muruak igesi:
Zugaz Sakramentua
Bbñiako ikusi.

«j Meza: Dilexisti, 500 orri.

DAGONILLAREN 13'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Ipolito ta Kasiano deunen urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek!, Ipolito ta Kasiano zure martiri doaitsuen urte-egunak, Zuganako oneraspen ('deboziño) eta osasuna geitu dagizala gudan. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Begiratu, Jaaina, santu onein urte-egunean eskifii dautsuguzan aparigaiok; eta zure egiairen autorle (tesbigu) izateak, zerurako balio daigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-o>toitz>a: Orain artu dogun Eukaristi onek, zerurako ir&bazi gagizala, Jauna; ta zure egia autortaen indartu gagizala. Amaitoagako.

DAGONILLAREN li'GARRENA

ANDRA MARIA'REN ZERURA JASOKUNDE

AURREGUNA

2'gn. mailla. — *Ubelas*

M E Z A

Sarrera.—Erriko aundiki guatiak zeure ederra nai izango dabe; Erregearen aurrera ekarriko dabs; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik--*Ps.* Nire biotzari eresi eder bat dario: E.vregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Maria doatsuaren safoel garbia bizitoki au. keratu nai izan zenduan Jaungoikoa: aren laguntza geugaz dogula, beraren jai au pozez beterik ospatu dagiguda. Amaitoagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz ba'tera Jaungoiko ta Errege bizi zara'ta. Olantxe.

2'gn. Otoitza, *Eusebio deunarena*: Eusebio zure autorie doatsuaren egunean urtero alaitzen gaituzun Jaungoikoa: aren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkeru, beraren bidetik Zeugana igo gaitezala. Amaibagako.

Irakurgai (Ikastuna, Eccii., 24, 23-31).—Maastia ren antzera, aien ederrak emon dodaz, eta nire lorak arnari (irutu) gozo ta aberatsak ekarri dabez. Maitasun ederraren Amia naz ni, ta biltiurraren, jakintza ren eta itxaropen onarena. Neugan dago bidearen eta egiairen atsegin gutzia; aren naghi bizitzaren eta onoiemaren ('birtutearen) itxaropen gutzia. Zatoze neugana ni rnaite nozuenok, eta asetu zaitzeze nire frutukaz. iNi gogoratzea, eztaia baiño gozoagoa da-ta; nitzaz

jatoetzea, barriz, ezti-orrizia* baiño geiago. Nigana-ko gomutapenak gizaldiz-gizaldi iraungo dau. Ni jan nagienak, goseago izango dira, ta edan nagienak, egarriago. Entzun nagiana, ez da lotsatuko; ta otseindu nagienak, ez dabe piekaturik egingo. Ni goratzen nagienak, betiko biziitza izango dafoe.

Koru-kanta.—Doabsu ita agurgarri zara, Maria Birjiña: iñogaz loitzeke (loitu barik), Salbatzailearen Ama egin zara-ta.—iBirjiña, Jaungoikoaren Ama, mundu osoak ezin artu daikena, zeure saibelean gorde zan, <izon egiñik.

Barri Ona (Luk., 11, 27-28).—Aldi aretan, Jesus'ek gizataldeari itz egiten eubsala, gizataldeko emakume batek deadarka esan eutsan: <Zorionbsua ekarri zenduzan sabela, ta artu zenduam b-ularra!> Baiña Jesus'ek erantzun eban: <Zoriontsuagoak nonbait, jaungoikoaren itza entzuten eta beteben dabenak!>

Eskeintza.—Zorionsu zu, Maria Birjiña, guztien Egilea ekarri dauksuzu-ta; zeu egin zenduzana sortu zenduan, eta beti naska (birjiña) gelditu zintzazan. . Opari^otoitza.—Jaungoikoaren Amaren otoitza lagun daktela gure oparigai, Jaun erukior: pekatarien alde Zure aurrean bitarteko izaiteko jaso zenduan mundu onetatik-jeta. Amaibagako.../ eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.


2'gn. Opari-otoitza, *Eusebio deunarena*: Zeure santuen gomutaz, Jauna, eskintzen dautsuguz gorape-nezko oparigaiok; eita euron bidez, oraingo ta geroka gaitz gutzietatik onik urtengo gara'la uste dogu. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zorioitsua benetan Maria Birjiñaren sabela!, betiko Aitaren Semea ekarri eban-eta.

Azken-otoitza,—Emon egiozu laguntza gure argaltasunari, Jaun erukior orrek: Jaungoikoaren Ama deunaren çgunerako ingaraturik, aren bitarbez gure gaizta-kerietaitik jagi gaitezaz. Amaibagako... eta zure Semearen beilberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitza, *Eusebio deunarena*: Zeruko janari ta edari onekaz indarturik, egizu, gure Jaungoiko orrek: santuaren eguna ospatuz artu doguzan ezkeru, berak lagun egin daiskula bere otoitzakaz. Amaibagako.

: * Ezti-orrizi = panail de miel.



DAGONILLAREN 15'GARRENA

ANDRA MARIA'REN ZERURA JASOKUNDEA

l'mailla. — Zuriz

1950'garren Azillaren l'goan, Aita Santu Pio XII'garrenak Andra Maria'ren zerura Jasokundeak kristau-fedeko dogma zala erabagi eban, itz onekaz: «...Jaungoikoaren Ama orban-bagea ta beti Birjiña Maria, lur onetako bizitzaldia bete ondoren, gorputz eta arimaz zeruko aintzara jasoa izan zala, Jaungoikoak agertutako egia dala erabagi, irakatsi ta epaitzen dogu».

M E Z A

Sarrera.—Ikuskizun arrigarria agertu zan zeruan: emakuime bat eguzkiz jantzita, oñazpian illargia ta buruan amabi izarrezko koroia ekazala.—Ps, Abestu Januari kantu barri bat, arrigarriak egin dauz-ta.—Aintza.

Otoitza.—Zure Semearen Ama ta beti Birjiña Maria gorputz eta arimaz zeruko aintzara jaso zenduan Jaungoiko alguztiidun eta betikorra: zeruko gauzak beti begiraturik, aren aintzaren ged izan gaitezala jaldetsi eiguazu, arren. Amaibagako... eta zure gemearen berberaren bidez, Olantxe.

Irakurgaia (S. Judas, 13, 22-25; 15, 10).— Jaunak bere indarraren onspena emon dautsu, zure bidez gure arerioak ezereztu egin dauz-ta. Ene alatao: Jaungoiko Jaun altsuak onetsi zaitu, ta lureko beste emakuime guztiak baño geiago onetsi be! Onetsia zeru-lurren Egille dan Jauna, gure arerioen nagusiari burua

zapaltzeko zeu zuzendu zaitu-ta. Aurrerantzean zure izena betiko ospetsu egin dau; ta zure entzute ona es da bein be gizonen agotik ostenduko, Jaunaren indarra beti gogoratuko dabe-ta. Zure jatorriaren atseka-be ta naigabeak ikustean, ez dozu bizia galtzeko bildurrik izan: gure Jaungoikoaren aurrean ibiliez, ondamentitik zeuk gaizkatu (salbau) gaituzu, ostera. Zeu zaira Jerusalem'go aintza; zeu Israel'go poztasunik audi&na; zeu zure erriaren ospea.

Koru-kanta.—Emtzun, begiratu, ta aditu egizu, alaba: Erregea zure edertasunaz zaletu egin da-ta.—Erregearen alaba guztiz apain dator, urrez eiotako jantziz.

Aleluia, aleluia.—Maria zerura jaso izan da; ain-geru-takiea pozetan dago. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 1, 41-50).—Aldi aretan, Elisabet Espiritu Santuz bete zan, eta deadarka esan eban: (c)Onetsia zu emakuimeen artean, eta onetsia zure sabaleko umea ibere. Nor naz ni, baña, nire Jaungoikoaren Ama etorri dakidan? Begira, bada: zure agur-otsa nire belarrietara elduez batera, umetxoa nire erraiñetan poz'jauzika (saltoka) asi yat. Zorionsua, barriz, zu, Jaunaren alde zuri esanak beteko dirála sinistu dozun ori!» Eta Maria'k esan eban.—«Bíotzez goratzen dot Jauna, ta gogoa pozez dagotik Jaungoiko osagarri yatalako. Bere mirabe onen txikitasuna begiratu dauan ezkerro, gizaldi guztiak zorionsua deituko nabe. Benetan, nigan arrigarriak egin dauz guztiz altsuak; eta Aren izena Deuna da. Aren errukia gizaldiz-gizaldi bildur dautsoenentzat.»—Kredo.

Eskintza.—Ire ta emakuimearen artean, eta ire ta aren ondorengoaren artear[^], areriotasuna jaroiko yoat (1).

Opari-otoitza.—Igo dadilla Zugana, Jauna, gure oneraspnaren opari au; ta zerura jaso izan zan Maria Birjiña guztiz deunaren bitartez, eta gure biotzak inaitasun-sutan garturik, beti zeuganatu daitezala. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Mari'rena*, 456 orri. Eta*** zerura jaisote egunean.

(1) Jaungoikoak sugeari esan eutsazan itzak, Adan eta Eba'k pekatu egin ebenean.

Ja-unartzerakoa.—Gizaldi guztiak zoriontsua deituko nabe, guztiz Altsuak nigan arrigarriak egin dauz-ta.

Azken-otoitza.—Eukaristi osasungarriaz aseturik, egizu, Jauna: zerura ja-soa izan zan Maria Birjiña doatsuaren irabaziz eta bitantez, biztuera goragarria jadetsei daigula. Amaibagako,

DAGONILLAREN 16'GARRENA

JOAKIN DEUNA, ANDRA MARIA'REN AITA, autorle

2^{gn.} maila. — Zurlz

Joakin itzak, Jaunaren gertaera adierazoten dau. Atzo, Andra Maria'ren aintza ospatu eban Elizak; egoki da biaramonean aren aita goratu daigun.

M E Z A

Sairrera.—Beartsuai eurrez banatu ta emon eutsen; aren eskuzatoaltasunak betá dirau; aren indarra aintzaz jagiko da.—iPs. Zoriontsu Jaunaren bildur dan gizona: Aren agimduak biziro maite dauzana.—Aintza.

Otoitza.—Santu guztien antean zure Semearen Ama ren aita, Joakin doatsua izatea nai izan zenduan Jaungoikoa: aren jaieguna ospatzen dogun ezkerro, aren hitartekotasuna he beti izan dagigula. Amaitoagako... eta zure Sernearen beitoeraren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 31, 8->H).—Gizon errubagea bai zoriontsu!, urre billa iibili ez, eta diruan eta ondasunetan usterik jarri ez dauana. Nor da au ? Goratu daigun, bere bizitzan arrigarriak egin dauz-ta. Urreaz aztertu datoe, ta garfoi gelditu da; betiko argitasuna izango dau. Legea ausi eikean, eta ez eban ausi; gaiztakeria egin eikean, eta ez eban egin. Ori dala-ta, bere ondasunak sendo dagoz Jaunagan, eta bere esku zatoala santuen batzar guztiak ospatuko dau.

Kor.u-kamta.—Beartsuai eurr.ez toanaitu ta emon eutsen; aren zulentasunak beti dirau.—Aren ondorengoak lurrean altsuak izango dira, ta zintzoen jatorria onetsia izango da.

Aleluia, aleluia.—Joakin, Ana'ren senar santua, Ama Birjiñaren aita, emon egiguzu emen zure menpekooi zerurako laguntza. Aleluia.

Barni Ona (Mat., 1, 1-16).—Atoraham'en befaungko Dabíd'en seme dan Jesukristo'ren jatorri-idaztia. Abrahám'ek Isaak sortu. eban; Isaak'ek Jakob sortu eban; Jakob'ek Juda ta onen anaiak sortu ebazan. Juda'k Tamar'egandik Pares ita Sara sortu ebazan; Far.es'ek Esron sortu eban; Eison'ek Ararn sortu etoun; Aram'ek Aminatfaib sortu etoan; Amina'dab'ek Naason sortu e^oan»' Naason'ek Salmon sortu eban Salmon'ek Errahab'egandik Booz sortu eban; Booz'ek Errut'egandik Ober sortu eban; Obed'ek Jese sortu eban; Jese'k Dafoid erregea sortu eban. Dabid erregek, Uria'ren «mazte izan zanagan'dik, Salomon sortu eban; Sa'lomon'ek Erroboan sortu eban; Erroboam'ek Atoia sontu eban; Abia'k Asa eortu eban. Asa'k Josapat sortu eban; Josapat'ek Joram sortu eban; Joram'ek Ozia sortu eban; Ozia'k Joatam sortu eban; Joatam'ek Akaz sortu eban; Akaz'ez Ezekias sortu etoan; Ezekias'ek Manases sortu eban; Manases'ek Amon sortu eban; Amon'ek Josías sortu eban; Josias'ek Jekonias ta onen driaiak sortu ebazan, Batoilonia'ko atzerraldian*. Eta Babilonia'ko atzerraldi ondoren, Jekonias'ek Salatiei sontu eban; Salatiel'ek Zorotoaibel sortu eban; Zorobabel'ek Abiud sortu eban; Atoiud'ek Eliakim sortu eban; Eliakim'ek Azor sortu eban; Azor'ek Sadok sortu eban; Sadok'ek Akim sortu eban; Akim'ek Eliud sortu eban; Eliud'ek Eleazar sortu eban; Eleazar'ek Matan sortu eban; Matarn'ek Jakoto sortu eban; Jacob'ek Maria'ren senar Jose sortu etoan. Eta Maria'gandik Kriiatio deritxon Jesus jaio zan.

Eskeintza.—Koroi eder eta argiitsua jantzi dautsazu; ta zure eskuak egindakoen nagusi jarri dozu, Jauna.

Opari-otoitza.—Artu egizu, Jaungoiko guatziz errukior orrek, Maria Birjiñaren Aita Joakin patriarka santuaren izenean eskintzen dautsugun Opari au: be-
ra, emaztea ta Alaba guztiz onetsia bitarteko doguzala, gure pekatuak guztiz garbitu daitezala, ta betiko zerau jaritsi dagigula. Amaibagako.

Jo.unartzera.koa.—Etxezain zintzo ta zurra, ugazabak njorroriburu jarri eban, etxekoai aldi egokian jatekoa jbanatzeko,

* Atzerraldi = destierro.

Azken-o>toitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun: artu dogun Eukaristiagaitik, eta zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'ren Arnaren ajta irabazi ta otoitzakaz bitarteko dogula. orain zure graziaren duin izan eta gero zeruan betiko alkartu gaitetzala. Amaibagako... eta zure Semearen barberaren bidez. Olantxe.

DAGONILLAREN 17'GARRENA

JAZINTO I>EUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuria

Domingotarren jantzia artu eban Erroma'n, 1217'gn. urte -inguruan. Ainbat praille-etxe egin ebazan, eta Austria'n, Polonia'n, Dinamarca'n, Suecia'n, Eskozia'n eta Libonia'n zabaldu eban Barri Ona, f 1257.

DAGONILLAREN U'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Agapito deunaren urrengokoak:

2'gn. Otoitza: Poztu bedi zure Eliza, Jauna, Agapito zure martiri doatsuaren otoitzetan ustea jarririk; eta aren erreku baliotsuentofdez, alaitsu iraun eta bakean bizi daitela. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Ar>tu egi-zuz, Jauna, santu onen egunean dakartsuguzan oparigaiok: bera toitafteko daitela, onik urteño garala uste dogu-ta. Amaitoagako.

2'gn. Azken-otoHza: Asetu dozuz, Jauna, Bukaristiaz zure etxekoak; gaur ospatzen 'dogun santuaren birtartez, zure indarrak gogortu dagizuzala eskatzen daitzugu. Amaibagako.

DAGONILLAREN 19'GARRENA

JON EUDES DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Ry izeneko Prantzia'ko errian jaino zan. Ga2teen zuzen-biderako *Jesus eta Maria'ren Lagundia* sortu eb&n, eta emagalduek onbideratzeko Errukizko Andra Maria'ren Alabena. Jesus eta Maria'ren Biotz santuakanako oneraspena zabaldu eban &\de guztietan. Caen'en il zan, 1680'gn. urtean Pio XI'garrenak egin eban santu, 1925'garrenean.

Meza: Os iusti, 490 orri., *otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Jon zure autorle doatsuari, Jesus'en eta Maria'ren Biotz santuakanako oneraspena zabaltzeko ta zure Elizan Lagundi barriak sortzeko, ardura sutua iziotu zeutsan Jaungoikoa: aren irabaziak eta santutasuna ospatzen doguzan ezker, aren onoiemenen ikasbi-deai jarraitu dafegula. Amaitoagako... eta zure Semearen bertoearen bidez. Olantxe.

DAGONILLAREN 20'GARRENA

BERNARDO DEUNA, abata ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuris

Ogeta bi urte ebazala bere etxea itzirik, Zister-bakartean sartu zan; geroago, barriz, beste ogei ta amar gazte beraganatu ebazan. Andra Maria'ri buruz idazlanik ederre-netarikosfk egin ebazan, eta *Irahasle ezitsua* izena emon daitsoe. f 1153.

Meza: In medio, 488 orri., *urrengo Irakurgaia izan ezik:*

IrakTirgaia (Ikastuna, Eccli., 39, 6-14).—Zintzoa, goizean goiz jagirik, Jaungoikoari otoitzean biotz osoz asko yako. Otoitzerako agoa edegi, ta toere pekatuen parkamena eskatuko dau. Jaun aundiak nai ba'dau, adimen-graziz beteko dau; euria toaizen ugari toialduko daitso toerba zurra. Otoitzean Jauna autortuko dau, ta Onek burutoide ta eginditoea emongo daitso, baita Jaungoikoaren gauza ezkutuetan argitasuna be. Orrela, ikasi dauana, agirian zatoalduko dau, tatoere Jaunaren alkartasunek legeaz goratuko da. Aren izena askok goraituko 'dabe, ta iñoz toe ez da itzungiko (atza/mauko). Aren gomutapena ez da galduko, ta aren izena gizardi-gizaMi bizi izango da. Aren jakituria erriak ospatuko dabe, ta aren gorapena Batzarrak iragarriko dau.

DAGONILLAREN 21'GARRENA

JOANA PRANTZISKA FREMIOT DE CHANTAL

DEUNA, alarguna

3'gn. mailla. — Zuriz


Prantzia'ko Dijon'en jaino zan, 1572'garrenean. 28 urte ebazala alargundurik, *Salesa* izenekoan monja-etxea egin eban Nuney'n. f 1641.

Meza: Cognovi, 505 orri., *urengo Otoitzak izan ezih:*

O.toitza.—Jaungoiko alguzitidun eta errukiorra! Joana'n Prantziska doatsuari, zure mai'tasunean sutua, bizitzako bide guztietan bikain ibilteko indar arrigarria emon zeutsana, eta aren bidez Elizan Lagundi barri bat sortu zenduana: aren irabazi ta otoitzen bitartez, lortu eiguazu graziaren laguntz'a: gure txikitasuna ezagaturik eta zure indarrean gure uste osoa jarririk, eragozpeti guztiak 'garaitu dagiguzan. Amaibagako.

OparJ-otoitza.—Egizu, Jauna: csasunezko Opari onek, Prantziska doaitsuaren biotza betiko maitasun-suaz kiskaldu ebanez, geure biotza be iziotu dagiala. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Isuri eiguazu, Jauna, zure maitasuii -sua; ta Joana Prantziska doatsuarem bitartez, zeruko janariaz indartu gozuzanok, 'lurreko gauzak ezetsirik, Jaungoiko bakar orren billa bakarrik ibili gaitzala asmo gartiiz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera toizi ta Jaungoiko ta Errege dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.



DAGONILLAREN 22'GARRENA

ANDRA MARIA'REN BIOTZ GARBIA

2'gn. mailla. — Zuriz

Pio. XH'garrenak, lurbira osoa Andra Maria'ren Biotz garbiari eskini ondoren, egun onetan Efiiza osoan ospatu zedilla jai au agindu eban 1944'gn. urtean. Eta auxe izan zan bere asmoa: Andra Mari'ren bitartez, errien arteko bakea, Elizaren askatasuna, pekatarien onbideratzea, garbitasunaganako maitasuna ta onoimen-zaletasuna jadestea.

M E Z A

Sarrera.—Urreratu gaitzean uste onez graziaren aulkira, errukia jädetsi ta aldi egokirako laguntza izan dagigun.—Ps. Nire biotzari eresi eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Maria Birjiñaren biotzean Espiritu Santuari toki egokia atondu zeutsan Jaungoiko alguzitidun eta betikorra: aren Biotzaren jai zintzo ospaturik, zure Biotzaren antzera bizi gaitzala eskatzen dautsugu. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera bizi ta Jaungoiko ta Errege dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe-

2'gn. *Otoitza*, *Timoteo*, *Ipolito* ia *Sinforiano deusena*: Emon eiguazu biotz onez, Jauna, zure laguntza; ta Timoteo, Ipolito ta Sinforiano zure 'martiri doateuen bitartez, zabaldu egizu gugan zure esku errukitsua. Arnaibagako...

Irakurgaia (Ikastuna, Eccli., 24, 23-31).—[^]Maastiaren antzera, aien ederrak emon dodaz, eta nire lorak arnari (frutu) gozo ta aberatsak ekarri dabez. Maitasun ederraren Ama naz ni, ta bildurraren, jakintzaren eta itxaropen onarena. Neugan dago biflearen eta egiaren atsegin guztia; neugan (bizitzaren eta onoi-menaren (birtutearen) itxaropen guztia. Zatoze neugana ni maite nozuenok, eta asetu zaiteze nire frutuakaz. Ni gogoratzea, ezta 'baño gozoagoa da-ta; nitzaz jabetzea, barriz, ezti-orrizia* baño geiago. Niganako gomutapenak .gizaldizgizaldi iraungo dau. Ni jan nagienak, goseago izango dira, ta edan nagienak, egarriago. Entzun nagiana, ez da lotsatuko; ta otsemdu nagienak, ez dabe pekatu rik egingo. Ni goratzen nagienak, betiko biziitza izango dalbe.

Koru-kanta.—Nire ibiotza poztu egingo da zure laguntzagaitik: Jauna autortuko dot emon daustazan ondasunakaitik, eta guztiz Altsuaren izena goratuko dot—Gogoan izango dabe zure izena gizaldiz-gizaldi: ori dala-ta, erriak foetiko goratuko zaitue.

AleJua, aleluia.—Níre arimak Jauna goratzen dau, ta biotza pozez dagokit Jaungoikoa osagarri yafcalako. Aleluia.

Oneraspen-Mezetan, Zazpiaste-ondoren, Alelula ordez, urrengo uu esatan úa:

Luzagarria.—Entzun, ba, orain, semeok: Zoriontsu nire bideetan dabizanak! Entzun nire irakaspena: zur izan zaiteze, ta ez emon esker txarrik.—Zoriontsu, bai, entzuten nauan gizona, goizero nire ataurrean dagoana, atea noiz edegi dagiodan zain.—Ni idoro (aurkitu) nagianak, bizitza aurkituko dau, ta Jaunagandiko osasuna.

Baiña Pazkoaldian, aurreko Aleluia ta Luzagarria ordez, beste au esan:

Aleluia, aleluia.—Bicttzez goratzen dat Jauna, ta go-go pozez daukat nire Salbatzaille dan Jaungoikogan.—Gizaldi guztiak zoriontsua deituko nabe, Jaungoikoak mirabe onen ezereza ikusi dau-ta. Aleluia.

* Ezti-orrizi = panal de miel.

Bavrí Ona (Jon, 19, 25-27).—Aldi aretan, Jesus'en gurutze-ondoan, Aren Ama *Maria* ta onen aizta *Marla Kleofa'rena*, ta *Mari Madalen* egozan. Jesus'ek, bere Ama ta ikasle maifcea an ikusirik, bere Amari esan eutsan: «Andra, orra or zure semea.» Gero, ikasleari dirauto: «Orra or. zure ama.» Ta arrezkero, ikasleak bere etxean artu eban.—*Kredo*.

Eskeintza.—Biotza pozez dagokit Jaungoikoa osagarri yatalako; benetan, nigan arrigarriak egin dauz guztiz Altsuak, eta Aran izena Deuna da.

Opari-otoitza.—Jaungoiko aundi orri bildots garbia eskmtzean, *Maria Birjiña* doatsuaren Biotza gartu eban jaungoikozko maitasun arek, gure biotza be sutu dagiala eskatzen dautsugu, Jauna. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Timoteo, Ipolito ta Sinforiano deunena*: Onartu egizu, Jauna, erri zintzoak zure santuen omenez eskeintzen dautsun opari au: arein bazien bidez, larrialdian laguntza artu dauala ezagutzen dau-ta. Amaibagako,

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta^{1**} jai-egunean.

Jaunartzerakoa.—Jesus'ek bere Amari esan eutsan: Andra, orra or zure semea. Gero, bere ikasleari esan eutsan: Orra or zure ama. Ta arrezkero, ikasleak bere etxean artu eban.

Azkem-otoitza.—Zeruko graziz indarturi'k, erreguz eskatzen dautsugu, Jauna: *Maria Birjiña* doatsuaren bitartez, beronen Biotz garbiaren eguna ospatzen dogun ezker, bizitza onetako arriskuetatik atarata, betiko zoriona jadetsi dagigula. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitza, *Timoteo, Ipolito ta Sinforiano deunena*: Jaungoikozko graziaz aseturik, eiguzu, gure Jaungoiko Jauna: *Timoteo, Ipolito ta Sinforiano* zure martiri santuen bitartez, beti janari ori artuez bizi gaitezala. Amaibagako.

DAGONILLAREN 23'GARRENA

BENIZIO'TAR FEUPE DETJNA, a. uortte

3'gn. maila. — Zuria

Italia'ko Florenzia'n jaio zan. Paris'ko Ikastetxe Nagusian ikasl ondoren, Servita izeneko Lagundian praille-anai sartu zan; geroago, abade egiiñ zanean, guztien buru egin eben. Aita Santuak kardenal izateko auker-atu eban; baña, apal-tasunagaitik, ez eban nai izan. | 1285.

Meza: Os iusti, 490 orri., Ofoiiz au izan ezik:

Otoitza.—PeJipe zure autorle doa.fcsuaren bidez, apal-tasun sakona erakutsi dauskuzun Jaungoikoa; egiguzu zure menpekoi, aren antzera mundu onetako larkeriak ezetsi daigiguzala, ta zeruko gauzen billa beti ibili gaitezala. Amaibagako.

DAGONILLAREN 24'GARRENA

BARTOLOME DETJNA, Apostolua

2'gn. malla. — Gorritz

Bartolome au, Felipe'k Jesus'i ekarri eutsan Natanae. da; eta Jesus'ek auxe esan eban: «Orra azpikeririk ez dauan Israeldar jator bats». Galilea'ko Kana'n jaio zan. Ez dakigu ziur nun zabaldu eban Barri Ona, India'n bear-bada, Eusebio'k bere Bliz-Edestian diñoanez. Narrua kenduez il' eben.

M E Z A

Sarrera.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adiskideak, Jaungoikoa: arein indarra oso gogortu da.—Ps. Jauna, Zeuk aztertu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Bartolome zure Aposteflu doatsuaren jai onetan pozaldi santua emon dauskuzun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: lortu egiozu zure Elizari, arek sinistu ebana maite dagiala, ta arek irakatsi ebana zabaldu dagiala. Amaibagako.

Irakurgaia (S. PauloTc Korinto'koai l'goa.: 12, 2Y-31).—Anaiok: Kristo'ren gorputz zaree, ta zuetariko bakoitza Aren atal bat. Jaungoikoak batzuk Eliran Apostolu jarri dauz, lenengo; gero igafle, gero iiakasle, gero mirarigille, geroago osatzeko, lagun-

tzeko, agintzeko, izkuntzak itz egiteko ta itzak adierazoteko. Guztiak Apostolu izango ete-dira? Guztiak igarle? Guztiak irakasle? Guztiak mirarigille? Guztiak csalari? Guztiak ete^dakiez izkuntzak? Guztiak itz-adierazle? Doairik Ograzirik) oberenak arduraz nai izan egizuez.

Koru-kanta.—Lur osoan nagusi egitngo dozuz; zure izena gogoan izango dabe, Jauna, gizaldiz-gizaldi.—Gurasoen orde, semeak jaioko yatzuz; orregaitik, erriak autortu egingo zaitue.

Aleluia, aleluia.—Zeu goratzen zaitu, Jauna, Apostulu-en talde ospetsuak. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 6, 1249).—AJdi aretan, Jesus mendira baztertu zan otoi egitera, ta gau osoa igaro eban Jaungoikoari otoiketean. Eta egundu zanean, bereikas-leai dei egin eutsen, eta arein artetik amabi aukeraturik, «Bialdu» (edo Apostolu) izena emon eutsen: Simon (oni izena Kepa ezarri eutsan), Ander, *Simon' en* anai, Jakobo (edo Santiago) ta Jon, Felipe ta Bartolome, Mateo ta Tomas, Jakobo Alfeo'rena, Zelote eritxon Simon, Judas Jakob'ena, ta Judas Iskanote. saltzaille izango yakona. Ta areikaz jatsita, zelaigune baten gelditu zan. Ainbat ikasle ta gizatalde aundiak e-gozan an, Judea osotik, Jerusalem'dik, eta Tiro ta Sidon itxasaldeetatik Jesus'en itza entzutera ta euren geisostatik osatzera etorri ziranak. Txerren zikiñak artutakoak be, osatu egiten ziran. Gizatalde guzti oneik Jesusis ikutu nairik ziarduen: Ari (Jesus'i) erion indairrak, guztiak osatzen etoazan-«ta.—Kredo.

Eskeintza.—Nire ustez, oso goraituak dira zure adiskideak, Jaungoikoa: arein indarra oso gogortu da.

Opari^otoitza.—Bartolome zure Apostolu doatsuaren jai ospatzean, Jauna, eiguzu, aren bitartez zure onegiñak artu daiguzala, oparigaiok aren izenean eskintzen dautsuguz'ta. Amaibagako.

JaunartzeTakoa__Niri jarraitzen etorri zareenok, aukietan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko, diño Jaunak.

Azken-otoitza.—Betiko zeruralco artu dogun Eukaristi onek, Jauna, Bartilome zure Apostolu doatsuar.sn bitartez, lortu daiskula laguntza biritza onetarako ta besterako. Amaibagako.

DAGONILLAREN 25^a GARRENA
 LUIS DEUNA, errege ta autorle
 3^{gn}. mailla, — Zuriz

Prantzia'ko Errege Luis IX^a garrena, 1215^{gn}. urtean jaiotzan. Kristau-agintarien artean bakeak egiten gogor ekin utsan. Bere erriären arazoak erabagiez gainera, bere gorputza damu-nekez eta barauz eziten eban, ainbat. ordu otoketan iraunik. ^ 1270.

M E Z A

Sarrera.—Zintzoaren agoak jafkturia isuriko dau, ta aren miiñak itz zuzenak esango dauz; bere Jaungoikoaren legea dauko biotzean.—Ps. Gaiztoak gorabera ez asarretu; ez izan gaiztoakanako ikusi-eziñik.

—Aintze.

Otoitea.—Luis zure autorle doatsua lurreko erreiñutik zerukora aldatu zenduan Jaungoikoa; aren irabaziz eta bitartez, Erregeen Errege dan zure Seme Jesukristo'ri zeruan lagun egin daiogula eskatzen dautsugu. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiriitu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da'ta.

Olantxe.

Irakurgaia: Jaurrak zintzoa, 470 orri.

Koru-kanita.—Zintzoa, palmondoaren an-tzera loratuko da; Libano'ko zedrua legez aundi egingo da Jaunarem etxean.—Goizean zure errukia ta gabea zure egia iragarteko.

Aleluia, alerua.—Zorionsu, tentaadia ondo eroan dagian gizona: aretan aztertu dagienean, bizitza-koroia jaritsiko dau-ta. Aleluia.

Barri Ona (Luk., 19, 12-26).—Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Aundiki bat urruneko lurralde batera joan zan, ango lurraz jabetu ta barrio etorteko asmotan. Eta amar morroi dei egiñik, amar mina (1) emon eutsezan, esanaz: «Jari irafozitan, ni etorri arte.» Baiña erritarrak gorroto eutsoen, eta atzetik geznariak* bialdu eutsoe-

(1) Mina bakoitza: 100 peseta urrezko inguru.

* Geznariak = mensajeros.

zan, esamez: «Ez dogu nai gizon ori jauntzat.» Arek, barriz, erriaz jabetu zanean biurtuta, dirua emon eutsen morroi dei egin eutsen, bakoitzak zenbana irabazi eban jakiteko. Etorri yakon, ba, lenengoa, eta esan eutsan: «Jauna, zure minak amar mina irabazi dauz.» Jaunak esan eutsan: «Ederto, morroi on! Gutxian zintzo izan zakidazalako, amar uriren nagusi egingo zaitut.» Begarrena be eldu zan, esanaz: «Jauna, zure minak bost mina irabazi dauz.» Oni be esan eutsan: «Zu be bost uriren nagusi izan zaitezkez.» Beste be etorri zan, esanez: «Jauna, ona emen zure mina: zapi baten batuta euki dot. Bildur nintzakizun gizon zorrotza zaralako; ipiñi ez dozuna artu, ta erein ez dozuna batzen dozu-ta.» Jaunak dirautso: «Zeure agoz galdu zara, morroi gaizto ori! Ba-zekian ni zorrotza nintzana, ipiñi ez nebana artzen, eta erein ez nebana batzen dodana. Zegaitik ez dozu, bada, nire dirua irabazitan jarri, ta nik, etortean, irabaziaz jaso izango neukean?» Eta aurrean egozanai esan eutsen: «Kendu egiozue mina ori, ta amar mina daukazanari emon egiozue.» Ta areik esan euteoen: «Jauna, len ibe arnar mina ba'daukaz.» Ba-dirautsuet: daukanari, emon egingo yako, ta ugariago eukiko dau; ez daukanari, os'tera, euki dagiana be loenduo egingo yako.

Eskeinjtza.—Nire egia ta.errukla zdntzoagaz dira; ita nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opari-otoitza.—Arren, Jaungoiko ailguztidun! Luis zure autorle doatsuak, mundu-zalekeiriak ukaturik Kristo Errege foakarrari eder-egiten alegindu zanez, aren otoitzak be Zuri begiko egin gakizuzala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olan-txe.

Jaunartzerakoa.—Zorionsu benetan, ugazabak, etortean, zain idoro (aurkitu) dagian morroia! Egiz dirautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko idau.

Azken-otoitza.—Luis zure autorle doatsua lurrean f entzutetsu ta zerua/n ospetsu egin zenduain Jaungoiko: santu au zure Elizaren zaintzaille egin dagizula I eskatzen dautsugu. Amaibagako.

DAGONILLAREN 26'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Seflrino
deunarenak: Si diligis Mezakoak, 464 orri.

DAGONILLAREN 27'GARRENA

KALASANZ'TAR JOSE OEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zurlz

Aragon'en Jaio zan, 1556'gn. urtean. Ume ta gazteai irakateia emoteko, *Eskolapio* izeneko Lagundia sortu eban. t 1648. Pio XH'garrenak kristau-eskoletako zaindari egin eban.

M E Z A

Sarrera.—Etorri zaitze, semeok, entzun nagizue: Jaunaren bildurra irakatsiko dautsuet.—*Ps.* Aldi oro goratuko dot Jauna; aren gorap'ena beti agoan izango dot.—*Aintza.*

Otoitza.—Jose zure autorle doatsuaren bidez, gaz. teai irakatsia ta jaungoikozaitelasuna emotako, zure Elizari laguntza barri bat ekarri zeutsan Jaungoikoa; egizu, bera eredu ta bitarteko dala, egin eta irakatsi dagígula guk bere, betiko saria irabazteko. Amabagako.

Irakurgaia: Jaunak zintzoa, 470 orri.

Koru-kartta.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko dau, ta aren miiñak itz zuzenak esango dauz.—Bere Jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren oiñak ez datoe kili-kolorik egingo-

Aleluia, ale'luia.—Zoriontsu, tentaldia ondo eroan dagian gizona!, aretan aztertu dagienean, bizitza-koroia. jadetsiko dau'ta. Aleluia.

Barri Ona (Mait. 18, 1-5).—Aldi aretan, Jesus'i ikasleak urreratu lyakozan, esanez: «Nor deritxazu zeru-erreñuan audiena? «Ta Jesus'ek, ume bati dei egiñik, guztien erdian ipiñi eban, eta esan eban: «Benetan úirautsuet: ume lez biurtu ta egin ez ba'zaitzeze, ez zaree zeruko erreñuan sartuko. Beraz, umetxo au baizen txiki bintu daitena, orixe da zeru-errei-

ñuan audiena. Ta onelako urnetxoren bat nire ize-nean artu dagianak, Neu artzen nau.»

Eskeintza.—Beartsuen giuraria entzun dau Jaunak; entzun dau arein biotzaren eskaria.

Opari-otoltza.—Oparigaiez toete dogu, Jauna, zure altarea: bitarteko emon dauskuzunaren otoitzak, zure errukia jatietsi daiskuen. 'Amabagako.

Jaiunantzerakoa.—Itzi umetxoak Nigana etorten, eta ez egiezue galerazo: Jaungoikoaren erreñua orrelakoena da-ta.

Azken-otoitza.—Opari santuaz donetuta, Jauna, Jose zure autorle sanituaren bitartez, Zuganako gure zaletasuna beti .geiagotu dait'ela. Arnaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

DAGONILLAREN 28'GARRENA

AGUSTIN I>EUNA, gotzain, autorle ta irakasle

3'gn. mailla. — Zuriz

Tagaste'n jaio zan, Ipar-Afrika'n, 354'gn. urtean. Bere ama Monika deunak otoi egiten irakatsiarren, gazterik bide onetik alde egiten asi zan, pekatuetan murgildurik. Erroma'ra ta Milan'era joan zan ikastera, oso buru argikoa zan-eta. Milan'en, Ambrosio gotzain deunaren itzaldiak entzun oh-doren, Jaungoikoagana biurtu zan batea arturik, 33 urte ebazala; gero, abad« ta Hipona'ko Gotzain egin eban. Latin -Elizaren lau irakasle aun-dieneterikoa da. 430'gn. urtean il zan, 36 urte Gotzain izan ondoren. Bere idazti bi: «Zerua», nAutorkizunak» (azken au Orixe'k euskeratua).

M E Z A

Sarrera.—Batzar-erdian egei efoan agoa, ta Jaunak jakituriz eta zurtasunez faete eban: soiñeko argitsua jantzi eutsan.—*Ps.* Ona da Jauna autortzea, ta zure izena goratzea, Jaun guztiz altsu!—*Aintza,*

Otoitza.—Onartu egizuz gure eskariak, Jaungoiko algtuidun orrek! Eta zure ontasunean uste ona emoten 'dauskuzun ezkeru, 'Agustin zure autorle ta gotzain doatsuaren bitartez, emon egiguzu oi dozun errukia- ren agiria. Amabagako.

2^ogn. Otoitza, *Hermes deunarena*: Hermes zure martiri doatsua bere oiñazetan iraunkor egoteko indartu zenduan Jaungoikoa: eiguza, aren antzera ta zure maitasunagaitik, lurreko zorionak ezetsi daiguzala ta ezbearren bildurrik ez dagigula izan. Amaibagako.

Irakurgaia: Jaungoikoaren aurrean, 488 orri.

Koru-kamta.—Zintzoaren agoak jakituria isuriko dau, ta aren miiñak itz zuzenak esango dauz.—Bere Jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren oiñak ez dateo kili-kolorik egingo.

Aleluia, aleluia.—Aurkitu dot nire morroi Dabid, eta orio santuz igurtzi dot. Aleluia .

Barri Ona: Lurrarentzat gatza, 489 orri.

Eskeiratza.—Zintzoa, pafenondoaren antzera aziko da, ta Libano'ko zedrua lez aundi egingo da.

Opari-otoitza.—Zure gotzain eta irakasle Agustín santuaren otoitz onak ez daigula, Jauna, uts egin; gure oparigaiok Zuri ondo arrezazo, ta guri zure errukia beti jadetsi daiskun. Atnaibagako.

2^ogn. Opari-otoitza, *Hermes deunarena*: Zure santuak gogoratzean, gorapenezko oparia eskintzen dautsugu, Jauna; ta arei zerua jadetsi eutsenez, guri osasunerako izan dakigula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Etxezain zinito ta zurra egin dau Jaunak morroiburu; etxekoai aldi egokian jatekoa banatu dagi(ts)en.

Azken-otoitza.—Opari au osasungarri izan dakigun, egizu, Jauna, Agustín zure gotzain doatsua ta irakasle bikaiña bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

2^ogn. Azken-otoitza, *Hermes deunarena*: Zeruko onspenaz beterik, erreguz eskatzen dautsugu, Jauna: Hermes zure martiri santuaren bitartez, apal-apalik artu doguna, osasungarri izan dakigula. Amaibagako.

DAGONILLAREN 29GARRENA

JON BATEATZAILLEAREN SAMA-EBAGITEA

3^ogn. mailla. — Gorritz

Gaurko Barri Onaren zatlak azaltzen dau santu onen eriotza.

M E Z A

Sarrera.—Erregeen aurrean i-rakatsi neban aure legea, ta ez nintzan latsatu; biotzez maite dodazan zure aginduak gogoan ausnartu nebazan.—Ps. Ona da Jauna autontzea, ta zure izena goratzea, Jaun guztiz Aitsu!—Aintza.

Otoitza.—Jon Bateafzaille zure Aurrelari ta martiri santuaren jai agurgarri onek, betiko osasunerako laguntza emon daiskula, Jauna. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2^ogn. Otoitza, *Sabina deunarena*: Beste miragarri artean, odola isuriteko adorea emakume argalai emon dautsezun Jaungoikoa: eiguza sainurkiro, Sabina zure neskutz (birjiña) ta martiri doatsuaren zerurako jaioteguna ospatzen dogun ezkerero, aren irakaspenen bidetik Zeugana joan gaitzezala. Amaibagako.

Irakurgaia (Jeremias, 1, 1749).[^]Egun areitan, Jaunak itz egin eta esan eustan: Lotu gerrikoa, ta zutitu zaitez, eta esan egiozu Juda'ri Nik agintzen dautsudan guztia. Ez bildurrik izan arein aurrean, arein begien aurrean Neuk zatitu ez zagidazan. Gaurdanik (gaurtik), guda-uri egiten zaitut, burdiñezko abe, ta burdiñorizko* orma, lurralde osoarentzat, Juda'ko errege, nagusi, abade ta uri osoarentzat. Zure aurka egingo dabe, baiña ez dira garaille urtengo, za onik atarateko Neu egongo naz zugaz-ta, [^]diño Jaunak.

Koru-kamta.—Zintzoa, palmondoaren antzera aziko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Jaunaren elxean.—Goizean zure errukia ta gabean zure egia iragarteko.

* Burdiñori = bronce.

Alelu'ia, aileluia.—Zintzoa, lilia dez erneko da, ta beti loratan egongo da Jaunaren aurrean. Aleluia.

Barri *Ona* (Mark., 6, 17-29).—Aldi aretan, Ero. des'ek Jon lotu ta giltzapean sartu eban, bere anai Filipo'ren emazte Erodias beretzat artuta eukalako. Jon'ek Erodies'i auxe esaten eutsan-eta: «Anaiaren emaztea eukitea ez yatzu bidezko.» Aregaitik, Erodias azpitik ebilkion, bizitza kentzeko: baiña ezin. Erodies'ek biidur eutsan; eta Jon gizon zintzo ta jatortzat eban-eta, (Bere ardurapean eukan, aren buruibidez (kontzejuz) gauza asko egiñik, eta arek zirautsana gogo onez entzuten eban. Baiña egun egokia eldu zan, Erodies'ek bere jaiotegunean GaLileako nagusi, a[^] rrenengo ta aundikiari apari eder bat emon eutsenean. Erodias'en alaba an sartu ta dantzan egiñik, Erodies'ek eta maikideak atsegiñez ikusi eben. Orduan, erregeak neskari auxe esan eutsan: «Eskatu egidazu nai dagizuna, ta ernongo dautsut.» Eta zin egin* eutsan: «Eskatu daistazuna emon egingo dautsut, baita nira erreñu-erdia izandafoe.» Neskaitilla arek, andik urtenda, amari esan eutsan: «Zer eskatuko dot?» Eta amari esan eutsan: «Jon Bateatzaillearen burua.» Te erregeagana bizkor joanik, eskari au egin eutsan: «Jon'en burua azpil (pratel) baten oraintxe emon dagidazun nai dot.» Erregea, itun jarri zan; bafña egindako ziñagaitik eta mai-lagunakaitik, ez eban *neska a* atsekabetu nai izan: eta morroi bat bialduaz, aren burua azpil baten ekarteko agindu eutsan. *Morroiak* espeptean Jon'i sama ebagi eutsan, eta burua azpillear» ekarririk, neskari emon eutsan, eta neskak amari. Au jakiñik, *Jon'en* ikasleak etorrita, gorpua illobiraeroan eben.

Eskeintza.—Zure indarrez poztu egingo da zintzoa, Jauna, ta zure Iaguntasunak biziro alaituko dau: emon dautsazu gogoz opa ebana.

Opari-otoitza.—Jon Bateatzadlle zure martiri santuaren odol-eriotza ospatzeko eskiñi dautsuguzan oparigaiok, Jauna, aren otoitzen bidez osasungarri izan dakiguzala eskatzen dautsugu. Aimaibagako.

2^{gn.} Opari-[^]toitza, *Sabina deunarena*: Artu egizua biotz onez, Jauna, Sabina zure birjiña ta martiri doa-

* Zin egin = h'acer juramento,

tsuaren bidez eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta izan dakiguzala beti gure laguntzarako. Amaibagako.

J'aunartzerakoa.—Jauna, aren touruan pitxi ederezko koroia iipiñi dozu.

Azken-otoitza.—Jon Bateatzaille deunaren J'ai onek, Jauna, jadetsi daiskula artu dogun Sakramentu onen miragarriak gurtzea, ta gure arimetan egin dauanaz alaitzea. Amaibagako.

2^{gn.} Azken-otoitza, *Sabina deunarena*. Jaungoikozko janariaz asetu garan ezker, egizu, Jaungoiko Jaun orrek: Sabina zure birjiña ta martiri doatsua-aren bitaftez, beti janari onen indarrez bizi gaitzala. Amaibagako.

DAGONILLAREN 30'GARRENA

LIMA'KO ERROSA DEUNA, birjiña

3^{gn.} mallla. — *Boriz*

Peru'ko Lima urian jaió zan. Bost urte ebazala egin eutsan Jaunari bere buru-eskintea. 1617^{gn}arenean il zan, 29 urte ebazala.

Meza: Dilexisti, 500 orri, *urrengo Otoitzak izan ezik:*

Otoitza.—Errosa doateua, zeruko graziaren indarrez, garbitasunez eta nekeak jasanez Indietan loratu dozun Jaungoiko alguztidun eta ondasun guztien emoillea: eguzu zure menpekooi, guk be, aren usain bdu-naren atzetik joanik, Kristo'ren usain ona zaibaldtu dagigula. Amaibagako egunetan Zugaz eta Epiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2^{gn.} Otoitza, *Felix eta Aduakto deunena*: Apal-apal eskatzen dautsugu, Jaun aundi orri: zure santuen gomutaz beti poztuten garanez, arein otoitzak be beti lagun egin daiskuela. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Atsegin bekizu, Jauna, erri zintzoak zure santuen izenean egiten dautsun opari au; estualdian, arein irabaziai esker, izan dauala laguntza autor-tzen dau-ta. Amaibagako.

2^{gn.} Opará-otoitza, *Félix eta Aduakto deunena*: Begiratu, Jauna, zure erriaren oparigaiok; eta zure santuen omenez eskintzen dauzan ezker, zerurako osasungarri izan daliozala. Arnaibagako.

Azken-otoitza.—Asetu dozuz, Jauna, Eukaristiaz zure etxeokak; eba gaur ospatzen dogunaren bitartez gure indarrak gogortu dagizuzaila eskatzen dautsugu' Amaifoagako.

2'gn. Azken-otoitza, *F&lix eta Aduakto deunena*: Zeruko doaz beterik, Jauna, zure santuen bitartez beti eskerrak emoten jardun dagigula eskatzen dautsugu Amai'bagako.

DAGONILLAREN 3VGARRENA


NONATO'TAR ERRAMON DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Mahoma'tarrak atxillotutako kristauak askatzen emon eban bere bizitzaldda. Andra Mari Mesedetakoaren Lagundian sartu ondoren, nagusiak Aprika'ra bialdu eben, eta kristau bat askatzearren, bere burua itzi eban moruen eskuetan Bera be askatu ebenean, Erroma'rakoan il zan, 1240^{gn}, urtean.

Meza: Os iusti, 490 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Erramon zure autoiHe doatsua, zintzoak gaiztoen menpetik ataraten arrigarri egin zenduan Jaungoikoa: jadetsi eiguzu, aren bitartez, gure pekatuen kataiak ausirik, Zuri gogoko yatzuna gogo nasaiz egin dagigula. Amaibagako.



IRAIELEKO SANTUAK

IRAILLAREN 1'GOA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Gil deunarenak; 3'gn. Otoitzak, Benevento'ko amabi deunenak:

2'gn. Otoitza: Gil abata doatsua bekigu, Jauna, Zugaz bitarteko; gure irabaziz ezin doguna, aren laguntzaz jadetsi daigun. Amaibagako.

3'gn. Otoitza: Poztu gagiza/la, Jauna, oiñazetan anai izan ziran martirien garaipenak; geitu daiskula sinismena, ta arein otoitzak poztu gagizala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Altara-gaiñean doguzan opari-gaiok, Jauna, Gil abata santuak gure osasunerako biurtu dagizala, airren. Amaibagako.

3'gm. Opari-otoitza: Ospaitu daiguzan biotzez zure ezkatulpenak, Jauna, zure martiri santu oneik gogoratzean; eta geitu dagiezala gugam zure laguntza ta poza. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Sakramentu au artu dogun ezker, Jauna, Gil abata doatsuak artu gaizala bere ardurapean; bere antzera zuzen jokaturik, aren bitartekotasun-laguntza be izan daigun. Amaibagako.

3'gn. Azken-otoitza: Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek! Eukaristia airtuaz santu onein gomutapena barrizten dogun ezker, euren irakatsi onak sinismena geitu daiskueta. Amaibagako.

IRAILLAREN 2'GARRENA

ESTEBAN DEUNA, errege ita autorie

3'gn. mailla. — Zuriz

Hungria'ko lenengo errege izan zan. 985'garren urte inguruan bateoa arturik, bere erria Jaungoikoagana ekarteko alegin biziak egin ebazan. Ainbat eliza, bakartetxe ta edozeriko limosna ta erruki-mesede egin ondoren, 1038'gn. urtean il zan. Hungria'ko *Apostolu* izena emon dautsoe.

Meza: Os iusti, 490 orri., *urrengo Otoitzak eta Bარი Ona izan ezik:*

Otoitza.—Eiguzu, Jauigoiko algutzidun orrek: Zure Elizak Esteban zure autorle doabsua Errege izan zanean sinisrrena zabaldu ebanez, orain be zaiindari izan dagiala zeruan. Amaibagako.

Barri Ona: Aumdiki bat, 716 orri.

Opari-otoitza.—Begratu egizuz, Jaungoiko algutzidun orrek, eskin'tzen dautsuguzan oparigaiok; eta Jaunaren Nekaldiko ezkutapenak (misterioak) ospatzan doguzan eskero, egiten doguna Aren antzera egin daigu'ía. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Azkem-otoitza.—Esteban zure autorle doatsuaren sinismena bear dan arduraz gorde dagigula eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguzti'dun orri: sinisman au lurrean zabaltzeagaitik, lurreko erreñutik zerukora eltzea irabazi eban-eta. Ainaibagako .

IRAILLAREN 3GARRENA

X'GARREN PIO DEUNA, Aita Santu ta autorle

3^{gn.} mailla. — Zuriz

Sarto'tar Jose, Venezia'ko Riese erritxoan jaió zan, 1835^{gn.} urtean. Aita Santu izan baiño len, Eliz-mailla guztiak igo ebazan, abade^aguntzaillen, txanburu edo parroku, Mantua'ko gotzain eta Venezia'ko Patriarka izanik. 1903^{gn.} urtean aukeraitu eben Aita Santu, ta Pio X'garrena artu eban izentzat. Indar berezia emon eutsan liturjiari, gregoriano izeneko musikari batez bere, Eukaristia sariago artzeko be erraztasun aundiak emon ebazan. Berau izan zan, 1906^{gn.} urtean, Elorrio'ko seme Berrio-Otxoa'tar Balentin Elizako Doatsu egin ebana be. 1914^{garrenean} il zan, eta Pio XI'garrenak Santuen lerroan ezarri eban, 1954^{gn.} urtean.

M E Z A

Sarrer.a.—Erritik aukeratua gora jaso dot, nire orio satnutz igurtzi dot; nire eskua beti aren alde izango da, ta mre besoak 'indartu egingo dau.—Ps. Beti albestuko dodaz Jaunaren errukiak: nire agoak gizaldiz-gizaldi iragarrikb rjau Zure zintzotasuna—Aintza.

Otoitza.—KatoMku-fedea zaintzekó ta ga-uzza guztiak Kristo'gan barrizteko, Aita Santu Pio zeiruko ja-

kituriz eta apostolu-indarrez bete zenduan Jaungoikoa: egizu, aren irakaspak eredutzat arturik, betiko saria jadetsi dalgula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tesalonika'koai l'goa.: 2, 2-8).—Anaiok: Ustea gure Jaungoikoagan jarririk, jaungoikoaren Bairri Ona iragarri dautsuegu ainbat leztabaida jasanda gero. Eta jakin be ba-dakizue gure iragartea ez etorrrena irakaspak okerretik, ez lizunkeritik, ezta azpikeritik be. Barri Ona zabaldu gengian Jaungoikoak artu genduzan ezkerro, orretzaz itz egin genduan, ez gizarteko ederra irabaztearren, gure biotzak aztertzen dauzan Jaungoikoarena irabaztearren baiño. Ondo dakizuenez, inoiz bere ez dogu labamkeriz itz egin, ezta ezer irabaztearren be: Jaungoikoak ba-daki. Gizonen txalorik be ez dogu billatu, zuenik bere ez, ezta beste inorenik be. Kristo'i'en apostolu garala-ta, nagusitatz etoiri al ba'genkizuez be, ume legez aurkeztu gintzazan zuen aurrean, bere umeak a2)ten dauzan inudea legez. Orrela, zuekanako gure maitasunagaitik, Jaungoikoaren Barri Ona bakarrik ez, baita geure bizia be zuei emon nai geutsuen: orren maitagarri egin izan zintzakiguzen!

Koru^kanita.—Zeure zuzentasuna fragarri dot batzar nagusian; ez dodaz itxi nire ezpanak; Jauna, zuk ba-dakizu.—Ez dot ezkutatu zure zuzentasuna nire biotzean; zeure zintzotasuna ta osasuna iragarri dodaz.

Aleluia, aieluia.—Mai bat atontzen dozu nire aurrean; nire burua orioz igurtziten dozu; nire edontziak gainez egiten dau. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 21, 15-17).—Aldi aretan, Jesus'ek Simon Pedro'ri auxe esan eutsan: «Simon, Jon'en seme: oneik baiño geiago maite nozu?» «Bai, Jauna—dirautso—; Zuk ba^dakizu maite zaitudana. Jesus'ek diñotso: «Zaindu egizuz nire bildotsak.» Barriro dirautso: «Simon, Jon'en seme: maite nozu?» Pedro'k diñotso: «Bai, Jauina; Zuk ba^dakizu maite zaitudana» Jesus'ek dirautso: «Zaindu nire ardiak.» Iru-garrenez diñotso: (fSimon, Jon'en seme: maite nozu?) "Maite nozu?" Jesus'ek iru aldiz esan eutsan-eta, Pedro itun jarri zan, eta esan eutsan: «Jauna, Zuk dana dakizu; Zuk ondo dakizu maite zaitudana.» Jesus'ek dirautso: «Zaindu nire ardiak.»

Eskeiivtza.—Etorri zatteze, ene semeok, entzun nagizue; Jaungoikoaganako toildurra irakatsiko dau-tsuiet.

Opari-otoitza.—Arren, Jaun-a!, oparigaiok samurki-iro onartu dozuzan ezkerok, Pio Aita Santu doatsuaren bitartez, jaungoikozko ezkutapenok benetako apaltasunez erabili ta .sinismen beteriko gogoz artu dagiguzala. Atnaibagako.

Jaunartzerakoa.—Nire aragia benetan janaria, ta Nire odola benetan edaria da. Nire aragia jaten eta Nire ©dola edaiten dauana, Neugan dago, ta Ni aregan.

Azken-otoitza.—Zeru-maiko indarrez aseturi'k, egizu, gure Jaungoiko orrek: Pio Aita Santu doatsuaren bitartez, sinásmanean indartu .ta zure maitasunean bat eginda egon gaitezala. Amaibagako.

IRAJLLAREN 5GARRENA



JUSTINIANO'TAR LORENTZO DEUNA,

gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — ZUTÍZ

Venezia'n jaio zan XVgarren gizaldian. Aberatsa izanarren, guztia itzi ta bakartetxe bateko bizitza latza artu eban. Geroago, Aita Santu Eujenio IVgarrenak Venezia'ko Gotzain eta Patriarka egin eban. f 1455.

Meza: Statuit, 484 orri.



IRAILLAREN 8GARRENA

ANDRA MARIA'REN JAIOKUNDEA

2'gn. mailla. Zuriz

Antxiñatik ezagutzen da jai au Eguzki-sortzaldean; Erroma'ko liturjian, VII'garren menderuntz asi zan ospatzen.

M E Z A

Sarrera.—Agur, Ama deuna!, zuk Semea egin dozu; gizaldien f.iza!dian zeru-lurren Errege dana.—Ps. Nire biotzari eseri eder bat dario: Erregearentzat hire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Emon egiguzu, Jauna, ziure menpekool zeruko graziaren doaia: Birjiña doatsuaren jaiotza gure osasunaren asiera izan zamez, aren jaiotegun onetan bakea geitu dakigun. Amaitoagako.

2'gnj Otoitza, *Adrian deunarena*: Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek!: zure martiri Adrian doatsuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkerok, aren bitartez zure maftasunean indartu gaitezala. Amaibagako.

Irakurgaia: Jaunak Berea, 522 orri.

Koru-kanta.—Doatsu ita agugarri zara, Maria Birjiña: rñogaz loifzeke,Salbatzaillearen Amaegin zara-ta.—Birjiña, Jaungoikoaren Ama, mundu osoak ezin artu daikana, zeure safolean gorde zan, gizon egiñik.

Aleluia, aleluia.—Zorionibsu zu, Maria Birjiña deun ori, ta gorespen guztia zor yatzuna: zuzenbasunezko eguzki dan Kristo gure Jauna, zeugandik jaio da-ta. Aleluia.

Barri Ona: Abrahaim'en belauneko, 757 orri.—Kredo,

Eskeintza.—Zorionsu zu, Maria Birjiña, guztiea; Egillea ekarri daskuzu-ta; zeu egin zenduzana sortu zenduan, eta beti neskutz (birjiña) gelditu zintzazan.

Opari-otoitza.—Zure Setne Baikarraren gizatasuna lagun dakigula, Jauna: Birjiñagandik jaiorik, Amaren garbitasuna galdu bagarik doneagotu (santuagotu) egin etoan ezkerro, Aren jaiotegunean, gure pekatuak garfoiturik, gure eskeintza Zuri gogoko egin dagitzula Jesukristo gure Jaunak. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2'gn. Opari-Ufoitza, *Adrian deunarena*: Gure opari-gaiak eta otoitzak onarturik, Jauna, gartoitu gagizuz zeruko misterio onein bidez, eta entzun gagizuz biotz onez. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta**³ jaiote-egunean.

Jaunantzzerakoa.—Zorionteua benetan, betiko Aitaren Semea ekarri eban sabela!

Azken-otoitza.—TJT,te-egun ospaitsu onetan artu dogun Eukaristi santu onek, gure bizibza onetako ta besterako laguntza jadetsi daiskula, Jauna. Amaifogako.

Z'gn. j\zk«n-ótoitza, *Adrian deunarena*: Eiguzu, Jaungoiko gure Jaun orrek: orain zure santuen gomutaz alaitzen garanez, poztu gaitzezala betiko gero-koan foe, arein arpegia ikusiaz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege foizi da-ta. Olantxe.

IRAILLAREN 9'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. *Otoitzak*, *Gorgonio deunaren urrengokoak*.

Z'gn. Otoitza: Poztu gagiza'la, Jauna, Gorgonio zure martiri santuaren bitartekotasunak, eta bere jai onetan atsegiñez bebe gagizala. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Zure menpekoon opari au begiko izan dakizula. Jauna; ta Gorgonio zure martiri santuak aurkeztu da-giala zure aurrera, bitarteko egíñez. Amaitoagako.

Z'gn. Azken-otoitza: Betiko ondasun samurrak zure sendia (íamilia) ikutu ta indantu dagiala, Jauna; ta Gorgonio zure maa'tiriak izan eban zure Seme Kristo'ren usain ona ezarri dakiola beti. Amaibagako.

IRAILLAREN 10'GARRENA

TOLENTINO'TAR NIKOLAS I>EUNA, autorl*

3'gn. *malla*. — *Zuriz*

1245gn. urtean jaio zan. Kanonigu zala, praille baten itzaldia entzun ondoren, guzti, itzi ta Aguçin deunaren Lagundian sartu zan. Tolentino'n il zan, 1305garenean.

MEZA: Iustus, 492 orri.

IRAILLAREN 11'GARRENA

Aurreko hganeko Meza, - %'gn. *Otoitzak*, *Proto ta Jazinto deunen urrengokoak*:

2'gn. Otoitza: Proto ta Jazinto zure martiri doatsuen Ede-autortzeak berotu gagizala, Jauna, ta euren bitartekotasun zintzoak gorde gagizala beti. Amaifogako.

2'gn. Opari-otoitza: Zor yatzuzan oparigaiok, Proto ta Jazinto zure martiri santuen gomutaz eskintzen dautsuguz, Jauna; ta betiko osasunerako osabide izan dakiguzala eskatzen daubsugu. Amaibagako,

2'gn. Azken-otodtza: Proto ta Jazinto zure martiri doatsuen otoitzaren bidez, Jauna, ospatu dogun opari onek garbitu gagizala. Amaibagako.

MARIA IZEN GUZTIZ DEUNA

3^ogn. mailla. — Zuriz

Judarren ekanduz, Andra Mari jaio ta zortzigarren egunean, bere gurasoak izen^a Mari ezarri eutsoen. Mari itzak, barriz, andera adierazoten dau. Jesus, zeru-lurren Jauna da; Maria, barriz, gizaki guztien Andera, Jaunak dana aren eskuetan itzi dau-ta. 1683^ogarren urtean asi zan ospatzen jai au Eliza osoan.

M E Z A

Sarrera.—Erriko aundiki guatiak zeure ederra nai izango dabe. Erregearen aurrera ekarriko dabe, ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, zeugana pozez beterik.—Ps. Nire biotzari eresi eder bat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztidun orrek: zure zintzoak Maria Birjiñaren izen guztiz deunaz eta Aren laguntzaz pozez jarten diran ezker, bera bitarteko dala, lurrean gaitz guztietatik onez urten eta zeruko betiko atseginetara eltzeko gei izan daitezala. Amaibagako.

Irakurgaia: Maasficiaren antzera, 702 orri.

KoT.u-kanta.—Doaitu ta agurgarri zara, Maria Birjiña: inogaz loitzeke, Salbatzailearen Ama egin zara-ta.—Birjiña, Jaungoikoaren Ama, mundu osoak ezin artu daikena, zeure sabelean gorde zan, gizon egifik.

Aleluia, aileluia.—Seinea egfn ondoren, neschutz (birjiña) ikutubagea gelditu zintzazan: Jaungoikoaren Ama, zakiguz bitarteko. Aleluia.

Barri Ona: Jaungoikoak Gabirel aingerua, 585 orri.

Eskeintza.—Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zugaz: onetsia zu emakumeen artean, eta onetsia zure sabeleko frutua.

Opari-otoitza.—Zure errukiz, Jauna, ta Maria beti Birjiña doatsuaren bitartez, opari au on izan begiku: bizitza onetan eta betikoan zoriona ta bakea jadetsi dagiguzan. A'maibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** jai egunean.

Jaunartzerakoa.—Zoriontsu benetan, betiko Aitaren Semea ekarri eban sabela!

Azken-otoitza.—Janari onefc, Jauna, garbitu gaizala gaitz guztitik; eta Jaungoikoaren Ama Maria beti Birjiña doatsuaren bitartez, zeru-saria lortzea jadetsi daiskula. Amaibagako.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

2^ogn. mailla. — Gorriz

«Gora jasoia izan naitenean, guztia Neugana erakkariko dot», esan eban Jesukristo'k. Jesus^o en itza bete bearra zan, eta bete zan. Gurutzean dingilizka il zan, eta arrezkero, milToiká beraganatu dauz. Gaurko egun^a, Gurutzearen jai da, bertan Kristo eriotzaren aurka garaille urten zalako, ta arrezkero gurutzeak gure eroskunde baliotsu^a adierazoten dauailako. Jesukristo'ren Gurutzea Erroma'n gurtzen da, *Jerusalen'go Gurutze Deuna* izen«ko Basilik&n.

M E Z A

Saxrera.—Guretzat, gure goraipe guztia Jesukristo gure Jaunagan dago: gure osasuna, bizitza ta biztuera Beragan dagoz-ta: Berak askatu ta irabazi gaitu zerurako-ta.—Ps. Erruki bekigu Jaungoikoa, ta onetsi gageiz: bere arpegiak argi egin daigula, ta erruki izan dakigula.—Aintza.

Otoitza.—Gurutze Santuaren Gorapenez urteroko jai egun onetan poztufcen gaituzun Jaungoikoa: eiguzu, gurutzearen ezkutapena (misterioa) lurrean ezagutu dogun ezker, eroskundearen saria zeruan izan dagigula. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. OJantxe.

Irakurgaia: Jesukristo'k izan ebazan, 201 orri.

Koru-kanta.—Kristo gugaitik eriotzaragiño egin zan esaneko, gurutzean ilteragiño egin be.—Aregaitik, jaungoikoak be goratu egin eban, eta izen guztien gaiñeko dan izena emon eutsan.

Aleluia, aleluia.—Egur gozo, ta orren sorta gozoa eskegita euki zenduinen giltz gozook!: zeuok bakarrik izan zintzazen gei zeruko Errege ta Jauna eskegita eukiteko. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 12, 31-16).—Aldi aretan, Jesus'efc judar-taldeari auxe esan eutsan: «Oraintxe da munduaren epaiketa; mundu onen nagusia (1) orain kanpora jaurtia izango da; ta Ni lurretik gora jasoan izan naitenean, guztiak Neugana errakarriko dodaz.» (Zelako eriotzaz ilgo zan adierazoteko iñoan ori). Gizataldeak erantzun eutsan: «Mesias betiko bizi izango dala ikasi dogu guk Legean; zelan diñozu, ba zuk: "Lurretik gora jasoan izan bear da. Gizasamea"? Nor da Gizaseme ori?» Jesus'ek erantzun eutsen: «Oraindiño apur taateko argia zuekatz ba' dozue. Zabize, argia izan dagizuen artean, illunaldiak artu ez zagiezan; illunetan dataillenak, ez daki nora doan. Argia izan dagizuen artean, argiari sinistu egiozue, argiaren seme izan zaitezten.»—*Kredo*.

Eskeintza.—Gurutze santuarein bidez, gorde egizu, Jauna, zure erria arerio guztien zirikaldietatik: Zuganako gui'e morroikuntza atsegiñez ikusi dagizun, eta gure oparia begiko izan dakizun. Aleluia.

Opari-otoiltza.—Jaungoiko gure Jauna! Elgizu, Jesu-kristo gure Jaunaren gonputz eta odolaz asetu bear dogunok —orrexek bedeinkatu eben Gurutzearen ikurriña-ta—, au gurtu dogun ezker, jadetsi daigula egunen baten betiko zeruko osasuna. Amaigabako... eta zure Semearen bertaeraren bidez. Olantxe.

Kanon-aurrea: *Gurutze santuarena*, 452 orri.

Jaunartzerakoa.[^]Gurutzearen seiña Teagaitik, gorde gagizuz, Jaungoiko Jaun orrek, gure arerloandik.

Azken-otoitza.—Lagun zakigiuz, Jaungoi'ko gui'e Jauna: ta Gurutze santua gurtzeko atsegiña lortu dauskuzonoi, emon eiguzu beti zure laguntza. Amaigabako.

(1) Emen, txerrena (deabrua).

IRAILLAREN 15'GARRENA

ANDRA MARIA'REN ZAZFI NAIGABEAK

2'gn. mallla. — Zuriz

Maria'k ez eban isuri bere odol, beste martiri askok fegez; baiña Martiren Erregiña da, bere oiñazeak gorputzeako baiño arimakoak izan ziran-eta.

Jai au, Aita Santu Pio VII'garrenak zabaldu eban Eliza osorako, 1814gn. urtean.

M E Z A

Sarrera.—Jesus'en gurutze-ondoain, Aren ama Maria ta onen aizta Mari Kleofa'rena, ta Salome ta Madalen. egozan.—*Ps*. Andra, orra or zure Semea, esan eban Jesus'ek: gero, ikasleari dirautso: Orra or zure Ama.—*Aintza*.

Otoitza.—iSimeon igarteak esan ebanez, jaungoikoa, zure Nekaldian Ama Mari Birjiña goragarriaren arima guztiz gozoa, ezpata samiñak zulatu eban: eiguzu biotz onez, Aren oiñazeak zintzo gogoratu doguzan ezker, zure Nekaldi santuaren frutu onak jadetsi daiguzala. Amaigabako egunetan Aita Jaungoikaogaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2'gn Otoitza, *Nikomedes deunarena*: Lagun zakioz, Jauna. zure erriari: ta Nikomedes zure martiri doatsuaren irabazi bikaiñak ospaturik, onen bitartez zure errukia jadetsi dagiala. Amaigabako.

Irakurigaia (Judit, 13, 22-25).—Jaunak bere indarrez bedeinkaitu zaitu, zure bidez gure arerioak ezereztu egin dauz-ta. Goiko Jaun altsuak onetsi zaitu, alaba, Iarreko emakume guztiak baiño geiago. Onetsia, zeru-lurrak egm dauzan Jauna, zure izena gaur gora jaso dau-ta: gaurdanik (gaurtik) zure izena ospetsu egin dau; Jaungoikoanen indarra gogoratu dagien guztiak, beti izango dabe agoan zure entzute ona. Berak (JaungoikoaV) egin begi guzti au zure betiko aintzarako, ta ondasunez bete zagizala, zure bizia ondatzeko arriskuan jarri dozu-ta, zure artekoen ezbear eta nagabeak ikusirik. Gure jauste-aldian lagun izan zaitugu, gure Jaungoikoaren aurrean artez ibilliaz.

Koru-kanta.—Samiñe-z eta negartsu zagoz, Mavlaf Birjiña, zure Seme Jesus Eroslearen Gurutze-ondoan. Birjiña, Jaungoikoaren Ama, mundu osoak ezin artu daikenak, gizon egiñik Gurutzeko oiñazea jasaten dau, biziaren jabe dala.

A'leluia, aleluia.—Maria deuna, zeruko Erregiña ta munduko Andrea, Jesukristo gure Jaunaren Gurutze-ondoan samiñez egoan.

«Stabatt Mater» jairaikia

- 1.—Aina naigabetua negarrez egoan Gurutze-ondoan, Semea dingilizka egoala.
- 2.—Aren arima negartsu, itun eta oiñazetua, ez-patak urratu eban.
- ?—Bai larri ta atsekabez egoaia Seme Bakarra-ren Ama deuna!
- ʔ.—Itun eta naigabez egoan Ama samurra, bere jaungoikozko Semea ikusirik.
- 5.—Zein gizonek ez leuke negarrik egingo, Kristo'ren Ama ain oiñaze gogorretan ikusi ba' legi?
- 6.—Nor ez litzake naigabetuko Kristo'leri Ama Semeagaz neketan ikusirik?
- 7.—Bere erriaren pekatuakaitik ikusi eban Jesus oiñazetan ata zigorkadaz josita.
- 8.—Azken-arnasa emon ebanean, lagunik baga il-ten ikusi eban bere Seme gozoa.
- 9.—Aifia, maitasun-iturri! Zure oiñazearen indarra izan dagidala, zugaz negar egin dagidam
- 10.—Nire Jaungoiko dan Kristo'ganako maitasun-ean sutu dadilla nire biotza, gogoko izan nakion.
- 11.—Ama Deuna!, auxe egizu: Jarri nire biotz-barranean Gurutzetuaren zauriak.
- 12.—Zauriz beteriko zure Semearen naigabeak egin erdibana nigaz, nigaitik arenbeste jasan eban-eta.
- 13.—Errukiz negar egin dagidala zugaz, eta Gurutzetuari neketan lagun izan nakiola, bizi nadin artean.
- 14.—Gurutze-ondoan Zeugaz egon nadilla, malkoetan Zeugaz alkartu nai dot-eta.

lñ.—Birjiñetan neskutzik (birjiñarik) bikaiñena: ez zakidaz gogorra izán; egin dagidala negar zeugaz.

16.—Kristo'ren eriotza eroan dagidala; Aren neke-lagun egin nagizu, ta Aren zauriak gurtu dagidazala.

17.—Aren zauriz zauriturik, zure Semearen Gurutze ta Odolaz asetu naitela.

18.—Sugarretan erre ta kiskaldu ez naiten, nire alde jarri zaitez, Birjiña ori, epaikunde-egunean.

1.)—Kristo: emendik urten bear dagidanean, emon egidazu, zure Amaren bidez, garaipen*-abarra.
2t Nire gorputza il daitenian, emon egiozu nire arimari zeruko aintza. Olantxe. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 19, 25-27).—Aldi aretan, Jesus'en gurutze-ondoan, Aren ama Maria ta onen aizta Mari Kledfa'Tena ta Salome ta Mari Madaien egozan. Jesus'^c, bere ama ta ikasle maitea an ikusirik, bere amafi esan 'eutsan: <Andra, orra or zure semea,» Gero, iiasleaii dira.utso: «Orra or zure ama.» Ta arrezkero; ikasleak bere etxean artu eban.—*Kredo*.

Epkeintza.—Gomuta zai/tez guitzaz, Birjiña Jaungoikoaren Ama, Jaunaren aurrean egon zaitezanean; e,rr egutu egiozu gure alde, Bere asarrea gugandik al-dendu dagian.

Opari-otoitza,—^Erregu ta oparigaiok eskintzen dautsuguz, Jesukristo Jaun orri; eta ezpataz urratutako zure Ama Maria tfoatsuaeren arima gutziz gozoa oitizetan gogoratzen dogun ezkerre, Gurutze-ondoan egozan santjién bitartez eta zure eriotzarenaz, zoriontsuen saris jadetsi dagigula eskatzen dautsugu apal-apalik. Amsibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espirituá Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zari-ta. Olantxe.

4'gn. Opari-otoitza, *Nikomedes deumarena*: Artu egvuz, Jauna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok, eta Nikomedes zure martiri doatsuaren oitizak eroan dagitañzala Zuri, Errege orri. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*** Hvtz-urratze egunean.

* Garaipen = triunfo, vltoria.

Jaunartzerakoa.—Zorionsua Maria Birjiña doartsua-
ren biotza!. eriotzarik бага, Jaunaren gurutze-ondoan
Martirien abarra jadetsi eban-eta.

Azken-otoitza.—Egizu, Jesukristo Jauna, Birjiña zu-
re Amaren arima-urratzea ospaturik artu dogun Eu-
karisti onek, zure errukiaren bidez, edozetariko frutu
onak jadetsi daikuszala. Arnaibagako egunetan Aita
Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaun-
goiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitza, *Nikomedes deunarena*: Garáitu
gagizala, Jauna, artu dogun Eukaristiak; eta Nikme-
des zure martiri doatsuaren bitartez, gaizpide guzjitik
gorde gagizala. Amaibagako.

IRAILLAREN 16'GARRENA

KORNELIO, Aita Santu, to ZIPRIANO,
gotzai-n, MARTIRI DEUNAK

3'gn. *matlla. — Gorriz*

Kornelio Aita Santua atzerrian il zan, 252'gn. u;teai\
Zipriano, barriz, kristau biurtuta gero, Kartago'ko gotzain
egin eben. Pedearen alde gogor.egin eta idatzi ondoren,
odol-eflotza emon eutsoen, 258'garrenean. Bion izenakfai-
tzen dira egunero Mezako Kanon'ean.

Meza: Intret, 473 orri; 2'gn. *Otoitsak, Eufemia, LIL-
zia ta Jeminiano deunen urrengokoak*:

2'gn. Otoitza: Gur-e otoitzak ipoztu gagiezala ta ontf.
a-akorrak izan dakiguzala, Jauna; ta Eufsmia, \uzia
ta Jeminiano zure martiri santuen odol-oriotz-eiuna
urte oro ospatzen dogun ezker, sinism'enean be aren
antzera iraun dagigula. Amaibagako. \

2'gn. Opari-otoitza: Onartu egizuz, Jauna, iure
erriaren eskariak; eta gaur ospatzen doguzan san-
tuen otoitzak poztu gagiezala. Amaibagako.

2'gii. Azken-otoitza: Enrtzun egizuz, Jaiuna, gijre
otoitzak; eta Eufemia, Luzia ta Jeminiano zure tnár-
tiri santuen jaia ospatzen dogun ezker, airein lagui-
tza etenbageak zaindu gagizala. Amaibagako.

IRAILLAREN 17'GARRENA

*Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak: Asis'ko
Prantzisko deunaren urrengokoak*:

2'gn. Otoitza: Munduan maitasuna otzitzen joiala,
gure biotzak zure maitasun^sutan iziotzeko, Prantzis-
ko oso doatsuaren gorputzean zure Nekaldiko zau-
riak barriztu zenduzan Jesukristo gure Jauna: ei-
guzu samunkiro, airen irabazi ta otoitzen bidez, gu-
rutzea beti eroan dagigula, ta damuzko egintza ego-
kiak egin dagiguzala. Aimaibagako egunetan Aita
Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoi-
ko ta Errege bizi zara-ta .Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza: Bedeinkatu eg'izuz, Jauna, es-
kintzen dautsuguzan oparigaiok; eta Prantzisko doa-
tsuaren bitartez, pekatu guztietatik garbitu gagizuz.
Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Prantzisko zure autorle doa-
tsuagan zure Gurutzeko ezkutaipen (misterio) mira-
garriak era askotara agertu zenduzan Jaungoikoa:
eiguzu, aren antzeko Zuganako oneraspena beti izan
dagigu'la, ta zure Gurutzea gogoan sarri erafoillirik,
indartu gaitzezala. Amaibagako.

IRAILLAREN 18'GARRENA

KUPERTINO'TAR JOSE DEUNA, autorle

3'gn. *mailla, — Zuriz*

Prantzikotarren anai arteko egin zan; geroago Abade-
gintza arturik, Jaungoikoaren maitasunera guztiz biurtu zan,
otoitz-aldian zentzuna galtzeragiño. Italia'ko Osimo'n il zan,
1663'gn. urtean.

M E Z A

Sarrera.—Ja'ungoikoaganako maitasuna, jakintza ja-
torra da; agertzen yakenak, ikusi ta bereala maite
izaten dabe, egiten dauzan miragarriak ezaguturik.—
Ps. Zure tokiak bai maitagarri, indarren Jaungoiko!
Nire arima miñez argaltzen dago zure tokiatarako go-
goz.—Aintza.

Otoitza.—Lurretik jaso eben zure Seme Bakarregana, dana erakarñ dozun Jaungoikoa: eiguzu, Jose zure serafin autorlearen irabazi ta ereduz, munduko zalekeri guztietatik alfle egiñik, Beragana eldu gaitetzala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

irakurgaia: Gizonen eta aingeru-en, 92 orri.

Koru-kanta.—Jauna, onespen bereziz aunrea artu dautsazu: pitxi ederrezko koroia ezanri dautsazu buruan.—'Bizia eskaitu dautsu, ta Zuk beti-betiko luzatu dautsazuz egunak.

Aleluia, aleluia.—Jaungoikoa-ren begiak samurkiro begiratu dabe a, ta era apaletik gora jaso dau, ta burua jasoarazo dautso. Aleluia.

Barri Ona: Jesus'ek ipuiñen bidez, 395 orri.

Eskeintza.—N&katzen nenduenean, zurdatzaz* jazten nintzan; nire arima barauaz atsekabetzen neban, eta otoltzak neukazan beti kolkoan.

Opari-otoitza.—Zeure sanituen gomuitaz eskintzen dautsuguz, Jauna, gorapenezko oparigaiok; eta euron bidez, oralngo ta geroko gaitz guztietatik onik urtengo garala uste dogu. Amaibagako.

Jauoiartzerafcoa.—Beartsu ta naigabetua naz: zeure laguntzak indartu nau, Jauna. Jaungoikoaren izenari eresiak abesbuko dautsadaz, eba goraka goratuko dot.

Azken-otoitza.—Zeru'ko janari ta edari onekaz indarturik, egizu, gure Jaungoiko orrek: santuaren eguna ospatuez artu doguzan ezkeru, berak lagun egin daiskula bere otoitzakaz. Amaifoagako.

* Zurdatz = cilicio.

IRAILLAREN 19'GARRENA

JENARO DEUNA, gotzain eta martiri,

eta bere LAGUN martiriak

3'gn. mailla. — Gorriz

Jenaro deunari, Benevento'ko Gotzain zala, 305'gn. urtean odol-eriotza emon «utsoen, Sozio, Prokulo, Eutikio ta Akuzio lagun ebazala. Jenaro deuna, Napoles'ko Zaindari nagusi, da, ta bere izena entzute aundikoa: bere odola urtu (likidu) egiten da urtean iru aldiz.

Meza: Salus autem, 477 orri, *Barri Onaren zati au izan ezik:*

Barri Ona (Mait, 24, 3-13).—*Ami* aretan, Jesus O'liamendi'n jesari'ta egoala, bere ikasleak ixillean urreratu yakozan, esanez: «Esan egiguzu: noiz jazoko da ori? Ta zein izango da zure etorreraren eta azken-egunaren ezaugarria?» Ta Jesus'ek erantzun euitsen: «Begara, gero!, iñok ez zagiezala okerbidei'a eroan: Asko etorriko dira-ta, nire izena artuba «neu naz Kristoa» esanez; eta amadka lilluratuko dabez! Gudaketa ta matxiñada-otsak entzungo dozuez. Ez ikaratu: guzti orreik jazo bearrak dira; baiña ez dator oraindiño azken-eguna. Erri bat bestearen aurka, ta erreñu bat besteai-en aurka jagiko da, ta izurrite*, gosete ta lurrikarak nunai izango dira; baiña guzti orreik, miñen asiera dira. Orduan, oiñazetara eroan eta il egingo zaitue: ta nire izenagaitik guztien gon'otagarri izango zaree. Orduan, askok okerbidera joko dabe, alkar salatuko datee ta batac besteari gorroto izango dautso. Ta sasi-igarie asko agertuko dira, ta lagun asko okerbidera eroango dabez. Eta gaiztakeria ugarituko danez, askoren maitasuna oztu egingo da. Baiña azkeneragiño iraun dagiana, axe gaizkabuko (saltoauko) da.»

IRAILLAREN 20'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza. %'gn, Otoitzak, Eustakio ta lagun deunenak: Sapientiam Mezakoak, 475 orri.

Izurrite = epidemia,

IRAILLAREN

2VGARRENA

MATEO DEUNA, Apostolu ta Ebanjelari

2^{gn.} maila. — Gorriz

Jesus'en ikasle izan aurretik, Mateo zergaria zan, zergai Ctributuak, kontribuziñoak) batzen ebezanetarikoa. Baiña Jesus'ek berari jarraitzeko esan eutsanean, guztia itzi ta Aregaz joan zan.

Berau izan zan gure Jaunaren irakaspenak eta bizitza idatzi ebazan lenengoa; arameoz egin eban bere Barri Ona, Jesukristo'k itz egin eban izk'intzaz beraz.

M E Z A

Sarrera.—Zinitzoaren agoak jaikiituria isuriko dau, ta aren miñiak itz zuzenak esango dauz; bere Jaungoikoaren legea dauko bitzean.—*Ps.* Gaiztoak gora-bera ez asarretu; ez izan gaiztoakanako ikusi-eziñik.—Aintza.

Otoitza.—Lagun dakiguzaila, Jauna, Mateo Apostolu ta Ebanjelari doatsuao-en otoitzak, guk geurez ezin lortu daikeguzan graziak, aren bitartez jadetsi dagiguzan. Amaifoagako.

Irakurgaia: Lau a/beren, 595 orri.

Koru-kanta.—Zorionsu, Jaunaren biidur dan gizona; aren aginduak biziro maite dauzana.—Aren jatorrria lurrean indartsua izango da; zintzoen azia onetsia izango da.

A^{le}luia, aleluia.—Zeu goratzen zaitu, Jauna, Apostoluen talde ospetsuak. Aleluia.

Bami Ona (Mat., 9, 9-13).—Aldi aretan, Jesus'ek, Mateo izeneko gizon bat zergategian jarraitu ikusi eban, eta esan eutsan: «Jarraitu egidazu.» Ta zutundurik, jarraitu egin eutsan. Eta Jesus maian jarrita egoala, zergari ta gizon gaiato asko Jesus'egaz eta Onen ikasleakaz maikide ziran. Au ikusirik, pariseotarrak Jesus'en ikasleai esan eutseen: «Zuen Irakasleak zegaitik jaten dau zergari ta pekatariakaz?» Baiña Jesus'ek, ori entzunda, esan eutsen: «Osasundunak ez dabe osagillerik bear, geisoak baifio. Zoaze, ba, ta ikasi egizue arelako a zer dan: Errukia nai dot, ez opa-

ria, Ez naz deika zintzoakana etorri-ta, pekatariakana baiño.»—*Kredo.*

Eskeintza.—Jauna, piitxi ederrezko koroia jarri dau. tsazu buruan; bizia eskatu eutsun, eta emon egin zeutsan. Aleluia.

Opari-n.toitza.—Onartu egizu, Jauna, zure Elizaren opari au, Mabeo Apostolu ta Ebanjelari doatsuaren otoitzakaitik; aren irakaspen bikaiñez aberastu egin dozu-ta. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluena, 457 orri.*

Jaunartzerakoa.—Aundia da bere aintza, zure bitartekotasunari esker; ospez eta edertasunez inguratuko dozu, Jauna.

Azken-otoitza.—Eukaristi au antuta, Jauna, Mateo, zure Apostolu ta Ebanjelari doatsuaren bitartez, gaur beronen omenez ospatu doguzan ezkutapenak (misterioak), gure gaitzen osasunerako izan daitezala Amaibagako.

IRAILLAREN 22'GARRENA

VILLANUEVA'KO TOMAS DEUNA,

gotzain eta autorle

3^{gn.} maila. — Zuriz

España'ko Villanueva ondoan jaiotako, 1488^{gn.} urte inguruan, San Agustín'en Bakarzaleen arteko egin zan, eta geroago Valencia'ko Gogotzain. Beartsuen laguntzaille sutsua izan zan. f 1555.

Meza: Statuit, 484 orri., *Otoitz oneik izan ezik:*

Otoitza.—Tomas gotzain doatsua beartsuakanako erruki aundiz jantzi zenduan Jaungoikoa: aren bitartez, eskatzen dautsuenai Zure erruki aberatsa isuri egiezu, arren, Amaibagako.

2^{gn.} Otoitza, *Maurizio ia lagun deunena*-. Egizu, Jaungoiko algutzidun, Maurizio ta lagun martiri santuen uteroko jaiak pozik ospatu daigula; ta arein otoitzetan uste ona dogun esker, arein zeruratze egunak poztu gagizala. Amaibagako.

Opari-otoitza. — Bedeinkatu egizuz, Jauna, eskiñi dauzuguzan oparigaiok; eta Tomas zure martiri ta

gotzain doatsuaren bitartez, samurkiro begiratu gazizuz. Amaibagako.

2'gn. OpaTí-otoitza, *Maurizio ta layun deunena*. Begiratu egizuz, Jauna, Maurizio ta lagun martiri santuen gomutaz ekarri dautsuguzan oparigaiok; eta arein izenean begiko yatzuzan ezker, arein bitartez betiko onuragarri izan dakiguzala. Amaibagako.

Azke.n-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, pekatu guttitik garoitu gaizala; ta Tomas zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartez, zerurako osasunbide izan dakiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Maurizio ta lagun deunena*. Zeruko sakramentuz eta poztasunez aseturik, apal-apalik eskatzen daut6Ugu, Jauna: santu onein garai-pena» ospatzen dogun ezker, euron laguntzak zaindu gazizala. Amaibagako.

IRAILLAREN 23'GARRENA

LINO DEUNA, Aita Sa.rrtu ta martiri

3'gn. mailla. — *Gorriz*

San Pedro'ren urrengo izan zan Aita Santu, antza. (67-76?). Kanon-zatian esaten da bere izena.

Meza: Si tlliligis, 464 orri.; 2'gn. Ofoiizak, *Tekla iLeunaren urrengokoak*:

2'gn. Otoitza: Eiguau, Jaungoiko alguztidun, zure birjiña martiri doatsuaren eguna ospatzen dogun ezker, urteroko jaiaz poztu gaitzala ta aren sinismen gartsuaren ikasbidez aurrera jo daigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Artu egizuz, Jauna, Tekla zure birjiña ta martiri doatsuaren jaiegunean dakartsuguzan opangaiok; aren bitartez, gaitz guttitik onez urtzen garala uste dogu-ta. Amaibagako,

2'gn. Azken-otoitza: Emon daiskula laguntza, Jauna, artu dogun Eukaristiak; eta "zure birjiña ta martiri Tekla doatsuaren bitartez, betiko zorionera eroan gazizala. Amaibagako.

Garaipen = triunfo, victoria.

IRAILLAREN 24'GARRENA

Aurreko Iijandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Mesedeta-ko Andra Maria'ren urrengokoak.

2'gn. Otoitza: Zure Semearen Ama oso goragarriaren bidez, Kristauak sinisbageen menpetik atarateko, Elizan Lagundi barri bat sorrerazo zenduan Jaungoikoa: egizu, lan aundi orren egillea zintzo ospatzen dogun ezker, Aren irabaziz eta bitartez, pekatu guttietatik eta txerrenaren kataietatik askatu gaitzala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez.

2'gn. Opa.rí-otoitza: Zure errukiz, Jauna, ta Maria beti Birjiña doatsuaren bitartez, opari au on izan begiku oraingo ta befiko bakerako ta zorionerako. Amaifoagako.

2'gn. Azken-oiotza: Janari osasungaiTi au artu dogun ezker, egizu, Jauna: Maria beti Birjiña doatsuaren iaguntzak edonun gorde gazizaia: beronen izenean eskiñi dautsugu opari au-ta, Jaungoiko alteu orri. Amaibagako.

IRAILLAREN 26'GARRENA

Aurreko Iganeko Meza: 2'gn. Otoitzak, Zipriano ta Justina deunen urrengokoak.

2'gn. Otoitza: Zipriano ta Justina martiri doatsuen laguntzak beti gorde gazizala, Jauna: olako laguntzailleak emoten dautsezuzanak, beti begi onez ikusten dozuz-ta. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza: Gure gogoko oparigai oneik eskintzen dautsuguz, Jauna; zure zintzoen izenean atsegiñez artu dagizuzala, ta zure errukiz, osasungarri izan dakiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Eiguzu, arren, Jauna: Zipriano ta Justina zure martiri santuen bitartez, agoaz ikutu doguna, gogo garbiz artu dagigula. Amaibagako

KOSME TA DAMIAN DEUNAK, martiriak*3^ogn. mailla. — Gorriz*

Ziro'n il ebezan, Diokleziano'ren aldian. Osalariak ei'zirau. IV^ogarren mendean asi ziran Erroma'n arein izenak ospatzen. Kanon-zatian agertzen dira arein izenak.

M E Z A

Sarrera.—Erriak, saratuen jakituria ospatzen dabe, ta batzarrak arein aintza iragarten dau; arein izenak gizaldiz-gizalidl iraungo dau.—*Ps.* Poztu zaitzeze Jaunagan, zintzook; biotzez zintzoai dagokie Jauna goraztea.—Aintza.

OtoAtza.—Aren, Jaungoiko alguztidun! Kosme ta Damiaan zure martiri santuen zerurako jaiotza ospatzen dogun ezker, euron bitartez, gainean doguzan gaitz guztietatik onik urten gaitezala. Amaibagako. ,

Irakurgaia: Zintzoak /beti, 476 orri.

Koru-kanta.—Dei egin eben zintzoak, eta JaunaiB entzun egin ebazan: naigaibe guztietatik atara ebazan.—Jauna biotz-atsekabetuen ondoan dago, ta gogo apalak Arexek arinduko dauz.

Aleluia, aleluia.—Auxe da egiazko maitasuna; on\$.- xek azpiratu dauz munduaren gaitzakeriak: Kristo'ri jarraitu dautso, ta zeru-erreinuko aintza artu dau. Aleluia.

Barri Ona: Jesus menditik, 476 orrx.

Eskinitza.—Zure izena maite dafoen guztiak, Zeugan poztuko dira, Jauna; Zuk sintzoa onetsi egiten dozu-ta; Jauna, zeure gogo onaz inguratu gaituz, mazmarroaz (eskuduaz) lez.

Opari-otoitza.—Izan daigula beti, Jauna, gure alde santuen otoitz zintzoa, gure oparigaiak atsegin izan dakizuzan eta zure errukia beti lortu daiskun. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zure morroien gonpuak egaztia emon dautseez jan dagiezan, Jauna, ta zure zintzoen aragia lurreko abereai (animaliai): artu egizuz zure beso aundi orretan ilitera galdu daibezanen semeak.

Azken-otoitza.—Artuitako zeruko janariak eta santuen otoitzak, gorde dagiela zure erria, eskatzen dautsugu, Jauna.


BENZESEAO DEUNA, martiri*3^ogn. mailla. — Gorriz*

Bohemia'ko duke onek, amazortzi urte ebazala artu eban bere erriko agintaritz. Kristau zintzoa izanik, bere erria kristau biurtu zedin alegin sutsuak egin ebazan. Egun baten elizara otoitz egitera joiala, bere anai artekoak bizia kendu eutsoen, 22 urtez, 929^ogarrenean. Txekotarren Zaindari da.

Meza: In virtute, 470 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Benzeslao mantiri doatsua, Martiri-abarra. ren bidez, lurreko Agiriterritik zerukora aldatu zenduan Jaungoikoa: aren otoitzen bitartez, gaitz guztietatik gorde ta zeruan aren lagun egin gazizuz. Amaibagako.





JRAILLAREN 29GARRENA

MIKEL GOIINGERUAREN ESKINTZA

Mikel izenak "Nor Jaungoikoa lakoa" adierazoten dau. Bera da zeruko Aingeru guztien Buru, Berak azpiratu ebazan arrotu ziran aingeruak, betiko gaiztokira (inpermura) jaurtiten ebazala. Elizaren Zaindari da.

M E Z A

Sarrera.—Goratu egizue Jauna, Aren aingeru guztiok: Aren aginduak bebeteke ta Aren esana egiafeko indarrez gogorrek zareenok.—Ps. Ene arima!, goratu egizu Jauna: ta nire barren osoak Aren izen deuna onetei begi.—Aintza.

Otoitza.—Gizonen eta airirgeruen egitekoak era miragarritz banatzen dozuzan Jaungoikoa: egizu samurkiron, zeruan zure morroiketean diarduenak, lurrean gure bizia zaindu dagiela. Amabagako.

Irakurgaia (Jon deunaren Agerkaritik, Apoc, 1, 1-5).—Egun areitam, Jaungoikoak laster jazotoeairak erakutsi eutsazan bere morroi Jon'i, Aingerua bialdurik; auxe (Jon) da Jaungoikoaren itzaz eta Jesukristo'ren autorrez, ikusi dauan guztiari buruz autor egin dauana. Zoriontsu, igarkizun onetako itzak irakurten eta entzuten dauzana, baita berban idatzitakoa entzuten eta beteten dauana be. Garaia ba'dator. Jon'ek Asia'ko zazpi elizai: grazia ta bakea izan daitezala zuekaz darenen, zanaren eta datorrenaren alde; baita Aren ze-

ru-aulki aurrean dagozan zazpi aing'ruen aldaz be; baita autorlari zintzo, illen len-anai, lurreko erregeen buru dan Jesukristo'ren aldez be: Beronek maitatu ta gure pekatuetati'k bere odolaz garbitu gaitu-ta.

Koru-kanta.—Goratu 'egiaue Jauna, Aren aingeru guztiok: Aren aginduak beteteke indaivez gogorrek zareenok.—Ene arima!, goratu egizu Jauna, ta nire barren osoak Aren izen deuna on'efei b'sgi.

Aletaúa, aleluia.—Mikai Goiaingeru deuna, lagun zakiguz gudaketan, auzi ikaragarrian galdu ez gaitezán. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 18, 1-10).—Aldi aretan, Jesus'i ikasleak urreratu yakozan, esanez: «Nor deritxazu zeru-erreñuan audiena?» Ta Jssus'ek, ume bati dei egiñik, guztien erdian ipiñi eban, eta esun eban: «Benetan dirausueit: urae lez biurtu ta egin ez ba'zait'eze, ez zaiee zeruko erreñuan sartuko. Beraz, umetxo au baizen txiki biurtu daitena, orixe da zeru'erreñuan audiena. Ta onelako umetxoren bat nire izenean artu dagianak, Neu aritzen nau. Baiña nire sinistea dauan txikitxo oneitariko bati gaizpidea* emon toa'legio, obe litzakio astoak darablllen errotarria samatik lotuta, iitzasora jaurtia izabea. Mun'duaren zoritxarra'gaizpideak dirala-ta! Gaizpideak izatea nai-ta naiezkoa da; baiña gaizpidea dakarren gizonaren negargarria! Zure eskuak naiz oiñak gaizpitfea emoten ba'dautsu, ebagi ta zugandik urrun jaurti egizu; obe dozu eskumotz naiz erren trizitan (zeruan) sartzea, esku biak naiz oin biak dozuaia, itzungiko (atzamauko) ez dan betiko sutara jaurtia izatea baiño. Kontuz gero, txikitxo oneitariko ibat be gutxiestea (galtzea): on'ein aingeruak zeruan goiko nire Aitarean arpegia beti ikusten dafoela dirautsuet-eta.»—Kredo.

Eskirataa.—Aingerua Eliz-altara ondoan zutik jam zan, urrezko lurrin (intzen'tzu)-ontzia eskuan ebalá; ta intzentzu asko emon eutsoezan: eta ke usaintsua igo pan Jaungoikoaren aurrera. Aleluia.

Opari-otodtza.—Gorapenezko oparigaiok eskintzen dautsuguz, Jauna; ta zure Aingeruen bitartez, biotz

* Gaizpide = escándalo.

or'ez artu egizuz, eta osasurngarri izan dakiguzala eskaJtzen dautsugu apal-apalik. Arnai'bagako.

Jaunartzerakoa.—Jaunar.en Aingeru guztiok!, goratu egizue Jauna; esan egiozue ereserkia ta goreitei egizue beti.

Azken-otoitza.—Mikel zure Goiaingeru doatsuaren bitartekotasunez indartuta, agoz artu doguna, biotzez be aftu dagigula eskatzen dautsugu apal-apal. Amaibagako.

IRAILLAREN 30'GARRENA

JERONIMO DEUNA, autorde ta irakasle

3'gn. mailla. —• Zuriz

Dalmazia'ko Stridon'en jaio zan, 340'gn. urte inguruan. Bere gurasoak Erroma'ra bialdu eben, ikaskizunak egitera. An bateoa arturik, Siria'ko basaimortura baztertu zan. Antioxia'n abadegintza arturik, Erroma'ra biurtu zan, eta bere bizitzako azkenaldia Palestina'n igaro eban. Lan aundia be aundia egin eban Biblia latinera biurten, eta «Vulgata» izenez ezagutzen da. 420'gn. urtean il zan, eta beré gorpua Erroma'n datza, Andra Mari Aundia izeneko Basilikan.

Meza: In medio, 488 orri., *Otoitz oneik izan ezik:*

Otoitza.—Idazti Deunak adierazóteko, Jeronirno zure autorle doatsua Elizari Irakaslerik aundiena emon dautsazun Jaungoikoa: egizu, &ren irabazien bitartez, agoz eta egiñez irakatsi eskuna, guk be zure laguntzaz egin dagigula. Arnabagako.

Opari-o.toitza.—Zeruko graziz eiguzu, Jauna, Zu go-go nasaiz otsemdu zaiguzala: ta eskiñi dautsuguzan oparlgaiok, Jeronimo zure autorle doatsuaren bitartez, osasuna ta zema daiskuela. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Zeruko janariz aseturik, Jeronimo zure autorle doatsuaren bitartez, zure errukiaren par-kamena jadetsi daigula eskatzen dautsugu, Jauna. Amaibagako.

URRILLEKO SANTUAK

URRILLAREN 1'GOA

Aurreko Iganeko Meza; 2'gn. Otoitzak Erremijio deunarenak: Statuit Mezakoak, 484 orri.

URILLAREN 2'GARRENA

AIINGERU ZAINDARI DEUNAK

3'gn. mailla. — Zmrla

Aingeruak zeruan Jaungoikoa goratzen diarduen artean, gu zaintzen gaitue. Bakoitak geurea dogu.

Jai au, Aita Santu Klemente X'garrenak 2abaldu eban Eliza osorako, 1670'gn. urtean.

M E Z A

Sarrera.—Goratu egizue Jauna, Aren aingeru guztiok: Aren aginduak beteteko ta Aren esana egiteko indarrez gogorrak zarenok.—Ps. Ene arima!, goratu egizu Jauna: ta n'ine barren osoak Aren izen deuna onetsi begi.—Aintza.

Otoitza.—Esan ezin aiako arduratasunez zure Aingeru santuak gu zaintzeko baltzen dozuzan Jaungoikoa: egizu eskatzen dautsugunoi, gorde gagezala beti euren magalpean, eta gero arein lagun izan gaitezala betiko zeruan. Arnabagako.

Irakurgaia (Unteera, Ex., 23, 20-23). — Auxe diño Jaungoiko Jaunak: Neuk bialduko dot nire Aingerua zure aurrean, bidean zaiodu zagizan, eta Neuk atondutako tokian sartu zagizan. Zakioz zur, eta entzun egizu aren abotsa, ta ez gutxietsi; gaitzakeririk ez dautsu'e parkatuko, nire izena daroa-ta. Baiña arek esan dagitsuena entzun eta egin ba'dagizu, zure arerican arerio izango naz, eta jo zagiezanak jo egingo dodaz, nire aingerua aurretik joango y-atzu-ta.

Koru-kanta.—Jaungoikoak Aingeruai zutzaz auxe agindu dautse: zaindu zagiezala bide guztietan.—Eskuetan eroango zaftue, arriren baten zure oiña mindu ez daiten.

Aieiua, aleluia.—Goratu egizue Jauna, zeruko in-dar guztiok, Aren esana eg'iten dozuen morroi guztiok Aleluia.

Barri Ona: Jesus'i ikasleak, 749 orri.

Eskintza.—Goratu egizue Jauna, Aren aingeru guz-tiok: Aren aginduak beteteko ta Aren esana egiteko indarrez gogorak zareenok.

Opar-dotdza.—Artu egiauz, Jauna, Aingeru santuen omerfez eskintzen dautsuguzan oparigaiok: eta eiguzu, beti areiin ai'durapean egonik, oraingo arriskuetaik onik urten gaitetzala, ta betiko biartzara joan gaitetza-la. Amaibagako.

Jaurrartzerakoa.—Jaunaren Aingeru guztiok!, gora J tu egizue Jauna: esan egiozue ereserkia ta goretzi egi-zue beti.

Azkeri-o, toitzta.--Zur,e Aingeru sanbuen jaiá ospatze-ko, pozik artu dogiu, Jauna, zerUko Eukaristi au; arein laguntzaz, arerioen zirikáMietatik altara ta ezbear guztitik gorde gagizuz, arren. Amaibagako.

URRILLAREN 3'GARRENA

JESUS UMETXOAREN TERESA DEUNA, birjiña

3'gn. mailla. — Zuriz

Prantzia'ko Alençon'en jaio zan, 1873'gn. urtean. Amabost urte ebazala, Lisieux'ko karmeldarretan sartu zan. Bere burua Jaungoikoaren eskuetan itzi eban, Ebanjelioko itz oneik gogora ekarrita: «Umetxo au baizen txiki biurtu dai-tena, orixe izango da aundiena zeruko erreñuan». Bere otoi-tzetan abadeak eta mixiolariak ebazan gogoan. 1897 garre-nean il zan, 24 urte ebazala. Aita Santu Pio XI'garrenak Santuen idaztian ezarri eban, 1925'gn. urtean. Mixiño guztien Zaindari egin dau Elizak.

M E Z A

Sarrera.—Zatoz Libano'tok, ene emazte; zaitoz Liba-no'tik, zatoz: biotza zauritu daustazu, ene arrebá, emazte, biotza zauritu daustazu.—Ps. Umeok!, goratu egizue Jauna: goratu egizue Jaunaren izena.—Aintza,

Otoitzta,—«Ume lez biuntu ez ba'zaitzeze, ez zaree zeru-erreñuan sartuko», esan zenduan Jauna: eiguzu, Terasa birjiña doatsuaren biotz-apaltasun eta bakunta-

sun-lorrazai jarraturik, betiko saria jadetsi daigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi sara-ta. Olamtxe.

Irakurgaia (Isaias, 66, 12-14).—Auxe diño Jaunak: Ibai bat legez, bakea jsuriko dot aren gaiñera, errien aintza uriola legez. Iztarganean eroango dozuez seiñak (umetxoak), eta belauñ-gaiñetan maiteki artuko dozuez. Arnak bere umea alaitzen dauanez, alantxe poz-tuko zaituet Neuk be, ta Jerusalem'en izango zaree alaituak. Au ikusi dagizuenean, zuen biotzak pozez beterik jarriko dira, ta zuen azurrak bedarra lez biz-tuko dira, ta menpekoak Jaunaren eskua ezagutuko dabe.

Koru-kajita,—Goraitzen za.udaz, ene Aita, zeru-lu-rren Jauna, gauza oneik jakintsu ta zurrai estaldu, ta txikiái erakutsi dautsezuzalako.—Jauna, Zeu zara nire ustea gaztetanik.

Aileluia, aleluia.—Ur-ertzean iariitako larrosoncloa lez azi zaitzeze: emon egizue úsain gozoa Libano'k le-gez: lorak emon egizuez, lorok, li'iak legez; usaña gmon egizue, orriz jantzi zaitzeze, abestiz goratu ta onetsi egizue Jauna, Berak egin dauanakaitik. Ale-luia.

Barri Ona (Mat., 18, 1-4).—Aldi aretan, Jesus'i ikas-leak urreratu yakozan, esanez, «Nor deritxazu zeru -erreñuan aundiena?» Ta Jesus'ek, ume bati ded egi-ñik, guztien erdian ipiñi eban, eta esan eban: «Bene-tan dirautsuet: ume lez biurtu ta egin ez ba'zaitzeze, ez zaree zeruko erreñuan sartuko. Beraz, unetxo au baizen txiki biurtu daitena, orixe da zeru-erreñuan aundiena.»

Eskintza,—Biotzez goratzen dot Jauna, ta gogoa po-zez dagokit Jaungoikoa osagarri yatalako; bere mira-be onen txikitasuna begiratu dualako; nigan arri-garriak egin dauz guztiz Altsuak.

Opari-otoitzta.—Teresa zure birjiña deunaren otoi-tzen bidez, onartu egizu, Jauna, gure opari au; ta aren omenez ospe aundiz eskintzen dautsugun ezker-o, aren irabaziz gogoko izan dakizula. Amaibagako,

Jaunartzerakoa.—Inguratu ta irakatsi egin dautso; bere betseiña legez gorde dau. Arranoak lez egoak za-

balduta artu dau, ta lepoan eroan dau. Jaungoikoak bakarrik zuzendu dau.

Azken-iotoitza.—Teresa zure birjiña deunak lagun -urkoaganako maitasunagaitik bere burua eskiñi eutsunez, Jauna, geu be Eukaristi santu onen maitasun -suaz gartu gaitezala. Amaibagako.

URRILLAREN 4GARRENA

ASIS'KO PRANTZISKO OEVNA, autorle

3'gn. mailla. — Zurte

Gaur Elizak bere santurik audienetariko baten eguna ospatzen dau: San Prantzisko, Jesukristo'ren Barri Ona itzez-itzez bete nairik, aurrera ta aurrera joan zan zeruko bidean, gorengo maillaraño igo arte.

Orabria'ko Asis'en jaio zan. Guraso oso aberatsen seme izanarren, guztia itzi ta Kristo'ri jarraitzea erabagi eban. Laster batu yakozan ikasle ugari, ta bizitza-arau bat emon eutsen. Andrazkoentzako Lagundil bat be sortu eban, baita Domuzko Irugarren Lagundia izenekoa be. 1226'gn. urtean il zan Asis'en; urte bi geroago, Aita Santu Gregorio IX' gnak. santu egin eban.

M E Z A

Sarrera.—Alde nigandik ezetan arrotzea, Jesukristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik: Onen egiñez, gizaki guztiak niretzat eta ni areintzat gurutzetuta gagoz-ta.—Ps. Oiuka dei egtn dauatsat jaunari: deadarka egin dauatsat erregu.—Aintza.

Otoitza.—Prantzisko doatsuaren bitartez, Lagundi barri bataz zure Eliza aberastu dozun Jaungoikoa: aren antzera, lurreko gauzak alde batera itzi daiguzala, ta zeruko graziak artzeaz beti poztu gaitezala eiguzu. Amaibagako.

Iraikurgaia. (S. Paulo'fco Galazia"koai, 6, 14-18).—Anaiok: Alde nigandik ezetan arrotzea, Jiesukristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik: Onen egiñez, gizaki guztiak niretzat eta ni areintzat gurutzetuta gagoz-ta. Izan be, Jesukristo'rentzat, erdaintzuntza* ezer ez da, ezta erdaintzuntza be, gizaki barria baiño. Eta arau onetara bizi diranen gaiñera ta Jaungoikoaren

- Erdaintzuntza = circuncisión.

Israelten gaiñera, bakea ta errukia jatsiko dira. Osierantzean, ez beist inok gogaitik egin, Jesus Jaunaren zauriak gorputzean dakardaz-ta. Bego zuen biotzetan, anaioak, Jesukristo gure Jaunaren grazia. Olan izan dadilla.

Koru-kanta.—Zintzoaren agoak jakituria isunko dau, ta aren miñak itz zuzenak esango dauz.—Bere jaungoikoaren legea dauko biotzean, eta aren oiñak ez dabe kild-kolorik egingo.

Al«luia, aleluia.—Prantzisko txiro ta aipala, zeruan aberats sartzen da, ta zeruko abestiz goratzen dabe. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 11, 25-30).—Aldi aretan, Jesus'ek, itza arturik, auxe esan eban: Goratzen zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza oneik jakintsuai ta zurrai estaddu, ta umetxoai irakatsi dautsezuzalako. Bai, Aita, orrelaxe izan dozu atsegin-eta. Nire Aitak dana itzi dau nire eskuetan; eta Semea nor dan inok ez daki, Aitak baiño; ezta Aita nor dan be, Semeak eta Semeak ezaguerazo nai egionak izan eztk. Zatoze Nigana, nekatu ta atsekabeturik zagozen guztiok, eta Neuk bizkortuko zaituet. Nire buztarria zuen gaiñean artu ta ikasi egizue Neugandik, gozo ta biotz-apala nazan ezkerok; ta zuen arimentzat bakea aurkituko dozue: nire buztarria, biguna, ta nire sorta ariña da-ta.

Esqintza.—^Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor agertuko da aren indarra.

Opari-totoitza.—Bedeinjatu egizuz, Jáuna, eskiñi dautsuguzan oparigaiok; eta Prantzisko doatsuaren bitartez, pekatu guztdetatik garbitu gagizuz. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Morroi zintzo ta zurra, nagusiak morroiburu jarri eban, etxekoai aldi egokian jatekoa banatzeko.

Azken-otoitza.—Zure Eliza, zeruko graziz ugaritu dadilla, Jauna; Prantzisko zure autorle doatsuaren irabazi ta ikasbide ederrez, argituta gelditu da-ita. Amaibagako.

URRILLAREN 5'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Plazido ta lagun deunenak; Sapientiam Mezakoak, 475 orri.

URRILLAREN 6'GARRENA

BRUNO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Kolonia'n jaiotako, XI'gn. gizaldian. Reims'ko kanonigu izan ondoren, sei lagunegaz Delfin-erriko mendi batera baztertu zan, *Kartusiarren* Lagumidta sorturik. Calabria'n il zan, 1101'gn. urtean. Kartusiarren bizikera, Blizak dauanik latzenetariakoena da.

Meza: Os iusti, 490 orri., *Otoitz oneik izan ezik:*

Otoitza.—Bruno zure autorle sanitua izan dagigula bitarteko, Jauna; ta Errege zaran ori'pekatu astunez iraindu zaitugun ezker, aren irabazi ta otoitzen bidez, gure pekatuen parkamena jadetsi dagigula. Amabagako.

Opari-otoitza.—Zeure Santuen gomutaz, Jauna, eskintzen dautsuguz gorapenezko oparigaiok; eta euron bidez, oraingo ta geroko gaitz guztietatik onik urtengo garala uste dogu. Amaitoagako.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko alguztid'un!, zeruko janaria artu dogun ezker, zure autorle Bruno doatsuaren bitartez, indartu gagizala ezbear guztirako. Amaitoagako.

URRILLAREN 7'GARRENA

AGURTZA (Errosario) SANTUAREN ANDRA MARI

2'gn. mailla. — Zwart

1571'gn. urteko Urrillaren Tgarrenean, Kristauak turkoen gudaroztea azpiratu eben Lepanto'n, Europa'ren jabe egitera etorreJa. Gurenda (irabazte) orren gomutaz sortu zan gaurko. jai au, Errosarioaren bidez lortu zalako.

M E Z A

Sarrera.—Poztu gaiitezan guztiok Jaunagan, Maria Birjiñaren egun aundi au ospatzean; aren jaiaz Aingeruak poztu egiten'dira ta Jaungoikoaren Semea goratzen dabe.—*Ps.*Nire biotzari abesti eder dat dario: Erregearentzat nire olerkiak.—Aintza.

Otoitza.—Zure Seme Bakarraren bftzitza, eriotza ta bitzueraren bidez, betiko osasuna saritzat emon dautsuzun Jaungoikoa: eiguzu, Ama Birjiña doatsuaren Errosarioko ezkutapenak gogoratzen doguzan ezker, bertan esaten dana egin eta sgintzen dana jadetsi daigula. Amaitoagako... eta zure Semearen bertoearen bidez. Olantxe.

2'gn. Otoitza, *Markos deunarena:* Begiratu egizu samurkiro zure artalde, betiko Artzain orrek!; eta Bliza osoaren Artzain egin zenduan zure Aita Santu Markos doatsuaren bitartez, zaindu egizu Eliza zure laguntza etenbageaz. Amabagako.

Irakurgaia: Jaunak Berea, 522 orri.

Koru-kanta.—Egiaren, bakeaxen eta zuzenaren alde, zure eskumak arrigarriak egingo dauz.—Entzun, alaba, ikusi, biurtu belarria: Erregea zure edertasunez lilluratuta dago-ta.

Atolua, alelua.—Auxe da Maria Birjiña goragarriaren jai aundia, Abraham'en be^aunekoa, Juda'ren jatorrikoa, Dabid'en nare* ospetsuko alaba. Alelua.

„ Barrí Ona: Jaungoikoak Gatoirél, 585 orri.

Eskintza.—Neugan dago bidearen eta egiaren grazi gutzia; Neugan biziaren eta ontasanaren itxaropen gutzia; erreka^ertzean jarritako larrosondoa lez azi naz.

Opari-otoitza.—Opari au bear danez eskintzeko gei egin gagizuz, Jauna; ta Errosario gutzi Santuko Ezkutapenetan zure Seme Bakarraren bititza, Nekaldi ta Goraldia gogoratuaz, Aren egintzak jaristeko gai izan gaitzezala. Amaitoagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

* Nare = linaje.

2'gn. Otoitza, *Markos deunarena*: Gure oparigaion bidez, Jauna, argi egiozu zure Elizari: zure artaldea bere bidean joan dadin, eta zure eragifiez, Artzaiñak gogoko izan dakizuzan. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Maria'rena*, 456 orri. Eta*:* jaiegunean.

Jauxiartzera. — Garatu zaitez, lorok, filia legs' usaiña ta orri ederrak emon egizuez; goratu egizue abestiz, eta onetsi egizue Jauna, bere egmitza guztia-kaitik.

Azken-otoitza. — Zure Aina guztiz Deunaren otoitzak lagun dakiguzala, Jauna, aren Errosario-eguna ospatzeam: goratzen doguzan ezkutapenen arnariak (fru. tuak) lortu, ta artu dogun Eukaristiaren ondorenak jadetsi daiguzan. Amaibagako eguraicitan Aita Jaungoikoagaz eta EspíTitu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2'gn. Azken-otoitza, *Markos deunarena*: Zuzendu egizu samurkiro, Jauna, zure Eliza, janari santuz in-dartu da-ta; eta zure esku indartsuaz eroanik, askatasun geiago izan, eta sinisrnen osoan irauñ dagiala. Amaibagako.

URRILLAREN 8'GARRENA

BRIJIDA DEUNA, alarguna

3'gn. mailla. — Zuriz

Suezia'ko Errege-etxeko alaba zan. Ezkonduta, zortzi seme-alaba izan ebazan, eta euretariok bat Suezia'ko Katalin deuna. Alargundu zanean, Aizta-lagundi bat sortu eban, *Birjitarrena*. Erroma'n il zan, 70 urte ebazala, 1373gn. urtean.

Meza: Cognovi, 505 orri., *urrengo Otoitzak eta Iro-cfurgai* izan *ezik*:

Otoitza. — Zure Seme Bakarraren bidez, Brijida doatsuari zeruko isilpekoak agertu zeutsazan Jaungoiko gure Jauna: eiguzu zure menpekooi, bera bitarteko on dogula, betiko zeruaren agerpenean poztu gaifcezala, Amaibaga,ko... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. Otoitza, *Serjio ta lagun deunena*: Serjio, Bako, Martzelo ta Apuleio zure martiri santuen iraba-

ziak gure alde egin dagiela, Jauna, ta zure maitasujiean beiti sutu gagezala. Am>atoagako.

Irakurgaia: Andra alarguntzat, 606 orri.

Opará-otoitza. — Onarrtu egieü, Jauna, erri zmtzoaK zure santuen izenean egiten daufcsun opari au; estualdian, arein irabaziai esker, izan dauala laguntza autor-tzen dau-ta. Amabagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Serjio ta lagun deunena*: Opari biurtu bear daiben eskiñitako oneik baketu zagieziaia, Emege ori!, zure Santuen otoitzak bide dirala. Amaibagako.

Azken-otoitza. — Zure etxekoak Eukaristi santuaz asetu dozuzan Jauna! Gaurko jaieguna ospatzen dcegunaren bitartez, indartu gagizuz beti zure maitasunean. lAmaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Serjio ta lagun deunena*: In-úartu gagizada, Jauna, artu dogun Eukaristi onek; eta Serjio, Bako, Martzelo ta Apuleio zure martiri santuen bitartez, gaitz guztietatik zeruko indarrak gorde gagezala. Amaibagako.

URRILLAREN 9'GARRENA

JON LEONARDI DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

26 urte ebazala joan zan abade-ikaskizunak egitera. Gaz-teai azibide ona emoteko, Abade-lagundi bat sortu eban. Erroma'n il zan 1609garrenean, eta Aita Santu Pio XI'garrenak Santuen lerroan jarri eban, 1938gn. urtean.

M E Z A

Sarrera. — Jaunak ieigin eban guztia, bere berbaz egin dau: guztia eguzkiak argitzen eta ikusten dau; Jaunaren aintza ikusten da bere egintza guztietan. — Ps. Abesbu egioze Jaunari kantu barri bat: abestu egiozu Jaunari, lur osoa! — Aintza.

Otoitza. — Pede-toageen artean sinismena zabaltzeko, ita kristau zintzoai irakasteko, Jon zure autorle doatsuaren bidez, zure Elizan Lagundi barri bat sortu dozun Jaungoikoa: siguzu zure menpekooi, aren ira-

kaspunen indarraz betiko saria jadetsi dagigula. Amai-bagako.

2^{gn}. Otoitza, *Dionisio ta lagun deunena*: Dionisio zure martiri ta gotzain doatsua oiñazetan gogo-iraukor egin zenduan Jaungoikoa, ta erriai sinismena zabaltzeko Rusitiko ta Eleuterio'ri lagun emon zeutena: egizu, arein antzera, zure rnaitasunagaitik munduko irabaziak aldie batera itzi daiguzala, ta onen zoritxarrai ez daiegula bildurrik izan. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai 2^{gna}.: 4, 1-6, 15-18).—Anaiok: Lan'bide au Jaungoikoaren errukiagaitik dogun ezkeru, ez yaku adorea motelitzen. Lotsari ta malzurkeria gugandik jaurtirik, Jaungoikoaren itza ustel biurtu bearrean, egia irakasten dogu ta guztiai Jaungoikoaren aurnean geure burua sen oneko erakusten dautsegu. Darabilgun Barri Ona norbaitentzat estalduta ba'dago, galzten diranentzat dago estalduta: mundu onetako jaungoikoak adimena itsutu dautsen sinisbageentzat, Barri Onaren argia ta Jaungoikoaren irudi dan Krifito'ren edertasuna didiz egiten ikusi ez dagiezan. Ez diardugu geure buruak iraganten, Jesukristo gure Jauna baiño; ta geuri buruz, Jesus'eganako maitasunagaitik zuen morroi garala iragarten dogu. «'llunpetatik argia egin bedi» esan eban Jaungoikoak Berak egin dau argl gxiere biotzetan, Jesukristo'ren arpegitik darion Jaungoiko-aintzaren ezagueraz alzalu daigun (15-18). Guzti au, barriz, zeuekaitik da, askok grazia arturik, askoren eskerrona ugaritu daiten, Jaungoikoaren goraldirako. Orregaitik, ez gara moteltzen; eta azaletik garan au usteltzen dan artean, gure barrenekoa egun oro barritzen diardu. Apur bateko atsekabe ariñak, ezin alako ta betiko zerua dakarkigu-ta. Ez doguz gure begiak agiri diranetan jarten, agiri ez diranetan baiño: agiri diranak, oraingo dira-ta; agiri ez diranak, barriz, betikoak.

Koru-kanta.—Biotza sutu egin yat, eta barrena min du: zure etxeaganako ardurak iruntsiten nau.—Nire agoa ezpata zorrotza lakoa egin dozu: bere eskuaren gerizpean gorde nau, ta gezi* aukeratua lakoa egin nau.

Gezi = dardo.

Aleluia, aleluia.—Askorentzat arrigarri naz; eta Zu nit'e laguntzaille indartsu. Aleluia.

Barri Ona: Jaunak beste irurogei ta amabi, 689 *Orri*.

Eskintza.—Kristo'ren morroi biurtu naz, Jaungoikoaren itza zuei iragarteko ardura, Jaungoikoak emon dautsan ezkeru.

Opari-otoitza.—Artu egizu, Jauna, opari osasungarri dan eskintza au; ta Jon zure autorle doateuaren bitartez, eskiñi daitela beti alde guztietan. Amaibagako.

2^{gn}. Opari-otoitza, *Dionisio ta lagun deunena*: Onartu egizuz, Jauna, zure Santuen omenez, zure erriaren oparigaiok; eta arein bitartez, santutu gaginguz. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Len iratoazitzat neukana, kaltetzat artu dot Kristo'rei 'maitasunagaitik.

Azken-otoitza.—Zure Gorputz eta Odol santuen ezkutapsnez aseturik, egizu, Jauna: Jon zure autorle doa. tsua eredu dogula, arek sinistu ebana autortu dagigula, ta irakabsi ebana egin. Amaitegako eguneitan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Sanituagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

2^{gn}. Azken-o.to.itza, *Dionisio ta lagun deunena*: Eukaristi au artu ondoren, Jauna, Dionisio, Rustiko ta Eleuterio zure martiri doatsuien bitartez, betiko zerurako bidean aurrera joan gaitezala. Arnaibagako.

URRILLAREN 10^oGARRENA

BORJIA'TAR PRANTZISKO DEUNA, autorle

Vgn. mailla. — Zuriz

Gandia'ko duke zala, Jesus'en Lagundian sartu zan, eta geroago, 1565^ogarrenean, Lagundl osoaren Buru egin eben. Erroma'n il zan, 1572^{gn}. urtean.

Meza: Os iusti, 490 *orri*, *urrengo Otoitzak izan ezik*:

Otoitza.—Egiatzko apalen eredu ta sari zaran Jesukristo gure Jauna: Prantzisko doatsua tnunduko gorapenaJc alde batera izten Zeure antzeko egin zenduan, gu hegin gaginguz aren antzeko ta lagun zeruau. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu San-

tuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Opari-otoitza.—Altara-gaiñean doguzan oparigaiok, Jauna, Prantzisko santuak gure osasunerako biurtu da-gizala, arren. Amaibagako.

Azke<n-oiotza.—Sa-kramentu au artu dogun ezke.ro, Jauna, Prantzisko doatsuak artu gaizaia bere ardura-pean: bere antzera zuzen jokaturik, aren bitarteko-tasun-laguntza be izan daigun. Amaibagako.

URRILLAREN II'GARRENA

ANDRA MARI, «JAUNGOIKOAREN AMA»

2^{gn}. *mailla*. — Zuriz

Andra Maria'ren jaungoikozko amatasuna, Efeso'ko Baz-tzar Nagusian erabagi zan kristau-fedeko egizat., 431^{gn}. ur-tean.

Andra Mari, Jaurogoikoaren Ama da, Jesukristo'ren Ama da-ta; baiña gure Ama be bai: aragiz, Jesus'ena; graziz, geurea. Jaunaren Ama danez, guztia bere eskuetan dauko, ta bere bitartez datorkiguz zeruko grazi guztiak.

Amatasunaren j'ai au, Aita Santu Pio XI'garrenak sortu eban 1931^{gn}. urtean, Efeso'ko Batzarraren XV'garren eun urtebet&tzea za!!a-ta.

M E Z A

Sarrera.—Begira: neska batek sabetean sortu tai umea egingo dau, ta Aren izena Emanuel ízango da.—Ps. Afoestu egiozue Jaunari kantu barri bat: arri-garriak egin dauz-ta.—Aintza.

Otoitza.—Aingeruak iragarri ebanez, Maria Birjira' doabsuaren sabelean zure Itzak (Jesukristo'k) aragia artea nai izan dozun Jaungoikoa: egizu, Jaungoikoa-reñ Ama dala sinisten dogunok, aren bitartekotasuna-ren laguntza izan dagigula Zure aurrean. Amaiba-gako... eta zur, Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Irafairgaia (Ikasituna, Eceli., 24, 23-31).—Maastiareiñ antzera, aien ederrak eanon dodaz, eta nire lorak frutu gozo ta aberatsak ekarri dabez. Maitasun ederraren Ama naz ni, ta bildurraren, jakintzaren eta itxaropen onarena. Neugan dago bidearen eta egiaren atsegin guztia; neugan bizitzaren eta onoinenaren (birtutea-

ren) itxaropen guztia. Zatoze neugana ni maite no-zuenok, eta asetu zaibeze nire frutuakaz. Ni gogoratzea, ezta baiño gozoagoa da-ta; nitzaz jabetzea, barriz. ezti-orrizia* baiño geiago. Niganaiko gomutapenak gi-zaildiz-gizaldi iraungo dau. Ni jan nagienak, goseago izango dira, ta edan nagienak, egarriago. Entzun na-giana, ez da lotsatuko; ta otsemdu nagienak, ez dabe pekaturik egingo. Ni goratu nagienak, betiko bizitza izango daibe.

Koru-kanta.—Jese'ren jatorritik adar bat sortuko da, ta aren zusterretik lora bat jagiko da.—Ta aregan Jaunaren Arnasa geldituko da.

Aleluia, aleluia.—Birjiña, Jaungoikoaren Ama, lur osoak ezin artu daikena, zeure sabelean gorde zan, gizon egiñik. Aleluia.

Barrú Ona (Luk, 2, 43-51).—Aldi aretan, etxeraioan, Jesus Umea Jerusalem'en geldiitu zan, gurasoak ígar-teke (igarri bagarik). Beste lagunen artean izango za-lakoan, egun bateko bidea egin ondoren, senide ta eza-gunen artean Aren billa asi ziran. Baiña aurkitu ez ebe-nean, Aren bilia barriro Jerusalem'era biurtu ziran. Iru egunen barruan, eliza-nagusian aurkitu eben irakasleen artean jesarrita, baitean arei entzuten, bestean itaunka; entzule guztiak arruita egozan, Aren jakituri ta eran-tzunez. Arela ikusirik, Aren gurasoak bie arritu egin ziran, eta Amak esan eutsan: «Seme!, zegaltik egm dauskuzu ori? Begira, zure aita ta ni estu ta larri ibi-li gara zure billa.» Eta erantzun eutsen: «Zetarako nire billa ibili? Ez zekien Nire Ai/taren lanetan jardun bear dodada?» Baiña areik ez efoen ulertu esan eutse-na. Eta alkarregaz Nazaret'era jatsirik, bere gurasoen menpean bizi zan.—*Kredo*,

Eskintza.—Aren Ama Maria Jose'gaz ezkondata egoala, seindun (umedun) aurkitu zan, Espiritu San-tuaren egiñez.

Opari-otoitza.—Zure errukiagaitik, Jauna, ta zune Seme Bakarraren Ama Mari beti Birjiñaren bitartez, opari onek geroko ta oraingo zoriona ta bakea emon daisku(za)la. Amaibagako... eta zure Semearen berbe-raren bidez. Olantxe.

* Ezti-orrizi - panal de miel.

Kanon-aurrea: *Andra Mari'rena*, 456 orri. Eta*** jaiegunean.

Jai'iTiai-tzerakoa.—Zorionteua benetan, betiko Aitaren Seanea- ekarri eban Mari Birjiñaren sabela!

Azken-otoitza.—Jaunartze onek pekatutik garbitu gagizala, Jauna; ta Maria Birjiña Jaungoikoaren Ama doateuaren bitartez, zerua lortzeko gei egin gagizala. Amaibagako... eita zure Semearen berberaren bidsz. Olantxe.

URRILLAKEN 13^oGARRENA

EDUARDO DEUNA, errege ta, autorle

3^ogn. mailla. — Zuriz

Inglatera'ko errege izan zan 1042 ta 1066^ogn. urte artean, eta Eduardo errege martiriaren loba. Jaungoikozale, bakezale ta beartsuen laguntzaille gartsua izan zan. 1066^ogarrenan il zan, eta Aita Santu Alesander IH^ogarrenak santu egin eban, 1161^ogn. urtean.

Meza: Os **iusti**, 490 orri., *Otoitz au izan ezik*:

Otoitza,—Eduardo zure autorle ta errege doatsuari koroitzat betiko zerua emon zeutsan Jaungoikoa: eigu-zu, a lurrean ospaturik, zeruan aregaz errege izan gaitetzala. Amaibagako.

URRILLAKEN 14^oGARRENA

I KALISTO DEUNA, Aita Samtu ta imartiria

3^ogn. mailla. — Gorriz

Irugarren gizaidiko Aita San'turjk aundienetarikoa da (211-222). Diakonu zala, Elizaren ondasunen eta mairtirilen gorpuen aridura izan eban. Beronen izena dakar Erroma'ko illobitegi fcatek.

Meza: Si diligis, 464 orri., *urrengo Otoitzak izaA* ezilc:

Otoitza.—Gure argaltasunagaitik makaldu egitafl garala dakizun Jaungoikoa: zure santuen irakatsien bidez, indartu gagizuz zure maitasunean. Amaifoa'gako.

Opari-o,oitza.—Opari mistiku onetk on egin daiskula, Ja.una; ta gure ipekatueitaitik garbiturik, zerurako bidean indartu gaitzala. Amaibagako.

Azken-otoitza,—Egizu, Jaungoiko alguztidun, grazi santuok pekatuetatik garbitu gagiezaila, ta zuzen bizi izaten lagun egin daiskuela. Amaibagako.

URRILLAREN 16^oGARRENA

JESUS'EN TERESA DEUNA, birjiña

3^ogn. mailla. — Zuriz

Espafia'ko Avila'n jaio zan 1515^ogn. urtean, eta bertako Karmeadar-etxean sartu zan. Ainbat monja-etxe barri egin ebazan, Gurutzearen Jon deunaren laguntzaz. Lagundiari arau barriak ezarririk. Idazlan ederrak egin ebazan, *Moradas*, *Camino de Perfección* izeneko liburuak, adibidez, eta Elizaren mistikurik gorengoenarikoa da. (f 1582).

Meza: **Dilexisti**, 500 orri., *Otoitz au izan ezik*:

Otoitza.—Erntzun gagizuz, Jaungoiko gure Osasun zaran orrek!; eta Teresa zure birjiña doatsuaren egunean poztuten garanez, aren zeruko irakaspenez mdartu, ta aure maitasunaren garraz sutu gaitetzala. Amaibagako.

URRILLAREN 16^oGARRENA

EDUBIJJIS DEUNA, aflarguna

3^ogn. mailla. — Zuriz

Hungaria'ko Isabel deunairen izekoa izan zan. PoConia'ko duke Enrique'gaa ezkondu ondoren, iru seme ta iru alaba izan ebazan; senarra fl yakonean, mundua itzi ta Treb-xutz'eko Zisler'tarren bakartetxean sartu zan. 1243^ogn. urtean il lan, eta Polonia'ko Zaindari da.

Meza: Gognovi, 505 orri., *Ofoitz au izan ezik*:

Otoitza.—Edutoijis doatsuari munduko aundikerietaitik zure Gurutzeza biotz osoz aldatzen irakatsi zeutsan Jaungoikoa: egizu, aren iratoazi ta irakatslen bidez, lurreko atsegin ustelak zapaldu daiguzala, ta zure Gurutzea besarkatuaz, gure aurkako ezbear guztiak azpiratu daiguza4a. Aoiabagafco egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

ALAKOKETAR MARGARITA gMARIA

DEUNA, birjiña

3^{gn.} mailla. — Zuriz

1647^{gn.} urtean jaio zan, Prantzia'n. 23 urte ebazala, Paray-de-Moniel'go moja-etxean sartu zan. J^c«sus'en Biotza iru aL'diz agertu yakon, eta Aren a>gintzak Eliza osoan zabaldu dira. 1690^{gn.} garreraean ill zan, eba Aita San.tu Benedito XV'garrenak santuen lerroan ezarri eban 1920^{gn.} urtean,

M E Z A

Sarrera.—Nire gogoko zanaren gerizpean jesarri nintzan: eta aren fruitua gozoa da nire ago-sabaiaren zat.—Ps. Maitagarriak benetan zure bizitokiak, imdaren Jaungoiko! Nire arima miñez argaltzén dago zure tokietarako gogoz.—Aintza.

Otoitza.—Zure Biotzaren aberastasun ezkutuenak Margarita Mari birjiña doatsuari era miragarriz agertu zeutsazan Jaungoikoa: eiguzu, aren irabaziz eta antzera, Zu gauza guztietam eta guztiefraz gaiñera maiftaturik, zure Biotzean betiko tokia izan dagigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Efeso'koai: 3, 8-9, 14-19).-Anaiok: Niri, sanfu kaskarren oni, grazi au emon izan yat: Kristo'iren aberastasun ulergaitza atzerri-tarrai iragarrea, ta olako asmoaren mamiña zein dan argitan jarrea; 'gauza guztien Egille dan Jaungoikoagan betidanik gordeita egoan-eta. (14-19). Onexgaitik jarten naz belaumiko Jesukristo gure Jaunaren Aitaren aurrean, zeru ta lurrean guraso guztiak izena Arexegandik dabe-ta. Berak, bere aberastasun goragarriari dagokionez, emon dagizueta, bere Espirituaz, kristau zintzo izateko barru-barruko indarra, Kristo zuen biotzetan sinismenez bizi daiten, eta maitasunean zus.fcerrak eginda, gogor egon zaitezen: orrela, santu guztiakaz, asmo au dan zabaila, lu2faa, garaia ta sakona uiertu daikezuen; eta Jaungoikoaren bizitza bete-betea

bizi izanik, jakintza guztia garaitzen dauan Kristo'ren maitasuna ezagutu daikezuen.

Koru-kanta.—Uriolak ezin itzungi (atzamau) izan dabe maitasuna, ezta ibaiak be.—Aragia ta bñotza argaldu egin yataz: Jaungoikoa dot beti biotzeko arkaiz eta ogasuna.

Aleluia, aleluia.^Ni neure maiteanentzat, eta bere asmo guztiak neugana datoz. Aleluia.

Barri Ona: Jesus'ek, itza arturik, 755 orri.

Eskintza.—Benetan gozoak eta edierak, mutillak azten dauzan garia ta neskak bizkortzen dauzan ardaoa!

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zure erriaren oparigaio; eba Margarita Mari doatsua zure Semearen Biotziko gar santu aretan sutu zan'ez, geu be iziotu gaitetzala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Ni neure maiteanentzat, eta nire maitea neuretzat: lili-artearen larratzen * da-ta.

Azken-otoitza.—Zure Gorputz eta Odola artu doguzan ezkeru, Jesus Jauna, eiguzu: Margarita Mari birjiña doatsuaren bitart/ez, lurreko uskeri zoroak gugandik jaurtirik, zure Biotzaren otzantasuna ta apaltasuna jaritsi daigu(za)la. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ita E^rrege bizi zara-ta. Olantxe.

LUKAS 'DEUNA, Ebanjelaria

2^{gn.} mailla. — Gorriz

Siria'ko Antiokia'n jaiorik, Paulo apostolu doatsuaren lagun zintzoa izan zan Barri Ona iragarten. Irugarren Barri Ona ta Apostoluen Egiñak idatzi ebazan. Jesus'en aurtzaroak dakigun geiena, berorregandik dakigu, baita ardi galchuaren eta seme galduaren ipuñak be. Ez dakigu ezer aren azken-urteai buruz.

* Larratu = apacentar.

M E Z A

Sarrera.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adiskidak, Jaungoikoa: arein indarra oso gogortu da.—Ps. Jauna, Zeuk azteptu ta ezagutu nozu: Zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Izan bekigu bitarteko, Jauna, Lukas zure Ebanjelari santua: zure izenaren omenez Gurutzearen oiñazela beti beragaz eroan eban-eta. Amaibagako.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koari 2^ogna.: 8, 16-24).—Anaiok: Eskerrak damotsadaz Jaungoikoari, Tito'ren biotzean zuekanako ardura au biztu dau-ta. Gure eskariak entzunda, ardura au geitu egin yako, ta zuekana pozik urten da. Attegaz anai bat bialdu dautsuegu, Barri Onagaitik eliza guztietan entzute aundikoa dana: Jaunaren goralldirako gogo bizkorrez diardugun larabide onetan bidelagun izan dakigun, elizak aukeratu dalbe'ta. Onela, txarto-esan guztiak ito rai doguz, onenbesteko dirutzaren arduradun garan ezkeru (1). Jaungoikoaren aurrean bakarrik ez, baita gizonen aurrean be zintzo jokaitu nai dogu. Gure anai be arekaz bialdu dogu, askotara ta askotan arduratsu agertu izan yaku->ta; orain batez be arduratsuago, zuekan dauan uste onagaitik. Tito be nire lagun eta lankide da zuen artean; gure anai oneik, barriz, elizak bialdutakoak dira, ta Kristo'ren goragarri. Abegi onez artu egizue, beraz, eta erakutsi egiezue elizen aurrean zuei buruz dogun poztu-bearra.

Koru-kanta.—Arein barbaroa lur osoan zabaldu zan: eta arein itzak lur-ertzetaraño.—Zeruak Jaungoikoaren aintza zabaltzen dau ta ortziak Aren esku-lanak iragarten dauz.

Aleluia, aleluia.—Neuk aukeratu zaituet mundutik, joan eta arnaria (frutua) ekarri dagizuen, eta zuen frutua iraukorkor izan dadin. Aleluia.

Barri Ona: Jaunak beste irugei ta amabi, 689-orri.—Kredo.

Eskeintza.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adiskidak, Jaungoikoa; arein indarra oso gogortu da.

(1) Jerusailen'go kristauen alde San Paulo'k egin eban diru-batzea.

Opari-otoitza.—Zeruko grazien bidez gogo nasaiz otseindu zagiguzala, Jauna; ta eskiñi dautsuguzan opangaio, Lukas zuTe Ebanjelari doatsuaren bitartez, osasuna ta zerua lortu daiskue(z)la. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Apostoluen*a, 457 orri.

Jaunartzerakoa. — Niri jarraitzen etorri zareenok, aulkietan jesarriko zaree, Israel'go amaibi jatorriak epaitzeko.

Azken-otoitza.—Egizu, Jaungoiko alguztidun!, zure altara santuan artu dogun Eukaristiak, Lukas zure Ebanjelari doatsuaren bitartez, gure arimak donetu (santutu) dagizala ta zaindu gagizalla. Amaibagako.

URRILLAREN 19GARRENA

ALKANTARA'KO PEDRO DEUNA, autorlea

3^offn. maila. — Zurlz

AOkantara (Extremadura) erriko setmea, prantziskotar egin zan amasei urte ebazaJa. Bizikera latza maite izan eban, bere anaien eredu izanik. (f 1562).

Meza: Iustus, 492 orri., *urrengo Otoltza ta Ira-Tcurgaia izan ezik:*

Otoitza.—Pedro zure autorle doatsua gorputz-nekeaz eta otoftzean grazi miragarriz argitsu egin zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren irabazien bitartez, gure gorputza ezirik, zeruko gauzak errazago ulertu daiguzala. Amaibagako.

Irakurgaia: Irabaziitatzat neukanari, 529 orri.

URRILLAREN 20GARRENA

KENTI'KO JON DEUNA, autorle

3^offn. maila. — Zurlz

Kanonigu, ta Krakovia'ko Ikastetxe Nagusian Irakasle izan zan. Bere onimen edo birtute argitsuenak: apaltasuna ta beartsuakanako errukia. (f 1473). Polonla'k dauan Zaindariatiko bat da.

M E Z A

Sarrera.—Gizonaren errukia bere lagun-urkoarentzat da; Jaunaren emukla, barriz, gizaki guztientzat. Errukla dauanak, irakatsi ta zaindu egiten dau, artzaiñak artaldea legez.—*Ps.* Zoriontsu, gaiztoen asmoetan sartu ez daiten gizona, pekatarien bidean ibilli ez daitena, ta galzto-ar-tean jesarri ez daitena.—Aintza.

Otoitza.—Egizu, Jaungoiko alguztidun!, Jon zurt: autorle sarituaren antzera Santuen irakaspenetan arreratuaz eta lagun-urkoari errukia egiñaz, aren irabazkaitik zure parkamena jadetsi dagigula. Amaibagako.

Irakurgaia (Santiago'k, 2, 12-17).—Gutziz maiteok: Askatasunaren legez ebatziak izan bear dabena da: gokienez itz egim eta epaitu egizue. Errukia egin ez dagiana, errufci bagarik izango da epaitua-ta; auzitan, barriz, errukia nagusi. Zer balio dau, ene ainaiok, sinisten dala esateak, egiñik ez ba'dau? Sinistek alakoa zeruratu ete'daike? Anai naiz arrebarentzat (1) billoisik 6ta eguneko janari bago egon ba'ledi, zuetarik norbaitek «zoaz bakean, berotu ta asetu zaitetz» esan ba'degio, gorputzak bear d<auana emon ez ba'legio, ori zetarako litzakio on? Berebat sinistea, egiñik ez ba'dau, ilda dago beragan.

K.oru-kanta.^Goratu begie Jauna beronen errukiar gaitik eta gizonen semeai egiten dautsezan mesede arrigarrikaitik.—Egarri dana asetu, ta gose dana bere ondasunez bete dau-ta.

Aleluia, aleluia.—^Beartsuari eskua zabaldu dautso, ta txiroari besoa luzatu. Aleluia.

Barri Ona: Begoz zuen gerriak, 491 orri.

Esintza.—Zuzentasunez jaritzi ta batu nintzan, \soiñekoa ta koroia baijnebazan. Begi nintzan itsuarentzat, eta oin errenarentzat: beaxtsuen aita niritzan.

Opari-otoitza.—Artu egizuz maitekiro, Jauna, oparirigaiok, Jon zure autorle santuaren irabazkaitik; eta Zeugaitik gizaki guztiak maite izanik, biotzez eta egiñez absegin gakisuzala. Arnaibagako.

(1) Kristauren bat...

Jaunartzerakoa.—Emon egizue, ta emongo yatzue: r.eurri ona, sakabua, betea ta gaiñezka emongo yatzue altzora.

Azken-otoitza.—Zure Gorputz eta Odol atsegingarriz aseturik, aipal-apafll eskatzen dautsugu, Jauna: Jon zure autoiHe santuaren irabazi ta irakaspenen bitartez, lagun-urkoa maitatu dagigula, ta zeruan lagun izan gakiozala. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikogaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara^ta. Olaritxe.

URRILLAREN 2VGARRENA

Aurreko . Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Ilarion deunarenak: Os iusti Mezokoak, 495 orri.; 3'gn. Otoitzak, Ursula ta lagun deunenak: Loquebar Meza-koak, 495 orri.

URRILLAREN 23GARRENA

CLARET'TAR ANTONIO MARI DEUNA,
gotzain eta autorle'

3'gn. mailla. — Zurxz

Kaitalunya'n jaino zan XIX'garren mendeairen lenengotan. 1835<gn. urtean abade izan ondoren, Katalunya, Canai'ias eta Cuba, ugarteak-zear ibili zan mixiolari. Maria Biotz Garbiaren Semeen Lagundia sortuta urtebetera, Santiago de Cuba'ko goicozain egin eben, 1850'garrenean. Jaunagaitik neke aundiak eta iraiñik baitzenak jasan ondoren, 1870'garrenean ia zan. Pio XII'garrenak santu egin eban 1950'gn. urtea.n.

Meza: Sacerdotes tui, 486 orri., Otoitz au izan ezik:

Otoitza.—^Antonio Mari zure gotzain eta autorle doatsua Apostoluen onoinenez jantzi, ta bere bidez Elizan abade ta nesken Lagundi barriak sortu dozuzan Jaungoikoa. egizu, aren irakatsi onez argiturik eta aren ikasbidez indaturik, Zeugana zorionez eldu gaitezala. Amaibagako.

ERRAFael DEUNA, Goiaingerua

3^ogn. mailla. — Zuriz

Tobias itsuari begietako argia emon eutsan. Bidez dabilzanen Zaindari da.

M E Z A

Sarrera. — Goratu egizue Jauna, Aren aingeru guztiok: Aren aginduak beteteko ta Aren esana egiteko indarrez gogorak zareenok. ^-Ps. Ene arima!, goratu egizu Jauna: ta nire barren osoak Aren izen deuna onetsi begi.—Aintza.

Otoitza.—Zure morroi Tobias'i Errafael Goiaingeru doatsua bidelagun emon zeutsan Jaungoikoa: eiguazu zure menpekooi, bere zainpean beti gorde gagizala ta bere laguntzaz indartu gaitzala. Amaibagako.

Irakurgaia (Tobias, 12, 7-15).—Egun areitan, Errafael aingeruak Tobias'i auxe esan eutsan: Erregearen isilpekoa gordetea on da, foaiña Jaungoikoak egiñak azaltzea ta autortzea goragarri da. Ona da otoitza barauaz, eta limosna egin obe, urre-ondasunak gorde baiño. Limosnak eriotzatic gorde egiten gaitu. pekatuak garbitu egiten dauz, eta errukia tabetikobizitza jaristendau(z). Pekatua ta gaiztakeria egiten dabe(za)nak, barriz, bere buruaren arerio dira. Egia esan nai dautsuet, beraz, ezer estaltzeke. Zuk negarrez otoitz egiten zenduanean eta illak obiratzen zenduzanean, eta bazkaria itzirik, gorpuak egunez zure etxean gorde ta gauez illobiratzen zenduzanean, neuk eskintzen neutsan Jaunari zure otoitza. Ta Jaunak bialdu nau osatu zagidazan, eta zure semearen emazte Sara txerrenagandik askatu dagidan. Errafael Aingerua naz ni, Jaunaren aurrean gagozan zazápiretariko bat.

Koru-kanta.—Errafael aingeruak txerreraa airu fca. lotu egin eban.—Gure Jauna altsua da, ta Aren indarra, aundia.

Aleluia, aleluia.—Aingeruen aurrean eresiak abestuiko dautsudaz: zeure etxean gurtuko zaitut, eta zeure izena autortuko dot, Jauna. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 5, 1-4).—Aldi aretan, judarren jaia zaia-ta, JPSUS Jerusalem'era igon zan. Ardiate-ondoan, eberkeraz Betesde deritxon urtegi bat dago, bost aterpe daukazana. Aterpe oneftan ainbat geiso, itsu, erren eta elbarn egozan, ura noiz eragiko zan begira. Jaungoikoaren aingeruak, urtegiara noizean bein jatsirik, urari eragin egiten eutsan, eta eragindako uretan lenen sartzen zana, edozein gaitzez egoana bere, osatu egiten zan.

Eskeintza.—Afngerua eliz-altara ondoan zutik jarri zan, urrezko intzentzu-ontzia eskuan ebala; ta intzentzu asko emon eutsoezan: eta ke usaintsua igo zan Jaungoikoaren aurrera.

Opari-otoitza. — Goraipeniezko oparigaiok eskintzesn dautsuguz, Jauna; ta zure Aingeruen bitartez, biotz onez artu egizuz, eta osasungarri izan dakiguzala eskatzen dautsugu apal-apalik. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Jaiunaxen Aingeru guztiokl, goratu egizue Jauna; esan egiozue ereserkia ta goretsei egizue beti.

Azken-otoitza.—Bialtiu egizu, Jauingoiko Jauna, gure iaguntzan, Errafael Goiaingeru santua; ta betl Errege zaran orren aurrean dagoala ba-dakigu-ta, gure otoilz makalak eskiñi dagitzuzala, bedeinkatu dagízan. Amaibagako.

URRILLAREN 25^aGARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2^ogn. Otoitzak, Krisanto ta Daria deunen urrengokoak:

2^ogn. Otoitza: Izan dadilla gugaz, Jauna, Krisanto ta Daria zure martiri doatsuen bitartekotasuna; ta gure aparigafakaz goratzen doguzan ezker, areñ laguntza ona beti Izan daJgula. Amaibagako.

2^ogn. Oipari-otoitza: Zure martiri santu Krisanto ta Daria'ren urte-egunean erriak eskintzen dautsun opari au, gogoko izan dakizula, Jauna. Amaibagako.

2^ogn. Azken-otoitza: Gurari ta poz zerutarrez beteten gaituzun Jauna: egizu, zure martiri santu Krisanto m Daria'ren bitartez, orain egin doguna geroko on izan dakigula. Amaibagako,

URRIÏLAREN 26'GARRÉNA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Ebaristo deunarenak: Si diligis Mezakoak, 464 orri.

URRILLAREN 28'GARRENA

SIMON ETA JUDAS DEUNAK, Apostoluak

2'gn. mailla. — Gorr'xz

Meso.potamia'n et Persia'n zabaldu eben Jesukristo'ren Barri Oriá, ta Persia'n M ebezan. Judas Tadeo deunak, ifdazki bat egin eban, laburra baiña ederra, Itun Barrian irakurmi daitekenez.

rvi E z A

Sarrera.—Nire ustez, oso goratuak dira zure adiskideak, jaungoikoa; arein indarra oso gogortu da.—Ps. Jauna, Zeuk azertu ta ezagutu nozu: zeuk dakizu noiz jesarten eta noiz jagiten nazan.—Aintza.

Otoitza.—Simon eta Judas zure Apostolu doatsuen bidez Zure izena ezaguerazo dauskuzun jaungoikoa: eiguzu, arein betiko zerua ospatuaz, onoinenean aurreratut gaitetzala, ta onetan aurreratuez ospatu dagigula. Amaibagako.

Irakurgaia .(6. Paulo'k Efeso'koai: 4, 7-13).—Anaiak: Guretariko bakoitzari grazi bana emon yaku, Kristo'k erabagitako negurriz. Esanda dago-ta: "Goietara igo zanean, meripetuak Beragaz eroan ebazan: glizonai graziak Odoaiak) banatu eutsezan." Baiña zelan igo, lenengo lurralde bekoetara jatsi zalako baiño? (1) Jatsi zana. Bera igo da zeru guztien gainera, guztia beteteko. Ta Berberak jarri dauz, batzuk apostolu, beste batzuk igarle, batzuk Barri Onaren zabaltzaille, beste batzuk zaintzaille ta irakasle, zintzoen obekuntza-lanetan, Kristo'ren gorputza atontzeko: sinistez eta Jaungoiko Semearen ezágueraz guztiok bat eginda, gizon eldu ta Kristo'ren adin beteko biurtu gaitzezan arte.

Koru-kanta.—Lur osoan nagusi egingo dozuz; zure izena gogoan izango dabe, Jauna, gizaldiz-gizaldi.—

(1) Edo bardin dana: Baiña zegaitik esaten da lgo egin zala, lenengo ona beera, lur gainera, jatsi zalako baiño?

Ourasoen ordez, semeak jaioko yatzuz; orregaitik, ^rriak autortu (goratu) egingo zaitue.

Aleluia, aleluia,—Zure adiskideak oso goratuak dira, Jaungoikoa; arein indarra guztiz gogortu da. Aleluia.

Barri ona (Jon, 17-25).—Aldi aretan, Jesus'ek bere iltasleai auxe esan eutsen: Auxe agintzen dautsuet: alkar maite egizue. Lurkoiak gorroto ba'dautsuiee, jafcin egizue zuei baiño len gorroto izan daustela. Lur-Itoi ba'zintzaze, lurkoiak eurena maite izango leuke; baiña ez zaree lurkoi, Nik lurkoiaren artetik aukeratu zaituet-eta: orrexegaitik dautsuee gorroto lurkoiak. Gogoan artu esan neutsuen au: morroia ez da bere ugazaba baiño geiago. Ni Jazartu (aurrean erabilli) ba'nabe, zuek be jazartu egingo zaitue; nire itza artu ba'dabe, zuena be artuko dabe. Baiña guzti au neure Izenagaitik egingo dauteuee, bialdu nauana ez dabe ezagutzen-eta. Ni etorri izan ez ba'nitz, eta itzik egin jzan ez ba'neutse, pekatuak ez leukeen; orain, barriz, ez dabe euren pekatuaren aitzakigarririk. Niri gorroto daustanak, nire Aitari gorroto dautso. Beste inok egin ez dauzan egintzak arein artean egin ez ba'neuz, pekatuak ez leukeen; orain, barriz, ikusi dabez nire egintzak, eta Adtari ta niri (bioi) gorroto dauskue. Bete bearra zan, izan be, arein legean idatzita dagoan au: «Zio* bagarik izan eusten gorroto.»—Kreáo.

Eskintza.—Lur osoan zabaldu zan arein labotsa, ta lurraren bazterreraiño arein itza.

Opari-otoitza.—Simon eta Judas Apostolu isamtuen betiko zerua ospatzen dogun ezkerre, eiguzu, Jauna: apari santu onen bidez pekatuetatik garbituta, egokiafco ospatu dagigula. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Niri jarraitzen etoriri zareenok, Jarlekuetan jesarriko zaree Israel'go amabi jatorriak epaitezko.

j Azken-otoitza.—Eukaristi santu au arturik, apal-apal eskatzen dautsugu, Jauna: Simon eta Judas zure Apostolu doatsuen bitartez, arein odol-eriotza goratuaz eskifii dautsugun opari au, osasunerako izan dagigula. Amaibagako.

* Zio = irazón.



URRILLAREN AZKEN-IGANDEA
JESUKRISTO ERREGEAREN JAIA

Vço mallla. — Zuriz

Gaurko jaiak, Jesukristo Errege dala adierazoten dasku: gure Errege bakarrik ez, baita sendi edo familien, errien eta mundu guztiaarena be. Gaur Kristo'ren oiñetara gatoz, Berari gure buruak eta mundu guztia eskintzera, Bera zeru iñiuren Errege dala autortzera. Baiña Kristo'ren erregetza ez da, ez, mundu onetakoen antzekoa; dana zerutarra, dana barrukoa da: ez da indarrezkoa, gogozkoa edo borondatezkoa baiño. Argi ta garbi agertzen da egi au Jesukristo'ren Barri Onean.

Aita Santu Pio X'garrenak sortu eban jai au, ta Urri-Uaren azkenengo igandean ospatzen da EHza osoan.

M E Z A

Sarrera.—Eskubidea, jaungoikotasuna, jakituria, indarra ta aintza artzeko lain da oparizat il dan Bildotsa. Berari aintza ta agñnpidea beti ta beti.—*ps.* Emon egiozu Erregeri, Jauna, epaitzeko eskutoidea: ta Erregearen Semeari zure zuzentasuna.—Aintza.

Otoitza.—Munduaren Brrege dan zure Seme maiteagan guztia batu nai izan dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: egizu biotz onez, pekatuaren zauriz banatuta dagozan munduko erri guztiak, zure agñncaritza guzbiz bigunera etorri daitezala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Pauio'k Koloso'koai: 1, 12, 20 — Anaiok: Aita Jaungoikoari eskerrak emoten dautsa-

guz argi-erreñuan Santuen oiñorde-lagun izateko gai egin gaitualako; eta illunaren menpetik atarata (1), Bere Seme maitearen erreñura alidatu gaitualako. Seme onen Odolaren bidez doguz eroskundera (salbaziñoa) ta pekatuen parkamena. Berau da begiokaz ikusi ezin dogun Jaungoikoaren Jrudia, egindako guztien lensemea; zeru ta lurreko gauza guztiak, ikusgarri ta ikusi ezin diranak, guatiak Beragan egiñak izan dira-ta: Aulki, Jaun, Nagusi ta Agintedunak. Dana Berak eta Beretzat egiña da. Diranak baiño lenago da, ta diranak Aregan dagoz. Bera da Elizaren gorpuzaren Buru; Bera da asiera, illartetik lenen biztu zana, gauza guzbietan lenena izateko, Aitak (Jaungoikoak) nai izan eban dana Aregan (Semeagan) batuta egon zedin. Onen bidez, gurutzeko odolaz bakeak eginik, gizaki guztiak, lurrekoak naiz zerukoak, Beragaz adiskidetzeko, Jesukristo gure Jaunagan.

Koru-kanta.—Itxasotik itxasora nagusi Izango da, ta ibaitik furraren bazterreragiño.—Lurreko errege guztiak gurtuko dabe.- erri guztiak morroi izango yakoz.

Aleluia, aleluia.—Aren agintaritza betiko da, ta ez yako kenduko; Aren erreñua ez da galduko. Aleluia.

Barri Ona (Jon, 18. 33-37).—Aldi aretan, Pilatos'ek Jesus'i itaun au egin eutsan: «Judarren Errege zara zu?» Jesus'ek erantzun «utsan. «Ori zeure buruz diñozu, ala beste batzuek Nitzaz esan dautsuelako?» Pilatos'ek erantzun eutsan: «Judarra al naz, ba, ni? Zeure emtarrak eta abade-buruak jarri zaitue nire askuietan. Zer egin dozu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Nire erreñua ez da lur onetakoa. Nire erreñua lur onetakoa ba'litz, nire menpekoak burrrukan egingo leukeen, judarren eskuetan jausi ez nendin. Baiña nire erreñua ez da emengoa.» Orduan, Pilatos'ek esan eutsan: «Beraz, Errege zaitugu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Zeuk diñozu: Errege naz. Onetarakoxe jaiio, ta onetarakoxe eAorri naz gizartera (mundura): egiaren alde autor egiteko. Egizale dan edonok, nire itza entzuten dau.»—Kredo.

(1) Au da: txerrenaren eta pekatuaren tnenpetik.

Eskintza.—<Neuri eskatu egidazu, ta errien oiñordeko (eredu) egíngo zaitut; eta zeureak izango dozuz lurreko muga-barru guztiak.

Opari-otoitza. — Gizartea foaketu eban oparia eskintzen dautsugu, Jauna; eta egizu, Jesukristo zure Semle ta gure Jaunak —Meza onetan oparizat daukagunak—, erri guztiak alkar-tasuna ta bakea emon dagiela. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Oiantxe.

Kanon-aurrea: *Kristo Erregearena, 456 orri.*

Jaunartzerakoa.—Jauna Errege jarriko da betiko; Jaunak bere erria bakez bedeinkatuko dau.

Azken-otoitza.—Bizitza foetikorra emoten d&uan janari au artuta, eiguzu, Jauna: Kristo Erregearen ikurnnpean gudari izanez poztuten garanok, zeruan Beragaz errege izan gaitzala. Arnaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Oiantxe.



AZILLEKO (Zemendiko) SANTUAK

AZILLAREN I'GOA

DOMU SANTU, edo SANTU GUZTIEN EGUNA

l'go mailla. — Zuriz

Zeruan dagozan guztien eguna ospatzen dau gaur gure Eliza Ama deunak. Guztiak nra gure bitarteko Jaungoikoaren aurrerean, Jesukristo Buru dala, Andra Maria, Aingeruak, Erriak Santuen berriok ezari dadzanak eta bertan dagozan beste guztiak ta aurrean gaur gure bitarteko berriok beraz gaur ortu dagaizana guztien Jaungoian, SSanta guztien egun arandipau onartean, Meza koa dagaizana, dagaizana: zuaenai dagokie Jauna goratzea.—Aintza.

Otoitza.—Jai onetan iSantu guztien ira'baziak era batera ospatu dagiguzan nai izan dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: zeruan ofrenbeste bitarteko doguzan ezker, ernon egiguzu zure erruki ugaria. Amaibagako.

Irakurgaia (Jon deunaren Agerkaritik, Apoc, 7, 2-12).—Egun areitan, nik, Jon nazan onek, beste aingeru bat ikusi neban eguzki-sortzaldetik igoten.

Jaungoiko biziaren ezaugarria eukan, eta lurfari ta itxasoari kalte egiteko egozan lau Aingeruai deardarrez esan eutsen: «Ez egin kalterik lurrari, ez itxasoari, ez zugatzai (arbolai), gure Jaungoikoaren menpekoai bekokian ezaugarria ezarri daiegun arte.» Eta ezaugarridunak zenbat ziran be entzun neban: eun eta berrogei ta lau milla ziran Israeldarren jatorri guztietariko ezaugarridunak. Juda'ren jatorritik, ainabi milla ezaugarridun; Erruben'en jatorritik, amabi milla; Neptali'ren jatorritik, amabi milla; Manases'en jatorritik, amabi milla; Simeon'en jatorritik, amafoi milla; Zabulon'en jatorritik, amabi milla; Jose'ren jatorritik, amabi milla; Benjamin'en jatorritik, amabi milla ezaugarridun. Gero, inok ezin zenfoatu zeikean talde aundi bat ikusi neban aginpipe-jarleku aurrean, Bildotsaren aurrekaldean, zutik. Guztiak soñean jantzi zuxiak eta eskuan palma-abarrak ekarrezan. Enda (arraza), jatorri, erri ta izkera guztietariko areik, auxe iñoen deadarka: «Gora aulkian jesarrita dagoan gure Jaungoiko ta Bildotsa!» Ta Aingeru guztiak zutik egozan aulkiairen, agureen eta lau abereen inguruan; eta aulkiruntz auzpaztuta, Jaungoikoa gurtzen eben, esanaz: «Olantxe: onspena, aintza, jakituria, eskerrak, ospe, al-izate ta indarra gure Jaungoikoari gizaldien gizaldietan. Olan izan dadilla.»

Koru-kanta.—Santu guztiok, Jaunaren foildur izan zaiteze: bildur dautsoenak ez dafoe ezeren bear-izanik.—Jaunaren billa dabiHtzanak, barriz, guztitariko ondasunak izango dabez.

Aleluia, aileluia.—Etorri zaiteze Neugana, nekepean eta atsekabetuta zagozen guztiok, eta Neuk bizkor-tuko zaituet. Aleluia.

Barri Ona (Mat., 5, 142).—Aldi aretan, Jesus, gi-zataldea ikusirik, mendi batera igo zan, eta jesarri zanean, bere ikasileak urreratu yakozan. Orduan, agoa zafaldurik, irakasten asi yaken, esanaz: Zorionekoak biotzez txiroak, zeruetako erreñua eurena dabe-ta. Zorionekoak otzanak, lurraren jabe egingo dira-ta. Zorio-nekoak atsekabetuak, poztuak izango dira-ta. Zorionekoak zuzentasunaren gose-iegari diranak, asetuak izango dira-ta. Zorionekoak errukiorrak, errukia jadedtsiko dabe-ta. Zorionekoak biotz^garbiak, Jaungoi-

ñoa ikusiko daibe^ta. Zorionekoak bake-zaleak, izena jaungoiko-sume tzango dabe-ta. Zorionekoak zuzentagaitik aurrean erafoilliak, zeruko erreñua eurena dabe-ta. Zorionekoak zuok, Nigaitik biraoka ta mada-rikatuka guzurrez zuen aurka nai dagiena esan dagie-nean. Poztu ta alaitu zaiteze arelako egunean: zuen saria zeruan oso ugaria izango da-ta.—Kredo.


Eskintza—Zintzoen arinak Jaungoikoaren eskuan dagoz, ert^a ez d^a u^z ikutuko eriotz-oiñazeak; burubageen begietan illak zirudien; areik, barriz, baketan dagoz. Aleluia.

Opari-otoitza.—Gure gogoko oparigaiak eskintzen dautsuguz, Jauna; ta Santu guztien gorapenerako diran ezkerro, Zuri atsegin izan dakizuzala, ta guretzat osasungarri izan dáitezala zure errukiz. Aimaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zoriontsuak biotz^garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabé-ta; zoriontsuak bake-zaleak, izena Jaungoiko-sume izango dabenta; zoriontsuak zuzentagaitik aurrean erabiliak, zeruko erreñua eurena dabe-ta.

Azken-otoitza.—Egizu, Jauna, zure erri zintzoak Santu guztien jaia beti pozez beterik ospatu dagiala, ta arein otoitzen betiko laguntzaz indartu dattela. Amaibagako.





AZILLAREN 2'GARRENA

ZINTZO IL DIRAN GUZTIEN GOGORAPENA

l'go maila. i— Baltzez

Gárbitckian dagozan arinren ailde otoi egiteko eguna da gaurkoa. •Gure otoiñen zain 'dagoz arjima gaiño areik, ainbat lastarren Jaungoikoa ikusteko larri baten aurkitzen dira-ta.

Gaur, abade bakoitzak iru Meza emo'n daikez: bata, norbere asmoen alde; bigarrena, Adta Santuaren asmoeta-rako; ta irugarrena, zintzo il diran arima guztien alde.

LENENGO MEZA

Sarrera.—Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena: ta j betiko argiak argi egin begie.—Ps. Zeuri dagokizu, Jauna, Sion'en ereserkia: Zeuri eskiñiko yatzu Jesusa-j len'en oparia; entzun egizu nire otoiña, gizaldi osoak Zeugana joan bear dau-ta.—Emon egiezu, Jauna.

Otoiña.—Zintzo iguztien Egille ta Erosle zaran Jaungoikoa: zure morroi'en eta mirabeen arimai emon egie?u pekatu guztien garbitzea: gure eskarien bidez, jaritsi dagiela beti gura izan daben parkarnena. Amai-bagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa: 15, 51-57). I —Anaiok: ez gara guztiok ilgo, baiña guztiok aldatuko gara. Ber-'bertan, begi-kiñu baten, azkenengo turuta -otsez (turuta joko dabe-ta), illak gordin jagiko dira, ta gu aldatu egingo gara. Ustelkor dogun onek, gordin biurtu bear dau, ta ilkor au, illezkor. Ustelkor au gordin

eta ilkor au illezkor biurtu daitenean, barriz, orduantxe beteko da idatzita dagoan au: Eriotza, garaipenak* iruntsi dau. Nun ídago, eriotz, zure garaipena? Nun dago, eriotz, zure eztena? Eriotzaren eztena pekatua da, ta pekatuaren indarra, legea. Baiña Jaungoikoari eskerrak, Jesukristo gure Jaunaren bidez garaipena emon oasuku-ta.

Koru-kanta.—Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena, ta betiko argiak argi egin begie.—Gomutagarria izango da beti gizon zuzena: ez dau izen txarraren bildurrik izango.

Luzagarria.—Askatu egizuz, Jauoa, zintzo ildako guztien arimak pekatu guztien lokarriták.—Eta zure grazia lagun dabela, zure asarrezko epaiari iges egin begie,—Ta jadetsi begie betiko argiaren zoriona.

«Dies irae» jarraikia

1. Asarre-eguna, egun a, lurra austuko dauana, Dataid eta Sibila'k autortzen dabenez.
2. Itzela izango da bildurra, guztia zorrotz ebazteko Epaillea agertu daitenean.
3. Turutak, illobietan ots ikaragarria zaba/ldurik, guztiok Jaungoikoaren aurrera eroango gaitu.
4. Eriotza ta izadia arritu egingo dira, Epailleari erantzuteko gizakiak jagi daitenez.
5. Guztia idatzita daukan liburua irakurriko dau, munduaren auziarj asiera emoteko.
6. Epaillea jesarri daitenean, isiipeko guztiak agtertuko dira; ezer ez da zigor bagarik geldituko.
7. Zer esango dau orcluan ni lako gaisoak? Nor jarriko dot nik bitarteko, zintzoa be larri aurkituko da-ta?
9. Gogoratu egizu, Jesus samur!, guztia neugaitik egin zenduala; egun aretan ez nagizu galdu.
10. Nire billa ibiltean, nekatuta jesarri zintzazan; gurutzean eriotza jasanik eixisi nenduzun: ez bedi alperreko izan arenbesteko lana.
11. Zigorren epaille zuzena: parkatu nagizu epaikundeá baiño len.

* Garaipen = victoria, triunfo.

12. Brnidunaren antzera nago negarrez; erruak gorri jarri dau nire arpegia; arren, parkatu nagizu, Jauna!
13. Mani Madalen parkatu, ta lapurra entzun zenduan orrek, neuri be ítxaropena emon zeustan.
14. Nire otoítaak ez dda Zure duin; baiña Zu, Jaun on ori!, samur izan zakidaz, betiko sutan kiskaldu ez naiten.
15. Egidazu tokia zure bildotsen artean, eta akerrakandik aldendu nagizu, zure eskumakaldean jarrerazorik.
16. Gaiztoak min-garretara ondatu dagizuzanean, zure aukeratuakaz batera dei egidazu.
17. Auzpaz efikatzen dautsut, biotza damuz austuta: izan rgizu nire azkenaren ardura.
18. Negargania benetan egun a. gizon erruduna eipaitua izateko autsetik jagiko dan egun af; parkatu egiozu. Jauna.
19. Jauna, Jesus samur ori!: emon egiezu guztiari ateedena. Olantxe.

Barri Ona (Jon, 5, 25-29).—Aldi aretan, Jesus'ek judar-taldeai auxe esan eutsen: Bene-benetan dirautsuet.- Jaungoikoaren itza ildakoak entzungo daben aldia eldu da, ta oraingoa da, izan be; ta entzun da-gienak, bizl izango dira. Aitak Beragan bizia dauanez, Semeari be bizia Beragan izateko emon dautso-ta. Baita Gizasemea clan ezkerro, epaitzeko eskubidea be emon dautso. Ez ikaratu oneitzaz: illobietan dagozan guztiak Jaungoikaren Semearen deira urtengo diraneko sasoi ba-dator-eta; zuzen ibilli diranak, bizi izateko biztuko dira; oler itoilli diranak, barriz, galduak izateko.

Eskintza.—Jeeukristo Jauna, zeruko Erregea: zintzo il dlan guztien arimak inpernuko neke ta zulo saketik aldondu egizuz: leoiaren agotik atara egizuz; inpernuak ez degizala iruntsi; ez daitezala illurepetara jausi: baiña Mikel burui-agi deunak argi santura eroan begiz: "antxiñn Abraham'i ta onen ondorengoai agindu zeusten argi/tara.—Gorapenezko oparigai ta eskariok eskintzen dautsuguz, Jauna: abegi onez artu egizuz gaur gogora dakarguzan arimen alde: egizu. Jaun orrek, eriotzatic bizitzara jgaro daibeza. *Antxiña Abrah'an'i ta onen ondorengoai agindu zeusten argitara.

Opari-otoitza.—Begiratu egizuz, toiotz onez, Jauna, zure mora-oien eta mira'been alde eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta kristau-fedearen irabazia emon zeusten ezkerro, sania be lorbu egiezu. Amaibagako,

Kanon-aurrea: *Ildakoena*, 457 orri.

Jauriartzerakoa.—^Betiko argiak argi egin begie, Jauna: *zure santuakaz toeti errukior zara^ta.—Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena, ta betiko argiak argá egin begie: *zure santuakaz beti errukior zara-ta.

Azken-otoitza.—Gure otoitz a/palak on egin dagibse-Ja zure morroien eta miratoeen arimai, Jauna; garbitu egizuz pekatu guztietatik, eta emon egiezu zure erospnaren zatia. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

BIGARREN MEZA

Urteurreneko **Meza**, 839 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik*:

Otoitza.—Farkamenaran Jaungoiko Jauna: zure morroien eta mirabeen arimai emon egiezu bakezko tokia, atsedeen zoriotsua, ta zure argiaren ditzira. Arnaibagako.

Opari-otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna, gure eskariak, gorapenezko opari au zure morroien eta mirabeen arimen alde eskintzen dogun ezkerro: ta zure san-tuen lagunartean sartu dagizuzala, arren. Amaibagako.

Azken-otoitza.—^Egizu, arren, Jauna: zure morroien eta mirabeen arimak, opari onen bidez garbituta, jade-tsi aagieia batera betiko parkamena ta atsedena. Amaibagako.

IRUGARREN MEZA

Illen egunereko **Meza**, 843 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik*:

Otoitza.—Gizonai parkamena ta osasuna emoten dautsezun Jaungoikoa: bizitza onetatik joan diran zure morroien eta mirabeen arknei, Maria beti Birjiña doatsua ta Santu guztiak bitarteko dirala, emon egiezu betiko zoriorean lagun izateko grazia. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Zure errukiak rnugarik ez dauan ezker, Jaungoiko!, entzun egizuz biotz onez gure eskari apalok; eta zure izena autorturik; zintzo il diran morroien eta mirafioen arimai, Opari osasungarri onen bidez, emon egiezu pekatu guztien parkamena. Amaibagako.

Azken-otoitza.—(Egizu, arren, Jaungoiko algutzidun eta errukior orrek!: zure morroien eta mirabeen arimen alde eskiñi dauitsugun Opari onen bidez, areik pekatu guztietatik garbitu daitezala, ta, zure errukiz, betiko argiaren zoriona jadetsi dagiela, Amaibagako,

AZILLAREN 4'GARRENA

BORROMEOTAR KARLOS DEUNA,

goteain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Ogel ta bat urte ebazala, kardenal egin eben, eta geroago Miiflan'go goigotzain. Berau izan zan Tren'to'ko ESaz-Batzar Nagusda burutzeko allegn bizenak egin ebazana. Indar aoin-dia emon eutsan Elizari, protestanteen irakatsien aurka egifiik. Milan'en 11 zan, 46 urte ebazaila, 1584'gn. urtean.

MEZA: Statuit, 484 orri., *urongo Otoitzak izan ezik:*

Otoitea. — Zaindu egizu zure Eliza, Jauna, zure autorle ia gotzain Karlos santuaren betiko laguntzaz; eta arimen arduragaitik zerua lortu ebanez, geu be, aren bitartez, zure maitasunean beti sutu gaitezala. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Bital eta Agrikola deunena:* Eiguzu, Jaungoiko algutzidun orrek!, *Bital eta Agrikola* zure martiri santuen jaia ospatzen dogun ezker, izan dagigula zure laguntza zure aurrean. Amaibagako.

Opari-otoitza. — Poztu gagiezala toki guztietan, Jauna, zure santuak; eta arein irabaziak ospatzean, euren bitartekotasuna be izan dagigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *BiaZ eta Agrikola deunena:* Bigundu zaitez, Jauna, oparigaion bidez; eta *Bital eta Agrikola* zure martiri santuen bitartez, gaitz guztietatik zaindu gagizuz. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko algutzidun orrek: artu dogun Eukaristiagaitik eskerrak emonez, zure autorle ta gotzain Karlos doatsua bitarteko dala, gero-ta grazi ugariagoak artu daiguzala. Amaibagko.

2'gn. Azken-otoitza, *Bital eia Agrikola deunena:* Eukaristi onek, Jauna, garbitu gagizala pekatuetatik; eta *Bital eta Agrikola* zure martiri santuen bitartez, zeru-saria lortzeko gei egin gagizala. Amaibagako.

AZILLAREN 8'GARRENA

Aurreko Igandeko Meza; 2'gn. Otoitzak, Lau Martiri Santu koroiz jantzitakoen urrengokoak.

2'gn. Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko algutzidun orrek: Martiri ospetsu oneik fedearen alde gogor egiten eza-gutzen doguzanez, zure aurrean arein bitartskotasun ona izan dagigula. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza.—Jatsi daitela eurrez zure onespena (bedeinkaziñoa), Jauna; ta zure martiri santuen bitartez, gure oparigaioek gogoko biurtu dagituzala. ta guretzat zerurako osasungarri izan daitela. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza.—Zeruko Sakramentuz eta pozsz beterik, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: santu onein garaipena ospatzen dogun ezker, euron laguntza be izan dagigula. Amaibagako.

AZILLAREN 9'GARRENA

SALBATZAILLE GUZTIZ DEUNAREN BASILIKA NAGUSIAREN ESKINTZA

2'gn. mailla. — Zuriz

Erroma'ko Letran'go Basilika, Aita Santuen Katedrala da, munduko etliza guztien buru ta ama. Lenengo, Jon Bateatzaille deunaren izena ekarren; baiña gero *Salbatzaillearena* emon eutsoen. 324'gn. urtean konsagratu eban Aita Santu Sil'bestre deunak. X'gn. gizaldian baTriztu egin eben, eta 1726'garrenean konsagratu eban benedito XIII'garrenak. Bost Eliz-Batzar Nagusi egtm dira bertan.

MEZA: Terribilis, 507 orri.; 2'gn *Otoitzak, Teodoro deunaren urrengokoak:*

2'gn. Otoitza: Teodoro zure tñartiri doatsuaren autontza ospatuez 'gorde ta zaintzen gaituzun Jaungoikoa; eiguzu, aren antzera aurrera jo daigula, ta aren otoitzetan laguntza aurkitu daigula. Amaibagáko.

2'gn. Opari-otoitza: Artu egizuz erriaren otoitzak, Jauna, eskiñitako opariakaz batera; ta Teodoro zure marbiri doatsuaren bitartez eta elizkizun santu onein bidez, zerura joan gaitetzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza: Eiguzu, arren, Jauna: Teodoroj zure martiri doatsua bitarteko dogula, agoaz ikutu doguna, gogo garbiz artu dagigula. Amaibagako.

AZILLAREN 10GARRENA

ANDER ABELINO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Sizilia'n jaió zan, 1521'gn. urtean. Lege-ikasketak egliP oBdoren, abade egin zan; geroago, barriz, *Teatno* izeneko lagundian sartu zan. Bere ónoimen argitsuak: gurutzegana-ko maitasuna, otoitza, ta Kristo'rentzat ardmak irabaztea. Napoies'en il zan, 1608'gn. urtean, ailtarako mailletan, Meza emotera joiala.

MEZA: Os iusti, 490 orri., *urrengo Otoitzak izdñ'* ezik:

Otoitza.—Ander zure autorie doatsuaren biotzeariV onoiñenean (birtutean) geroago ta geiago aurreratze-ko zin egiñaren bidez, Zeugana igoteko gogo miragarria gertatu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren irabaziz eta bitartez, aren grazia lortzeko gei egin gaitetzala; ta santuagoa dana egiñez, zure zeru goia pozik jaritsi dagigula. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Trifon, Errespizio ta Ninfa deunena*: Eiguzu, Jauna: Trifon, Errespizio ta Ninfa zure martiri santuen jaió foeti ospaturik, euren otoitzez zure laguntzaren grazia izan dagigula. Arnaibagako.

Opari-otoitza,—Zeure Santuen gomutaz, Jauna, eskmtzen dautsuguz gorapenezko oparigaiok; eta euron bidez, oraingo ta igeroko gaitz guztietatik onik urtengo garala uste dogu. Amaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, *Trifon, Errespizio ta Ninfa deunena*: Gogo onez eskintzen dautsuguz, Jauna, oparigaiok: begiko izan dakizuzala zure zlintzoen izenean,

eta gun osasun-iturri izan dakiguzala zure erruklz. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Zeruko janari ta edari onekaz indarturik, egizu, gure Jaungoiko orrek: santuaren eguna ospatuez artu doguzan ezkerro, berak lagun egin diskula bere otoitzakaz. Arnaifoagako.

2'gn. Azken-otoitza, *Trifon, Errespizio ta Ninfa deunena*: Eiguzu, Jauna: Trifon, Errespizio ta Ninfa zure martiri santuen bitartez, agoaz ikutu doguna, gogo garbiz artu dagigula. Amaibagako.

AZILLAREN 11GARRENA

MARTIN DEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

San Martin, Tours'ko gotzaiña, Prantzia'ko santurik errikoienetarikoa da. Lau milla elizek eta bosteun errik gutxienez beronen izena dakarre. Bere egintzarik aundiena, fedea zabaltzea izan zan, ango siniskeri zaarrak kendurik. Candes'en tl zan, 397'gn. urtean.

M E Z A

Sarrera.—Jaunak aregaz bake-alkartasuna egin, eta bere erriaren buru jarri eban, Abade-nagusitza betiko izan egian.—*Ps.* Jauna, gogoratu egizu Dabid, eta onen apaltasun aundia.—Aintza.

Otoitza.—Geure indarrez ezin bizi gaitekezaJa dakizun Jaungoikoa: eiguzu fbioztz onez, Martin zure autorie ta gotzain doatsuaren bitartez, ezbear guztien aurka indairtu gaitetzala. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Mena deunarena*: Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: Mena zure martiri doateuaren zerurako jaiotza ospatzen dogun ezkerro, aren bitartez zure rñaitasunean indartu gaitetzala. Arnaibagako.

Irakurgaia: Emen abade aundia, 484 orri.

Koru-kanta.—Ona emen abade aundia, bere egunetan Jaungoikoari atsegin izan eutsana.—Ez zan anen antzekorik agertu Jaungoikoaren legea beteten,

Aleluia, aleluia.—Tours-uriko Gotzain Martin doatsuak atsedena artu eban: Aingeru ta Goiaingeru, Aul-

ki, Mende ta zeruko Indarrak artu ta eroan eben. Alielua.

Barri Ona OLufo., 11, 33-36).—JATdi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Iñok ez dau kruselua iziotu ondoren, toki ezkutuan naiz lakaripean ipinten, argfmutil-gañeari foaiño, sartu daitezanak argia ikusi idagien. Zeure begia da zure gorputzaren argi-zuzla. Zure begia garbi izan ezkerro, zure gozputz osoa argitsu izango da; igaiztoa izan ezkerro, barriz, zure gorputza be illumpean egongo da. Begira, bada; zugan dagoam argia ez dadilla, gero, itzunigi (atza/mau)! Beraz, zure gorputz osoa argitan eta illun-alderdirik бага egon ba'idadi, guzti-tguztia argitsu izango da, ta kruseluak bere ditziz argitzen dauanez argituko zaitu.

Eskintza.—Nire egia ta errukia zintzoagaz dira; ta nire izenean gogor ageftuko da aren indarra.

Opari-otoitza.—Martin zure martiri santuaren egunean eskintzen dautsuguzan oparigaioak bedeinkatu egizuz, Jauna; ta euron taidez, zori onean naiz txarrean, gure bizikera zuzena izan dadilla. Arnaibagako.

2'gn. Opari-otoitza, Mena deunarena: Gure opari-gaiak éta otoitzak onarturik, Jauna, garbitu gazizuz zeruko misterio onein bidez, eta entzun gazizuz biotz onez. Amaibagako.

Jaunartzerakoa.—Zorionsu benetan, ugazabak, etortean, zain aurkitu dagian morroia! Egiz diratsuet: bere ondaeun guztien buru jarriko dau.

Azken-otoitza.—Eiguzu, gure Jaungoiko Jaun orrek! Santuaren jaiegunean eskiñi dautsugun Opari au, aren bitartez osasungarri izan dakigula. Amaibagako.

2'gn. Azken-otoitza, Mena deunarena: Eiguzu, arren, Jaungoiko gure Jaun orrek: orain zure Santuen gomutaz alaitzen garanez, poztu gaitezala betiko gero-koan be, arein arpegia ikusiez. Amaibagako.

AZILLAREN 12'GARRENA

MARTIN DEUNA, Aita Santu ta martiria

3'gn. mailla. — GOTTÍZ

OBlizaren fedea erejeen aurka sutsu zairadiu bear izan eban; Bizanzio'ko Agintari Nagusiak lotu ta Konstantinopla'ra eroan eban. Krimea'n U zan, nekez beterik, 655'gn. urtean.

MEZA: Si diligis, 464 orri.

AZILLAREN 13'GARRENA

DIEGO DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Prantziskotarren Lagunidian sartu zan, anai legez. Bere oioioimen argitsuenak: esaneko izatea, maitasuna ta otoi sutsua. (f 1463).

MEZA: Iustus, 492 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Munduan argal dana, indartsua iotsatzeko, era miragarri euikeratzen dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: eiguzu biotz onez, apal-aipail eskatzen dautsugunok, Diego zure autorle doatsuaren otoiizen ibiclez, betiko zerua jadetsi dagigula. Amaibagako.

AZILLAREN 14'GARRENA

JOSAPAT DEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Poloniarra jaiotez, Vilna'ko Ibakartetxean sartu zan. Polots'eko goigotzain zala, elizen batasuna lortzen alegin biziak egin ebazan. Arerioak, aren aurka jagirik, bizi kendu eutsoen, 1623gm. urtean.

M E Z A

Sarrera.-^Poztu galtezan guztiok Jaunagan, Josapat martilri doatsuaren jaia ospatzean; beranen oiñazealdiaz Aingeruak poztu egiten dira, ta Jaungoikoaren Sernea igoratzen dabe.—Ps. Poztu zaiteze, Jaunagan, zintzook: zuzenai dagokie *Jauna* goratzea.—Aintza.

Otoitza.—iBizu egizu zure Elizan, Jauna, Josapat zure martiri ta gotzain doatsua bete eban Arnasa, bizia bere ardien alde emoteko gertatu eban Gogoa; ta aren bitartez, geu be Gogo orrexek eñagiñik eta indarturik, ^z gaitzezala bildurtu anaien alde bizia emoteko. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Olantxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Ebelrtarrai: 5, 1-6).—Anaiok: Eaozein gotzain, gizartetik artuta, Jaungoikoari dago-kiozan gauzetan igizonen alde jarria da, pekatuakaitik eskingai ta opariak eskiñi dagizan; baita, bera be argalkeziz inguratuta dagoan ezkerre, ezjakin eta okertuak samur erabili dagizan be. Ori dala-ta, erriaren alde lez, bere buruaren alde be opariak eskiñi bear dauz pekatuakaitik. Iñok ez dau, barriz, ardura goragarri ori berez beraganatzen, Aaron'i lez Jaungoikoak dei egiten ez ba'dautso. Orrela, Kristo'k berak be ez dau berez abadeburutza ori artu: «Zeu zara nire Semea, Neuk sortu zaitut gaur», esah eutsanak emonda baiño. Beste nunbaiten be bajdiño: «Abade zara zu betiko, Melkisedek'en saillean».

Koru-kanta.—Aurkitu dot nire morroi Dabid, eta orio santuz igurtzi (.donetu) dot: neure eskua izango dau lagun, eta neure besoak indartuko dau. Ararioak ea dau azpiratuko; gaizto-semeak be ez dautso kalterik egingo.

Aleluia, aleluia.—Auxe da Jaungoikoak koroia ezarri eutsan abadea. Aleluia.

Barri Ona: Artzain Ona, 491 orri.

Esquentza.—Bere adiskideakaitik bere bizia emoten dauanak baiño maitasun aundiagorik iñok ez dau.

Opari-otoitza.—Jaungoiko gutziz enrurik ori! Be-deinkatu egizuz gure oparigaiok; eta bere odola isuriaz, Josapat zure martiri ta gotzain santuak autortu eban fedean indartu gagizuz. Amaibagako.

Jaunartzerakoa,—Neu naz Artzain Ona; nire ardiak ezEgutzen dodaz, eta nireak ezagutzen nabe.

Azken-otoitza.—Zeruko mai santu onek emon daiskula, Jauna, gogo indartsua: Josapat zure martiri ta gotzain doatsuaren bizia be, onexek indartu eban-eta, Elizaren izen onerako. Amaibagako.

AZILLARÉN ÍS'GARRÉNA

AUBERTO DEUNA, gotzain, autorle ta irakasle

3'gn, mailla. — Zuriz

AHemendak jaio zan. Domingotar egiñik, Paris'ko Ikaste. txe Nagusian ikasle ta irakasle izan zan. Kolonia'ra bihurturik, Akino'tar Tomas deuna izan eban ikasle. 1280'garrenean 11 zan; eta Pío XI'garrenak santu ta EQZ-irakasle egin eban, 1931'gn. urtean.

MEZA: In medio, 488 orri., *Otoitz oneik izan ezik:*

Otoitza.—Alberto zure gotzain eta irakasle doatsua, mundu onetako jakituria Jaungoiko-fedearen menpean jürten, aundi egin zenduan Jaungoikoa: elguzu, lurrean aren irakaspelai jarraiturik, betiko argia izan dagiguia zeruan. Aimaibagako.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, gure apari-gaiok; eta Alberto doatsuaren bitartez eta ereduz, barrizta dogun zure Seme ta gure Jaunaren Nekaldia, onuragarri izan daikigulla. Amaifoagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristiaren bidez, gorde gagizuz, Jauna, arerioen ekiñaldietatik; eta Alberto zure autorle ta gotzain doatsuaren bitartez, betiko bakea lortu dagigula. Amaifoagako.

AZILLAREN 16'GARRENA

JERTRUDIS DEUNA, birjifia

3'gn. mailla. — Zuriz

Erdi-Aroko mistikurik aundietarikoa izan zan. Beronek irakatsi eban lenengoz Jesus'en Biotzaganako oneraspen edo debozifioa. (f 1334).

MEZA: Dilexisti, 500 orri., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Jertrudis birjiña doatsuaren biotzean zuretzat bitotoki atsegingarria atondu zenduan Jaungoikoa: arcn irabaziz eta bitartez, gure biotzeko erruak rendu egizuz, eta zeruan aren lagun egin gagizuz. Amaibagako,

AZILLAREN 17'GARRENA

GKEGORIO MIRARIGILLE DEUNA,

g-otzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Ainbat mirari egin ebazan bizi zala be, bein mendi bat aldatzeragiño, bertan eliza sgiteko tokia izan zedin. (f 270).

MEZA: Statuit, 484 orri., urrengo Barri Onaren atal au izan ezik:

Barri Ona (Mark., 11, 22-24).—Aldi aretan, Jesus'ek, bere ikasleai erantzunik, auxe esan eutsen: Izan egizue sinismena Jaungoikoagan. Benetan dirautsuet: mendi orri «kendu adi ortik eta itxasora jausi adi» inok esan ba*dagio, ta biotzean zattantza (duda) bagarik, berak esandakoa jazoko dala sinistu dagianari, alamtxe egingo yako. Onexegaitik dirautsuet: zuen otoitzean eskatu tiagizuen edozer, artuko dozuela sinistu egizue, ta jad-etsi egingo dozue.

AZILLAREN 18'GARRENA

PEDRO TA PAULO APOSTOLU DEUNEN
BASILIKEN ESKEINTZA

2'gn. mailla. — Zuriz

San Pedro'ren Basillika, bere illotii-gaiñean dago jasota, Batdkano izeneko tokian. Ait_s Santu Urbano VIII'garrenak konSagratu el-an 1626'garrenean.

San Paulo'ren Basillika, barriz, guztiz erreta gelditu zan 1823'gn. urtean; baiña barriro jas.orik, Pio IX'garrenak konsagratu eban 1854'gn. urtean. Paulo deunaren llobia dago azpian.

MEZA: Terribiis, 507 orri.

AZILLAREN 19'GARRENA

HUNGARIA'KO ISABEL DEUNA, alarguna

3'gn. mailla. — Zuriz

Hiungarla'ko Erregearen ailaba zan. 23 urtez aiargundu zan, eta ogei ta lauaz il, 1231'garrenean. Bere onoinen argitsuena: ontasuna ta txiro ta geisoakanako errukia.

MEZA: Cognovi, 505 orri., urrengo Otoitzak izan ezik:

Otoitza.—Ar-gitu egizuz, Jauna, zintzoen biotzak; eta Isabel doatsuaren otoitz baiotsuen bidez, munduko zoriona aiide foatera itzi dagigula ta zeruko atsegiñaz beti poztu gaitezada. Aanaibagako.

2'gn. Otoitzak, Pontziit.no deunarenak: Si dilig'is Mezaokak, 464 orri,

AZILLAREN 20'GARRENA

VALOIS'TAR PELIX DEUNA, autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

Mata'tar Jon deunagaz batera, Irutasun guztiz deunaren Lagundia sortu eban, musuimanan menpean egozan kristau -gudariak askatzeko. (f 1212).

MEZA: lustus., 492 orri., Otoitz au izan ezik:

Otoitza.—Peiix zure autorle doatsuari bakartasunetik atxiillotuak askatzera zeruko argiz dei egin zeutean Jaungoikoa: eiguзу, aren bitartez eta zure graziaren bldez, lotuta gaukezan pekatuetatik askaturik, zeruko errira eldu gaitezala. Arnaibagako.

AZILLAREN 21'GARRENA

MARIA BIUJIÑA DOATSUA ELIZAN ESKIÑIA

3'gn. mailla. — Zuria

Dme zaila eskiñi eutsoen Jaungoikoári Maria bere gurasoak.

MEZA: Salve, saneta Parens, 458 oni., *Otoitz au izan ezik:*

Otoitza.—Maria treti Birjiña doatsua, Espiritu Santuaren bizitokia, gau"Blizan sartu zedin nai izan zenduain Jaungoikoa: eiguзу, aren bitartez, geu be zeruko elizan aurkeztuak izan gaitezala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz bertoeragaz batera Jaungoiko ta Brrege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen bidez. Glantxe.

Kredo'rik ez da,

''.'.'.

Kanon-aurrea: *Andra Marla'rena*, 456 orri. Eta elizantzarantz egunean.

AZILLAREN 22'GARRENA

ZIZILIA DEUNA, birjiña ta martiri

3'gn. mallá: — *Gorriz*

Martiri andrazkoenetatik entzute aundienetarikoa da. Jesukristo'ren fedea autortzearen, sama ebagi eutsoen, 222-230'garran urte barruan. 822'garrenean aurkitu eben bere gorpua, ta Erroma'ko bere izeneko Basilikara eroan.

Ereslari edo soñulariak euren Zaindarizat artu dabe.

M E Z A

Sarrera.—Erregeen aurrean iragarri neban zure legea, ta ez nintzan lotsatu; biotzez maite dodazain zure aglnduak gogoan ausnartu nebazan.—*Ps.* Zoriontsuak benetan, Jaunaren lege-foidean garbi dabizanak! —*Aintza.*

Otoitza.—Zizilia zure birjiña ta martiri doatsuaren urte oroko jaiaz poztuten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu, otoitzez ospatzen dogunari, bizikera zintzoz be jarraitu daiogula. Amaibagako.

Irakurgaia: Ene Jaungoiko Jauna, 498 orri.

Koru-kanta.—Entzun, alaba, ikusi, ta makurbu zure belarria: erregea zure edertasunaz zaletuta dago-ta.—Zabiltz, zoaz aurrera, Erregiña izatera, zure apaintasunaz eta edertasunaz.

Aleluia, aleluia.—Bost neska zurrek, kruseluak artuta, orioa be euren ontzietan artu eben; eta gauerdian cieadar bat entzun zan: Orra, senafgeia ba-dator: urten zakioze bidera, Kristo Jaunari. AJelulia,

Barri Ona: Zeruko erreñua, 496 orri.

Eskintza.—'Erregearen aurrera ekarriko dabe; aren ondoren, neska4aldea, eztegu'lagunak, zeugana pozez beterik; Errege Jaunaren jauregira joango dira.

Opari-otoitza.—03akezko ta gorapenezko opari onek, J-auna, Zizillia zure birjiña ta martiri doatsuaren bitartez, beti zune errukia jaristeko gei egin gagizala. Amaibagako,

Jaunartzerakoa.—Lotsaitu beitez alroak, nire aurka galtzakeria egin dabe-ta. Nik, barriz, zeure legea ta aginduak beteten jardungo dot, lotsatu ez naiten.

Azken-otoitza.—Zure etxekook doai santuz asetu gaituzu, Jauria; ta gaurko jaia ospatzen dogun birjiña martiriaren bitartez, indartu gagizuz beti. Ainaibagako.

AZILLAREN 23'GARRENA

I KLEMENTE DEUNA, Aita Santu ta martiri

3'gn. mallá. — *Gorriz*

88'garren urtetik 97'garrenera izan zan Elizaren Aita Santu, San Peldro'ren urrango irugarrena. Mezako Kanon-zatian agertzen dá bere izena, Korinto'koai egin eutsen idazki eder bat ezagutzen dogu, lenengo gizaldietako agerka-rMK zaarrenetarikoa.

MEZA: Si diligis, 464 orri., *beste oneik izan ezik:*

Sarrera.—Jaunak auxe diño: Zure agoan jarri dodazan berbak, ez dozuz zure ezpanetatik galduko: ta altara^gaiñean eskiñi dagizuzan opariak, atsegin iza/ngo dodaz.—*Ps.* Zoriontsua benetan, Jaunaren bildur dan gizona: Aren aginduak biziro maite dauzana.—*Aintza.*

2'gn. Otoitza, *Felizitas deunarena:* Eiguzu, Jaungoiko alguztidun oitrek: Felizitas zure martiri doatsuafien jaia ospatzean, aren irabazi ta bitartekotasunak gordie gagiezala. Amaibagako.

Imakiurgaia (S. Paulo'k Filipos'koai: 3, 17-21; 4, 1-3).—Anaiok: Izan zaiteze neure antzeko, ta begiratu nik emondako eredu dafoiltzanai. Asko dira or,—ta arei buruz sanritan esan dautsuedana orain be negarrez dirautsuet—, Kristo'ren gurutzearen aurka dabiltzanak; eriotza dabe azken^muga; Jaungoikotzat, sabela; euren lotsa, arrobide; lurrekoa, atsegingarri. Gure bitokia, barriz, zeruan dago, ta andik gu salbatzera etorriko dan Jesukristo gure Jaunaren zain gagoz.

Dana bere menpean ezita daukan eskubidez, gure gorputz doillor au aldatu ta bere gorputz argitsuaren antzeko biurtuko dau. Beraz, ene anai maite ta kutunok. neure pozbide ta koroí zareenok, iraun egizue orre-

la Jaunagan, guztiz laztanok. Ebodi ta Sintike (1), dagozala, arfen, gogo batez Jaunagan. Zuk be, nire lagun zintzo orrek, lagun egiezu, mesedez, emakume orrei: Klemente'gaz eta beste nire lankideakaz bate-ra Barri Onaren alde neure ondoan ekin utsen-eta, Guzti orrein izenak bizien litouruan ezarrita dagoz.

2'gn. Opari-otoitza, *Felizitas deunarena*: Artu egizuz biotz onez, Jauna, zure erriaren asmoak; eta egizu, gaur ospatzen dogun martiriaren otoitzak, gure alde izan daiguzala. Amaibagako.

2'gn. Azken-o;toitza, *Felizitas deunarena*: Apal-apalik eskatzen dautsugu, Jaungoiko alguztidun orri: zure Santuen bitartez, isuri daiskuzuzala zure graziak, eta zuzendu dagizula gure bizikera. Amaibagako.

AZILLAREN 24'GARRENA

GURUTZEKO JON DEUNA, autorle ta irakasle

3'gn. *malla*. — *Zuriz*

Teresa'gaz batera, Kamellldarren Lagundia barrizteko allegin biziak egin ebazan. Bere onoiraren argitsuena.k: bers buru-ukatzea, Gurutzea maitatu, otoitz sakonean murgfldu. Oso ezagunak dira bere mistika-liburaak, *Llama de amor viva*, *Subida al Monte Carmelo*, *Noche oscura del alma*, adibidez. 1591'garrenean il zan, e>ta 1926'gn. urtean Elizak Irakasleen artean sartu eban.

Meza: In medio, 488 *orri.*, *urengo Otoitzak izan ezik*:

Otoiti&a.—Jon zure autorle ta irakasle santua beraf burua guztiz ukatzen eta Gurutzea gartsu maitatzen aundi egin zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren iraktsiai eten-baga jarraiturik, betiko zerua jadetsi daigula. Amaibagako.

2'gn. Otoitza, *Krisogono deunarena*: Entzun egizuz, Jauna, gure eskariak; eta gure gaiztakeriakaitik errudun garala autortzen dogun ezkeru, Krisogono zure martiri doatsuaren bitartez, pekatuetatik urten gaitezala. Amaifoagako.

Opari-o-toitza.—Zure autorle ta irakasle Jon deunaren otoitz onak ez daigula, Jauna, uts egiin; gure onari-

(1) Filipos'ko kristau andrazko bl; ez eben alkar ondo eroaten, antza.

gaiok Zuri ondo arrerazo, ta guri zurre errukia 'beti jadetsi daiskun. Amaibagako.

2'gn. Opaori-otoitza, *Krisogono deunarena*: Baketu zaitez, Jauna, eskintzen dautsuguzan oparigaiokaz; eta Krisogono zure martiri doatsuaren bitartez, arrisku guztietatik gorde gagizuz. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Oipari au osasuogarriz inan dakigun, egizu, Jauna. Jon zure autorle doatsua ta irakasle bikaña, bitarteko izan dakigula. Amaibagako.

2'gn. **Azken-otoitza**, *Krisogono deunarena*: Artu dogun Eukaristiak garbitu dagizala, Jauna, gure pekatu ezkutuak, eta gure arerioen ekiñaldietatik onez urten gaitezala. Amaibagako.

AZILLAREN 25'GARRENA

KATAiLIN DEUNA, birjifia ta moi-tiri

3'gn. *malla*. — *Gorritz*

Ajexadria'n jao zan. Gizon jakintsuen aurrean Kristo'ren irakaspena biziro ta argl azaldu eban. Sama ebagi outsoen, 310'gn. urte inguruan. Pilosofuen Zaindari da.

Meza: Loquebar, 495 *orri.*, *Otoitz au izan ezik*:

Otoitza.—Sinai mendi-tonitorrean, Moises'i Legea emon zeutsan mendian bertan, Katalin zure birjifia ta martiri doatsuaren gorpua zure aingeru santuen bidez eta era <miragarritz ipiñi zenduan Jaungoikoa: egizu aren irabaziz eta bitartez, Kristo berfoera dan mendira igo gaitezala. Amaibagako egunetan Zeugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege biz; da-ta. Olantxe.

AZILLAREN 26'GARRENA

SILBESTBE DEUNA, abata

3'gn. *malla*. — *Zuriz*

Osimo'ko kanonigu izan baiño len, ilegeak ikasi ebazan. Bere adiskide baten gorjma ifcusi ondoren, basora baztertu zan otoitzaTi ekiteko, Seste bazuk toe alkartu yakoazan, eta Eenito deunaren arauak artu ebazan. (f 1267).

Meza: Os iusti, 494 *orri.*, *urengo Otoitzak izan ezik*:

Otoitza.—Siltoestre aibata doateua, illobi baten aurrean lur onetako uskeria ezagaturik, bakartasunera deitu ta iratoazi ederrez argitu zenduan Jaungoikoa: apal-aipalik eskatzen dautsugu, aren antzera, lurreko gauzak alde batera itzirik, Zugaz betiko zerua izan dagigula. Amaitoagako.

2'gn. Otoitza, *Alexandria'ko Pedro deunarena*: Begiratu egizu, Jaungoiko alguztidun orrek, gure argaltasuna-, ta gure pekatuen sorta astunak nekatzen gaituan ezkeru, Pedro zure martiri ta gotzain doatsuaren bitartekotasunak laguntza emon daiskula. Amaitoagako.

Opari-otoitaa.—Arren, Jauna!: op-arigai oneik Errege zaranez apal-a/palik eskintzen dautsuguzan ezkeru, Silbestre atoata doatsuaren antzera, arima ondo atonduta ta biotza gartoi izanik, zure Semearon Gorputza ta Odola saritutasunez artu daiguzala. Amaitoagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

2'gn. Opari-otoitza, *Pedro deunarena*: Artu egizuz biotz onez, Jauna, Pedro zure martiri ta gotzain doatsuaren irabazien bidez eskintzen dautsuguzan opari-gaiok: eta betiko atsedenera eroateko izan dakiguzala. Amaitoagako.

Azken-otoitea.—Zeruko janariak indarturik, e'guzu, Jauna: Silbestre abata doatsuaren bideari jarraituez, zeruan zure santuakaz sari ugaria artu dagigula. Amaibagako.

2'gn. Aaken-o.toditza, *Pedro deunarena*: Janari santuaa aseturik, arren, gure Jaun eta Jaungoiko!: Pedro zure martiri ta gotzain doatsuaren jaia ospatu dogun ezkeru, aren bitartekotasunaren eragitea somau dagigula gudan. Amaibagako.



.ii

.iii

BIZKAI'KO ELIZBARRUTIKO EGUTEGIAK DAKAZAN -SANTU BATZUEN MEZAK

OTSAILLAREN 27'GARRENA

1) Garizurnan, Garizuma-eguneko Meza; 2'gn. Otoftzak, Leandro deunarenak; 3'gn. Otoitzak, Gabirel deunarenak, 574 orri.

2) Garizuma izan ezik,

LEANDRO DEUNA, gotzain eta autorle

3'gn. mailla. — Zuriz

MEZA: "In medio", 488 orri., urrengo Otoitzak izan ezik:

OTOITZA.—Leandro zure autorle ta gotzain doatsuaren bidez, arriotarren gaiztakeria España'tik kendu zenduan Jaungoikoa: gorde egizu beti zure erria siniste oker eta gaizpiide guztietatik. Amaibagako.

2'gn. Otoitzak, Gabirel daunarenak, 574 orri,

ORRILLAREN 12'GARRENA

AVILA'KO JON DOATSUA, aiutorle

3'gn. mailla. — Zuriz

BARRERA.—Egizue deadar eten baga: turuta antzera jaso- zuen abotsa, ta iragarri nire erriari bere gaiztakeriak eta Israel'en etxeari bere pekatuak, aileluia, a'leluia.—Ps. Ara Aren abotsa, abots indartsua; goratu egizue Jaungoikoa Israel'en.—Aintza.

OTOITZA.—Ondasun guztien emoilte zarah Jaungoikoa! Arimak osasuneko bidetik zuzentzeko ta pekatariai da-mua emoteko, zure autorle Jon doatsua irakasHe bikain egin zenduan ezkeru, egizu, foeti aren forratzai jarraiturik, betiko bizitza jadetsi dagigula. Amaibagako.

2'gn. Otoitzak: Eguneko Santuenak, 612 orri.

CTRAKURGAIA (S. Paulo'k Korinto'koai l'goa.: 2, 1-7).—Anaiok: Zuen artera joan nintzanean, Kristo'ren autorra itz guren eta jakintsurik baga iragarri neutsuen. Izan be, ezer ez neban zuen arfcean jakin nai, Jesukristo izan ezik, eta Au gurutzetua. Nire itza ta lragartea ez zan izan giza-jakintzaren izkeraren bidez, Jaungoikoaren adore ta indarraren bidez baiño; zuen sinismena Jaungoikoaren indaTrean eta ez giza-jakintzan egon daiten. Alan be, jakintza bikaiñen artean diñoagu; ez, ostera, gizarte onetako jakintza, ezta gizarte onetako nagusi galkorrena be; Jaungoikoaren jakintza ezkutu ta isilpekoa baiño, betidanik gure goraldirako Jaungoikoak aukeratu ebana.

ALELUIA, aleluia.—^Ederrak egiz, mendletan bakea ta osasuna iragarri ta zabal'tzen dauzan oiñakl Aleluia.-^Giaz-

toen mliña ebagi egingo dabe; Jakitunen imiina, barriz, osasun da. Aleluia.

BARRI ONA: Jaunak beste irurogei ta amabi, 689 orri.

ESKINTZA.—Biotzdamutuak osatzera ta menpertatuai parkamena iragartera bialdu neniduan Jaunak. Aleluia.

OPARI-OTOITZA.—Artu egizu, Jauna, eskintzen dauzugun opari au; ta zure autoiúe Jon doatsuaren bitartez, Eukaristi Sakramentuaganako maita-sun sakonaz edertu zenduan ezkeru, osasunerako izan dakigula. Amaibagako.

2^{gn}. Opari-otoitzak: Eguneko Santuenak, 612 orri.

JAUNARTZERAKOA.—Geisoakaz geiso egin izan naz, geisoak irabazi dagidazan; guztiai guztia egin izan nakioe, guztiak salbau dagidazan. Aleluia.

AZKEN-OTOITZA.—HSari zerutarraz janaritu garan ezkeru, egizu, gure Jaungoiko Jaun orrek: Jon zure autorlearen oloitz eta ikasbideen bidez, erri me jokatutrik, kálterako yakun guztia azpiratu dagigula. Amaibagako.

2^{gn}. Azken-otoitzak: Eguneko Santuenak, 613 orri.

ORRILLAREN 15'GARRENA

ISIDRO DEUIÑA, nekazaria

3^{gn}. mailla. — Zuriz

MEZA: "Iustus", 492 orr., beste oneik izan ezik:

OTOITZA.—(Erreguz eskatzen dauzuguz, Jaungoiko errukitsu orri: Isidro zure autorle doatsuaren bitartez, ez gaitetzalla andiputzak izan; eta aren irabaziai ta onbideai jarraitutrik, Zuk orrenbeste imaita dozun apaitasunaz otseindu zaiguzala beti. Amaibagako.

2^{gn}. Otoitza: Salle'tar Jon Bautista deunarena, 615 orri.

IRAKURGAIA (Jak., 5, 7-8; 11, 16-18).—Anaiok: Eroapena izan egizue Jaunaren etorrera arte. Begira: nekazaria lurrak dakarrenaren frutu ederraren zain egoten da, ta eroapenez dago Jaungoikoak goizberanduko euria bialdu arte.

Itxaron zuek be, biotzok indartuak, Jaunaren etorrera urrean dago-ta. Jasan ebenak zoriontsutat doguz. Entzun dozue Job'en eroapena, ta ikusi zenduen Jaunak emon eutsan saria, Jauna biozpera ta errukitsu da4a. Beraz, autortu egiozuez alkarri zuten pekatuak, eta otoitz egizue alkarren alde, zeruratu zaitezzen: zintzoaren otoitz eten bageak indar aundia dau-ta. Bliás, gu lako gizon argala zan; alan be, lur ganera euririk ez zedilla jatsi eskatu eban gogo sutzuz, eta iru urte ta sel illebetez ez zan euririk jatsi. Barriru otoi eglñik, ortziak (zeruak) euria emon eta lurrak frutua ekarri eban.

BARRI ONA: Ni egiazko matsondoa naz, 480 orri.

OPARI-OTOITZA.—Erruki izan zakiez, Jauna, gure eskariai, ta artu egizuz biotz onez zure erriaren oparigaiok; eta Isidro zure autorle doatsuaren bitartez, itxaropenez eskatzen dauzuguna, benetan jadetse daigua. Amaibagako.

AZKEN-OTOITZA.—Eukaristi zerutar au, Jauna, gure gorputz-arimen onerako izan dadilla; ta eguzuz, Isidro zure autorle doatsuaren bitartez, ospatu dogunaren fritua somau daigula gudan, Amaibagako.

ORRILLAREN 30'GARRENA

PERNANDO DEUNA, errege

3^{gn}. mailla. — Zuriz

M E Z A

SARRERA.—Bego sendo ta goratua izan dadilla beti zure izena, ta esan daitela beti: Indarren Jauna da Israel'go Jaungoikoa. (P. A. Aleluia, aleluia).—Ps. Jaunak gudaketa ezereztu egiten dau, ta Aren izena Jaun da,—Airetza.

OTOITZA.—Fernando zure autorle doatsuari, zure izecraren aalde burrukan egiteko ta fedearen arerioai irabazteko indarra emon zeutsan Jaungoikoa: eguzuz, aren laguntzapean, f/orputz-arimako arerioakandik gordeta egon gaitetzala. Amaibagako.

2^{gn}. Otoitza, Felix deunarena, 623 orri.

IRAKURGAIA: Auxe difio Jaunak, 490 orri.

ALELUIA, aleluia.—Zoriontsu Jaunaren bitdur dan gizona, ta Aren aginduak maite dauzana. AMuia.—Zintzoa lirioa lez aziko da, ta beti loTatan egongo da Jaunaren Durrean. Aleluia.

Pazkoaldi-ostean, barriz, Luzagarri au:

LUZAGARRIA.—Jaunak agintarritza bere Erregeri emongo dau, ta Igurtziaren indarra gora jasoko dau.—Jaunak bere gain artu gaitu, ta Israel'go Santua da gure Errege.

ALELUIA, aleluia.—Jaunairen arerioak dardaraka egongo dira Aren aurrean; trumoi ta oñazuak jaurtikio ciaz arein gainera. AJeJuia.

BARRI ONA: Pariseotarrak joan, 403 orri.

ESKINTZA.—Zuen Jaungoiko Jaunari zin egin eta zñiak bete egiozuez, inguruko guztiok opariak Jaungoiko itzelgarriari eskiñi egiozuez, aundikien arrokeriak zapaldu dauzani, lurreko erregeentzat Mldurgari danari.


OPARI-OTOITZA.—Izan bekizuz atsegingarri, gure Jaungoiko Jaun orri, eskintzen dauzuguzan oparigaiok; eta Fernando Errege doatsuaren bitartez, gure betiko zorionerako izan daitetzala. Amaibagako.

2^{gn}. Opari-otoitza, Felix deunarena, 623 orri.

JAUNARTZERAKOA.—Goratu egizue zeruko Jaungoikoa gizaki guztiai janaria emoten dautseta; goratu egizue jaunen Jauna, Aren errukia betiko da-ta. (P. A. Aleluia).

AZKEN-OTOITZA.—Zure Goirputz eta Odolaren zeruko maiio janariz indartutrik, Jauna, egizuz errukiore: Fernando Errege doatsuaren bitartez, betiko sariaren doaiak artu daiguzala. Amaibasako.

2^{gn}. Azken-otoitza, Felix deunarena, 623 orri.



GARILLAREN

4^aGARRENA

BERIRIO-OTXOA'TAR BAEBNDIN DOATSUA,

goitzain eta mairitiri

3^{gn}. mailla. — Gorri

Elorrio'ko seme au, 1827^gko. Otsaillaren 14^{an} jaio zan. Elorriarra bere aita be. ta Antzuolatarra bere ama. Gaztetan, lptin ikasten eban artean, arotzerian lagun egiten eutsan bere aitari; ipelotari ta aurrekulari trebea foe izan zan gure Balendin. 18 urte ebazafa, Logroño'ko Abade-ikastetxera joan zan, eta 1851^{gn}. urtean emon eban bere lenengo Meza. Urte bi igerogo, Doimingotar egin zan, Misiñoetara joan nai eban -eta. Elorrio'tik urteeran, auxe esan leban: "Samtu egitera noa, Bizkaia'k bat izan dagian". Manila ta Tonkin'era bialdu eben, eta 31 urtez Gotzain. 1861^garrenean, 34 urte ebazala, sama ebago eutsoen; 1906^garren Orrillaren 24^{an}, barriz, Elizako Doatsu (Beatu) egin eban Aita Santu Pio X^garrenak.

M E Z A

Sarrera.—Poztu gaiitezan guztiok Jaunagan, Balm-tin nartiri doatsuaren jaiá ospatzean; beronen oiñazealdiaz Aingeruak .poztu egiten dira, ta Jaungoikoa-ren Semea goraitzen dabe.—*Ps*. Bai zorientsuak Jauna-ren lege-bidean garbi dabizanak!—Aintza.

Otoiña.—Martiri ta gotzain Balientin ospetsua Zu autortzen adaretsu egin zenduan Jaungoikoa: egizu, aren garaipenak (irabaziak) poztuten gaituan ezker, a zeruan ikuistek be poztu gazizala. Amaibagako.

Irakurg-ia (S. Pedro'ren l'goa.: 4, 13-16).Gutziz maiteok: Poztu zaiteze Kristo'ren neke-lagun izanaz: Aren aintza agertu daitenean be, pozez beterik egon zaitezten. Kristo'ren izenean iraindu ba'zagieze.zorione-Ko izango zaree: Jaungoikoaren 'garaldia, aintza ta indarra, ta Aren gogoa, zeuekan izango dira-ta. Ez begie zuen artean iñor zlgortu giza-iltzaille, lapur, gaizkille, naiz besteren zalekoi lez. Baiña kristau izateagaitik iñok nekeak jasan bear ba'dauz, ez bedi lotsatu: orre-Uko izenagaitik Jaungoikoa goratu baiño.

Koru-kanta.—Ospe ta argi-karoz jantzi dautsazu burua.—Ta zure eskuak egindakoen nagusi jarri dozu, Jauna.

AleJuaia, aleluia,—Auxe da Jaunak koroiz jantzi eban abadea. Aleluia.

Barr Ona (Mat. 10, 28-32).—Aldi aretan, Jesu.s'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: Gorputza ilten datoela, arima ezin il daikeen bildur ez izan; arima ta gorputza su barrendira (inpernura) jaurti daikezanaren bilduirrago izan zaiteze. Txori pareá ez ete-da lauko baten saltzen? Eta orraitioño, areitariko ,bat be ez da 'lurrera jausiko zuen Aitak nai izan ezik. Eta zuei buruz, auen buruko ule guztiak be zenfoatuta (kontautau) dagoz. Beraz, ez bildurrik izan: zuek txori pilloa baiño obe zaree. Gizonen aurrean autortu nagiana, Neuk be autortu egingo dot zeruko nire Aitaren *avmem*.

Esquiitza.—Dafoid nire 'morroia aurkitu dot, eta orio santuz igurtzi doit; neure eskua izango dau lagun, eta neure besoak indartuko dau.

Opari-otoitza.—Garbitasuna maite, ta lili-artean larrazten zaran Jesukristo gure Jauna: garbitu egizuz gure biotzak zeruko iruntzez; eta zure gorputz eta odolaren oparia guk 'be Balentin doatsuak lako garbitasunaz eskiñi dagigula. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu santuagaz ibatera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

Jaunartzerakoa.—Pitxi ederrezko koroia jarri dautsazu buruan, Jauna.

Azken-^otoitza—^Aingei'U'en ogiaz indarturik, eta zure Odol guztiz gozoaz bizkorturik, Balentin doatsuaren bitartez eta eragiñez, braikera garbia eroan dagi-

gula eskatzen dautsugu, Jauna: sinismenarl gogoi euteirik, itxarapenean pozik egonik, eta maitasunean gartsu jokaturik. Amaibagako.

GARILLAREN 25'GARRENA

SANTUAGO DEUNA, Apostolua

l'go. mailla. — Ooriz

MIEZA: 682 orri., beste oneik izan ezik:

SARRERA.—Ezaugarria ezarriko dautset, diño Jaunak; eta arein artetik, nire barririk izan ez daben atzerrietara bialduko dodaz, eta neure izena iragarriko dautsec.—*Ps. Ze-ruak Jaunaren aintza iragarten dabe, ta izartegiak Aren esku4anak.*—Aintza.

LUZAGARRIA. — Jaunaren irakatsia beti bere agoan egoan, eta ez zan aurkitu gaiztakeririk bere agoan.—Zuzen eta bakean etorri zan nigaz, eta gaiztoak pekatutik aldendu egin ebazan.

ALELUIA. - a'leluia.—España'ko izar diztiratsu Santiago doatsu ori: izan zakiguz bitarteko. Aleluia.

ESKINTZA.—Oso goratuak dira, Jaungoiko, zure adiski-deak; oso aundi egin da arein iradarra.

JAUNARTZ'ERAKOA.—Jaunak errien osasunerako auke-ratu eban; Jakob'en erriari aginduak iragarteko ta Israe'l bere lege santua irakasteko eskubidea emon eutsan ari.

URRILLAREN 11'GARRENA

BEGOÑA'KO ANDRA MARI,

Bizkai'ko Zaindari Nagusia

l'go. mailla. — Zuriz

MEZA: Ecoe Virgo (Begira): 762 orri.


URRILLAREN 12'GARRENA

PILAR'GO ANDRA MARIA'REN GOMUTAPENA

l'go. mailla. — Zuriz

MEZA: Salve, sancta Parens, 458 orri., Otoitz au izan ezik:

OTOITZA. — Zure Semearen Ama gutziz goragarriaren bidez, zeruko laguntza era imiragarriz emon zeuskun Jaungoiko algutzidun eta betikorra: eizuzu biotz onez, Pilar-izenaz maitasun beroz ospatzen idogun ezker, bere laguntzaz zaindu gagizaila beti. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez.—Olan-txe.



EUSKALERRIKO SANTU BAI ZLK

OTSAILLAREN 5'GARRENA

IGOKUNDEAREN MARTIN DEUNA, **martiria**

Ooriz

JBatzen eritiziz, santu au Agirre'tar Martin da, 1567'eko. Iraillaren 11'n Bergara'n jaioa; beste batzen ustez, Loiz-nazUar Martin, Beasain'go semea. Prantziskotar egiñik, 1590'gn. urtean egin eban bere leriengo Meza-oparia. 1592'ga-renean, Manila'ko misiñoetara bialdu eben, eta andik Jiapon'era joan zan 1596'gn. urtean. Osaka'n zala, angoak ara joan ziran prantziskotarren aurka jagi ziran, eta Martin be, oraturik, Kyoto'ra ta Nagasaki'ra eroan eben; eta emen Gurutzeiko erioiza emon eutsen beste amasei lagunegaz batera, 1597'gn. Otsaillaren 5'ean.

Meza: In virtute, 470 orri.; Barri Ona: Bene-benetan, 547 orri.

2'gn. Otoitzak, Agata deunarenak, 555 orri.

EPAILLAREN 3'GARRENA

EMETERIO TA ZELEDONIO DEUNAK, **martirdak**

G o r r i z

Anai bi oneik, lenengo Erroma'rren gudaritarteko izanik, Kristo'ren gudari izatera aildatu ziran, sinismena artunk. Guzurrezko jaungoikoak gurtzera beartu ebazan; baiña e-rak, gutzien aurrean, Jesukristo'ren morroiak zirala autortu eben. Ainbat neke ta oifiaze eToan ondoren, Kalagurri-ondoan

odol-eriotza emon eutsen. Kailagurri'ko katedralean dagoz eursn gorpualc, eta uri onetako Zaindaria dira.

Meza: Intret, 473 orri., *beste oneik izan ezik*:

Otoitza.—[^]Einsterio ta Zeledonio martiri goragarriak zure izena autortzeko indarra emon zeutsen Jaungoikoa: egizu biotz onez, lurrean arein gorputzak ospatzen doguzanez, zeruan arein arpegia ikusiaz poztu gaitetzala. Amaibagako.

2'gn< Otoitzak: *Garizuman, Garizuma[^]egunekoak*.

Koru-karrra.—Bai on eta eder dala, anaiak alkarturik bizi izatea! Ori, Aaron'i burutik bizarrera erion usaingarri jatorra letxe da.

Luzagajrria.—Negarrez ereiten da benak, pozez batu-ko dabe. Negar egiten eben azia zabaltzean. Etorri daitezanean, barriz, pozik etorriko dira, gari-eskutak ekarriez.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, gure oneraspenak (deboziñoa>k) dakartsuzan oparigaiok: zure Santuon omenei:, gogoko izan dakizuzala, ta, zure errukiz, guretzat "sasunerako izan daitezala. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Eiguzu, arren, Jauna: zure martiri santu Emeterio ta Zeledonio bitarteko dirala, agoaz ikutu doguna, arima garbiz artu daigula. Amaibagako.

EPAILLAREN II'GARRENA

BEREMUNDO DEUNA, a/bata

Zuriz

Lizarran (Estella) jaino zan. Gazte zaia, Iratxe'ko Abate-^xean sartu ondoren, geroago etxe aretako Buru izan zan 40 urtez, guztien eredu izanik. (f 1090).

Meza: Os iusti, 494 orri.

EPAILLAREN 15'GARRENA

ERRAIMUN DEUNA, atata

Zuriz

Tarazona'n jaino, ta bertako kanonigu izan zan aldi baten. Benito .rjeunaren jantzia artu ondoren, Pitero'ko (Naparroa) Abatexc^e egin, eta bertako abata izan zan. Gizon azkarrá Moruen aurká egiteko gudariak adorea emoten. Berak sortu

eban «Calatrava'ko Gudari-Anaidi» entzutetsua, Toledo-ondoan il zan 1163gn. urtean, eta Toledo'n dago bere gorpua.

Meza: Os iusti, 494 orri., *beste oneik izan ezik*:

Otoitza.—Eiraimun abata doatsuari zure gudaketak egiteko ta sinismenaren arerioak azpiratzeko indarra emon zeutsan Jaungoikoa: egizu, aren bitartekotasunaz indairturik, gorputz-arimen arerioakandik onik urten gaitetzala. Amaibagako.

Barri Ona (Luk., 3, 7-14).[^]Aldi aretan, Jon'ek, bateoa artzera etorkiozan .gizataldeai, auxe esan eutsen: «Nok irakatsi dautsue, sugekumeoi, etorteko dan asarretik iges egiten? Bgizuez, iberaz, dañnu-frutu egokiak, eta ez asi esaten zeuen barruan: «Aforalhan dogu aita». Ba-dirautsuet, ba: orko arrietatik be Abraham'i semeak atarateko lain ba-da Jaungoikoa. Aizkora, onez-kero, zugatz-zuisterrari ezarrita dago. Beraz, frutu onik ez idakarren zugatza, efoagi ta sutara jaurtiko dabe. Gudariak itaun au egin eutsen: «Guk zer egingo dogu?». Ta esan eutsen: «Ez inor jo, ezta inor zuzenbage isalatu be, ta zuen sariak naiko izan».

JORRAILLAREN 28'GARRENA

FRUDENTZIO DEUNA, gottzain eta autorle
(Araiba'fco Zaindaria)

Zuriz

Prudentzio deuna, Araba'ko Armentia izeneko errian jaino zan. Gazte zala, basora baztertu zan, ibiziiza latza eroanik. Geroago, Tarazona'ko gottzain egin eben. Bere onimenak: zurtasuna, maitasuna, otzantasuna ta errukia.

Meza: Statuit, 484 orri., *urrengo Otoitzak izan ezik*:

Otoitza.—Bake-emoille zarean Jaungoikoa; Zure gott'iain eta autorle Prudentzio doatsuari asarretutakoeren artean bakeak egiteko grazi -miragarria emon zeutsana: egizu, aren irabaziz eta bitartez, Zeuk nai dozunaz bat eginda bizi gaitetzala ibeti. Amaibagako.

Opari-oitoitza.—Eskiñitako oparigai oneik mistiku -eraz adierazoten dabezan batasuna ta bake-doiak emon al daiskuzuzan, egizu, Jauna, zure gottzain eta a.utorle Prudentzio doatsuaren laguntza aundia beti geugaz izan dagiguila. Amalibagako.

Azken-otoitza.—Isuri eiguzu, Jauna, zure maitasunaren gogoá; eta zure maian asetu gareanok, zure gotzain eta autoíle Prudentzio doatsuaren bitartez ibeti alkarreganako maitasunean foatu gaitezala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera...

ORRILLAREN 12'GARRENA

RIKTRUDIS DEUNA, aUrg.uraa

Z a r i 2

Aundikitarren jatorriko alaba aiu, Adabaildo dukeagaz ezkondu zan. Lau seme-alaba izan ebazan, laurak gaur altaran dagozanak. Senarra il zanean, Dagoberto erregeak bere emate artu nai izan eban; baiña Riktrudis, mundua alde batera itzirik, moja-etxe baten sartu zan. 94 urte ebazai il zan.

Meza: Cognovi, 505 orri., Ofoiŕ au izan *eeik*:

Otoitza.—Riktrujdis doatsuari, grazi-doal gorengoz Zuk jantzita, sienarra ta seme-alabak santutasunaren gaillur-bidera eroaten irakatsi zeutsan Jaungoikoa: egizu, aren onoiemen (birtute) aundia gogoan dogula, ez gaitezala egundo aren ikasbideai jarraitzeaz lotsatu. Amaibagako.

ORRILLAREN M'GARRENA

GARAÍKOETXEA (Gariko.iltz) 'TAR MIKEL
DEUNA, auttxrle

Z u r i z

Be-Naparroá'ko Ibarra'n jaió zan, 1797'gn urtea-n. Abade egin ondoTen, *Betarran'darren Lagundia* sortu eban. 1863'garrenean M zan, eta Pio XII'garrenak Santuen lerroan ezarri eban 1947'gn. urtean, Bagillaren 6'an.

'(Galdos'tar (Erroínualdo Aitak jarri eban gipuzkeraz Etxebarria'tar Jon abadeak lapurdievaz egindako Santu onen bitizta.)

M E Z A

Sarrera.—Emeai naitor, esan neban: Zeuk nai dagizuna egitean dot atsegiña, ene Jaungoiko!, ta neure biotz-barruan dago zure legea.—*Ps.* Uste osoz itxaron nebán Jaunagan, eta entzun eban nire deia.—Aintza.

Otoitza.—Mikel autorle doatsua Apostolu-onoienez era miragarritz jantzi, ta aren bidez Elizan Lagundi barri bat sortu zenduan Jaurugoikoa: egizu biotz ortez, aren irakatsiai ta ikasbideai jarraiturik, betiko zorionera eltzea jadetsi daigula. Amaibaga'ko.

Irakurgaia: Jaungoikoarentzat aukeratu, 66 *orri*.

Aleluia, aleluia.—Bide zuzénetatik ibili daiten zintzoak, seme zoriontsuak itziko dauz bere ondoren. Aleluia.—Jaunak beartsua autsetik gora jasoten dau, ta txiroa sastegitik: nagusien artean emoten dautso jarlekua, bere erriko nagusien artean. Aleluia.

Pazkoaldi-ostean, aurreko Aleluia ordez, beste au:

Koru-kanite.—Zintzoa, ipalmondoaren antzera loratuko da; Libano'ko zedrua lez aundi egingo da Jaunaren ctxean. Goizean zure errukia ta gabean zure egia iragarteko

Aleluia, aleluia.—Bide euzenetik ibilli daiten zintzoak, seme zoriontsuak itziko dauz bere ondoren. Aleluia.

Barri Ona: Jesus'ek erantzunik, 529 *orri*.

Eskintza.—Bedeimkatu zagiezaila Jaunak: emon dagitzuela guztioi toiotz gertua. Bera gurtzeko ta Bere nala gogo osoz eta onez beteteko. (P. A. Aleluia.)

Opari-otoitza.—Oparigaiok Zuri eskintzean, Jauna, Espiritu Santuak sutu dagiala gure biotza, Mikel zure autorle doatsua Oroari santu au egiten ziarduala sutu eban garraz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera...

Jauna.rterakoa.—fean be, zer.uko nire Aitaren naia bete dagiana, axe da nire anai, arreba ta ama. (P.A. Aleluia.)

Azken-otoitza.—Isuri eiguzu, Jauna, zure maitasunaren gogoá; eta janari zerutarraz asetu gareanok, Mikel zure autorle doatsuaren bitartez, lurreko gauzak alde batera itzi daiguzala ta Zeuri bakarrik, Jaungoiko orri!, jarraitu daizugula biotz garbiz. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz beragaz batera...

GARILLAREN 7GARRENA

PERMIN DEUNA, gotzadn eta martiri

Gorri z

Irufia'n Kristo'ren sinismena artu ebanean, gotzain egin eben. Gero, Prantzia'ko ego-aldean Jes-ukristo'ren Barri Ona zabaldu eban, eta ITgarren igizaidiko azkenetan, Kristo'ren alde eraon eban bere bizia. Iruña'ko Zaindari da.

Meza: Sacerdotes Dei, 468 orri., *oeste oneik izan ezik:*

Sarrera.—Poz-tu gaitezaz guztiok Jaunagan, Permin martiri doatsuaren jaia ospatzean; beronen oiñazealdiaz Aingeruak poztu egiten dira, ta Jaungoikoaren Semea goratzen dabe.—*Ps.* Poztu zaiteze Jaunagan, zintzook; zuzenai dagokie *Jauna* goratzea.—Aintza.

Otoátza.—Sinismen-iraganteagaitik eta odol-eriotzagaitik, Permin gotzain eta autorle doatsuari koroi illeziña emon zeutsan Jaungoikoa: egizu biotz onez, aren garaiipena ospatzen dogun ezker, saria be jadesi daigula. Amaibagako.

2^{gn.} Otoitzak, *Zirilo* ía *Metodio deunarenak*, 665 orri.

Iraquirgaia (Santiago, 1, 2-12).—Guztiz maiteok: Gororatu egizue, poz aundia dala ezbearrez inguratuta egotea: zuen sinismenari erasoak iraupena dakarkiola ba-dakizue-ta. Irauipenak, barriz, utsik bagako egintza bikaiñez lagunduta izan bear dau. Baiña zuetarikoren batek zurtasuna hear ba'd&u, eskatu dagiola Jaungoikoari; ta guztia eurrez eta ñor mindu bagarik emoten dautsen Jaungoikoak emongo dautso. Baiña sinismenez eskatu begi, ezetarik zalantzarik baga: ez baitan daibillena, aizeak itxasoan joan-etorrika darabilen olatua letxe da-ta. Alako gizonak ez dagiala uste izan Jaunagandik ezer artuko dauanik. Gizon gogo-bikotxa bere bide guzbietan aldakor da. Anai apala, bere goratdiaz poztu bedi; aberatsa, barriz, bere beeraldiaz elibitz Jorea lez igaroko da-ta. Eguzki beroa urten ondoren, bedarra zimeldu, lorea jausi, ta aren edertasuna galdu egiten da. Orrela aberatsa be, bere arazoetan iigarituko da. Zoriontsu, tantaldia ondo eraon dagian gizona: aretan azertu dagienean, Jaungoikoak Bera maite dabena eskiñi dautsen bizitza-koroia jaritsiko dau-ta.

JBarri Ona: Jesus'ek bere ikasleau 547 orri,

MAIORGA'TAR JON DEUNA, martiria,
ta bere LAGUNAK*Gorri z*

Donibane-Garazi'n jaio zan, eta Jesus'en Lagundian sartu zan. Beste ogei ta emeretzi lagun ebazila, Brasil'go misiñoetara joan zan; baiñia bidean itxas-Uapurren eskuetan jausi ta guztiñi odol'eriotza emon eutsen.

Meza- Intret, 473 orri., Oioiiz au *izan ezik:*

Otoitza.—Eiguzu, arren, Jaungoiko alguztidun orrek: Jon eta toeste lagun martirien eriotza agurgarria gogoratzen dogunok, areik lez fedean iraunkor izaten alegindu gaitezala. Amaibagako.

GARRILLAREN 15GARRENA BERA

ZUDAIRE'KO ESTEBAN DEUNA, inartiria

Jesus'en Lagundi'ko zala, Brasil'go misiñoetara bialdu eben 1570^{gn.} urtean. Baifra bidean itxas-flapurren eskuetan jausi ta oneik odol'eriotza emon eutsen. 25 urte ebazan.

Meza: In virtute, 470 orri.





IRAILLAREN 9^oGARRENA
ARANTZAZU'KO ANDRA MARI,

Gipuzkoa'ko Zadnclari Nagusia

1469^{gn.} urtean, Gipuzkoa'ko Oñate lurraHdean, Andra Maria'ren iruidia aurkitu eban Baltzategi'tar Errodrigo artzainak; eta arantza-gaínean agertu za'la-ta, arrezkero *Arantzazu'ko Andra Mari* izenaz ezagutzen da. Beraganako maítasun sutsua biztu eban bereailaxe euskaldunen artean. baHa zferu-grazi edevrak isuri be arein gaínera: Oíñaztarren eta Ganboatarren arteko gudaketak ezereztu, ta aldi aretako legorte ikaragarrian euri egoki ta ugaria emon be bai. Antxe eskiñi eutsan bere burua Andra Maria'ri Loiola'tar Ináki deunak. mundu onetako uskeriak ukatu ta Jaungoikoagana biurtu zanean.

Azken-urteotan, euskaldun-en laguntzaz, lengo eliza eratsi ta beste barri eder bat jaso daibe, an bizi 'diran praratz.iskotar praílleak.

MEZA

Sarrera.—Poztu gaitezán guztiok Jaunagan, Maria Birjiña doatsuaren jaia ospatzean; iberonen egun aundiaz Aingeruak poztu egiten dira, ta Jaungoikoaren Sernea goratzen dabe.—*Ps.* Nire biotzari albesti eder bat dario; Erregearentzat nire olerkiak.—Arntza.

Otoitza.—Maria doabsuaren garbitasun oso-oso mi-rari arrigarritz adierazo nai izan zenduan Jaungoiko alguztidun eta betikorra; egizu, aren irabaziz eta bi-tartez, munduko zalekeriak ukaturik, zure menpeko

zintzo izan fita zeugaz zeruan betiko zoriontsu izan gai-tezala. Amaibagako.

Irakurgaia.—[^]Maastiaren antzera, 702 orri.

Koru-kanta.—Autortu egizue Jauna, ta dei egiozue Aren izenari; gagoratu egizuez Arek egin ebazan arrigarriak.—Odeia zaibaldu eutsen gerizpe egiteko, ta ga-bez sua, argi egin egitssn.

Aleluia, aJeTuia.—Moises'ek sutan erre bagarik ikusi eban arantza lez, zure garbitasun ederra orban bagarik ikusi dogu: izan zakiguz bitarteko, Jaungoikoaren Ania. Aleluia.

Barri Ona—Jaungoikoak GaJbirel Aingerua, 585 orri.

Eskintza.—Zoriontsu zaira zu, Maria Birjiña deuna, ta aintoat gorapen zor yatzuzana: zuzentasunezko eguzkia dan Kristo gure Jauna, zeugandik jaio da-ta.

Opari-otoitza.—Artu egizuz biotz onez, Jauna, Maria Birjiña doatsuaren agertze-egunean eskintzen dautsuguzan oparigaiok: Bera bitarteko dogula, arerion lokarriak ausirik, semeen askatasun osoa jadetsi dai'gun. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Andra Mari'rena*, 456 orri. Eta^{l'm}: jai egunean.

Jaunartzerakoa.—Erregearen alabaren edertasun guztia barirenetik dator, urrezko jantziz eta esku-lan aukeratuaz inguraturik. Erregearen aurrera ekarr.iko dabe; ta aren ondoren, neska-taldea, eztegu-lagunak, Zeugana pozez beterik.

Azken-otoitza. —• Eiguzu, arren, Jaungoiko pu^{ti}? errukior crrek! Zeruko atsegiñez asetu garean ezker, zure Semearen Amaren garbftasun arrigarriari esker munduko lizunkeriak ukatuez, biotzeko garbitasunaz eta egintza onen frutuz azkeneraiño atsegin izan ga-kizuzala. Arnaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

IRAILLAREN 13^aGARRENAZUMARRAGA^aTAR TOMAS DOATSUA, martiria

Zumarraga^atar Tomas zoriontsua, Gazteiz^{en} jalo zan. Domingo deunaren jantzia artu ondoran, Filipinas^{era} ta Japon^{era} joan zan bertakoi Barri Ona iragartera. Beingo baten ikas^a eban Japondarren izkuntza, ta bere ikasbide onaz askoak ekarri ebazan Kristo^{ren} sinismenera. Nagasaki-oridoan, Gurutzearen arerioak eskua ezarri eutsoen, eta bost urtean egon zan giltzapean. Azkenez, 1624^{gn}. Iraillaren 12^{an}, bizi^a kendu eutsoen. Bere onaimen berezienak: lagun-urkoaganako maitasuna, ap^ltasuna ta txirotasuna. Aita Santu Pio IX^{garrenak} doatsu (edo beatu) egin eban 1867^{gn}. urtean.

Meza: In virtute, 470 orri., *urango Otoitzak eta Barri Ona izan ezik:*

O.toitza.—Tomas doatsua, suaren oiñazez ildakoa, martirien koroⁱ goragarriz edertu zenduan Jaungoikoa: egizu biotz onez, bera bitarteko dogula, fedean beti sendo ta maitasunean gartsu izan **gaitetzala**. Amaibagako.

Barri Ona: Mre ondotik, 469 orri.

Opari-otoitza.—Tam^s nartiri doabsuaren egunean eskintzen dautsugun opari au, Jauna, izan **bekigu** beti gorputz-arijmen laguntza ta aterperako. **Aimaibagako**.

Azken-otoitza.—Artu dogun Eukaristi onek, Jauna, emon daiskula barrengo adorea: **Tomas doatsuak**. Japon^{darren} artean Barri Ona zabaltzean, **martiri**-abarra gogo berberaz beterik irabazi eban-eta. Arnai-bagako.



MEZA AMAIERAN ESAN (BEAR DLRAN OTOITZAK

Q3o3. Of^o. 1959, 9^{gn}. orri.)

Agur, Maria... Sant^a Maria... (Iru bidar). Agur, Erregiña t Afla errukiorra...

V.—GUTB alde otoitz egizu, Jaungoikoaren Ama done frek.

E.—Jesukristoren agitzariak jaritxi daiguzan (1).

Oto^ltz egin daigun.—Gure igesileku ta goi-indar zaitu-
çin (2) Jaungoiko orrek, zuri deika daukazun erria begi
ciez begiratu egizu; ta Marla Jaungoikoaren Ama Maria
btHBdrjña done zorionsua (3), t^a bere señar San José (4),
t. San Pedro ta San Paulo Apostolu doatsuak bitarteko
criala (5), pekatarien dam.ua ta Bliza Ama santuaren as-
kitasuna t^a goramena eskatuaz zuzentzen deusguzan erre-
giak errukiz ta biotz bigunez entzun egizuz (6). Amen.

San Migel GokAingeru, gure arimearen gudaldietan gorde
gigizuz eta deabruaren gaiztakeri ta azpikerien kontra zain-
diri izan zakiguz. Jaungoikoak menperatu dagiaia erregu ta
eregu eskatzen deusgu. Ta zeruko gudari-taldearen buru
isrean ezkerre, munduan zear arimak ondatzen diarduen Sa-
taian ta generako (7) deabru gaiztoak zure Jaungoizko in-
da^{re}z inpernura jaurti egizuz. Amen.

V.—Jesus (8) Biotz guztiz done.

R.—Erruki gagizuz (9) (Iru bidar).

«ET FAMUÏLOS» OTO^lERASKIÑA

Gorde, Jauna, ezbear guztitik zure morroiak: gure Aita
Jiantu N., gure gotzain N., gure buruzagi N., bere menpeko
prii ta gudarozteagaz: jadetsi eiguza bakea ta osasuna gure
egunotan, eta ald-endu egizu zure Blizatik gaiztakeri guztia:
urrindutako guztiaq etorri daitezaila Eliza bakarrera, ta si-
risbage guztiak Barri Onaren argitara: ta lurra^k emon-
dakoak galdu bagarik gorde egizuz, arren. Amaibagako.

(1) Itzez itz, beste onetara: Kristo^{ren} agintzariak ja-
risteko gei (duin) egin gaitzezan. (2) Zaran *naiz* zaraan.
(3) Ta orbanbagea (et immaculata). (4) Doatsua, ta...
(5) Diraila *naiz* direala. (6) Auxe ekarri bear leuke emen:
Kristo gure Jaunaren berberareri bidez. (7) Beste. (8) Jesus^{en}
(9) Zakiguz.

ONERASPEN-MEZAK

IIXEKO LENENGO EGUENEAN

Illeko lenengo eguenean, Abadeen alde Otoitzak egiten diran elizetan, Jesukristo Abade Nagusi ta Betikoaren Meza bat esan daiteke, 3'gn. maillako Oneraspn-Meza eraz.

GURE JAUN JESUKRISTO ABADE NAGUSI TA BETIKOAREN IMEZA

z ut iz

Sarrera.—Zin egin dau Jaunak, eta ez yako damutuko: abade zara zú betiko, Melkisedek'en saillean. (P. A. Aleluia, aleluia).—Ps. Jaunak nire Jaunari auxe esan «utsan: Jesarri zaitetz nire eekumal'dean.—Aintza.

Ez da Gloria'rik.

Otoitza.—Zure auniditasunaren aintzarako ta gizadiaren osasunerako, zure Seme Bakarra Abade nagusi ta betiko egin zenduan Jaungoikoa: egizu, zure Sakramentuen laguntzaille ta zabaltzaille aukeratu ebananak, artu ebezan egikizunak zintzo bete dagiezala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

2'gn. **Otoitza:** *egunari dagokiona.*

Irakurgaia ,(S. Paulo^k Etoertarrai, 5, 1-11).—Anaioki: Edozein gotzain, gizartetik artuta, Jaungoikoari dagokiozan gauzetan gizonen alde jarria da, pekatuakaitik eskingai ta opariak eskiñi dagizan; baiña, bera be argalkeriz inguratuta dagoan ezkeru, ezjakin eta okertuak bigun erabili dagizan be. Ori dala-ta, erriaren alde lez, bere buruaren alde be opariak eskfiñi bear dauz pekatuakaitik. Inok ez dau, barríz, ardura goragarri ori berez beraganatzen, Aaron'i lez Jaungoikoak dei egiten ez ba'dautso. Orrela, Kristo'k berak be ez dau berez abadeburutza ori artu: «Zeu zara nire Semea, Neuk sortu zaitut gaur», esan eutsanak emonda baiño. Beste nunbaiten be ba[^]diño: «Abade zara zu betiko, Melkisedek'en saillean». Au, Kristo da, bere aragi bizitzaldian, eriotzatik zaindu al leu-

keanari deadar aundiz eta negarrez otoitzak eta eskariak eskiñi eutsazana; eta entzuna izan zan bere begiruneagaitik. Eta Jaungoikoaren Seme izanarren, nekeak jasanda, esaneko izaten ikasi eban; eta iltean, Aren esaneko diran guztientzat betiko osasunbide egin da, Melkisedek'en saillean Abadeburutzat Jaungoikoak iragarritta. Onetzak, jardun (itzaldi) luzeak izango gendukez, baiña azaltzeko gaitz dira.

Kor-u-kaaita.—Jaunaren Arnasa (Efepiriutua) nire gainean: onexegaitik santutu nau igurtziaren bidez. Beartsuai Barri Ona iragartera ta biotz-naigabetuak osatzera bialdu nau.

Aleluia, aleluia.—Jesus'ek, beti dirauan (irauten dauan) ezkeru, betiko abadegintza dauko. Aleluia.

Zazpiaste-ondoren, aurreko Aleluia or&ez, beste au:

Luzag'aria.—Jagi zaitetz, Jauna, jaso egizu esku ori; ez aztu apalakaz. Ikusi arein zoria, atsekabea ta nekea ezagutzen dozun orrek. Zeuk dozu beartsuaren ardura; Zeu zara umezurtzaren laguntza.

Pazkoaldian, Koru-kanta ta Luzagarria itzirik, auxe esaten da:

Aleluia, aleluia.—Jesus'ek, beti irauten dauan ezkeru, betiko abadegintza dauko. Aleluia.—Jaunaren Espiritua nire gainean: onexegaitik santutu nau igurtziaren toidez, eta beartsuai Barri Ona iragartera ta biotz-naigatoetuak osatzera bialdu nau. Aleluia.

Barri Ona (Lufe., 23, 14-20).—Aldi aretan, Jesus maian jarri zan aanabi apostoluakaz. Eta esan eutsen: «Gogo biziz nengoan, Nekaídia baiño len Pazko au zeukaz jateko. Ba-dirautsuet: ez dot beste bein jango, Jaungoikoaren Erreiñuan bete arte.» Eta ardao-ontzia arturik, eskerrak emon eta esan eban: «Artu ta banatu egizue zeuen artean; ba-dirautsuet: aurrerantzean ez dot matsardaorik edango, Jaungoikoaren EiTeiñua etorri arte.» Eta ogia arturik, eskerrak emonda, zaitu ta *ikasleai* emon eutsen, esanez: «Au, neure Gortutza da, zuekaitik emoten dana; egizue au neure gomutaz.» Era toorean, apalondan, edontzia (kaliza) arturik, esan eutsen: «Ontziko au Alkartasun barria da, zuen alde isuritako neure Odola.»

Eskinitza.—Kristo, pekatariakaitik opari bakarra eskiñi ondoren, betiko jesarrita dago Jaungoikoaren eskuimaldean; opari bataz osasun beteá santutuai betiko ekarri dautse-ta. (P. A, Aleluia.)

Opa.TÍ-otr>itza.—Gure bitarteko dan Jeeukristo'k gogoko egin dagitzuzala, Jauna, oparigaiok; eta Beragaz batera, zure oparigai atsegingarri biurtu gagizala. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santua-gaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Kanon-aurrea: *Geienetakoa*, 430 orri.

Ja.U'nartzera-koa.—Zeuen alde emongo dan Gorputza da au; ontziko au, Alkartasun barria da neure odolaz, diño Jaunak; artu dagizuen bakotxean, neure gomutaz egizue. ((P. A. Aleluia.)

Azken-otoátzia.—Bizkortu gagizala, Jauna, eskiñi dautsugun eta artu dogun opari zerutar onek; maitasun etentoageaz Zeugan bat egiñik, beti irauñ dagian frutua emon daigun. Amaibagako.

ILLEKO LENENGO BARIKUAN

Illeko lenengo barikuan, Jesus'en Biotzaren omenez otoitzak egiten diran elizetan, Jesus'en Biotzaren Meza bi esan daiiekez, 3'gn. maillako Oneraspen-Meza eraa..

JESUS'EN BIOTZAREN MEZA

z UT ÍZ

Meza: Jesus'en Biotzaren egunekoa, 337 orri.

ILLEKO LENENGO LARUNBATEAN

Illeko lenengo larunbatean (zapatuan), AnáWa Maria'ren Biotzaren omenez Otoitzak egiten diran elizetan, Andra Maiia'ren Biotz guztiz Garbiaren Meza bat esan áitiiteke, 3'gn. maillako Oneraspen-Meza eraz. Ikusi 711 orri.

•SINÍSMEN-ZABALKUNDE-JVIEZA

U b ele z

Sarrera.—Erruki izan dakigula Jaungoikoa ta be-deinkatu gagdzala; bere arpegiaren edertasunak argi egin daiskula; irrean zeure bideak ezagutu daigun eta erri guztiak be bai zugandiko osasuna. (P. A. Aleluia.)—*Fs.* Gcratu zagiezala erriak, Jauna; goratu zagiezala erri guztiak.—Aintza.

Otoitza.—Gizaiki guztiak zeruratu daitezala eta egia ezagutu dagiela nai dozun Jaungoikoa: bialdu egizuz langilleak zure solora ta zure itza nasai-nasai iragarri dagiela: zure irakaspena zabaldu ta gora jaso daiten, eta erri guztiak Zeu bakanrik, egiazko Jaungoiko ori, autortu zagiezan, baita Zuk bialdu zenduan zure Seme ta gure Jaun Jesukristo be. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta.—Olantxe.

2'gn. Otoitza: *egunari dagokiona.*

Irakurgaiá (Ikastuna, Eocli., 36, 1-10, 17-19).—Erruki zakiguz, gauza guztien Jaungoiko ori; begiratu gagizuz, eta zeure biotz zabalaren argia erakutsi eiguzu. Bildurra sartu egiezu billatu ez zaituen erriai, Zeu baiño beste Jaungoikorik ez dala jakinda, zeure miragarriak iragarri dagiezan. Jaso egizu zure eskuá atzerrien gaiñera, zure indarra somau dagien. Arein aurrean zeure santutasuna agertu zenduaneg guban, geure aurrean be agertu dagizula zure auditasuna arekan: Zeu baiño beste Jaungoikorik ez dala ezagutu dagien, guk ezagutu dogunez, Jauna. Barriztu ezaugarriak, eta egin mirari barrlak. Goratu zure eskuá ta zure esku-mako besoa; bizkortu zure sumiña* ta isuri egizu zure asarrea. Ondatu egizu etsaia ta atsekabez josi arerioa. Aurreratu egizu azkena ta gogoratu agindutakoa, zure arrigarriak iragarri dagiezan. Autor egiezu asieratik Zeuk egingakoai, ta bete egizuz antxiñako igarleak zeure izenez egin ebezan agintzak; entzun egizuz zure menpekoen otoitzak, Aaron'ek zure erriari emon eutsan onepenenaren arauz. Zuzendu gagizuz zuzentasun Jbidetik: Zeu zareala, Jaungoiko ori, gizaldi guztien ikusle, lurreko lagun guztiakjakin dagien.

* Sumin = cálera.

Kortu-karrita.—Autortu zagiezala erriak, Jaungoikul; lurrak bere frutua emon dau.—Bedeinkabu gagizala gure Jaungoiko Jaunak; onetsi gagizada Jaungoikoak; lurreko bazterralde guztiak bildur izan dagioela.

AHeluia, aleluia.—Goratu Jaungoikoa, lurreko gizaki gjztiok; otseindu egizue Jauna pozez beterik; etorri pozik Aren aurrera. Aleluia.

Zazpiaste-ondoren, Aleluia ordez, Luzagarri au:

Luz<aga<rr.ia.—Azaldu erriai Jaunaren aintza ta Aleri arrigairriak erri guztiai.—Jauna, aundi ta gorapen osoa f.agokiona da-ta.—Errien jaungoikoak irudi ezerezak dira; baiña Jaunak zerua egin eban.

Pazko-aldian, Koru-kanta, Aleluia ta Luzagarria ordez, bes-ta au:

Aletluia, aleluia.—Goraitu Jaungoikoa, lurreko gizaki guztiok; otsemdu egizue pozez beterik; etorri poztk Aren aurrera. Aleluia.—Jakin egizue Jauna bera dala JaungOi.ko; Berak egin genduzan, eta ez geuk. Aleluia.

Rari Ona (Mat., 9, 35-38).—AMi aretan, Jesus uri ta erri guztietan ebillen, arein sinagogetan (batzar -tokietan) irakasten eta zeru-eirreinuaren Barri Ona zabaltzen, eta gaitz eta geiso guztiak osatzen. Eta gizataldeak ikustean, ibiotza mindu egin yakon, ardiak artzain bagarik 'baizen nekabuak eta jausiak egozala. Orduan, bere ikasleai auxe esan eutsen: «Solo -aria, ugaritsu da; langilleak, ostera, gutxi. Beraz, otoi egiozue isoio-ariaren jaibeari, ilangllleak bere solora bialdu dagizan».

Eskintza.—Emon egiozue Jaunari, erriok!, emon egiozue gorafflidia ta agintaritza; *emon* egiozue Jaunatfi, beroni dagokion aintza; artu egizue oparia ta sartu zaiteze Aren Etxe santuan; gurlu egizue Jauna beronen aterpe santuetan. OP. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Ikusi gagizuz, Jaungoiko gure laguntzailte orrek, eta begiraitu gizon guztiak sal'batzeko bere burua eskiñi eban zure Kristo; eta egizu, enri guztiak, eguzki-sortzaldetik sartzalderaiño, goratu dagie-la zure izena, ta eskiñi dagituela toazterralde guztie-

tai opari garbia. Amaibagako ...eta zure Semearen b<rberairen bidez.—Olantxe.

Jaunartzeirakoa.—Goratu egizue Jauna, gizaki guzti(k); txaloak jo egiozuez, erri guztiok; guganako Aren erukia osoa da-ta; Jaunaren zintzotasunak beti dirau (iauten dau).

Azken-otoitza.—Gure erospen-sariaz janarituriff, Jaina, betiko osasunaren Sakramentu onen bidez, egazko sinismena geitu daitela gugan beti. Aniaibagato.

ESKONTZA

Jaimgoikoak, munduaren asieran egin eban eskontza, Adffi eta Eba'ri, lenengo senar-emazbe biai esan eutseman: «Ujaritu zaiteze». Eta senar-emazteak ailkarregaz bizi izateko eginen d&ben egipena da. —Eflizan egin oi da au, eliz-gizonaren aurrean; onek, bedeinkatu egiten dauz, baiña ez ezkondu: ezkonbarriak eurak dira ezkontzaille, alkarrj esaten dautsezan itzen bidez. Orrefla, lotuta gelditzen dira ausi -ezinezko iokarriz, bizi diran guztirako. —Ezkontza au, Sakramentu egin eban J<sukristo'k. —Gizonak emaztea, zelan maHe izan bear dau? Paulo deunak erantzuna: Kristo'k Eliza lez,

ALTARA-OISÍEAN

Senargeia eskuman eta emaztegeia ezkerrean jarten dira, zutik. Abadeak bakoitzari itaun oneik egiten dautsaz:

N, artzen dozu gogoz, Eliza Ama deunak agintzen dauanez, zure senar jatortzat, emen dagoan N.?

Emaztegeiafc: Bai, Jauna.

N., artzen dozu gogoz, Eliza Ama deunak aginitzlen dauanez, zure emazte jatortzat, emen dagoan N.?

Senargeiak: Bai, Jauna.

Abadeak, alkarrj eskumako eskua emoteko esaten dautse, alkortasun ezin-askatua adierazoteko, ta auxe diño:

Ezkontzaz alkartzten zaituet, Aitaren, eta Semearen f eta Espiritu Santuaren izenean. Olantxe.

Gero, *abadeak eraztuna bedeinkatzen dau:*

A.—Gure indarra Jaungoikoaren izenean dago.

E.—Arexek egin dauz zeru-lurrak.

A.—Jauna, entzun nire eskaria.

E.—Ta nire otoit&deia eldu bedi Zugana.

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

Otoitza.—iBedeinkatu *f* egizu, Jauna, nik zure íze-
nean bedeinkatzen *f* dodan eraztun au; ta eskuan da-
karrena, bere senarrari zintzotasun osoa izanik, Zure
bakean eta naian egon daitela, ta alkarreganako mait-
tasunean 'bizi dadílla beti. Krísto gure Jaunaren bidez.

E.—Alan izan daditla.

*Abadeak eraztuna senarrari emoten dautso, ta senarrak
emaztearen atzamar-nagian sartzen dau. Bitartean, abadeak auxe
esaten dau:*

A.—Aitaren, eta Semearen, eta *f* Espiritu Santuaren
izenean.

E.—Olantxe.

A. Indartu egizu, Jauna, guban egin dozuna.

E.—Jerusalen'go zure eliza santutik,

Jauna, -erruki zakiguz.

Krístó, enrukí zakíguz.

Jauna, erruki zakíguz.

Aita gurea... *fixilik*.

A.—Ez gagizun itzi tentaziñoan jausten.

E.^Gaitzetik jagon .baíño.

A.—Zaindu egizuz, Jauna, zure menpekoak.

E.—Zeugan dabe itxaropena-ta, ene Jaungoiko!

A.—Bialdu egiezu laguntza zure etxe santutik.

E.—Eta gorde egizuz Sion'dik.

A.—Izan zakiez, Jauna, torre gogor.

E.—Arierioen aurrean.

A.—Jauna, entzun nire eskaria.

E.—Ta nire otoitz^deia eldu bedi Zugana.

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zure ariman be.

Otoitza.—Begiraitu, Jauna, zure menpekook; eta
zaindu egizu, gizadia úgaritzeko egín dozun ezkontza
au: Zeuk alkartu dozuzan ezkeró, Zeure laguntza izan
dagien. Krísto gure Jaunaren bidez.

E.—Oiantxe.

Ezkantza amaitu ondoren, Opari santua edo Meza egiten da.

EZKOÍf-MEZA

*OARBA.—Meza au ezin esan daiteke Domeketan, ezta l'go.
maillako jaíetan be.*

Sarrera. — Israel'en Jaungoikoak batu zagiezala;
izan bedi Bera zuekaz, bioi erruki yatzue-ta; orain,
Jj.uma, goratu zagiezala ugariago. (P. A. Aleluia, alle-
luia.—*Ps.* Zorionsuak benetan, Jaunaren toiidur di-
ran guztiak, Aren bideetan dabizanak —Iaintza.

«*Gloria ín exceísís*» esaten da.

Otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko alguztidun eta
errukior orrek; eta nik emoten dautsedan onespena,
Zureaz beteago izan dakiela. Amaibagako.

2'gn. Otoitza: egunefcoa.

Irakurgaia.—Anaiok: Bego emaztea senarraren men-
pean, Jaungoikoaren merupean dagoanez: emaztearen
buru senarra da-ta, Krísto Elizaren buru danez. Berak
salbatzen dau Berea dauan Gonputza. Beraz, Eliza
Krísto'ren menpean dagoanez, emazteak be bai auren
senarren menpean, gauza guztietan. Zuek, senarrok
maite egizuez zuen emazteak, Krísto'k Bliza maite ta
anen alde 'bere burua emon ebanez, ur-tbateoaz ta ber-
baz santu ta gaiibi eginda. Bere aurrean Eliza argitísu
agertu-erazoteko, ezetariko orban, txitnur edo olakorik
baga, santu ta garbi baíño. Senarrak be, orrelaxe
izan bear daibez maite euren emazteak: euren gor-
putzak lez. Emazteak maite dauanak, toere burua mait-
te dau. Ta ínok ez dautso bein be 'bere aragiari go-
rrotorik izan; bai, osterá, azi ta zaindu, Krísto'k
Eliza lez: bere gorputz-atal gaitu-ta, azur eta mamin.
Orregaitik, gizonak "bere aita ta ama itzi egingo dauz,
eta bere emazteagaz alkartuko da, ta toiak aragi bat
egingo dira. Aundia da misterio au: Krísto'ren eta
Elizaren artekoa díñot, gero. Orrela, zuetariko ba-
koitzak norbere emaztea bere tourua lez maite begi;
emazteak, toarriz, senarrairi lotsa izan begio.

Koru-kanta.—Zure emaztea, maasiti ugarítsua izan-
go da zure etxe-barruan.—Zure semeak, orio-muskillak
lez zure mai-inguruan.

AJelulia, aielulia.—Bialdu begífzue Jaunak laguntza
bere etxe santutik, eta gorde zagiez Sion'dik. Aleluia.

Zazpiaste-ostean, Aleluia ordez, beste au:

Luzagarria.—Orrelaxe izango da bedeinkatua Jaunaren bildur dan gizona.—Jaunak bedeinkatu zagizala Sion'dik, eta ikusi dagizula zure bizitzako 'egun guztietan Jerusalem'en ondasuna, baita zure semeen semeak be: bakea Israel'entzat.

Pazkoaldian, Koru-kanta ta Luzagarria ordez, beste au:

Aleluia, aleluia—(Bialflu begitue Jaunak laguñtza bere etxe santutik, eta gorde zagiez Sion'dik. Aleluia.—Jaunak bedeinkatu zagiezala Sion'dik, zeru ta lurak Berak egin dauz-ta. Aleluia.

Barri O~~n~~a (Mat., 19, 3-6).—Atdi aretan, pariseotarrak Jesus'egana urreratu ziran, aapikeriz zirautsoela: (eBidezko al yako senarrari emaztea edozegaitik iztea?) Jesus'ek erantzun enarras: «Ez al dozue irakurri Egilleak asieran ar eta eme egin ebazala, ta auxe esan ebala: "Onegaitik, gizonak aita ta ama itzi, ta bere emazteagaz batuko da, ta biak aragiz bat izango dira?" Beraz, arrezkero ez dira bi, aragi bat baiño. Beraz, Jaungoikoak baxt egindakoa (alkartutakoa), gizonak ez begi banandu.»

Esrintza.—Zeugan jarri dot, Jaúna, nire uste ona"; Zeu zara nire Jaungoiko —esan dot—: zeure eskuetan dagoz nire egunak (P. A. Aleluia).

Opari-otoitza.—Artu egizu, Jauna, ezkontzako lege santu onegaitik eskintzen dautsugun opari au; eta eskontzaren egille Zieu zaran ezkeru, zuzendari be izan zaitez. Amaibagako.

"Pater noster" ostean, abadea senar-emazteakana biurtzen aa, Otoitz au esateko:

Artu biotz onez, Jauna, gure eskariak; eta gorde egizu gizadia ugaritzeko egin dozun ezkontza au: Zeuk alkartu dozuzan ezkeru, Zeure laguntza izan dagien. Jesukristo gure Jaunaren bidez. Olanitxe.

Zure eskuaren indarrez dana ezerezetik egin dozun Jaungoikoa: zeru4urrak eratzean, zure antzera egindako gizonari emaztea lagun ezin-itzia emon dautsazuta, gizonaren gorputzetik emaztearena ataraz, Zuk batetik egin zenduzanak ez dirala banandu bear adierazoteko: ezkontzako alkartasuna misterio aundi baten bidez santutu dozu, Jaungoikoa, Kristo'ren eta

Elizaren arteko batasunaren antzeko dana: Zeuk baten dozu emaztea gLzonagaz, eta Zeuk bedeinkatzen tiozu lagunarte santu au, ta onespén au ez yako kendu ez jatorrizko pekatuz, ©zta uriol aundiaz be.

Begiratu egizu biotz onez mirabe au, gizonagaz alkartzean, zeure laguntza eskatzen dau-ta; buztarri au, raaitasun-ibuztarri ta bake-t>uztarri izan bekio; Kristo'gan zintzo ta garfoi ezkondurik, emazte santuen antzeko izan dadilla: gizonarentzat maitagarri, Errakel lez; zur, Errebeka iez; zintzo foizitza luzean, Sara lez. Pekatuairén egille dan txerrenak ez dagiola egintzetatik ezer ostu; irauñ dagiala beti zintzo fedean eta aginduetan; bere senar bakarrari alkartuta, alde egin begi foeste gizakien orbanetik; indartu foegi bere alkartasuna bizikera latzaz; izan bedi era oneko ta batua, begirunez agurgarri, zeru-gauzetan ikasia; ue-ugaridun, onoimen-zale ta errubagea; ta zoriontsuen atseidenera el'du daitela zeruko erreñuan. Biok ikusi tiagiezala semeen semeak irugarren eta laugarren gizafldiragiño, ta zaartzairo zorionsua izan dagiela. Amaibagako egunetan Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Jauraritzerakoa.—Orrelaxe izango da bedemkatua Jaunaren biidur dan gizona. Ikusi dagizuzala zure semeak; bakea Israel'entzat. (P. A. Aleluia.)

Azken-oitoitza.—Arren, Jaungoiko alguztidun! Emon egiozu laguntza zur« airduraz egin dozun ezkontzari: benetako alkartasunaz lotu dozuzanok, bake luzean gorde dagizuzan. Amaibagako.

"Ite Missa est" esan ondoren, abadeak senar-emazteakana biurturik, Otoitz au esaten dau:

Izan bedi zuekaz Abraihan'en, Isaak'en eta Jakob'en Jaungoikoa, ta Berak bete zagiezala onespenez: semeen semeak irugarren eta laugarren gizaldiragiño ikusi dagizuezan, eta gero betiko bizitza amai бага izan dagizuen. Izan egizue ilagun Jasukristo gure Jauna, amaibagako egunetan Aita ta EspMtu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi da-ta. Olantxe.

Meza amaitu ondoren, abadeak senarrari dirautso:

Laguna damotsut eta ez rñiralbea: maite egizu, Kristo'k Eliza maite dauanez.



MEZA-OTOTTZ BATZUK

I—KRISTAU-BATASUNAREN ALDE

Otoitza.—Okentutakoa zuzendu, zabaldutakoa batu ta batutakoa -batuta iraunderazoten dozun Jaungoikoa: isuri egizu biotz onez kristau-erriaren gaiñera zure foatasunaren grazia; banatzen dauana alfoora jaurti-irik, zure Elizaren egiazko artzainagaz alkartu daiten, eta Zeuk nai dozun eraz otseindu zagizan. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Sanitutu egizuz, Jauna, kristau-erriaren batasunaren alde eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta euron bidez, Elizan bakea ta batasuna jadetsi egizu. Arnaibagako.

Azken-otoitza—Artu dogun Eukaristi santuak, Jauna, fededunak Zeugan daben batasuna adierazoten dauan lez, zure Elizan be batasuna egin dagiala. Amaibí.gako.

II.—JAZARLEEN (aurrean ga,ro,billezan) ALDE

Ofcoitza.—Ondatu egizu, Jauna, gure areriosn arckeria, ta kendu egizu arein burugogorkeria zure eskuaren indarraz. Atnaibagako.

Opari-otoitza.—Sakramentu onen indarraz, Jauna, gure pekatu ezkutuetatik garbitu ta guire arerioen ma)ltsurkerietatik onik urten gaitzala. Amaibagako.

Azken-o.toitza.—Begiratu gagizuz, gure zaiiitzaile zorean Jaungoiko orrek!, eta zaindu gagizuz gure arerioen arriskuetatik: era-nastu guztiak alde batera kenduta, zure morroitza biotz nasaiz jairdun dagigun. Amaifoagako.

III.--BAZKUN BATEN AI/KARTASUNAREN IRAUPENERAKO

Otoitza.—Bakea enroten dozun eta gure alkar-maitasuna nai dozun Jaungoikoa: egizu zure menjpekooi, Zeuk nai dozun eraz bizi gaitzala, inguratzen gaituen z.'rikaldi (tentaziño) guztietatik onik urten gaitzean. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Oparigaiokaz baketuta, Jauna, egizu: gure pekatuak parkatzeko eskatzen dautsugun ezker, /besteek pekatuak ez gagiczala makurtu*. Atnai-bagako.

Azken-ofcoitza.—Isuri egizu, Jauna, zure maitasun-gogoa; zerutiko ogi berberaz janaritu gozuzanok, zure errukiz alkartasunean toizi gaitzean. Amaibagako.

IV.—EDOZEIN ATSEKABETAN

Otoitza.—Ez baztertu, Jauna, atsekabeen diez dagokizun erria; zure izenaren gorapenerako, bigunduta lagun zakiez naigabetuai. Amaibagako.

Opari-oitoltza—Artu egizuz foioitz onez, Jauna, gure oparigaiok: euron bidez nai izan dozu Zu biguntzea ta, zure maitasun aundiz, guri barrero osasuna emotea. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Jkusi egizu samurkiro, Jauna, gure atsekabea, ta aldendu egizu gugandik bidez irabazi dSgun zure asarrea. Amaitoagako.

V.—EURIA ESKATZEKO

Otoitza.—Zeugan dogu, Jaungoiko!, bizia, ibiltea ta izatea; emon egizu euri egokia; bizieta onetako fruituak aukeraz izanda, betikoak riasaia go gura izan daiguzan. Arnaibagako.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, eskintzen dautsuguzan oparigaiok, eta emon egizu euri egokiaren aukerako laguntza. Atnaibagako.

Azken-otoitza.—Emon egizu, Jauna, euri osaisun-gairia, ta isuri egizuz errukitsu zeruko urak lurreko azat tegoirtuetara. Amaibagako.

* Makurtu = agobiar.

VI.—ATSEKABEETAN EROAPENA ESKATZEKO

Otoitza.—Zure Seme bakarraren eroa/penaz, antxiñako arerioaren arrokeria ondatu dozun Jaungoikoa: e.jguzu, gogora ekarri daiguzala egokiro Berak gugaitik ainbeste maitasunez eroan ebazan nekeak, eta, Aren ikasbidez, ezbeirrak gogo onez eroan daiguzala. Amaibagako... eta zure Semearen berberaren bidez. Olantxe.

Opari-otoitza.—Artu egiauz samurkiro, Jauna, opari aneitako eskingaiok; eta zure aunditasunari biotz zintzoz eskintzen dautsaguzan ezker, emon eiguzu eioaipen¹grazia. Amaibagako.

Azkerr-otoitza.—Artu dogun Eukaristi santu onek, Jauna, biurtu daiskula galdutako girazia; eta beti ta edonun gu zaindurik, ezbear guztietan eroapen-doaia emon daiskula. Aimaibagako.

VII—ARERIOEN ALDE

Otoitza.—Bakearen eta maitasunaren maitatzaille ta zaintzaille (jagole) zarean Jaungoikoa: emon egiezu gure arerioai bakea ta benetako maitaisuna; emon egiezu pekatu guztien parkamena, ta arein maltzurketatik onik atara gagizuz zeure besoaren indanraz. AmaibagEuko.

Opari-otoitza.—Artu egizuz, Jauna, eskintzen dautsuguzan oparigaiok; onik atara gagizuz zure errukiz gure arerioen eskuetatik, eta eurai pekatuen parkaraena emon egiezu. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Jaunartze onek, Jauna, uirrindu gagizala pekatuetatik, eta zaindu gagizala arerioen maltzurkerietatik. Amaibagako.

VIII.—GILTZAPEKOEN ALDE

Otoitza.—Fedro apostolu doatsuaren kataiak ausirik, onik atara zenduan Jaungoikoa: eten egizuz arerioen buztarpean dagoan zure morroiaeren kataiak, eta egiozu, fcere irabazien foidez, ioirtu dagiala barriro bere aska[^]tasuna. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Jatsi dadi'lla, Jauna, zure ones;penugaria oparigai onein gainera; ausi dagizaila giltzapetu onein kataiak eta poztu gaitezala laster aren askatasunaz. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Ientzun egizuz errukitsu, Jauna, gure eskariak; eta artu doguzan Sakramentu onein bidez, aiskatu egizu zure morroia joputzako* kataietatik. Amaibagako.

IX.—EDOZEIN BEARRIZANETAN

Otoitza.—Gure igesleku ta indarra zarean Jaungoikoa: errukiaren iturri zarean ezker, entzun biotz orez zure Elizaren eskariak; eta eiguzu, sinismenez eskatzen doguna, egitan jadetsi daigula. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Egizu, Jaungoiko eirrukiorek!, opari osasungarri onek urrindu gagizala beti gure erruetatik, eta ezbear guztitik zaindu gagizala. Amaifoagako.

Azken-otoitza.—Eukaristi santuaren sariak artu doguzan ezker, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zeure gomutaz egiteko agindu zeuskun Eukaristiak, indartu dagiala gure argaltasuna. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta. Olantxe.

X.—BAKEA ESKATZEKO

Otoitza.—Gurari santuak, asmo zuzenak eta egintza onak Zeugandik datoz, Jaungoikoa! tEmon egiezu zure menipekoi munduak ezin emon daiken bakea; gure biotzak zure aginduai iotuta eta arerioen bildur bagarik, aldi oneik baketan igaro daiguzan zure lagun-tzaz. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Zugan sinisten daben erriak iñungo ikarapean izten ez dozuzan Jaungoikoa; artu egizuz, arren, Zeuri eskiñi yatzun erriaren eskariak eta ope-riagaiak: kristau-erriaren mugetan, arerio guztien aurka, zure maitasunak saritzat emondako bakea izan daigun. Amaibagako.

* Joputea s cautividad.


Azken-otoitza.—'Bakearen egi'lle ta maitatzaille zairean Jaungoikoa: Zu ezagutzea bizi izatea, ta Zu ctseintzea errege izatea dan ezker, zaindu gagizuz arerioaren ekiñaldietatik erreguz gagokizuzanak; zure lagunifczan uste osoa izanda, iñungo arerioresen bildurrik izan ez dagigun. Amaibagako.

XI.—ESKERRAK EMOTEKO

Otoitza.—Zure errukiak ez idau azkenik, Jauna, ta neurririk ez zure ontasanak: askerrak etnoten dautsuguz, Jaun aundi arri, artutako mesed-eakaitik, zure errukía beti eskatuez; eta eskariak egiten dautsuezanai emon egiten dautsezuzan ezker, ez egizuz bertan-toera itei, betiko sariak artzeko gertau baiño. Amaibagako.

Opari-otoitza.—IArtu egizu, Jauna, opari onen usain ona eskerrak emoteaz batera; eta orain arte entzun eta onik iiraunerazo dozuzan ezker, aurrerantzean be gorde egizuz ezbear guztitik, eta gero-ta maitasuTi beroagoz otseindu zagiezala. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Zugan itxaroten dauana, Jaungoiko!, ez dozu lar atsekabetzen, aren etskariak entzun baiño; eskerrak emoten dautsuguz gure otoitzak eta gurariak enltzun dozuzalako; eta biotzbiotzez eskatzen dautsugu: artu dogun Sakramentu onek, zoritxar guztitik onik ataira gagizala. Amaibagako.



ILDAKOEN MEZAK

I.—NORBAIT IL DAN EGTJNERAKO MEZA

Ondo zauritu ta mindurik geldtzen gara biotzez maite dogunen bat, nalz etxean naiz etxetik kanpora, ijten yakunean. Baiña, ez da dana amaitu. Eguzkia itxaspera sartu ta ostenduarren, urrengo egunean argi joriagoz agertu oi yaku. Orrelaxe jazoko da gugaz be: ilraren be biztu egingo gara barriro, ailkarregandik inoiz ibe banantzeke zarion utsean bizi izateko. Uste onek poztu beziz gure biotzak. Eta malko artetik, betoz eskari sutsuak ildakoai laguntza eroateko, arima areik mallkoak baiño askoz maiteago dabezan otoitz biotze-tikoak. Emon be-gie Jaungoikoak lenbaflen betiko atsedena ta argial

Gorpua elizan sartzean, otoitz oneik egiten dira:

A.—Zatorkioze, Jaungoikoaren Santuok, laguntza ekartera; bidera urten zakioze, Jaunaren Aingeruok: 'artu bere arima ta eroan egizue Goiko Jaunaren aurrera.

E.—Oei egin dautsun Kristo'k artu zagizala, ta eroan zagiezala Aingeruak Abraham'en altzora.

* Artu bere arima ta eroan egizue Goiko Jaunaren aurrera.

E.—Emon egiozu, Jauna, betiko atsedena; ta betiko argiak argi egin ijegio.

Eroan egizue Goiko Jaunaren aurrera.

M E Z A

Sarrera.—iEmon egiezu, Jauna, betiko atsedena: ta betiko argiak argi egin begie.—*Ps.* Zeuri dagokizu, Jauna, Sion^{en} garapena: Zeuri eskiñiko yatzu Jerusalem^{en} oparia; entzun egizu nire olotza, gizaldi osoak Zeugana joan bear dau-ta.—Emon egiezu, Jauna...

Otoitza.—Beiti erruki izatea ta parkatzea dagckizun Jaungoikoa! Gaur bizitza onetatik eroan dozun zure morroi (mirabe) N.^{ren} arimaren altie auzpaz eiskatzen dautsugu: ez egizu itzi arerioaren ieskuetan, eta ez zaitetz aztu aretzaz betiko; aimgeru santuak artu ta goiko zorion-errira eroan dagiela baiño; ta Zeugan itxaron eta sinistu eban ezker, inpernuka oiñazerik ez dagiala jasan, -betiko atsegiñaren jabe egin daitela baiño. Amaifoagako egunetan Zeugaz eta, Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi dan Jesukristo gure Jaunaren bidez. Ola/ntxe.

Irakurgaia (S. Paulo'k Tesalonika'koai l'goa: 4, 13-18).—Anaiok: Ildakoetak zuek ez-jakiñean egoterik ez dogu nai, itxaropenik ez dabena lez naigabetu ez zaltezen. Jesus il eta biztu egin zala sinisten ba'dogul Jesus'egain ildakoak be Jaungoikoak Aregaz ber&ganatuko dauz. Jaunaren izenean dirautsegu: bizi garanon, Ja/unaren etorrer&rako itziok, ez gakiez a/urreratu ildakoai. Goiaingeru-oiuz eta Jaungoikoaren idar -otsez dei eginda, Jauna Bera jatsiko da zerutik; eta Kristo'gan ildakoak biztuko dira lenengo. Gero gu, bieitan geldituok, aidean odeietan zear Kristo'gana eroango gaitue, ta olan beti Jaunagaz egongo gara. Eeraz, poztu egizue alkar berba onekaz.

Koru-kanita.—Emon eglezu, Jauna, betiko atsedena, ta betiko argiak argi egin begie.—Gomutagarria izango da beti gizon zuzena: ez dau izen txarraren bildwrik izango.

Luzagairria.—Askatu egizuz, Jauna, zintzo ildafa guztien arimak p'ekatu guztien lokarritik.—Eta zure grazia lagun dabela, zure asarrezko epaiari iges egin begioe.—Ta jadetsi begie betiko argiaren zoriona.

«Dies irae» jarraikia

1.—Asarre-eguna, egun a, lurra austuko dauana, pabld eta Sibfla'k autortzen dabenez.

2.—Itzela izango da bildurra, guztia zorrotz ebazteko Epaillea agertu daitenean.

3.—Turutak, illobietan ots ikaragarria zabaldurik, guztiki Jaungoikoaren aurrera eroango gaitu.

4.—Eriotza ta giza/dia arritu egingo dira, Epaillearrj erantzuteko gizakiak jagi daitezanean.

5.—Guztia idatzita daukan Uburua irakurriko dau, rnumduaren auziari asiera emoteko.

6.—Epaillea jesarri daitenean, isilpeko guztiak agertuko dira; ezer ez da zigor bagarik geldituko.

7.—Zer esango dau orduan ni lako gaisoak? Nor jarriko dot nik bitarteko, zintzoa be larri aurkituko da-ta?

8.—Zerurutzen dozuzanak, utsean eroaten dozuzan Errege aumdi orrek!: salbau nagizu, erruki-iturburu orrek!

9.—Gogoratu egizuz, Jesus samur!, guztia neugaitik egin zenduala; egun aretan ez nagizu galdu.

10.—Nire ibilla ibiltean, nakatuta jesarri zintzazan; gurutzean eriotza jasanik erosi nenduzan: ez bedi alperreko izan arenbesteko lana.

•11.—Zigorren epaille zuzena; parkatu nagizu epaikundea baiño len.

12.—Errudunaren antzera nago negarrez; erruak gorri jarri dau nire arpegia; arren, parkatu nagizu, Jauna!

13.—Mari Madalen parkatu, ta lapurra entzun zentfuan orrek, neuri be itxaropena emon zeustan.

14.—Nire otoitzak ez dira Zure duin; baiña Zu, Jaun on ori!, samur izan zakidaz, betiko sutan kiskaldu ez naiten.

15.—Egidazu tokia zure bildotsen artean, eta akerrakandik aldendu nagizu, zure eskumakaldean jarrrerazorik.

16.—Gaiptoak min-garretara ondatu dagizuzanean, zure aukeratuakaz batera dei egidazu.

17.—Auzpaz eskatzen dautsut, biotza damuz austu-ñca: izan egizuz nire azkenaren ardura.

18.—Negargarria benetan egun a, gizon erruduna epaitua izateko autsetik jagiko dan egun a!; parkatu egiozu, Jauna.

19.—Jauna, Jesus satnur ori! Emon eglezu guztiai atsedena. Olantxe.

Barri Ona (Jon, 11, 21-27).—Aldi aretan, Marta'k Jesus'i auxe esan eutsan: «Jauna, emen izan ba'zintzaz, mre neba ez zan ilgo. Orain be ba-dakit orraitin, Jaungoikoari eskatu dagiozun guztia, Jaungoikoak emon egingo dautsuna.» Jesus'ek dirautso: «Zure neba biztuko da.» Marta'k dirautso: «Ba-dakit azken-egunean berbiztuko dana.» Jesus'ek dirautso: «Neu naz biztuera ta bizitza: Nigan sinistu dagiana, i! ezker be, bizi izango da; ta Nigan sinistuz bizi dafiña, ez da egundo ilgo. Au sinisten dozu?» «Bai, Jauna —erantzun eutsan—; sinisten dot Kristo, lur onetara etorritako Jaungoiko biziaren Semea, Zeu zarana.»

Esrintza.—Jesukristo Jauna, zeruko Errege!: zintzo il diran guztien arimak inpernuko neke ta zulo sakonetik aldendu egizuz; leoiaren agotik atara egizuz; inpernuak ez dagizala iruntsi; ez daitezala illunpetara jausi: baiña Mikel buruzagi deunak argi santutara eroan begiz: *antxiña Abraham'i ta onen ondorengoai agindu zeutsen argitara.—Gorapenezko oparigai ta eskariok eskintzen dautsuguz, Jauna: abegi onez artu egisuz gaur gogora dakarguzan arimen alde: egizu, Jaun orrek, eriotzatik bizitzara igaro daitezala. *Antxiña Aíbrahan'i ta onen ondorengoai agindu zeutsen argitara.

Opari-otoitza.—Erruki zakioz, Jauna, zurre morroi tmirabe) N.'ren arimari, gorapenezko opari au aren alde eskintzen dautsugu-ta; arren, Jaungoiko aundi!, Meza bakegarri onen bidez, eldu dadilla betiko atsedenera. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Ildakoena*, 457 orri.

Jaiinartzerakoa.—Betiiko argiak argi pgin begie, Jauna: *zure santuakaz beti errukior zara-ta.—Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena, ta betiko argiak argi egin begie: *zure santuakaz beti errukior zara-ta.

Azken-otoitza.—Egiau, Jaungoiko algotidun orrek: gaur bizitza onetatik joan yakun zure morroi (mirabe) N.'ren arimak, Opari onen bidez bere pekatueta-

tik garbiturik, izan dagiala batera parkamena ta betiko atsedena. Amaibagako.

ILLOJBIRATZEA

Meza-ostean, gorpuaeren ondora joaten da abadea, ta urrengo otoitzok egiten dauz:

Jauna, ez zaitez sartu auzitan zure morroiaz, zure aurrean zintzo aurkitu daiteken gizonik ez dago-ta, pekatu guztiak Zeuk parkatzen ez ba'dauts&zuz beintzat. Beraz, zure epai zorrotzak ez dagiala naigabetu, gure kristau-íede ta otoitzak bere alde egiten dautsuen ez-ke-ro: ta zure graziaren lagxintzaz, galtzeko epaitik egin dagiala: bizi zala be, Irutasun deunaren ezaugarria eroan eban-eta. Amaibagako egunetan Errege bizi zara-ta.

E.—Olantxe.

Orain "Libera me" abesten da:

E.—Atara nagizu, Jauna, betiko eriotzatik, egun ikaragarri aretan. *Zeru-lurrak ikaraz asi daitezanean, f lurra suaz epaitzera etorri zaitezanean.

E.—iBildur-ikarak artu nau, auzia ta ondorengo zigorra etorten ikustean. *Zeru-lurrak ikaraz asi daitezanean.

E.—^Asarre^guna egun a, neke ta ezbearrez betea, egun aundi ta oso mingotsa. † Lurra suaz epaitzera etorri zaitezanean.

E.—^Betiko atsedena emon egiezu, Jauna: ta betiko argiak argi egin begie.

Atara nagizu, Jauna, betiko eriotzatik, egun ikaragarri aretan. *Zeru-lurrak ikaraz asi daitezanean, f lurra suaz epaitzera etorri zaitezanean.

Jauna, erruki zakiguz.

Kristo, erruki zakiguz.

Jauna, erruki zakiguz.

Aita gurea... (*ixillean*).

A.—Ez gagizuz itzi tentaziñoan jausten.

E.—Gaitzetik jagon baiño.

A.—Inpernuko atetik.

E.—Atara egizu aren arima.

A.—^Atsedena begi toakean.

E.—Alan izan bedi.

A.—Jauna, entzun nire eskaria,

E.—Nire otoi-deia elídu bedi Zugana.

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zeugan be.

Otoitza.—[^]Beti erruki izatea ta parkatzea dagokizun Jaungoikoa! Gaur bizitza onetatik eroan dozun zure morroi (mirabe) N.'ren arimaren alde auzpaz eskatzen dautsugu: ez egizu itzi arerioaren eskuetan, eta ez zaitetz aztu aretzaz betiko; aingeru santuak artu ta goiko zorion-errira eroan dagiela baiño; ta Zeugan itxaron eta sinistu eban ezker, inpernuko oiñazerik ez dagiala jasan, betiko atsegiñaren jafõe egin daitela baiño. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Olantxe.

Gero, *auxe abesten da*:

Atsegintokira eroan zagize Aingeruak: ara eltzean, artu zagize Martiriak, eta Jerusalem uri santura eroan zagize. Aingeru-taldeak artu zagizala; ta arako iLazaro eskekoagaz baitera, izan egizu betiko atsedena.

Abadeak.—Neu naz berbizkundea ta bizitza: Nigan sinistu dagiana, il ezker be, bizi izango da; ta Nigan sinistuez bizi dattena, ez da egundo ilgo.

[(Beaiediotas» abestia

(Luk., 1, 68-80)

Oneteia Jauna, Israel'en Jaungoikoa, Bere erria agurtu ta erosi daualako.

Eta bere morroi Dabid'en etxean osasun-endarra sortu dausku.

Bere igarle deunen bidez aspaldietatik esan euskenez:

Gure arerio ta gorrotatzaille guztiakandik atarako genduzala.

Gure gurasoai errukia agertuko eutsela, ta gogoratu ebal bere alkartasun santua.

Gure aita Aforatian'i emon eutsan zin-itza <agindurikoa) beteko euskula.

Bildurrik бага, gure arerioen eskuetatik atarata, oteintiu daigun.

Gure bizitzako egun guztietan Aren aurrean zintzo ta zuzen ibilliaz.

•Eta Zu, Umetxo ori, Altsuaren Igarle deituko zaitue: Jaunaren aurretik joango zara-ta, Ari bidea gertatzen,

Aren erriari osasun-jakintza irakasten, euren pekatuen parkamen bitartez.

Gure Jaungoikoaren errukiari esker, goitik etorri yaku-ta, artizarra legez.

Illunpean eta eriotz-gerizpean dagozanai argi egi-tera, gure oiñak bake-tbidetik zuzentzeko.

Emon egiozu Jauna betiko atsedena.

Ta betiko argiak argi egin begio.

Abesti-ostekoa.—>Neu naz berfoizkundea ta bizitza: Nigan sinistu dagiana, il ezker be, bizi izango da; ta Nigan sinistuez bizi daitena, ez da egundo ilgo.

Jauna, erruki zakiguz.

Kristo, erruki zakiguz.

Jauna, erruki zakiguz.

Aita gurea... (*ixilleanj*).

A—<Ez gagizuz itzi tentaziñoan jausten.

E.—Gaitzetik jagon baiño.

A.—Inpernuko atetik.

E.—Atara egizu aren arima.

A.—Iatseden begi bakean.

E.—Alan izan bedi.

A.—Jauna, entzun nire eskaria,

E.—Nire otoi-deia eldu bedi Zugana.

A.—Jauna zuekan.

E.—Baita zeugan be.

Otoitza,—Egiozu, Jauna, il dan zure morroi (mirabe) oni erruki au: zure naia beteten arduratu ta ezker, bere egiñen ordaiña ez dagiala betiko sutan artu; ta einen lurrean benetako sinismenak zintzoen arteko egin eban ezker, zure errukiak alkartu dagiala Aingeruen taldeakaz. Kristo gure Jaunaren bidez.

E.—Aian izan dadilla.

A.—Emon egiozu, Jauna, betiko atsedena.

E.—Ta betiko argiak argi egin begio.

A.—Atsedeen begi bakean.

E.—Alan izan dadilla.

II.—URTE-URRENEKO MEZA

Sarrera: 834 orri.

Otoitza__Parkamenaren Jaungoiko Jauna: urteurren. na gogoratzen dautsagun zure morroi (mirabe) N.'ren

arimari ernon egiozu, arren, bakezko tokia, zorieko atsedena, ta zure arglaren ditzira. Amaibagako.

Irakijrg-aia (Makafoeafarren 2'garrema: 12, 43-46).—1 Bgun areitan, Judas gizon oso adoretuak, diru-batze bat egiñik, Jerusalem'era bialdu ebazan bi milla (1) drakma zidarrezko, ildakoen pekatuakaitik oparia eskintzako, berbizkundeaz (geroko biziak) eritxi on eta bikaiña ebalako. Ilda jausiak bizirik jagiko zirala uste izan ez ba'leu, alperreko ta utsa litzakean illen alde otoitz egitea. Gaiñera, jaungoikoagan il ziranak, sari aundi beat eukela gertu, eritxon: Asmo santu ta osa» • sungarria da, beraz, illen alde otoitz egitea, pekatue-tatik garfoitu daitezana.

Koru-kanta ta Luzagarria: 834 orri.

"Dies irae" jarraikia, nai izan ezker esaten da, ...orri.

Barri Ona (Jon, 6, 37-40).—Aidi areitan, Jesus'ek judar-taldeai auxe esan eutsen: Aitak emon daustan guztia, Neugana etorriko da; ta Nigana etorri daitena, ez dot baztarrera jaurtiko: ez naz zerutik nire gogoá egiteko jatsi-ta, bialdu nauanarena egfteko baiño. Ta auxe da foialdu nauan nire Aitaren gogoá: emon d'austan guztitik, Nik ezertxo be ez dagidala galdu, azken I -egunean biztu dagidala baiño. Nire Aitaren' asmoa I auxe da: Semea ikusita Onen sinistea dagianak, beti-ko bizitza izan dagiala, ta Neuk biztu dagidala 'azken -egunean.

Eskiritza: 836 orri.

Opari-otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna, zure morroi (mirabe) N.'ren arimaren alde egiten dautsuguan I esk,ariok; eta gorapenezko opari au aren eriotz-urteu-] rreanean eskintzen daucsugun ezker, zure Santuen la- I gunartean alkartu egizu. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Ildakoena*, 457 orri.

Jaunartzerakoa: 836 orri.

Azken-otoitza.—Egizu, Jaungoiko alguztidun orrek: gaur eriotz-urteurrena gogoratzen dautsugun zure mor-] roi Omirabe) N.'ren arimak, Opari onen bidez bere] pekatuetatik ganbiturik, izan dagiala batera perkame-] na ta betiko atsedena. Amaib&gako;

(1) *Bi* milla irakuten da liburu jatorrean, eta ez amabi

ÍÍÍ.—ILLÉN EGUNBROKO MEZA

Sarrera.—Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena: ta betiko argiak argi egin begie — *Ps.* Zeuri dagokizu, Jauna, Sion'en goraipeña: Zeuri eskiñiko yatzu Jerusalem'en aparia; entzun egizu nire otoitza, gizaldi osoak Zeugana joan bear dau-ta.—Emon egiezu, Jauna...

Otoitz bat esaten da, bakoitzari dagokiona, 843 orri.; baiña Mezea edozein arimaren alde izan ezker, edo-ta a:imaren izena ez jakin, urrango Otoitz au esan bedi.

Otolotza.—Zintzo guztien Egjile ta Erosle zaran Jaungoikoa: zure morroien eta mirabeen arimai emon egiezu pekatu guztien garbitzea: gure eskarien bidez, beti gura izan dabon parkamena jaritsi dagien. Amaibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta.—Olantxe.

rrakurgaia (Jon'en Agerkariitjk, Aooc., 14, 13).—Egun areitan, dei bat entzun neban zerutik, niri ziraustala: «Ildatzi egizu: Zoriontsuak benetan, Jaungan il diranak! Aurrerantzean, artu dagiela atsedena euren lanetan: euren egintza onak jarraitzen dautsee-ta».

Koru-kanita.—Bmon egiezu, Jauna, betiko atsedena, ta betiko argiak argi egin begie.—Gomutagarria izango da beti gizon zuzena: ez dau izen txarraren bil-durrik izango.

Luza<g-arria.—Askatu egizuz, Jauna, zintzo ildako guztien arimak pekatu guztien lokarritik.—Eta zure grazia lagun datoela, zure asarrezko epaiari iges egin begie.—Ta jadetsi begie betiko argiaren zoria.

"Dies irae" jarraikia, nai izan ezker esaten da, ...orri.

Barri Ona (Jon, 6, 51-55).^Aldi aretan, Jesus'ek judar-taldeai auxe esan eutsen: «Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da; ta Nik emongo dodan ogia, munduaren foizirako neure aragia da». Judarrak, oster, alkaragaz eztabaidan asi ziran, esanez: «Orrek zelan emon daikengu bere aragia jateko?». Jesus'ek, barriz, esan eutsen: «Gizasemearen aragia jan eta Aren odola edan ez ba'dagizue, ez dozue zuekan bizitarik izango. Nire,

aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dau, ta Neuk biztuko dot azken-iegunean».

Eskántoa.—Jesukristo Jauna, zeruko Erregea, zintzo U diran guztien arimak inpemuko neke ta zulo sako-raetik aldendu egizuz; leoiaren agotik atara egizuz; ir/pernuak ez dagizjala iruntsi; ez daitezala illunpetara jauiii: baiña Mikel buruzagi deunak argi santutara eroan begiz: * antxiña Abraham'i ta onen ondorengoai agindu zeutsen argitara.—Gorapenezko oparigai ta eskariok eskintzen dautsuguz, Jauna: abegi onez artu egizuz gaur gogora dakarguzan arimen alde: egizu, Jaun orrek, eriotzatik bizitzara igaro daitezala. * Antxiña Abraham'i ta onen ondorengoai agindu zeutsen argitara.

Opari-otoitza.—*Bakoitzari dagokiona, 843 orri.; os-terantzean, beste au:*

Begiratu egizuz biotz onez, Jauna, zure morroiart eta mirabeen álde eskintzen dautsuguzan oparigaiok; eta kristau-sinismenaren irabazia emon zeutsen ez-kero, saria be lortu egiezu. Amaibagako.

Kanon-aurrea: *Idakoena, 457 orri.*

Jaunartzeirakoa.—Betiiko argiak argi egin begie, Jauna: *zure santuakaz beti errukior zara-ta.—Emon egiezu, Jauna, betiko atsedena, ta betiko argiak argi egin begie: 'zure santuakaz beti errukior zara-ta.

Azken-otoitza. — *Bakoitzari dagokiona, 843 orri.; bestela, beste au:*

Gure otoitz apalak on egin dagitsela zure morroiart eta mirabeen arimai, Jauna: garbitu egizuz pekatu guztietatik, eta emon egiezu zure erospenaren zatia. A'maibagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi zara-ta.—Olantxe.

ILLEN ALDE OTOITZ BATZUK

I.—ILDAKO GURASOEN ALDE

Otoitza.—Gurasoak aintzat izatea agindu dozun Jaungoikoa: erruki zakioz nire aitaren (amaren) arimari, ta parkatu aren pekatuak; eta neuk be ikusi dagidala betiko poz argi'sutan. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Ar.tu, Jauna, nire aitaren (atnaren) alde eskintzen dau'tsudan opan au: emon egiozu betiko poza bijzien erriaran, eta neu be aregaz batera alkar-tu nagizu Santuen zorionean. Amaibagako.

Azken-otio&tza.—Eukaristi samtu onek, Jauna, jade-tsi dagiola nire aitaren (am'aren) arimari betiko atsedena ta argia: ta zure graziak emon daisitala aregaz batera betiko koroia. Amaibagako.

II.—ILDAKO ANAI-ARREBA, SENIDE TA ONGILEEN ALDE

OtoHza.—Gizonai parkam'ena ta osasuna etnoten dautsezun Jaun.goikoa: bizitza onetatik joan diran gure fed&ko anai-anreba, senide ta ongilleak, Maria beti Birjiña doatsuaren eta zure Santu guztien bi-tartez, betiko zorionera eroan egizuz, arren. Amaiba-gako.

Opari-otoitza.—Azken bage errakior zaran Jaungoi-koa: onartu egizuz gure eskari apalok; eta zure izena auitortu eben gure anai-arreba, senide ta ongi-leen arimai, opari osasu'garri onen 'bidez, emon egie-zu pekatu guztien parkamena. Amaibagako.

Azken-otioitza.—Egizu, arren, Jaungoiko alguztidun eta errukior orrek: gure anai-iarreba, senide ta on-gilleen arimen alde eskiñi dautsugun opari onen in-darrez, pekatu guztietatik garbitu dagizuzala, ta zure errukiz, betiko argiaren zoriona jadetsi dagiela. Atnai-bagako.

III.—ILDAKO OIZONEZKO BATEN NAIZ BATZUEN ALDE

Otoitza—Enfczun, Jauna, zure erru'ki-eske egiten doguzan otoitzak: bizitza onetatik eroan dauskuzun zure morroi N.'ren arima, bake-erri ta argi-errian sarrrerazo egizu, ta zure Santuen lagun egizu. Amaibagako.

Opari-otoitza.—Zure morroi N.'ren aritnari on da-kiola, Jauna, opari au: berau eskiñiaz, gizakien pekatu guztiak parkatzen dozuz-ta. Amaibagako.


Azken-otoitza.—Askatu egizu, Jauna, zure morroi N.'ren ariina pekaifru guztien Jokarritik: toitzuera-egun aundi aretan, Zure Santu ta aukeratuen artean bizitza barri batera biztu daften. Amaibagako.

IV—ILDAKO EMAKUME BATEN NAIZ BATZUEN ALDE

Otoitza.—Emiki zakioz toiatz onez, Jauna, zure mirabe N.'ren arimari; ta lureko ortoan guztietatik garbiturik, emon egiozu betiko zeruaren zatia. Amaibagako.

Opajri-otoitza.—Opari onen bidez, Jauna, *zme* mirabe N.'ren arima pekatu guztietatik garbitu bedi, Opari au бага iñor be ez da errutik askatu-ta; eta eskari bakegarrion bidez, beti'ko errukia jadetsi da-giaia. Amaibagako.

Azken-otoitza.—Zure miraibe N.'ren ai'imak artu da-giala, Jauna, betiko argia: betiko errukizko indarra dauan Meza onetan, berak be artzen eban irabazia-ta. Amaibagako.



ILLEN MEZATARAKO ERRIARI AZALPENA

EUZitar rnaiteok: Ez gaitu gaur -eilizara e'karri etnen aurrean gorpu dagoan N.'ren izena ospatzeko asmoak, ezta bere etxekoái gure biotzeko samin-agurra agertzeko asmoak bakarrik be. Gaur eanen besterik ez egitea, oso gauza mot-za, otza ta u.fcsa izango litzake.

Eliza Amaren otoitzakaz geureak bat egiteko asmoak batu-erazo bear gaitu elizkizun onetan: Jaungoikoari geure il-barriarentzat betiko atsedena ta zeruko bakea eskatu foear daubsagu.

Kristau^leriotza!k, Jesukristo'ren eriotza dakarkigu gogora: illen artetik irugarren egunean otspez beterlk biztuez eta guztioi zeruko ateaq zabaldurik, Berak azpiratu eban eriotza-ta.

Eskiñi daiogun orain Aita Jaungoikoarí bere Seme Jesukristo'k eskiñi eutsan Opari benbera: MEZA SAN-TUA. Eta eskatu daiogun guztiok emon dagiola gure N.'ri zeru goietan Jesukristo'gaz bizi izateko zoriona.

Abadea altaraxa datorren biitantean, zutitu gaitezan guztiok.

Abesariakas batera, esan begi bakotxak bere barruan: «Emon egiozu, Jauna, betilko atsedena; ta betiko argiak argi egin begio.»

Abadeak «Oremus» esandakoan.—Eskatu daiogun Jaunari gure N.'rentzat errukia ta parkamena, Aingeru arfcean zei'uko atsegiñetara lenbaileiri joan dadin.

EpiscoHa__jaungoikoaren izenean, S. Paulo Aposto-
luak itxarropenezko barri pozgarria dakarkigu irakurgai
onetan. Jesus'en altzoan il diranaik, Aita Jaungoikoak
Jesukristo'gaz zeruraituko dauz. Geu be bai'dim egingo
gaitu, eriotza ona izaten ba'dogu.

Barri Ona.—Bta orain EbanjeJioan, Jesukristo ber-
bera berbetan. Lau egunean lurpean, ustelduta, atsa
eriola egoan Lazaro, biztu aurretik. Marta, Lazaro'ren
arrebeagaz Jesukristo'k izan efoan alkar-izketa azaltzen
dasku Ebanjelioak. Azkeniik ez dauan bizitza agintzen
dasku guzitioi: krisitaua ez dala betiko ilten; eriotza-
rer. toidez, toetikotasunean bdi izateko baiño.

Eskintza. — (*Abadeak Oremus esanda gero*). — Opil
zuria egiteko, gari-garau asko bear dira; ardaoa egifce-
ko be, mats-garau asko. Olantxe, sendi edo familia
osotzeko be, gurasoakaz seme-alafok bear dira; ta
Eziftoarrutia egiteko, famili aisko. Sinismen baten bizi
gareanok, alkar arturik, otoitz egin daigun gaur arte
geure anai ta adiskide izan dan N.'ren alde. Beraz,
bakotxak eskiñi begioz Jaunari bere naigalbe, atsekatoe,
egite on eta otoitz beroak,

Prefazio-aurretik.—Abadeagaz alkaturik, eskerrak
emon daioguzan Aita Jaungoikoari, bere Semg Jesu-
kristo'gaz bftzuera goragarri toaten itxaropena emon
daustoulaiko, Il-bearrak, samieñz beterik izten gaitu;
baiña bizia galdu >&z, aldatu bakarrik egiten yakufia ja-
kitaik, poztu egin bear gaitu.

Atoadeairen otoitz sakon eta eder oneaz obeto al-
kartzeko, zutitu gaitezkan guztiok.

«Sanctus» abestuta gero. — Oogora ekarri dagízala
Jaungoikoak emen gagozan guztiok; baita gure gu-
raso, etxeko, senide ta adiskide guztiak be. Goautu
iagiala Jaungoikoak, apurtxo bat izanda be, eriotzak
>ñ utosik itzi dauan etxea.

Mem gogx>rapenean.—Gogoraitu dagizala Jaungoi-
koak gure artetik eriotzak eroan dauzan guztiak,
batez be gaur arte geure kristau-lagun izan dan N.
Artu dagiela guztiak zoriona, angitasuna ta bakea zeru
ederrean.

«Pater noster» aoirretik.—Jesus'elk' irakaisitako otoi.
tza afaestu bear dau orain abadeak. Eskatu daiogun
Jaungoikoari egunoroko ogia, batez toe «Ogi zerutik
etorria». Ikasi daigun alkarren uts-egite ita iraiñak
parkatzen, Jaungoikoak geure pekatuak parkatzea nai
ba'dogu beintzat.

Abadearen Jajunartze-oste.a.n.—Abeslariakaz batera,
esan dagigun guztiok: Zeruko argiak argi @gin begio
gure N.Iri, Aingeru artean, betikotasunean.


Azken «Oremus» esatean.—Eskatu daiogun Jaungoi-
koari, orain eskiñi dautsagun Me'zako Opari onek,
N.'ren arimea pekatu-ortoan guztietatik garbitu da-
giala, lenbailen zeruratu daiten.

((Non inities» anrrre'tik.—Amaitu dogu Meza-Oparia.
Gure N.'ri guk emen lurretik eskiñi daikeogun egintza-
rik jatorrena ta bikaiñena eskiñi dautsagu. Ez daki-
gula aztu bere izena guire otoitzetan.

Eta orain, gure Eliza Amak gorpu oni azken-agurra
egingo dautso, urrengo otoitzen bidez.

Ikusi ta ikasi daigun Bliza Amak kristau-gorpuari
dautsan begirune ta lotsa aundia. Bateoaz Kristo'ren
imenpeko egin zan ezkeru, Jesu'kristo'gaz bat eginda
bizi izan dalako, aba'deak intzentzu-luraun gozoa
emongo dautso in'guiruan gorpu oni; eta orrexegaitik,
santurik aundienaren gorpuzkin edo erlikiari zor ya-
kon gorapen berbera emoten dauteo. (Zutik guztiok).

(dn paradisuim» aurretik.—Obitegira (kanposantura)
goaz orain. Eskatu daiogun Jaungoikoari, guk gorpu
au lepo-gaiñean artzen dogun lez, N.'ren arimea be
sartu daitela Aingeru-arteon zenu eder-zabalean.



BILLABIDEAK

Orrialdea

I. BILLABIDE NAGUSIA

Itzaurre-antzerak	7
Eguneroko Otoitzak	10
Elfiz-urteko Mezak	2)
fitiezaren betiko zatia	214
Era bateko Mezak	458
Santuen Atala	510
Bizkaiko Elfizbarrutiko Egutegiak dakazan Santu batzuen Mezak	801
Euskalerriko Santu batzuk	807
Oneraspen-Mezak	818
Meza-otoitz batzuk	828
Ildakoen Mezak	843
Illen alde Otoitz batzuk	843
Illen Mezatarako erriari azalpena	845

II. BILLABIDE BEREZIA

JESUKRISTO GURE JAUNAREN JAIAK

Agerkunde edo Erregen (<i>urtarril. 6.</i>)	62
Gorpuzti	330
Gurutze Santuaren Garaipena (<i>irail. 14.</i>)	733
Irudialdatzea (<i>dagonil. 6.</i>)	694
Irutasuna	325
Jaiotza (<i>gabonil. 25.</i>)	49
Jaiotza-aurreguna edo Gabon (<i>gabonil. 24.</i>)	37
Jaiotza-zortzigarrena (<i>urtarril. 1.</i>)	5'

Jesus'en Biotza	337
Jesus'en Izen guztiz Deuna (<i>urtarril. 2</i>)	59
Jesus'en Odol guztiz Ederra (<i>garil. 1</i>)	657
Kristo'ren Bateoaren Gogorapena (<i>urtarril. 13</i>)	70
Kristo Erregeren Jaia	776
Pazko	272
Pentekoste	312
Salbatzailearen Basilika Nagusia (<i>azil. 9</i>)	787
Sendi Deuna	66
Zerura Igokunde	305

ANDRA MARIA'REN JAIAK

Amatasuna (<i>urril. 11</i>)	762
Arantzazu'ko Andra Mari (<i>irail. 9</i>)	814
Begoña'ko Andra Mari (<i>urril. 11</i>)	762 ta 806
Biotz guztiz Garbia (<i>dagonil. 22</i>)	711
Edurtzetakoa (<i>dagomil. 5</i>)	C94
Elisabet'i egin eutsan Ikustaldia (<i>garil. 2</i>)	659
Elizan eskiñia (<i>azil. 21</i>)	795
Erregiña (<i>orril. 1</i>)	624
Errosariokoa (<i>urril. 7</i>)	756
Garbikunde edo Elizan Sartzea (<i>otsail. 2</i>)	548
Izen guztiz Deuna (<i>irail. 12</i>)	732
Jaiotza (<i>irail. 8</i>)	725
Jesus'en Gizakunde	584
Karmel-mendikoa (<i>garil. 16</i>)	671
Mesedetakoa (<i>irail. 24</i>)	745
Orbanbagearen Agertzea (<i>otsail. 11</i>)	560
Sortze Garbia (<i>gabonil. 8</i>)	521
Zazpi Naigabeak (<i>Nekaldi-barikua</i>)	189
Zazpi Naigabeak (<i>irail. 15</i>)	735
Zerura Jasokunde (<i>dagonil. 15</i>)	704

SANTUEN ATALA

Abakuk (<i>urtarril. 19</i>)	531
Abdon (<i>garil. 30</i>)	587
Adauko (<i>dagonil. 30</i>)	723
Adrian (<i>irail. 8</i>)	725
Agapito (<i>dagomil. 6</i>)	695
Agapito (<i>dagonil. 18</i>)	708
Ageda (<i>otsail. 5</i>)	554
Agrikola (<i>azil. 4</i>)	736
Agustin (<i>dagonil. 28</i>)	719
Agustin Kanterburi'koa (<i>orril. 28</i>)	621
Aingeru Zaindaria (<i>urril. 2</i>)	751
Akiles (<i>orril. 12</i>)	612
Albevtu Aundia (<i>azil. 15</i>)	793
Alejo (<i>garil. 17</i>)	672

Alexander I (<i>orril. 3</i>)	606
Alfonso Mari Liguori (<i>dagonil. 2</i>)	691
Amabi Anai Martiri (<i>irail. 1</i>)	725
Ana, Andra Maria'ren Ama (<i>garil. 26</i>)	684
Anastasia (<i>gabonil. 25</i>)	42
Anastasio (<i>urtarril. 22</i>)	535
Anbrosio (<i>gabonil. 7</i>)	519
Ander (<i>azil. 30</i>)	510
Ander Abelino (<i>azil. 10</i>)	788
Ander Corsini (<i>otsail. 4</i>)	554
Anjela Merizi (<i>orril. 31</i>)	627
Anizeto (<i>jorrail. 17</i>)	593
Anselmo (<i>jorrail. 21</i>)	593
Anton, abata (<i>urtarril. 17</i>)	531
Antonino (<i>orril. 10</i>)	609
Antonio Mari Claret (<i>urril. 23</i>)	771
Antonio Mari Zakarias (<i>garil. 5</i>)	663
Antonio Padua'koa (<i>bagil. 13</i>)	635
Apolonia (<i>otsail. 9</i>)	559
Apolinar (<i>garil. 9</i>)	680
Apuleio (<i>urril. 8</i>)	758
Atanasio (<i>orril. 2</i>)	604
Audifax (<i>urtarril. 19</i>)	531
Bako (<i>urril. 8</i>)	758
Balendin (<i>otsail. 14</i>)	564
Balendin Berrio-Otxoa (<i>garil. 4</i>)	663 ta 804
Baleiiano (<i>jorrail. 14</i>)	591
Barbara (<i>gabonil. 4</i>)	515
Bartolome (<i>dagonil. 24</i>)	714
Basilide (<i>bagil. 12</i>)	634
Basilio Aundia (<i>bagil. 14</i>)	635
Beatriz (<i>garil. 29</i>)	686
Beda Agurgarria forrtl. 27)	621
Benantzio (<i>orril. 18</i>)	616
Bentzeslao (<i>irail. 28</i>)	747
Beremundo, Iratxe'koa (<i>epail. 11</i>)	808
Bernabe (<i>bagil. 11</i>)	632
Bernardino Siena'koa (<i>orril. 20</i>)	617
Bernardo (<i>dagonil. 20</i>)	TM9
Bervogei Santu Martiriak (<i>epail. 10</i>)	578
Bibiana (<i>gabonil. 2</i>)	512
Bital (<i>azil. 4</i>)	786
Bito (<i>bagil. 15</i>)	631
Bitor (<i>garil. 28</i>)	685
Bizente (<i>urtarril. 22</i>)	535
Bizente Ferrer (<i>jorrail. 5</i>)	589
Bizente Paul (<i>garil. 19</i>)	674
Blas (<i>otsail. 3</i>)	553
Bonabentura (<i>garil. 14</i>)	669
Bonifazio, martiria (<i>orril. 14</i>)	614
Bonifazio, gotzain eta mart. (<i>garil. 5</i>)	629
Brijida (<i>urril. 8</i>)	538

Orrialdea

Bruno (urrit. 6).....	756
Damaso (gabonil. 11).....	523
Damian (irail. 27).....	746
Daria (urrit. 25).....	773
Diego (azil. 13).....	791
Dionisio (urrit. 9).....	760
Domingo (dagonil. 4).....	693
Domitila (orril. 12).....	612
Donato (dagonil. 7).....	696
Dorotea (otsail. 6).....	557
Ebaristo (urrit. 26).....	774
Ebentzio (orril. 3).....	606
Eduardo (urrit. 13).....	764
Edubijis (urrit. 16).....	765
Eleuterio, Aita S. ta Mart. (orril. 26).....	619
Eleuterio, martiri (urrit. 9).....	760
Emerentziana (urtarril. 23).....	536
Emeterio (epail. 3).....	807
Enrike (garil. 15).....	670
Epimako (orril. 10).....	609
Epren (bagil. 18).....	638
Erasmus (bagii. 2).....	627
Erraimun Pitero'koa (epail. 15).....	808
Erraimundo Peñafort (urtarril. 23).....	536
Erramon Nonato (dagonil. 31).....	724
Erremijio (urrit. 1).....	751
Ermenegildo (jorrait. 13).....	590
Erroberto Belarmino (orril. 13).....	613
Erroman (dagonil. 9).....	698
Erromualdo (oisaiU 7).....	557
Errose (dagonil. 30).....	723
Errupina (Rufina) (garil. 10).....	667
Eskolastika (otsail. 10).....	560
Esmaragdo (dagonil. 8).....	697
Estanislao (orril. 7).....	607
Esteban, errege (irail. 2).....	725
Esteban, Aita S. ta Mart. (dagonil. 2).....	691
Esteban, len-martiria (gabonil. 26).....	46
Esteban, Zudaire'koa (garil. 15).....	813
Eufemia (irail. 16).....	738
Eusebio, gotzain eta mart. (gabonil. 16).....	525
Eusebio, autorle (dagonil. 14).....	702
Eustakio ta Lagun Martiriak (irail. 20).....	741
Fabian (urtarril. 20).....	532
Faustino (otsail. 15).....	565
Faustino (garil. 29).....	686
Felipe, Apost. (orril. 11).....	610
Felipe Neri (orril. 26).....	619
Felipe Benito (dagonil. 23).....	714
Felix, abade (urtarril. 14).....	528
Felix, Aita S. (garil. 29).....	686
Felix, mart. (garil. 12).....	668

Orrialdea

Felix, mart. (dagonil. 30).....	723
Felix I (orril. 30).....	623
Felix Valois (azil. 20).....	795
Feliziano (bagil. 9).....	631
Felizismo (dagonil. 6).....	695
Felizitas (azil. 23).....	797
Fidel Sigmaringen (jorrait. 24).....	594
Gabirel Goiangerua (epail. 24).....	582
Gabirel, Ama Naigabetuarena (otsail. 27 edo 28).....	571
Gillermo (bagil. 25).....	648
Gordiano (orril. 10).....	609
Gorgonio (irail. 9).....	730
Gorka (Jorje) (jorrait. 23).....	594
Gregorio VII (orril. 25).....	618
Gregorio Aundia (epail. 12).....	578
Gregorio Nazianzo'koa (orril. 9).....	608
Gregorio mirarigille (azil. 17).....	794
Gregorio Barbadiko (orril. 8).....	638
Hermes (dagonil. 28).....	720
Ijiniio (urtarril. 11).....	64
Ilario (urtarril. 14).....	527
Ilarion (urrit. 21).....	771
Iñaki (Iñazio), Loiola'koa (garil. 31).....	688
Iñazio, gotzain eta mart. (otsail. 1).....	546
Ines (urtarril. 21).....	534
Ines (urtarril. 28).....	542
Inozentzio I (garil. 28).....	685
Ipolito, martiria (dagonil. 13).....	701
Ipolito, gotzain eta mart. (dagonil. 22).....	711
Ireneo (garil. 3).....	661
Isabel, erregina (garil. 8).....	666
Isabel Hungaria'koa (azil. 19).....	794
Isidor (jorrait. 4).....	588
Jazinto, Aita S. (dagonil. 17).....	708
Jazinto, martiria (irail. 11).....	731
Jeminiano (irail. 11).....	738
Janaro (irail. 19).....	741
Jerbasio (bagil. 19).....	039
Jeronimo (irail. 30).....	750
Jeronimo Emiliano (garil. 20).....	675
Jertrudis (azil. 16).....	793
Jil (irail. 1).....	725
Joakin (dagonil. 16).....	706
Jobita (otsail. 15).....	565
Jon, mart. (bagil. 26).....	648
Jon, Apostolua (gabonil. 27).....	49
Jon I (orril. 27).....	621
Jon Bateatzaillearen Jaiotza (bagil. 24).....	646
Jon Bateatzaillearen Aurreguna (bagil. 23).....	643
Jon Bateatzaillearen Sama Ebagitea (dagonil. 29).....	721

Orrialdea

Jon Bautista Salle'koa (<i>orril.</i> 15)	615
Jon Bosko (<i>urturril.</i> 31)	544
Jon Damasko'koa (<i>epail.</i> 27)	586
Jon Eudes (<i>dagonil.</i> 19)	708
Jon Gualberto (<i>garil.</i> 12)	668
Jon Gurutzekoa (<i>azil.</i> 24)	798
Jon Jaungoikoarena (<i>epaii.</i> 8)	577
Jon Kapistrano (<i>epail.</i> 28)	587
Jon Kenty (<i>urril.</i> 20)	769
Jon Krisostomo (<i>urtarril.</i> 27)	541
Jon Leonardi (<i>urril.</i> 9)	759
Jon Maiorga (<i>garil.</i> 15)	813
Jon Mari Vianney (<i>dagonil.</i> 8)	697
Jon Mata (<i>otsail.</i> 8)	558
Jon Sahagun'goa (<i>bagil.</i> 12)	634
Jone Prantziška F. Chantal (<i>dagonil.</i> 21)	709
Josapat (<i>azil.</i> 14)	791
Jose, Andra Marla'aren Senarra (<i>epail.</i> 19)	580
Jose, Langillea (<i>orril.</i> 1)	602
Jose Kalasanz (<i>dagonil.</i> 27)	718
Jose Kupertino (<i>irail.</i> 18)	739
Jubenal (<i>orril.</i> 3)	606
Judas (<i>urril.</i> 28)	774
Juliana Falkonieri (<i>bagil.</i> 19)	639
Justina (<i>irail.</i> 26)	745
Justino (<i>jorrail.</i> 14)	590
Kaletano (<i>dagonil.</i> 7)	696
Kaio (<i>jorrail.</i> 22)	593
Kalixto I (<i>urril.</i> 14)	764
Kamilo Lelis (<i>garil.</i> 18)	672
Kanuto (<i>urtarril.</i> 19)	531
Karlos Borromeo (<i>azil.</i> 4)	786
Kasiano (<i>dagonil.</i> 13)	701
Kasimiro (<i>epail.</i> 4)	574
Katalin, birj. ta mart. (<i>azil.</i> 25)	799
Katalin Siena'koa (<i>jorrail.</i> 30)	600
Klara (<i>dagonil.</i> 12)	701
Klemente (<i>azil.</i> 23)	797
Kleto (<i>jorrail.</i> 26)	597
Kornelio (<i>irail.</i> 16)	738
Kosme (<i>irail.</i> 27)	746
Kresentzia (<i>bagil.</i> 15)	637
Krisanto (<i>urril.</i> 25)	773
Krisogono (<i>azil.</i> 24)	798
Kristina (<i>garil.</i> 24)	682
Kristobal (<i>garil.</i> 25)	682
Largo (<i>dagonil.</i> 8)	697
Lau Santu Mart. koroiz jantziak (<i>azil.</i> 8)	787
Leon I (<i>jorrail.</i> 11)	589
Liborio (<i>garil.</i> 23)	680
Lino (<i>irail.</i> 23)	744
Lorentzo (<i>dagonil.</i> 10)	699

Orrialdea

Lorentzo Aurreguna (<i>dagonil.</i> 9)	698
Lorentzo Brindis'koa (<i>garil.</i> 21)	677
Lorentzo Justiniano (<i>irail.</i> 5)	728
Lukas (<i>urril.</i> 13)	767
Luis, errege (<i>dagonil.</i> 25)	716
Luis Gonzaga (<i>bagil.</i> 21)	640
Lutzi, birj. ta mart. (<i>gabonil.</i> 13)	524
Lutzi, mart. (<i>irail.</i> 16)	738
Luzio I (<i>epail.</i> 4)	574
Makabeu Anaiak (<i>dagonil.</i> 1)	691
Margarita Eskozia'koa (<i>bagil.</i> 10)	631
Margarita, birj. ta mart. (<i>garil.</i> 20)	675
Margarita Mari Alakoke (<i>urril.</i> 17)	766
Mari Madalen, damutua (<i>garil.</i> 22)	678
Mari Madalen Pazzis (<i>orril.</i> 29)	623
Mario (<i>urtarril.</i> 19)	531
Markel I (<i>urtarril.</i> 16)	530
Markos, Aita S. (<i>urril.</i> 7)	757
Markos, mart. (<i>bagil.</i> 18)	638
Markos, Ebanjelaria (<i>jorrail.</i> 25)	595
Marta, birj. (<i>garil.</i> 29)	686
Marta, mart. (<i>urtarril.</i> 19)	531
Martin, gotzain (<i>azil.</i> 11)	789
Martin I (<i>azil.</i> 12)	791
Martin Igokundearena (<i>otaail.</i> 5)	807
Martina (<i>uriarrii.</i> 30)	544
Martiniano (<i>garil.</i> 2)	659
Martzeliano (<i>bagil.</i> 18)	638
Martzeliano, abade ta mart. (<i>bagil.</i> 2)	627
Martzelino, Aita S. ta mart. (<i>jorrail.</i> 26)	597
Martzelo (<i>urril.</i> 8)	758
Martzelo I (<i>urtarril.</i> 16)	530
Mateo (<i>irail.</i> 21)	742
Matias (<i>otsail.</i> 24 edo 25)	569
Maurizio ta Lagun Martiriak (<i>irail.</i> 22)	743
Mauro (<i>urtarril.</i> 15)	528
Maximo (<i>jorrail.</i> 14)	591
Melkiades (<i>gabonil.</i> 10)	523
Mena (<i>azil.</i> 11)	789
Metodio (<i>garil.</i> 7)	665
Mikel Goiaingeruaren Eskintza (<i>irail.</i> 29)	748
Mikel Garaikoetxea (Garikoitz) (<i>orril.</i> 14)	810
Modesto (<i>bagil.</i> 15)	637
Monika (<i>orril.</i> 4)	G06
Nabor (<i>garil.</i> 12)	668
Nazario (<i>garil.</i> 28)	685
Nazario (<i>bagil.</i> 12)	634
Nereo (<i>orril.</i> 12)	612
Nikolas (<i>gabonil.</i> 6)	517
Nikolas Tolentino (<i>irail.</i> 10)	731
Nikomedes (<i>irail.</i> 15)	735

Ninfa (<i>azil.</i> 10).....	788
Norberto (<i>bagil.</i> 6).....	631
Pankrazio (<i>orril.</i> 12).....	612
Pantaleon (<i>garil.</i> 27).....	685
Paskual Bailon (<i>orril.</i> 17).....	616
Patrizio (<i>epail.</i> 17).....	579
Paulino Nola'koa (<i>bagil.</i> 22).....	641
Paulo, Apostolua (<i>bagil.</i> 30).....	654
Paulo, Kristo'gana Biurtzea (<i>urtarril.</i> 25).....	537
Paulo, mart. (<i>bagil.</i> 26).....	648
Paulo.len-Bakartzalea (<i>urtarril.</i> 15).....	528
Paulo, Gurutzekoa (<i>gorrail.</i> 28).....	598
Permin (<i>garil.</i> 7).....	812
Perpetua (<i>epail.</i> 6).....	575
Pedro, mart. (<i>bagil.</i> 2).....	627
Pedro Alexandria'koa (<i>azil.</i> 26).....	800
Pedro Alkantara (<i>urril.</i> 19).....	769
Pedro Berona'koa (<i>gorrail.</i> 29).....	600
Pedro Damian (<i>otsail.</i> 23).....	568
Pedro Kanisio (<i>gorrail.</i> 27).....	597
Pedro Krisologo (<i>gabonil.</i> 4).....	515
Pedro Nolasko (<i>urtarril.</i> 28).....	542
Pedro ta Paulo, Apostoluak (<i>bagil.</i> 29).....	652
Pedro ta Paulo, Basiliiken Eskintza (<i>azil.</i> 18).....	794
Pedro'ren Eliz-Irakastegia (<i>otsail.</i> 22).....	566
Pedro Zelestino (<i>orril.</i> 19).....	617
Perpetua (<i>epail.</i> 6).....	575
Petronila (<i>orril.</i> 31).....	624
Pio I (<i>garil.</i> 11).....	668
Pio V (<i>orril.</i> 5).....	607
Pio X (<i>irail.</i> 3).....	726
Plazido ta Lagun Mart. (<i>urril.</i> 5).....	756
Polikarpo (<i>urtarril.</i> 26).....	540
Pontziano (<i>azil.</i> 19).....	795
Prantziska Erromatarra (<i>epail.</i> 9).....	577
Prantziska, Asis'koa (<i>urril.</i> 4).....	754
Prantzisko'ren Zauriak (<i>irail.</i> 17).....	739
Prantzisko Borja (<i>urril.</i> 10).....	761
Piantzisko Caraociolo (<i>bagil.</i> 4).....	628
Prantzisko Paula (<i>gorrail.</i> 2).....	588
Prantzisko Sales (<i>urtarril.</i> 29).....	543
Prantzisko, Xabier'koa (<i>gabonil.</i> 3).....	513
Praxedes (<i>garil.</i> 21).....	677
Primo (<i>bagil.</i> 9).....	631
Priska (<i>uriarril.</i> 18).....	531
Protasio (<i>bagil.</i> 19).....	639
Proto (<i>irail.</i> 11).....	731
Prozesio (<i>garil.</i> 2).....	659
Prudentzio (<i>gorrail.</i> 28).....	809
Pudentziana (<i>orril.</i> 19).....	617

Rafael (<i>urril.</i> 24).....	772
Respizio (<i>azil.</i> 10).....	788
Riktrudis (<i>orril.</i> 12).....	810
Rosa, Lima'koa (<i>dagonil.</i> 30).....	723
Rufina (<i>garil.</i> 10).....	667
Rustiko (<i>urril.</i> 9).....	760
Sabas (<i>gabonil.</i> 5).....	517
Sabina (<i>dagonil.</i> 29).....	721
Santiago (<i>garil.</i> 25).....	682
Santiago, gaztea (<i>orril.</i> 11).....	610
Santu Guztien Eguna (<i>azil.</i> 1).....	779
Saturnino (<i>azil.</i> 29).....	510
Sebastian (<i>urtarril.</i> 22).....	532
Sekunda (<i>garil.</i> 10).....	667
Senen (<i>garil.</i> 30).....	687
Serjio (<i>urril.</i> 8).....	758
Silberio (<i>bagil.</i> 20).....	639
Silbestre, abata (<i>azil.</i> 26).....	799
Silbestre, Aita S. (<i>gabonil.</i> 31).....	57
Simeon (<i>otsail.</i> 18).....	565
Simon (<i>urril.</i> 28).....	774
Sinplizio (<i>garil.</i> 29).....	686
Sinforiano (<i>dagonil.</i> 22).....	711
Sinforosa (<i>garil.</i> 18).....	673
Sixto II (<i>dagonil.</i> 6).....	695
Sotero (<i>gorrail.</i> 22).....	593
Susana (<i>dagonil.</i> 11).....	701
Tekla (<i>irail.</i> 23).....	744
Telesporo (<i>urtarril.</i> 5).....	61
Teodoro (<i>azil.</i> 9).....	787
Teodulo (<i>orril.</i> 3).....	606
Teresa, Jesus Umearena (<i>urril.</i> 3).....	752
Teresa, Jesus'ena (<i>urril.</i> 15).....	765
Tiburtzio (<i>gorrail.</i> 14).....	591
Tiburtzio (<i>dagonil.</i> 11).....	537
Timoteo, gortzain eta mart. (nr/farrif. 24).....	707
Timoteo, mart. (<i>dagonil.</i> 22).....	711
Tito (<i>otsail.</i> 6).....	557
Tomas Akino (<i>epail.</i> 7).....	576
Tomas, Apostolua (<i>gabonil.</i> 21).....	525
Tomas Kanterbury'koa (<i>gabonil.</i> 29).....	56
Tomas Villanueva (<i>irail.</i> 22).....	743
Tomas Zumarraga (<i>irail.</i> 13).....	816
Trifon (<i>azil.</i> 10).....	788
Ubaldo (<i>orrif.</i> 16).....	615
Ume Martiri Errubageak (<i>gabonil.</i> 28).....	51
Urbano I (<i>orril.</i> 25).....	618
Ursula ta Lagunak (<i>urril.</i> 21).....	771

Orial(ika

Zazpi Autorle Santuak (<i>otsail.</i> 12)	562
Zazpi Anai Martiriak (<i>garil.</i> 10)	687
Zehirino (<i>dagonil.</i> 26)	718
Zeledonio (<i>epail.</i> 3)	807
Zelso (<i>garil.</i> 22)	685
Zezilia (<i>azil.</i> 22)	796
Zintzo il diranen Gogorapena (<i>azil.</i> 2)	782
Ziriako (<i>dagonil.</i> 8)	697
Zirilo (<i>garil.</i> 7)	685
Zirilo Alexandria'koa (<i>otsail.</i> 9)	558
Zirilo Jerusalem'goa (<i>epail.</i> 18)	579
Zirino (<i>bagil.</i> 12)	634
Zipriano, gotzain (<i>irail.</i> 16)	738
Zipriano, mart. (<i>irail.</i> 26)	745

ILDAKOEN MEZAK

Norbait il dan egunerako	833
Urteurreneko Meza	83g
IUen eguneroko Meza	g41
Ildakoen alde Otoitz batzuk	g43
Illen Mezatarako erriari azalpena	^

Bizkai'ko Elizbarrutiko Egutegiak dakazan Santu batzuen Mezak	801
Euskalerrri'ko Santu batzuk	807

ONERASPEN-MEZAK

Gure Jaun Jesukristo Abade Nagusi ta Betikoaren Meza...	818
Jesus'en Biotzaren Meza	820
Andra Maria'ren Biotz guztiz Garbiaren Meza	820
Sinismen-Zabalkunde Meza	821
Ezkontza	823
Ezkon-Meza	825

MEZA-OTOITZAK

Krístau-batasunaren alde	828
Jazarleen alde	828
Bazkun baten alkartasunaren iraupenerako	828
Edozein atsekabetan	829
Euria eskatzeko	829
Atsekabeetan eroapena eskatzeko	829
Arerioen alde	830
Giltzapekoen alde	830
Edozein bearrizanetan	831
Bakea eskatzeko	831
Eskerrak emoteko	832